



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
University of the Basque Country

Dotrinazko Sermoitegia:
galduriko hizkerak eta dialektologia
historikoa

Doktorego tesia

Koldo Ulibarri Orueta
(2015)

Zuzendaria:
Blanca Urgell Lázaro

Aurkibidea

1. Sarrera Orokorra.....	ix
1.1. Tesiaren historia	ix
1.1.1. Bizi esperientziak, tesiaren aurrekari.....	ix
1.1.2. Tesiaren ibilbidea: arrats beran eta bide barriak.....	x
1.1.3. Eskerrak	xiii
1.2. Tesiaren laburpena.....	xv
2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia.....	3
2.1. Hizkuntzalaritza historikoa vs dialektologia: erlazio gazi-gozoa.....	6
2.1.1. Erlazioaren nondik norakoak.....	6
2.1.2. Euskal diakronia eta dialektologia zertan diren.....	11
2.2. Dialektologia historikoa: jakintza <i>continuum</i> -a.....	18
2.2.1. Zenbait kontzeptu argituz: dialekto vs isoglosa	22
2.2.2. Dialektologia historikoaren arazoak.....	26
2.2.2.1. Filologiaren beharra.....	26
2.2.2.2. Sinkronia eta diakronia.....	31
2.2.3. Dialektologia historikoaren helburuak	34
2.2.3.1. Ikerketa diakronikoa eta hizkuntza aldaketa	34
2.2.3.2. Dialektoen sailkatzeaz: zuhaitzen teoriaz	36
2.2.3.3. Aldakortasuna eta dialektalizazioa: deskribapena.....	38
2.2.3.4. Bazter hizkerak	42
2.2.3.5. Soziolinguistika historikoa	44
2.2.3.6. Hizkuntza heriotza.....	45
2.2.3.4.1. Dialekto heriotza	47
2.3. <i>Status questionis</i> : Euskararen diakronistek dialektologiaz.....	48
2.3.1. Mitxelena aurreko garaia	48
2.3.2. Koldo Mitxelenaren ekarria.....	53
2.3.3. Mitxelena osteko garaia.....	57
2.4. Gure tesiaren nondik norakoak.....	58
2.4.1. Corpusa.....	59

2.4.1.1. Testu dialektalak.....	59
2.4.1.2. Materialak eta euren erabileraz.....	64
2.4.1.3. Kokatu gabeko testuak: kokatze teknikaz	69
2.4.1.3.1. Kokatze historikoa.....	71
2.4.1.3.2. Kokatze geografikoa.....	72
2.4.1.3.3. Bestelako baliabideak	74
2.4.1.4. Literatur hizkuntza.....	75
2.4.1.5. Material osagarriez: toponimia eta hondar hitzak	78
3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak	83
3.1. Eremuaren geografia.....	84
3.1.1 Muga lurraldea eta mugetako hizkera	86
3.2. Mendebaldeko euskalkien Hego-sartaldeko hizkerak:	
Galera baten historia	90
3.2.1. Mugak Erdi Aroan	90
3.2.2. Galera: hizkuntzaren kanpo historia	94
3.2.3. Laburbilduz: Euskararen mugak 1750. urte inguruan	102
3.3. Hego sartaldeko hizkeren sailkapenen ibilbide historikoa	102
3.3.1. Bonaparte baino lehenagoko sailkapenak.....	103
3.3.2. XIX. mendea: Zabala eta Bonaparte.....	104
3.3.3. XX. mendeko sailkapenak: Bonaparteren ildoak	107
3.3.4. Mitxelenak eragindako ikuspegi aldaketa	107
3.3.5. Arabako euskararen beharraz: J. A. Lakarra	108
3.3.6. Egungo dialektologoek ekarria:	
Zuazo, Aurrekoetxea, Gaminde.....	110
3.3.7. Azken ekarpenak	112
3.4. Hego sartaldeko hizkerak aztertzekeo materiak.....	113
3.4.1. Euskara arkaikoa (?-ca.1600) eta Zaharra (ca1600-1745).....	114
3.4.2. Lehen euskara Modernoa (1745-1891).....	116
4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia.....	121
4.1. Testuaren deskribapena	122
4.1.1. Deskribapen fisikoa	122

4.1.2. Data.....	126
4.1.3. Sermoitegiaren gaia eta egitura	128
4.2. Testuaren hizkeraren azterketa	130
4.2.1. Grafia eta hotsak.....	131
4.2.1.1. Azentuak.....	131
4.2.1.2. <h> grafema.....	133
4.2.1.3. <j> eta <y>	134
4.2.1.4. Txistukariak: islapena eta neutraltzea.....	136
4.2.1.5. Bokal bikoitzak.....	139
4.2.1.6. Bokal sudurkarien itzala	144
4.2.1.7. <i>RUI</i> erregela.....	147
4.2.1.8. Bokal eufoniak.....	150
4.2.1.9. Diptongoak: bakuntzeak/gordetzeak eta <i>-ien-</i> > <i>-in-</i> bilakabidea	152
4.2.1.10. Kontsonante sabaikariak.....	153
4.2.1.11 Akatsak zuzentzeko baliabideak.....	157
4.2.2. Morfologia	158
4.2.2.1 Ablatiboa	158
4.2.2.2 Prosekutiboa eta motibatiboa	160
4.2.2.3 Genitiboa	161
4.2.2.4 Datiboa	163
4.2.2.5 Hurbiltze adlatiboa	164
4.2.2.6 muga adlatiboa.....	165
4.2.2.7 Destinatiboa	168
4.2.2.8. Artikulu zaharra eta zenbait berrikuntza berezi.....	168
4.2.3. Aditz Sistema	171
4.2.3.1 Partizipioak: <i>-adu/-idu</i> > <i>-au/-iu</i> eta <i>-a</i> partizipioak edo aditzoinak	171
4.2.3.2 Aditz-izenak.....	174
4.2.3.3 Adizkietako pluralgileak	176
4.2.3.4 <i>a/e</i> oposaketa adizki bi eta hiru pertsonako adizkietan	180
4.2.3.5. <i>l-</i> aurritzia.....	181
4.2.3.6 <i>-te</i> / <i>-ke</i> atzizkiak	183
4.2.3.7. Subjuntibo zaharrak	186

4.2.3.8 helburuzko perpausetako <i>-tzat</i>	186
4.2.3.9 baldintzak	187
4.2.3.9.1 protasiak	187
4.2.3.9.2 apodosiak	191
4.2.3.10 <i>deunso</i> ‘deutso’ erako adizkiak	192
4.2.3.11 Aditz uzkurdurak	194
4.2.3.12 <i>zu</i> -ren plural adiera	195
4.2.3.13. * <i>ezan</i> vs. <i>egin</i>	197
4.2.3.14. <i>jakin</i> laguntzailea	198
4.2.3.15 lehenaldi narratiboa: aoristoa	198
4.2.3.16 Ohiturazko perifrasiak	201
4.2.4. Sintaxia	202
4.2.4.1 <i>-rik asko</i> egitura	202
4.2.4.2. Komunztadurak	203
4.2.4.3. Artikuluaren erabilera	206
4.2.4.4. Hitz ordenak: genitiboak, erlatiboak eta ezezko perpausak	207
4.2.4.5. Linchsmann-Aresti legea	211
4.2.4.6. Ahaleraz: <i>ezin</i> eta <i>ahal</i> partikulak	213
4.2.4.7. Desira perpausak: <i>oxala</i>	215
4.2.4.8 <i>-ten</i> vs. <i>-tera</i> mugimenduzko aditzetan	215
4.2.4.9. Perpaus osagarrietako lotura atzizkia: <i>-la</i> vs. <i>-na</i>	216
4.2.4.10 <i>eze</i> ezezko adizlaguna	216
4.2.4.11 <i>zein</i> partikula	217
4.2.5. Aldaera lexikoak	219
4.3. Dotrinazko Sermoitegiko literatur eragina edo sermoigintzaren testuingurua	223
4.3.1. XVIII. mendeko Hegoaldeko (euskal) sermoigintzaz	224
4.3.1.1. Dotrinazko Sermoitegiaren iturriak	226
4.3.2. Euskal sermoigintza eta literatura	235
4.3.2.1 Dotrinazko Sermoitegia eta XVIII. mendeko gainerako idazkiak	242
4.3.2.1.1 Grafia sistema eta literatur eragina	245
4.3.2.1.1.1 Literatur hizkuntzaren grafia	

berrikuntzak sermoitegian	247
4.3.2.1.1.1 Txistukarien islapena.....	247
4.3.2.1.1.2. <y> grafia	251
4.3.2.1.2. Literatur hizkuntzaren bestelako ezaugarriak.....	253
4.3.2.1.2.1 Singular/plural oposaketa grafikoa genitiboan	253
4.3.2.1.2.2 bokal-eufoniak	255
4.3.2.1.2.3 <i>RUI</i> erregelaren islapena	259
4.3.2.1.2.4 Bokal bikoitzen islapena.....	260
4.3.2.2 Eratorbidea eta literatur hizkuntzaren sorrera	261
4.3.2.3 Egilearen zuzenketak	273
4.3.2.4 Euskal iturrien aldaketak: Olaetxearenarekin erkaketa	276
4.3.3. Ondorioak	283
4.3.3.1. Egilearen testuinguru historiko-kulturala	283
4.3.3.2. Predikazio garaiko hizkuntza	286
4.4. Testuaren kokatze historiko eta geografikoa	289
4.4.1. kokapen historikoa.....	289
4.4.2. kokapen geografikoa.....	297
4.4.2.1 Hego- eta ipar- sartaldea.....	298
4.4.3. jatorriaren hipotesi baterantz: bazter hizkera.....	305
5. Ondorioak.....	311
5.1. <i>Dotrinazko Sermoitegia</i> literaturaren historiari begira.....	314
5.2. <i>Dotrinazko Sermoitegia</i> euskararen historiari begira	316
5.3. Gerora begira	320
6. Bibliografia	323
7. Dotrinazko Sermoitegia: edizioa	349
7.1. Sermoiaren antolakuntza berria	349
7.2. Edizio irizpideak.....	352

1. Sarrera orokorra

1.1. Tesiaren historia

1.1.1. Bizi esperientziak, tesiaren aurrekari

Tesi hau hainbat urtetan egindako beharraren emaitza da, gorabehera handiko lana, inolaz ere, azterketan zehar gertatu diren aurkikuntzengatik. Lana forjatu zen sutegia martxan jartzea, baina, ibilbide luzeago baten ondorio izan da, kasu honetan ere aurkikuntza zenbaiten eraginez. Lehenengo urratsak 1999. urtean eman ziren, institutuan: euskara irakasleak Jose Paulo Ulibarri zelako okondoar euskaldun bati eskainitako aldizkari bat ekarri eta oparitu zidan; neure abizen bera zuen aiarar euskaltzalearekin topo egin eta idazle honen gainean gehiago jakiteko grina piztu zitzaidan.¹ Orduan, irakurtzea gustatzen zitzaidan arren, ez nuen interes berezirik hizkuntzalaritzan edo filologian (argi nuen bai giza-zientiaren bat ikasi nahi nuela), baina institutuko bibliotekan *Gutunliburua* aurkitu izana (argitalpen faksimilea, noski) euskal filologiarantz eraman ninduen mugarria izan zen.²

Bigarren urratsa 2003. urtean izan zen, euskal filologia ikasteko Gasteizko Letra Fakultatean (orduan “Filologia, Geografia eta Historia”) hasi nintzen, eta bertan, hainbat ikaskide eta irakaslerekin batera, lehenengo urtean Henrike Knörr zena aurkitu nuen irakasle *Euskal Testuak* ikasgaietan. Bere gidaritzapean egin nuen neure lehenengo ikerketa serioa euskal testu bati buruz (*J. P. Ulibarriren aditz laguntzaileen gainean ohar batzuk*), eta ordutik testuak eta filologia, adiera klasikoan, izan dira neure langai

¹ Urteak aurrera joan ahala, eta Ulibarriri buruzko hitzaldi eta argitalpenen harira, hainbatek galdetu didate ea ahaideak ote ginen J. P. Ulibarri eta biok. Inoiz ez naiz ausartu baietz edo ezetz esatera, Aiara lurralde txikia izanik aukera guztiak zabalik baitzeuden, eta ni behintzat ez nuen interes berezirik horretaz. Alabaina, familiakoen ekiteaz, azkenik arbola genealogikoan atzera egitera jo nuen, eta jakin izan dut Abandoko ferratzailearen *anaje* gazteago baten (Julian Ulibarri Galíndez) ondorengoa naizela.

² Orduan Arabako Foru Aldundiari eskutitza idatzi nion (eskuz!!) ea argitalpen horren alerik ba ote zen galdetuz, eta hortik hilabete batera ale bat jaso nuen etxean. Altxor preziatu bat legez zaintzen dut alea, ez urrezko kutxa batean, guztiz erabilia eta papertxoaz beterik baizik, ikerketen eta inoiz aurrera aterako den edizio kritikoaren zain.

nagusia. Esan gabe doa Henrikeren gomendio eta aholkuak tesi honetaraino izan ditudala bidaide.

Sutegiko sugarra pizteko J. P. Ulibarri langaiarekin Henrikek irazeki zuen suziria banuen; baina sua bizitzeko haizearen beharraz, *Euskal Lexikografia* ikasgaiari aurkitu nuen horretarako hauspoa, Blanca Urgell irakaslearengan. Bere laguntza eta babesarekin “Zenbait ohar J.P. Ulibarriren lexikografia lanez” lana agertu zen, ikasgaiko amaierako lan bezala, eta berak animaturik aurkeztu nuen “Sancho el Sabio” fundazioaren *Unibertsitate Mailako Ikerketa Lehiaketa*-ra, eta garaile atera nintzen, lana Fundazioaren aldizkarian argitaratu zidatelarik (Ulibarri 2007). Ikerketa horretan ordutik utzi ez dudana artxibo lanak lehen fruitua eman zuen: Ulibarrirena omen zen hiztegi baten berria zabaldu nuen (*Euskarazko eta gaztelerazko hiztegia*), berea zela baieztatzeko lehenengo pausuak emanez. Blancaren gidaritzapean berriz, hurrengo urtean egiletasun hori bermatuz bere edizioari ekin nion, karrera barruko lan gidatua legez. Honetatik atera zen 2008an Koldo Mitxelena Katedraren II. biltzarrean egindako aurkezpena (Ulibarri 2011b).

1.1.2. Tesiaren ibilbidea: arrats beran eta bide barriak

Tesia erretzeko *humus*-a nola landu zen aipatu dugu, eta ikerketa horiekin jarraitzea izan nuen helburu, bide horretan beti Blanca lagun; alabaina, beste irakasle eta ikertzaileak ere hizkuntzaren ikuspuntu ezberdinak erakutsi zizkidaten (eta oraindik erakusten didate), eta hauetatik behar izan dudana hartzen saiatu naiz. Hizkuntzaren historiarako nuen joerak eramanez ninduen I. Camino eta G. Alday bezalako irakasleen ikasgaietara, baina gogoan ditut bereziki R. Gómez eta J. Lakarraren eskolak: lehenengoak testukritikan egindako lehen urratsengatik, eta Lakarrak Orozkoko hizkera eta *Viva Jesus* dotrinarentz hurbiltzeagatik: dotrinatxo horren balizko jatorria hortik hur izan zitekeela herabeti azaldu zidanean: bere ikasgaitik etorri zen “Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat” lana, eta bere egiteaz artikulu legez argitaratu zen *ASJU*-n (Ulibarri 2008a).

Hauen guztien bidez ikusi nuen *ez dela gizona Ulibarri beretik biziko, baina hizkuntzaren ahotik ilkitzen den hitz orotarik*; eta tesia egiteaz asebeta, ez nuen Ulibarriren testuetara mugatu nahi. Aitzitik, lehendik egindako ildoari jarraituz

Aiaraldeko euskara bere osotasunean aztertu nahi, eta lehenengo lana bertako euskararen lekukotasun oro behar nituela erabaki nuen.

Lekukotasunak bilduz eta aztertuz emaitza oparoak izan nituen: Laudioko lekukotasunetan (Urkijo 1994 liburuari atxikiz) Ignazio Galindez audioarraren *Ruth-en liburua*-ren itzulpenaren originalaren edizioa eta azterketa hartu nuen master tesiaren gaitzat (Ulibarri 2008b), eta Laudioko abadeen aginduz egindako dotrinen edizio guztien konparaketa hasi nuen, bai eta *Erizkizundi Hirukoitza*-k Aiaraldeko eta bere inguruko Nerbioi arroko euskararen gainean zekartzan datuak aztertzen (Ulibarri 2011a) Honetan nintzela, *Viva Jesus* dotrinatxoaren edizioaren originalarekin egin nuen topo (ordura arte Vinsonek egindako eskuzko kopiarekin Mitxelenak egin zuen edizioa erabiltzen zen; Mitxelena 1954a, *OC XI*), eta aurkikuntzaren garrantziaz jabetuta, lan bi eskaini nizkion: lehenengoan argitalpenaren materialtasunaren haritik edizio lekua (Bilbao) zehaztuaz datazio berri bat proposatu nuen (Ulibarri 2009); bigarrean, edizioa bera aurkeztu nuen, hizkeraren azterketa zehatzarekin batera, eta horren jatorria Aiaraldean izan zitekeela iritzi nuen (Ulibarri 2010a).

Viva Jesus-en azterketak Bizkaiko Foru Aldundiaren artxibora eraman ninduen, balizko inprimatzaileen gaineko datuen bila: bertako katalogoa begiratzuz, besteren artean euskarazko sermoitegi bat deigarri gertatu zitzaidan, eta jakin nahia asetzeko ikustea eskatu nuen. Aurkikuntza honekin hasi zen tesi hau garautzen; izan ere, sermoitegi honetako hizkeran *VJ*, Orozkoko eta Laudioko ezaugarriak biltzen ziren. Honek artxibo gehiago arakatzera eraman, eta letra eta hizkeraren aldetik sermoigile beraren beste lan batzuk aurkitu ere aurkitu nituen, oraingoan Sancho el Sabio fundazioaren funtsetan. Sermoitegi honek, Aiaraldeko euskararen lekuko izatekotan, iraultza ekarriko zuen eremu horretako euskaraz genituen usteetan, oso hizkera berezia baitzerabilen, bai ezaugarri zenbaiten arkaikotasunaren, bai eta berrikuntzen aldetik ere.

Bildutako aiaraldeko corpus guztiarekin, oraindik orekatua zen Aiaraldean geografikoki ondo kokaturiko testuen eta kokatu gabekoen artean, baina gauzak aldatu ziren Gidor Bilbaoren filologi senari esker: Bizkaiko Foru Aldundiko Bibliotekako funts digitalizatueta gure sermoien antza hartu zien bertako beste sermoi batzuei, eta helarazi zizkidan. Hura sorpresa egiaztatu nuenean bai letra eta baita hizkera aldetik ere bat egiten zutela. Beraz, egile beraren hiru testu zati nituen orotara, egitasmo beraren baitan batu zitezkeenak: *Dotrinazko Sermoitegi* baten lauhun bat orrialdeko (*in 4^o*) testu bat nuen eskuartean, jada Aiaraldeko gainontzeko lekukotasunekin parekatu ezin zitekeena: hizkuntzaz kanpoko laguntzarik gabe, hizkeraren zenbait berezitasunen bidez

Aiaraldeko hizkera izan zitekeela ondoriozta genezakeen, baina beste ezaugarri askok, euren bitxitasunagatik, banatzen zituen Aiaraldeko beste testuetatik; egoera honek, nola ez, emaitzen egiantzekotasuna kolokan jarriko zuen.

Arabako ipar-sartaldeko euskararen azterketa dialektologikoa izango zenak beste norabide bat hartu behar zuen egoera hartan; bi aukeren artean zirt edo zart egin behar izan baikenuen zuzendariak eta biok: edo ezikusiarena egin testu interesgarri honi eta Aiaraldeko gainontzeko testuen edizio eta azterketarekin jarraitu edo, testuaren berezitasunaz jabeturik, behar zukeen sakontasun filologiko, historiko eta dialektologikoaz azterketa propio bat hasi, horretarako material nahikorik baitzen sermoion hizkuntzan. Tesiaren izenburuan antzematen denez, bigarren bideari ekin genion.

Aurkikuntzez beteriko ibilbide honen azken mugarria tesi hau izan da, baina ez muga: bidean zehar bestelako aurkikuntzarik ere izan da. Aiaraldeari dagokionez, Francisco de Mendiaren obrak batzean, urteetan galdutzat jo izan den *Aerario de la hidalguia y nobleza hespañola y plaza de armas de Vizcaya* lana erdiden, ikusi eta bertako euskal materialaren gaineko azterketa plazaratu nuen (Ulibarri 2013b), ondoren etortzea espero dudana edizioaren aurrekari. Bestetik, hortxe dago Sevillan 1619an argitaratu zen poesia, zeinaren berri emateko ohar zenbaitez lagunduriko edizioa taxutu nuen (Ulibarri 2011c).

Dena dela, ez dut J. P. Ulibarri ahaztu, eta lanean ibilian bi obren argitalpena egiteko beta izan dut: batetik, 1826. urteko *Gaboneco osaste edo berba neurtuac* gabonkanten edizioa argitaratu nuen (Ulibarri 2010b), Ulibarriren egiletasuna bermatzeko ohar batzuekin batera. Bestetik, galdutzat jotzen zen bere *Egunare Euskarazkoa*-ren ale bat aurkitu eta euskalarien esku jarri dut argitalpen faksimile eta erdi-paleografikoan (Ulibarri 2011d).

Ikusten denez, ezustez beteriko abentura bizi izan dut tesia egin bitartean, eta oraindik horretan nabil, gaurtik ez oso urrun aurkikuntza gehiago egitekotan, ez baita erraz amatatuko artxibo lanarekiko dudana grina. Aurkikuntza hauen balioaz eta zoriaren paperaz diharduenari aurreko lan batean esandakoa ekar diezaioket gogora:

Norbaitek esango du aurkikuntza egin baino gehiago zortea izan duela hau idatzi duenak, eta ez diot ezetzik esango, baina bai gogoratu margolari bati inspirazioa existitzen zen ala ez galdetzerakoan honek erantzundakoa: “inspirazioa existitzen da, baina lanean aurkitu behar zaitu” (Ulibarri 2011c: 362, 2. oh.)

1.1.3. Eskerrak

*scribere qui nescit nullum putat esse laborem;
tres digiti scribunt, totum corpusque laborat*

Erdi Aroko fraideek latinezko esakune honetan ziotenez, “hiru atzamarrek idazten, eta gorputz osoak lan egiten du”, eta horixe bera datza tesi honetan ere: neu izan naiz *hiru atzamarrak*, neuk idatzi dut tesia eta azterketaren sama eramanez. Alabaina, ezin izango nukeen hau amaitu, *gorputzik* gabe, askoz gehiago izan baitira behar egin dutenak tesi honetan, dela puntu zenbaitetan lagunduz eta irtenbideak proposatuz, zein ondoan izanik animoak emanez. Euren ere bada lan honen fruitua. Guztioi eskerrak ematea beharrezko zait, baina lerro labur hauetan guztien izenak aipatzerik ez eta nagusiak baino ez ditut ekarriko; alabaina, guztiak ditut gogoan.

Esker emate honetan ikertzaile egin nauten hiru zutabeak ditut gogoan: Jose Paulo Ulibarri, XIX. mendean euskaraz idazten eta erabilera sustatzen tematsu ibiltzearen, eta bere bitartez euskararen alde oro har lan egin duten eta lanari daragoien aiaraldeko euskaldun eta biztanle guztiak. Henrike Knörri ere eskerrak eman beharrean naiz, neure lehenengo lanean gidari izatearren; zendu ostean jakin dut estimuan ninduela, zaindu beharreko ikertzaile legez;³ berarena ere bada tesi hau, nigan jarri zuen esperantzaren ordainetan.

Hirugarren zutabeari, Blanca Urgelli, bereziki eskerrik asko, tesi honen proiektuan sinistu zuelako eta zuzendari izateko lana bere gain hartu zuelako. Bere begi fin eta jakintzarik gabe tesi hau bestelakoa izango zen ezbairik gabe. Berarekin izandako bilerak eta egin dizkidan zuzenketak laguntza handia izan dira tesiaren arazoak gainditzeko, eta formatzen jarraitu ahal izateko. Mila esker baita bai honetan bai bestelako lanetan adiskide eta lagun paregabea izatearren ere.

Gasteizko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko irakasle eta ikertzaile guztiei, euren jakintzak bustia baita tesi hau hein batean zein bestean. Berziki adeitsu izan zait Iñaki Camino, beharrezko izan ditudan bibliografi erreferentziak zein dialektologiari buruzko bere ikuspegia eskuzabal eskaintzeagatik.

Ikerketan lagun izan ditudan *Monumenta Lingua Vasconum* proiektuko kideak ere gogoan ditut: Joseba Lakarra ikertzaile nagusiari lehenik, bere sostengua eta

³ Felix Mugurutzari esker jakin dut hau, inoiz nitaz hitz egin baitzuten elkarrekin.

solasaldiak ezinutzizkoak izan baitira tesi honen akaburako; baina baita lan taldea osatzen duten beste ikertzaile guztiak ere (Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Julen Manterola eta Célinè Mounole), tesia amaitzeko edozein motatako laguntza eta sostengua emateko beti prest egotearren.

Ikerketa zein parranda filologikoetan lotzeko izan ditudan *Aziti Bihia* elkarteko kideak ere gogoan izan nahi ditut, euren ekarpenak berebizikoak izan baitira ikerketaren garra mantentzeko: Borja Ariztimuño, Udane Atutxa, Dorota Krajewska, Manuel Padilla, Urtzi Reguero, Ekaitz Santazilia, Oxel Uribe-Etxebarria, Eneko Zuloaga.

Bidaidez gainera gogaide izan dut Ander Egurtzegi, nork bere tesien gaineko duda eta trabez zein osterantzeko gaiez izan ditugun berbeta oparoetan adorea eman baitiogu elkarri, eta berak fonologiazko neure ezagutzak sendotu ditu. Ziur nago hemendik aurrera ere izango dugula zertaz hitz egin eta zer ikertu.

Aiaraldeko eta inguruko ikertzaile zein euskalzaleei ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiet: Txomin Robina, Aketza Merino, Ander Ros, Natxo Urkijo, Juanjo Respaldiza, Felix Mugurutz, Luiso Lopez, Jose Ignacio Salazar, Jabier Aspuru... Batzuek inguruko euskal testu zaharren berri eman eta besteek Aiaraaldeko testuen zein hizkeraren gainean nituen ezagutzak osatu dizkidate.

Nola ez, ezin dira lerrook amaitu neure guraso Jose Luis Ulibarri eta Mari Carmen Orueta eta neure arreba Karmele aipatu gabe. Zorretan nago, gurasoek egin baitute lanik garrantzitsuena tesi honetan: eurek euskara ez jakin arren seme-alabengan hizkuntza honek behar duen tornua eman baitiote. Azkenik, ezin ahaztu Zuriñe, tesi honek niri bezainbeste buruhauste ekarri baitizkio.

Amaitzeko, diruz lagundu nauten erakundeak ere aipatu beharrean nago: tesiaren lehenengo urteetan Eusko Jaurlaritzaren ikertzaileak prestatzeko beka (2008-2012) izan dut eta Joaquin Gorrochateguik zuzentzen duen “Linguistica historica e historia de la lengua vasca” [GIC.IT 486-10] proiektuak, neure ikerketaz interesaturik, ikertzaile legez kontratatu nau ondoren. Eskerrik asko bioi. Hauei *Monumenta Lingua Vasconum* proiektuak [FFI2008-04516 eta FFI2012-37696] ere gehitu behar zaie, bere laguntza ekonomikoa beharrezkoa izan baita une askotan.

1.2. Tesiaren laburpena

Azterketa testu baten edizioan (§ 7) gauzatu da, eta hori aurkituko du irakurleak amaieran, *kritiko* izenlaguna eramateko egungo testukritikak eskatzen dituen pausuen arabera taxutua. Alabaina, gure ustez edizio kritikoa ezin da egilearen *usus scribendi*-a deskribatzera mugatu, are gutxiago gurea bezalako hizkera berezi baten lekukotasuna denean; honen ordeztuz, hizkuntzalaritza historikoak eta testukritikak bat egin behar dute ikerketan, hain non testuaren hizkerak hizkuntzaren historiari dakarzkiokeen irakatsiak ahal bezain zehatz ageri behar baititu.

Beraz, ez dugu jo testuari eta egileari buruzko datuak batzera bakarrik: horren ordeztuz, euskararen historiarako garrantzitsuak liratekeen datuak ere biltzen ahalegindu gara, eta horretarako hizkera historikoki (diakronikoki) eta geografikoki (dialektologikoki) kokatu behar izan dugu. Ezaguna da testu askoren hizkuntza ez dela erraza berez kokatzen, hizkera garbi bat jaso beharrean era bateko edo besteko hizkera misto edo nahasiaren lekukotasunak baitira, eta inoiz aieruz esan egin da ezin direla dialektoen historiarako erabili. Alabaina, tesi honetan ez dugu ontzat eman ikuspuntu hau: euskarari buruzko datuak dakartzaten heinean erabili behar direla aldarrikatu dugu, metodologia egokia erabiliz gero, behintzat.

Horrela, tesiaren aurrerapen nagusietako bat da hizkera zaharrak ezaugarritzatzeko orduan *testu guztiak* (eta ez guretzat eroso direnak) erabili beharra bihurtu dugula gure leloa, eta hau lortzeko testu arazotsuei (dela kokatu gabek izateagatik, dela hainbat lekutakoak izan daitezkeen ezaugarriak biltzeagatik) modu ziur batean hurbiltzeko metodologia garatzen saiatu gara (§ 2). Metodoaren garapenean, garrantzitsutzat jo dugu zehaztea zer den guretzat *dialektologia*: euskal ikerketetan hitz honek adiera zabala duela jakinik, ardua berezia izan dugu *dialektologia* ikasgaia (hizkuntzalaritza historikoaren hastapenean legez) ikerketa diakronikoaren parte bezala aldarrikatzen. Modu honetan bakarrik gaintu daitezke testuek dakartzaten arazo zenbait, historia eta geografia modu bateratuan *dialektologia historikoa*-ren ikuspuntutik begiraturaz (§ 2.2).

Horren ostean (§ 2.4), testu batean ageri den hizkera euskararen historian eta geografian kokatzeko modua sistematizatu dugu, lehen ere hemengo eta kanpoko hizkuntzalaritza azterketetan ezagun ziren baliabideak garaturaz. Horrela, hizkuntzaz

kanpoko inolako argudiorik ez dagoenean, hizkeraren beraren eta zuzen kokaturik diren beste testuekiko konparaketa sistematikoaren bidez hizkera ezezaguna kokatzeko aldeko argudioak biltzeko modua aurkitu dugu, era erlatiboan behinik behin.

Lehenengo momentu batean XVIII. mendeko Arabako ipar-sartaldeko hizkera izan zitekeen susmoa izan genuenez, eremuko testuingurua ere aurkeztu dugu (§ 3). Arabako ipar-sartaldeko lurralde honek Bizkaiko hego-sartaldekoarekin duen lotura historikoaz jakitun, bi eremuak hartu ditugu: oso gutxitan aipatu eta aztertu ohi da euskararen historian eta atal honetan geografiari buruzko argibide zenbait ematearekin batera, bertako euskararen kanpo historiaz dakiguna laburtu dugu: egun eremu gehienean galdua delarik, galera hau nola gauzatu zen antzematen saiatu gara, testuaren garaian zein herri ziratekeen euskaldun ezagutzeko eta testua zein lurraldetan koka zitekeen argitzeko. Honekin batera eremuko euskararen (eta oro har, mendebaldeko euskararen) hizkeren sailkapenen eta bilakabideen gainean esan direnak laburtu ditugu. Testuinguruarekin amaitzeko, metodoak eskatzen duen konparaketa aurrera ateratzeko mendebaldeko euskara zaharrak dituen materialak aurkeztu ditugu, historikoki eta hizkeratan sailkaturik, tesian zehar barra-barra erabiliko ditugunak.

Laugarren atala azterketaren muina da; lehenengo testuaren osaera eta egitura aurkeztuko ditugu eta materialtasunak eskainitako datuen bitartez datatuko dugu (§ 4.1). Hizkeraren ezaugarririk garrantzizkoenak bildu ditugu ondoren (§ 4.2), ez bakarrik edizioa egiteko orduan egilearen *usus scribendi*-a ezagutzeko beharrezkoa genuelako, baita garaiko beste testuekin konparatuaz zer-nolako hizkera den ikusteko eta hasieran aipatu kokapena aurrera ateratzeko ere. Edonola era, ez dugu ahaztu testu idatzia den heinean garaiko literatur eraginak jaso zitzakeela, eta honegatik, XVIII. mendeko literatur mugimenduarekin erkatu dugu (§ 4.3), hizkera horrek garaiko idazte joerekin zenbaterainoko lotura zuen ikusteko, eta bere balio dialektologikoa neurtzeko. Atal honen azken zatian (§ 4.4), aurreko azterketaren daturik interesgarrienak erabiliz, testuaren hizkeraren jatorri historiko eta geografikoa proposatu dugu.

Bosgarren atalak aurreko azterketak ekarritako emaitzetan garrantzizkoenak batzen ditu, egiteke geratzen diren lanak ere agerian jarritz.

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Aiaraldeko euskara galduaz bil zitezkeen hondarrak biltzeko eta hobeto ezagutzeko egin ditugun miaketek testu paregabe bat aurkitzera eramán gaituzte, eta testu hori gure tesi honen ardatz bihurtzera. Hautu honek berekin dakar aurrez lan filologiko zehatza egin beharra, amaieran jaso dugun testuaren edizioan islatzen dena, baita egilea eta idazkia denboran kokatzeko (§§ 4.2, 4.3 eta 4.4) eta haien testuinguru historikoan aurkezteko (§ 3) egindako hurbilketetan ere, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, ez dugu gure lehen helburua alde batera utzi, baizik eta ustez ustekabeán helburu bertsuari heltzeko bide aberatsago bat aurkitu: izan ere, egilearen *usus scribendi*-a aztertzeak erakutsi digu *Dotrinazko sermoitegia* izena eman diogun testua berezitasun handiko hizkera baten isla dugula, zehazki artean ezezaguna zen batena. Hizkera horrek, tesi honetan jorratuko dugun hipotesiaren arabera, nahitaez Mendebaldeko eremu zabalaren barruan hego-sartaldekoa behar du izan eta, gure ustez, aspaldi batean, beharbada XIX. mendeko unerén batean, euskara galdu zuen ingurune batekoa: hitz batean esanda, Aiaraldekoa, hain zuzen.

Testua nolako eta lan filologikoa halako, dialektologia historikorantz bideratu behar izan ditugu gure urratsak, hots, dialektologiak eta hizkuntzalaritza historikoak bat egiten duten eremurantz. Euskalaritzan bakanki baino ukitu ez den eremua denez, guztiz beharrezkotzat jo dugu haren bazterrak astiro miatzea. Izan ere, halako joera bat bada, gure egunotako espezializaziorako jaidurak indartu duena, dialektologia eta hizkuntzalaritza historikoa bakoitza bere aldetik —helburu eta metodo berezituekin— dabilzan ikergaitzat hartzeko. Alabaina, hizkuntzalari historikoak, hizkuntzaren bilakaeraren berri eman behar duenean, ez luke behin ere ahaztu behar ikuspegi dialektologikoaren garrantzia gertakariak ebatzi eta azaltzerakoan, Mitxelenaren maisu lanek —1958 eta 1977 (*FHV*), askoren artean— erakutsi diguten bezala. Era berean, sortzetik eta bere fruitu onenak eman dituen bakoitzean, dialektologia hizkuntzaren historiari geografiaren aldetik egin dakizkiokeen ekarpenak egiteko pentsatua da.

Aitzitik, dialektologo asko beste bide batetik abiatu dira aspaldi, historiari berariaz muzin eginik, hizkera bizien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak era batera edo bestera neurtzea eta haien arteko erlazioak sailkatzea helburu, bide honetan hainbat eredu ezberdin sortuz gainera (ik. Camino 2009: § 32; hemen ik. § 2.1.2). Alabaina, Radtke erromanista entzutetsuak salatu duenez (1998: 797, *ap.* Camino 2009: 2), euren artean inor gutxi kezkatzen da ereduon oinarri teoriko eta metodologikoak, ezta haien helburuak eta ondorioak balioztatzen; alderantziz, haren ustez esan liteke bakean bizi direla elkarrekin, diziplina zientifikoetan ohikoak diren kide arteko berrikuspenak, norgehiagokak eta kritikak alde batera utzirik, hots, esateko moduan dena ontzat emanik.

Puntu honetara etorririk, komeni da gogoratzea zientzia ez dela deskribapen edo sailkapen hutsean geratu behar: aitzitik, azalgarritasuna da, dudarik gabe, haren balio nagusia, hau da, deskribatzen edo sailkatzen den zera azaldu ere egin behar da, horretara nola eta zergatik heldu den argituz (cf. Wagensberg 1998: 86).

Badirudi, ostera, dialektologo askoren ikuspuntutik azaldu behar hori bigarren mailan geratzen dela: garrantzitsuagoa zaie datu bildumak egitea edota hizkuntzalaritzarako hala-holako balioa duten baina gure gizartean erraz sona handia lortzen duten hizkeren sailkapenak egitea (cf. § 2.1.2). Gure artean dialektologia lanaren irudirik hedatuena azken urteotan biziki ugaltu diren hango edo hemengo hizkeraren deskribapen gutxi-asko estandarra da, monografia moduan datu bilduma (askotan garrantzi gutxiko txokokerietan bakarrik arreta jarritz) eta etno-testu luzeak bilduz. Suposatzekoa da zenbat leku hainbat deskribapen eginez gero, halako batean Euskal Herri osoaren puzzlea osatu ahalko dela, baina honek, ezinbestean, Borgesen geografoak dakarzkigu gogora, munduan zen guztia biltzeko mapa egin nahi, eta munduaren tamainako mapa sortu zutenak. Izan ere, historiaren ikuspuntutik (hizkuntza aldaketaren historia barne), edozein zientzian bezala, datu guztiak ez dira garrantzi berekoak, baldin eta munduaren —gure kasuan, hizkuntzaren— konplexutasun ikaragarria azalgarri egingo badugu (Le Goff 2005 [1991]: 42; Wagensberg 1998: 87; cf. § 2.2.3.2).

Gurean *dialektologia* zentzu jadanik klasiko batean ulertzen da normalean, aldaki geografikora bideratua (cf. §2.1.2.), edo zehatzago geografia fisikora.⁴ Beste leku

⁴ Mundu anglosaxoniarran, espazioaz dihardutenek gutxieneko bi espazio ezberdintzen dituzte: batetik *espazio fisikoa*, geologoen, hidrografoen, fisikarien, eta abarrek aztertzen dutena, eta bestetik *giza-*

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

batzuetan honi *geolinguistika* edo *geografia linguistikoa* izen zehatzagoez deitu izan zaio (Williams 1988; Chambers & Trudgill 1994: 255), eta guk *dialektologia klasiko* zein *geolinguistika* izenak emango dizkiogu aldizka. *Dialektologia historiko* izenak, beraz, adierazi nahi luke gure ustez dialektologiak hitzaren zentzu zabalenean izan behar lukeen esparrua eta egitekoa, alegia, “el estudio de la variedad y variación diatópica y diastrática de la lengua (en los varios ‘estados’ de lengua, y estilos)” (Gimeno Menéndez 1990: 16; cf. Chambers & Trudgill 1994); hots, hizkuntza aldaketaren beraren azterketa, horren azalpenaren bila ahal beste baliabide jokoan jarriz: hizkuntz komunitatearen historia, garaian garaiko erlazio sozio-kultural eta soziolinguistikoak (prestigioa), espazio fisikoaren beraren nolakoa (orografia, hidrografia...), etab. (cf. Camino 2009 azalpen zehatzago baterako); bai eta, jakina, haren hizkuntz ezaugarrien isoglosen mugimenduak ahaleginean jarraituz, ezaugarrien historia bera arakatzuz eta ahal den neurrian berreraikiz ere. Azken batean, bada, dialektologiak hizkuntza osoaren bilakabideari buruzko datu eta hipotesi jakingarriak eskaini beharko lituzke, hizkera jakin bateko momentu bateko datuetatik abiatuta.

Atal honetan tesian zehar erabiliko dugun marko teorikoa ezarriko dugu. Lehenik (§ 2.1) diakroniaren eta dialektologia klasikoaren arteko loturez jardungo dugu, historikoki izan duten garapena erakutsirik; gurean diren dialektologia eredu nagusiak ere aurkeztuko ditugu (§ 2.1.2), diakroniatik begiratuta antzeman dakizkiekeen arazoak era laburrean aurkezteko asmoz. Bigarrenik (§ 2.2), *dialektologia historikoa* kontzeptuari buruzko gogoeta egingo dugu, haren definizio eta helburuetara hurbiltzearen, bai eta tesi honetan zehar nola erabiliko dugun erakustearren ere. Hirugarrenik (§ 2.3), *status questionis*-a eguneratuko dugu euskarari dagokionez, hots, euskalariak, bereziki diakronista eta dialektologoen, dialektoez izan duten ikuspegiaren historia egingo dugu. Azkenik, gure ikergaira hurbilduko gara (§ 2.4), egin dugun lana aurrera ateratzeko aurkitu ditugun oztopoak eta hauek gainditzeko emandako erantzunak eskainiz.

espazioa, gizakiak eta geografiak elkarri nola eragiten dioten aztertzeke arkeologoen, antropologoen, soziologoen eta hizkuntzalariek jorratzen dutena (Johnstone 2010: 1).

2.1. Hizkuntzalaritza historikoa vs dialektologia: erlazio gazi- gozoa

2.1.1. Erlazioaren nondik norakoak

Hizkuntzalaritza historikoak hizkuntza aldaketa du aztergai (Campbell 1998: 1); zehazkiago, ez da mugatzen hizkuntza baten edo batzuen historia aztertzeraz; aitzitik, hizkuntza aldaketaren nolakotasuna —prozesua eta emaitza— arakatzen du, ulergarri egiteko eredu baten bila (Gimeno Menéndez 1990: 88). Antzeko bidea egiten du dialektologiak (era zabalean ulertua), baina aldaketa historian ez ezik geografian edota gizarte-harremanetan ere nola gauzatzen den aztertutik. Honela, aldaketa linguistikoa ulertarazi nahi duen heinean, dialektologia ere hizkuntzalaritza historikoaren barruan kokatu behar litzateke (*ibid.* 11; cf. § 2.2).

Esan ohi da hizkuntzak etengabe pairatzen duen aldaketa aztertzeko beharra XIX. mende hasieran sortu zela, lehentxeago Sir William Jones-ek (1786) antzeman baitzuen hainbat hizkuntza klasikok (latinak, grekoak, sanskritoak...) elkarren artean antzekotasun asko zituztela, halabeharri ezin egotzi zitzaizkionak. Jones-ek, hitz bakunen arteko konparaketara mugatu beharrean, gramatika egitura antzekotasunean oinarrituta ezarri zuen, ezarri ere, hizkuntza indoeuroparren arteko erlazioa (Crowley 1997: 227). Beranduxeago Rask-ek, islandiera zaharrari buruzko lanean (1818), hizkuntza germanikoen arteko erlazioak aztertu zituen.

Garai bertsuan, Jacob Grimm (1822), germaniko zaharra latina, grekoa eta sanskritoarekin batera aztertzean, hotsen arteko egokitasunak aurkitutik, hizkuntza horien guztien jatorrian leudekeen hotsak berreraikitzeke beta ematen zutela konturatu zen (Crowley 1997: 228) eta, alderantziz begiraturik, “aitzin-hots” bakoitzak hizkuntzaren arabera “alaba” bat izan zukeela.

Grimm-ek antzemandako ustezko irregulartasun ugariak testuinguru fonetikoaren eraginak azaldu zituen ondoko ikertzaileen lanei esker (Grassmann, Verner, etab.; Crowley 1997: 231). Beraz, ondorioztatu zuten hots-aldaketak ez zegozkiola halabeharri, baizik eta arau edo lege batzuen arabera gertatzen zirela. Alemanian sortu zen mugimendu neogramatikoko honek *irregulartasun hatsarrea* ezarri zuen: hots bat aldatzen bada, beti aldatuko da testuingurua berbera baldin bada.

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Neogramatikoek esaldi honetan laburtu zuten: “lege fonetikoak salbuespenik gabe gertatzen dira” (Campbell 1998: 18).

Hotsen berreraiketak hizkuntzen berreraiketa ahalbidetu zuen; izan ere, hotsak berreraikitze ahalmena dugun heinean eta hots aldaketa prozesuak erregularrak direla jakintzat emanik, etimologian eta hitzen historian atzera joateko eta forma zaharrak berreraikitze aukera zabaltzen zaigu (Crowley 1997: 232). Berreraiketak badu oinarritzko hertsapen bat: berreraikitako formak edo aitzinformak hipotetikoak baino ez izan arren, egiazko formek dituztenen antzeko tasunak izango dituzte (Mitxelena 1963, *OCI*: 28); bestela esanda, ezin da edozer berreraiki.

Indoeuropeistak hainbat berdintasun eta ezberdintasun zituzten ahozko eta idatzizko hizkuntza indoeuropar ugarien aurrean aurkitzen ziren, guztiak etorki bateratu batetik zetozenak. Beraz, hizkuntzok etorki bateratu horretatik aldendu heinean eta egungo aniztasun linguistiko honetaraino heltzera bidean nolako gorabehera historikoak pairatu zituzten islatu beharra sumatu zuten, hizkuntzak ikuspegi kronologiko batetik elkarrekin erlazionatzeko (Camino 2009: 49). Orduan Schleicherrek (1861) zuhaitz genealogikoaren oinarriak ezarri zituen, hizkuntza indoeuropar ezberdinen arteko erlazioak kronologia erlatibo batean kokatuz.

Neogramatikoen metodoa, arau fonetikoetan oinarriturik, etorki bereko hizkuntzen arteko konparaketaren bidez aitzinformak berreraikitze gauza bazen ere, ezin zituen inolaz ere azaldu egiazko hizkuntzen datu guztiak. Hasieratik hots aldaketak bi motatakoak zirela konturatu ziren neogramatikoak: sistematikoak (beti betetzen direnak, dena delako araua proposatzeko aukera ematen dutenak) eta noizbehinkakoak (batzuetan bakarrik betetzen direnak). Denborarekin itxuraz noizbehinkako zirenetako batzuk azaldu ahal izan ziren beste ikuspegi batetik; gainerakoak, berriz, bestelako baldintzei zegozkien: analogiari, hitz gurutzaketari, ahoskera zainduari, imitazio lexikoari, fonetikaz kanpoko baldintzei... (Crowley 1997: 134 e.hh.). Ziurtasunez ezin azal daitezkeen gertakariok, zientzia orokorraren hatsarre ezagunari jarraiki, teoria neogramatikoak diosku ez direla (oraingoz) kontuan hartu behar, ikerketa aurrera joan ahala norbaitek azaltzeko modu eraginkorrago bat (i.e. arau eraginkorrago bat) aurkituko duelakoan (Crowley 1997: 132).

Alabaina, hizkuntza hilak eta hizkuntzen jatorrian dauden ama-hizkuntzak berreraikitze baliagarri ziren metodoek eta lan moldeek —ezinbestean maiz sinplifikazioan oinarrituta— dialekto modernoan datu aniztasunarekin egiten zuten topo, besteak beste. Hau dela eta, ikertzaile asko ez zetozen bat neogramatikoen

proposamenekin, ez eta zuhaitz genealogikoaren ereduarekin ere. Haien ustez nabarmena da hizkuntzak, eta bereziki hizkuntza baten dialektoak, ez direla bloke zurrinak, mailaz maila aldatzen den zerbait baizik (Crowley 1997: 245). Areago, dialekto bizi bat hartuz gero, arau fonetikoak, isoglosa (ezaugarri baten hedadura geografikoa markatzen duen marra) bakarra marraztu beharrean, maiz hitz bakoitzaren araberakoak dira; hau da, hitz bakoitzaren isoglosak ez dira muga bakarrera lerratzen (Bynon 1977: 176).

Honela, “lege fonetikoak salbuespenik gabe gertatzen dira” lelo neogramatikoari beste bat jarri zitzaion aurrez aurre: “hitz bakoitzak bere historia du”. Mugimendu hau Jules Guilliéron-ek sortu zuen, Frantziako Hizkuntza Atlas interpretatzeko ahaleginetan zegoela. Hasiera batean, neogramatikoen metodoaren arabera, dialekto bakoitzaren arau fonetikoak ezarri zituen, baina hitz zehatzetan aplikatzerakoan beti betetzen ez zirenez, hitzez hitzeko irregulartasunak azaltzeari ekin zion, datu asko kudeatzeko beharra areagotuz. Honela antzeman zuen azalpen fonetikoak berak bakarrik ez duela azaltzen aldaketaren hedatze geografikoa, eta bestelako aldagaiak daudela (Bynon 1977: 185 e. hh.).

Dialektologia mapa linguistikoak egin ahala, hizkuntzaren geografia eta isoglosen azterketa hizkuntzaren historia ere berreraikitze moduak direla ikusi zuten Bartoli eta Bonfante bezalako neolinguistek 1947. urte inguruan (cf. Camino 2009: 145). Hizkuntzalaritza espazialak egindako mapa linguistikoaren azterketak berrikuntzak nola hedatzen diren igartzeko aukera ematen zuen, bai eta hedaturaren oinarrian egon daitezkeen arrazoiak ere (Hernández Campoy 1993: 160). Gero eta oinarri sendoagoen gainean esan zezaketen, hortaz, neogramatikoen arauak ez zirela aski hizkuntza biziak aztertze, bildutako datuek erakusten baitzuten arauak azalduko *lehen-orain* mutur bien artean zetzan bide ñabarra. Hala bada, mapa linguistikoak hizkuntzaren historia ulertzeko metodo berri gisa aldarrikatu ziren eta, aldi berean, ikuspuntu diakronikoak mapak interpretatzeko oinarri sendoa ematen zuen (Bynon 1977: 191).

Ikuspuntu berri honek hizkuntza aldaketaren ereduaren eragina izan zuen, antzinako hizkuntzetarako proposatu zen zuhaitz genealogikoaren ereduaren “ohiko ikuspegia ez [bait]a ongi ezkontzen dialektoek hartzen dituzten norabide berriekin” (Camino 2009: 50); zuhaitzek interferentzien errealitatea, alegia, dialekto zatiketaren ondotik gertatzen diren dialektoen arteko eraginak ez baitituzte islatzen (*ibid.*). Gainera, zuhaitzak era erlatibo batean baino ez du irudikatzen espazioa (cf. § 2.2.3.2). Beraz, neolinguistek zuhaitzaren ereduaren orde *uhinen teoria* plazaratu zuten; funtsean,

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

teoria honek erakusten du aldaketak, haustura bat sortu beharrea (zuhaitz genealogikoak iradoki bezala), apurka-apurka zabalduz doazela: honela, lurraldea *erdiguneetan (core)* eta *trantsizio eremuetan ('transitional' areas)* “banatu” zen (Bynon 1977: 191). Honen arabera, erdigunean gertaturiko aldaketa trantsizio eremuetan barrena zabalduz doa historian aurrera joan ahala. Era honetara, hizkuntzalaritza historikoak zuhaitz genealogikoaren bitartez islatu nahi duen denbora dimentsioan arreta jarri beharrea, historiak sorturiko espazio dimentsioan jarri zuen arreta dialektologiak.

Hementxe gertatu zen hizkuntzalaritza historikoaren eta dialektologiaren arteko hausturarik sakonena, eta ordutik aurrera dialektologia bere bideari lotu zitzaion. *Divergence* (zuhaitz genealogikoaren teoria) eta *diffusion* (uhinen teoria) horien arteko talka nagusia hipotesien eta datuen arteko erlazioen ondorio litzateke (Bynon 1977: 193): hizkuntzalaritza historikoak —zehazkiago, konparatibismo klasikoak— hizkuntzen historiaurreari begiratzen zion gehienbat, berreraikitako forma eta egoerei (hipotesiei), beraz; dialektologiak, bere aldetik, hizkuntzaren historiari (datuei) erreparatzen zion. Honen ildotik, ez da kasualitatea hizkuntzalaritza historikoa mundu germanikoan sortu izana eta dialektologia mundu erromanikoan, bakoitzak galdera ezberdinak egin behar baitzizkion bere buruari: erromanistek aztertzen ziharduten hizkuntzen aurrekaria zuten latinean (ondo dokumentaturiko hizkuntza batean; hots, *datuak* zituzten); germanistek, ordea, ez zuten euren hizkuntzen aurrekari dokumentaturik; beraz, berreraikitako hizkuntz egoera batekin (*hipotesiekin*, alegia) lan egiten zuten. Hori dela eta, galderak zeharo ezberdinak ziren: batzuek “nola bihurtu zen latina frantses?” galderari erantzun behar zioten bitartean, besteek “zer motatako hizkuntza zen hizkuntza eta dialekto germaniko modernoan jatorria?” galderaren erantzunaren bila ziharduten (Bynon 1977: 183-4, 1. oh.).

Zuhaitz genealogikoa eta uhinen teoria (cf. § 2.2.3.2) hartu dira hizkuntzalaritza historikoaren eta dialektologiaren talkaren isla nagusizat, baina ikusi dugunez, bi teoria hauen arteko erlazioa hemen hizpide dugun *hipotesi vs. datuen* arteko lehiaren erakusgarri litzateke. Zuhaitz genealogikoak, berreraikitako hizkuntza eta formen diagrama bat izanik, forma ezberdinak sorrarazten dituzten berrikuntza ezberdinen *kronologia erlatibo* bat baino ezin du adierazi, eta diagrama horri ikuspuntu horizontaletik (hau da, geografikotik) begiratzen badiogu, espazio hori ere erlatiboa izango da (cf. Camino 2009: 50) eta, beraz, bertan islatutako berrikuntzak *denbora eta espazio erreal* batean kokatzea gaitza da. Uhinen ereduak, bestalde, berrikuntzen

emaitza diren forma errealak (hots, datuak) espazio erreal batean kokatzen ditu, hauek nola hedatu diren islatuz; eta ondorioz, denbora erreal batean kokatzeko aukera ematen du (horretarako daturik bada, noski), Bartoli-k proposaturiko arauen arabera (cf. § 2.2.3.4).⁵

Bi ikerlerroen arteko aldeak handitu egin ziren Saussure-ren *état de langue* kontzeptua hizkuntzalarien artean hedatu zenean: “un espace de temps plus ou moins long pendant lequel le somme des modifications survenues est minime” (Saussure 1916: 145; ap. Williamson 2004: 104), hau da, hizkuntza une batez egonkor mantentzen den sistema dateke, gutxieneko aldaketa batzuk gorabehera. Ideia honen gainean sortu zen hizkuntzalaritza sinkronikoa. Saussure-k berak dio, gainera, une jakin bateko hizkuntza sistema egonkorra den neurrian, “si el lingüista se sitúa en la perspectiva diacrónica no será la lengua lo que él perciba, sino una serie de acontecimientos que la modifican” (Saussure 1916, ap. Coseriu 1978: 13). Honek dialektologo asko ikuspuntu sinkronikoagora begira jarrarazi zituen, eta gaur ere bizirik diren bi eskola nagusiak sortu zituen dialektologoen artean: batetik, sinkroniara bakarrik begira daudenak (eta askotan diakroniari muzin egiten diotenak) eta oraindik diakronia bere sentitzen dutenak.

Hizkuntzalaritza historikoak, bere aldetik, ez du dialektologia alde batera utzi, dialekto konparaketa bere muinean baitu: hasierako garaietan hizkuntza artekoa zen arren,⁶ ez dugu ahaztu behar dialektoaren⁷ eta hizkuntzaren arteko aldea ez dela kontu linguistikoa, gehienbat politikoa baizik (cf. Campbell 1998: 193); beraz, hizkerak eta euren arteko konparaketa dira berreraiketarako bidea, ahaiderik ez duten hizkuntzetan ez ezik (euskaran, esaterako) are bestelakoetan ere, dialekto bereziki kontserbatzaile batek dakartzan datuei ez baitie muzin egingo hizkuntzalari historikoak.

⁵ Bartoliren arau geografikoak legetzat erabili zituzten orduko dialektologoen. Hala ere, ezaugarri baten banaketa espazialek interpretazio historikoa ahalbidetze hori gezurtaturik dagoelarik (adibidez, in Hockett 1958, ap. Fernández-Ordóñez 2001: 402, 43. oh), legetzat hartu beharrean egun joera legez interpretatzen dira (cf. Chambers & Trudgill 1994: 231; Hernández Campoy 2001: 41). Testu honetan zehar, sinpletze aldera *arau* izen tradizionala erabiliko dugu haiei erreferentzia egiteko.

⁶ Hizkuntzaren aldaera estandarren artekoa, alegia; hots, literatur hizkuntzako ezaugarriak baino ez zituzten erabiltzen, bestelako arrazoiengatik “arau” bihurtu zirenak. Geroago ikusiko dugu zergatik (ik. § 2.2.1).

⁷ Agian egokiago izango zitekeen hemen “hizkera” hitza erabiltzea, “dialekto” adigaiak arazo asko baitakartza, ondoren eztabaidatuko denez (ik. § 2.2.1). Hala ere, hizkuntzalaritzan oro har “dialektoa” oso barrendurik dagoenez, tesian zehar erabiliko dugu, era *naif*-ean bada ere, erosotasunagatik gehienbat.

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Mitxelena (1963, *OC I*: 17) argi azaldu bezala, hizkuntzalaritza diakronikoaren enpirikotasunaz diharduenean, berreraiketa egiazko hizkuntzen gainean⁸ egin behar da eta haren balioa egiaztatzen da hizkuntza horren formak azaltzen dituen heinean.

Datuen eta hipotesien arteko ezinbesteko lotura hainbat erataria islatzen da. Batzuetan berreraiketa-hipotesiek aurreikusitakoa bermatu ahal izan da datuak agertu ahala. Adibide ikusgarrienak hizkuntza zaharren aurkikuntzak eskaini ditu, hala nola B lineala deszifratu eta dialekto grekoen aldaera mizeniko zaharra zela erakutsi zenean (Mitzelena 1963, *OC I*: 18) edo hititera hizkuntza indoeuropar zaharra agertzean (Campbell 1998: 132). Dena dela, hamaika aldiz filologoak (edo hizkera zaharrak aztertzen diharduen dialektologoak; cf. § 2.2.2.1) datu bitxiak edo arazotsuak egiaztatzeke berreraiketara jo behar du (Rissanen 1990: 361): halaxe egin dugu, adibidez, sermoitegian agertu zaizkigun *maiñe* ‘mahaia’, *ainztu* ‘ahaztu’ edo *banada* ‘manada’ aldaerekin, berreraiketaren bidez azaldu baititugu aldaerok (§ 4.2.5). Berdin gertatu zaigu *acabatzako* hitzeko *-tzako* atzizkiarekin ere: **-tze bako* berreraiki izan ez bagenu, ezin izango genukeen sermoitegian bertan eta beste testu batzuetan ere lekukotzen den *-tzagarik* (< **-tza bagarik*) atzizkiarekin konparatu (§ 4.2.5).

Datuen eta hipotesien arteko *feedback* hori argi izan ohi dute diakronistek, alegia, elkarrekin onezkoak egin ditzaketela hizkuntzalaritza historikoak eta dialektologiak (Campbell 1998: 187), baten irakatsiak bestearen osagarri baitira, Bartoli-ren ideien ildotik (§ 2.2.3.4):

Only by relating the isoglosses in question to the family tree of the languages concerned can it be decided whether a particular isogloss represents the retention of an inherited feature, a shared innovation, or a feature which is the result of diffusion across the branches of a tree after the languages had lost contact (Bynon 1977: 194).

2.1.2. Euskal diakronia eta dialektologia zertan diren

Hizkuntzalaritza diakronikoak oinarriak sendo mantendu ditu. Alde batetik, metodo konparatzailearen eraginkortasuna behin eta berriz frogatua izan da; gogora

⁸ Eta egiazko hizkuntza hori testu idatzien bidez ezagutzen dugu batik bat: "No es sólo la lingüística histórica —conviene subrayar esto de pasada— la que se ve obligada a apoyarse, exclusivamente en la inmensa mayoría de los casos, en fuentes escritas, sino toda la lingüística diacrónica" (Mitzelena 1963, *OC I*: 10).

dezagun berriz hititeraren adibide bikaina, hizkuntza indoeuroparren arteko konparaketak proposarazi zituen kontsonante laringal hipotetikoak, haietako bakar batean ere ez direnak, haren aurkikuntzak egiaztatu baitzituen.

Bestetik, denborarekin metodo osagarriak garatu dira, hain non une honetan eraginkortasun handiko zientziazat eman baitezakegu. Haas-ek (1969: 46-51, ap. Lakarra 2006a: 230) berreraiketa klasikoa⁹ osatzeko lau metodo proposatu zituen: (1) eskura diren materialen berrinterpretazioa; (2) hizkuntza alaba berri bat aurkitzea; (3) mailegu zaharren ebidentzia eta (4) aitzinhizkuntza biren arteko konparaketa. Lan hura idatzi zenetik bestelako bideak, berriak zein zahar-berriak, landu edota esplizitatu dira: (5) barne berreraiketa; (6) hizkuntza beraren dialektoen arteko konparaketa eta (7) hizkuntzen arteko ukipena eta eremu hizkuntzalaritza (Campbell 2011: 34), bai eta azkenotan gure artean hain emaitza oparoak ematen ari den (8) hizkuntza tipologia ere (cf. Lakarra 2006a).

Metodo konparatzailea ordeztu edo gainditu nahi izan duen metodoren bat sortu den bakoitzean (glotokronologia eta makrokonparaketa, kasu), haren jokamoldea xeheki aztertu eta ebaluatu da. Alde honetatik, irakasgarria da gurean metodo lexiko-estatistikoa baliatuz egindako lanari buruz (Tovar *et al.* 1961) —eta lanean bertan— Mitxelenak (1961, *OC IV*: 149-160) egin ebaluazioa. Bestalde, Watkins-ek (1990: 291) agerian jarri du makrokonparaketaren hutsaltasuna, formen arteko azaleko antzekotasunetan oinarritzen baita, eta gogoratu du hizkuntzen arteko erlazioa berresteko bide bakarra etorki bereko formen jatorrizko formak (etimologiak) proposatzea eta haietan dautzan arauak berreraikitzea dela:¹⁰

...systematic comparison requires the postulation, reconstruction, or restoration of a common original, and of a set of rules by which that original is transformed into the later attested languages. That is what we mean by linguistic history (Watkins 1990: 292).

Ondo finkatu eta frogatutako metodo horiek baliatuz berreraiki zuen Mitxelenak aitzineuskararen fonologia, eta oro har gure hizkuntzaren historiari eta historiaurreari

⁹ Hizkuntzalari historikoa ez da hizkuntzaren garai lekukotugabeak berreraikitzea mugatzen (cf. Meillet 2001 [1925]; Haas 1969), hizkuntza aldaketaren zergatia eta haren historia ere bilatzen ditu, oro har, eskura dituen material eta ikerbide guztien bitartez (cf. Bynon 1977; Crowley 1997; Campbell 1998).

¹⁰ Ezaguna da, dena dela, makrokonparaketan edota bestelako hautazko metodoetan dihardutenak ere badirela, fede halako batek eramanda. Besteak beste, Ruhlen da bereziki ezaguna (cf. Ruhlen 2005) makrokonparaketaren onurak alderdi teorikotik ere defendatu duten gutxietako bat izateagatik, nahiz eta kritika zorrotzak jasan izan dituen (Campbell 1988; Ross & Durie 1996..., ap. Lakarra 1999: 53).

buruz egin zituen azterketa eta ohar sarkorrak (Mitzelena *OC V*), eta berdin Lakarrak aitzineuskara zaharra deitzen duguna, bai eta erro teoriatik eta konparaketa tipologikotik eratortzen den euskararen deriba proposatu ere (Lakarra 2012a: § 3.3), haien maisutzapean ari diren ikertzaile gehiagoren artean (ik. beherago § 2.3.3). Biek ala biek garbi erakutsi dute berreraikitzea ezin izan daitekeela hizkuntzalari historikoaren lan bakarra: metodo edo metodotzako berriak eta haien inguruan pilatzen diren era askotako uste ustelak eztabaidatu eta metodoaren onurak zein mugak gogoratu beharra ere bada etengabe haien erasoak pairatzen dituen gurea bezalako hizkuntza isolatu batean (Mitzelena 1964, *OC V*: 100; cf. Lakarra 2012a: § 2).¹¹ Halako lanak gogoan izanik, hizkuntzalaritza historikoko euskuliburu entzutetsuenetako baten egile eta munduko hizkuntza oso ezberdinei buruzko lanen egile gisa aurkezpenik behar ez duen Lyle Campbell-ek honela esan berri du: “La investigación de la historia del vasco puede servir de modelo para el estudio de otras lenguas aisladas” (2011: 38).

Dialektologian, ordea, aurreratu bezala, beren arteko batzuk ere kezkatuta ageri dira hartu duen ibilbide erosoegiagatik, bai baitirudi bere baitan sorturiko eskola guztiak onartuak direla, inolako galbahetik pasatu gabe, metodo eta helburuez hausnarketa egin gabe, hots, bere burua zientifikoki justifikatzeko beharrik sumatu gabe. Gauzak honela, dialektologiaren adar eta adaki guztiak aztertzeak gure muga eta helburuetatik urrun eramango gintuzkeenez, aski izan bedi inguratu zaizkigun eskola nagusien egiteko eta emaitzak laburbiltzea, gure ustez, baita batzuetan beste dialektologo batzuen ustez ere, egotz dakizkiekeen arazoen aurkezpen xume batekin batera. Lehenik gogoratu behar dugu dialektologiak, oro har, helburu nagusi bi lituzkeela, hizkeren deskribapena eta hizkeren sailkapena, eta horiek lortzeko Saussure-ren irakatsien ostean bi eskola nagusi direla: ikuspuntu diakronikotik lan egiten dirauena eta ikuspuntu sinkroniko hutsera makurtu dena (cf. § 2.1.1).

Sinkronia hutsera bildu diren dialektologoaren artean bi bide nagusi dira hizkera baten deskribapena egiteko: lan monografikoak eta mapa dialektalak. Hasieratik aipatu ditugu *lan monografikoak*, euskal tradizioan duten lekuagatik, herri edo eskualde bateko hizkeraren ezaugarri zerrenda luze-laburrak egin eta haien deskribatze hutsean gelditzen direnak. Lehenik eta behin, esan gabe doa datu bilketak ezinbesteko direla: honelako

¹¹ Lakarrak (2012: § 1.2) metodoaren inguruko xehetasunak bildu ditu, bai eta aldizkako metodoen inguruko kritikak bildu eta zehazki euskalaritzan izan dituen emaitzak (hobeto esanda, emaitza eza) agerian jarri ditu (*ibid.* § 2.6.2).

bildumak (zaharrak zein berriak) ederto baliatzen dituzte hizkuntzalariek aurrerapenak egiteko (cf. Camino 2009: 237), euren gabeziak gorabehera.

Halako lanen arazorik larriena euren ikuspegi atomista izan ohi da: interes gutxiko hamaika datu jasoko dira, bereziki txokokeriak eta harribitxizat jotzen direnak, eta galdera onek beharko lituzketen datuak beharbada oharkabean jaso gabe geratuko dira, datu esanguratsuak ez dira ulertuko edota gaizki interpretatuko dira.¹² Mitxelenak esana ere gogora genezake, alegia, landa-lanean jardutera ohituta daudenek euren ibileretan entzundako edozein forma (dena delako garaietako) testuetan aurkiturikoen gainetik jartzeko joera (Mitxelena 1963, *OC I*: 13). Gutxieneko kontuan ondoko hizkerekin alderatu gabe aztertzeak berak salatzen du ez dagoela ezer azaltzeko asmorik (Camino 2004: 70): orokorrean ez dira batere kezkatzen, ez bakarrik geolinguistikaren (are gutxiago diakroniaren) alderdi teorikoez, baizik eta ezta direlako ezaugarrien hedadura maparaztea ere (*ibid.* 526); hau da, beste era batera esanda, askoren oinarrian ez dago inolako galdera funtsezkorik, delako herriko hizkera deskribatuzetik harago doanik.

Deskribapenak egiteko bigarren moldea *mapa dialektalak* ditugu: eskualdeetako datu dialektalak batu nahian, eta errealitateak duen ñabartasun ikaragarriaren aurrean, atlas linguistikoetan sinplifikaziora jotzen da, mapak garai baten argazki leialak izango direlakoan. Sinplifikazioa zilegi eta are beharrezkoa ere bada zientzietan, baina kasu honetan ez da egiten errealitatearen interpretazioaren (ez historikoaren, ez geografikoaren) ikuspegitik, baizik eta datuak mapetan modu koherente eta garbian agertzeagatik. Bestela esanda, hizkuntza errearen gutxieneko bat nola bildu, inkestaguneak nola hautatu eta informazioa mapetan nola bildu, kudeatu eta azaldu behar den une honetan ez da hizkeren zergatia azaltzeko bitartekoa, dialektologia mota honen helburua bera baizik (Camino 2009: 239).

Dialektologiaren beste helburu nagusia hizkerak sailkatzea da, eta askoren ustetan dialektologiaren gailurra ere bada. Sailkapen klasikoetan ikertzaileak erabakitzen du zein ezaugarri diren hizkera eta euskalki arteko mugak ezartzeko esanguratsuenak eta, jakina, aukeratzen dituen ezaugarrien arabera emaitzak izango ditu; beraz, ezaugarriak aukeratzeko irizpideak ondo finkatzea izan beharko litzateke jardun honen oinarria. Hasteko, gogoan hartzekoa da helburu aitortua une zehatz bateko

¹² Adibide bat ematearren, Zeberriko euskarari buruzko monografia lan aitzindarietako batean (Etxebarria 1991), subjuntiboko perpausetako *zein* ezezko partikula (cf. § 4.2.4.11) agertu agertzen da; alabaina, hizkuntzaren historian eta hizkeren arteko konparaketan aurrera joan ez izanak eragin du ezaugarri interesgarri hau (ik. § 4.4) umezurtz geratzea lan hartan.

hizkuntz egoera marraztea dela, egoera horretara nola heldu den (hots, zergatik gertatu den) eta gai horri *berariaz* erreparatu gabe, dialektologiak alderdi biak biltzen dituela kontuan hartu gabe (cf. Möhlig 1980: 82)¹³. Edonola ere, ezaugarriak haztatzeko berrikuntza, arkaismo eta hautuen arteko bereizketa klasikoa erabili ohi dute, eta berrikuntza konpartituei balio gehiago ematen zaie (ik. § 2.2.3.3), espero denez, baina askok horiei *bakarrik* erreparatzen diete.

Gurean bide honi K. Zuazok ekin dio azken urteotan, bai euskalki sailkapen berrian (1998c), bai eta euskalkiei buruzko bere dibulgazio lanetan (2003, 2008) ere; egia da, ordea, bere sailkapenari dimentsio historiko bat eman nahi izan diola, ohiz bestela. Oraingoz sailkapen honen alderdi historikoa alde batera utzi (ik. § 2.3.3) eta haren irizpideei gagozkielarik, lehenik azpimarratu behar da berak ere bestelako dialektologoei leporatzen diela gauza handi eta txikiak elkarrekin emateko joera, bai eta gehienetan hizkeraren bitxikeriei erreparatzea ere (Zuazo 2008: 18). Honekin batera, bere hitzetan, “...berrikuntzak —edo berrikuntza izan daitezkeenak— bereizten ahalegindu naiz. Alde batera utzi ditut arkaismoak. [...] Euskarak eskaintzen zuen aukeratik euskalki bakoitzak egindako hautuak ere ez ditut aintzakotzat hartu” (1998c: 192). Hori ez ezik, arkaismoak ere lantzen dituzten dialektologoen lana kritikatu ere egin du (kritika honetaz eta honi erantzunez, ik. Camino 2008a: § 6). Honekin, berak bilatzen dituen ezaugarriak lau taldetan banatzen ditu: *arauak* (emankorrek eta ihartuak), *garatu gabeko arauak*, *aldaerak* eta *bazterreko gertakariak* (Zuazo 2008: 18-22).

Alabaina, berrikuntza *izan daitezkeenak* bakarrik erabiltzeak baditu arazoak: izan ere, berrikuntza konpartitu guztiek berdin balio al dute? Ala zaharragoek balio erabakigarriagoa dute? (cf. § 2.2.3.3). Berrikuntzatat erabiltzen dituzten horiek berrikuntzak *badirela* jakintzat eman baliteke, ondoko kontua da haien zahartasuna kontuan hartzeari muzin egiten zaionean berrikuntza guztiak aldi berean eta berez gertatuak balira bezala erabiltzen direla, isoglosen ulerkera zuzenera heltzeko inolako modurik gabe. Honen ondorio zuzena sailkapen estatikoak dira, aldaketa azaldu gabe utzi ez ezik banaketa guztiak une berean gertatu direlako irudi okerra ere ematen dutenak eta, areago, une jakin bateko banaketak izan beharrean betierekoak direlako

¹³ Hauxe da pasarte osoa: “Comme la linguistique générale, la dialectologie présente deux aspects: l’aspect synchronique et l’aspect diachronique. Etant donné l’état de la dialectologie africaine, la dialectologie historique, qui m’intéresse personnellement le plus, n’est possible que sur la base de la dialectologie synchronique. Il ne m’était possible de traiter ici que de dialectologie synchronique, je voudrais seulement ajouter que cette méthode mène à des résultats qui me semblent révolutionnaires si l’on compare ceux-ci avec ce qu’on croyait savoir jusqu’ici de la préhistoire bantoue” (Möhlig 1980: 82).

irudia ere eman dezaketenak. Gauzak areagotu daitezke euskara bezalako hizkuntza batean, non ezin dugun beti argi erabaki zer den berrikuntza eta zer arkaismo (Mixelena 1964a, *OC V*: 29): ezer gutxirako balioko digu azterketak, aldaketaren norabidea ezin bada antzeman.

Hizkeren sailkapena egiteko XX. mendeko 70. hamarkadatik aurrera goraka doa *dialektometria*, dialektoak banatzeko asmoz beste zientzietan (zientzia zehaztuetan edota gizarte-zientzietan) entitateak banandu eta sailkatzeko erabiltzen diren prozedurak erabili nahi dituen (Aurrekoetxea 2009: 122), euren iritziz ohiko dialektologiak dituen zenbait muga gainditzeko asmoz. Funtsean ez dituzte ontzat ematen ikertzailearen ezaugarri aukeraketak eta erabakiak, eta hizkeren arteko isoglosak datuka eraiki behar, datu multzo handiak erabili nahi dituzte, konparaketa hizkuntz sistemen artean egin behar dela sinistuta (Aurrekoetxea 1995: 23). Honetarako ezaugarri asko hartzen dira, eta estatistikaren modelizazio numerikoa erabiliz ordenagailu-programa batek hizkeren arteko hizkuntz distantzia kalkulatu du. Kalkulu horien arabera dialekto, azpidialekto eta hizkerak lotzen edo banatzen dira, eta emaitzak kartografiatu daitezke hizkeren balizko mapetan (Aurrekoetxea 1995: 34). Honela hizkeren banaketa objektiboagoa lortzen dutelakoan daude: ezaugarri asko izanda, konparaketa guztietan datuak beti berak izango dira, ez dira hizkeraz hizkera aldatuko ikertzailearen gogoaren arabera eta, jakina, honek hizkerak banatzen dituzten ezaugarriak baino ez ditu erabiliko (Aurrekoetxea 1995: 32).

Metodologia honek (ik. § 2.2.1) arazo larriak ditu datuen analisi kualitatiboan oinarritu ohi diren dialektologo eta diakronisten ustetan (cf. Camino 2009: 462).¹⁴ Honela, Aurrekoetxeak (1995) Bizkaiko euskara sailkatzean —euskararen metodo hau erabiliz egin den lanik zehatzena— sailkapen eta mapa ugari aurkezten ditu, hizkuntzaren atal ezberdinen (fonetika, izen eta aditz morfologia, sintaxia) mapatzea egiteaz gainera. Amaieran, atal guztiak bildurik, aztertze eremua nahi beste multzotan bana ditzake (bi, hiru, lau edo bost multzo egiten ditu), estatistika algoritmoak erabiliz: hala ere, azken ondorio legez esaten digu metodoa baliagarri izan daitekeela multzo gutxitan banatzen denean, baina beheagoko mailatan zailtasunak ditu, eta lortzen duen “mapa hau ez da mugaketa geolinguistikoa egiteko baliagarri” (Aurrekoetxea 1995: 288).

¹⁴ Campbell-ek (1998: 180-6) glotokronologiari egindako kritikak honako honi ere aplikatu dakizkioke.

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Gure ustez, honek esan nahi duen gauza bakarra da zenbat eta eremu zabalagoa hartu hizkera berdinagoa izango dela (horregatik datorke egitura koherenteagoa bi eta hiru multzoko mapetan), baina gauzak xeheki aztertzeko ez du balio: bai talde txikiak egiteko, bai hizkuntza atal ezberdinak bere aldetik aztertzeko orduan “metodologia eta sailka-tresnekin lortzen diren emaitzak ezin dir[a] beti diatopiatik aztertu. Badir[a] bestelako arrazoi batzuk hizkuntz aldakortasuna aztertzeko eta haietara joan beharra dago[...].” (*ibid.* 282). Metodo handiak eta emaitza txikiak, beraz. Azken batean, gizarte zientzia batzuetan ere antzematen den arazoa genuke honen azpian: zenbakien bitartez “zientziatasun” eta objektibotasun itxura eman nahi zaio jardunari; hala ere, zientzia ez dute zenbakiak bereizten, ikergai, metodo eta helburu definituak izateak baizik (Wagensberg 1998: 85; cf. Sokal & Bricmont 1997 [2006]: 53).

Hizkuntzalaritza historikotik hainbeste urrundu ez den dialektologiak ere sailkapena egiteko orduan, arkaismo, berrikuntza eta hautuen arteko banaketa klasikoa erabiltzen du, baina ezberdintasun nagusi bat du aurrekoekiko: hizkera bat sailkatzeko orduan hizkera horrek jasandako ibilbide osoa kontuan izan nahi du, hau da, zergatia bilatu nahi du:

...espazioan gaindi gertatu diren aldaketen azterketa sendo bat egitea da eta horretarako, desberdintze historiko-geografikoa neurtzeko bideak behar dira; hartara, hizkuntzak harrapatzen duen geografia-eremuaren barrenean gertatu diren berrikuntzen abiaguneak eta beren garaiak aurkitzera jo behar da (Camino 2009: 9).

Azkenengo lanetako batean Caminok (2013a) saio arras interesgarria egin du dialektologia historikoak azpitaldeak egiteko zer-nolako urratsak egin ohi dituen erakutsiz eta, bere hitzetan, lanak “funtsean dialektologia diakronikoa lantzeko hizkuntzalaritza historikoaren eredia baliatzen dela adierazten du” (Camino 2013a: 77; cf. § 2.2.3.2).

Dialektologo hau lan erraldoia egiten ari da, testuetatik eta mintzoetatik ateratako datuak uztartuz, gehienbat Euskal Herriko ekialde zabala (Camino 2003, 2008b, 2011, 2013a, etab.) bere konplexutasun guztian aztertu eta deskribatzeko, dialektologiaren egiteko, metodo eta helburuez hausnarketa sakona egiteaz gain, lerro hauetan zehar nabarmendu dugunez. Zerbait egoztekotan, hauxe egotziko genioke: nahiz eta “hizkeren arteko muga finkatzeko eta distantzia linguistikoa hobekien zehazteko gehien laguntzen duten ezaugarriak edo gehien baliatzen diren tasunak zein diren adierazteko” lana hartu (cf. Camino 2004: 76), egin ohi dituen datu bilduma

interesgarri eta zehatzetatik ondorio historikoak ateratzeko halako atzerapen bat (cf. Camino 2011: § 9). Edonola ere, asko ikasi dugu Caminoren lanetatik ez eze beraren lan egiteko modutik.

Egindako berpasa laburretik bi ondorio nagusi atera nahiko genituzke. Lehenik, metodo zientifikoaren arabera naturaren konplexutasuna ulergarri egitea ezinbestekoa izanik (Wagensberg 1998: 87), diakroniatik begiratuta interesgarriak diruditen ezaugarriak bakarrik erabiltzea beharrezkotzat jotzen dugu (cf. § 4.2) eta haietatik hipotesi historikoak egitea, diakronia baita hizkuntza aldaketa ulertzeko modua (cf. Coseriu 1978: 25).

Eta, bigarrenik, sailkapen hutsean geratzea ez da onargarria, gure ikuspegitik: hizkeren ezaugarriak nola sortu, hedatu, mugitu edo aldatu diren ikusarazteko beharrezko erreminta baino ez zaigu iruditzen (§ 2.2.1), aldaketa nola gertatu zen azaltzeko egin behar den lana ordezkatu ezin dezakeena. Honela, dena delako hizkera “dialekto” bati edo besteari egozteak konplexutasunaren laburpen bat baino ez litzateke izango, hipotesi baten ondorio eta erakusgarri; ondorioz, hizkuntzaren historiako garai bakoitzean sailkapen eraginkor edo, besterik ezean, gutxienez eroso bat baino ez dugu bilatuko.

2.2. Dialektologia Historikoa: jakintza *continuum*-a

Tesi honetan diakronia, dialektologia eta filologia jakintza *continuum* gisa ulertzen ditugu —dialektologiaren termino bat inportaturik—, eta *continuum* horrek ikerketaren muina jartzeko ematen dituen aukeren artean gure zeregina tradizionaliki “dialektologia historikoa” deitu izan denaren baitan kokatuko da.¹⁵

Mundu anglosaxoian dialektologia historikoa antzinako hizkeren deskribapenari dagokio, hizkuntzaren antzinako egoeretan diren aldakortasunaren azterketari, alegia (Dossena & Lass 2009: 7), eta gehienetan garai zaharretako mapa linguistikoak egiteko baliabide metodologikotzat hartua da (cf. McIntosh & Wakelin 1989 [1982]); dena dela, ezaugarrien garaian garaiko azterketa ere ohiko jardunbidea da (Fernández & Rodríguez

¹⁵ Inork pentsa lezake, nahiz eta zientziaren gehiegizko espezializazioaren aurka egin dugun, espezializazio horrek berak sorturiko beste esparru bat mugatu nahi dugula. Aitzitik, egokia iruditu zaigu tradiziozko izenera jotzea, izena duen orok izana baitu, atsotizak dioenez.

2009). Zertxobait ezberdinak dira mundu erromanikoan aurki ditzakegun definizioak, frantsesean adibidez:

Si la dialectologie a pour tâche l'étude scientifique des dialectes d'une langue donnée, la dialectologie historique ajoute a cette étude la dimension du temps. [...] La dialectologie historique aura par conséquent pour mission normale l'étude des dialectes depuis leur apparition jusqu'à leur déclin éventuel (Dees 2001: 852).

Filologia hispanikoan ere, Menéndez Pidal-i jarraituz (cf. Fernández-Ordóñez 2010), Dees-en ikuspegi bertsutik, hizkuntzalaritza historikoaren eta dialektologiaren arteko elkarlana bultzatzen da: azterketaren dimentsio horizontala (geografia) eta bertikala (historia) ez dira aparteko bideak, koordenatu osagarriak baizik (Gimeno Menéndez 1983: 182). Antzeko ikuspegia eskaintzen du Fernández-Ordoñez-ek dialektologia historikoari buruzko gogoeta interesgarri batzuetan (2001): izenburuan dialektologia historikoaz jardungo duela esan arren, ikertzaileari “historiador de la lengua” epiteto iradokigarria ematen dio.¹⁶

Ikusten denez, bai mundu anglosaxoian, bai erromanikoan, ñabardurak gorabehera, antzeko bidea lantzen dute, eta horretara hurbilduko gara gu ere; euskal corpusaren izaerak eta egoerak (cf. Lakarra 1997a: 448) gutxi laguntzen du antzinako hizkeren deskribapen orokorrak egiten eta, beraz, mundu erromanikoan legez azterketaren dimentsio horizontala (geografia) eta bertikala (historia) era osagarrian erabiltzean egongo da gure jardunaren interesgune nagusia (baina ez bakarra).

Ezer baino lehen, filologia izanik gure lan esparru naturala, hortik abiatuta egingo dugu lan tesian zehar, aipaturiko *continuum*-aren ideia buruan: izan ere, filologiak bildu (cf. § 2.2.2.1) eta haren galbahe kritikotik igarotako datuak ondo menderatu gabe ez dago ezer ere zuzen berreraikitzerik (cf. Meillet 2001 [1925]; Mitxelena 1963, *OC I*; Campbell 1998: § 14)¹⁷ eta, era berean, dialektologia historikoak

¹⁶ Antzeko adibideak nahi adina ugaldtu daitezke: adibidez, Kanarietako hizkeren azterketan dialektologia historikoaren beharra aldarrikatzean honela dio Medina López-ek (1994-95: 220): “sabemos muy poco de la configuración y desarrollo de la lengua de Castilla traída desde 1402 —primer año de la conquista— hasta 1496, fecha en la que se da por finalizada la misma y, por supuesto, de la evolución posterior”.

¹⁷ Cf. “Hizkuntzaren historia aztertu gogo duen ikertzaileak, —bere gaitasunaz eta teoria linguistikoaz landa—, bi eratako baldintzak kontuan beharko ditu, nahi eta nahiez biek izango baitute eraginik bere ondorioetan: corpusaren aberastasuna (antzinatasuna eta ñabartasuna, nahiz dialekto, nahiz hizkuntz maila, nahiz literatur moeten aldetik) eta corpus horren ezagutza. Bigarren honetarako lan filologikoa zehatza ezinbesteko da, teoria linguistikorik hoberenarekin batean. Usu ez ditugu biak batera ikusten”. (Lakarra 2012b: *sarrera*)

Honen adibide ugari dakartza, baina bat aipatzearen aski izan daiteke Trasken *ez/ze* ukapen formak aztertzerakoan aoristoaz egiten duen hurrengo baieztapena: “Rare outside of Leizarraga, and

ezin du lanik egin bere iturriak ziur erabiltzerik ez badu (McIntosh 1975 [1989]; Fleischman 2000; Fernández-Ordoñez 2001; Camino 2003: 42 e. hh.; Lass 2004). Halaber, guk aldarrikatzen dugun filologiarik onena (ik. § 2.2.2.1) hizkuntzaren historiak eta dialektologia historikoak dituen galderei erantzun nahian egiten dena da (Rissanen 1990; Orduna 2000: § 3.2; ik. baita Laing 2004 ere).

Dialektologia klasikoaren eta diakroniaren arteko erlazioa ere beharrezkoa da: gorago ikusi denez, jatorriz dialektologia XIX. mendeko metodo konparatzaile klasikoa gainditzeko sortu zen eta, guztiz ordezkatu ezin duen arren (Camino 2013a: 78), artean ez du galdu esparru honetan duen ahalmena:

Eredu historiko konparatzaile klasikoa hizkuntza-geografiak darabiltzanekin osatzea onuragarri gerta daiteke: hizkuntzen eta dialektoen mugak ez dira guztiz zehatzak ezta behin betikoak ere, eta bestalde, proto-hizkuntzak ere ez dira homogeneoak; berebat, hizkuntza unitate bat dialekto izatetik hizkuntza izatera dagoen aldea *continuum* bat da (Camino 2009: 51).

Ez da hutsala hemen gogoratzea, azken finean, diakroniaren eta sinkroniaren arteko mugak lotzen direla hizkerak aztertzeke orduan (cf. § 2.2.2.2), bertan batzen baitira hala ezaugarri gordeak nola hizkuntza estandarrean gertatu ez diren bilakabide berriak (Camino 2009: 48). Gure egingo dugu, bada, Post-en aldarrikapenaz (prestatzen, ap. Lakarra 2011a: 158) —alegia, edozein deskribapenetan diakronia ezinbestekoa dela— Lakarrak egin duen irakurketa:

gehiegikeria handirik gabe [...] “dialektologia diakronikoa” esapidea (ia) pleonastikoa dela eta dialektologiako ikerketak —anekdota eta azalkeriarik urrunduaz azalpenak bilatzen baditugu, bederen—, diakroniaren barne-barnean direla (Lakarra 2011a: 158).

Dialektologia klasikoak (geolinguistikak) irizpide argiak ematen dizkio berreraikitzaileari berria eta zaharra bereizteko (Mitzelena 1963, *OC I*: 55; hemen ik. § 2.2.3.4), bai eta, azterketa sinkroniko hutsa izanda ere (XX. mendeko atlas dialektal bat

unknown since his time, the second set of forms is decidedly unusual, and may represent no more than an idiosyncratic development peculiar to a particular time and place” (Trask 1997: 237-8), eta Lakarraren beraren iruzkina: “Hurrengo ahapaldiko aoristoari buruzkoa ere harrigarria da (ikus § 3.4.3.1), Euskal Herri osoko lekukotasunik arkaikoenetan ageri baita, 1398ko Labieruko zaldunaren hilarriko *nor izan zan zuri lotsa egorrochi eguiçunatik* hasita. Euskara Batu Zaharrekotzat —gutxienez— jo litekeen egitura dugu, bai erabilera perifrastiko zein sintetikoan (azken hauetan *RS* Leizarraga baino aberatsago izan arren)”.

kasu, cf. Möhlig 1980: 82), ikuspuntu diakroniko batetik begiraturaz aldaketa linguistikoa nola gertatu den erakusten digu hiztun komunitatean zehar (Braunmüller 2007: 17). Esan gabe doa geolinguistikak (are diakroniari muzin egiten dionak ere) hizkerak sailkatzeko berrikuntzak eta arkaismoak erabiltzerakoan, diakroniaren ikuspuntutik begiratzen diela ezaugarriei, geografia hutsak ezin baitu ezaugarria arkaismo, berrikuntza edo hautu bezala definitu, horretarako laguntza handia eman arren.¹⁸

Datu dialektalek informazio garrantzitsua ematen badute ere aldaketa linguistikoa berreraikitzeke, hizkuntzalaritza diakronikoak ematen ditu horiek egoki interpretatzeko baliabideak (cf. Fernández-Ordóñez 2012: 102); hau da, datuak hizkuntza aldaketaren teoria baten barruan kokatu behar dira, ostantzean azterketa atomistan jausiko baikinake (cf. § 2.1.2).¹⁹ Honetatik ondorioztatzen da, halaber, “dialektologia historikoa”, geolinguistikaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren erdibidean delarik ere, diakronian duela bere esparru naturala, eta honetan dialektologiak²⁰ duen leku garrantzitsua betetzen duela (cf. Braunmüller 2007: 15; hemen ik. § 2.1.1).

Baieztape hau soberan egon beharko litzateke; baina zenbaitetan kontu jakinak errepikatzea eta azaltzea ez dator txarto; areago gure artean, non askok lan egiten baitute euskalkiak betierekoak bailiran eta historian zehar hala euren ezaugarriek nola euren mugek aldatu gabe iraun izan bailuten (cf. Lakarra 2011a: 236).

Williamsonek (2004: 100), dialektologia historikoa atal beregaintzat jo arren (hizkuntzalaritza orokorraren “azpijakintza” legez), bere ustetan jakintza linguistikoko guztiak bezala honek ere muga irekiak izan behar ditu. Ikuspuntu “zurrun” honen aurka, uste dugu, esan bezala, hizkuntzalaritza diakronikoaren baitan kokatzen dela, ulerpen diziplina den heinean, eta ez deskribapen hutsa (Lakarra 1997a: 463), aldaketa linguistikoko ezberdinak zeintzuk diren eta *zergatik* gertatu diren erakutsi nahi baitu (aldaketaren barne makinaria, alegia); dialektologia historikoa, bada, honen osagarri

¹⁸ Izan ere, gure ustez dialektologia historikoaren eta klasikoaren (geolinguistikaren) arteko aldea abiapuntuan baino ez dago, ez ikerketa gaien edo helburuetan: bigarrenak egungo hizkuntz ezaugarriak (dialektoak) aztertzen ditu, lehenagoko egoera linguistikoa berreraikitzeke asmoz (printzipioz behintzat, cf. § 2.1.2.); dialektologia historikoa, ordea, lehenagoko dialektoen egoera aztertzen du, hizkuntzak izandako bilakabide orokorraren barruan egungo dialektoetara nola heldu den azaltzeagatik.

¹⁹ Cf. Bile *et al.* (1984: 158): “On rencontre fréquemment chez les dialectologues (...) un refus de ‘théoriser’ et, corrélativement, une prétention à se contenter de la présentation ‘objective’ des seuls faits. Il s’agit là naturellement d’une illusion, car tous les énoncés de faits ‘présupposent des concepts dont la signification est au moins partiellement donnée par le contexte de la théorie’. Autrement dit, prétendre se contenter des faits, c’est déjà se soumettre à une théorie”.

²⁰ “Dialektologia” diogu, baina har bedi zentzu zabalean: izan ere, soziolinguistika ere buruan dugu; ezaguna denez, ikergai biak hizkuntzalaritza historikoaren barruan kokatzen dira askotan (cf. Gimeno Menéndez 1990: 11).

litzateke, aldaketari buruzko hipotesi eta zergati horiek hiztunengan *nola* gauzatu diren eta honen azalpena bilatuz, garai bakoitzean ezaugarri bakoitzaren egoera (hots, isoglosa bakoitza) deskribatuz eta hiztun komunitatearen adakiak aztertuz: espazioa (euklidearra, soziala eta pertzepziozkoa, ik. Meurman-Solin 2012: 466), parametro sozialak, testuinguruak, etab.

Honen harira, Pilch-ek (1988) dialektologia historikoa eta hizkuntzalaritza diakronikoa zein bere aldetik ibiltzeak dakartzan arazoak azaleratu ditu, eta elkarrekin lan egiteko modua bere ustez zein den erakutsi. Honetarako, dialektologia historikoan metodo hauek erabiltzea proposatzen du:

- (i) Look at the structure changes (in the time dimension) that make good not just the contemporary textbook language, but the empirical standard language, including its dialectal variability.
- (ii) Trace the spread of isoglosses in the time dimension, notably the rise and decline of specific focal areas and the corresponding relic areas.
- (iii) Reconstruct earlier historical stages from the comparative evidence of later dialectal variability (Pilch 1988: 423).

Ondoren datozen ataletan, beraz, dialektologia historikoaz (edo dialektologiaz, oro har) hemen erabiliko dugun ulerkera azalduko dugu, baina horretarako lehenengo zenbait kontzeptu argitzen saiatuko gara, ez sortu dituzten eztabaida amaigabeetan parte hartzeko asmoz, gure tesian zehar nola erabiliko ditugun zehazteko baizen.

2.2.1. Zenbait kontzeptu argituz: dialekto vs. isoglosa

il n'y a réellement pas de dialectes; il n'y a que des traits linguistiques qui entrent respectivement dans des combinaisons diverses (Paris 1888: 163, ap. Zantedeschi 2012: 6)

Edozein eskuliburutan ikus dezakegu dialektologiaren helburua “dialektoen” azterketa dela. *Dialektoa* kontzeptu tradizionala, edozein hiztunek izan dezakeen intuiziotik sortua da:²¹ hiztunak berez konturatzen dira hizkuntza ez dela izaki bateratu

²¹ Hiztunok *dialektoaz* dugun iritziez ari gara, noski, ez historikoki *dialekto* hitzak izan dituen esanahiez edo mundu akademikoan dituen eta izan dituen inplikazioez.

bat, eta berdin erreparatzen diote aldakortasun horizontalari (hurrengo herrikoek ezberdin hitz egiten dute) zein bertikalari (aitona-amonek ezberdin hitz egiten dute).

Hizkuntzaren aldakortasunaren intuizio natural hori “dialekto” adigaiari laburbildu zen Grezia zaharrean, non hainbat literatur dialekto sortu ziren, berez sumatzen zuten aldakortasun horizontalarekin lotuz (dialektoak lurraldeen izenak izatea ez da kasualitatea izango: jonikoa, dorikoa, arkadioa...). Adigai hori mendeetan zehar mantendu eta XIX. mendean ere, dialektologia modernoa sortzean, adiera bertsuan erabili zen.

Harrezkero, ikerlariak (eta hiztunek oro har) ere bere egin dute kontzeptua, eta dialektologia modernoa sortzean ahozko hizkuntzari berea ematen hasten bazaio ere, oraindik ere hizkuntza idatziaren pisua oso nabarmena da, egun “literatur dialekto” legez ezagutzen duguna gurean Bonaparteren lanetan biziki igartzen da (cf. Urgell 2012: § 6.4.2) eta oraindik ere indeoeruperaren azterketan, besteak beste, “dialekto” eta “literatur dialekto” bat omen dira (Garrett 1999). Dialektoak izan badirela eta muga jakinak dituztela barneratu dute ez bakarrik alor ezberdinetako adituek, edozein hiztunek ere oro har: honela, M. Alvarrek (1961), dialektoaren definizioa bilatuz esaten du hizkuntza bateratu (bizi zein hil) batetik banandu den sistema bat dela dialektoa, muga geografiko zehatz batekin, baina besteekin konparaturik jatorri komunikatiboa ezberdintasun sakonik gabea.

Dialektologia aurrera joan ahala, baina, galdera berriak sortuz joan ziren, guri dagokigunez funtsean bakarrean utzi ditzakegunak: Nola neur ditzakegu dialektoen arteko ezberdintasunak modu zientifikoan? Hau da, nola joan tradizioetik eta intuizioetik harago dialektoa zer den jakin eta hura definitzeko orduan? Lan eta gogoeta anitz egin dira dialektoa zer den edo zerk egiten duen hizkera multzo bat dialekto eta galdera hauei erantzun nahian, bai eta zein baldintza bete behar diren hizkera bat dialekto batean edo bestean sailkatzeko; horretarako hainbat teknika eta lan-molde sortu dira, baina baita aldi berean *dialekto* kontzeptua bera kolokan jarri ere jarri da.

Izan ere, aspaldixko argi gelditu da *hizkuntza*, *dialekto* eta *isoglosa* kontzeptuen artean lehena eta azkena bakarrik izan litezkeela absolutu edo oinarritzko, *dialektoa* beti izango baita hizkuntza baten menpeko (Lakarra 2011a: 160). Batzuen arabera *hizkuntza*-ren izate absolutua ere kolokan jar daiteke, definizioz elkarrekiko ulergarri diren hizkera multzo bat baino ez bailitzateke (cf. Campbell 1998: 165), baldin eta hizkuntzaren aldaera estandarrak estaltzen eta zenbaitetan ordezkatzeko duen errealitatea aintzat hartzen badugu.

Izan ere, ezaguna da hizkuntza berez zatikatu egiten dela etengabe; eta batu gizakiek batzen dugula, era batera edo bestera (Mitzelena 1981, *OC VII*: 534). Ildo honetatik iradoki du Garrett-ek (1999: 154; cf. Lakarra 2011a: 180) hizkuntza indoeuroparren adar zeltikoa, grekoa eta italikoa *gero* sortuak direla, bakoitzari dagokion nazio literatura eta kultur tradizioaren azterketatik abiatu baitzen ikerketa, XIX. mendean nazio-nortasunaren kontzeptua sortu eta gero; ondorioz, hasiera batean dialekto *continuum* bat baino osatzen ez bide zuen hizkera multzo hura (Garrett 1999: 152) hizkuntza berezitatutzat hartu eta ulertu izan dira. Gauzak honela edo bestela izan, argi dago *isoglosa* dela egiazki antzemangarri den bakarra eta, beraz, ziurrenik oinarritzko elementu bakarra.

Hizkuntzak etengabe pairatzen dituen aldaketak abiadura berean hedatu ohi ez direnez, aldaketen ondorioak nekez datoz bat muga geografiko jakin batean: aitzitik, esan liteke ezaugarri bakoitzak bere muga propioa daukala, bere *isoglosa* propioa alegia. Honek galdera garrantzitsu bat sortzen du: muga dialektalak existitzen al dira? (Bynon 1977: 190). Edo, beste era batera esanda: Nola marraztu dezakegu muga dialektal bat ezaugarri ezberdinen isoglosak ezberdinak badira? Galdera txarra erantzuteko, inondik ere.

Hala bada, dialektoak isoglosa bat edo batzuen arabera definitu behar dira, eta beraz, beti izango dira subjektiboak —edo interpretazioaren ondorio, historialariek zehatzago definitu dutenez (cf. Le Goff 2005 [1991])—, “since it is the linguist who selects the particular one, or ones, which he considers to be most significant from the mass of conflicting isoglosses” (Bynon 1977: 190). Mitxelenak ere (1964a, *OC V*: 19) badiosku dialektoak isoglosen eta hauetako bakoitzari eman nahi zaion nagusitasunaren arabera direla, erosotasunagatik edo bestelako arrazoiengatik. Horregatik, bere ustez

Lo decisivo es que nos interesa conocer no es el límite de dos dialectos contiguos, límite que sólo podemos fijar de una manera arbitraria, sino las fronteras reales, distintas en cada caso, que dibuja la difusión de fenómenos lingüísticos concretos (Mitzelena 1964b, *OC VII*: 469).

Ondorioz, oraindik *dialektoa* azalpenerako ezinbestekoa dela pentsatuko bagenu, nahitaez abstrakzio legez ulertu behar dugu: espazioaren banaketa lurralde edo dialektoetan errealitatea desitxuratzen duen eskematizazio bat da (Dees 2001: 853; cf. § 2.2.3.3) edo, bestela esanda, ikertzaileak planteatzen duen lan hipotesia, eskura dituen

datuen artean hautuak eginez egin ahal izan duen sailkapenik onena, edo erosoena bederen. Alde honetatik, hipotesi guztiak bezala dialektoa ere ez da behin betikoa, betiere datuekin erlazio dialektikoan dagoena baizik.

Gurera etorririk, esan liteke ezer gutxi igarri dela *dialekto* kontzeptuak pairatu duen aspaldiko aldaketa hau. Zein ere den ontzat ematen den sailkapena, den Bonaparteren zaharra (1869) edo den Zuazoren berria (2008), onik onenean ere Euskara Batu Zaharretik zuzenean datozen dialektoak bailiran ulertzen dira “euskalkiak” direlakoak (Lakarra 2011a: 170). Sailkapen finkoak dira, gotorrak, hizkuntzaren etengabeko aldaketari entzungor egiten diotenak. Hizkuntza baten hizkeren arteko erlazioak etengabe aldatzen direnez (*ib.* 181), sailkapenon irizpideak kritikatu gabe ere, esan litekeen onena da printzipioz zein bere garaiari dagokiola, baina ez dutela Euskara Batu Zaharretik hona euskal hizkeren artean garai ezberdinetan sortu diren erlazio ezberdin eta aldakorren berri emateko gaitasunik, ez borondaterik ere.

Gurean, bada, oso argi antzematen da —ez bide da hizkuntza bakarra— dialektoa lan egiteko hipotesizat hartzea aldaketaren norabidea zein izan den jakiteko *handicap* handia izan daitekeela, aurreiritzi indartsu gisa jokatzeko baitu. Izan ere, maiz ikusten dugu isoglosak ez duela aurrez dialektotzat definitua dugun zer hori bere osotasunean hartzen edota haren mugak handik eta hemendik gainditzen dituela: adibidez, pluralekiko komunztadura ezak, Arabako euskaran, bizkaieran eta gipuzkeran izan arren, ez du hauetako bat ere osorik biltzen (Lakarra 1996a: 190); era berean, dialekto andaluzia definitzeko erabiltzen diren ezaugarri esanguratsuenak hizkera gehiagotan aurkitzen dira eta, alderantziz, egitura fonologikoaren ezaugarri nagusiek ez dute andaluziera guztia biltzen (Alvar 1961: s.f.).

Gerta daiteke, halaber, dialektoa definitzeko erabilitako isoglosa atzo goizekoa izatea: adibidez, erdialdeko euskalkiaren ezaugarritzat eman ohi den *al* galdetzailea (cf. Zuazo 2008: 123) tradizioan (hots, historian) bilatuz gero, egiazta dezakegu (*EKC*, s.v. *al*) XIX. mende erdialdea arte ez dela agertzen (Iturriagarenean aurkitu dugu lehenengoz), eta ondoren baino ez dela hedatzen, besteak beste Bonaparteren “literatur gipuzkeran” berebiziko garrantzia hartzen baitu (Uriarteren Bibliaren itzulpena lekuko, 1.200 agerpen ingururekin): Donostiako eskolaren obretan (Soroa, Altzaga, Artola...) orokorra da jada.

Bistan da pluralekiko komunztadura ezak ez duela orain arte aintzat hartu izan diren euskalkiak definitzeko balio, eta *al* partikula galdetzaileak une batetik aurrera baino ez lukeela balio. Ostera, halako ezaugarriek balio handia dute dialektoak behin

betiko zerak ez direla ikusarazteko, eta apika horietako batzuk antzina ez zirela existitzen frogatzen hasteko, bai eta euren barruan sartu ohi ditugun hizkera batzuk behintzat antzina bestelako erlazio multzoetan sartuta zeudela ere (Lakarra 2011a: 181).

Dena dela, oraingoz XIX. mendea baino lehenagoko euskararen historiaren garaietan izan ziren harreman lektalak definitzeko hipotesirik ez dugunez, tesian zehar —orain arteko ikerketa diakronikoan ohikoa denez— Bonaparteren sailkapen hedatuan, hots, Mitxelenak Arabako euskara ere aintzat harturik eratuan ohikoak diren euskalkien izenak erabiliko ditugu, erosotasunaren izenean, Mitxelenaren iritziaren arabera: “El príncipe nos ha legado una clasificación muy cómoda además de razonable, que todos venimos usando como marco de referencia hasta el día de hoy” (Mitxelena 1964a, *OC V*: 15). Honekin batera, *mendebalde*, *erdialde* eta *ekialde* zatiketa orokorrak (ik. Padilla, Ulibarri & Urgell 2015) ere beharrezko izango zaizkigu lantzean behin azterketan zehar: izan ere, antzinako materialen urritasunak askotan eremu zabalagoak definitzeko aukera baino ez du uzten.

2.2.2. Dialektologia Historikoaren arazoak

2.2.2.1. Filologiaren beharra

Mitxelenak hatsarre bezala diosku, *FHV*-ri egin hitzaurrean bertan, fonologia diakronikoan aurrerapenak egiteko lehenengo bidea eskura diren lekukotasunak modu sakonagoan erabiltzea dela (*FHV* 15; cf. Haas 1969: 46).²² Honetarako, bere lehen lana ez zen berreraiketa eta konparaketari ekitea, baizik eta, mendebaldeko eremuan bederen, eskura zituen testu zahar gehienak aztertzea (*FHV* 17), euskal corpora orduan filologiaren ikuspegitik gehienbat arakatu ez ezik ukitu ere gabe zegoela kontuan harturik: han-hemenka guztien pasarte arazotsuenei ohar interesgarriak eskaini zizkien (cf. Mitxelena *OC XI*), eta haietako asko (Betolaza, *Viva Jesus*, Andramendiko eskriturak, Arrasateko erreketaren kantuak...) berrargitaratu ere egin zituen. Jardun hau,

²² Bigarrenez argitaratu zenerako (1977) eginiko sarreran (*FHV, OC VI*: 349-356) argi erakusten da filologiaren behar hori: lehenengo argitalpenetik (1964) bigarrenez (1977) euskalaritzan izandako berrikuntzetatik aipagarrienetan du lekukotasunen bilketa eta argitalpena: Erdi Aroko materialetatik hasita, baina baita *ASJU* (1967) eta *FLV* (1969) aldizkariaren argitalpenen bidez badirela “...numerosos nuevos datos sobre hablas actuales o extintas, textos inéditos y documentos medievales” (*FHV* 352).

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

jakina, metodologikoki justifikatua da, hizkuntzaren historia datatu eta kokaturiko dokumentu zaharren gainean baino ezin baita eraiki; beste guztia ez da estrapolazioa besterik, eta bakarrik balio dezake datu seguruaren oinarria badauka eta datuok diakronikoki azaltzen baditu (Mitzelena 1971, *OC XI*: 327). Era berean,

en linguística diacrónica se parte por lo general de fuentes escritas, lo cual supone por necesidad una interpretación previa, sobre todo por lo que hace a los sonidos (Mitzelena 1963, *OC I*: 13)

Aurreinterpretazioa filologiatik dator, noski. Har dezagun Landucciren hiztegiaren azterketa: lan filologikotik hasi behar izan zuen, eskuizkribua editatu ere gabe baitzegoen. Azterketak erakutsi zion hiru esku zeudela, ezberdintasun grafikoengatik (dela letra moldea, dela sistema grafikoa) ez ezik, kokapen lektalaren eta irizpide linguistikoengatik ere (Mitzelena 1958, *OC XII*: 209-10). Ezbairik gabe, ez zukeen emaitza bera izango nolanhiko edizioa erabili izan balu, ez eta eskuizkribua behar bezala ulertzeko heziketa filologikorik izan ez balu ere.

Filologiaren eta hizkuntzalaritza historikoaren arteko ezkontza ez da berria: Meilleten “filologiarik zehatzenaren” beharra (2001 [1925]: 24) aldarrikatzen du Mitxelenak, eta hatsarrea bere egin ere egin zuen, lan diakronikoa egiten duen edozein ikertzailek bezala (cf. Campbell 1998: § 14; Lass 2004; Rissanen 1990; Dees 2001). Biak elkarren osagarri dira, eta corpusaren egoeraren arabera bata edo besteak hartuko du garrantzi gehiago.

Corpusaren izaera eta egoeraren arabeko filologiaren garrantzi aldakor hau ederki islatzen da euskararen historiaren garai zaharretan, eta corpusaren aberastasunak eta corpus horren ezagutza dira hizkuntza baten historian aitzinatzeko aurrebaldintzak (Lakarra 1997: 448). Honela, hizkuntza baten corpora urria denean (oro har hizkuntza bat idatziz jasotzen den lehenengo garaietan) izaten da filologia beharrezkoago: lekukotasun faltak orduko egoeraz estrapolazioak egitera behartzen gaitu, eta horretarako oinarri sendoagoak erabili behar dira. Hauetan Rissanen esanek balio berezia hartzen dute: honen hitzetan, filologia da “ear for the language of the past”, baina ez nolanhiko filologia, baizik eta

based on extensive reading of texts, an interest in the finest nuances of expression, a solid textual basis for research, and a focus on cultural, historical, educational and personal aspects in analysing the language of a text (Rissanen 1990: 366).

Ingelesaren kasuan, *Old* eta *Middle English* aztertzeak testuen ezagutza filologiko sendoa eskatzen du, baina *Modern English* garairako gizarte aldaketek (heziketa, inprenta...) material gehiago eta ñabarragoak sorrarazi zituzten, eta diakronistak hizkuntzalaritzaren beste adarrak baliatzeko aukera gehiago ditu (Rissanen 1990: 361).

Filologiaren helburu nagusia da testuaren hizkuntz garaiari, lekuari, egileari, testuaren helburuari, testua egiteko egileak erabilitako lan moldeari, eta abarrei buruzko datu guztiak biltzea, testuaren fidagarritasuna bermatzeko.²³ Lan egiteko oinarri eta koroa testukritika litzateke (Orduna 2000: 3); hots, testu baten edizio kritikoa egiteko beharrezko metodologia lantzea.

Filologia klasikoak testu baten kopia eskuizkribatu edo inprimatu ezberdinak, haren transmisioa eta aldaerak aztertzen zituen, eta *recensio*-aren bidez (akats komunak erabiliz; ik. Brambilla 1984: 53) haien historia berreraikitzen zuen *stemma* batean, ondorengo *constitutio textus* atalean balizko originala berregin ahal izateko.

Esan gabe doa, honetarako argitaratzaile kritikoak egilearen *usus scribendi*-a ahalik eta hobekienik behar duela ezagutu, dena delako aldaera akatsa edo egilearen aldaera ote den erabakitzeke, ez bakarrik *emendatio* urratsa egiteko, baita *constitutio textus* osoaren oinarrian dagoen ikergaia delako ere (Urgell 2013a: 535, 5. oh.).

Garaiko beste hizkuntza aldaerak (geografikoak, estilistikoak...) ere ezagutu behar dira (Blecua 1983: 89); hots, testuari dagokion heinean behintzat hizkuntzaren historia ezagutu behar du filologoak egilearen hizkera hobeto ulertzeko, eta epaitu ahal izateko (cf. Sánchez-Prieto 1998: 82; hemen ik. § 4.2).²⁴

Filologia klasikoaren helburua egilearen original idealera iristea bazen ere, ideal hori desitxuratzen zuen guztia alde batera utzirik, egungo filologian *recensio*-ak beste esanahi bat hartu du, aberatsagoa, testuaren transmisioaren historiari eta, beraz, historiak

²³ Adibidez, testua itzulpena ote den edo ez jakitea oinarri-oinarrizko lan filologikoa da. Iturriagaren *Diálogos vascongados*-en Uriarteren bizkaierazko bertsioan *al* partikula galdetzailea askotan ageri da (EKC, s.v. *al*); beraz, datuak hutsean harturik pentsa genezake Uriarteren bizkaieraren ezaugarria dela partikula, ezaugarriaren historiaz eta bereziki hedaduraz dakigunaren aurka. Testuaren historiaz dakigunaren arabera, baina, ikusten dugu egiantzekoena dela, noski, Iturriagaren gipuzkerazko bertsiotik (jatorrizkotik, alegia) itzuritako ezaugarria izatea.

²⁴ Astigarragaren sermoitegiko edizioan (Etxebarria & Apraiz 2007) aurkitu ditugun adibide pare batek argi dezakete garaiko eta eremuko hizkeraren ezagutzaren garrantzia ezaugarrien epaian. Argitaratzaileek *adesquidetasunera* > *adisquidetasunera* (278) eta *sazerdotiaeri* > *sazerdotiai* (154) aldatzen dute, bestelako azalpenik gabe, baina forma hauek, egilearen hizkeratik itzuritakoak izan daitezke: *adeskide* aldaera Abandoko J. P. Ulibarrik ere bazerabilen (Ulibarri 2011b: 542), eta *-aeri* bukaeran Basaurin bertan lekukoturiko *-airi* atzizkiaren (Arretxe 1994: 102) aurrekaria bide dago.

eragindako aldaerei ere etekina atera dakiekeelakoan: testuaren (eta, testuari datxekion heinean, aukera dagoenean baita hizkuntzaren) historia erakutsi behar du. Horretarako, aldaerak bitan banatzen dira: “testukoak” (hots, kopia akatsak) eta hizkuntzazkoak.²⁵

Kopiagile edo (inprimatua bada) testuaren edizioan parte hartzen duen pertsona bakoitzak bere hizkuntza sistemaren —bere *diasistema*-ren (Orduna 2000: 66)— arrastoak utzi ohi ditu testuan, nahita edo oharkabean, hizkuntzazko aldaerak, alegia. Honek tentuz ibiltzera behartzen du hizkuntzaren historialariak, ikuspuntu geografiko, historiko zein estilistikotik hizkera mistodun izkribuak sortzen baititu (Fernández-Ordóñez 2001: § 1; ik. baita Laing 1989 [1988], 2004 ere). Gurean, adibide klasikoak dira Irazustaren eta Arzadunen dotrinen argitalpen ezberdinen arteko aldeak, baina ez dira bakarrak, jakina: berriki agertu den *Gero*-ren edizioan honen eta *Geroko Gero* bigarren argitalpenaren arteko konparaketa egin du ediziogileak (Urgell 2015a: § 1.3.1), eta bigarrenaren paratzailearen hizkerari buruzko datu interesgarriak lortu ditu.

Kopiaren egilearen hizkuntz sistemak eragindako aldaketa oro bilduko ditu, beraz, ediziogileak: modernizatzek, dialekto aldaerak, estilistikoak, etab. (cf. Sanchez-Prieto 1998: 62). Hala bada, edizio kritiko on batek editoreak egindako aldaketa eta zuzenketa guztiak garbi markaturik behar ditu —esan gabe doa—, baina bereziki testuak eta bere historiak emandako datu guztiak bildu behar lituzke, ikertzaileek euren beharraren arabera erraz eta argi eskura izateko moduan:

El editor crítico debe establecer una comunicación entre el texto crítico y el aparato de variantes, de modo que la *varia lectio* y la correspondiente anotación crítica muestren aquellos casos en que se da la virtualidad palpante del sistema creado entre el texto y la tradición manuscrita (explícita en las variantes), y se propongan soluciones posibles, pero sin intervenir con una enmienda textual, o en caso de hacerlo, quede explícita su virtualidad (Orduna 2000: 67).

Diasistemaren kontzeptua testuaren bizitzarako ez ezik, testua bera ulertzeko lagungarri izaten da. Filologia klasikoan jatorrizko testua, filologoak berreraiki behar zuen testu ideala, monolitikotzat jotzen zen, eta aldaera guztiak har egilearen edo inprentaren oharkabeko akats edo hurrengo kopiagileen aldaketatzat. Alabaina, egungo

²⁵ Irakurketa bat akatsa edo ordura arte ezezaguna den aldaera ote den erabakiz bakarrik bermatuko da edizioak hizkuntzaren historiarako duen balioa. Akatsa baldin bada, hau nola gertatu den azaldu beharko luke, eta gutxienez arrazoi hauek agertuko dira azalpen horretan: “a) usos lingüísticos incomprendidos que dan lugar a error textual, b) modernizaciones de formas lingüísticas del antígrafo, c) usos lingüísticos generalmente abandonados en el proceso evolutivo del castellano pero que tienen reflejo en la copia y, d) usos que tienen continuidad general” (Sánchez-Prieto 1996: 36, ap. Lakarra 1997: 461).

hiztunek testuinguruaren arabera aldaera bat baino gehiago erabil badezake (soziolinguistikak erakusten duenez, cf. § 2.2.3.5), berdin dateke antzinako garaietan ere eta, beraz, eragin handia du hizkuntzaren historia aztertzen duen edozeinentzat testuinguru hauen berri izateak (Fernández-Ordóñez 2001: 389).²⁶ Muturreko adibide bat ematearren, Kardaberazek bizkaieraz idazten duenean bi *usus* izango lituzke testu berean: berezko hizkera (gipuzkera) eta testuan islatzen duena: ezin ahaztu, beraz, batak bestean eragina izan dezaketela.

Halako guztietan filologoak asko du esateko, testuaren eta aparatu kritikoaren arteko komunikazioaren bidez, egilearen beraren sistema bakun zein konplexura heltzeaz gainera (Orduna 2000: 66; cf. Mariotti 1985), garai ezberdinetako kopiagile ezberdinen diasistemak agertu beharko baititu eta, haien jatorri geografiko eta kronologikoa zehaztuaz (cf. Dees 2001: 855), hizkuntzaren egoera ezberdinak ezaugarritzatzeko aukera izango du.

Edizio bat egiteko filologiari dagozkion zertzelada gehienak bildu ditugu lerrootan, baina bidenabar azpimarratu ahal izan dugu filologoaren jarduna ez dela testu kritikara mugatzen, esan bezala datuak bermatzeko egileari eta testuari buruzko ezagutza osoa beharrezko baitu, dela testuaren hizkuntzarena dela idatziaren gainerako alderdi guztiena (Bambrilla 1984: 3; cf. goiko Rissanen-en aipua, 1990: 366), “testu baten alderdi guztiak xehe-xehe ezagutzea, sarritan frogatu den bezala, ezinbestekoa [bait]a haren datuak hizkuntzaren historiarako (edo beste edozein xedetarako) bermez erabili ahal ditzagun” (Urgell 2015b: 573). Azken batean, edizio on batek aurrerapauso garrantzizko bat izan beharko litzateke egilearen hizkuntzaren ezagutzan, eta batzuetan garaiko hizkuntzaren ezagutzan ere bai.

Lerro hauetan zehar Meilletek aldarrikaturiko “filologia zehatzak” gaur egun dituen baliabideak erakutsi nahi izan ditugu, dialektologiak eta edozein azterketa historikok jardun honetatik zer har dezaketen erakusteko asmotan. Azken batean, testuan erabiltzen den hizkuntzaren deskribapena ere (*usus scribendi* delakoa) aurreikusten da filologiaren helburuen artean. Esan liteke, bada, filologoak testu simple

²⁶ Egilearen *usus scribendi*-ak dituen aldaera ezberdinen arteko garrantziaz eta eraginaz jabetzeko, Dotrinazko Sermoitegiko adibide bat dakargu (ik. § 4.3.2.3): egileak berak lehen idatzaldian *segaitic equin equin âen material basureanic sein den lurre?* idatzi ondoren bigarren *equin*-a ezabatu eta *eben* ezarri zuen. Pentsa liteke akats arrunta dela, alabaina, egilearen *usus scribendi*-ak diosku *equin* forma *equian* adizkiaren aldaera ere badela eta, beraz, aoristoaren adibide bat izan daitekeela (cf. § 4.2.3.15), ondoren beste forma batez ordezkaturia (dagoeneko hedatuagoa delako?, prestigio gehiago duelako?). Honek erakusten digu hizkuntzalari historikoarentzat interesgarriagoa izan daitekeela egileak lehen bulkadan idatzitakoa, haren beraren zuzenketa edo edizioegilearena baino, zergatik eta egilearen hizkeraren ezaugarria izan baitaiteke, senak eman diona (eta ez buruak).

batetik hizkuntzaren historiarako datuak bilatzen dituela, eta hizkuntzaren historialariak testu partikularrak gaindituz hizkuntzaren garai zehatz bateko sistema osoa (bere aldaera geografiko zein estilistikoekin) edota hizkuntzaren sistema osoaren bilakabidea berreraiki nahi du (cf. Fleischman 2000: 35-6).

Geolinguistikaren edo dialektologia sinkronikoaren datu bilketan lekukoen aukeraketak eta ikertzailearen jardunak datuetan izan ditzaketen eraginarekin parekatu daiteke filologiaren beharra (cf. Camino 2009: 275 e.hh. edota Chambers & Trudgill 1994: 87): estrapolazioa eginez, aldeak alde, kontuan hartu behar dugu hala lekukoak (testuak) ematen dizkigun datuak zer-nolakoak diren, nola edizioz gileak nolako eragina duen datuetan.

2.2.2.2. Sinkronia eta diakronia

“The opposition between the two viewpoints —synchronic and diachronic— is absolute and allows no compromise” (Saussure 1915, *ap.* Aitchison 2012: 11) esaldian dugun sinkronia eta diakroniaren oposaketa (ustez) zurrunean legoke dialektologiaren (historikoaren) eta egun egin ohi den dialektologiaren oinarrian: lehenengoak hizkuntzaren alderdi diakronikoa aztertzen du, esan denez, eta bigarrenak alderdi sinkronikoari (ikuspuntu geografikotik) begiratzen dio. Nolabait egia da hori, baina gogoan hartu behar dugu diakronia-sinkronia antinomia hizkuntzalaritzaren baitakoa dela, eta ez objektuaren baitakoa (Coseriu 1978: 14); edo bestela esanda, hizkuntzaren denboratasunaz hizkuntzalariak duen jarreran datza bien arteko ezberdintasuna: “Hizkuntzalaritza historikoak hizkuntzek beren egitura denboran zehar nola mantentzen edo aldatzen duten ikertzen du. [...] Linguistika deskriptiboak edo sinkronikoak alde bat uzten du denbora bere arduretarik eta datuak oro mementu berekotzat hartzen” (Lakarra 1997a: 450).

Azterketa sinkronikoak, ikuspegi diakronikoa alde batera uztean, alde batera uzten ditu, halaber, hiztun arruntek dituzten bestelako aldaera estilistikoak eta kasu argietara mugatzen da, hizkeraren bilakabidean sortzen diren aldaeren arteko elkarbizitzak sortzen dituen aldaerak edo ilunguneak ahaztuaz (Aitchison 2012: 12). Dialektologiak, beraz, hizkuntz aldaketa aztertzen duen heinean ezin du ikuspegi sinkroniko hutsa hartu: honek egoera deskribatzeko balio dezakeen arren, sinplifikazio handi batean erortzen da, “hizkuntzak bere-berea [bait]u etengabe aldatzea” (Lakarra

1997a: 450), eta aldatze horren jarioan deskribatzen ari garen egoeraren zergatia bilatzeko diakroniara jo behar dugu ezinbestean.²⁷ Honegatik beragatik, Kantabriako hizkera *montañés*-ak dialektologia historikotik aztertze beharra aipatzen denean, esaten du Moralek: “que sincronía (dialectología, sociolingüística) y diacronía (dialectología histórica) sean objeto de estudio bidireccional en el constructo del complejo dialectal montañés” (Moral del Hoyo 2007: 140).

Sinkroniak historiaren beharra zuela argi erakusten du soziolinguistikaren bilakaerak (§ 2.2.3.5): hasiera batean azterketa sinkroniko legez jaio zena (Aitchison 2012: 14), denborarekin beharrezkotzat jo du ikuspuntu diakronikoa, aurkitu zuten *change in progress* delakoa azaltzeko; aldi berean, euren aurkikuntzek hizkuntzalaritza diakronikoaren emaitzak indartu eta ulertzeko laguntza eman dute (cf. Labov 1972: 274). Honela, hizkuntzaren deskribapenean diakronia eta sinkronia ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik: “they are essentially overlapping processes, and one cannot be understood without the other” (Aitchison 2012: 19). Honegatik, hala dialektologia historikoa nola diakronia oro har bi ardatzetan murgildu behar dira ezinbestean, denboran eta espazioan, espazioa hizkera berreraikitze aldagaitzat hartuta (Meurman-Solin 2012).

XVII. mendeko hizkera bat edo isoglosa bat deskribatzen ari garenean, adibidez, historiaren une jakin horretan izan zuen egoera berreraikitzen ari gara, testuek eskaintzen diguten datuen bidez (ik. § 2.2.2.1), eta horrek sinkroniaren esparruan kokatzen gaitu.

Bestalde, hizkuntz aldaketak ez dira goizetik gauera gertatzen, ez delako ezaugarriari dagokionez, ezta haren muga geografikoei dagokienez ere, baizik eta galera prozesu oso bat izan dela jakintzat eman behar dugu, batzuetan berreraiki dezakeguna. Era berean, garai ezberdinetako deskribapen sinkronikoak uztartuz gero, jakina, galeraren nolakoa antzeman dezakegu, eta berreraiketa osatu.

Bi ardatzok elkarrekin hartzean bata bestearen ordezt hartzea saihestu behar da, noski, batez ere “...testuetako lekukotasun zaharrak epaitzean, hizkera modernoan oinarriturik intuizio modernoa behar ez den moduan erabiltzea” (Camino 1997: 43). Intuizio modernoa literatur hizkuntzan ere oinarritu daiteke, gure kasuan literatur

²⁷ Cf. “Mas en el momento en que nos preguntamos por qué una lengua es así y no de otro modo, o nos preguntamos qué lengua es ésta, y nos contestamos de algún modo [...], ya hemos empezado una narración y, como decía Paul, ya estamos haciendo historia «aun sin saberlo»” (Coseriu 1978: 21). “Egiazki hitzunik ez dira honetaz beti ohartzeko, baina gogoeta handiegirik gabe konturatzen da edozein gure aitona-amonek eta guk ez dugula era berean hitzegiten: usuenik ezberdintasunak soilik hiztegiak dira, baina inoiz morfologiazko eta are fonologiazkoak ere antzeman ditzakegu” (Lakarra 1997a: 450).

euskalkietan zehazkiago: Zegamako dotrinaren (1741) argitaratzaileak esaten duenean testuko *egin* laguntzailearen formak bizkaierazko “forma propioak” direla literatur gipuzkerak XVIII. mendetik aurrera eratu duen gipuzkeraren irudi desitxuratuaren arabera ari da epaitzen, *erdigipuzkera*-ren arabera (Lakarra 1986c: 658), ez gainerako testu zaharren lekukotasun argiaren, ez gaurko Goierriko hizkeraren arabera. Ikertzaileak lekukoaren informazio konplexua denboraren eta espazioaren ardatzetan interpretatzen jakin beharko du hainbat aldagairen argitan: batetik, aldaerak zein eremutan bizi diren, zein diren prestigiodun mintzoak eta zein baztertuak, geografiak nola eragiten duen aldaeren hedatzean...; eta, bestetik, garai bakoitzean zer-nolako ezaugarriak zeuden, eta zein egoeratan, emankor ala galbidean (Williamson 2004: 100). Honela egin ezean, deskribapenean ezaugarri diakronikoak eta diatopikoak aurreiritzien arabera epaituko ditu, eta inongo errealitaterik izan ez duen dialekto bat berreraikiko du, denboratik eta espaziotik kanpo (Williamson 2004: 103).

Egungo fenomeno linguistikoen hedadurak aurreko garaietakoak berreraikitzeke oinarria eman diezaguke, baina ezin ahaztu isoglosak ez direla egonkorrak; aitzitik, hauek ere etengabe aldatuz doaz hara-hona —atzera zein aurrera— historiaren gorabeherek eraginda (Mitzelena 1964a, *OC V*: 23). Adibidez, hasperena markaturik duen XI. mendeko agiri bat agertuko balitz, ezin genuke ezaugarri hori erabili Arabakoa ez dela esateko: egia da XVI. mendean hasperenik ez zegoela bertan (cf. Landucci edo Lazarraga), baina galera nonbait Nafarroa partean hasi eta han XI. mendean galdua bide bazen ere, XII. mendean Araban oraindik mantentzen zen (*FHV* § 11.3; cf. Reguero 2012: § 4.1.2.5).

Ikerketaren baitako sinkronia-diakronia antinomia historiarekin bakarrik gainditu ahal denez gero (Coseriu 1978: 14), nahitaezkoa da historiaren ikuspegi ordenatu bat izatea. Honetan izugarri laguntzen du hizkuntzaren historian behar bezalako periodizazio bat izateak, alegia, garai bakoitzari batasuna emateko eta gainerako garaietatik bereizteko gai diren hizkuntz ezaugarrietan oinarritutakoa. Azkenotan baldintza hauek ondo xamar betetzen dituen periodizazio bat proposatu da euskararen historian (Lakarra 1997a eta Gorrochategui & Lakarra 2001), eta honetaz baliatuko gara, bada, ondoko ikerketan.

2.2.3. Dialektologia historikoaren helburuak

2.2.3.1 Ikerketa diakronikoa eta hizkuntza aldaketa

Ikusi dugunez (§ 2.1.1), hizkuntzalaritza diakronikoaren eta dialektologiaren arteko hausturarik garrantzitsuena *hipotesi vs. datu* kontzeptuen arteko dikotomiaren eraginez gertatu zen. Honela, dialektologiak hizkuntzalaritza diakronikoari egozten dio erabilitako datuak aukeratuak eta sinplifikatuak direla oso: nahiz hizkuntza osoarenak bailiran aurkeztuak diren datuok azaltzeko emandako “lege fonetikoak”, hau ez dator bat dialektologia klasikoaren datuekin, balizko legeok batzuetan ez baitira betetzen hizkuntzaren eremu osoan. Egia hau ukatzea ezinezkoa delarik ere, Mitxelena esaten digun bezala, legea erabilgarri ez dela esatea ere ezinezkoa da, berreraikitzaileak proposatutako lege fonetikoak arazo fonetiko berari eman dakizkioken balizko erantzunetatik baten hedatze eta orokortzearen emaitza baitira (Rodriguez Adrados 1952, ap. Mitxelena 1963, *OC I*: 80).

Ezaguna denez, berreraiketa klasikoak berarekin dakar “sinpletasun postulatu” bat (Mitxelena 1963, *OC I*: 35), datuak eskemarantz lerratzea, alegia: hizkuntza baten bi egoeraren artean, zaharrena eta berriena, berreraiketak beti bilatzen du, definizioz, biderik laburrena (Mitxelena 1964a, *OC V*: 41), eta lege fonetikoaren formulazioak (**b* > *f* legea, adib.) hainbat bide jarrai zezakeen prozesu baten hasierako eta amaierako egoerak baino ez ditu jasotzen. Halakoetan, noski, ditugun datuen arabera izango da berreraiketa eta horretatik atera daitezkeen ondorioak: ez da berdina esatea aurre-lat. **cecanai* > lat. *cecini* edo lat. *cecini* < aurre-lat. **cecanai*, inplikazio eta ezagutza ezberdinak behar ditugulako horietako bakoitzean (cf. Mitxelena 1963, *OC I*: 33). Berreraiketa klasikoan —bigarren egoeran, alegia—, postulatutako erregelak fonetikoek gainera, bestelako ezagutzak behar dira, lat. *cano* bezalako hitzak eta euren arteko erlazioak ezagutu, adibidez. Lehenengoak, ordea, bere horretan ez du sostengurik, hizkuntzaren datu zaharretan (aurre-latinezko testu batean) *cecanai* forma lekukotzen ez den bitartean.²⁸

²⁸ Cf. “komeniko bide da hasiera hasieratik ohartzea ‘hizkuntzaren historia’ diogunean bi eratako edukinez ari gaitzkeela: hizkuntzaren bilakabide osoaren azkerketa diakronikoaz, edota horren zati soil batez, lehendabiziko testuak agertzen direnetik aurrerakoaz, hain zuzen. Konpli da bi adiera horiek ongi bereiztea, bata ala bestea erabil, arazo eta irizpide ezberdinekin egin baitezakegu topo” (Lakarra 1997a: 455).

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Berreraiketa askotan datu gabe egin behar da: hortaz, ziur egon arren prozesuak nola edo hala konplexuagoak izan zirela, ez dago bide osoa aztertzerik. Bestetan, ordea, badugu egoera gehiago izan zirela jakiterik: adibidez, latinaren bigarren eta hirugarren aditz jokoetan indikatibozko imperfektiboak gaztelaniaz pairatu duen aldaketaren berreraiketa lat. *-ēba-*, *-ība-* > gazt. *-ía-* den arren, testuei esker badakigu bestelako formak egon zirela tartean: zehazki, *-iés*, *-iémos* bezalakoak ziren XIII. mendeko gaztelanian. Hala bada, dialektologia historikoaren lana litzateke zehaztea XIII. mendeko *-iés*, *-iémos* horiek nola joan ziren galtzen, eta egungo *-ía* tankerakoak nola hedatu eta orokortu ziren (Mítxelena 1964a, *OC V*: 41).

Hizkuntza baten gramatika historikoa egitean aldaketa linguistikoa bera gailentzen da normalean, eta ez aldaketa zelan gertatu eta hedatu zen eta honelako galderei buruzko xehetasunak bilatzea (cf. Braunmüller 2007: 15), baina horixe da, hain zuzen, dialektologia historikoaren egitekoa, xehetasun horietaz arduratzea. Hizkuntzalaritza diakronikoaren *egungo hizkuntzan antzinako garaien lorratzak aurki ditzakegu* axiomari dialektologiak *ezaugarriak hizkuntzaren lurralde guztietan ez ziren une berean orokortu* axioma gehitzen dio, hauxe delarik hizkera ezberdinak egotearen zergatia. Dibergentziak data ezberdinetan sortu eta hedatu dira, jakina, eta askotan ezin dugu aspaldi gertaturiko banatzeen sekuentzia kronologikoa zuzen interpretatu (Black 2004, ap. Camino 2013a: 78); alabaina, ikusi izan da ezaugarrien egungo (momentu sinkroniko bateko) antolaketa geografikoak egoera kronologiko ezberdinak erakusten dituela (Fernández-Ordóñez 2001: 401) eta hizkera ezberdinen arteko konparaketaren bidez, batzuetan, Bartolik proposaturiko irizpideak lagun (Chambers & Trudgill 1994: 231; cf. § 2.2.3.4), antzeman daiteke hedatzea nola gauzatu zen.

Berdintasunaren hatsarrearen arabera, ezinbestean suposatu behar dugu antzinako garaietan ere aldaera ezberdinak, forma zaharrak eta berriak elkarrekin agertuko direla hizkuntzaren momentu jakin batean (Dees 1988: 140). Aldaketen hedatze geldoak sortzen du, noski, isoglosa bakoitzak bere bidea egitea. Dialektologia historikoa garai zaharretako hizkerak deskribatzerakoan, ez du egungoetara nola heldu den bakarrik erakusten, beraz, baita aurreko hizkeren banaketa nolakoa izango zen ere (cf. § 4.4.3).²⁹

²⁹ Cf. “Todo procede sencillamente de una confusión de escalas, porque no se trata de hechos del mismo orden de magnitud. Tenemos de una parte las «leyes» obtenidas de la comparación global de dos o más estados de lengua separados entre sí por varios siglos, si no por varios milenios, y a esta comparación se opone, de la otra, el estudio microlingüístico *in actu oculi* de un área dialectal continúa, examinada aldea

2.2.3.2. Dialektoen sailkatzeaz: zuhaitz teoriak

Dialektologiaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren hartu-emanen aritzean, ikusi dugu bai batak, bai besteak hasieratik sailkapenak egiteari ekin ziotela: definizioz, biak hainbat berdintasun eta ezberdintasun zituzten hizkera ugarien aurrean dira, printzipioz guztiak etorki bateratu batetik datozenak eta nolabait hizkera (hizkuntza) horien arteko erlazioak definitzeko beharra sortzen zaie (cf. Camino 2013a: 78).

Horretarako, Schleicher-ek zuhaitz genealogikoaren oinarriak ezarri zituen eredu bezala (1861), hizkuntza indoeuroparren arteko erlazioak kronologia erlatibo baten bitartez azaldu nahian. Metodo hau agertu eta berehala Schmidt-ek (1872) zuhaitzen arazoak azaleratu zituen, eta uhinen teoria plazaratu: teoria honek ezaugarriak apurka-apurka hedatu zirelako ideia islatu nahi du, ezaugarrien hedadura nola gertatu zen azaltzen duen eredu baten bitartez. Harrezkero, dialektologiatik begiratuta “arbola genealogikoen ohiko ikuspegia ez da ongi ezkontzen dialektoek hartzen dituzten norabide berriekin” (Camino 2009: 50); hau da, zuhaitzek hizkuntzetan interferentzien errealitatea, zatiketa dialektalaren ondotik gertatzen diren dialektoen arteko eraginak, alegia, ez dituzte islatzen, “literatur hizkuntzei” edo “hizkuntza nazionalari” begira eginak baitira (cf. Garrett 1999: 154). Gainera, zuhaitzaren dimentsio horizontalak espazioa irudikatzen duen arren, era erlatiboan irudikatzen du, ez errealean; ondorioz, zuhaitzak ezin digu erakutsi ezaugarri bat zergatik sortu edo gertatu den, ez eta noiz eta non gertatu den ere (Camino 2009: 50).

Alabaina, ikuspegi diakronikorik gabe geografia dialektalak planteatzen duen uhinen ereduaren bidezko isoglosen eskemak oinarritzko arazo are larriagoak dakartza. Hizkuntza aldaketak (berrikuntzak nolabait) izanik sailkapenaren muina, uhinen ereduak balizko berrikuntza guztiak plano kronologiko berean agertzen ditu, jakin badakigun arren berrikuntzak ez direla guztiak garai berean sortzen; ondorioz, ikuspuntu historikorik gabe ez dira biltzen egoera moderno horietara heltzeko jazo diren aldaketak, nahiz eta hedadurak horretarako bidea eman (Lakarra 2011a: 171; Camino 2013a: 78).³⁰

por aldea y hasta casa por casa” (Mixelena 1963, *OC I*: 80). Dialektologia historikoa, beraz, eskala bi hauen erdian aurkitzen da.

³⁰ Bestelako sailkapen ereduak ekarri dituzte baita dialektometriak eta glotokronologiak ere; dagoeneko aurkeztu ditugu, euren aurkako kritikak ere agertuz (§ 2.1.2), eta bertan ikus ditzakegu sailkapen horien emaitzek dituzten arazoak.

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Eztabaida eta saio guztioi oinarrizko arazo bat ikusten diegu: jakintzat ematen da badagoela dialektoen banaketa objektibo bat egiterik (cf. § 2.2.1), nahiz egiatan sailkapen guztiak sinplifikazioak behar diren izan, hizkuntza bezalako izaki konplexuek eskaintzen duen datu multzo amaigabetik zenbait ezaugarri hautaturik, gainerakoen abstrakzioa eginik lortutako lan hipotesi bat: honek ditugunak eta agertuko diren datu berriak azaltzeko balio beharko luke, baina ez dugu ahaztu behar diagrama bat baino ez dela (cf. Mitxelena 1963, *OC I*: 92), beti ere datuekiko dialektikan egon beharko litzatekeena, datuen bitartez hipotesia bermatzeko edo gezurtatzeko modua emanez, faltsabilitatearen hatsarre ezagunaren arabera.

Gure ustez, diakronia eta sinkronia bata bestearen osagarri diren bezala (cf. § 2.2.2.2), osagarri dira zuhaitz genealogikoaren eta uhinen teoriaren ereduak ere: lehenengoa prozesuaren (diakroniaren) abstrakzioa genuke, parte hartzaile ezberdinen arteko *erlazio nagusiak* biltzen dituena. Bigarrena une jakin baten (sinkroniaren) abstrakzioa litzateke, parte hartzaileek momentu horretan duten *egoera* deskribatzeko.

Ezin dugu pentsatu zuhaitz genealogiko batek, are aitzin-hizkuntzak biltzen dituenak ere, hizkuntzen banatzearen itzulinguru guztiak bilduko dituenik; ez eta benetako hizkuntzak dituen gorabehera guztiak inoiz eskema batean sartu ahalko direnik, ezpada hasieran aipatu den Borges en ipuineko geografoak egindako lana errepikatuz. Ondorioz “arbola [genealogiko] hau ez da hizkuntza baten historian gertatu diren aldaketa guztien aurkezpen sakon, oso eta zehatza; batez ere, zatiketa eta erlazio nagusien laburpen egokia da” (Bowern & Koch 2004, ap. Camino 2013a: 79). Hala bada, ez dugu espero indoeuroperaren zuhaitz genealogikoak (ezta, eskuzabal izanda, germanikoaren alabenak ere) ingelesaren eta frantsesaren arteko erlazioak jasotzea, adibidez, baina horrek ez du esan nahi hizkuntzalaritza historikoa horretaz arduratzen ez denik.³¹

Hizkeren arteko erlazio nagusiak zuhaitz genealogikoak biltzen dituela, hizkeren sailkapena egiteko ezinbestean uhinen eredura jo behar dugu. Hortik definitzen da *dialektoa*, isoglosa bat edo batzuen abstrakzio eta lan hipotesi den heinean definitu behar dena, nahitaez (§ 2.2.1). Sailkapenak *egoera* jakin bati egin behar dio

³¹ Egoera bertsua sortzen da testukritikan ere (cf. Mitxelena 1963, *OC I*: 54: “...reconstrucción comparativa y crítica textual tienen mucho en común, según se señaló hace ya mucho tiempo”): testu baten lekukotasunen arteko erlazioak islatzen dituen *stemma*-k nekez jaso ditzake kutsatutako testuak, ez dagoelako erabakitzerik ezaugarri bat zein adarri dagokion, eta zein sortu ote den delako kopian (Brambilla 1984: 173 e. hh.). Baina arazo horrek ez darama testukritika *stemma* kontzeptua gaitzestera; aitzitik, hastapenetatik jakintzat jotzen da *stemma* erlazioen eskema huts bat baizik ez dela, eta besterik ez.

erreferentzia ezinbestean, ezinezkoa izanik hizkuntz aldaketa prozesu osoaren gaineko sailkapena egitea (cf. Coseriu 1978: 45). Honetatik eratortzen da ezin dela “bizkaiera” bezalako euskalkirik ezaugarritzatu diakroniatik, adibidez: aukeratutako ezaugarrien isoglosak historian zehar aldatuz joango dira, hizkeren arteko eraginak aldatuko diren heinean.³² Ondorioz, ezaugarritzatzeak (eta ondoko sailkapenak) gehienez ere *Euskara Arkaikoko bizkaiera*; *XIX. mendeko bizkaiera* edo *delako testuko bizkaiera* bezalakoak izan behar dira ezinbestean.³³

Bi motatako ezaugarriak hartzen dira aintzat hizkeren arteko erlazioak era honetara aztertzerakoan: batetik, ondareko ezaugarriak, erlazio genetikoak bermatzen dituztenak, alegia; bestetik, hedadurazko ezaugarriak genituzke, hizkeren eta hiztunen arteko elkarreraginak eta loturak adierazten dituztenak (Camino 2013a: 86). Bi ezaugarri taldeok izendatzeko, biologiatik eratorririko izenak proposatu dira: *clade* eta *taxon* (Babel *et al.* 2013: 446), hurrenez hurren.

Honaino ikusi ahal izan dugunez, sailkatze molde biak beharrezkoak dira, bakoitzak bere esparru propioan, dialektologia historikoaren baitan azterketaren dimentsio horizontala (geografia) eta bertikala (historia) koordinatu osagarriak baitira (cf. § 2.2). Alabaina, gure ikuspuntutik sinkronia diakronikoaren azpiatala baino ez litzateke, hizkuntz aldaketa aztertzea izanik gure egitekoa.

2.2.3.3 Aldakortasuna eta dialektalizazioa: deskribapena

Ikusi dugunez, “dialektoa” sailkapenaren ondorioa baino ez da, hautatutako isoglosen abstrakziotik lortutako zera, eta sailkapena bere aldetik *egoera* jakin baten abstrakzioa baino ez da izango, haren argazkia: “XVIII. mendeko bizkaiera” edo “Euskara Arkaikoko bizkaiera” ezaugarritzatzera hel gaitzke, horrelakorik balego, ez gehiago (§ 2.2.3.2). Alabaina, argazki horrek lagun gaitzake prozesua bera deskribatzen, baldin eta egoera batek aurreko egoeraren lortatzak gordetzen dituela dioen hatsarre garrantzizkoa (§ 2.2.3.1) gogoan hartzen badugu. Beraz, dena delako dialektora (dena delako egoera sinkronikora) mugatzen den deskribapena hankamotz geldituko da (cf.

³² Gainera, uneren batean beste euskalki batekin lotuko baita historian aitzinatuz gero (cf. Lakarra 2011a: § 3.1).

³³ Adibidez, Lakarraren zuhaitz genealogikoak (2011a: 213) erakusten duen banaketa “Erdi Aroaren akaburantz” kokatzen du egileak; hots, zuhaitzak hizkeren arteko erlazio historikoa biltzen du (zein zeinetatik banatu zen), baina azken emaitza sinkronikoa da, garai zehatz batean kokatua.

Camino 2004: 76), zeren eta *dialektoak* ez baitu berezko interesik, koordinatu historikotik begiratuta hipotesi sendo batean oinarrituta ez badago. Aitzitik, behar bezalako deskribapen batek eskura diren datuak egoki interpretatuz hizkerari buruzko hipotesiak sortu beharko lituzke, bai eta hauen arabera aldaketaren ibilbidearen beraren kontu eman ere.

Isoglosa bakoitzak bere bidea egitean sortzen dituen muga bereziek talka egiten dute dialekto sailkapenetan erabili ohi diren entitate zurruneekin. Hau gainditzeko asmoz “tarteko hizkera” edo “trantsizio hizkera” kontzeptua sortu zen, aldamenean dituen hizkeretatik, batetik eta bestetik, edaten duen hizkera, alegia (Camino 1997: 33). Hala ere, batzuetan ezinezkoa da inolako dialektorik zehaztea, ezaugarriak geografian zehar banan-banan sortzen eta desagertzen baitira; honelakoetan, hizkerarik hizkera doazen trantsizio eremuak izanik guztiak, “dialekto *continuum*” kontzeptuaren beharra sortu da.

Ikuspegi diakroniko batetik, ordea, baieztatu dezakegu halako *continua* ez direla ezeren azalpen, historia ezezagun edo aztertu gabe baten ondorio baizik, Reguerorekin bat etorrira (argitaragabea, ap. Lakarra 2011a: 181, 62. oh.), eta deskribapen hutsean gelditu izanaren ondorio ere, aldaketa guztiak garai berekoak balira bezala aurkezten baititu, sakontasun kronologikorik gabe. Alabaina, dialekto bat aurrez existitzen ez dela defendatu dugu (§ 2.2.1): *ondoren* erabakitzen da, garai ezberdinetan gertaturiko aldaketa zenbait gainjarri ondoren ezaugarriok erakusten dituzten isoglosen aukeraketa bat eginez, alegia (cf. Garrett 1999, ap. Lakarra 2011a: 180). Historian zehar aldaketa gehiago sortuko dira etengabe, egin litezkeen sailkapenak etengabe berformulatzeraz behartuz; *continuum*-a beraz, garai ezberdineko hainbat isoglosa geruzez osaturiko hizkerak dira, eta dialektologia historikoa horretan zer esan berezia du, gure ustez, isoglosen ibilbidea marraztea bailuke helburu (§ 2.2).

Deskribapena egiteko indarrean dirau Rodríguez Adrados-ek (1952) proposaturiko bideak; hots, hizkuntza baten ezaugarriak berrikuntza, arkaismo eta hautuetan banatzea (ik. Camino 2008a). Hizkerak sailkatzean, ezaugarri komunek baino, hizkuntzalariarentzat balio sailkatzaileagoa dute berrikuntzek: zehazki, berrikuntza konpartituak erabili ohi dira hizkerak lotzeko edo banatzeko biderik seguruena bezala (Mitxelena 1964a, *OC V*: 29), eta berrikuntza batean bat etortzeak balio frogatzaile berezia dauka, adibide urriak baditugu ere (Ruipérez 1953, ap. Camino 2008a: 215).

Alabaina, ez berrikuntzak *bakarrik* (§ 2.1.2): arkaismoak ere kontuan hartzekoak dira aipatu dugun *prozesuaren deskribapenean*. Denbora askoan arkaismoak dialektoen

arteko erkaketatik at zeuden, baina gaur egungo ikertzaileek arkaismoek zenbaiteten duten balio sailkatzailea aldarrikatzen dute (Camino 2009: 319). Bereziki eremu bakartu, urrun edo saihetsekoetan (cf. § 2.2.3.4), elkarrengandik bereiz dauden eremu isolatuetan aurkitu ohi dira arkaismoak (Bloomfield 1933, ap. Camino 2008a: 235), eta delako hizkerak besteren aldean duen nortasuna erakuts dezakete (Lakarra 2011a: 175).³⁴

Sarritan, bilakaera linguistikoaz dugun ezagutzaren araberakoa da arkaismoaren eta berrikuntzaren arteko dema: euskara bezalako corpus berantiarreko hizkuntzetan askotan delako ezaugarria aurreko garai bateko egoeraren jarraitzaile ote den edo, alderantziz, berri-egin egin duen erabakitzea hipotesien bidez baino ezin da egin, etimologia edo konparaketa tipologikoa erabiliz, besteak beste: hala, adibidez, mendebaldeko eremu batean den pluralekiko komuntadura eza (cf. Lakarra 1996a: 190) berrikuntza ala arkaismo ote?

Bestalde, hautuak hizkuntzaren historian gertaturiko aldaketa eta berrikuntzen emaitza diren heinean, aukeren artean bat hartzea eta besteak baztertzea berrikuntzat jotzen da oro har (ap. Camino 2008a: 227). Hala ere, komeni da gogoratzea askotan (beti?) “hautua” gure ezagutzaren arabera jarririko etiketa baino ez dela; hau da, arkaismo edo berrikuntza gisa definitu ezin ditzakegun bi ezaugarri edo gehiagoren arteko lehia baino ez da, NOR-NORI-NORK paradigmako **eutsi* / *-i- / **eradun* aditz laguntzaileek erakusten digutenez (ik. Lakarra 2011a: 198): hautuak direla esaterakoan, aitortzen ari gara ez dugula euren arteko kronologia ezagutzen, edota historiaurrean bakoitzak betetzen zuen funtzioa. Beste horrenbeste gertatuko litzaiguke *-ti* / *-(r)ik* ablatibo formekin ere (cf. “Beste euskalki batzuetan halere, *-rik*-ek ordeztu, *-tik* esan ohi da”; *EGLU* I: 272), Mendebaldeko testuek historia berregiteko aukera eskainiko ez balute (Lakarra 1984a): egiatan funtzio ezberdin bana zuten, prosekutiboa eta ablatiboa hurrenez hurren, eta une batetik aurrera apurka-apurka *-ti(k)* hedatzen joan zen bestearen funtzioetara, nahiz honek arrastoak utzi hizkera ezberdinetan (cf. Gaminde 1991).

Bestalde, idealki espero dugu berrikuntzak sorleku bakarra izatea; alabaina, zenbat eta testuak hobeto ezagutu, orduan eta ñabarrago ageri da ezaugarri baten zabaltze prozesua. Ohikoa da lurralde zabal bateko ezaugarritzat duguna ez izatea

³⁴ Arkaismoa berrikuntzaren aurkakoa izanik, arrazoibidea alderantziz jarri dezakegu; hau da, delako arkaismoa A lurraldean gordetzen dela esaten dugunean, esaldia birmolda dezakegu esanaz A-z gainerako lurraldeek berri-egin dutela. Halakoetan, noski, bestelako iragazkiak erabili behar ditugu bigarren proposamena sendotzeko (jarraikortasun geografikoa, adibidez; ik Camino 2008a: § 5).

nahitaez eremu bakar batean sortua, *berrikuntza beregain* edo *paraleloa* baizik (Camino 2008a: 217): esate baterako, txistukarien neutraltzea orain arte Bilbo inguruan sorturiko berrikuntzatzat jo da (*FHV* 282; Lakarra 1996a: 145; ik. hemen § 4.2.1.4), baina testu berrien azterketak agerian jarri du balitekeela neutraltzea hegoaldeetik ere (Gasteiz partetik?)³⁵ zabaltzea: izan ere, Lazarragaren eskuizkribuak eta Landucciren hiztegiak oposaketaren ahuldura erakusten dute: *toleztaduric* dakar Lazarragak (Urgell 2006b: 3) eta *ezcuco calloa*, *ezquinadua*... Landuccik; eta hipotesi hori bermatuko lukete Araba aldekotzat jotzen diren Portalen poesiak (*guisonen*, *digus*) eta Sevillako poesiak (Ulibarri 2011c: 378). Gainera, berriki agerturiko beste lekukotasunek (Bilbao 2011) erakutsiko ligukete mendebaldetik kanpo ere beste fokuren bat egon zela. *iV* eta *uV* hiatuetan sorturiko epentesiek ere foku asko izan dituzte, Euskal Herri osoan zehar han-hemenka garai ezberdinetan sortuak, eta zenbaitetan galduak ere (cf. de Rijk 1970).

Bestalde, “arkaismo” eta “berrikuntza” kontzeptuak betiere erlatiboak direla gogoan izan behar, une jakin batekiko. Esate baterako, ekialdeko bokal sudurkariak arkaismotzat jotzen ditugu gaur, baina berez berrikuntza baten ondorio dira, behinola bokal arteko *n*-ren galera orokorraren eraginez sortuak, hain zuzen (Camino 2011: 103).

Mendebaldeko literatur bizkaierazko testuetan ere (testuez ari gara, noski, ez ahozko hizkeraz, ik. § 4.3.2.1.2.1) ondoko paradoxa sortzen zaigu genitibo singularra dela eta: lehenengo testuetatik bertako berrikuntzatzat dugun *-r-* gabeko genitiboak ageri dira, hizkera modernoetan bezalaxe, baina XVIII. mendeko bigarren erdialdean *-r-*-dun genitiboa agertzen hasten da (§ 4.3.2.1.2.1); beraz, literatur hizkuntzan bigarren berrikuntza bat sortu zen, berez arkaikoagoa litzatekeen forma berrezarriz.

Amaitzeko, ezaugarrien hedatzea azaltzeko nolabaiteko premisa gisa ezar dezakegu hiztun gizartearen historiaren datuak erabili behar direla: hizkuntza bat egite soziala izanik, hau hitz egiten duen gizartearen historiak eragina badu, “berrikuntzen sorburu geografikoen ezaugarrien artean, indar demografiko edo ekonomikoa eta inmaterialagoa dirudien erakarpen kulturala aipatu ohi dira tradizioko dialektologian” (Camino 2011: 112). Ondorioz, isoglosen dentsitatea eta kokapena ez da halabehar kontua; izan ere, isoglosen banaketa aztertuz eremu fokalak edo hedatzaileak eta trantsiziozkoak antzeman ditzakegu (Bynon 1977: 191). Eremu hedatzailea askotan hiri garrantzitsu edo kultura guneren batek markatzen du; beraz, honelako datuak maneiatu

³⁵ Agian Iruña aldetik ere, Amenduxen olerkian (ca. 1568) ikusten diren *lusean*, *gusiequi*, *isanen*, *judision*... adibideak kontuan hartuz gero. Mitxelenak (*TAV* § 3.1.18) “particularidades gráficas curiosas [...] y la frecuente confusión de *s* y *ç* (*c*, *z*), en favor generalmente de la primera letra” badio ere; ik. hemen § 4.2.1.4 beste azalbide baterako.

behar dira, kanpoko faktoreek hizkuntzaren aldaketan duten garrantziari berea eman nahi badiogu.

2.2.3.4. Bazter hizkerak

Hizkuntzaren historian leku berezia dute bazter hizkerak, Bartoliren lehenengo bi irizpideek adierazten dutenez: (1) eremu bakartuek lehenagoko egoera mantendu ohi dute; eta (2) saihetsetako eremuetan hizkuntz egoera bera badago eta beste bat erdialdean, saihetsetako egoera izan ohi da bietan zaharrena (Mańczak 1988: 349). Honek esan nahi du, besteak beste, bazter hizkeretan hizkuntzaren historiako bestetan baino material ugariago biltzen dela (cf. § 4.3.2.1).

Bazter eremua da inguruko eremuetan izan diren berrikuntzen eraginik izan ez eta forma zaharragoak mantentzen dituen, eskuarki eremu txiki bat (Campbell 1998: 192). Arrazoi kultural, politiko zein geografikoengatik sarrera gaitza duten eremuak izan ohi dira eta, horren ondorioz, bestetako aldaera prestigiotsuak hedatzeari gogor egiten diotenak (*ib.* 192-193). Bazter hizkerak hizkuntzaren saihets eremuetan egon ohi dira, berrikuntza fokuetatik urrun (Hock 1991: 440).³⁶

Honela, bazter eremuetako hizkerak arkaismoak gordetzeko joera izatea ondorio logikoa da, erdialdean sorturiko berrikuntzak ez baitira haietaraino heldu, arrazoiak arrazoi. Ezaguna da gurean erronkarieraren kasua; lehen begiratuan arkaismoak diruditen ezaugarri asko gorde ditu (Mitzelena 1954c, *OC VII*: 612), hala nola bokal sudurkariak (*ibid.* 616) eta genitiboa konparazioan (cf. Lakarra 1996a: § 2.8). Hispanisten artean, adibidez, ezin ezagunagoa da Penintsulako iparraldeko *continuum* linguistikoan (cf. Romero 2012) dauden saihets eremuak: Errioxako hizkera arkaizantea, esate baterako (Alvar 1996: 95; cf. González Bachiller 2014: 561). Antzekoa dateke Kantabriako *montañés* hizkera: bertan ageri diren ezaugarriak migrazio baten ondorioztat emanak badira ere (cf. Nuño Álvarez 1996: 182), R. J.

³⁶ Dialektologo klasikoek bi eremu mota ezberdintzen dituzte guk *bazter eremu* izen generikoan bilduak: batetik, *saihets eremu*-an legokeena (cf. Camino 2009: § 9.4) eta, bestetik, *eremu bakartu*-an legokeena (*ibid.* § 9.5). Lehenengoak “komunikazio-etorbide nagusienetatik bazterturik egon ohi dira” (*ibid.* 152), eta horregatik hizkeraren arkaikotasuna berrikuntzaren hedatzearen kronologiaren arabera izaten da. Bigarrenak, ordea, ez du zertan hizkuntzaren saihetsetako mugetan egon, gaizki komunikaturiko edo balio sozial edo ekonomiko gutxiko eremua izateagatik ez lirateke berrikuntzak bertara helduko.

Bi eremuen artean aurkitzen diren arkaismoen arteko ezberdintasunaz jakitun bagara ere (Mańczak 1988), batera emango ditugu aurkezpen honetan, hizkuntzaren historian interesatua denarentzat antzeko emaitzak ematen baitituzte eremu mota biek.

Penny-k (1970: 395) bertakotzat ditu, gainerako hizkeretan izan den berdintze joeraren aurka hiztunen isolamenduak jokatu duelakoan.

Bazter eremuan egoteagatik beragatik, bazter hizkerek berrikuntza bereziak (eta inoiz bortitzak) ere izateko joera dute, dela eremuko hizkuntzaren baitakoak, dela ondoko hizkuntzaren eraginez (Camino 2009: 173). Izan ere, bazter eremua arkaikoa izan daiteke eremu fokalen berrikuntzekiko, baina askotan gertatzen da bere aldetik oso berritzaile izatea (Hock 1991: 441): “Además de ser repositorio de antigüedades, son también vivero de innovaciones” dio Mitxelenak (1981, *OC VII*: 526), bizkaieraz ari dela. Ekialdeko eremuan ere berrikuntzak ugari aurki daitezke, erronkarierak eta zubererak elkarbanatzen duten *au > ai* bilakabidea —*gauza > gaiza* (cf. lat *causam*)— kasu (Mitxelena 1964a, *OC V*: 30).

Aspaldi da ezaguna bazter hizkerak garrantzitsuak direla hizkuntzaren historia berreraikitzeko: eremu gehienetara hedaturik diren berrikuntzen helburuari edo norabideari behatzeko gune pribilegiatua diren aldetik oso interesgarriak dira (Camino 2009: 152). Tipologia soziolinguistikoaren ikuspuntutik ere eremu bakartuetako hizkeretan ezaugarri bereziak diratekeela iradoki da (cf. De Vogelaer & Seiler 2012: 12): besteren artean, eremu hauetan (beste hizkera edo hizkuntzekin kontakturik ez duten erkidego isolatu eta bateratuetan, alegia) patroizko linguistiko konplexuak eta ulergaitzak aurkitzen direla (*ib.* 13). Hau hizkuntzalaritza historikorako interes bizikoa da: ezaugarri baten bilakabidean izandako urrats ezezagunak aurkitzeko laguntza ezinutzizkoa izateaz gainera (cf. § 5.4.2), bazter hizkeren ezaugarri linguistiko bereziok (bestetan galduriko ezaugarriak edo bertan sorturikoak) hizkuntz aldaketa bera maila teorikoan azaltzeko bidea ematen baitute (de Vogelaer & Seiler 2012: 13).

Honexegatik esaten du Mitxelenak *FHV*-ren sarreran (*FHV* 16) bazterretako dialektoez —“los más importantes en la comparación”— ahalik eta datu gehien bildu dituela, bai ekialdeko (zuberera eta erronkaria), bai mendebaldeko (bizkaiera eta arabera), honetarako aurreko deskribapenetara, testuetara eta are zuzeneko landa lanera ere joz.

Dena dela, betiere gogoratu behar da *bazter eremu* terminoa, bere aurkaria litzatekeen *eremu fokal* bezala, erlatiboak direla, haien esanahia ezaugarriaren arabera baita: honela, eremua bazterrekoa izan daiteke ezaugarri batean, baina fokala beste batean (cf. Hock 1991: 441), diren arrazoiak (gizarte-mugimenduak, prestigio eremu aldaketa...) direla.

2.2.3.5. Soziolinguistika historikoa

Geografia ez da aldaki bakarra hizkuntz aldaketan. Izan ere, azken urteetan soziolinguistikak aldaketa azalgarri egiteko bide berriak jorratu ditu (Camino 2009: § 13). Guri dagokigunez, soziolinguistikak hizkuntza aldaketa *nola* hedatzen den aztertzen du,³⁷ dialektologia tradizionalaren ildotik (cf. § 2.2), baina egoera sozialaren bidetik: hizkuntza gizarte gertaera delarik (cf. Coseriu 1978: 43) gizarte testuinguruak eragina izango du hizkuntza aldaketan (Labov 1972: 261). Ideia honek badu antzindaririk diakronisten artean, jadanik Meillet konturatu baitzen “frantsesaren bilakabidea nolakoa izango den jakin nahi lukeenak aztertu beharko luke zein neurritan erabiltzen diren tokian tokiko hizkerak herrietan eta hirietan [...], gizarte maila bakoitzeko, lanbide bakoitzeko eta talde bakoitzeko jendeengan” (Meillet 2001 [1925]: 105).

Soziolinguistikak ekarri dituen berrikuntzen artean interesgarrienetakoa da gizarteak hizkuntza aldaketaren aurrerabidean duen garrantzia agerian uztea: Labov-ek hiru galdera egiten ditu hizkuntz aldaketa ikuspuntu soziologikotik aztertzeko (Labov 1972: 271-4): (a) Zein aldaki sozial eta estilistikok izan dezake eragina hizkuntz aldaketan? (b) Hizkuntz aldaketaren zein bilakabide fonetiko eta gramatikali eragin diezaieke faktore sozialak? eta (c) Aldaera aniztasunaren aurrean hiztunak bere hizkera molda dezake? Jakitun da hizkuntza aldaketa jasotzen duen gizarteari buruz maiz informazio gutxi dugula, baina horri aurre egiteko lehendik ere Lyellek (1830) proposatu zuen uniformitarismo hatsarrea (*uniformitarian principle*; *ib.* 274) bere egiten du; hau da, iraganekoak gaurko presio linguistiko beren menpe egon ziren eta, beraz, printzipioz, gure hizkuntz egituretatik kanpoko ezer ezin zaie egotzi lehenagoko hizkuntz egiturei (Gimeno Menéndez 1983: 189).

Soziolinguistikak erakusten digu gizarte eraginak baduela pisurik aldaeren artean aukeratzekoan: batetik, gizarte testuinguruak berekin dakar forma bat edo beste erabiltzea, baina hiztunaren gizarte mailak ere eragina du zein aldaera erabiltzen duen erabakitzean, batzuetan eremu zehatz baten —dela maila sozioekonomikoaren (Labov 1972: 285), dela talde etniko edo kastaren (*ib.* 296)— nortasuna azpimarratzeko

³⁷ Soziolinguistika era orokorrean aipatuko dugu hemen, nahiz jakin hainbat definizio izan ditzakeela jakintzagaiak: (1) hizkuntzaren erabilera testuinguru sozialaren eta norbanakoaren arabera aztertzen duen ikasgaia; (2) jakintza-alor anitzeko ikerketa eremua, hizkuntzalaritza, soziologia, antropologia, etnografia, folklorea, poetika eta psikologia bezalako ikergaiak kontuan hartzen dituena; (3) soziologia eta hizkuntzalaritzaren arazoen eta elkarguneen azterketa eremua (Berruto 2001: 305).

erabiltzen baita. Hau dela eta, hizkuntz aldaketak ez dira berdin hedatzen gizarte maila guztietan (gerta daiteke baita aldaketa bera egonkor geratzea ere, hizkuntzan gauzatu gabe; ik. Caravedo 2003: 40): haietako zenbait aldaketaren sortzaile eta katalizatzaile izaten dira, eta beste batzuek, berriz, ezaugarri zaharrari hobeto eusten diote (Hernández Campoy 2001: 273; cf. halaber Gimeno Menéndez 1983: 206).

2.2.3.6. Hizkuntz galera

Hizkuntzaren historia eta honen hiztunen historia batera doazenez, hiztunen historia beharrezkoa da hizkeraren historia ulertzeko (Babel *et al.* 2013: 448), bai baita isoglosetan eta euren ibilbidean ere haren eragina sumatzerik. Tesi honetan aztertuko dugun eremua bazter eremu berezi bat da, ez bakarturik bizi dena (ikusiko dugunez, erlazio estuak izan ditu eta ditu alboko herri euskaldunekin), baizik eta hizkuntza menderatzaile baten mugetan bizi dena; areago, poliki-poliki horri amore eman dio eta murriztuz joan da (ik. § 3.2.2).

Zehazkiago, gure testua sortzen denean, kanpoko historiaz dakigunaren arabera badirudi euskara galbidean zela dagoeneko eremuko hainbat lekutan: honegatik, gure oinarritzko galderetako bat izango da ea testuaren hizkuntzak galtze prozesu horren aztarnak dituen ala ez. Honela izan zein bestela, bigarren graduko galdera bat ere bururatzen zaigu, hots, eremuaren berezitasunak zenbateraino egotz dakizkiokeen bazter hizkera izateari eta zenbateraino galera prozesuari. Galdera bera egin daiteke, adibidez, erronkarierari buruz, XIX. mendean, hizkera honen ezagutza sendoa izan genuenean jadanik galbidean baitzegoen (cf. Lopez-Mugartza 2008: 11).

Ez da erraza izango, baina, gure galderoi erantzutea. Izan ere, ez dugu bazter eremu berezi hauen hizkuntzaren bilakaerari buruzko hurbilketarik aurkitu dialektologiaren alorrean, ezta diakroniarenean ere, hau da, hizkuntza ordezkatzeko batean zehar menderatzailearen eragina zertan igartzen den lantzen duenik, alderdi lexiko nabarmenetik kanpo (cf. § 2.4.1.5).

Dialektologiak, oro har, bi aurreikuspen eskaintzen dizkigu. Alde batetik, bazter eremua murriztu ahala suposatu behar da ezaugarrien isoglosen norabidea aldatuz joango zela eremu fokal berritzaileak aldatu ahala (cf. Camino 2009: 150) lehenagokoek euskara galtzerakoan. Bestetik, gogoan hartu behar da Bartoliren *galdutako egoeraren hatsarrearen* arabera hizkuntza baten bi egoera linguistikoetako bat galdua edo galtzear

bada eta bestea bizirik, galdua izan ohi dela zaharrena (*ap.* Mańczak 1965: 177); beraz, badirudi galbidean diren hizkeretan ere arkaismo gordeak maiztasun berezi batez aurki daitezkeela. Bestalde, Landucciren hiztegiaren azterketari eskerrak (Mitzelena 1958, *OC* XII: 226) bazter eremuaren berrikuntza bortitzetako batzuk erdaratik etorriko direla itxaron dezakegu.

Dena dela, ezin daiteke esan azkenetan dauden hizkuntzen ezaugarriak aztertzeko interes falta orokorra denik, baizik eta hizkuntzaren soziologia aztertzen dutenengandik sortu dela gehienbat (*cf.* Elordui 1995a: 16); honek eragin du hizkuntza biziakin baino ez dela saiorik egin, ez behin ere, dakigularik, lekukotasun zaharrekin.

Gurean, bakarra egin da (Elordui 1995a), bizkaieraren hego-mendebaldeko eremuan —gure azterketa eremuaren zati batean, hain zuzen—. Elorduik lau hizkuntz heriotza mota bereizten ditu: *bat-bateko hizkuntz heriotza*, hitzun guztiak bat-batean hiltzeak dakarrena; *errotikako hizkuntz heriotza*, gogorkeria politikoak edo norberaren babes beharrak hitzunak ama-hizkuntza uztera beharturik daudenean; *behetik gorako hizkuntz heriotza*, hizkuntza eguneroko bizitzako testuinguruetatik desagertu eta egoera formal eta erritualetan bakarrik gordetzen denean; eta, azkenik, *mailakako hizkuntz heriotza*, komunitate elebidun edo eleaniztun diglosikoetan gertatzen dena: hizkuntza menderatzaileak bestea mailaka ordezkutzen du, betebeharrak linguistikoak oro bereganatu arte (Elordui 1995a: 18 e. hh.).

Azken hizkuntz heriotza motan kokatzen da Elorduiren azterketa eremua, eta honixe dagozkion ezaugarri soziologiko eta linguistiko zenbait antzeman dituela diosku (Elordui 1995a: 295-297). Batetik, mailakako hizkuntz heriotzan A hizkuntzak (hizkuntza menderatzaileak) betebeharrak linguistikoak bereganatzen dituen heinean hitzun komunitateak ez zukeen alboko hitzunen berrikuntzarik jasoko, erlazioetan A hizkuntza erabiliko zutelako (*cf.* Elordui 1995a: 51), eta honek arkaismodun hizkera bat eragingo zuen hiltzearen azken epean, Bartoliren hatsarrean iradokitzen den bezala.

Bestetik, hizkuntzalari hauen iritziz “transmisio linguistiko arruntaren hausketa eta erabilera arruntaren ia erabateko desagertpena[ga]tik” (*ibid.* 296), nonbait, hitzunek eurek sorturiko forma berriak egitura tradizionalekin nahasten dituzte, “araua jartzen duen hitzun talderik ez izateak” eraginda (*ibid.* 297); eta forma berri hauetan leku berezia hartzen dute hizkuntza menderatzailearen sistemak eraginikoek (*ibid.* 298). Galeraren eraginez, halaber, egiturak erraztu ohi dira: baliabide morfologikoak urritzen edo murrizten dira, bai eta forma irregularrak erregularizatzeko joera ere antzematen da (*ibid.* 299).

2.2.3.6.1 Dialekto heriotza

Beste “heriotza” mota bat bada, *dedialektalizazioa* edo dialekto heriotza (cf. Perea 2007). Honelako prozesuak jakintzat ematen dira, eta hizkuntzetan ezohikoak ez izanik ere, normalean gutxi aztertu dira hizkuntza “osasuntsuetan”. Hizkuntz heriotzan ez bezala, honelakoetan ez da hizkuntza bera galtzen doana, hizkeraren ezaugarri bereizleak baizik.

Dialekto heriotza moten artean, *disipazio eredu*a da ezagunena (Schilling-Estes & Wolfram 1999: 487). Eredu honetan, hiztunak bere burua bi hizkeren artean aurkiturik, hala herriko hizkeraren nola inguruko hizkeraren aldaerak lehian daudenez, egiturak bakundu eta aldaerak ugaritzeko joera hartzen du. Apurka-apurka hizkeraren ezaugarri bereizleak galtzen dira edo gainbehera doaz hizkuntzaren ezaugarri orokorragoen alde (cf. Hernández Campoy 2001: 83). Disipazio ereduaren aldean, Schilling-Estes eta Wolfram-ek (1999: 488) *kontzentrazio eredu*a landu dute. Honetan, ezaugarriak galdu beharrean, indartu eta hedatu egiten dira. Kontzentrazio ereduari loturik dauden aldaketak, hizkuntza osasuntsuek eragiten dituzten aldaketak baino azkarrago gauza daitezke; alabaina, indartze hau hiztun talde batera mugatzen da eta, ondorioz, ezaugarriok hiztun taldearen barnean bakarrik erabiliko dira, kanpoko harremanetan aldaera orokorragoak erabiliko diren bitartean.

Dialekto heriotzaren arrazoiak bila hizkuntza barneko bilakabideetara jo ohi da, dialekto arteko harremanei, alegia: gehienbat ahozko hizkeraren eta hizkera “batuagoaren” edo prestigiotsuagoaren arteko hartu-emanak dira aldaketaren oinarrian; beraz, dialekto heriotza hizkuntza barneko prozesutzat hartu behar da (Perea 2007: 81). Hala ere, noizbehinka kanpoko eragileek ere lagun dezakete prozesuan: testuinguru elebidunetan, hizkuntza ezberdinen arteko elkarreraginek eragin dezakete aldaketa: elkarreragin horiekin alderaturik ezdeusagoak dira dialektoen arteko harremanak, eta ezaugarrien atzerakada hutsalagoa da (Schilling-Estes & Wolfram 1999: 486).

Lurralde baten eremu fokalean hizkuntza galtzeak ere eragin dezake dedialektalizazio prozesuan, zeren eta herriak beste erreferente prestigiotsu bat topatzera joko bailuke, batzuetan beste eremu batean. Adibidez, Arrankudiagan *Erizkizundi Irukoitzan* (EI, 1930.eko hamarkada) *etxia* dena 80ko hamarkadan *etxea* da; *-ea* > *-ia* bilakaeraren kronologia arazoa azaltzeko bertako euskaldunak balizko erreferentea galdu (Arrigorriaga-Laudio? cf. Elordui 1994) eta Orozko-Arratia ingurura begira

jarriko zirela proposatu genuen (Ulibarri 2011a: 1135). Arabako euskarari dagokionez ere antzeko prozesu batean pentsa dezakegu: Gasteizen (eremu berritzaile batean, alegia; ik. Urgell 2006a: 929) euskara galdu zenez geroztik gainerako herri euskaldunek erreferenteak bilatu bide zituzten Bizkai zein Gipuzkoa partean, eta “Honek ondorio garrantzizko bat izan zuen euskal dialektologiaren historian, Bonapartek (1863; § 6.4.2) Arabako euskararen hondarrei bazterreko kokaleku bat eman baitzien bizkaieraren barruan”. (Urgell 2012: § 1.1.1; cf. Mitxelena 1982a, *OC V*: 405).

2.3. *Status questionis*: Euskararen historia eta dialektoak

2.3.1. Mitxelena aurreko garaia

Euskara historian sartzerakoan hainbat dialektotan banatuta dago. Euskaraz edo euskararen gainean idatzi zutenentzat funtsezko batasuna bezain nabarmenak dira hizkeren arteko ezberdintasun larriak, Leizarragaren “batbederac daqui heuskal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeko manerán cer differentiá eta diuersitatea den” esaldi famatutik hasita (1571). Garai bertsuan, Pozaren *De la antigua lengua* (1587) liburuan “*Duero*, en Bazcuence Alabez, significa locura” (Poza 18r) edo “*Baraça* significa un jardin o huerto en Guip.” (*ib.* 21r) bezalako bereizketak aurkitzen dira, lurraldeari lotuak agerian denez. Leizarragaren ildotik, XVII. mendean, lapurteraren loraldian, hizkuntza idatziz landu beharrak zer pentsatua eman zien idazleei alde honetatik eta, hartara, hitzaurreetan ezberdintasunei buruzko erreferentziaren bat edo beste irakur daiteke Voltaire eta Materraren testuetan, besteak beste, bai baitzekiten “Euscal-herrian anhitz moldez minçatcen direla” (Mat 1617: 14). Hauetan ezagunen eta garrantzizkoena Axularrena genuke, Materrarenean oinarri hartuta (cf. Urgell 1991: 913) hizkera ezberdinak aipatzen baititu, honek ere eskualdeka banatuta:

Badakit, halaber, ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzen baitira Euskal Herrian: Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan (Ax 1643: 10).

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

Euskalkien jatorriak ere zer esana eman zuen orduan. Euskararen jatorria Babelgo dorrean kokatzen zuten, orduan Europa osoan ohikoa zenaren bidetik (Eco 1994: 88-93): uste zuten Tubalek ekarri zuela Penintsulara. Bestalde, horrekin batera, iturri klasikoetan aipatzen diren kantabriar menperagaitzak euskaldunak eurak zirela ere uste zuten (cf. Tovar 1980: 26 ee. hh.). Oihenart historialariak *Notitia* liburuan (1638), iturri klasikoen ezagutza on batean oinarrituta, eta aurrekoak ez bezala, ez zuen begi onez ikusten *kantabriar* = *euskaldun* eragiketa; aitzitik, bere iritziz jatorrizko euskaldunak baskoiak ziren, eta ondoren mendebaldera, Autrigoniara eta Barduliara (Tovar 1980: 55) eta iparraldera, Akitaniara (*ibid.* 57) zabaldu ziren, euren hizkuntza ere hedaturik. Haren ustez, bestalde, euskalkiak antzinako leinuekin lotu behar dira, eta beraz, lau dira: Ipar Euskal Herrikoa, Nafarroakoa, Gipuzkoa-Arabakoa eta Bizkaikoa, bakoitza leinu bati zegokiola: akitaniarrei, baskoiei, barduliarrei eta autrigoiei, hurrenez hurren (Yrizar 1981 [1949]: 98).

Oro har, suposatu behar dugu euskalkiak oso zahartzat zituztela, “nunca mudaron su lengua” bezalakoak (L. Marineo Siculo 1539; in Tovar 1980: 26) han- hemenka aurkitzen baititugu. Uste hauek, alabaina, gehienbat ez ziren hizkuntza arrazoietan oinarritzen, historialarien hipotesietan baino. Gauzak zertxobait aldatu ziren Manuel de Larramendirekin, hizkuntzari buruz egin zituen ikerketa sakonek oinarri eman baitzioten euskalkien inguruko gogoeta sakonagoak egiteko (cf. Urgell 2012: § 6.4.1). XVIII-XIX. mendeetan eragin gehien izan zuen euskalarietako bat dugu bera, bere mendean euskara eta euskalkiei buruzko jakintzarik zabalena zuena. Bere obran euskalkiei buruzko datu asko eta banaketa zenbait eman zituen arren (cf. Camino 2009: 485), haien jatorriaz gutxi hitz egiten du. Gramatikan eskaintzen dien atalean hiru euskalki nagusi (*principales*) bereizten ditu: gipuzkera, bizkaiera eta nafar-lapurtera; aldi berean, Arabakoaz dio “que participa de todos ellos, mas o menos sincopados, y variados” (*Arte* 12). Oharrok hiztegian zabalduko ditu, eta zahartzat joko euskalkiak: Oihenartek bezala antzinako leinuekin lotu beharrean, erromatar geografoek aipatutako Penintsulako hizkuntza aniztasunean hizkuntza bat eta beraren hizkera ezberdinak ikusten ditu andoaindarrak, hau da, euskalkiak (*HH* clviii). Nafarrera eta lapurtera euskalki bakartzat hartzean Oihenartekiko zorra suma dezakegu, ordea, Larramendik ere suposatzen baitu baskoiek Erdi Aroan eraman zutela euskara Ipar Euskal Herrira (*HH* lxxv; cf. Urgell 2012: § 6.1.1).

Larramendik euskararen aniztasuna eta aberastasuna nabarmentzeaz batera, dialekto guztien muinean euskara bakarra zela azpimarratu zuen (*HH clviii*),³⁸ eta bere osteko idazleek berarekin bat egingo dute. Kardaberaz dugu honen lekuko: euskararen baitan dialekto edo hizkera ezberdinak bazirela adierazi arren (momentu batean Frantziakoa, Nafarroakoa, Bizkaikoa, Arabakoa eta Gipuzkoakoa aipatzen ditu; *EBO* 11), hauen azpian euskara bat baino ez dela baieztatzen du, bere maisu Larramendik legez dialekto grekoen adibidearen laguntzaz (*ibid.*).

Ondotik Bizkaiko idazleek euskalkien arteko batetortzeetan sakondu ahal izan zuten: honela, Añibarrok gramatikan izenen eta izenordainen deklinabideko oharrek, “con poca diferencia”, edozein euskalkitarako balio dutela dio (*GB* 11). Bestalde, jatorrizko batasuna aldezteko argudio lexikoa aurkitu zituen, ohartu baitzen hitz batzuk Bizkaian eta Nafarroan erabiltzen direla (*irazarri/irazartu*), baina ez Gipuzkoan (*esnatu*), nahiz eta tarteka galdutako hitzon arrastoak izan badiren, hala nola *gura*-renak (*logura*, *azkura*), gainerakoan *nai* soilik erabili arren (*VB* 21). Liburu faltari ere egotzi zion dialekto zatiketa, “eta gauza bera gertatuko zitzaion gaztelaniari, bere batasuna liburuak gorde izan ez balute” (*ibid.*, ap. Urgell 2012: § 6.1.1).

Mogelek *Nomenclatura* lanean (1801) ere ohartarazi zuen txikia dela bizkaiera eta gipuzkeraren arteko aldea: aditz laguntzaileak funtsean berdinak dira, baita sintaxia, deklinabidea eta lexikoaren zati handi bat ere (cf. Urgell 2012: § 6.1.1). Aurretik gipuzkeraz argitaratu zuen *Confesino onac* (*CO*) liburuaren hitzaurrean ere badugu euskalkien inguruko gogoeta txiki bat: liburua gipuzkeraz argitaratu izanak hainbat kexa sortu zituen Jaurrerian, eta horri aurka egiteko esaten du euskalkien arteko ezberdintasunak hain sakonak ez direla eta hitzen bat ulertzen ez bada, testuinguruak lagunduta uler daitekeela (*CO* iii).³⁹

Euskal ikasketetan dialektologia XIX. mendean bertan sartu zen, Europa mailan egiten ari ziren ikerketen ildotik eta nagusiki L. L. Bonaparte printzearen eskutik. Berak egin zuen euskalkiak, azpieuskalkiak eta hizkerak banatzeko lehenengo lan sistematikoa, eta azterketa horren emaitzak mapa batean islatu zituen. Mapa esplizituki

³⁸ Ideia bazegoen jadanik gramatikan: “Y como el Griego tiene aquel cuerpo de Lengua, que llamaban comun, assi tambien el Bascuenze tiene su cuerpo de Lengua, comun y universal à todos sus dialectos. Este cuerpo del Bascuenze incluye todos los nombres, y verbos, tomados en sí mismos, esto es, tomados como declinables, y conjugables, y todas las demás partes de la oracion, todos los modos del infinitivo, &c. en que no ay diferencia alguna. Los dialectos pues se reducen à las declinaciones del nombre, y pronombre, que consisten en los articulos, y à las conjugaciones del verbo, que consisten en terminaciones, ò inflexiones, diferentes, y se pondrán en su lugar” (*Arte* 13).

³⁹ “Ez daucat aztuta bizcaitar barrucuentzat gach izango dala Quiputz eusqueria ondo aditutia. Baña verba ascatu adituten ez dirianac, aditu oy dira lotu ta catetuta dagozan beztiaçaz batera”.

orduko egoeraren isla bada ere (Urgell 2012: § 6.4.3) —“Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation *actuelle* de l’euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés” [azpimarra geurea]—, euskalkien arteko hartu-eman historikoak jasotzeko saioa egin zuen, euskalkiez gaineko sailkapen hirutar bat proposatuz: A (bizkaiera), B (gipuzkera, lapurtera eta goi-nafarrera biak) eta C (behe-nafarrera biak eta zuberera; ik. Pagola 1991: 150).

Bonaparteren osteko ikertzaileek haren sailkapena hartu zuten aintzat, aldaketa gutxirekin. Gerra aurreko garaian eragin gehien izan zuena baino ez aipatzearen, Azkuek (*DVEF* xxvi) lau nafarrerak (goi-nafarrera biak eta behe-nafarrera biak) bitara bakundu zituen eta erronkaria euskalki beregaintzat hartu. Printzearen metodoen eta hipotesien eragina handia da oraindik XX. mende ia osoan: funtsean haren banaketa dialektala mantendu zen.

XIX. mende hartan, hizkuntza indoeuroparren arteko konparaketak sortu zuen hizkuntzen historiaurreari buruzko kezka gutxika-gutxika heldu zen euskarara, gehienbat euskalari atzerritarrei esker. Bonapartek berak, ordura arte nagusia zen euskoiberismoaren aldekoa zelarik (Gómez 1992 [1989]: 448 eta 2007: § 4.5), intuizio historiko garrantzizkoak izan zituen, hala nola Leizarragaren hizkuntzan oinarrituta Iparraldeko hizkerak behinola batuagoak zirela defendatzean (cf. Lafon 1943 I: 63 eta Urgell 2015c). Van Eys-ek euskararen mitoak baztertu behar direla aldarrikatzen du *Grammaire Comparée* lanaren hitzaurrean: “Plus on étudie le basque, & plus on voit diminuer l’abîme, qu’on croyait exister entre le basque & les autres langues. Dans notre Essai nous avons réussi, croyons-nous, à substituer à un grand nombre de theories hasardées, un nombre égal de faits, qui n’ont rien d’extraordinaire, & dont l’exactitude a été généralement reconnue.” (van Eys 1879: vii). Vinsonek, bere aldetik, euskoiberismoa ukatu eta Schleicherrek planteatu zuen hizkuntzen historiaren interpretazioa euskarari aplikatu zion (ik. Gómez 2007: § 4.2.2). Schleicherren teoriaren arabera aztertu zuen euskara Aizkibelek ere, *Euskera* izkribuan (Gómez 2008: 336). Nahiz euskal dialektoei buruz oraindik antzinako ideiekin bat egiten zuen (cf. “...así como los diferentes dialectos que tiene desde antes de la invasión de los Romanos en el estado de división en que estaban los Iberos en muchas de las Provincias de España”, Aizkibel 1856: 2, ap. Gómez 2008), gai izan zen ohartzeko bizkaiera erdialdeko euskalkiak baino arkaizanteago dela, betiere Schleicherri jarraiki:

Así como cuando el idioma primitivo de los Griegos empezaba a separarse o dividirse en sí mismo, y a producir grupos más o menos lejanos del tipo primitivo que se llamaron dialectos, los Dorios, y sobre todo los Eolios, guardaron muchas formas primitivas, y los dialectos Jonio y Ático se alejaron; así también en la Euskera han conservado los Bizcaínos más puros los tipos primitivos que los Guipuzcoanos y Labortanos, que se han alejado mucho de ellos (*ib.* 11, ap. Gómez 2008).

Aizkibelen intuizio historiko garrantzizkoengatik ere, oro har oraindik euskalkiak adin berekoak eta betierekoak balira legez ulertzen ziren, eta antzinako leinuen banaketa eta orduko euskalkiena lotzen. Hipotesi honek XX. mendean zehar iraun zuen, eta egun ere honen egiazkotasuna defenditzen duenik bada, goian aipatu XIX. mendetik datozen ahots kritiko horiek oihartzun gutxi izan zutelarik oso berandu arte.

Guztiarekin ere, askok bizkaiera nola edo hala gainerako euskalkiek osatzen duten multzotik at dagoen euskalkizat hartzen zuten, ziurrenik azken batean Bonaparteren A, B eta C talde supradialektaletan oinarriturik. Ondokoek areagotzat jo zuten bizkaieraren berezitasuna: Zuazok (1989b: 80) van Eys-en gramatika konparatuan aurkitzen du ideia honen lehen agerpena: “Le dialecte biscaïen se sépare nettement de tous les autres dialectes par les auxiliaires du verbe transitif. [...] Cette différence suffirait déjà pour rendre le biscaïen inintelligible à ceux qui parlent un autre dialecte” (van Eys 1879: 2). Ondoren Sabino Aranak bere egin zuen eta bere jarraitzaileetara hedatu (Zuazo *ibid.*). Hala bada, Eleizaldek proposatu zuen lehenbizikoz egungo euskararen jatorrian dialekto biren arteko talka legokeela, eta dialekto horietako batek bizkaieran izan zuela eraginik handiena (Zuazo *ibid.*).

Idea honek XX. mende erdialdean indartu zen, Europako hizkuntzalariek zabaldu zutenean. Meillet-en zuzendaritzapean burutu zen munduko hizkuntzei buruzko liburuan Lacombe euskalkien oinarrian dialekto bi baino ez zirela esan zuen, bizkaiera alde batetik eta beste guztiak bestetik (Lacombe 1952: 260; ap. Mitxelena 1981, *OC VII*: 523). Hipotesi hau Gavel eta Julio de Urquijok ere defendatu zuten,⁴⁰ baina Uhlenbeck hizkuntzalari holandarrak aurrerago eraman zuen, Eleizaldek modu lausoago batean proposatu zuen “dos distintos Euzkeras” horiei hizkuntza kategoria eman baitzien; zehazki, uste zuen bizkaiera eta gainontzeko euskalkiak hizkuntza ezberdin bi

⁴⁰ Urquijok honela azaltzen du euskararen zuhaitz genealogikoa: “ocho dialectos que, en un momento dado, debieron de reducirse sólo a dos, el antepasado del vizcaíno y el de los otros siete dialectos vascos, y en una época mucho más remota constituyeron una única habla” (ap. Zuazo 1989b: 81).

zirela jatorrian, antzina espazio zabalagoa betetzen zutenak eta ez zutenak zertan mugakide izan behar, baina latinak lekua hartuz zihoan heinean, inguru berera murriztu eta bizkaiera denboran zehar gainerako euskalkietarantz hurbilduz joan dela (Uhlenbeck 1947, ap. Mitxelena 1981, *OC VII*: 524).

Mitxelenak hori gezurra dela frogatu zuen, lehen-lehenik Lacombe eta Uhlenbeck-ek marrazturiko dialektoen bilakaerak zituen gabeziak azaleratu bazituen ere (ik. § 2.3.2); 1959an Lafonek bizkaierak “leku berezia” okupatzen duela baieztatu bazuen ere, argiki ez da Lacombe eta Uhlenbeck-en plano berean ari;⁴¹ alabaina, esateko moduan gaur arte, are aditu batzuen artean ere, badirau bizkaiera gainerakoak baino ezberdinagoa delako ideiak: 1981. urtean Allières-ek bizkaiera beste dialektoetatik banatzen dela esaten digu, berehala “mais rien dans tout cela n’est proprement démontré” esan arren (Allières 1981: 108, ap. Lakarra 1986c: 641).

2.3.2. Koldo Mitxelenaren ekarria

Todo objeto, natural o cultural, está sujeto a cambiar y no hay razón para que una lengua sea más estable que las instituciones políticas o que el relieve terrestre. Pero, si hay cambio, la lengua no tiene por qué mudarse de la misma manera y en el mismo sentido en zonas diversas (Mitxelena 1964a, *OC V*: 9).

Euskararen ikerketa diakronikoen hautsak harrotu zituen Koldo Mitxelenak XX. mendeko erdialdetik aurrera, nazioarteko hizkuntzalaritzaren hatsarreak eta azterketa oinarriak euskal ikerketetara ekarri baitzituen. Ordura arteko euskararen ikuspegi gehienbat estatikoa (euskara betierekoa zelakoa, alegia) lilura bat baino ez zela aldarrikatu zuen, eta era zientifikoa jokaturik euskara historian zehar aldatuz joan dela frogatzeaz gainera hau nola gertatu zen aztertze bideak zabaldu zituen.

Mitxelena heziketaz eta lanbidez diakronista zen, indoeuroperako katedraduna Salamancan (1968tik) eta indoeuroperazko eta euskarazko hizkuntzalaritzako katedraduna UPV/EHUren sorreratik, eta bere burua “berandu jaiotako neogramatikotzat” jorik (*FHV* 349), hizkuntzalaritza diakronikoaren irakatsiak euskalaritzara ekartzeko egiteko larria bere gain hartu zuen. Zehazkiago, bere

⁴¹ Cf. “S’il est vrai, comme pense M. Lacombe, que les dialectes basques peuvent être répartis en deux grands groupes, le biscayen d’une part, et, de l’autre, tous les autres dialectes [...] Cette importante affirmation de M. Lacombe, dont les bascologues souhaitent qu’il expose un jour la justification, doit être, d’ailleurs, nuancée de quelques réserves” (Lafon 1943 I: 73).

maisuetako batek, Meillet-ek, euskarari buruz emandako epaitik —“hizkuntza bat bakartuta dagoen bitartean historia gabekoa da” (Meillet 2001 [1925]: 25)— eratoritzen zen erronka bere eginez, Mitxelenak bestelako bideak bilatzeari ekin zion, Haas-en (1969: 46-51) lau bideetatik bi harturik: datu ezagunen interpretazio berria eta maileguen azterketa (Lakarra 2006a: 230). Lehen bidetik, barneberreraiketarako euskal dialektoen arteko konparaketara jo zuen, elkarrengandik aldentzen doazen hizkuntz egoera ezberdinak direlakoan (Mitxelena 1964a, *OC V*: 30). *Fonética Histórica Vasca* liburuan zehar dialektoen erreferentziak etengabe ditugu: euskalki datuek (batzuetan kontraesankorrek) marrazten duten anabasan ordena jartzen saiatu zen gertakarien garrantziaren (hots, denbora sakontasunaren) arabera. Honetan ofizioak esaten zion bazter euskalkiek (cf. § 2.2.3.4) paper garrantzizkoena jokatu behar zutela.

Meillet-i jarraituz Mitxelenak ekarririko lehenengo irakatsia, oinarrizkoena, hauxe da, alegia, hipotesien aurretik datuak jarri behar direla, hizkuntzalaritza diakronikoak hizkuntzaren historia —adiera hertsian— azaldu behar duela lehenengo. Eta datuekiko atxikimendu honek testu zaharrak azterrarazi eta ikerketaren oinarri bihurtarazi zizkion, hainbat tokitan aldarrikatzen duen bezala: “De cualquier modo, la prehistoria, el andamiaje más o menos inestable de hipótesis sobre lo no directamente conocido, sólo puede sostenerse sobre el fundamento de la historia, de los estados documentados de lengua” (Mitxelena 1963, *OC I*: 13).

Mitxelena sortu zen gerra aurreko giroan testu zaharrekiko hiru iritzi zebiltzan: testu zaharrak zeharo mesprezatzen zituztenak, euskara garbiaren izenean; haietan zer ikasirik badela uste zutenak, politenak edo onenak txukunduz gero (hots, maileguz eta kalkoz garbituz gero) eta, azkenik, euskararen historiaz erakusten digutenagatik ez ezik, berez ere estimatzen zituztenen talde txikia, denen buru Julio de Urquijo zela.

Mitxelenak, esan gabe doa, Urquijoren izpiritua bere egin zuen.⁴² datu guztiak erabili behar zirela aldarrikatu zuen, are ezdeusenak diruditenak ere, printzipioz guztiek (ondo dataturik izanez gero, betiere) balio bera baitute hizkuntzaren historiarako (Mitxelena 1954a, *OC XI*: 372). Hau dela eta, testu berezi eta txiki asko argitaratu zituen (Landucciren hiztegia, Betolazaren dotrina, *Viva Jesus* eta *Textos Arcaicos Vascos* bilduma, besteak beste), haien garrantzi historikoaz jabetua, eta inon testu

⁴² Ez dago esan beharrik lehenengo taldeaz errenteriarak izan zezakeen aburua, eta bigarren taldekoen jokabidea honela azaltzen du: “Azkue, con un criterio estetico y purista, no aceptaba pura y simplemente los hechos, sino que se creía en el derecho, e incluso en el deber, de someterlos a un cribado previo” (Mitxelena 1964a, *OC V*: 16). Adibidez, Azkuek *RS*-ren edizioan 281. erretrauan *atorren* > *atorrea* aldaketa egin zuen, inolako oharririk gabe (Lakarra 1996a: 192), eta 1.an hauxe idatzi zuen: “*Dagok*-en ordez *iagok* obeto esan leike” (*ibid.* 120).

berririk agertzen bazen adi zegoen, argitaratzeko prest zein argitaratzeko erraztasuna eta laguntza emateko.

Testuei berez duten balioa emateak eta metodo zientifikoa erabiltzeak euskalaritzan izan zuten eragina dialektologian ere nabaritu zen. Lehenik eta behin, goitik behera aldatu zuen euskal dialektoen bilakabidearen barnean bizkaierari esleitzen zitzaion lekua (Mitxelena 1964a, *OC V*: § 2.10; ik. hemen § 3.3.4), euskalkien arteko erlazio historikoak eta jatorria ordura arte pentsatzen zen bezalakoak izan ez zirela frogatuz. Besteak beste, testu zaharren lekukotasunen laguntzaz bizkaiera bera literatur bizkaiera modernotik (“hiperbizkaiera” deitu zuen horretatik) bereizi beharra dagoela erakutsirik, garai historikoan zehar gipuzkeratik aldentzen joana dela frogatu zuen, eta ez alderantziz.

Alor honetan Landucci italiarrak 1562an bilduriko hiztegiaren azterketa dugu mugarri: aurrekoen aurreiritzi garbizaleak alde batera utzita, Mitxelena —lehenagotik Urquijok adierazi zuen bidetik— gauza izan zen haren berezitasunaz jabetzeko eta, areago, haren azterketaren gainean Arabako euskararen hipotesi garrantzizkoa eratzeko (Mitxelena 1958, *OC XII*).⁴³ Honela, XVI. mendeko euskalkien mapa Bonapartek marraturikotik oso ezberdina zela agerian jarri zuen, eta gaur egungo bizkaieraren eta gipuzkeraren artean dagoen muga zurruna lehen lausoagoa zela, zenbait kontutan isoglosak ez zirelako bertikalak (mendebaldea eta erdialdea banatzeko modukoak), horizontalak ere baizik, B eta GN lotzen zituztenak Arabako euskarak zubi egiten zuelarik.

Euskalkiak erromatarrak etorri aurreko leinuekin lotzen zituen teoria ere arazotsua iruditzen zitzaion, zeren eta bera bezalako konparatzaile baten begietan euskalkien arteko aldeak oso txikiak baitira erromatarren garaian edo are lehenago ere sorturiko banaketa baten isla izateko. Dagoeneko 1964an bere buruari galdetu zion ez ote den gertaera modernoagoetan aurkitu behar euskalkien jatorria: zehazki, eliz banaketa zaharra proposatzen du, Menéndez Pidalek Penintsulako beste toki batzuetan proposaturikoaren ildotik (Mitxelena 1964a, *OC V*: 48).

Dena dela, honi buruzko bere lanik esanguratsuena 1981eko *Lengua común y dialectos vascos* artikuluan islatua dugu. Dialekto ezberdinen arteko distantzia linguistikoa zenbakiz emateko neurri zehatzik ez dago eta, hasieratik diosku begiz

⁴³ Jatorri arabarraren hipotesia 2004an Lazarragaren eskuizkribua agertu zenean bermatu zen, ordura arte Arabako euskararen dokumenturik garrantzitsutzat jotako lekukotasuna eta lekukotasun berria, denean bat etorri ez arren, bat baitatuz funtsezko hainbat ezaugarritan (cf. Lakarra 2004).

egindako estimazioak erabili behar dituela (Mitxelena 1981, *OC VII*: 522); hala ere, argitzat jotzen du gaur egungo euskalkiak elkarrengandik oso hurbil daudela, guztiek elkarbanatzen dituztela osagai eta berrikuntza komun ugari. Hori dela eta, euskalkien jatorria azaltzeko Euskara Batu Zaharraren (*EBZ*; berak *éuskaro común* deituaren) hipotesia eratu zuen.

Ez zuen uste *EBZ* hizkuntza zehatz bat izan zenik, dena dela, *koiné* moduko zerbait baizik: hipotesiaren arabera, historiaren une batean lehenagoko sakabanatzea eta aniztasun dialektala bakanduz joan zen, hizkera ezberdinak Euskara Batu Zahar horretara lerrotuz; eta, hurbiltze horren ostean, berriz ere bereizten hasi ziren, gaur egun ezagutzen ditugun euskalkietara heldu arte. Dena dela, ez dira hizkuntza ezberdinak izatera heldu, mugakide izanik dialekto eremuen arteko hartu-emanak mantendu baitira. Hartu-eman horien eraginez sortuak dira, batetik, bateratze fenomenoak (Mitxelena 1981, *OC VII*: 535) eta, bestetik, *EBZ*ren zatiketa ostean ere euskalki guztietara hedaturiko bilakabideak, genitibo(ar)en bidezko geroaldi perifrastikoa bezalakoak, alegia.

Hizkuntza bateratu horren *ante quem* data X. mendean jarri zuen, ordurako lehenengo banaketa dialektalak bazeudela erakusten baitigute garai haietako lekukotasunek (adibidez, hasperenaren galera Nafarroa Garaian, edo *baltz*, *barri* / *beltz*, *berri* bikoteak...). Ezaguna da historiaurreko garaietako hizkuntz aldaketak (bateratzeak zein dialeko zatiketak) ez dagoela datatzerik hizkuntzaren bitartez, baizik eta gertakari historikoak erabili ohi direla haien arrazoen bila. Ezaguna da, halaber, hizkuntzak berez zatikatu arren, ez direla berez bateratzen, gizakiaren eraginez baizik. Beraz, bi ideiak buruan izanik, Mitxelenak Barbero eta Vigil historialariek proposaturiko gizarte egoera kontuan hartu zuen (Mitxelena 1981, *OC VII*: 540) bateratzea V. eta VI. mende bitartean kokatzeko. Garai hartan Euskal Herria inguratzen zuten herri germanikoen (frankoak Iparraldetik eta bisigodoak Hegoaldetik) kontra euskaldunak indartsu ibili ziren. Hau dela eta, Barbero eta Vigilek frogatu uste zuten egoera tribal xamar (eta, beraz, zatikatu xamar) batetik orduan, beharrak hartaratuta, nahikoa batu zirela, etsaiei aurre egiteko nolabaiteko antolakuntza amankomuna sorturik eta, beraz, Mitxelenaren iritziz *koiné* moduko Euskara Batu Zaharrari bide emanik

2.3.3. Mitxelena osteko garaia

Mitxelenak oinarri teorikoak jarririk, eta maisuaren ildotik, euskararen azterketa aurrera joan da etengabe, nazioarteko hizkuntzalaritzaren aurrerapenak euskarari egokituz eta, areago, inoizka aurrerapen horietan lehentasuna hartuz ere. Hala eta guztiz ere, gure alorrak ere pairatu duen espezializaziorako joeraren eraginez dialektologiaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren arteko lotuneak apurtzen joan dira (§ 2.1).

Nazioarteko dialektologiaren metodoak gurera ere etorri dira, eta nahi baino maizago ez bakarrik sakontasun diakroniko gabeko, baizik eta are geolinguistikorik gabeko lanak eragin ditu, azaldu dugunez (§ 2.1.2). Bestalde, ikuspegi pankronikoa jaun eta jabe da historiari begiratuta egin izan diren lan bakanetan, jakintzat ematen baita gaur egungo ezaugarri definitzaileak nahitaez antzinako edozein hizkuntza egoerari ere egotzi ahal zaizkiola eta antzinako edozein unetan pisu bera izan zutela, garai zaharretako euskalkien ikuspegian gaizki ulertu sakonak sortuz.

Bide honetatik jo du Zuazok, bere azken lanetariko batean (2010), besteak beste, non, Mitxelenarekin bat etorririk (1981, *OC VII*) euskalkien jatorria Erdi Aroan kokatu eta hainbat berrikuntza eta hautu (zaharragoak batzuk, modernoagoak besteak) bildu baititu euskararen dialektoak definitzeko. Hauetako bakoitzaren foku berritzaileak ere zehaztu ditu: Iruña eta ondoren Gasteiz jotzen ditu hastapeneko eremu berritzailetzat, ondoren Bizkaiko erdialdea, Zuberoa eta Nafarroa Beherea, eta azkenik Beterriko eskualdea. Ondorioak kritikatuak izan dira diakronisten ikuspuntutik euskalkiei buruz duen ikuspegi pankronikoagatik, hain zuzen (cf. Lakarra 2011: 207, 139. oh. eta § 3.3), eta ez zaio kritikarik falta baita beste dialektologoen ikuspuntutik ere (Camino 2011: 90 eta 112).

Diakronistek, Mitxelenaren ildotik, ez diote euskalkien azterketari muzin egin, euskararen historia berreraikitzeke euskalkien arteko hartu-emanaz aztertzea oraindik ere ezinbestekoa izanik. J. A. Lakarrak 1986tik aurrera, Mitxelenaren lanari jarraipena emanik, bizkaierak historikoki pairaturiko aldaketa testuz testuz aztertu du, bertan lekukotzen diren morfologiako arkaismo jakingarri zenbaiten bilakabidea xeheki jarraituz eta noizbait euskara osoarenak izan zirela erakutsiz; bai eta kronologia zein geografia aldetik ohar interesgarri asko eskainiz ere aldaketa nola gertatu zen finkatzeko. Aldez bederen lan honi zor zaio gorago aipatu dugun periodizazio saioa. Berrikiago B. Urgellek (2006a) saio bat egin du aditz-izenaren atzizkien dialekto

banaketaz, testuen laguntzaz atziki bakoitzaren historia berregin nahiz, hemen ere alderdi kronologikoa eta geografikoa uztarturik. Gauza bera esan dezakegu C. Mounole-
ren tesiari buruz (2011), antzinako aditz sistemaren azterketa filologiko eta diakronikoa
egin baitu, XVI eta XVIII. mendeetako egoerak elkarrekin erkatuz euskalki
ezberdinetan aditz sistemak pairatu dituen aldaketak noiz, nola eta zergatik gertatu ziren
miaturik.

Dialekto zaharren inguruko gogoetak berrindartu dira azkenaldi honetan, eta
dudarik gabe Lazarragaren eskuizkribua agertzeak indartze honetan eragin handia izan
du. *Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa taldeak testuaren edizio eta azterketari ekin
eta dialekto zaharren sailkapena berrikusarazi dio, Lakarra & Urgellen (2008) eta
Lakarraren (2011, 2012a) lanetan igartzen denez. Izan ere, Mitxelenaren *EBZ*-ren
hipotesia hizkuntzaren aldetik bermatzeko esateko moduan lan guztia egiteko dagoela
gogoratu dute, bai eta harrez gerozko dialekto zatiketa berreraikitze ere; lehen saio
gisa, *EBZ*-ren adarreztatzeari buruzko lehendabiziko hipotesia plazaratu du Lakarrak
(cf. § 3.3.5).⁴⁴ Honezaz gainera, *Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa taldearen
baitan euskal dialektologia diakronikoa ardatz duten doktorego tesi zenbait daude
martxan gaur egun: Manu Padillak zubereraren bilakabide diakronikoa aztertzen
dihardu testu zaharren azterketaren bidez, Urtzi Reguerok euskal dialektoen lehenengo
banaketen gainean lan egin ostean (Reguero 2012, 2013), egun Nafarroa garaiko testuen
bidez hizkera horien historia egiten dabil, eta Eneko Zuloagak (2010, 2011, 2013)
sartaldeko bizkaieraren historiari ekin dio berriki, hizkera honen azterketa
dialektologiko eta diakronikoa egiteko asmoz.

2.4. Gure tesiaren nondik norakoak

Tesiaren oinarritzko helburua berriki aurkitu den Dotrinazko Sermoitegiaren
hizkera berezia espazioan eta denboran kokatzea da, eskura ditugun ezagutza eta

⁴⁴ Adarreztatzeari buruzko hipotesi hau zuhaitz genealogiko modura aurkeztua da, baina dibergentzia
uneak eta etenak ez ezik, konbergentzia mugimenduak ere islatzen ditu. Behin-behineko proposamen oso
eskematiko bat baino ez denez, itxura guztien arabera, inoiz modu lausoan (ustea froga linguistiko
zehatzetan oinarritu gabe, alegia) jasotzen dira halakoak, Arabako euskarari dagokionez esan genuen
bezala (Ulibarri 2008c: 9).

metodo eraginkor guztien laguntzaz, baina ezinbestean testuaren ediziotik abiatuta (§ 7) eta hartan oinarri hartuta.

Edizioa aurrera ateratzeko egilearen *usus scribendia* nolakoa den zehaztu behar izan dugu lehenik (cf. § 2.2.2.1; ik. Blecua 1983: 89; Urgell 2013a: 535, 5. oh.), eta horretarako egilearen hizkera geografiaren, historiaren zein estilistikaren ikuspuntutik ezaugarritzatzeko baliagarri izan daitezkeen ezaugarriak oro aztertu ditugu (§ 4.2 eta 4.3). Egileari, testuari eta haien testuinguru historikoari zor zaiona ahanzi gabe (§ 2.4.1.1), testuaren kokapen historiko eta geografikoa egiteko ondoko lerroetan zehaztuko dugu metodoa baliatu dugu.

2.4.1. Corpora

Testu baten hizkeraren azterketa ezin liteke mugatu bertako datuen deskribapen hutsera, haren nondik norakoak azaldu nahi baditugu behintzat. Aitzitik, batez ere hizkera kokatu nahi izanez gero, testu egokiak konparabide gisa baliatzea noraezekoa delakoan, testu corpus behar bezain zabal batez baliatu gara. Halere, azterketa aurreratu ahala corpora definituz eta mugatuz joan gara, eta hemendik lehentasunez erabili eta era berezian tratatuko dugun corpora sortu da: Bizkaiko hego-mendebaldekoa, alegia (cf. § 3.4).

Berez, ideala litzateke ondo datatu eta kokaturiko testuez baliatzea (§ 2.4.1.2). Euskal testu corpusaren izaerak eta egoerak oro har (§ 3.4) eta gure eremuaren inguruko corpusarenek zehazkiago, ideal horretatik urrun jartzen gaituzte. Batzuetan testuak hizkuntzaz kanpoko datuen bidez kokaturik daudenez azterketa eremuaren barnean jar ditzakegu halako berme batez; bestetan, ordea, azterketak berak diosku testuak eremukoak direla. Edonola ere, guztiek baldintza ezberdinak dituzte eta azterbide ezberdinen prismaz begiratu behar dira konparaketa ziurtasunez egin ahal izateko, ondorengo lerroetan laburbiltzen saiatuko garen bezala.

2.4.1.1 Testu dialektalak

Ohikoa da *testu dialektal* edota *literatura dialektal* kontzeptuak erabiltzea, ustez eta *testu ez-dialektal*-ekiko oposaketa garbian direla. Testu dialektaltzat jotzen da, oro

har, idazlea edo testua bera zehazki nongoa den dakigun heinean, bertako hizkerarekin bat egiten duketen ezaugarriak biltzen dituen testua, printzipioz diakroniko eta diatopikoki homogenea dena. Hala ere, testuek hizkera heterogeneo bat erakutsi ohi dute maizenik (Camino 2009: 331): delako eremuan espero genitzakeen ezaugarri batzuk ez dira ageri eta, alderantziz, bertako hizkeraren aurka doazen ezaugarriak bai.

Testu *ez-dialektalen* artean ezagunenak idazle jantzienak izan ohi dira, hizkuntza estandarrago baten (literatur hizkuntzaren) eragina nabari izaten baitute (cf. § 2.4.1.4, eta bertako sailkapena). Testu ez-dialektalak lirateke, halaber, *testu erlatiboki diatopikoak* (Camino 2003: 46 eta 2009: 313), hots, hizkera ezberdinetako ezaugarriak biltzen dituzten jatorri eta egile ezezaguneko testuak. Hauetatik hurbil leudeke baita dialektologikoki fidagarriak ez diren testuak ere (edo *idazki ez hain fidagarriak*, cf. § 2.4.1.4), zergatik eta euskara arrastorik utzi gabe galdurik den herrietan agertu, eta benetan herriko hizkera den ala ez jakiteko modurik ez baitugu, Caminoren ustez (2003: 45), Nafarroako hizkeren testuinguru ñabarragoagatik, apika: “beharbada idazkiak fidagarriak dira, [...] baina ez dugu inolako modurik hori frogatzeko”.

Gu ez gaude Caminoren ezkortasunarekin ados: Hans Peters-en hitzak irakurtzerakoan —“idealki, eremu dialektal bat ez litzateke idazki bakar baten lekukotasunean oinarriturik ikertu beharko” (1988, ap. Camino 2009: 314)— *idealki* hitza nabarmenduko genuke, Landucciren hiztegiak Mitxelenak argiki erakutsi baitzuen ideala gainditurik badela modurik testua nongoa den frogatzeko. Peters-ek berak ere ez du erabiltzeko aukera baztertzen, jarraian “halakoetan, arreta handia ezarri behar da idazki horren data eta jatorria ahalik eta erarik fidagarrienean aurkitzeko” (*ibid.*) gehitzen duenean. Izan ere, gure testua bete-betean talde honetakotzat dugunez, horixe frogatzen ahaleginduko gara, Mitxelenaren ereduari heldurik.

Gure ustez, testu erlatiboki diatopiko hauek (eta “idazki ez hain fidagarriak” oro har) ezin ditugu zuzenean testu ez-dialektaltzat hartu, pentsatzen baitugu idazlea bere mintzoa erabiltzen ari dela, hori bai, egoera komunikatibo zehatz batean. Koxka honetan dago, alegia, ea gai garen testuan diren ezaugarriak nongoak diren zehazten eta are lehen begiratuan “bitxiak” diruditen bestelako ezaugarriak zergatik ageri diren azaltzen; eta horretarako lanari ekitea beste biderik ez dago.

Honegatik guztiagatik, irakurtzen dugunean:

...baina gaude itzulpen honek Zuberoa alderdiko euskarara anitz jotzen duela: Nafarroa Behereko euskararen garapena aztertzeko itzulpen hau ez da hain tresna baliagarria eta

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

ondorioz, hobe izanen da ikerketaren arreta Suarez d'Aulan-ek 1740 inguruan eginarazi katiximari edo 1786an Le Quien de Laneufville Akizeko apezpikuak argitararazi katiximari eskaintzea; Garaziko Bazkazaneko 1762ko predikuak ere aipa litezke, baina Lapurdiko euskararen itzala ageri da horietan (Camino 2013b: xvi)

gure buruari galdetzen diogu ea zergatik ez den tresna baliagarria izango: testu horrek orduko hizkera erreal bat erakusten digu, inork egoera komunikatibo zehatz batean erabiltzen duen hizkuntza, bere aldaera historiko, geografiko eta sozial interesgarriekin. Gure buruari galdetzen diogu, berebat, behe-nafarrerari buruzko aurreiritziek, honen eta zubereraren arteko mugei buruzkoek edota zuberera arkaikoari buruzko datu eskasiak ez ote duten halako erabakietan parterik izango.⁴⁵ Azken batean, datuak datu dira (cf. § 2.3.2): ezin testuaren hizkeraren balioa gutxietsi gure interes edo ezagutzen arabera, deskribapena eta hortik letozkeen ondorioak ahuldurik geratzeko arriskuan jarri gabe (cf. Milroy 1992: 171).

Zuberoako mintzoaren eragina berretsiko balitz ere, ez legoke arrazoirik lekukotasuna albo batera uzteko. Garai hartan behe-nafarreraren eremuan ziren prestigiodun hizkuntz moldeak islaturik genituzke testuan, bada,⁴⁶ eta XVIII. mendeko Iparraldeko mintzoen artean ziren erlazioak sozialki nola gauzatzen ziren ikusi ahalko genuke (cf. § 2.2.3.5), aurreko eta ondorengo dialekto ezaugarrien egoera berreraikitze baliagarri izan daitekeena. Horrekin batera, metodo egokia erabiliz gero hedatu ziren literatur zubereraren ezaugarriak agerian geratuko lirateke, haren bilakabidea nolakoa izan zen deskribatzeko lain (cf. § 2.4.1.4).

Ez dugu esan nahi, noski, testu guztiek balio *dialektal* (irakur bedi geografiko) bera dutenik: alabaina, ez dugu uste halako testua dialektala dela eta holakoa ez-dialektala erabat esaterik dagoen; bestela esanda, *dialektal/ez-dialektal* oposaketa ez litzateke bi talde zurruntan gauzatu behar; aitzitik, terminook lerro baten bi muturrak adierazten dituzte, tartean hainbat maila daudelarik, eta zenbait testutan —beharbada maila apalekoetan edota egile erdi-ikasienetan — (Camino 2003: §§ 3.5; 3.6 eta 3.7; ik.

⁴⁵ Cf. “The classification of M[iddle] E[n]glish dialects generally used was that set up by Moore, Meech and Whitehall (1935), though it was clear that their findings were both impoverished and distorted by the small number of texts they analysed, the small number of criteria they employed, the discarding of much evidence, and, above all, the use of the written data simply as clues from which phonemes and morphemes in the spoken language could be reconstructed” (Strang 1970: 225).

⁴⁶ Hau eta honen antzeko datuak gogoan, Akizeko elizbarrutiak bere dotrina propioa sortu baino lehen (itxuraz c. 1740 baino lehen, beraz) zubererazko liburuak erabiltzen zirela proposatu du berriki Urgellek (ik. 2012: § 7).

hemen § 2.4.1.4), nahiz literatur hizkuntzaren eragina nabaria izan, badagoke datu dialektalak ateratzeko modurik.

Honela, testuaren *dialektaltasun* mailaz hitz egin behar genukeela pentsatzen dugu. Testuaren dialektaltasun maila erabakitzeke bideak hainbat izan badaitezke ere, gure ustez eraginkorra lekukotasun ezberdinen arteko konparaketa da (cf. § 2.4.1.3), tesi honetan jorratuko duguna, alegia.

Azterketa linguistikoari ekin aurretik, baina, testuaren kanpo historiak ere oinarri sendoak eman diezazkiguke testua zenbateraino den dialektal ebazteko. Caminok iradoki duenez (2009: 314), testuen erlatibotasuna kontrolatzeko biderik seguruenak testuaren egilea nongoa zen, noiz idatzi zuen, zertarako idatzi zuen... aztertzea litzateke.⁴⁷ Testuaz eta egileaz zenbat eta gehiago jakin, hainbat eta dauzkan irizpideei buruzko datu gehiago izango ditugu.

Hizkuntzaz kanpoko irizpide garrantzitsu bat testuaren eragin-eremua izango litzateke: eremua zenbat eta murriztagoa izan, orduan eta aukera gehiago genuke testuak bertako ezaugarri dialektalak izateko. Honelakoak bide dira, adibidez, Tolosako 1619ko irain bertsoak (TAV § 3.2.6), herri eta une zehatz-zehatz baterako eginak. Gure corpuseko Ugaoko abadearen itzulpena ere (§ 3.4.2) antzekoa litzateke, izenburuari atxikiz gero: *Doctrine Dominicalac aterac eusquerara Dn Antonio Francisco de Yturriaga Miraballesgo Abade Maisuec bere feligresen instrusiñoraco*. Gure irizpidearen arabera, Abadea Miraballesen bizi izanik eta bertako eliztarrentzat ari zela ezarriarik, erabaki dezakegu testu dialektal egokia izango litzatekeela azterketarako.

Honekin bateratsu sar daitezke une jakin baterako sortzen diren testuak: esate baterako, Nafarroan barrena han-hemenka bildu diren ezkontz fede ugariak (cf. TAV: § 3.2.6; Satrustegi 1987) edo, gure konparaketa corpusean (§ 3.4.2), Zolloko galdetegia, herrian galdeketa aurrera atera ahal izateko egindako itzulpena. Irizpide hau hizkuntza erromantzeetan askotan erabili da: artxibategietan diren testu mota ugarietatik dialektologia egiteko notarioek idatzitako akta eta dokumentuak hartuko dituzte gehienbat; hau da, eremu zehatz baterako baino idatzi ez diren testuak. Aukeratzekoan honako irizpide hauek kontuan hartu ohi dira, besteak beste (Matute 2006: 2525): eskribauaren, lekukoaren eta alderdien jatorria, erositako jabetzen kokapena (notarioen salerosketa dokumentuetan), eta dokumentuaren emailearen edo berreslearen kokapena.

⁴⁷ Ez dira parekoak izango herriko semeak bertan edo inguruko herri batean predikatzeke berriaz prestatutako sermoia, adibidez, eta hainbat herri bisitatuko dituzten misio batzuetan erabiltzeko beste eremu batekoa den idazleak egindakoa (cf. § 4.3); eta modu berean ez dugu berdintzat hartuko halango herritan agertu den eskuz idatzitako dotrina edo inprentara eramateko prestatutakoa.

Egileak aurreikusitako erabilera ere kontuan izan behar dugu: ahozketasunetik zenbat eta hurbilago, orduan eta (teorian behintzat) herri ezaugarri gehiago. XIX. mendeko mendebaldeko dotrinetan garbi ikus daiteke leku jakin bateranzko lerratzea, izenburuan esan ohi baitigute norako idatziak diren: Busturia, Laudio, Baztan, Leintz... (cf. Villasante 1979: 401 eta Urkizu 2000: 337). Zehatz dezagun, Lizundiak (2008) iradoki bezala, dotrinok ez bide direla izenburuko herriarentzat bakarrik eginak, kasuan kasuko artzapez barruti edo bikariotzarentzat baizik. Sermoiak ere herriko hizkeraren erakusgarri izan daitezke, baina alor honetan ere, ikusiko dugunez, mailakatze handi bat izaten da bertako hizkuntza aski leialki erakusten dutenetatik prestigiodun hizkera bat erabiltzen dutenetara (§§ 2.4.1.4 eta 4.3). XIX. mendeko dotrina eta sermoiekiko Mogelen irizpidea oso argigarria da, hemen suposatzen duguna bermatzen duen heinean:

Libruetan bacoitzari [berea] eman bear zaio. guiputz izeriditzen (sic) danean, guiputz eusquera naaste gabea aleguñez; Labortarrac beren guisara, ta orobat Bizcaitarrac. Baña buruz icasten dan doctrina, obe da eracastea bacoitzaren errian itz eguiten dan becela. Ezdago onen premiaric Sermoi ta bestelaco libruetan. Elgoibar, Eibar ta Vergaran predicatzen bazate guiputz garbian, ondo adituac izango dira Sermoiguillac, baita-ere guiputz urrean dauden Bizcaico errietan. Ordea Cura Jaun edo animazaiac itzegin bear dute, aldezatela, beren cargura daucaten erricoac itz eguiten duten bezala errian eracasten dutenean. (CC xvi)

Testuaren beraren garrantzia ere kontuan hartu beharreko irizpidea da; hau da, adibidez, liburuaren ertzetan egindako testu marginalak askoz ere balio dialektal handiagoa izan ohi du, idazleak hizkuntza erregistro informalago bat, ahozketasunetik hurbilago dagokeen bat erabiliko baitu normalean. Ezaugarri honen adibide klasikoa Erdi Aroko glosak lirateke: egileek ez dute hizkuntza jaso (latina, alegia) erabiltzen, bere jardun arruntean erabiltzen duten dena delako hizkuntza baizik.

Nola ez, egilearen hitzak ere kontuan hartu behar: Materrak dioenean euskara Saran ikasia duela eta hango euskaran idazten duela (Mat 14), printzipioz sinistu egin behar. Are garbiagoak lirateke Bonaparteren (Pagola *et al.* 1992) edota Bourciez-en (Aurrekoetxea & Videgain 2004) aginduz egindako itzulpenak, berariaz ikuspegi dialektal batetik eginak. Dena dela, ikertzaileak betiere honelako baieztapenak ahal den neurrian egiaztatu ere egin behar ditu: adibidez, Bonaparteren itzulpenetan erabilitako

hizkuntz irizpideei buruzko zenbait gorabehera azaleratu dira dagoeneko (cf. Camino & Gómez 1992 eta Urgell 2000b).

Testuaren barruan ere aurki dezakegu haren dialektaltasun maila neurtzeko oinarriarik. Alde honetatik oso emankorrak suertatu dira, baita gure artean ere, egilearen aldaketak. Añibaroren *Eskuliburuaren* 1802 eta 1821eko argitalpenen artean Urgellek (1985: 113) ikusiriko aldeak honen erakusgarri dira, neurri batean behintzat: izan ere, hasieran Arratiakoak bide ziren ezaugarri zenbait erabili eta gero berariaz alde batera utzi zituen. Honelako kasuetan ageri-agerian gelditzen dira norberaren hizkera eta hizkera landuago baten (literatur hizkuntzaren) arteko tirabirak, eta hauek deskribatzeko soziolinguistikaren irakatsiak beharko ditugu (§ 2.2.3.5).

Orain artekoaren arabera, garbi dago testuinguruari buruzko informazioaz gainera azterketa filologikoak testuaren bilakabideaz esaten diguna ere (§ 2.2.2.1) bildu behar dugula haren dialektaltasun maila zehazteko. Alabaina, esan gabe doa erabakigarri den irizpide bakarra azterketa linguistikoa dela, ondoren azalduko den metodoaren bitartez gauzatua (§ 2.4.1.3). Gainerako guztiak, egileak dioena ere barne, lehen unean erabil ditzakegun adierazleak dira, ondoko lanen abiapuntua, besterik ez.

2.4.1.2 Materialak eta euren erabileraz

Mitxelenak Landucciren hiztegiko hizkuntza XVI eta XVII. mendeetako mendebaldeko testuekin konparatu zuen —Garibai, *Refranes y Sentencias*, Betolaza, Mikoleta, Kapanaga eta *Viva Jesus*—, hizkeren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak agerian jartzeko asmoz. Bide bertsutik aritu dira beste hizkuntzetan ere, jakina, testuen arteko konparaketa baita, izan ere, honelako lan bati ekiteko biderik ziurrena. Guk McIntosh-ek *Linguistic Atlas of Late Medieval English (LALME)* proiektuan proposatutako bidea hartu dugu eredu, azken batean Mitxelenak erabilitako metodo beraren garapena baino ez dena.

Dees-ek (1988: 144) frantses dialekto zaharrak deskribatzeko orduan lekukotasun mota bi bereizten ditu: *lehen mailako lekukotasunak*, hau da, data eta jatorri ezaguneko dokumentuak, eta *zeharkako lekukotasunak*, jatorria (eta data)⁴⁸ azterketa linguistikoaren bidez, gainerako testuekiko konparaketaren bidez alegia, zehaztu zaien dokumentuak. McIntosh-en ikertaldeak *fit* izeneko teknika asmatu du, “aingura testu”

⁴⁸ Dees-ek jatorriari buruzko zalantzaz bakarrik badihardu ere, ezin ahaztu testuaren data ere zalantzazko edo ezezaguna izan daitekeela.

deituriko lekukotasunetan oinarritua. “Aingura testuak” hizkuntzaz kanpoko datuen bidez ondo kokatutako testuak izanik (i.e. Dees-en *lehen mailako lekukotasunak*), lurralde zehatz bateko hizkeraren erakusgarritzat hartzen dira, hain zuzen ere jatorri ezagunik gabeko testuak geografikoki zein eremuri dagozkion zehazten laguntzeko (Milroy 1992: 186). Nolabait esateko, formalizatu egin dute bestela ere logikotzat jotzen den hurbilketa: esate baterako, Lakarra (1996a: 130 e. hur.) *RS* kokatzerakoan “aingura testu” zenbaitz baliatu zen; zehazki, Mikoleta Bilboko hizkeraren lekukotzat hartu zuen, Garibai Arrasatekorako, bertako otoitz batzuk Orozkoko hizkerarako eta *Viva Jesus* hego-mendebaldeko bizkaierarako.

Konparaketak nolabaiteko bermea izan dezan, “aingura testuak” aukeratzeko irizpideak argi izatea garrantzitsu da. Hasteko, gogoan har dezagun testua geografikoki kokatzeko hizkeraren historiari halako mozketak sinkroniko bat egin behar zaiola, hau da, garai bereko hizkuntzaren barruan ere kokatu behar da (cf. §§ 2.2.2.2 eta 2.2.3.3). Hau honela, garaiaren aldetik ere zenbat eta hurbilagoak izan “aingura testuak”, orduan eta koherenteago izango da konparaketa. *Linguistic Atlas of Late Medieval English*-eko egileek, beraz, Erdi Aro guztiko lekukotasunak hartu beharrean, zuzenean aztertzen ari ziren garaiko testuetara mugatu ziren, hots, 1350 eta 1450. urte bitartekoetara. “Garaia” diogunean ez gara data absolutuaz ari, noski, hizkuntzaren historiako garaiaz baizik: esate baterako, 1650. urteko testu bat Araba aldekoa dela frogatu nahi izanez gero, koherenteago izan daiteke agian Gamizekin konparatzea (ca. 1760), Betolazarekin (1596) baino, Euskara Arkaikoaren eta Euskara Zaharraren artean egin ohi dugun bereizkuntza aintzat hartuta.

Mitxelenak bizkaierazko testuak hartu zituen ainguratzat; hots, aztertu behar zuen testuaren gertukoenak ziruditenak. Adiera zabal batean ulertu behar da hau: aukera dagoenean, ez da komeni hipotesi gisa darabilgun hizkerakoak bakarrik aintzat hartzea, inguruko hizkeretakoak ere baizik: zenbat eta inguruko gehiago hobeto, konparazioan testua zehazkiago kokatzeaz gainera, hizkera zaharren arteko hartu-emanak ere ulertzeko beta izango baitugu. Azaldu dugun bezala, hizkuntza ezaugarriek marrazturiko isoglosa bakoitzak bere hedadura du denbora jakin batean, gainerakoekin bat etorri beharrik ez duena, eta historian zehar aurrera edo atzera joan daitekeena (§§ 2.2.1 eta 2.2.2.2). Garatzen ari garen ikerketaren azken helburua, beraz, ez da dena delako testua zein herritakoa den erabakitzea (desiragarri izan arren, ezinezkoa ere izango da, beharbada, gehienetan), anekdota horretatik gora dagoen beste zerbait baizik: aingura testu multzo zabal baten bitartez isoglosa multzo baten bilakaera aztertzea

izango dugu helburu, ezaugarriak nola eta non sortuak izan daitezkeen eta hizkeretan zehar nola hedatu diren aztertuz, euskalkien eta oro har euskararen historiarako datuak biltzeko asmoz.

Hala eta guztiz ere, euskal corpusaren izaerak testu zaharragoak eta, batez ere, berriagoak ere erabiltzera behartuko gaitu besterik ezean; maiz xamar, baita egungo dialektoen datuak ere. Halakoetan, garaian garaiko ikuspegia galdu (cf. § 2.2.2.2) eta ikuspegi pankroniko batean erortzeko arriskua luke ikertzaileak, baldin eta aztergai duen testuarekiko batetortze guztiak modu berean balioztatuko balitu. Alde batetik, jakintzat eman behar da ezaugarrien egungo banaketa ez dela ezinbestean bat etorriko aurreko garaietakoarekin: alderantziz, espero izatekoa da aldaketaren bat gertatu izana era batera edo bestera. Bestetik, ordea, ez dago dudarik gaurko banaketak aurrekoa berreraikitzeke zantzuak eta gakoak ematen dizkigula (Mitxelena 1964a, *OC V*: 23). Ziurtasun bien artean murgiltzen ikasi behar du, bada, dialektologo historikoa.

Ezeren gainetik, ezinbestekoa da gogoan izatea testuaren garaikoak ez diren datuetatik (nahiz modernoagoetatik, nahiz zaharragoetatik) atera daitezkeen ondorio guztiak estrapolazioak baino ez direla, eta horrela tratatu behar dira (cf. Mitxelena 1971, *OC XI*: 327). Adibidez, Kapanaga mañariarrak (1656) erabiltzen duen *amagaña* gisako adlatiboari dagokionez, egungo datuen arabera Bizkaiko iparraldeko eragina proposatu beharko litzateke, Mañaria aldeko egungo hizkeran ez dagoelako horrelakorik (Gaminde 2007: 116); zorionez, forma hauek orduko Durangon existitzen zirela erakusten du garai bertsuko Arzadunen dotrinak (1731), besteak beste. Halaber, literatur bizkaieran erruz lekukotzen den *-giño* tankerako adlatibo bukatuzkoa egun Nerbioi arroan bakarrik aurkitzen da (Gaminde 2007: 121); beraz, egoera hau antzinako garaietara estrapolatuko bagenu, proposatu beharko genuke —oker, noski— Olaetxeak, Añibarrok, frai Bartolomek, Zabalak eta J.J. Mogelek Nerbioi arroko ezaugarri bat erabili zutela edo, estrapolazioa muturreraino eramanez, Nerbioi arroko euskaraz idatzi zutela.

Ezaugarrien erabileraren aldetik, testua jatorri geografiko batean kokatzea, metodologikoki behintzat, hizkera bat hizkuntzaren baitan kokatzearen antzeko lana da: Burundako hizkera gipuzkeraren, araberearen edo nafarreraren barruan kokatu nahi lukeen edota Kantabriako mintzaira gaztelania edo asturiera den jakin nahi duen (cf. Moral del Hoyo 2007: 141) ikertzaileak galdera berak erantzun behar ditu; beraz, lana modu bertsuan egin beharko da halabeharrez. Ondorioz, ezaugarri guztiek ez dute pisu bera izango (Mitxelena 1964a, *OC V*: 29), eta emaitzak ez dira unibokoak izango: bata

zein bestea aldatuko dira ezaugarri linguistiko batzuei, isoglosa batzuei alegia, emango diegun lehentasunaren arabera (*ibid.* 19).⁴⁹

Hizkuntz ezaugarriak begiratzen hasi aurretik, metodologiaren aldetik ohar bi. Erkatzeko ditugun hizkerak testuetan hasi eta bukatzen dira: teorian behintzat, testuan duguna bakarrik lekukotu dezakegu ziurtasunez garai hartako hizkera hartan. Hortik aurrerakoa egoeraren berreraiketa baino ez litzateke, hizkuntzalaritza diakronikoak egindakoen antzera: hau bezala, beti ere datuetan oinarrituz egin behar da eta hauek azaltzera begira (Mitxelena 1963, *OC I*: 13). Euskaran maiz berrikuntza askoren (gehien?) abiapuntua historiaurrean dago eta, beraz, euren zioa ezagugaitza dateke, fonetika esperimentalak (Egurtzegi 2014)⁵⁰ edo tipologiak (Lakarra 2006a; Mounole 2011; cf. § 2.1.2) edo lagundu ezean.

Dialektologiaren hastapenetatik buruhausteetako bat izan da zehaztea zein ezaugarri den egokiena hizkerak kokatzeko. Hala ere, ezarrita utzi dugunez, “dialektologiaz dihardugunean kronologiaz jardun behar dugu baitezpada, hizkuntzaren historia eta dialektoen azterketa uztarturik baitaude” (Camino 2008a: 209). Honela, ezaugarriak hizkuntza aldaketaren historiaren barruan izanik, historia horri buruzko ahalik eta datu gehien bildu behar ditugu, bai garaiko kokapenean laguntzeko bai eta, ibilbidea ikusita, antzinagoko egoerak berreraikitzeke ere.

Garai ezberdinetan lekukotua dugun toki jakin bateko hizkeraren egoera ezberdinen arteko batetortzeak jatorria berresteko bidea emango liguke. Esate baterako, Orozkoko XVIII. mendeko otoitzetan dagoen *RUI* erregelaren egoera (Ulibarri 2008: 200), XIX. mendean erruz lekukoturik dagoena eta oraindik ere gaur egungo Orozkoko hizkeran iraun duena; ondorioz, kokatu gabeko XVIII. mendeko testuren batean ezaugarri bera agertuko balitz, oinarri sendoa litzateke bertakoa dela ebazteko.

Delako berrikuntza “aldaketa kate” baten ondorioz suertatzen bada (cf. Campbell 1998: § 2.8), gure testua katearen zein begitan den ikustea beharrezkoa da:

⁴⁹ Honen isla genuke *VJ*-ren kokapenaren gainean Eneko Zuloagak (2013) eta biok (Ulibarri 2010a) dauzkagun iritzi ezberdinak, bakoitzak ezaugarri batzuei ematen baitiegu lehentasuna hipotesia eraikitzerakoan. Jakina, inoiz dotrina honen inguruko datu berriak (i.e. hizkuntzaz kanpoko datuak) agertuko balira, baliteke hipotesietako bat berrestea, edo biak baliogabetzea.

⁵⁰ Cf. “Tesi honek euskal fonologia diakronikoa eredu eta aldaketa fonologikoekiko hurbilketa fonetiko baten bitartez aztertzen du, fonologia ebolutiboaren (cf. Blevins 2004, 2006, 2008, 2014) ildo berean. Euskararen garapen fonologikoak joera tipologiko interlinguistikoen bitartez ikertzen dira eta laborategi-fonologian lortutako emaitza esperimental berriak gehitzen zaizkio, fonetikak fonologian (Ohala 1981, 1993, 2012) nahiz aldaketa fonologikoen azalpenetan (Ohala 1974, 2003) duen garrantzia nabarmenduz” (Egurtzegi 2014: ii).

hau da, *alabea* forma baldin balu egungo hizkera batek, nekez pentsa liteke *alabie* dakarren testu bat eremu horretakoa denik.⁵¹

Berrikuntza guztiek ez dute jarraikortasunik, noski. Adibidez, hiatotako epentesiak historian zehar han-hemenka sortu eta galdu direla erakusten digute testuek (*FHV* § 5.1). Era berean, egun orokortzat dugun ezaugarri bat ez da zertan leku bakarrean sortutakotzat eman, txistukarien mendebaldeko neutraltzearekin ikusi dugunez (§ 2.2.3.3).

Ikusi ditugun adibide guztietan ezinbestekoa da denboraren ardatza. Berrikuntza noiz edo nola sortu den jakiteak beti bermatzen du konparaketa, ez bakarrik garai ezaguneko berrikuntzetan, baita ere abiapuntua historiaurrean dutenetan ere.

Corpusari atxiki beharrak nahiko genituzkeen beste datu ez izatea berekin dakarren arren, alde on bat ere badu behintzat: unibertso mugatua da, hizkuntza aldaketa zenbakien bidez ere erakusteko bide ematen duena, beraz. Dees Frantses Zaharra aztertzerakoan horretaz jabetu eta hizkuntz aldaketaren egoera islatzeko ezaugarriak agertze-maiztasunaren koefizienteaz eman behar direlakoan dago (ap. Camino 2009: 312). Esaterako, *VJ* dotrinan txistukarien neutraltze egoera aztertzean (Ulibarri 2010a: 58), marka gramatikal bat (aditzetako *-z* pluralgilea) testuinguru ezberdinetan horrela azterturik ikusi genuen bukaera absolutuan neutraltzea oso aurreraturik zela, bokal artean oraindik hastapenean zegoen bitartean:

-z # testuingurua		-z + V testuingurua	
<z>	<s>	<z>	<s>
3	9	21	2

Dees-ek gogoratu bezala, aldaketak goizetik gauera gertatzen ez direnez, lehian diren ezaugarrien agertze-maiztasuna aldatuz doa. Hala bada, arkaismoaren eta berrikuntzaren arteko lehian zein puntutan den ikusteak testua kokatzeko beste oinarri bat ematen digu. Laudioko 1858ko dotrinan *-reanik* atzizkia izateak berme nahikoa eman diezaguke XIX. mendeko beste testu bat kokatzeko orduan, inguruko gainerako

⁵¹ Baieztapen hau orokortze bat baino ez da, legetzat inolaz ere hartu behar ez dena, kasurik kasu aztertu beharrekotzat baizik, isoglosak guratsuak izan eta batera eta bestera baitoaz historian zehar, bereziki balizko eremu prestigiotsuetan hizkuntza galduz joan den heinean (cf. § 2.2.3.6): adibidez, Arrankudiaga eta Arakaldoko hizkeretan gaur egun *alabea* lekukotzen da Bonapartek *alabia* taldean sartu zituen arren (Ulibarri 2011a: 1135).

dotrinetan (Orozko, Arratia, Arrigorriaga...) horrelakorik ez delako; XVIII. mendeko testu batean, berriz, horrek ez luke balio sailkatzailerik izango, suposatzea baita eremu kontserbatzailea denboran aurrerago eta hertsiago bilakatu dela, bazter hizkera batera mugatu arte (§ 2.2.3.4).⁵² Dena dela, XVIII. mendeko testu batean *-reanik* ez egoteak testua Laudiokoa izateko aukera murriztuko luke, betiere gogoan izanik ezaugarria testuan islatzea ala ez agertzeko aukeraren eta are zoriaren menpe ere badagoela.

Mitxelenaren lanean leku berezia dute beste inon lekukotzen ez diren hizkuntza ezaugarriek (Mitxelena 1958, *OC XII*: 227), eskusibo direnek alegia. Hau interesgarri dateke beste garaietako testuekin erkatze orduan, historian jarraikortasuna badute behintzat. *ceruan* > *ceruin* bilakabidea, adibidez, *oraingo*⁵³ Laudio eta Orozko inguruan baino ez da lekukotu (Ulibarri 2008a: 199). Berebat, Landucciren hiztegiko *errexal* hitzak, Arabako toponimian bakarrik aurki daitekeenez gero (Zuazo 1998a: 169), Mitxelenaren hipotesia berresten du.

Oso kontuan hartzekoa da, halaber, ezaugarrien konbinaketa, gerta daitekeelako *x* ezaugarria ezinezkoa izatea *y* ezaugarriarekin batera eremu bakar batean izan ezik (Lakarra 2004: xv). Honela, Landucciren hiztegian Mitxelenak bizkaierarekin bat egiten duten ezaugarriak bildu zituen, baina baita orduko *bizkaierazko testuetan* (berariazko markatzea) aurkitzen ez diren “diferencias de vocabulario, de evolución fonética y de morfología suficientes para conferirle personalidad autónoma” (Mitxelena 1958, *OC XII*: 225).

2.4.1.3. Kokatu gabeko testuak: kokatze teknikaz

Edozein hizkuntzatan dela, ez da erraza besterik gabe, hizkuntz datuen laguntzaz bakarrik, testu bat nongoa den iriztea; eta hizkuntzaz kanpoko datuen bitartez kokatu ezin diren testuak nekez erabil daitezke dialektologia historikoan. Testua zein hizkeratan idatzita dagoen erabakitzea edota hizkera hori dialekto bakarra edo dialekto

⁵² Añibarroren *EL*-aren lehen edizioan (1802) badira oraindik *-reanik* atzizkiaren adibideak (Urgell 2001: lxxxix), beharbada fosilduta. Horrek adieraziko luke XVIII. mendearen bigarren zatian behintzat Arratia aldean ere bazela.

⁵³ Testu berriak ezagutu ahala, ezaugarri bakoitzaren historia eta hedadura aldatzen ari dira etengabe. Horixe gertatu zitzaigun *-oba* epentesiarekin, Bonaparteren datuak erabiliz sartaldeko bizkaieran Orozkoko hizkeraren ezaugarri berezitat jo baikenuen (Ulibarri 2008: 197); alabaina, Zuloagak (2010: 398) gaztigatu duenez, Sarriaren sermoitegiak XIX. mende hasieran behintzat Etxebarri aldean ere erabiltzen zela erakusten digu.

nahaste bat ote den,⁵⁴ edozein dialektologia historikoko azterketatan agertzen diren galderak dira; eta, ahalik eta testu gehien erabiltzea desiragarri den heinean, haien erabilgarritasuna bermatzeko kokatu gabeak ere kokatu behar ditu (van Reenen *et al.* 2009: 19; McIntosh-en ideien ildoari jarraituz, ik. § 2.4.1.2).

Euskaran muturrekoa da arazo hau, berez testu gutxi izateaz gainera, asko baitira leku edota garai zehatz batean kokatu ezin (edo kokatzen saiatu ez) direnak. Kokaturik ditugun asko ere, gainera, ez daude behar beste aztertuak euren fidagarritasuna neurtzeko, nahiz ezaguna izan askotan idazleek herri hizkeraren ezaugarriei muzin egin eta literatur hizkuntzaren joerei amore eman zietela (§ 2.4.1.1). Ondorioz, hemen ere dialektologia azterketek maizenik garrantzitsuak izan daitezkeen testuak erabili ezinik alde batera uzten dituzte, haien jatorri ezezagunak edo dena delako hizkerarekiko leialtasun zalantzazkoak ikerketa argitu beharrean ilundu baitezakete. Ez dago esan beharrik honek guztiak zenbat mugatzen duen dialekto zaharrez dakiguna; alabaina, lan molde zehatzagoak edo bestelako lan ereduak bilatzeko aukera ere bada.

Beraz, arazoak arazo, kokatu gabeko testuak ere kokatzeaz beste biderik ez dugu ikerketa aurrera joango bada. Testua nongoa den zehaztera helduko ez bagina ere, gutxieneko kontuan badukegu nongoa ez den frogatzea. Nolanahi ere, frogaketan erabilitako datuek gutxinaka garai zaharretako hizkerak ezaugarritatzen lagunduko digute, geroko ikerketen oinarri. Tradizio oparoko hizkuntzetan (cf. van Reenen 2009) ezaugarri mugatzaileak (*locators*) erabili ohi dira, hau da, hizkeraren jatorria mugatzeko baliagarri izan daitezkeenak, baina gurean ere erabil dezakegun idea da (cf. Zuloaga 2013: 598; hemen ik. § 4.4.1).

Orain artean testuen dialektaltasunaz (§ 2.4.1.1) eta dialektaltasun hori neurtzeko ditugun materialez eta arazo zein irizpidez (§ 2.4.1.1) hitz egin dugu; baina geografikoki kokatu gabeko testuekin zer egin jadanik Koldo Mitxelenak bikain erakutsi zuen hainbat aldiz aipatu dugun Landucciren hiztegiaren azterketan (1958). Hiztegia XVI. mendeko eskuizkribu bat da, italiar batek atondurikoa, eta data zehatzaz (1562) ezer gutxi gehiago zekien Mitxelenak lanari ekin zionean.⁵⁵ Eskuizkribuan ez dago horrezaz beste daturik Landuccik hiztegia non eta nola bildu zuen jakiteko. Hala eta guztiz ere, Mitxelenak testuaren jatorriari buruzko hipotesi sendo bat egin zitekeela erakutsi zuen, testu barneko argudioak (hizkuntzazkoak eta bestelakoak) konbinatuz.

⁵⁴ Testu erlatiboki diatopikoa (§ 2.4.1.1) ote den erabakitzea, alegia.

⁵⁵ Berriki eskuizkribuaren geroko bizitzaz datu jakingarri asko bildu dira (Babiano *et al.* 2014).

Ordutik Mitxelenaren lana eredu izan dugu (edo izan beharko genuke) testu zaharrak jorratu ditugunok: hor dugu, Landucciren garaitik atera gabe, Lakarrak *RS*-ekin egindakoa (1996) edo, modu xumeago batean, *VJ*-ekin egin genuen saiakera (Ulibarri 2010a). Dena dela, erabilitako metodologia ez da sekula esplizituki azaldu. Hau dela eta, ondoko lerroetan Mitxelenaren lanetik gaur egunera egindako aurrerapausoak batu ditugu eta konparaketan zehar sortzen diren arazo eta oztopoak aztertu, zein konponbide egon daitekeen ikusteko eta testu zaharrak nolabaiteko bermearekin kokatzera heltzeko.

Esan gabe doa, bestalde, honen helburua ez dela jakin-min hutsa, testua lekukotasun gisa hobeto erabili ahal izatea baino. Edozein testu-corpusetan ager daitekeen arazoa izan arren, kontua da aztertzen ari garen eremuan (Bizkaiko hegomendebaldean eta bereziki Arabako ipar-mendebaldean) maiz gertatzen dela: horkoak lirarteke Mendietaren testuak, *Viva Jesus*, Arabako euskaran idatziriko *Bula ineffabilis*-a eta Arabako Lezamari buruzko gutuna (§ 3.4), baina ez dugu hizkuntzaz kanpoko daturik testuon hizkera egiatan bertakoa dela baieztatzeko. Berriak ditugunean ere, ez dira beti erabatekoak: nabariena aipatzearen, J. P. Ulibarriren euskara, alde Okondokoa, alde Abandokoa eta alde literatur hizkerak kutsatua izan daiteke.

2.4.1.3.1 Kokapen historikoa

Kasurik larrietan ez dakigu testua ezta noizkoa den ere. Honelakoetan, esan gabe doa, filologiaren erremintak baliatuko ditugu: letra, testuaren eraketa, idazte-moldeak, laburdurak edota Koro Seguroiak (2001) euskalaritzara ekarritako paperaren ur markak, besteak beste. Ikusiak ikusirik, badirudi azkena dela biderik zehatzenetakoa, zeren eta gutxienez *post quem* data ziurra ematen baitu eta are batzuetan paperaren data zehatza ere (XVII. mendean paperaren batez besteko iraupena urtebete eta hiru hilabetekoa da; Seguroia 2001: 230), testu zaharrago baten kopia ez izatekotan, jakina (cf. Orduna 2000: 15 e. hh.). Zorigaitzez, beti ez dago bide hau erabiltzerik: testua *in-4* edo *in-8* formatuan apailatua denean, ur-marka tolesturetan galdua dago eta, hortaz, bestelako baliabideak erabili behar dira, bereziki bibliografia materialak eskainitakoak: esate baterako, *VJ*-en elementu grafikoek eman digute testua datatzeko gakoa (Ulibarri 2009). Esan gabe doa tesu barneko argudioak ere, hau da, testuan bertan ageri diren erreferentzia historikoak, ezinutzizkoak direla.

Testuaren data absolutua lortzea desiragarria izan arren, besterik ezean erlatiboa ere aski litzateke. Izan ere, materialen erabileraz hitz egiterakoan aurreratu dugunez, gure helburu nagusia testuko datuak ezaugarrien bilakabidearen historian kokatzea da. Holakorik lortzerik bagenu, testuaren kokapen diakronikoa bera baino jakingarriago den zerbait lortuko genuke: garai bakoitzean aztertutako isoglosek zein hedadura zuten eta garai batetik bestera haien eremuak nola aldatu ziren jakitea, ahaleginean bakoitzaren berrikuntza gunea(k) eta eremu isolatuak ere ezarriarik (cf. Pilch 1988: 423). Azken batean, desabantaila baino ez zenak (euskararen historian maiz ez dugu nahi beste lekukotasunik espazioan eta denboran aingura testu fidagarritzat har daitekeenik), gure alde jokarazi dugu, garai ezberdinetako lekukotasunen bitartez ezaugarriek ordutik hona eginiko bidea berreraikitzean.

Aldaketaren kronologiak, gainera, testua geografikoki kokatzen ere lagunduko du. Har dezagun diakronikoki aztertutik den ezaugarri bat, adibidez, prosekutibo-ablatiboak: gure sermoitegiko *-ti* guztiak prosekutibokoak izanik (§ 4.2.2.1), gutxienez testua nongoa ez den antzeman dezakegu: Durangaldean *-ti(k)* atzizkia XVIII. mendearen hasierarako (1737. urterako) ablatiboaren funtzioa hartzen hasia zela jakinik, suposa dezakegu⁵⁶ XVIII. mende bukaeran edo horrelatsu edo are errotuago izango zela. Beraz, sermoitegi honetan *-ti(k)* vs. *-rik* / *-reanik* oposaketa ondo mantentzen denez, badirudi Durango aldekoa izateko aukera gutxi duela.

2.4.1.3.2 Kokapen geografikoa

Esan denez, kokapen hau egitea hizkera bat sailkatzean egiten den lana lakoa da; beraz, edozein dialektologia lanak eskatzen dituen ezaugarriak bilatuko dira honetan ere. Dagoeneko aztertzen ari garen testuaren ikuspegia argiagoa da: kokapen kronologikoaren bidez badakikegu zein garaitako euskararen lekuko den, bai eta, beraz, eskura dauden testuetan zeinek luketen lehentasuna konparaketan. Honetaz gainera, kokapen historikoaren laguntzaz balegoke beste garaietako testuak halako ziurtasun batez erabiltzeko aukera ere. Konparaketatik ezinbestean kokapen geografikorako baliagarri diren datu garrantzizkoak eratortzen dira, zehazki arkaismoen galeraren edota berrikuntzen hedatzearen egoeraz dioskunik; lehiaren zein puntutan den ikusteak beste

⁵⁶ Ez dago jakiterik bitarteko urratsak luzeak izan ziren edo laburrak: hori aldaketa bakoitzaren araberakoa izaten da, eta datuek bakarrik eman diezagukete ziurtasunen bat alde horretatik.

oinarri bat emango luke, bai eta prozesuaren ikuspegi zabalago bat eskaini. Izan ere, hemen egiten ari garen historia/geografia banaketa, esan gabe doa azalpena errazteko bidea baino ez dela, egiazki ez baitago elkarrengandik bereizterik (cf. §§ 2.2 eta 2.2.2.2 bereziki).

Hala bada, hizkeren sailkapenean bezala, berrikuntza komunak bilatzen ditugu testuaren eta *lehen mailako lekukotasunen* (§ 2.4.1.2) artean. *Zeharkako lekukotasunak* ere kontuan hartzekoak dira, nola edo hala kokaturik daudenak, alegia, batez ere jatorria oinarri sendoen gainean aztertu bada, nahiz ez luketen aurrekoek adina pisu izango.

Testu berriagoekin konparatzean, gerta daiteke berrikuntzaren emaitza ezagunaren ordeztu aurreko egoera —alegia, berrikuntza sortu bide zuena— aurkitzea. Adibidez, *VJ*-n ez dago adituzenak sortzeko *-tuite* atzizkirik (berrikuntza komuna eta eskusiboa), nahiz Laudio-Orozko inguruetakoko testu modernoagoetan egon, baina bai indartzaile baliorik ez bide duen [partizipio + *egite*] egitura, gramatikalizatu ahala *-tuite* bihurtu zena.

Testuak lekukotzen duen delako antzinako hizkera delako garai zehatz haren mapan definitu behar da; hots, gogoan izan behar dira testuaren garaian euskarak zituen mugak eta ez egungoak, noski, areago bazter hizkera batez dihardugunean. Alabaina, euskara galdu duten leku frankotan ez dugu inolako lekukotasunik eta, beraz, oso zaila da testuaren jatorria horietako batean kokatzeko froga positiboak topatzea. Ikusi bezala (§ 2.4.1.1), Camino etsita ageri da honi dagokionez, baina Mitxelena egoera horrexetan aurkitu eta Arabako toponimian eta bertako gaztelanian mantendu diren hondar hitzak erabili zituen froga positibotzat (Mitxelena 1958, *OC XII*: 224; ik. § 2.4.1.5), lehenik hizkera galdua zela erabakitzeko argudio erabateko bat erabilirik, hots, testuetan lekukotu diren edota bizirik diren hizkeretako bat bakarra ere ez zela.

Testuko hizkera gaur egunera heldu zein artean galdu, alboko hizkerak ere kontuan hartu behar direla erakusten du Mitxelenak, antzekotasunak eta ezberdintasunak markatu ahal izateko: berak bizkaierarekin ez ezik, Burunda eta Etxarriko hizkerekin ere erkatu zuen Landucciren hiztegiko hizkera, datu horien bidez bizkaierarekiko erkaketak emandako datuak berresteko (alegia, hizkera ezberdin bat zela, ezezaguna) eta ekialdeko hizkerekin loturak zituela frogatzeko, hiztegiaren jatorri arabarra berretsiz.

Laburbilduz, arkaismoen egoera zein den, zein berrikuntza konpartitzen duten testuek... eta bildutako datu esanguratsu orok testuetako hizkerak batuko edo banatuko dituzte, gure testua zein gune geografikori atxikiago dagoen zehazteko moduan.

2.4.1.3.3. Bestelako baliabideak

Lakarrak (1996a: 133 eta 140) “generoaren soziologia” eta *realia* deitutakoak ere badira. Honelako argudioak ez dira erabakigarri izan ohi, baina bai hizkuntzaren bitartez egindako hipotesiak sendotzeko modukoak.

Realia-ren erabilera maisuki egin zuen Mitxelena berak Landuccirenean: izan ere, A eskua hiritarra dela proposatu zuen:

Quedan sin traducir palabras como «ençina» y se traduce «roble» por *pagoa* y «haya» por *arecha*, lo que casi seguramente es una confusión difícilmente explicable entre campesinos [...] nunca falta el equivalente de nociones urbanas como *amauia* «jurado de la çiudad», tenientea, «delegado» [...] *florin gorria* «florin de Florençia» [...] *croçea episticoana* «mitra del obispo» [...]

No es conclusivo [= etzana geurea], por ejemplo, la comparación de *çiudadẽ çerquea* «muro de çiudad», *cercatu çercaz* «çercar de muro» con las *Cercas Altas y Bajas* de Vitoria [...]. Pero tanto esta coincidencia como las dos traducciones, *çamainguinã calea* «pellegeria», *çapatari calea* «çapateria», lit. «calle de pellejeros» «de zapateros», nos hace pensar, aun sin quererlo, en la Vitoria que ha conservado hasta nuestros días. (Mitxelena 1958, *OC XII*: 231-2)

Halako argudioak erabili zituen Lakarrak ere *RS*-ren kokapenean, toponimo zein familia izenak agertzen dituzten erretratuak Bilbo ingurukoak eta haren iparraldekoak baitira: *Albia*, *Plencia*, *Butroe*, *Goliz*... Honek, gainera, “generoaren soziologia” ere erabili ahal izan zuen, orduko atsotitz biltzaileak nolakoak izaten ziren gogoratuaz.

Antzeko bide batetik heldu dio berriki Urgellek Landucciren hiztegiari:

Hegoaldean afrikatuak frikariatik grafikoki bereizteko ahalegina —ahalegina bederen— egin zuten gutxien baltsan, Madariaga, Garibai eta *Refranes y Sentencias*-en egilearekin batera (eta Lazarragaz beste talde batean, bidenabar). Lehen biak nor diren ondo jakinik, eta hirugarrenaz Lakarrak (1996a: 133-136) iradokitakoak gogoan harturik, letretan oso ohitua eta oso trebatua zen gizon batengan pentsatu behar, inolaz ere: agian eskribau edo idazlari batean aiseago, bestetan baino (Urgell 2008: 809).

Bai *realia*-k, bai generoaren soziologiak eta baita egilearen nolakotasunak ere soziolinguistika historikorantz hurbiltzen gaituzte (cf. § 2.2.3.5), jatorri proposamena honen irakatsiekin gutxienez koherente izan behar delakoan.

Soziolinguistika historikoaren alderditik ikerketa bat planteatzea euskalaritzan ia utopiatzat jo daiteke, testu apurrek ez dutelako horretarako beta handirik ematen, itxuraz bederen; dena dela, baliteke txistukarien neutraltzea bide honetatik azaldu ahal izatea: izan ere, neutraltzeak dituen foku ezberdinek (ik. § 2.2.3.3.) erakusten dute neutraltzea ez duela bakarrik geografiak azaltzen; aitzitik, nolabait adierazteko (modu sinpleegi batean, beharbada) *hiri / herrixka* (baita *kale / baserri* ere) arteko oposaketa egon daiteke, hiriak izanik neutraltzearen abiapuntu eta baserriak forma zaharri eusten diotenak.⁵⁷ Honela, txistukarien oposaketaren neutraltzeak, lehen Bilbo ingurura begira jartzen gintuena, orain hiri bat baino gehiagotara ere eramán gaitzake.

2.4.1.4 Literatur hizkuntza

Orain artekoan modu ideal batean aritu gara testuez, ezaugarri diakronikoak eta geografiakoak baino ez balituzte bezala, baina, gauzak korapilatsuagoak izanik, beste ardatz bat gehitu beharrean gaude: literatur hizkuntzaren eragina, alegia. Idaztea gauza natural bat ez, baizik egite kultural bat den heinean, idazleak ikasi egin behar duen zerbait da, eskolan ez bada —euskaraz behintzat nekez ia gaur arte— aurreko eta garaiko beste idazleen lanen bidez.

Ezer baino lehen, gogoratu behar dugu euskararen garai, hizkera eta obra guztietan ez dela bat eta bera izango literatur tradizioaren pisua. Tarteka eta zeharka bakarrik aztertu den gaia izan arren, hurbilketa modura ezar dezakegu, lapurtera klasikoa adibidetzat harturik, XVII. mendean hiru idazle mota bide ditugula: (1) lapurtera klasikoan murgilduta idatzi zutenak; (2) haren eraginpean idatzi zuten beste eskualdeetakoak (Oihenart, Tartas, Beriain...) eta (3) zirkuitu nagusi horretatik kanpo idatzi zutenak. Hala bada, lapurtera klasikoa zertan datzan eta gai ikergabe honetan sartu gabe (cf. Urgell 1991: 909), gaingiroki erabaki dezakegu une batetik aurrera izen horrekin ezagutzen dugun hizkuntza “estandar” horretan idatzi zutela lehendabizikoek;

⁵⁷ Cf. “la confusión [de los dos órdenes de sibilantes] gana terreno en Guipúzcoa, sobre todo en las poblaciones de alguna importancia: no es infrecuente que la distinción se mantenga bien en los caseríos vecinos cuando se ha perdido en el casco de la población” (FHV §14.2).

bigarrenek bere herriko hizkeran, estandarren zertzelada gehiago edo gutxiagorekin,⁵⁸ eta azkenek, zein bere hizkeran.⁵⁹

Egoera hau XVIII. mendean aldatuko da: lehenagotik lapurterazko liburuen ezagutza bazatekeen Hegoaldean, Nafarroan bederen, baina orduan Larramendik lapurterazko tradizioa guztiona bihurtu zuen (Urgell 2012: § 2.3), eta haren ondotik Hegoaldeko liburuek ere —gipuzkerazkoek batik bat, cf. Duvoisinek egin Kardaberatzen liburuaren itzulpena— alderantzizko bidaia egin zuten batzuetan (*ibid.* § 2.3). Kasu hauetan, baina, Frantses Zaharraz Dees-ek dioena, “the supposition that the provincial copyist’s ambition to imitate the dialect of the capital is a regrettable mistake” (Dees 1988: 145), gurera ere ekar dezakegu, aldeak alde: ezin dugu aurrez suposatu idazle guztiek literatur hizkuntza bilatu nahi zutenik, ez eta lurralde guztietako idazleengan eragina bera izango denik; baina ezta kontrakoa ere, alegia, idazleek nork bere herriko hizkera bakarrik erabiliko zutenik.

Hala ere, idazleen artean eragina izateko testuinguru aproposa da euskal literatura, idazle gehienek gai bertsuak (erlijio gaiak, alegia) landu zituztelako; ondorioz, elkarren lanak ezagutzea eta harremanak gertatzea errazagotzat eman dezakegu, nahiz eta liburuek —dakigularik— hedapen murrizta izan. Materraren dotrina, kasu, Baionako elizbarrutiko lehen liburu katolikoa eta bertako literatur tradizioaren hastapena, edozein erretorek behar zukeen materiala dugu, eta ondoko idazleek nola edo hala eredutzat izatea egiantzekoa da oso.

Une honetan geografiatik urrundu eta soziolinguistikaren esparrura hurbiltzen gara (cf. § 2.2.3.5), literatur hizkuntza gizarte espazioko eremu batean legokeen aldaera estandar prestigiotsua legez ulertua. Hau, jakina, testuen *dialektaltasun* mailarekin erlazio zuzenean dago (§ 2.4.1.1), literatur hizkuntza talde sozial batek, ezaugarri batzuk aukeratuz, garatzen duen hizkera bat den heinean.

⁵⁸ Cf., adibidez, Tartasen hitzok (*Ontsa*: 6): “Ené euscara, eta lengagia eztaquit aprobatia içanen denéz, bai, ala ez, badu orotarik çerbait, çuberoac, Bassanauarrec, eta lapurdic emandrauco çerbait, baina ez oro; aruen eguindut neuré pieça pobria, hanco lengagia ezpada asqui eder, hanco euscarac, du oguena, eta ez euscaldunac.”

⁵⁹ Gaia anitez konplexuagoa da, are garai goiztar hauetan ere. Bizkaierazko galai poesiak (*ContTAV* § 5.1.4) iradokitzen du mendebaldean gutxienez beste idazte tradizio bat ere egon zela XVII. mendean (agian lehenago), han-hemenka utzitako arrastoen bidez baino ezagutzen ez duguna: testuinguru honetan kokatzen du Lakarrak (1996: 136) *RS*-ren bilketa, Mikoletak euskal poetez dionena, Oihenartek biltzen duen bizkaierazko poema, gaztelaniazko testuetan ageri diren euskal pasarte eta poemak, etab. Zoritxarrez, itxura guztien arabera katebegi batzuk (edo asko) galdu ditugu, Lazarragaren eskuizkribuak edo *RS*-ren aleei buruz dakigunak aditzera ematen duenez (azken honetaz, Ulibarri prestatzen-3; cf. Lakarra 1996a: 77 e.hh.; Urgell 2002: § 1.4.2).

Nolanahi ere, dialektaltasunaz jardutean esan bezala, datuak datu dira eta ezin ditugu testuak alde batera utzi *gure ustez* (hau markatzea beharrezkoa da) baliagarri ez direlako, bestelako ezaugarriak (kasu honetan literatur hizkuntzarenak) omen dituztelako. Egia esanda, literatur euskalkien ezaugarriak zehazki zein diren eta garai zaharretako isoglosak zehazki noraino hedatzen diren jakin gabe, nekez egin daiteke horrelako baieztapenik.

Bi zalantza horien artean murgilduta itxuraz sartzen garen gurpil zorotik ateratzeko, lehenik *testu ez hain fidagarriak* (Camino 2003, 2009; cf. gorago § 2.4.1.1) tentuz erabili beharko ditugu, baina, bigarrenik, baderitzagu badela arazoari heltzeko bide bat: *literaturtasun maila* neurtzea, hots, testuaren egileak orduko literatur hizkuntzarekin zukeen erlazioa modu zehatz batean aztertzea, hari eta haren testuinguruari buruzko ahalik eta datu gehien bildurik. Batzuetan grafi sistemak ematen digu egileak zituen irizpideen eta eredu berri,⁶⁰ adibidez, Dotrinazko Sermoitegian (§ 4.3.2.1.1.1.1) idazleak <s> hizkia baizen ez du erabiltzen /ts/, /tʃ/, /s/ eta /ʃ/ hotsak adierazteko, baina *atseguin* honelaxe idatzita dago, eta honek iradokitzen du gutxienez beste testu bat ezagutzen zuela. Bestetan egilearen zuzenketek esan diezagukete literaturarekiko zorrik baduen edo ez: XIX. mendeko idazle bizkaitarrek —Añibarrok, kasu— txistukariak ondo irudikatzeko egiten dituztenak honen adierazle dira, esate baterako (Urgell 1987b eta Alzibar 1992a: 505).

Lan filologikoarekin batera, *markatzaile soziolinguistikoa*-ren kontzeptuaren arabera, ezaugarriaren agerpena erabilera estilistiko batek baldintzaturik ote dagoen jakitea (Fernández-Ordóñez 2001: 389) baliagarri izan dakiguke. Gure corpusaren egoerak honi ekiteko erraztasunik emango ez badigu ere, berehala dator adibideren bat edo beste burura, hala nola XVIII. mendeko bizkaitar batek txistukari frikari/afrikatu oposaketa islatzea edota genitibo singularra eta plurala bereiztea (§ 4.3). Gure aldetik, hauxe proposatzen dugu: inguruko idazki xume fidagarriak eta orduko literatur lan jasoak edo erdi-jasoak “aingura testu” legez erabiltzea. Azterketa honek, dialektologia

⁶⁰ Inprimaturiko lan batez hitz egiten dugunean bederen, ezin dugu ahaztu horren inguruan zegoen mundu editoriala. Inprentek testuak aldatzeko eskua zuten: normalean grafia berrikustea eta puntuazio koherente bat erabiltzea haien gain zegoen (Rico 2005: 77-8). Zenbaitetan, gainera, testuaren luzera gaizki kalkulatu eta luzatu edo moztera heltzen ziren hainbat bidezidorren bitartez, lantzean behin modu oso ausart batean, gainera (cf. Rico 2004: 38).

Honek eragin dezake gure azterketan, noski: grafia sistemako bategiteei erreparatuz bi idazleren arteko elkarreragina proposatzen badugu. Izan ere, oker egon gintezke eta egileen baino inprenta berean agertzeari edo inprenten elkarreraginari egotzi beharko genieke (cf. Ulibarri 2010a: 43 e hh.).

lanerako testuak lukeen balioa handitzeaz gainera, garaiko literatur hizkuntza nola eta noraino zabaldu zen, eta egileek nola bereganatu zuten aztertzeko aukera ematen du.

2.4.1.5 Material osagarriak: toponimia eta hondar hitzak

Kokatze geografikoaz hitz egiterakoan esan bezala (§ 2.4.1.3.2), hizkera zahar bat garai zehatz batean definitu behar dugu, testuaren garaian alegia, eta euskarak orduan zituen mugetan pentsatu behar. Bazter hizkera dirudiena kokatzean, buruak euskara galdu den eremu batera eramaten gaitu ezinbestean. Honek arazoak nahiko ugaltzen ditu, ez baitugu izango lehenagoko, orduko ezta geroagoko hizkeraren laguntzarik testua behar bezala kokatzeko, eta gehienetan galeraren beraren historia gaingiroki baino ez dugu ezagutzen.

Beste lekukotasunik utzi gabe galdu diren hizkeretan, toponimiak badu laguntzeko ahalmenik: aurreko azterketa batzuek (Salaberri Zaratiegi 1994, Lopez-Mugartza 2008) erakutsi dute badela ezaugarri zenbait bederen berreskuratzea. Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu toponimiaren izaerari dagokiola fosil eta forma zaharkituak gordetzea, hots, nahitaez ez datozela bat lekukotasunaren data eta lekukotutako formaren data; beraz, ezin da azterketa sinkronikorik egin (Salaberri Zaratiegi 1994: 1001). Honela, gaur egun euskara bizi den Ultzaman zegoen *Garayco larrearequin; goyco berroen vitartea*⁶¹ toponimo luzea *X-ekin Y* koordinazio zaharraren (ik. Lakarra 2008) adibidetzat hartu du Salaberrik (1996: 225), baina honek ez du esan nahi toponimoa bildu zen garaian⁶² egitura baliagarria zenik (hala ere, ik. Camino 2004a: § 5.4.19). Toponimiaren alderdi arkaismozale honen adibide argiago bat ematearren, Erronkariko *gaztelu > gaztulu* asimilazioa (cf. *FHV* § 3.4) XVI. mendean jada lekukotua egon arren (*gaztuluçarra* 1598), XIX. mende bukaeran oraindik *gazteluzarra* (1892) ere aurkitu da (Lopez-Mugartza 2008: 275).

Aldi berean toponimoak etengabe berritzeko joera ere badago, dela eskribauaren kopia akatsen bitartez izen iratxoak sortuz (ik. Ros 2013: 449), dela herri-etimologiaren edota erdararen eraginez. Herri-etimologiaren eraginez sortuak dirateke *Olartekoetxe* edo *Unzabetxe* formak, jatorriz *Olartegotxi* eta *Unzabetxi* ei direnak (Barrenengoa

⁶¹ Puntu eta koma Salaberrik berak ekartzen du, ohar hau eginez “zoritxarrez tarteko puntuaketak -aski anarkikoa izaten da hau maiz- eta behin bakarrik opatu izanak seguritatez mintzatzea galerazten diguten arren” (1996: 225).

⁶² Salaberrik ez du aipatzen non ez eta noiz bildua den, baina grafiagatik eta puntuazioaz egiten duen aipamenagatik (1996: 225), badirudi corpus idatziren batetik bildu duela.

1976: 190), Aiaraldeko toponimian ezagun diren *gotxi* ‘goiti’ eta *betxi* ‘beiti’ aldaerak *etxe*-rekin gurutzatuz. Bigarrenaz, ezaguna da euskara galtzearekin batera euskal toponimoen azentuera aldatu egin zela, Nafarroan bederen *bideburua* > *bideburba* edo *Aizuloa* > *Aizulba* > *Izurba* bezalako aldaketak eraginez (Salaberri Zaratiegi 1991: 637).

Esan gabe doa, bada, material hauek tentuz ibili beharrak direla: datu positiboak argigarri dira, noski, eta Nafarroako Ameskoako eta Lanako toponimo bakan batzuek *-a* + *a* > *-ea* erakusten badute, jakintzat eman dezakegu hango herri batzuetan behintzat araua betetzen zela (Salaberri Zaratiegi 1996: 223).

Toponimiaren izaerak sor litzakeen arazoak baino, haren azterketaren egoerak sortzen dituenak askozaz ere larriagoak dira. Gure eremuko toponimiaren inguruan egindako lanek lekukotasun zaharrak era gordinean biltzen dituzte, etimologiak proposatuz (Barrenengoa 1988), edota ustezko forma “zuzena” ematera mugatzen dira, askotan lekukotasun zaharrak aipatu gabe (Urduñako udala 2008, Galé *et al.* 2013; kritika baterako, ik. Ros 2013).

Ez dirudi lan molde hau eraginkorra denik —ez gure interesetarako, ezta orokorrean onomastikarako ere—: gure ustetan, hutsune metodologiko handiak dituzte haien emaitzak behar bezalako bermeaz erabiltzeko hizkuntzalaritza historikoan zein bestetan. Aldeak alde, dialektologiaz hitz egitean landutako zenbait kontzeptu eta ideia baliagarri izan daitezkeela deritzogu, onomastika ikerketaren gure ulerpenaren arabera, eta labur ematen saiatuko gara.

Hasteko, dokumentatutako aldaerak egon beharko lirateke oinarrian, aspaldi Mitxelenak (1973, *OC IX*: 25) gogoratu bezala eta, “aunque su testimonio no siempre sea inapelable —hay la posibilidad de errores de transcripción o copia—, tienen frente a cualquier etimología meramente supuesta el valor de un hecho frente a una hipótesis”. Honela, lekukotasun gehienak testu idatzietatik ateratzen direnez (edo hala beharko luke behinik behin), toponimoak bildu diren agirien azterketa filologikoa beharrezkoa da aurrenik, ahal den heinean eskribauen lan moldea edota *usus scribendia* menderatu ahal izateko, eta kopia edo transkribapen akatsak saihestu eta egoki ulertzeko (cf. Ros 2013: 449): nork biltzen duen, euskalduna ote den, toponimoa nondik hartzen duen (ahozkotik edo idatzitik), zein irizpide izan ohi dituen (forma ofizialak ala forma herrikoiak biltzeko ohitura duen), eta alde honetatik jakingarri litekeen oro biltzea eta aztertzea, alegia.

Ez dugu ahaztu behar onomastika, ikerketa linguistikoa egiteko erabiltzen den heinean, hizkuntzalaritza historikoaren parte dela, parte ezinutzizkoa hizkuntzaren historiaren zenbait eremu geografiko eta zenbait garai historiko berreraikitzeke; labur esanda, delako forma erabiltzen zuen gizataldearen hizkuntza nolakoa zen antzemateko modua da, batzuetan bakarra. Honela, behin ahal ditugun datu guztiak bildurik (ez eroso zaizkigunak bakarrik; cf. Ros 2013: 454), etimologia egin genezake, hizkuntz balioarekin erabiltzeko aukera izateko (cf. Gorrochategui 2011: 699): etimologia hauek, baina, nahitaez hizkuntzalaritza historikoaren ikuspuntutik egin beharko liriateke (cf. Lakarra 2003: 269), ez esanahia bilatzeko helburu hutsarekin, aztertutako formatik erator daitezkeen hizkuntz datuak azalgarri egiteko baizik: “Leku izenek zer esan nahi duten jakin gabe gera gintezke honela, baina bilketa lana bera bitarteko eta xede bihurtuko da gure hizkuntzaren historia berreskuratzeke bidean” (Lopez-Mugartza 2008: 8-9; ik. baita Ros 2013: 458 ere).

Horrela bakarrik egin genezake aurrera, bai leku-izenen ezagutzan eta baita hizkuntzalaritza historikoaren esparru ezberdinetan ere. Honek emango lioke balioa toponimia azterketa eta balizko etimologiari;⁶³ bestela, ikuspegi atomistatik egindako bilketetan geratuko gineteke, balio gutxiko hainbat etimologiaren hamaika datu jaso eta agian artean interesgarri izan daitezkeenak albo batera utzita.

Erdaldunduriko eremuetan eskura izan dezakegun beste material bat bertako gaztelanian mantenduriko lehenagoko hizkuntzaren hitzak dirateke. Araba erdaldunean gordetako euskal hitzak ondo xamar ezagutzen ditugu (Baraibar 1903, López de Guereñu 1998 [1958]), Bilbokoak (Arriaga 2005 [1960²]) eta are Aiarakoak ere (Barrenengoa 1988), besteak beste. Era honetara bermatuta gelditu da, adibidez, noizbait *amilotxa*, *ganorabako*, *kanpora* eta *zil* bezalako hitzak Aiarako hizkeran ere bizirik izan zirela (Barrenengoa 1988).

Mitxelenak (1958, *OC XII*: 230) erakutsi zigun honelakoez ere baliatu gaitzkeela testuaren jatorria bermatzeko, tentuz bada ere. Izan ere, adibide gisa eman ditugun hitz horiek, biziki interesgarriak antzinako garaietako dokumentuetan aurkitzeko gaitz baitira, gaur egunera heldu direlako datu positiboa badugu, baina, bestalde, nekez eman diezaiekegu sakontasun kronologikorik (cf. § 2.2.2.2): *zil* hitzak,

⁶³ Cf. “evidence from toponymy is valuable in addition to the modern and ancient data; toponymy is considered to be of particular relevance when testing the validity of proposed hypotheses.” (Fernández-Ordóñez 2010: 114, Menéndez Pidalek erabilitako metodologiaz diharduela; etzanak geureak [K.U.O]).

2. Alderdi Teorikoa eta Metodologia

adibidez, erakusten du txistukarien neutraltzea jasan aurretik igaro zela bertako gaztelaniara, baina ezer gutxi gehiago.⁶⁴

Laburbilduz, euskara galdutako lurraldeetan honen bi aztarna gelditu dira: toponimoak eta substratuko hitzak. Haien bitartez galdutako hizkeraren zenbait ezaugarri berreskura daitezke, baina lekukotasunok anbiguoak izan daitezkeenez eta, batez ere, gure eremuko toponimia bermez aztertuta ez dagoenez, oraingoz alde batera utziko ditugu, gure testu corpora txikia eta kokatu gabea izanik, toponimiak eta hondar hitzek berez zaila dena zailago baino egingo ez luketelakoan.

⁶⁴ Izan ere, galdera asko uzten dizkigu: oposaketa orokortu aurretik pasa zen ala hango euskarak txistukarien oposaketa gorde zuen? Neutraltzea mendebaldean orokortu aurretik galdu zen eremu horretako euskara?

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

Atal honetan hego-sartaldeko eremua(k) definituko d(it)ugu: alderdi geografikotik hasiz (§ 3.1), azterketan aintzakotzat hartuko diren lurak zeintzuk diren zehaztuko ditugu. Ondoren, geografiatik gizarte-geografiara salto egingo dugu (§ 3.1.1), eta eremu horretan diren eta izan ziren mugez jardungo gara: antzinetatik gaur arte hainbat muga administratibo izan dira, batera eta bestera mugituz joan direnak historian zehar, eta hauen berri emango dugu. Euskarak bertan izan duen presentziari buruzko datuak izango ditugu ostean (§ 3.2): Lehenengo, toponimiak lagun, X. mende inguruko mugaz hitz egingo dugu (§ 3.2.1), eta bigarren azpialde batean galeraren historia egiteari ekingo diogu (§ 3.2.2): Honen helburua ez da eremuan euskararen presentzia berresten duten lekukotasun guztiak biltzea;⁶⁵ aitzitik, aipagarrienak baino ez dira ekarriko, euskararen galera nola eta noiz gertatu den azaldu nahiz. Datu hauen bidez, 1750. urte inguruan (gure testuaren gutxi gora beherako garaian) zein lur zirauten euskaldun definituko ditugu (§ 3.2.3).

Geografiaz eta historiaz gainera, eremuko euskaraz esan dena laburbilduko dugu testuinguru honen hirugarren atalean (§ 3.3): garaika, ikertzaile ezberdinen esanak ekarriko ditugu, dialekto sailkapenetan hego-sartaldekoak izan duen lekua erakutsiz, dela egun euskaldun diren lurraldeetan dela garai zaharragoetako lurraldeetan bereziki esandakoa ekarriz. Honela, aurretik egindakoari gure ikuspegia emango diogu amaierako ondorioetan. Gure testuaren konparaketa aingura testuen bidez egingo da, metodologian esan denez (§ 2.4.1.2), eremuko eta eremuaz kanpo lekukotasunak erabiliz; beraz, azkeneko atala ditugun lekukotasunei eskainiko zaie (§ 3.4), bai eremukoak bertakoak eta baita beste hizkuntz eremuetakoak.

⁶⁵ Horrelakorik nahi duenak halako lanak baditu eskura: Enkarterrietarako Ros & Saiz (2001) legoke eta Arabako eremurako Barrenengoaren (2009) edo Breñas & Otsoa de Aldaren (2002) lanetara jotzea baino ez du irakurleak.

3.1. Eremuaren geografia

Mendebaldeko euskararen hego-sartaldeak Bilbotik hegoaldera diren Bizkaiko Jaurreriko eta Arabako probintziako lurretako hizkerak bilduko lituzke. Egun Hego-sartaldeko euskararen mugan ditugu Orozko eta Gorbeialdea hegoaldean eta Nerbioi ibaia sartaldean, baina euskararen mugen XIX. mendeko mapen eta egungoaren arteko konparaketak (cf. 1. irudia) erakusten du behinola muga hauek nasaiki gainditzen zituela euskarak, eta honegatik azterketa eremua (cf. § 2.4.1.3.2) zabaldu behar dugu, testuaren garaian (XVIII. mendean, alegia; § 4.1.2) euskaldun zirauten lurak ere bederen aintzat hartzeko.

Hurbilpen geografiko honetan hego-sartaldeko eremuak izan duen euskararen mugarik zabalena hartuko dugu (2. irudia), nahiz eta jakin Dotrinazko Sermoitegiaren garaian (XVIII. mende erdialdean) muga iparralde eta mendebaldera mugitua zela (§ 3.2.3). Gainera, Bilbotik hegoalderako eremua izan arren hizpide, ez ditugu ahaztuko Bilbotik mendebalderago (Enkarterriak, alegia) lurak ere: datuek gutxi esateko lain dira bertako hizkeraren kokapenaz, baina Bonapartek Barakaldoko euskara behintzat gure eremuko (cf. § 3.3) Arrigorriagako hizkerarekin batera sartu zuen (Ros & Saiz 2001: 70); honegatik, eta sartalde honi ikuspegi zabala ematearren, kontuan izango ditugu baita Enkarterriak.

Honela, eremuaren ipar-mendebaldetik hasita, Enkarterrietako euskal lurak lirateke aurkitzen diren lehenengo puntua, eta hortik Balmaseda eta Gordexolatik hegoalderantz diren Aiaraldea eta Mena Haranean jarraituko luke. Gordexola Haranak leku berezia beteko luke Enkarterriak eta Aiara lotuz: administrazioz Enkarterrien parte bada ere, Aiaraldekoen artean koka daiteke, bertako herri ezberdinekin hartu-eman oparoak izan baititu (cf. Ros & Sainz 2001: 70): dela ikuspegi geografikotik (Lanteno eta Artziniegatik pasatzen diren ibaiek osatzen dute Gordexolako Harana, eta Okondon zehar doan Izalde ibaia ere bertan isurtzen da) dela giza geografiaren aldetik, inoiz hauekin bat eginda zenbait antolaketetan, Elizakoan kasu (Lizundia 2008: 473).

Aiaraldea deitu dugun hegoaldeko eremua Arabako ipar-mendebaldeko eta Bizkaiko hego-mendebaldeko lurak biltzen dituen eremu geografikoa da. Egungo eredu administratiboaren arabera, Araba herrialde historikoaren Aiarako koadrilak (Aiara,




Iturria: Oyharçabal 1992: 364




Iturria: Zuazo 2008

1. irudia: P. Brocaren (1868) eta K. Zuazoren (2008) euskararen mapak.




2. irudia: Eremuaren eta kokapen geografikoa.




- Muga tradizionala
- Barrenengoa (2002)

3. irudia: Karistiar eta Autrigoien arteko muga



Iturria: Lizundia 2008

4. irudia: Kalagurriko elizbarrutiaren euskal artziprestazgoak.




Iturria: Wikipedia

5. irudia: Jalliot-en mapa (XVIII. m. has) Euskal lurraldeen banaketan Aiarako lurrak (*Morrio* 'Amurrio', *Lusciandro* 'Luiaondo', *Oquendo*) Bizkaiaren partetzat emana.



Iturria: <http://nabarlur.blogspot.com.es>

6. irudia: Nolin-en mapa (1704),



7. Irudia: Bonaparteren euskalkien mapa (1869); gainerik 1750. urte inguruan gure azterketa eremuak izango zukeen hedadura geografikoa erakutsiz.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

Laudio, Amurrio, Artziniega eta Okondo udalek eratua) eta Bizkaiko Goi Nerbioiren parte diren Urduñak eta Orozkok osatzen dute lurraldea. Nerbioi arrotik beherago dauden Arakaldo eta Arrankudiagako udalak ere sar litezke Aiaraldearen barnean, eskualde mailan administrazioak egiten dituen proiektu zenbaitetan hortik kanpoko udalerritzat hartzen diren arren; azterketara begira Laudio eta Okondorekin erlazio handiak dituzte. Bi herrialde historikoetako lurrek osatzen dutenez, eskualdeak ez du gaur egun inolako entitate administratiborik osatzen; dena dela, lotura soziologiko indartsuak dituzte udal hauek guztiak eta horren ondorio zuzena da udalerriek proiektuak elkarlanean egitea ohikoa izatea.

Toponimiaren bilketaz arduratu den Barrenengoak ere deskribatu dugun Aiaraldearen batasuna aintzat hartu zuen:

...estoy terminando de recoger los datos, tarea que empecé hace siete años. Téngase en cuenta que son 34 los pueblos de toda la Tierra de Ayala, desde el Ganekogorta, Llodio y Orozko, al Norte, hasta Arrastaria, Orduña y Sierra Salvada o Sálbada al Sur, y desde Altube, al Este, hasta Gordejuela, Arceniega y Valle de Mena al Oeste (Barrenengoa 1976: 186).

Aiaralde honetatik hego-ekialdera, Arabako lautadara goaz, Gorbeia mendiaren hegoaldeko magalean dautzan Urkabustaiz eta Zuiako udalerrietan zehar, eta Urkabustaizetik hegoalderago jada Koartango harana dago. Dirudienez Koartango litzateke azken lurralde euskalduna: Erdi Arotik hona lekukotzen den euskal toponimiaren azterketak (cf. § 3.1.1) behintzat hor marrazten du ezagun dezakegun euskararen muga, eta muga horretatik hegoalderago inoiz euskaraz hitz egin balitz, antzina izan beharko litzateke.

Dena dela, Altubeko mendatea hartu dugu mendebaldeko hego-sartalde horren hego-ekialdeko mugatzat, Urkabustaizeko zenbait herri eremuan sartuz. Hizkuntzari mugak jartzea arbitrarioa da hizkuntza beraren ezaugarriak ezin direnean aztertu, baina arrazoi geografiko, historiko eta soziologikoetan oinarriturik hartu dugun erabakia da: eskualde honen muga naturala da mendatea (cf. Galíndez 1957: 37), mendi hauetan antzinako Aiarako konderriaren muga ere egon zen (egun Aiaraldea deitzen zaion lurraldearen zati gehientsua, alegia), eta hortik ekialdera diren lurak Lautadako jauntxoena ziren. Urkabustaiz ere eskualdean legoke eliz banaketan oinarrituz,

Urduñarekin batera baitzegoen artziprestazgo berean (Lizundia 2008: 472; hemen ik. § 3.1.1).

Administrazioez gainera, Altubetik mendebalderanzko lurren giza antolaketaren ezaugarri batzuek ere Arabarekin baino Bizkaiko antolaketarekin harreman gehiago dute: gunerik gabeko eta baserri isolatuz osaturiko kontzejuak Altubetik sartaldera baino ez ei dira topatzen eta, oro har, izendun etxe eta baserriak ere Aiaraldean baino ez dira. Gainera, haran hauek Kantauri isurialdean kokatzen direnez, geografikoki ere Bilbo eta Bizkaira begira daude.

Ibilbide zirkular honekin bukatzeko, ipar-ekialdeko mugan euskarak badirau gaur egun. Ipar-ekialdetik Arratia jo daiteke hego-sartaldeko eremuaren azken lurraldetzat: bai eskualde, bai hizkera aldetik eremu homogeneoa da eta muga zehatz samarra marrazten du Txorierra eta Durangaldearekiko, hala Bonaparteren garaian (cf. Elordui 1995) nola egun ere (cf. Gaminde 2007: 219 eta Zuazo 2008: 251).

3.1.1 Muga lurraldea eta mugetako hizkerak

Hizkuntzaren eta hiztun komunitatearen historia lotuta dauden heinean, eremu baten historia ezagutzea beharrezko da bertako ezaugarri linguistikoen bilakabidea eta hedadura egoki interpretatzeko. Ezaguna da isoglosa-sortak hiztunen arteko harremana zailtzen edo mugatzen dituzten oztopoen arabera elkartzen direla (Camino 2009: 222): oztopook geografikoak izan daitezke (mendiak, lakuak, ibaiak...), baina baita ere giza-geografiak sorturiko mugak, politiko zein erlijiosoak. Aurreko atalean lehenengo horien gutxi gora beherako berriak eman ditugu, eta orain bigarren hauek izango digu hizpide, eremuan hainbat muga izan baitira historian zehar: batzuen inguruan orrialdeak eta orrialdeak bete dira, euskararekin loturik daudelako (edo ustez zeudelako); beste batzuei orain gutxi arte ez zaie garrantzirik eman, garrantzitsuak izan daitezkeen arren euskararen historia hobeto ulertzeko.

Euskalkien historiaren azterketan erabakigarri izan den lehenengo muga erromatarren garaian ziren leinuena da: Oihenartek jada leinu zaharren eta euskalkien arteko lotura egin zuen (cf. § 2.3.1),⁶⁶ eta bateratze honek eragina izango luke eremu

⁶⁶ Praktikan garrantzitsua da hau, egungo euskararen mugetatik kanpo ziren euskal lurretako balizko hizkera sailkatzeko, edo hurbilen zuen edo lurraldez legokiokkeen leinuaren euskalkia erabiltzen baitzuten.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

honetan, karistiar eta autrigoien arteko muga bailegoke lurraldea bitan banatzen. Esan ohi da muga Nerbioi ibaia zela, ekialdean karistiarrak eta mendebaldean Autrigoiak zeudelarik. Alabaina, aldatu beharreko ikuspegia dirudi: J. J. Cepedak (2001: 16) kostaldean muga Nerbioiko ibai-ahoan kokatzen du (Ptolomeoren tauletan horrela ageri baita), baina Nerbioi ibaitik gora mugaren “muturreko luzapenean” arazo asko ikusten ditu, idatzizko beste iturrietatik lortzen den ikuspegiaren aurka. Barrenengoa aurrerago doa (2002: 146 e. hh.), eta arrazoi linguistiko (toponimia), historiko (ondoko garaietako mugak)⁶⁷ eta soziologikoak (herrien arteko egungo hartu-emanak) erabiltzen ditu muga berri bat proposatzeko: muga Nerbioiko itsasadarrean hasi baina Cadagua ibaitik joango zitekeela ondorioztatzen du, eta ondoren Cadaguaren adarra den Ibaizabal ibaitik (Aiaraldeko Lanteno herritik pasatzen dena) (3. irudia).

Muga honek (ikuspegi klasikoak emanikoa zein Barrenengoa proposaturikoa) ez dirudi asko laguntzen duenik eremuaren euskararen historian: Europa osoan hizkuntzaren eta erromatar garaiko herrien mugak bat egin dezakete (cf. Camino 2009: 222) baina askotan uztartze arazoak daude (euskal adibide bat ematearren, barduloak eta gipuzkera, adibidez; *ibid.* 474); gainera, leinuen arteko mugak ez direnean nahi bezain argiak, hizkeren mugak erabili ohi dira osatzeko (cf. Echevarría Isusquiza 1998: 179, 10. oh.), eta horrek argudiaketa paradoxikoa sortzen du. Hala ere, egungo euskalkien kasuan muga honen eragin eza ondorioztatzeko arrazoi nagusia euskalkien arteko konparaketak erakusten digu, euren jatorrian legokeen *Euskara Batu Zaharra* (cf. §§ 2.3.2 eta 2.3.3) ezin baita erromatarren aurreko leinuen garaikoa izan (Mitzelena 1981, *OC VII*; Lakarra 2011a).

Askotan erromatarren garaiko herrialdeen mugak Erdi Aroko elizbarrutien mugen arabera jarraipena izan zuten, eta antzinatik uste izan da muga horiek eragina zutela hizkuntzan ere (Camino 2009: 222). Gure azterketa eremuan ere muga argi bat dugu Valpuestako (gero Santanderreko) eta Arabako (gero Kalagurriko) elizbarrutien artean (cf. Mañaricua 1964: 13). Elizbarrutien arteko muga Barrenengoa leinuentzat proposaturiko muga bera litzateke: Honela, Cadagua ibaiak egingo zukeen muga eta

Hauxe da, adibidez, Merino Urrutiak Burgos eta Errioxako toponimia aztertzean egiten duena: Errioxako Ojacastroz diosku “así continuó en él sin mezclar el dialecto vizcaíno” (Merino Urrutia 1978: 13).

⁶⁷ Batetik, Donemiliagako *Votos de Fernán González* dokumentuak egiten duen Bizkaiko mugatzea darabil (*De rivo de Galharraga usque in flumen de Deba, id est, tota Bizcaglia*), eta *Galharraga* erreka Okondoko *Gallarraga* mendiarekin lotzen du. Bestetik, XII. mendeko eliza mugatzeak ere muga horren alde egiten du, Lantenoko ibaia (eta ez Nerbioi ibaia) baitzen eliza markatzen zuena: ekialdeko herriak Armentiak Artzedianatoaren (Calahorrako elizbarrutiaren) parte diren bitartean, mendebaldekoak Tudelako (egungo *Erretes Tudela*) artziprestazgoari (1862an Gasteizko elizbarrutia sortu arte Burgosko elizbarrutiari, alegia) dagozkio.

eremurik gehiena Arabako elizbarrutiari zegokion, baina lehenengoaren menpe egongo lirateke Enkarterriak (Gordexolako harana izan ezin) eta “Tuterako bikaria”; hots, Arabako Artziniega, Sojo, Kostera eta Lanteno herriak (Mañaricua 1964: 162). Berrikiago, Lizundiak eliza-antolakuntza txikiagoak aztertzeke beharra ikusi du, ez elizbarrutiak baizik eta artziprestazgoak eta bikariak izan zezakeen eragina hizkeretan eta hipotesi horretan aurrera egiteko, Kalagurriko elizbarrutiaren banaketa hau eskaini digu (Lizundia 2008; ik. 4. irudia): gure lurraldea bost bikarrietan banatzen dira: Urduñakoa (egungo Urduña, Urkabuztaiz eta behinola Arrastariako udala zena —gaur Amurrio—), Aiarakoa (Amurrio eta Aiarako udalek osatua), Orozkokoa (Orozko, Laudio, Okondo eta Gordexolak osatua), Bilbokoa (Nerbioi arroko herriak bilduz) eta Arratiakoa.

Hauek izan dira euskal dialektoen eraketa berregiteko kontuan hartu izan diren mugak; baina muga gehiago biltzen dira gure eremuan, geografia deskribatzean ikusi denez, eta lurraldea bi herrialderen artean kokatzen da: Bizkaiko Jaurerria eta Arabako probintzia. Mugak sarritan aldakorrak izaten dira eta inoiz ez egonkorak (Ros & Saiz 2001: 85), beraz egungo mugek ez dute zertan bat egin behar antzinako administrazioaren mugekin. Luze joko luke eremuak izan dituen banaketa administratibo guztien historia biltzea, eta banaketa administratibok hizkuntzan izan zezaketen eragina aztertzen; beraz, ohar labur batzuk ematera mugatuko gara, lurrek zer nolako administrazioa izan zuten eta pairaturiko aldaketek jabetzeko. Nerbioko ibarraren Iparraldeko eta Arratiako elizateak Bizkaiko jaurerriaren parte dira eta izan dira, elizate ezberdinak osatuz; baina hegoalde eta sartaldeko eremuak, ikuspuntu administratibotik behintzat, lurralde burujabeak izan dira: Enkarterriak autonomo izan dira, Jaurerriatik aparte, euren foru eta juntetxearekin (Avellanedako batzarra), eta Bizkaira XIII. mende inguruan atxikitzen badira ere burujabe izaten jarraituko dute XVIII. mendera arte (Ros & Saiz 2001: 80).

Aiara ere, Arabako ermandadean berandu sartu zen: 1417an sortu zen ermandadea, baina 1463. urtera arte ez dago bertan sarturik (cf. Díaz de Durana 2001: 85), orduan ere jaurerri propio bat osatuz, foru eta antolamendu bereziekin. Aipagarria da, halaber, Aiararen eta Arabako gainontzeko lurraldeen arteko ezberdintasun kontzientziaren adierazgarri, XVI. mendean Aiara nahi zuela izan *probinçia por sy* (Díaz de Durana 2001: 91) eta horregatik auzia izan zuten Arabako Batzarrek eta Aiarako koadrilak —egungo Aiara, Artziniega, Urkabuztaiz, Laudio eta Amurrio—, besteren artean bigarren honek “Aiarako Probintzia” deitura erabili zuelako (cf. Porres

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

Marijuán 2001). Lurralde honek Bizkaiarekin lotura handia izan zuen: XVII. eta XVIII. mendeetan zehar egiten diren zenbait mapetan (cf. Esparza 2011, Aspuru 2014) kartografo flamenkoek eta frantsesek Aiara Bizkaiko parte kokatzen dute (Bleu, 1662; Jaillot, XVIII. m. has),⁶⁸ eta inoiz gure lurralde osoa (cf. § 3.1) Araba eta are Bizkaitik burujabe, gainontzeko Enkarterriekin eta egungo Kantabriar lurraldeekin batera *Province des quatre villes* delakoa osatuz (Nolin 1704; De Fer, 1707) (5. eta 6. irudiak).⁶⁹

Eremu hau bi herrialdeen artean zangalatrauan egoteak, nola ez, muga arazoak ekarri zituen, eta zenbait udalerrri batera eta bestera egon dira historian zehar: Orozko egun Bizkaiko herria bada ere, Aro Moderno guztian zehar (1507-1785) Arabako ermandadearen barruan egon zen, Aiarako jaunaren lurak ziren heinean eta XVIII. mende bukaerara arte ez zuen Bizkaiko jaureriak anexionatu. Audio, egun Araba izanik ere, Bizkaiko foruaren pean dago are gaur egun ere, eta badirudi Erdi Aroan Bizkaira begira izan zela, Bizkaiko foruaren arabera jaureriaren muga Luiaondoko Arbola Malatura heltzen baitzen.

Datu hauek erakusten digute, eremuaren hegoaldean bederen, administrazioaren aldetik oso lurralde konplexua dugula. Ezaguna da eragile soziopolitikoek hizkuntz aldaketan eragina izan dezaketela (cf. Hernandez Campoy 2001: 73), baina ezaguna da baita gutxi eragin zezaketela euskararen bilakabidean, eragile horien harremana erdaraz egiten zen heinean. Honetaz gainera, ez dugu eremuko hizkeraren ezagutza nahikorik, euskararen kasuan bederen (gaztelaniarako; ik. Camus 2013 eta Camus & Gómez 2012: 4), aipatu ditugun eragileek (Eliz antolakuntza, Araba-Bizkaia lerratze aldaketek...) inolako ondoriorik izan ote zuten erabakitzeke, ez eta bestelako eragile batzuk (ezkontzak, feriak, erromeriak...) bilatzeko ere. Lurralde hauetako biztanleriaren historia soziologikoa ikertzea lagungarri izango zitekeen eragin horien zenbait puntu argitzeko, baina gure gaitasun eta helburuetatik urrun geratzen den lana da. Dena dela, eman ditugun datuetatik ondorioztatzen dugun gauzarik garrantzitsuena da eremuko zenbait erkidego, bi lurralde historikoen (Araba eta Bizkaia) parte izan arren, lur burujabea izan zirela hainbat mendeetan, muga administratiboa gainditzen duten

⁶⁸ Aiarako eta Aiaraldeko historiaz ikertu zuen Jesus Galíndez amurriarrak, adibidez, irizten du hasiera batean “los valles que en la baja Edad Media aparecen a la luz histórica, constituyendo el señorío independiente de Ayala, fueron en su origen parte del conglomerado de valles y federaciones que fueron integrando Bizcaya, de la que más tarde fueron desgajados por un rey nabarro” (Galíndez 1957: 36).

⁶⁹ Ez dugu bestelako iturririk aurkitu *Province des 4 villes* hori erreferentzia egiten dionik. Hala, kontu handiz ulertu behar dira mapa hauek, nola ez: kanpotarrek egin zuten heinean ez baitakigu zer nolako informazioa baliatuz osatu zuten. Dena dela, aipagarriak dira bestelako datuek erakusten diguten eremuaren burujabetza administratiboa berresten baitute.

erakunde konpartitu batzuekin (Eliza), eta pentsa genezake horrek hizkeran eragina izan zezakeela, erkideko trinkoak sortuko baitziren eremuko zenbait lurraldeetan, eta, ondorioz, hizkera berezia (bazter hizkera; cf. §§ 2.2.3.4 eta 4.4.3) izateko leku aproposa bihurtzen du lurralde hau (cf. Camino 2009: 83).

3.2. Mendebaldeko euskalkien hego-sartaldeko hizkerak:

Galera baten historia

3.2.1. Mugak Erdi Aroan

Gure eremuan ziren zenbait muga berri emanik, guztien artean garrantzitsuena den beste muga bat ere biltzen da lur honetan oraindik: euskararen beraren muga. Izan ere, lurraldean aspaldiko muga linguistikoa dago, leku askotan jausi handi bat dena, euskal toponimiaren portzentajeek markatua. X. mendetik aurreragoko mugaz jardungo gara, eta data horren aurreko egoera alde batera utziko:⁷⁰ ezin da ziurtasunez jakin noiztik egin zen euskara eremuan edo, zehatzago, toponimiak lekukotzen dituen hizkuntza ezberdinak noiztik diren eremu hauetan: ea erromatarrak heldu ziren garairako biztanleek euskararekin loturiko hizkuntza batean berba egiten ote zuten (cf. Gorrochategui 2009) edo Antzin Aro berantiarraren eta Erdi Aro goiztiarraren bitartean ekialdetik etorritako baskoien migrazioarekin etorri ote zen euskara (cf. Abaitua & Unzueta 2011). Alde batera uzteak arrazoi praktikoa du inolaz ere: ezagutzen diren euskalkien jatorriaren data V-VI. mende bitartekoa izanik (Mitxelena 1981, *OC VII*; ik. orain Lakarra 2011a), gure ikerlerrotik urrunegi joatea izango litzateke ur horietan murgiltzea.⁷¹

Ez da erraza mendebaldeko euskararen muga aztertzea, ikerketa historikorik aski ez dagoelako eta dugun dokumentazioa nahiko modernoa baita (Salaberri Zaratiegi

⁷⁰ Lurraldean inoiz euskara hitz egin zela adierazten duten lehenengo testigantza seguruak Erdi Arokoak dira, gaur egunera arte dokumentatzen diren toponimoak alegia; alde batera uzten dugu Gordelizen (Artziniega) XVIII. mendean aurkitu zen (eta egun galdurik dagoen) erromatar garaiko aldea: bertan SANDAO VIMV / MBURO jaingo izena ageri omen zen eta izen honen *-buro* atala inoiz *buru* hitzarekin erlazionatua izan da (cf. Albertos 1970: 160); alabaina, XVIII. mendeko marrazki baten bidez bakarrik ezagutzen denez, ez dago adostasunik haren irakurketan (irakurketa ezberdinez, Cepeda 2001: 127).

⁷¹ Oso alor buztintsua da ikergai hau ondorio segururik ateratzeko: mendebaldeko lur hauetako hizkuntzez, hizkerez eta, oro har, euskararen mugez egin diren hurbilketa gehientsuak ustekizun zaharren eta aurreiritzien gainean egin dira; bai euskararen antzinako presentzia defendatzeko bai inoiz ez zela egin aldarrikatzeko.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

2012: § 1.1; Fernández Palacios 2011). Gainera, lurralde honetan elkarrekin talka egiten duten bi alderdi aurkitzen ditugu, Enkarterrietan bederen: Enkarterri euskaldun bat proposatzen dutenak batetik eta erromatarren aurretik jada indoeuroparra zen eremua zela proposatzen dutenak (cf. Villacorta & Urgell 2014). Guk garai ilun horiek alde batera utzi eta, linguistikoki konplexua eta aldakorra den egoera linguistiko batean kokatuko gara, ukipen eremu batean espero bezala. Hala ere, oro har, euskararen presentzia mugatu daiteke euskal toponimoen portzentajeak gidari harturik: Nafarroan portzentaje hauek erabili dira lurraldearen historia linguistikoa argitzeko eta euskararen galerarako datu interesgarriak biltzeko (Belasko 2004): metodo honen arabera, euskal toponimoen portzentajeak alderatuz, herri ezberdinetan euskara noiz galdu den antzemateko aukera dugu.

Gure lurraldean baina, urrun gaude halakorik lortzerik, aipatu ikerketa historikoen faltan; ditugun datuekin baina, zonalde nagusi bi ezberdindu ditzakegu: batetik *zonalde erromantzea*, toponimo erromantzeak nagusi diren lurrak, eta bestetik *zonalde euskalduna*, non euskal toponimoen portzentajea handitxo den (cf. 2. irudia; eremuaren sartaldeko muga). Kostaldetik hasita, Nerbioi itsasadarrean diren herrietan muga Portugaleten antzematen da, bera baita “testigantza gehientsuenek aitortzen duten muga, Santurtzi alde erromantzean eta Sestao euskaldunean ezartzen dituen” (Ros & Saiz 2001: 91). Hortik hegoaldera, mugak Abanto-Zierbena, Muskiz, Sopuerta eta Galdamesen zati handi bat alderdi erromantzean uzten ditu, eta hegoalderago oraindik Balmaseda eta Zalla artean igaroko zen, Balmaseda alde erromantzean utzirik eta Zalla euskaldunean.

Balmaseda eta Zalla igarota Aiaraldean sartzen gara. Eremu honetako toponimiaren ezagutzarako baliabide gehiago ditugu F. Barrenengoaren (1988) lanei esker. Aiara lehenengo jaunaren basailuak “dellos eran vascongados y dellos latinados” harturik, euskaldunak eta erdaldunak elkarrekin bizi zirela ikusten du Barrenengoak (2009: 493) Aiara jaunaren lurretan, eta honek muga linguistiko bat iradokitzen dio: Mena Harana alde erdaldunari zegokion eta Aiara euskaldunari. Mena Haranetik hurbil dauden Aiara Soxoguti, Erretes Tudela, Santa Coloma, Mendieta eta Soxo herrietan oso euskal toponimo gutxi aurkituta, antzina Mena Haranari zegokion herriak izan zitezkeela proposatzen du —Belaskok (2004) proposaturiko portzentajeen araberrako argudioa erabiliz—. Añes “localidad muy marcada por la toponimia castellana” dela deritzo, baina hori Erdi Arotik Donemiliagako monasterioaren parte izateari egozten dio. Añesen topatzen duen eragin gaztelaua ondoko Lexarzu eta Erbira

ere zabaldu zela antzematen du, are Madariara heldu arte. Honekin batera, Kexaako toponimian ere nabari du erdal eragina, oraingo honetan Aiarako kondeen gorteari egotzita. Ondoren, muga Gorobel edo Sálvada mendizerraren gailurretan zehar doa, Urduña euskal lurretan utzirik eta hortik hego-ekialdera, gure azterketa eremutik kanpo doa Gibijo eta Arkamo mendilerroetatik, Urkabustaiz eta Koartango herriak alderdi euskaldunean sartuz (Martínez de Madina & González de Viñaspre 2012: 138).

Orain artean emandako mugak, ordea, ezin dira lerro zurruntzat hartu, esanenez ukipen eremua da gurea eta gizarte elebiduna espero baitugu bertan, historian zehar euskararen joan-etorriak gertatuaz (Lacarra 1957: 18).⁷² Mendebaldeko muga hau nahiko definitua dagoela dirudien arren (Enkarterrietan dagoeneko Mitxelenak ikusi zuen; 1964a *OC V*: 49) ezaguna da alde erdaldunean ere euskal toponimoak badirela, eta XVI. menderako euskal toponimoak gutxi eta zaharrak diren arren, are Castro-Urdialesen ere heltzen ziren (Salaberri Zaratiegi 2012: § 1.1); beraz, egiantzekoa dirudi muga honen bi aldeetan gizarte elebidun bat bizi izan zela, eta behinola leudekeen euskal lekukotasun gehienak galduak edo ordezkatuak izan zirela garai modernoagoetan.

Egin ditugun eremuen alderdi erromantzean geratzen diren Galdames, Sopusuerta, Muskiz (cf. § 3.2.2; Lope García de Salazarren obretatik herri honetaz atera ditzakegun ondorioez) edota Santurtziko lurretan gune elebidunak egon zirela ondorioztatzen dute Ros eta Saiz-ek ere (2001: 91) herriotan aurkitzen diren euskal toponimoak gidari harturik; eta honek, Salaberri (2012: § 1.1) egiten duen baieztapenarekin bat egiten du, Enkarterrietako muga nahasia dela, alegia. Fernández Palaciossek euskal *haran* hitzarekin lotzen ditu eremu honetako (Sopusuerta, Galdames) *-(a)rán* bukaera duten toponimo sorta bat (*Gasterán, Ocharán, Urrarán, Muñerán, Sollarán*), eta interesgarriak dira iradokiko luketelako XV. mendearen aurreko antolaketa espaziala euskaraz egin zela bertan (Fernández Palacios 2011: 171).

Berdintsu dugu Aiaraldetik doan mugan ere, hizkuntzen arteko muga lausoak baitirudite bertan ere: batetik, eremu erromantzean geratzen diren euskal toponimo gutxiko Mendietak eta Sojogutik herrixkek euskal izena dute, eta euskal eremuan

⁷² Aipagarria da Portugaleteren egoeraz dakiguna, Villacorta & Urgell-i jarraituz (2014): Portugaleten euskara berandu arte gorde bide zen, Garibai-ren hitzen arabera 1570an hiltzorian baitzen: “Portugalete, pueblo marítimo de antigua fundación, donde no solo el día de oy fenece por esta parte la lengua bascongada...” (C.H. t. II, l. XIII, cap. XXVIII, p. 241, ap. Zubiaur 1990: 129); hala ere, XIX. mendearen hasieran Añibarrok Portugalete (eta Enkarterriak, beste zehaztasunik gabe) herri euskaldunen zerrendan. Honek iradokitzen die ikertzaileei “tal vez una historia no lineal en la presencia o ausencia del euskera en esta zona lingüísticamente fronteriza.”

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

leudekeen Lanteno, Erretes Lanteno eta Costerak ordea, erdal izena (cf. Martínez de Madina & González de Viñaspre 2012: 138). Mena haranean ere euskal toponimo argiak badira: *Artieta, Ojuberri, Lanbarri, Arrate, Ayabarrena, Arza, Aretxas, Atxuri Gurdieta...* (Irigoién 1997: 419), badirudi beraz, Perez de Ayalaren *vascongados* vs. *latinados* basailuen oposaketa ez zela geografikoa bakarrik, Barrenengoak ikusi bezala, eta bestelako oposaketak egon daitezke esaldi horretan: gizarte mailaren araberako, etxeko hizkuntza eta ofiziala... (cf. Lacarra 1957: 12).

Mugaren hegoalderago, Gorobel mendizerraren goialdean aurkitzen den Lausa Haranean (Burgos) ere badira euskal kutsua ei duten herri-izenak *Zaballa, Murita, Aostri, Gurbieta...* (cf. García Sáinz de Baranda 1952: 98), bai eta toponimo txikiak ere:⁷³ *Las Bazarres, Bizcardón, Bardaza, Satiaga, Valcorta...* Kasu honetan inoiz ez da Haran honen euskalduntasuna aldarrikatu, baina datuok ikusita suposatu behar da, bada, garai batean —ezin jakin noiz— euskal jendeak halako lekuetan presentzia garrantzizko bat izan zuela: ezaguna da, mendiek alde bietako biztanleak lotu dezaketela arrazoi sozio-ekonomikoak bitarte, hauxe dirudi gure kasua, zerraren gainaldean artzain-larreak (cf. Camino 2009: 112).

Muga honen nolakotasunaz jabetzeko, Aiaraldeko historia elebidunean aipamen berezia merezi du Artziniegako herriak: Salaberrik Aiara inguruko muga iraunkorra izan zela esaten digu, eta herri honetan ikusten da garbiki. Bertan, erromantzearen presentzia antzinatek egiaztatzen delarik ere, euskara ez da arrotza, toponimia (eta gero aipatuko den bestelako testigantzak § 3.2.2) lekuko: toponimia ere aberats bezain bitxia du udalerrriak, elkarren ondoan kutsu zaharra duten euskal eta erdal toponimoak biltzen baitira, oso antzinatek lurralde elebiduna izan zelako seinale (Zalbide 2011: 22).

Hemen emandako mugak interesgarri dira euskararen eremuaren ideia orokor bat egiteko baina, azken paragrafotan aditzera eman denez, mugak ez dira lerro zurrinak, eta ez dugu adierazi nahi izan alde batean euskara bakarrik hitz egiten zela eta bestean erdara baino ez; aitzitik, suposatzen dugu Erdi Aroan linguistikoki ezberdin diren biztanleen arteko hartu-emanak ugariak bide zirela, eta elebidun ugari egongo zirela bertan. Halako lanetan askotan erabiltzen den mugen ikuspegi itxiak orduko aberastasun eta ñabardura linguistikoak ikusteko beta kentzen digu.

⁷³ Cf. Toponimia nagusiaren eta txikiaren arteko ezberdintasun metodologikoa erakusten digu Belaskok (2004: 56): Nagusiak herri izenak izan ohi dira, erkidego zabal batek ezagutu eta herritik kanpo erabiltzen direnak. Toponimia txikia, ordea, erkidego txikiago batek erabiltzen du, eta garrantzitsua da erabilpen esparrua kontuan izatea: “el grado de uso y conocimiento de un topónimo, tiene gran valor [...] ya que habremos de tenerlo en cuenta a la hora de precisar el origen, lenguay probable época de creación.” (*ibid.* 57).

3.2.2. Galera: hizkuntzaren kanpo historia

Orain artean *zonalde erromantze* eta *zonalde euskaldun*-aren arabera banatu dugu lurraldea, toponimiaren jatorrizko hizkuntzaren zenbatekoa kontuan hartuz, baina ikusi dugu linguistikoki konplexua den eremua dugula, hizkuntza biak elkarrekin luzaro bizi izan baitira. Aipatu dugun zonalde euskaldunean ere mailaketak egin ditzakegu: batetik euskara aspaldi galdutako eremuak daude, eta hauetan euskal toponimo gehiago gorde izan dira luzaroago (luzaroago izan baitira ukipen eremu); eta gainera, zenbait herriz bestelako lekukotasunak ere dira, euskararen iraupenaren berriren bat ematen digutenak. Beste maila batean leudeke euskara bizi izan delako lekukotasun garbiak dituzten aldeak, dela elebiduntasuna XIX edo XX. mendera arte gorde dituztenak dela oraindik ere euskaldun dirautenak.

Atal honetan, *eremu euskaldun*-ean egondako atzerakadaz jardungo gara: toponimiaren azterketaren faltan, ezin dugu egin Belaskok Nafarroako Erriberan egin duen proportzioen arabeko azterketa (2004): ondorio interesgarri asko izango lituzke halako azterketa batek gure lanarentzat, euskararen galeraren kronologia egiten lagunduko bailiguke, baina lerro hauen helburuetatik kanpo geratzen da. Hemen bestelako lekukotasun historikoak bilduko ditugu, euskararen presentzia eta atzerakada erakusten duten heinean. Lekukotasunen nolakoa kontuan hartuko da, ahal den neurrian, aipamen guztiak ez baitira argi eta fidagarriak galera zuzen interpretatzeko: lekukoak bere helburuen arabera molda ditzake datuak, eta ez da berdin lehen eskuko berriak izatea (paraje haietan benetan zer gertatzen zen jabetzeko aukera izan zuena), edo hirugarren baten datuen bidez aritzea.

Garai zaharreko datuok interpretatzeko garrantzitsua da jakitea bi hizkuntzen arteko kontaktuan hainbat gizarte-faktore eragiten dutela, eta hauek ezagutzea ere beharrezko da datuak egoki interpretatu eta galera ulertzeko. Ez dirudi hizkuntzen arteko ezberdintzea geografikoa bakarrik zenik garai horietan eta bestelako faktore soziologiko ere egon ziren euskararen galeran: gizarte klaseak eragina zuen, eta normalean baserritarrek erabiliko zuten hizkuntza gutxitua (euskara), maila altuko agintariek erdaldun edo elebidun izango ziren bitartean (horrela balitz, ez dakigu zenbateraino iraungo zuen euskarak familia hizkuntza legez). Hiribilduak sortu zirenean, bertan bilduko ziren biztanle erdaldun zein elebidunak, eta herri txikietan

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

iraungo zuen euskarak denbora gehiago. Komunikabideetatik hurbil ziren eremuek ere kultur hizkuntzaren eragin lehenagoa eta indartsuagoa jasango zuten (xehetasun gehiagorako; ik. Lacarra 1957). Guztiarekin, euskararen galera gutxika-gutxika gertatuko zen, goian aipaturiko faktoreen arabera leku eta maila sozial batzuetan lehenago; gainera, leku batzuetan behintzat baliteke euskara atzera-aurrera ibili izana kontuan hartzen ari garen denbora tarte luzean.

Euskarari buruzko lehenengo aipamena gure eremuan XIV. mendeko *Fernán Pérez de Ayala* Aiarako kondearena da. Bere familiaren historia biltzerakoan, Aiarako lehenengo jaunari buruz (XI. mendekoa) idazten du:⁷⁴

E los que vinieron a poblar la Tierra de Ayala, dellos eran vascongados e dellos latinados. E los vascongados llamavan a este don Vela *Jaun Belaco*, e los latinados *don Belaco*.” (Pérez de Ayala, *Este es el libro del linaje de los Señores de Ayala*, I, 3).

Hurrengo mendeko Lope Garcia de Salazarrek ere Aiara euskaldun bat erakusten digu: “E así mesmo tomaron nombre esquerras *porqu’él era vascongado, como lo son en Ayala*, e por esquerdo disen Esquerria, porqu’él era esquerdo” (ap. Villacorta & Urgell 2014, azpimarratua neurea [K.U]).

Lope García de Salazar, Muskizko handiki bat izanik, Enkarterrietako jauntxoaren egoeraren berri ematen digu XV. mendean: euskararekin kontaktua izan zuen, biltzen dituen euskal materialak ikusita, baina datuek erakusten digute bera ez zela euskalduna: *nuestro lenguaje* deitzen dio erromantzeari, eta biltzen duen esaldiaren iluntasunak (cf. TAV § 2.2.17) ere ondo ulertzen ez zuen esaldi baten belarrizko aipua dirudi (Villacorta & Urgell 2014). Era berean bere etxeko pertsona eta abere izenek ere (*Sancho el Moro, Lopico de Garavilla, Palomo* zaldia...) Salazarren erdalduntasuna frogatuko lukete (*ibid.*). Enkarterrietako handikiak erdaldun baziren ere, badirudi XV. mendeko Gueñesen kargu administratiboak zituzten pertsonak euskaldun elebidunak zirela, Bizkaiko batzarraren agirietan jasotakoaren arabera: Cristobal de Toro juje peskisdorearen aurka 1491ean egin zen bilkuran Bilboko probestua euskaraz mintzo zitzaizen batzarkideei eta itzultzaile lanak Gueñesko prestameroak bete zituen (Ros & Saiz 2001: 96). Hauen parean, herria euskaldun elebakarra zirauen XVI. mende

⁷⁴ XIV. mendeko Aiarako lekukotzat hartzen dugu orduan idatzi zelako, baina inork are antzinagoko lekukotasuntzat hartzen du, aipamenak XI. mendeko jazoeren berri ematen baitu (Breñas & Otsoa de Alda 2002: 28).

hasieran, Enkarterrietan egingo zen epaiketa batean itzultzaile beharra baitzen; hala ere, ez digu esaten nongoak ziren elebakar euskaldun horiek (*ibid.*).

XVII. mendean dagoeneko erdara herri xehearen hizkuntza egin zen. Barakaldo eta Gordexolan gaitzizenak oraindik euskarazkoak dira eta horrek erakutsiko luke herri horietan euskarak indarra zuela gizarte klase baxuko eguneroko jardunean (Ros & Saiz 2001: 100); alabaina, Henaoren (ca. 1690) lekukotasunaren arabera Gueñes eta Galdames erdaldunak lirateke dagoeneko, “euskara Barakaldorekin muga egiten zuten herrietan edota herri hauetako auzoetan baino ez baitzen mantentzen, eta hauetan gutxiengo egoera nabarmenean” (*ibid.*). Enkarterrietatik hegoaldera, ez dirudi muga askorik aldatu zenik mende horietan.

Esan denez, hiribilduak dira garai batean gizarte elebiduna biltzen zituen leku garrantzitsu bat: hiribildu elebidun hauetan goi mailakoak euren artean gaztelaniaz mintzatuko ziren, baina behe mailakoekin eta inguruko herrietako biztanleekin ere euskara erabiliko zuten. Behe mailakoek, bestalde, euren artean eta inguruko baserri eta herrietako biztanleekin euskaraz erlazionatuko ziren. Bigarren momentu batean, behe mailakoek ere gaztelaniara igaroko izen. Gure eremuko hirietan, Artziniega eta Balmaseda dugu batetik, erdal toponimia zaharra dutelarik marraztu dugun mugaren alde erdaldunean kokatzen direnak. Artziniegan baina, euskaldun elebakarrak baziren XVII. mendean: bertako ermandadeak 1682ko Arabako Batzar Nagusietara gaztelaniaz ez zekien prokuradorea bidali zuen (Breñas & Otsoa de Alda 2002: 62); beraz, argi dago Artziniegako gobernuan erromantzez ez zekitenak bazirela XVII. mendean.

Bestelako hiribilduetan galeraren fase ezberdinak erakusten dituzte garai ezberdinetan: Portugalete XVI. menderako euskara galtzear du Garibairen hitzak ikusita: “el día de hoy fenece por esta parte la lengua Bascongada de los Cántabros, más aun las riberas del mar cantábrico, pertenecientes e las montañas de esta región” (ap. Ros & Saiz 2001: 97).⁷⁵ Urduñaz, Isastik *Compendio historial*-ean (ca. 1625) dio euskara hitz egiten dela “...en Alaba y Señorío de Vizcaya, *excepto en la ciudad de Orduña*” (Isasti 1850 [1625]: 161; azpimarra geurea) baina Larramendik beste hau dakar bere hiztegian: “El licenciado Andres de Poza, aunque de Orduña, *en que hoi apenas le habla bafcuence*, eruditiſſimo y diestro Baſcongado...” (*HH* lxxxvi; azpimarra geurea). Urduñaren kasuan, baina, XVII. mendeko berba zerrenda batek (Ros 2011) erakusten digu euskara bazela eta nolakoa zatekeen; gainera, oraindik XIX. mendean

⁷⁵ Garibairen aipamen hau lekukotasuna ziurra dirudi, idazlea hor itsasoratu baitzen Amberesera bidean 1570. urtean (Zubiaur 1990: 130; 1750ko data ematen du).

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

herri euskalduntzat hartzen dute Añibarrok (1960 [ca.1800]) eta Brocak (ca.1860; Breñas & Otsoa de Alda 2002: 83). Horrezaz gainera, Independentzia Gerraren testuinguruan Bizkaiko Kontseilu probintziarrak gutun batean dioenez: “...en Orduña había artesanos y jornaleros que se expresaban mal en castellano o lo ignoraban absolutamente...” (Ros 2011: 390). Datu ustez kontraesankor hauek goian esandako gizarte banaketarekin lotu behar dira; hots, hiribilduaren barruan bazirela goi mailako erdaldunak eta behe mailako euskaldunak (Gasteizen XVI. mendean zegoen egoeraren antzera; ik. Mitxelena 1958, *OC XII*: 232).

Beraz, proposa dezakegu Aiaraldeko euskararen galeraren hastapenerako XVIII. mendea, gainontzeko Araban proposatzen den garai bertsean (cf. Landazuri 1789, ap. Urgell 2012: § 1.1.1). Erdi Aroan euskaldun ziren Enkarterriak, ordea, lehenago erdaldunduz joan zirela proposatu beharko dugu: Ros eta Saizen ikuspegiaren arabera, XVIII. mendean hasieran Gordexola eta Barakaldo inguruko auzoak bakarrik ziren euskaldun: 1753an Galdamesko indiano batek maisua ezartzeko dirua ematen duenean eskatzen du, posible bada, maisuak euskara eta gramatika ezagutu behar duela; alabaina, badirudi Barakaldo alboan diren Galdameseko auzoak baino ezin zitezkeela euskaldun izan ordurako (Ros & Saiz 2001: 102).

Esan bezala, Gordexolak eta Barakaldok euskaldun ei zirauten XVIII. mendean, eta are XIX. mendeko Gordexolan euskaldunak bazirela aipatzen du Delmas-ek (Ros & Saiz 2001: 106); hala ere, beste datu batzuek diote 1794an “ai muy pocos que la entiendan” (*ibid.*); beraz, Ros eta Saiz-en ustez herri euskaldunetatik joandakoak izan behar zuten Delmasek aipaturiko euskaldunak, arraro baitzaie Bonapartek Gordexolaz inolako aipamenik ez egitea (*ib.* 103). Barakaldoren 1795. urteko deskribapen batek diosku “la lengua común es el castellano y vascuense, mezclado y nada puro” (*ib.* 106). Gordexola ondoko Okondon, J.P. Ulibarrik, euskaraz idatzitako testuak uzteaz gainera, bere garaiko (XVIII-XIX. mende bitarteko) bertako egoeraren berri ematen digu: euskarazko eskola jendetsu bana zeuden haraneko parrokia bietan, eta gaztelaniazko bat herriaren erdian (Ulibarri 1975 [1823]: 164).

Ibaizabal eta Izoria ibaien artean XVIII. menderako euskara galdutzat jotzen du Barrenengoak (2011: 495), 1775ean Kexaako parrokoa izan zen fraideak Etxaurrengo Andra Mariren baselizan predikatzean esan zuenagatik: “[...] Chaurren, voz o palabra Vascongada [...]. Chaurren quiere decir Nogal o Nogala, que cuando se apareció la santa Imagen, según tengo entendido, se hablaba la lengua vascongada en todo Ayala. Y aunque hoy en día no se usa se mantiene y se usa la voz Chaurren” (Breñas & Otsoa de

Alda 2002: 69). Hala eta guztiz ere, Diego Lorenzo Prestamerok *Pueblos de Álava por Vicarías* eskuizkribuan (Ibisate 2001) 1787. urteko Arabako bikaria euskaldunen artean “Orduña, Ayala, Orozco y Tudela” sartzen ditu. Felix Mugurutzaren arabera (2011: 9) euskaldunak ziren Menagarai herrian are XIX. mendean ere.

Euskararen galeraren arrazoi bi proposatzen ditu Landazuri historialari arabarrak (1789): herrietako apaizek euskararik ez jakitea eta arabarrek gaztelauekin harreman estuak izatea; eta garaiko egoera deskribatzean esaten du Lautadan erdaraz hitz egiten zuten herri gehienetan lehentxeago ohikoa zela euskara, eta berak ikusi zuela bertako gainerako herrietan zaharrek bakarrik erabiltzen zutela. Bere kontuen arabera, Arabako 53 ermandadeetatik 22tan mantentzen zen (Urgell 2012: § 1.1.1). Landazuriren bigarren zio horren datuak baditugu Aiaran ere: 1774-1780 inguruko Laudioko abadeak deskribapen batean dio “[*el gentío de Llodio*] todos Bascongados cerrados; pues aunque muchas personas que *viven cerca del Camino Real entienden algo de el castellano*, su común lenguaje [...] es siempre por lo común en la lengua nativa Bascongada” (Barrenengoa 2009: 499; etzana geurea).

Nerbioi arroan, Amurrio aldeak euskaldun dihardu XIX. mendean: mende horren hasierakoa dugu Lausa Haraneko alkateak bidalitako gutuna, larreak antolatzeko bileran aiararrek eta Gaztelakoek ezin elkar ulertuta, eta Amurrioko alkateari erdaldunak bidaltzea eskatzen dionekoa (Barrenengoa 2009: 496). Apur bat lehenago, euskaldunen presentzia bermatzen da 1770 eta 1773ko agiri banatan: bertan testigu ageri diren gazte amurriotar bik toponimo esanahia ematen diote eskribauari (Barrenengoa 2009: 496). Nerbioitik behera, Luitaondo herrian 1734an sorturiko kapilautza zerbitzatzen zuen abadearen eginbeharren artean kristau dotrina euskaraz irakastea zegoen (Iturrate & Uzquiano 1979: 277). Mende bat pasatxo, 1817. urte inguruan, bertan abade zirenek gutun bat bidaltzen diote Aiaraiko bikarioari, ez baitute ondo ikusten kanpoko predikariak joan zitezene abisu eman gabe eta euskaraz predika dezaten, eta horretarako argudiatzen dute gaztelania ezagutzen ez duten pertsonen aldean “hay muchas más sin número que no entienden vascuence” (Iturrate & Uzquiano 1979: 284).⁷⁶

XIX. mendean, euskararen mugei buruzko datuak argi eta zehatzagoak dira, hainbat lan egin baitziren horretara begira: 1807. urtean Frantziako enbaxadoreak

⁷⁶ Kontu handiz hartu behar dira hitzok, apaizek interes berezia baitute testuinguru honetan erdararen garrantzia azpimarratzen: abadeak urduñarrak dira, eta eguneroko jardunean erdaraz hitz egiten dute; beraz, suposatu behar da euskara ezagutzen ez dutelako zorrotz ekiten diote euskaraz predikatzearen kontra (Iturrate & Uzquiano 1979: 284). Urte horietan, gainera, erlijioso predikarien aurkako mugimendu bat egon zen udaletan (ik. § 4.3.2 eta Madariaga 2004: 516), eta posible da herriko apaizek euskararen egoera aitzakiatzat erabiltzea fraideen aurkako mugimendu horren baitan.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

euskararen mugak maparatzeko agindu zuen (Oyharçabal 1992), eta mapa hartan Saltzedo eta Urduña alde euskaldunean geratzen dira: honek esan nahiko luke bi herri hauen ekialdera diren Barakaldo, Alonsotegi eta Trapaga euskal mugen barruan zirela, Gordexola erdaldunean geratzen dela, eta Aiaraldeko Okondo, Amurrio eta Urkabuztaiz, berriz, euskaldunean dirautela (cf. Ros & Saíz 2001: 108). Mapa egiteko baturiko dokumentuen artean, Manuel de Llanok 1807. urtean egindako txostenean zehazten da Arabako Zigoitian, Zuian, Laudion, Aiaran eta Artziniegan “en todas hablan el bascuenze, y tambien el castellano, en que tengan Pueblo de gran Poblacion” (Oyharçabal 1995: 245). Eta Bilboko frantses kontsulatuak egin txostenaren arabera:

Puis entrant dans le Nervion-Ibaichalval (sic) ou rivière de Bilbao, toutes les paroisses que se trouvent à la gauche de ladite rivière en la montant, passant ensuite à sa droite à Baracaldo suivant le bord de la rivière, jusqu’au couvent de St mamez, décrire une ligne en zig zag vers Albia, Abando, Laventa, Alonsotegi, Arrigorriaga, Miravalles, Arrancudiaga, Areta, Llodio, Oquendo, Luyando, le pont de Marquijana, Amurrio, ici on doit décrire une autre ligne inclinée vers les monts d’Altube (Oyharçabal 1995: 247).

Jauzi kualitatibo bat eman zuen Bonaparte Printzeak euskararen mugak zehaztean: bere bilketa lanek datu ugari aurkitzen dira, batetik bertako berriemaileak erabiltzen zituelako, baina bestetik bere jakintza nahia zabalagoa zelako: euskararen beraren datuak biltzen zituen eta euskararen erabilera ere jakingarritzat hartu zuen. Azken hau dela eta, hiru eremutan banatu zituen linguistikoki lurraldea: gehiengo euskaldunekoa, gutxiengo euskaldunekoa eta euskaldunik ez duena (Elordui 1995: 447, 23. oh.). Uriartek printzearentzat Bilbo inguruak aztertu zituen (1864 eta 1866an; Ruíz de Larrinaga 1958); eta 1864an esaten dio Barakaldoko *El Regato* eta *Retuerto* auzoak guztiz erdaldunak zirela jada; *Beurio* [sic, *pro Beurco*], *Burceña*, *Irauregui* eta *Landaburu*, aldiz, euskaldun zirauten eta Barakaldoko burua den San Vicente auzoan erdara nagusi bazen ere euskaldun zenbait ziren bertan (Ruíz de Larrinaga 1958: 403). 1866an, egoera bertatik bertara ikusi (“he estado de intento en Baracaldo”), eta *Landaburu* eta *Beurio*-n [sic] euskara asko hitz egiten zela erabakitzen du, eta elizatearen burua den San Vicente auzoan, zerbait; Retuerton eta gainontzekoetan, ordea, “apenas se conoce” (cf. Ruíz de Larrinaga 1958: 419). Arabako lurraldeaz dihardu Bonapartek Etxenikeri bidalitako eskutitz zenbaitetan (1862), eta bertan diotso egoera larrian zegoela Okondon, eta bertako auzoa den Okondogoiengan bakarrik bizirik zirauela (cf. Urquijo 1910: 247). Aiarako Luiaondoren euskararen egoeraz galdetzen du,

eta beste gutun batetik suposa genezake Etxenikeren erantzuna, horretan Printzeak esaten baitu, gutxiengo euskaldunean dagoela: izan ere askok euskara jakin arren herrian bertan ez zen hitz egiten. Lezama, Astobitza eta Larrinben ere Luiaondoko egoera bertsuan zegokeen; eta Laudio eta Baranbio dira ondo mantentzen duten herri bakarrak (cf. Urquijo 1910: 255).

Estalishnao Velascok, 1879an egindako bilketa lanean, Bizkaiari buruzko datu zenbait oker baditu ere,⁷⁷ interesgarriak dira eremuko euskaldunak zenbatzen dituelako: dioskunez euskara galdu duten herrietan bizi diren 28.800-30.000 biztanleetatik 2.000 euskaldun zirela (Velasco 1879: 484). Arabako Aiaraldeari, ordea, zehatzago da eta lerro hauek eskaintzen dizkio:

En los valles de Ayala y Oquendo, los primeros días del siglo [hots, XIX. mendean] veían las postrimerías del vascuence, y aun se prolonga esa lenta agonía.

En Llodio se resiste más tenaz, y casi parten hoy el campo los dos rivales, pero el inexorable sino tiene ya trazado de antemano el resultado, y solo es cuestión de tiempo su completa estincion. (Velasco 1879: 483)

Arabaren azterketan, gainera, biztanle euskaldunen estatistika zehatzagoak dira, udalerrri bakoitzean diren euskaldunen zenbatekoa ematen baitu (*ibid.* 487)

Arrastaria	978 biztanle	300 euskaldun
Ayala	3.828 ”	500 ”
Amurrio	1.200 ”	100 ”
Llodio	2.358 ”	1.800 ”
Oquendo	1.034 ”	300 ”
Urcabustaiz	1.514 ”	200 ”

XX. mende hasieran galera areagotu zen. Bizkai partean, Azkuek ez du ez Barakaldo ez Alonsotegi aipatzen bere hiztegian (*DVEF* xxix eta xxxix), eta E. Perea idazle barakaldotarraren arabera Alonsotegiko Artiban baino ezin zen euskararik entzun 1944an (*ap.* Ros & Saiz 2001: 117). Luiaondon baserri euskaldun bat edo beste geratzen da XX. mende erdialdean (Breñas & Osoa de Alda 2002: 87). Laudion euskaraz hitz egiten zela baieztatzen duten XVIII. eta XIX. mendeko hainbat dokumentu ditugu; eta

⁷⁷ Egun ere euskaldun dirauten Nerbioi arroko zenbait herri (Zollo, Abando, Miravalles) erdaldun legez dakartza bere zerrendatzen, cf. Ros & Saiz 2001: 116.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

gainera badakigu 1828an euskal dotrina itzultzea agindu zutela bertako abadeek, inguruan euskaraz dotrinatu behar ziren elebakarrak zirela agerian uzten duenak, eta XX. mendearen lehenengo erdialdean oraindik bizirik zen bertako hizkera, gehienbat inguruetakoa auzoetan; alderdirik erdaldunena egun erdialdea den Lamuza zatekeen, errege bideak zeharkatzen duen auzoa, alegia (Urkijo 1994: 11). Aiarako azken herri euskalduna Baranbio izan da, bertan aurkitu zituen Barrenengoak (cf. 2009: 505) andere euskaldun zenbait 70eko hamarkadan. Harrezkero Aiaraldean euskaldun gorde den herri bakarra egun Bizkaikoa den Orozko da.

Laburbildurik, prozesu luze eta konplexu baten aurrean aurkitzen gara, euskara ez baitzen bat-batean desagertu eremuan, ez eta herri bakoitzean ere: atzerakada ez zen homogenea izan. Baliteke hiztun euskaldunak egotea hainbat herritan denbora luzean zehar, euskara auzo edo familia arteko harremanetarako bakarrik erabiltzen zutenak, kalean gaztelania erabiltzen zuten bitartean. Alabaina, orokorrean galeraren hastapena Araba partean XVIII. mende erdialdean koka daiteke, euskararen muga hegomendebaldetik ipar-ekialdera mugituz joan zelarik, eta XIX. mendearen bigarren erdian (Bonaparteren garaian, alegia) Bizkaitik hurbilen zeuden herrietan bakarrik nolabaiteko indarrez mantenduta. Ordutik hona, lehenagotik zetorren inertziak aurrera egin zuen, Laudion eta Baranbion euskara galdu eta Orozkon bakarrik mantenduta.

Galera honen arrazoiak Euskal Herri osoan izandako bi prozesuren barruan kokatu behar dira, Zuazoren arabera (2010: 19-23). Prozesu horietarik lehenengoa XV. mende bukaeran legoke, non Amerikaren aurkikuntzak sortutako merkataritza aukerek gaztelania jakiteari balioa eman zioten. Bigarrena, XVIII. mendean Felipe V.ak gaztelaniaz beste hizkuntzen aurka harturiko erabakien ondorioz gertatuko zen. Hala ere, historialarien azken ikerketek ikuspegi hau osatu behar dela erakusten dute: XVI-XVII. mende bitartean “bizkaitarrek” gortean postu garrantzitsuenak hartu zituzten, eta botere leku horretatik euren senitarteak mailaz igotzeko aukera aprobetxatu zuten (Imizcoz 2008: 95), eta horretarako gaztelania ikasi behar zen. Ondoren boterera hurbiltze hori jaitsi bazen ere, XVIII. mendean borboitarrek gortera heldu zirenean berriz hasi ziren euskaldunak gortean kargu garrantzitsuak hartuz (Imizcoz 2001: 101). Bi garai horietan familiakoen sustatzearen lehenengo baldintzetako bat gaztelania jakitea zen (Imizcoz 2008: 108). Horretaz gainera, bigarren epealdian, Ilustrazioaren ideiekin bat eginik lehenengo letretako eskolak ugaltu ziren penintsulako iparraldeko lurretan, tartean Aiaraldean eta Enkarterrietan (Imizcoz 2013: 72), eta eskola horien bidez uler dezakegu euskararen atzerakada handia bigarren epealdian zergatik gertatu

zen: testuinguru honetan kokatu behar dugu hizkuntzaren galeraren zergatiak; orduan, lehendabizi Arabako eta gero Nafarroako hainbat herrik galdu zuten euskara epealdi labur batean (Imizoz 2008: 109; cf. Urgell 2012: §§ 1.1.1 eta 1.1.2).

Dagokigun lurraldeari begira, dena dela, tokian tokiko eragile batzuk ere aipa daitezke: batetik, hiribilduak (Urduña, Artziniega) erdararen irradiazio gune izan bide ziren hegoaldean, eurek laga baitzuten aurrenik euskara eguneroko bizitzatik. Bestetik, XVIII. mendean berriztatu zen errege bideak ere eragin nabarmena izan zuen Nerbioi arroko herrien erdalduntzean, Laudioko 1774ko lekukotasunak erakusten duenez.

3.2.3 Laburbilduz: Euskararen mugak 1750. urte inguruan

Galera honetan, baina, ez dute garai guztiek interes bera gure ikerketan, eta ibilbideko oso puntu zehatz batean jarri behar da arreta: 1750. urte inguruan ziren mugetan, alegia. Izan ere, ikusiko denez (§ 4.1.2), gure testua 1775-1780 bitartean kokatzen da; beraz, garai hartan euskaldunik zein herritan ziren jakin nahi genuke, euskaraz idazteko gai zen pertsona baten bila.

Esan denez, ipar-mendebaldean euskararen mugak Enkarterrietako ateetan zeuden: Gordexolan oso bakanak izango ziren euskaldunak, eta Alonsotegi, Barakaldo eta honen mugakide diren Galdames eta Gueñes herrietako ekialdeko auzoetan bakarrik aurkitu bide zitezkeen euskaldunak. Enkarterrietatik hegoaldera, ordea, badirudi Aiaralde gehientsuak euskaldun zirauela XVIII. mendean: iparraldeko Lanteno edo Menagarai herrietatik eta hegoaldeko muturrean den Urduña hiritik ipar-ekialderantz behintzat, biztanleak oraindik euskaldun bide ziren (7. Irudia).

3.3. Hego-sartaldeko hizkeren sailkapenen ibilbide historikoa

Mendebaldeko euskararen hego-sartaldean Bilbotik hegoaldera diren lurak sartu ditugu, eta Bonapartek egin zuen hizkeren banaketaren arabera, Arratiako, Arrigorriagako eta Orozkoko barietateak bilduko lirateke bertan. Bonaparteren aipamen hau, noski, erosotasuna da (cf. § 2.2.1): banaketarik zehatzena baita (printzearen irizpideak gora behera).

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

Bonaparteren garaiko sailkapenaz gainera, euskararen mugetatik hegoaldera leudekeen hizkerak ere izango ditugu hemen: printzearen garaian galduak ziren neurrian ezin izan zituen azertu, noski; beraz, Bonaparteren sailkapena garai zaharragoetara eramaten ari gara, nolabait. Hau zuzen egiteko beharrezkoa da kontuan izatea Bonapartek ezagutu zuen Arabako euskararen arrastoak euren alboan ziren Bizkaiko herrien euskararekin bateratuak (edo bateratze bidean) izango zirela (horregatik bizkaierarekin batera sailkatuko zituen, ik. § 3.3.2): hizkuntzaren galtze prozesu horretan euskaldun geratuko ziren eremu bakartuok beste gune euskaldun(ago)etara begira izango ziren, eta hizkera horiek eremu indartsuen eraginak jasoko lituzke, berdintzera joz (cf. § 4.4.3).

Bonaparte sailkapenean Arabako euskarak zituen ezaugarri bereizgarri urrien parean, bere aurretik izan ziren euskalkien sailkapen bat egin zuten ikertzaileak (§ 3.3.1): badirudi sailkapena hizkuntzaz kanpoko argudioen bidez egin zutela (tribuen ustezko mugak erabiliz, Oihenarten kasuan, adibidez), baina beste batzuetan hizkeraren lehen eskuko jakintzarekin hitz egin zutela, eta Araban egiten zen euskarari bere berezitasuna esleitu zioten (Larramendi, Zabala).

3.3.1. Bonaparte baino lehenagoko sailkapenak

Oihenartek egin zuen lehen euskalki sailkapen ezaguna (1638), eta euskara lau euskalkitan banatu zituen: Ipar Euskal Herrikoa, Nafarroakoa, Gipuzkoakoa (zeinean Araba ere sartu zuen) eta Bizkaikoa (Yrizar 1949 [1981]: 98). Oihenarten banaketaren arrazoiak Antzinateko tribuak lirateke euskalki bakoitza tribu batekin lotzen baitu: Ipar Euskal Herrikoa akitaniarren euskalkia zatekeen, Nafarroakoa baskoiena, Gipuzkoa-Arabakoa barduliarrena eta Bizkaikoa autrigoiena, bada.

Larramendik lehenengo lanetan (1729) Oihenarten sailkapena jarraitzen du oro har, baina Ipar Euskal herrikoa eta Nafarroakoak bildurik; beraz, sailkapen hirukoitz bat planteatzen du. Honetan ikuspegi berri bat emango dio Arabako euskarari, hiruren partaidetzat jotzen baitu, “más o menos sincopados y variados” (Yrizar 1949 [1981]: 98). Hortik aurrera, bere oharrak fintzen doaz: *HH*-n (1745) Araban hitz egiten den hizkera aipatzean diosku ez duela ezer esango, “porque en lo general su dialecto es el Bizcaino” (*ibid.*), eta 1756ko *Corografía de Guipuzcoa*-n haren ustez *gehienean* Bizkaikoaren berdina dela dio, baina ez guztiz (Yrizar 1949 [1981]: 99). Kardaberatz

Larramendiren ikasleak, *Euskararen Berri Onak* liburuan (1761) Arabako euskalkia aipatzen du, baina ez digu bestelako daturik ematen. Bizkaieran bestalde, bi azpihizkera ezberdintzen ditu: “Enzunaz icusi edo icasi dot, Orozco, ta Zeberioti Ochandianora, ta Plencia, eta Machichaco aldeti Munguiara, ta onunz Verba batzuc, edo esateco moduak banaro, edo diferenteac dituezala” (*CatV* 112). Añibarro ere Larramendiren ildotik doa Arabako eta Nafarroako euskarek “tienen bastante mezcla, y participan de los dialectos de sus provincias vecinas” idaztean (Añibarro ca.1800, ap. Camino 2009: 489).

3.3.2. XIX. mendea: Zabala eta Bonaparte

Bonaparteren sailkapenaren aurretik, XIX. mende hasieran Juan Mateo Zabala Zarauzko misiolari bilbotarrak *Verbo Regular Bascongado del Dialecto Vizcaino (VRB)* lanean (ca.1830, 1848an argitaratua) Mendebaldeko euskararen sailkapena egin zuen eta. Frantziskotarrak bizkaieraren barruan kokatu zituen Arabako mendebaldeko hizkerak behintzat: izan ere, liburuan zehar Arabako Laudio, Luiaondo eta Baranbioko euskara aztertzen ditu Orozkokoarekin batera (Elordui 1995: 441).

Zabalak bizkaiera lau hitz egiteko molde ezberdinetan banatzen du, hiaotetako bokalek sortzen dituzten eufoniak lagun: Markinakoa, Arratiakoa, Erdikoa eta Orozkokoa (*VRB* 55). Hemendik ondoriozta daiteke bilbotarrak gure Hego-sartaldean hirutan banatzen zuela: Arratiakoa, Erdialdekoa eta Orozkokoa. Azken honen deskribapenean, “Orozco y pueblos limitrofes” sintagma erabiltzen du eufoniak aipatzerakoan: eremuaren berezko eufoniatzat ditu *-oa > -oba* eta *nenduan > nenduin* bilakabideak (azken honi buruz; ik. § 4.2.1.7), bai eta *daudee > daudei* bilakabidea ere, baina kasu honetan Nerbioi ibarrean gora ere lekukotzen du Bilbo ingururaino erabilia zela markatzen baitu. Bestelako eufonietan Erdialdeko eremuarekin lotzen du Orozko (*-ea > -ie; -ia > -iye*). Zabalak bestelako datu esanguratsuak ematen ditu “Variantes de particulares pueblos que merecen alguna atención” atalean (*ibid.* 56): bertan ez dio inolako aipamenik egiten Bilbotik sartaldera diren herriei, tamalez (agian “Bilbo inguruak” bezalako esapideek Barakaldo edo Alonsotegi ere besarkatuko lukete); baina esanguratsua da Orozko-Baranbio-Laudio-Luiaondo herrien artean ezaugarri komun zenbat aipatzen dituela, nolabaiteko batasun linguistikoa bazela irudituko balitzaion legez (garai hartan euskaldunen zirauten Aiaraldeko herriak dira; cf. § 3.2.3): adizki

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

aoristoak “Llodio, Orozko, Barambio, etc.” herrietan erabiltzen direla dio (ezaugarri honen egoeraz gure testuan, cf. § 4.2.3.15); eta herri berdinetan ahalerazko adizki paradigma berezia aurkitu zuen: *lilei* (vs. *lei*) , *lileie* (vs. *leie*), *cineie*, *cinei*, *ninei* (vs. *nei*), *guinei*... paradigma erregularragoa bere ustez. Amaitzeko, lau herri hauetan den ezaugarri eksklusiboen berri ere emango digu (cf. §§ 4.2.1.8 eta 4.2.3.3):

Mas no quiero pasar en silencio por su singularidad, el modo que tienen en Orozko, Barambio, Llodio y Luyando de caracterizar de recipiente á los artículos de 3ª persona de la radical *eguin*. En estos pues quitan á dicha radical la *i*, y en vez de la característica *o*, ponen después de la *g* blanda una *u*, diciendo «eg'-*u*-zu, dag'-*u*-dan, neug'-*u*-n [sic], gueng'-*u*-n por egui-*o*-zu, dagui-*o*-dan, nengui-*o*-n, guengui-*o*-n.» Estos mismos usan también la conjugación pura de la voz mista [sic] de los artículos *direzan*, *cirezan* por *direan*, *cirean*. (VRB 56)

Zabalak, nahiz eta Bonaparteren zehaztasunarekin egin ez, bigarren honen sailkapenean eta lan egiteko moduan eragin handia izan bide zuen (Elordui 1995: 434), Printzeak datuak biltzeko lan handiagoa egin bazuen ere. Bonaparteren sailkapenik ezagunena 1869ko mapan islatu zuena da, eta bertan mendebaldeko euskara hiru azpieuskalkitan banatzen du: Sortaldekoa (Markinako hizkerarekin); Gipuzkoakoa (Bergarako eta Gatzagako hizkerekin) eta Sartaldekoa (Bermeo, Arratia, Orozko, Plentzia, Arrigorriaga Gernika eta Otxandioko hizkerekin). Honela, gure eremua Sartaldeko azpieuskalkian kokatzen du, eta hiru hizkeratan banatu: Arratiakoa, Arrigorriagakoa (Barakaldo eta Alonsotegi barne) eta Orozkokoa. Arabako hizkerez, argi du (dagoeneko 1863. urtean; cf. Urquijo 1910: 257-258) bizkaieraren barruan kokatu behar direla (mendebaldeko azpi-euskalkian, zehazki), eta honela bizkaieran egindako banaketan barruan txertatzen ditu: Aramaio, Elgea eta Ulibarri Ganboa Gipuzkoako azpieuskalkiaren barruan leudeke, Gatzagako hizkeran; Arabako gainontzeko herri euskaldunak sartaldeko azpi-euskalkia izango lirarteke, Legutiano Otxandioko hizkeran, Zigoitia Gernikakoan eta Laudio Arrigorriagakokoa eta Baranbio Orozkoko hizkeran sarturik.

1869ko mapa azken emaitza izan bazen ere, 1860ko hamarkadan zehar garaturiko prozesu baten ondorio da; azterketa aurrera joan eta datu gehiagoz hornitu ahala hizkeren inguruko ikuspegia aldatuz joan zitzaion Bonaparteri (cf. Yrizar 1949 [1981] eta Elordui 1995), eta aldaketa hauen nolakoa gure eremuko hizkeretan eragina izan zuen. 1863. urtean jada Zabalaren ikuspegitik aldenduko da Printzea: bilbotarrak

zioen Orozkoko eufonietako batzuk Erdialdekoekin batera zihoazela, baina Printzearentzat Arratiakoaren barruan kokatu behar ziren hauek, Uriartek bilduriko datuak kontuan hartuta, ziurrenik.⁷⁸ Orozko eta Baranbiorekin batera Laudio ere badago frantziskotarraren gramatikan; alabaina, lehenengo biekin egin ez bezala, Bonapartek Laudioko euskara Erdialdeko hizkeran kokatzen du, ziurrenik Laudioko dotrinan (Uriarteren bitartez 1858an lortua; cf. Urkixo 1994: 14) den hizkerak erakusten zionaren bidetik.

1863an Orozko eta Baranbioko mintzairak Arratiako hizkeratzat jo bazituen ere, 1868an herri hauen berezitasunek nahiko pisua zuela iritzi zuen Bonapartek eta Arratiakotik banatu zuen, Orozkokoa (Baranbiokoarekin batera) hizkera beregaintzat sailkatuz, (Elordui 1995: 442). Laudiok Erdialdeko hizkerari atxikita jarraitzen du, baina 1863ko hizkera nagusi horren barruan 1868rako hiru azpi-hizkera ezberdin zirela erabakitzen du: Plentziakoa, Arrigorriagakoa eta Gernikakoa; eta Laudio Arrigorriakokoari lotzen dio, guztiz berdina ez dela ikusi arren (cf. Elordui 1995: 443).

Bonaparteren sailkapenak ia gaur arte indarrean iraun badu ere, osatu eta zehaztera jo zuten euskaltzaleek. Haietan lehenengoetakoa dugu 1872. urtean Jose Ignazio Arana gipuzkoar josulagunak egin banaketa. Printzearenarekin alderatua ez da hain zehatza, baina Arabako euskararen gainean ikuspegi orokor interesgarri bat antzematen zaio, orain artean hona ekarritako ikuspegietatik aldentzen dena. Hona hemen haren hitzak:

Euskara *Sartaldecoan*, ceñean Deba-ibaitic Bizcaia-ren atzenerañoco errienac eta cembait Arabacoarenac ere sartzen diran [...]. Baita ere Euskera *erdicoan* edo *Egoaldecoan*, nungoa Guipuzcoa-n Naparroa-goicoan ta Araba-parte batean itz-eguiten dan... (Arana 1872: 201-202)

Agerian denez, ez du Arabako euskara bere osotasunean bizkaieraren barruan kokatzen; aitzitik, zati bat gipuzkeraren barruan sartzen du. Esan gabe doa gogora dakarrela Zuazoren (1998) sailkapena, hots, honen arabera Arabako euskarak izan zituen azpi-hizkerak. Nolabait adieraziko luke Arabako ekialdean XIX. mendean gorde zen euskarak Gipuzkoako euskararekin (ziurrenik Goierriko hizkerarekin) ezaugarri

⁷⁸ Baranbioko euskararen zehaztasunak Oarabeitiak eman zizkion Uriarteri (1862-06-30), eta honek Arratia-Orozko lotura iradokitzen dio frantziskotarrari: “fuera del eco o tonillo y de algún raro término, que puede calificarse de barbarismo o brusco, no se diferencia del de Orozko [...]. Naturalmente el bascuence de Barambio tiene infinitamente mayor analogía con el de Arratia y Orozco que con el interior” (Elordui 1995: 445).

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

nabarmen xamarrek konpartitzen zituela, dudarik gabe lehenagoko garai bateko oihartzunak (cf. Lakarra 2011: 181).

3.3.3. XX. mendeko sailkapenak: Bonaparteren ildoak

Azkuek, Printzearen bilketa lanarekin jarraitu eta are gainditu bazuen ere (cf. Yrizar 1949 [1981]: 124), hiztegiko hitzaurrean esaten duenez Bonaparteren sailkapenari atxikitzen zaio “casi a la letra” (*DVEF* xxvi). Hiztegian aipatuko diren euskal herriak zerrendatzean, Baranbio eta Audio bizkaieraren barruan sartzen ditu, Orozkorekin batera. Bestalde, ez die inolako aipamenik egiten mendebaldeko mugan zitezkeen Enkarterriei edota Barakaldori (ik. § 3.2).

Barrenengoak ere (1988), Bonaparteren ildotik, Audio Erdialdeko bizkaieran eta Baranbio Arratiako bizkaieraren barneko Orozkoko hizkeran kokatzen ditu, Printzearen lehenengo banaketaren arabera. Dena den, Barrenengoak bide ematen du Bonaparteren banaketa bikoitza hegoaldera hedatzeko toponimia aztertuaz (Barrenengoa 2009: 503); hala bada, Aiaran bi hizkera zeudela aldarrikatzen du: ekialdekoa (Bonaparteren Orozkoko hizkeraren partetzat jo beharko litzatekeena), toponimoetako *beiti* eta *goiti* formen bidez ezaugarritzatzen duena, eta Baranbio, Aztobiza eta Lezamako herrietan zehar hedatua legokeena, eta Amurriotik mendebaldera, Aiaralde gehiena hartuz, Gordexolaraino hedatuko zena, toponimiako *betxi*, *gotxi*, *urrutxi* edo *barrutxi* bezalako formek islatzen duten ezaugarriaren bidez.

3.3.4. Mitxelenak eragindako ikuspegi aldaketa

Euskalki zaharren gaineko ohiko ikuspegia zeharo aldarazi zuen Mitxelenak Landucci-ren hiztegia argitaratu eta aztertu zuenean (§ 2.3.2). Izan ere, lekukotasun horretan islatzen zen hizkera berezko nortasuna zuen euskalkitzat jo zuen: XIX. mendeko euskararen mugetatik hegoaldera hitz egin zen beste euskalki bat, *meridional* deitu zuena, eta bizkaierarekin harreman gehien zuen euskalkia izanik, Mitxelenak mendebaldeko euskararen artean kokatu zuen, bai eta XVI. mendeko Araban hitz egingo zela aldarrikatu. Hala ere, ez du hedatzen *meridional* euskalki hau: beti Gasteiz inguruko hizkeratzat darabil, Arabako beste lekuetara estrapolatu gabe. Alabaina, bai

gaztigatzen du Arabako beste lekukotasun horien bidez konproba daitekeela Arabako euskarak bizkaierari deusola (Mitxelena 1958, *OC XII*: 225).

Arabako hizkeraz arduratu den bestelako lanetan ere, ez du ez iritzi, azterketa edota aipamen berezirik egiten Aiarako euskararen gainean, Arabako euskaraz oro har hitz egiten du, bizkaierarekin duen harreman estua aldarrikatuz:

Toda el area alavesa de habla vasca fue clasificada como de dialecto vizcaíno por Bonaparte y, si el diccionario de Landucci representa efectivamente lo que se hablaba en Vitoria y cercanías allá por el siglo XVI, nos encontramos con una variedad muy afín al vizcaíno [...] se parece más al vizcaíno que a cualquier otro de los dialectos vascos que conocemos bien. (1986; *OC IV*: 117)

Arabako euskaraz ziren testu eta deskribapen gehienak Bizkaiko muga administratibotik hurbil dauden lurraldetako hizkerak direnez, lekukotasun horiek *muestran en lo dialectal un carácter acusadamente vizcaíno* (Mitxelena 1982a, *OC V*: 405), eta badirudi honetan oinarritu zela Arabako euskal eremuan bizkaiera hitz egiten zela zioen *fabula* (Mitxelena berak darabilen hitza), nahiz eta Larramendiren lekukotasunak (Arabako euskara ez zela bizkaiera “en lo todo”, cf. § 3.3.1) honekin bat egin ez. Arabako beste lekukotasun bat argitaratu zen 1982an, Juan Bautista Gamiz sabandoarraren euskal poemak eta honek Landucci-ren hiztegia aztertzeak erakutsi zion ikuspegia sendotzeko bidea eman zion: Arabako euskara ez zela bizkaierarekin guztiz ezkontzen ezaugarri oso markagarrietan (*ibid.* 407).

Mitxelenaren esanekin bukatzeko, gure eremuarekin hurbildu gaitzke J. P. Ulibarriren *Gutunliburu*-ari (aztergai dugun eremuko lekukotasunik garrantzitsuena tamaina aldetik) egindako aipamenarekin: Arabako euskara aztertzeko materialen artean kokatzen du, baina Arabako euskararen azterketan ezer gutxi atera daitekeela uste du, inpresioa baitu eskuizkribuko hizkerak Abandoko euskararekin eta garaiko literaturarekin erlazio gehiago duela Okondoarekin baino (Mitxelena 1982a, *OC V*: 405-6).

3.3.5. Arabako euskararen beharraz: J. A. Lakarra

Mitxelenak Landucciren hiztegian egindako azterketak eta planteatu zuen hipotesia euskararen historiaz jakin nahi zuten ikertzaileengan ikuspuntu aldaketa

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

garrantzitsu bat eragin zuen, eta Araban behinola egindako euskara XIX. mendetik “bizkaieratzat” jotzen genituen hizkeretatik bereizteak ondorio argiak izan zituen euskalkien sailkapen tradizionala historikoki azaldu behar zenean.

J. A. Lakarra izan zen bizkaiera zaharra ezaugarritzeko lehen saioa egin zuen ikertzailea (1986c). Lehenagotik ere Arabako eta Bizkaiko hizkerak banatzeko beharraz jabetu zen, eta bere materialak biltzeko orduan gogoan hartzen du banaketa hau: XVII. mendeko *Bulda* argitaratzerakoan argi dio “bertan [= *Buldan*] erabilitako euskara ez da araberaren baina bizkaieraren lekuko” (Lakarra 1985: 1045). Alabaina, lehen aipatu artikuluan aztertu zuen hau egokien, Bizkaieraren eta Gipuzkeraren arteko (egiatan *hiperbizkaieraren* eta *erdigipuzkeraren* artekoak; cf. Lakarra 1986c: § 7) ezberdintasun ustez sakon horiek agerian jartzerakoan bere buruari galdetzen dio ea “zergatik dirateke ‘bizkaieratik[oak]’, haatik, *-duren* bitartez osaturiko partizipioak edota *a+a ea* (sic) legea baldin eta G.Z.eko testuetan eta oraingo hainbat giputzen ahotan kausitzen baditugu? Ez du merezi *zeban* eta *deu(b)en* (!) antzeko formez luzatzea G. eta B.Z.eko testuak zertxobait ezagutuz geroz” (*ibid.* 672). Honela, hego-mendebaldeko gipuzkerari eta araberari garrantzia ematen die, “zubi-hizkera” balioa izanik, arreta gehiago eskaintzeko beharra aldarrikatuz. Mitxelenaren ildotik, esaten du baita Arabako euskara ezaugarri propioak izateaz gainera, “euskalki horrek beste hainbat zituela iparraldeko biekien, noiz batarekin, noiz bestearekin, lotzen zutenak” (*ibid.*).

Ondoko lanetan ikuspegi honetan sakontzen du alderdi metodologikotik (cf. 1996a, 1997a, 1998), eta lekukotu gabeko testu zaharren kokapena zehazten du bere Arabako euskararen hipotesia: honela gertatu zen Knörr-ek Betolazaren jatorri arabarra argitu zuenean (cf. Lakarra 1996a: 144) eta Lakarrak berak Iturbe (cf. 1996a: 156, 12. oh.) eta Portalen jatorri arabarra proposatu zuenean. Baina ikuspuntu honen arteztasuna sendotu zen gehienbat testu berri bat agertu zen bakoitzean; ezagunena, ezbairik gabe, Lazarragaren eskuizkribua (Bilbao *et al.* 2010):⁷⁹ bere argudioekin bat, bera jabetzen da eskuizkribuaren hizkera Arabakoa dela, eta euskararen ezagutzarako Landucciren hiztegiaren pareko aurkikuntza izan zela iradoki euskalki honen historia berregiteko. Gipuzkoako Aldundiak ateratako edizio faksimilearen osagarri moduko lanean, testu honek lehenago esandakoak berresteko lain argudio dituela ikusten du; Honela, Arabako

⁷⁹ Esplizituki esan ez bagenuen ere, Lakarraren ikuspuntu hau berau jarraitu genuen guk ere Sevillan argitaratu zen *Canción en lengua vascongada* aztertu genuenean eta bere jatorria arabarra izan zitekeela esan genuenean (Ulibarri 2011c: 379).

euskararen estatusa aldarrikatzen du ezaugarrien konbinaketa beragatik (Lakarra 2004: xiv).

Azken ekarpena Euskara Batu Zaharraren ondoko dialektalizazioaren historiari eta hau egiteko ezinbestekoak diren irizpide teoriko-metodologikoei eskainitako lan batean (Lakarrak 2011a). Behin-behineko proposamen modura, lau adabegi proposatzen ditu Erdi Aroaren akaburantz Mendebaldeko euskarari (Lakarra 2011a: 213): *Mendebalde muturrekoa* (Bonapartek eta ondorengoen “sartaldeko bizkaiera”), *Ara. B* (= Arabako euskara eta Sortaldeko bizkaiera), *De-Ga* (Deba eta Gatzaga inguruko euskara) eta hiru hauetatik lehenago bereizi bide zen *Ekialdeko Arabera* (cf. gorago aipatu dugun J. I. Aranek Arabako euskaraz esandakoa). Lehenengo hiru adabegiek ondoko garaian “bizkaiera” legez deitua izan den euskalkia osatuko zuketena; balizko Ekialdeko arabera, bere aldetik galduaz joan zen eta ez bide dugu⁸⁰ honen lekukotasunik Bonaparteren garaian jada. Badirudi, bada, lehenengoz historia kontuan hartzen duen sailkapen berri honen arabera Aiarako eta Enkanterrietako euskara “Mendebalde Muturreko” adabegiaren barruan sarturik egongo litzatekeela.

3.3.6. Egungo dialektologoen ekarria: Zuazo, Aurrekoetxea, Gaminde

J. A. Lakarrak Arabako euskara bereizteko egindako lanen parean dugu, kopuru aldetik bederen oparoa, K. Zuazoren lana, 1989tik gaur egunera hainbat artikulu eta liburu baitauzka herrialde honetako hizkeren gainean (Zuazo 1989, 1998a, 1999, 2012, 2013). Bizkaieraren eta araberaren arteko erlazioaz atzera-aurreraka ibili da, noiz euskalki beregaintzat, noiz bizkaieraren —edo, hobeto esanda, bere terminologiaren arabera, Mendebaldeko euskalkiaren— hizkeratzat hartuz.

Zuazoren sailkapena jarraituz, hiru eremu bereiz daitezke Arabako euskarari, gehienbat toponimiak eskaintzen dituen datuen arabera: *sartaldekoa* (Legutio eta Zigoitiatik mendebaldera), *erdialdekoa* (Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Gasteiz, Burgelu, Dulantzi eta Trebiñu) eta *sortaldekoa* (Donemiliaga, Agurain, Iruraitz-Gauna, Maeztu eta Bernedotik eskuinera). Eremu hauetan Arabako testuak kokatzeko orduan, Betolazaren testua sartaldeko azpi-hizkerakoa genuke, Landucciren A eta C lankideak erdialdekoa eta Gamiz, Albeniz eta Portal sortaldekoak (Zuazo 1998a: 176). Lazarraga

⁸⁰ Burundako hizkera izan daiteke *Ekialdeko Arabera* honen azken hondarrak?

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

agertu ostean hau ere erabili du (2012: 37), baina dakigularik ez dio bere sailkapen hirukoitzaren barruan kokapenik esleitu.

Datu bilketa oparo eskaintzen digun arren, ez digu askorik laguntzen Aiaraldeko euskara ezagutzeko, dagoeneko 1989ko artikuluan diosku alde batera uzten dituela Laudioko eta inguruetan bildutako izkribu eta bestelako hizkuntza hondakinak (Zuazo 1989: 10), eta hortik aurrera ez du bestelako aipamen zuzenik egiten eremu horretako hizkerari buruz: 1998a eta 1999. urteko lanetan erabili zuen *corpusa* aipatzean ez du ezer esaten inguruko lekukotasunen artean (lehenengoan, hala ere, Barrenengoaren toponimia lanak kontsultatu zituela dio; Zuazo 1998a: 129). Knörrekin elkarlanean egindako Arabako testu eta azterketa bildumako sarreran (Knörr & Zuazo 1998: 15), argitzen digu alde batera uztearen zergatia: *Arabako euskara zaharra* Mediterraneo isurialdeko euskaraz ari direla argitzen digute.

Araberari eskainitako azken lanetan ere Mediterraneo isurialdeko euskaraz ari da (2012, 2013): hauetan, Araba ondoko hizkeren azterketa nabarmentzen du egin diren aurrerapausoen artean, eta Gipuzkoako Deba ibarreko eta Goierriko, bai eta Nafarroako Burundako hizkeren azterketaz hitz egin, baina ez du inolako aipamenik egiten Orozkoko zein Aiarako hizkeraren gainean (Zuazo 2012: 39). Hala ere, Arabako gaztelanian dirauten euskarazko hondar hitzetan Baranbion erabiltzen direnak ere badakartza (Zuazo 2012: 247-302 eta 2013: 151-233).

Enkarterrietako euskararen inguruan ez dugu inolako aipamen zehatzik topatu Zuazoren lanetan; beraz, suposatzen dugu, Bonapartek egin bezala, Bilbo eta Nerbioi arroko hizkerekin batera sartuko dituela Barakaldo inguruan eta mendebalderago behinola hitz egin zen euskara. Nerbioi arro honetan bi eremu ezberdintzen ditu Zuazok egungo euskaran (Zuazo 2005: 250): batetik hegoaldeko eremuko (Arrankudiaga, Arakaldo, Orozko), zeina Arratiarekin batera ematen duen; baina bestera doa arroko iparraldean egiten den euskara (Zollo, Ugao Arrigorriaga, Zaratamo, Basauri, Bilbo, Etxebarri): honetan hizkera berezitu bat ikusten du gaur egungo hizkeran, *Nerbioi ibarra* izena eman diona.

Zuazok euskalki historiko eta egungoez jarduten du, batzuk zein besteak sailkatuz, baina ez da dialektologo bakarra izan XX. mende bukaeran hitz egiten zen bizkaieraren sailkapena egitera jo duenik. Atal honen izenburuan aipatuak diren Aurrekoetxeak (1995) eta Gamindek (2007) ere, bizkaieraren egitura geolinguistikoa argitu nahi izan dute dialektometriari eskaintzen dituen baliabideak erabiliz. Beste atal batean hitz egin dugu metodo hauen arazoez (§ 2.1.2), eta jakitun gara ezin daitekeela

euren sailkapena antzinagoko garaietara estrapolatu, baina atal honetan lurraldeko hizkerez egin izan diren sailkatze guztiak biltzea izanik helburua, ezin dugu aipatu gabe utzi ikertzaile hauen lana. Bai batak bai besteak hainbat aldagai erabiliz (fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak) mapatze ezberdinak aurkezten digute, baina azkena erabiliz (aldagai guztiak kontuan hartzen dituen), honako emaitzak agertu zitzaizen: Aurrekoetxeari (1995: § 6.7.7) Orozkoko hizkera Arratiako gainontzeko herriekin batera lotzen zaio, Nerbioi ibarrekotik banandua, eta azken hau bi guneetan du berezia: batetik Zollo eta Etxebarri, bestetik Zaratamo (Aurrekoetxea 1995: 287). Gaminderi (2007), bestalde, Sartalde/sortalde banaketa agertzen zaio barietate multzo nagusi legez, eta sartaldekoaren barruan bost eremu ezberdintzen zaizkio: guri interesatzen zaigunetarik, Orozko Nerbioi ibarreko gainerako hizkerekin doa, Hego-Urbe eremuaren barruan, Arratiako hizkerak bere aldetik beste eremu bat sortzen dion bitartean (Gaminde 2007: 255).

3.3.7. Azken ekarpenak

Lakarrak (§ 3.3.5) emandako ikuspuntuari deitso Urgell-ek ere aditz-izenak sortzeko baliabide ezberdinen historia egiterakoan (Urgell 2006a). Atzizki hauen forma ezberdinak aztertu zituen, bereziki mendebaldeko hizkeretan dagoen egoera nabarraz jabetuta, eta euren historia berregiten aritzean eta ezaugarri honetan berrikuntza gune bat aurkitzen du Gasteizen (Urgell 2006a: 929); honek, nola ez, Arabako euskararen nortasun propioa iradokitzen du: hizkera bizia eta berrikuntzetarako gaitasun handia duena dugu, eta irradiazio indar nabarmenarekin (*ib.* 941).

Urduñan agertu zen hitz zerrendaren argitalpenaren harira (Ros 2011), bultzada garrantzizko bat izan du gure eremuko euskararen azterketak. Edizioaren sarreran Rosek dioenez, Aiaraldeko lurrik hegoaldekoena den Urduñako euskaraz ezer gutxi dakigu, “ezta Aiarakoan edo Arabakoaren barruan sartu beharko genukeen ere”. Hala ere, bere azterketak Landucci-renera hurbiltzen du hizkera “inora hurbiltzekotan, nabariak izanik auzoko hizketekiko antzak, Oñati edo Aramaiokotik Arratia edo Arrigorriagako barietatearen barneko Laudiokoraino” (Ros 2011: 390). Enkarterriei dagokionez, Ros-ek berak, Saiz-ekin batera, esaten digute Barakaldoko lekukotasunek Arrigorriagako hizkerara hurbiltzen gaituztela (Ros & Saiz 2001: 52); toponimian ageri diren *-oba* eta *-uba* epentesiak, bestalde, Uriartek Orozko eta Baranbioko hizkeran aipatzen zituen

-oba eta -uba epentesiekin lotzen dituzte, Gordexola eta Aiara bitarte bi eremuak linguistikoki lotuz (Ros & Saiz 2001: 70).⁸¹

3.4. Hego-sartaldeko hizkerak aztertzeko materialak

Testu baten hizkera kokatzeko ezinbestekoa da erkagaiak izatea, hots, lekukotasunak; eta atal honetan azterketan zehar erabiliko ditugunen aurkezpena egingo dugu. Noski, hemen aurkeztuko direnak ez dira tesian zehar aipaturiko bakarrak izango, *OEH* zein *EKC* erabili ditugun heinean euskal idazte tradizioko beste testuak ere agertuko baitira. Lerrootan, beraz, “aingura testuetara” mugatuko gara: aingura testutzat hartzen da geografikoki eta kronologikoki eremu linguistiko batean ondo koka daitekeen testua (cf. § 2.4.1.2), hizkera ezezagunarekin konparatuz gero eremu linguistiko batekoa edo bestekoa den erabakitzeko gai daitekeena.

Testua XVIII. mendekoa izanik (§ 4.1.2), beharrezko da garai bereko edo bertuko testuak baliatzea, kokapen kronologikoan aldaketa geografikoaren eragina ahalik eta gutxiena izateko; alabaina, bi arrazoik aurreko eta osteko lekukotasunak ere erabiltzera behartu gaituzte: hizkeraren ibilbide historikoa marraztu nahiak, batetik, eta euskararen tradizioak dituen testu eskasiak, bestetik. Honela, deskribapen honetan ardatz kronologikoa eta geografikoa hartuko da kontuan. Kronologikoki, bi aro nagusi ezberdinduko ditugu: lehenengoan, testuaren aurreko garai biak (*Euskara Arkaikoa* eta *Euskara Zaharra*; periodizazioaz, ik. Lakarrak 1997a: 516) lotuko ditugu, erosotasunagatik biak batera emanez. Bigarren aroan Lehenengo Euskara Modernoko testuak izango ditugu, gure testuaren kronologia bereko testuaz gainera hurrengo mendekoak ere biltzen dituen garaia.

Bi aro hauetako lekukotasunak zerrenda legez emango dira, ahal denean behintzat hegoaldeetik iparraldera hurrenkeran ordenaturik. Aro bakoitzeko testuak eremu geografikoka emateko Lakarrak proposaturiko behin-behineko adarreztatzea (Lakarra 2011a: 213) kontuan hartuko dugu: honela, ondoko garaietako dialeko sailkapena saihesteaz gainera, proposamenean aurrera egiteko bidea izango baita, lekukotasunak ikuspuntu honen araberrako behin-behineneko zerrenda eginez.

⁸¹ Dena dela, Etxebarriko seme den Sarriaren sermoitegian ere epentesi horien adibideak badira, Zuloagaren hitzetan inoiz Orozkoko ezaugarri horren geografia zabalagoa izan zela erakusten duelarik (Zuloaga 2010: 398); ondorioz, ikertzaile hauek egiten duten lotura linguistikoa ez bide da pentsatu bezain arteza.

Adarreztatzea Erdi Aroaren amaieran koka daiteke gutxi gora behera (*ibid.*), baina ez dakigu ordutik eta XVIII. mendera zer nolako aldaketak izan ziren indar lektaletan eta agian beste banaketa beharko litzateke *Lehen Euskara Moderno*-ko lekukoak sailkatzeko. Alabaina, lehen hurbilketa izanik, bi garaietan banaketa bera mantenduko dugu, sinpletze aldera. Hau honela, eremuetatik *Mendebaldeko Muturrekoa* izango da guretzat garrantzitsuenak —tesian zehar (*Mendebal Sartaldekoa* ere deitua— testua horkoa dela baieztatzeko begi-bistako argudioak baitaude (§ 4.4); beraz, honetan zehatzago izango gara eta bi eremutan banatuko da: (1) hegoaldekoa (*Hego-MeMu*) eta (2) iparraldekoa (*Ipar-MeMu*). Hauek izango dira deskribapen honetako garrantzitsuenak, baina ez bakarrak: hauekin batera, urrunagoko lekukotasun zenbait ere erabili ditugu, eta eremuotan sailkatuko ditugu: (3) *Ara.-B* eremua, Bizkaiko sortaldeko eta Arabako erdialdeko testuak bilduko lukeen eremua; (4) *De-Ga* eremua, Deba arroko eta Gatzaga inguruko testuekin, eta (5) *Ekialdeko Arabera*, Ekialdeko Lautadako lekukoekin.

3.4.1. Euskara Arkaikoa (????-ca.1600) eta Zaharra (ca.1600-1745)

Euskararen lehenengo testigantza luzexkak Erdi Aroaren amaieran agertzen dira, Euskara Arkaikoaren barruan. Zaharrenak, oro har, txikiegiak dira inolako ondorio linguistikorik ateratzeko, eta ez dira hemen kontuan hartuko: alabaina, behin behin mendebaldekoenak aipatzearen, badira XIV. mendean *Jaun Velaco* mikrotestua Aiaraldean, Lope García de Salazar (XV. mendea) historialariaren laneko *-Cer varri? -vabarria, galdocha coçaldia ildala Valmaseda conestarra* elkarrizketa eta beste hitz solteren bat Enkanterrietan (*TAV* § 2.2.17; ik. orain Villacorta & Urgell 2014: § 2) eta, Euskara Zaharrean jada (1712), *Ay ene desdichadea* esaldia Barakaldon (Ros & Saiz 2001: 57). Honela, XVI. mendetik aurrerakoak liriateke lekukotasunak.

(1) *Hego-MeMu*

(Aiaraldea)

- Andres de Poza: *De la Antigua Lengua* (1587) (Poza 1587, cf. Gorrochategui 1987) [Poza]
- *Urduñako Berba zerrenda* (XVII. m. am.) (Ros 2011) [UBZ]
- Francisco Mendieta:

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

- *Abendañoakoaren heriotza* (XVII. m. has.) (TAV, § 3.1.6) [Abendaño]
- *Foruen zinegitea* kartela (1609) (ConTAV, § 5.2.7) [FZin]
- *Aerario de la hidalguia* (ca. 1610) (Ulibarri 2013b) [Aerario]
- *Orozkoko otoitzak* (ca. 1739) (Garigorta & Gaminde 1986) [OO]

(Arratia)

- Pedro Madariaga: *Onra de escribanos* liburua (1565) (cf. FHV § 1.2) [Onra]
- Juan Bautista Alzola:⁸² *Egiaren kanta* (1639) (Arejita 1988, Urgell 1986b) [EgiaK]

(Jatorri ezezaguna)

- *Viva Jesus* (ca.1640) (Lakarra 1997, Ulibarri 2010a, Zuloaga 2013) [VJ]

(2) Ipar-MeMu

(Bilbo ingurua)

- Rafael Mikoleta: *Modo breve* (1653) (Zelaieta 1988) [Mic]

(Uribe kosta)

- *Refranes y Sentencias* (1596) (Lakarrak 1996) [RS]
- *Arrasateko erreketeta* (1448) (Arriolabengoa 2008; kokapenaz, Zuloaga 2011b) [IC. ArrErre]

(3) Ara.-B

(Gasteiz)

- Nicolao Landucci: *Bocabularioa ezqueraz jaquiteco* (1562) (Mitzelena 1958, OC XII) [Lcc]

(Betolaza)

- Pedro Perez de Betolaza: *Doctrina Christiana* (1596) (ik. Knörr & Zuazo 1998) [Bet]

(Barrundia)

- Joan Perez de Lazarraga (ca.1610) (Bilbao *et al.* 2010) [Laz]

(Durangoaldea)

- Martin Otxoa de Kapanaga: *Exposición breve de la doctrina christiana* (1656) [Cap.]
- Nicolás Zubia: *Doctrina Christiana* (1691) (TAV §§ 3.1.29, 3.2.10 eta 3.2.14; ConTAV § 5.2.11) [Zubia]

⁸² Jatorriz Tabira herriko semea izanagatik ere, argitalpenaren portadan diosku Arratiako Elexazar-Gazteluko abadea zela (*Cura en la Iglesia de Castillo, Merindad de Arratia*), eta orduan argitaratu zuela poema.

- Martin Arzadun: *Doctrina christinaubaren explicacionea eusqueras* (1731)
[Arz]
- Diego L. Urkizu: *Liburu Virgina Santissimien Errosario santubena* (1737).
[Urqz]

(Jatorri ezezaguna)

- XVII. mendeko *Bulda bizkaieraz* (Lakarra 1985a) [*Bulda*]

(4) *De-Ga*

(Arrasate)

- Esteban de Garibai:
 - Errefrau bildumak (1592) (Urkizu 1989; Zubiaur & Arzamendi 1976)
[RG]
 - *Memorias de Esteban de Garibay* eta *Compendio historial* liburuetakoa
poesiak (1571) (cf. TAV §§ 3.1.1; 3.1.5; 3.1.8; 3.1.9 eta 3.1.11) [Gar]
- Pedro Ignazio Barrutia: *Acto para la Nochebuena* (ca.1721) (Lakarra 1983b)
[Bar]

(Antzuola)

- Amilleta: *Dotrina* (ca.1678) (Arejita & Alberdi 1985) [*CatAnz*]

(Jatorri ezezaguna)

- 1708ko bizkaierazko sermoia (1708) (Etxebarria 2007) [*Serm1708*]

(5) *Ekialdeko Arabera.*

(jatorri ezezaguna)

- Martin Portal: *Romance al Santisimo Sacramento* (1610; Kerejeta 1991: 175)
[Portal]
- *Sevillako Canción Bascongada* (1619) (Ulibarri 2011c) [*Sevilla*]
- Martin Iturbe: *Quartetac Phelipe Prospero gaiocce dichosoan* (1658) (*ConTAV*
§ 5.1.5)⁸³ [Iturbe]

3.4.2. Lehen Euskara Modernoa (1745-1891)

Larramendiren lanetatik aurrera (cf. § 4.3.2), Hegoaldeko literatura ugaldtu zen, eta bultzada honen eraginez, nonbait, gure eremuan ere ugaldtu ziren euskararen

⁸³ Testu honen kokapenez zalantza asko daude; bateko eta besteko ezaugarriak biltzen baitira hizkera honetan (cf. *ConTAV*: 97). Guk Lakarraren hipotesia jarraitzen dugu, (cf. Lakarra 1996a: 156, 12. oh), eta ezaugarrien konbinaketatik Arabako euskararen lekukotasuna izan daitekeela iritzi.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

lekukotasunak. Honela, *Hego-MeMu* eta *Ipar-MeMu*-n aurreko garaian bezain zorrozki egin dugun arren lekukotasunen bilaketa, bestelako eremuetan lausoago ibili gara lekukotasunak bilatu eta erabiltzeko orduan, hauetan ere testuak ugariagoak izanik ezinezko zitzaigulako guztiak kontrolpean izatea.

(1) *Hego-MeMu*

(Aiaraldea)

- *Gure Izarra* egunkariko *Lezamari buruzko gutuna* (1888) (Díaz Noci 1996) [*LezGut*]
- J. P. Ulibarri:
 - *Egunare euskarazkoa* (1814) (Ulibarri 2011d) [*EgEusk*]
 - *Gaúoneco cantac* (1814) [*GauCantac*]
 - *Gaboneco osaste* (1826) (Ulibarri 2010b) [*GOsaste*]
 - *Gutunliburua*-n (1823-40) (Ulibarri 1975 [1823]) [*GL*]
- Laudioko abade jaunen *Doctrinia Christiana* (1828) (cf. Urkijo 1994) [*CatLlo1*]
- Bonaparteren aginduzko Laudioko *Doctrina Christiana* (1858) (Pagola *et al.* 1992) [*CatLlo2*]
- *Orozkoko sermoia* (ca.1773) (argitaragabea, cf. Ros 2009)⁸⁴ [*OSerm*]
- Juan Antonio Uriarte: *Orozkoko dotrina* (ca.1864) (Pagola *et al.* 1992) [*CatOrzk*]

(Behe-Nerbioi)

- Antonio Francisco Iturriaga: *Doctrina dominicalac* (ca.1815) (argitaragabe) [*DocDom*]
- Juan Antonio Uriarte: *Arrigorriagako Doctrina* (ca.1866) (Pagola *et al.* 1992) [*CatArrig*]
- *Zolloko galdetegia* (1770) (argitaragabea, cf. Ros 2004). [*ZollGal*]
- Juan Jose Salazar: *Sermoi argitaragabeak* (ca.1820) (cf. Etxebarria 2005) [*Salazar*]
- Juan Ignazio Astigarraga: *Sermoiak* (Etxebarria & Apraizek 2007; cf. Zuloaga 2011) [*Astigarraga*]

⁸⁴ Kasu honetan, besteetan ez bezala, ezin izan dugu eskuizkribuaren kopia edo transkribapenik lortu, eta Ros-ek artikulu honetan ematen dituen aipuen bidez lan egin dugu.

- Bizente Sarria: *Sermoiak* (Etxebarria & Apraiz 2009; cf. Zuloaga 2010) [Sarria]

(Arratia)

- Pedro Antonio Añibarro⁸⁵:
 - *Eskuliburua* (1802) [EL]
 - *Lora Sorta Espirituala* (1803) (Urgell 1988) [LoraS]
 - *Geroco gero bizkaieraz* (Urgell 2001) [GGero]
 - *Nekea Arinduric* (1808-1821) (Urgell 1987b) [NekeA]
 - *Lau Evangelioac batera alkarturic* (Ciarrusta 1991) [LauEv]
- Juan Antonio Uriarte: *Arratiako Dotrina* (ca.1866) (Pagola et al. 1992) [CatAr]

(Kokatu gabea)

- Juan Mateo Zabala: *Sermoiak* (ca.1816-1821) (cf. Villasante 1996; 2001) [Zav]

(2) *Ipar-MeMu*

(Plentzia)

- Juan Cruz de Renteria:
 - *Cristiñauac biarreco daben doctriñea* (ca.1860) (Altzibar 1985) [Crbiar]
 - *Sermoiak* (ca.1860) (Etxebarria 1985, 1987, 1992) [de Renteria]
- Juan Antonio Uriarte: *Plentziako Dotrina* (ca.1866) (Pagola et al. 1992) [CatPle]

(Laukariz)

- Bartolome Olaetxea: *Dotrina Christiana* (1763) [Oe]

(Gernika)

- Gandara: *Gabon kantak* (1757-1768) (Kaltzakorta 1999) [Gandara]

(Bermeo)

- De la Quadra:
 - *Dotrina Christinaubarena* (1784) (Bilbao 1997) [DocQua]
 - *Exercicio Santo para ayudar al bien morir* (1784) (Bilbao 1998) [ExQua]
- Arima Purgatoriokoen kofradiaren fundazioa (1846) (Gómez & Moreno 2002) [ArimPurg]

⁸⁵ Idazle klasikoa izanik, lanik gehien idatzi zuen lekukoa da, bai eta aberatsena lanen euskararen aldetik. Horrek ere aztertuena izatea (cf. Urgell 1985, 1987a; Altzibar 1992a) eragin du. alabaina, oraindik ez ditugu bere lan guztiak ezagutzen, bere eskuizkribu asko argitaragabe baitiraute, *Misionari euskalduna* sermoitegi handia, kasu.

3. Testuingurua: Bizkaiko hego-sartaldeko hizkerak

(3) *Ara.-B*

(Durango)

- Astarloa: *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* (1816) [Astar]

(Markina)

- Juan Antonio Mogel:

- *Confesiño ona* (1803) [CO]
- *Peru Abarka* (ca.1802) [PAb]
- *Christaubaren icasbidea* (XVIII. m. am.) [CrIc]

- f. Bartolome de Santa Teresa:

- *Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (1816) [Olg]
- *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco icasiquizunac* (1816-7) [Ic I-II]
- *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac* (1819) [Ic III]

(4) *De-Ga*

(Oñati)

- Oñatiko eskuizkribuak (Elortza 1977) [*msOñ*]

(Gatzaga)

- Gatzagako abade Jaunak: *Cristau-Doctrinia* (1862) (Uribe-Etxebarria 2011) [CatGatz]

(Antzuola)

- P. A. Y: *Eusquerazco doctrinia Anzuelaco verba moduan* (1825) (Uribe-Etxebarria 2008) [CatAnz2]

(5) *Ekialdeko Arabera*

(Sabando)

- Juan Bautista Gamiz: *Olerkiak* (ca.1770) (Goikoetxea 1982) [Gamiz]

(Araia)

- Juan Garcia de Albeniz: *Acto contriciocoa eriotzaco orduracò* (1778) (Altuna 1995) [Acto]

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Gure tesiaren oinarria testu baten edizioa eta bere azterketa izango dugu, orain arte inor gutxik ezagutu duena,⁸⁶ eta ikusiko dugunez hizkera berezi bat islatzen duena. Sermoitegi bat da, edo gutxienez guk honela interpretatu ditugu hiru artxibotan sakabanaturik diren sermoien eskuizkribuak. Sermoiok jatorriari buruzko inolako berririk gabe gorde diren arren, eskuidatzi guztiak esku berak eginak direla begi-bistan dago (ik. 1. irudia) eta hizkeraren berezitasunak ere guztiak lotzeko froga garbia dakar. Areago, berezitasun horrek berak gaur egun galdurik den hizkera baten isla dela iriztera eramán gaitu (§ 4.4).

Atal honetan testua aurkeztu eta aztertuko dugu. Lehenbizi sermoitegia osatzen duten atal ezberdinak deskribatuko ditugu (§ 4.1): alde batetik, deskribapen fisikoa egingo dugu, eta paperaren ur-markak erabiliz data zehazten saiatuko gara. Bestetik, deskribapen tematikoa ere aurkeztuko dugu: sermoitegiak jorratzen dituen gaiak zeintzuk diren erakutsiko dugu, bai eta horrela zergatik lotu dugun azaldu. Deskribapenaz gainera, bigarrenik (§ 4.2) testuko hizkuntza aztertuko dugu (grafia, hotsak, morfologia, sintaxia eta aldaera lexikoak), gure “aingura testuak” (§ 2.4.1.2) izango diren Bizkaiko sartaldeko beste lekukotasunekin (§ 3.4) konparatzeko aukera aprobe txatuaz batera.

Hirugarrenik, testuak literatur eraginik duen ala ez eztabaidatuko dugu (§ 4.3): hasteko, sermoitegiaren balizko erdal iturriak bilatzen, XVIII. mendeko Hegoaldeko (euskal) sermoitegien historia berregiten eta testua alde honeatik kokatzen saiatuko gara. Halaber, sermoitegiak garaiko euskal literaturarekin izan ditzakeen erlazioez jardungo dugu. Saio hauen helburua egilearen egoera historiko-kulturalaren gaineko ideia bat bederen lortzea izango da, idatziaren testuingurua hobeto ulertu nahian.

⁸⁶ Dakigularik, T. Uribeetxebarriaren artikulua bat baizik ez da aritu sermoiotako batzuetaz, “Euskarazko sermoi-ondarea Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan” (Uribeetxebarria 2007). Lan honetan Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo historikoan gordetzen den gure sermoitegiaren zatiaren (ik. beherago) berri ematen da, bertan aurki daitezkeen euskarazko sermoi guztien artean, artxiboaren historia laburbilduaz eta katalogo hastapen bat atonduaz.

Azkenik (§ 4.4), bildutako datuek hizkeraren kokatze historiko eta geografikoa egiteko eta, hortaz, haren jatorriari buruzko hipotesiak egiteko aukera emango digute.

4.1. Testuaren deskribapena

4.1.1. Deskribapen fisikoa

Esan bezala, sermoitegia hiru artxibotan gordetzen da: zati nagusia Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxibo Historikoan (hemendik aurrera BFA) dago, “Jesuitas” sailean, 0003/005 signaturapean. Folio erdiko tamaina duen (21 x 15 cm) sermoi liburu bat da, pergamino zurizko azal arrunt batez koadernatua eta izenbururik gabekoa. Guztira hamasei sermoi ditu: hamalau euskaraz eta bi gaztelaniaz, eta guztiek kredoaren gainean dihardute, otoitza osatzen duten artikulua banan-banan glosatuz. Sermoiaren gainekin zeharkako erlazioa baino ez luketen erdaraz idatzirik bestelako oharrik ere badira, orrietan geratzen diren zuriuneak aprobetxaturik. Orriak arkatzez zenbaturik daude aurkian, 59 orotara, baina tartean badaude zenbakirik gabeko orri zuriak.

Sermoi bakoitzak kaier⁸⁷ bat betetzen du, folio erdi tamainako (i.e. *in 4^o* tolesturiko) orriz osatua (21 x 15 cm): folioak erditik tolestu eta bata bestearen barruan sarturik eratu dira kaierak, eta dirudienez *ad hoc* eginak dira, sermoiaren luzeraren arabera orri kopurua aldatzen baita; hala ere, sermoiek antzeko luzera izanik, halabeharrez kaier denak 3-5 orri bitartean kokatzen dira. Egituraren aldetik ere antzekoak dira guztiak: kaierraren lehenengo orria zuriz utzi du idazleak, testua babesteko azal antzera (hauek dira lehen aipatu ditugun zenbatu gabeko orriak) eta bigarren orriaren aurkian idazten hasi da, sermoia amaitu arte. Honela antolaturik daude sermoi guztiak Kredoaren hamabigarren artikulua gainekoa salbu —gure zenbakuntzaren arabera (§ 7.1), 16. sermoia—: honek ez du aurreko orrialde zuririk eta badirudi bukaera ere falta zaiola; beraz, hipotesirik egiantzekoena da kaierraren kanpoko folioa falta duela.

Kaierak liburuaren bizkarretik aske daude, itxuraz pergaminozko azala hondaturik dagoelako; Hala ere, Uribeetxebarriak (2007: 425) suposatu du azala sermoi

⁸⁷ Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiaren katalogatzeko proposamenak (2009) gidari izango ditugu beti.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

hauei ez, eta beste liburu bati zegokiola jatorriz, eta sermoiak biltzeko karpeta modura berrerabili zela. Azalaren bizkarburuan zerbait dago idatzirik, izenburua agian, baina tinta hain dago higatua ez baitago zer jartzen duen jakiterik. Lehenengo 6 sermoiak batera josirik daude, liburuxka osatuz, baina ondoko beste sermoiak ere inoiz elkarri josita egon zirelako frogarik dugun arren, ez dago guztiak inoiz azalari nola edo hala lotuta egon direla baieztatzeko argudiorik; alabaina, dagoeneko solte heldu ziren artxibura, hasiera batean banandurik katalogatu baitzituen BFA-k: kaier aske bakoitzak bere signatura propioa du hasierako orri zuriaren goiko aldean arkatzez idatzita; ondoren, noizbait obra bat eta beraren parte zirela ondorioztatu bide zutenez gero, bildumari bere signatura ezarri zitzaion, aurreko signaturetan “signatura antigua” esaldia gehituz. Sermoiaren egiturak ere (sermoi bakoitzak kaier bat betetzeak, alegia) aske erabiltzeko prestaturik daudela pentsarazten digu, ziurrenik pulpitan eta. Beraz, ditugun aztarna guztiak Uribeetxebarriaren esanaren alde letozke, alegia, aski gardena da egungo azala beste liburu bati zegokiola.

Sermoitegiaren bigarren zatia Sancho el Sabio fundazioaren artxiboan (hemendik aurrera SS), man873 signaturapean gordetzen den bederatzi sermoiz osaturiko bilduma batean dago: hauetatik sei BFAko testuen letra eta hizkuntza molde bera dute. Sei sermoi hauetako lau zazpi bekatu kapital edo buruen gainean mintzo dira: gure eskutara lehenengo, bigarren, laugarren eta bosgarren bekatuei buruzkoak baino heldu ez badira ere, suposatzea da jatorrian bekatu guztiak ordezkaturik egongo zirela. Beste biek hamar aginduak dituzte hizpide, zehazki lehenengoa eta hirugarrena. BFAkoak bezala, hauek ere folio erdiko tamaina dute, eta sermoi bakoitza holandar erako⁸⁸ koadernatzea jarri zaio (artxibuzainaren arabera saldu zienak egindako koaldernaketa modernoak) eta bere aldetik gordetzen dira, liburuxka bana osaturik. Hala ere, koadernatze berriaren barnean oraindik antzematen da lehen paperezko azal zuria zutela, BFAkoek bezala; beraz, sei liburuxka ditugu guztira.⁸⁹ Hauetaz gainera, man658 signaturan letra eta gai ezberdinetako eskuizkribu orri solteak biltzen dituen karpeta bat dago, eta bertan gure testuen letra eta hizkuntza moldearekin bat egiten duen beste orri bat topatu dugu: hau ere erditik tolesturik dago, eta idatziriko alde bakarra tolesturaren

⁸⁸ Holandar erako enkoaternatzea material ezberdinez egindako koadernaketa da: normalean bizkarra eta azalaren heren bat larruz estaltzen dira, azalaren beste zatiarentzat oihal edo papera erabiltzen delarik. Bizkarrerako erabiltzen den materiala herena baino azalaren erdia estaltzen badu orduan “erdi holandar” deituko litzateke; gainera, liburuaren puntak ere bizkarraren material beraz indartzen badira puntadun holandarra izango genuke.

⁸⁹ Laugarren bekatu buruari dagokion sermoien orriak nahaspilatuta daude, azalezatzearen ondorioz, nonbait; hala ere, koadernatzaile modernoak orriak zenbatu zituzten, ez dago inolako arazorik ordena egokian irakurtzeko.

barrualdean dago, eskuinaldean, sermoi baten amaiera balitz bezala. Orrialde honek, bere txikitasunean, berebiziko garrantzia du artxibo bietako eskuizkribuen arteko lotura egiteko, BFAko Kredoaren hamabigarren artikulua gaineko sermoiari dagokiola uste baitugu. Esan dugunez, sermoi horrek ez du gainerako paperezko azal zuria, baina kanpoaldean SSkoa jartzen badiogu, kaierak besteen forma bera hartzeaz gain, testuaren koherentziaren aldetik ere ondo lotzen dira bi zatiak.

Hirugarren atala, ezagutu dugun azkena, Bizkaiko Foru Liburutegian gordetzen da (BFL).⁹⁰ Hemengo materialak bi bloketan bana ditzakegu, eskuizkribuen egoeraren eta liburutegiak jasotako dataren arabera: alde batetik *Sacramentu santuen explicaciñoea* izeneko 65 orriko kaiera dugu, VMSS-117 signaturapean gordea. Kaier bakar bat osatzen duten orriak baino ez dira; alabaina, besteak bezala lehenengo orria (i.e. plegu laurdena) zuri dago testudun lehenengo orrialdea babesteko edo. Hamalau sermoi biltzen ditu, guztiak zazpi sakramentuen gaineko azalpenekin: hiru gaztelaniaz daude, eta laugarren bat elebiduna da: euskaraz hasi eta une batetik aurrera gaztelaniara aldatzen da. Beste aldetik, BFLn hizkuntzaz eta letra motaz berdinak diren beste zortzi sermoi daude, liburutegiak geroago bereganatu eta SSkoak legez bakoitza bere aldetik holandar erako azalezaldura modernoaz eta signatura banaren pean jasoak, zehazki VMSS-138 eta VMSS-148 bitartekoetan. Hauek guztiek mandamentuen gaineko dotrina azaltzen dute *in 4^o* tolesturiko pleguetan, osterantzeko guztiak legez.

Gure edizioa atontzeko eta egin ditugun azterketa gehienetan erreprodukzioak erabili ditugu orokorrean: BFAko liburuari dagokionez, artxibora lehenbizikoz hurreratu ginenean originalari guk geuk egindako argazkiak erabili ditugu; SS eta BFLkoen kasuan, interneteko euren katalogoetan eskegirik dauden argazkiak. Hala eta guztiz ere, beharrezko izan denean originalera jo dugu, bai eta testuen alderdi materiala (ur-markak, gehienbat) aztertzeko orduan ere.

Sermoiok itzulpenak izanik, gero ikusiko dugunez (§ 4.3.1.1), komeni da gogora ekartzea itzulpena fase askotatik pasa daitekeela azken emaitzara heldu aurretik: hastapeneko zirriborroari bertan behar adina zuzenketa egin eta gero kopia txukun bat ateratzea izaten da ohikoena; eta horren ondoren kopia horrek berrirakurketa, zuzenketa edo aldaketa gehiago izan ditzake, aldaketok kopia txukunago batean bilduz... (cf. § 4.1.2). Testuaren txukuntasuna ikusita, sermoiok garbira pasaturiko testuak direla deritzogu, zeren eta letra argikoak baitira oro har, eta gehiketa eta zuzenketa gutxikoak.

⁹⁰ Gidor Bilbao ikertzaileak artxibo eta biblioteca katalogoetan egiten dituen bilaketa tematiei esker izan dugu honen berri: bihoakio hemendik gure esker ona.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Gainera, zuzenketa urriek ez dirudite testua itzultzerakoan egin ohi diren bezalakoak (cf. Morrás 2002: 225),⁹¹ baizik eta zirriborrotik kopiatzean egindako akatsak zuzentzekoak: idazterakoan bertan egindako *engañue* > *odiyoac* (7-64) aldaketa, bi lerro goragoko *engañue* hitzak eragindakoa bide da, zirriborrora begiak itzultzean okertu izanaren adierazle. Antzerakoa da tatxaturik dagoen *bacarric* (13-37) ere, jatorrizko zirriborrora jotzean geroago aurkitzen dugunarekin nahasia, nonbait. Egileak zuzendu ez dituen akatsek ere hori bera pentsarazten digute, alegia, gure testua euskarazko zirriborro batetik (itzulpenaren aurreko bertsio batetik) egindako kopia txukuna dela: adibidez, *orain* (1-73) dugu *eroan* beharko lukeen tokian, itxuraz jatorrizko euskal hitza perpausaren zentzuari begiratu gabe gaizki irakurri izanaren ondorio. Kaieren antolakuntzak ere garbira pasaturiko kopia direla berretsiko luke: gehienetan testua garbi idatzita dago, zuzenketarik gabe ia, eta txukun atondua, sermoi bakoitza bere kaierean. Ostera, BFLko sakramentuen gaineko sermoi bildumak badu zirriborro edo lehenagoko idaztaldiaren itxura, zuzenketa gutxiarekin eta nahiko garbi egon arren: tinta aldaketak daude sermoien barnean, hasi eta buka idatzi ez direlako seinale; eta, jadanik aipatu dugunez, sermoietako bat bat-batean euskaratik erdarara pasatzen da... Bildumatxo honetan deigarriena, hala ere, guztiak kaier bakarrean bilduta egotea litzateke: suposatzekoa da, besteek erakusten duten ohiturari jarraiki, ondoren garbira pasa eta kaier ezberdinetan antolatzekotan geratuak direla.

Honekin guztiarekin, nahiz eta beste lekukotasunik gabe ezinezkoa izan egilearen lanak zenbat urrats zituen jakitea, gutxienez hiru egoera ditugu ordezkatuak gure lekukotasunetan: batetik, erdal iturritik egindako laburpena, iturriaren hizkuntza berean; ondoren, itzulpen gordina edo haren hurrengo bertsio zuzendua; eta hirugarrenik, testuaren azken bertsioa, kaierean antolatua (cf. § 4.1.3). Atal honetan, dokumentuak aurkezteaz gainera, artxibo ezberdinetan gordetzen diren sermoien arteko loturak frogatzen saiatu gara datu kodikologikoak erabiliz, eta lotura hori frogatu ere frogatu dugulakoan gaude. Alabaina, bestelako ezaugarriek ere testuaren batasuna berresten dute, hots, sermoien gaiak (ik. § 4.1.3) eta hizkuntz ezaugarriek (§ 4.2).

⁹¹ Itzulpen baten lehenengo urratsetan espero liratekeen zuzenketak nahiko gardenak izan ohi dira; ohikoenak itzulpena eta originala berrikustean gertatzen diren aldaketak dira: hasieran jarritako hitza adibidez bere sinonimo batekin aldatzea, bigarren hori esanahiarekiko zehatzagoa dela erizten delako. Itzulpenetan zuzentzen den beste ezaugarriak iturri hizkuntzaren eta helmuga hizkuntzaren arteko eraginak dira; adibidez, itzulpenean gertaturiko kalkoak (hitz ordena adibidez) zuzentzeko egindako aldaketak (cf. Morrás 2002).

4.1.2. Data

Eskuizkribuetan ez dugu testuaren historiari buruzko inolako daturik: ez nork idatzi zituen, ez non idatzi ziren, ez eta noiz edo non irakurri edo predikatu ziren. Hauxe da dakigun bakarra: artxiboek zeinek bere aldetik erosi zizkiotela liburu-saltzaile berari,⁹² eta honek egindakoak omen dira SS eta BFLkoek dauzkaten koadernaketa modernoak. Datu eskasia hau dela eta, bada, ur-marketara jo dugu, papera noiz egin zen jakinda *post quem* data bat lor dezakegulakoan (cf. Segurola 2001).

Hala eta guztiz ere, ez da erraza izan ur-marka gardenak aurkitzea; hasteko, materialaren egoeratik beragatik: papera oso zaharkiturik eta ilundurik dago eta testua oso tinta gogor eta ilunarekin idatzirik, eta honek orri gehienetan ur-markak nahiko ostendu ditu. Bestalde, eskuizkribuaren formatuak ere ez gaitu laguntzen: kaierak egiteko folioak erditik tolestuta daudenez, ur-markak halabeharrez tolesturan daude. Ondorioz, ezin izan dugu ur-marken argazki oso bakar bat ere lortu. Hala ere, artxibo guztietako sermoietan ur-marka zati bat behintzat aurkitzerik izan dugu.

BFA-ko liburuan, fedeko bederatzi eta hamargarren artikuluen inguruko sermoien artean idatzi gabe geratu den folio erdian ur-markaren ikuspegi garden bat dugu (marrazkiaren erdia, noski; ik. 2. irudia), paperaren ekoizte-dataz lagunduta gainera:⁹³ bata bestearen gainean jarritako hiru biribil edo O lotuez osaturik dago (tolesturagatik azken biak baino ez dira ikusten), eta bigarren eta hirugarren biribilen ezkerrean FIN irakurtzen da (paperaren kalitateari egiten dio erreferentzia, paper mehea dela adieraziz; cf. Segurola 2001: 229), eskuinaldean 1768ko data dagoen bitartean. BFAko beste orri zurietan, hiru *O* horien zantzuak ere ikusi ikusten dira, baina argiak ez izateaz gainera, badirudi haien goiko zatiak baino ez direla, dataren aztarrenik gabe. Dirudenez, hiru *O* marrazkidun ur-marka hau nahiko ohikoa zen garaiko papergileengan (Gaskell 1998: 91), eta BFAn behintzat horiek dira ikusi ditugun ur-marka bakarrak. SSKo sermoietan are zailagoa da ur-markarik topatzea, koadernaketa berriak egon litezkeenak estaltzen baititu; dena dela, *man658* signaturapeko folio

⁹² Datu hauek artxibuetako arduraduneeen eskuzabaltasunagatik jakin ditugu; honegatik, eskerrak eman nahiko genizkieke BFAko Julen Erostege jaunari, SSaren artxiboko teknikari eta ordenantzei eta BFLko Begoñe Madariaga andeari izandako eroapena eta harturiko lanagatik.

⁹³ Zenbait kasutan papergileak borondatez jartzen zuen arren, 1742. urtetik aurrera Frantziako legediak data jartzera behartu zuen; beraz, paper hau Frantziatik datorrela suposa dezakegu (Segurola 2001: 229).

Tenusen usen dulc
Salvatorea, eta Salva
Demonioen Cantive
Unpidue, setaric use
eta doctaric. eta alan
za Da usen baxiye.
bitua nomen noium q
san aen baxiye, se
eninoea, baxiye be

Oie Naxpi, Sobertije, an
Lecatu Capitalae di
Atunijec edobunic
neie, baye Conomp
cialae, puchitaxa Sac
Da Sobertije, ondo
coleraxame durb
Expitua d'ic' h'eduyf

Bort carren Mand
Da Bort gaxen Mand
ten Eusen Jangoric
ten Eusen guenae
es esuic eportea, es
ic, es Vergustae d
ic emortea. Ven da e


1. irudia: Hiru jatorrietako letra laginak (BFA, SS eta BFL)




2. irudia: 1768ko data duen hirurobilak (BFA)




3. irudia: 1771ko data duen hiru borobilak (BFL)




4. irudia: Hiru borobilen goiko aldea (BFL)



5. irudia: B. RAGUETE papergilearen izena (BFL)



6. irudia: 1773ko data duen hiru borobilak (BFL)



7. irudia: M. RAGUETE papergilearen izena (BFL)



8. irudia: BEARN jatorri izena, ARN letran alderantziz direlarik (BFL)

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

soltean paperaren egilearen izena argi agertzen duen kontramarka⁹⁴ dugu (ezin izan diogu argazkirik atera): M. RAGUETTE // BEARN.

BFL-ko sermoietan ur-marka identifikagarri gehiago ditugu, 14 orotara,⁹⁵ hauetan orrialde zuri gehiago daudelako halabeharrez. Sakramentuen gaineko sermoiak gordetzen dituen kaieran hiru biribil lotuez osaturiko ur-marka bera topatu dugu, hirutan beheko aldea (oraingo honetan 1771ko datarekin; ik. 3. irudia) eta birritan goiko aldea (4. irudia). Sermoi hauetan ere izan dugu papergilearen sinadura ikustea orrialde zurietan: B. RAGVETE (5. irudia). Marrazki bera dago, berebat, liburutegi honetan gordetzen diren beste sermoietako batzuetan ere, baina 1773ko datarekin (6. irudia), eta SS-ko orrian bezala papergilearen sinadura M. RAGVETE da (7. irudia). Paperaren jatorria ere markaturik dugu ur-marketan: BEARN (8. irudia).

Nicolai-k bi Raguette lekukotzen ditu Bearnen XVIII. mendeko bigarren erdian bere “Table Chronologique des maîtres papetiers” atalean (2006 [1935]: 165-168): Bertrand (gure ur marketako *B. Raguette*-rekin identifika dezakeguna) eta izenik ez duen beste Raguette bat, gure *M. Raguete* izan daitekeena. Honezaz gain, *M^e Raguette*⁹⁶ baten berri ematen du 1774 eta 1781. urteetako dokumentuetan (*ib.* 159 eta 161), eta zehazki 1774. urtean Espainiara *fleuret aux trois 0* eta *gros bon aux trois 0* (gure sermoitegiko atal ezberdinetan aurkitu ditugun filigrana berak) motako paperak bidaltzen zituela seinalatzen du.

Gogoan hartzekoa da ohikoa dela eskuizkribu bat eta berean paper ezberdinak (eta ur-marka ezberdinak, beraz) topatzea (Segurola 2001: 227). Alabaina, halabeharrez edo bestela, guk berreskuratu ditugun guztiak jatorri bera dute, hots, bilduma guztietan zehar (BFA, SS eta BFLko bildumetan) paper bera erabiltzen da: denak dira Bearnen XVIII. mendean kokaturiko Raguette papergileek eginak, denetan papergile hauek zerabilten *hiru 0* marrazkia duen ur-marka dago eta guztiak mende horretan dataturik daude, 1768-1773 urte bitartean. Beraz, lehen frogatutako batasun kodikologikoari eta ondoren ikusiko dugun tematikoari paperen ur-marken batasuna gehituaz, badirudi ezar daitekeela kaier ezberdinen idatzaldien artean denbora tarte larregirik pasatu ez zela. Paperaren datek, gainera, testua datatzeko gutxieneko oinarria ere ematen digute: XVIII.

⁹⁴ Cf. Gaskell (2001: 79); kontramarka paperaren ur-marka nagusiaren beste aldean jartzen zen ur-marka txikiagoa da, eta normalean bertan paperaren jatorria eta egilearen izena agertzen ziren. Segurolak (2001) berdin tratatzen ditu ur-markak eta kontramarkak, bereizi gabe.

⁹⁵ BFLko 14 ur-marka irakurgarri hauetako gehienak errepikatzen dira, horregatik alerik osoena edo argien ikusten dena baino ez dugu irudira ekarriko.

⁹⁶ *M^e* laburdura ez du zabaltzen Nicolai-k, baina egungo frantsesean oraindik erabiltzen den tratamendu bat da, jatorrizko *Maître* ‘maisu, jaun’ batetik eratorria.

mendeko paperak egiten zenetik eta erabiltzen zen arte batz besterik gehienez urte beteko bizia izaten zuela gogoan harturik (Segurola 2001: 230), sermoitegiaren sortze data 1770-1780eko hamarkadara muga genezake edo, zuhurkiago jokatz gero, XVIII. mendearen azken laurdenera.

4.1.3. Sermoitegiaren gaia eta egitura

Lan honetan zehar “sermoitegi” hitza erabili eta erabiliko dugu testua aipatzeko, baina modu hertsian harturik, BFAko liburua eta BFLko sakramentuen gaineko sermoien kaiera baizik ezin dira halakotzat hartu, SSkoak eta BFLko gainontzekoak fisikoki lotu gabeko sermoi multzo bat baino ez baitira. Hala ere, gaur egun sakabanatuta egon arren, tematikoki ere argi dago sermoi guztiek batasun bat osatzen zutela, dotrinak jaso ohi dituen gaiak jorratzen baitituzte banan-banan: *Sinisten dut* edo Kredo (BFAko guztiek), sakramentuak (BFL), aginduak (BFLko zortzik eta SSko bik) eta bekatu buruak (SSko lauk) —cf. Aguirre Asteasukoaren *Erakustaldiak*, J. M. Zabalaren *Sermoiak* (Villasante 2000) edo Añibarroren *Doctrinas y sermones morales* (cf. Altzibar 1992: 101).

Sinisten dut otoitza, orduko ohiturari jarraiturik, hamabi ataletan banatu zuen egileak, eta atalok glosatu eta azaldu zituen sermoi banatan; horiek guztiak gordetzen dira BFA-ko liburuan. Atal horietako batzuetatik gai berezituak atera zituen: bederatzigarren artikulua bitan banatu zuen eta zortzigarren artikulua baitatik (*Sinisten dut Espiritu Santuagan*) Mendekoste egunerako sermoi bat atera zuen, guztira hamalau sermoi eskainirik Kredoari. Hauei erdaraz idatzitako sermoi bi gehitu behar zaizkie, bai eta bigarren sermoien osteko zuriunea aprobetxatuz egindako erdarazko oharra; beraz, guztira hamasei dira sermoiok. Sakramentuei buruzkoetan antzera: ohiko zazpi atalak daude ordezkaturik eta bataioari, aitortzari eta ezkontzari sermoi bina eskaini zien; guztira hamar sermoi eta, erdal sermoiak ere kontuan harturik, hamalau.

Beste bi gaietan, ordea, hainbat hutsune dira: bekatu buruak zazpi izanik, SSn diren lau sermoien multzoari hirugarren, seigarren eta zazpigarrenaren gainekoak falta zaizkie; hamar aginduen inguruko sermoietan (SSko bi eta BFLko zortzi), bestalde, ez ditugu bigarren, bederatzi eta hamargarren aginduei dagozkienak. Sermoitegiak, bada, tarteko hutsune garbiak dituenez gero (hirugarren bekatua eta bigarren agindua), aski gardena da ez bide dela bukatu gabe geratu; aitzitik, pentsatzekoa da hiru bildumetan

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

gordeak baino sermoi gehiago zirela, agian oraindik —nork daki— hauek bezala nork aurkituko zain han edo hemen gordeak.

Kredoaren eta Sakramentuen inguruko sermoietan tartekaturik ageri diren erdarazko sermoiak ez dakigu garbi zertarako diren, baina betiere inguruan dituzten euskal sermoien gaiekin bat egiten dute. Hori kontuan harturik, lehen esan bezala, pentsa genezake sermoitegian idazlearen sorkuntza prozesuaren hiru faseren aztarnak ditugula ordezkatuak: (1) jatorrizko sermoiaren erdal laburpena, (2) euskal itzulpenaren zirriborroa eta (3) itzulpena txukun kopiatu eta atondurik kaier soltean.

Hipotesi honen arabera, bada, lehenengo urratsean idazleak iturri gisa baliatu zituen erdal sermoitegi argitaratuetatik (cf. § 4.3.1.1) sermoiak aukeratu eta haien erdal laburpena sortzen bide zuen: horixe da, hain zuzen, tartekaturiko erdal sermoiek ordezkatzan duten urratsa. Kredoaren liburuxkan diren bi sermoiek kaier baten amaiera geratu diren orri zuriak aprobetxatuz egindako zirriborroak dirudite: sermoiotan zuzenean hasten da inolako izenbururik ipini gabe, laburduraz beteriko testua da eta letra euskal sermoietan baino arinago egingo dela dirudi. Gainera, euren iturria aurkitu dugu eta biak beretik harturik daude, Jaime Baron-en *Luz de la fe* liburutik (cf. § 4.3.1.1); beraz, hauek lehenengo urratsean leudeke: irakurritako erdal testuaren laburpenak baino ez dira.

Bigarren urratsean erdaraz egindako laburpen horren itzulpena egingo zukeen idazleak, agian itzulpena egokitzen eman arteko idaztaldi bat baino gehiago egonik. Nolanahi ere den, urrats honen lekukotasun bakarra dugu, sakramentuei buruzko lana hain zuzen, eta honen arabera ondoriozta genezake pausu honetako testuak zirriborro kaieretan egiten zituela. Sakramentuen kaier hau itzulpenaren eta azken garbira pasatzearen arteko pausu batean kokatuko litzateke (cf. § 4.1.1 atala, non zirriborro bat izan litekeela iradoki dugun). Hemen, gainera, euskaraz hasten den sermoi bat erdaraz amaitzen da tarterik gabe: ez dakigu zergatik egingo zuen horrela, kasuistika oso zabala delako,⁹⁷ baina argudio garrantzitsu baten aurrean gaude proposaturiko zirriborro kaiera dela baieztatzeko. Nola ez, garbira pasatzearen edo itzulpenaren momentuan gai horri loturiko testu berriak aurkituz zihoanez, bigarren urratsez gainera lehenengoaren zantzuak ere baditu kaiera honek: euskal sermoiekin batera lehen urratseko erdal

⁹⁷ Posibleena da iturritik zuzenean itzultzen hasi eta zaila zela ikusirik laburpena erdaraz jarraitzea, baina hau ez da aukera bakarra eta baliteke, gauzak gehiago nahastuz, lehenengo urratseko erdal laburpena itzultzen zebilenean hau bukatu ez zuela ikusita, itzultzeari utzi eta erdal laburpena amaitzeari ekitea.

sermoiak ere badira, aurrekoan bezala guztiak liburu beretik atereak (cf. § 4.3.1.1); hauek guztiak kaier bakarrean nahasturik.

Azken urratsean (3), itzulpena txukun kopiatu eta atontzen bide zuen kaier solteetan eta honelakoak dira sermoi gehienak: bai BFAko euskal sermoiak eta baita SSKo eta BFLko sakramenduez beste sermoiak ere. Gure edizioan sermoitegia sakabanatu aurreko itxuran berreraikitzen ahalegindu gara, diren urrats guztiak bilduz eta denborarekin sortu diren sermoien arteko loturak eta hausturak alde batera utzita, dagokion atalean (§ 7.1) azalduko dugunez.

4.2. Sermoitegiaren hizkeraren azterketa

Testuaren materialtasunak eta tematikak sermoitegia sortzez lan bateratua dela erakusten digute, eta hizkeran ere gauza bera antzeman daitekela ikus genezake, ez baita ezberdintasun askorik sermoi batetik eta besteetarako honetan. Gainera, bertan islatzen den hizkera oso berezia denez, jatorriari buruzko hizkuntzaz kanpoko inolako daturik ez izateak are garrantzitsuago egiten du haren azterketa. Atal honetan, bada, testuko ezaugarri interesgarrienak deskribatuko ditugu. Ezaugarriok hautatzeko hiru arrazoitan oinarritu gara bereziki: (1) arkaismo zein berrikuntza izanik, testua historikoki kokatzeko argiren bat egitea; (2) testua geografikoki kokatzen laguntzea; (3) euskararen historiarako jakingarri izatea. Honela azpimarratutako ezaugarrietan oinarrituta ondoko atal batean (§ 4.4) testuaren kokatze historiko eta geografikoa egiteko aukera izango dugu.

Testuko hizkera aztertzeke ohiko eskemari atxiki gatzaizkio, orain Mounole-ri esker (2011) batik bat sakonago azter daitekeen aditz sistemari atal berezi bat eskainiz bada ere: honela, grafia eta hotsak (§ 4.2.1), morfologia (§ 4.2.2), aditz sistema (§ 4.2.3), sintaxia (§ 4.2.4) eta aldaera lexikoak (§ 4.2.5) izango ditugu hizpide. Atalez atal, aukera dagoen guztietan, testuko lekukotasunak ingurukoekin konparatuko ditugu, metodologiak (§ 2.4.1.2) eskatu bezala, horretarako mugaturiko eremuan zehaztu ditugun aingura testuak erabiliz (§ 3.4). Horrezaz gain, interesen bat izan dezakeenean, euskara guztiaren datuak ere erabiliko ditugu, gehienbat *Euskal Klasikoen Corpusa*-k

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

(hemendik aurrera *EKC*) eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-k (*OEH*) ematen duten erraztasuna baliatuz.

4.2.1. Grafia eta hotsak

Delako hizkeraren hotsetara heltzeko bitarteko ezinutzizkoa izateaz gain, grafiak edozein egileren heziketaren eta ezagutzen berri eman diezaiguke, eta bigarren ikuspegi honi dagozkion ondorioak testuaren literatura eraginari buruzko atalean (§ 4.3.2.1) emango ditugu.

4.2.1.1 Azentuak

Oso gutxi dira testuan azentua markaturik duten hitzak, testuaren luzera kontuan izanik. Ezer baino lehen, zehaztu behar da <i> letraren gaineko puntua tilet moduko zerbait denez gero, testu zahar askotan bezala, ez dagoela azentutik bereizterik, eta honegatik azterketatik kanpo utziko dugu, eta edizioan ere ez ditugu markatuko. Gainerakoan, bi motatako tiletak erabiltzen ditu sermoitegiaren egileak: zorrotza (á, é...) eta, maizago, zirkunflexua (â, ê...). Dударik gabe baliokidetzat eman behar ditugu, testuan zehar *áen* eta *âen* bezalakoak aldizkatzen baitira.

Nolabaiteko sistematikotasunaz markatuta agertzen den hitz bakarra *ha* erakuslea eta haren eratorriak dira: *á* (zazpi aldiz), *áec* (behin), *áen* (lautan) eta *â* (65 aldiz), *âec* (lautan), *âen* (45 aldiz),⁹⁸ betiere azenturik gabeko *a* (10 aldiz), *aec* (30 aldiz) edo *aen* (105 aldiz) formekin lehian. Hauek azentuok, oinarrian, XVIII. mendean Espainiako Akademiak emandako ortografia arauen arabera dira: “La misma nota, ó virgulilla [*i.e.* tilet] se ha de poner sobre qualquiera de las vocales, *a, e, o, u*, quando hablasse por si sola, v.g. *á Juan, ò á Pedro, ú á otro*” (1741: 258).⁹⁹

Gainerakoak adibide isolatuak dira, behin edo askoz jota birritan bakarrik azentuaz lagunduak. Testuko hitz gehienek azenturik ez dutenez, ez da erraza erabakitzea zer adierazten duen. Dena dela, gehienetan azentua hasierako bokalaren

⁹⁸ *Áen* ez bezala, <*âen*> formak bi adiera ditu: erakuslea ez ezik *hain* formaren aldaera ere izaten da testuan, agian halabeharrez, zeren bigarrena askozaz maizago agertzen baita.

⁹⁹ Ohitura horren beste erakusgarri bat bide da sermoitegiko *ò* interjekzioa: tileturiko 25 adibide ditugu azenturik gabeko 26ren aldean.

gainean doa (*ádulteretan, áfuerza, áfrontue, ápropositu, árguiyen, âla, âlan, ôcultuyn, ômisiñoec gaitic, ôgueta amabi, ôguei* eta *êgas*), itxuraz beste arrazoirik gabe; beraz, baliteke bokaldun hitz hasierak markatu eta aurreko hitzetik banatzeko nolabaiteko baliabidea izatea. Ezaguna da Erdi Aroko eskuizkribuetan baliabide ezberdinak erabiltzen zirela helburu horrekin —eta are beranduxeago ere, Lazarragaren eskuizkribuan den *o* bokalaren aurreko </> kasu; ik. Gómez & Urgell 2010: 84; cf. Sánchez-Prieto 1998: 102.

Bestelakoak dira *lélengo, eudénac, Jaunéeu* eta *tormentú*, hitzontz beste agerpenak testuan tiletik gabe badira ere: adibide hauen atzean arrazoi fonikoren bat egon baitaiteke. Bereziki argia deritzegu lehengo biei;¹⁰⁰ izan ere, badirudi jatorrizko *e* bikoitzak eragindako nolabaiteko erliebe fonikoa markatzen dutela azentu hauek (cf. Zuberoako *alabá* > **alaba-a*; *FHV* § 5.2), kontuan izanik ez dagoela behin ere ***leelengo* edo ***eudeenac* formarik testuan (bai *leen*; cf. § 4.2.2.1).

Mendebaldean gaur egun azentuera molde nagusi bi aurkitu dira (Hualde 1997; Gaminde 1995a): *doinu-azentua*, Bizkaiko kostaldekoa, eta *indar-azentua*,¹⁰¹ bi azpi-eredutan banatzen dena: *azentu mugikorra* duten hizkerak (non azentua esaldiari ezartzen zaion) eta *azentu fixoa* dutenak (non azentua hitzak daraman). Azentu mugikorreko herrietan, baina, badira *oinarri markatuak* deitzen direnak, hots, esaldiko azentua beharrean euren azentu propioa duten hitzek (cf. Hualde 1997: 155). Ez da lan bereziturik egin azentuon jatorria erabakitzeko, herriz herri aldatzen baitira, baina badirudi hitz markatuak direla maileguak, hala zaharrak nola modernoak, konposatuak, eta eratorpen atzizki batzuek ere azentuan eragin dezakete (*ib.* 171).

Gure adibideetako *lélengo* hitza markatua da Zeberion behintzat —gure azkerketa eremuan kokatzen den herria— (Etxebarria 1991: 309), eta behar duen tokian darama azentua. Honela, proposa dezakegu azentua bokal bikoitzaren ondorena dela zenbait hitzetan, eta modu honetan, Hualderentzat azalpen zaila duen *belárri* hitzaren (Hualde 1997: 171) azentuaren jatorria ere uler genezake (cf. *belarri* aldaera; *OEH*, s.v. *belarri*).

Azken azentu ereduaren artean lotura estua ei dago, eta azentu fixoa mugikorren berrikuntzat jotzen du Gamindek: honetarako erabiltzen duen argudioen artean bada Arrankudiagan (azentu fixoa duen hego-sartaldeko herria) berba markatu batzuk direla; hots, edozein deklinabide kasu izanik, azentua beti erroko bokal berean daramate, eta

¹⁰⁰ *Jaunéeu* adibidea ez da azaltzen erraza (ik. § 4.2.2.1).

¹⁰¹ Azentu mota bi hauen ezaugarri orokor nagusietarako, ik. Hualde 1997: § 3.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

horregatik erabaki daiteke egun azentu fixoa duten herri honek lehen azentu mugikorra zuela (Gaminde 1995a: 193). Hipotesi horretatik eratortzen da Arrankudiagan hitz horien azentua arkaismo legez mantendu dela. Badirudi, hortaz, bertan behintzat azentuera fixoa ez dela zaharregia. Arrazoi beragatik *berri-berritzat*, “azken belaunaldietan gertatutako berrikuntza”, jotzen du Hualdek Gipuzkoan egun aurkitzen den azentuera (Hualde 1997: 231).

Hasieran esan denez, adibide gutxi dira testuan, eta direnak ere eskuarki errazago lotu ahal izan ditugu ohitura grafikoekin azentu fonikoarekin baino. Alabaina, ohitura grafikoez kanpoko adibideek indar-azentu mugikorreko bariedade bat dela iradokiko lukete, baina hain gutxi izanik ez dago hizkeraren azentua berreraikitzerik, euskal azentuerak ñabartasun ugari baititu.

4.2.1.2 <h> grafema

Testuan diren *hh* gehienak hitz hasieran ageri dira, normalean hatxedun eta gabeko aldaerak aldizkaturik direla: *hederra* (behin, vs. zortzi *ederra*), *hume-* (68 aldiz, vs. 3 *ume-*), *hemastea* (behin, vs. 16 *emaste*), *hostu* (behin, vs. 33 *ostu-*), *hondasun-* (birritan, vs. 105 *ondasun-*) eta *ha* erakuslea eta haren eratorriak (hatxe gabeak ugariago). Kasu gehienak azaltzeko, ezaguna da hitz hasiera markatzeko baliabide gisa <h> erabiltzeko joera zegoela gaztelaniaz antzina, eta euskaran ere bada horrelakorik, Mitxelenak iruzkindu bezala *RS*-ko *hh*-ak azaltzean (Mitxelena 1979a, *OC XI*: 159). Aukera honek sendotuko luke azentuaz esandakoa, alegia, egileak halako joera bat izan zuela hitz hasierako bokalak markatzeko, dela azentuaz, dela <h>z. Berezia da, halaber, *hume-*, Hegoaldean garai zaharrenetatik (Betolaza, Beriain, *RS*, Isasti...) idazten baita *hh-z* (cf. Lakarra 1996a: 22, *RS*-tan diren adibideetarako, eta Ulibarri 2010a: 45, *VJ*-ekoetarako). Gainera, XVIII. mendetik aurrera *h*-dun forma honen erabilera Larramendiren eraginez indartu zen, bere hiztegian (s.v. *humano*) lat. *humanus*-ekin lotzen baitu, “sin cansarnos en si se ha de escribir con aspiración o sin ella” (ap. *OEH*, s.v. *ume*).

ha erakuslean <h> erabiltzeko arrazoia hitzari gorputz grafiko gehiago emateko asmoa litzateke; eta analogiak azaltzen du, jakina, *ha* ez ezik haren eratorriak ere <h>z idaztea. Ikusten denez, honetan ere *há* edo *áen* formetan azentuari eman diogun arrazoi bera genuke.

Jatorrizko hizkuntzaren grafia mantentzen duten mailegu gordinak ere badira azkenik: *humildede*, *huesped*, *hebreo*, *hacienda*... Adibide bakarra dugu sermoitegi osoan non gaztelaniazko *h*-a ez den gorde: *embrac*, honen parean hainbat *hembra*- diren bitartean. *Hortu*- (8 aldiz, *vs.* bi *ortu*) eta *horma* (behin, *vs.* *orma* bat) mailegu zaharrak ere arrazoi etimologikoak azaltzen bide ditu.

4.2.1.3 <j> eta <y>

Gure testuan, testuinguru berean ez ezik hitz beretan lehia dira bi grafema hauek. Sistematikoki <j>z idazten ditu *Jaun* eta *Ja(u)ngoiko*; bestalde, *joeragin*, *jaietza* (< **jaiatza*), *jaio*, *jakintsu*, *jatsi*, *jan* eta *jasteko* hitzetan *j* ~ *y* grafemen arteko aldizkatzea dago. Zehazkiago, <j> grafema dugu nagusi hitz batzuetan: *joeragin* 2 *vs.* *yoeragin* 1; 16 *jai(y)o* *vs.* 6 *yai(y)o*; 5 *jaiyetza* *vs.* 0 *yaiyetza*. Besteetan, ordea, <j> dago gutxiengoan: 4 *jasi* *vs.* 12 *yasi*; 3 *jan* / *jaten* *vs.* 40 *yan* / *yaten* eta *jasteco* 1 *vs.* 4 *yasteco*; *jakin* eta eratorrietan ere, nahiz eta *jaquinsu* 2 *vs.* 0 *yaquinsu* izan (cf. § 4.3.2.1.1.1.2), honen aldamenean 36 *yaquin* eta *yaquituri* 1 baditu. Adibideok ikusita, badirudi <y>ren alde egiten duela idazleak; honetan bermatzen gaitu mendebaldean datibo marka gehitzean aditz laguntzaileetan ere (*yaco*, *yatan*...; cf. *FHV* § 9.5) <y> grafia bakarra izateak.

Grafiok zein hots adierazten duten edo dituzten erabakitzeke, lehenik eta behin gogoratu behar dugu gaztelaniaz <j> grafemak hasiera batean /Z/ hots palatala islatzetik /x/ belarea islatzera jo zuela, /Z/ > /x/ bilakabide fonetikoaren ondorioz. XVII. mende hasieran jada /Z/ > /x/ aldaketaren adierazgarri oso argiak daude (cf. Cano-Aguilar 2008a: 839); gure idazlearen garaian, beraz, bilakabidea gauzaturik zen eta <j> dagoeneko /x/ baino ez zuen adierazten gaztelaniaz.

Euskaraz baina, grafia hori asimilatu zenean, **j* legez berreraiki den hots palatalaren ondorenak adierazteko erabili zen. Hots honek [j] > [š] > [x] bilakaera izan zuen (*FHV* § 9), eta hizkera bakoitza bilakaeraren une ezberdin batean geratu zenez, <j> hots ezberdinak adierazteko grafia bihurtu zen, ahoskera ezberdintasunok grafian islatu gabe (*FHV* § 9.2). XVIII. mendean, euskal ortografiaz gogoeten barnean, Larramendik <j> latin erara ahoskatzea arautu zuen (ik. *FHV* § 9.3), eta Kardaberazek <i> idatzi behar zela aldarrikatu. XIX. mendean, berriz, Añibarro eta Zabalak <y>

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

grafia proposatu zuten honen eta <j>ren erdal ahoskera belarea ezberdintzeko edo (Urgell 2012: § 4.1.1; hemen ik. § 4.3.2.1.1.1.2).

Hainbat argudio ditugu, oro har egileak <j> erabiltzen duela /x/ ahoskerarako eta <y> beste hots bat (*j-ren ondorengoa) islatzeko. Alde batetik, mailegu berrietan <j> dugu beti: *jueza, judiyo*... Bestetik, berriz, <y> berraurkitzen dugu ia beti ‘i + bokal’ testuinguruan sortzen den epentesian (*criyedu, arguiye, misteriyo*...), baita ‘Vj + V’ testuinguruan ere (*baye, anaye, gueyego, sustreye*...), tradizioari jarraiki.¹⁰² Horrezaz gainera, azpimarratzekoa da mailegu bat ere <y>z idatzi duela (*yarro*, cf. gazt. *jarro*) eta latinezko hitzak ere gehienetan <j>z gabe <y>z idatziak direla: *yustitiæ, conyugum, eyus*...¹⁰³

Ondare zaharreko hitzetako <j>k azaltzeko, berriz, bi aukera dira: edo idazlearen hizkeran *j fonemaren /j/ > /x/ hots aldaketa hastapenean egon eta ahoskeran ere gertatzen zen bikoiztasuna adierazi nahi dute aldizkatzeek (egun sartaldeko Orozkon /x/ ahoskera dago),¹⁰⁴ edo aldizkatze grafiko hutsa da, orduko eta lehenagoko euskal idazleen ereduak baldintzatua. Lehenengo azalbidearen aldeko argudioak dira sartaldeko bizkaieran diren /x/-dun hitz markatuak dira, hauek baitira <j> grafia gehien darabiltenak: esan bezala, *Jaun* eta *Ja(u)ngoiko* hitzak salbuespenik gabe hala idatziak dira; eta sartaldeko hizkeretan belarez ahoskatzen diren hitz bereziak (cf. *FHV* § 9.2, 5. oh. Arrankudiagako adibideetarako) ditugu *joeragin* eta *anaje*, hauek ere <j> grafiarekin: *anaje*-k baina,¹⁰⁵ <y>ren aldeko lerrokatzea hain da garbia (*anaje* 1 vs. 12 *anaye*), non azalpen fonetikoa biziki zailtzen baita.

Honela, azalbide grafikoa jotzen dugu egiantzeko, aurreko adibide guztiak azalduko bailituzke: egileak gaztelaniaz ohiz kanpokoa den grafia bat hautatu du <y> idaztean, Beraz, pentsa genezake idazleak gutxi batzuetan <y> erabiltzeko erabakiari uko egin ziola, agian oharkabea, tradizioak hartaratuta (cf. § 4.3.2.1.1.1.2). Alabaina, azalpen honek ez du nahitaez balio beti <j>z idatzi dituen *Jaungoiko* eta *Jaun*-entzat,

¹⁰² Hauekin batera, *ViyV* grafia dugu tartekan: *jaiyo-, gueiyego, galsaiyeya, gueiyeguín*... Eta lantzean behin egileak <i> soila ere erabil dezake ‘Vj + V’ testuinguruan (*yaiioiten* behin, vs. 14 *jaiyo-*), *ia* interjekzioan (behin, vs. 96 *ya*) eta baita NOR-NORI adizkietan ere (3 *iacan* vs. 38 *yacan-*); alabaina, kopuruak adierazi bezala, salbuespentzat jo ditzakegu.

¹⁰³ Eta gogoratu gaztelanian bertan <y> horrek hots zehatz bat, herskari eta irristari sabaikari ahostuna, adierazten zuela.

¹⁰⁴ Cf. “En todo lo demás (*jakín, joan, jan, jausi*, etc.), suena [j] [*en Arrankudiaga*]. Creo que otro tanto sucede en Arratia. En cambio, en el límite valle de Orozco, en contraste que sirve en aquella zona para identificar inmediatamente a los orozcoarras, suena siempre [x]” (*FHV* 169, 5. oh.) eta “[Orozkon] /y/ sabaikari frikaria entzuten da askotan, baina badirudi /x/ belare frikariak leku gero eta handiago hartzen diola. Honela beti /jauna/ entzuten da, /yuan/ eta /juan/ elkarren ondoan, baina beti /yakin/ eta /yagi/” (Arana Murillo 1998: 91-92).

¹⁰⁵ *Joeragin*-en kasuan, adibide gutxi ditugu ondorio zehatzik ateratzeko.

ezaguna baita Euskal Herriko leku askotan belarez ahoskatzen direla, hizkerak hots belarea ez izan arren: esan ohi da elizgizonen eraginez zabaldu bide zela ahoskera hau mendebalderantz eta oro har Hegoaldeko lurralde guztietara, gipuzkeraren ahoskerari jarraiki, nonbait. cf. "...en palabras como *jaun* y *Jaungoikoa*, en que [x-], normal en Guipúzcoa y zonas próximas, va invadiendo la totalidad de la parte española del país, acaso haya que pensar en la catequesis y en la predicación" (Mitzelena 1967, *OC VII*: 658).

Azalpen grafikoak ondorio garrantzitsuak dakartza grafiaren historian, ondoren Añibarro eta Zabalak proposatuko duten bidearen (Urgell 1987a: 369) aitzindari bailizateke testu hau (§ 4.3.2.1.1.1.2).

4.2.1.4 Txistukariak: islapena eta neutraltzea

Ezaguna denez, Lehen Euskara Modernora arte txistukarien adierazpena defektiboa da Hegoaldeko testuetan, Larramendik Iparraldeko ereduak ekarri arte (Lakarra 1985c: 243) idazle gehienek ez baitute afrikatuak frikariatik bereizteko ahaleginik egiten, salbuespenak salbuespen (cf. Ulibarri 2011c: 378), sabaiaurrekoen ordenean izan ezik, non afrikatua <ch> digrafoa baliatzen zuten, gure testuan bezala: *echi, bacocha, guichi...* Dena dela, Larramendiren eragina ez dirudi berehala zabaldu zenik erabat; aitzitik, nahiz sistema berria maila bateko idazleek lehen unetik onartu, XIX. mendean ere oraindik bada sistema zaharra erabiltzen duenik, Plentziako Juan Kruz Renteria sermoigilea kasu (Etxebarria & Akasolo 1983: 408; hemen ik. halaber, § 4.3.2.1.1.1.2).

Sermoigilea Larramendiren aurreko tradizioari atxikitzen zaio, txistukari frikari eta afrikatuen arteko bereizketarik ez eta, areago, txistukarien adierazpen oso defektiboa erabiliz. Salbuespen bakarra *atseguin* hitzean dugu, sermoitegi guztian zehar <ts>z agertzen baita. Oso adierazgarria da, bai 't + txistukari' baliabidea darabilelako, larramenditarrek bezala, bai eta afrikatu apikaria dagoeneko neutralduta egotea espero baitugu, gure testuaren ez ezik sartaldeko gainerako araberak; ondorioz, hitz honen grafiak erakutsiko luke literatur eraginen bat izan zuela (cf. § 4.3.2.1.1.1.1).

Oro har, gehienetan <s> erabiltzen du gure idazleak txistukariak adierazteko, direnak direla: apikari frikaria (*euscun, asi, esan, santu...*) zein afrikatua (*losa, aberasa, iseso...*), bai eta bizkarkarien bi ordenak ere, afrikatu (*biosa, visise...*) zein frikari (*es, usena, negarres, san, gause...*). Era berean, /ʃ/ islatzeko ere grafia bera darabil (*ase*

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

‘haxe, haize’, *elasa* ‘elexa’...) ere, beherago ikusiko dugunez. Txistukarien adierazpen defektibo honek Mikoleta bilbotarraren eskuizkribuan (1653) aurkitzen den egoerarekin du antzik gehien: *osoa, abadessa, asseguin, isan, sagos, asserengo, enessat...* (cf. Atutxa 2013: 68); hala ere, honek kasuistika ñabarragoa du eta sabaikari frikaria adierazteko bestelako grafiak ditu bilbotarrak: <x>, <j>, <sh> (*ibid.* 69).

Hotsen aldetik, mendebaldeko euskararen gertatu zen txistukari sistemaren bakuntzeari egotz dakiok, oro har: honegatik Mikoletaren testua Bilbo aldean txistukari frikariak jadanik neutralduta zeudelako lekukotasuntzat hartu ohi da (Lakarra 1996a: 196; cf. berrikiago Atutxa 2013: 69). Hala eta guztiz ere, argi dago Mikoletaren datuak erdizka bakarrik erabili direla, azalpen horrek ez baitu balio afrikatuentzat, oposaketa /ts/ bizkarkariaren alde neutraldu zenez gero.

Txistukarien sistema osoa kontuan harturik, azalpen fonetikoaren ordez grafikoa ez ote den proposatu beharrean gaude. Garai hartako gaztelaniak dagoeneko txistukari bat baino ez zuen, alegia, /s/ (<s, ss> grafiaz): lehenagoko /s/ eta /ts/ XVII. mende hasierarako jada /θ/ bilakaturik ziren eta, hortaz, hots berri hori islatzen zuten <z, ç, c> grafiek (cf. Cano Aguilar 2008a: 843). Hala Mikoletarenean nola sermoitegian kausitzen dugun <s>aren erabilera orokorra, bada, alde honetatik uler liteke: XVII-XVIII. mendeetako euskal egileontzat grafia bakarra bide zegoen eskura txistukariak adierazteko, <s> alegia, eta honek euskal txistukariak oro (/tʃ/ izan ezik, esan bezala), zirenak zirela, letra horren bidez adieraztera eramán zituen. Azalpen honen ondorio da kolokan jartzea orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak, (cf. § 5.2.1).

Bestalde, Mikoletarenean bezala, <z> eta <c> ere badira gure testuan, oro har mailegu gordinetan (*astuciya, calabozo, comuniqueciñoereanic...*), espero bezala, baina baita bestelako hitz banaka batzuetan ere, gehienak <s>dun formekin batera. Mailegu zaharretan ere grafia etimologikoa bide da: *mezede, mecede* (3 vs. 12 *mesede*-), *curze, curce* (7 aldiz, vs. 7 *curs*-) eta *ceru-* (beti) ere, non azkin biak Eliz hitz bereziak izateak ere eragina izan baitezake (cf. § 4.2.1.3 *Jaun* eta *Jangoikori* buruz). Bestelakoak dira beste hauek:

aranja (sei aldiz, vs. lau *arans*-), *bioz-* (10 aldiz, vs. 84 *bios*-), *eriozea* (behin, vs. 44 *erios*-), *unze* ‘iltze’ (behin), *arzaiten* (behin, vs. 8 *arsaite*-), *izengo* (behin, vs. 91 *isengo*), *vizise* (behin, vs. 79 *bisis*-, *visis*-), *cein* (behin, vs. 92 *sein*), *ceinbet* (behin, vs. 87 *seinbet*), *cetan* (behin, vs. 4 *setan*), *cetaco* (behin, vs. 5 *setaco*), *celan* (behin, vs. 202

selan) celangoac (birritan, vs. 8 *selango-*), *ce* (birritan, vs. 351 *se*), *ceure* (behin, vs. 159 *seure*), *sorci* (behin, vs. 6 *sorsi*).

Hauekin batera, hiperzuzenketak ere baditugu, hala nola *ecuci* (behin, vs. 47 *ecusi*) eta *goze* ‘gosea’ (5 aldiz, vs. 14 *gose*). Adibide hauek adieraziko luke, sermoigileak euskaraz irakurtzeko nolabaiteko ohitura zuela eta (oharkabeen beharbada) hitzak beste liburuetan ikusi zituen bezala itzuri zitzaizkiola (cf. §§ 4.3.1.1 eta 4.3.2.4). *Ecuci* eta *goze* hiperzuzenketek, bestetik, haren hizkeran txistukari frikarien arteko oposaketa galdua zela adierazten bide dute, eta uste horretan sendotzen gaitu *mortifiquesiñoe* edo *acusesiñoeac* bezalako mailegu gordinen idazkerak. Aldi berean, afrikatuak grafikoki ez bereizteak hauen arteko oposaketan zer gertatzen zen jakitea zailtzen badu ere, *aberazac* (behin, vs. 17 *aberas*) adibidea oposaketaren galeraren lekukotasuntzat har genezake.

Buruhauste franko sortu zituen orduan eta gero ere, bestalde, /ʃ/-ren adierazpenak. Tradizioak <x> zerabilen, gaztelanian letra horrek noizbait izan zuen ahoskeraren bidetik (XVII. mende hasieran jada /ʃ/ > /x/ aldaketaren adierazgarri oso argiak daude, cf. Cano-Aguilar 2008a: 839).¹⁰⁶ Behin *gasho* idatzi zuen egilea (hasiera batean *gaso*, gero gehituko dio *h*), geroago Añibarrok eta Zabalak proposatuko duten bezala (Urgell 1987a: 363; hemen ik. § 4.3.2.1.1.1); baina beste adibide guztietan hots hau <s>z adierazten du egileak: *beraz*, *ase*, *artasea* ‘artaxehea, artotxikia’, *elasa*, *gaso*, *gueso*, *gasotu* edo *gosean*¹⁰⁷ (cf. § 4.2.1.10). Hau sendotzera dator gorago egindako hipotesia, hots, egileak oro har ordurako gaztelaniak zuen txistukari bakarraren <s> grafemaz baliatu zela euskararen txistukari (ia) guztiak adierazteko, <x> grafemaren /ʃ/ ahoskera zegoeneko zaldia baitzen.¹⁰⁸

Bidenabar, honi dagokionez, gure testuak bi mailegu geruza lekukotzen ditu. Batetik, <s> grafia daramaten *basetan* ‘baxetan, jaisten’, *basu* ‘baxu’ eta *cosidu* ‘koxidu, hartu’, gaztelaniaz oraindik sabaiurrekoa zutenean hartuak (zahar xamarrek,

¹⁰⁶ Beti aipatzen da badela euskara zaharrean /ʃ/ hots hau <ss>z adierazten duen idazlerik (*ellessa*, etab.), eta idazkera horixe agertzen da, <x>rekin batera gutxiengoan, baita Añibarroren *EL*¹-ean ere (ik. Urgell 1987: 362). Alabaina, goian aipatu dugun hipotesi berriaren arabera berraztertu beharko litzateke grafia horren esanahia.

¹⁰⁷ Eta ziurrenik *nos* eta *nas* ere, mendebadeko *naiz* > *nax* edo *noiz* > *nox* aldaketaz (*FHV* 192). Alabaina, kasu hauetan frikari apikaria ere adieraz dezake <s> grafiak, *nax* > *nas* aldaketa bitarte (ik. 4.2.1.4).

¹⁰⁸ Kasu honetan Mikoletak ez du gure testuarekin bat egiten, agian data ezberdintasuna bitarte: dudazkoa izan daitekeen *ascora*-z aparte (herskari aurrekoa txistukariak neutraltzeko testuingururik egokiena ohi da), bilbotarra erdal sistema zaharrari atxikitzen zaio <x> (*axechu*, *nax*) eta <j> (*elejea*, *chija eguin*) baitarabilta orokorrean, *sh* rekin batera (*chishea*) (Atutxa 2013: 69).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

beraz) eta, bestetik, <j> eta <g> grafiadunak: *congoja*, *enojadu*, *Magestade*, *diligenciya*... dagoeneko gaztelanian /j/ > /x/ gertatu ostean euskarara sarturikoak.

4.2.1.5 Bokal bikoitzak

Mitxelenak hiru jatorri esleitu zizkien bokal bikoitzei (*FHV* § 5.3): (1) deklinabidea, (2) elkarketa edo eratorpena, eta (3) “interior de temas nominales que hoy no se pueden dividir en unidades significativas menores”, hau da, edo antzina bigarren taldeari zegozkionak edo kontsonanteren bat galtzeagatik bokalak bilduta direnekoak. Euskara eranslea izanik, bokal bikoitzak etengabe sortuz (eta galduz) joan dira historian zehar, eta gainera bokalek asimilazio prozesuak pairatu dituzte askotan, sortze hori areagotuz (cf. *FHV* § 5.2).

Mitxelenak proposaturiko (1) taldean sartzen dira behin agertzen zaizkigun *demporaan* (7-52),¹⁰⁹ *adisquideetan* (4-14), *humeetan* (21-76), *confesiñoetaco* (25-7) eta *miseriyeetara* (43-26) adibideak, sermoitegi osoko bakarrak, askoz ere ugariagoak diren bitartean bokal bakarrekoak: *personetan*, *posesiñoetara*, *essenciyan*, *hileran* ‘lerroan’... Dakusgunez, inesibo singularraren adibide bakarra dugu, gainerakoak leku-kasuetako *-eta* pluralgilearen eraginez sortuak direlarik.¹¹⁰

Lehen taldekoak dira baita ablatiboazko deklinabide marka, *-reen bat(zu)* egituran asimilaturik ageri baita *-reen* formapean (cf. § 4.2.2.1): *fabulereen bat*, *gravereen bat*, *mortaleen bat*... Beti dugu egitura honetan (ablatibo adieran *-rean* bokalismoa baino ez du) eta bokal bakadun adibideak ere badira; oso parekatuak ageri diren arren adibide bikoiztunak ageri dira garaile: *-reen bat* formak 16 adibide ditu eta honen parean *-ren bat* formak 12 adibide. Hauekin batera genitiboaren adibideak ere badira (cf. § 4.2.2.3): jakina denez, mendebaldean genitibo singular eta mugagabeak *-r-rik* ez izanik

¹⁰⁹ Talde honetakoak lirake inesibo eta ergatibo singularreko adibideak, *a + a > ea* arauak ez dituztenak ukitzen; eta hauetan gainera antzeman dugu *RUI* erregela ez betetzeko joera duela egileak (cf. § 4.2.1.7). Honek pentsarazi digu ez ote den bokal bikoitzaren ondorioetako bat, *aa* luzeek bokalaren tinbrea mantentzeko joera hori eragin dutela, alegia. Hipotesi honen arazoa da bokal bikoitzen eragin horrek edozein bokal bikoiztutan izan beharko zukeela eragina; guk baina, deklinabideko kasu hauetan bakarrik ditugu honen adibideak.

RUI erregela ez ukitzea azal dezakeen beste aukera bat morfologi bereizketara jotzea genuke, ezaguna baita arau fonetikoan mugetako bat morfologi bereizketak galtzeko arriskua dela. Honen aurka dugu beste testuinguruetan morfologi bereizketak ez duela inolako eraginik *RUI* erregelan. NOR-NORI-NORK laguntzaileetako 3. pertsonaren datibo markarekin, adibidez, *deutsela* formak *deutsala* ‘diola’ zein *deutsela* ‘diela’ adierazten du *RUI* erregelak *tsa* (sing.) eta *tse* (pl.) berdintzen baititu.

¹¹⁰ *miseriyeetara* kasuan bokal bikoitza asimilazioak eragin du, jatorriz tinbre ezberdina zuketena bokalak baitaude oinarrian: *miseriya + etara > *miseriyaetara > miseriyeetara*.

(Castaños 1956) bokal metaketak sortzen dira bokalez bukaeradun hitzetan: *-Vaen*; denborarekin, eta asimilazio ezberdinen eraginez, berdindu eta bakundu egin direnak. Gure garaian (agian lehenago ere), *erdiaen* > *erdien*, **buruaen* > *buruen*, **otsoaen* > *otsoen*, etab. jadanik gertatu dira,¹¹¹ baina *a* eta *e* bukaeradun hitzetan, badirudi eta bokal batuketa konplexuagoa izanik beranduago bakundu zirela (cf. beherago *-eta* partizipioekin). Testuko bokal bikoitz gehienak hemen dira, eta ugari, gainera: *dudeen* ‘zalantzaren’ (< **dudeaen* < **dudaaen*), *fedeen* ‘fedearen’ (< **fedeaen*)... Gauza bera dugu kontsonantez bukatzen diren hitzetan ere: *lurreen* ‘lurraren’ (< **lurreen*); kasu honetan, agian bokal bilkura konplexua ez denez (*-C + aen* genuke, noski), bere horretan mantendu da luzaro. Testuinguru hauetan, baina, hasi dira ere bokal bakandun formak agertzen, hala nola *visiseen* / *visisen* ‘bizitzaren’ edo *yserreer* / *yserreren* ‘izarraren’ bikoteetan. Guztiarekin, genitiboaren bikoiztunak dira ugarien: *-a* eta *-e* amaieradun erroetara mugatuz honako emaitzak lortu ditugu:

	<i>-een</i>	<i>-en</i>
<i>-a</i>	135	93
<i>-e</i>	173	82 ¹¹²

Azkenik, lehen graduko artikulua eraginez (§ 4.2.2.8) sorturiko bokal metaketak ere ugari baditugu: *Jangoicoonec*, *misteriyoonec*, *preciosoonecas*, *Santaau*... eta inoiz are bokal asimilazioak ere badira tartean: *sentenciyoonen*, *diferenciyeeu*. Dirudenez, egileak testuinguru hauetan baino ez zituen ondo bereizten (eta ondorioz, islatzen) bokal bikoitzak, bertan luzaroen irauin zutelako nonbait. Egoera hau, baina, ez da bakarrik gure testuko ezaugarria: esate baterako, Añibarrok *Eskuliburua*-ren lehenengo edizioan (1802) leku-kasuetan eta genitiboan baino ez ditu bokal bikoitzak (Urgell 1985: 100).

¹¹¹ Salbuespen gutxi batzuk ditugu sermoitegian: *-i*-dun erroekin ditugu *arguiyeen* (vs. 2 *arguiyen*), *visiyeenac* (vs. 2 *visiyeen*) eta *urregorriyeen* (vs. 1 *urregorriyen*) adibide bana; *-u* erroekin, bestalde, badira *proximueena* (vs. 27 *proximuen-*) eta *Santueenac* (vs. 25 *Santuen-*) adibide bana ere.

Besterik dela dirudi *andiyeeen-* hitzean duguna: kasu honetan 31 adibide daude *e* bikoitzarekin, 6 *andiyen* parean. Zergatia ezin dugu argitu, baina egiantzekoa dirudi, adibide batzuetan bederen, forma mugagabetzat *andiyee* duela eta horren gainean eratzen dituela egiturak: honela, *-a* bukaeradun hitza legez funtzionatzen du genitibo hauetan (cf. *andiyeeatan* § 4.2.2.8, xx. oh.)

¹¹² *-e* bakardun genitibo hauek, gainera, bahetu ditzakegu, goian aipatu dugun bezala bokal metaketa bada bakuntzearen arrazoa, izan ere, *-a* erroedun 92 adibideetatik 55 *-ia* testuinguruan (*grazia*, *malizia*...) baititugu eta *-e* erroedun adibideetatik 33 *-ziñoee* edo *-oe* (< **-one*) testuinguruan.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

(3) taldean *leen* eta eratorriak (*leengo, leengoco...* baina *lelengo*) eta *seen* (< *zeren*) baino ez dira; tradizioan bokal bikoitzez lekukoturik dauden beste hitzek (*domeeka, maats, suur, oostu, jaan, zaar...*) bokal bakarria daukate sermoitegi honetan: *domeca, mas / mastui, surre, ostuiten, yan, sar / sarsaro...* Hau garaiko sartaldeko testuekin bat letorke, Añibarro ere antzera baitabil *Eskuliburu*-aren lehenengo edizioan, bigarren edizioan berrezartzen dituen arren (Urgell 1985: 101; hemen ik. § 4.3.2.1.2.4). Sarriaren lanetan ere, kontsonante baten galeraren ondoriozko *e* bikoitz gehienak *leen* hitzean eta bere eratorrietan agertzen dira, baina badira *leezco* ‘legezko’, *beeratu* ‘beheratu’ edo *zaarrian* ‘zaharrear’ bezalakoak ere, gurean ez bezala (Zuloaga 2010: 402).

Edonola ere, (2) taldea da nabarrena bokal bikoitzetan, eta are emankorrago asimilazioak direla eta. Hitz elkarketan *enojaaldigas* eta *enojaaldigues, aserraaldicas, boterasaiteco, esebereestasune* eta *yostoorras* ditugu,¹¹³ hauekin batera *boterasaiteco, aserraldi* eta *eseberes* (honen aldean lau *esebere es*) adibide bana diren arren.

Aditz-izenak sortzeko *-eta* atzizkiaz ere (ik. § 4.2.3.2) bokal bikoitzak sor daitezke, dela berez (*beteeta-*), dela behin jatorrizko tinbreak asimilatu ostean: Euskara Zaharreko idazleek, *-ae-* etimologikoarekin batera, *-ee-* eta are bakunduriko *-e-* ere dakarte maiz, bilakabidea burutu gabe zela erakutsiz. *VJ*-n (ca. 1640), adibidez, *konfesaeta, konfeseeta* eta *konfeseta* formak badira (Ulibarri 2010a: 55), eta antzeko egoera genuke baita garai bertsuko beste testu luzexketan ere. Testuan aditz-izen gehienek bokal bakuna baino ez dute (*ameta-* 38 adib., *beteta-* 11 adib., *participeta-* 14 ...), baina badira bakan batzuk bokal bikoitzarekin: *deseeta-* (27 adibide), *empleeta-* (8), *peleeta-* (3), *acarreeta-* (3), *falteeta-* (1), *parqueeta-* (1) eta *paseeta-* (1).¹¹⁴ Adibide hauetan bi erro mota ditugu: batzuk hiatodun partizipioak dira (*deseadu, enpleadu, peleadu, akarreadu, paseadu*) eta lau urrats dituzte bokala bakundu aurretik: (1)**deseaeta-* > (2) **deseeta-* > (3) *deseeta-* > (4) *deseta-*; beste batzuek, ordea, ez dute hiatorik (*faltadu, parkatu*) eta hiru urratsetan heltzen dira: (1) **amaetan* > (2) **ameetan* > (3) *ametan*. Bilakabide urrats ezberdintasunak azal dezake hiatodunetan bokal bikoitzak mantentzeko joera, baina hiatorik gabeko partizipioetan ere adibide pare bat izanik, proposa daiteke egilearen hizkeran (Euskara Zaharrear bezala) oraindik ez

¹¹³ *Sobreescrito* eta *maleechore* (eta *malhechore*) maileguak bereiz aipatzekoak dira: *CORDE*-ren arabera *sobreescrito* 1750-1800. urte bitartean erdaraz 5 adibide daude, baina bokal bakuna duen aldaera ugariago (29 lekukotasun). Berriz, *malhechor* (12 adibide) forma orokorra baino ez dago denbora tarte berean (1750-1800), baina *malehechor* aldaera ere lekukotzen du, 1571eko adibide bakarrarekin bada ere.

¹¹⁴ Aditz-izen hauetan bokal bakarrek adibideak ere baditugu: *empleta-* (1), *acarreta-* (2), *falteta-* (13) eta *parqueta-* (22).

dela amaitu bilakabidea testuinguru honetan, baina oso aurreraturik dela, zenbakiak ikusita:

	-etan	-eean
<i>Parkatu</i>	22	1
<i>Faltadu</i>	13	1
<i>Deseadu,</i>	0	27
<i>enpleadu,</i>	1	8
<i>Peleadu,</i>	0	3
<i>Akarreadu</i>	2	3
<i>Paseadu</i>	0	1

Aditz laguntzaileetan ere, sermoigilearen hizkeran oraindik pertsona edota aspektu marka metaketek sortutako bikoitzak gordetzen dira (*dauquee* ‘daukate’, *euqueela* ‘zeukatela’, *deusees* ‘dizkiete’, *leuquee* ‘lukete’, *beequila* ‘bazekiela’...), baina ez beti (*dauque* ‘daukate’, *deuse* ‘diete’): nahiz eta morfologia bereizkuntzak mugak jarri ohi duen halakoetan (*deuses* forma, adibidez, anbigua litzateke, **deutsez* ‘die’ zein **deutseez* ‘diete’ izan daiteke), bereizi behar horrek ez du mugarik jartzen gure sermoitegian. Gainera, badira are perpaus berean ere batera eta bestera idatziak (*gure estaudela [demonioek kondenatuei] sartuco deusees sugueac eta sapoac aoti eta yango deuses guibelac eta viozac*). Adizkietako bestelako hiatuetan, asimilazioak bitarte, bokal bikoitzak sortu ziren, baina bakunduak baino ez ditu sermoitegiak: *equin* (< *ekian* ‘zekien’), *eguinean* (< *egianean* ‘zegienean’), *daquin* (< *dakian* ‘dakien’), *dirudina* (< *dirudiana* ‘dirudiena’), *sirudila* (< *zirudiala* ‘zirudiela’)... (cf. § 4.2.1.7).

Aditz uzkurduetan ere sortzen dira bokal bikoitzak, dela aditz nagusi eta laguntzailearen artean (*yminteeudesan*, *eiteeben...*, eta *ae > ee* asimilazioaz *boteevela*, *boteebesalaco*, *acabeesasu...*), dela maiztasun handiko ‘izenkia + aditz nagusia’ aditz esapideetan: *verbeeiten*, *parqueescatu*, asimilazioa ere lagun. Hauetan, baina, ez da azken urratsera heldu eta ez dugu ***botevela* edo ***parqueescatu* bezalakorik.¹¹⁵

¹¹⁵ Konparagarri, Añibarrok badu *parkeska* (ik. *EKC*) eta *parkeskatu* (*OEH*, s.v. 2 *barka*), bokala bakundurik.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Amaitzeko, badira ohiko azalpenetatik at gelditzen diren bokal bikoitzak ere: izenkien artean, *bareeuena* ‘barauarena’ (vs. 8 *bareu-*) eta *Magdaleena* ‘Madalena’ (vs. bi *Magdalen-*) bitxiekin batera,¹¹⁶ deklinabidearekin loturik diruditen adibide ugari dira:

Jaunéeu eta *diferenciyeu* (1. graduko art.; vs. *noticiyeu*, 2 *eguiyeu*, *graciyeu*, *ygnoranciyeu* eta *diligenciyeu*), *aec lecuaaic* (3. graduko art.; cf. *aec escu Dibinuaic*), *tilinqueeric* ‘tantarik’ (partitiboa; vs. *tilinqueric*), *suaac*, *profeteaac* eta *aiteaac* (erg. sing.; vs. *suac*, 26 *profeteac* eta 6 *aiteac*), *egunaari* (dat. sing.; vs. *iluntasuneri*, 3 *osasuneri* eta *laguneri*), *aoaan* (ines. sing.;), *dagoanaatan*, *egunaatan*, *saburdaatan* ‘txerrikortan’ (ines. sing.?), *visisaaco* (leku-gen.; vs. 3 *visiseco*), *mendiyaatara* (adl. sing.), *egunaataguiño* (adl. buk. sing.), *salduiteaagas* eta *arguiyaagas* (soz. sing.; vs. 5 *-uiteagas*: *beguireuiteagas*, *aituiteagas*... eta 0 *-iyegas*), *eguiyaacas* (soz. pl.; vs. 0 *eguiyacac*).

Adizkietan ere baditugu azalgaitzak diren bokal bikoitzak: *ditueesanac* ‘dituenak’, *deusees* ‘dizkie’ edo *eguiyeela* ‘zegitela’ bezalako laguntzaile bakanekin batera, nolabaiteko taldea egiten dute erlatibozkoek: *dagoeena* ‘dagoena’ (vs. 72 *dagoan-* eta 2 *dagoen-*), *diñoeena* ‘dioena’ (vs. 10 *diñoen-*), 2 *equiyeen-* ‘zekien-’ (**edin*) (vs. 1 *equiyen-*), *eguiyeenean* ‘zegienean’ (vs. 8 *eguiyen-*)... eta *-la* konpletibok: *estagoaala* ‘ez dagoela’ (vs. 20 *dagoala*), *eguiyeela* ‘zegitela’ (vs. 3 *leguiyela*). Beste talde batekoa daiteke *daiiegun*, bigarren *i*-k kontsonante epentetikoa adierazten duela baitirudi (cf. 2 *deiyegun*).

Aukera genuke azentua edo inolako gailur prosodikoa markatzeko baliabidetzat hartzea, *lélengo* hitzean erabiltzen duen tiletaren pareko (cf. § 4.2.1.1); honela ageri dira literatur bizkaieraren hastapenetan: J. A. Mogelen hasierako obretan, jatorrian bokal bikoitza zenari azentua jartzen dio, kontrakzioaren adierazgarri (Altzibar 1991: 624). Honela, gure *jaunéeu* adibidean balizko azentu hori markatzeko baliabide biak batera izango genituzke; azalbide honen arazoa da adibideok ezin direla ezagutzen diren azentu-ereduen barruan sartu. Honetaz gainera, erabakigarriagoa da bokalok ez direla non-nahi agertzen, testuinguru zehatz batean baizik: morfema mugan, alegia; eta azentuarekin lotzeko aukera ezeztatzen du, bestelako zerbaiten markagarri direla

¹¹⁶ Bitxiak dira baita hiru bokaldun zenbait adibide ere: *Seen bildurre dauquesu* (12-71); *Elesaco semeeen biosac* (6-25); *santuen autoridedereeen bat?* (24-61); *leen sana deabruen esclavue* (14-50); *segaitic da deseetea injustamente* (45-10).

Hauen testuinguruak oso ñabarrak dira: 2 genitibo, ablatibo bat, *lehen* hitzaren adibide bat, eta hiatodun partizipioa duen aditz bat (*deseadu*); eta bakoitzaren adibideak oso bakanak; beraz, egiantzekoa da pentsatzea idazte akats direla, alabaina, bitxitasun horregatik beragatik bere horretan uztea erabaki dugu.

iradoki; alabaina, adibideak gutxi izanik, ezin ondorio ziurrik atera. Honelakoak ditugu baita Mogelen idazkeran ere, Altzibarrek *-aacaz* erakoak aurkitzen ditu, berak koherentziaren bidez (hots, beste pluralen pareko legez) azaltzen duelarik (Altzibar 1992: 430).

Ikusi denez, bokal bikoitzen jatorri zaharrenak (Mitxelenaren 1. eta 3. taldeetakoak; *FHV* § 5.3) galtzear dira bere hizkeran. Deklinabidean eta adizkietan, ordea, Euskara Zaharrea hasitako prozesua ez da amaitu, oraindik ere nabarmenak ziren egilearentzat bokal bikoitz horiek, ugari baino ugariago islatzen baititu, nahiz beti-beti ez. Gainera, etimologikoak ez diren bokal bikoitz asko ageri dira testuan, hain zuzen ere bokal bikoitz etimologikoak ugariarik diren bi sailetan: deklinabidean eta adizkietan. Ez dira errazak azaltzen, batetik ez baitakigu zehazki nolakoak ziren bokalok: Mitxelenak zioen bezala “no esta claro si debe interpretarse fonologicamente como cantidad larga o bien como geminación de vocales” (*FHV* § 5.2); beraz ezin dugu jakin zehazki zer adierazi nahi duen gure idazleak bokalokin,¹¹⁷ ez eta zergatik markatzen dituen batzuetan eta bestetan ez: aipagarri izan daiteke bokal bikoitzen adibide gehienak *a* eta *e* bokalekin ditugula, eta argiki bokal bikoitza behar duten *daquin* (‘dakian’) edo *andin* (‘handian’) bakarrez adierazirik egotea. Guztiarekin, bestelako ezaugarrietan ere berezia den idazle baten aurrean gaude: bere hizkeran idazteari ekin zion, eta badirudi bokal bikoitzak darabiltzala (ondoko literatur bizkaieraren antzekotsu; cf. § 4.3.2.1.2.4), guk antzematerik izan ez dugun baliabidetzat.

4.2.1.6 Bokal sudurkariaren itzala

Bokal sudurkariak, egun zubereraren baino gordetzen ez direnak, behinola orokorrak izan bide ziren, bilakabide orokor zenbaiten tarteko urratsak baitira: *VnV > VhV > VV (*anate* > *âhâte* > *ââte* > *aate*). Hala ere, normalean ezaugarria ez zenez idatziz adierazten (*FHV* § 1.2), datu positibo gutxi dira fenomenoaren hedadura eta iraupena ezagutzeko; baina jakin badakigu XVI. mendeko bizkaieran behintzat ezaguna zela, Madariagak eta Garibaik esplizituki aipatu baitzuten eta, bestalde, euren arrastoak antzematen baitira XVI eta XVII. mendeetako idazkietan: Kapanagak (1656)

¹¹⁷ Hala ere, Altzibarrek Markinako eskolako idazleak aztertutik, ikusi du “Juan Antonio eta Juan Jose Mogelek bokal bituak silaba bakar bat legez neurtu ohi zituztela beren bertsoetan” (1992a: 418); beraz, hasiera batean frogatuko luke fonetikoki bokal luze bezala ulertuko lituzketela idazleok.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

defektiboki adierazten ditu <^> ikurraren bidez, eta testu gehiagotan hauek antzemateko aukera dago egungo bizkaierarekin konparatuz (*FHV* § 1.2), Lakarrak (1996a) *RS*-etan (1596) egin duen berreraiketaren bidetik,¹¹⁸.

Bokal sudurkari hauen ondorioz, hainbat hizkeratan *i* bokalaren testuinguruan berrezartzeak gertatu ziren. Hedatuena *-ĩi#* diptongo sudurkarietan gertatu zen: Mendebaldeaz gainera Erdialde gehienez lehenengo testuetatik da berrezarririk (Leiz, Etxep... cf. *FHV* § 7.5), erdialdeko eremu batzuetan izan ezik, non *artzai* edo *usai*... bezalako bikoteak ugari diren.¹¹⁹ Mendebaldeko hizkeretan, gainera, *ĩV* hiatuetan sudurkaritasuna mantendu zen kontsonante sudurkari konpensatorio bat gehituz eta *ĩV* > *ĩñV* sortuz: *dîô* > *diño*, *sardîâ* > *sardiña* edo *-zione* > *-ziôê* > *-ziño* adibide usuetan dugunez (cf. *FHV* § 1.2). Gure sermoitegian diren *iñes*, *iñor*, *iño*, *iñontz*, *burriñe*, *diño*-adizkiek eta *-ziño* amaieradun hitzek erakusten digute kontsonante sudurkari konpensatorioa berrezarririk dutela, XVIII. mendeko mendebaldeko hizkera batean espero bezala.

Hala ere, testu honek badu ezaugarri bat inongo testutan deskribatu ez dena eta, antza denez, bokal sudurkariaren historia ezezagun xamarrean murgiltzeko aukera ematen diguna. Izan ere, *sei* ‘seina, haurra’, *oi* ‘oina’, *arrai* ‘arraina’, *mi* ‘mihia’ eta *usei* ‘usaina’ hitzetan bada txandakatze harrigarri bat bide honetatik azal daitekeena. Berbok, mugagabeen edo kontsonantez hasten diren atzizkiez lagundurik daudenean (*seittasun*, *oipetan* ‘oinpetan’, *oitera* ‘oinetara’, *miric*, *mireanic*, *useire*, *useiric*),¹²⁰ ez dute gaur egun mendebaldean duten kontsonante sudurkaria (i.e. *señ*, *oñ*, *arrañ*, *miñ*, *usañ*); atzizkia bokalez hasten bada, ordea, bai: *seiñe*, *oiñetan*, *arrañec*, *miñeri*, *useiñe*. Hauekin batera *mai* / *maiñean* ‘mahai / mahaian’ txandakatzea ere badago, eta bere aldetik aipatzea merezi du **main* lekukotu gabea baita mendebaldean.¹²¹ Alabaina, etimologikoki **māhāi* (< **banani*; cf. Lakarra 2011b: 698) izanik, *n* etimologikoen

¹¹⁸ Bergara aldeko Sarasketa hiztegitxoan ere (Aginagalde & Urgell 2012: 25) bokal sudurkariaren aztarnak badirela erabaki dute argitaratzaileek *RS*-rako erabilitako argudio bera erabiliz, alegia, Bergaran gaur egun *burdiña* esaten bada, hiztegitxoan ageri den *burdia*-k bokal sudurkaria iradoki dezakela. Argudio beraren arabera Arrasateko erreketan ere bederen (cf. Arriolabengoa 2008: 84 e. hh.) *diola*, *Mondragoe*, *trajioe*... bezalakoak ere bokal sudurkariduntzat eman beharko genituzke.

¹¹⁹ Eta ezta ekialdean ere, halako hitzetan bokal sudurkariak gaur egun arte mantendu baitira (cf. Camino 2011: 103),

¹²⁰ Cf. Mikoletaren elkarrizketa: *Seyn tazatan aseguindau edan, launti ala saconchu onetati?* (*ContTAV*: 195), non *lau* hitzaren sudurkaria jada ezarria dagoen kontsonante ostean (*laun* aldaeraz, ik. *OEH*, s.v. *lau*).

¹²¹ *OEH*-k (s.v. *mahai*) Iparraldean baino ez ditu lekukotzen *-n* dun aldaerak: *mahain* (L, BN, S), *mahin* (L, BN-lab), *main* (L-côte-sar, BN-lab).

arrastoa duten mendebaldeko beste adibideekin batera sar genezake: *antzi* / *anztu* / *anzitu*¹²² (*ahaztu* < **ānātz(i)(tu)* < **anatz(i)*), *onstu* (*ōhōstu* < **onostu*) (cf. *FHV* § 15.4).

Adibideotan oinarriturik, beraz, suposatzekoa da *semaiñe* ‘zemaia’ hitzeko *ñ*-a kontsonante epentetikotzat jo beharrean (ik. § 4.2.1.8), hauen pareko litzateke, eta haren mugagabea (sermoitegian ageri ez dena, tamalez) **semai* izango zela (Bizkaiko eta Arabako forma, bestalde; *OEH*, s.v. *zema*). Alderantziz, mugagabeen baino ez dugun *estrami* formak era mugatuan **estramiñe* beharko lukeela pentsatu behar dugu (cf. *OEH*, s.v. *estramina* eta *estrami*).¹²³

Txandakatze hauek dudarik gabe bokal sudurkari zahar haien aztarnak dira, eta honek aukera bi zabaltzen ditu: edo hitzotan *sēĩ*, *ōĩ*, *arrāĩ*, *mĩ*, *māĩ*, *semāĩ*, *usāĩ* eta *estramĩ* ahoskera mantentzen zen aztertzen ari garen hizkeran XVIII. mendearen bigarren erdialdean; edo, sudurkariak dagoeneko galduak izanik Mendebaldeko gainerako hizkeretan bezala, horren aztarna den *sei* ~ *seiñe* txandakatzea bakarrik gelditu zen. Testuak ez digu laguntzen hautua egiten: bokal surdurkariak markatzen ez dituenek, ez dago jakiterik jatorriz sudurkariak liratekeen *Vi*-z kanpoko diptongoetan zer gertatzen zen, hauetan ez baita berrezarketarik gertatu (cf. *FHV* § 15.4).¹²⁴ Berez, azalpen bata eta bestea, biak dira berdin egiantzeko. Kronologiari begiratuta, ordea, bokal sudurkariak zegoeneko galduak zirelakoaren alde makurtuko ginateke, eta txandakatze hutsa baino ez dela mantendu proposatu. Antzeko egoera litzateke egun Gernika aldeko *be* vs. *beian* txandakatzea, adibidez (Lakarra a.e.), nahiz eta bigarrenaren oinarrian legokeen **bee* ahoskera galdua izan.

Hau guztiagatik ere, Mendebaldean (gutxienez bazter eremuetan) sudurkariak uste baino nahikoa gehiago iraun zutelako lekukotasun argia da sermoitegia (cf. § 4.2.3.10), eta berrezartzearen fase ezberdinak ikusteko beta eman digu: honela, berrezarketa (*Ũ*)*ĩ*+*V* hiatuetan bakarrik hasi bide zen (*îês* > *iñes* bezalaxe *sêia* > *seiña*) eta geroago bakarrik hedatu analogikoki bere mugagabera (*seiña* → *seiñ*). Urrats honetan, kontsonantez hasten diren atzizkiak bokal bukaerako oinarria erabiliko

¹²² Gure sermoitegian *ainstu* (cf. § 4.2.5) aldaera ere bada, hapaxa dirudienek.

¹²³ Orain artean ikusitakoek, galderak sorrarazten dizkigu, ez bakarrik gure sermoitegiari begira, oro har mendebaldeko hizkeretaz ezagutzen denaren inguruan baizik. Izan ere, ohikoa da mendebaldean *oin* edo *sein* esatea, baina gure hizkeratik kanpo ez da lekukotu ***zemain* edo ****mahain* aldaerak.

Kontsonantea ez berrezartzea mendebal gehiengan, hitzaren silaba kopuruaren arabera dela pentsatu behar dugu: honela, -*ŨŨ* hiatu sudurkaria hirugarren silaban kokatzen denean (*zemāĩ* edo *mahāĩ* hitzean bezala) ez litzateke sudurkaria berrezarriko (Ekialdeko euskalkietan ez bezala; cf. Egurtzegi 2014: 165). Gure kasuan, beraz, sermoitegia mendebaldeko beste hizkeretatik bereizten da, berrezarketak ez baitu muga hau.

¹²⁴ Alabaina, aipatzea merezi du Kapanagarenean (1656) oraindik testuinguruotako adibideak badirela: *coroêa*, *doêac*, *erraçoêa*... sudurkaria markatzeko joera duen egilea izanik (cf. *FHV* 49).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

zuketen, *mireanic* (45-105) adibidean dugunez —(r)ean zena jadanik -rean forman fosilduta zegoelarik (ik. § 4.2.2.1)—. Tartean, baina, badirudi bigarren urrats bat egon zela: *mi/miñ-V* txandakatzea argia delarik, zuzenean *miñ* hitzaren mugagabetzat berrinterpretatu beharrean atzizkiak eransteko oinarritzat (*miñ-*) hartzen da urrats honetan, *miñerean* edo *oiñereanic* adibideetan ditugunez. Agerian denez, sermoigileak kontsonantez amaituriko oinarritzat ditu hitzok eta, hala, *e* paragogikoa sartzen du atzizkia gehitzerakoan.

4.2.1.7. RUI erregela

Zenbait tokitan $a > e$ itxidura gertatu da goiko bokal baten ostean, tartean kontsonante bat egon ala ez (*FHV* § 2.4). Itxidura honi De Rijk-ek “*Rui* erregela” izena eman zion (1970: 157) eta berrikiago Hualdek eta Gamindek *Low Vowel Assimilation* (1997: 213). Arau hau, egun Hego Euskal Herrian oso zabaldua, ez da hain ohikoa XIX. mende aurreko testu zaharretan, eta are gutxiago testu honetako sistematikotasunaz (*VJ*-en salbuespen nabariarekin: cf. *FHV* § 2.4 eta Mitxelena 1954a, *OC XI*: 371; gainerako lekukotasunez, ik. hemen § 4.3.2.1.2.3).

RUI-ren indarra hizkeren arabera ezberdina da eta testuinguru ezberdinetan ager daiteke. Lan honetan leudekeen bost testuinguruak mailakatu edo sistematizatu ditugu, jadanik *VJ* dotrinarekin egin bezala (Ulibarri 2010a: 56): (1) artikulua (-V— eta -VC— testuinguruak bereizirik), (2) artikulurik gabeko deklinabide markak (mugagabea, leku-kasuak), (3) erroak, (4) eratorpen eta aditz atzizkiak, eta (5) hitz artekoa (talde foniko bera osatzen dutenean: *bat*, (*e*)*ta*, adizki enklitikoak...).

Artikuluak adibide gehienetan pairatu du *RUI* erregela, hala kontsonante nola bokal ostean: *bareue*, *burue*, *bildue*, *sustreye*, *maliciye*, *ascotasunegas*, *gentile*, *ile*... Itxidurarik eza, berriz, -*a* bukaera duten hitzen inesibo singularrean eta absolutibo pluralean dugu beti (*graciac*, *injuriac*, *graciyan*, *agoniyac*, *contumeliyac*, *aserracunsac*...). Beste deklinabide markekin ere salbuespenak badiren arren (*dibinuagas*, *advertencia*...), hemen arauaren ezarpenak muga bat genuke, beti gertatzen baita. Honen arrazoia *a* horren jatorriari egotzi ahal zaio, honen azpian **aa*

genukeelako (*grazia* + *ak* > *graziaak* > *graziak*; cf. *FHV* § 5.3) eta bokal bikoitzen oihartzun horrek bokalaren tinbrea gehiago iraunarazi zuen (cf. § 4.2.1.5).¹²⁵

Deklinabide marka zenbaitetan, nagusiki ergatibo eta inesiboan, baina ez horietan bakarrik, itxiera aurrerago joan da (*ua* > *ue* > *ui* eta *ia* > *ie* > **ii* > *i*): *frutuic*, *oqueluic*, *barruin*, *munduin*, *santuiri*, *senduin* ‘zenuen’, *daquin* (< *daquian*), *eguinean* (< *egiane* ‘zegienean’), *dirudina* (< *dirudiana* ‘dirudiena’), *andin* (< *andian*)... Honek, hala ere, badirudi *RUI* erregela arruntak ez bide dituen murrizte batzuk dituela: (1) deklinabide kasuek edo aditzen atzikiek eragindako bokal bilkurekin baino ez da gertatzen,¹²⁶ (2) ezin da kontsonanterik izan *u/i* eta bokalaren artean eta, dirudinez, (3) ezin da amaiera absolutuan gertatu (i.e., ***burui*, ***maisui* bezalakorik ez).¹²⁷ Honekin batera, jatorrizko *ue* diptongoetan ere *ue* > *ui* gertatu da: *oqueluitan*, *sagraduitan*, *desonestuitaric*... Hala ere, deklinabideaz bestelako testuinguruetan *ue*, *ie* bere horretan mantentzen dira: *cruel*, *galduerain*, *fiel*...

Artikurik gabeko deklinabide atzizkietan ere *RUI* erregela betetzen da: *lekure*, *modureco*, *augmentureco*, *gugues*, *niguenic*, *gugueitic*, *enojaaldigues*, *oguire*, *selaire*, *pecatuterean*... eta hitz erro gehienetan ere bai, hala ondare zaharrekoetan (*buler*, *isen*, *ibei*, *inder*...), nola mailegu gordinetan (*binegrea*, *escomulgueduric*, *yndigneciño*...). Testuinguru hauetan guztietan salbuespenak ditugu, dena dela: *serbiciura*, *visisan*, *sugaitic*, *iracasteco*, *gurago*, *biraoiyen*..., baina mailegu gordinen erro barruan biltzen dira, nola ez, salbuespen gehienak: *prodigalidadea*, *abundanciya*, *incurable*, *naturalezee*...

Ordea, eratorpen atzizkietan eta kidekoetan, bikoiztasuna dugu: erregela betetzen da normalean: *palukeda*, *bisise*, *eguseri*...; baina *-tasun* atzizkiarekin ez: *basutasun*, *naguitasun*, *iluntasun*, *mintasun*... Bikoiztasun honen oinarrian atzizkien arteko kronologia legoke, gure ustez: hitz eratorri zaharretan atzizkiok lexikalizaturik leudeke, hots, egileak ez zituen atzizkitzat hartuko. Forma eta erabilera maiztasunagatik

¹²⁵ Bi inesibo singular aurkitu ditugu zeintzuk *RUI* erregela agertzen duten: *iturriya* eta *Ytaliya*, agerian denez, ez lirake aurrekoen berdina izango: lehenengoak *iturri* + *an* > *iturria* luke oinarrian eta bigarrenak *Italia* + *n* > *Italian*; ikus daitekeenez, ez dute bokal bikoitza jatorrian (cf. § 4.2.1.5).

¹²⁶ Hala ere, *ue* > *ui* eta *ie* > **ii* ikusten ditugun arren, ez dugu halakorik genibo singularrean aurkitzen: *munduen* forma, adibidez, hala *munduan* (ines.) nola *munduen* (gen.), adierazten du; *munduin*, bestetik inesiboa baino ezin da izan. Ziurrenik genitiboaren oinarrian bokal bikoitza (*-aen* > *-een*) delako, bere tinbrea mantentzen du, goian *-a* erroetako inesibo eta eragatiboan ikusi dugun bezala.

¹²⁷ Bigarren murriztapenaren kontradibide bat bada, *honesturi* ‘honestura’, baina bakarra izanik, ez dakigu asimilazioaren hedatetik ote datorren (cf. Ulibarri 2008a: 199 eta hemen cf. § 4.4.2) ala kopia akatsa den.

Bestalde, behin *necesitedui* ageri zaigu (beste askotan *-uei* dugu, ostera: *apostoluei*, *seinsuei*...), eta badirudi hirugarren murriztapenaren aurka doala. Alabaina, kopiatze akatsa ez bada, noski (*necesitedu[e]i*), oinarrian **necesiteduai* legoke datibo plurala delako, eta kasu honetan ez litzateke bukaeran gertatuko asimilazioa, tartean **necesiteduei* > **necesitedui* pausak baikenituzke.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

berrikiago hedatu bide zen *-tasun* (ik. Lakarra 1995: 44 eta Bueno 2008: 2), eta sermoitegiko eratorpen prozeduren analisiak iradokitzen du egileak nahita erabiltzen duela, literatur hizkuntzatik alegia (ik. § 4.3.2.2); ondorioz, halakoetan atzizkietan oraindik erroaren eta atzizkiaren arteko aldea nabaritzen da eta ez da itxidurarik gertatu.

Adizkiei gehitzen zaien *-tarren* edo *-itan* bezalako atzizkietan ere erregela ez da betetzen, eta hauetan tartean gertatutako aldaketa fonetikoengatik mantendu bide da bokala bere horretan: *cumplitarren* (< *kunplitearren*), *ecustarren* (< *ekustearren*), *ydiguitartiyo* (< **idigiteartio*), *suceditan* (< *suzedietan*)... Bietara dabil, aldiz, *-tzagarik* atzizkian (< **-tzabagarik*): *sentisegaric* (23-33; 23-41; 23-43) vs. *entendisagaric* (26-168). Bikoiztasun honek erakusten digu oraindik ez dela osotu bere lexikalizazioa, baina hortik gertu bide dago.

Erregelak aditz jokatuena atzizkiak ere hartzen ditu: zehazki, pertsona marketan indartsua da (*deustesu* ‘deustazu’, *eguidesu* ‘egidazu’...), are haren eraginez bereizketa morfologikoak galtzen direnean ere: *deusegu* adizkiak, adibidez, bai ‘hari’ datibo singularra, bai ‘haiei’ datibo plurala adieraz dezake (cf. § 4.2.3.3). Moduzko atzizkietan ere *a > e* aldaketa gertatu da: *estosuleco*, *gendusela* (vs. *soasala*, *legosala*), *daguiyensat* ‘dagiantzat’... Mendebaldean espero den erlatiboen *-an* atzizkia (*dan*, *dagoan*...), dena dela, *-en* formapean dugu RUI azaltzen ez dituen testuinguruetan ere (*dagoeena*, *doasenen*, *dagoen*...).¹²⁸

Hitz artean ere aurkitzen dugu erregela, beti ere talde foniko berean dauden hitzetan, jakina:¹²⁹ aditz nagusi eta laguntzailearen artean oso maiz (*aguiri de*, *visi de*, *sucedidu yecan*, *jasi sen*...); *-i / -u da* testuinguruan, esate baterako, ez dugu salbuespen bakar bat ere aurkitu. Halaber, erregela pairatzen dute *bat* eta *batzuk* zenbatzaileek (*ceru*

¹²⁸ Adibide hauek analogiari egotz diezazkiokegu, *-en* forma testuinguru guztietara hedatuz joan zela ondorioztaturik; edo, genitiboan bezala (§ 4.2.2.3), bokal bikoitzen ondoko disimilazio-asimilazio fonetiko bertsuak gertatu zirela. Izan ere, atzizki honen oinarrian **han* izanik (cf. Ariztimuño 2013a: 55), pentsa genezake (halakorik behar zen testuinguruetan, noski) bokal epentetikoaz lagunduriko **(e)-han* egon daitekeela lekukotzen diren forma guztien oinarrian. Ondoren, gramatikalizazioan hasperena galtzean, bokal horiek asimilazio bide ezberdinak hartu zituzten hizkeraren arabera, dela bokaletako bat galduz (*-an / -en*), dela hauen arteko asimilazioaren ostean (***-aan / -een*) bakunduz; eta gure hizkerak, bigarren bidea hartu zuen, *dagoeen* erakusten duenez, baina badirudi batzuetan *-aan > -an* egin zuela eta bestetan *-een > -en*.

¹²⁹ Batasun fonikorik ez bide duten bi hitzen arteko gauzatzea dugu *gach* (< *gaitz*) hitzarekin: “*guison batec es contentauric sarri guech useteagas matrimoniñoa*”. Hala ere, RUI erregela baino, mendebalde zabal batean *gaizto > ge(i)xto* eta *ga(i)xo > ge(i)xo* bihurtu duen fenomeno beraren aurrean gaude. Gure idazleak, adibidez *ga(i)xo* zein *ge(i)xo* darabil: *gaixo*, beti diptongoaren erdibokalik gabe (<gaso>), 20 aldiz ageri da sermoi osoan zehar (eta *gasotu* behin); *geixo*, ordea, 38. sermoian baino ez da ageri, behin bokalerdia gabe (*gueso*) eta bost alditan bokalerdiaz (*gueiso*).

bet, becatu besuen...).¹³⁰ Ostera, erregela ohikoa den beste testuinguru batean, *ta / da* juntagailuan,¹³¹ badirudi ez dela beti betetzen: *ta*-ren lau adibide baino ez ditugu eta horietako batean bakarrik jasotzen da (*usu te costumbre*); bestalde, behin ere ez dugu ***de*-rik, *da* juntagailuaren 35 bat adibide baditugun arren: *cargu da acuseciñoec, gorpus da arime* (birritan), *ensun da ganeco...*

4.2.1.8 Bokal eufoniak

Bonapartez gero garrantzi handia eman zaie hiatuetan gertatzen diren bokal eufoniei banaketa dialektalak egiterakoan. Oro har fenomeno nahiko berriak direnez, euskararen diakroniarako garrantzi gutxikoak zirela zeritzon Mitxelenak; baina, hala ere, ez zuen ukatu Bonapartek egotziriko balio dialektologikoa: aitzitik, ikuspuntu horretatik aztertu behar direla uste zuen (*FHV* § 5.1). Lan hau oraindik modu sistematiko batean eta euskararen geografia osoa bilduz egiteke dago; dena dela, halako eufoniak XVII. mende bukaeratik islatzen dira mendebaldeko testuetan behintzat eta, ondorioz, hizkera diatopikoki lekukotzeko ezaugarri garrantzitsua izan daiteke.

Gai zabal honi heltzeko ez dago, dakigularik, zeri erreparatu behar diogun argitzen duen inolako lan edo metodo orokorrik; beraz, deskribapen honetan bi testuinguru hartuko ditugu kontuan: artikulua eragindako hiatuak eta gainerakoak.¹³² Ezer baino lehen, baina, hiato ezberdinen eta testuan duten emaitzaren laburpen taula ekarriko dugu hona, irakurlearen lagungarri:

	Hitz amaieran	Hitz barruan
<i>-aV</i>	<i>-aV</i>	<i>-aV</i>
<i>-eV</i>	<i>-eV</i>	<i>-eV (-ee- > -e- / -ei-)</i>
<i>-iV</i>	<i>iV / iyV / iñV</i>	<i>iV / iyV / iñV</i>
<i>-oV</i>	<i>-oV</i>	<i>-oV</i>

¹³⁰ Honek lau ustezko salbuespen baino ez ditu, baina banan-banan ikusirik salbuespen ez direla ondoriozta dezakegu: *especi bat*-en oinarria *-iV* da (**especie*); beste hiruretan *-u* sekundarioa da (*-io > -iu* asimilazioak eragindakoa): *demoniu bat, erremedi bat, principiu bat*.

¹³¹ Bi hauek baino maizago ageri da *eta* (2300 adibidetik gora), baina forma honek ez du testuinguru egokirik RUI erregela gauzatzeko.

¹³² Aldaketa hauek modu orokorrean ikertzen dituen lanik ez izateak (artikurako ik. De Rijk 1970 eta Hualde & Gaminde 1997) testuinguru ezeberdinetan gertatzen diren aldaketen arteko erlazioak eta haien ondorio dialektalak jakitea galarazten digu; adibide batzuk ematearren, *etxia* egiten duten guztiek *biar* 'behar' ere egiten dute, eta *etxie* egiten dutenek *bier?* *Buruba* ahoskatzen dutenek *suberte* ere egiten dute?

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

-uV	-uV	-uV
-----	-----	-----

ea hiatoa (nahiz, mendebaldeko arauaren eraginez, **aa*-tik etorri, nahiz *ea* etimologikoa izan) bere horretan mantentzen da testuan: *aitea*, *errequea*, *gulea*, *desobedintea*, *virgineaganic*... Aurretik beste bokal bat dagonenean ere *e*-ren tinbrea gorde da: *errazoea*, *ostentaciñoa*, *doeala*... baita artikuluz landakoetan ere: *bear*, *area*, *beastun*, *escuearraea*, *acarreadu*...¹³³ Berbera gertatzen da bestelako *eV* hiatoetan ere: *recreoa*, *reo*, *feotasune*, *sobreescrito*... Berezia da *ee* hiatoa, batetik, esan dugunez bokal bikoitzok bakuntzeko joera baitago hizkeran (§ 4.2.1.5); eta bestetik, beste bilakabide bat baitugu *gentilien*, *orrein*, *virginiena* eta *guliyen* ‘guleen’ genitiboetan (ik. § 4.2.2.3). *oa* hiatoan ere bokalen jatorrizko tinbrea gorde da, bai artikulua sorturiko hiatoa denean: *provehosoa*, *cuchiloa*, *osoa*, *alangoa*... baita bestetan ere: *yoan*, *eroan*, *escoa*, *razoabacoa*..., eta berdin *oe* hiatoan ere: *galardoe*, *joeraguin*, *doe*...¹³⁴

ia eta *ua* hiatoetan emaitza ezberdinak aurki ditzakegu sermoietan zehar, tartean *RUI* erregela dugulako (ik. § 4.2.1.7). *ua*-ren kasuan ez dago inolako epentesirik, eta aldaketa bakarrak *RUI* erregelak eragindakoak dira (*ue* zein *ui*), bai artikulua eragindako testuinguruan: *burue*, *frutuic* ‘fruituac’, *santuiiri*, bai bestelakoetan: *senduin* ‘zenduen’... *ua*-z kanpoko hiatoak ere bere horretan ditugu, epentesirik gabe: *suerte*, *cruel*, *instituidu*, *uy*...

i + a hiatoan, forma etimologiko zenbait (*compañian*, *graciac*, *injuriac*...) eta *RUI* erregelak eragindako *ie* (*andie*, *echiec*, *misericiardiaco*) gutxi batzuk alde batera utzita, orokorrak dira epentesidun aldaerak. Epentesia, dela artikulua sorturikoetan, dela bestelako hiatoetan ere gertatzen da: *andiye*, *nagusiye*, *porfiyeu*, *kriyedu*..., eta bestelako *iV* hiatoetan ere bai: *urteiyera*, *gueiyeguín*, *emaiyelea* (sic.), *geniyo*, *biqueriyo*, *egipsiyoac*... Alabaina, beti *eriosa* eta *bios* ditugu, inoiz ez ***eriyosa* edo ***biyos*.

Epentesia egiteko hotsa ez da beti bat: erabiliena orain arteko adibideetan ikusi duguna da, hots, sermoigileak <y> bidez islatzen duena, baina honekin batera <ñ> ere baliatzen du: *agoniñe* ‘agonia’, *joñe* ‘joia’, *araguñeric* ‘haragirik’, *blasfemiñe*

¹³³ Orokorrean *deabru* erabiltzen badu ere (15 adibide), behin *diabruégaz* dugu. Hala ere, dela hitz adierazgarria izateagatik, edota erdal *diablo*-ren eraginpean, erraz azal liteke aldaera, hiatoaren bilakaerara jo gabe ere.

¹³⁴ Salbuespen bakarrak behin ditugun *quaine* ‘koaine’ (45-110; cf. § 4.2.5) eta *erruscu* ‘erruzkoa, kulpazkoa’ (31-80) formak dira: lehenengoan beste agerraldietan *coaine* ageri zaigu, eta partikula gramatikal bat izanik, masa fonikoa galtzeko baliabidea dela, *oa* hiatoa diptongo *wa* egin baita. Bigarrenak *-ko* genitibo atzizki orokorra izanik, eta testuan bertan den *iminicu* ‘ipiniko’ (41-82) adibidea ikusita, badirudi hauetan *RUI* erregelaren antzeko asimilazio bat dugula, aurreko bokal itxiak eragindako asimilazioa proposatuz.

‘blasfemia’, *premiñetan* ‘premiatzen’, *demoniño* ‘demonio’, *geniño* ‘genio’, *premiño* ‘premio’, *testimoniño* ‘testimonio’, *viciño* ‘bizio’, *ceremoniñe* ‘zeremonia’, *loiñec* ‘lohiac’... gehienetan <y> orokorrarekin batera: *araguiye-*, *ceremonyñac* vs. *ceremonyacas*; *demoniño* vs *demoniyo*, *geniño* vs. *geniyo*, *loiyec*... Epentesi hotsa [ñ] izateko arrazoi nagusia testuinguruan kontsonante sudurkari bat egotea litzateke: *agonia*, *demonio*, *blasfemia*, *premio*... Behin behintzat, galdutako sudurkari etimologikoa izan daiteke: *loiñec* (<*lōhĩ < *loni; cf. § 4.2.1.6). Beste batzuetan, baina, ezin testuinguruari egotzi eta, hedapen analogikoa baino ezin dugu proposatu: *joiñe*, *araguiñeric*, *viciño*.¹³⁵

io hiatoan kontsonante epentetikoa sartzea da ohikoena, *iV* gainerako testuinguruetan bezala: *gustiyoen*, *areriyoen*, *oriyoa*, *deiyogun*, *auxiliyo*... Beste joera bat ere antzematen da: *o* bokala ixtea, alegia (i.e. *io* > *iu*): *biutaric*, *viciu*, *deguiula*, *demoniu*... (cf. *FHV* § 2.4). Dena dela, *io* > *iu* bilakabide honek ez du epentesiak beste adibide: *demonio* eta *bizio* hitzek, esaterako, epentesidun 47 eta 30 adibide dauzkate, hurrenez hurren; berriz, lehenengoak *iu*-ren adibide bakarra du, eta bigarrenak bost. *Erremedio* hitzean epentesia eta itxidura nahiko pareko dira adibide kopuruan, baina honetan ere epentesia garaile ateratzen da (14 vs. 10). Bi bilakabideak bilduko lituzkeen *-iyu* bezalakorik ez dago: *viciyu* bakarra egileak berak zuzendu zuen.¹³⁶

4.2.1.9 Diptongoak: bakuntzeak / gordetzeak eta -ien- > -in- bilakabidea

Zenbait hitzetan diptongoa bakundurik dakusagu: *arpegi* (21 aldiz; < *aur-, *FHV* § 4.5), *jatsi* (17 aldiz) eta *amaka* (< (h)amaika < *hama-eka, *FHV* § 5.6). Beste batzuek, ordea, diptongoa mantendu dute: *aurkitu* (4 aldiz), *jaube*, *lauren* ‘laurden’ eta *jaigui* (3 aldiz).¹³⁷ Azkenik, bada bietara agertzen den hitz bat, nahiz forma bakundua gailendu: *Jangoiko* (528 aldiz) vs. *Jaungoiko* (46 aldiz). Gorabehera hauek guztiak, dena den, espero izatekoak dira Bizkaiko eta Arabako testuetan, diptongoen bilakabideak nahiko irregularrak izan baitira, hemen eta bestetan (cf. *FHV* § 4), hainbat

¹³⁵ Halako epentesiak ez dira ezezagunak euskal tradizioan: *OEH*-k *agonine* eta *agoliñe* formak biltzen ditu (s.v. *agonia*): lehenengoa Urkizuk (1737) lekukotzen du, eta modernoago (1974) B. Enbeitiak *agoliñian* darabil. Gure aldetik, *EKC*-n (s.v. *agonin*) hitz honen beste lekukotasun batzuk bildu ditugu Olaetxea (1763) eta Kardaberazen (1764) obretan. Antzeko emaitzak genituzke *demoniño* (cf. *OEH*, s.v. *demonio*) edo *premiña* (*OEH*, s.v. *premia*) bilatuz gero.

¹³⁶ Bi bilakabide ezberdinek epentesiaren azalpenaren izan ditzaketan inplikazioez, ik. § 4.3.2.1.2.2

¹³⁷ Behin egileak berak zuzentzen du forma: *yaguitten* > *yaiguitten* (159), *i*-dun aldaera bermatuz.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

faktoreren eraginez, antza: *arpeico* dugu 1516an dagoeneko (baita Mic, Lcc...) eta *amaka* du Mikoletak (OEH, s.vv. *aurpegi* eta *hamaika*); *aurkitu* eta *lauren* forma orokorrak dira¹³⁸ eta *jabe* orokorra bizkaieran ere lekukotu arren (Cap, 1656), *jaube*-rekin batera aurkitzen da testu berdinean (OEH, s.v. *jabe*). Halaber, *jatsi*-ren aldaera ezberdinak testu berean aurkitzea normala ei da bizkaieran (OEH, s.v. *jaitsi*). Azkenik, Bizkaiko eta Arabako testu zaharrenetan *Jaungoiko* da aldaerarik erabiliena, baina *Jangoiko* dugu VJ-ren aldaera ia bakarra (cf. Ulibarri 2010a: 124), eta Bizkaitik eta Erronkarira bitartean lekukotzen da.

Joera indartsuagoa da, ostera sermoitegian den *ie* eta *ia* diptongoen (azkena *ie* bilakaturik ere, *RUI* erregela dela eta) bakuntzea: sistematikoa da *-miento* amaierako erdal maileguetan (*-mintu* gure testuan: *escarmintu*, *mandamintu*, *sarmintu*...); beste mailegu batzuetan, aldiz, joeratzat baino ez dezakegu jo, nahiz sarri agertzen diren horrelako aldaerak testuan zehar, indarra zuelako seinale: *avarintu* (< *avarientu*), *concenciye* (< *concienciye*), *confinsea* (< *confiansea*), *esperincie* (< *esperencie*), *corrintea* (< *corrientea*), *pacenciye* (< *pacienciye*), *desgracidu* (< *desgraciadu*), *oficil* (< *oficial*)... Goranzko diptongo hauek, ohikoak ez direnez, ekiditeko joera dago (FHV § 9.1). Joeraren indarraren lekuko dira, izan ere, erdal mailegu berri ugariak.

4.2.1.10 Kontsonante sabaikariak

Kontsonante sabaikariak sortzeko arrazoiak ñabarrak izan dira: batetik, esanahi bat eransten dute euren kide ez-palatalarekin oposaketan (honek dirudi erabilerarik zaharrena; FHV § 10.17). Horrela sortutakoak bat-batekoak dira eta ustekabean ager daitezke. Erabilera zahar hau, ordea, ahuldu bide zen (*ibid.*) *i* ondoko palataltze automatikoak garrantzia hartu zuen heinean. Azkenik, bestelako arrazoiengatik sortu diren kontsonante sabaikari eta sabaiaurrekoak ere badira, dela maileguen bidez sarturikoak, dela beste bilakabide fonetikoaren bidez sorturikoak (bokal sudurkariaren ondoko kontsonantearen berrezarketagatik, adibidez).

Dialekto zein testu azterketetan sabaikari guztiak batera aztertzeko joera izan ohi da; alabaina, gure ustez gutxienez talde bi egin beharko lirateke mendebaldeko testu baten aurrean gaudenean: batetik, sartaldean antzinatik lekukotu den $V_j(t)z > V(j)(t)x$

¹³⁸ *Arkitu* gipuzkera eta goi-nafarrerazko aldaera bide da (OEH, s.v. *aurkitu*) eta *laren* Azkueren *Morfologian* baino ez omen da lekukotzen (OEH, s.v. *laurden*).

palataltzea genuke; bestetik, *i* osteko beste kontsonanteena. Izan ere, badirudi bata eta bestearen inplikazio diakroniko eta geografikoak ezberdinak direla: lehenengoa lehenengo testuetatik lekukotzen da, eta mendebaldeko hizkeren berezitasuna da (cf. *FHV* § 10.9); bigarrenean, ordea, ezberdintasun gehiago daude hizkeren arabera, baldintza ezberdinetan betetzen diren azpi-erregelak daude (Oñederra 1990: 271), berriagoak direlako seinale, nonbait.

Sartaldeko palataltze automatikoa mendebaldeko euskalkien (bizkaiera eta arabera) ezaugarria da, eta *Vj* diptongo osteko txistukaria palatal bihurtzean datza; gehienetan, palataltzeaz gainera, /j/ bokalerdia kontsonantearekin urtzen da (*FHV* § 10.9). Ezaugarri hau (indar ezberdinez, baina) hasierako testuetatik dugu lekukotua eremu honetan (cf. *RS*-ko *axeac*, *erexteco*...), eta gure testuak ere bat egiten du, espero bezala. Idazleak sabaikari frikaria <s>ren bidez islatzen badu ere (§ 4.2.1.4), ahoskera argia dela deritzagu, aipaturiko *j* hotsaren “urtzeagatik”: *ase* ‘haize’, *elasa* ‘eleiza’, *gaso*, *gasotu*, *nas*, *nos* ‘noiz’¹³⁹... Bereziak dira *gaisto* (7 adibide vs. 0 *gasto*), *aistu* ‘ahaztu’ (7 adibide, vs. 1 *astu* & 3 *astueragin*) eta *geiso* (5 adibide, vs. 1 *geso*), berariaz ia beti <is>z idatziak, beste ahoskera bat zutelako edo, dela palatalik gabe, dela bokala argi ahoskatuta.¹⁴⁰

Afrikatu palatala <ch> grafemak adierazten du (§ 4.2.1.4): honela, *ach* (< *haitz*), *bacocha* (< *bakoitza*), *echi* (< [?]*eitzi* ‘utzi’), *gach* (< *gaitz*) eta *eretxi*-ren adizkiak (*derechat*, *erechan*...) palatal direla jakin dezakegu; *yaisi*-k (‘jaitsi’), ordea, ez luke palatalik izango.¹⁴¹

¹³⁹ Lege honen arabera, *naiz* > *nax* edo *noiz* > *nox* aldaketa gertatu da mendebaldean (*FHV* 192), baina badirudi kasu hauetan hitz bukaerako sabaiaurrekoa frikari apikari bihurtu zela Añibarrori erreparaturik, honek *nax* eta *nox* formarekin batera *nas* eta *nos* baitarabiltza (cf. *EKC*). cf. “por lo que se refiere a -x (al menos antigua) en posición final, parece vacilar bastante, ya que en la misma página (20) puede leerse *nax* ‘soy’, de acuerdo con lo que se encuentra en textos vizcainos de los siglos XVI-XVII, pero también *naz* y, por otra parte, *nasala*, *banas*, *nasalaco*, *nasanean*, esta vez con *s*, tanto en final como en interior de palabra” (Mitxelena 1978, *OC XI*: 407).

Antzeko ondorioetara heldu da berriki U. Atutxak ere, Arzadunen dotrina (1731) aztertutik, honetan jada *nax* > *nas* bilakabidea gertatu dela ikusten baitu (Atutxa 2013: 71).

¹⁴⁰ Gainerako adibideetan ez bezala, *gaisto* eta *aistu* kontsonante aurrekoak direla kontuan hartu behar dugu. Ziurrenik azkenak ahoskera ez-palatala zuen, ez baitago **aixtu* lekukotuta (bai ordea *aiztu* eta *aistu*; ik. *OEH*, s.v. *ahaztu*): izan ere, *i* hori berria da, **aa*-ren disimilazioak eraginda nonbait. *Gaisto* eta *geiso*-ren kasuan, ordea, aldaera ugari aurkitzen dira tradizioan, bokal sabaikariarekin eta gabe (*OEH*, s.vv. *gaizto*, *gaixo*), inolako ondorio zehatzik ateratzeko. Arazo bertsua seinalatu da, adibidez, Larramendiren *gaisto* idazkera interpretatzeko (ik. Urgell 2001b: 147 e.hh.).

¹⁴¹ Alabaina, *gas* (vs. 24 *gach*) ‘gaitz’ (45-124) eta *eresan* (vs. 4 *erechan* eta paradigmako beste 24 adibide) ‘zeritzan’ (16-141) adibide bana dugu: *i* bokalik ez izanik, palatal beharko lukete (eta *ch* grafia, ondorioz); alabaina, akatsa baztertu gabe, lehenengo forma *gas chiquerregoa* testuinguruak eragindako disimilazio batek (**gatx txiker* > *gax txiker*) azal lezake. Hala ere, Lazarragak baditu *gax* eta *bacox* adibideak, zeintzuetan, editoreen arabera (eta Atutxa 2013: 67), <x>k soinu afrikatua adierazten duen (Bilbao *et al.* 2010: AL:1142v).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

i bokal osoaren osteko palataltzea (*ixan*, *gixon*...) Bizkaiko hizkera batzuetan baino ez da gertatu (*FHV* § 10.9); aurreko bilakabidea bezain hedatua ez egotea berriagoa den seinale litzateke. Testuko txistukarien grafia defektiboa dela eta, ezin txistukari frikariak aztertu, eta aditz laguntzaile batzuetan *i* osteko afrikatu palatalak baino ezin izan ditugu aurkitu: *balichesu* ‘balitzaizu’, *lichequela* ‘litzaiekeela’ eta *isichatesan* ‘itxi zitzaizkien’ (cf. § 4.2.3.11). Hauetan baina, badirudi sabaikaritzeak ez duela bokalak eragiten: aurretik beste bokal bat duen *natxako*-k (cf. *FHV* § 9.5) erakutsiko luke beste jatorri bat duela mendebaldeko hizkeretan *izan* aditzaren NOR-NORI sisteman den /t/ hotsak.

Nahiz eta bizkaierazko hizkera zenbaitetan *t*, *d* edota *-ld-* eta *-nd-* hotsen sabaikaritzea arrunta izan gaur egun (eta XIX. mendean ere, nonbait; cf. Zuloaga 2011a: 244), testuan ez da halakorik suposatzeke adibide nabarmenik, dela hizkera hartan sabaikaritzen ez zirelako, dela idazleak grafikoki adierazi ez zituelako, (*satus*, *gatusela* edo *satuesan* bezalakoetan, palataltzea bainoago diptongoaren bakuntzea legoke, ik. § 4.2.3.3).

Besterik da *n* eta *l-z*, hauetan adierazpen grafikoa bai baitago; hau, baina, kontuz ibiltzeko moduko bidea da kontuan hartuz gero; batetik, alderdi grafikotik sabaikaritasuna “no (...) se indica siempre de manera consecuente en los textos antiguos” (*FHV* § 10.3), eta bestetik, alderdi fonikotik:

“la dificultades que entraña para la reconstrucción la espontaneidad con que se produce la palatalización y la facilidad con que llega a desaparecer [...] una consonante es susceptible de palatalizarse en un contexto palatal mientras que, en distintas zonas o épocas, una consonante mojada puede resolverse en *i* más consonante no palatal. Las dificultades son especialmente graves en lo que se refiere a las dos consonantes [*n* y *l*] que ahora estudiamos.” (*FHV* § 10.11).

Albokariaren kasuan, oro har, *l* bakuna baino ez dugu *ilV* zein *il#* testuinguruetan: *ibili*, *ilebete*, *il*, *mutil*, *ilun*... <ll> grafiaz adierazitakoak gutxi dira: palatalaz mailegaturiko hitz modernoek gainera (*calle*, *castillo*, *doncella*...),¹⁴² ondokoak dira <ll>z adierazitako guztiak: *negar-ampullu*, *ollo*, *mille*, *milloe*, *aite*

Ez dugu akatsaz bestelako arrazoirik aurkitu *eresan* formarako; beraz, *eretzan* irakurri behar dela da forma honetarako bigarren irtenbide bakarra.

¹⁴² Sistematikoki mailegu berriak palatalez adierazten ditu, behin baino ez dugu *cuchilo* (10-96), hots palatala adierazi gabe; alabaina, *acuchillo ygore* (46-94; cf. gazt. *pasar a cuchillo*) adibidea ere badugu eta egiantzekoena da akatsa izatea.

pilleco, *billosic*, *nescatilla*, *edalle* (< **edaile*? honen alboan *edale* bi¹⁴³), *estalguilla* eta *ulle*. Lehenengo lauak (*ollo*, *mille*, *milloe*, *ampullu*) nolabaiteko antzinatasuna bide duten maileguak dira; beraz, jatorrizko hizkuntzatik palatala ekarri zutela pentsa genezake (cf. erdal *pollo*, *milla*, *millón*, *ampolla*). Gainerakoetan, *aite pilleko* izena hapaxa izanik (cf. § 4.2.5) ez dugu beste testuekin erkatzerik, baina *ulle* hitza berezia da, palatalaren jatorria agerian ez dagoelarik ere (oinarrian **uile* bat ei genuke: <**uele* < **eule* < **enon-le*, cf. Lakarra 2011b: 697) Bizkaiko Hego-sartaldean lekukotzen baita palatalez: lehenengoa Laudioko (1828 eta 1858koetan), Orozkoko eta Arrigorriagako dotrinetan ditugu eta Sarria eta Astigarragaren sermoitegietan (Zuloaga 2010: 405 eta 2011a: 244), hauekin batera, bai Ulibarrik, bai Añibarro eta Zabala idazle klasikoek ere palatalez idatziriko adibideak dituzte. Berezia dateke *billosik* ere, Laudioko dotrinek erakusten dutenaren arabera behintzat: testuok ez dituzte albokari palatalak adierazten (*ilic*, *dabilena*...), baina *billosik* hitza palatalez dakarte.

n / *ñ* hots bikoteak kasuistika konplexuagoa du, oro har testuinguruak ñabarragoak baitira. *i*-dun hiatoetan sortzen den hots epentetikoa sudurkaria denean, <ñ>z adierazten du beti egileak: *agoniñe*, *joiñe*, *araguiñeric*, *blasfemiñe*... (cf. § 4.2.1.8 adibide gehiagotarako). Bokal sudurkaria zuten hitzetan sortzen den txandakatzean (*mi*, *miric* vs. *miñe*; *oi*, *oipe* vs. *oiñe*; *mai* vs. *maiñe*; *zemaiñe*... ik. § 4.2.1.6) eta hiato sudurkari zaharretik berrezarri den kontsonante sudurkari konpentsatorioan (*iñes*, *iñor*, *iñox*, *iñontz*, *burriñe* eta *-ziñoe* amaieradun hitzetan), hauetan guztietan ere <ñ>z da espero bezala; azken hauetan *arrainei* eta *minic* adibide bana dugu, baina gutxi izanik sermoitegiaren luzera ikusita, palataltasunak adierazpen defektiboa duela esan baino, egiantzekoago dirudi akatsak direla, idazterakoan gaineko birgula ahaztu zuela alegia.

Bestelako hitzetan, dela <in#> dela <inV> testuinguruetan *n* sistematikoa da, ostera: *aingitxi*, *erreinu*, *orain*, *bein*, *adinebeste*, *aginean*, *atseginec*, *egine*... Alabaina, badira <ñ>z idatziriko hitz gutxi batzuk: *-giño* atzizkia, *beño* ('baino') eta *zeiñV*. Deklinabide atzizkia beti ageri da *ñ*-z, eta besteetan bietako adibideak ditugu: *beño* (97 aldiz) vs. *beno* (16 aldiz) eta hiru *zeiñ*- (*seiñec* bi eta *seiñegas*) bostehundik gorako *zein*-en (*seinec*, *seinegas*...) aldean. Dirudenez, sabaikaritze automatikoa *-in#* testuinguruan gertatzea beti da bokal aurrekoaren hedatzea euskaraz (cf. Oñederra 1990: 52), eta

¹⁴³ *Edaile* aldaera gutxi lekukotua da, eta mendebaldetik urrun: Aezkoan eta Urteren hiztegian genuke, bai eta Goyhetchen urruñarraren obran ere (*OEH*, s.v. *edale*); gainera, honen parean bi *edale* izateak, <l> bakarraz, arazotsua bihurtzen du palataltze automatikoaren adibidetzat hartzea. Forma bestela azaltzekotan, akatsa legez hartzeaz aparte, bi bide ditugu: <ll> grafia <l> hutsaren ordezt dagoela suposatzea (eta hau litzateke adibide bakarra) edo *estalgilla* (<**estal* + *-gi* + *-le*) bezalako hitz batean atzizkiak hartu duen formaren hedatze analogikoa izatea.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

honek pentsarazten du *inV* tesuinguruan palataltze automatiko ahul bat badela, horregatik haren adierazpena defektiboa, eta berriz *in#* testuinguruan ez dagoela; honela *zeinV* bezalakoak sabaikaritze gabe adieraztea *zein*-en analogia grafikoa baino ez dela.

Besterik genuke *beno* hitza, honetan <n>dun aldaera baita markatua dena, eta lehenik ere lekukoturik dago: *OEH*-ren arabera Iparraldean dugu *bano*, baina mendebaldeko *VJ*-n eta noizbehinka Lazarragarenean ere badira *bano* tankerakoak (*OEH*, s.v. *baino*). *OEH*-k berak iradokitzen du grafia defektiboa dela, baina hiru testu ezberdinetan forma bera aurkitzeak (*VJ*-n, gainera, *beti* dago palatalik gabe, cf. Ulibarri 2010a: 107), pentsarazten digu agian diptongoaren bakuntzea izan daitekeela *beno* honen oinarrian eta palatala ez izatea.¹⁴⁴

Ondorioz, orokorrean, suposatu behar dugu testuak islatzen duen hizkeran palatalizazio automatikorik bazela bai txistukarrietan, bai eta <n> eta <l> hotsetan ere, bokal artean aurkitzen direnean. Txistukariena orokorra da (zaharra delako seinale), baina aipagarri da ozenen kasuan hain gutxi izatea sabaikaria adierazita duten adibideak, hauetako zenbait (*ulle*, *billosik*) arrazoi ezberdinagatik bereziak direlarik. Honek bi azalbide lituzke: edo automatikoki egiten direnez grafikoki islatu ez izana (azalbide grafikoa), edo egilearen hizkeran beste batzuetan baino ahulagoa zen palataltzea (azalbide fonetikoa). Sermoigilearen garaiko beste idazle zenbaitekin konparatuta, badirudi bigarren azalbideak indarra hartzen duela: Añibarrorenetan (*EL*¹-n behitzat) *-(i)ll-* eta *-iñ-* grafiek duten nagusitasuna ikusita (Urgell 1985: 98) edota Sarria eta Astigarragak dakartzaten adibide ugariak kontuak izanik (cf. Zuloaga 2010: 404 eta 2011a: 244).

4.2.1.11 Akatsak zuzentzeko baliabideak

Sermoigileak tarteka <tt> grafia erabiltzen du (*erratutti 7*, *deusett 14*, *egottea 43*). Gogoan har genezake ohikoak direla XVII-XVIII. mendeen artean esangura fonikorik ez duten kontsonante bikoitzak bokal artean (cf. Real Academia Española 1741: 226). Alabaina, berak zuzenketetan bakarrik erabiltzen du, azpian datzana hobeto estaltzeko baliabide gisa: izan ere, lehenengo unean *erratura*, *deusen* eta *eguitea* idatzi zuen, eta hurrenez hurren <a>, <n> eta <it> ondo estaltzeko *tt* bikoitzaz baliatu zen. <y>

¹⁴⁴ Lehenago De Rijk-ek ere palataldu gabeko aldaeratzat jotzen du *VJ*-ko *bano* horiek (Rijk 1992: 708)

grafema ere antzera erabiltzen du: *aitery* (405), *urteryc* (112) edo *dyrean* (273) bezalakoek adierazten dute hasieran <y> azpian beste zerbait idatzi zuela.

4.2.2. Morfologia

4.2.2.1 Ablatiboa

Egun ablatiboa deitzen dugun *-tik* atzizkiak historia konplexua izan du: Euskara Arkaikoan atzizki honen oinarrian den *-ti* prosekutiboaren marka zen, ‘non zehar’ esanahiaz (atzizkiaren formaz, cf. § 4.2.2.2), ablatiboa *-(r)ean* eta *-(r)ik* atzizkien bidez adierazten zen bitartean. Lehen lekukotasunak baino lehenagoko garai batean erdialdeko eta ekialdeko euskalkietan ablatiboaren eta prosekutiboaren arteko oposaketa galdu eta *-ti(k)* berriak hartu zituen haien funtzioak (*-ti* oraindik ekialdean); mendebaldean, ostera, luzaro atxiki zitzaion bereizkuntzari: *-ti(k)* bidez adieraziriko ablatiboak ez omen dira 1737. urtera arte (Urkizu) lekukotzen mendebal partean (Lakarra 1984a: 182).

Gure testuan ablatiboaren eta prosekutiboaren arteko oposaketak bizirik dirau (ik. § 4.2.2.2) eta, XVIII. mendearen bukaerako testua bada ere, ablatiboaren hiru atzizki zaharren arteko lehia lekukotzen da (ik. § 4.4.1): Ablatiboa adierazteko ezagutzen diren hiru markak¹⁴⁵ ditugu testuan: batetik, *-(r)ean* marka arkaikoaren azken adibideak genituzke (cf. Lakarra 1986c: 646), bai eta *-(r)ean* ordeztu zuen *-(r)ik* atzizkia ere. Gainera, dagoeneko 1537an (Zugarragaren gutunean; cf. Padilla, Ulibarri & Urgell 2015) lekukoturik den eta biotatik sortu zen *-(r)eanik* pleonasma ere bada testuan.

Formaren aldetik, *-rean(ik)* eta *-rik* baino ez dago, *r*-rekin: *sabelerean*, *gorpuserean*, *mireanic* ‘mihitik’, *biosereanic* ‘bihotzetik’ edo *guisoneric* bezalakoak ditugu testuan.¹⁴⁶ Besterik da *-(r)ean bat* egitura, non *r* gabeko adibideak (egun batuan legez) non-nahi bizi baitira kontsonante ostean: *mortaleen bat*, *dagoanen baten* eta *egunen baten*, dudarik gabe atzizkia bere forma zaharrean fosildurik egoteagatik erabilera honetan.

¹⁴⁵ Prosekutibotik datorren *-ti(k)* kontaktu gabe, noski.

¹⁴⁶ Behin baino ez dugu aurkitu *r* gabeko *-(r)ean* ablatiboa, *liberaleanic* eta adibide bakarra izanik haplografia izan daiteke ziurrenik: *liberale[re]anic*.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Erabileraren ikuspegitik, orain artean 1758koa (Arzadunen dotrinaren 2. edizioa) zen *-rean* atzizkiaren agerpenik modernoena,¹⁴⁷ baina sermoitegian indartsu dirau, oraindik agerpen askotxorekin singularrean (%18), beste bi atzizkiak parekotsu banatzen diren bitartean (%36 *-reanik* eta %45 *-rik*).¹⁴⁸ Pluralean eta mugagabeen, ordea, alde handiz forma nagusia *-(e)tarik* da (133 adibide): *-(e)tareanik* eta *-(e)tarean* (*-terean*) egon badauden arren, lehenengoak lau agerraldi eta bigarrenak zazpi baino ez dituzte testu osoan. Euren bakantasunean, garrantzitsuak dira adibideok, *-etarean*-en agerraldiak oso urriak baitira, oro har, baita Euskara Zaharreko testuetan ere: Kapanagaren dotrinan (1656) berdintsu daude *-tarik* eta *-tarean*, baina *VJ* (ca. 1640) eta *Zubia-Lezamiz* (1691-1699) dotrinetatik atera daitekeen ondorioa da *-tarik* zabalduaz doala, azken honen kopletan (berez, hizkera zaharrago bat islatuko zuketzen; Lakarra 1984a: 178) lekukotzen baita *-etarean* azkenekoz, eta XVIII. menderako jada ez legoke *-etarean*-en batere lekukotasunik (*ibid.* 186). Gurean *-etarean* lekukotzeaz gainera, hizkera honetan berandura arte indarra izan duela iritz dezakegu, mantentzeaz gainera bere kide pleonastikoa (*-etareanik*) sortu baita, beste inon aurkitzen ez dena (cf. Lakarra 1984a).

Espero bezala, *-rean* atzizki zaharra defektiboa da testuinguru bitan, bizidunetan eta denbora kutsuko hitzetan (Lakarra 1984a: 189): bizidunetan *-ganik* da atzizki bakarra; denborazkoetan, *-(r)ik* forma nagusiarekin batera, *-(r)eanik* pleonasma ere badarabil *ordureanic* edo *demporareanic* bezalako adibide garbietan.

Gainerantzean, bata zein bestea aukeran erabiltzen ditu, baita elkarrekin ere, *guisoneric Jangoicora eta criyeturereanic Criyedoreagana* (3-52)¹⁴⁹ adibidean edo ahapaldi luze honetan dakusagunez:

apartau sates madariquetuic *niguenic* seculeco sure; apartau sates *niguenic* seuroen Jangoicoc secule es ecusteco; apartau sates *seuroen ondasun caburic estauquenaganic* secule es gozetaco; apartau setes nire *amistedereanic*, nire *amparuric*, nire *reinureani[c]*, nire ondasun eta consuelu *gustitareanic*, eta neure bienaventuraduen *compañireanic*; apartau sates neure Ama *Santisimeaganic*, seinec gure isen eben ysen suina eta esend[u]en gure isen; apartau sates neure angueru eta *santuetaric*; apartau sates *niguenic* madariquetuic. (7-131/137)

¹⁴⁷ Dena dela, testuetatik at *EI*-k (Etxaide 1984: 165) *poparean* lekukotzen du Lekeition eta Bermeon, eta *poparian* Donostian, ziurrenik fosildurik. Halaber, Orozkon (Olarate auzoan) *norean* galdetzailera lekukotzen du.

¹⁴⁸ *-reanik* formaren agerpenik modernoena Laudioko 1858ko dotrinan dugu (cf. Urkijo 1994: 87).

¹⁴⁹ Adibidean ikusten den beste gauza bat da alatiboan bizidunen leku kasuak arruntekin aldizkatzen duela: *Jangoicora* (cf. edizioa § 7, 3-52 oh.)

Ikusten denez, oso hizkera arkaismozale baten aurrean aurkitzen gara, *-rean* atzizki zaharrak orain arte uste izan dena baino beranduago iraun zuela erakusten baitu. Are gehiago, orain arte *-ren bat/batzu* egiturako atzizkia genitibotzat jo izan bada ere (*EGLU I* 286), gure testuko formek garbi adierazten dute benetan *-(r)ean* ablatibo zaharraren adibidea dela (cf. Santazilia 2013: 266), eta Lakarrak (1984a: 167 eta 1986b: 646) bildu zituen *-re(a)n* fosilei gehitu beharra: *viciurean baten, galsaitea gauserean bat, personarean basuc...* *-rean bat* egitura honetatik (dakigularik 1614ko Azkoitiko testu batean baino ez zegoen lekukotua; ik. Urkizu 2008/2009) bokalen arteko asimilazio batek *-reen bat* aldaera ekarri zuen (bizkaierazko beste testuetan duguna: *VJ*, Kap..., cf. Castaños 1957). Bokal bikoitzak galduz joan ziren heinean *-ren* aldaera sortu zen (Lcc-k eta Tolosako 1619ko bertsoak badaukate jadanik, bestalde; cf. Lakarra 1984a: 171 eta Santazilia 2013: 266).¹⁵⁰ Gure testuan aipaturiko egoera guztiak lekukoturik daude (*-(r)ean > -(r)een > -(r)en*): *-(r)ean bat(zu)* egituraren forma osoak hamaika adibide ditu testuan, *-(r)een bat(zu)* aldaerak hamasei, eta egungo formak hamabi: *viageren bat, ympedimenturen bat...*

4.2.2.2 Prosekutiboa eta motibatiboa

Aurreko atalean esan legez, *-ti* prosekutibo zaharra mendebaldean bakarrik gorde zen euskara historikoan, luzaro gorde ere zenbait hizkeratan behintzat; eta ez bakarrik funtzioaren aldetik, forma aldetik ere arkaikoagoa dirudi mendebal inguru honek (cf. Lakarra 1986c: 647), ekialdean bezalahemen ere *-k* gabeko forma aurkitzen baita. *-ti* atzizkia konplexuago egin zen gainerako euskalkietan (lehenengo testuetarik jada: Lcc, Etxepare...): Lafonen ustez *-ti* zaharrari *-(r)ik* ablatiboaren analogiaz gehitu zitzaion azken *-k*; Mitxelenaren ustez, baina, *-ti* horri gehiturikoa *-ka* atzizki adberbiala da (Santazilia 2013: 265), eta ondoren *-tika* forma horrek bestelako bilakabideak izan zituen: dela *-a* galduz (*-tik*) dela azken bokala indartzeko *-n* gehituz (*-tikan*).

¹⁵⁰ Honek, gainera, aurreko azterketek sortzen zituzten galdera bi argitzen ditu: batetik, zergatik *r* gabeko genitiboa darabilten idazleek *-ren bat* duten, eta bestetik, zergatik aurkitzen den *-reen bat* aldaera, Castañosen arabera singularreko *-een* alomorfoak “kutsaturik” sortua (Castaños 1957: 66).

Tesia idazten geundela, ohartu gara Santaziliak egitura hau *-(r)ean* ablatiboaren erabilera fosilduen artean aipatu duela, ezaguna balitz bezala (2013: 266).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Gure testuak mendebaldeko tradizioarekin bat egiten du, bai formaren aldetik eta baita funtzioaren aldetik ere. Gure testua arkaikoa da arlo honetan (ere): XVIII. mendean zehar *-ti(k)* atzizkiak ablatiboaren balioa hartu zuen Mendebaldeko eremuaren ekialde eta erdialdean: Barrutiak oso aurreratua du ordezkapen hau (ca. 1720)¹⁵¹ eta Mogelen *Peru Abarka*-n (*PAb*, ca. 1800) dagoeneko *-ti(k)* da ablatibo forma nagusia, apur bat modernoagoa den Laudioko dotrinan (1828) oraindik *-rik* erabiltzen den bitartean. Olaetxeak (1763) *-rik* baino ez du, baina XVIII. mendearen amaieran hasten dira ablatibo adieradun *-ti* atzizkiak aurkitzen sartaldeko lekukoetan ere: Bermeoko hizkeran idazten duen De la Quadra bilbotarraren (Lakarra 1996a: 162) eta Etxebarriko Sarriaren lanetan (Zuloaga 2010: 408), adibidez, *-ti(k)* atzizkiaz adierazitako ablatiboak badira, oro har *-rik* erabiltzen badute ere.

Prosekutiboko *-ti* atzizkiaz osaturiko marka dugu motibatiboa (*-gaiti* > *gai* + *-ti*), eta hauetan ere *-ti* eta *-tik* formen arteko lehia dago bizkaiera zaharreko testuetan. Gure testuan, zein bere aldetik dabilta prosekutibo eta motibatibo formak,¹⁵² jadanik euren erlazio etimologikoa ahaztuta: betiere *-gaitik* forma berria darabil egileak: *grandezeagaitic*, *ascogaitic*, *eurecaitic*... Sermoitegi guztian sei salbuespen baino ez ditugu: *segaiti* (hiru aldiz), *orregaiti* (bi aldiz), *bigaiti* eta *deungac gaiti* (behin). Esate baterako, salbuespen hauen aldean, 208 *segaitic* eta 84 *orregaitic* bildu ditugu.

4.2.2.3 Genitiboa

Bizkaiko eta Arabako euskaran diren *r* gabeko genitiboak testu zaharrenetatik lekukotzen dira: ezaugarri honen geografiaz gutxi dakigu, baina badirudi halako genitiboak ez direla egun bizkaieraren barruan sartzen dugun Deba ibarrean (Amileta, Barrutia, *1708ko sermoia*...¹⁵³) baina bai mendebaldeko gainerako testuetan (cf. Castaños 1957). Alabaina, literatur bizkaierak aurrera jo zuen heinean, antza denez Kardaberazek *Deboziño Batzuk* (1764) liburuko hitzaurrean esandakoaren ondorioz (cf. Altzibar 1992a: 64; ik. baita § 4.3.2.1.2.1), genitiboaren “berrezarketa” (hau da, beste

¹⁵¹ Data hau

¹⁵² Lakarrak prosekutiboen adibide legez aztertzen ditu motibatiboak (1996: 161); hala ere, hau berrikusi beharrekoa da, zeren eta, gure ustez, prosekutiboa eta motibatiboa epe eta moduetan bere kasa ibili baitira, beste testuren bat aztertzean iradoki dugun bezala (Ulibarri 2010a: 61 eta 84). Ikuspegi honetatik, testuetan *-ti* / *-tik* lehian egon, baina beti *-gaitic* izatea ez litzateke “beste nonbait entzun edo ikasitako forma jaso(ago)tzat zeukalako baliatu zuen forma” (Zuloaga 2010: 409), bere hizkeraren ezaugarri baizik.

¹⁵³ Lekuko hauek *-aren* erako genitiboak erabiltzen dituzten arren Garibai Arrasatearrak bilduriko *Milia Lasturko*-ren poemetan badira *erdiaen*, *andiaen* bezalako *r* gabeko genitiboak.

euskalkietan bezala, *-aren / -en* oposaketa berrerabiltzea) orokortu zen idatziz. Gure testuan, Kardaberazen aurreko egoera dakusgu, *r* gabekoak baitira genitibo guztiak: *arboleen, bulerren, Pabloen, Jangoicoen...* salbu eta behin, non *aren* *Dibine Magestadea* (40-111) argiki irakurtzen den. Halako esapide ezagunean ageri denez (*aen dibine magestadea* esapidea hirutan ageri da), uste dugu literatur eraginari egotzi diezaiokegula (cf. § 4.3.2.1.2.1).

r gabeko genitiboak sortu zituen bokal batuketan ondorio dugu zenbait adibide etimologiko, bokalismoa mantenduz: *doncelleaen* (26-181), *iraen* (45-129), *deshonestuaen* (41-90)...; baina batuketa hauen ondorio ezagunak dira bokal asimilazio zenbait, eta (*-aen > -een > -en*) dagokienez, testuak bokal bikoiztun aldaerak ditu, ohikoa denez (Castaños 1957; cf. Ulibarri 2010a: 61); *-a, -e* edota kontsonantez amaitzen diren hitzetan ditugu gehien (*dudeen, fedeen, lurreen...*); alabaina, bokal bikoiztun eta bakandun genitiboen arteko lehia dugu, *visiseen / visisen* edo *yserreen / yserren* bezalako bikoteetan islatzen dena, oro har testuko hizkeran bokal bikoitzak atzera bidean egotearekin bat (cf. § 4.2.1.5).

Bokalak bakuntzeaz gainera, beste bilakabide bat dugu *gentilien* (7-93), *orrein* (24-179), *virginiena* (37-101) eta *guliyen* ‘guleen’ (46-14; cf. § 4.2.1.8) adibideetan: hauetan bokalen arteko disimilazio bat gertatu da. Disimilazio honen parekoa lekukotzen da XIX. mendean Orozkon: “Tambien mudan en *i* la *e* que precede inmediatamente á otra *e*, y dicen *daudie, deusie* [...], esta última eufonia llega por este lado hasta las inmediaciones de Bilbao” (VRB 55).

Bestalde, *r* gabeko genitiboa galdetzailletara ere hedatu da: testuan *seen* ‘zeren’ (*seen beguire sagos?*)¹⁵⁴ eta *noen* ‘noren’ formak baino ez ditugu, mendebaldean espero bezala: lehenengoa Kapanagak (*zeen*) eta Mikoletak (*zen*) lekukotzen dute (OEH, s.v. *zer*), eta bigarrena Añibarrok, Astarloak eta Lazarragak (azken honek *nuen*; OEH, s.v. *nor*), bai eta VJ-ek ere (Ulibarri 2010a: 108).

-an formadun hiru genitibo ere topatu dugu sermoitegian: *hamairu urtean buruin* (5-58); *Diraoscu Jangoicoac berac David profetean aoti* ‘profetaren’ (23-37); *principean usen ori* ‘printzearen’ (28-48); *ileiten aguirte sitean camarán barruin* ‘kamararen’ (38-119). Forma hauek, bere urritasunean, bere garaiko eta lehenagoko

¹⁵⁴ Esaldiak erakusten duenez genitiboaz ari gara; izan ere, kausazko perpausen aurrekari gisa erabiltzen diren *zeren* edo *zerren* partikulen adibiderik ez dugu gure sermoitegian, honen beharrean *zergaitik* (*eze*) darabil sermoigileak.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

bizkaieratik urrundu eta Arabako Lcc. edota Albenizen testuetara hurbiltzen dute (ez, ordea, Bet-renera; cf. Zuazo 1998: 152).

Bestalde, orain arte *-ren bat* egiturako forma *r-dun* genitibotzat hartu izan bada ere (cf. Ulibarri 2010a: 62), testu honen laguntzaz ikusi berri dugu ablatibo zahar gisa analizatu behar dela (ik. § 4.2.2.1).¹⁵⁵

4.2.2.4 Datiboa

Orokorrean, *-ari* (sing.) / *-ai* (pl.) banaketa dugu testuan, Bizkaiko testuetan espero bezala; dena dela, *RUI* erregelak *-eri*, *-ei* formak eragiten ditu, eta *-uiri* eta *-ui* (< **-uii*) adibideak ere baditugu *-ua* > *-ue* > *-ui* bilakaeragatik (ik. § 4.2.1.7).

Zenbaitetan, ordea, badirudi *-ai* markak singularra ere adieraz dezakeela. Egia esanda, ez da erraza adibide argiak topatzea, gehienetan *RUI* erregelak adizkietako datibo singular eta plural markak alderdi grafikoan berdintzen baititu (ez dakigu ahozkoan, azentuaren bidez edo, ezberdinduko ote ziren): honela, *deutsegun* forma baten oinarrian **deutsagun* (dat. sing.) egon daiteke —**deutso*-tik, Mitxelenak azaldutako *jako* vs. *jakan* txandaketagatik (Mitxelena 1954b, *OC XI*: 133) eta *RUI* erregelarekin— edo **deutsegun* (dat. pl.).

Dena dela, singularreko *-ai* atzizkia argi duten adibide bi ditugu: *irecasi eguiyosu seuroen humeai* (21-6) eta *satisfeciñoea emaiten aprobechau leiquiyo proximuei* (13-41). Hauegaz gainera, latinezko pasarteak argi lezake datiboaren numeroa honako itzulpen honetan: “*respexit in orationem humilium* beguiretu eusen Jangoicoa humildeen oraciñoelai” (pluralak *in orationes humilium* beharko luke). Azkenik, testuinguruak lagunduta suposa dezakegu datiboa singularra dela, ez beti modu ukazinean; honela, *gorpusei* datiboak singularrekoa dirudi ondoko perpausean: *selan Sara erechan hembra baten saspri esposoi quendu eusela Jaungoicoac euren visisea bodetaco lelengo gaubean intentau eudelaco usetea bacarric gorpusei gustue emaitarren* (41-74). Gehienetan, ordea, ez dago horrelako aukerarik; adibidez, *Da Jesusen usena misericordiyeco usena, ofrecitan deusena guisonai osasunic onena eta*

¹⁵⁵ Honek *VJ*-n egin genituen kontuak (Ulibarri 2010a: 62) aldatzen ditu ezinbestean: bertan agertzen den *-r-dun* genitibo mugagabe bakarra *Evaren* litzateke, zehazki.

visiseric dichosoena (2-56) bezalakoetan ez dago erabakitzerik *gisonai* singularra edo plurala ote den, *deusena* horrek ‘diona’ zein ‘diena’ adierazi baitezake.¹⁵⁶

Kontuak aterata, goian aipaturiko hiru adibide zurrak alde batera utzita, 25 bat zalantzazko ditugu, non singular zein plural uler baitaiteke datiboa; eta hauen parean 100 adibidetik gora adiera plurala dutenak argiki; beraz, egiantzekoena da adibide zalantzazko hauek ere —gehien-gehienak— plural izatea. *-ai* singularrekoaren agerpen gutxi izanik ere, aurreko *-an* genitiboa (§ 4.2.2.3) bezain garrantzitsua da testua kokatzeko, ezaugarri honetan ere Arabako Lcc-rekin eta Laz-ekin (Bilbao *et al.* 2010: 197) lotzen baita eta, aurrekoa bezala, Bet-tik aldentzen (Zuazo 1998: 152).

Bestetik, datibo marka laburra izanik (*-i*), fonema bakarreko datibo marka zaharrak mendebaldeko zenbait hizkeratan berrikuntza bat jaso zuen, hau luzatzeko joera alegia (Urgell 2001a: xc); oraindik egiteke dago honen banaketa geografiko eta kronologikoaren azterketa, baina erakusleetan XVII. mendetik aurrera behintzat badira luzatutako formak (Ulibarri 2010a: 114). Gure testuan ere *-eri* marka luzatuaren adibideak topatzen ditugu, izen berezi eta mugagabeetan: *Adaneri*, *Jesuseri*, *Luiseri*, *arcaleri*... marka zaharra mantentzen duen izen berezi bakarra *Ezequieli* (46-135) delarik. *Bat* zenbatzailean *-eri* baino ez dugu (*bateri*): dagoeneko Lazarragan lekukotzen da baina XIX. mendera arte ez da orokortzen bizkaierazko testuetan.¹⁵⁷ Amaitzeko, lehenengo eta bigarren graduko erakusleetan ere mugagabearen marka *-eri* da: *oneri* (4 aldiz) eta *orreri* (behin). Lehenengo XVII. mendeko Kapanaga eta *VJ* dotrinetatik aurrera lekukotzen da, eta bigarrena Kapanaga eta Kardaberazen bizkaierazko dotrinean ditugu XIX. mende aurretik.

4.2.2.5 Hurbiltze adlatiboa

Hurbiltze adlatiboaren aldaeren artean, mendebaleko hego-sartaldean lekukotzen den *-rantx(a)* forma aipagarria da. Gutxitan aditzera eman da dialektologia lanetan, baina oso eremu koherentea daukan ezaugarria da: Txorierritik hasi eta Arabako Eriberaino aurkitzen da iparretik hegora, eta mendebal aldean Nerbioi arroan zehar (cf.

¹⁵⁶ Cf. bi esaldi hauek: “eta selan omaiten *deusen* [= *deutsen* ‘dien’] Jangoicoonec onai gloriye, deungai ynfernue” (1-104) eta “da Jesusen usena señale bat, seinec eracusten *deusen* [= *deutsan* ‘dion’] guisonari ser eguin eben beragaitic Jangoicoac berac” (2-42).

¹⁵⁷ XVIII. mendera arte 4 *bateri* baino ez ditu lekukotzen *EKC*: Lazarragareneko adibideaz gainera (honen ondoan bi *bati* ere ditu), bi adibiderekin dugu Kapanaga (eta zero *bati*) eta bakarra Moglek (eta 197 *bati*).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Ulibarri 2010a: 62 eta Zuloaga 2013: 602). Gure testuan *beragananch* lekukotzen dugu, hego-sartaldeko beste testuetan agertzen den forma bera, beraz. Adibide bakar honen aldean *cerurensa* eta *goransa* bina ditugu, bai eta hiru *osteransean* eta hamasei *osteranseco* ere.

Osterantzean berezia da, lexikalizaturiko hitza izanik egiantzekoa baita *-rantz* deklinabide atzizki bezala ez ulertzea (hala ere, *VJ*-n *osterancheo* dugu dagoeneko; cf. Ulibarri 2010a: 106). Gainerako adibideetan, baina, atzizki beraren bi alomorfo aurkitzen ditugu, eta aukera dago biak, *-(r)antx* eta *-(r)antz*a, elkarrekin bizitzea hizkeran, bien arteko kronologia ezberdinean oinarriturik.¹⁵⁸ Izan ere, txistukaria gorabehera, oinarrian diren bi formatatik (bukaerako *a* gabeko *-rantx* eta *a*-dun *-antz*a) badirudi *-a*-dun aldaera modernoagoa dela, hurbiltze adlatiboaren gainean pleonastikoki *-a* adlatibo marka gehituz sortua (cf. Santazilia 2013: 267). Honela, **-rantz* jatorrizkotik bi aldaera sortu bide ziren: batetik *-rantx*, txistukari sabaikaritzeaz, eta bestetik *-rantz*a, adlatibo pleonastikoarekin. Ondoren, lekuko berriagoetan aurki dezakegun *-rantxa* sortuko zen, analogiaz.¹⁵⁹

4.2.2.6 Muga adlatiboa

Muga adlatiboak hainbat forma hartu ditu euskaraz; mendebaldean bertan *-giño*, *-raino* eta *-ragiño* ditugu. Formaz gainera, ezaguna da EGLU-k (I, 266) ezarritako atzizki honen eta *arte* postposizioaren arteko banaketa osagarria: *-raino*-k lekua adierazten duen bitartean, *arte* denbora kutsukoekin lotzen da. Hala eta guztiz ere, euskalkietan zehar bata eta bestearen arteko gurutzaketak kausitzen ditugu eta, nolana ere den, argia da kronologia ezberdineko baliabideak direla: batetik, *-raino*, deklinabide atzizkia den heinean, zaharragoa da *arte* postposizioa baino, eta bestetik, ziur da antzina

¹⁵⁸ Beste azalbide bat egon daiteke: <ransa>ren ahoskera **-ranxa* dela proposatzea, hizkera hartan *n* osteko afrikatuaren neutralzea frikariaren aldekoa zela suposatuz. Bigarren azalpen honek adibide guztiak palatal izatea ahalbidetzen du, *beragananch* formarekin bat eginez: honetan ez genuke neutralzerik, txistukaria amaiera absolutuan dagoelako.

Aukera honek, baina, arazo garrantzitsu bat du: ezin dugu testu honetan *n* osteko afrikatuaren neutralzea badela frogatu txistukarien adierazpen defektiboa dela eta (ik. § 4.2.1.4)

¹⁵⁹ XVIII. menderako jada *-rantz* > *-rantx* aldaketa gertaturik zen Orozkoko otoitzetako (ca.1739) *gueugananch* formak erakusten duenez (lehenago ere *osterantxean* dugu *VJ*-n); halere, ez da gaurko hizkeren deskribapenetan haren berri jaso: azken adibidea, hortaz, XX. mendeko Eribekoa (Zigoitia) litzateke (*EI*), bazterreko hizkera batekoa izateagatik nonbait. *-rantz* > *-rantz*a aldaketa, bestalde, XIX. mende hasieran dugu lekukotua lehenengoz, forma bakarra izanik Sarriaren sermoitegian (Zuloaga 2013: 602). Mende berean analogiaz hedatu bide da txistukari sabaikaria eta *-rantxa* sortu: aldaera honetakoak dira beste lekukotasun guztiak, itxuraz dagoeneko *-rantz*a baztertua baitzen hego-sartaldeko eremuan, salbu eta Orozkoko Zubiaur eta Olarten eta Arratian, *EI*-ren arabera.

denbora ere adierazten zuela Euskal Herri osoan, fosilduta diren *oraindo*, *oraino*, *orainguiño*... aditzondoek erakusten dutenez.

Orain artean egindako lanak formetara mugatu dira. De Rijk-ek atzizkiaren berreraiketa aurkezterakoan forma ezberdinen banaketa mapa orokorra egin zuen: Burundako *-aindo*, Bizkaiko *-gino* eta Arabako *-gano* aldaerekin **-gaindo* berreraiki zuen (de Rijk 1992: 708); honetatik, **-gaindo* > *-gaño* > *-gano* aldaketaren bidez forma baxenafarra eta zuberotarra (*-gaño*) eta aipaturiko arabarra azaldu ditu. Gainontzeko hizkeretan atzizkia adlatiboaren gainean eratu bide zen (**-ragaindo*), eta hortik eratorriko ziren *-raino* eta antzekoak (de Rijk 1992: 708 e. hh.). Gamindek berrikiago (2007: 121) muga adlatiboa adierazteko Bizkaiko formak aztertu ditu: *-raño*, *-giño* eta *-rarte(an)*; eta egun bakoitzak duen hedadura maparazi. Euren arteko lehia handia dago, baina bere aburuz “badirudi ‘giño’ galduz doala denetan eta berrikiago ‘rarte’ hasi dela gailentzen hainbat zonaldetan” (*ibid.*). Honela, *-raño*-k Arratia, Txorierri, Uribekosta eta ekialdeko bizkaieran bizirik dirauela (zenbaitetan *-rarte*-rekin lehian), *-giño* Nerbioi ibarrean bakarrik gordetzen den bitartean.¹⁶⁰

Testuan hainbat aldaera dira: *-giño*, *-raindo*, *-rainguiño*, eta adizkietako *-no*, baina hauetatik guztietatik *-giño* da aldaera emankor bakarra: *ceruguiño*, *orainguiño*, *cabuguiño*, *eguneguiño*, *demporaguiño*, *urteguiño*... singularrean, *noguiño* galdetzailan, eta *-(e)taguiño* mugagabe eta pluralean: *egunaataguiño*, *onetaguiño*, *asurretaguiño*. Beste formak erakusleetan fosildurik dira: *araindo*-ren bost adibiderek batera *arainguiño* bat ere badugu. Biak adiera berean erabiltzen direlarik, *araindo* zaharrena dela suposa daiteke (de Rijk-ek proposatzen duen **-ra gaindo*-rekin bat; 1992: 708), eta *arainguiño* analogiaz sorturiko forma “hibridoa” (forma erregularra ***aragiño* edo ***aguiño* beharko luke). *Araindo* forma honek baluke interesik, gaur egungo datuek Burundan baino ez baitute lekukotzen (De Rijk 1992: 708; cf. Zuazo 2010: 83).¹⁶¹

Adizkietako *-no* (cf. de Rijk 1992: 709) behin dugu adibide honetan: *Jangoicoac enojaduric descargadu daiqueano vere azotea eta sentenciye condenaciñoecoa?* (16-184). Lafonek (1943: 464) *-no* atzizki hau Leizarraga, Etxepare eta Oihenarten lanetan

¹⁶⁰ Hala ere, badirudi lehenago hedatuago zegoela sartaldeko bizkaieran bederen, Meñakan eta Bakion ere lekukotzen baita *-giño* aldaera (Gaminde 2007: 121), eta testu zaharretan Mogel bezalako markinarrak edo Mañariako Kapanagak ere erabiltzen dute.

¹⁶¹ Zuazok *-raino* orokorraren berrikuntzat hartzen du Burundako *-raindo* (2010: 200), De Rijk-ek proposaturiko berreraiketaren aurka. Testu honen lekukotasunak herbeheretarraren ustearrekin bat egingo luke, *-d-* hori zaharra litzatekeela, alegia.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

frankotan lekukotzen du,¹⁶² eta Mendiburuk ere maiz izateak adierazten du, erdialdean behintzat, ere erabilia izan zela XVIII. mendera arte behintzat (*deño, diraño, dueño, duteño...* cf. *EKC*). Mendebalderago Lazarragarenean ere izateak (*daikeano* 1183r, *zitezkeano* 1152r, *eyano* 1153r) adierazten du inoiz Euskal Herri osoko baliabidea zela, eta gure testuak bermatzen du are mendebalderago eta are beranduago ezagutu zela.¹⁶³ Erabileraren aldetik, “-no atzizkiak denbora-tartearen azken muga adierazten du eta trinkoei eta —aditzoina + **edin*, **ezan*||, —aditzoina + **iro*|| (ekialdean) eta —partizipioa + *egin* || (mendebaldean) perifrasiatiko laguntzaileei gehitzen zaie” (Bilbao *et al.* 2010: 1152r), eta gure adibidea azken taldeari lotzen zaio.

Erabileraren esparruan, -*guiño*-k hala ‘lekua’ (*ceruguiño, cabuguiño, samaguiño, ulleguiño, asurretaguiño...*; *araindo* eta *arainguiño* formekin batera) nola ‘denbora’ adieraz dezake: *orainguiño, eguneguiño, urteguiño, eriosaco demporaguiño, epistolaguiño* edo *evangeliyoguiño*, eta agerian denez, azken adiera hau ez da *oraingino* bezalako fosilduriko formetan bakarrik, bestetan ere baizik. XVIII-XIX. mendeetan oraindik ezagunak dira denbora kutsuko -*giño* hauek:¹⁶⁴ *EKC*-n egiaztatu ahal izan dugu J. A. Mogelek badituela *orainguiño* edo *orduguiño* bezalako forma fosilduak; Añibarronean, ordea, bizirik dirau denbora kutsuko -*giño* honek: *zartasuneragiño, eriotzaragiño, Kristoren etorreragiño, garizumagiño* edo *beranduguiño* bezalakoek erakusten dutenez.

Hala ere, *nora artean* postposizioaren bidez eraturiko adibide bat ere badago testuan, denborazkoa, jakina: *eriosara artean*, gehi *nos artean* galdetzailea. *OEH*-ren arabera denbora kutsuko *arte* orokorra da zubereratik kanpo, baina bizkaieran Kardaberazengandik baino ez da lekukotzen (cf. *EKC* s.v. *arte*), XIX. mendearen erdialdean hedatzen doa eta XX. menderako orokorra da (s.v. *arte*). Antzeko banaketa du *artean*-ez eratutako postposizioak ere: aditz, adizlagun edo denbora kutsua duen hitz baten ondoren orokorra da zubereratik kanpo (*OEH*, s.v. *arte, artean b*): Leizarraga, Lazarraga eta *RS*-tik aurrera lekukotzen da, eta horrelakoxea da gure *nos artean* adibidea. *eriosara artean* adibidean den *adlatibo* + *artean* egitura, berriz, interesgarriagoa da kronologikoki: Hegoaldekoa baino ez da, eta XIX. mende hasierara arte ez da lekukotzen (*OEH, ibid.*), eta errus aurki dezakegu XIX. mendean zehar: Añibarro, Zabala, Iztueta... (cf. *EKC* s.v. *artean*).

¹⁶² Lapurtera klasikoan bederen forma -*iño* da palatalarekin: cf. Axularren *deiño, direño...*

¹⁶³ Aipagarria bai Lazarragak, bai gure testuak bat datozela *daikeano* adizkian, honek iradokitzen baitu beharbada forma fosildu gisa iraun zuela mendebaldean.

¹⁶⁴ Lehenago ere Kapanagak baditu *orainguiño* eta *beranduguiño* bezalako adibideak.

Laburbilduz, batetik, adizkietako *-no* atzizkiaren erabilera, mendebaldean Lazarragagandik kanpo aurkitzen ez dena, XVIII. mendean lekukotzen du gure testuak. Bestetik, Añibarrarekin bat egiten du muga adlatiboa denbora kutsuko adieretan ere erabiltzean, eta amaitzeko, oraingoz *adlatibo* + *artean* Hegoaldeko egituraren lehen lekukotasuna dela esan genezake.

4.2.2.7 Destinatiboa

Destinatiboa adierazteko ere forma bat baino gehiago bizi da mendebaldeko hizkeretan: funtsean, *-(r)entzat*, *-(r)endako* eta lehenengoaren aldaera modernoagoa den *-(r)entzako* (cf. Mitxelena 1978b, *OC VII*: 414). Dirudenez, *-(r)entzat* eta *-(r)endako* formak dialekto ezberdinetako testu zaharretan batera agertzen dira,¹⁶⁵ eta ondoren hizkera bakoitzak berea orokortu zuen (Santazilia 2013: 272).

Egun *-(r)endako* Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garai gehiengan (mendebaldeko hizkera batzuetan baino ez ei dago *-(r)entzat*: Bortziri, Larraun, Imotz...) erabiltzen da, eta Deba ibarrean, Durangaldeko hizkera batzuetan eta Goierriko mendebaldean ere badago, Lapurdin bien arteko lehia dirauen bitartean (Zuazo 2008: 247). Gamindek Bizkaian egindako azterketa Zuazoren datuekin bat dator: *-(r)endako* Bizkaiko sortaldera, Elorrio-Ermua ingurura, mugatzen da; beste lurraldeetan *-(r)entzat* eta bere eratorria den *-(r)entzako* lekukotzen ditu, elkarren arteko lehian (Gaminde 2007: 115). Gure testuan *-entzat* da bakarra: *viciyoensat*, *pecadoreensat*, *neuresat*, *gustiyensat*...

4.2.2.8 Artikulu zaharra eta zenbait berrikuntza berezi

Egun gehienbat 3. graduko erakusletik eratorritako artikuluak bakarrik erabiltzen den arren, gauza ezaguna da, testu ez hain zaharrak begiraturik egiazta daitekeenez, hiru graduko erakusleak hasi zirela *erakusle* > *artikulu* gramatikalizazio bidean (Martínez Areta 2013: 294). Artikulu mota baten edo bestearen erabilera hizlariarekiko norainoko

¹⁶⁵ Aztertzeke badago ere, posible izan daiteke bi formetako bat *fase sparita*-n aurkitzea zenbait testutan: hori iruditzen du Etxepareren adibideak aztertuta: *-endako* gehienetan erakusleetan agertzen da (*zuiendako*, *harendako* baina baita *batendako* ere), bestelako adibideek *-entzat* erabiltzen duten bitartean: *ororenzat*, *berzerenzat*.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

urruntasuna zegoen eta honen arabera erabakitzen bide zen: honela, *hau(r)* erakusletik datorren artikulua lehenengo pertsonarekin loturiko sintagmei legokieke (*ni bekatariau*), eta *hori* bigarren pertsonarekin loturikoei (*zuri aita espiritualorri*).¹⁶⁶ Hiru graduko artikuluoak, euskalki guztietan ezagunak izan ziren arren, ekialdeko euskalkietan badirudi *fase sparita*-n aurkitzen direla lehen testuetatik, mendebaldean luzaroan iraun duten bitartean (Santazilia 2013: 229). Areago, mendebaldean erakusle pleonastiko bat gehiturik, [erakuslea + iz. sintagma + artikulua/erakuslea] egitura sortu zen (Martínez Areta 2013: 296).

Hasteko, esan behar dugu ez dela erraza hasperenik ez duen testu batean artikulua edo erakuslea den erabakitzea. Beraz, edizioan *au / ori* artikulua edo erakusle den erabakitzeko (eta, ondorioz, izen sintagmari loturik edo aske adierazteko) hiru irizpide erabili ditugu: lehenik, [erakuslea + iz. sintagma + erakuslea] egituraren, jakina, bigarrena betiere artikulua zahartzat hartu dugu. Bigarren irizpidea fonetikoa da, esan nahi baita, ea izenaren eta ustezko erakuslearen artean artikuluan aurkitzen diren bilakabide fonetikoak (epentesiak, *RUI* erregela...) dagoen ala ez. Hirugarrenik, kasu berezi batzuetan ontzat eman dugu egilearen idazkera, hots, bildurik ala banaturik idatzi duen, nahiz eta, oso irizpide ahula dela jakinik, bakanki baino ez dugun erabili.

[erakuslea + izen sintagma + erakuslea] egitura dugu ugarien testu honetan:¹⁶⁷

au usen altueu (2-28); *au misterioau* (3-17); *au garaueu* (5-56); *au doctrine gustiyeu* (18-47); *onec señaleoc* (5-63); *onec ondasun espiritualoc* (13-15); *onec fineza andiyoc* (5-92); *onec suonec* (15-39); *onec medicu dibinuonec* (2-47); *ori Jaunori* (17-10); *ori Ceruco tesoru edo ondasunori* (4-77); *orrec gauseorrec* (43-30); *aec escu dibinuaic* (2-38); *aec lecuaaic* (7-17)...

[Erakuslea + iz. sintagma + determinatzailea] egituraren adibideak ere badira testuan: *au lecue* (6-134), *au pasiñoec madariquetue* (45-54); *onec articulu fedecoac* (1-11); *au mandamintue* (26-59)... Ez dago dudarik historikoki bata bestetik eratorria dela, lehen egiturak hiru graduko artikulua gordetzen duen bitartean, bigarrenak artikulua

¹⁶⁶ Badirudi, hala ere, antzina bi gradutakoak baino ez zirela, hurbiltasuna eta urruntasuna markatuz (*haur* / **har*), eta ondoren *haur* hurbiletik forma berri bat sortu zela bigarren pertsonarentzat: **haur-i* > *hori* (Martínez Areta 2013: 297). Hau garrantzitsua izan daiteke artikulua hurbilak dituen zenbait ezaugarri azaltzeko (singular eta pluralaren artean dagoen asimetria, adibidez: *-au/-ori* vs. *-ok*).

¹⁶⁷ Mendebaldeko egitura honetan erakusleak eta artikulua zaharrak deklinabide marka bera izan ohi dute (cf. Zuloaga 2010: 407); alabaina, *ones gustionegas* (26-69) kasuan lehenengoa instrumentalean dago eta bigarrena soziatiboan. Dena dela, lotura handiko deklinabideak dira biak ala biak (cf. Igartua & Santazilia 2013).

modernizatu baitu. Testuek ere beste horrenbeste erakusten digute: lehenengoa XVII. mendetik da ezaguna (cf. *VJ*; *oneec amar mandamientuoc* edo *Kap onec guztioe*); bigarrena XVIII. mende bukaerako Sarriaren obretan lekukotu da lehen aldiz (Zuloaga 2010: 423).

Dena dela, egitura honetarik kanpo ere badugu artikulu zahar legez ulertu dugun adibiderik. Irizpide fonetikoaren arabera dira ondokoak: (1) bokal bakuntzeaz ($a + a > a$;¹⁶⁸ $o + o > o$) *emon eguidesu aori* ‘ahoori’ (15-125); *logretaco dichau* ‘dichauu’ (44-74) edo *diferenciya dago* ‘diferenciya’ (43-109); (2) *RUI* erregela (ziurtasun gutxiago eskaintzen du, bestelako klitikoetan ere bai baitago; cf. § 4.2.1.7): *sorueu* (16-76); *mandamintueu* (17-93, 17-103). Oraindik gaur egun artikulu zaharra ondo gorde den egitura jakinak ere aintzat hartu ditugu, noski: *esan dosun gustiori* (44-77)... Eta, esan bezala, idazleak lotuta idatzitakoak ere aintzat hartu ditugu, adibide bakan batzuetan bada ere: *Segaitic arimeori seinegas visi sarean criyedu eben* (12-49).

Sermoitegiko artikuluetan bada beste berezitasun bat: *aec escu dibinuaic* (2-38), *âec berbaic* (3-70), *aec lecuaaic* (7-17) eta *demoniñoaic atormentetaco* (11-124) adibideek erakusten duten *-aic* forma (hauek lirerateke testuko adibide guztiak). Artikulu sistema orokorraren arabera, 3. graduko artikuluek *-ak* beharko luke, Euskal Herri osoan eta gure testuan ere badena; alabaina, badirudi gure hizkeran *aec* erakusle pluralaren analogiaz *-aic* (< **-aec*) 3. graduko artikulu plural “berri” bat sortu zela artikulu plural urruna ordeztuko. Gakoa honetan datza, alegia, pluraleko erakusleak *aec* itxura gorde duen bitartean, artikulutzat jo dugun honek *aec > aic* disimilazioa pairatu duela. Adibideak ikusita, itxuraz, proposa daiteke **[aek* izen sintagma-*aek]* egituran sortua dela (hiru adibide ditugu egitura honekin), hain zuzen, aurrenik doan erakuslearen eraginez, eta hemendik at hedatzen hasia zela.

Azalpen bera izan genezake *arboleatan* (2-96),¹⁶⁹ *aflliciñoatan* (38-82), *egunatan* (7-11; 7-171; 15-30) eta bereziki *estucunseatan* (38-136) eta *meseatan* (13-19) adibideetan:¹⁷⁰ alegia, *atan* erakusle urrunaren inesiboa hizkera honetan artikulu urrunaren (*-an*) ordeztu erabiltzen hasia zela.¹⁷¹ Honela bakarrik azal daitezke *meseatan*

¹⁶⁸ Hizkeraren kokapenerako aipagarri da hauetan Lazarragak *ea* egingo zukeela: *ditxeau, esperanceau...*

¹⁶⁹ Forma mugagabea *arbole* da sermoitegian, *dagosan arbole asco* (1-85) edo *il sin esqueguiric arbole bateric* (25-78) esaldiek erakusten dutenez.

¹⁷⁰ Esan gabe doa, lehenengo bietan *ea* jatorrizkoa dela (< $e + a$) eta azken bietan, aldiz, $a + a > ea$ erregelak sortua.

¹⁷¹ Hauei agian *agoniñoatan* (4-119) ere gehi genezake, hutsa ez bada behintzat: proposamen ausarta izanik ere, posible daiteke kasu honetan lehen graduko erakuslearen inesiboaz (*onetan*) ordeztu izana inesibo hurbilaren deklinabide marka (*-on*), eta gramatikaltze bidean izateagatik kamuztu dena (*-oatan* < **-oetan* < *-onetan*).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

erako formak: honetan *-atan* artikulutzat hartua da, eta mendebaldeko hizkeratan artikulua gehitzeko erregela pairatzen du ($-a + atan > -eatan$). Hemen bokal bikoitzez hitz egitean aipaturiko *saburdaatan*, *mendiyaatara* eta *egunaataguiño* adibideak ere genituzke, bokal bikoitza gorabehera (bokal bikoitzen esanahiarako, ik. § 4.2.1.5), eta hauen parekoa genuke *andiyeeatan* (4-29) adibidea ere.¹⁷²

Honela, hizkera honetan artikuluekin erlazionaturiko berrikuntza zenbait gertatu direla ikusten dugu; arrazoiak artikulua urrunaren berrikuntzok antzematerik ez dugun konnotazio bereziren bat zutela izan daiteke, edo aski da pentsatzea artikulua fonetikoki luzatzeko (berrindartzeko) joeran; arrazoiak arrazoi, esan daitekeena da berrikuntza baten aurrean gaudela, euskal hizkera zaharrez dugun ezagutzaren arabera hizkera honetako eksklusiboa dena. Amaitzeko, ez dugu aipatu gabe utzi nahi berrikuntza hau pluraleko absolutiboa eta singularreko inesiboan gertatu izana; hots, hain zuzen $a + a > ea$ gertatu ez den eta $a + a > aa$ luzaroen gorde duten bi kasuetan (cf. *FHV* § 5.3).

4.2.3. Aditz sistema

4.2.3.1 Partizipioak: *-adu* / *-idu* > *-au* / *-iu* eta *-a* partizipioak edo aditzoinak?

XVIII.aren bukaera eta XIX.aren hasiera bitartean mendebaldeko partizipio zenbaitetan, ordura arteko testuetan nekez lekukotzen zen aldaketa bat gertatu zen: *-adu* > *-au* eta *-idu* > *-iu* bilakabidea, alegia (Añibarroren egoeraz; Urgell 2001: xcv). Testuan dagoeneko badira honelakoak, baina guztira oso ehuneko txikian oraindik: *BFA* eta *SS*-ko sermoiak erabiliz, *-a(d)u* partizipiodun 194 aditz dira, eta hauetako 99 *-adu*-ren adibideak baino ez dituzte, eta *-au* bakarrik dituztenak 49 dira. Bestetik bi formatako adibideak dituzten aditzak 46 dira. *-i(d)u* partizipioa duten aditzak, bestalde, 88 *item* dira eta hauetako 66-etan *-idu* baino ez dago, 6-etan *-iu* baino ez da lekukotzen eta azkenik 16 aditz ezberdin ditugu bi formatako adibideekin. Agerpen kopuruetan ere antzeko emaitzan aukitzen dira: 260 adibideetan *-adu* markarekin ditugu, *-au* amaieradun 73ren aldean. Partizipioaren gainean egindako formek (*-rik*, *-ko* eta antzeko beste atzizkiren bat gehitzen zaionean, alegia) antzeko emaitzak ematen dizkigute,

¹⁷² *Andi* hitzak erabilera berezia du sermoitegian; honetaz gainera, *andiyeen-* erako 31 adibide ditugu (cf. § 4.2.1.5, xx. oh.) eta erakutsiko lukete, adibide batzuetan bederen, forma mugagabetzat *andiye* duela eta horren gainean eratzen dituela egiturak: honela, *-a* bukaeradun hitza legez funtzionatzen du egitura honetan.

orduan *-adu* 158 adibidetan erabiltzen da, eta *-au* 70 adibideetan. *-au* bakarrik duten 49 dira, eta bietako adibideak dituztenetan forma osoa (*-adu*) mantentzen dutenek dira garaile. *-idu* partizipio adibideetan, *-idu* bukaeradun 207 daude, eta *-iu* partizipio formak: 10 baino ez. Partizipioaren gainean egindako formetan, bestalde *-idu*-k 99 adibide dakartza, *-iu*-ren 15en aldean. Zenbakiak argi erakusten dutenez, oraindik hasikinetan zen *-adu* > *-au* eta *-idu* > *-iu* bilakabidea.

Bestalde, aditz mailegatu mordoxka batek *-adu/-au* barik *-a* bukaera du (edo *-e*, *RUI* erregelaren eraginez). Hona hemen komentatzen daragoiguzan adibide guztiak: *acorda saites* (sei aldiz), *acorda sateanean*, *acorda saiteala*, *acorda gaitean*, *alza sate*, *alsa sila*, *aparta diteala*, *condena gaitean*, *condena saitean*, *considera sates*, *desengaña saites* (birritan), *engaña leiteque*, *para sate*, *pondera al leique* eta *pregunte eguiyosu*.¹⁷³ Adibideok azaltzeko hiru bide ditugulakoan gaude, ez nahitaez bata bestea gezurtatzeko modukoak: lehen azalpena fonetikoa da eta *-adu* > *-au* > *-a* bakuntzea genuke, nahiko aldaketa ezaguna gaur egungo hainbat hizkeratan (cf. Gaminde 2007: 140); bigarrena analogia litzateke, '*kosta* + *izan*' edo '*bota* + *izan*' bezalako egiturekikoa alegia; azkenik, aditzoinaren iraupenean pentsa daiteke, bestetan ere arkaikoa den sermoitegi honetan.

Hiru aukeren artean, bigarrena (analogia, alegia) ez dirudi egiantzekoa denik, *kosta* eta *bota* oso aditz bakanak baitira (*-adu* partizipioen ugaritasunaren aurrean) inolako indar analogikorik izateko. Lehenengo azalpena (*-au* > *-a* aldaketa fonetikoaren azalpen klasikoa, alegia) joaz, honetan ere arrazoi fonetikoak ez luke bermatuko halako aditzetan diren proportzioak: *-adu* > *-au* aldaketa hasi berritan da, esan denaren arabera; beraz, zail ikusten dugu dagoeneko *-au* > *-a* aldaketa ere martxan jarrita egotea.

-a adibiderik ez duten hainbat *-adu* aditzez gainera (*amadu*, *manifestadu*, *deseadu*, *gozadu*, *honradu*...) bitakoak dutenen artean ere beti da *-a(d)u* aldaera garaile: *pregunte* 2 vs. 15 *pregunte(d)u*; *considera* 1 vs. 22 *considera(d)u*; *aparta* 1 vs. 16 *aparta(d)u*; *condena* 1 vs. 11 *condena(d)u*...¹⁷⁴ Gainera, partizipioari eransten zaien

¹⁷³ Berezia da *pise* / *pisetu* aditzaren egoera, kausistika konplexuagoa baitu inolako ondorio zehatzik ateratzeko. Aditz honek *pise* forma hartzen du adibide gehienetan (*pise dau* 4-90, *pise daben* 4-93, *esteuse eser pise* 4-94, *pise ysen euden* 4-96). Alabaina, aditz-izenaren edo bereziki geroaldiko partizipioaren atzizkia gehitzen zaionean *pisetu* da oinarria (*pisetuiten* 4-54, *pisetuco* 46-119; Bizkaiko tradizioan legez, cf. *OEH* s.v. *pisatu*); beraz, *-atu* aditza genuke eta ez goikoen tankerako *-adu* (cf. § 4.2.3.2).

¹⁷⁴ Honegatik *bota* eta *kosta* ez dira adibide taldean sartzen, hauetan partizipioaren formak direla baieztatzen diren garelako: testuan ez dago ***costadu* edo ***botadu* formarik, indikatiboan *costa yacan* eta *boteebela* baizik.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

atzizkietan (-ko,-rik...) beti -adu / -au partizipio marka azaleratzen da (*pregunteuco*, *acordauric*, *desengañaduco*, *condenaduric*), eta ez dago ***pregunteco*, ***acordaric*, ***desengañaco* edo ***condenaric* behin ere (cf. Azkue 1935: 73).

Hau guztiagatik, badirudi Bizkaiko -a partizipioen azalpen klasikoa (-adu > -au > -a) alde batera utzi behar dugula eta, gure egilearen egoera ikusita, garai batean aditzoina erabiltzen zela pertsatzea, eta ondoren indikatiboetara hedatu zena. Aldeko argudioen artean aditzoina eskatzen zuten egituretan Dotrinazko Sermoitegian duen maiztasuna litzateke; izan ere, *pregunte eusenean* (26-89) eta *considera bear dosu* (22-133) adibideak kenduta, gainerako agerpenak (21 guztira) indikatiboz kanpoko formetan ditugu, inperatiboan batez ere, honelako formak luzaroen mantendu duen aditz moduan, alegia (Mounole 2007: 74 eta 76). Honela, badirudi erabilera era fosilduan genukeela: ditugun adibideok adieraziko lukete bi eremu gurutzatu direla aditzoinaren mantentzean: batetik, genekien bezala, aginterara mugaturik gelditu zen aditzoina eta, bestetik, partizipio mota mugatu batera (-adu / -au partizipioetara); areago, aditzoinaren eta partizipioaren arteko mugak ez direla argiak dagoeneko, aipatu bi salbuespenek indikatiboetara hedatzen hasiak zirela erakusten baitute.

Aditzoina nasaiki darabilen azken idazlea Barrutia (ca.1721) dugu (Mounole 2007: 86), baina garai bertsean Arabako ekialdeko Albenizek (adibide bi aginteran eta biak *begira* aditzarekin; Altuna 1998: 119), Olaetxea munitibar-gerrikaiztarrak (*acorda zaitetz*, eta *salba liteque* dakartza; ik. Olaetxea 1763: 3 eta 126), Astigarraga basauriarrak (behin, *confesa zaitiala* adibidean; Zuloaga 2011a: 262), De la Quadra bermeotartua (Bilbao 1997: 269) eta Añibarro arratiarrak ere adizoina erabiltzen dute.

Añibarroren adibide ezagunenak *Geroko Geroren* itzulpenean dira, eta argitaratzaileak Axularren originalaren ereduari jarraiki eginak direla suposatzen du (Urgell 2001a: cxli); alabaina, gure ustez Añibarroren zenbait adibide berariaz idatzitako aditzoinak direlako susmoa hartzen dugu, Urgellek ikusten duena lagun: “aditzoinok hasieran anitez maizago ageri dira, liburuaren bukaeran baino” (2001: cxli); eta beraz, argitaratzailearen aburua frogatzen da eta liburua aurrera joan ahala jatorrizko testua laga eta bereago den euskara bati atxikitzen zaio egilea (*ibid.* cxiii). Alabaina, berriz ere argitaratzailearen arabera, aditzoinak ez dira behin ere desagertzen eta 43. burutik aurrerakoetan (bereagoa den euskarari atxikitzen zaionean, alegia) bildutakoak dakartza horren lekuko: bada, ekartzen dituen horietatik guztiak (*geldi dedin* kenduta) -adu partizipiarenak dira: *presta zaitte*, *confesa zaitte*, *confesa gaitetzala*, *engaña cindequez* eta *gomuta zaitte* (*ibid.* cxli). Gainera, billaroztarraren *Lau*

Ebanjelioak batera alkaturik itzulpenean ere badira aditzoinak, eta planteatu dugun aditzoinaren ibilbidea burutu dela ikusten dugu eta indikatiboetara hedatzen hasiak zirela aditzoinak: izan ere, obra honetan diren *-adu* aditzoinaren adibide guztiak indikatiboan dira jada: *gerta zan, presta eutsen* eta *ezin salva da* (Ciarusta 1991: 102).

Honek, bada, gure hasierako hipotesia indartzen du, alegia, mendebal-sartalde eta hegoaldeko hizkera batzuetan ere oraindik XVIII. mende bukaeran aditzoinaren arrasto biziak¹⁷⁵ topa ditzakegula, nahiz dagoeneko *fase sparita*-n; eta ondoren indikatibora hedatu zirela, berranalisiaren bidez egun ezagutzen ditugun *-a* erako partizipioak sortuz.

Bermeon gaur egun *-a* erako partizipioak nasaiki darabiltenez (Gaminde 2007: 140), De la Quadrak egiten duena aztertzea interesgarri zaigu. Argitaratzaileak dioskunez *lagundu* aditzarekin “subjuntiboan eta aginte eran hala aditz oina nola partizipioa” erabiltzen du (Bilbao 1997: 269, s.v. *lagun*), eta horren ostean “beste aditz batzuekin soilik aditzoina” aurkitu duela argitu. Orain artekoa ikusirik, ez zaigu arraro egiten “soilik aditz oinaz” erabiltzen diren aditz horiek guztiak *-adu* erakoak izatea: *acorda(du), balija(du), goza(du), allega(du), allima(du)* ‘animadu’ (*ibid.*). Kasu honetan, gurean ez bezala, idazle bermeotartuak ez du indikatibora hedatu.

4.2.3.2 Aditz-izenak

Aditz-izenak sortzeko *-te* eta *-tze* atzizki orokorreaz gainera, mendebaldeko hizkeretan beste batzuk lekukotzen dira: *-eta, -keta, -ite₁, -tzaite, -tzean* eta *-txoan*; aditzoinaren erabilera galdu zenean, gainera, *-ite₂, -tute, -itze, -tutze, -ieta, -tueta* formak sortu ziren partizipioaren gainean (Urgell 2006). Mendebaldeko hizkera izanik, gurean ere sei forma ezberdin topatu ditugu, Urgellen izendapenari jarraituz *-eta, -te, -ite₁, -ite₂* eta *-tzaite* deituko ditugunak. Hauei *-tuite* atzizkia gehitu behar zaio (Ulibarri 2010a: 64; Zuloaga 2013: 604).

-eta atzizkia *-adu / -idu* amaieradun partizipioekin erabiltzen da gehienbat: *aventajeta-, canteta-, sentita-, cosita-* (behin *cosite-*)... Hauekin batera, *-atu/-etu* mailegu bakanek (*parkatu, pisetu* ‘pisatu’, *kastiget* ‘kastigatu’ bezalakoek) eta *garbitu* aditzak ere atzizki bera dute: *parqueta-* (19 aldiz; *parcatuite-* 7 aldiz), *pisetan* (behin;

¹⁷⁵ *Biziak* diogu XX. mendera arte heldu diren forma fosilduetatik bereizteko (cf. Azkue 1935: 67: *ken, hor konpon, aida...*).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

pisetuite- behin), *castiguetan* eta *garbitan* (< **garbietan*) (vs. *garbituite*), bai eta *gorde*, *atera*, *kosta*, *bota*, *bete*, *erre* eta *euki* partizipioek ere: *gordeta-*, *ateretan* (13 aldiz; *ateraten* behin), *kostetan*, *botetan*, *betetan*, *erretan* eta *eukita-* (<**eukieta*; birritan; *eukite-* zazpi aldiz). Aipatzekoa da ez dela *-keta* formarik lekukotzen testuan (cf. Urgell 2006: 934); beraz, Landucci eta Lazarraga arabarren egoeratik aldendu eta Betolaza arabarrarenera eta Bizkaikora makurtzen da sermoitegia. Halaber, Euskara Zaharrearantz Bizkaian *-eta* atzizkiak dituen testuinguruekin bat egiten du (*-tuite* atzizkiarekin lehiatzen: ik. beherago), eta ez du Landucci-k dakarren *-etan* > *itan* bilakabiderik (italiarraren garaiko Betolazak ere ez dakarren bezala).

-te atzizkia *-n* partizipioekin dugu: *egote*, *entzute*, *iraute*, *eroate*, *joate*, *jate*, *edate*...; *-i* partizipio marka zaharra duten aditzekin: *ekarte*, *iminte*, *ikuste*, *jaiste*, *jarte*, *irapaste*... eta baita *-gi* amaiera duten *idigi* (*idigite*) eta *ebagi* aditzekin ere, azken hau *ebaten* formapean (cf. *OEH*, s.v. *ebaki*). Hauekin batera, lehen ikusi ditugun *atera* eta *euki*-k, bai eta *busti*-k ere *-te* atzizkia erabil dezakete. Aditzoina galtzeak *-ite₂* marka sorrarazi zuen; hau da, *-te* atzizki hau partizipioari gehitu zitzaion, zuzenean aditzoinari lotu beharrean; honelakoak dira *ausite*, *jansite*, *jasite*, *echite*, *asite* eta *isite*. Berrikuntza silaba bakarreko erroko aditzetan hasi zen, Araban lehenik (XVI. mendea) eta Bizkaian ondoko mendean (Urgell 2006: 939), eta gure testuan halakoak dira *ite₂* gehienak. Silaba bakarra ez duten aditzetan, bitartean, oraindik bietara egin litezke: *iresarrite-* / *iresarte-* eta *jauste-* / *jausite*.

-te atzizki orokorraren forma berezia dugu *-ite₁* atzizkia, *-n* bukaeradun aditz zenbaitekin eta *-o* amaieradunekin erabiltzen dena, eta hau ere galtzen joan den aldaera dugu, mendebaldean arinago ekialdean baino (Urgell 2006: 936). Hala eta guztiz ere, gure testuan oraindik ere oparo lekukotzen da: *emaite-*, *omaite-*, *emoite-* (*emon*), *igaraite-* (*igaro*), *isaite-* (*izan*), *jaiote-* (*jai*), *jasaitte-* (*jaso*), *urteite-* (*urten*), *igoite-* (*igon*), *erasoiten* (*eraso*), *-erazaitte-* (*-erazo*) eta *jaramaitte-* (*jaramon*). *Jai*, *igo* eta *eraso* aditzak izan ezik, *-o* bukaeradunek *o* > *a* aldaketa zaharra pairatu dute, eta *emon*-ek bietako adibideak ditu: *emaite-* (191 aldiz) / *emoite-* (birritan). *Omaite-* (13 aldiz) forma zurrak bezain azalgaitza da, ez baitago testuan behin ere balizko *omon* partizipio asimilatua adibiderik (dena dela, *OEH*-k s.v. *eman*, Gernikan bederen lekukotzen du).

Baina gure testua honetan berezia bada, bi atzizkirengatik da: *-tzaite* eta *-tuite*. Lehenengoa bere bizitasunagatik: euskal testu luzexkak ditugunetik galbidean bazegoen

ere jada (Urgell 2006: 938), hona non aurkitzen dugun XVIII. mendeko testu batean nahiko indartsu. Bigarrena, berriz, eremu zehatz batean eta gutxi lekukoturik delako.

Gure testuko CVC-*tu* formako aditz guztiek (*hartu*, *galdu*, *heldu*, *kendu*, *saldu* eta *sartu*), *-tzaite* atzizkiaren bidez osatzen dute aditz-izena, zenbaitetan bestelako atzizkiekin lehian izan arren: *arsaite-*, *galsaite-* (22 aldiz; *galduiten* hiru aldiz) *kensaite-* (40 aldiz; *kenduiten* behin), *salsaite-* (behin; *salduite-* birritan), *helsaite-* (9 aldiz; *helduite-* 14 aldiz), *sarsaite-* (10 aldiz; *sartuite-* behin). Ohiko CVC-*tu* aditzoi *batu* ere gehitu behar zaie: *basaiten* (behin; *batuite-* behin), orain arte Landucci-renean baino ez lekukotua (s.v. *cogedor*).

-tuite deitu dugun atzizkia sermoiotako hizkeran aditz-izenak sortzeko emankorrena da, *-tu* atzizkiaz sorturiko aditzekin erabiltzen baita, hots, aspaldi aditzak sortzeko emankor zen bakarrarekin: *itsutu*, *orditu*, *hurtu*, *ezautu*, *agindu*, *bildu*, *lagundu*, *iretzartu*, *eskatu*, *ukitu*, *damutu*, *urkatu*, *sinistu*... *-tu* amaieradun mailegu zahar gehienak ere (cf. *-eta* atzizkiaz esandakoa) atzizki honetaz baliatzen dira: *aituite-*, *begiratuite-*, *tiretuite-*, *parkatuite-*... Emankortasunaren beste froga bat da gainerako atzizkiei lekua kenduz zihoala: gorago ikusi bezala, *-adu* / *-idu* amaieradun partizipio zenbaitetan (*amadu*, *atribuidu*, *heridu*, *criyedu*, *leidu*, *honradu*, *destruidu*) *-eta* atzizkiarekin lehian dago. Lehia horren adibidetzat har dezakegu egilearen *consistiduiten* > *consistittan* (398) zuzenketa: bere lehenengo bultzada *consistiduiten* idaztea izan zen arren, testuinguru horretan bere hizkeran ere oraindik oso ohikoa ez bide den *-duiten* kentzen du forma ohikoaren eta hedatuen alde (cf. § 4.3.2.3); *-tzaite* beharko luketen aditzei ere lekua kenduz joan da *-tuiten*: *basaiten* eta *batuite-*ren adibideak ditugu, *sarsaiten* eta *sartuite*, *elsaiten* eta *elduite-*, eta *salsaiten* eta *salduite-*renak ere. Testu honetatik kanpo Laudioko 1858ko dotrinan lekukotzen da, Orozkoko 1773ko sermoia, bai eta (gure iritzian) *VJ* dotrinan diren *sinistu iten* bezalako adibideetan ere (Ulibarri 2010a: 66).

Aditz-izenaren formek gero aurkeztu eta azalduko (§ 4.4) ditugun inplikazio geografiko eta historiko garrantzitsuak ditu, alde batetik ezaugarri arkaikoak (*-tzaite*, *-ite₁*) eta bestetik berrikuntza berezituak (*-tuite*) baititugu.

4.2.3.3 Adizkietako pluralgileak

Euskarak 3. pertsona plurala (eta 2. pertsona plural berria, cf. § 4.2.4.3) adierazteko marka anitz ditu: zenbait faktoreren arabera bata edo bestea erabiltzen dira,

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

eta zenbaitetan hizkerek baten alde egin dute. Hala bada, **-de* pluralgileak testuinguruaren arabera *-e* edo *-te* forma hartu zuen, baina hizkera batzuetan analogiaz forma hauetako bat orokortu dute (cf. Ariztimuño 2013b: 371). Gure testuko **edun*-en adizkietan, 3. pertsona ergatiboaren plurala adierazteko *-de* zaharra aurkitzen dugu sistematikoki (*daude* ‘dute’, *euden* ‘zuten’, *neude* ‘naute’): aukera honek, Bizkaiko eta Arabako sartaldeko hizkeretan testu zaharretan lekukotzeaz gain (RS, IC, VJ, Mic, Laudioko dotrinak, Arratiako dotrina...),¹⁷⁶ gaur egun arte iraun du eremu honetan, hau da, Uribe-kostan, Txorierrin, Arratian eta Nerbioi arroan (Etxaide 1984: 227; Gaminde 2007: 160), eta bertako ezaugarritzat hartzen da.

-de pluralgilea (garai zaharretan behinik behin; cf. Ulibarri 2011: 375) beste aditz batzuetan ezaguna da eremu horretatik kanpo ere (bizkaieraz gainerako euskalkietan den *daude* ‘egon’-ek erakusten duenez): gure testuan, *dacardenac*, *estacarde*, *darabilden*, *badacusde*, *ecusdela* eta *beguide*.¹⁷⁷

NOR-NORI laguntzailearen 3. pertsona pluralaren datibo marka *-te* dugu: *jate* ‘zaie’ eta *isichatesan* ‘itxi zitxatezan’, hots, ‘itxi zitzaizkien’. Bizkaiko sartaldeko (VJ, EK, Zav) zein sartaldeko (Cap, BB) eta Arabako (Laz) testu zaharretan agertzen da, eta XVIII. mende bukaerara arte itxaron behar dugu *jake* analogikoa aurkitzeko (Olaetxea eta J. A. Mogel), ondoren literatur bizkaieran (Añ, Astar, fB., J.J.Mg.) hedatuko dena (cf. Ulibarri 2010a: 105 eta EK). Gure aingura testuetan, VJ-z gainera bada *bayatee* Laudioko 1828ko dotrinan (*yaque*-ren hiru adibideekin batera; cf. Urkijo 1994: 127); gainerakoetan *jak(i)e* modernoa baino ez dago.

NOR-NORI-NORK aditz laguntzailean ere datibo plurala markatzeko *-ste-* (< **ts* + **-de*) erabili izan dela ezaguna da (cf. Ulibarri 2010a: 63), baina gurean dagoeneko <se> baizen (= *tse*; singularrean den *-tso* atzizkiaren analogiaz, alegia) ez dugu aurkitzen, gaur egungo hizkera ia guztietan bezala:¹⁷⁸ *eusen*, *deusesu*...

¹⁷⁶ Arabako lekukoek (Lazarraga, Landucci, Albeniz...) *-e* pluralgilea dute, mendebalde-sartaldekoak bezala. Hala ere, lekuko hauek guztiak Arabako erdialde eta sartaldeko lekukoak dira eta sartaldeko lekuko bakarra dirudien Betolazaren dotrinak (cf. Zuazo 1998a: 176, 45. oh.), bere txikitasunagatik noski, ez du adibiderik, ez sartaldeko hizkeretara lerratzeko, baina ezta sartaldekoetara hurbiltzeko ere.

¹⁷⁷ Azpimarratzekoa da *-de* mantentzen dela baita txistukari ostean ere *dakusdela*, non neutraldu ohi den ahoskabearen alde; analogiak duen indarragatik, noski. Bestalde, Añibarrok baditu *darabildela* bezalako adizki trinkoak ere, *-de* pluralgilearekin beraz (Urgell 1986a: 93).

¹⁷⁸ *Deuste* ‘die’ Zumarragaren gutunean (1537) lekukotzen da lehenbizi, eta hortik aurrera Lazarraga (ca. 1610), VJ (ca. 1640; cf. Ulibarri 2010a: 63), Kapanaga (1656) eta Zubia-Lezamizen (1691) dotrinaren *Aita Gurea*-n (TAV § 3.2.14) aurkitzen da, besteak beste; *deutse* erakoak aukitzeko XVIII. mendera arte itxaron behar dugu, Olaetxea (1763) edo Kardaberaz (1764) obrak arte, alegia; hortik aurrera hauxe da forma bakarra, bai literatur bizkaierazko testuetan, baita gure eremukoetan ere. Hala eta guztiz ere, Gamindek (1984 II: 57 III: 570) *dostet*, *doste*, *dosteu* eta *dostei* lakoak lekukotzen ditu gaurko Oñatin.

NOR-NORK aditz laguntzailetako NOR 3. pertsona plurala adierazteko erabiltzen den *-it-* orokorra, bizkaierazko eta arabierazko testu zaharrenetatik hona atzera bidean dugu: testu zaharretan *-it-* soildun adizkiak agertu arren (*ditu* Milia Lasturko; *ditugula* Zumarragaren gutuna), dagoeneko XVI. mendean *-z* pluralgileaz lagunduriko forma pleonastikoak sortuak dira (cf. *dituz* Bet-n eta *RS-n*); XVII. mende erdialderako (Cap, Mic, Zubia...) singularraren analogiaz sorturiko *dodaz* bezalako formak agertu ziren (Mitxelena 1981, *OC VII*: 527). Erabilera maiztasuna dela eta, *dituz* tankerako formak 3. pertsonan iraun zuten luzaroen; ostera, Zabalaren 1848ko gramatikara arte ez da *dauz-* en adibiderik.¹⁷⁹

Sermoitegiko hizkeran *-it-* pluralgilea oso ahul dago jada, zehazki NORK aktantea hirugarren pertsona duten adizkietara mugatua (gehienetan forma pleonastikoetan), eta gainerako aktante guztietan *-z-*dun formak baino ez ditugu: *dogus*, *dosues*, *espasendudes*, *guendusela*... 3. pertsonako adizkietan ere, orainaldiko adizkietan dirau sendoen: *ditus-* (111 adibide), *dituen* (2 adibide), *ditues-* (40 adibide), bai eta *dituin* eta *dituila* bana ere; iraganean, berriz, *situes* bat eta bina *situin* baino ez ditugu. Hauekin batera, baina, *-z* baino ez dakarten adibideak ere topa ditzakegu hirugarren pertsonan bertan, eta kopuruz gutxiago badira ere *-it-* horren ahultasuna erakusten dute: *dabesa-* (11 adibide), *ebes-* (97 adibide), *daudes-* (42 adibide), *eudes-* (42 adibide).¹⁸⁰

Gure eremuko aingura testuetan, Añibarrok, *ditut* erako aleren bat badu hastapeneko lanetan, eta ondoren *dodaz/dozuz* vs. *dituz* sistema erabili zuen (Urgell 2001a: xcix). Sistema hau darabilte Laudioko 1828ko dotrinak (Urkijo 1994: 128) eta Ulibarrik¹⁸¹. Laudioko 1858ko dotrinan, bestalde, *dabes* eta *ebasan/ebesan* adibideak aurkitzen dira, *ditus* eta *situsen/situesan* formekin batera. Eremitik kanpo, *EKC*-ren arabera Mogelek (XVIII. buk.) bi *dabezan* ditu orainaldian, eta lehenaldiko *ebazan-*

¹⁷⁹ Mikoletaren *ebaguiten dausela* arazotsua kenduta (cf. Lakarra 1986c: 670, 29. oh.).

¹⁸⁰ Sartaldeko hizkeratan singularra *daude* eta *euden* den bitartean, badirudi plurala *ditue(s)-* eta *zituez* formen bidez ematen zirela tradizioz, *daudez* berria hedatu aurretik. Honen erakusgarri dira sermoitegiko esaldi hauek: *alan testifiquetan daude ecusi dituesan ascoc aec lecu Sagraduic* (4-100); *apoderadu sirean yru religios[o]jetaric yru demoniyo seinsuec atormentetan situes fuertemente* (43-142). Sermoitegitik kanpo, Laudioko Dotrinak (1828) ere irakusten digu *dituez-* erakoak erabiltzen zirela hizkera hauetan *daude*-ren plural legez: *...burla eguiten deutseenac; escua eranci, edo cematuten dituezanac*... (Laudioko dotrina 1828: 42; cf. Urkijo 1994: 128).

Oinohar honek ez digu leku nahikorik eskaintzen gai honek mereziko lukeen azterketa egiteko, baina interesgarri egiten zaigu ohartzea Bizkaiko sartaldeko *daude* erako adizkiei *-it-* pluralgilea gehitzerakoan sortzen den adizkiak ez duela bere kide singularraren duen *-de* pluralgile zaharra (cf. Ariztimuño 2013b: 371) —***ditude(z)*—, *-e* modernoagoa baizik: *ditue(z)*. Honek dituen implikazio kronologikoen gogoeta sakona egin gabe, badirudi zera honek paradigma pluralaren berankortasunaren aldeko argudio bat izan daitekeela, edo *de > e* bilakabidearen kronologiarentzat baliagarri.

¹⁸¹ *Nituzan* bat topatu dugu, bakandurik; beste adibideek *dodaz/dozuz* vs. *ditu(z)* sistema jarraitzen dute.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

erako Zabalaren testuetara (ca. 1816-1840) itxaron behar dugu; beraz, badirudi hauek liratekeela *dabes-/ebesan* formen lehenengo lekukotasunak.

**edin* aditzean, *gaite-*, *zaitte-*, *daite-* erako forma arkaiko orokorrak eta Euskal Herri osoan oso goizetik hedatuko diren *-z* pluralgileaz hornitutako *daitez-*, *gaitez...* berriak ere¹⁸² lehian daude hizkera honetan. *Lite(z)-* eta *zaitte(z)-* adibide ugariko formetan *z*-dun aldaera berria dugu garaile: orotara 13 *litezan* vs. 2 *litean* eta 26 *zaittez* vs. 4 *zaitte*. Gainerakoetan, ordea, zaharrak du agerpen kopururik gehien: 9 *dite*-ren parean 5 *ditez*, eta 3 *gaite*-rekin batera *gaitez* bakarra. Lehenaldiko adizkietan forma zaharrak ditugu ugarien: *gintean* formak 5 agerpen ditu eta *gintezan*-ek bakarra; *zintean* adizkiak, bestalde, adibide bi baino ez ditu eta biak *z* gabeko aldaeran; *zitean*-ek 38 agerpen ditu, guztiak forma zaharrari atxikiak. Kopuru hauetan eragina izan dezake adibideetako asko fosildurik den aoristoaren (cf. § 4.2.3.15) funtzioan erabili izanak.¹⁸³ Mendebaldean *gaitez* edo *ditez* erako adizkiak Kapanagarenean ditugu dagoeneko *EKC*-ren arabera, eta *VJ*-n ere bada *ditezanzat*; Añibarroren lehen testuetan, bestalde, gure testuan bezala, *gaitean/gaitez* bikoiztasuna dago (ondoren *gaitez*-en alde egin zuen; cf. Urgell 2001a: xcvi); 3. pertsonan, baina, *d(a)itez* erakoak erabiltzen ditu *EKC*-ren arabera.

NOR aktantea hirugarren pertsona ez duten adizkiek ere *-z* pluralgilea dute testuan: *gatuzen*, *zaituguz*, *zatuzen...* salbuespen bakarrarekin, *gatuin*. Adizki hauen lehen silabako *-ai-* diptongoa (*-it-* pluralgileak eragindakoa) bakuntzeko joera dago gure testuan (cf. *FHV* § 4.9), eta mota honetako adizki guztietatik batek baino ez du mantentzen diptongoa bere horretan (*saitugus*). Gure aingura testuetan, *VJ*-n badira monoptongaturiko adibideak: *zaytudelaco* baten aldean sei adibide ditugu bakundurik (*gatuzenean*, *gatus*, *zatudes...*; ik. Ulibarri 2010a: 104), ezaugarria zaharra delako seinale; beste testuetan, baina, diptongoa bere horretan mantentzen da, agian literatur hizkuntzaren eraginez (§ 4.3.2.1.2.4): Zuloagak Sarria eta Astigarragaren lanak aztertzean (2010, 2011) ez du adizki hauetaz inolako aipamenik egiten *ai* diptongoen bakuntzeaz diharduela, eta osterantzeko lekukoetan ere ez dugu halakorik aurkitu (Laudioko testuetarako, ik. Urkijo 1994: 128). Azkuek bederen jaso zituen XX. mende hasieran Orozkon (ik. Gaminde 1983: 52): *satus*, *gatusela*, *satusan...* eta gaur egungo datuetara joaz, Gamindek (1984 I: 273) Bizkaiko hegoaldean aurkitu ditu: Orozkon,

¹⁸² Berrikuntza antzinakoa da, Leizarragak bederen *zaitteztez* eta *bitez* erakoak baititu aginteran (cf. Lafon 1947 II: 112), nahiz Euskara Zaharrea ere oraindik han eta hemen *-z* gabeko formak aurkitu.

¹⁸³ *Gintean* formaren 5 agerpenetatik 4 aoristo dira, *zintean* adizkiaren adibideetako bat legez; *zitean*-en adibide guztiak (38 orotara) ere bai.

Arratiako hegoaldean (Dima, Areatza), Otxandion eta, plural pleonastikorik gabe (hots, *gatu, zatu...*), Elorrio, Oleta eta Ubidean.¹⁸⁴

4.2.3.4 *a / e* oposaketa bi eta hiru pertsonako adizkietan

Bizkaiera arkaiko eta zaharrea, *a / e* oposaketak bi pertsonako eta hiru pertsonako adizkiak bereizten zituen (Mitzelena 1954b, *OC XI*: 135; cf. halaber Irigoien 1958 eta Lakarra 1996a: 165), baina gure testuaren garairako hainbat aditzetan galdua zen edo galbidean zegoen hizkeren arabera (Urgell 2001a: c; cf. Lakarra 1996a: 165, 30. oh.).

Zehazki, sermoitegian *dau / deutso* oposaketa orokorrean ondo gorde da; hala ere, badira oposaketaren galeraren adibideak bi pertsonako adizkietan. Gehienak *RUI* erregelaren bidez azal ditzakegu (*eguin deu, esin debela, eguin deudela...*), baina badira bestelako adibideak ere: *bear deudesan acusedu* (46-47), *lagun eiten deudenac* (22-75)... Ondorioz, *RUI* arauaren eraginari egotz dakioke galeraren lehen bultzada, gure hizkeran behintzat, non oraindik hasikinetan baino ez zegoen. Bestalde, ez dago behin ere egungo bizkaierako ***dautso* formarik.¹⁸⁵

Egin laguntzailearen hiru pertsonako adizkietan badira oposaketaren zantzuak diruditen adibideak:

- (a) ...eta gueiyego reconocidu *daguisunean* beste asco aprovechadu sireala sermoeacas eta su es (15-107)
- (b) confinzeagas eta ñnoc ese *daguinsat* equi aseracunseric errecibitaco (38-28)
- vs.
- (c) Ensun *deiyogun* Apostolui ser diraoscun (1-80)
- (d) estauquenac dago obligueduric topetan noc emon *deyen* uguesa asiteco vere semea (20-105)
- (e) gure dot neure favoreen porfiyegas convencidu pecatoreau entregadu *deguidensat* ber[e] borondatea (11-92)

¹⁸⁴ Basaurin ere *gatus* eta *gatussek* formak lekukotzen dira gaur egun (Arretxe 1994: 125).

¹⁸⁵ Testu zaharretan XVIII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera hasten dira agertzen halakoak, Mogel (5 agerpen), Kardaberaz (behin) eta Olaetxearen (behin) obretan (ik. *EKC, dauts*). Hala ere, XIX. mende bukaerara arte ez da zabaltzen (84 adibiderek), eta XX. mende hasieran du forma honek bere goreneko agerpena (1.000 adibidetik gora). Igoera honen arrazoia, esan gabe doa, hiperbizkaieraren zabaltzean bilatu behar dugu (cf. Laka 1986a; ik. baita Laka 1987a, 1987b ere).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Esan gabe doa honetan ere *Rui* erregelak emaitzak itxuraldatzen dituela, *Eguin deigun al daigun moduin eta ygon daigun* (6-158) adibidean garbi ikusten denez. Honela, gure bilaketa *Rui* erregelaz kanpoko testuinguruetara mugaturik (hots, *-u/i* bukaerarik ez duten partizipioen bidezko perifrasiatar), badirudi oposaketa **edun*-en baino galduxeago dagoela (literatur bizkaierazko autoreetan legez, bestalde; cf. Urgell 2001a: c). Oposaketaren galerak *a*-ren alde egin du, adibide hauek agerian jartzen dutenez:

(a) confesoreac emon *daguiun* penitenciye cumplitea (31-4)

(b) escatu deiyogun [*Jangoikoari*] emon *daigule* pacenciye (45-170)

Beste adibide honek ere hizkerak *a*-ren alde egin zuela erakusten du: ...*bere misericordiye dala mediante*, siguidu daiyogule *exemplo onari* (30-48). Izan ere, honetan adizkiak *-u* bukaeradun partizipioa duelarik ere, *a* mantentzen du, *RUI* erregela gorabehera.

Aditz trinkoetan ere XVIII. menderako oposaketa mantenduko zuketan aditzak oso bakanak dira, adizki trinkoen paradigmak orduko sisteman hartu zuen bazterreko lekuaren beste ezaugarrietako bat (cf. Mounole 2011: 338): edo bi pertsonakoak baino ez dira, edo hiru pertsonakoak baino ez. Lekukotasun zaharretan bi eta hiru pertsonakoak dituen *eduki* aditza harturik (adizki kopuru aldetik esanguratsuen ere: 152 adizki), ikus dezakegu adibide guztiak bi pertsonakoak direla, XVIII. mendean ez ezik, askoz lehenago ere espero genezakeen bezala —hiru pertsonakoa arkaismo handia da mendebaldeko lekukoetan (cf. *RS*-ko 425. erretraueko *deucot*; Lakarra 1996a: 165 eta 350); ekialdean, ordea, Axularrek baditu *diadukozu* eta *diadukon* (cf. Urgell 2015a: 370) —.

4.2.3.5 *l*- aurrizkia

XVI. mendeko testuek dioskute egun alegiazko testuinguruetan baino erabiltzen ez diren *l*-dun adizkiek funtzio gehiago betetzen zituztela antzina; izan ere, lehenaldiko aditz bati laguntzen dion menpeko perpausetan ere erabiltzen ziren. Lau motatako menpekoetan aurkitu du Mounolek (2011: 30-1):

- (i) Subordonnées complétives (complétives indicatives et subjunctives des langues romanes, interrogatives indirectes); (ii) Subordonnées finales (subjunctives); (iii) Subordonnées circonstancielles exprimant une simultanéité avec le procès décrit dans la proposition principale, ou une circonstance dans laquelle se déroule le procès; (iv) Subordonnées de temps.

Modu orokor batean esana da esaldi konpletiboetan zeharkako estiloaren marka zela; denborazko menpekoetan ordea, badirudi behin-behinekotasun nabardura bat ematen ziola esaldiari. Aldaik (2008a), bere aldetik, lehenaldi imperfektiboa adieraziko lukeen aurrizkitzat jotzen du, ondoren alegiazko balioa hartu zuena.

Gure testuan, XVIII. mende bukaerakoa izanagatik ere, erruz aurkitzen ditugu honelako *l*- aurrizkidun adizkiak:

- (a) *eta abisedu ebesan abade maisuec echi leguiyoela danzeari* (18-89)
(b) *agindu eusen esilic legosala Jaun Dibinuic* (2-89)
(c) *yoan san ysesoen urrera eta altu gueiyeguín eusen arrainei urten leguiyela*
(d) *ensuten vere sermoea eta doctrinea* (1-143)
(e) *escatuiten eusen David profeteac ese leguila desamparadu* (38-21)
(f) *condenadu eben erreric quendu lequiula visisea* (20-111)
(g) *escatu eusen Jangoicoari leenago sartu lequiula deabru bet gorpusean* (23-73)

XVI. mendean edozein adizkiren tokian erabili ahal zela dirudi; alabaina, gure testuan adibide guztiak subjuntiboaren eta lehenaldi narratiboaren funtzioan dira, ordurako eremua galduz zihoalako eta subjuntiborako espezializatu zelako seinale. Dena den, zenbaki absolutuetara joaz, *l*-dunak gailentzen zaizkie bestelako aurrizkiez (*z*- / *ø*-) markaturiko subjuntiboei: zehazki, *l*-dun 55 adizkien aldean 8 adibide baino ez ditugu.

Funtzioari dagokionez, gehienetan lehenaldiko esaldi baten menpe dago; mota askotako aditzak agertzen dira perpaus nagusian (*repartidu, emon, eroan, disponidu, sor izan...*); hala ere, maizenik *eskatu* (8 esaldi), *agindu* (5), *izan* (4) edo *gei egin / gedar egin* (3) bezalako aditzekin erabiltzen du. Askotan agertzen da, halaber, *gura* + **edun* egituraren menpe (8 adibide): bai adizkia lehenaldian denean (aurrekoetan bezala), baina baita ere egitura honen adizkia hipotetikoa denean, balio hipotetikoa markatzeko edo: *estabenean preguntetan eleuquealaco gure esan leguiyoen eguiye* (31-81), *Á guresoac, gure neuque nire verbac isen litean centellac* (20-81)... Balio hipotetikoa

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

markatu beharra orainaldiko aditz baten menpe dagoenean ere bada: *Eta segaitic iminten deuso buruen misa edo estalgui suriye? Conservadu leguinsat suritasune ariman, gorderic graciye bautismucoa* (29-20).

Aurrizkiak ez omen zion inolako ñabardura semantikorik gehitzen esaldiari jadanik XVI. mendeko lekukoetan (lehenago zerbait adierazi behar zuen, noski), aitzitik, idazleek ez dute sistematikoki *l-* aurrizkidun forma (*luen* erakoak) erabiltzen, baizik eta forma arruntekin (*zuen* erakoekin) aldizkaturik (Mounole 2011: 32). Gure testuak ere horrelako zeozer erakusten du, aukera biak batera aurki baititzakegu esaldi berean: *exortetan beusen bere gorde leguila templanzea eta contentadu sila useteagas honestamente bere matrimoniñoa, orregaitic esan detenitan* (41-86).

Ez dakigu ezer zehatzik galeraren kronologiaz: Mounolek dioskunez (2011: 31, 44. oh.), oro har *l-*dun adizkiak testuinguru hauetan XVIII. mendean ordeztu bide ziren *z-*dunez euskalki gehienetan, nahiz egun oraindik zubereran erabiltzen ei diren. Mendebaldera mugaturik, XVII. mendeko Kapanaga, *Viva Jesus* eta *Egiaren kanta* dira honelako adizkiak darabilten testuen artean berak aipatzen dituen modernoak; hala ere, *EKC*-k agerian uzten du *legiola* erako adizki bakanen bat Zabalaren sermoietan eta Añibarroren *GGero*-n¹⁸⁶ badela, eta *legiala* Kardaberazek darabilela bizkaieraz idazten duenean. Guztiagatik ere, esan dezakegu gure testua gordetzailea dela alderdi honetan ere, gainerakoetan batek ere ez baitu honenbesteko ugaritasunik.

4.2.3.6. *-te / -ke* atzizkiak

-te eta *-ke* atzizkiek XV eta XVI. mendeetatik aurrera aspektuzko, denborazko eta moduzko hainbat funtzio hartu izan dituzte. XVI. mendean geroaldia, hipotetikoa (hipotetikozko baldintzaren apodosia), ahalera eta ustea markatzeko balio zuten (Mounole 2011: 32). Funtzio guztien artean, badirudi denbora markatzekoa dela zaharrena, eta honetatik balio modalak hartzen hasi zela: geroaldia adieraztetik ahalera adieraztera pasatu zen, alegia (*ibid.* 330).

¹⁸⁶ Axularren *ceguiola* eta *ciaçotela* itzuliz: *esan eutsen, arren, escatu leguiola Jangoicoari eurecaitic < ceguiola laincoari hetçaz othoitz* (Urgell 2001a: 187); *aguinduten eban Jangoicoac [...] emon ta escaiñi leguiola < eman ciaçotela* (*ibid.* 213). *Legiola*-z gainera *legioezala* ere aurkitzen da Añibarronean, Axularren *ciatçotela* itzultzeko: *aguinduten eban usoetaric, ez uso aciac [...] ezpada usacumeac ecarri legioezala < ecar ciatçotela* (Urgell 2001a: 213).

Geroaldi balio zaharrenetik hasirik, ematen du badela oraindik aztarnarik sermoitegian, zehazki *seen beguire sagos? Jangoicoac enojaduric descargadu daiqueano vere azotea eta sentenciye condenaciñoecoa?* (16-184) esaldian behinik behin. Erabilera hau XVIII. menderako galdua bide zen Hegoaldean, Mounolek (2011: 187) Iparraldeko autoreetan (Etxeberri Sarakoa, Maister) bakarrik lekukotu baitu garai hartan, nahiz XVI. mendean Euskal Herri guztian erabiltzen zen.

Ordea, ez dago *-ke*-dun geroaldiko aginterarik, beranduago Añibarrok berariaz erabiliko zuen arren (*eikedazu, esaikezu, emoikiozuz...*; 1821, *EL*²), Zabalak bizkaierazko aditzaz egindako azterketaren eraginez nonbait, zeren eta ahozko hizkeran desagertzear bide baitzegoen (Urgell 2012: § 4.3.1.1). Gure aingura testuetan, Astigarraga basauriarrarengan adibide bat topatu du Zuloagak (2011: 262).

Hizki honen gainontzeko agerpenak egun dituen funtzioenak dira: batetik ahaleran, *egin*-ekin (*leique, neiqueala, gueique*) eta **edin*-ekin (*leiteque, lichequela...*), eta bestetik baldintza hipotetikoaren apodosian (§ 4.2.3.9.2), **edun*-ekin (*geunque, euque...*) eta *izan*-ekin (*lisateque, ninsateque...*).

Testuetan ikusten den bezala, *-ke* atzizkia apurka-apurka sartu zen ahalerazko perifrasiatan: mendebaldean *egin le(g)i* bezalako perfrasiak hasiera batean berez bazuten ahalera adierazteko gaitasuna (cf. Mounole 2011: 120, 175. oh.), baina XVI. mendetik aurrera *egin da(g)i*, *negi* ‘dezake, nezake’ > *egin da(g)ike*, *ne(g)ike* aldaketa abian jarri zen; literatur bizkaieran oraindik gauzatu gabe dago: adibidez, f. Bartolomek *le(g)i* erakoak usu darabiltza, eta *le(g)ike* erakoak bakan; Añibarrok hasieran gabeko formak bakarrik ditu (*EL*¹, 1802), baina une batetik aurrera (*GGero*) *-ke*-dunak ere sartzen ditu (Urgell 2012: § 4.3.1.1).

Gure testuan ere aldaketa gertatzeko bidean zen, *-ke*-dun zein gabeko adibideak baititugu *egin* aditz laguntzaileaz osaturiko perifrasiatan, gabekoak gehiago direlarik. *-ke*-dun adibide guztiak honako zerrendatxo honetan ditugu: *leique* (29 aldiz), *leiques* (hiru aldiz) eta adibide bana duten *leiquesue*, *neiqueala* eta *gueique*. Hauen parean, *-ke* gabeko 88 adibide ditugu orainaldiko eta alegiazko adizkietan: *daiyen*, *daguinac*, *niñei*, *guiñei*, *leiyoenac*, *leyon*, *leiye...* Zenbaki absolutuetan gutxi izateaz gainera (*-ke* morfemadun 35 vs. gabeko 88), *-ke*-dun adizki gehienak 3. pertsona alegiazkoan metatzen dira, hots, adizkirik erabilienetan. Datu konparagarriagoak izateko, beraz, *leique(s)* vs. *lei(s)* adizkien arteko lehia taula batean agertuko dugu:

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

	+ ke	- ke
<i>lei(ke)</i>	29 (%46)	34 (%54)
<i>lei(ke)z</i>	3 (%23)	10 (%77)

Bestalde, *-ke*-dun adibide guztiak esaldi nagusietan agertzen dira: adizkiek menpeko atzizki baten laguntza baldin badute (*-lako*, *-en...*) *lei-* eta *leis-* forma zaharrak erabiltzen ditu beti. Aingura testuetan, Laudioko dotrinek (1828, 1858), adibide gutxi dituzten arren, hemen bezala *-ke* gabeko aldaeren nagusitasuna erakusten dute (cf. Urkijo 1994: 144), eta antzera Ulibarrirengan ere: *Gutunliburu* osoan *leike* bakarra aurkitu dugu, *lei* erako 13 bat adibide diren bitartean.

Hasieran *te* eta *ke* morfemak batera aurkeztu ditugu, nahiz dirudenez jatorriz atzizki bi izan, ziurrenera hasiera batean zeinek bere funtzioa zutela; alabaina, lehenengo testuetatik funtzio bera dute, bakoitza aditz mota batekin erabiltzen zirelarik. Lafonek (1943 I: 446-454) *-te* laguntzaile iragangaitzekin (*izan*, **edin*) eta *-ke* iragankorrekin (**edun*, **ezan*, *egin*, **iron*, etab.) erabiltzen zirela zioen; hala ere, *-te* atzizkia *izan* eta **edin*-en adizkietan bakarrik erabiltzen da, eta hauetan ere aktante bakarra dutenean bakarrik. Hala bada, *izan*-ek eta **edin*-ek bestelako aktanterik dutenean (datiboa edo alokutiboa) *-ke* erabiltzen da, eta atzizki honetaz besterik ez dago gainerako aditz iragangaitzetan (*datorke*, *dabilke...*) ere (Mounole 2011: 33). Badirudi, bada, *-te* fosildurik zela lehenengo testuetatik: areago, zubereratik kanpo (non gaur egun ere *-te* soila gorde den), osterantzeko euskalkietan *-ke* hizkia analogiaz hedatu da *te*-dun adizkietara, edo hau ordezkaturik edo berkarakterizatu eta *-teke* atzizki pleonastikoa sorturik. Forma pleonastiko hau XVI. mendetik aurrera lekukoturik dago *leiteke* edo *zateke* bezalako adizkietan (Mounole 2011: 33).

Sermoitegian *-teke* pleonastikoa da garaile, haren garaiari dagokionez. *Izan* aditzean forma zaharra mantentzen duten *elitzate* eta *nintzatean* adibide bakanen alboan 32 *litzateke-*, 3 *zateke-*, bi *nintzateke*, eta *zinatekean*, *sinatequez* eta *guiñatekean* bana ditugu. **Edin* aditzaren adizkietan ere *-teke* pleonastikoak dira nagusi, *neiteke*, *gueiteke* eta *leiteke* (16 aldiz), *-ke* gabeko 6 adibideren aldean: *gatean*, *gaitean*, *seites*, *esinates*, *leiteala*, *leiteco*. Gure aingura testu are berankorrageotan, Laudioko dotrinen (1828, 1858) **edin* adibide apurrak *-teke*-dunak dira, eta berdin Ulibarriren lanetan.¹⁸⁷

¹⁸⁷ Aipagarria da oso gipuzkoarrei (Tolosako Juan Ignacio Mendizabali, Azpeitiako Ignazio Egibarri eta Zaldibiako Juan Ignazio Iztuetari) idazterakoan gipuzkeraz egin nahi eta *lizake* forma darabilela.

4.2.3.7 Subjuntibo zaharra

Subjuntiboa adierazteko baliabideen artean, [partizipio + **edin/egin- en/-ela*] perifrasiak gainera, iragan garaietan sintetikoek ere subjuntibo balioa izan zezaketen -*en/-ela* atzizkien bitartez. Mounolek egindako azterketan XVIII. mendean bakarria baino ez du aurkitu Barrutiarenean. Honek, baina, ez du esan nahi mendebaldean erabilera hau galdua zenik: *ECK*-n *datorrela* bilatuz, lan askorik gabe badira aurkitzerik J. A. Mogelen *datorrela Jauna geure billa* (*CO* liburuan) edota Añibarroren *Eztagiozula esan zeure adiskideari doiala ta datorrela* (*GGero* liburuan) bezalako esaldiak. Honela, ez da harrizkoa gure sermoietan ere tarteka adibideren bat ageri izana, honako hauetan legez:

- (a) *Criyeduic diraoso doeala Jangoicoagas, bere uguesabeari eser esan bagaric* (11-73)
- (b) *Ni preso iminten basatos echiguiyesu onei neure discipuluei doasala libre* (20-83)
- (c) *aguindu eusen esilic legosala Jaun Dibinuic* (2-89)

4.2.3.8 Helburuzko perpausetako -*tzat*

Helburuzko perpausetan, menpekotasunezko ohiko -*en/-(e)la* atzizkiarekin batera bestelako baliabideak erabili dira helburutasun hori bermarkatzeko: batetik, *zeren* edo *zergatik* lokailuak, eta bestetik, motibatibo (-*gatik*) eta destinatibo (-*tzat*) atzizkiak (Mounole 2011: 81 eta 200). -*tzat* Euskal Herri osoan hedatua zegoen Euskara Arkaiko (Lazarraga, Leizarraga) eta Zaharrean; XVIII. mendean gipuzkeran (Larramendi, Otxoa Arin, Lubieta) eta lapurteran (Harriet, Etxeberri Sarakoa, Urte) ere bada (Mounole 2011: 200), behinik behin.

Gure testuan ere nahiko maiz agertzen da; hona adibide guztiak:

litesansat (4 aldiz), deguidensat, leguisensat, deigusensat, daquiusensat, deguisensat, daguiyensat (7), deguiyensat (5), leguiyensat (3), dinsat (11), linsat (4), daguinsat (6), deguinsat (3), leguinsat (4), lenguinsat, guenguinsat (3), daigunset (5), deigunset (4), deingunset, deiyogunset, deguisunset (3), daquiusansat, quintesansat, daguisensat,

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

gateansat, deguiyensansat, deguiensat, saitesansat (2), daguiunsat (3), daquiensat, nenguiunsat, leguiunsat, ditesansat (3), naguinsat, daguisensat (3).

-*tzat* gabeko helburuzko perpausak ere badira, honako hau legez: *Onec berba dibinuc dagos misterius beteric, reparadu deigun gustitara estiraoso Christoc Saulori* (2-61). Hala eta guztiz ere, honelakoak gutxi dira.

Atzizki hau oraindik XIX. mendean bizirik zegoen Bizkaiko erdialdean, lapurteran (i.e. Leizarragarengan) bezala, Zabalak dioskunez (1848: 26). Azkuek Arratian, Orozkon eta Txorierrin kokatu zuen, galbidean zegoela zehazturik; gainera, Laudioko kateximako adibideen bidez, -*tzat*-dun eta -*tzat* gabeko formak aukeran zeudela iradoki zuen (Azkue 1923-25: § 560).

Bizkaiko idazleen artean Añibarro da forma hau gehien erabili zuena,¹⁸⁸ eta are, *Eskuliburuaren* bi argitalpenen artean (1802 eta 1821) ikusten denaren arabera, ugaritu ere ugaritu bide zuen, agian Zabalaren eraginez (cf. Urgell 2001a: cx); izan ere, Urgellek Añibarroren obretan ñabardura bat kausitu du: *Eskuliburu*-ko lehenengo argitaraldian eta *Geroko Gero*-ren itzulpenean adibide guztiak iragankorrak dira, *Lau Evanjelioak* obran iragangaitzekin ere erabiltzen duen bitartean (Urgell 2001a: cx). *Geroko Geroren* editoreak hainbat ezaugarri emandako azalpena honetara ere luzaturik, proposa genezake Añibarroren hizkeran -*tzat* iragankorretan bakarrik erabil zitekeela, eta ondoren iritzi zuela Añibarrok iragangaitzetara ere heda zitekeela. Edonola ere, gure testuan iragankorrak dira adibiderik gehienak, baina ez da iragangaitzik ere falta, *litesansat, daquiensat, dinsat, linsat, daquiensansat, saitesansat* edo *daquiensat* adibideetan dakusagunez.

4.2.3.9 Baldintza

4.2.3.9.1 Protasiak

Baldintzaren protasiko *ba-* aurrizkiaz gainera, orainaldian eta hipotetikoan *alba-* (< **ahal* + *ba-*) aurrizkia ere bada Etxepare, Leizarraga eta Garibairengan, eta

¹⁸⁸ Bere produkzioa ugariago izatean bilatu behar dugu arrazoa noski; ez Añibarrok hedatu zuelako: Lazarragak bermatzen du XVI. mendetik gutxienez bazegoela mendebalean (adib. *inorc eçautu ez leguiança*, AL: 1147r), bai eta *VJ*-ek ere, hala perifrastikoetan (*libredu gagicenzat*) nola trinkoetan (*gareanzat*). Berriki, Rosek (2004) bizkaierazko hegoaldeko testigantzetan agertzen diren formak bildu ditu, alegia, Lazarraga, Urkizu, Laudioko bi dotrinak (1828 eta 1858koa), Orozkoko 1739ko erregeuak (Garigorta & Gaminde 1986), 1773ko sermoi argitaragabea eta Zolloko galdetegi argitaragabea.

protasiaren ahalera kutsua markatzeko erabiltzen da (Mounole 2011: 103-4). Aurrizkia ez dago Mounolek erabili XVIII. mendeko lekukotasunetan, baina *EKC*-n ikusi dugu literatur bizkaieran ezaguna zela, Añibarrok (*EL: eta baldin bera бага igaro albadaizu, eztozu artuten*) eta Laudioko Ruthen liburuak¹⁸⁹ (*egin albañeus*) aleren bat baitute.¹⁹⁰ Gure testuak ere *alba-* honen bi adibide ditu:

(a) *esteuso echico errobeteari eta agarreteari albadagui ecusiarren Jangoicoen judiciyoa* (25-106)

(b) *berac yñes eingo leuquean moduin albageui es ecustarren.* (15-132)

Bestalde, baldintzaren protasia indartzeko, Lazarragak (“elle est plutôt rare”, baina) eta Barrutiak (behin) *baldin* erabiltzen dute, XVIII. mendeko Urkizu eta Arzadun bizkaitarrek ez bezala (Mounolek 2011: 103 eta 219). Gure testuak ere bizkaitarrok bat egiten du, ez baitugu *baldin* (ez haren aldaerarik: *balin*, *bardin*...) partikularik behin ere testuan (cf. *OEH*, s.v. *baldin*).

Orainaldiko baldintza errealak dira XVI. mendean (beti ere Mounole-ri jarraituz) gehien lekukotzen direnak. Bukatua [partizipioa + *ba-* + *izan/*edun* orainaldian] perifrasiaren bidez adierazten zen bitartean, orain bezala, bukatugabeak bi perifrasi zituen lehian XVI. mendean (adizki trinkoez gainera, noski): [aditzoina + *ba-* + **edin/*ezan-egin* orainaldian] eta [aditz-izena + *ba-* + *izan/*edun* orainaldian]. Lehenengoa zen erabiliena, baina XVIII. menderako bigarrena nagusitu zen (Mounole 2011: 331). Gure testua molde berriari datzekio: adibide guztiak (150etik gora) bigarren perifrasiaren bidez adierazita daude. [aditzoina + *ba-* + **edin/*ezan-egin*] perifrasi bakar bat aurkitu dugulakoan gaude, *lurric onena labretan edo cabadu espaiddi estau emongo frutu onic* (21-43), *espaiddi* horren azpian **ez badidi* ulertzen baitugu (§ 4.2.3.11).

Lehenaldiko baldintzak XVIII. mendetik aurrera baino ez ditu lekukotzen Mounolek (2011: 227), eta hauetan bukatugabeak markatzeko [*ba*-trinkoak lehenaldian] egitura eta [aditz-izena + *ba-* + *izan/*edun* lehenaldian] perifrasi erabiltzen dira; bukatua [partizipioa + *ba-* + *izan/*edun* lehenaldian] perifrasiak adierazten du. Gure

¹⁸⁹ Baina ez Ignacio Galindez audioarrak egindako itzulpenean zuzenean, J. I. Aranaren zuzenketen ostean Abbadie-ri bidali zion testuan baizik (Urkijo 1994: 129; cf. Ulibarri 2008b).

¹⁹⁰ Baldintza funtzioan ari gara: izan ere, desira perpausa markatzeko baliabideen artean baldintzazko protasi hipotetikoa aipatzen du Mounolek, eta honetan *alba-* aurrizkidun adibidea dakar 1729ko nafarrerazko sermoian (Mounole 2011: 218). *EKC*-n, gainera, ikusten da erabilera honekin ere badela *alba-* Bizkaiko testuetan, Añibarroren obran behintzat: *O urtu albanegiz ene begietako negarrakaz leen eginak*.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

sermoitegian ere badira honelako perifrasiak, garaiari dagokionez, baina baditu hiru adibide berezi, Mounolen motetatik at direnak: *bera contentetan sala egon basin gau beten bere oean movidu bagaric echuten san* (16-136), *Nic es segaitic saldu banenguin, ya declaradu nenguin gustiyen aurrean* (26-115) eta *Ser serviduco leusquesu Jangoicoac criyeduitea, conservetea, redimitea, espasengui particepsu redemciñoen frutuec* (12-58). Hauetan [partizipioa + *ba-* + **edin/egin* lehenaldian] perifrasiak aurkitzen dugu, eta esan nahi du aoristo perifrastikoa lehenaldiko baldintzetara ere hedatu zela; hau, dakigularik, hizkera honen berrikuntza eksklusiboa da (cf. § 4.4.1)

Baldintza hipotetikoak bi taldetan banatzen ditu Mounolek (2011: 112): *burutuak* eta *burutugabeak*. Lehenengoa XVI. mendetik jada [partizipioa + *ba-* + *izan/*edun* hipotetikoan] perifrasiak adierazten zuen, XVIII. mendean bezala, eta hori da sermoitegiak ere dakarrena: *euqui baleu dichea* (12-85), *jayio banins* (28-81). Burutugabeari dagokionez, XVI. mendean, [*ba-trinkoak*] egituraz gainera, [aditzoina/partizipioa + *ba-* + **edin/*ezan/egin*] perifrasi zaharra eta [aditz-izena + *ba-izan/*edun*] eta [geroaldiko partizipioa + *ba-* + *izan/*edun*] (adizki jokatu oro hipotetikoan) modernoagoak baziren. XVIII. mendean lehenengoa galbidean da lapurteraz eta gipuzkeraz, baina tamalez Mounolek ez du adibiderik corpusean bizkaieraz zer gertatzen zen jakiteko. Gure testua molde zaharrari datzekio, perifrasietatik lehenengoa baita erabiliena (42 adibide), eta bigarren eta hirugarren perifrasiak adibide bana baino ez baitaude:

- (a) *Medicu on batec imini balegui edo emon erremediū bat...* (4-34)
- (b) *desuerte se ofrecidu baledi galsaitea gauserean bat* (17-95)
- (c) *Topetan balis medicu bet emaiten dabena osasune [...] bere asean lisateque mundu gustiye* (2-49)
- (d) *Eguiye confesaduco baleude bic beno gueiyegoc esango leuque esiteala* (40-46)

Hauekin batera, Mounolek bildu ez duen perifrasi baten adibide bi topatu ditugu:

- (a) *Orain emongo baleuque sentenciye, se alderditera yoango sinateque* (7-169)¹⁹¹

¹⁹¹ Bi adibide garden hauen parean, badugu *Principe batec baleuques lacayo baten pensamintuic, seinsuc porlo[r]regular dire basuic, ser esango gueuque beragaitic?* (253) esaldia ere, baina kasu honetan ezin

(b) *Beste ascoc eguiye esango baleuque confesaduco leuque escondu siteala*
(40-54)

Hauetan, geroaldiko protasiak ere *-ke* hizkia du, ondoko apodosiak (*leuque, sinateque*) legez. Esan gabe doa *-ke* atzizkiaren hedatzearen beste urrats bat baino ez dela, eta Mounolek aurkitu ez izanak adierazten du oso berriki gertaturiko aldaketa dela, apodosiaren analogiaz azaldu beharrekoa. Halako adibideak XVIII. mendearen bigarren erditik lekukotzen dira; beti ere antzinako formekin lehian: Mendiburu edo Kardaberazetik hasten dira lekukotzen, eta XIX. mendeko literaturan hedatuak dira jada: Mogel, frai Bartolome, Añibarro, Zabala... beti ere antzinako formekin batera (Urgell 2012: § 4.3.1.1). *EKC* begiratu (s.v. *baleuke*), Mogelen adibideak eskaintzen ditu, bai eta Añibarro edo Zabalaren obretakoa ere.

Baldintzaren protasiak bestelako funtzioak ere baditu, besteren artean konparazioko postposizioen osagarri izatea (Mounole 2011: 237). Hauetan, *ba-*aurrizkiaz gainera (cf. *emaiteco gracyac eguin basendus legues munduin danic aberasena eta nobleena*, 40-196), *bait-* ere erabiltzen da adizki hipotetikookin, eta halakoak dira zerrenda honetan bildu ditugun adibideak: *bailegoan, bailegosan, bailirean* (4 aldiz), *bailisen, bailirean, bailegosan, espailisen, espaisendus, baileben*. Agerian denez, adizkiak *bait-* aurrizkiaz gain *-an* atzizkiaz ere markatzen dira, egun bezala (cf. Mounole 2011: 237). Mendebaldean, Mounolek dakarren Barrutiaren adibideaz landa, *EKC*-n (s.v. *bailitzan*) Añibarro eta Zabalaren obretan ere topatzen dira, eta Miraballeseko abadeak egindako itzulpenean ere *esango baileusiena legues badugu* (*post.* 1815; cf. § 3.4.2); beraz, badirudi hego-sartaldean *bait-* aurrizkiak inon baino luzarago¹⁹² iraun zuela funtzio honetan.¹⁹³

dugu erabaki *baleuques* forma **edun* aditzarena ote den (**leu+ke+z*); ala *eduki*-rena (*leukaz > leukez* 'leuzka', *RIU* indartsuagatik).

¹⁹² Orain artean *bai(s)t-* aurrizkiaren adibide bakarra mendebaldean, Barrutiarenaz landa, *RS*-en lekukotzen zen. cf.: "Kontuan izanik erdialde eta ekialderako dugun lekukotasun falta eta Mikoletak 17an ez duela horrelakorik agertzen, halaber BZ.ak ez duela euskara osoaren forma zahar bat mantendu baino egin eta B modernoa, ezabatu duenean, ez dela horretan bakarra izan —galera bera izan baitu G-ren zati handi batek—, mendebaldetik ekialderantz hedatu ote oraingoan ere galera?" (Lakarra 1996a: 191).

¹⁹³ Garai modernoagoetak hedatuago dirudi (*EKC*-n, s.v. *bailitzan*, XX. mendean 34 adibide ditu); eta Azkuek honako hau diosku: "Ejemplos de la locución conjuntiva de comparacion *bai-...-n*, sólo se oyen, que sepamos, en dialecto B[izcaino] y zonas como Mundaka." (Azkue 1923: § 572).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

4.2.3.9.2 Apodosiak

Baldintza errealetan, XVIII. mendean orainaldiko apodosia orainaldiko perifrasiaren bidez (hots, trinkoa edo [aditz-izena + *izan/*edun* orainaldian]) egiten da eta geroaldikoa [geroaldiko partizipioa + *izan/*edun*] perifrasiarekin, nahiz eta azken hauetan orainaldikoa ere erabil zitekeen (Mounole 2011: 226). Lehenaldiko apodosiak, berriz, lehenaldiko perifrasiak ([partizipioa + *izan/*edun* lehenaldian]; *ibid.* 230) erabiltzen da. Hauxe da sermoitegian aurkitzen duguna, XVIII. mendeko testu batean espero bezala:

- (a) Eta guresoac espadaude iminten escue euren humeen criyensan pordemas dagos tribunalac (20-26)
- (b) ofrecitan badau lur pisque bat galdueraiten dau Ceruco erreinue (44-103)
- (c) onec imitetan badosus yasoco yasu onei yaso equiyeena (22-40)
- (d) ofrecidu bayacan bere dueda eguin ebesan al eguisen diligenciye (31-77)

Izan ere, geroaldiko apodosiak *-ke-dun* perfrasiak edo trinkoek ere (cf. § 4.2.3.6) osa zezaketen XVI. mendean, baina halakoak orduan galtzear ziren jada funtzio honetan (Mounole 2011: 111), eta XVIII. menderako jada oso bazterrekoa zen erabilera hori, Iparraldeko Etxeberri Sarakoa eta Maister baino ez zuten erabiltzen (*ibid.* 226).

XVIII. mendean beste aukera bat agertzen da (Mounole 2011: 227): apodosia alegiazko morfologia duten adizkien bitartez adieraztea.¹⁹⁴ Gurean badugu honen adibide bat, [ezin + partizipio + **edin*] parafasikoa zehazki: esin disponiu leiteques bear dan legues Jangoicoac berac disponitan espagatus (37-87).

Alegiazko baldintzako apodosiak alegiazko adizkiez egiten ziren XVI. mendean, baina XVIII. menderako hauek galbidean ziren eta (Mounole 2011: 334) apodosi bukatuak markatzeko [geroaldiko partizipioa + *izan/*edun* lehenaldian] perifrasiak orokortu zen euskalki guztietan. eta gure testuak jada hau baino ez du (*il banins [...] eroango eben*, 28-83; *espaleude euqui [...] yoango sirean*, 44-70). Apodosi bukatugabetan ere XVI. mendeko alegiazko adizkiak galduak ziren eta XVIII. menderako [geroaldiko partizipioa + *izan/*edun* hipotetikoan + *-te/-ke*] perifrasiak

¹⁹⁴ Badirudi podosia orainaldi bukatuaren bidez [partizipioa + *izan/*edun*] ere markatzen duela behin idazleak: *Jaune, nic espadaquit, eta espadot entenditan doctrinea neuresat, selan irecasi deuset neu[re] semeari edo alabeari?* (20-103). Alabaina, akatsa izateko aukera asko ditu (*irecasi[co]*) iturria ikusita (...*como se la enseñarè*...; Mtz. de la Parra 1705: 188). Honela ez balitz ere, apodosia galdera batean izanik, erabilera bereziren bat izan liteke.

erabiltzen zen, eta gure testuak hau erakusten dug, perifrasiak besterik ez baitu (*balego* [...] *yoango sinatequean*, 12-96), adizki trinko pare batekin batera, *-teke* morfemaz lagundurik (*litzateke*, *ginatekean*).

4.2.3.10. *deunso* ‘deutso’ erako adizkiak

Testuan NOR-NORI-NORK indikatiboko laguntzailearen adizkietan bestetan ohikoa ez den sudurkari bat agertzen da. Sudurkari hau adizkiaren erroaren eta NORI pertsona markaren artean agertzen da beti; eta adibideak bakanak dira (birritan ageri den *deunsen* honen parean 28 *deusen* genituzke, adibide bat ematearren). Zerrendatxo honetan bilduak ditugu sermoitegi osoan diren formak:

deunsen (7-11; 43-74), *deunsenagas* (45-134), *deunsesan* (7-123), *deunso* (46-54), *correspondiesqueunsen* (11-111) eta *deingunset* (7-43)

Hauekin lot daitezke, nola edo hala, **edun*-en *-ke-dun* NOR-NORK adizkietan (*eukeen* ‘zukeen’, *zeunkeen* ‘zenukeen’...) dakusagunarekin: 3. pertsonetan, oro har *n* gabeko adizkiak ditugun arren (*euqueala*, *euquesan* 62 adibiderek); 3 adibideetan erroa eta *-ke* atzizkiaren artean *n* agetzen zaigu: *eunqueala* (16-156),¹⁹⁵ *eunquesan* (4-120), *eunquesanac* (15-77). Alderantziz, 1. pertsona pluraleko eta 2. pertsonetako adizkiek *n* lukete berez, (eta horrela agertzen dira oro har sermoitegian: *geunke*, 11 adibiderek; eta *zeunke*, 8 adibiderek) baina *gueuque* (28-39) eta *eseuque* ‘ez zeuke’ (38-80) formapean ageri dira. *n-dun* 3. pertsonetako adizkiak lekukoturik ez badira ere, *geuke* eta *zeuke* erakoak baditugu lekukotuan Gipuzkoako bizkaieraren hegoaldean¹⁹⁶ (Gaminde 1984, I: 430 eta 432) eta Aramaion (Ormaetxea 2006: 338). Egungo datuez gainera, testu zaharretan Gatzagako dotrinako (1862) *gueuquiana* lekukotu dugu (Uribe-Etxebarria 2011: 162). Azken forma hauetan, Ariztimuñok (2013a: 51) *en₂* izendatu duen eta euskal adizki jokatuak azaltzerakoan buruhausterik gehien ekarri duen hizkia genuke.

Sermoitegian bildu ditugun adibideak azaltzeko hiru irtenbide daude, gure ustez, guztiak arrazoi fonetikoei lotuak. Lehenengo irtenbidea ulertzeko aintzat hartu behar da

¹⁹⁵ Adibide honetan berariaz idazten du *n*, lehenago idatziriko *euqueala*-ren gainean, hau zuzenduaz.

¹⁹⁶ Oñati, Gatzaga, Gantzaga, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza, zehazki.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

deunsen erako forma (ia) guztietan beste *-n* bat ageri dela; hala bada, espero ez genuen *n* hori ondorengo sudurkariaren erreperkusiotsat har daiteke; hau da, *deusen* formaren azken sudurkariak bere tasuna aurreratu duela. Alabaina, azalpen honek ez du *deunso* forma azaltzen, eta *geuke* bezalako *n* gabeko adizkien auzia azaltzeke uzten du.

Bigarren aukera da lehenaldiko NOR-NORK forma ezberdinek (*nendun*, *zendun*, *zeunke* batetik; *leuke*, *neuke* bestetik) elkarri analogikoki eragin izana: hau da, *n* etimologikoa dutenetatik besteetara hedatu eta, alderantziz, *n* ez dutenetatik haren eza ere analogikoki hedatu izana. Ondoren, bilakabide analogiko bera orainaldiko NOR-NORI-NORK adizkietara ere hedatuko zen. Honek esan nahiko luke, ordea, analogiak sistema berdintzeko duen joeraren aurka egin zuela, *euke* > *eunke* zein *zeunke* > *zeuke* bi norabideetan aritu baitzen; gainera, analogia hori paradigmako beste kutxa batera ere (orainaldiko NOR-NORI-NORK kutxara) eta horretara bakarrik zabaldu zela.

Hirugarrenik, badugu proposatzea *deunso*, *deingun* eta *eunkeen* adizkietan duguna aditz errokoa dela, alegia, ez dela oraindik galdu berreraiki ditzakegun **de-dun*, **de-gin* eta **edunkeen* ‘zukeen’-eko sudurkaria (cf. Ariztimuño 2013a: 50, 11. oh.).¹⁹⁷

Bestelakoak dira *geuke* eta *zeuke* adizkiak. Bereziak dira, batetik, mendebalde gehienez (Aramaio eta Oñati-Arrasate inguruan izan ezik) gaur egun *n*-dunak direlako (*geunke*, *zeunke*) eta, bestetik, gure hipotesiaren arabera jatorrian bi sudurkari zirelako, nonbait: erroko sudurkaria batetik eta *en₂* hizkikoa bestetik (**gen-dun*, **zen-(d)un*; cf. Ariztimuño 2013a: 51). Lakarrak Lazarragareneko *baceequi* (AL: 1151v) eta Bizkaiko zenbait tokitan entzun daitezkeen *zenki* erakoak *zeneki* > **zêêki* > *zenki* bilakabidearen bidez azaltzen ditu (ap. Ariztimuño 2013a: 51, 12. oh.), eta bilakabide hau adizki hauetara ere estrapolatuz, pentsa genezake hauetan ere **zêû-* > *zeun-* berrezarketa bat gertatu dela bizkaiera gehienez. Beraz, gure *geuke* eta *zeuke* adibideetan bokalen sudurkaritasuna berrezarri gabe dagoke kontsonante ostean; hain zuzen, semoitegi

¹⁹⁷ Jatorrizko **da(d)un-* eta **da(g)in-*tik egungo *dau-* eta *dai-*ra hainbat urrats gertatu ziren: (1) bukaerako sudurkaria galdu zen, lehenik **da(d)unV* testuinguruan (bokal arteko beste sudurkariak legez **da(d)unV-* > **da(d)ûṼ-* > **da(d)u-* bilakabideaz; cf. *FHV* § 15.2); (2) honek *daduV-* / *dadunC-* txandakatze bat eragingo zuen; (3) txandakatzea galdu zen **da(d)u-*ren alde, analogiak eraginda. Sermoitegiko adizkiek (2) urratsean diren formak erakusten dizkigute XVIII. mendean (hizkeraren arkaikotasunaren beste ezaugarri bat, cf. § 4.4.1), baina ez dira euskal tradizioko adibide bakarrak: bigarren urratsean leudeke baita Etxeparearenean diren *inzanden* ‘hintzatekeen’ (XIII, 2), *ninzanden* ‘nintzatekeen’ (XIII, 49) eta *baninzande* ‘banintzateke’ (VII, 21 eta XII, 33) erako adizkiak ere. Bidean, erroaren sudurkariak Mendieta aiararrak *Foruen zinegitea* (ik. *ContTAV* § 5.2.7) koadroko kartelean agertzen duen *eguinezan* forma ulertzeko argia eman dezake: suposa dezakegu (1) urratsaren aurreko egoera mantentzen duela Mendieta; erroarekiko analogiatatik inolaz ere, jakitun baikara oso testu berria dela *VnV* > *VφV* gauzaturik ez egoteko. Alabaina, honi loturiko beste azalbide posible bat litzateke **egiêzan* izatea (gure bilakabidaren **da(d)ûṼ-* egoera, alegia), eta <n> sudurkaritasuna adierazteko modu bat izatea, garaian oraindik galdu gabe baitzen, Kapanaga lekuko (cf. § 4.2.1.6).

honetan bertan den *oipetan*, *seitasun* edo *useire* ‘usainera’ vs. *oiñetan*, *seiñe* edo *useiñe* oposaketan dugun legez (cf. § 4.2.1.6).

4.2.3.11. Aditz uzkurdurak

Euskara Arkaiko eta Zaharretik zenbait uzkurdura gertatzen dira mendebaldeko adizkietan, nahiz literatur hizkuntzan hauek ekiditeko joera berekin ekarri, Añibarro lekuko (Urgell 2001a: ciii). Gure testuan ere gutxi dira, eta Urgellek egindako banaketarekin bat egiten dute osoki: Euskara Arkaikotik zetorren *ba-* baiezkoaren uzkurdurei (*baquisue*, *bacusu*, *bago*... cf. *FHV* § 21.11) sermoitegian baldintzako *ba-* partikularen uzkurdurak ere gehitu behar zaizkie: *espaidi* (< *ez badidi* < **badadi*), *baitues* (< **baditues*), *beequila*, *beusen*, *beuden*, *beigu*, *begoan*, *beuquen*... Gehienetan \emptyset - markadun adizkietan gertatzen dira eta, ondorioz, bokal asimilazio eta bakuntzeak dira (*bae-* > *bee-* > *be-*; cf. § 4.2.1.5), bestetan (*baidi*, etab.) *d*-ren galera dago lehen urrats gisa.

Lazarragandik lekukotzen den eta mendebaldeko hizkeren bereizgarritzat hartzen den¹⁹⁸ *ei* ‘omen’ partikulak ere uzkurdurak sortzen ditu *d*- hasiera duten adizkietan behintzat:¹⁹⁹ zehazki, testuan *eitas* ‘ei dituz’ (7-80), *eitasen* ‘ei dituzan’ (7-148) eta *eitas* ‘ei dituez’ (7-78) formak ditugu, *ei ditu(e)s* > **eiitu(e)s* > *eiitu(e)s* bilakabidearen ondorioz, antza denez.²⁰⁰ Era berean, *egin* aditzaren aditz-izenean *g* erortzeko joera handia dago (250 *eiten* dugu, 18 *egiten*-en parean), baina joera ez da mantentzen partizipioan (*egin*-ek 215 agerpen ditu ein bakarraren aldean), dagoeneko Lazarraga edo *RS*-en lekukotzen den bezala (Urgell 2006b: 35). Modu berean, *egongo* adizkia *ongo* legez aurkitzen da askotan: 33 *ongo* lekukotzen dira testuan, zazpi *egongo*-ren parean.²⁰¹

Badira beste hiru uzkurdura mota testuan. Alde batetik, *-ko* geroaldiko markaren ondorengoa, *d*- erori eta gero: *ongoire* (< **egongo dire*), *juzgueucoitus*, *ingoireala*, *ingoytuesanac*, *ilgoire*, *reduciucoitus*... eta adizkiaren lehenengo bokala *o* denean *oo*

¹⁹⁸ Larramendiren Azkoitiko Sermoian ere bada *ei* partikularen adibide bat (*OEH*, s.v. *ei*).

¹⁹⁹ Testuinguru honetatik kanpoko adibide bakarra *guedar eiten eiyeuden* ‘omen zuten’ (46-93) dugu, eta honetan adizkiak \emptyset - hasiera du berez; interesgarria zatekeen jakitea zer gertatuko litzatekeen *z-* edo *j-* hasiera duten adizkiekin, baina, tamalez, ez dago horrelakorik testuan.

²⁰⁰ *Ei dire* (33-34) adibide arazotsua alde batera uzten dugu: adizki hau lerro artean gehiturik dago, oso letra txikiz, leku gutxi baitago; ondorioz, *dire* bai, baina *ei* ez da argi irakurtzen.

²⁰¹ Hala ere, forma honetan baino ez da gertatzen uzkurdura: ez dago **(e)on* partizipiorik, ezta **(e)oten* aditz-izenik, ezta **dao*, **eoan*... adizki jokaturik ere.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

> o bakuntzea ere (§ 4.2.1.5) gertatzen da: *ingosu*, *eransungosu*, *sinistucogun*... Bestetik, *gure* eta *behar* hitzek sorturikoa: *gurosun* (15-145), *viyosues* (1-155). Uzkurdurarik ohikoena, ostera, *-n* bukaeradun adizkietan gertatzen da, gehienetan aditz-izenetan, jakina: *acabetadireanai*, *gueiyeteda*, *suceditadan*, *acostumbretaeuden*, *atormentetaeuden*, *eiteeben*, *eiteudesanac*, *gordetot* ‘gordeten dot’, *iminteeudesan*, *iñes eiteeben*, *yriquetaebela*...;²⁰² *-n* partizipioen adibiderik ere bada: *esaben* ‘esan eben’ (14-97), *eguilei* ‘egin lei’ (3-64). Azken adibide hau berezia da, *-n*-ren erorketa ez baita bokal artean gertatzen: lehendabizikoak lot daitezke, beharbada, bokal arteko *n* ahularen galerarekin (cf. *FHV* § 15.2); azken hau, berriz, bi ozen batu izanaren ondorio ezaguna da: Mitxelenak esaten duenez, “el grupo *n + l* cuando se produce en la sutura de morfemas, tiende a ser eliminado” (*FHV* § 18.16).²⁰³

Bokalez bukatzen diren partizipioetan ere uzkurdurak edo uzkurdura bidean diren adibideak ditugu. Batzuetan uzkurdura ez da gauzatu eta bokalaren asimilazioa baino ez dugu, bokal bikoitzak gordez: *botevela*, *boteebesalaco*, *boteebela*, *boteeben* (*a + e > ee*); beste batzuetan, ordea, bokal bikoitza ez da adierazten: *costequiun* ‘kosta zekion’ (*a + e > ee > e*) eta *echiuscun* ‘etxi euskun’ (= utzi zigun) eta *echiguiyesu* ‘utzi eguiezu’ (*i + e > *ii > i*); baldintzako *ba-* partikuletan eta geroaldiko partizipioetan gertatuaren antzera. Azkenik, *escatusen* ‘eskatu eutsen’ [= eskatu zion] (28-99) bezalako uzkurdura bortitza dugu (*ueu > *uu > u*), agian haplografizat har daitekeena.²⁰⁴

4.2.3.12 *zu*-ren plural balioa

Adizkietako *-zu* marka, jatorriz pluralekoa izanik (Lakarra 1996a: 179), singular errespetuzkoa bilakatu zen, inguruko hizkuntzen eraginez, beharbada (Alberdi 1996:

²⁰² Behin testuinguru honetan gertaturiko uzkurdura zuzentzen du: *deseetaben > deseetan daben* (391; cf. § 4.3.2.3).

²⁰³ Urgellek (2006b: 35) honelako uzkurdura bat aurkitzen du Lazarragarenean dagoeneko: *eguite lebela* (AL: 1152r). Adizkietatik kanpo, gure Sermoitegian behin baino gehiagotan dugu *bate legez* ‘baten legez’ egitura (13-88; 15-131; 24-166; 45-95), bilakabide berarekin; bai eta gure eremukoa den Ugaoko testuan ere (*batelegues*). Eremitik kanpo, Bizkaiko ipar-sartaldean ere bada esapide bera Ortuzar bermeotarraren obran (1925) (*batelez* formapean, cf. *OEH*, s.v. *itxura*, *itxura batean*) eta J. K. Renteriak *jaka legez* ‘zitzaion legez’ eta *esan euce legues* ‘esan zion legez’ dakartza XIX. mendeko Plentzian, bilakabide beraren erakusle, nonbait (cf. Etxebarria & Akesolo 1983: 410).

²⁰⁴ Beste adibide berezia da *isichatesan* (31-46) ‘itzi zitxatezan’ (= itxi zitzaizkien) adizkikoa, bokal arteko *z* baita galdu dena. Ezaguna da txistukarien arteko disimilazioa (*FHV* § 14.7), batez ere aginteran: Bilboko *yndauz* ‘indazuz’ edo *ezauz* ‘ezazu’ (*RS* eta Mik hurrenez hurren) adibideetatik Leizarragareneko *ianagaçue* ‘ian ezazue’-ra, eta aginteratik kanpo badira *erosaala* ‘eros azala’ (*RS*) eta *dous* ‘dozuz’ (Mik) Bilbo inguruan. Honetan baina, testuko adibide bakarra izanik, egiantzekoago iruditzen zaigu haplografia baten aurrean egotea: *isi [si]chatesan*.

119). Bizkaieran, inon baino luzaroago mantendu zen 2. pertsonaren *-zu* atzizkia pluralerako ere erabiltzea: izan ere, literatur bizkaieran oraindik bietara erabiltzen dituzte *-zu*-dun adizkiak, izenordainek bereizita (*zu zara* eta *zuek zara*, *zuk dozu* eta *zuek dozu*). Zabalak txartzat jo zuen erabilera hau, eta XIX. mendean non aurki genezakeen zehaztu: “Este defecto es bastante comun en los pueblos del Señorío inmediatos á dicha Provincia [Gipuzkoa, alegia], y por la costa se interna algo mas” (VRB 57).

Zabalak marraztutako eremu horren barruan leudeke Markinako idazleak, eta honen adibideak badira f. Bartolome edo Astarloaren obretan (Urgell 2012: § 4.3.1.1); alabaina, eremua zabaldu beharrean gaude; batetik, Añibarrok ere badarabiltzalako, nahiz *izan*-en bakarrik, eta nahiz une batetik aurrera *zara* > *zaree* (batzuetan *zaré*) aldatuko duen (*ibid.*), eta bestetik, sermoitegi honetan ere bietara erabiltzen delako; baina Añibarrok ez bezala aditz laguntzaile guztietan (*izan*, **edun*, *egin*) eta are adizki trinkoetan ere (markinarrak legez), eta ez *izan*-en bakarrik. Hona plural balio zaharraren zenbait adibide:

- (a) *O pecatu madariquetuic, suic sara causea matratetaco neure Jangoicoa eta redemptorea* (4-123)
- (b) *Gure dosu, christiñeuec, suen arimetan egon dila Espiritu Dibinue?* (10-132)
- (c) *irecasi eguiyosu seuroen humeai* (21-6)
- (d) *erdue, se bera bendiciñoes betetan satus suec gustiyoc* (7-108)
- (e) *apartau sates seuroen ondasun caburic estauquenaganic* (7-132)
- (f) *ordureanic sagos obligueduric irecasten seuroen humeai* (20-87)

Hala eta guztiz ere, dagoeneko badira *-zue* berriaren adibideak ere aipatutako aditz guztietan, eta are tarteka *-su* eta *-sue* biak elkarrekin aurkitzen ditugu esaldi berean:

- (a) *gozadu eguisu neure gracyegas eta seuroen obra onacas irepasi dosuen Ceruco erreinue* (7-113)
- (b) *Ez eguisu euqui seuroen artean discordiye da es pendenciric,[...] eta alan lograduco dosues Espiritu Santuen doeac* (10-133)
- (c) *Espasara bada, fiyelac gordetan Jangoicoari an prometiduric deusesune, selan gure deusue euqui seguisela Jangoicoac vere amistedeco gracyan eta guero eroan saguisela Cerure?* (6-91)

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Ez dugu bata edo bestea aukeratzeko inolako legerik antzeman, ez testuinguruaren arabera, ezta aditzen arabera ere; alabaina, egilearen hizkeran bi formak, zaharra eta berria, lehian zeuden, nonbait. Lehiaren nolakotasuna ikusteko, *sara/sare* eta *dosu/dosue* adizkiak hartuko ditugu eta euren erabilera neurtu, lehenengo noiz den plural ikusiz: *sara*-ren bi adibidek plural adiera dute, eta zazpi *sare* dira parean; *dosu*-k, berriz, bost adibide ditu plurala adieraziz, eta honekin 14 *dosue* ditugu.

Zenbakiek argi asko erakusten dutenez, forma berriak lekua hartu du jada hizkera honetan; gainera, behin bederen egileak forma berriaren alde egin zuen berariaz: *selan gure dosue euqui saguiyesala Christiñeu eguiyescosat* (6-93) esaldian, lehenengo idatzaldian *dosu* idatzi bazuen ere, gero gainean *-e* gehitu zuen (cf. § 4.3.2.3).

4.2.3.13. *ezan vs. egin

Mendebaldeko hizkeretan indikatiboaz kanpoko adizkietan *egin* laguntzailea erabiltzen da egun, baina testu zaharrek erakusten digute **ezan* ere ezagutu zela antzina (ik. Lakarra 1996a: 181). Testu zaharretan, **ezan* aditzoinarekin erabiltzen da, *egin*-ek partizipioa darabilelarik; eta beraz, badirudi *egin*-en bidezko perifrasi modernoagoa dela, ordezkatzearen historiak erakusten digunez (Mounole 2007).

Azterketa kuantifikatiboak (Mounole 2007: § 3.2) erakusten digunez, Gipuzkoan **ezan* eta *egin* batera erabiltzen ziren (txandakatzean, ik. Lakarra 1996a: 183), baina Bizkaian eta Araban **ezan* aditzaren ordezkatzea gertatu zen *egin*-en alde. Arabako lekukoetan, XVI. mendean **ezan*-ek emankortasuna galdua zuen eta laguntzaile bigarrenkari gisa erabiltzen du Lazarragak; bizkaieran, bere aldetik, lehenengo testuetan (*RS*, Garibai) emankorra bada ere, ondoko testuetan edo laguntzaile eihartua da (*Mic*, Cap, Amilleta) edo ez da erabiltzen (*Bet*, *VJ*, *Egiaren kanta...*). Hauen parean, XVIII. mendeko Barrutiak laguntzaile bigarrenkari gisa du agintera, eta Albeniz-ek laguntzaile eihartu legez darabil, dakartzan hiru adibideetako bi aginteran.

Sermoitegiaren egileak *egin* darabil testuinguru guztietan, espero bezala XVIII. mendeko sartaldeko testu batean; haatik, aginteran **ezan*-en adibide bat ere badugu, *acabeesasu* (45-70), zeharo aipagarri testuaren modernotasuna kontuan harturik. Hau noski, aurreko testuetan ikusitakoaren harira dator, Barrutiaren eta Albenizen egoera bertsua erakusten duelako, eta erakusten digu XVIII. mendeko sartaldean ere galdua zen **ezan*-ek arrastoak bazituela aginteran fosildurik.

4.2.3.14. *Jakin laguntzailea*

Lazarragaren testuan antzeman dira lehenengoz *jaki-* erako adizkiak; hauxe da argitaratzaileen azalpena: “*Jaqui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa edo aditzoina aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatu gabea iduri du [...]. Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, **edin* aditzaren aldaera bipertsonala (NOR-NORI) baizik ez da” (Bilbao *et al.* 2010: AL 1142v; s.v. *anci jaquinic*). Ezaugarri hau, gainera, garrantzitsua izan daiteke Arabako euskararen ezaugarri eskusibotzat emana baita, bada: “lehenik ere ezagutu behar zitzaien ‘orijinaltasun’ eta autonomia are markagarriago bihurtzen du” (Lakarra 2011a: 200).

Guk dakigula, ez da beste inon topatu. Hala eta guztiz ere, haren bitartez gure testuko esaldi hau azal dezakegulakoan gaude: *se gure isen eben aurretu yaquin vere areriyoen maliciyeri* (4-79), hots, ‘zeren gura izan zuen aurreratu bere arerioen maliziarri’.²⁰⁵ Interpretazioa jatorrizko testuak (cf. § 4.3.1.1) bermatzen du:

Esque el deseo que tuvo el Salvador de verterla, fue mas pronto, que la malicia de sus contrarios para derramarla, pues si para este fin venian aquellos andando mas que de passo, el amor de Christo se les anticipó corriendo... (Marsal 1727: 54).

4.2.3.15 Lehenaldi narratiboa: aoristoa

Euskara Arkaikotik Zaharrera bitartean gertatu zen euskal aditz sistema osoaren aldaketa sakonaren (Mounole 2011) alderdi ezagunenenetako bat —beharbada Leizarragaren obran duen garrantziagatik— lehenaldi narratiboan gertatua dugu: aspektu perfektua adierazteko lehenaldiko adizki trinkoak (aoristo trinkoa) eta egun *irrealis*-etan erabiltzen diren [aditzoina + **edin*/**ezan*] eta [partizipioa + *egin*] perifrasiak (aoristo perifrastikoa) erabiltzen ziren. XVI. mendeko testuetan bi aoristoak ugari ditugun arren, artean aditz sistemaren denbora, modu eta aspektu erlazioak zeharo berrantolatzen zebiltzanez, sistema arkaikoaren azken aztarnak gutxika-gutxika galduz

²⁰⁵ Cf. Lazarraga: *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (A23: 57-60); *Tortolachoa ebiltzen da / baco chic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

doaz eta, beraz, XVIII. menderako forma hauek galduak ziren: lehenaldiko adizki trinkoek lehenaldi bukatugabea adierazten dute dagoeneko, eta aipatu perifrasiaren ordeztu egun erabiltzen diren [partizipioa + *izan* / **edun*] perifrasiak adierazten du lehenaldi narratiboa (Mounole 2011: 298).

Aoristo trinkoaren azken agerraldiak Kapanagarenean aurkitu dira, 1656. urtean (garaiko beste testuetan ere badira: Mic, *VJ*...); baina aoristo perifrastikoaren formek badiraute Bizkaiko sartaldeko egungo ahozkoan. XVII.eko adibideez gainera (Mic, *VJ*, Cap, *EK*... Lakarra 1996a: 177), XVIII. mendeko testuetan ere topa ditzakegu perifrasi hauek: batetik, baditugu “forma hiperfosilduak”, nolabait deitzearren, hedadura zabalekoak eta hala mendebaldean (Añibarro) nola erdialdean (Mendiburu) behintzat badirenak: datibodun *zekion*, *zekien* (B *ekion*, *ekien*) formak dira hauek (Lakarra 1996a: 178, 49. oh.). Bestetik, badira forma “fosilduak”, dotrinetan eta otoitzetan bakarrik topatzen direnak (cf. *ibid.*), eta azkenik, Bizkaiko sartaldean XIX-XX. mendeetan lekukotzen diren arkaismoa genuke (cf. Mounole 2011: 298, 338. oh.); hauxe da Zabalaren lekukotasuna: “En Plencia, Guecho y pueblos comarcas usan como de artículos [= aditz laguntzaile gisa] regulares y ordinarios para el preterito de *leguian*, *cenguian*, *nenguian* etc. [...] El mismo uso del *leguian*, *nenguian*... hacen en Llodio, Orozco, Barambio etc.” (*VRB* 56).²⁰⁶ Azkuek ere (1923-5: § 895) antzeko zerbait diosku Bilboko iparraldeko herri hauetako hizkeraz,²⁰⁷ Gamindek ere Plentzia aldeko egungo euskaran aurkitzen ditu formok (Gaminde 1995: 549). Hego-sartaldean, ordea, ez dira egungo hizkeretan deskribatu, baina Zabalaren hitzak Laudioko 1858ko dotrinaren lekukotasunak berresten ditu (Urkijo 1994: 124), ordurako fosildurik, nonbait.²⁰⁸

Esanak esan ondoren, garden ageri da, berriz ere, sermoitegiaren arkaikotasuna. Izan ere, batetik, interpretazio anbigua izan lezaketen adibideak alde batera utzita ere, badira aspektu bukatu garbia duten lehenaldiko adizki trinkoak. Hona garbiena:

²⁰⁶ Aipamen hau askotan errepikatua izan da Bilboko iparraldeko herrietarako, baina inork gutxi jarraitu du irakurtzen, nonbait, Laudio eta Orozko ingurua ez baitugu inon aipaturik ikusi (cf. § 4.4.2.1).

²⁰⁷ Aldaik diosku (2008: 406) Azkuek aoristoaz hitz egiten duenean hala iragangaitzeko nola iragankorreko paradigmaz daragoiola; hala ere, oharrezkoa da Azkueren iragangaitzen adibide guztiak guk “hiperfosilduak” deitu ditugunetakoak direla, datibodun iragangaitzak alegia: ez du behin ere *zidin* edo *zitean* bezalakorik aipatzen.

²⁰⁸ Hala ere, neurtu behar dira Laudioko dotrinaren aoristoaren fosil izaera. Izan ere, 1858ko dotrinaren ageri dira (Bonaparteren aginduz itzuli zena), eta otoitzetan beharrean galdera-erantzunetan ditugu: “E. Lelengoa formau eguin gorputz bat Ama Virginien savel santan bere odol gustis garviegas. Bigarrena criedu eguin arimebat esebere eserianic. Irugarrena á arime eta gorputsa batu eguisen alcarregas.” (8-9 or.). Honen parean, leku bereko 1828ko dotrinan (berez elizkideek ikasteko bide zutena), beste hau dago: “Lelengoa, formau eban gorputz bat Ama Virginiaren Sabel santuan bere odol guztiz garbiyagaz. Bigarrena, criyadu eban Arima bat ecebere eceric. Irugarrena, gorputza, ta arimia batu cituzan alcarregaz”. Badirudi beraz, edo 1858koaren itzultzaileak buruz ikasi zuen dotrina ez dela Laudiokoa, edo herrian *ahoz* erabiltzen ziren formak direla esaldi hauetan islatu nahi izan zituenak.

Bayoetan bere esera, afaldu eben eta echun sin proposituagas (16-138).

Honezaz dena dela, aoristo perifrastikoa nahiko erabilia da testuan, hain non parerik ez duen bere garaian. Adibide gehienak hirugarren pertsonari dagozkio, eta zehazki “hiperfosilduak” deitu ditugunetakoak dira: *equion (equiun)* eta *equiyen* formak, alegia. Hauekin batera, badira bestelako argumentuak dituzten adizki aoristoak ere, bai *sitean, sin* (< **zidin*) iragangaitzak eta bai *eguiyen* (< *egien* / **egian*) laguntzaile iragankorrek:

- (a) *alan yaso equiun ama bateri, (23-134)*
- (b) *Alan yaso equiyen evangelioco doncella neciyoai eldu equiyeenean Jaun dibinue contu escatuiten bere judiciyoan (7-45)*
- (c) *Gustitan gueratu sin venciduric espiritu ynfernala (44-93)*
- (d) *Esan asquero gustic euren parecer[r]a, convenidu sitean parecer onetan (5-93).*
- (e) *eta egun guichi barruen bendecitan eudenac aoagas maldecidu eguiyen escuicas (2-95).*

Areago, bestelako pertsonekin ere lekukotzen da, hala **edin* nola *egin* laguntzaileekin, Zabalak eta Azkuek Bizkaiko (eta Zabalak Arabako ipar-) mendebaldean aurkitu bezala. Hona hemen honako erabileraren adibideak:

- (a) *Santu berac diño bautizedu guinteanean [‘gintezenean’] gustiyoc prometidu guenguin [‘gengian, genuen’], aite pillecoen medius, renunciyetan guendusela Satanasen obrac eta munduco pompa gustic. (6-83)*
- (b) *Acordau setes bautizedu sintean egune: preguntedu eusun an sacerdoteac renunciyetan senduin Satanas, bere obrac, munduco pompac eta araguiyen apetituic? Ser eransun senguin [‘zengin, zenuen’]? (12-107)*

Aoristoaren eta lehenaldi burutuko perifrasi modernoaren arteko agerpen maiztasuna ikusi nahian, hiru sermoi aukeratu ditugu,²⁰⁹ eta aoristoko perifrasiaren 8 adibide baino ez ditugu aurkitu, egun erabiltzen den perifrasiaren 100 adibideren aldean. Alde nabarmen hau perifrasiaren testuinguruak murriztu izanak azaltzen du: gure sermoitegiko adibiderik gehienak hizlariak istorioren bat edo Bibliako pasarteren bat kontatzen duenean aurkitzen ditugu, edota beste norbaiten hitzak errepikatzen dituenan

²⁰⁹ *Credoen vigarren articule: Sinistuiten dot Jesuchristo vere Seme bacar gueure Jaunegan (9-14. orrialdeak), Saspigarren Mandamintue es eser ostuitea iñori (211-220) eta Laugarren viciyo Capitala: Yra edo enojetea (391-398).*

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

(goiko adibide gehienetan ikus daitekeenez). Zehazkiago, sermoiaren gorputzean ageri diren lehenaldiak forma berrikoak dira; aoristoak, aldiz, sermoien amaierako “ipuin” edo exenpluetara mugatzen dira. Honela, adibideok erakusten dute egiturak lehenaldi narratiboari berari dagozkion testuinguruetako bat mantentzen duela; edo, beste era batera esanda, ez dela guztiz fosilduriko perifrasiak, goian aipatu diren adizki “hiperfosilduak” edo otoitzetan mantentzen diren adibideetan aurkituko genituenak legez.

4.2.3.16. Ohiturazko perifrasiak

Ohikotasuna adierazteko [partizipioa + *joan/eroan-eraman*] perifrasiak noizbait Euskal Herri osoan erabiltzen zen, bi muturretan lekukotu denez gero (Lakarra 1996a: 179; cf. Mounole 2011: 40); eta ohikotasunaz gainera, badirudi hasiera batean beste zenbait erabilera ere bazituela, azterketa sistematikoak berriki argitu duenez (Mounole 2013: 371). Egitura hau, bizkaieran iraun zuen inon baino gehiago eta literatur bizkaierara erraz iritsi zen; alabaina, badirudi Añibarro bezalako idazle batek ikasi egin zuela: usu darabilen Mogelen lanetatik agian (cf. Urgell 2012: § 4.3.1.1). Ikasitako egitura dela iradokitzen dute *EL*¹-ean adibiderik ez izateak, *GGero*-ren itzulpenean beti *daroa* erabiltzeak (aditza iragangaitz izan, zein iragankor) eta *EL*²-an *doa/daroa* bereizkuntza ondo gordetzeak (Urgell 2001a: c). Literatur bizkaieraren ondoren galdua dela dirudi, egungo hizkeratan ez da halakorik deskribatu eta Azkuek ere hauen gainean hitz egiterakoan (Azkue 1923-5: §§ 883 eta 934) literatur adibideak baino ez ditu aipatzen.

Sermoitegian oro har gutxi dira ohikotasuna adierazten duten perpausak, baina guztietan, batean izan ezik, perifrasi hau erabiltzen du egileak, eta iragangaitz/iragankor oposaketa gordez zuzen erabili ere: *esan doean legues, consideradu â Jaun Dibinu errecibitan doeana dala, lau isen doas cause principelac, norsuc euqui daroea onelango desdicheen, esan daroen legues...* Salbuespena, espero bezala, *RS*-etatik mendebaldean ere lekukotzen den [*ohi* + *trinkoa*] perifrasiak osatua da (Mounole 2011: 39): *nogas tratadu deben eta se inclineciño oi daben* (31-12) (hala ere, ik. § 4.3.2.4).

4.2.4. Sintaxia

4.2.4.1 -rik asko egitura

Asko zenbatzailea antzina partitiboaz lagunduta joaten zen, oraindik *eskerrik asko* esapidean fosil gorde dugun bezala. Partitiboaren adibideok, dena dela, testu tradizioan urriak dira *OEH*-k dioskunez (s.v. *asko* I, 1) “excepto en la expresión *eskerrik asko*, es relativamente poco usual; en Lazarraga, con todo, es la construcción más frecuente”. Gure XVIII. mendeko testuan, nahiz mugagabeko formak izan ugarienak, espero denez (orotara 70 bat adibide), baditugu partitiboz lagundutako hamabi adibide ere:

- (a) *emon euden pauso penosoric asco guison perdidu edo betacari perdiduen asean* (2-39)
- (b) *bere pecatuigas acarreadu euscun gachic asco* (14-46)
- (c) *pulpitue noric esan neusun desengañuric asco* (15-106)
- (d) *Exemploric asco dago confirmetaco au doctrine gustiyeu* (18-46)
- (e) *Jangoicoagan topetan dire errazoaric asco parquetaco* (22-92)
- (f) *murmureciñoea eta osteranseco gause deungueric asco* (22-124)
- (g) *ser ysengo da erl erdiric asco retenitan daudenacas?* (31-151)
- (h) *espada gachic asco eta gause deungueric asco* (37-124)
- (i) *Erremediuric asco emaiten deude santuic* (45-108)
- (j) *onen exemploric asco dago* (45-116)
- (k) *acarretan deuso vere gorpuseco osasuneri eta arimecoari dañuric asco* (46-47)

Alabaina, egin beharreko lana da halako esapideen bilketa; izan ere, gure sermoitegiaz aparte, badira halakoa beste hainbat testutan ere: gure aingura testuetan, Añibarroren lekukotasuna dugu, eta *EKC*-n begiratzuz (s.v. *asko*) ikusi dugu hainbat adibide dituela: *indarric asko*, *testiguric asko*, *penagarririk asko*, *zeregiñik asko*, *egitekorik asko*, *alabanzaric asko*... eta berdin J. M. Zabalaren lanetan ere: *testiguric asko*, *obligaziñorik asko*... Gainera, badirudi erabilera hau *OEH*-k iradokitzen duena baino hedatuagoa eta erabiliagoa izan zela: Axularrek (1643), adibidez, beti erabiltzen du partitiboarekin, berriki atera den edizioan irakur daitekeenez: “*indarric asko*: gaur *eskerrik asko* esapidean fosilduta dagoen egitura hau beti erabiltzen du Axularrek, oker ez bagaude: *penagarririk asko* (29-7), *egitekorik asko* (95-9), *ekhairic asko* (112-20), etab.” (Urgell 2015a: 28-3 testu-oh.).

4.2.4.2. Komunztadurak

Arabian, Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaiko ekialdean lekukotzen den ezaugarria da komunztadurarik ez egotea objektu pluralarekin. Zabalak (1848: 57; cf. Lakarra 1996a: 188) honako adibide hau eman zuen: *nik zuri gauza ederrac emongo deusut*. Komunztadura eza hizkerok gordetzen duten arkaismotzat jotzen da, plural komunztadurak aditzean berandu sartu den elementua baitirudi (cf. Ariztimuño 2013b: 371).

Gure testuko adibideetan, oro har, komunztatzen da pluralarekin: *Da immensoa betetan dituselaco ceruec eta lurrec bere essenciye gas, presenciye gas eta potenciye gas* (1-23), *emon eusesan documentu maravillosoac* (6-7)... Komunztadura gabeko adibide bat baino ez dugu aurkitu, *gustiyec dauque begui bi* (38-62), baina gogoan hartu behar da *bi*-k oro har plural komunztadura badu ere (ik. *OEH*, s.v. *bi*), badagoela singularrean egiteko joera Euskal Herriko *bi* muturretan (cf. Ariztimuño 2013b: 371). Gainera, objektua aditzaren ondoren ageri da, eta zenbaitetan testuinguru hau hartu izan da aditzaren pluraleko komunztadura ez gordetzeko arrazoitzat (ik. Zuazo 1998b: 83; cf. Ulibarri 2010a: 69). Beraz, sermoitegiaren hizkera, antza denez, ez zen plural komunztadurarik ez duen eremu horretakoa.

Datibo komunztadura aukerakoa Iparraldeko eta Nafarroako ekialdeko hizkeren ezaugarri berezizat hartua da (cf. Zuazo 2008: 222). Hala eta guztiz ere, mendebaldean ere bazela erakusten dute Albenizek (Altuna 1995: 105) eta Añibarrok (Urgell 2001a: cxliii)²¹⁰ bai eta, ikusiko denez, gure testu honek ere. Jakintzat eman ohi da datibo komunztadura ere (pluralekoa bezala edo are gehiago) aditzean berandu sartu zela, euskalkietan zehar txertatzeko duen molde aniztasunaren arabera (cf. Ariztimuño 2013b: 392). Beraz, mendebaldeko adibideon balio historikoa zein den erabakitzearen, Iparraldean egun aurkitzen diren murriztapenekin bat egiten duten begiratzea dagokigu.

Ekialdeko datibo ezak²¹¹ honako murriztapen hauek ditu (Ortiz de Urbina 1994): (1) izenordainekin komunztadura galtzea zailago da, (2) esaldiak ageriko datiboa badu, komunztadura ez egiteko aukera gehiago dago, (3) 3. pertsonetan komunztadura

²¹⁰ Añibarroren kasuan are interesgarriago dira adibideak, zeren eta *Geroko Gero* liburua bizkaieratzean sortutakoak baitira, “...Axularren eredia aurrean duela ere” (Urgell 2001a: cxliii).

²¹¹ Datiboaren inguruan bi fenomeno ezberdin daude: batetik, hizpide dugun datiboaren komunztadura eza (Ortiz de Urbina 1994, Fernández *et al.* 2009); bestetik, *Datiboaren Lekualdatzea* (Fernández 2001, Fernández & Ezeizabarrena 2003). Azken honen adibidea *zuk niri sagarra eman nauzu* esaldian genuke: honetan datiboa aditzean islatu islatzen da, baina absolutiboaren pertsona komunztadura hizkiarekin (*n*-rekin, alegia). Erdialeko hizkera batzuetan den berrikuntza dateke, eta ez dugu gurean halakorik aurkitu, noski.

eza errazago gertatzen da, eta (4) adizki trinkoetan komunztadura islatzeko aukera gehiago dago. Sermoitegiko adibideetan, oro har, murriztapen hauek betetzen dira: adibide guztietan aditza perifrastikoa da (4. murriztapena), guztiak hirugarren pertsonakoak ditugu (3. murriztapena), eta adibide bakar batean baino ez dugu izenordaina (1. murriztapena): *sor ebesan penac emon leguisela berari* (13-45). Halaber, adibide guztiek datiboa agerian dute (2. murriztapena): *seuc gure dosuleco siguidu seure apetituei* (45-139), *quensaiten daude es solamente personai* (13-92)... Añibarroren adibideetan ere, oro har, 2. murriztapena betetzen da (Urgell 2001a: cxliii).²¹²

Fernández *et al.*-ek (2009), beren aldetik, ezinbesteko datibo komunztadura duten esaldiak eta hautazkoa dutenak aztertzeko gako zenbait eman dituzte. Hauen artean, aditzak behar duen predikatu motaren arabera azterketa proposatu dute; hots, datiboak betetzen duen *theta-rola*-ren²¹³ arabera, komunztadura ezinbestekoa edo hautazkoa izango da. Luze joko luke aurkezten dituzten aldagai guztien arabera azterketak, baina zenbait urrats bederen eman nahiko genituzke. Fernández *et al.*-ren arabera, esperimentatzaile eta jabe *theta-rola* duten datiboek eta datibo etikoak ezinbesteko komunztadura lukete (Fernández *et al.* 2009: 358), eta hauek aditz iragangaitzetan aurkitzen direnez normalean, komunztadura eza nekez azter daiteke halakoetan (*ibid.* 365). Dena dela, honek ez luke adierazi nahi aditza iragankor edo iragangaitz izatea dela komunztadura ezaren gakoa, aitzitik, “gune sintaktikoa bera har daiteke azalpenaren oinarritzat, eta ez horren beste *theta-rola*. Ñabardura hau gogoan dugula, ez dugu espero iragankortasuna bera komunztadurarik gabeko datiboen gakoa izatea, iragankortasunari esker *theta*-rolen —eta hortaz, gune sintaktikoen— banaketa berezirik ez badago behintzat.” (*ibid.* 636).

²¹² Albenizen kasuan, adibideetako batek 2. murriztapen hau betetzen du (*erregutu eguizu nigati Jaungoicoari*; 168), eta beste adibideetan ez dago datibo ageririk (Altuna 1995: 105). Alabaina, berak erakusten duenez, datiborik ez duten adibideetako batzuk ez lukete datiboa izango, erdal testuarekin konparatuz behintzat (*erregutu eguizu* ‘abogad’, *parcatu eguizu* ‘perdonad’), eta beraz, *erregutu eguizu* ‘rogadle’ bakarrik lotzen da murriztapen honetatik kanpo. Bestalde, Altunaren iritziz, Albenizek badu komunztadura eza adizki trinko batean, Ortiz de Urbinaren 4. murriztapenaren aurka ei doana: *dei eguizu Ceruco santu guztiai* (167); alabaina, Fernández *et al.* jarraituz (2009: 377), honetan *egin*-en bidez osaturiko egitura predikatibo konplexu bat dugu, eta trinkotzat beharrean, *dei egin* egituraren adibidetzat genuke; honela, ikertzaile hauen aburuz, datiboa *dei* izenari lotuko litzaioke eta hauetan ere datiboa hautazkoa da (gure testuan ere ikusiko dugun legez).

²¹³ Gramatika sinkronikoaren arabera, aditzak (euren terminologian, predikatuak) argumentu-egitura bat eskatzen du, ez dela kategoria gramatikalerak (dat., abs., erg., etab.) mugatzen, aitzitik, aditzek paper (*rol*) semantiko berezitu batzuk eskatzen dituzte, *theta-rola* deitzen zaiena (Artiagoitiaren 2000: 105). Adibide bat ematearren, *erretorea tristatu egin da* eta *erretorea garaia da* esaldietan “erretorea” hitza kategoria gramatikal bera luke bietan, baina *rol-thematiko* (hots, balio semantiko) ezberdina: lehenegoan egoera psikologiko baten *esperimentatzailea* dugu; bigarrean, berriz, deskribapenaren gaia dugu (Artiagoitiaren 2000: 105-tik harturiko adibidea).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Gurean ez dugu komunztadurarik gabeko esperimentatzailerik aurkitu, eta horrek bat egingo luke Iparraldeko egoerarekin. Era berean, Iparraldeko adibideekin bat egingo luke aurkitu ditugun adibideetan tematikoki helburu edo iturburu theta-rola²¹⁴ duten datiboak direla (Fernández *et al.*-ren arabera, *behe-datiboak*), eta halakoetan komunztadura hautazkoa da: *emaiten dana gustiye gustiyei* (10-51), *bear da bolvidu bere yaubeari edo heredurei* (25-55), *selan yturriye comunicuetan dan ara doean bacochari uretan* [= zelan iturriak partaide egiten dio bakoitzari uretan] (37-55), *San Gabrieleac bacarric emon eben noticiye munduiri* (2-27), *sacramento onec parquetan ditus pecatu venialac gusic euren damue dauquenari* (38-86).²¹⁵

Halaber, *egin* edota *egon* aditz arinekin (hots, aditz alokuzioetan erabiltzen diren aditzak) egiten diren predikatiboetan ere zilegi da hautazko komunztadura (Fernández *et al.* 2009: 374), eta honelakoak dira sermoitegiko *Hortu beronetan eguin eben oraciño iru bider Jesuchristoc vere Aite Eternoari* (4-47) edo *maldecitan sagosana seure criyedu, criyeda edo seure humeai eta estrañuei* (45-99) adibideak.

Albenizen testuan, *egin*-en adizkietan bakarrik gertatzen da datiboaren komunztadura eza (cf. Altuna 1995: 105); gurean, aldiz, **edun* eta *izan* aditzekin ere badela ikusi da: *quensaiten daude es solamente personai* (13-92), *da erremediyo ona cosideretea gorpuseco osasuneri eiten ditusen dañuic* (45-109)... Bestalde, Añibarrok komunztadura gabeko formak ageriko datiboa aditzaren ostean doanean erabiltzen ditu, “antza denez” (Urgell 2001a: cxliii), eta gurean ere halakoak dira aurkituriko adibide guztiak (eta lehen ikusi bezala, Ortiz de Urbinaren hipotesiekin bat egiten du).

Ikusten denez, mendebaldean topatu ditugun komunztadurarik gabeko datiboek zerikusirik asko bide dute ekialdean egun lekukotzen direnekin. Alabaina, Ortiz de Urbinak dioen legez (1994: 588):

...datibo komunztadura fenomeno konplexua dela saiatu naiz erakusten, azalpen linguistikoaren arloan sartu gabe deskripzio mailan ere tolesdura eta nabardura sintaktiko eta semantiko ugariak eskatzen dituen. Azalpenak bilatzerakoan dialektologia [*eta diakronia, esango nuke nik*] lan sakona egin behar da faktoreen artean dauden erlazioak zehazteko, fenomenoaren benetan ulertuko badugu.

²¹⁴ Helburu *theta-rola*: “Zerbait mugitzen den lekua edo izakiak jokatu luke helburuaren rola” (Artiagoitia 2000: 107). Iturburu *theta-rola*, aurreko definizioan oinarrituz, mugitzen den horren jatorria edo hasierako puntua jokatu luke iturburu theta-rola.

²¹⁵ Berezia da *elduiten direanean andrac arcaleri ulletaric* (45-30) adibidea, inpersonala ez bada ere, *elkar*-en fosiltzearekin lotua egon baitaiteke: izan ere, XVIII. mendetik aurrera *elkar* nominatiboko forma aditzean islatzeko beharra lausotzen da, adberbio baten funtzioa hartzen zuen heinean (cf. *OEH s.v. elkar*; Urgell 2012: § 4.4).

4.2.4.3. Artikuluaren erabilera

Artikulu mugatuaren sorrera VIII-X. mendeetan datatu da (Trask 1997: 199), eta ordutik aurrera testuinguru ezberdinetara hedatuz joan da: munduko hizkuntzetan jatorri normalena den (cf. Manterola 2006: 651) *erakusle* izatetik *artikulu* izatera heldu da, eta bilakabide honen azken helmuga *izen markatzailea* izatean datza; hots, behinolako erakuslea izen guztietan ageri den marka hutsa baino ez da (*ibid.* 657). Euskaran gaur egunean oraindik ikusten da *erakusle* > *artikulu* bide horretan urrats ezberdinak egon direla eta datu dialektologikoez ere horren berri ematen digute (*ibid.* 659), zeren eta, besteak beste, mendebaldean egun artikuluarekin bakarrik egin daitezkeen egitura zenbait ekialdeko hizkeretan oraindik ere ez baitute artikulurik behar; alabaina, testu arkaikoetara joaz ikusten dugu mendebaldean ere halaxe zela lehenago. Dotrinazko Sermoitegi honetan ere aurkitu ditugu zenbait, artikuluaren gramatikalizazioaz arduratzen diren ikertzaileentzat interesgarri bide direnak.

Manterolaren arabera (2006: 661-2), hiru testuingurutan aurkituko dugu mugagabea ekialdeko hizkeretan: (1) esaldi existentzialetan (*bada jende kanpinean* erakoak), (2) predikatuetan (*Ez da polit horren egitea*) eta (3) mugatzailerik gabeko objektua plurala denean (*bertsu kantatzen izan gira*). Lehenengo taldeko adibiderik ez dugu aurkitu; bigarrenari dagokionez, ezaguna da atributua dela mugagabea luzaroen atxiki duten osagaietako bat (cf. Mitxelena 1979c, *OC VII*: 301) eta, beraz, agian ez da harrigarria gure testuan ere lantzean behin agertzea halakorik:

- (a) *Jaun bet aen on ofendidu doguleco* (33-43)
- (b) *Gueratuco dire arbole madariquetu eguinic, pecatuin egotarren* (40-18)
- (c) *esta marabille* (1-113; 43-37)

Alabaina, hauek ez dira artikulu gabe aurkitu ditugun adibide bakarrak:

- (a) *guedar ensun eguiyesanean* (41-94)
- (b) *Baye gustu claru esautuiten da entendimintu dauquen criyuretan.* (21-46)
- (c) *segaitic selan heredetan dogun pecatu Adan[en] pecatuegaitic* (27-84)

Lehenengo adibidea Manterolaren 3. multzoan sartuko litzateke, objektu plurala definitu gabe izatea alegia. Hurrengoetan, kasu absolutiboan diren objektuak ditugu mugagabean, eta hauetan objektua plurala ez izan arren, “itxura guztien arabera, aditz

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

izenekin baizik ezin da kontraste hau egin, aditzaren aspektua ez-burutua denean” diosku Manterolak (2006: 662), eta gure beheko gustu claru eta pecatu sintagmek murriztapen honekin bat egingo lukete, bietan aditzaren aspektua ez-burutua baita.²¹⁶

Hauekin batera, ezaguna da, garai batean bederen, izen bereziek artikulua hartzen zutela (cf. Mitxelena 1959, *OC IX*: 451), erabilera hau galdu bada ere, oraindik XVIII. mendearen erdialdean bizirik zela erakusten digute Olaetxeak eta De la Quadrak eta are XIX.eko frai Bartolomek ere (Lakarra 1983a: 61). Gure sermoitegian ere badira erabilera honen adibideak *Jesuse* (2-53), *Epuloea* (31-49) eta *Bacoa* ‘Bachus, jainko erromatarra’ (46-26) izenetan.²¹⁷

Amaitzeko, *ardaoc asiten dau odola eta alegretan ditus espirituic* (37-38) adibidea ikusita, tentazio handia da pentsatzea mugagabeen darabilela zenbakaitza delako (cf. Santazilia 2013: 230); hala ere, *ardao* hitzaren beste adibideetan *ardaoa* (37-36, 37-40, 46-40, 46-140) era mugatuan erabiltzen du, eta egiantza gehiago du itzultzailearen edo kopiatazailearen zuzenketa faltaren edota trebetasun eskasaren lekuko izatea adibide hau, eta akatsa dela pentsatu.²¹⁸

4.2.4.4. Hitz ordena: genitiboak, erlatiboak eta ezezko perpausak

Testu zaharretan egun erabiltzen diren ordenaz bestela antolatzen dira zenbait elementu, eta hau lotu izan da aitzineuskaratik euskara historikora izandako aldaketa tipologikoarekin (cf. Lakarra 2005: 421).

Hasteko, egun izenaren ezkerretara jartzen den genitiboa arestian oraindik eskuinera zihoan (Reguero 2013: 449 e. hh.). Leku-genitiboa askoz hobeto lekukotzen da, eta oso berandu arte: *Milia Lasturko* ezagunetik hasi eta XIX. mendean J. P.

²¹⁶ Hauekin batera *Noe justoac Diluviyo yguero asquero* (46-40) esaldia ere badugu, non objektua mugagabeen genuke: kasu honetan, baina, ezin da inolako loturarik egin Iparraldeko egoerarekin; ondorioz, akatsa dela erabakitzen ez badugu, behintzat, *Dilubio* izen berezizat erabiltzen duela proposatu behar dugu.

²¹⁷ Antzekoa litzateke, *Demoniño* izen berezizat hartzen badugu behintzat, ondoko adibidean: *ser eingo daude arime triste bategas adinebeste Demoniñoa, eta aen cruelac eta astutoac* (38-125). Alabaina, batetik *adinebeste*-k mugagabea eskatzen du (cf. *OEH*, s.v. *hainbeste*) eta bestetik pluralean ari da idazlea (*cruelac, astutoac*) posibleago dateke akats legez ikustea adibide hau eta irakurketa zuzena *Demonioco* dela erabakitzea.

²¹⁸ Honelako itzultze akatsak dirudite baita *prediquedorea eta sacerdoteari* (33-70), *preparatan dana eta errecebitan dabenac* (37-113) eta *mundue, demoniñoac eta araguiyec* (38-31) zerrendok, hirurak eta loturarekin. Gainera, bere bitxitasunagatik anakolututzat jotzen ditugu baita kasu markarik gabe edo mugagabeen ageri diren subjektu iragankor hauek ere: *euquen padre caritativu* [padre karitatibuak] *Granadaco hospitelean peligruco gaso bat* (38-96); *Guison gaste* [gizon gazteak], *egonic esilic pedazu andi beten, ensunic ostera eta ostera esaten ebesela berba, esan eusen* (40-192).

Ulibarrik oraindik *Jose Paulo Ulibarrico*-z sinatzen ditu gutunak, besteak beste. Edutezko genitiboak, bakanago bada ere, badu ordena honen alerik: *Arrasateko erreketakantuko ama bereac* sintagmatik hasita (Arriolabengoa 2008: 97), badira *Viva Jesus* dotrinako *tentaziñoē gure arerioenetic* (Ulibarri 2010a: 68) bezalakoak han eta hemen, literatur bizkaieraraino helduz (cf. Urgell 2012: § 4.4) bai eta *Aita gurea* otoitzaren eta *Peru gurea* baladaren izen fosilduak ere.²¹⁹

Edutezko genitiboan, [iz. + gen.] ordenak 18 bat adibide ditu sermoitegian: *gorpus Christoenac* (5-9), *eta penitenciye vere falteena* (13-73), *tentaziñoē Deabruena venciduco* (44-99), *fama eta honrra proximuenac* (26-130), *sacramento ilenac* (27-11)... betiere kopuru honetan hurrengo pasartekoa (eta halako beste bost adibideetakoa) bezalako dudazko adibideak ere gehiturik: *...berac firmamentuic arguiyen miñecas emaiten dabela noticiye Jangoicoen escuen obra marabillosoena, [...] Jesusen usen onec emaiten dau noticiye Jangoicoac eguin ebesan marabilleric eta finezaric andiyeenena* (2-34), non *noticiye* mugaturik izan daitekeen (eta, beraz, genitiboa aposizioan legoke). Gehienetan, baina, ordena modernoa erabiltzen du: *Profeteen dictamenera* (1-107), *curseen egurregaitic* (6-64)... 18 adibide horiek zein gutxi diren antzematearren, kontuan har bedi berrogei sermoik osatzen dutela sermoitegia eta lehenengo sermoian bakarrik edutezko 40 genitibotik gora direla, guztiak ordena modernoaren araberakoak.

Leku-genitiboan [iz. + gen.] ugariago dugu, espero bezala: batzuetan eliz tradizioari egotzi dakiok hitz ordena hori, eta *lelengo articulu Credocoa* (1-18) edo *lelengo pertsona Santissime Trinidedecoari* (1-28) bezalako adibideak fosilduriko formulatzat jo; alabaina, ez dugu bestelako dotrina eta erlijiozko testuetan adibiderik topatu eta, gainera, egileak usu halako formuletatik at erabiltzen duenez, suposatzekoa da haren hizkeran hitz ordena hau bizirik zegoela: *lur hortucoa* (4-46), *humildede viosecoa* (43-98), *guison munduco gustiyen aurrean?* (7-67)... Hala ere, ez dira falta gaurko hitz ordena dutenak ere: *Elesaco jardinean* (1-87), *ybei beteco ure* ‘ibai bateko ura’ (16-87)... are eliz tradizioak behin eta berriz errepikatzen dituen formuletan ere: *au de Santissime Trinidedeco misteriyoa* (1-37; 20-84), *Yrugarren Credoco Articulu edo misteriyoa* (3-1)...

²¹⁹ Reguerok (2013: 451, 10 oh.) bakantzat du ordena hau edutezko genitiboan: aipaturiko VJ-en adibideez gain Erdi Aroko *Guarcea Ansorena* eta *Anso Urraquarena* izen bereziak aipatzen ditu (hala ere, garai bertsukoa da jada *Ortire semea*, [gen. + iz.] hurrenkerarekin), eta Etxeberri Ziburukoaren bertsoetako *erregue juduena* arrazoi metrikoekin lotzen du.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Esanenez, badakigu literatur bizkaierara arte bederen heldu zirela ordena zaharrak: Urgellek (2012b: § 4.4) literatur hizkuntzara heldu ziren arkaismoen artean kokatzen ditu genitiboaren ordena zaharrak, sermoitegian antzeman daitekeen era bertsuan: “jabego-genitiboa ez da ezinezkoa, baina leku-denborazkoa da errazen aurkituko dena”. Idazleei erreparatuz, Urgellek “ikertutako idazleen artean badirudi f. Bartolomek duela inork baino ohitura handiagoa” (*ibid.*), eta Mogelen lanetan genitibo biak²²⁰ hurrenkera bietan aurkitu ditu Hidalgok (1995: § 7.4).

Honela, gure testuan leku-genitiboaren ordena bakoitzak duen maiztasun erlatiboa neurtu dugu, lagin bezala hiru sermoi harturik.²²¹

	Kopuru absolutuak	ehunekoak
Iz.-gen.	20	% 31,25
Gen.-iz.	44	% 68,75

Dakigunez, erlatibozkoaren ordena zaharra ere izenaren eskuinean agertzea zen (cf. Urgell 2012: § 4.4). Ordena honetako erlatiboak ere topatu ditugu sermoitegian:

- (a) *seinetan dagosan arbole asco frutea dacardenac* (1-84)
- (b) *promesa Jangoicoari eguin gueusena bautismuin* (6-87),
- (c) *Christiñeu acuditan estabenac eta Jangoicoagan confienzea iminten estabenac bere trabaju gustitan* (17-30)
- (d) *Ser signifiquetan dau candela eresequi emaiten deusenac?* (29-22)
- (e) *Noc esan al leique, aun Jesuchristoen eriosan esta descubritan, sein isen [san] malhechore entregadu ebena ministru crucifiquedu eudenai?* (26-106)...

Egitura honen bizitasuna antzemateko, hona hemen sermoitegiaren pasarte pare bat, honelako hainbat adibide pilaturik dituenak:

- (a) *O, sentenciye merecitan dabetesana trabajuric eta penitenciric andiyeenac!
Noc ensutarren au sentenciyau esteuse echico munduco gusti sital eta*

²²⁰ Hidalgok aipatzen dituen edutezko genitiboaren adibide guztiak posesiboak dira: *Marija guria, Peru neuria*.

²²¹ Aukeraturiko sermoiak hauek dira, artxibo banatan gorde direla irizpide harturik: 1. *Lelengo articulu Credocoa: Sinistuiten dot Jangoico Aite gustis poderosoagan, Ceruen da lurren Criyodoreagan* (1-8. orrialdeak), 40. *Saspigarren Mandamintue es eser ostuitea ñori* (211-220) eta 45. *Laugarren viciyo Capitala: Yra edo enojetea* (391-398).

laster acabetadireanai? [...] *selangoa isengo da contentue eta alegríe euquico daudena bere escogiduec ensuten daudenean!* [...] *Se alabansac eta graciac Aite Eterno criyedu ebesanari, bere Seme erredimidu ebesanari eta Espiritu Santu animedu ebesanari! Se bendiciónoeac Mariye santissimeari, angueru guardacoai, prediquedore eta maisu yrecasi eusenai eta eguin eudesan obra onai!* (7-119/7-126).

(b) *gozadu eguisu erreinu ños galduco estana, erreino ños àcabaduco estana, erreino ondasun gusticas beteric dagoana infinitamente, erreinue seinetan ysengo sarean regue bienaventuraduic.* (7-114).

Erlatiboen kokapen hau, genitiboarena bezala, XIX. mendeko idazleetara heldu zen, eta Larramendik bere gramatikan egungo ordena hobetsi zuen arren (Urgell 2012: § 4.4), idazle zenbaitek badarabilte: Mogel eta Lardizabal ezagunak dira erlatiboa eskubian kokatzeagatik, baina idazle gehiagotan ere aurkitzen da maiztasun ezberdinekin: Larramendi bera, Mendiburu, Añibarro... Lagin bera erabiliz, hauek dira sermoitegiko datuak:

	Kopuru absolutuak	Ehunekoak
Iz.-erl.	10	% 43,48
Erl.-iz.	13	% 56,52

Ezezko perpausaren ordena ere aldatu egin da historian zehar: Donemiliagako *guc ajutu ez dugu* glosatik gaur egunean erabiltzen den *zuk ez duzu egin* joskerara bitartean apurka-apurka egindako aldaketa da, testuetan ikus dezakegunez. Adibidez, *Aita gurea* otoitzean hainbat aldiz itzuli den *echi ez eiguçu jausten tentaciñoan* (Bet) esaldia, aldaerak aldaera, ez da ezinezkoa oraindik XIX. mendean ordena zaharraren arabera antolatuta aurkitzea. “Ordena hau, *ez da etorri* ordena berriarekin batera bada ere, oso maiz agertzen da larramenditarren artean (Lar, Mb, Cb, Ub, Añ, AA, fB, Lard, Arr...). Noraino den ahozko hizkuntzan arkaismo honek zeukan lekuaren isla, eta noraino estilo kontua, ez da esaten erraza, baina aipagarria da Larramendik gramatikan (1729: 294; cf. Lard *Gram* 66 ere) bi aukerak baliokidetzat ematea, hiru euskalkietan eman ere”, Urgellek dioskunez (2012b: § 4.4).²²²

²²² Honezaz gainera, oraindik gaur egun harridurazko perpausetan eta mendeko zenbait esalditan onargarria da: *Hilda gelditu ez da ba!* edo *iritsi ez den mutila* (EGLU II, 493).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Hala eta guztiz ere, gure testuaren egileak hitz ordena berriaren alde egiten du, bai esaldi nagusian: *Es eusen echi gure* (18-89), *es eusen serbidu gueiyes egottea* (7-47), *es eguisu deseadu iñoc alabadu saguisela* (43-33)... baita gaur egun ordena zaharra mantendu dezaketen testuinguruetan ere, mendeko perpausetan alegia: *bildurre estabenac iños consideretan* (4-55), *Selan eingo dau negar pecatuegaitic estabenac pisetuiten consideraciñoegas* (4-54), *baye estauden legues consideretan* (13-67)... Dena dela, azken aukera honetan badaude ordena zaharra mantentzen duten adibideak: *Ceruco galardoea peleetan estabenac legitimamente* (13-30), *Adaneganic descenditan estaudenac generaciñoes* (14-36)...

Aurrekoekin egin bezala, hemen ere ordena honen eragina neurtu dugu lehengo lagin bera erabiliz, eta zenbakiak aipagarriak dira oso: ezezko 42 adibideetan guztietan hitz ordena berria dugu, bai perpaus nagusietan: *Job es eben ofendidu es bere miñegas, alango bildurre beuquen eta yquera begoan* (45-100); *esteuso echico erroboteari eta agarreteari* (25-106)... eta baita mendeko perpausetan ere: *seinec gusic gaitic murmuretan dosune, echasune escapetan seure mireanic es escondue es doncella* (45-104); *es egoan bere lecuin, estabelaco merecitan lapurrec euquitea lecuric onen eta honrraduen artean* (25-74)... Ezezko ordena zaharra mantentzen duten esaldiek, bere aldetik, han-hemenka aurki daitezte sermoitegian, baina zoriak eragin du gure laginean halakorik ez egotea.

4.2.4.5. Linschmann-Aresti legea

Linschmann-Aresti legearen arabera, “Lehen eta bigarren pertsonetako posesiboek bi era dituzte, *lehen era* (*ene...*) [= posesibo arrunta: *nire, ene, zure...*] eta *bigarren era* (*neure...*) [= posesibo indartuak: *neure, zeure...*] deituko ditugunak. Sintagmaren batean posesibo bat gertatzen bada, delako posesibo hori lehen eran agertuko da baldin gertatzen den sintagmari dagokion aditz[e]an pertsona eta numero bereko formanterean bat, NOR, NORK nahiz NORI motakoa, agertzen ez bada. Bestela posesiboak bigarren era hartuko du” (Sarasola 1980: 433). Denborarekin oposaketa hau galdu egin da emaitza ezberdinekin: mendebaldeak forma indartuaren alde egin du, gainontzeko hizkeretan forma arruntak nagusitu diren bitartean. Galeraren kronologiarako, zehazki mendebaldeko testuak dira Sarasolari arazorik gehien sortzen dizkietenak, eta behin-behineko ondorio batzuk baino ez ditu ateratzen (Sarasola 1980:

439-440): Kapanaga eta Betolazaren dotrinetan aski ondo mantendu da oposaketa, legea bi aldeetatik hautsi arren. Gure testuaren garaikide den Olaetxearen arabera, ordea, esan beharko genuke garai hartan bata zein bestea erabil zitezkeela, baina polikiago aztertu beharreko gaia da hau.

Gure testuko egoeraz jabetzeko zenbakietara joko dugu: taula honetan jarri ditugu posesibo arruntek eta indartuek ehuneko zenbatetan betetzen duten legea eta zenbatetan hausten, parentesi artean agerpen kopurua zehazturik:

	Legea bete	Legea hautsi
Nire	% 100 (42)	% 0 (0) ²²³
Neure	% 29,89 (26)	% 70,11 (61)
Zure	% 100 (28)	% 0 (0)
Zeure	% 70,87 (112)	% 29,13 (46)
Gure	% 100 (26)	% 0 (0)
Geure	% 42,24 (49)	% 57,76 (67)
Suen	% 100 (29)	% 0 (0)
Seur(o)en	% 80,77 (21)	% 19,23 (5)

Beraz, gure testuak mendebaldeko joerarekin bat egiten du: oposaketa galdu-gordean da, eta indartuak hasi dira arrunten lekua hartzen; honela, forma indartuok non-nahi ager baitaitezke, arruntak ez bezala:

- (a) *Credoan dagos gueure fede santeen misteriyo principelac* (1-2)
- (b) *...sein sarean neure visisea eta neure arimeen ondasune* (6-155)
- (c) *Erdue neure Aiteen bendituic* (7-103; 7-108)
- (d) *Noc bigunduco dau nire gogortasune espada seure odol preciosoac* (33-143)

²²³ Legeak bi murriztapen ditu, Sarasolaren arabera: (1) aditzak laugarren osagai bat izan dezake, *etikoa* deritzana, eta honek ez du eraginik posesiboaren forman: adib., *Emazte, handi dun hire fedea* (Leizarraga; ap. Sarasola 1980: 434) eta (2) berdin gertatzen da bokatibo eta interjekzioetan ere: adibidez, *Ene Iainkoa, Ene Iainkoa, zeren abandonatu nauk?* (*ibid.* 435). Gure sermoitegian ez dago hikako formarik; baina bigarren murriztapenak azalduko lituzke legea ustez hausten duten *nire* eta *zure* guztiak: *ai nire tristeak, erratu nenduin!* (11-107); *ai, ai, ai nire desdichedea* (19-101), *ai nire tristea* (38-71), *ai sure tristea, cositan basatus...* (11-117); adibide hauetan, noski, legea beteko zen eta horrela islatu dugu taulan.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Are interjekzio eta bokatioetan ere: *Neure Jesuchristo Jaune* (7-175; 15-155; 33-146), *O neure lagun ona* (15-111), *gueure Jesus dibinue* (5-55), etab.

4.2.4.6 Ahaleraz: *ezin* eta *ahal* partikulak

Ahalera adierazteko antzinatik zetozen [trinkoa + *-te/-ke*] eta [aditzoina/partizipioa + **edin/*ezan/egin/*iro* (+ *-te, -ke*)] perifrasiari *ahal* eta *ezin* partikulez lagundutako indikatibozko perifrasiak²²⁴ gehitu zitzaizkien, apurka-apurka lehenengoak ordezkatzuz joan zirenak (Mounole 2011: 324). *Ahal* eta *ezin* XVI. mendean bertan jadanik aurkitzen dira: *ahal* oro har aukerakoa da, *ezin* beharrezko den bitartean egile gehienetan (ekialdekoenetan salbu), eta hauekin batera [*ahal/ezin* + indikatiboa] perifrasiak ere dagoeneko badira (*ibid.* 123). XVIII. mendean, XVI.eko egoeraren antzean zirauten aditz trinkoek eta [aditzoina/partizipioa + **edin/*ezan/egin/*iro* + *-te, -ke*] perifrasiak, baina [*ahal/ezin* + indikatiboa] perifrasiak ugalduz joan ziren. Guk bi ikuspegitatik begiratu diegu partikula hauei: batetik, zein aditz modurekin agertzen diren eta, bestetik, zein den euren kokapena perifrasiari.

Aditz moduari erreparaturik, sermoitegian oro har ahalaria zaharra adierazten zuen [partizipioa + **edin/egin* (+ *-te/ke*)] egituretan erabiltzen da *al* partikula, indargarriztat edo: *baye noc esan al leique euquico dauden diferenciye* (15-129), *comparaciñoe bagaric suc veragaitic sufridu al siñeyen beño* (23-95). *Ezin*-ek ere [partizipioa + **edin/egin* (+ *-te/ke*)] perifrasiak laguntzen du: *esin emon leyyoe* (2-47), *esin il leitequeana* (15-29)..., bai eta *-te/ke* atzizkiaz lagundutako trinkoak ere: *esin leoques arcaletaric apartauric* (1-51), *esin leique* (18-32). Gutxi batzuetan, ordea, testuan bada *ezin* indikatiboarekin ere: *esin sufridu badosu* (16-129), *esin eguin deudela* (45-133)... Haueaz gain, *ezin -te/ke* gabeko **edun*-en trinkoekin ere ager daiteke (*esin dot, esin debela orain*). *OEH*-ren arabera (s.v. 1 *ezin*), XIX. mendera arte indikatibozko aditz formekin gutxi erabiltzen da (Lazarragak, Kapanagak eta *RS*-ek honen adibiderik badakarten arren), eta gure testuak ordukoekin bat egiten du puntu honetan [*ezin* + indikatiboa] perifrasi gutxi izanik: Añibarrok eta Zabalak, adibidez, perifrasi honen hiruna adibide dauzkate *EKC*-ren arabera (s.vv. *ezin* [.] *dau*).

²²⁴ [partizipioa + *izan/*edun*], [aditz-izena + *-n* + *izan/*edun*] eta [partizipioa + *-ko/- (r)en* + *izan/*edun*] perifrasiak alegia.

Mounolen arabera (2011: 252), bestalde, XVI. mendean sortzen hasi zen [ezin/ahal + indikatibozko geroaldiko perifrasi] egitura. Partikulak gramatikalduz joan zirelarik, badirudi *ezin* eta *ahal*-ek hartu bide zutela geroaldiko marka. Mounolek aztertzen duen kronologiatik kanpo dago (hala ere, cf. Mounole 2011: 328, 399. oh.), baina *OEH*-ren arabera, *ezingo* eta *ahalko* XIX. mendetik aurrera baino ez dira lekukotzen mendebaldean (s.vv. 1 *ezin* eta *ahal*). Gure testuan behin baino ez dugu geroaldiko ahalera islatua, eta *esingo dosuela* (15-54) formapean, **edun*-en trinkoarekin. Antzerako zenbakiak ditugu garaiko beste idazleetan ere: *EKC*-k (s.v. *ezingo*) Zabalaren hamar eta Añibarroren hiru adibide dakartza, Astarloa eta Mogeldarren (J.A., J. J., B.) adibideekin batera; *ahal*-en kasuan, Añibarroren *alko* eta *algo* bana kendurik, XIX. mendeko bigarren erdira arte ez dugu lekukotzen.

Kokapenaren aldetik, garai historikoan *ahal* beti aditz jokatuaren aurretik jartzen da ([*ahal* + ad. trinkoa] edo [ad. nag. + *ahal* + ad. lag.]), baina *ezin*-en kokapena aldatuz joan da historian zehar, haren gramatikalizazioarekin bat: lehenengo garai batean perifrasi osoaren aurretik kokatu bide zen [*ezin* + ad. nag. + ad. lag.] eta ondoren aditz nagusi eta laguntzailearen artean kokatzen hasi zen [ad. nag. + *ezin* + ad. lag.], eta geroago [*ezin* + ad. lag. + ad. nag.] hurrenkeran. Badirudi honetan ez ukapenarekiko analogiak bere parte izan zuela, azken aldaketa ukapenaren ordenaren aldaketaren bide beretik baitoa. *OEH*-k ere badiosku [ad. nag. + *ezin* + ad. lag.] egitura gutxitan ageri dela lehenengo mendeetan, erabiliena [*ezin* + ad. nag. + ad. lag.] izanik (*OEH*, s.v. 1 *ezin*). Literatur hizkuntzan, Larramendik *ezin eman det* ordena emango du aukera bakartzat gramatikan (1729: 199-201), eta literatur bizkaieran bietara dugu: Añibarrok *EL*¹-n bietara egiten du, *ekarri ezin dut* eta *ezin ekarri dut*, eta *EL*²-n bigarrena hobesten; frai Bartolomek *konpesau ezin bada* ordena nahiago du, baina tarteka *ezin ukatu ginai* erakoa ere badarabil (Urgell 2012: § 4.4).

Sermoitegian egitura zaharrena da erabiliena: *esin erratu leiyela fedeco gausetan* (12-24); *esin emon euquen munduco erremedyoac gustie* (2-29)... Gainera, bestelako osagaiak tarteka daitezke haren eta perifrasiaren artean: *esin aldean eroan leisenac bere errire* (1-70); *esin gueiyego eguin euquean* (3-65); *eta esin guisonen entendimintuc alcanzau lei ango gloriye* (16-9)... Beraz, ematen du *ezin* oraindik perifrasiaren guztiz integraturik ez dela. Dena den, *detenidu esin eben* (20-122) adibidea dugu, bai eta *numerau esin leiyen coaine* tankerako [ad. nag. + *ezin* + ad. lag.] ordenako zortzi esaldi (*coaine* partikulaz, ik. § 4.2.5).

4.2.4.7. Desira perpausak: *oxala*

Desira perpausak markatzeko *ai(t)*- formaz aparte, Mounolek XVIII. mendean *oxala* interjekzioa aurkitu du, adizki subjuntiboz lagunduta, optatiboa markatzeko (cf. *Ojala estaiela arla izan* Mounole 2011: 218). Gure testuan bada adibide bat: *ojala balis alan* (29-50), alabaina, suposatzen dugu gaztelaniazko mailegu berri bat dela hau, testuko beste batzuk (*lo mismo, ya se ve, si acaso...*) bezala. Hau frogatzeko, batetik, gogoan har bedi subjuntiboaren ordeztu gure adibidean baldintza hipotetikoaren protasia laguntzen duela, hots, berez desira adierazten duen perifrasi batez agertzen dela (cf. *Ô seculè espasendudes esautu!* 15-97). Bestetik, [x] ahoskerak ere maileguaren berritasunaz hitz egiten du, nolabaiteko zahartasuna balu [j] ahoskera (eta ondorioztatu <osala> grafia) esperoko baikenuke (cf. § 4.2.1.4).

4.2.4.8. *-ten* vs. *-tera* mugimenduzko aditzetan

Bizkaieraren ezaugarriak biltzen dituen edozein lanetan aipatzen da mugimenduzko aditzetan aditz-izena inesiboan (*-ten*) agertu ohi dela, gainerako euskalkietako adlatiboaren ordeztu (*-tera*).

Gure testua, oro har, mendebaleko ohiturari atxikitzen zaio: *etorri sen bada Espiritu Santue comuniquezan, mesa ensuten doasanen, movidu eben arsaiten visise espirituela, erdue gozetan...* Hala ere, gutxi batzuetan adlatiboa ere agertzen da: *goasan acabetara doctrinau* (28-78), *elduiten direanean andrac arcaleri ulletaric agarretara* (45-30); are maiz inesibodunaren ondoan: *soase erretara eta padecitan* (7-145); *movitan daben canta profanuic cantetan [...] danza da saltu eitera* (46-15).

Ez dakigu mendebaldeko hizkeretan inesiboaren erabilera berrikuntza den ala arkaismoa; baina jakintzat eman dezakegu gertakari zaharra dela, Betolazarenean dagoeneko inesibodun adibideak direlako (Zuazo 1998a: 151); alabaina, gure eremuko (§§ 3.1.1 eta 3.4) beste lekukotasun batzuetan ere adlatiboa gutxienez aukeran egonik, ez dirudi gure sermoitegiko idazleak ekialderagoko hizkera baten interferentziarik duenik ezaugarri honetan: Nerbioi arroko iparraldeko XVIII.-XIX. mende tarteko testuek joera adlatiboaren alde zela erakusten digute (Zuloaga 2011a: 266) eta

Añibarroren *Eskuliburuan* ere bietako adibideak aurkitzen dira lehenengo argitalpenean (Urgell 1985: 107).

4.2.4.9 Perpaus osagarrietako lotura atzizkia: *-la* vs. *-na*

Bizkai partean perpaus osagarrietan *-la* lotura atzizki orokorra erabili beharrean *-na* erabili ohi da osagarria gauza jakina edo ziurra denean hiztunarentzat (Zuazo 2008: 80). Gure testuan, burua *jakin* duten testuko esaldi bakar batean ere ez dago *-na* atzizkia behin ere: *yaquin bear dogu [...] estabela igoitzen Christogas soberviyec* (6-102); *yaquinic ciertu publiqueduco dala* (7-69); *yaquine da usoa dala baquesalea* (10-105); *yaquin eben eguin ebesala pecatu andic* (16-134); *Yaquin eguisu, se dagosala asco ynfernuen abrasetan* (24-156); *yaquinic euren guresoai ostu eusela* (25-43)... Hala ere, behin bederen badago ziurtasuna adierazten duen *-na* lotura atzizkia: *Gause clarue estabena euquico mereciminturic arean bere* (13-28).

Testu zaharren azterketa egin gabe gaitz da honen kronologiaz eta hedaduraz ezer esatea, baina lehen hurbilpen gisa, gaur egungo datuek erakusten digute “Hego-Uribeke herri gehienetan ez d[el]a agertzen [egitura hau]: Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Buja, Etxebarri, Orozko, Ugao, Zaratamo eta Zollo” (Gaminde 2007: 192). Inguru berekoak diren eta egoki aztertu diren testu zahar bakarrak ditugu Etxebarriko Bizente Sarriaren eta Basauriko Astigarragaren sermoiak eta hauetan badira *-na* loturadun esaldiak, oso adibide urriak izanik ere (Zuloaga 2010: 427 eta 2011a: 268).

4.2.4.10 *eze* ezezko adizlaguna

Testuko berezitasunen artean ezezko partikula leku pribilegiatu batean legoke, *ez* orokorrekarekin batera *eze* ere bai baitu, halabeharrez *ez* orokorretik eta mendebaldeko testu zaharretan indikatiboz kanpoko adizkietan erabiltzen den *ze* formatik abiatuta Mitxelenak berreraikitako **eze* formarekin bat (*FHV* § 21.11).

Gure testuan *eze* <ese> 36 adibidetan dago, *ez* orokorrak lauhun adibidetik gora dituen bitartean. Alabaina, haren agerpen gehienak koherenteak dira, aginteran (*ese begui cosidu, ese saite isen, ese bidi galdu, ese sates, ese bequit etorri...*) eta subjuntiboan (*ese gateala contentadu, ese dinsat geratu, ese ledile...*) biltzen baitira.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Aginteran *ez* ere badago: *es eguisu euqui, es eguisu adulterioric...* guztiak *e-* hasieradun adizkietan; beraz, baliteke azpian **eze egizu* izanda, idazleak *ez egizu* gisa berranalizatu izana. Alderantziz, indikatiboarekin erabilitako *eze* bakar bat ere badago, *ese eudesan echi*, eta honetan ere *e-* hasieradun adizkia izanik, aurreko adibidearen kontrakoa gertatu dela suposa dezakegu, i.e., **ez eudezan > ezeudesan > eze eudezan*.

Gure testuan den ugaritasunaz gainera, formaren egiazkotasuna bermatzen du F. Iturriaga Ugaoko abadeak egindako itzulpenak (cf. § 3.4.2), honetan ere *esebegui permitidu* aurkitu baitugu. Forma honek azalbide bi lituzke, gure ustez: edo Mitxelenak berreraikitako **eze*-ren mantentzea izatea, edo berrikuntza, zehazki *ze*-ren indartzea. Lehen aukeraren alde letozke testuan aurkitu ditugun beste arkaismo handi xamarrak, baina egiatan handia litzateke **eze*-ren arrastorik ere ez izatea inolako testutan, eta XVIII. mende bukaeran hizkera batean gordea izatea. Honegatik, egiantzegoagoa deritzagu bigarren aukerari: ordurako *ez/ze* oposaketa ulertu ez, eta *ze* zaharra *ez* orokorrarekin birmarkatu behar izan zuketan (i.e., **ez + ze*), forma pleonastiko bat sorturik. *Ze* forma mendebaldeko ipar-sartaldean gaur egunera arte heldu da subjuntiboan: Azkuek (1923-25: § 690) esaten digu bere garaian “se oye en varias comarcas del mismo dialecto [=bizkaiera]”, Mundakako adibide bat aipaturik, eta Gamindek (1995: 550 eta 2007: 191) Plentzia aldeko gaurko euskaran subjuntiboarekin erabiltzen delako adibideak eskaintzen ditu. Hego-sartaldean ere gorde bide zen, P. Agirregoikoa zeanuriztarraren 1774ko sermoietako *ze daigun* adibideak erakusten duenez (cf. Etxebarria 2005: 116); XIX. mende hasieran Basauriko Astigarragaren lanetan aleren bat aurkitzen da (Zuloaga 2011a: 255-6). Oraindik gaur egun *ze* horren aztarnak auki ditzakegu *zein* partikulan (cf. hurrengo atala).

4.2.4.11 *Zein* partikula

Sartaldeko bizkaieran gorde den *zein* ezezko partikularen berri demaigu Gamindek (2007: 126 eta 191): ikertzaile honen arabera partizipio hutsaz erabiltzen da, Orozkoko *itxi dot atea zein hotzitu* edo Zolloko *hori bildur da zein jausi* esaldietan legez (*ibid.* 126), edo bestela subjuntiboaz, Orozkoko *koiu hori umeori zein jausi daiten* adibidean bezala. Lehenago ere lekukotua zuen bietara Bilboko Buxa auzoan (Gaminde 1990a: 94), eta Zeberion ere erabiltzen da partizipioaz bederen (ik. J. M. Etxebarria 1991: 244).

Gutxitan aipatu den ezaugarri honek sermoitegian ziren zenbait esaldi argitzeko modua eman digu. Izan ere, *alan yoan bear dogu tientu andigas bide onetati, sein yausi gatean infernuco ondarrera* (1-118) edo *irecasiteco oficiyo honestuic sein emon daguiyen arpelerira* (21-12) esaldiak ezinbestean ezezkoak izan behar zirelakoan geunden, eta balizko iturriek (cf. § 4.3.1.1) uste horretan berresten gintuzten: ‘para no caer en el profundo del infierno’ (Marsal 1727: 26) eta ‘...para que eviten los riesgos de la ociosidad’ (Barcia 1693: 206), hurrenez hurren. Behin egitura hau ezagututa, beste adibiderik bazen begiratzeari ekin genion, eta baita aurkitu ere zerrenda honetan bildu ditugunak:

sein condena gaitean (4-124), *sein guero negar eguin deguisun* (11-106), *sein galdu deguin* (17-64), *sein vencidu gaguiyesan* (17-102), *sein desbocadu din* (26-78), *sein castiguetu deguisen* (33-78), *sein isen din visiooa* (46-37)

Ikusten denez, betiere subjuntiboaz lagundurik agertzen zaigu.²²⁵ Gure ustez egituraren jatorrian **ze* + *din* (< *didin*) legoke;²²⁶ hau da, indikatibotik kanpoko *ze* partikularekin batera gramatikaldutako **edin*-en adizkia. Izan ere, *ze* ipar-sartaldeko bizkaieran gaur egunera arte heldu da (cf. Gaminde 1995: 550 eta 2007: 191) eta hego-sartaldean ere XIX. mendera arte lekukotzen da testuetan barrena (ik. § 4.2.4.10). Testu zaharretara joaz, *zein* honen erabilera aurkitu dugu Ugaoko XIX. mendeko lekukotasunean eta Astigarraga basauriarraren sermoietan ere bada: bai editoreek bai hizkeraren aztertzaileak helburuzko perpausen (subjuntiboaren) markatzat jotzen dute *zein/zeñ*, inolako azalpenik gabe, baina ezezko esanahia ematen dio esaldiari, adibide hauek erakusten dutenez: *maldezinoiau zuben ganera jausi zeñ daidin* ‘jausi ez dadin’ (Etxebarria & Apraiz 2007: 43); *galduac isen sein gaitesan* ‘galduak izan ez gaitezen’ (Zuloaga 2011a: 269).

²²⁵ Alde batera uzten dugu *Noc esan al leique; aun Jesuchristoen eriosan esta descubritan sein isen malhechore entregadu ebena ministru crucifiquedu eudenai* (26-106) esaldia; honetan badirudi *zein* partizipio hutsez erabiltzen duela (cf. Gaminde 2007: 126) eta ‘ez izateko gurutziltzatu zuten ministruei entregatu zuen gaizkilea’ ulertu behar dugula; alabaina, partizipioaz lagunduriko adibide bakarra litzateke, eta ezezkoa izateko arazoak dakartza semantikoki. Hala bada, kasu honetan kopia akatsa dela pentsatzea hobesten dugu: dela haplografia eta oinarrian ***isen san malhechore* legez ulertu, dela *isen* hori trintozat hartu eta [*e*] *sen* ‘omen zen’ proposatu.

²²⁶ Cf. *VJ*-ko esaldiok: *ce didile falso testimoninoeric ereigui inori eta ce didile guzurric essan; Bederacigarrenac, ce didile inoen emasteric nai senarric deseadu; Amargarrenac, ce didile inoen hondasunic deseadu edo imbidiedu* (Ulibarri 2010a: 98).

4.2.5. Aldaera lexikoak

Atal honetan sermoitegia irakurtzean deigarri suertatu zaizkigun hitz eta egitura bereziak aipatu nahi ditugu. Badakigu euskal lexikoa eta haren interpretazio geografiko eta historikoa ez daudela behar bezala aztertuta, eta oro har bere historiaren alderdi gehienak aztertzeke ditugula oraindik. Ezaguna da lexikoa dela hizkuntzaren atalik aldakorrena; honezaz gainera, dokumentazio arazo handiak ditu azterketa geografikoari ekiteko orduan, oso zaila baita hitz baten banaketa zaharra ezagutzeko beharko genituzkeen lekukotasunak nahiko izatea, Menéndez Pidak gaztigatu bezala (ap. Lakarra 1986c: 644); eta Pidak dokumentazioa ugari duen hizkuntza batez diharduelarik, nola ez ditugu arazoak izango gurea bezalako tradizio idatzi berankor eta urrian? Gaitzerdi, *Orotariko Euskal Hiztegiari* esker gaur egun dokumentatutako hitz gehienen historiaren ikuspegi on xamar bat, batzuetan bikaina, eskura dugu.

Atal hau hitz eta aldaeren metaketa izan ez dadin, taldetan banatuko ditugu hizpide ditugun hitzak. Lehenengo eta behin, hitzen aldaera arkaikoei ekingo diegu; bigarrenik, hizkera kokatzeko baliagarri izan daitezkeen aldaerei, eremu hartan espero ez dugun hitzen bat ere gehituta; hirugarrenik, gutxi dokumentaturiko hitz eta aldaerak bilduko ditugu, eta amaitzeko hapax edo erdihapaxtzat jo ditugunak.

Arkaismoetan, *hemen* hitzaren *eben* (6-34) aldaera zaharra lekukotzen dugu (hala ere, behin baino ez, *emen* 31 aldiz ageri den bitartean). Forma hau, Iparraldean ez ezik, Lazarraga, Garibai, Ibarguen-Cachopinen kronikan eta Landucci-ren hiztegian lekukotzen da (*OEH*, s.v. *hemen*) XVI. mendean. Era berean *erloju* (16-139, 38-94) erabiltzen du ‘ordua’ adieran, garaiko beste testuetan ere aurki dezakeguna: De la Quadrak (1784) erabiltzen du (Lakarra 1983a: 64), eta *OEH*-k Oñatiko eskuizkribuetako eta Añibarroren adibideak bildu ditu (*OEH*, s.v. *erloju*).

Bizkaieran lekukotzen ez bide den *aditz-izena* + *artio* egitura (cf. *OEH*, s.v. *artio*), sermoitegian adibide bi hauetan badugu: *ydiguitartiyo* (5-26) eta *ileitartiyo* (7-7), eta *EKC*-k Zabalen adibide isolatu bat (*pekatuaren bide eta pelleburuak itxi artio*) gehitzen dio gure lekukotasunei (*EKC*, s.v. *artio*). *OEH*-ren arabera, Hegoaldean *artio*-ren adibideak Nafarroan bakarrik aurkitzen dira (*OEH*, s.v. *artio*), baina gure sermoiak erakusten du mendebaldean ere ezaguna zela noizbait.

Nahi izan aditzaren adibide bat ere badugu: *Eta nai badosu yaquin segaitic dan eriosea beño deungago murmuredoren miñe esango deusut* (26-95), mendebaldeko

testu zaharrekin bat: *RS* edo Lazarraga bezalako testu arkaikoetan lekukoturik dago, eta literatur bizkaieran ere f. Bartolomeren edo Astarloarenetan lekukotzen da (*OEH*, s.v. *nahi izan*). *Bedaratz*i (eta *bedaratzigarren*) aldaera, Iparraldeko hiztegietan bakarrik aurkitu du *OEH*-k (s.v. *bederatz*i), baina badirudi Bizkaian Azkuek lekukotu zituen *bedatz*i (V-ple) eta *bedratz*i (V-arr-arrig-ger-oro-z-gip) formen oinarrian dela.

Irepazi ere Bizkaiko sartaldeko hizkeretan dugu dokumentatua dagoeneko *RS*-en (zehazki, *RUI* erregularik gabeko *irapazi*), eta baita testu modernoagoetan ere (Mic, J. P. Ulibarri, *CatArrig, Zav...*; *OEH*, s.v. *irabazi*). *Burdina* hitzak dituen aldaera ugariatatik (*OEH*, s.v. *burdina*), gure testuan *burriñe* formapean aurkitzen dugu eta honen eremua sartaldeko bizkaiera (ple-arrig-oro-z-arr-ger) litzateke.

Gutxi dokumentaturiko hitz eta aldaeretan aipatzekoa da *ireto* (< *irato*) ito aditzaren kausatiboa. Orozkon aurkitu zuen Azkuek, eta agerpenik zaharrena *RS*-en dugu (*OEH*, s.v. *irato*). *Aite pillecoen* (6-83) Landucci-ren C eskuak “comadre” sarrerari emandako *pilaco ama* ordainaren kide genuke (A eskuak “compadre” *aitaponteco* itzuli zuen; *OEH*, s.v. *2 pila*). *Ahaztu* hitzak hainbat aldaera ditu gure sermoitegian: batetik, *aistu* zazpi adibidetan eta lautuan *astu* (hauetako hiru *astueragin* egituran eta laugarrena *astuco* forman); *OEH*-k forma biak ematen ditu bizkaierazkotzat, eta erakusten digu *aiztu* maiztasun gutxiagoz lekukotzen dela XIX. mende erdialdetik aurrera (horren aurretik Laudioko dotrinan baino ez da aurkitu; *OEH*, s.v. *ahaztu*). Hauekin batera, baina, bost aldiz *ainstu* aldaera lekukotu gabea (cf. *OEH*, *ibid.*) ere badakar: *anztu* eta *aiztu* aldaerak konparatuz, jatorrian diptongo sudurkaria izan zuela suposa genezake, eta sudurkaria berrezarri dela diptongoaren ostean: **anaztu* > *āhāztu* > *āāztu* > *āīztu* > *ainztu*.²²⁷

Gutxi dokumentaturikoa da, halaber, *arean* ergatiboan: *Viciuc areanec bere estau ygoiten Cerure Christogas* ‘Ningún otro vicio tampoco’ (6-103); *berac diño maiñean egoan areanec bere-es es ebela yaquin* (26-135)... Añibarrok dakar hiztegian (*areanec bere* “ninguna cosa, con la negación”), baina horrezaz beste adibiderik ez omen dago (ik. *OEH*, s.v. *arean* eta *EKC*, s.v. *areanec*). Beste horrenbeste dateke *berberau* ‘berau’ izenordaina, adibide moderno bat alde batera utzita Añibarroren hiztegian baino ez baita lekukotzen ‘hau berau’ (“este mismo”) esanahiarekin (cf. *OEH*, s.v. *berberau*). *Il aguinean* ‘hiltzeko unean’ (6-143) esapidetako *aginean*, Orozkon eta Arratian lekukotzen dute Azkueren datuek; testu zaharretan, baina, oso hedatua bide

²²⁷ Honen pareko litzateke Mendietaren obran (cf. Ulibarri 2013b: 182, 9. oh.) aurkitu genuen *ainsta* ‘ahizpa’ aldaera.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

dago: *OEH*-k (s.v. *agin*, *AGINEAN*), Añibarro (*yoan aginean*, *ondata aginian*), Astarloa (*jausi aginian*) edo Uriarteren (*ito aginean*) adibideak dakartza, eta *EKC*-k erakusten digu Zabalak ere badituela adibideak (*galdu aginean*, *orditu aginean*... *EKC*, s.v. *aginean*), bai eta modernoagoak diren Arrese Beitiak eta Orixek ere (azken honek *il aginean* esapidea baino ez luke). Gure sermoilariak darabilen *adinebeste* ‘adina beste’ egitura pleonastikoa, *OEH*-k Añibarroren adibide bakarrarekin lekukotzen du (s.v. *adina*), bestelako azalpenik eman gabe, eta *EKC*-k ere (s.vv. *adinabeste*, *adina beste*) Mendibururen *adiña beste* bakar bat dakar. *Gaberortegi* (27-127) hapax dugu forma honetan, baina *OEH*-k dakarren *gau-erorte*, *gaberote* ‘atardecer’ hitzarekin (s.v. *gau*) erlazionatu beharra da: *gau-erorta* Mikoletagandik lekukotzen da (cf. Zelaieta 1988: 178) eta *gaberorte* Añibarrok du; *-tegi* osagaiak *arrastegi* dakar gogora, sartaldeko bizkaieran lekukotua (zehazki Orozkon, baina literatur bizkaierako idazle gehienetan ere; *OEH*, s.v. *arrastegui*).

-tzagarik atzizkia (< **-tza* + *bagarik*), orain arte Añibarroren *Eskuliburua*-n bakarrik aurkitu duguna,²²⁸ hemen ere lekukotzen dugu: *sentisegaric* (23-33; 23-41; 23-43); *confesasagaric* (33-51; 33-101) eta *entendisagaric* (26-168). Atzizki honekin batera, hapaxtzat har daiteke *-tzako* (**-tza* + *bako*) bere kidea: *obrasco acabasacoac*, eta *beste basuc obrasco acabaduic*. *Obrasco acabasacoac dire mosuque* (24-18), ezta Añibarroren obretan ere ez dagoena.²²⁹ Añibarroren *Eskuliburuko* bigarren edizioan ageri den *galtzaieak* hitzarekin bat datorke sermoigileak darabilen *galsaiyea* ‘galera, galtzaiera’ (5-81; 18-73; 23-103) (behin *gals[a]iyeraco* ‘galerarako, galtzaierarako’; 26-66): *r* erori dela pentsatzen ez badugu (eta **galtziera* orokorrarekin zuzendu), mugagabea *galtzaie* edo *galtzaia* genituzke hemen. *OEH*-k *galtzai* lekukotzen du bizkaieraz (s.v. *galtze*), baina adibideon bukaerak erakusten dute *-e/a* berezkoa dela, bestela ***galsaiye* eta ***galsairaco* beharko genituzke eta.

Hapaxen taldean sartzekoa da, halaber, *coaine* (eta *quaine*) forma, sermoitegian zehar hainbat aldiz ageri dena, beti *numero/numerau* ... *-n coaine* testuinguruan: adibidez, *padecidu numeruric estauquen coaine tormentu* ‘padecer un sinnúmero de tormentos’ (4-20, cf. 11-33, 12-42, 13-95, 16-23, 19-22, 20-24, 23-128, 25-58, 32-34, 33-53, 33-54 eta 45-110). Ematen du bigarren osagarria *a(d)ina* (cf. *OEH*, s.v. *adina*)

²²⁸ Klasikoan gordailuan: klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnibarroEskuliburua009.htm

²²⁹ Bere hiztegian *dudatzaca* aurkitu dugu (s.v. *sin duda*; cf. Villasante 1963: 155), eta Villasanteren kopiazte akatsa edo inprentaren akatsa proposa dezakegu, eskuizkribuan *dudatzaco* idatzita egon daitekeela pentsatzeko.

dela, eta lehen osagaia agian berrinterpretazio baten ondorio izan baitaiteke, *hori egiteko adina indar bezalako egitura batetik*.

Lekukotu gabekoak dira *bati bere* ‘baita ere’ (2-46; 46-50) (*baite bere*-rekin batera erabilia) eta *bixen* ‘baizen’ (10-115; 14-53; 16-76; 27-94...) aldaerak ere: *OEH*-k (s.v. *baita*) *baita*, *bai eta* edo *ba eta* baino ez ditu lekukotu, eta *baize*, *baxen*, *baxin* eta *baizin* (*OEH*, s.v. *baizen*). *Bixen*-en 15 adibideen parean beste aldaera bat dugu, *besen* (hots, *bexen* gaurko grafian), sei aldiz erabilia; hauetatik lau *leen besen leen* (13-124; 40-167 —birritan—, 46-55) esapidetan izanik, proposa daiteke fosilduriko aldaera zaharra dela, eta konparazioko hitz gisa erabiltzen zenean *bexen* > *bixen* bilakabidea gertatu zela, agian bokal disimilazioaren²³⁰ edo txistukari sabaikariaren eraginez, ezaguna baita honek *e* > *i* itxidura eragin dezakeela: *itxura* (< gazt. *hechura*), *itxi* < *etxi*... (ik. *FHV* § 2.7).

Hapax lexikoetan *tilinka* hitza dugu (4-27; 12-94; 16-70; 16-74; 37-11; 44-27...), ‘tanta’ edo esan nahi duena. *Betakari* ‘bekataria’ ez du *OEH*-k jaso, dagoeneko *Viva Jesús* dotrian lekukotzen den arren, akats legez interpretatu eta *bekatari* zuzenketa proposatu baitzuen lehen editoreak (Mixelena 1954a, *OC XI*: 372; cf. Ulibarri 2010a: 113). Gure testuan duen maiztasunak bermatzen du: izan ere, *bekatari* bakarraren aldean (7-96) hamar *betakari* ditugu (2-39; 4-38; 4-85; 11-93...). Ezezaguna da, berebat, *gorreto* ‘gorroto’ (4-114; 7-168; 22-12; 38-68...), [o] hotsen arteko disimilazioak sortua, nonbait. *Golotro* ‘jatun’ (46-17), ziurrenik erdarazko *glotón*-ekin lotua edo bertatik sortua litzateke: ezaguna da *muta cum liquida* taldea bokal anaptiktiko baten bidez hautsi zezaketela euskaldunek (*FHV* § 18.4) eta hori da hitzaren hasieran duguna; amaierako *-tro*, ordea, fonetikoki azalgaitza izanik ere ez da ezinezko, ezaguna baita behin halako taldeen “ezintasuna” gainditurik euskaldunek sortu zituztela (cf. Egurtzegi 2011: 26).²³¹ Gutxi dokumentaturiko aldaera da *txikir* ere, gure testuan *txiker* orokorrarekin batera dena (15 *txikir* vs. 5 *txiker*), eta interesgarria da Lazarraga eta Laudioko katexima direlako lekukotzen duten testu bakarrak (*OEH*, s.v. *txiker*). Hapax dira, halaber, *banada* ‘manada’ (26-80) eta *badariquetue* (31-53) aldaerak: lehenengoan

²³⁰ Sermoitegian zehar diren adibide solte hauek kontuan harturik: *bailerean* ‘bailirean’ (10-117), *letequean* ‘litekean’ (15-138); *aguire* ‘agiri, ageri’ (26-124), *bide* ‘bidi’ (1-147), eta agian *bate bere* (< *bati bere*) ‘baita ere’ (46-88), *nire* (33-4) edo *urregorre* (44-156); badirudi hizkera honetan *e* eta *i* artean asimilazioak eta disimilazioak izateko joera zela.

²³¹ Alabaina, Egurtzegiri jarraituz (2011: 27), ezagutzen diren TRV- talde sorreretan CV metatesi bat dugu; hau da, jatorrian *r* bada, silabaren kodan, eta herzkariaren aurrera mugitzen da; gure adibidean baina, *r* hori ezerezetik sortu da, agian fonosinbolismoarekin loturik egon daiteke, edo *muta cum liquida* segidak duen indar fonikoa mantendu nahi izan dela, eta horretarako errazago gertatzen zitzaizela onartzea *trV*- taldea, *muta* + *l* taldea baino.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

sudurkaritasunaren disimilazio batez ($m-n > b-n$) hitz egin daiteke (cf. *beaza < (a)menaza*, *bolu < *molinu*, *busti < musti...* FHV § 13.5); bigarrena, baina, hiperzuzenketaz baino ezin daiteke azaldu (cf. FHV § 13.5 e. hh.).

Amaitzeko, hapax da *gueiyegüe* (11-64; *gueiyegües* 11-63, 11-113), guk *geiegu* legez irakurri duguna. Ezaguna da *dei* orokorrak sartaldeko bizkaieran eta araberan bederen *gei* aldaera duela (cf. *OEH*, s.v. *dei*), baita gure testuan ere (*gueiyeguin* 1-144, *guei amorosoai* 11-105...). Antza denez, honen gainean eraturik dago *geiegu*. Testuinguruaren argitan argia da izena dela: *Ni nago gueiyegües arimen atetan, diño amore Dibinuic, nire gueiyegüe ensuten dabena eta entrada emaiten deustena regaladuco dot afari andi betegas...* (11-63) eta *Seinbet dempora da yagosule gueiyegües Jangoicoa seure bioseco atetan eta suc, desconocidue, esteusesu gure eransun?* (11-113). Lehenengo adibidea latin pasarte baten itzulpena da: *nire gueiyegüe* “*vocem meam*”; beraz, ‘deia’ edo ‘deiadarra’ esanahia duke, testuinguruak ere adierazi bezala, baina ez dugu asmatzerik izan gainerakoan nola dagoen eratuta.

4.3. Dotrinazko Sermoitegiko literatur eragina edo sermoigintzaren testuingurua

Atal honetan Dotrinazko Sermoitegia idatzi zen testuingurua miatuko dugu, besterik ezean testuak berak eskaintzen dizkigun datuen eta zantzuen argitara. Penintsulan sermoigintzak jasan zuen bilakabidea azaltzetik hasiko gara (§ 4.3.1), eta testuinguru hartan Sermoitegiak erabil zitzakeen iturriak bilatzeari ekingo diogu (§ 4.3.1.1). Hurrengo atalean euskal sermoigintzaren historiaren zertzelada batzuk emango ditugu (§ 4.3.2), honek literatur hizkuntzaren garapenean zer-nolako eragina izan zuen ulertu nahian. Honela, Dotrinazko Sermoitegia XVIII. mendeko gainerako testuen artean kokatuko dugu (§ 4.3.2.1), Larramendiren eraginez lantzen ari zen Hegoaldeko euskararen gramatizazioaren ezaugarrietan arreta berezia jarririk.

Amaieran, azterketaren emaitzak izango ditugu hizpide (§ 4.3.3): batetik, egilearen testuinguru sozio-kulturalari buruzko datuak bilduko ditugu, bai testutik kanpoko argudioak, bai hizkuntz argudioak erabiliz (§ 4.3.3.1); bestetik, literatur

hizkuntza erne berriaren hastapenak definitzeko lehenengo hurbilpen bat egingo dugu (§ 4.3.3.2).

4.3.1. XVIII. mendeko Hegoaldeko (euskal) sermoigintzaz

Sermoitegiak, ur-marken bidez XVIII. mendearen bigarren erdialdean kokatu badugu ere, oraindik ilunune asko dauzka, zuzenean konpontzen errazak ez bide direnak. Zeharbidez, bada, uste dugu garai hartako sermoigintzaren ikuspegi orokor batek lagunduko gaituela sermoiok zertarako egin ziren eta non ekoiztu zitezkeen argitzen eta, ondorioz, egilearen zertzelada batzuk lortzen. Hego Euskal Herriko testua izanik, sermoigintza hispanikoari buruzko lanak eta gogoetak izan ditugu gidari, euskal sermoigintzaz diren lan apurrak albo batera utzi gabe, noski.

Herrero Salgadok (*ap.* Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 35, 1. oh.) egindako orduko sermoien sailkapenaren arabera, gureak “misioi sermoien” barruan kokatzen dira. Misio sermoiek, oro har, XVIII. mendean izan zuten garairik oparoena, orduan konturatu omen baitziren elizgizonak sermoiak zirela herriak Elizaren doktrinarekin zuten loturarik garrantzitsuena (*ibid.* 39) eta dotrina kristauaren irakaspenetan sakontzeko modurik zuzenena. Hala ere, sermoitegien historia eta idazteko estiloa zentzu zabal batean aztertzeko, lehenagotik zetorren inertzian murgildu behar gara.

XVI. mendean iraultza ideologiko bat gertatu zen Europa osoan, eta iraultza horren eragina gizartearen bazter guztietara iritsi zen. Italian XV. mendean sortu zen Errenazimentua Europara zabaldu zen, eta mugimendu kultural honek iturrietara itzultzea aldarrikatu zuen (Villegas Paredes 2008: 8). Iturrietara itzultze honek zientzietan sorturiko ondorioen artean²³² garrantzitsuenetako bat izan zen *Egia* bilatzeko orduan ikertzaileek balio gehiago emango zirela argumentu eta frogei autoritateei baino; eta honek, noski, ordura arteko erlijio kristauaren pentsamendu tradizioa ere astindu zuen. Testuinguru honetan hala Erreforma protestanteak nola Kontraerreforma katolikoak predikazioan lortu zuten armarik boteretsuena, ez bakarrik nork bere doktrina defendatzeko, baita aurkariei erasotzeko ere (*ibid.* 10).

Predikazioak mundu katolikoan hartu zuen garrantzia nabarmena da Trentoko kontzilioak aldarrikatu zituen ohituretan; izan ere, igande eta festa egunetan

²³² Izan ere, guztiek ez zuten berdin interpretatu *iturrietara itzultze* hori: “*Volver a las fuentes* representa para los humanistas retornar a los clásicos latinos y griegos; para los filósofos a Aristóteles y Platón; para Erasmo, al Evangelio y a san Pablo; para los franciscanos, al espíritu de Poverello, a san Buenaventura y al agustinismo medieval; para los dominicos, a santo Tomás.” (Villegas Paredes 2008: 8).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

derrigorrezko predikazioa ezarri zuen, herria hezteko bide bakarra legez (Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 36). Honezaz gain, Errenazimentuak oratorian ere eragina izan zuen: predikariek Antzinateko testuen eta hauen erretorika moldeen bitartez Erdi Arotik landu eta erabiltzen ziren eskolastikaren erretorika eraberritu zuten. Honela bada, orduetik aurrera sermoigileak Antzinateko autore paganoen testuak eta hauen erretorika baliatzen hasi ziren (*ibid.* 36).

Espanian, predikazioa bi helburu nagusitarako lantzen hasi zen: batetik, ortodoxia katolikoa defendatzeko eta, bestetik, Mundu Berrian fede kristaua hedatzeko. Estilo erretorikoaren aldaketari Tomás de Villanueva eta Juan de Ávila bezalako sermoigileek eman zioten hasiera XVI. mendean, eta orduan agertu ziren frai Luis de Granada bezalako predikari entzutetsuak. Garai honetako sermoien ezaugarritzat jo ditzakegu idazle paganoen testuak erabiltzea, errealismoa, hizkuntza aberastasuna eta arimen salbazioa lortzeko zuten ardura. Hala ere, XVI. mende bukaeran eta XVII.aren hasieran, Barrokoaren agerpenarekin batera, korrante honen gainbehera etorri zen (Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 36).

Barrokoan sermoien (eta, oro har, hitzaldien) edukia ez da entzuleetara arrazoiaren bidez bakarrik heltzen: aitzitik, hizlariak entzuleen zentzumenak liluratuz haien gogo harritzea bilatzen du. Honetarako, hizkuntza erabiltzen da, tropo eta figura erretorikoen bidez: metafora ausartek zentzuak harritzen dituzte, deskribapenak eta eguneroko egoerekiko konparaketak ideal berriaren menpe jartzen dira. Hala ere, ikuspuntu estetiko eta literariotik, oro har, sermoien kalitatea eskasagoa da.²³³ gaiek sakontasuna galtzen dute eta hizlariak entzuleen goraipamena bilatzen dute (Villegas Paredes 2008: 34). Ondorioz, sermoiak zentzugabekeria erortzen dira, pulpituak “komikoen eszenatoki” bihurturik, garaikoen esanetan. Iturri eta estilo klasikoak baztertzen dira eta haien ordez mitologia erabiltzen da, ulergarritasuna zailtzen duena eta herria nahasten (Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 36).

XVIII. mende hasieran, Espainiako idazle zenbaitek (Feijoo, Macanaz edo Mayans) egoera gaitzetsi eta sermoiak egiteko modua berritzeko ahaleginak egin zituzten. Neoklasizismoaren garaian gaude, eta honek dakartzan argitasun eta soiltasun irizpideek duten ondorioetako bat izango da “la convicción de que para llegar a discurrir y escribir bien es necesario y suficiente practicar la frecuentación de buenos modelos”

²³³ Kontuak orokortzeak egoeraren sinpletze bat dakar beti, garaiak izan zituen ñabardurak ezkututzen dituen: orokorrean gainbehera doan garai honetan idazle finak ere badira, XVI. mendeko estiloa jarraitzen dutenak (*cf.* Herrero 1968).

(Cerdán 1985: 58). Sermoigintza berritzeko ahaleginean *eredu on* horiek, idazle klasikoez gainera (Ciceron, Quintiliano), batzuek XVI. mendeko Errenazimentuko sermoilariengan bilatuko dituzte, Frai Luis de Granada edo Santo Tomás de Villanueva bezalakoetan, eta beste batzuek XVIII. mendeko Europan (gehien bat Frantzian) sortu ziren molde berrietan (Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 39; Cerdán 1985: 58).

Joera berri honen ondorioz, sermoi asko idazteaz gainera, Erreinu osoan (hala Espainian bertan nola Ameriketean) sermoigile entzutetsuak agertu ziren, bai fraide ordenatan eta baita apaizen artean ere, eta haien idatziak sermoitegietan bilduak izan ziren, gainerako elizgizonen lagungarri izan zitezten. Inprentak honelako liburuen merkatu oparo bat sortu zuen, idazteko ohiturarik edo gaitasunik ez zuten predikariek eta abadeek iturri eta ereduak behar zituztelako seinale. Ez dugu aurkitu XVIII. mendeko sermoitegi argitaratuek izan zuten hedapen eta merkatua aztertzen duen lanik, baina badirudi etekin handia atera zitzaiela XVII. eta XVIII. mendeetako liburugintzan.²³⁴

4.3.1.1. Dotrinazko Sermoitegiaren iturriak

Sermoitegiaren egilearen heziketari eta ibilbideari buruzko datu gehiago aurkitu nahian, iturriak ere bilatzen aritu gara. Iturrien miatze honetan hitz eta pasarteak liburuetan bilatzeko aukera ematen duen *google book* web-orria erabili dugu (<books.google.es>) era ezberdinetara: batzuetan latinezko pasarteak sartu ditugu, bestetan esanguratsuak izan litezkeen testu zatien itzulpenak (geuk egindakoak)... Hala eta guztiz ere, onura nabariez gain, erreminta honek baditu zenbait muga, bilaketa nahi genukeen bezain zehatza izatea eragotzi dutenak, batez ere digitalizazio eskanerrak liburu zaharren letrak ezagutzeko izan ohi dituen arazoengatik (tintaren kalitatea dela, orbainak edo eskuz egindako aldaketak direla...): hala bada, jatorrizko testuan *tercero*, *vuiesse vedado* dena bilaketa-testuan *ter cerOjVuiēife vedado* ager daiteke; beraz, askotan zori kontua ere bada jatorrizko testua topatzea, eta bilaketak banan-banan egiaztatu behar izan ditugu argazkiko testuan.

²³⁴ Gure baieztapena egiaztatze aldera, *Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español* webgunean probatxo bat egin dugu [kontsulta: 2012-07-13], *general* atalean denbora tarte ezberdinetan “sermones” hitza bilatuz, eta kopuru hauek lortu ditugu: 1500-1600 bitartean 1.462 erreferentzia, 1600-1650 bitartean 2.045, 1650-1700 bitartean 2.667, 1700-1750 bitartean 2.707 eta 1750-1800 bitartean 2.678. Emaitza hauen balio erlatiboa gorabehera, bistan da XVII. mendearen erdialdetik aurrera sermoi eta sermoitegien kopurua asko hazi zela Espainian.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Ezertan hasi aurretik komeni da esatea azaleko bilaketa bat izan dela, sermoi guzti-guztien iturri zehatza bilatzeko asmorik gabekoa. Gainera, gure eskarmentuaren arabera, orduko sermoitegietan ohikoa zen batak bestearenetik zatiak zuzen-zuzenean hartzea, gero ikusiko dugun bezala, eta ondorioz gure sermoitegiko pasarte batzuk liburu batean baino gehiagotan aurkitzen dira. Arazoak arazo, bilaketa honek emaitza oparoak izan ditu: zenbaitetan sermoiaren iturri zehatza aurkitu dugulakoan gaude eta, nolana ere, ziurtasunez esan dezakegu XVIII. mendearen erdialdean argitaratu ziren sermoitegi zenbaiten itzulpen laburtu eta egokituak direla gure sermoiok (bidenabar, honek gure datazioa bermatzen du; ik. § 4.1.2); hau argiago ikusten da erdal sermoietan, haien hitzez hitzeko kideak topatu baititugu, ondoko adibidean ageri denez:

Dotrinazko Sermoitegia

34.²³⁵ Pues que pecados agenos son estos que debemos examinar? O Dios, que poco atendidos que poco ponderados y por esso más espantosamente terribles! Pecados agenos llaman los Theologos, aquellos que aunque otro los executa, aunque otro los hace, pero se le imputan delante de Dios al que de algún modo fue causa...

Luz de verdades catolicas (1705)

Pues que pecados agenos son estos; que devemos examinar? O Dios, que poco atendidos, que poco ponderados, y por esso mas espantosamente terribles. Pecados agenos llaman los Teologos, aquellos, que aunque otro los executa, aunque otro los haze, pero se imputan delante de Dios al que de algun modo fue causa...

Iturri segurua duten sermoiak lau liburutatik atera dira: Antonio Marsal-en *Chatecismo explicado y predicado* (1727; 1762an berrargitaratua), Juan Eusebio Nieremberg-en *Práctica del Catecismo Romano y Doctrina Christiana* (1640; 1728an 10.-ez berrargitaratua), Francisco Miguel Echeverz-en *Pláticas doctrinales* (1724; 1728an berrargitaratua) eta Juan Martinez de la Parra-ren *Luz de verdades católicas* (1705). Ondoko lerroketan pasarte pare bat ekartzen ditugu iturri bakoitzetik, gure egilearen itzulpenen nolakotasunaz jabetzeko:

Dotrinazko Sermoitegia

1. Pregunte onetara emongo dodas respuesta

Chatecismo explicado y predicado (1727)

A esta pregunta darè dos respuestas.

²³⁵ Zenbaki hau sermoiari aurkibidean (ik. § 8) ezarri diogunari dagokio.

- bi: lelengoa da isen leitequeala bide bat, isen arren estue, suave eta deleitablea; alangoa da, bada, Ceruco bidea, dagoalaco trasauric lora ederren ascotasunegas, seinsuc direan virtuteac, seinen usei ederrac eguiten dau irudi ysen daguila Ceru bet.
- La primera es: Que bien puede vn camino, aunque estrecho, ser suave, y ameno. Tal es el camino del Cielo: porque està taraceado à maravilla de hermosa variedad de flores, que son las virtudes, cuya fragancia, como huele toda à Paraíso, haze que el camino parezca vn Cielo. (27)
10. baye suen dago entendiduric amore dibinue guison gustiyensat, orregaitic esaten da etorri sala deasiento, segaitic etorri sen egoteco edo habitetaco arimetan, bailirean bere descansuco lecue: *et Delitiae meae esse cum filiys hominum.* Ô amore Dibinue!
- Pero en el fuego esta entendido el amor Divino àzia todos los hombres: por esso se dize, que vino de assiento: porque vino para morar, y hazer habitacion en las almas, tan enamorado de ellas, como si fueran el centro de todas sus delicias. O amor Divino! (116)
44. Fingidu euden gentilec Platon sala ondasunen Jangoicoa eta verbera sala ynfernuitaco Jangoicoa. Eguiye dauque estalduric euren fabulan; bada, lomismo da deseetea isutasunegas ondasunec seinde deseetea ynfernue. Emen esan eben Pliniuc...
- Fingieron los Gentiles, que Platon era dios de las riquezas, y que él mismo era Dios de los infiernos; la verdad tienen encubierta en su fabula; porque lo mismo es amar ciegame al tesoro, que apeteer el infierno. Muy del caso dixo Plinio... (418)

Dotrinazko Sermoitegia

Práctica de catecismo (1728)

3. Bear dire sinistu Jangoicoen secretoac entendidu es arren, alanbere dago aproposituco exemploa munduen creciñoean entenditan emaiteco edo declaretaco au misterioau, segaitic lurrec regularmente estau emaiten gariye lelengo cultivedu bagaric, erein bagaric eta euriyec busti bagaric, eta egusquiyec berotu bagaric; baye munduen principiyoan lelengoas emon ebenean lurrec cultivedu bagaric, erein bagaric, busti bagaric eta
- Y si bien los secretos de Dios se han de creer, aunque no se entiendan, con todo esso, ay vn exemplo acomodado para declarar esto en la creacion del Mundo; porque como la tierra ordinariamente no produce el trigo, si antes no la aran, y siembran, y la humedecen las lluvias, y la calienta el Sol; con todo esso en el principio del Mundo, cuando produjo la primera vez trigo,

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

egusquiyec berotu bagaric.

no siendo arada, ni mojada, ni sembrada, ni calentada del Sol. (10)

Dotrinazko Sermoitegia

Platicas doctrinales (1728)

45. Bai, dire oso errabioso, isuturic eta soroac legues; bada, euren colereagas, diño San Agustinec, galsaiten daudes amistedeac, desterradu baquea, despreciyedu sabiduriye; eta gustiye conturbetan dau[de]
- Si, si, como Lobos rabiosos, ciegos, fatuos, y dementados son los Iracundos; porque con su ira sufocan la razon, atropellan la justicia (òidme, que hablo con palabras de S. Agustin) rompen las amistades, destierran la paz, pisan la sabiduria, y todo lo conturban. (III liburukia, 323)
46. Ha gulea, gulea, seinbet dañu, eta yqueragarriscoac, es bacarric arimeari bati bere gorpuseri! Ensun eguisu Espiritu Santuiri: *in multis escis erit ynfirmitas*. Yatecoen eta edatecoen abundanciye yseno diren gasoac, eta se gaso? [...] San Juan Chrisostomoc diño gulea, betetea yatecos gorpuse, dala peste eta enfermedad gustiye principiyoa.
- Ha gula, gula, y quantos, y quan formidables daños ocasionas! y no solo en orden à la salud del alma! sino tambien la del cuerpo. Quereis oir algunos? Oid pues al Espiritu Santo: In multis escis erit infirmitas, dice el Eclesiastico. En la abundancia de comida, y bebida avrà enfermedad. Y que enfermedad? [...] y por decirlo de una vez con San Juan Chrisostomo, la gula la saciedad es peste y origen de toda enfermedad. (III liburukia, 333)
18. Eta ser esango dogu ausiten dituesanac gaitic bear eguinic euretan? San Vicente Ferrer diñoena: *ex fractione diei festi venit omne malum*. Eta ser profanetan daudesanac gaitic yocoacas, danzacas, vanidedeacas eta osteransecu pecatuicas? Â Jangoicoa, se errelajaciño andiye dacusgun dempora onetan!
- Y què diremos de los que las quebrantan trabajando? Lo que dice San Vicente Ferrer: *Ex fractione diei festi venit omne malum*. Que todo el mal viene por quebrantar las fiestas. Y que, de aquellos que las profanan con juegos, bayles, danzas, vanidades, y otras culpas? O valgame Dios, y què relaxacion tan grande vemos en estos tiempos! (I liburukia, 142)

Dotrinazko Sermoitegia

Luz de verdades católicas (1705)

33. Preguntedu eusen bada, condenadu onec arzobispoari seineri eresan Guillelmo: “Bago munduric araindo? Visi de munduin iñor? Gueratu de iñor araindo munduin?” Bada, au pregunteu setara? “Segaitic dire adinebeste, esan eben, se estauque numeruric ynfernuin yausi direan arimac an nagoan artean, eta alan nerechan acabadu sala mundue, bireu munduic araindocoarren?”
- Allà preguntava vn condenado al Arçobispo de Paris Guillelmo; ay mundo todavía? Han quedado vivientes sobre la tierra? ay hombres, que habiten en las Ciudades? Tal Preguntas? Por què? Porque son tantos, tan innumerables los que han caído en el Infierno despues que alli estoy, que no entendì que pudiera quedar nadie en el mundo. Ay todavía mundo?

Bestetan, zoriak lagundu ez eta ezin izan dugu sermoiaren iturria aurkitu, garaian inprimaturiko sermoitegi kopurua kontuan izanik (cf. hemen, 234. oin-oharra) normala denez. Dena dela, pasarte solteren bat bederen identifikatu ahal izan dugu orduko sermoi liburuetan. Honelakoetan, bada, ez dakigu gure egileak handik eta hemendik harturiko pasarteak elkarrekin josiz sortu ote zuen sermoia, ala identifikatu ez dugun beste sermoitegiren bat erabili zuen. Gure idazlearen lan moldea ikusirik (§ 4.1.1), aukera biak lirateke egiantzeko: posible daiteke hainbat sermoitegietako materialak erabiliz berak erdal laburpen bat moldatzea, eta ondoren euskeratzea; edo bestela, XVIII. mendeko sermoi-liburuen arteko eraginak ezagututa, posible da pasarte berdinak, edo bertsuak, liburu batean baino gehiagotan aurkitzerik;²³⁶ are gehiago, nahiko arrunta zen halakoak egitea liburu inprimatuetan, orduan ez baitzegoen gaur egungo “egile-eskubideen” kontzeptu bera,²³⁷ beraz, identifikatu ez dugun liburu argitaratu bat izan

²³⁶ Adibidez, 14. sermoian (*Credo en amargarren articule*) kontatzen da Gregorio santuak Tiridaten Armeniako erregearen kortea txerri bihurtu zuela. Pasarte bera, ia hitzez hitz, sermoien iturri den Juan Martínez de la Parra-ren *Luz de verdades católicas, y explicación de la doctrina* (1705) eta beste zenbaiten iturri izan daitekeen (ik. beherago) Jaime Baron y Arin-en *Luz de la fe y de la ley* (1752) liburuetan aurkitzen da; alabaina, sermoi liburu biek pasarte bera badute ere, ez dute gure 14. sermoiarekin bat egiten bestelako ataletan.

²³⁷ Erretorika klasikoak zituen erregela eta arauetako bat *imitatio*-a zen, hau da, estilo egokia lortzeko lehenago idatzitako obra onetan oinarritzea (Pardo Lesta 2001: 956). Hala ere, XVIII. mendeko zenbait idazlek baliabide hori idazkeraren helburu bilakatu zuten, hau da, norberak esan nahi zuena inork aurrez dotore idatzi bazuen, bertakoa kopiatzera mugatu ziren (*ib.* 958). Idaztearen ikuspegi hau XVIII. mende bukaeran aldatu zen, Erromantizismoaren atarian, eta idaztea *poiesis* bihurtu zen, sorkuntza alegia, eta originaltasunaren bila abiatu ziren idazleak (Ehrlicher 2007: 152). Gure egilea bi garai haien artean zebilen arren, argi dago aurreko garaiko erretorikari begira egiten zuela lan, eta bere iturriak ere garai haren barruan kokatzen direla.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

daiteke iturria. Pasarte solte hauen adibide zenbait dakartzagu ondoren, balizko iturriaren erreferentziarekin batera:

Dotrinazko Sermoitegia

Balizko iturria

16. San gustis discreciño e andico mediyoa Fue discretissimo el medio de que se
Santa Liduvinac discurridu ebena valiò Santa Liduvina para reducir à vn
convertitaco peadore bat penitencira, gran peador à penitencia, como
contetan daben legues Surio: Yaquin refiere Surio. Supo de el graves y
eben eguin ebesala pecatu andic eta enormissinos pecados... (116)
enormeac...

Barcia y Zambrana, José, 1693, *Despertador Christiano de sermones doctrinales sobre particulares assumptos (Tomo segundo)*, Juan Garcia Infanzon, Madrid.

11. *Sto ad ostium et pulso*. Estansusu selan *Sto ad ostium et pulso*. No oís al criado
criyedu apetituic despeditan satusen, apetito que os despide, porque no gusta
estabesalaco ensun gure seure gueiric? de vuestras voces? No importa: entrará
Estau ymportetan, doeala errecadue recado mas adentro: *Sto ad ostium et*
barrune: *Sto ad ostium et pulsu*. Estosu *pulsu*. No atendeis, que el alvedrio
atenditan selan borondateac despeditan responde que aora no puede? No es no
satusen, esin debela orain? Esta esin poder, sino no querer, y assi he de
eguline, espada es gure iseitea, eta alan bolver à pedir. (10)
ostera escatuco dot:

Barcia y Zambrana, José, 1694, *Despertador Christiano de sermones doctrinales sobre particulares assumptos (Tomo tercero)*, Juan Garcia Infanzon, Madrid.

12. ...bestea da Espiritu Santue, dalaco El otro es el Espiritu Santo, porque es
bere esea eta temploa [...]. su casa, y templo [...]. El demonio es
Demoniñoac quensaiten deuses un huesped tan amargo para el alma,
arimeari bere ondasun gustic eta que da despoja de todos los bienes, y la
tratetan dau esclavea legues, Espiritu trata como à una esclava [...]. El
Santuic betetan dau arimea bere doe Espiritu Santo es un huesped tan dulce,
celestialac eta frutuicas... y tan liberal, que la llena de dones, y
frutos que dixen antes. (287)

Murcia, Juan Bautista de, 1753, *Clarín Evangelico y panegyrico (parte II)*, Carlos Sapèra y Jayme Osset: Barcelona.

16. ...yaquine da Constantino Bien sabido es, el que obró en el
emperadoreena: Au bautizedu eben Emperador Constantino, al qual
San Silbestroc, eta euquiric bere bautizandole San Sylvestre, lo curó de
gorpus gustiye lepras beteric, baten, una asquerosas lepra, de que tenia

bautismuigas garbitu sen bere leprea cubierto todo el cuerpo, dexando sus gustiye eta gueratu sen suriric eta carnes tan blancas, y tiernas, como de ederric bere gorpusean. Ba bere un Niño. No es menos raro, lo que se milegro andiye contetan dana Tiridates refiere de Tiridates, Rey de Armenia... Armeniñeco erregueagaitic... (246)

Baron y Arin, Jaime, 1752, *Luz de la fe y de la ley, entretenimiento christiano*, Carlos Sopera y Jaime Osset. Barcelona.

Sermoitegiaren deskribapenean esan dugunez (§ 4.1.1), badirudi lehenik erdal sermoi baten laburpena egin ohi zuela erdaraz, eta ondoren honen euskal itzulpena; bada, iturrien azterketak hipotesi hori indartzeko aukera eman digu. Erdal sermoien iturrietan iturri ziur berri bat aukitu dugu: lehendik ziurtzat jotzen genuen Martínez de la Parra-ren *Luz de verdades católicas* liburuan dute jatorria sakramentuen gaineko kaierean diren erdarazko lau sermoiek, eta Kredoaren gaineko zatian diren beste bi erdal sermoiak hasieran euskal sermoien balizko iturri gisa eman dugun Baron y Arin-en *Luz de la fe y de la ley* liburutik atereak dira zuzenean (ik. goiko adibidea). Honela, erdal sermoi guztien iturriak ditugu hemen, eta hauek ziurtzat emanik argi gelditzen da egileak ez zituela zuzenean hitzez hitz kopiatu eta itzuli iturrietako sermoiak, baizik eta laburtu eta egokituak, beste une batean euskarara itzultzeko, nonbait.

Erdal iturri hauetaz gainera, ezin dugu ahaztu euskal produkzio bat izan zela sermoitegiaren data inguruan (1747-1785), urria izanik ere; eta eurei buruzko ezagutza bazuen gure idazleak: grafiaren azterketaren bidez (§ 4.3.2.1.1.1.1) jakin izan dugu euskal iturri bat bederen erabili zuela, Olaetxearen dotrina (1763) alegia. Dotrina izanik, ezin da esan halako sermoiaren iturria dotrina bera denik, baina gai horri buruz Olaetxearenean ageri diren galdera-erantzunak moldatzen ditu bere sermoiaren sarrera gisa. Pasarte hauetan behintzat Olaetxea bilbotarrarekiko zorra argia da:

Dotrinazko Sermoitegia

Olaetxearen dotrina (1763)

16. Ser da seculco visisea? Da betico Cer da: Vicitza beticoa. Ceruco visisea, Ceruco bienaventuraduena. Cetan Bienabenturaduen Etsea, ta descansuco lecuca, dago bienaventuraduen gloriye? ceñi derichon Paradisua. Cetan dago Jangoicoa arpeguis arpegui ecustean eta descansu, atsegin, eta gloria au? Jangoicoa bera beti ametean. Andiyec dire Ceruen arpeguiz arpegui icustean, eta bera beti bienaventureduic gozetan dituesan ametean. Andiac dira Ceruan gloriyac? Ynfinitamente andigoac Bienabenturaduac gocetan dituezan gloriac?

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

munduco erregeric andiyeenac equi dituesan honrra, aberastasun, descansu eta atseguin gustiyec beño. Celangoac dire Jangoicoac bera ametan dabenensat dauquesan ondasunec? Aen andiyec dire ce esin esan lei munduin dagoanec celangoac direan; bada, beguic estau iños ecusi aen gause ederric, es belarric ensun âen dulce eta admiregarriric, eta esin guisonen entendimintuc alcanzau lei ango gloriye eta atseguinec selangoac direan. Nos artean ireungo dau gloriye onec? Eternamente, Jangoicoa Jangoico dan artean, selan ireungo dauden legues Ynfernucor tormentuic eternamente.

31. Setaco da sacramento penitencicoa? Bautizedu asquero eguin dyrean pecatuic parquetaco. Eta confesiñoē ona eguitemo seinbet gause bear dire? Bost: examinea, damue, propositue, confesetea, confesoreac emon daguiun penitenciye cumplitea. Ser da examinea? Pecatuic memorira ecartea. Celan eguingo da examinea? Lelengo, Jangoicoen magestadeari escatu humildedeagas emon daguiyola graciye eta arguiye bere pecatuic acordau eta esautuitemo, eta euren damu eguiyescoa. Da guero atera contue Jangoicoen legueco amar mandamintuitati eta bost Elesacoetati: ce mandamintuin contra eguin daben pecatu eta ceinbet bider, pensamintus, berbas eta obras, norberen eta besteen estadu eta obligueciñoecac conforme. Eta obeto acordetaco edo gogoratuitemo, nondi ibili edo non egon dan, nogas tratadu deben eta se inclineciñoē oi daben, onetaraco iminten dala â cuidedu eta diligenciye iminten dana negociyo andi beteraco.

Infinitamente andiangoac, munduco Erregeric andienac equi dituezan onra, aberatstasun, descansu, eta atsegin guztiac, baño bere. *Celangoac dira Jangoicoac, bera ametan daven enzat gordeta daucazan ondasunac?* Añ dira andiac, ce ecin esan lei munduan dagoanec, Celangoac direan, bada beguic eztau inos gauza añ ederric icusi, ez belarriac enzun añ dulce, ta admiragarriric; eta ecin guizonaen entendimintuc secula alcanzau lei, ango gloria, eta atseguina Celangoac direan. *Nos artean iraungo dave gloria onec?* Eternamente: Jangoicoa Jangoico dan artean. (79-81)

Cetaco da Sacramentu Santu Penitencicoa? Bateatu ezquero eguitemo pecatuic parcatuteco. [...] Ceimbat gauza beardira confesinoe Ona eguitemo? Bost. 1. Examinea. 2. Dolorea. 3. Propositua. 4. Confesetea. 5. Satisfacinoea.

Cer da Examinea? Pecatuac memoriara ecartea. *Celan eguingo da examinea?* Lelengo, Jangoicoen Magestadeari escatu humildadea gaz, emon deyola gracia, eta arguia bere pecatuac idoro, eta ezautuitemo, eta aen damu egiazcoa. Bigarrena, Atera contua Jangoicoa en legueco Mandamentuetati, eta bost Elexacoetati, ce mandamentuen contra eguindaven pecatu, eta ceimbat bidar, pensamentuz, berbaz, eta obraz, norberen eta besten estadu, eta obligacinoecac conforme, eta errazago eguitemo acordau, edo gogoratu nondi ibili, eta non egon dan nogaz tratau daven, eta ce inclinacinoe oidaven. Onetaraco iminten davela negocio andi baten imini oi dan contua, eta ardurea. (127-129)

Nola ez, iturri hau aurkitu izana garrantzitsua da oso testuaren hizkera aztertzean agertu zaizkigun zenbait zalantza eta uste argitzen dizkigulako; baina gure idazleak Olaetxearen testuari egiten dizkion aldaketek ere argigarri asko emango dizkigute, dela sermoilariak bere hizkeraren berezitasunei buruz, dela literatur hizkuntzaz dituen iritziei buruz. Olaetxearen eta gure sermoigilearen testuen arteko konparaketak emaitza interesgarri asko eskaini ahal digu, eta luze joko luke gai honek behar duen zehaztasunarekin hemen jorratzea, honegatik, atal berezi bat eskaini diogu lanari (§ 4.3.2.4), konparaketaren emaitzak eta hauetatik atera daitezkeen ondorioak bilatzeko.

Bidenabar, iturrien azterketa honek pentsarazi digu beharrezkoa baino gutxiago landu direla euskal sermoien iturri zuzenak: egia da Frai Bartolome (Urkiza & Baraiazarra 2000: 159) eta Mendiburu (Torregarai & Villoslada 1999) bezalako idazle esanguratsuek erabili zituzten autoritateak bilatu eta haien katalogo zehatza egin dela; alabaina, ezin ahaztu garai horietan normala zela idazleek autoritateak eta exempluak, zuzenean baino, tarteko iturriren baten bitartez lortzea, dela *enciclopedia rinascimentali* deitzen zaien aipu-bildumen, bestelako bildumen, hiztegien edo beste idazleren baten obraren bidez (cf. Bilbao 2014: 152). Badakigu honela taxutu zuela bere lana Etxeberri Sarakoak (Bilbao 2006), eta baita Axularrek ere, hainbat pasartetan behintzat (Bilbao 2014: 167). Bilbaoren lan hauek kenduta, iturri bilaketaren lan finago hau nekez bai nekez egin da are gure idazle garrantzizkoenetan ere (Axularrez egin diren lanetarako, ik. Bilbao 2014: 154-5). Honen beharraz Mitxelenak berak konturatu zen Humboltek Axularren liburuari buruz egindako oharra irakurrita (cf. Mitxelena 1971, *OC XI*: 330, 4. oh.) eta Urquijok *Guero* eta frai Luis de Granadaren *Guía de pecadores* liburuen artean egin zuen loturaz jabetuta; honela, aldarrikatzen du “es evidente que la crítica verbal, el descubrimiento de fuentes, etc. —la filología, en una palabra—, tienen que servir de fundamento, tan necesario como modesto, a cualquier estudio literario.” (*ibid.* 349).

Iturri zuzen hauen azterketarekin, sermoigilearen lan egiteko moduez jabetzeko aukera dugu; nahiz halako lan batek “permitirá conocer mejor las estrategias de traducción y composición” (Bilbao 2014: 167); gainera, gurean egin dugun lanak euskal iturri bat ere aurkitzera eramán gaitu eta honekiko konparaketa bitartez, egileari buruzko hizkuntzaren eta hizkuntz ezaugarriekiko jarreraren ezagutza sakonduko dugu, Mitxelenaren aurreko hitzak gogoan (ik. § 4.3.2.4).

Bestetik, ez da inolako azterketarik egin euskal idazleek nola egiten zuten lan deskribatuz, dakigularik: nahiko argia da Mendibururen idazlanak, aztertu diren neurri

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

txikian, erdarazko beste batzuetan oinarrituta daudela (askotan Mendiburuk berak aitortu bezala; cf. Altzibar 1992b: 339),²³⁸ baina ez da ikerbide hori garatu idazlearen behar egiteko modua zehazteko. Gure lan honen bidez aurrera dezakegu, beharbada, egileen lan moldean, Dotrinazko Sermoitegiak egile hauetako batzuen artean ohikoa zen prozedura antzemateko lehen lekukotasun ona baita. Izan ere, aipagarri deritzogu hemen ikusi dugun bere lan moduak Larramendik sermoilariei egindako kritikan gaztigitzen duen metodoarekin duen aldeari. Hasteko, hona Larramendiren hitzak:

Hacen primero su discurso en Castellano, ò escrito, ò pensado, y despues *passan á hablarlo* en Bascuence. En una palabra, es decir, que lo que predicán, es unicamente traduccion, y no original elocucion del Bascuence. (*HH*: xl, etzana geurea [K.U.]

Beraz, Larramendiren arabera, orduko predikariek, predikari txarrak haren ustez, erdal sermoia prestatzen zuten lehenik, eta pulpitan bertan ekiten zioten euskaraz esateari (“*passan á hablarlo*”). Gure sermoilariak, ordea, alde aurretik euskal itzulpena egiteko eta modu txukun eta garbi batean idazteko beta hartzen zuen, testuaren euskal itzulpenean (bere gaitasunen arabera, noski) arretatsu dabilela erakutsirik.

4.3.2. Euskal sermoigintza eta literatura

Gure sermoitegiko erdal iturriek erakusten dutenez, Espainiako XVIII. mendeko testuinguruan kokatu behar dugu Hegoaldeko euskal sermoigintzaren sorrera eta garapena. Lehenago, Trentoko Erreformatik herria hezteko sorturiko beharrak bultzaturik hasi zen Eliza euskara erabiltzen predikuetan eta dotrinak argitaratzeko orduan, elizbarrutian euskaldunak zituzten apezpikuek eskatzen zuten bezala (Intxausti 2004: 837): Kalagurriko²³⁹ 1602 eta 1700ko sinodaletan, erabaki zen euskaraz predikatu behar zela herri euskaldunetan eta urtero katexima argitaratu behar zela elizbarrutiko hizkera ezberdinetan (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa aipatzen ditu), betiere erdal testuarekin

²³⁸ Añibarrok ere badirudi euskal sermoien lehenengo zirriborroak erdaraz lantzen zituela: Altzibarrek (1992a: 103) idazle honen hastapenetako sermoien katalogoan “Doctrina sobre bayles” erdal sermoi baten eskuizkribuaren berri ematen digu, eta bere ustez *Misiolari Euskalduna* sermoitegiaren dantzei buruzko zatiaren zirriborroa dateke.

²³⁹ Ezaguna denez, elizbarruti honetan ziren Bizkaia gehiena (Enkanterriak salbu), Arabako lurrak (Gobiaran eta Artziniega ingurua izan ezik) eta Gipuzkoako Deba artoa, bai eta Nafarroako Lana harana ere (ik. Lizundia 2008: 472; cf. baita Mounole & Gómez 2012: § 1.2.2, 9. oh.).

batera (Urquijo 1923: 336). Dena dela, badirudi XVI. mendean Espainiako sermoigintzak bizi izan zuen “lehenengo loraldi” horrek euskal letretan ez zuela eraginik izan: Sancho de Elsoeren (1564) dotrina galdua eta Betolazarena (1596) baino ez ditugu ezagutzen (besterik egon zitekeen arren, cf. *ContTAV* § 5.2.8), eta euskal sermoilarien aipamen batzuk alde batera utzirik (Mounole & Gomez 2012: § 1.2.2), ez bide da orduko lanaren laginik heldu. Gabezia hau loturik egon liteke XVI eta XVII. mendeko Euskal Herriko Elizak bizi izan zuen aztoraldiarekin: Batetik, beste eremuetan bezala, Erreformaren ideiak —Iparraldean nahikoa hedatu zirenak— penintsulara sar ez zitezten kontrol hertsia ezarri ziren euskal portu eta bideetan; baina bestetik, garrantzi handiagoa izan zuen Inkisizioak garai horietan euskal lurretan egindako sorginkeriaren aurkako prozesuek, honakoek errepresioaren bidezko “doktrinatzeari” eragin baitzuten (Madariaga 2004b: z/g).

Euskaraz eskolatze faltak ere eragin zuen Hegoaldean euskal testu gutxi inprimatzean: Iparraldean goi-mailakoak eta ertainekoak oraindik ere euskaraz moldatzen ziren, latinarekin (orduko kultur hizkuntzarekin) batera, eta honek esan nahi du euskaraz irakurtzen ikasteko aukera izan zutela, *ororen eskola* delakoaren bidez nolabait (cf. Oyharçabal 2001: 32), eta hauek euskal liburuen hartzaile bihurtu ziren; honen ondorio litzateke euskal literatura garai horretan eta leku horretan piztea. XVIII. mendetik aurrera baina, frantsesa kultur hizkuntza legez sartu zen goimailako eta ertainekoen artean, latinari kultur hizkuntzaren lekua kenduz, eta orduan frantsesa irakurtzera jo zuten (Oyharçabal 2001: 33). Hegoaldean, berriz, XVI. mendean gaztelania zen jada kultur hizkuntza, eta euskaldunak errege austriarren gortean indarra hartzen hasi ziren heinean, euren senitartea mailaz igotzeko gaztelania beharrezkotzat jotzen zuten (cf. Imizcoz 2008: 95). Honegatik, Trentok eraginda inprimaturiko dotrinak ez bide ziren inolako irakurleentzat pentsatuak, aitzitik, elkarrizketa erara taxuturik daude abadeentzat direlako, herri xehe eskolatu gabea ahoz hezteko, errepikatuz eta kantaraziz (Altzibar 1992a: 40), eta maila apaleko dotrina liburuxka batzuetara mugatu zen orduko argitalpen lana (Oyharçabal 2001: 37).

Gauzak XVIII. mendean aldatu ziren, ordea; batetik, Euskal Herriko errepresioaren bidezko doktrinatzeari amaiturik, bide pedagogikoari heltzea erabaki zuen Elizak, eta horrek euskal lurretako misioen garapena ekarri zuen (Madariaga 2004b: z/g). Bestetik, Ilustrazioak lehenengo eta liberalismoak gero zekartzaten ideia aurrerakoien kontra egiteko bidea ere izan ziren misioak (cf. B. Altuna 2003: 65 eta Madariaga 2004a: 190). Misioen garapenak, Neoklasizismoaren estetika eta

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

erretorikaren ildotik,²⁴⁰ XVIII. mendeko oratoriaren berritzearekin bat egin zuen, eta testuinguru honetan euskal idazkera ere suspertu bide zuen: aipagarria litzateke euskarazko Hegoaldeko lehen sermoi ezaguna 1708koa izatea (Etxebarria 2007), Kalagurriko elizbarrutian, eta Nafarroako elizbarrutikoa ere 1729koa izatea (Ondarra 1981).

Misioen bidezko predikazio moldea ordena erlijiosoen eskuetan geratu ziren, oratorian prestatuago bide baitzeuden eta, oro har, apaiz sekularren heziketa eskasa eta euren parrokia beharrak zirela eta. Bereziki jesuita, frantziskotar eta domingotarrek hartu zuten beren gain misioak, baina misiolari karmeldarrak eta kaputxinoak ere izan ziren (Madariaga 2004b: z/g). Dena dela, sermoigintza berritze honen aurrekariak (baita gaztelaniaz ere) jesuitak izan ziren (cf. B. Altuna 2003: 95, Madariaga 2004b: z/g): hauek dira euskal lurretan (eta baita hemendik kanpo ere, cf. Gelabertó 2003: 73) lehenengoak predikatzen, eta ez da kasualitatea izango euskarazko lehenengo sermoigile esanguratsuak ordena honetakoak izatea (Madariaga 2004a: 506-7). Euskarari dagokionez Larramendiren inguruan bildu ziren sermoigileak, andoaindarra izan baitzen predikazioan hizkuntza molde jasoaren beharraz jabetu zena: bere inguruko idazleok sermoiak prestatzen zituzten, dela ahozko jardunaren oinarri, dela pulpitutik irakurriak izan zitezten.

Larramendi ez zen mugatu predikaziorako hizkera jaso hura aldarrikatzera; aitzitik, garaiko giroa bere alde erabili zuen lana gauzatzeko: XVIII. mendean herria hezteko ardura zabaldu zen agintarien artean (cf. Imizcoz 2008: 95) eta kezka zegoen herria nork eta nola hezi behar zuen; beraz, Larramendik euskararen aldeko bere egitasmoa plazaratzeko kezka hura sintonizatu eta sintetizatu zuen, eta lanabesak (gramatika, hiztegia) ipini zituen egingarri izan zedin (Urgell 2012: § 1.2.1).

Jesuitekin batera, frantziskotarrak ere²⁴¹ goiz hasi ziren misiolariak prestatzen: horretarako Zarauzko misiolari eskola sortu zuten 1746an (Villasante 1974a) eta hortik sermoigile esanguratsuak atera ziren: lehenengo belaunaldiaz ezer gutxi dakigu, baina

²⁴⁰ XVII. mendean Barrokoaren estetikaren pean gaztelaniaz sortu zen *culteranismo*-aren ezaugarrien artean dugu “dar al castellano la sonoridad y la concisión de la lengua latina” (Villegas Paredes 2008: 32), eta hori da sermoien gainbehera sortu zuten ezaugarrietako bat, sermoigintza barrokoari orduan egiten zitzaion kritikaren oinarria (cf. Cerdán 1985: 58). Kritika hauek lotu genitzake Larramendik bere garaiko euskal predikatzaileei egindako kritikarekin, non kekatzen baitzen euskal sermoilariak “siguen el sonsonete material del Castellano, buscando unas correspondencias tan puntuales en la cantidad, y calidad de las voces, que no aya de aver mas en una Lengua que en otra” (Larramendi 1745: xl).

²⁴¹ Eta agian Larramendiren lanak eraginda: ez dugu sermoilarien lehenengo belaunaldiaren daturik, baina badakigu bigarren belaunaldiko Palacios-ek Bernardo Recio jesuita izan zuela irakasle, eta Larramendiren gramatikaren bidez ikasi zuen euskara (cf. Villasante 1979: 149).

bigarrenean Palacios, Agirregoikoa, Garai, Arteta edo Sarobe bezalako predikariak ditugu, euren lanak idatziz jasotzen eta gordetzen hasi zirenak, eta hirugarrenean Añibarro eta Zabala. (Urgell 2001: xix; cf. Etxebarria 2005). Mendearen azken urteetan misioigintzaren “monopolioa” lortu zuten frantziskotarrek josulagunen erbesteratzearekin batera (1767); alabaina, Konbentzio Gerraren (1793) ondorioz “makina bat jazarpen, egozketa eta eraso jasan behar izan zituzten Zarauzko fraideek” (B. Altuna 2003: 110). Jazarpen hauen berri ematen digu Zarauzko komentuauren kronikak: orduan fraideetako batzuk preso eraman zituzten eta komentua arpilatu zuten (Villasante 1974a: 299). Era berean, Independentzia gerran (1808), eklaustrazio agindua eman zuen, fraide-arropak kendu eta sekularrez janztea, eta predikatzea eta aitortzak egitea debekatu zien (*ibid.* 301), baina honen aurretik agindu zieten “que antes de salir entregasen al Gobierno Francés todos los efectos de sus Conventos por inventario, [...] libros de la biblioteca [...] y todos los papeles del Archivo con sus escrituras” (*ibid.* 302). Debekuen ondorioz,²⁴² fraideek ezin izango zuten misiorik egin, eta herria hezteko beharrak eraginda apaizek sermoigintzan parte hartzen hasiko ziren nonbait: Mogel osaba-ilobak (cf. Altzibar 1992a), Agirre Asteasukoa (Ozaeta 2010) edo Mutiloako abade izan zen Gerriko (Aranburu *et. al.* 1995) lirатеke honen lekuko.²⁴³

Nafarroaren kasuan, badirudi euskarazko misiolariak ez zutela izan beste lurraldeetan izan zuten indar bera: honen arrazoiak ez dira argiak baina ezaguna da, batetik, Iruñeko apezpikuak Zarauzko misiolarietako erreparatzaileak izan zutela (Madariaga 2004a: 508), eta ordena erlijiosoei misioak egiteko baimenak apurka-apurka ematen zien, beti ere eragozpen eta oztopoekin. Bestetik, Nafarroan beste misiolari kolegioa bazen, Oliten, zeina “se dedicaba a misionar por Navarra, Burgos y Rioja en lengua castellana” (Madariaga 2004a: 505). Bi baldintza hauek eragingo zien elizbarrutiko apaizei herri euskaldunaren heziketaren ardura hartzeko, eta horregatik ezagutzen diren Nafarroako XVIII. mendeko sermoiak parroketan aurkitu dira (cf. Camino 2003: 42-52 Nafarroako erdialdean aurkitu sermoiez).

Predikazioaren bidez hizkuntza lantzeko kezka hedatu zen, eta hizkuntza idazteko lehenengo urratsak eman ziren: hasiera batean sermoilariak euren buruarentzat idazten zuten, euren misioetan baliagarri izan dakizkiekeen kartapazioak atonduz, edo

²⁴² Horretaz gainera, ordena erlijiosoei giro txarra zegoen orduan, misioak politika absolutistarekin lotzen baitzen, eta alkateek oztopo asko jartzen zizkieten (Madariaga 2004a: 515).

²⁴³ Idazle klasikoaren artean Lizarraga Elkanokoa ere sar genezake abade sekular sermoilarien talde honetan, alabaina, honek Nafarroan zuen lan eremua, ikusiko denez leku berezia misioei dagokionez. Gainera, jatorriz sermoilari jesuiten taldekoa izango litzateke, hauen erbesteratzearekin batera bilakatu baitzen abade sekular (cf. Ondarra 1972: 265).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

bere ordenakideengan pentsatzen, besteek ere erabil zituzten. Honela, ahoz erabiltzeko sermoiak idaztetik argitaratzeko sermoiak idaztera pasatu ziren idazleek, norberarentzat edo hurbileko pertsonentzat idaztetik besteentzat idaztera. Sermoitegi hauek, inprentarako prestatuak ziren arren, argitaragabe egon ziren urte askotan eta beranduago argitaratu ziren: horixe gertatu zen Mendibururen *Irakurraldiak* lanarekin (cf. Altuna 1982), eta baita Palacios frantziskotarrak zituen “dos tomos de sermones para su publicación” (Villasante 1961: 18); modernoago, gauza bera gertatu zitzaion Añibarroren *Misiolari euskalduna*-ri (cf. Urgell 2001: xxxii e. hh.).

Gainerako elizgizonentzat egindako lanabesak (sermoitegiak nagusiki) aparte, beste lan batzuk ere ekoiztera ekin zioten misiolariak eurek: eliztarrentzat egindako liburuak. Izan ere, garai horretan udal eskolen bitartezko eskolatzeari hasi zen: eskolatzeari hau ia beti erdaraz egiten bazen ere (cf. Imizcoz 2008: 95), irakurle potentzialak ugariarazi zituen eta garai aproposa izan zen misiolariak bestelako pertsonentzat ere idazten hasteko. Irakurle potentzialen hazkundera bere helburuen alde baliatzearen, predikariak euskaraz irakurtzeko deia zabaldu zuten (Kardaberaz, Mendiburu...). Honen fruituak garaiko testuen helburuetan ikusten da: Kardaberazaren dotrinaren lehenengo edizioa (s.d. [ca.1762]) “Cura jaun ta escola maisuai” eskainia dago; Olaetxearen dotrineko bigarren argitalpena, ordea, hitz hauekin amaitzen da (Olaetxea 1775: 166):

Jesu-Cristoen Eriotza, eta Pasinoe Santuba gaiti, eta Ama Virginearen Doloreac gaiti erregututen deusét Escola Maisubai, arren baserrietaco Mutilchubai eusqueraz iracurten iracatsi deioela, euren Guraso, ta etsecoen aurrean, edolabere neguco gau lucétan, Dotrinea iracurri daien.

Bigarren motatako obra hauek argitaratzeko aukera izan zuten, bezero kopuru handiagoa izango baitzuten, eta orduan hasten da euskal liburuaren zabalkundera eta moldiztegietan bere lekua izaten: halakoak dira Kardaberazaren *Cristavaren bizitza* (1744) edo Mendibururen *Jesusen Bihotzen Debozioa* (1747). Honegatik ez da kasualitatea lehenengo liburu entzutetsuen idazleak misiolaritzan aritzea,²⁴⁴ eta

²⁴⁴ Kasu zenbaitetan misioetan bertan saltzen zituzten euren obrak: ezaguna da Palaciosoek *Ramillete Espiritual* (Gasteiz, 1765) liburuaren urte horretan Gasteizen egin zituzten misioetan saltzeko idatzi zuela (Villasante 1961: 16), eta Añibarrok *Lora Sorta espiritualac* (Tolosa, 1803) izenburupean itzuli zuenean ere helburu berarekin egin zuen: “mixio-ondoan jendeari oroigarritzat partitzeko” (Villasante 1956, ap. Urgell 1988: 10).

josulagunak izatea gainera (sermoigintzan hasi zen ordenakoak, alegia): Basterretxea,²⁴⁵ Kardaberaz, Mendiburu...

Gipuzkoarrak izanik eliztarrentzat idazten hasi ziren lehenengo sermoilariak, normala da lehenengo liburuak ere hizkera horretan idatziak izatea. Hala ere, ez ziren beste lurraldeetako hizkerez ahazten eta Kardaberazek, Larramendi bere maisuaren bidetik, bizkaieraz idazteko beharra aldarrikatu zuen, esanez “animen oneraco, Bizcaico, Nafarroaco, ta Guipuzcoaco iru Dialectoetan escribitcea, guztiz premiazco, ta gauza chit bearra da” (*EBO* 63). Eta aholkua praktikara eramane zuen, aurretik gipuzkeraz argitaraturik zituen liburu bi bizkaierara itzuliz eta laburtuz: *Cristiñau doctrinea* (*CatV*, ca. 1762) eta *Jesus, Maria, ta Joseren devociño batzuc* (*devociño batzuc*, 1764).²⁴⁶ Honek noski, ez du esan nahi Kardaberaz hutsetik hasi zela bizkaiera lantzen, aitzitik, aurretik argitara ziren bizkaierazko liburu zenbait ezagutzen zituen: jakina da *devociño batzuc* liburuaren hitzaurrean Kapanagaren dotrina aipatzen duela, eta badirudi erabili ere erabili zuela mañariarraren dotrinaren hizkera eredutzat (cf. Salaberri Muñoa 2004: 91).

Baina josulagunaren aholkua ez zen bere lanetara mugatu eta Bartolome Olaetxeak jaso bide zuen (Salaberri Muñoa 2004: 97-98),²⁴⁷ eta sermoilaria ez izan arren (XVIII. mendeko apaiz sekularra baita Olaetxea) mendebaldeko dotrinaren historian beste katebegi bat gehitzean, hizkera jasoago horren beharra ikusten eta islatzen du. Hizkera landuaren beharraz hernaniarraren liburuak irakurriz jabetuko zen, nonbait; izan ere, bere dotrinaren bidez badakigu Kardaberaz lanen berri bazuela: Dotrinan

²⁴⁵ Villasantek Larramendi aurreko idazletzat du, baina ilunune asko ditu bere obrak: ezagutzen dizkiogun hiru poemetak biren berri dugu Kardaberaz *Christauaren bizitza* (1760) liburuaren amaieran jasoak daudelako, gipuzkerara bihurtuak (*Guisonaren acabuco lau gausac, Anima penitente baten negarrac*). Hirugarrena liburuxka legez argitaraturik dauden Jesukristoren Pasioari buruzko bertsoak dira; alabaina, hauek gipuzkerara moldaturiko edizio batetik ezagutzen ditugu, *Jesu-Christo gure jaunaren passioa eusquerazco versoetan* (Bilbao, 1777) delakotik, alegia, agian Kardaberazek berak moldatuak (Villasante 1979: 123). Hau honela, eta agian Basterretxea 1761ean hil zelako, uste izan da lehenago bizkaieraz argitaraturiko edizio bat izan zela, ezagutzen ez duguna (cf. Altzibar 1992a: 70).

²⁴⁶ Lehendik ere bizkaierazko literaturan aurrekaririk izan zen: Elizaren esparrutik atera gabe, Trenton harturiko erabakiak jarraituz, Pedro Manso apezpikuak 1600. urtean harturiko erabakien artean bazen urtero lekuan lekuko hizkeran dotrina argitaratzea, eta berak jada 1596an hasia zen esenplua ematen Betolazaren *Dotrina Christiana* argitaratuz. Honela, badirudi *Dotrina Christiana*-k kate moduko bat osatu zutela Bizkaian: Betolazarenari *Viva Jesus* (ca. 1640) gehitu zitzaion, eta hortik aurrera M. Kapanaga (1656), N. Zubia (1691) eta M. Arzadun (1731) idazleek katebegiak gehituz joan ziren (tartean garduriko hainbat gehiago egon litezke, jakina).

²⁴⁷ Salaberriren “Kardaberaz aholkuak eta ereduak laster izan zuten jarraitzaileak, lehena Bilboko Bartolome Olaetxea apaiza izan zelarik” esaldiak iradokitzen badu ere Olaetxea Kardaberaz jarraitzailea dela (2004: 98); jarraitzaile izateak, noski, ez du zertan adierazi Olaetxeak Kardaberaz ereduari atxiki zitzaionik, bizkaieraz beste maila batean idazteko arreta jartzean agian bai izan zen eredugarria hernaniarra; baina Kardaberazek darabilen euskara ez da Olaetxearena: honen adibide argi bat genitibo singularrean dugu (ik. § 4.3.2.1.2.1).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

aitortzaren gainean hitz egiten duenean, Olaetxeak diosku aitortza orokorra egiteko modu erraza badela euskaraz, “Aita Agustin Cardaberaz Misionista”ren exerzizioetako liburu ederrean, zeharka bada ere liburu hori erabiltzeko gomendio zabalduz (Olaetxea 1763: 129 ap. Atutxa 2013: 72).²⁴⁸

1766an eman zen euskarazko liburuak argitaratzeko lehen debekua, eta ondoren Jesuitak kanporatzea gertatu zen (1767); beraz, ordutik aurrera euskal liburuen argitalpena moteldu zen, eta obra handiak argitaratzea oso zaila suertatu arren, ez zen berdin gertatu obra txikiekin, hauek argitaratu eta aurrekoak berrargitaratzeko aukera egon baitzen (cf. Urgell 2012: § 3.3.1). Konbentzio gerra bukatu ostean eta 1766ko dekretua gainditzeko aukera egon zenean bakarrik hasi ziren liburu berriak agertzen, bata bestearen ondoren, XIX. mendearen lehenengo urteetan: J. A. Mogel, Añibarro, Agirre Asteasukoa... (*ibid.*); beraz garai horretan idazleek ez zuten denbora alferrik galdu. Ondoren, Independentzia Gerrak edo inprenten lana geratu zuen 1816 arte, orduan atera baitziren literatur bizkaieraren azken lan kanonikoak: f.Bartolome, Astarloa eta J. J. Mogel.

Idazleek egindako lanak ikusita, badirudi garai guztiak biltzen duen gaia sermoigintza da, garai horietan argia ikusten duten lehengo liburuak sermoitegiak eta misioetako liburuxkak baitira: Mogelen gipuzkerazko *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* (CC, 1800) eta honen bizkaierazko bertsio laburtua, *Confesino ona* (CO, 1803); Añibarroren *Eskuliburua* (EL, 1802) edo *Lora Sorta Espirituala* (Lsorta, 1803) eta Agirreren *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiac* (CCErak, 1803). Ondoko garaian, beste sermoitegi batzuek ikusi zuten argia, frai Bartolomeren *Icasiquizunac* (Ic. 3 lib., 1816-1819), Astarloaren *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* (Astar., 2 lib., 1816 eta 1818) eta J. J.

²⁴⁸ Lehenengo argitalpenean Kardaberazen lana gomendatu arren, 1774ko edizioan aitortza orokorra egiteko modua gehitzen du liburua bukaeran, eta horretara bidali irakurlea (Olaetxea 1774: 83). Alde honetatik, interesgarria da 1763an Kardaberazi egiten dion aipua: Kardaberazen Ejerzizioen liburu (1761) atortza orokorra gipuzkeraz argitaraturik dago, eta beraz, hemen ikus dezakegu bizkaitar batek gipuzkerazko liburu bat gomendatzen duela. Honek, noski, Kardaberazen beraren pasarte hau dakarkigu gogora (1761): “Bizkaitarrac berac, ascoc beñtzat gure Dialectoan [*gipuzkeran*], berenean baño predicatcea naiago dute [...]: eta Bizcaico predicadore asco gurean predicatcera oitu, edo eguin dira” (ap. Salaberri Muñoa 2004: 94). Honen parean, ezaguna da XIX. menderako bizkaitarrentzat ez zela hain “gustoko” gipuzkera, ezaguna baita Mogeli gertatutakoa *Confesio, ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac* (1800) gipuzkeraz argitaratzean: “Apenas se tuvo noticia en Vizcaya, que salía a luz una Obra bascongada y en dialecto Guipuzcoano, [...], quando se suscitó una commoción como general entre los Eclesiásticos Vizcaynos, con quexas amargas de haber sido preferidos los Guipuzcoanos.” (Mogel ca.1800; ik. Villasante 1964). Ezin frogatu gertaeren arteko erlaziorik den, baina badirudi Kardaberazen aiputik Mogelen jazoerara arteko jarrera aldatzarekin lotua egon daiteke Olaetxeak egindako aldatzea.

Moguelen *Baseerritar nequezaleentzaco escolia* (*BasEsc*, 1816) eta *Egunoroco lan-onta erregubac* (*Egunoro*, 1820).

Mendea aurrera joan ahala, misioak gutxitu eta abade sekularrek herria hezteko egin beharra bere gain hartu zutenean nonbait, sermoitegi berriak agertu ziren: bai lehenago idatzirikoen argitalpenak, Lizarragaren *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac* (*Urt.*, 1846; 1802koa), Agirreren *Eracusaldiac* (3 lib., 1850; 1803-1814 ingurukoak), Gerrikoren *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera* (*Gco.*, 2 lib., 1858; 1805 ingurukoak), edo Añibarroren *Curutze santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeco eracusaldiac* (*CS*, 1897) bezala, bai garaian sorturikoak, Uriarteren *Marijaren illa* (*Marill*, 1855), kasu.²⁴⁹

4.3.2.1 Dotrinazko Sermoitegia eta XVIII. mendeko gainerako idazkiak

Orain artean liburu argitaratuen bitartez aztertu eta azaldu izan da literatur bizkaieraren sorkuntza, eta honegatik Añibarro/Mogel bikotea ematen da literatur bizkaieraren sortzailatzat, eurenak izan baitziren lehenengo lan argitaratuak XIX. mendean. Orain, Salaberrik (2004) ikuspegi berri bat zabaldu digu, Kardaberaz ez genukeela ahaztu behar azpimarratuz, bera ere bizkaieraz idatzi baitzuen. Alabaina, Mogel-Añibarro azalpen klasikoak edo Kardaberazen aitatasuna iradokitzeak alde batera uzten ditu zenbait lekukotasun, gure ustez argitaratuen azpian datzan historia askoz ñabarragoaren berri ematen dutenak.

Izan ere, liburuetakoa baino lehen, eta horrekin batera beste literatura mota bat izan zen, sermoigintzak sorturikoa: orduan ikusi zuten elizgizonek herriarengana hurbildu behar zirela (cf. § 4.3.1), eta horretarako hizkuntzaz kezkatzen hasi eta euren gain hartu zuten euskararen lantzea ahozko predikazioari eta herriaren heziketari begira (Urgellek “Predikazioaren aldia” deitu duen aroan alegia, 2012: §0). Hasierako literatur hizkuntza honek, berez jendaurrean mintzatzeko pentsaturik zeuden testuez osatua, argitaratuko ziren liburuetakoko hizkuntzaren hastapentzat jo dezakegulakoan gaude. Honegatik beragatik sermoitegi argitaragabeen azterketak ezinutzizko datuak ematen dizkigu XIX. mendean joritu zen literatur hizkuntza idatziaren garapena ezagutzeko,

²⁴⁹ Hauekin batera bestelako obra txikixeagoak ere argitaratzen ziren; aurreko garaietako dotrinak: Arzadun (1731, 1758, 1838, 1841), Olaetxea (1763, 1774, 1787, 1794, 1814, 1825, 1846, 1848, 1855, 1864, 1872, 1883, 1904)... edo leku ezberdinetako abadeen enkarguz egindako dotrinaren itzulpen berriak: Laudio (1828, 1854, 1869, 1870, 18), Gatzaga (1862)...

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

garapen hori nola gauzatu zen erakusten baitugu. Honela bakarrik uler daitezke Larramendik Zarauzko misiolariari egindako laudoriozko hitzak (cf. Lakarra 1985c: 268), inolako ekoizpen literario (argitaratu)ren aurretik eginak.

Egun XVIII. mendeko sermoigintza horrek sorturiko lanak ezagutzen hasi gara, hainbat ikertzailek han-hemenka hauen berri eman baitigute, eta mendebaldeko euskalkian ekoiztutako sermoigintzara mugaturik, lan eskerge izan da Zarauzko eta Arantzazuko komentuetan gordetzen diren sermoien katalogoa (Etxebarria 2005), komentu hauetan misiolarien eskuizkribu asko gordetzen baitira. Katalogazio lanari esker, mendebaldeko sermoirik zaharrenaren (1708) edizioa egin da (Etxebarria 2007), bai eta Astigarraga (Etxebarria & Apraiz 2007) eta Sarria (Etxebarria & Apraiz 2009) frantziskotar idazleen sermoitegiak ere argitaratu, urte batzuk lehenago egin Zabalaren sermoien edizioari (Villasante 1996, 2000) gehitu behar zaizkiona. Hala ere, oraindik hainbat gehiagok argitaragabe dira, Palacios edo Agirregoikoa bezalako sermoilarienak (cf. Urgell 1987a: 363 eta 2001: xviii), besteak beste.

Honekin batera, ezaguna da XVIII. mendearen amaieratik eta XIX. mendearen hasiera luze batean zehar hamaika gerra eta ezbehar gertatu zirela, eta ordena erlijiosoek bereziki egoera latza bizi izan zuten, josulagunen kanporatzeak hasi (1767) eta XIX. mende hasierako fraideen esklaustrazioa bitartean. Hau dela eta komentuetan ziren hainbat dokumentu eta artxibu sakabanaturik eta galdurik geratu ziren, eta ezin izango dugu jakin bertan daudenak ziren guztiak diren ala ez, baina, ordena honen beste komentuetako liburategietan (Bermeo, Lekeitio, Bilbo, Urduña...) leudekeen sermoiak esklaustrazio ostean barreiatu zirela badakigu: batzuetan obra horiek beste ordenetako komentuetan aurkitu izan dira, Markinako karmeldarren komentuan datzan De la Quadra frantziskotarrarenak (Bilbao 1997, 1998) lekuko. Teorian Zarauzko komentuan egon behar ziren obrak ere han-hemen aurkitu izan dira: Hondarribiako kaputxinoen komentuan dago Añibarroren *Gueroco guero* bizkaieratuaren eskuizkribua (Urgell 2001: xliii) eta Bermeon, Irunen eta Jerusalem Zabalaren sermoiak (Villasante 1996: xx). Esklaustrazioa jasan zuten fraideen irtenbideetako bat parrokiaren baten apaiz joatea izan zen (*ibid.*) eta, beraz, baliteke parrokiaren artxibuetan gorde diren euskal sermoien jatorria horixe izatea, Lekeitioko parrokiako sermoiekin gertatzen den legez (cf. Altzibar 1992a: 72).

Hau frantziskotarrei dagokienez esan dezakegu, euren liburategietan diren lanen katalogoa baitugu, baina Misiotan aritu ziren beste ordenetako artxiboak miatu gabe daude. Josulagunek, badirudi kanporatzean (1767) idazlan batzuk behintzat aldean

eraman zituztela, eta ondoren haietako batzuk, bide ezberdinetatik, itzuli egin zirela Loiolara, edo Euskal Herrira behintzat (cf. Altuna 1982: lxi), baina oraingoz ez dago hauen katalogorik, dakigularik.²⁵⁰

Eta frai Bartolome de Santa Teresa karmendarrak sortu zituen sermoiak ere ordenako artxiboetan ez, baizik eta han-hemenka ei dira agertu (Urkiza & Baraiazarra 2000: 152 e. hh.).

Beraz, ikusi berri dugu garai hartan sermoi asko idatzi zirela eta haietatik kopuru aipagarri bat gorde ere gorde dela. Halaber, ikusi dugu askoren sermoiak zeuden lekutik atera eta bestetara eramanez izan zirela edota sakabanatuta agertu direla, arrazoiak arrazoi. Honek bide ematen digu pentsatzeko gure sermoien bizitza antzerakoa izan zela, bai eta Euskal Herriko eta hemendik kanpoko artxibo eta liburutegi ezberdinetan aurki ditzakegun sermoiena (*SS*, *BFB* eta *BFA* artxiboetan adibidez, aztertugabeko sermoi asko gordetzen dira oraindik; azken honi buruz, cf. Uribeetxebarria 2007), dela dohaintzaren, dela salerosketaren bidez, XVIII-XIX. mende bitartean ordena erlijiosoen komentuetan sorturiko Hegoaldeko ekoizpen aberatsa hara-hona ibili zela erakusten dutenak.²⁵¹

Sermoigintzaren testuinguruan sortu zen gure Dotrinazko Sermoitegia eta, arrazoiak arrazoi, artxibu ezberdinetan aurkitu ditugu zati ezberdina. Sermoigintzaren testuingurua kontuan hartuz egilea giro horren partaide zen ala ez aztertu nahi dugu hemen: ea giroan ziren ideia berriek eraginik izan zuten bere idatzietan, edo nola kokatzen den XVIII. mende amaierako euskal literaturaren testuinguruan. Literatur eragina antzemateko ezaugarriarik begi-bistakoena grafia sistema izan ohi da, bera baita idatzizko tradizio batek izan ohi duen oinarrizko ezaugarrietako bat. Euskal literaturako adibide ezaguna da Probintzian <sh> grafemak XIX. mende bukaeran aurkituriko txokoa /ʃ/ hotsa islatzeko: Donostiko eskolak (Baroja, Soroa, Iraola... cf. Urkizu 2000: 381) XIX. mende bukaeran erabiltzen zuen, eta dirudienez Iztueta-Iturriaga idazle bikotea erabiltzen hasi zen gipuzkeraz. Alabaina, nondik hartu zuten grafia hau? Bada, lehenago Añibarro eta Zabala bizkaitarrek proposaturiko grafia sistematik (Urgell 1987a: 362 e.hh.): bi autore giputzek Zabalaren *Verbo Regular Bascongado* aztertu

²⁵⁰ *Liburuklik* Eusko Jaurlaritzaren errepositorio digitalean Loiolako artxiboko funtsak digitalizatzen eta sartzten ari dira. Hala ere, oraingoz liburu argitaratuz besterik ez dago.

²⁵¹ Esklaustrazioarekin lotuta ez badago ere, esanguratsua da Bizente Sarriaren sermoien historia; izan ere, frantziskotar hau Kaliforniara joan zen predikatzaile, eta hau dela eta, egun haren sermoitegia herrialde horretan dago, Berkeleyko *Bancroft Library* eta Sacramentoko *California State Library* liburutegietan (Etxebarria & Apraiz 2009: 17).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

zuten Gipuzkoako Aldundiaren aginduz, eta baliteke bertan ikusi edota ezagutu izana grafia hau (*ib.* 365).

Hau dela eta, grafia izango da aztertuko dugun lehenengo atala (§ 4.3.2.1). Hala ere, ez da hau literaturaren eragina sumatzeko aukera bakarra: bizkaeraren kasuan, bederen, bestelako berrikuntzak etorri bide ziren XIX. mendean sortuko zen literatur hizkuntza eraikitzen joan zenean. Ikertzeko dago zein ezaugarri izan zitezkeen orduko literatur eraginarekin erlazionaturik; bizkaierazko literatura pil-pilean zegoen momentuan baina, agerian jarri da Añibarrok zenbait erabaki hartu eta hainbat aldaketa egin zituela *Eskuliburuaren* 1802 eta 1821. argitalpenen artean: *RUI* erregela baztertu, bokal bikoitzak ugaltu, *dirian* adizkiaren ordeztu *direan* hobetsi, *eikezu* tankerako aginterazko geroaldiak erabili (2. edizioaren sarreran horren berri emanez)... (cf. Urgell 1985 eta 2012: § 4). Hau dela eta, bigarren atalean (§ 4.3.2.2) bestelako hizkuntz ezaugarrien aztertzeraz joko dugu. Hirugarren atalak egileak egindako zuzenketak izango ditu hizpide (§ 4.3.2.3), gure sermoigilearen hizkuntza irizpideak argitzeko bidea izan daitekeelakoan. Ondoren erator atzizkien azterketa egingo dugu (§ 4.3.2.4), literatur hizkuntzaren garapena eta lexiko berrikuntza elkarrekin loturik doazela kontuan harturik (cf. Lakarra 1985c, 1996 eta Sarasola 1986).

4.3.2.1.1 Grafia sistema eta literatur eragina

Grafia sistemaren azterketaren bitartez egilearen heziketaren berri lortzea, izan ere gramatizazioaren oinarri-oinarrizko kontua da grafia, ikasi egiten den zerbait, eta horrexegatik bakoitzak bere maisua(k) izan ohi ditu. Izan ere, Dotrinazko Sermoitegia XVIII. mendearen bigarren erdialdean kokatu dugularik, ezin dugu esan euskararen gramatizazioaren hastapenetan gaudenik, aitzitik, dagoeneko euskara hizkuntza idatzia da eta, printzipioz, idazten jartzen denari suposa diezaiokegula aurreko lanen baten ezagutza behintzat. Gainera, ezaguna da XVIII. mendearen bigarren erdialdean Hegoaldeko euskal letretan izan zen iraultzaren oinarri eta adierazgarrietako bat idazkera sistema berriztatu eta bateratzeko lehenengo ahalegina dela, euskal hotsak egoki islatzeko berezko grafia eratzeko, eta Hegoaldeko eta lehendik ere Iparraldeko literaturan erabiltzen zen grafia sistema ezberdinak bateratzeko ahalegina (Urgell 2012: § 4.1.1). Larramendi jesuita izan zen horren lehenengo egilea, eta arreta berezia jarri zuen bere idazkietan euskal grafia sistema egoki bat erabiltzeko. Ez zuen lan berezirik

idatzi gai honi buruz, baina bere lanetan hainbat aipamen idoro daitezke grafiaren inguruan; honetaz gainera, bere lanetan grafia sistema trinko xamar bat erabili zuen, hala gramatikan eta hiztegiko euskal adibideak ematerakoan (cf. Urgell 2001b) nola bere bestelako euskal testuetan ere.

Harrezkero, gainerako idazleetan ere grafiari buruzko ardura hau hedatzen da, hauetan ere nola edo hala grafia txukuna erabiltzeko kezka bera suma baitezakegu: Kardaberazek sistematizatu zuen lehenengoz euskal grafia sistema bat *Euskararen berri onak* liburuan (1761), Larramendiri jarraituz batzuetan, baina bere proposamen propioak eginez bestetan. Zehazki neurtu gabe badago ere, bataren zein bestearen proposamenak eragin handia izan zuten ondokoetan, baina eragin hori ez zen eurek proposaturiko grafia erabiltzera mugatu; bestelako eraginik ere izan zuen, gaiari buruzko hausnarketaren beharra sortu baitzuen euskaldunengan, eta honegatik arazotsuen gertatzen ziren puntuetan ondoko idazleek sistema horri hobekuntzak egitera jo zuten (cf. Urgell 2012: § 4.1.1).

Oraingoz ez dago behar bezala azterturik gai hau garaiko lekukotasunetan eta,²⁵² beraz, tentuz ibili behar dugu, baina grafiaren azterketak egiletza frogatzeko eta egile arteko loturak bermatzeko baliabide gisa jadanik fruituak eman ditu garai honetako lekukotasunetan: honela, Azkoitiko Sermoiaren (1737) egiletasuna frogatzeko oinarritzko baliabide izan ziren grafi sistema horren ezaugarriak (Lakarra 1985d: § 2) eta era berean XVIII. mendeko autore ezezagun bat identifikatu du Seguroiak berriki (2004). Idazleen arteko eraginaren berri grafiaren bidez ere lortu zuen Urgellek Añibarroren *Eskuliburua* aztertuz (Urgell 1987a). Euskal testuetatik kanpo ere grafiaren azterketak emaitza oparoak izan ditu testuen arteko erkaketetan: honela Erdi Aroko frantsesean grafia erabiltzea proposatzen da ezaugarri linguistiko bat balitz legez, euren bidez testuak lotuz eta isoglosak markatuz (Dees 1991: 704) eta era berean jokatzeko dute ingelsean ere, herriz herriko grafi ohiturak bilduz, ezaugarri horiek eremua ezaugarritzatzeko baliatzen baitituzte (cf. Bauer 1986: 201); hala ere, jakitun dira ohitura horiek ez direla zertan beste ezaugarri linguistikoak bezain “autonomoak” eta beste grafi sistemen ohituren arteko nahasteak gerta daitezkeela (*ibid.* 203).

²⁵² Euskal grafiaren historia orokorra aztertu ez bada ere, Euskara Zaharrea eta Lehenengo Euskara Modernoan erabili izan ziren sistemen laburpen egoki eta interesgarri bana ditugu *Euskararen historia* liburuak garai hauei eskainitako kapituluetan (Gómez & Mounole 2012 eta Urgell 2012, hurrenez hurren). Hauetaz gainera, zenbait gai zehatz ere aztertu dira: literatur bizkaierazko idazleen sistemarako Altzibar 1992a eta Urgell 1987a; Iparraldeko literaturaren hastapenerako, Mujika 2002.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Honela, saiatuko gara, grafiaren bitartez, gure idazlearen eta garaiko beste euskal idazleen arteko harremanik baden antzematen, orduko euskal liburugintzaz zuen ezagutza antzemateko biderik objektibo eta ziurrena baita gure ustez; eta honen bidez haren kultur testuingurua eta hizkuntzarekiko zituen jarrera eta iritziak antzemateko parada dukegu. Esan gabe doa idazle guztiek ez zituztela garai berriek ekarritako grafia berrikuntzak ezagutu, eta ezagutzekotan ere, guztiek ez zituztela neurri berean aplikatu: izan ere, garai guztietan badira *à la page* egon ohi diren maila bateko idazleak, eta nekezago sartzen dira berrikuntzak idazle xumeen artean.

4.3.2.1.1.1 *Literatur hizkuntzaren grafia berrikuntzak sermoitegian*

4.3.2.1.1.1.1 *Txistukarien islapena*

Larramendi-Kardaberaz grafia sistemaren iraultzarik esanguratsuena txistukarien adiezpenean datza, lehenengoz Hegoaldean frikari/afrikatu oposaketa zuzen islatzeko sistema orokor bat proposatu eta orokor zedila lortu baitzuten. Larramendik Ipar Euskal Herriko autoreek lehenengo testuetarik erabiltzen zuten <t + frikariaren grafia> sistema aukeratu zuen, eta bereziki Leizarragaren <ts> eta <tz> sistematikoa orokortu, <tc> eta <tç> albo batera utzirik (Lakarra 1985d: 243). Baliabide grafiko hori Hegoaldeko zenbait testutan erabiltzen zen ordurako (cf. Ulibarri 2011c: 378), gehienbat erdialde eta ekialdeko idazleetan: Gipuzkoan, zehazki, Otxoa Arinen (1713) eta Irazustaren (1739) dotrinetan (Lakarra 1985d: 243); mendebalderagoko testuetan, ostera, XVI. mendeko Poza (*eriotzea*) eta Mendieta (*jauntçat*) eta XVII. mendekotzat jotzen den *Bulda* (*erijotzeco*, *batzuc*) kendurik, Larramendiz gero baino ez da lekukotzen. 1708ko sermoian oposaketa ez dago islatua (Etxebarria 2007: 69), ezta XVIII. mendearen hasierako gainerako testuetan ere: Orozkoko otoitzak, Arzadun, Barrutia, Urkizu... (cf. Altzibar 1992a: 525). Larramendiren eraginez frikari/afrikatu oposaketa markatzen duten mendebaldeko lehenengo testuak Gandararenak (1757) dira: *otzicaradunic*, *otz*, *utsac*... (cf. Kaltzakorta 1999: 147-149), bai eta, jakina, Kardaberazen bizkaierazko testuak (1763-4) ere.

Literatur gipuzkerazko aurreko liburuen edota Kardaberazen bizkaierazkoen eraginez, Olaetxearen dotrinan (1763) oposaketa islatua denetik eta mende bukaeraraino bestelako testuetan ere aurkitzen da: Garcia de Albeniz (1778; Altuna 1995: 91), Apoitza (1778; cf. Altzibar 1992a: 93), De la Quadra (1784; Bilbao 1997: 255), Oñatiko

eskuizkribuak (ca. 1800; cf. Elortza 1977)... Beraz, badirudi mende bukaerarako irizpide hau nahiko hedaturik zela (cf. Altzibar 1992a: 525). Hedatze honetan eliz idazleak izan dira aurrerakoienak, Larramendiren gomendioak elizgizonek hartu baitzuten lehenik eta nagusiki, sermoigintzaren aitzakia baliatuz (cf. Urgell 2012: § 2.1); honela, jesuiten artean goiz zabaldu zela dirudi (Mendiburu, Kardaberaz, XVIII. m. idazle ezezaguna cf. Segurola 2004...) eta frantziskotarren artean ere, Ubillos edo Palacios bezalakoek²⁵³ jada bere egin zuten afrikari/frikari oposaketa islatzeko grafia, eta Añibarroren lehenengo sermoietarako orokortua zela dirudi. Berdina esan dezakegu Moglez ere, bere lehenengo sermoietan jada *tz* eta *ts*-ak erruz baitira (cf. Altzibar 1991b). Hegoaldeko euskal testu laiko gutxietan, ordea, maila ezberdineko lekukotasunak izanik ere, oposaketa markatu gabe ikusten dugu luzaroen: lan literarioetan, Barrutiak ez du oposaketa islatzen (hala ere, Larramendiren aurreko lantzat hartu behar dela dirudi, cf. Ulibarri 2013: 104) eta ezta Joaquin de Alcibar azkoitiarraren *Grand Tourra* (1772) antzerki lanean (Aguinagalde *et al.* 2007). Lan txikiagoetan, 1754ko Eibarko udal aginduak (cf. Zuazo 2006a: 1008) eta 1766an Azpeitian idatzitako txosten batean ere ez dugu oposaketaren zantzurik (cf. Zapirain & Mora 2003: 433). Mendebalderago, 1770eko Zolloko galdetegi argitaragabeen ere ez dugu horrelakorik (cf. Ros 2004); eta 1805ko Lezamako idien hermandadeko araudira itxaron behar dugu *batzu* bezalakoak aurkitzeko (Ulibarri-prestatzen); ondoko urteetan, J. P. Ulibarri bezalako idazle baten lehenengo lanetan (1814) oposaketa islatzen du (cf. Ulibarri 2011d). Alabaina, egoera hau joeratzat hartu behar da, ez legetzat; izan ere, badira oposaketa grafikoki islatzen duten idazle laikoak: Peñafloidako kondearen *Gabon-sariak* (1762) eta *El Borracho Burlado* operan (1764) dagoeneko bada oposaketa. Kontrara, oposaketa mantentzen ez duten idazle erlijiosoak ere aurkitzen dira, are XIX. mende erdialdean, beherago ikusiko denez.

Grafia sistema berriaren hedatzeak beti dakar asimilazio garai bat: beraz, ez dugu esan nahi egileek oposaketa *beti* islatzen dutenik, baizik eta islatzeko nahia erakusten dutela. Honen lekuko, dugu Agirregoikoa frantziskotarra, sermoi batzuetan oposaketa islatzen du (*eracutsi, eutsan, eriotza...*), baina beste batzuetan grafia frikaria

²⁵³ Ordena honen paperek egoera ñabarragoa erakusten dute, inolaz ere euren sermoiak aztertuago eta eskuragai direlako. Frantziskotarren katalogoan ageri diren sermoi zatietan ikusi dugunez (Etxebarria 2005); predikarien bigarren belaunaldiko (cf. § 4.3.2) Palacios-ek (1727?-1804) eta Garaik (1739-1812) oposaketa ondo islatzen zutela dirudi; Agirregoikoa, bestalde, erdibidean geratzen da: sermoi batzuetan islatzen du (*eracutsi, eutsan, eriotza...*), baina beste batzuetan grafia frikaria erabiltzen du afrikatua adierazteko (*gorpuzeric, deuzagula, vioz*). Hauen aurreko belaunaldiari legokio Ubillos (1707-1789), eta honek ere oposaketa islatzen du.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

erabiltzen du afrikatua adierazteko (*gorpuzeric, deuzagula, vioz*). Honen parean, sistema berriaren asimilazioak dakarren beste ezaugarri bat litzateke frikari/afrikatu oposaketaren hiperzuzenketa grafikoak, Bizente Sarria sermoilariak diosku Zuloagak: “jatorriz —[s]— dagoen lekuan, <z>, <tz>, <c> eta <tc>rekin batera, <s>, <ss> eta <ts> aurkitu ditugu; —[ś]— adierazteko, <s> eta <ss>, baina baita hiperzuzenketen ondoriozko <z> eta <tz>k. Afrikarien multzoan —[ć]— adierazteko <s>, <ss> eta <ts> idatzi zuen Sarriak, baina baita <z> eta <tz> ere; —[c]— adierazteko, azkenik, <z>, <c> eta <tc> erabili zituen” (Zuloaga 2010: 404).²⁵⁴ Txistukarien neutraltze prozesuaren haritik ari bada ere, agerian jartzen du afrikatuak frikari legez adierazten dituela eta frikariak afrikatu legez. Zalantzekin bada ere,²⁵⁵ antzeko zerbait porposa daiteke f. Bartolomerengan diren *vitzi* edo *irabatzi* grafietarako: Mitxelenak (1978a, *OC XI*: 406) ez zuen jakin arrazoia ematen, baina ez ote da afrikatuak islatzeko ohitura faltaren zalantzen adibide izango? Horrelako zerbait planteatzen du Altzibarrek (1992a: 523): “Fr. Bartolomegan zalantzan dabilta, bada, *tz* eta *ts* digrafoak *z* eta *s*-rekin. Egoera zalantzakor bat salatzen dute eta lehenago *c*, *c*, *z* eta *s* afrikatuak irudikatzen ere erabiltzen baziren, adibidez *l*, *n*, *r* ondorik, *ts* eta *tz* hedatuaz joan ahala ez da harrigarri *s* eta *z*-ren ondoan beroriek ere agertzea, hitz berak idazterakoan”. Esan gabe doa egilearen heziketak edo nahiak ere paper garrantzitsua betetzen dutela: hala bada, J. Kruz de Renteriaren euskal testuak, 1860an idatzitakoak izan arren, ez dute oposaketa islatzen (J.M. Etxebarria 1997: 87).

Sermoitegiaren egileak ez du frikari/afrikatu oposaketa islatu ohi (§ 4.2.1.4); hala ere, *atsegin* hitzaren bi adibide izango testuan (107), eta biak ala biak <ts>z idatzita daude. Hau ikusita, gure ustea balitz ere idazleak ez duela afrikatuak islatzeko baliabiderik edo ez duela adierazteko beharrik sumatzen, gutxienez onartu beharko genuke hitz hau nonbait irakurri eta grafiaren zergatiari arrazoirik bilatu gabe bere horretan kopiatu duela. Horrelaxe, erabaki dugu Olaetxearen Dotrinatik hartuak dituela zenbait pasarte (ik. § 4.3.1.1) eta beraz, gure egilea garaiko euskal lanak eta idaztancerak eragutzen zituela nahiz eta erabili ez (§ 4.3.3.1).

²⁵⁴ Mitxelenak (1978, *OC XI*: 406) ez zuen jakin frai Bartolomeren *vitzi* edo *irabatzi* grafien arrazoia ematen; ez ote da afrikatuak islatzeko ohitura faltaren zalantzen adibide izango? Horrelako zerbait planteatzen du Altzibarrek (1992a: 523): “Fr. Bartolomegan zalantzan dabilta, bada, *tz* eta *ts* digrafoak *z* eta *s*-rekin. Egoera zalantzakor bat salatzen dute eta lehenago *c*, *c*, *z* eta *s* afrikatuak irudikatzen ere erabiltzen baziren, adibidez *l*, *n*, *r* ondorik, *ts* eta *tz* hedatuaz joan ahala ez da harrigarri *s* eta *z*-ren ondoan beroriek ere agertzea, hitz berak idazterakoan”.

²⁵⁵ Beranduegi izan daiteke horrelako zalantzak izateko (Mogelek eta Añibarrok euren lanak argitaratu dituzte jada), eta gainera f. Bartolome ez da nolana hiko idazlea.

Halaber, ikusi dugu apikari/lepokari oposaketa adierazteko interesik edo beharrik ere ez duela, garaiko mendebaldeko idazleek ez bezala (Añibarro, De la Quadra, Sarria...). Areago, gure idazleak oro har <s> baino ez dakar seitan bost txistukari adierazteko, hots, /tʃ/-z beste guztiak; eta gure ustetan, <z> hizkiaren gaztelaniazko /θ/ ahoskerak grafia hau txistukaritzat hartzea eragotzi egin zuen, eta ezagutzen zuten txistukari grafema bakarra, <s>, hedatu behar izan zuten sabaiaurreko afrikatuaz beste txistukarietara (cf. § 4.2.1.4). Hala ere, baditu <z> eta <c>dun zenbait hitz (§ 4.2.1.4): hauetako batzuk Olaetxearen dotrinatik kopiaturiko pasarteetan dira (*celangoac*, *cetan*, *ce* edo *celan*; cf. § 4.3.2.4) baina besteen jatorria ezin izan dugu aurkitu; guztiarekin, gizona irakurria zela adieraziko lukete grafiok, eta (oharkabeen beharbada) hitzak liburuetan ikusi zituen bezala itzuri zitzaizkiola. Agertzen dituen hiperzuzenketa batzuek ere (*ecuci* ‘ikusi’ eta *goze* ‘gose’), apikari/lepokari oposaketa ezagutzen zuela behintzat pentsarazten digute. Gogora dakar Mogelek idatzitako hau:

...son pocos los vascongados que escriban debidamente. He leído manuscritos de algunos predicadores en los que alocuciones bárbaras, al monstruoso conjunto de voces castellanas y vascongadas, unían una indecente escritura sin distinguir la sa de la tza, la s de la z, el ia del ja, ¿es de admirar que los extraños tengan alteraciones? (ap. Altzibar 1992a: 506, 637. oh.; azpimarratua geurea [K.U.O.]).

/ʃ/ren adierazpenean <x> zerabilen tradizioak, gaztelaniaz letra horrek noizbait izan zuen ahoskeraren bidetik (ik. § 4.2.1.4),²⁵⁶ baina XVIII. menderako <x> grafema /x/ ahoskerarekin lotzen zen, gaztelanian /ʃ/ > /x/ aldaketa gertatua baitzen (Urgell 1987a: 360 e.hh.). Larramendik <is>, <sy> edo <iss> grafiak erabili zituen hiztegian,²⁵⁷ Mendiburuk ere bezala (<iss> eta <is>); Kardaberazek, orduko “arauemaileak”, <ŷ> eta <ŷs> proposatu zituen horretarako (*EBO* 25).²⁵⁸ Agirre Asteasukoak, bere aldetik, <s>

²⁵⁶ Iparraldean <ch> eta <x> grafiak zituzten, frantses eta biarnes grafia sistemei esker (cf. Mujika 2002: 205).

²⁵⁷ Azken kontsonante bikoitz hori erdal <ll>ren irudira egin zuen nolabait, cf. Mitxelena 1978, *OC XI*: 404 e. hh.

²⁵⁸ Dena dela, baliteke Kardaberazek <s> eta <ss> proposatu nahi eta tipografoek bihurtu izana s horiek <ŷ>, orduko ohituraren arabera. Hala balitz, <ŷ> ez litzateke grafia bereizgarri bat Kardaberazaren sisteman (Urgell 2012: § 4.1.1). Hala ere, ohar honetan beste aukera bat proposatu nahiko genuke, Kardaberazek eskuizkibu batean (ca.1762) hauxe idazten duelarik:

“Lo 7.º, noté al último repaso que las voces *aññ*, *oiña*, etc., no tienen necesidad de la *i* y suple la vírgula de la *ñ*. Lo mismo es para *gaissoa*, *aissea*, *orisse*, etc., y suple bellamente la virgula sobre la *s* para las dos *ss*, sin *i* como en *ñ*. (sp. Tellechea-Idigoras 1968: 10)

Honela, hitzotan egungo <x> adierazteko *s* gaineko birgula bat erabiltzea proposatzen duela dirudi (ondoren Agirre Asteasukoaren antzera), beraz, *EBO*-ren *s* altua beste modu batean uler daitezke:

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

ondoko bokala tilaturik ematen du (i.e. *gosô*); Mogelek ere <(i)s> eta <(i)ss> erabiltzen ditu, eta frai Bartolomerek <ix> eta <is> (Urgell 2012: § 4.1.1).

Alabaina, gure sermoitegian ez da hots hau zuzen islatzeko gorabehera eta kezka hauen berri sumatzen: aitzitik, <s> hutsa erabiltzen da hots honetarako ere, dakigunez. Hala ere, behin *gasho* dugu (hasiera batean *gaso*, eta gero gehitu zaio *h*). Baliabide hau Añibarrok eta Zabalak orokortu zuten euren idazkietan 1820. urte inguruan, lehenengoaren *Eskuliburua*-ren bigarren edizioan (1821) ikusten denez, baina badirudi lehenagotik zetorren aukera dela, aurreko belaunaldiko Palacios komentukideak (1762an joan zen Zarautzera eta 1804an hil, cf. Villasante 1961: 21) erabiltzen baitu bere sermoitegian (Urgell 1987a: 363, cf. Etxebarria 2005: 630 e.hh.). Euskal Herriko leku gehiagotan han-hemenka aurkitzen du Urgellek nola edo hala <h>z eraturako baliabideak: Gamiz (<hs>, ca. 1760), Zaraitzuko dotrinak (XIX. mende amaiera)... Urgellen datu hauek, eta orain gainera dakizkiekeenek, erakusten dute Bizkai aldean bederen nolabaiteko indarra izan zuen baliabidea dela.²⁵⁹ Gandarak (1757-1768), adibidez, <xh> erabiltzen du (*auxhe* ‘hauxe’, *Muxhila* ‘Muxila’, *mexhu* ‘mexu, maisu’...) eta, are adierazgarriago, 1770ko Zolloko galdetegian *cashacas* ‘kaxakaz’ dago. Hurrengo mendean, J. P. Ulibarrirenak bide diren 1814ko gabon kantetan hizpide dugun hotsa adierazteko <x> tradiziozko grafia dago (*guizaguexo*, *alfroxa*...), baina 1815. urteko *Egunare Eusquerazco*-an *aizhe* ‘haixe, haize’ dugu jada eta ondoko *Gutunliburua*-n (1823-c.1840) <hs> eta <sh> darabiltza *elexa* hitzean eta eratorrietan sistematikoki (behin aurkitu dugu, *elexatia* ‘elizatea’), bestelako hitzetan <x> erabili ohi duen bitartean: *gaxo*, *baxen*, *exituarrac* ‘ijitoak’... (behin *mushila*).²⁶⁰

4.3.2.1.1.1.2. <y> grafia

Añibarro-Zabalaren 1820. urte inguruko grafia sistemak plazaratu zuen beste berrikuntza bat <y>ren hedatzea izan zen. XVIII. mendera arte bokal arteko eta beheranzko diptongoetako [j] hotsa <y> grafiarekin islatzen zen, baina hitz hasieran

EBO-ren eskuizkribuan Kardaberazek birguladun *s* bat idatzi zuela (<š> zein <š̃>) eta tipografoek halakorik ez zutenez, <j>rekin konpondu zutela.

²⁵⁹ XVIII. mendeaz ari gara, noski, gauza ezaguna baita ondoren bizkaiko mugak pasatu zituela eta Donostiko eskolak (Baroja, Soroa, Iraola... cf. Urkizu 2000: 381), XIX. mende bukaeran, baliatu zuela <sh> grafema hau /ʃ/ hotsa islatzeko (cf. Urgell 1987a: 362 e.hh.).

²⁶⁰ *Gutunliburuan* ez dira bakarrik Ulibarriren gutunak biltzen; eta horregatik <sh> oro har besteek idatzitako gutunetan ditugu oparoen: Juan Mateo de Zabalaren (*ishilic*, *iñosh-iñosh*, *bashen*...) eta Ignazio Mendizabal inprimatzailearen gutunetan (*gueishoric*, *gueyshago*...), alegia.

gehienbat <j> grafia aurkitzen dugu (Kapanagarenean <i> da erabiliena hitz hasieran, ik. Ulibarri 2010: 52). XVIII. mendean hitz hasierako *j hotsak hizkera zenbaitetan hartu zuen [x] ahoskera belarearen (cf. § 4.2.1.3) aurka idatzi zuten orduko euskaldunek, erdaratik harturiko ahoskeratzat joz (cf. *EBO*: 24); eta ortografiaz gogoetan hasi ziren Hegoaldeko idazleek ardura hartu zuten, dela <j> grafemak gaztelaniaz adierazten zuenaren eta euskaraz adierazi behar zuenaren arteko aldeagatik dela hizkeren arteko ahoskera ezberdintasunagatik, hots hauek islatzeko baliabideak topatzen. Honela, Larramendik, grafia tradizionalari atxikirik, <j> grafia proposatzen du latin erara ahoskatu behar zela arautuz (ik. *FHV* § 9.3); Kardaberazek, ordea, <i> idatzi behar zela aldarrikatu zuen (Urgell 1987a: 371). Kasu honetan, oro har, Larramendiri jarraitu zitzaion, eta <j> erabiltzen jarraitu zela dirudi²⁶¹ are eta Añibarroren Eskuliburuaren 2. ediziora arte.

Bizkaiera kontu honetan zatiturik agertzen da 1821etik aurrera Añibarro-Zabalaren proposamenagatik (Altzibar 1992a: 500), baina, dena dela, proposamena ez dirudi orduan sortu zenik; aitzitik, ematen du XVIII. mendean zehar Bizkai partean bederen izandako berrikuntzen gailurra dugula, eta erabilera lehenagotik zetorrela erakusten digu ez bakarrik sermoitegi honek (§ 4.2.1.3), baita ere bestelako testuek ere.

Lan luzeago baten gaia litzateke <y> grafiaren historia berregitea, tartean grafiaz kanpoko arrazoi fonetikoak (*j-ren ondorenen ahoskera ezberdinak, alegia) nahasten baitira; hala ere, zenbait zertzelada emango ditugu. Hasteko, badirudi grafia testuinguruz testuinguru zabaldu zela: (1) bokal arteko testuinguruan betidanik izan da <y> (cf. adibidez, *RS*-eko *naya* ‘nahia’, *leya* ‘izotza’, *leyoe* ‘liezaiote’...); beraz, (2) bokal epentetikoa markatzeko ere erabiltzera hedatzea naturala baino ez zen: grafia honen lehenengo adibidea 1734an egin eta Gernikan dagoen kanpaia baten inskripzioan aurkitu dugu: “zeuc enzunago *eriyozea* davcazu urrago” (Arana Martija 1984: 505); garai bertuko Urkizuk (1737), ordea, <i> darabil kontsonante epentetikoak diruditenak adierazteko (*andiià, izerdi-ia*... cf. Altzibar 1992a: 52) eta XVII. mendeko *Buldak* <j> grafiari datxekio epentesientzako. Ondoren, (3) *j-ren ondorengoak adierazteko erabiltzen hasi zen, eta dagoeneko Gandarak (1764) erabiltzen du: *yaquin, yatorria, yacaz*... (cf. Kaltzakorta 1999) eta baita 1770ko Zolloko galdetegiak ere: *yacasan, yaquin*...

²⁶¹ Olaetxeak, lehenengo ediziotik Larramendiren bidea jarraitzen du, baina amaierako *Abisua*-n diosku: “*Jangoikoa, Jesus, Jabea, Jarri, Janzi, &c.* eskribidu dira *J. Agaz* bada batzuk esaten dabe *Iangoikoa, Iesus, Iabea, &c.* eta *J. agaz*, nai batera, nai bestere esango da.” (1763: 167).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

<y> apurka-apurka zabaldu zen, bada, eta garaiko idazleen grafia ohikoenak, azaleko begirada batean, <j> izaten jarraitu zuen luzaro: Oñatiko eskuizkribuetan <j> eta <ViV> (*jasoteco, jaateco, leialtasuna...*; Elortza 1977: 188); eta Markinako eskolakoez ere, erabilera tradizionala erabiliz, <j> dute hitz hasiera eta epentetiko adierazteko: Mogeldarrak, Astarloarrak, frai Bartolome... (Altzibar 1992a: 475 e.hh. eta 497 e.hh.); bokal artean, bestalde, oro har epentesiaz, eta ondorioz *VijV*, ageri dute: *sustraija, leijala, barijeku, jaijegun...*

Añibarro eta Zabalaren ordenakideen artean badirudi <y>ren erabilera lehenagotik hedatuz joan zela: De la Quadrak <j> darabil testuinguru guztietan: *arerijo, andija, josiric, jan...* baina *zatiya* edo *areriyo* ere badarabil, baita *urtayera* ere (cf. Bilbao 1997: 288). B. Sarriak <y> eta <j> grafiak erabiltzen ditu: epentesiak adierazteko bata zein bestea (cf. Zuloaga 2010: 399); hitz hasieran, ordea, aldizkatze bat aurkitu dugu:²⁶² <y> indikatiboko NOR-NORI laguntzaileetan: *bayaque, yazu, yaco...* eta bestelakoetan idazkera tradizionala oraindik: *jaquin, jatunac...*

Honek gauza argi bat erakusten digu, beraz: <y>ri dagokionez Añibarro-Zabala grafi-sistema ez zen hutsetik hasi eta aurretik zetorren tradizio batetik edan zuen, eta badirudi tradizio hori badirudi frantziskotarretatik inondik baino errazago lekukotzen dela, bi idazleek sistematiko bihurtu zutelarik.

4.3.2.2. Literatur hizkuntzaren bestelako ezaugarriak

4.3.2.2.1 Singular/plural oposaketa grafikoa genitiboan

Mendebaldeko literatur hizkuntza eratzeko hartu ziren erabakien artean ezagunena da XVIII. mende erdialde hartan hasi zela genitibo singularra adierazteko *-aren* atzizkia sistematikoki erabiltzen (Urgell 2012: § 4.3.1.2), Kardaberazek bizkaierazko *Debociño batzuc* (1764) liburuan aldeztu zuen bezala, eta dudarik gabe honen eraginez:

Eun, da zazpi urte da, gure Aita Ripalda famaduaren Dotrina, Licenciadu Capanaga Mañarico Sacerdote Jaunac, Bizcaico Eusqueran atara ebalá. An dacust, celan emeco gure modura verba asco usetan, ta acabetan dituan. An dacust, celan ederto baten

²⁶² Honetarako Etxebarria & Apraizen edizioko (2009) lehenengo sermoia baino ez dugu aztertu; beraz, oso behin-behineko baieztapena baino ez da hau. Bestalde, sermoiak liburuan grafia gaurkotuan direnez, CD-ROMeko transkribapenak erabili ditugu.

diñoan; *Curutce Santearen: Aitearen, ta Semearen, Jaungoicoaren: Aita gurea: gure, zure, Aitea, ta Semea, ta besteac:* eta laburrago, ta obeto escribietan, ta usetan dira.

Orañ eun, da zazpi urte leguez, gaur bere guztioac esatea, errazoe da: *Aitearen, Semearen, Curutzearen*, ac diñoan leguez, beste verbetan bere, articulo, edo arteco *ren* usadu bear da. Eta nolan *Jaunari, Semeari, Gizonari*, ta orrelan guztietan esatendan; alan *Jaunaren, Semearen, Gizonaren*, eta beste guztietan orrelan beti esatea obago da. Erregla au da, persona, edo gauza bat, singularlean, Gramaticac diñoan leguez, esaten danean. Baia pluralean, edo asco diranean, esan bearda: *Jaunen, Guizonen, Semeen*, eta onelan escribidu, ta pronunciadu bear dira. (Kardaberaz 1764: 4-6)

Izan ere, ordura arte Bizkaian ez zen genitibo singularra idatziz pluralekotik bereizi ohi. Castañosek erakutsi bezala (1957), XVIII. mendea baino lehen bizkaieraz²⁶³ genitibo singularrak *-aren* forma orokorra izan beharreak *r* gabeko *-aen* forma zuen gehienbat (cf. § 4.2.2.3), eta horren ondorioz, *aiten* bezalako forma batek plurala ‘aiten’ zein singularra ‘aitaren’ eman zezakeen aditzera, eta hau arazotsua izan zitekeen, noski, *Aitien, Semien, Espiritu Santuen izenian* bezalako formuletan herejia legez ulerbaizitekeen. Horrela, singular vs. plural bereizketa idatziz jasotzeko behar teologikoak eraginda mendebaldeko euskarazko literaturan *-aren* forma osoak erabiltzen hasi ziren. Mende bat beranduago ideia bera errepikatzen da 1862an argitaratu zen Gatzagako Dotrinaren sarreran (Uribe-Etxebarria 2011: 144):

...eztogu guc erri onetan esaten *Aittiaren, eta Semiaren, eta Espiritu santuaren icenian; Jangoicuaren gracia; Espiritu santuaren doyac; Ceruaren eta lurraren criadoria;* eta bai *Aitien, eta Semien, eta Espiritu santuen icenian; Jangoicuen gracia; Espiritu santuen doyac; Ceruen eta lurren criadoria.* Eguixa dixo zu, alaxe da. Bana, nola *Aittiaren, eta Semiaren, eta Espiritu santuaren icenian; Jangoicuaren gracia; Espiritu santuaren doyac; ceruaren eta lurraren criadoria* esanaz, edo letraz ifinita, argui ta garbi aiqetan emoten dan *Aitta* bat bacarra, *Seme* bat, *Espiritu santu* bat, *Jangoico* bat, *ceru* bat, *lur* bat dala guc orduan orrela esanaz edo escribiduta goguan daucaguna ta aiqetan emon gura doguna; eta *Jangoicuen <6> gracia, Espiritu santuen doyac etc.* esanaz edo escribiduta elitzaquian ain argui ta garbi aiqetan emongo *Jangoico* bat bacarra, edo bat bano gueixago, *Espiritu santu* bat bacarra, edo bat bano guexago dan guc orduan goguan daucaguna, edo aiqetan emon gura doguna; orregaitic, erraquetaco onic inori ez emotearren, ifinten da cartilla onetan *Jangoicuaren, Aittiaren, Semiaren, Espiritu santuaren etc.*

²⁶³ Castañosen entzat *bizkaiera* zenean, alegia (cf. § 2.2.1).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Kardaberazek 1764an idatzitakoak nolabaiteko aztoraldia sortu zuen mendebaldeko literaturan, ordutik aurrera idazleek haren arauaren araberaidazten hasi baitziren: dagoeneko De la Quadraren obretan (1783-1784) eta Oñatiko eskuizkribuetan genitibo singularra eta plurala ezberdintzeko joera badago (*Jaquinvidearen, josijaren, santiaren...* ditugu lehenengoan, cf. Bilbao 1997: 286, eta *eriotzaren, Diabrubaren* aurkitu ditugu bigarrenean, Elorza 1976), bai eta B. Sarriarenetan ere, XVIII. mende akabuan (Zuloaga 2010: 410).²⁶⁴ *-aren* formaren aldeko lerratze horrek, dena dela, apurka-apurka gertatu zela dirudi: hernaniarraren dotrinaren data bertsean argitaraturiko Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioek behintzat, ez zuten berrikuntza jaso. Gure sermoitegiak ere egoera zaharra erakusten du eta *r* gabeko genitibo singularrak dira erabiltzen dituen guztiak, salbuespen bakarra *aren Dibine Magestadea* (40-111) esaldian dugu; badirudi esapide ezagun eta erabilia izanik (beste hirutan *oen dibine magestadea* ageri da), posible dateke inon irakurria izateagatik horrela ekartzea, lehen *atsegin* hitzarekin gertatu bezala (cf. § 4.3.2.1.1.1.1); kasu honetan ez dugu esapidea aurkitzerik izan *EKC*, baina de la Quadrak badu “*aren Divina magestadea*” hemen bezala (in Bilbao 1997: 296), eta interneteko bilatzaile batek beste hainbat testu txikien lekukotasuna eman digu.

4.3.2.2.2 Bokal-eufoniak

Altzibarrek dakartzan datuen arabera (1991a: 262-3 eta 1992a: 476), badirudi *-uba* eta *-ija* epentesiak eta, oro har, “Markinako eufoniak” (Zabalari jarraiki “Markinako sistema” deituko duguna) XVIII. mende hartan ugaltu zirela. Eufonia hauek ($a + a > -ia$; $e + a > -ia$; $i + a > -ija$, $o + a > -ua$; $u + a > -uba$) XVII. mende bukaeratik (*Bulda*) aurrera hasten dira lekukotzen bizkaierazko testuetan, (cf. Lakarra 1985a: 1052; *-uba-rako*, ik. Ros 2011: 393), eta sendotuz eta osatuz joan ziren bilakabide hauek XVIII. mendeko testuetan zehar: Urkizuren obretan, 1737ko *Errosario Santubena* delakoan eta erdaraz idatzirik *Novena* liburuaren amaierako euskarazko zortzikoetan, sistema berriaren hastapenak ikusten ditu Altzibarrek (1992a: 476), jada *-uba*, *-ija* eta *-ia* (< *ea*) eufoniak aurkitzen baitira. Gainera, XVIII. mendeko ondoko

²⁶⁴ Baliteke ezaugarri hau orduan sortu bide zen forma osotuagoak (eta ondorioz, zaharragoak) erabiltzearen aldeko joerarekin lotu behar izatea (cf. Urgell 2012: § 4.2); joera honen araua da herriak erabiltzen zituen forma laburtuak ondoko usteldurak direla eta idazteko orduan baztertu beharrekoak.

liburuak azterturik (De la Quadra-ren obra, Bermeoko *Errosariyo edo Coroa Santuba*,²⁶⁵ Oñatiko eskuizkribuak...), Altzibarrek hau ondorioztatzen du:

Beraz, badirudi, bizkaiera idatzizko tradizio sendo baten faltaz *ea, ia, oa, ua* zaharragoen ordeaz *ia, ijV^(a,e,o,u), ua, ubV^(a,e,o)* nagusituaz doazela apurka apurka XVIII. mendean, sakoneko arrazoiak garbi ikusten ez ditugun arren. Nolanahi ere, Kardaberazen *ea, ia, oa, ua* erabat aldatzen ditu Tolosako edizioak, jatorrizko grafia horietatik aldeniuz [hots, Tolosako edizioak Kardaberazen *ea > ia, ia > ija, oa > ua* eta *ua > uba* aldatzen ditu] (1991a: 263).

Une batetik aurrera, gainera, lekukotasunek erakusten digute *-uba* bederen bizkaieraren bereizgarritzat jo izan zela Bizkaitik kanpo: Larramendik eta Kardaberazek bizkaitarren hizkeraz hitz egiterakoan behintzat horrela jokatu zuten. Lehenengoak *De la Antiguedad* (1728) liburuan, hikako formez ari dela, esaten digu “En el Bizcaino, *ecárten-déuvat, ecárten-déuzc, ecárten-déuvagu, ecárten-déuve*” (134) formak erabiltzen direla, *v* epentetiko batez; eta, are interesgarriago dena, erabili ere erabili zuten Gandarari bizkaieraz idatzi zionean (*Orra bucatu dot cutun necagarri hau zeuven escaraco verbaegaz*; Kaltzakorta 1999: 145). Bigarren idazleak, bere aldetik, *EBO* liburuan Elorrioko²⁶⁶ andre baten hitzak islatzen dituenean (Altzibar 1991a: 262-3 eta 1992a: 476).

Beraz, Urkizuren obrek erakusten dutenez eta Larramendi eta Kardaberazen aipamenak kontuan harturik, badirudi Markinako sistema apurka-apurka bizkaieraren bereizgarritzat jotzeraino hedatu zela XVIII. mende hartako hizkuntza giroan: De la Quadraren lanetako hizkerak *ea > ia, oa > ua* eta *-uba* eta *-ija* epentesiak islatzen ditu, eta argitaratzaileak gaztigitzen digunez Bermeoko hizkeran Uriartek ez du *-uba*-rik lekukotzen mende bat beranduago²⁶⁷ (Bilbao 1997: 256). Garai bertsuko Sarriaren obretan ere badira *-uba* eta *-ija* adibideak, eta hizkera aztertu duenaren aburuz “pentsatzekoa da, kasu honetan [*-uba*, alegia] ere, (baina, kontuz, ez sermoi guztietan) Bizkaiko ekialdeko autoreren batek etxebarritarra “kutsatu” egin zezakeela” (Zuloaga 2010: 399). De la Quadraren eta Sarriaren idazkietan *-uba*-ri buruzko baieztapen bera ez

²⁶⁵ Altzibarren garaian ez zen ezagutzen honen alerik; baina azalaren traskribapenak lagunduko zion zenbait ezaugarri arakatzen (*errosariyo, moduba*...). De la Quadraren argitaratzaileak (Bilbao 1997: 255) ez du bazterten liburuxko honen egilea De la Quadra bera izatea. Bilbaok liburua aurkitzeko zuen itxaropenak (Bilbao 1997: 255, 10. oh.) fruituak izan ditu, eta honen edizioa prestatzen dabil egun.

²⁶⁶ Bonaparteren datuen arabera Elorrion ez zen halakorik bere garaian (Elordui 1995: 443).

²⁶⁷ *-uba* epentesian kronologi ezberdintasuna argi uztea bestelakoetan baino beharrezkoa da; izan ere, lekukoturik baitago epentesi hau agertuz eta desagertuz joan zela Euskal Herriko leku gehiagotan (cf. Hualde & Gaminde 1997: 221; Orozkoren kasurako, ik. Camino 2009: 338)

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

da egin *-ija-ri* buruz, euren herriko hizkeretan (Bermeo eta Etxebarri hurrenez hurren) Bonapartek lekukotzen baitu. Euskal idazlanez gainera, garai bertsuko Iturriza historialariari ere antzeko irizpideak antzematen zaizkio Ibaguen-Cachopinen (XVI.-XVII. mende bitartean ondua) kronikako Andramendiko eskriturak kopiaztzean: jatorrizkoa (Arriolabengoa 2008: 116-117) eta Iturrizaren transkribapena (Mitzelena & Bidegain 1954, *OC XI*: 209) erkaturik, egiazta daiteke aldaketen artean eufoniak direla: **aa (> ea) > ia (Elexearen > Elexiaren)*; *ea > ia (garreanean > garrenian, semeac > semiac)*, *ia > ija (barriacas > barrijacaz)* eta *ua > uba (burua > buruba)*.²⁶⁸ Giro horren barruan Añibarrok epentesien eta, oro har, eufonien aurka egin arren (Altzibar 1992a: 478),²⁶⁹ indarra hartu bide zuten eta P. Astarloak, XIX. mendean, Markinako eufoniok “konsagratzen” ditu Bizkaiko ebakeraren ezaugarritzat: honela, bere obretan zehar “la *j* [de *Arija* ‘hilo’] es letra dialéctica que los Bizcainos interponen” (Apol. 412) edo “*Ego* que los guipuzcoanos... pronuncian *Egoa* y los bizcainos *Egua*” (ap. Altzibar 1992a: 479, 617. oh.) bezalako esaldiak aurkitzen ditugu; halako esaldiengatik nonbait, idatzi zuen Zabalak “las marquinesas, llamadas por el señor Astarloa vizcainas” (1848: 54).

Hau ikusita, guk ere, Altzibarri jarraikiz, pentsatzen dugu, garai batean behintzat, eufoniok idazte-tradizio baten barruan egileek harturiko ohitura bat izan zitekeela. Honek, noski, ez du esan nahi ezaugarri hauek oinarri fonetikorik gabekoak zirenik, garaian Juan Antonio Mogelek, Añibarrok eta Mateo Zabalak aitortzen baitute ahoskatu ahoskatzen zela Markinan eta Bizkaiko leku askotan (ap. Altzibar 1991a: 263), bai eta Bizkaitik kanpo ere; halako eufoniak Azkoitiko Joaquin de Alcibar-Jauregiren *Grand Tourra* (1772) antzerkian ere baditugu (Aguinagalde *et al.* 2007), esate baterako.

Nolanahi ere, ama-hizkera edo islatu nahi duten herriko hizkeraren ezaugarriak zirenak zirela ere, eufoniok bizkaieraz *idazteko* orduan erabili beharreko ezaugarria izateraino helduko zen; eta gure hipotesia zuzena bada, lehendik zetorren idazte ohitura hau XIX. mendean sorturiko literatura argitaratura heldu zen eta horregatik idazle

²⁶⁸ Iturrizaren transkribapen honetaz jadanik Mitxelena konturatu zen: “estos documentos, tal y como aparecen en Iturriza, pueden representar el habla de Bériz o, mejor, el dialecto literario de fines del siglo XVIII” (Mitzelena & Bidegain 1954, *OC XI*: 221). Hitz hauetatik eratorritzen denez, Iturrizak testua moldatu zuela jakitun zen hernaniarra, bere garaiko euskarara hurbilduz. Halaz ere, konparaketa honetan datu asko falta zaizkigu; adibidez, ea Iturrizak zuzenean ikusi ote zuen *IC* kronika edo inoren bitartez (Mogel?) heldu ote zitzaion? Edota, inoren bitartez jaso bazuen, ea transkribapen hutsa jaso zuen eta berak moldatu edo moldaketa bere informanteak egin ote zion? Alabaina, adibide honetan argi ikusten da garaiko giroan eufoniok zuten indarra bizkaieraren ezaugarritzean,

²⁶⁹ Cf. Markinaldeko idazleen *-uba* fonetismoari buruz diona: “siguiendo a lo más general de Pueblos bascongados, omito dicha V”. (ap. Urgell 1985: 88)

zenbaitek sasoiko moldeen arabera erabiliko zituzten eufoniak, eta ez dugu zertan ekialdeko hizkera baten eragina antzeman behar (cf. Zuloaga 2010: 399, 15. oh.). Eufoniak erabiltzeko giroa egokia zela gero eta argiago ageri bada ere, literatur hizkuntzaren eraginez erabiltzen zirela behin betiko frogatzeko egiazko aukera bakarria bere hizkeragatik halakorik espero ez dugun autoreetan ere aurkitzea litzateke.²⁷⁰ Modu honetan, esanguratsua da epentesi eta eufonia hauek Añibarroren lehenengo sermoietan aurkitzea (cf. Etxebarria 2005: 182), Arratian halakorik espero ez baita Zabalaren (1848: 55) eta Bonaparteren (Elordui 1995b) datuen arabera. Egia da berehala baztertu eta bere liburu argitaratueta hauen kontrakorik sutsuena bihurtzen dela (Altzibar 1992a: 476), baina proposa dezakegu lehenengo idazkietan tradizioari jarraitu ziola, eta ondoren bere estiloa garatu zuela. Honekin batera, beranduagoko lekukotasuna bada ere, aipatzekoa da Laudioko abadeen aginduz 1828an argitaratu zen dotrinak ere *-iya* epentesia dakarrela sistematikoki (Urkijo 1994: 33), Laudioko bestelako lekukotasunek *-ie* dakartzaten bitartean.

Sistemak zer-nolako bilakabidea izan zuen ikusteko aukera eskaintzen digute Olaetxearen dotrinaren lehenengo argitaralditik (1763) hurrengoetara egin ziren aldaketek ere: lehenengo argitalpenean (1763) eufoniarik ez omen dira, baina bigarreanean (1774) nahi adina *-uba* aurki daitezke (Altuna 1995: 92, 26. oh.). Ondorengo argitaraldietan, sistema osatu zen: 1780ean *-ea* > *-ia* gaineratzen zaio, eta 1787an *-ija* epentesia eta *oa* > *ua*. Olaetxearen bizitzan argitaratu zen azken edizioan, 1794koan, sistema indartu egin zen adibideak gehituaz (Altzibar 1991a: 263).²⁷¹ Mogelek berak bilakabide honen aldeko datuak ematen dizkigu: “Adibidez, J. A. Mogelen hasierako sermoietan (1772 inguruan) agertzen ez badira ere, bai geroagokoetan, *uba* aurrena, eta Markinako iturriko laukoetan (1787). Edozein modutan ere haren liburu ospetsuak [*Confesiño onac, Peru Abarka*] baino lehenagokoa da” (Altzibar 1991a: 263). Azken datu hauek erakusten dutenez, kontua ez da bakarrik herrian *-uba* (edota *-ija*) egiten ez zuten idazleek idatziz erabiltzea. Aitzitik, badirudi garbi dagoela Euskara Zaharreko testuetan horrelakorik ez zegoenez, euren herriko hizkeran *-uba* edota *-ija* zutenei ere (Mogeli, kasu honetan) kostatu egin zitzaie

²⁷⁰ Ez dugu ahaztu behar lehen bilketa dialektologiko orokorrak Bonaparteren garaikoak direla, XIX. mende erdialdekoak, eta guk ia mende bat lehenagoko egoera arakatu nahiko genukeela; hala ere, arazoak arazo eta azterketa berezi baten esperoan, lehenengo hurbilketa bat proposatuko dugu lerrootan.

²⁷¹ Gandararen idazki ezberdinetan ere antzeko bilakabiderik bada: idazle honen hastapenetako lanen eta 1768koen artean (**aa* >) *ea* > *ia* eta *ia* > *iya* aldaketez jabetu da Ensunza (2010: 10). Datu hauek, baina, ezin ditugu aurrekoak bezain fidagarritzat hartu, arrazoia fonetikoa izan baitaiteke: egungo Gernikan diren *-ie* eta *-iya* formetara heltzeko tarteko pausutzat har daitezke (horrela interpretatzen ditu Ensunzak), eta ez aldaketa grafiko edo estilistikotzat.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

horrela idatz zitekeela pentsatzea. Baina behin bizkaierazko literatur hizkuntzaren ezaugarritzat hartuz gero, errazago jasoko dute, baita berez horrelakorik ez zutenek ere.

Datu guzti hauek kontuan hartu, Dotrinazko Sermoitegiaren egoera puntu honetan zein den azter dezakegu. Testuan ageri den eufonia bakarra *-iya* da, eta ugari gainera (§ 4.2.1.8): bai artikularen eraginez sortzen denean, baita bestelako testuinguruetan ere, baina ez dago *-uba* epentesirik. Datu hauekin ezin dugu jakin eufonia hau hizkeratik edo literaturatik datorren, baina aipagarria da *i + o* testuinguruan epentesidun *-iyo* (*areriyoen, oriyoa, deiyogun, auxiliyo...*) eta *-iu-* izatea (*biutaric, viciu, deguiula...*). Inoiz hitz berean emaitza biak ager daitezke: *viciyo / viciu, demoniyo / demoniu...* (ik. § 4.2.1.8), baina ez da **-iyu* bezalako edo antzeko tartekorik. Bi emaitzen elkarbizitza baztertzen ez badugu ere, beste aukera bat litzateke bere *idazmoldean i + o* testuinguruan *iyo* eta *iu* lehian egotea: lehenengoa garaiko literatur giroaren eraginez eta bigarrena bere herriko hizkeraren eraginez. Hipotesi hau indartuko luke *guliyen* (46-14) adibidea, non epentesia *i* ez etimologiko batean agertzen den (*guleen > gulien > guliyen*), eta beraz, hiperkarakterizazio bat izatea (dakigularik, ez da euskara guztian ***etxiya* lakorik aurkitzen), egilearen hizkeran guztiz ezaguna ez zen ezaugarria zelako, nonbait.

4.3.2.2.3 RUI erregelaren islapena

Añibarrok literatur hizkuntzatik baztertzen dituen bere jaioterriko hizkeraren ezaugarrien artean *RUI* erregela dugu; txokokerien aurka eta eredu zabalagoari lotzen zaiolarik, argia da *Eskuliburuaren* 1802ko edizioan berariaz alde batera utzi zuela, baten bat itzuri zitzaion arren; alabaina, adibide bakan horiek ere 1821ekoan desagertu dira (Urgell 1985: 99). Añibarroren testigantza hau berankorra da gure sermoilarien lanarekin konparatzeko; hala ere, ez dira ugari *RUI* erregela idatziz jasotzen duten testuek. Mendebaldeko lekukoetara mugaturik, ezaguna da XVII. mende hasierako *VJ*-n eta 1739ko Orozkoko erreguetan ere adibide oparo ditugula (*VJ*-en egoerarekin konparatzeko modukoak; cf. Ulibarri 2010: 56-7).

XVII-XVIII. mendeetako bestelako lekukoetan, baina joeratzat baino ezin da hartu erregela, eta badirudi egileek baztertzeko nahia erakusten dutela. XVII. mendeko Buldan nahi horren erakusgarria genuke: idazlearen hizkeran *RUI* erregela bazen, horren adibide gutxi batzuk baititu; alabaina, itzurtzen zaizkion hiperzuzenketak

bereziki erakutsiko bide liguke idazleak erregela jaso nahi ez zuela (Lakarra 1985a: 1052). Antzeko zerbait topatzen dugu 1770ko Zolloko galdetegi argitaragabeen (cf. Ros 2004: 241): oro har, *RUI* erregela islatzen dituzten adibideak gutxi dira testu honetan (baina testuinguru orotako adibideak daude), eta tartean hiperzuzenketa bat ere bada (*daquianay* ‘dakiteinei’). *RUI* erregela islatzea joeratzat du baita 1708ko sermoiak, non argitaratzaileak itxidura honen arrastoak idoro dituen (*aiteren, gorpuzegaz...*; Etxebarria 2007: 69), baina kontrako adibide ugariren aldean, lehenengo orrialdean bertan: *discipuluaq, oguia, andiaq, ichasoa...* Antzekotsua dugu Etxebarriko Sarriaren sermoiak (“joeraz bai, baina arau eta sistematikotasunaz ezin hitz genezake” cf. Zuloaga 2010: 402) bai eta Añibarroren *EL*-ren lehenbiziko edizioak (cf. Urgell 1985: 99) ere.

Ikus dezakegunez, *RUI* erregelak islatzen dituzten testu guztiak ere ez dira erabatekoak; aitzitik, ematen du islatzearen aurkako joera bat egon zela (ziurrenik hizkera arteko prestigioarekin lotua, behinik behin), eta dirudienez gure sermoigileak, lehenago *Viva Jesus* dotrinaren eta Orozkoko erreguen idazleek bezala, edo ez zuen joera hori ezagutzen, edo ez zuen aintzat hartu (§ 4.2.1.7).

4.3.2.2.4 Bokalko bikoitzen islapena

Modu berean, badakigu *Eskuliburuaren* 1821eko edizioan, lehenengoan ez bezala, Añibarrok bokalko bikoitzak ugariago darabiltzala: lehenengo edizioan (1802) leku-kasuetan eta genitiboan baino ez ditu bokalko bikoitzak; bigarren edizioan, baina, beste testuinguru batzuetara ere hedatu zituen: *aaztu, beera, batzaar, eguinbaacoc, adicunaac, biotzketaac...* (Urgell 1985: 100-1), ziurrenik Mogekek eraginda (cf. Urgell 2012: § 4.2; bokalko bikoitzaren erabilera literatur bizkaieran, ik. Altzibar 1992a: 417-454). Badirudi, beraz, bokalko bikoitzon erabilera literatur erabaki bat izan zela bilaroztarraren idazte ereduaren, garai horietan forma osoagoak erabiltzeari eman zitzaien bultzadarekin lotu beharrekoa (Urgell 2012: § 4.2).

Añibarrok egindako aukera honek baina, badu antzekorik bere garaiko beste idazle zenbaiten lanetan ere: Sarriaren testuetan bokalko bikoitzak agertzen dira, eta aztertzailearen hitzetan, “...ez dirudi etxebarritarrak erabili zituen bokalko bikoitz gehienak grafiatik haratago doazenik”, eremu eta garai bertsuko beste lekukotasunek lagun (Zuloaga 2010: 400). Hauek azaltzeko beste autore batzuen eragina proposatzen

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

da, Bizkaiko ekialdeko autoreena, alegia, eta oso adibide gutxi eta ez-sistematikoak izatea darabil bermetzat.²⁷²

Gure ustez, orain arte garatzen ari garen hipotesiaren ildotik, agian garaiko joeraren pean idatzi zuela pentsatzea hobetsiko genuke ez autore bat(zu)en eraginean zuzenean. Izan ere, badirudi lekukotasun hauen aurreko garaietan bokal bikoitzen adierazpena galdurik zela Añibarrok berrezarri zituen testuinguruetan behintzat; honela, *EKC*-n *zaar* eta *aaztu* Mogeletik aurrera lekukotutzen da mendebaldean, eta XIX. mendean askotan dugu, honen ildotik nonbait; aurreko garaiko Olaetxeak eta Kardaberazek, ostera *zar* eta *aztu* darabilte euren dotrinetan, lehenengoak *suur* ere lekukotzen badu ere. Antzeko emaitzak lortu dugu baita *-aac* bezalako bukaerekin, ez Olaetxeak ez Kardaberazek ez dituzte halakorik euren dotrinetan.

Gure sermoitegian bokal bikoitzen egoera konplexua da (§ 4.2.1.5), baina badirudi egileak garaiko beste egileen (Olaetxea, Kardaberaz) egoera erakusten duela: egiantzekoa da pentsatzea ahozko hizkeraren gauzatzea dela, eta horregatik ez zuela bokal bikoitz batzuk islatzeko beharrik ez ohiturarik. Honela, garaiko inon beste lekukoetan ez diren bokal bikoitzez gainera, esan dezakegu zenbait hitz berezietako, genitibo singularreko eta bestelako deklinabide kasuetako bokal bikoitz “modernoagoak” bai islatzen dituela, eta islatzeko nahia erakusten duela (Olaetxearen *deungen* > *deungueen* lekuko; cf. § 4.3.2.4). Zaharrenak bide direnak (*jaan*, *zoor* bezalakoak edo *h*, *d* > \emptyset -tik datozenak, salbu *leen*) baina, ez ditu islatzeko beharrik (cf. Olaetxearen *suur* > *sur* ‘sudur’ cf. § 4.3.2.4), ahozkoan galdurik dauzkalako ziurrekin, eta berrezartze grafikorik gabe ematen ditu.

4.3.2.4 Eratorbidea eta literatur hizkuntzaren sorrera

Logikoa den bezala, hitzen lehenengo agerraldien maiztasuna idatz tradizioen “urrezko aroekin” areagotzen da edozein hizkuntzatan (Iparraldeko eta bizkaierazko literaturaren datuetarako, cf. Sarasola 1997: 624-628). Literatur hizkuntza bat sortzerakoan, hiztunak erronka berrien aurrean jartzen dira, besteak beste eguneroko

²⁷² De la Quadraren idazkietan (1784), adibidez, *aa* eta *oo* adibideak badira, argitaratzailearen aburuz hiperzuzenketak (Bilbao 1997: 258); beraz, berriro ere izango genuke berriazko erabileraren adibide bat. Hala ere, De la Quadra bilbotarra izanik, bermeotarrek eskaturik bertoko hizkeran idazten bide zenez, kasu honetan hiperzuzenketak Bermeoko hizkerarekin zituen zailtasunak adieraz ditzakete, eta ez besterik.

hizkuntzan erabiltzen ez ziren kontzeptuak izendatu beharrean (Lakarra 1985c: 29). Halakoetan, idazleak bi aukera ditu: edo ordura arteko kultur hizkuntzatik hitzak mailegatu, edota bere hizkuntzan leudekeen sorbideak erabili, dagoeneko Larramendik argi adierazi zuen bezala (Larramendi 1754, ap. Urgell 2012: § 2.2), eta horregatik idazkera jasoaren eta hitz eratorrien eta elkartuen ugaritasunaren artean lotura hertsia dago (ik. Lakarra 1995b: 32): euskaraz 1601-1650 bitartean ugaltu ziren gehien, hots, lapurtar klasikoek euren lanak argiratu zituzten epean, hain zuzen (Sarasola 1997: 635). Era berean, XVII-XVIII. mendeetan loratu ziren euskal hiztegiak eta gramatikariak ere (Urte, Pouvreau, Harriet, Larramendi...; cf. Lakarra 1995b) hitzak sortzeko euskararen baliabideak aztertu eta landu beharra aintzat hartu zuten,²⁷³ eta ondorioz, literaturak, eratorri eta elkartuen bidez, egiten zebilen lexiko berrikuntza indartuko lukete hiztegiak, eta hauek literaturari sortzen zaizkion behar berriak asetu (lexikografoak eurak, beste idazlanetan ere horietaz baliatu ziren; Pouvreaux, ik. Lakarra 1995b: 13 eta Larramendiz, Lakarra 1985c: 28).

Badirudi beraz, egoeraren sinplifikazio bat eginez noski, hasiera batean literaturatik hiztegietara doazela hitz berriak, eta ondoren hiztegiak eurek hasiko dira literaturan eragiten hitz berrien hedatzean (cf. Urgell 2003: 209). Hau argiki dakusagu Pouvreauren (ca.1650) hiztegian, Etxagibelek frogatu bezala (2014) aurreko lanen ustiaketa eginez taxutu baitzen hein handi batean, edo Larramendiren hiztegian, hitzaurrean bertan dioskunez: “he leído con toda reflexión los Libros Bascongados, que llevo citados, apuntando con prolixidad todas las voces Bascongadas, y sus significaciones, para ponerlas después en el Diccionario” (*HH* liii).

Hartu-emanen hurrenkera hau, baina, aldatu egin zen nolabait Lehen Euskara Modernoan: aurrekoek argitaragabe utzi behar izan zituzten beren gramatika eta hiztegiak,²⁷⁴ Larramendik, aldiz, gramatika eta hiztegia argitaratzea lortu eta gero hasi ziren idazleak Hegoaldeko literatura bultzatzen (cf. Lakarra 1985c: 31), eta aski frogaturik dago azkar sartu zela baita Iparraldeko idatz tradizioan ere (Padilla 2011: 92). Beraz, hiztegiakaren ideiak eta proposamenak dira hegoaldeko literatur hizkuntzaren

²⁷³ Izan ere, gramatikaren parte da hizkuntzak lexikoa sortzeko dituen baliabideak azterzea; hau dela eta, hiztegia gramatikaren atal baten hedaduratzat jo dezakegu, hitzen osaerarena, alegia (cf. Lakarra 1995b: 30).

²⁷⁴ Gehien bat Iparraldean gertatu zen (Etxeberri biak, Pouvreau, Bela, Urte...), baina ez dugu ahaztu behar hegoaldean ere izan zirela Landucci edo Oianguren bezalako hiztegiak, argitaragabe gelditu zirenak. Argitaragabe geratzeak, noski, ez du esan nahi ez zirela erabiliak: Etxagibelek frogatu du, beharko litzatekeen azterketaren hasikina baino ez bada ere, Pouvreauren eskuizkribuak (agian baita hiztegia ere, beraz, elkarrekin gorde baitira) ezagutu zituztela geroko batzuek, artean Xurio, Haraneder eta Harriet, beharbada (Etxagibel 2014: 336-344).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

oinarri; baina honek ez du esan nahi idazleak *HH*-ko hitzak erabiltzera mugatu zirela, aitzitik, egileek eurek hitzak sortu zituzten beharraren arabera, Larramendiren ereduai zeharka baizik obedituz: Mendibururen kasua da ezagunena (Mixelena 1982b, *OC XI*: 477), baina bestelakoak ere badira (ik. Urgell 2012: § 4.5).

Larramendiren jarrera ezaguna da: “mailegutza eta sorkuntzaren artean erdibidea bilatu nahi zuen, hots, maileguak onartu beharrekoak direnean, baina ahal den gehiena hizkuntzaren sormena sustatzea lehenetsirik, euskalki batekoak edo besteak bakarrik izan arren noizbait euskaldun guztion ondarekoak izan ziren hitzak berreskuratzea aiantzi gabe” (Urgell 2003: 205). Alderdi praktikotik, ez zituen maileguak txartzat hartzen, beti ere mailegua euskaraz ordura arte adierazi ez zen kontzeptu berri bati zegokionean, edo euskal erroko hitzen artean ordainik bazuen ere jadanik hura baino hedatuago edo ezagunago zenean (Lakarra 1985c: 40). Bestelakoetan, hasiera batean maileguen beharra onartzen zuen, baina hauekin batera euskal kideak erabiltzeari zeritzon biderik zuzenena, eta azken hauek pixkanaka-pixkanaka erabiliak eta ezagunak egingo zirenean erdal maileguak baztertzeko aukera izango zutelakoan (Urgell 2003: 206).

Larramendi jakitun zen horrek denbora beharko zuela (cf. Larramendi 1745: xlix), baina ezaguna da baita ondoko idazleek edota lehenagoko testuen berrargitaratzaileek irizpide hauek bere egingo zituztela hein batean edo bestean (Irazustaren dotrinaren edizioen arteko ezberdintasunez, cf. Lakarra 1985c: 43); honela, testu baten literatur hizkuntzarekiko zorra ezagutzeko biderik errazen eta nabariena da andoaindarrak lexikoan zer nolako eragina izan duen neurtzea (cf. Urgell 2012: § 4.5.1.1). Lexikoa zaintzeko ardura hau ez zen idazle jasoetan bakarrik igarri: aitzitik, bigarren mailakoetan ere antzeman daiteke (adibidez, Agirre Oikiako eta Lariz; Lakarra 1985c: 45), bai eta *HH*-ren ostean bizkaieraz idatzi zuten idazleengan (Gandara, De la Quadra...; *ibid.* 50), literatur gipuzkeraren beste zenbait ezaugarriekin batera (grafiak, genitiboaren bereiztea...).

Gure sermoitegian, oro har, mailegutza da nagusi, bai hitz bakunetan (*sabio, pecadore, criyadore...*), baina baita izen abstraktu eta adizlagunetan ere, non *-dade* edo *-mente* atzizkidun maileguak diren. Hala ere, euskal atzikien bidez osatutako hitz gutxi batzuk badira. Honako hauek dira testuan zehar aurkitu ditugun atzizkiak: *-gin*, *-(k)era*, *-(k)eria*, *-kizun*, *-kuntza*, *-le*, *-oso*, *-tasun*, *-ti*, *-tsu*, **-tzaie* eta *-zale*. Aipagarria da Larramendik emankor bihurtu zituen atzizki askoren adibiderik ez izatea: *-dura*, *-to*, *-kor*, *-koi* eta *-tzaile* (Urgell 2003: 218); azkena da deigarriena, *-tasun*-ekin batera *-tzaile*

baita atzizkirik ugariena euskara historikoan (cf. Urgell 2003: 221). *-mendu* atzizkia berriz, Larramendiren aurreko literaturan indarrez zebiltzana (Urgell 2003: 220), *-mintu* aldaerapean ageri da sermoitegi honetan ugari; hala ere, adibide guztiak mailegu egokituak dira, ez euskararen barruan sorturiko hitzak: *pensamintu*, *entendimintu*, *movimintu*...

Hemengo helburua ez da izango hitzak sortzeko erabilitako arauak eta irizpideak osoki aztertzea, ez eta hitz hauen sortzaile idazlea bera den edo ez erabakitzea, honetarako zeharka datu batzuk ageriko badira ere, baizik eta haien erabilera miatzea. Hau lortzeko, ezer baino lehen; testuan diren hitz eratorrien tradizioaren laburpen bat egingo dugu. *-tasun*-en eratorriek, duten maiztasunagatik eta ekar ditzakeen beste argibideengatik, ondoren aztertuko dira.

Hitzen tradizioaren laburpen legez taula bat dakargu: honetan hitza eta agerpen data erakutsiko dugu, bai eta Larramendi aurreko erabilera zehaztu: Iparraldean bakarrik erabili bazen halaxe esango dugu, eta hegoaldean ere lekukotua bada, zein egilek erabili zuen adieraziko. Larramendiren autoritatea ekarriko dugu ondoren, *HH*-k hitza dakarren hala ez ikusiz, eta azkenik 1745-1825. urte bitartean hitzak izandako erabilera erakutsiko dugu, mendebaldeko idazle garrantzitsuetako zeintzuek erabili zuten bilduz, *OEH* eta *EKC* lagun. Amaitzeko, sermoigileen erabileraren autoritate legez Añibarroren *Voces Bascongadas (VB)* ere ekarri dugu. Oro har, zerrendaren erkaketa errazteko, Dotrinazko Sermoitegiaren aldaera bakarrik izan dugu kontuan; alabaina, zenbait kasutan beste aldaera orokorrago baten berri ematea egoki iruditu zaigu. Kasu hauetan, erreferentzien aurretik jarri dugu aldaera, parentesi artean.

Hitza (data) ²⁷⁵	L. aurreko tradizioa	HH	L. osteko idazleak (1745-1825)	VB
<i>behargin</i> (1596)	RS.	Ez	<i>msOñ</i> , Mg., Añ, VMg., J.J.Mg., Astar., Zav.	Bai
<i>bakezalea</i> (~1660)	Iparraldean bakarrik	Bai	Añ.; (<i>pakezale</i>) CatBurg., Cb., Mg.,	Bai

²⁷⁵ Data gehienak *Euskal hiztegia*-tik hartuak dira (Sarasola 2007); eta hiztegi honetan ageri ez diren hitzei guk esleitu diegu data, *OEH* eta *EKC* begiratzuz.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

<i>errezki</i> ('dudarik gabe' *~1800)	Ø	Ez? ²⁷⁶	Cb?, ²⁷⁷ Añ, Mg., Izt.	Ez?
<i>Biraoti</i> (1800)	Ø	Ez	Mg., Añ, fB, Astar.	Ez
<i>jakintsu</i> (1545)	Iparraldean bakarrik	Bai	Cb, Mb., Añ, Mg., AA., Gco., Astar., JJMg, Zav.	Ez
<i>eskakizun</i> (*1905, 1818 "eskatzekoa")	Ø	Ez	fB.	Ez
<i>bakoso</i> (ø; <i>bakeoso</i> , *1653)	Mic, (<i>bakeso</i>) Cap.	Ez	(<i>bakeso</i>) Oe	Ez
<i>edal(l)e</i> (1643)	Iparraldean bakarrik?	Bai	Cb, Mb., Mg., AA, Astar	Bai
<i>emaie</i> (ø; <i>emaile</i> 1571)	(<i>emaile</i>) RS, Isasti.	Bai?	(<i>emaile</i>): Cb, Mb., Añ, Mg., AA., Gco., Astar., JJMg, Zav	Bai?
<i>errakuntza</i> (*~1800)	Ø	Ez	Mg., Añ., Zav., Izt.	Bai
<i>haserrakuntza</i> (*~1800)	Ø	Ez	Mg., Añ., Zav.	Bai
<i>atzerakuntza</i> (1802)	Ø	Ez	Mg., Añ., Zav., Astar., <i>CatLlo</i>	Ez
<i>estukuntza</i> (1821)	Ø	Ez	Añ, Zav., Izt.	Bai
<i>zorakeria</i> (*1745, 1761)	Ø	Bai	Cb., Peñafl., Mg., Añ., AA., Zav., JJMg., fB. Astar., J.C.Etxeberria	Bai
<i>hordikeria</i> (1571)	Iparraldean bakarrik	Bai	Cb., Mb., Ub., LE., Mg., Añ., AA., Gco., JJMg., fB. Astar.	Bai
<i>lapurreria</i> (*1745, 1800)	Ø	Bai	Cb., Mb., Oe., LE, Mg., Añ., AA., fB., Astar...	Bai
<i>arpeleria</i> (*1800?; <i>alperkeria</i> , 1596)	Ø	Bai?	(<i>alperreria</i>) Mg, Añ, JJMg, Zav.	Bai
<i>ikaragarri</i> (1665)	Iparraldean bakarrik	Bai	Lar., Mb., Cb., Oe, Mg., Añ, Astar., JJMg, Zav., <i>CatLlo.</i> ,	Bai
<i>admiragarri</i> (1686)	Iparraldean bakarrik	Ez	LE, Oe,	Ez
<i>miragarri</i> (1571)	OA	Bai	Cb, Mg., Añ, Zav, JJMg., Astar., <i>CatLlo.</i> ...	Bai
<i>lastimagarri</i> (1636)	Iparraldean bakarrik	Ez	Cb, LE.,	Ez
<i>engañagarri</i>	Iparraldean bakarrik	Ez	Cb., Añ, AA., JJMg., J.C.	Ez

²⁷⁶ Honetan eta VB zutabeetan *Ez* eta *Bai* galdera markarekin ager daiteke: honekin adierazi nahi dugu, *Ez*-en kasuan, hiztegiak forma hori lekukotzen duen arren ez duela sermoitegian ageri duen adiera berean agertzen. *Bai*-ren kasuan, bestalde, galdera markak adierazi nahi du hitza eta adiera baduela, baina sermoitegikoaren berdina ez den aldaera batean.

²⁷⁷ Hernaniarraren *Historiak esaten digutena gogora ekarri, ta egiak balio bear badu errazki esango degu, oriek baño desgraziatugorik, sortu ta jaio ezta* (1762) adibidea dakar *OEH*-k (s.v. *errezki* 2).

(1643/1816)			Etxeberria	
<i>ekuskarri</i> (‘ikuskizun, ikusgai’ *1745, 1761)	Ø	Bai?	Mb., JJMg.	Bai?
<i>akabera</i> (1713)	OA, Iraz,	Bai	Lar., Cb, Añ, Zav., <i>CatLlo</i> .	Bai
<i>ezauera</i> (‘ezagumena’, ~1750)	Ø	Bai?	Mg., Añ, Zav, Astar., <i>CatLlo</i> ,	Bai
<i>urteiyera</i> (<i>urtaiera</i> *1800?)	Ø	Ez	(<i>urtaiera</i>) Cb, JJMg.	Bai
<i>urteikera</i> (1932)	Ø	Ez	Ø	Ez
<i>auskera</i> (1930)	Ø	Ez	Ø	Ez
<i>jauskera</i> (ca.1808)	Ø	Ez	Añ (<i>MisE</i>), Astar (<i>ap. H</i>) ²⁷⁸	Bai
<i>sartzaikera</i> (XV. ea; <i>sartzaiera</i> , 1656)	IC, (<i>sartzaiera</i>) Cap.	Ez	(<i>sartzaiera</i>) Peñafiorida, Añ., <i>CatLlo1</i> ,	Bai?
<i>galtzaiera</i> (1803)	Ø	Ez	Añ.	Bai
<i>galtzaia</i> (1821)	Ø	Ez	Añ.	Ez

Datuok atzizkika behatuz, zenbait kasutan hitz bakarrean baino ez dugu delako atzizkia: *behargin*, *bakezalea*, *errezki*, *biraoiti*, *jakintsu*, *eskakizun* eta *bakoso*.²⁷⁹ Testu batean adibide bakarrean agertzen diren atzizkiez atera daitekeen lehen ondorioa eta ziurrena, hauxe da: idazleak hitza bere horretan ezagutu bide duela, atzizkia duela igerrri gabe agian, eta nolahi ere, itxuraz atzizkia ez dela emankorra berarentzat (cf. Urgell 2003: 219). Honela hitz hauetako batzuk sermoitegiaren aurretik lekukotuak dira (*behargin*, *bakezale*, *bakoso* eta *jakintsu*) eta hauek, printzipioz, ahozkotik hartuak direla pentsatu beharko genuke. Besterik dirateke *bakezale* eta *jakintsu*, bizkaieraz XIX. mendean ageri baitira estreinekoz, beste euskalkietan lehenagotik lekukotzen diren bitartean; beraz, hauen ezagutza libururen baten bidez izatea ezin da baztertu. *Jakintsu* hitzean, gainera, grafiak iturri idatzi bat iradoki dezake, agerraldi guztietan <j>z idatzirik baitago, egileak *jakin* eta bere bestelako eratorriak <y>z idazten dituen bitartean (§ 4.2.1.3).²⁸⁰ Mogel eta Añibaroren lanetan ditugu lehenbizi *errezki* eta *biraoiti* eta ondoko Frai Bartolomerengan *eskakizun*.

²⁷⁸ *OEH*-k ez du zuzenean aipatzen, Harrieten hiztegitik baizik (honegatik alboko parentesiak). Guk, gure aldetik, ezin izan dugu aipua aurkitu *EKC*-ean.

²⁷⁹ Hauei agian *tretoso* ere gehi geniezaioke, gartzelaniaz ez baita lekukotzen (*CORDE s.v.*) eta, beraz, edo oso dialektala da edo euskararen barnean sortu da, euskal erabilera ondo dokumentaturik duen *-oso* atzizkiaren bidez (atzizki honek euskararen duen historiaz, Villasante 1974b: 114).

²⁸⁰ Lehenago *atseguin* hitzean gauza bera jaso zaigu; *jakintsuren* kasuan, tamalez, ezin izan dugu iturri zehatzik topatu: XVIII. mendeko literaturan Mendiburuk eta Kardaberazek askotan darabilte (99 eta 33

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Behin baino gehiagotan agertzen diren atzizkiak dira *-le*, *-kuntza*, *-(k)eria*, *-garri*, *-(k)era*, *-tzaie* eta *-tasun*. *-le* atzizkia bi hitzetan kausitzen dugu, *edale* (eta *edalle*) eta *emaiyele* (*sic*, cf. edizioa), eta aldaerak gorabehera biak idatzizko tradizioaren hastapenetik lekukoturik daude Euskal Herri guztian. Hitzokin, beraz, ezin da inolako ondoriorik atera; alabaina, nabaria da ordurako fosildurik zela atzizkia, *-tzaile*-k lekua hartua ziolarik, eta Larramendik berreskuratu zuela *ardanle* ‘vinatero’, *apainle* ‘adornador’, *arraunle* ‘remero’ edo *agerle* ‘manifestador’ bezalako hitzetan (Urgell 2004: 579; ik. baita Urgell 2003: 227); hau aipagarria da, noski, gure egileak ez duelako *-le* larramenditar berriaren alerik.

Larramendiren itzaletik aldentzen gaitu *-kuntza* atzizkiak ere (*errakuntza*, *haserrakuntza*, *atzerakuntza* eta *estukuntza*): *HH*-n ez dira (cf. Lakarra 1995a: 55), baina “nabarmena da [*-kuntza* bidezko eratorriak] literaturan eta ahozko hizkuntzan bizi zirela” (Urgell 2003: 219) eta Añibarroren eta Mogelen garaian hasten dira lekukotzen. Hitzon berezitasuna, baina, hitzen nolakoan dago, gehienak izen abstraktuak baitira, eta ez atzizkiak jatorrian adierazten duen ‘ekintza/ondorioa’ (oinarrian aditza izateak iradokitzen duenez). hemen lekukotzen den ‘ekintza/ondorio’ > izen abstraktu urrats hau, beraz, badirudi izen abstraktu gehiago behar zituzten sermoilariak eragitea; eta horregatik gure sermoilariak, Mogekek eta Añibarrok erabili dituzte.

-(k)eria atzizkiaren adibideek (*zorakeria*, *ordikeria*, *lapurreria* ‘lapurreta’ eta *arpeleria* ‘alferkeria’) gure sermoitegiaren garaitsuan agertzen dira estrainekoz: *ordikeria*, badirudi Larramendik ekarri zuela Hegoaldera, Iparraldean Leizarragaren testuetatik hasi eta lapurtera klasikoko literaturan zehar lekukoturik dagoen bitartean, Hegoaldea XVIII. mendearen bigarren erdialdean agertzen hasten baita. Beste batzuetan Larramendiren jarraitzaileen batek sorturiko hitza izan daiteke, *alperreria* legez, lehenago lekukotzen zen *-keria* atzizkia *-eria* bidez aldatuz (cf. Urgell 2004: 567).²⁸¹

lekukotasun biltzen die *EKC*-k, hurrenez hurren); eta idazle txikiagoen artean, Ubillosek ere sei agerraldi ditu.

²⁸¹ Zerrendatik kanpo utzi ditugu *errateria* ‘rateria’ eta *tapizeria* ‘tapiceria’ mailegu zuzenak, guztiz bigarrena, noski, beste adiera bateko *-eria*-rekin eratua baita. Besterik da *sisañeria* ‘bazter-nahasketa’, ez baita halakorik lekukotzen ez euskal, ez erdal tradizioan (cf. *CORDE*, s.v. *cizañería* eta *OEH*, s.v. *zizaña*); beraz, aurreko oharreko *tretoso* legez, edo erdaraz oso dialektala den hitza dugu, edo euskararen barnean sortua.

Atzizkiaren jatorriari buruzko Larramendiren ideiak ere eragina izan dezake halako hitzak mailegatzeko orduan: “En que se conoce que del *queria*, que es la terminación Bascongada, se pegó al Castellano solamente el *eria*” (*HH* cxlviii; ap. Urgell 2004: 566).

-garri atzizkiaz sorturiko *ikaragarri*, *miragarri*, *admiragarri*, *lastimagarri* eta *engañagarri* lapurtera klasikoan agertzen dira *OEH*-ren arabera; Hegoaldean baina, *miragarri* Larramendi aurrekoa dugu baina *ikaragarri* *HH*-tik sartu bide da, honen egileak berak erabiltzen duela. *lastimagarri*, *engañagarri* eta *admiragarri* ez dira *HH*-n, baina ondokoei (Kardaberaz, Olaetxea, Añibarro) ekarri zituzten mendebaldera. Gure galdera beraz, hau litzateke, Nondik ikasi zituen gure egileak? *admiragarri*-z esan dezakegu Olaetxea izan zela bidea, bere dotrinatik harturiko pasarteetan baitugu (ik. § 4.3.2.4). Atal beretik *ikaragarri* ere kopiatu zuen, baina honekin ezin dugu baieztapen bera egin, gehiagotan ageri baita testuan barrena. Gure egilearen eta *HH*-ren zorraren froga genuke izango litzateke *ekuskarri* hitzak duen ‘ikuskitun, ikusgai’ esanahia, Larramendik hiztegian estreinekoz esleituriko esanahia delako.

-(k)era atzizkiari dagokionez, -era eta -kera alomorfoak ditugu. Lehenengo alomorfoaz dugu *akabera*, *ezauera*, *urteiera* eta bigarrenaz *urteikera*, *auskera* eta *jauskera*. Goiko taulan ikusi denez; lehenengo gipuzkerazko testuetan dago Larramendi aurretik, eta honek biltzen du bere hiztegian, baina ez da mendebaldean aurkitzen Kardaberaz edo Añibarroren lanetara arte. Literatur bizkaieran lekukotzen da baita *ezauera*, lehenago (beste adiera batean) *ezaguera* zelarik eremu honetan (*OEH*, s.v. *ezaguera*). Kardaberaz lanetatik dugu bizkaieran *urteiera* hitza, *urtaiera* aldaeran, eta literatur bizkaieran ezaguna izango da. Sermoitegi honetan ageri diren -kera-dun aldaerak, bere aldetik, oso data goiztiarrean ditugu: *jauskera* dugu literatur bizkaieraren testuetan aurkitzen den bakarra, *urteikera* eta *auskera* XX. mendeko obretan baikenituen orain artean.

Hauen pareko dira -tzaikera eta -tzaiera (cf. -tzaite aditzizena, § 4.2.3.2) atzizkien bidez sorturiko *sartzaikera* eta *galtzaiera*. *Sartzaikera* dagoeneko XV. mendean dugu (*Arrasateko erreketak* ca.1448), baina testuetan den formarik lekukotuena *sartzaiera* da (*OEH*, s.v. *sartzaiera*). *Galtzaiera*, ordea, forma honekin Añibarrok baino ez du *VB* hiztegia; *Eskuliburu*-an, *galtzerak* (2. edizioan *galtzaieak* da; formaren inguruan, ik. § 4.2.5) eta *galtzaerea* erabiltzen ditu (*OEH*, s.v. *galtze*).

Orain artean ikusi dugunez, eratorpeneko adibideek bat egiten dute Larramendiren inguruan sortu zen mugimenduari, hein batean behintzat: *HH*-ren bidez Hegoaldera helduriko zenbait hitz (*ordikeria*, *ikaragarri*) eta adiera (*ekusgarri*) biltzen ditu gure idazleak; bestetik ondorengo bizkaierazko literatur mugimenduari lotzen dute -kuntza adizkidun hitzek. Hala ere, idazleak hitz eratorriekiko jarrera

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

ikusteko beste baliabidea dugu *-tasun* atzizkian, esan bezala besteen aldean ugariago lekukotzen baita, zehazki 39 lema ditu sermoitegi honetan.

Atzizki hau da 1700. urtea baino lehenagoko testuetan izen abstraktuak egiteko baliabide nagusia da (cf. Lakarra 2003: 384), eta hain da erabilia ahozko hizkeran ze hiztegian gutxi garatu zuen (gramatika baliabide nagusia zela esan eta gero, Urgell 2003: 220), jakintzat eman zezakeelako. Aspaldiko erabilera horren adibidea dugu *nagitasun* (Betolazarenetik ezaguna, hegoaldeko dotrina gehienetan dugu: Kapanaga, Otxoa Arin, Irazusta, Burgosko dotrina, Kardaberaz, Olaetxea²⁸²...). Hegoaldean 1745etik aurrera baino aurkitzen ez direnak ere badira, horietako batzuk lehenago Iparraldeko literaturan erabiliak dira, besteak inon ez, baina eguneroko hizkuntzan maiz erabiltzen diren oinarrien gainean eratuak diren heinean (eta atzizkiaren bizitasuna kontuan harturik) ez da erraz jakiten ahozkotik hartuak diren edo bestelako iturri batetik.

Datuok argitu aldera, aurreko hitzekin bezala, hemen ere taula batean jarriko ditugu *-tasun* atzizkidun hitzak, euren tradizioa laburbiltze aldera: Horretarako, lehen bezalako taula bat atonduko dugu, hitza eta lehen agerperaren datarekin, *HH*-ren aurreko zein egileek erabiltzen dituzten zehaztuz. Ondoren *HH*-n baden edo ez esango dugu, eta hurrengo zutabeen 1745. urtearen osteko erabiltzaileak bilduko ditugu.

Hitza (data)	L. aurreko tradizioa	<i>HH</i>	L. osteko idazleak (1745-1825)
Edertasun (1571)	Lç, EZ, Ax, ES	Bai	Lar., Mb., Añ, VMg., AA, Dh, Astar, Lard, Dv
Itsutasun (1571)	Lç, Ax., Gç, Ch	Bai	Lar., Mb., Cb, Lg, Mg, LE, Añ, fB, Lard, Dv, Ag,

²⁸² Hau ikusita, aipagarria gertatu zaigu ikustea mendebaldeko dotrina zaharretan Pekatu Buruen zerrendetan euskal hitz bakarra *nagitasuna* dela: (1) “Ielengoa Soverbia. Bigarrena, Avaricia. Yrugarrena, Luxuria. Laugarrena, Irea. Bostgarrena, Gulea. seygarrena, Imbidia. Zazpigarrena, Naguitasuna.” (Bet 14); (2) “1. Sovervia. 2. Auariçia. Yrugarrena, luxuria. Laugarrena, yrea. Bostgarrena, gulea. Seigarrena. ymbidia. 7. naguitasuna.” (Cap 14); (3) “Ilenengoa, Sobervia, Bigarrena, Avaricia. Irugarrena, Luxuria. Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Envidia. Zazpigarrena, Naguitasuna.” (CatV: 55); (4) “1. Soberbia. 2. Abarizia. 3. Luxuria. 4. Ira. 5. Gula. 6. Enbidia. 7. Nagitasuna.” (Olaetxea 1763: 46). Antzera aurkitzen dugu Gipuzkerazko Dotrinetan ere, baina kasu honetan beste azalpenik gehitzen zaie: (1) “1. Soberbia. 2. Abarizia. 3. Lujuria. 4. Ira, edo bengatzeko arrabia. 5. Gula. 6. Inbidia, edo inoren onaz gaitz artzea. 7. Nagitasuna.” (OA, 1713); (2) “Lenengoa, Soberbia. Bigarrena, Abarizia. Irugarrena, Luxuria: Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Enbidia. Zazpigarrena, Nagitasuna.” (Iraz 1739). Guzti hauen aurka dago, noski, Burgosko dotrina (*CatBurg* 1747), estilo berri baten lehenengo lana: “Lembicicoa, goiteria, vrgulleria, edo soberbia. Bigarrena, bergueia, edo avaricia. Hirugarrena, aragueia, edo lujuria. Laugarrena, ira iracundea. Bostgarrena, eztarguoa, edo gula. Seigarrena, ondamua, becaizta, edo invidia. Zazpigarrena, naguitasuna.” (38-39).

Iparraldean, gauzak bestela zihoala dirudi: hona hemen Materraren zerrenda, froga legez: “urguillutasuna, avaricia, haraguizco bekatua edo emakhoitasuna, imbidia, gula edo sabeldarrayotasuna, hasserretassuna, naguitasuna.” (1623: 26-7; in Aristimuño *et al.* 2015).

gogortasun (1571)	Lç, Ax.,	Bai	Cb, CatLan, Astar, Gco, Jaur
Gaztetasun (1571)	Lç, EZ, Ax, ES, <i>CatLav</i> , Brtc, Monho	Bai	LE, Mg, Añ, fB, Gy, Hb, ChantP
Ontasun (1571)	E, Lç, EZ, Ax, Hm, SP, Arg, ES,	Bai	Lar, He, Cb, <i>Birjin</i> , <i>msOñ</i> , Mg, Añ, Gco, Astar
Baxutasun (<i>baxotasun</i> , 1571)	Lç, Arg, Arbill, He	Ez	Ø
Haserretasun (1571)	Lç, Ax, SP, Ch,	Ez	Ub, Gco, Añ, <i>CatBus</i>
Nagitasun (1596)	Bet, Mat, Ax, SP, Urqz, OA, Iraz, Lg, Zuzeta,	Bai	<i>CatBurg</i> , Cb, Mg, Añ, AA, Gco, Astar, fB, Jaur, <i>CatLlo</i>
Iluntasun (1623) ²⁸³	Mat, EZ, Harb, Arg, SP, ES, Ch,	Bai	Lar, Mb, Cb, Ub, LE, Mg, Gco, AA, JJMg, Astar, Añ, Lard, Ur, Azc,
Hoztasun (1623)	Mat, Ax, SP, Tt, Urqz	Bai	Mb, Cb, Lg, Mih, Mg, Gco, Añ, JJMg, Astar, It,
aberastasun (1623)	Mat, EZ, Cap, Harb, Ax, SP, Gç, Ch, Lg, ES, Iraz.,	Bai	Cb, Oe, Ub, Mg, Añ, JJMg, Gco, <i>CatLlo</i>
Garbitasun (1623)	Mat, Ber, Ax, Cap,	Bai	<i>CatBurg</i> , Cb, Mg, Añ, Gco, AA, Astar
Arteztasun (1635)	Harb	Ez	<i>CrIc</i> , Añ (<i>VB</i>), Astar, JJMg
Lohitasun (1635)	Harb., Ch,	Ez	Zuzeta, Mg, Añ, Dh, Dv
Mintasun (1643)	Ax, SP, Urt	Bai	Gco, Echag,
seitasun (<i>seintasun</i> , *1653)	Ø; (<i>seintasun</i>) Mic	Ez	Ø; (<i>seintasun</i>) Añ (<i>VB</i>)
Zuritasun (*1653, 1782)	Mic.	Bai	Mb, VMg, JJMg, J.C. Etzeberria, Urruz
Zoratasun (1713)	OA,	Ez	LE
Altutasun (1715)	Urt	Ez	Ø
Estutasun (*1745, 1749)	Ø	Bai	CatBurg, Cb, Ub, Mg, Añ, Gco, AA, fB
Askotasun (XIX b.)	Ø	Ez	H (Oteiza)
Haserratasun (XIX b.)	Ø	Ez	H
Iqueragarritasun (*XIX b.)	Ø	Ez	H
Iqueratasun (*1800?)	Ø	Ez	Añ (<i>VB</i>), Dv., <i>Orreaga</i> .
Laguntasun (*~1800)	Ø	Ez	Zuzeta, Mg, Añ, Gco, JJMg, fB
Ezeberezetasun (<i>ezeberezetasun</i> , 1803)	Ø	Ez	(<i>ezeberezetasun</i>) Añ, Zav.
Zorotasun (1804)	Ø	Ez	VMg, fB, Iraola, Iza, Ag,
Atsitutasun (ca.1816)	Ø	Ez	Zav.

²⁸³ *Euskal Hiztegia*n 1617ko data ematen zaie honi eta ondoko hiru hitzei, Materraren *Dotrina Christiana*-n lekukotzen baitira; hala ere, baieztapen hau 1623ko edizioaren gainean egindakoa da. Berriki *Aziti bihia* elkarteko kideek (Ariztimuño *et al.* 2015) lehen edizioaren alea aurkitu eta argitaratu dute, eta konprobatzerik izan dugu bigarren edizioari bakarrik legezkiola hitzok; horregatik, egiari zor, datazioa aldatzea erabaki dugu.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Putzitasun	∅	Ez	∅
Bakosotasun	∅	Ez	∅
Rebeldetasun (errebeltasun, 1781)	∅	Ez	LE.
Errudutasun	∅	Ez	∅
Feotasun	∅	Ez	∅
Garbosatasun	∅	Ez	∅
Indignutasun	∅	Ez	∅
Neziotasun	∅	Ez	∅
Infametasun	∅	Ez	∅
Banutasun	∅	Ez	∅

Lehendik lekukoturiko hitzek oso oinarri arrunten gainean eraturik daude, eta posible dateke nork bere aldetik sortu izana;²⁸⁴ hala ere, ezin dugu komentatu gabe utzi gehiengoa literaturazko lehenengo testuetan (Leizarraga, Materra) aurkitzen direla, atzizkiak zuen bizitasunagatik, nonbait, hura izan baitzen eratorriak egiteko lehenetarikoa. Halakoetan talde berezi bat sortzen dute Larramendi aurreko baina bere hiztegian bildurik ez diren *haserretasun*, *arteztasun*, *lohitasun*, *zoratasun*, *seitasun* eta bereziki *baxutasun* eta *altutasun*, azken hauek lapurtera klasikoan lekukotu arren ez baitute jarraipenik izan ondoko tradizioan. Honek pentsarazten digu egileraren hizkeran bertan horrelako batzuk ohikoak zirela, eta *seitasun* aldaerak bermatzen digu, Mikoletaren eta Añibarroren hiztegietan lekukotua dagoen *seintasun* orokorraren parean, honek diptongo sudurkarien ondorengoetako txandakatze legea betetzen baitu; hots, kontsonante aurrean izanik, ez da *-n*-rik (*oipetan*, *useire*, *oitera*... cf. § 4.2.1.6).

Alde batera aztertzeakoak dira batetik lehenago estrainekoz literatur bizkaieran erabiltzen direnak, eta Larramendiren hiztegian lekukoturik ez daudenak. Hauetan, orduko egileengan nahiko arruntak diren *laguntasun*²⁸⁵ eta *zorotasun*-ekin batera, oso tradizio gutxi eta berantiarra duten *askotasun*, *haserratasun* eta *ikaragarritasun* ditugu bai eta *ikaratasun*, *ezebereztasun* eta *atsitutasun* ere, guztiz Añibarro edo Zabalarengan baino kausitzen ez direnak. Dotrinazko Sermoitegiaren data kontuan izanik, hemendik

²⁸⁴ Hitz hauetako batean, gainera, gai gara esateko nondik jaso zuen hitza: *aberastasun* ageri den testuingurua, ia hitzez hitz, Olaetxearen dotrinatik (cf. § 4.3.2.4) hartua dago, eta bertan *aberastasun* ageri da.

²⁸⁵ Lazarragak (1567-1602) *lagundasun* forma du, *n* osteko *t > d* hots aldaketarekin. Arau fonetiko honek, noski, eratorri honen antzinasunaren alde egiten du, eta horregatik ez dugu hona ekarri, gu forma analogikoaz (gure testuan denaz), eta berriagoa lirakeen eratorriaz ari baikara.

eratortzen da bera eta ingurukoek lanean jarri zituztela *-tasun*-dun hitz batzuk predikazioaren hizkuntzan, nola edo hala ondoko bizkaierazko idazleetara heldu zirenak.

Nolanahi ere den, ugari xamar dira testuan beste inon lekukotzen ez direnak, eta egitura berezikoak, haien artean egileak bere kasa egindakotzat emateko lain diren ezaugarri bereziak dituztenak. Deigarriena oinarri mailegatuen ugaritasuna da (§ 4.3.2.4): *banutasun*, *feotasun*, *rebeldetasun*, *errudutasun* (< *errudu*; gazt. *rudo*), *indignutasun*, *neziotasun*, *infemetasun*, *allebadutasun* (agian gazt. *allevar*-ekin ‘llevar’ lotu beharko genuke ‘aldaberatasunak, aldakortasuna?’); *garbosatasun*-ak, gainera, indartuko luke egilea bera dela *-tasun* garatzen ari dena, beste inon lekukotu ez den erabilera bat baitakar, (erdal) genero mozioaz hornitutako oinarria, alegia.

Bestelakoak dira atzizki kateak dituzten lehen aipatu *ikaragarritasun* eta *bakosotasun* hitzak: *-garritasun* Pouvreau, Urte eta Larramendiren hiztegitan bakarrik lekukotzen zen garai zaharretan (Urgell 2003: 250), eta XIX. mendera arte itxaron behar dugu testuetan aurkitu arte. Era berean, *-osotasun* katea (*bakosotasun*) badirudi bera sortua dela, harrigarria ez izanik, gehienak [izenondoa + *-tasun*] egiturakoak direla ikusirik. Batere ohikoak ez diren adibideak dira [*-tu* partizipioa + *-tasun*] eratorriak, bestalde, atzizki honek izenondoa behar baitu oinarri legez: Larramendik berak ere ez ditu egiten eta Etxagibelek erakutsi du (2014: 407) Pouvreaux, oinarria aditza zelakoan baitzegoen, [aditzoina + *-tasun*] gutxi batzuk egin zituela, baina bere berrikuntzak dira ziurtasunez. Gurean baina *putzitasun* (< *putzitu* ‘puztu’) eta *atsitasun* (< *atsitu* ‘kirastu’) ditugu, ohiko moldeen aurka, eta bigarrena ikusi dugu Zabalak erabiltzen zuela. Hitz hauek erakusten digutenez, *-tasun* atzizkia hain zen bizia lexiko sorkuntzan non, are lexikoa bereziki zaintzen ez zuen bigarren mailako idazle bat behar ahala hitz berri egiteko gauza zela, are eratorpenaren ohiko legeetatik harat.

Gainerakoan, bai *-tasun* atzizkiaren eta baita lehen ikusiriko bestelako atzizkien bidez egindako eratorrien azterketak erakutsi digute nolabait Larramendiren lanaren uhinak heldu zitzaizkiola gure idazleari, Iparraldetik ekarri bide zituen *ordikeria* edo *-garri* atzizkiaren bidez egindako hitzak erabiltzea da adibiderik argienak (*ekuskarri*-ri Larramendik emandako esanahiaz gainera), bai eta *HH*-an bertan berak edo horren ostean bere jarraitzailearen batek sorturiko hitzak —*zorakeria*, *lapurreria*, *alperreteria*...—. Hala ere, lexiko eratorri honek duen adibide gutxiek erakusten dutena da ez duela *HH* zuzenean erabili; aitzitik, badirudi zeharka heldu zaizkiola hitzok: *aberastaun* edo *admiragarri* hitzetan hala da behintzat, Olaetxearen dotrinaren bitartez heldu baitira

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Sermoitegian. Azken honek, *lastimagarri* eta *engañagarri* hitzekin batera, beste gauza bat erakusten digute: hitzok ez dira Hiztegian agertzen, baina ditugun datuen arabera Iparraldetik ekarriak dirudite; honela, badirudi Hiztegiak sortu zuen mugaren bi aldeetako literaturaren bateratzeak eragin zuela Dotrinazko Sermoitegian.

Honekin batera, XIX. mendean sortuko zer literatur bizkaerarekiko zubi bat eratzen digute *errezki*, *biraoiti*, *eskakizun* eta *-kuntza* atzizkiaren bidezko izen abstraktuek, bai eta *-tasun* atzizkidun zenbait hitzek ere. *-tasun* bidezko adibideek, gainera, dela euren bakantasunagatik (*ikaratasun*, *ezebereetzasun*), dela duen egitura bereziagatik (*atsitutasun*); Añibarro eta Zabalaren eta gure idazlearen arteko halako lotura bat ezartzeko oina eman digute, alegia, badela nolabaiteko harremana sermoigilearen edota haren inguruaren eta haien artean; bestela esanda, badatekeela garai haietako mendebaldeko predikatzailen artean *pool lexiko* bat,²⁸⁶ tradizio lexiko bat, literatur bizkaieraren jorratzaileek sermoigilea bizi bide zen predikazio girotik lortu bide zutena.

4.3.2.2 Egilearen zuzenketak

Testu batek literatur eraginik duen edo ez erabakitzeke proposaturiko irizpideen artean (§ 2.4.1.4), egilearen zuzenketen eta aldaketan²⁸⁷ azterketak garrantzi berezia izan lezake, halakoetan egileak hizkuntzarekiko duen jarrera antzeman dezakegulakoan: bere hizkuntz hautuak eta irizpideak zeintzuk diren edota orduko literatur hizkuntzaren ezaugarri eta ohiturekiko zorrak. Ikerbide honek emaitza interesgarriak izan ditu beste egileengan: P. Altunak (1982) frogatu zuen Mendibururen *Kristau Dotrinaren* eskuizkribuan diren aldaketak Larramendirenak direla, eta Burgosko dotrina (1747) aldaketa horietaz eta bestez ere baliaturik argitaratu zela erakutsi zuen Lakarrak (1986b). Literatur bizkaierazko obretan ere halako azterketek laguntza paregabea

²⁸⁶ Mitxelenaren “*pool onomástico*”-a gogoan: cf. “En el terreno de la onomástica, y en particular de la antroponimia, hay, sin embargo, coincidencias innegables entre ibérico y aquitano y, por consiguiente, entre ibérico y vasco. Como ya he señalado en otros lugares, parece haber habido una especie de *pool* onomástico, del que varias lenguas, desde el aquitano hasta el idioma de las inscripciones hispánicas en escritura meridional, podían tomar componentes de nombre propios” (FHV § 15.8).

²⁸⁷ *Aldaketa* eta *zuzenketa* ez dira gauza bera, jakina: idazteko orduan beti egiten dira akatsak, bigarren irakurraldi batean *zuzendu* ohi direnak; horietan ere interesgarri izan daitezkeen datuak egon daitezke, halakoetan ere lehenengo idaztaldian herriko hizkeraren ezaugarriak itzuri ahal zaiolako idazleari, eta ondoren literatur aldaeragatik zuzendu. Baina guri gehien interesatzen zaizkigunak, akatsaz besteko arrazoirik duten zuzenketak dira, eta orduan horiei *aldaketak* deituko diegu.

Aldaketa mota asko daude, eta mota horiek guztiak aztertzeke metodologia eta terminologia ezberdinak erabiltzen dira; guk oro har Stussi filologo italiarraren lanez baliatu gara (ik. Stussi 1994 laburpen baterako. Erabileraz, cf. Ulibarri 2008b).

eskaini dute orduko idazleen hizkuntz erabakiak ulertzeko: Urgellek (1985, 1986, 2001) Añibarroren lanen bertsio ezberdinekin egin zuen konparaketa dugu horren erakusgarri edo, beste maila batean, Mogelek Kardaberazén bizkaierazko dotrinaren 1783ko edizioan egindako aldaketak (Altzibar 1991a). Gure helburutik hurbilago, Koro Seguroiak Larramendik zuzenduriko XVIII. mendeko prediku batzuk aztertu ditu, honen bidez andoaindarrak mailegukiko zeukan jarrera erakutsiz (Seguroia 2011).

Halako zerbait egingo dugu ondoko lerroetan gure sermoitegian ere. Ezer baino lehen, baina, gogoratu behar dugu sermoiok garbira pasaturiko kopiak direla (cf. § 4.1.1). Beraz, aldaketa gutxiko testua izanik, honetarako egokiena ez da: adibide guztiak bakartuak dira eta, ondorioz, joerak bilatzeko oinarri gutxi ematen digute.

Lehenik lexikoaren esparruko aldaketak ikusiko ditugu; izan ere, aurreko atalean azaldu denez, garai honetan lexikoarekiko jarrera aldatu zen, Larramendiren eraginez, honela maileguei muzin egitea ez, baina bere hizkerako zein bestetako hitz jatorrak nahiago zituzten idazleek, eta neologismoak ere erabiltzen dituzte tarteka, maiz neologismoa eta mailegua *edo*-ren bidez lotuz, besteak beste (Urgell 2012: § 4.5). Ikusi dugunez, gure egilea aurreko garaiean dago, lehenengo pausuak ematen ari ditu lexikoa eratorpenaren bidez berritzeko (§ 4.3.2.2), baina oraindik mailegutza da bere joera nagusia. Lexikoarekin loturiko zuzenketetan, hasiera batean eskuzabal jokaturik adibideak esanguratsu diren ala ez erabakitzerakoan, aldaketa hauek bildu ditugu:²⁸⁸

- rigorea > ardore (1-128)
- trabajoso > desdichadue (1-138)
- graciye > favore (1-157)
- Paulo > Saulo (2-71)
- lurrera > selaire (3-76)
- heride > gaso (4-39)
- asemejetan > comparetan (4-88)
- engañuic > odiyoac (7-64)
- yseitea > naturalezan (10-49)
- ciudade ? > publiquedu (14-68)
- juiciu ? > modu (15-144)
- aite > alaba (20-16)
- soquea edo cordela > cordela (25-11)
- ereguitea > esatea (26-2)

²⁸⁸ Zenbait hitzek dakartzaten galdera markek adierazi nahi dute hitz berria gainean idatzi dela, eta zaharra ezkutatu dutela; ondorioz, lehen idatzitakoak ez dira garbi irakurtzen. Bestalde, *J* zeinuak adierazten du hitza horraino baino ez zuela idatzi.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

peca] > ofenditan (26-6)
pensetan dan gauseari > ensuten (26-162)
Lucifer > Luzbel (43-36)
bere biosean > bere entrañetan (44-37)
a calenturea > â ardore ynfernalacas (46-98)

Larramendiren ondoren literatur eraginaren adierazletzat genuke ea lexiko zainduagoa erabiltzeko ahaleginik baden, dela erdarakadak kenduz, dela euskalki guztietako hitz jatorrak edo neologismoak erabiliz (cf. Urgell 2012: § 4.5.1.2). Alabaina, adibideak ikusita ez dago horrelakorik, denek aldaketa estilistikoak baitirudite: hor ditugu “mailegu > mailegu” aldaketak²⁸⁹ (*engañuic* > *odiyoac*, *rigore* > *ardore*); “hitz jatorra > hitz jatorra” (*lurrera* > *selaire* ‘zelaira’, *ereguita* > *esatea*) eta *bere biosean* > *bere entrañetan* eta *soquea* edo *cordela* > *cordela* bakalduak,²⁹⁰ azken bi hauetako lehenengoak ezarri dugun premisaren kontra eginez.²⁹¹ Aipaturiko ahalegin hori erakutsiko lukeen aldaketa bakarra (*heride* > *gaso* ‘gaixotasun’) baino ez genuke, eta beste guztiak estilistikoak badira, hau ere hala izango da.

Lexikotik kanpoko aldaketek, euren bakantasunean, interes gehiago dute, berrikuntzen aldeko zuzenketak erakusten baitute. Halakoak dira *dosu* > *dosue* (6-93); *eguin eguin* > *eguin eben* (44-126); *encamine deigusensat* > *encamineu deigusensat* (4-48) eta *orregaiti* > *orregaitic* (11-76) adibideak: lehenengoan *-su* marka pluraltasuna galtzen zihoala erakutsiko luke (cf. § 4.2.3.12); bigarrenak lehenaldi narratiboa adierazteko aoristoa (cf. § 4.2.3.15) perifrasi modernoagatik aldatzen du, agian errepikapen anbigua saihestu nahian;²⁹² hirugarrena, sermoitegian zehar topatu ditugun aditzoinaren adibideetako bat izanik (cf. § 4.2.3.1), forma orokorragoa erabiltzera jotzen du; Azken adibidean *-gaitik* atzizki forma berriaren alde egiten du (cf.

²⁸⁹ Larramendik “Hiru mailegu mota bereizi zituen: batetik, gaur *erdarakadak* deritzegunak, erdaldunduek bakarrik zerabiltzatenak; bestetik, *behargabekoak*, ordain jatorrak izan arren ohikoak ere badirenak; eta azkenik, *beharrezkoak*, edozein hizkuntzak daukan eskubide berberaz euskarak zer berriak izendatzeko bere egin dituenak edo egingo dituenak.” (Urgell 2012: § 2.2.; cf. baita Urgell 2005: 301). Hemen hiru mota hauek batera hartuko ditugu.

²⁹⁰ Hauen pareko har zitekeen *yseitea* > *naturalezan* (59) aldaketa; alabaina, ez dirudi arrazoi pragmatikorik dagoenik aldaketa hau egiteko, eta ziurrenik kopiatzeko orduan egindako hutsa baino ez dugu: ...*bere naturalezan doeen yseitea*... kopiatzerakoan *bere yseitea* kopiatu zuen tarteko *naturalezan doeen* ahaztuta, eta momentuan konturatuta zuzendu zuen.

²⁹¹ Euskal hitz bat erdal hitz batez ordeztzen baitu, hala ere, *bihotz* eta *entraña* ‘errai’ nahiko esanahi ezberdina dute eta ezaguna da *entraña* hitza nahiko hedaturik zegoen Hegoaldeko euskal testuetan (cf. *OEH*, s.v. *entraña*)

²⁹² Izan ere, *eguin eguisu* bat kenduta ez dugu *eguin eguin* bezalako adibiderik testuan. Hala ere, beste aukera bat genuke hasierako *eguin eguin* hori azaltzeko: kopiatzean egindako duplografia izatea, eta aldaketa akatsaren zuzenketatzat hartzea.

§ 4.2.2.2). Besterik da *semen* > *semeen* (28-28) zuzenketan duguna, zeinean ikus daiteke genitibo singularraren bokal bikoitza adierazi nahi zuela oraindik (cf. § 4.2.1.5) indartuko luke, eta berariaz adierazi nahi duela, ezaugarri garrantzizkotzat duelako.

Aditzizenaren formekin erlazonaturiko bi aldaketa ere baditugu, biak *-tuiten* aditz-izen atzizki bereziarekin erlazonaturik (cf. § 4.2.3.2): *yarraiten* > *yarraituiten* (43-72) eta *consistiduiten* > *consistittan* (45-164); lehenengoan haplografia bat zuzendu duela pentsatzeko aukera handia dago, *-tuiten* bailitzake partizipio mota honetako atzizkia, baina bigarrenean, *-tuiten* eta bestelako aditz-izen atzizkien arteko lehiaren adibide genuke: *-tuiten* lekua hartzen ari zitzaien beste atzizkiei (cf. § 4.2.3.2) eta idazleak, kasu honetan, forma “orokorragoaren” alde egiten du. Aditzaren uzkurduretan ere forma osoaren alde egiten du behin: *deseetaben* > *deseetan daben* (45-12), nahiz eta beste batzuetan (ez beti baina) halako uzkurdurak itzuri zaizkio testuan zehar (*gordetot* ‘gordeten dot’; cf. § 4.2.3.11).

Azken adibide hauek, adibide bakartuak izan arren, idazlea nolakoa den nolabaiteko ideia ematen digu: batetik, bere hizkeraren ezaugarri arkaiko (*-zu* plurala, aoristoa...) edo eskusibo (*-tuite* aditz-izen atzizkia) zenbait berriztatzen ditu, forma “orokorragoen” alde; bestetik, forma laburtuak osatzeko joera du (*-een* genitiboa, aditz uzkurdurak).

4.3.2.3 Euskal iturrien aldaketak: Olaetxearenarekin erkaketa

Testuaren hizkeraren azterketan (cf. § 4.2.1), grafian bereziki, ziren hainbat berezitasun euskarazko iturri idatziak izan zituela erabakitzen eraman gaitu. Ondoren, testuaren literatur eragina zehazteko orduan, egilearen ohitura grafikoak eta bereziki aurreko atalean agerturiko berezitasunak garaiko beste testuekin lotzera jo dugu, eta horretatik lortu dugun emaitza garrantzitsuenetako bat izan da iturri berri bat aurkitzea, eta euskal iturria gainera; honela, grafia berezitasun batzuen bidez frogatzerik izan dugu Olaetxearen dotrina izan zuela eskuartean gure idazleak.

Sermoitegiaren iturriak zehazterakoan esan bezala (§ 4.3.1.1), Olaetxearenean ageri diren galdera-erantzunak sermoi batzuen sarrera gisa moldatzen ditu. Iturria jakinda ere, zehazteke geratzen zitzaigun zein argitalpen erabili zuen; izan ere, XVIII. mendean sei argitaraldi behintzat izan zituen (1763, 1775, 1780, 1785, 1787 eta 1794 cf. Vinson 1891: § 115) Laukarizko abade ohiaren dotrinak. Ezin izan dugu guztien aleak

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

lortzerik izan, baina aurkitu ditugunen konparaketak erakusten digu lehenengo edizioa izan zuela, bigarrenetik aurrera moldaketak egon baitziren testuan:

Sermoitegia	Olaetxea 1763	Olaetxea 1775	Olaetxea 1787
Celangoac dire Jangoicoac bera ametan dabenensat dauquesan ondasunec? Aen andiyec dire ce esin esan lei munduin dagoanec celangoac direan.	Celangoac dire Jangoicoac bera ametan dabenensat dauquesan ondasunec? Añ dira andiac ce ecin esan lei munduan dagoanec celangoac direan.	Jangoicoac, bera ametan davenenzat gordeta daucazan ondasunac celangoac dira? Añ dira andiac, ce munduban dagoanec ecin esan lei, celangoac direan.	Jangoicuac, bera amètan davenenzat gordeta daucazan ondasunac, celanguac dira? Añ dira andijac, ce munduban daganec ecin esan lei, celanguac dirian
Pecatuic memorira ecartea. [...] eta obeto acordetaco edo gogoratuiteco.	Pecatuac memoriara ecartea. [...] eta errazago eguiteco acordau edo gogoratu nondi ibili.	Pecatubac burura ecartea. [...] eta errazago eguiteco, gogoratu nondi ibili...	Pecatubac burura ecartia. [...] eta errazago eguiteco, gogoratu nundi ibili...

Behin argituta lehenengo argitapenaren ale bat erabili zuela, ziurtasun gehiagorekin has gaitezke erkaketarekin. Bilaketa sistematikoa egin dugu gure sermoien hasieratik (ez ordea, sermoien gorputzean), eta ikusi izan dugu 15, 16, 31, 38, 39 eta 40. semoitetako lehenengo lerroak hortik hartuak izan direla, hain juxtu Olaetxearen dotrinako 78, 79-81, 127-129, 144-146, 146 eta 147-148 orrialdeetatik, hurrenez hurren. *atsegin* hitzaren grafiagatik izan ez balitz, zail izango zitekeen pasartea inolako euskal iturriri egotzi, bere erara eta bere hizkeraren arabera moldatu baitzuen Laukirizko abadearen esanak. Lerro hauetan moldaketa horien berri emango ditugu, bere hizkeraren eta hizkuntzari buruz zituen iritzien bila.

Grafia eta hotsei erreparatuz, esan dezakegun lehenengo gauza da Olaetxeak dakarrena bere grafia sistemara izurtzen duela: aipaturiko <atsegin> hitza kendurik, beste txistukariak <s>ren bidez ematera jotzen du, bai <ts> (*deutsaz* > *deuses*), bai <tz, tc> (*vicitza* > *visise*; *gorputz* > *gorpus*), eta baita <z, c> (*biztucio* > *bistucio*; *ecin* > *esin*) ere; azken hau, baina, ez dugu beti aurkitzen: erdal jatorrizko hitzak erdal grafiarekin mantentzeko joera ikusten zaio (*gracia* > *graciye*; *inclinacinoe* > *inclinaciñoe*) batetik; bestetik, oharkabez edo, <z> eta <c> batzuk itzurtzen zaizkio bere testuan: hizkuntz azterketan egilearen idazte sistemaren aurka zihoazten zenbait adibide aipatu dira (§ 4.2.1.4), eta eurok azaltzeko iturri idatziren baten eragina proposatu dugu; aurkitu

dugun iturri honek, bada, adibide hauetako zenbait azaltzen ditu (*celan*, *ce*, *ceinbet*, *cetan*, *celangoac*), han agerturiko susmoak berretsiz. Txistukariekin amaitzeko, esan /*ʃ*/ hotsa adierazteko ere <s> erabiltzen du gure idazleak iturrian <x> egon arren: *Elexacoetati* > *Elesacoetati*, *Elexaco* > *Elesaco*.

Kontsonante palatalak adierazteko orduan, ez dugu adibiderik *l*-rekin, baina <ñ>k zenbait kontu argitzen dizkigu: batetik, Olaetxeak *in* / *iñ* txandakatzea du hiato sudurkarien ondoriozko sudurkarietan (*inos*, *inclinacinoe*, *confesinoe*... baina *erresurreciñoeac*), gure idazleak, baina, sistematikoki <ñ>z adierazten ditu hauek: *iños*, *inclinaciñoe*... bestetik, Olaetxean dakartzan bustiduraren ondoriozko <ñ> **in*-z ordezkutzen du: *orañ* > *orain*, *añ* > *aen*... baina *baño* > *beño*. Honek adieraziko liguke, ez duela uste bezain grafia sistema defektiborik kasu honetan: batetik, palatal sentitzen dituen sudurkariak (berezarritako sudurkariak) grafia sabaikariaz adierazi behar ditu, eta palataltze automatikoaren emaitza batzuk, oraindik ez. Sistema defektiboa ez izateak, noski, ondorioak ditu hizkera ezaugarritzeko, eta azterketan erabaki duguna berretsi, hots, palataltze automatiko ahula bide zuela, eta bakarrik *inV* (eta, agian, *iV*) testuinguruan.

Gure testua eta jatorrizkoa aldentzen dituen beste alderdi garrantzitsu bat, agertze kopuruaren aldetik bederen, fonetikarekin loturiko aldaketak dira, izan ere ez dirudi behin ere kale egiten dionik Olaetxearen forma “neutroa” bere hizkeraren arauaren arabera aldatzen. Honela, *RUI* erregela agertzen du Olaetxeak ez dakarrenean: *humildade* > *humildede*, *daucaguzan* > *dauquegusan*; *gloriaz* > *gloriyes*; *iraungo* > *ireungo*; *tratau daben* > *tratadu deben*... era berean, honetatik eratorri diren *uaC* > *uiC* eta *iaC* > (**iin* >) *iC* erregelak kausitzen dira (§ 4.2.1.8): *munduan* > *munduin*, *mandamentuen* > *mandamintuin*, *Bienabenturaduac* > *bienaventureduic*, *pecatuac* > *pecatuic*, *belarriac* > *belarric*, *andiagoac* > *andigoac*, *pacienciatan* > *pacencitan*, *errecibietaco* > *errecibitaco*... Bokal bilkurekin amaitzeko, *iV* hiatoetan epentesia sartzen dio, bere idaz-moldeari atxikiz: *gracia* > *graciye*, *viciagaz* > *visiyegas*, *negocio* > *negociyo*...

Bokal bikoitzei dagokionez, azterketan ikusitakoa berrezteko aukera dugu. Bokal bikoitzen testuinguru zaharretan (*jaan* eta *zaar* hitzetakoak) ez ditu baliatzen, eta Olaetxearen *suur* ‘sudur’ > *sur* bilakatzen du gure idazleak. Deklinabidetik datozen bokal bikoitzak, aldiz, antzemateko eta idatziz jasotzeko beharra bazuela erakusten digu erkaketak, genitiboan bederen, hainbat aldiz ikusten baitugu *e* > *ee* aldaketa: *deungen*

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

>*deungueen*, *besteen* >*besten*; eta azalpenik eman ezin diegun zenbait bokal bikoitzak berariaz jarriak direla berretsiko liguke *andienac* > *andiyeenac* aldaketa

Hizkeraren azterketan hotsekin antzeman dugun beste gauza bat izan da *egin* aditzaren aditzizenean *g* erortzeko joera zuela egileak (§ 4.2.3.11), eta hau berretsi du Olaetxeak, honen *eguiten* > *eiten* agertzen baita Sermoitegian. Adibide honetaz aparte, erkaketaren bidez, esan genezake gure egileak joera izan zuela forma osoagoak erabiltzeko, garai horretako literatur hizkuntzaren ezaugarrietan aipaturiko ezaugarria (§§ 4.3.2.1.2.4 eta 4.3.3.2). Batetik, Olaetxeak dakartzan *-au* partizipioak *-adu* bihurtzen ditu (*deseau* > *deseadu*, *tratau* > *tratadu*), eta honek hizkera horretan oraindik oso aurreratua ez zela erakutsiko liguke, jadanik hizkeraren azterketan proposatu bezala. Bestetik, eta *egin*-en adizkietan ere (ez aditz-izenean) forma osoagoa emateko joera du, Olaetxearen aldaera gorabehera: *deiola* > *daguiola*, *daiezan* > *deguiyesansat*.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Olaetxeak bere liburuaren amaiera hizkuntzaz egiten duen oharrari. Bertan ageri denez:

Gava, Javea, Davena, Evan, Even, &c. Erri ascotan esaten dira *V.* agaz beste batzuetan *b.* agaz emen esribidu dira *V.* agaz, *Eva*: eta *Ave*, leguez; bada alan bacoachac bere errico usura esango dau, batzuc *Gava, Javea, Davena, &c.* beste batuac [sic] *Gaba, Jabea, Dabena, &c.*

Jangoicoa, Jesus, Javea, Jarri, Janci, &c. esribidu dira *J.* agaz bada batzuc esaten dave *Yangoicoa, Yesus, iabea, &c.* eta *J.* agaz, nai batera, nai bestere esango da. (Olaetxea 1763: 167)

Olaetxearen *esaten dira* zerbait fonetiko baldin badu, suposatu behar dugu herri batzuetan /daβe/ (*b.agaz*) eta beste batzuetan /dawe/ (*V.agaz*) ahoskatuko zutela. Honela, esan genezake gure idazleak lehenengo taldeari atxikitzen zaiola, Olaetxeak dakartzan *daven*, *davela* edo *daven enzat* aldatzen baititu sistematikoki (*daben*, *dabela*, *dabenensat*). Olaetxearen bigarren oharraz (cf. §§ 4.2.1.3 eta 4.3.2.1.1.2), bere horretan uzten du *Jangoico* hitza, eta honetaz aparte duen *jaco*, ordea, *iacan* bidez aldatzen du, Olaetxearen grafiaren aurka.

Morfologiara pasata, ikusi dugu zenbait genitibo bokal bikoitzez ematen dituela, baina beste aldaketa bat egiten dio Olaetxearen sistemari: genitibo singularraren atzizkia *-aen* da Olaetxearengan (*araguaen*, *Jangoicoaen*, *Munduaen*, *guizonaen*), eta gure sermoilariak, lanean barrena halakorik badarabiltza ere (cf. § 4.2.2.3), *-en* formapean itzuraldatzen ditu Olaetxearenak (*araguiyen*, *Jangoicoen*, *Munduen*, *guisonen*).

Deklinabidearen loturik dago, nahiz eta guk azterketan aztertu ez dugun, egileak egiten duen *-tako* > *-tarako* aldaketa (*gauzataco* > *gausetaraco*; *onetaco* > *onetaraco*; *Cetaco* > *Setaraco*); behin, baina iturriko formak ihes egiten dio eta *Cetaco* kopiatzen du (31. sermoian).

Aditzaren morfologian gehiago dugu esateko, aditz-izenari dagokionez behintzat. Izan ere, Olaetxeak dakarren atzizki sistema guztiz aldatzen du gure egileak, bere sistemara egokituz: Olaetxeak gure sermoilariak ezagutzen bide ez duen *-tute* atzizkia darabil askotan, eta halakoetan bere hizkeran direnekin ordeztu ditu, dela *-etan* (*parcatuteco* > *parquetako*), dela bere hizkeran ain oparoa den *-tuiten* (*ezconduteco* > *esconduteco*; *ordenduteco* > *ordenduteco*; *ezaututeco* > *esaututeco*). Era berean, Olaetxearen *emoten* eta *quenzen*, bere hizkeraren *emaiten* eta *quensaiten* arkaikoagoekin (cf. §§ 4.2.3.2 eta 4.4.1) ordeztu ditu. Adizkiekin jarraituz, ez dakigu Olaetxeak *egin* adizkietan bi pertsonalak eta hiru pertsonalak bereizteko *a / e* oposaketa zaharra zuzen betetzen duen, baina gure erkagaietan diren diren adibideetan behintzat halaxe darabiltza (*deiola*, *daiezan*): sermoitegiko hizkerak, ordea, oposaketa galdua izanik (cf. §§ 4.2.3.4 eta 4.4.1), *deguiyola* eta *deguiyesansat* dakartza. Azken adibide honek beste ezaugarri bat dakarkigu, gainera, helburuzko perpausetako *-tzat* atzizkia: Olaetxeak ez du (*daiezan*, *ditezan*) baina gure idazleak beharrezkotzat du (*deguiyesansat*, *ditesansat*)

Sintaxian, jabetu gara sermoitegian ohikotasuna adierazteko dugun *oi* partikuladun adibide bakarra Olaetxearen testutik datorkiola (*oi daben*; ik. § 4.2.3.16); beraz, ezin dugu baieztatu bere hizkeran baliabide hau bazen. Hala ere, ezin dugu ukatu ezagutu behintzat ezagutzen zuela, bestela ez zuen aldatzeko inolako trabarik izango. *acto contricinoecoa eguin* > *acto contricñoeco eguin* aldatzen du, akatsa ez bada behintzat mugagabearen erabileraren alde egiten. Adibide bakan hauekin batera, ikusi dugu aditz laguntzaile zenbait aldatzen dituela:

- (a) *emoten daben frutua Zeruraco aziteco* > *emaiten deusen frutue Cerureco asiteco*
- (b) *Onetaco iminten dabela* > *onetaraco iminten dala*
- (c) *Celan disponidu bear da sacramentu au errecibietaco* > *Selan disponidu bear dau sacramentoau errecibitaco*
- (d) *gorputzari osasuna emoteco conbenietan bada* > *gorpuseri osasune emaiteco convenitan bayaco*
- (e) *iraungo dabe 'dute'* > *ireungo dau*

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Badirudi kontu estiliskoak direla gehien bat, baina azken bietan posible da egileak gaizki ulertu izana Olaetxearen testua: azkenekoan pentsa dezakegu gure egileak ez duela *dabe* pluralizat jotzen (bere hizkeran *daude* litzateke, cf. § 4.2.3.3) eta Dotrinakoa errata bat dela uste izatea. *bada* > *bayaco* aldaketa horretan, *gorputzari* datiboak luke giltza: gure idazleak menpeko esaldiaren parte dela ulertu ez,²⁹³ eta aditzan islatu beharra sentitzea (nahiz eta datibo komunztadurarik gabeko esaldiak izan § 4.2.4.2). Aldaketa estilistikoak lirateke baita testuan zehar diren hainbat ordena aldaketa, bai eta sintaxiarekin loturiko bestelakoak ere:

- (a) *vicitza beticoa* > *betico visisea*
- (b) *inos gauza añ ederrik ikusi* > *iños ecusi aen gause ederric*
- (c) *añ dira andiac ce...* > *aen andiyec dire ce...*
- (d) *Onetaco iminten dabela negocio andi baten imini oi dan kontua, eta ardurea* > *onetaraco iminten dala â cuidedu eta diligenciye iminten dana negociyo andi beteraco.*
- (e) *eta errazago egiteco acordau, edo gogoratu nondi ibili...* > *eta obeto acordetaco edo gogoratuiteco nondi ibili...*
- (f) *eguinico* > *eguin dyrean*

Lexikoaren aldetik, hitz eratorriak aztertzerakoan jabetu gara *aberastasun*, *admiragarri* eta *ikaragarri* hitzak iturri honetatik ezagutu zituela: lehenengo bietan ziur gaude, Dotrinatik kopiaturiko ataletan baino ez baititu erabiltzen; *ikaragarri* eta *ikaragarritzko*, ordea, hainbat adibide dituzte sermoitegian zehar. Hitz arruntagoetan, ikusi du beste lekuetan bezala honetan ere bere hizkerara hurbiltzen duela testua, zenbait hitz berarentzat ohikoago liratekeen aldaerengatik trukatzuz:

ikusi > *ekusi*; *añ* > *aen*; *geisto* > *gaisto*; *igorzi* > *igotzi* ‘igurtzi’, *geso* > *gaso* ‘gaixo’;
itundu > *iteundu*; *ikasi* > *ikisi*; *baño* > *beño*

Bereziago egiten zaizkigu beste aldaketa hauek, ez bailirateke ohikoak izan behar euskaraz idazten duen pertsona batentzat: *chito ezañac* > *gustis feo*; *idoro eta ezaututeco* > *acordadu eta esautuiteco*; *dolorea* > *damue* eta *errastu eta sustraiac* > *errastu eta manchac*. Azken hau, bi hitzen arteko esanahi ezberdintasunagatik (cf. § 4.3.2.3), aldaketa estilistikoaren adibide izango litzateke, baina aurreko biek zer pentsatu ematen digute: Olaetxeak ematen dizkion euskal hitzak aldatzeak erakusten digu ez

²⁹³ Hots, esaldiak duen [*gorputzari osasuna emoteko*] komeni *bada* egitura ulertu beharrean, *gorputzari* [*osasuna emoteko*] komeni *bazaio* ulertzea.

dituela erdarazko hitzak erabiltzen euskal ordainik ez ezagutzeagatik, edo erdaratik itzultzeagatik zuzenean; aitzitik, bestelako arrazoiak egon beharko lirateke egilearen erabaki honetan, zaila baita pentsatzea euskaraz idaztera ekiten duen idazle batek erabakitzea herri euskaldun bateko biztanleari *feo* hitza *ezaina* baino ulergarriago izango zaiola.²⁹⁴

Besterik da *Dolorea* > *damue* aldaketak erakusten diguna, elementu doktrinal baiten erreferentzia baita, penitentzia egiteko bost pausuetako bat, alegia (*examinea, dolorea, propositua, confesetea, satisfacinoea*; Olaetxea 1763: 128). Olaetxeak mailegaturiko hitzez eman ditu kontzeptuok, baina badirudi, “dolorea”ren kasuan bederen, adostasuna zegoela euskaraz adierazteko: cf. Arzadun (1731) *bioceco damuari* eta Kardaberaz (1762, *CatV*) *damuaria*, Gure egileak, beraz, garaian kontzeptu hau aipatzeko erabiltzen zen euskal hitzagatik aldatzen du.²⁹⁵ Hitz “teknikoen” euskaratzearen lekuko da ez bakarrik *dolorea* hitzean, baina baita *satisfacinoe*-an ere, kasu honetan azalpenagatik aldatzen baitu: *confesoreac emon daguiun penitenciye cumplitea*.

Dotrinarekiko egilearen pentsaera erakusten digu baita ezkongaiak eman behar dituzten urratsak azaltzen dituenean; honela, Olaetxeak “ez permitidu ezkonzetan oi direan bulla, danza eta jan edanac” agintzen duenean, gure idazleak eskuzabalagoa da herriarekin eta agindu honi kenduta, esan die “euqui yntenciñoa eguiteco eta errecibitaco sacramentoau”. Ezaguna da XVIII. mendean Euskal Herriko predikariek dantzen kontrako kanpaina bat hasi zutela (cf. Madariaga 2004a: 490 e.hh.), eta badirudi gure idazleak ez zuela horretan sartu nahi.

Atal honetan, ikusi dugu idazleak euskal iturri bat hartzerakoan zein irizpide jarraitzen dituen, egiten dituen aldaketak lagun; eta jabetu gara idazlea ez dela nolana hiko, idazlea; aitzitik, garaiko mugimendua ezagutzen zuen baina nahita ez ditu

²⁹⁴ Erdararen erabilera honetan Lizarraga Elkanokoaren antza hartzen diogu, inorena hartzekotan; izan ere “Lizarraga emplea [palabras y partículas castellanas] sin ningún reparo y muchas veces sin ninguna necesidad, pues existen las correspondientes palabras vascas o vasquizadas que él conoce y usa en otras ocasiones” (Iraizoz 1978: 245). Hau honela, Salaberrik Lizarragaz duen ustea nire eginez, *ez dut uste eguneroko solasean gure idazleak ibiltzen dituen moduko erdarakadak ibiltzen zirenik* (Salaberri 2008: 600), eta beste arrazoiren bat bilatu beharko genioke halako erabilerei. B. Urgellek (a.e.) iradokitzen digu erabilera estilistikoa izan dezaketeela erdal maileguez, eta idazkera jasoaren ezaugarritzat zutela bai Lizarragarenean eta bai gure idazleak.

²⁹⁵ Cf. Laudioko dotrina (1828): “Lelengoa, esamina conciyenciacoa eguitia. Bigarrena, artzaitia damu eguiyazco bat Jangoicoa ofendidu dabelaco. Irugarrena, euquitia propositu firme bat pecaturic gueiyago ez eguiteco. Laugarrena, Confesoriari bere pecatu guztiyac artez esatia. Bostgarrena, Confesoriac emoiten daben penitenciya cunpliyetaco gogoia artzaitia” (61). Pekatu kapitalen izendapenean, ikusi dugu (xxx. oh.) dotrina zahar guztiek erdal hitzez ematen dituztela azkena izan ezik (*nagitasuna* “pereza”), eta honek pentsarazi digu interesgarria litzatekeela euskal lexikoaren historiarako kontzeptu doktrinalak adierazteko erabili diren hitzen bilakabidea ikustea dotrinaz dotrina.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

jarraitzen bere irizpideak (tradiziokoak batzuk, berriagoak besteak) argi ditu. Emaidza hauek, egileari buruzko datu gehiago eskaintzeaz gainera, planteatu dugun lan metodoaren zuzentasuna erakusten digu, bestela nekez helduko ginatekeen egileaz orain dugun ezagutzara, ondoko lerroetan laburtzen saiatuko garena.

4.3.3. Ondorioak

4.3.3.1. Egilearen testuinguru historiko-kulturala

Egin dugun hizkuntza azterketan, egileak orduko joerekin zuen harremana edo harreman eza ikusi dugu, bai erdal sermoigintzari zegokionez, eta baita garai horretan itzartzen eragoion Hegoaldeko euskal literatur sorkuntzari ere. Emaidza hauen eta sermoitegiaren kanpoko datu eta bestelako datu historikoen bidez, egilearen inguruko gogoeta historiko-kulturala egiteko aukera izango dugu, ondoko lerroetan hizpide.

Bildu ditugun datuek erakusten dute gure egilea ofizioz sermoilaria zela, misiotan herriz herri zihoana, eta horregatik ordena erlijioso bateko kidea dela erizten dugu. Horretarako dugun frogarik garrantzitsuena ezagutzen dugun bere ekoizpena da, guztia “misio sermoiak” baitira (cf. Fernández Rodríguez *et al.* 1983: 35, 1. oh.), hau da, gai jakin bat irakasteko pentsaturiko sermoiak: sakramentuak, Aita Gurea, Fedeko artikuluak... Mota honetako sermoiak ordena erlijiosoaren kideek egin ohi zituzten, eurek baitziren herrietan zehar “irakastera” hurbiltzen zirenak; herriko abadeek, ordea, egutegi liturgikoaren araberrako edo festa puntaletarako sermoiak beharko lituzteke: halakoak dira, adibidez, Juan Antonio Mogelen sermoiak (Altzibar 1992a: 197)²⁹⁶ eta Lekeitioko parrokiakoak (*ibid.* 97). Horrezaz gainera, gure sermoitegiaren iturriek erakutsi digute liburutegi zabal bat izan zuela eskura: iturri zurrek eta balizkoak gehituz, gutxienez zortzi sermoitegi ezberdin eta Olaetxearen Dotrinaren alea izan zituen bere lanean lagun. Abade sekular batek liburutegi nabarra izatea agian ezinezkoa ez izan arren (cf. Aranburu 1996), XVIII. mendeko apaiz arrunt gutxik zeukaketen gure egileak eskura duen biblioteka izateko aukerarik: liburuak garestiak ziren, eta zenbaitetan abade xoilak bildu behar ziren liburutegi bat partekatzeko (cf. San Martín Casi 1996: 60), edo askoz

²⁹⁶ Juan Jose Mogel bere ilobak, ordea, era honetako gaiak ere (sermoi dotrinalak, alegia) jorratzen ditu (Altzibar 1992a: 406). Gogoratu behar dugu honen garaian ordena erlijiosoak esklaustrazioa jasan eta misioak eten zirela (cf. Madariaga 2004: 517).

jota liburu bat izan eta horrekin moldatu.²⁹⁷ Beraz, egiantzekoa da berak liburutegi zabal hori izan ez eta komentu bateko liburutegia eskura izatea. Hau, orain artean Bizkaiko XVIII. mendeko predikazioez ezagutzen dugunarekin bat dator: orduko sermoigileak misiolariak dira, predikazioan izan zen iraultzaren aurreko aritu zirenak; elizbarrutiko abadeak, aldiz, XVIII. mendearen bukaeratik aurrera baino ez zioten behar honi ekin.

Halaber, ez dakigu testua artean non izan zen, sermoiok enkantean edo liburu saltzaile baten bidez lortu zituzten egun euren jagole diren artxibuek (§ 4.1.1). Honek ere bat egingo luke XVIII. mendearen amaieratik eta XIX. mendearen hasiera luze batean zehar ordena erlijiosoek bereziki bizi izan zuten egoera latzarekin, josulagunen kanporatetik hasi (1767) eta XIX. mende hasierako fraideen esklaustroziora bitartean.

Hau honela, ez dugu testu barneko argudio zuzenik aurkitu ordena erlijioso jakin batekin lotzeko. Aipagarria den elementu bakarra sermoi zenbaiten buruan diren *J. M. J.* siglak dira, “Jesus, Maria, Jose” adierazten dutenak. Formula honek, Zarauzko frantziskotarren *Bizi bedi Jesus (Viva Jesus)*²⁹⁸ edo jesuiten *A.M.D.G.*-ren antzekoa, Familia Sakratuaren debozioa gogoratzen du, baina ezin izan diogu inolako ordena bereziri ezleitu. Beraz, izatekotan, hizkuntza da ondorioaren batera iristeko daukagun baliabide bakarra, eta hizkuntzak gauza bat bederen esaten digu: itxuraz, sermoi guztiak hizkera trinko eta berezi batean idatzitakoak dira, dela egilearen beraren hizkeran edota dela haren entzuleriarenean.

Literatur hizkuntzaren eragina aztertzean ikusi dugu Euskara Zaharreko idazlea dugula, garaiko idazleetan diren ezaugarriak ditu grafiari dagokionez: ez du txistukari frikari eta afrikatuak bereizteko beharrik adierazten, ezta /ʃ/ islatzeko ardurarik ere, gainerakoak legez <s> zoil batez adierazten baitu. Berebat, genitibo singular eta plurala idatziz ezberdintzeko beharrik ere ez zuen,²⁹⁹ eta ez du lexikoa bereziki zaintzen garbitasunaren aldetik. Honela, Lehen Euskara Modernoan sortu zen mugimenduaren partaidea ez zela iritzi behar dugu.

²⁹⁷ Jokaera honen lekuko dugu Antonio F. de Iturriaga, Ugaoko abadea: Joaquin Castillot idazlearen *Colección de Pláticas para el uso de los curas de las aldeas* (bi liburuki; Viuda de Barco Lopez; Madrid, 1815) tomoak hartu eta itzultzen ditu (*ap.* Altzibar 1992a: 505): *Doctrina Dominicalac aterac eusquerara D.n Antonio Francisco de Yturriaga Miraballesgo Abade Maisuec bere feligresen instrusiñoraco D.n Juaquin Castelloten liburuetaric, mille sorsireun eta ama bost garren urtean.*

²⁹⁸ Zarauzko komentuak esaldi hau bere obren lematzat hartu zuen (cf. Villasante 1975: 283, 2. oh); alabaina, lehenik ere erabiltzen zen, XVII. mendeko *Viva Jesus* izenez ezagutzen den dotrinatxoak (Ulibarri 2009, 2010a) erakusten duenez.

²⁹⁹ Ahoz egiteko testua dela kontuan harturik, ulergarria izan daiteke egilearen ardura eza genitibo singular/plural oposaketa idatziz islatzeko orduan, predikatzean egileak ahozko hizkuntzak ezberdintzeko dituen baliabideak erabil baitzitezkeen bere egitekoan. Hala ere, ikusi dugunez beste sermoilariak ardura hartu zuten: Sarria, Astigarraga...

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

Alabaina, ezin dugu esan Larramendiren eraginik heldu ez zitzaionik, eratorrien erabilera eta hitz berezi batzuk (-*garri* atzizkia, oro har, eta *ekuskarri* bereziki, *alperreria*, *ordikeria*...) eragin hori erakusten dute, zeharka inondik inora ere; usu darabilen -*tasun* atzizkiak, gainera, lexikoarekiko kezkaren bat adieraziko luke. Mugimenduan sarturik ez bazen ere, iturri idatzien bitartez behintzat ezagutu ezagutzen zituen berrikuntzok: jakin dugu Olaetxearen dotrina erabili zuela, eta honek txistukarien oposaketak erakusten zizkion; bai frikari/afrikatu (*atseguin* hitzean itzuri zitzaion grafiarekin) eta baita lepokari/apikari posaketa ere; nahiz eta berak grafia hori bartertu eta tradiziozkoa erabili (§§ 4.3.2.1.1.1.1 eta 4.3.2.4). Iturri idatziek azal ditzakete baita *aren dibide magestadea* eta *jaquinsu* hitzaren grafian, idazleak *y*- baitarabil **j*- hotsaren ondorengoa islatzeko (§ 4.3.2.1.1.1.2).

Zuzenenan Larramendiren mugimendua ez ezagutzeak jesuitengandik urruntzen gaituzte, ordenakide hauek proposaturiko hizkuntza molde zehatzari jarraitzen ez baitio. Hala ere, baditu zenbait ezaugarri partekatuak bere garaiko Bizkaiko beste idazle batzuekin, Larramendiren ezagutza izango dutenekin; beraz, beste ordena bati begira jarri behar izan gara. Erabiltzen dituen berrikuntza grafiko bakanek (euskal **j*-ren ondorenak adierazteko <*y*> grafia baliatzea, <*sh*> grafia /*f*-rako), frantziskotarren inguruko testuetan aurkitu ditugu, goiz aurkitu ere, eta areago zenbaitetan Añibarro eta bien arteko kidesun esanguratsuak antzeman uste ditugu lexikoan: hainbat hitz eta egitura Añibarroren testuetan bakarrik lekukotu dira (cf. § 4.2.5). Ez dugu ahazten kidesun horietako batzuk biak eremu linguistiko berekoak izateari dagokiola (cf. § 4.4.2) baina erabakigarriak dira *ezeberezetasun*, *ikaratasun* eta *errakuntza* hitz eratorriak: lehengo biak orain artean areatzatarraren obretan bakarrik genituen; hirugarrena, bere aldetik, erabiltzaile gehiago (ez gehiegi) izan dituen arren, Añibarroren obretan ageri da estrainekoz.

Honela, Añibarrorekiko harremana proposatzeko adina datu badugu, baina harreman horren norabidea zehaztea falta zaigu. Hiru aukera nagusi ditugu, nonbait: (i) gure egileak Añibarroengan eragitea (GE > Añ), (ii) alderantzizkoa, Añibarro izatea gure egilearengan eragina izan zuena (Añ > GE) edo (iii) gure egilea eta Añibarroren arteko elkarkidetzaren egotea (Añ = GE), dela elkar ezagutzen zutelako, dela giro bertsean murgildurik zirelako. Sermoitegiaren datak (XVIII. mendeko 70eko hamarkadaren bukaera edo 80koaren hasiera) bigarrena ezinezko bihurtzen du, Añibarro 1764an sartu baitzen frantziskotarretan Bilboko komentuan eta 1772an ikasketak amaitu, orduan apaizturik. Gainera, frantziskotarrek Friasen (Burgos) zuten komentuan egon zen

denbora luzez, 1790. urtera arte ez zen Zarauzko Misiolari Kolegioan sartu, eta orduan ekin zion euskaraz idazteari, antza denez, bere misiolari egitekoak hartaratuta (Urgell 2001: xxix); hots, gure sermoilariak bere lana idatzi ostean.

Hau guztiau kontuan harturik, Añibarroren aurreko sermoilari frantziskotar baten lanen aurrean gaudela proposatu behar dugu. Zarauzko komentuan izandako sermoilari bat balitz (hor biltzen baitziren misiolari frantziskotarrak), litekeena da urteren batzuek behintzat Añibarroekin batera bizi izatea. Dena dela, ez da ezinezkoa beste komentu batekoa izatea, frantziskotarren komentu orotan predikariak baitzeuden inguruetakoa jai nagusietan eta une garrantzitsuetan sermoiak egiteko herriari: dirudienez, Astarloa Bilboko komentuan zela Bizkaian barrena ibili zen sermoilari (Altzibar 1992a: 242; ik. baita Etxebarria 2005: 67-101, non hainbat lekutako komentu-predikari izendaturiko fraileak aipatzen diren). Hortaz, baliteke hizkuntzarekiko irizpideak eta sermoilarien arteko elkarreraginak komenturik komentu ibiltzea frantziskotarren artean.

Gainera, bigarren mailako froga batekin baino ez bada ere, Zarauzkoarekin lotu beharrean Bilboko komentuarekin lotuko luke *BFB*-ko sermoiekin batera Astarloarenak ere aurkitu izanak.³⁰⁰ Sermoion agertzearen historia ikusita, frantziskotarren komentuetako bat dateke testuingururik egiantzekoena, dela Zarautz, dela Bilbo, edo dela Bizkaiko beste edozein eta Esklaustrazio garaian egondako fraiden mugimenduetan (cf. Villasante 1974a) sermoioak komentutik atera izana.

4.3.3.2. Predikazio garaiko hizkuntza

Aurreko lerroetako azterketan ikusi dugu Dotrinazko Sermoitegiaren egileak zein testuinguru kulturean egin zuen bere lana. Ikusi dugu, oro har, Larramendik hasitako mugimenduan sartua ez zegoela, eta ondorioz Euskara Zaharreko lekukoena ezaugarriak dituela oro har. Alabaina, zenbaitetan garai zaharreko hizkera eta idazmoldetik aldentzen da eta zenbait ezaugarriak erakusten digute nolabaiteko lotura bat dela gure idazlearen eta ondoko “literatur bizkaieraren” hizkuntzaren artean.

Balitzko lotura horren bila, Dotrinazko Sermoitegia garaiko testuekiko non kokatzen den ikusi nahi izan dugu, eta idazlearen eta garaiko (XVIII. mendearen bigarren erdialdeko) lan argitaratu zein argitaragaben arteko konparaketa egitera eraman

³⁰⁰ Altzibar, bere tesia egiteko, hainbat eliz eta komentu artxibutan ibili zen euskal idazleei buruzko paper oro biltzen eta aztertzen, baina ez zuen Astarloaren sermoirik aurkitu (Altzibar 1992a: 242).

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

gaitu. Honela antzeman dugu garai horretan, sermoilarien artean nonbait, erabaki edo ohitura batzuk hartzen zeudela, ondoko literatur bizkaieran gauzatuko direnak. Izan ere, ondoko literatur lanak (Mogel, Añibarro) sermoitegietatik edo misioetatik oso hurbileko lanak ditugu, eta ez dugu uste hori inolako kasualitatea izango denik.

Ikusi ditugun loturak mota askotakoak izan dira, eta ezaugarri garrantzitsuenen artean grafia dugu ezbairik gabe: ordukoa da Larramendiren eraginez gauzatu zen grafi sistemaren aldaketa Hegoaldean, eta ikusi dugu Olaetxea eta Kardaberazen testuetatik nonbait, afrikatuak adierazteko beharra zabaldu zela, horretarako Larramendik Iparraldetik ekarritako [t + txistukari] sistema hartuz (§ 4.3.2.1.1.1.1). Alde honetatik sermoitegiak erabilera zaharraren lekuko den arren, era berean berritzaile da <y> eta <sh> grafiak erabiltzeagatik, eta jabetu gara ezaugarri hauek ez direla gure sermoitegiaren bereizgarri; aitzitik, garai horietako beste testuetan ere aurki ditzakegu honelako erabilerak (nahiz eta ez gure sermoitegian bezain hedaturik, y-ren kasuan bederen), eta beraz, Añibarro-Zabalaren grafia proposamenetan (1821) arautzen bada ere aurretik zetorren tradizio batean oinarritzen dira frantziskotar hauek.

Bestelako ezaugarrietan, gure sermoilariak eredu zaharra jarraitu zuen, baina egindako testuen arteko konparaketak erakutsi digu Larramendiren ostean grafiaz besteko ezaugarriak ere ari zirela mendebaldeko idazleen artean hedatzen. Hasteko, genitibo singularraren idatzizko bereizketa, Kardaberazen adierazpenaren kariaz (De la Quadra, Sarria...). Garai horietan bokal bikoitz zaharra (*zaar*, *loo*) galtzear zeuden zenbait hizkeratan (tartean gurean), baina De la Quadrak (1784) eta Sarriak (XVIII. mende akabua) bokal bikoitzak berrezartzeko joera erakusten dute, eta idazle hauen aztertzaileek hiperzuzenketak edo grafiatik haratago ez doazen bokal bikoitzak deritzete, agian idatziz forma osoagoak erabili nahiagatik.

Beste horrenbeste ikusi dugu “Markinako sistema” delakoaren eufonia taldeetan ere; izan ere, Altzibarren lanak (1992a) jarraituz, ikusi baitugu Mogelen lanak argitaratu aurretik hedatu zirela, Larramendiren beraren eta are aurreko beste idazleen lekukotasunek erakutsi digutenez (*Bulda*, Urquizu). Alabaina, Olaetxearen ondoko argitalpen ezberdinen behatzeak erakutsi digute argiki nola joan zen eufoniak hedatzen. Añibarroren hastapenetako lanetako eta Laudioko dotrinako epentesien bidez, proposatu ahal izan dugu eufonia horietako zenbait ez direla idazlearen hizkerari egotzi behar, ohitura idatziari edo; eta honetaz baliatuz gure sermoitegiko *i* epentesiak azaltzeko ildo berri bat zabaldu dugu, hauen azpian ere idazte-ohituraren bat izatea.

Baina lexikoa izan da Dotrinazko Sermoitegia eta ondoko literatur bizkaieraren arteko zubia argiki erakutsi diguna. Lortu ditugun datuen arabera, egileak ez zuen *HH* zuzenean erabili, baina badirudi horko zenbait hitz eta adiera heldu zitzaizkiola, bestelako bide batetik nonbait. Ikusi dugu orduko idazleengan (Gandara, De la Quadra, Palacios...), Larramendiren eragin hori: Gandarak *maisú* deitzen du Larramendi, Palacios frantzinkotar sermoilariak Larramendiren gramatikarekin ikasi zuen euskara (cf. Urgell 2012: § 2.2) eta De la Quadrarenean *jakinbide* edo *lazkiro* bezalako hitz larramenditar argiak ageri dira; beraz, andoaindarraren eragin hori azaltzeko biderik errazena da pentsatzea arrazoia sermoigintzaren giroan dugula. Horrekin batera, *OEH*-ren eta *EKC*-ren laguntzarekin, erabaki dugu gure sermoiek dakartzaten hitz eratorri zenbait literatur bizkaieran agertuko direla estreinakoz, eta testuaren data goiztiarrak, hitzon agertze data aurreratzeaz gainera, lehenagotik sermoigileen artean ezagun eta erabiliak izan zirela iradokitzen du, nolabaiteko *pool lexiko* bat egon zela giro horretan.

Sermoilariari dagokionez, frantziskotar giroko idazlea zela erabaki dugu goian, baina datu guzti hauek ondorio garrantzitsuago bat ekarri digute: garai horretan “predikazio garaiko hizkuntza” dei dezakegun mugimendu bat izan zela, Larramendik hasitako mugimendu horrek mendebaldeko lehen fruituak eman ostean (Kardaberaz, Olaetxea) egon zen argitalpen ilunaldi horretan badirudi, sermoigintzaren inguruan bildutako idazleek ez zirela geldirik egon; aitzitik, zenbait idazte ohitura eta ezaugarri hartu zituztela. Sermoigileek erabaki linguistiko eta estilistikoak hartzen ziharduten, eta bizkaieraz hitz egin eta idazteko modu bat hedatzen ari zen, beharbada frantziskotarrek oso bereziki hedatu zutena beren misioaldietan, eta XIX. mendeko literatur bizkaiera “azaleratu” (i.e. argitaratu) zena. Eta hortik azal genezake gure sermoigilearen eta ondoko literaturaren artean ikusi ditugun bat egiteak, mugimendu horren oihartzunak heldu zitzaizkiolako.

Zaila da nagusiki idazle baten datuen gainean hipotesirik plazaratzea, eta lan honek, noski, ondorengo lanen hastapen edo pizgarri baino ez da: gainerako sermoitegi “ez klasikoen” (cf. Etxebarria 2005) azterketa arretatsua beharko genuke, hemen dioguna baieztatu hala ezeztatzeko; Hala ere, gure ustez datu nahikorik eman ditugu “predikazio garaiko hizkuntza” horren alde, eta hizkuntza horren ezaugarri zenbait zirriborratzen saiatu gara. Honek, nola ez, agerian jartzen du hasieran aipaturiko ideia oso garrantzizko bat: alegia, historia liburu argitaratuen bitartez, eta areago liburu argitaratu garrantzizkoen bitartez bakarrik berreraikitzen dugunean, azpian zetzan giro ñabarra (liburu horien oinarrian dagoena) alde batera uzten ari garela eta historia

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

aberatsago bat lortzen dugula Dotrinazko Sermoitegia bezalako lekukotasun (ustez) apalago hauek aztertuaz.

4.4. Testuaren kokatze historiko eta geografikoa

Testu bat nongoa den galderari erantzuteko bide bakarra, kanpoko daturik ezean, gainerako testuekin konparatzea da, aspaldi Mitxelenak (1958, *OC XII*) Landucciren hiztegia zela eta erakutsi zuen bezala. Azterketa honetan, gure aldetik, hura eta ondoko lanak gidari izanda egin dugun metodologiaren sistematizazioa (cf. § 2.4.1.3) erabiliko dugu: honela, testu bati jatorriren bat esleitzeko lehenengo kokapen historiko bat behar dugu (§ 4.4.1), ez berez testuaren data zehatza aurkitzearen (horretarako datu fidagarriagoak izan ditzakegu), baizik eta garaiko zein testuren artean kokatzen den ikusteko. Honen ostean eta honen bitartez, kokapen geografikoari ekin diezaiokegu, historikoak emandako oinarriak erabiliz. Azkenean, ahal denean, testuaren *Realia* edo testu generoaren soziologiak hipotesia sendotzeko balioko liguke, beti ere aurreko bien lagun.

4.4.1. Kokapen historikoa

Dotrinazko sermoitegi hau XVIII. mendearen azken hereneko testua dugu, orduan indarrak biltzen zegoen gipuzkerazko literatur hizkuntzarekin (Lar, Mb, Cb...) eta literatur bizkaieratzat jotzen dugun hizkuntza modua sortzen hasia zen garaian (Cb, Olaetxea, De la Quadra...). Gure testua garai horretan kokatzen bada ere, Larramendiren inguruko giro jasoenean sortu ziren lanen hizkuntza modu berrietik (Gandara edo Olaetxearen saioetatik, adibidez) at dago hainbat alderditatik zure testua (cf. § 4.3.2.1); beraz, testu fidagarria dirudi (oraingoz zehaztu gabe dugun) eremu bateko hizkera deskribatzeko (cf. Camino 2003: § 3.7).

Hizkeraren azterketan (§§ 4.2 eta 4.3), ikusi denez, ez gara mugatu ezaugarrien deskribapena egitera; aitzitik, garaiko mendebaldeko beste testuekin erkatu dugu, ezaugarrien nolakotasuna erabakitzearen, eta ikusi dugu hizkerak ezaugarri interesgarri

asko dituela, bai testua historikoki kokatzeko baina baita euskararen historia hobeko ezagutzeko ere: agerian gelditu da testuko hizkuntzak arkaismorako joera handia duela; zehazkiago, orduan bizkaiera gehienez galdurik edo galtzear zeuden ezaugarriak eskaintzen ditu, haietako batzuek eremuren batean uste baino nahikoa beranduago arte irau zutela erakutsirik. Atal hau orduan aztertutako ezaugarrien laburpen bat da.

4.4.1.1. Bokal sudurkarien iraupena orain artean XVI. mendeko (Madariaga, Garibai, *RS*, Sarasketa) eta XVII. mende erdialdeko (Kapanaga) datuetan oinarrituta bakarrik erabaki zitekeen, baina gure testuak bokal horien ondorenak bederen XVIII. menderaino heldu zirela erakusten du, garai batean sudurkari ziren hiatoetan aurkitu dugun txandakatzea ikusita (§ 4.2.1.6).

Dena dela, oro har Euskara Arkaikotik Euskara Zaharrerako igarobidea markatzen duten aldaketa gehienak morfologia eta joskerari dagozkie, ezagunaenez (ik. Lakarra 1986). Aldaketa hauetatik batzuk ere gure testuan lekukotu ditugu, oso berandu, beraz.

4.4.1.2. Ablatiboan lehian ziren formei dagokienez (§ 4.2.2.1), dakigunez, *-(r)ean* jadanik XVI. mendean galdu-gordean zen dagoeneko, eta bera eta *-reanik* pleonasmoa gehienez XIX. mendean erdialderaino bizi izan zen: Betolatzaren dotrinan (1596) *-(r)ean* > *-(r)ik* ordezkapena gertatua da, eta *-rean*-en azken agerralditzat ematen ziren Arzadunen dotrinaren bigarren argitalpenekoak (1758). *-reanik* pleonasmoa, bere aldetik, jadanik Zumarragarengan lekukotzen da lehenengoz (1537) eta honen azken agerraldiak 1858ko Laudioko dotrinakoak dira (cf. § 4.4.3). Are lehenago galdutakotzat jotzen genuen pluraleko *-etarean*: XVII. mende bukaeran lekukotzen zen *-etarean* azkenekoz (Zubia-Lezamiz), *-etarik* oso hedaturik zela jada: gure hizkeran, hori ez ezik, bestetan lekukotzera heldu ez zen *-etareanik* pleonasmodun forma ere eratzera heldu zen.

Dotrinazko Sermoitegiko sistema hirukoitz hau XVIII. mendean Barrutiak baino ez du lekukotzen (Lakarra 1984: 184): garaiko beste testuetako *-rean(ik)*-en adibideak (De la Quadra, Arzadun, Laudioko dotrina), gainera, buruz ikasten diren eliz testuetan oharkabean gorde diren arkaismo legez uler ditzakegu (Lakarra 1984: 189); gure testuan, ordea, sistema arkaiko hau nahiko indartsu mantentzen da singularrean, eta askozaz ere arkaikoago da oraindik pluralean, Kapanarenganaino (1656) atzeratu behar baikara gure hizkerak erakusten duen egoera berdintzeko.

-rean ablatiboaren ezohiko iraupenarekin lotuta dago, dudarik gabe, testuak alor honetan duen arkaismo azpimarragarriena, hots, *-rean bat* egitura: Azkoitian 1614an

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

lekukotzen delarik ere, eremu bertsuko lehenagoko testuek (Kapanaga, *VJ...*) *-reen bat* edo *-ren bat* forma berriagoak baino ez dituzte.

4.4.1.3. Gure testuak *-ti* gorde du prosekutibo balioan (§ 4.2.2.2), nahiz 1737ko Urkizuren Errosario Santuari buruzko liburuan jada ablatibo balioa hartuta ikus dezakegun. Deba ibarrean eta Araba inguruan lehenago gertatu zela dirudi, *Eibarko ordenantza*-k, Barrutia eta Gamiz ikusita (Lakarra 1984a: 184-186) baina Bizkaiko sortaldean eta erdialdean XVIII. mende bukaerara itxaron behar da ordezkatzeko: Mogelen *Peru Abarka*-n (ca. 1800) dagoeneko *-ti(k)* da ablatibo forma nagusia; sartalderago, De la Quadrarengan ere (1784) ablatibo balioa duen *-ti* zenbait badira, *-rik* izan arren atzizkirik erabiliena adiera honetan; modernoagoa den Laudioko dotrinan (1828), baina, *-rik* baino ez da erabiltzen (Peru Abarka eta Laudioko dotrinaren aldeez, cf. Lakarra 1984a: 187).

4.4.1.4. Aditz sisteman aurkitu ditugun arkaismoetako batzuek XVIII. mendea baino gehiago aurreko mendeak gogorarazten dituzte. Halakoak dira *deunso* edo *deingusat* erako adizkiak, *n* gabeko formekiko lehia galduz doazenak; guk uste bezala (cf. § 4.2.3.10), *n* hori erroak (**dun, gin*) galdu ez duen sudurkaria bada.

4.4.1.5. *Emaitte-* edo *kentzaitte-* tankerako aditz-izen arkaikoak (cf. § 4.2.3.2) Araba eta Bizkaiko testu zaharrenetatik lekukotzen dira, baina lehenengoa oso ahul zegoen jada XVII. mendean eta ez zen literatur bizkaierara helduko; bigarrena, aldiz, literatur bizkaierara hondar modura heldu zen. Gure testuan indartsu dira, Olaetxearen dotrinatik kopiaturiko pasarteetako *emote-* eta *kenze-* formak aldatzeko beharrak erakusten duenez (§ 4.3.2.4). Bi atzizki hauen azken adibideak gure testua baino modernoagoak dira, Laudioko dotrinetan (1828, 1858) aurki ditzakegunez,³⁰¹ eta lehenengoa egungo Orozkoko hizkeran ere bada, *emoiten* adibidean bederen.

4.4.1.6. Aditzoina ere orain artean mendebaldean XVIII. menderako galdutzat jotzen zen (Barrutia izanik nasaiki darabilen azken idazlea). Sermoitegiko erabilera oraindik aski gardenak baina, zilegi egiten du pentsatzea antzinako aditzoinaren hedapenari zor zaizkiola Mendebaldeko gaurko hizkera batzuetan erabiltzen diren *-a* partizipioak, eta ez prozesu fonetiko bati (cf. § 4.2.3.1). Hau ondorioztatzeak, gainera, XVIII. mendeko Olaetxearen dotrinan eta Albenizen testuan, eta XIX. mendeko

³⁰¹ *OEH*-ren datuen arabera, Busturiako katexima (1849) da *-tzaite* atzizkiaren agerpen berankorrena (Urgell 2006: 938); hala ere, esan bezala 1858ko Laudioko dotrinan ere erabiltzen da (Urkijo 1994: 122); gainera, irakurtzen dugunaren arabera, badirudi sistematikoa dela 1828 eta 1858ko dotrinetan CVC-*tu* aditzekin *-tzaite* atzizkia erabiltzea.

Añibarroren idazkietan (ca. 1810) adibide gehiago aurkitzera eramán gaitu, azalpen honen indargarri.

4.4.1.7. *l-* aurritzia (cf. § 4.2.3.5) mendeko esaldietan eta estilo ez zuzenean erabiltzea, oro har XVIII. mendean ordeztu bide zen egun erabiltzen den *z-*dun adizkiez euskalki gehienetan, zubereran izan ezik. Mendebaldean, XVII. mendeko Kapanaga, *Viva Jesus* eta *Egiaren kanta*-k erabiltzen dituzte honelako adizkiak, eta literatur hizkuntzara fosildurik heldu zela dirudi (Añibarro, Zabala), gurean erruz erabiltzen den bitartean.

4.4.1.8. hurbiltze adlatiboa (*-no*) denborazko perpausak egiteko erabiltzea oso ezaugarri arkaikoa dugu mendebaldeko hizkeretan (cf. § 4.2.2.5), Lazarragarenean (ca. 1610) baino ez baita lekukotzen, Iparraldean gaur egunera arte heldu den bitartean.

4.4.1.9. Lazarraga agertu arte zeharo ezezaguna zen *jakin* laguntzailea sermoitegian ere aurkitu dugu behin, eta testu hartan bezalatsu hemen ere iragangaitz gisa agertzen da, datibozko argumentuarekin eta **edin* aditzaren aldaera bi pertsonaltzat jo dezakegu, Lazarragaren argitaratzaileek bere adibideekin egin bezala.

4.4.1.10. **ezan* laguntzailea (cf. § 4.2.3.13) Bizkaiko sartaldea eta erdialdean, XVII. mendeko testuetan agertzekotan, eiharturik ageri zen (Mic, Cap...). XVIII. mendean adibideak aurkitzekotan, gehienbat aginteran ditugu, eta hego-sortaldeko Barrutiak eta Arabako Albenizek (1778) darabiltzate: gure testuak, adibide bakarrean bada ere (hiltorian zelako seinale) sartaldean ere lekukotzen du laguntzaile honen erabilera fosila, aurrekoak bezala, aginteran.

4.4.1.11. Orain artean XVII. mende erdialdetik (Cap, 1656) galdutzat jotzen zen aoristo trinkoaren adibideren bat badu gure testuak (cf. § 4.2.3.15), baina gai honetan interesgarria bada hizkera hau aoristo perifrastikoan dugunagatik da, beste lekuko batzuetan aurkitzen den erabilera fosilak izan beharrean, adizki biziak ikusi ditugu hemen, perifrasi honen garai batean zituen funtzio zenbaitetarako bereziki darabiltzanez. Halako perifrasiak erdialde-ekialdeetan XVII. mendean galduak ziren arren (Kapanagak, 1656, jada fosildurik baino ez luke), sartaldeko hizkeretan iraun zuten luzaroen: ipar-sartaldean XXI. mendera arte mantendu dira adizkiok, eta hego-sartaldean XIX. mendean oraindik zerabiltzaten, Laudioko dotrina (1858) lekuko.

4.4.1.12. *Asko* zenbatzailea partitiboarekin agertzen da forma fosilduez bestetan (cf. § 4.2.4.1), XVIII. mendean nahiko bakana bazen ere; Añibarroren lekukotasunak ere lagun, esan dezakegu Bizkaiko hegoaldeko hizkeretan behintzat luzaro mantendu izan zela.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

4.4.1.13. Datiboaren komunztadura aukerakoa izatea ere (cf. § 4.2.4.2), badirudi hegoaldeko bazterreko lekukotasunetan ageri den ezaugarria dela, Albenizek (XVIII. mendearen bigarren erdialdean) eta Añibarrok (XIX. mende hasieran) lekukotzen duten ezaugarria izanik; eta agian hegoaldeko hizkeren ezaugarri baten azken hondarrak lirateke.

4.4.1.14. *Ze* ezezko marka zaharraren historia egiteko eta gaurdaino heldu den haren arrasto batekin lotzeko aukera eman digu sermoitegiak. Bizkaiko hego-sartaldean XIX. mendera arte heldu bide da behinik behin, Basauriko Astigarragaren lanetan (ca. 1820) aleren bat aurkitzen baita; ipar-sartaldeko zenbait hizkeratan, ordea, gaur egunean ere bada (xehetasun gehiagorako, ik. § 4.2.4.10). Gurean, berriz, *ze* bere horretan agertu ez da agertzen, baina haren birmarkatzetzat jo dugu testuko *eze* adizlaguna (< **ez* + *ze*), hemen eta Ugaoko XIX. mendeko lekukotasun argitaragabeen baino ez dena. Halaber, subjuntiboarekin erabiltzen den *zein* markari ere jatorri bera eman diogu: **ze* + *din* (§ 4.2.4.11), eta gaur egun Nerbioi ibarreko hizkeretan (Buxa, Zollo, Zeberio, Orozko) lekukotzen da; Testu zaharretan, gure sermoitegiaz gainera, Astigarraga basauriarraren lanetan aurkitu dugu, bai eta Ugaoko lekukotasunean.

4.4.1.15. Sermoitegian, esan gabe doa, gaur egun arkaismo izan arren XVIII. eta are XIX. mendean ohiko ziren hainbat ezaugarri lekukotzen dira. Aztertu gabe dago nola erabiltzen zen mugagabea Hegoaldeko literatur euskalkietan, baina hauen eta gure sermoitegiaren artean ez dirudi ezberdintasun larregirik dagoen puntu honetan. leku-genitiboaren *zein* erlatibozko perpausaren kokapen zaharraren kokapenaz gehiago dakigu (cf. § 4.2.4.4), eta orduko testu batean espero diren arkaismoak badaude gure testuan: erlatibo zaharrak badituzte frai Bartolomek eta Lardizabalek, adibidez, mende erdi beranduago eta leku-genitiboaren adibide modernoak ere badira. Gure testuan bezala, XIX. mende hasieran ere baditugu *-zu* adizkiak plural balioarekin neurri batean edo bestean literatur bizkaieraren idazleetan (ik. § 4.2.3.12).

4.4.1.16. Bestalde, egun bizkaierazkotzat hartu ohi diren zenbait ezaugarri edo ez dira, edo oso gutxitan bakarrik lekukotzen dira hemen: esaldi konpletiboetan osagarria gauza jakina edo ziurra denean *-na* erabiltzea, adibidez, ez da lekukotzen gure testuan (cf. § 4.2.4.9). Halaber, jakintzat ematen da mugimenduzko aditzekin aditzizenak inesiboan erabiltzen direla, eta ez adlatiboan; gure testuan, ordea, bietara ditugu, XIX. mendeko beste idazle batzuetan (Sarria, Astigarraga, Añibarro...) legez (cf. § 4.2.4.8).

4.4.1.17. Lexikoan aurkitzen diren hapax eta erdi-hapaxek ere hizkeraren arkaikotasuna adierazten dute: euskal tradizioan bakan dira *betakari* ‘bekataria’ aldaeraren adibideak (VJ-n bakarrik), eta *gorreto* ‘gorrotoa’, *tilinque* ‘tanta (?)’ eta *geiegu* ‘deia (?)’ hitz edo aldaerak ez dira beste inon lekukotu, ez *bati bere* ‘baita ere’ eta *bezen* ‘bezain’ aldaerak, ez eta *coaine* partikula ere. *-tzagarik* atzizkia Añibarrok ere lekukotzen du, baina *-tzako* ‘tzagabeko’ hapaxa dugu. Gainera, Bartoliren geografia iragazkiak erakusten digu *araindo* ‘haraino’ erakusle forma arkaismoa dela (cf. § 4.2.2.6), orain arte Nafarroako Burundan baino ez baitzegoen lekukotua, eta beste horrenbeste esan genezake [aditzizena + *artio*] egituraz ere (cf. § 4.2.5).

Dena dela, XVIII. mendeko euskaran espero zitezkeen berrikuntzak ere badira sermoitegian. Hauetako batzuk aurreko garaietatik zetozen:

4.4.1.18. *RUI* erregela (§ 4.2.1.7) *VJ* dotrinatik lekukotzen da (ca. 1640), gure testuan duenaren antzeko indarrak, gainera. Data honen ondoren bestelako testuetan islatu zen (Sarria, Añibarro...), literatur hizkuntzara heldu ez bazen ere (Añibarroz, cf. Urgell 1985: 99).

4.4.1.19. *ia* hiatuetan sortzen den epentesia XVIII. mendera arte gutxi lekukotzen da: lehen agerpenak XVII. mendeko *Bulda*-n ditugu, eta ordutik aurrera han-hemenka sortu bide zen: zenbaitetan ahozko hizkeraren lekukotasuntzat hartu baino, literatur hizkeraren eraginari egoztea egiantzekoagoa izan badaiteke ere (cf. § 4.3.2.1.2.2), XVIII. mende honetako ezaugarritzat har dezakegu.

4.4.1.20. Garai honetan hasten dira lekukotzen *-adu* > *-au* erako uzkurdurak aditz partizipioetan, eta gure testuak horren hasikinak erakusten ditu (§ 4.2.3.1).

4.4.1.21. Pertsona biko adizkiaren eta hirukoaren arteko *a / e* oposaketa galdua da *egin* adizkietan (§ 4.2.3.4): Añibarrok eta Astigarragak ere erakusten digute ez zela XIX. mendera heldu.

4.4.1.22. Hizkera berritzaileagoa dugu *-z* pluralgilearen erabileraren arabera, dakigunez **edun*-en paradigmaren oso berandu arte ez baitzen guztiz gauzatu atzizki honen hedatzea. Añibarroren hizkerarekin konparatuz gero, adibidez, berritzailea da oso gure egilea puntu honetan (§ 4.2.3.3): sermoitegiko *-it-* pluraldun adizki apurrak 3. pertsonakoak dira eta beti pleonastikoak, baina *-z* soila duten adizkiak ugariagoak dira: hirugarren pertsonaz kanpoko forma bakarrik berriak dira (*dodaz*, *dozuz*) eta 3. pertsonetan ere *dabez-* eta *daudez-* erakoak dira ugarien.

4.4.1.23. Ereku txiki batean bakarrik aurkitzen diren zenbait berrikuntza ere badira: fonetikan *ua-* > *-ue* > *-ui* asimilazioa dugu (§ 4.2.1.7), Orozkoko dotrinatik

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

aurrera (ca.1864) lekukotua, eta *io* > *iu* aldaketa, Orozkoko erreguetan (ca.1739) eta gaur egungo bertako hizkeran lekukotua (§ 4.2.1.8).

4.4.1.24. Morfologia eta syntaxian *-tuite* aditzizena dago, gure ustez [-*tu* + *egite*] egituraren gramatikalizazioa litzatekeena eta Laudioko (1858) lekukotasunetan bakarrik aurkitu dena, *VJ* testuaz gainera (§ 4.2.3.2).

4.4.1.25. Hizkera honetako ezaugarriak dira, bestetik, ezezko *eze* marka, *ez* + *ze* berrindartzea litzatekeena (§ 4.2.4.10), eta testu honetan eta Ugaoko Iturriagaren obretan bakarrik aukitu dena.

4.4.1.26. Ezaugarri eskusiboa bide da lehenaldiko baldintzaren protasiko [partizipioa + *ba*-**edin/egin* lehenaldian] perifrasi, aoristo perifrasiaren eradura sortu bide dena (§ 4.2.3.9.1).

4.4.1.27. Era berean, 3. graduko erakusle pluralaren gainean artikulua plural berri bat sortu da, *-aik* formapean, bai eta inesiboaren deklinabide marka berri bat, *atan* ‘hartan’ erakusle formaren bitartez (§ 4.2.2.8).

Ikusten denez, kronologikoki hizkera berezi bat dugu esku artean, arkaismo eta berrikuntza asko biltzen dituen . XVIII. mendean normalak diren arkaismoekin batera ordurako galduak edo galtzar ziren beste ezaugarri asko ditu; bai eta hainbat berrikuntza ere, batzuk lehendik ere ezagutzen zirenak, baina beste batzuk hemen bakarrik aurki ditzakegunak. Atal honen laburpen legez, taula bana egingo dugu hizkeraren arkaismo eta berrikuntzekin, Mendebaldeko bestelako testuetako egoerarekin konparaturik:³⁰²

	XVI. m.	XVII. m.	XVIII. m. has.	XVIII. m. buk.	XIX. m	XX. m.
<i>Daiqueano</i>	~	-	-	-	-	-
<i>deunso</i>	~	-	-	-	-	-
<i>jakin lag.</i>	~	-	-	-	-	-
b. sudurkarien itzala	+	~	-	-	-	-
aoristo trinkoa	+	~	-	-	-	-
aoristo perifrastikoa	+	+	~	?	©	©
<i>-rean</i> ablatiboa	+	+	~	©	©	-
<i>l-</i> aurrizkia	+	+	~	~	~	-

³⁰² Ikur hauek erabiliko ditugu: (1) + = ezaugarria erabiltzen da; (2) - = ezaugarria galdurik da; (3) ? = ez dago datu nahikorik; (4) ~ = oro har ez dagoela dirudien arren, testuren batek lekukotzen du. (5) © = eremu geografiko bakar batean gordetzen da.

<i>-ite₁</i>	+	+	-?	-?	⊙	⊙
ablat. vs. prosek.	+	+	+?	-	-	-
<i>-tzaite</i>	+	+	+	+	~	-
aditzoinak	+	+	+	~	~	-
<i>*ezan</i>	+	+	+	~	-	-
<i>-zu pl.</i>	+	+	+	+	+	-
<i>-rik asko</i>	+	+	?	+?	⊙	-
dat. komuntadura ez	?	?	?	~	~	-
<i>zein (< *ze din)</i>	?	?	?	?	⊙?	⊙
<i>-ten / -tera</i>	?	?	?	?	?	?
<i>-na osagarria</i>	?	?	?	?	?	?

1. taula: Hizkeraren arkaismoak

	XVI. m.	XVII. m.	XVIII. m. has.	XVIII. m. buk.	XIX. m	XX. m.
b. bikoitzak	+	+	+	+	+	-
<i>RUI</i> erregela	-	~	-	+?	+	+
<i>-ua > -ui</i>	-	-	-	-	⊙	⊙
<i>-io > iu</i>	-	-	-	-	⊙	⊙
<i>-an gen.</i>	⊙	-	-	-	+?	+?
<i>-ai dat. sing.</i>	⊙	-	-	-	+?	+?
erak.+IS-art. zah.	-	+?	+	+	+	+
erak.+IS-a	-	-	-	-?	+	+
<i>-tuite</i>	-	~	-	-	⊙	-
<i>dauz pl.</i>	-	-	-	-	+?	+
a/e oposaketa galtzea	-	+?	-	+?	+?	+
part.+ba-* <i>edin/egin</i> leh.	-	-	-	-	-	-
<i>eze 'ez'</i>	-	-	-	-	~	-
<i>aec IS-aic</i>	-	-	-	-	-	-
<i>-atan</i> artikulua	-	-	-	-	-	-

2. taula: Hizkeraren berrikuntzak

Ikusten denez, hizkera honetan gordetzen diren arkaismoetako lau XVI. mendean galdurik bide ziren mendebaldean, lau XVII. mendean zehar, bost XVIII. mendean, eta bi oraindik literatur bizkaieran aurkituko dira XIX. mendean. Alabaina, honek duen garrantzia ez datza arkaismoen kopuruan bakarrik, ez eta arkaismo horiek oso arkaiko edo ez hain arkaiko ote diren eta horretan; hemen interesgarriena

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

arkaismoen konbinaketa bera da: behin eta berriz esan dugu ezaugarriak han eta hemen agertzen direla, baina ez dira inon agertzen denak batera, oso oker ez bagaude. Honek bazter hizkera batean pentsarazi behar digu, zehazki orain artean ezagutzen ez zen batean. Bazter hizkera dela bermatzen dute berrikuntzek ere: (1) ordurako bizkaieraz ezagunak ziren hiru berrikuntzarekin batera, (2) beste lau beranduago baino ez dira hedatuko bizkaieran; (3) eremu geografiko txiki batean bakarrik lekukotuko diren hiru baditugu eta (4) badira testu honetako esklusiboak diren lau berrikuntza ere.

4.4.2. Kokapen geografikoa

Begien bistan dago mendebaldeko hizkera baten lekukotasuna dela, ezaugarri mugatzaile (§ 2.4.1.3) ezagunek erakusten digutenez: besteak beste, NOR-NORI-NORK laguntzailean **eutsi* erroa darabil eta *-gaz* atzizkiaz baliatzen da sozietatiboa markatzeko. Eremu zabal horren barruan sortaldeko hizkera ez dela erabakitzeke (cf. Zuloaga 2013: 598) aski da sozietatiboari begiratzea, *-gaz* bakarrik aurkitzen baitugu, hala singularrean (*-gaz*) nola pluralean (*-kaz*); sortaldean eta Araban, berriz, *-gaz* (sing.) vs. *-kin* (pl.) sistema esperoko genuke, Lazarragak, Kapanagak eta Mogekek erakusten dutenez. Halaber, sartaldean (*RS*, *Mic*, *VJ*, *EK*) *-gan* (*Virgineaganic*) erabiltzen ziren bitartean sortaldean (*Cap*, *Arzadun*) *-gaña* eta *-gañik* (*gugaña*, *Virgineagañic*) ditugu; sortaldeko hegoaldean Barrutiak *zugainik* (65) eta *Virjiniagainik* (74) ditu. Egun Bizkaiko ipar-erdialdean kokatzen da ezaugarria, eta egungo muga Bermeo, Bakio eta Gamiz-Fika inguruetan dago (Gaminde 2007: 116). Badirudi beraz, Ipar-sartaldetik ere hedatua dela: testu zaharrek erakusten dute XVIII. mendeko Bermeon bederen bazela, De la Quadraren obren arabera (Bilbao 1997: 266), eta oraindik sartalderago Plentziako Renteriak badu *zuec gañaco* adibidea (Altzibar 1985: 88).³⁰³

Are hobeak dira datu positiboak, hots, sartaldeko hizkera baten aurrean gaudela erakusten digutenak. Ezagunena, beharbada, **edun*-en 3. pertsonako NORK-en *-de* plural marka da: izan ere, erdialde eta sortaldeko *-ø / -e* oposaketaren ordeaz (*dau / daue > dabe*), sartaldeko hizkeretan *-ø / -de* oposaketa dugu (*dau / daude*). Lehen hizpide izan ditugun arkaismo gordeek ere gauza bera erakusten dute: gainerako lekukotasunen

³⁰³ Ezaugarri honen eremua murriztu da, beraz: egun ez da Durangoraino (eta are Arrasateraino) heltzen (Gaminde 2007: 116), eta XVII. mendean ere *-gan* orokorrarekin lehian zegoen: Kapanaga (1656) eta Arzadunek (1737) *-gañ* duten bitartean *ZubLez*-ek (1691) ez du halakorik.

arabera, aoristoak, *ze* edo *zein* ezezko partikulek, eta *-rik asko* egiturak sartaldeko eremu honetan iraun dute inon baino luzaroago.

Hauekin batera, sermoitegiko *uzen* ‘izena’, *geiez* ‘deiez’ eta *gei egin* ‘dei egin’ aldaerak Bizkaiko sartaldeko testu zaharretan (*RS*, *VJ*, *Mic*, *Astigarraga*, *Sarria* ...) ez ezik, garai berriagoetan ere bertan aurkitzen dira: lehenengoa Gernika, Plentzia, Arratia eta Orozkon (*OEH*, s.v. *uzen*); bigarrena eta hirugarrena Arratia, Orozko eta Plentzian (*OEH*, s.v. *dei*). Beste hainbeste gertatzen da *bedaratzi*, *irepazi* eta *burriñ* aldaerekin: lehenengoa Azkuek bildutako *bedatzi* (V-ple) eta *bedratzi* (V-arr-arrig-ger-oroz-gip) formen oinarrian litzateke; bigarrena sartaldeko hizkeretan dugu dokumentatua dagoeneko *RS*-en (zehazki, *RUI* erregelarik gabeko *irapazi*), baita testu modernoagoetan ere (*Mic*, J. P. Ulibarri, *CatArrig*, *Zav*...; *OEH*, s.v. *irabazi*). *Burriñe* formaren eremua ere sartaldeko bizkaiera litzateke (ple-arrig-oroz-arr-ger). Bestalde, Añibarroren testuekin (apika arratierarekin, beraz) lotzen duten bestelako hitz eta egiturak ditugu: *il aguinean* ‘hil hurren’ esapidea eta *-tzagarik* atzizkia.

Hala bada, gure ustez Lakarrak (2011a: 213) proposaturiko euskalkien sailkapenean *Mendebaldeko Muturrekoa* deitu duen adarra ezaugarritzatzeko bidean gaude, bertako hizkera bat izan baitaiteke gurea. Dialekto zatiketa estandar batean berrikuntzak dira oinarri, dakigunez (cf. § 2.2.3.3), eta mota honetakoa dirudi *-kaz* soziatibo plurala: adar honetan *-gaz* pluralera hedatu da (hots, *lagunak* + *gaz* > *lagunakaz*), besteetan *-kin* erabiltzen den arren.

Alabaina, Lakarra proposaturiko *MeMu* ezaugarritzatzeko orduan garrantzi gehiago eman behar zaiela arkaismo gordeei: normalean arkaismoak bakarrik erabiltzea jokamolde labainkorra da, baina gauza ezaguna da hizkuntza batean adarreztatzea gertatzen den bakoitzean hizkeretako bat izan behar dela urruntzen dena, hau da, hizkeretako bat berri behar du, besteak ezaugarri zaharra mantentzen duen bitartean (Lakarra 2011a: 171); egoera hau askotan gertatzen bada, noski, bazter hizkera bat sortzen zaigu, eta halakoetan arkaismoek berrikuntzek beste garrantzia izan ohi dute. Kasu honetan beraz, ikusten da *MeMu* eremua bazterrean gertatu zela ekialdeko beste hizkerek berri zuten bitartean.

4.4.2.1 Hego- eta Ipar-sartaldea

Orain artean, sermoitegiaren hizkera sartaldekkoa dela zehazteko lain diren ezaugarriak aurkitu ditugu. Alabaina, ikusi denez, hizkera multzo hau euskalkien arboleko adabegi “pasiboa” dirudi, oro har harturik; hots, sartaldea ezaugarritzeko erabilitako ezaugarriak arkaismoak izan dira gehienbat eta eremu osoa batzen duten berrikuntza konpartitu gutxi ditu. Berrikuntzak izanik antzinako egoera bateratua erakusten duten ezaugarriak (cf. Camino 2009: 392), honen ondorioa litzateke eremu hau ez dela erkidego bateratu bat izan luzez eta hainbat azpi-hizkera daudela pentsa genezake; hau da, berrikuntzak sortzen dituzten (eta ondorioz, erkidego bateratua sortzen duten) hainbat eremu daudela.

Honen bitartez, egin dugun kokapen hau findu dezakegulakoan gaude. Izan ere, sartaldeko hizkeretan bi eremu nagusi berezi ohi dira normalean (§ 3.3): Ipar-sartaldea, Bonapartek Plentziako barietate izenaz bataiatu zuena, eta hego-sartaldea, gure ustez Bonaparteren Arratia, Arrigorriaga eta Orozkoko hizkerak bilduko lituzkeena. Hegoaldean, beraz, hainbat aldakitan banaturik dagoen eremu nabar batekin topatu zen XIX. mende erdialdean Bonapartek; honek, noski, ez du esan nahi inoiz batasunik izan ez duen eremua zenik; aitzitik, jakinda hizkeren artean sortzen diren eten guztiak ez direla arbolaren (cf. § 2.2.3.2) altuera berean (hots, garai berean) gertatzen (Lakarra 2011a: 170), proposa dezakegu hegoalde honetan hausturak ipar- eta hego-sartaldeko etena gertatu ostean izan zirela.

Alabaina, ezer baino lehen ipar-sartaldea eta hego-sartaldea ezaugarritzatzen saiatuko gara: *VJ* hego-sartaldeko hizkera batekoa zela arrazoitzeko emandako ezaugarrien artean (Ulibarri 2010: 83), Iparraldeko eremuan sorturiko berrikuntza bi aipatu genituen, gure testu honetan ere ez ditugunak. Batetik lehenaldiko edo subjuntiboko $-n > \emptyset$ bilakaera genuke: antzina Bilbon bazena (Lakarra 1996: 166 e.hh.) eta hortik iparreranzko herrietan Zabalak eta Azkuek lekukotu ez ezik, gaur egunera arte aurkitu da (Gaminde 1995: 548). Ikusten denez, jauzi handi bat dago ezaugarri honen lekukotasunen artean (XVII. m. erdiko Mikoleta vs. XIX. m. hasierako Zabala): tartean nekez topa dezakegu adibiderik testuetan, agian literatur hizkuntzak eraginda.³⁰⁴ Alabaina, Bilbo inguruko hegoaldeko gaur egungo hizkeratan behintzat (Buxa,

³⁰⁴ J. K. de Renteriaren obretan (XIX. mendearen erdialdean) badira *jaka legez* ‘zitzaien legez’ edo *esan euce legues* ‘esan zion legez’ bezalakoak (cf. J. M. Etxebarria 1985, 1987 eta 1992); alabaina, hauetan ez da lehenaldiko $-n$ erortzen dena, erlatibozkoa baizen; beraz, badirudi $n + l$ bilkurak eragindako bilakabide fonetiko baten aurrean gaudela (cf. § 4.2.5. xx. oh.; non *bate legez* esapideari buruz hitz egin dugun).

Larraskitu, Begoña...) ez da ezaugarri hau deskribatu (cf. Gaminde 1990a: 94-104 eta 2007: 149), eta Sarria etxebarriarrak eta Astigarraga basauriarrak erakusten dutenez, XIX. mende hasieran ere ez bide zen (Zuloaga 2010, 2011). Iparraldekoa litzatekeen bigarren ezaugarria txistukarien arteko disimilazioa da (*dozuz* > *douz*; *ezazuz* > *ezauz*): Bilbo inguruko testu zaharretan (*RS*, Mic) aurkitzen den ezaugarria da (*FHV*: § 14.8; cf. Lakarra 1996: 197), baina testu horietatik kanpo ez da halakorik deskribatu bestelako testuetan.

Bestalde, ipar-sartaldean *eban* ‘zuen’ esperoko genuke (cf. J. K. Errenteriaren lanak; J. M. Etxebarria 1985, 1987 eta 1992), baina testuko *eben* ‘zuen’ formak hegoaldera begira jartzen gaitu: Zuloagak dioskunez, Nerbioi haranean aurkitzen dira honelakoak Astigarragaren sermoietan (Zuloaga 2013: 604), eta agian hegoaldeetik haranean barrena gora joandako ezaugarria liteke, Araban lekuko arkaikoetan baita estrainekoz (Urgell 2006b: 35; Aramaioko datuetarako, cf. Ormaetxea 2006: 334). Honekin batera bildu behar litzateke destinatiboaren *-rantx(a)* aldaera palatala, hego-sartaldeko testuetan duguna: Ulibarriren obrak, Arrigorriagako dotrina, Orozkoko errekuak eta dotrina, Laudioko *Ruth-en liburua* eta *VJ* (Ulibarri 2008, 2010; Zuloaga 2013: 602), ipar-sartaldean lekukotzen ez den bitartean. *EI*-ko datuen arabera (1922-25), Orozko eta Laudioz gain, Txorierriko Loiun eta Berangon, bai eta Arabako Eriben ere aurkitzen zen: hegoaldeko eremu zabal batean, beraz. Era berean, datiboaren komunztadura eza ere (cf. § 4.2.4.2) hegoaldeko ezaugarria izan daitekeelakoan gaude, Arratian (Añibarro) eta Arabako euskaran (Albeniz) baino ez baitugu aurkitu.³⁰⁵

Gainera, sartaldeko hizkerak dituzten ezaugarri arkaiko zenbait era ezberdinean mantendu dituzte gaur arte, horien artean *ze* ezezko adizlaguna delarik aipagarriena (cf. §§ 4.2.4.10 eta 4.2.4.11): *ze* da iparraldean darabiltena gaur eguneraino (cf. Gaminde 1995: 449-50) eta XIX. mendean oraindik hego-sartaldean ere lekukotzen bada ere (Astigarraga, Agirregoikoa), bi modutan indartu zen: batetik, egun galdurik den *eze*-ren bidez; bestetik, oraindik egungo Nerbioi arroan eta Arratiako Zeberion bederen aurkitzen den *zein* formaren bidez. Era berean, aoristoaren galtze prozesua ezberdina izan da ipar- eta hego-sartaldean: Iparraldean gaur egunera arte iraun duen bitartean, hegoaldean XIX. mende hasierarako galdurik zegoen, hego-sartaldeko lekukoetan oso gutxitan aurkitzen baita: Sarriak eta Astigarragak ez dute adibiderik eta Añibarroren

³⁰⁵ Azken ezaugarri hau kontu handiz erabili behar da: orain artean gutxi ohartu dira Bizkaian halakorik bazela (Arabako euskaraz, ik. Zuazo 1998a: 162); beraz, baliteke testuak miatzen hasita iparraldeko hizkeretan ere aurkitzea.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

lanetan forma oso fosilduak ditugu (cf. Lakarra 1996: 178, 49. oh.). Alabaina, hegoaldeko muturrean luzaroago iraun zuen: Orozkoko otoitzetan (1739) aurkitzen dugu eta Zabalaen arabera (1848: 56) ipar-sartaldeaz gainera hego-sartaldeko hegoaldeko mugetan (“Llodio, Orozco, Barambio etc.”) ere mantendu zen XIX. mendearen lehen erdialdean; beraz, gure testuan aoristoa egotea koherente da hegoaldeko jatorri honekin.

Aoristoaren galerak iradokitzen du, hego-sartaldean bigarren mailako zatikatzea jasan zela: hegoaldeko muturreko euskara bazter hizkera legez funtzionatzen du eremuko Arratia eta Bilbo ingurukoaren (eremuko ipar-ekialdearen) aldean, ezaugarri arkaikoak gehiago irauten duenez. Hegoaldeko bazter eremu honek azalduko luke *-rean(ik)* ablatiboak (eta *-rean bat* egitura) gure testuko hizkeran duen egoera, bai eta honen azken adibideak zergatik aurkitzen diren Laudioko dotrinetan. Beste horrenbeste gerta daiteke aditziak sortzeko *-tzean* atzizkiarekin ere, egungo datuen arabera ipar-sartaldeko Txorierrin eta Bermeon eta hego-sartaldeko Arratian lekukotzen dena. Atzizki honen adibide zaharrenak *RS* eta *Arrasateko erreketan*-n dira, eta horrek iradokitzen du formaren eremua ez dela askorik aldatu ordutik, Bilbo inguruko hizkerari dagokielarik (Urgell 2006: 940). Nerbioi arroan gora ez bide da halakorik aurkitzen, baina Sarria etxebarriarraren adibideak (*CVC-tu* erako partizipioetan bakarrik) Zuloagaren hitzetan “galtzeaz zegoen erabilera baten azken arrastoak” lirarteke (Zuloaga 2010: 417). Astigarragarenean, bestalde, *sartu* aditzean maiz ageri da *-tzen* (beste aditz batzuetan ere, baina bakanago), eta Nerbioi iparraldeko hizkeretan *-tzen* erakoak entzuten ei dira, oso lantzean behin bada ere (Zuloaga 2011: 257; cf. baita *RS*-ko *larriçen* edo *ycaraçen* ere). Hauei J. P. Ulibarriren hasierako lanetako *saltzien* gehi genieziaieke (cf. Ulibarri-prestatzen), eta ondorioztatu *-tze(a)n* Nerbioi iparraldeko (Bilbo inguruko, alegia) eta Arratiako hizkeratan ere bazela XVIII. mende bukaeran, baina ez hegoaldeko mendebal muturrean, honetan *-tzaite* mantendu zelarik.

Ezaugarri hauek Hego-sartaldea bitan banatuko lukete XVIII. mendean, Bilbo inguru berritzailea vs. hegoaldeko mutur arkaizantea. Hipotesi hau *arrik* eta *-tearrik* ‘arren, -tearren’ formekin indar daiteke: berrikuntza hau Nerbioiaren iparraldean dugu jada Astigarragaren lanetan (cf. Zuloaga 2011: 268-9), baina ez hortik hegoaldera, eta gaur egungo datuen arabera ez da Orozkoraino hedatu (cf. Gaminde 2007: 135). Alderantziz, sermoitegian orokorra den *gaitu(z)* > *gatu(z)* aldaketak hegoaldeko berrikuntza bat dirudi, testu zaharretan *VJ*-n eta, lantzean behin, Ugaoko testuan bakarrik dena (hegoaldeko bestelako lekukoek *gait-* erakoak baino ez dituzte: Ulibarrik,

Laudioko dotrinek, Orozkoko dotrinak...): Azkuek bederen jaso du XX. mende hasierako Orozkoko hizkeran (ik. Gaminde 1983: 52): *satus, gatusela, satuesan...* eta gaur egun Bizkaiko hegoaldean aurkitu daiteke: Orozko, Arratiako hegoaldea (Dima, Areatza), Otxandio eta, plural bikoitzik gabe (hots, *gatu, zatu...*), Elorrio, Oleta eta Ubidean (Gaminde 1984 I: 273). Hegoaldekoa dirudite baita *geuke* eta *zeuke* erako formek (Bizkaian orokorra den *geunke* ‘genuke’ eta *zeunke* ‘zenuke’-ren orde), zeinak Araba eta Gipuzkoako hegoaldeko hizkeretan (Oñati, Gatzaga...) lekukotzen baitira XIX. mendean, eta baita gaur egun ere.

Orain arteko guztia laburbildurik, testuan agertzen den hizkera Bizkaiko hego-sartaldeko eremurik hegoaldekoenean kokatu behar dugulakoan gaude. Hau argiago ikusteko, taula batean laburtuko ditugu aipatutako ezaugarriak eta ikusi non lekukotzen diren (+) eta non ez (-):

	Ipar-sartaldea	Hego-sartaldea		
		Ipar	Arratia	Hego
txist. disimilazioa	+?	-	-	-
<i>-n > Ø</i>	+	-	-	-
<i>Ze</i> ezezkoa	+	-	~	-
<i>zein</i> (< * <i>ze din</i>) ezezkoa	-	+	©?	+
<i>Eben</i>	-	+	-	+
<i>-rantx</i>	-	+	-	+
Dat. komunzt. eza	-	-	+	+
<i>-tzean</i> ad.-iz.	+	+	+	-
Aoristoa	+	-	-	+
<i>-tearrik</i>	-	+	-	-
<i>gatus, zatus</i>	-	-	©	+

Ikusten denez, *-n > ø* eta *ze* ezezkoak Ipar-sartaldekoa ez dela erakusten digute, eta Arratiako hizkeretatik banantzen du *-tzean* aditz-izen atzizkia ez izateak (Ipar-sartaldetik ere bereizten du ezaugarri honek), batetik, eta *eben*, *-rantx* eta aoristoa izateak, bestetik. Honela, Nerbioi arroko hizkera batean pentsatzera jo dugu: hala ere, arroko iparraldeko hizkeretatik banatzen du *-tzean* aditz-izen atzizkiak eta *-tearrik* ez izateak, bai eta *gatus* erako adizkiak eta perifrasi aoristoak izatea, bai eta lehenago ikusi ditugun arkaismoen mantentzeak edo datibo komunztadura ezak. Modu honetan, ibilbide induktibo baten bitartez ikusi dugu testuko ezaugarriek Bizkaiko sartaldeko

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

beste eremuetatik bereizi egiten dutela, eta hegoaldeko muturrekoa dela erabaki dugu (cf. § 3.1).

Sermoitegiak eskaintzen dituen datuetan oinarriturik zehatzagoak izan gaitzeke testuaren jatorria proposatzeko. Izan ere, sermoitegiaren hizkerak berrikuntza bereziak dauzka, hauetako zenbait eskusiboak gainera, gaur egunean Arabako mugan kokatzen den Orozko haranean, hego-sartalde horretako eremu txiki eta hegoaldekoenean, baino ez direnak ezagutzen. Honelakoa da *ua > ui* asimilazioa, gure testuan oso indartsua: *frutuic, oqueluic, santuiri, senduin...* (cf. § 4.2.1.7). Dialektolgian *indicator* deritzon ezaugarria da, hau da, geografikoki hiztun-talde bati loturik dagoena (Camino 2009: 381). Asimilazio hau XIX. mendetik ezagutzen da, Zabalak (1848: 55) dagoeneko “los de Orozko y pueblos limítrofes” egiten zutela baitiosku, eta testuetan Orozkoko dotrinan (baina ez 1739ko otoitzetan: *santuari, sigluettaco, horduen...*) baino ez dago, ordutik hona bertako euskararen edozein lekukotasunetan kausitzen dugularik.

Berriz ere Zabalarri jarraiturik (1848: 56), “Orozco, Baranbio, Llodio eta Luyando” herrietan XIX. mende hasieran zegoen beste ezaugarri bat dugu gurean ere, berak honela azaltzen duena:

El modo que tienen [...] de caracterizar de recipiente á los artículos de 3^a persona de la radical *eguin*. En estos pues quitan á dicha radical la *i*, y en vez de la característica *o*, ponen después de la *g* blanda una *u*, diciendo “eg’-*u*-zu, dag’-*u*-dan, neug’-*u*-n [sic], gueng’-*u*-n por egui-*o*-zu, dagui-*o*-dan, nengui-*o*-n, guengui-*o*-n”.

Zabalak ematen dituen formok gure sermoitegian ageri diren *egiun* ‘egion’ edo *deguiula* ‘degiola’ formekin bat egiten dute, *i*-ren erorketa gora-behera; eta honek ere, eskura dauden datuen arabera, inguru horretako ezaugarri eskusiboa dirudi. Zaila da azaltzen zergatik dioen *i* galtzen dela, eta zergatik *egin* aditzean bakarrik dakarren, baina sermoiek erakusten dute lege fonetiko orokorrago baten erakusgarri izan daitekeela, *io > iu* asimilazioarena (cf. Ulibarri 2008a: 199), *egin* aditzaz gainera (*egiun*) **edin* aditzean (*ekiun*) eta bestelako hitzetan (*biok > biuk*) ere aurkitu baitugu sermoitegi honetan (ik. § 4.2.1.8). Asimilazio honen lehenengo adibideak Orozkoko otoitzean (1739) eta Orozkoko sermoian (1773) ditugu, eta Azkuek Orozko eta

Baranbioko ezaugarritzat du (cf. *FHV* § 2.4).³⁰⁶ Egungo Orozkon eta garai bateko Baranbion (cf. Azkue 1926: 22), gure testuko testuinguruez gainera, aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean ere jazotzen da: *ekosi'ut* 'ikusi dot', *ekarri'ugu* 'ekarri dogu'...

Aditzizenak eratzeko *-tuite* atzizkia ere (cf. § 4.2.3.2), sermoitegian bizi-bizi duguna (*sinistuiten*, *aituiten*, *beguiretuiteagas...*), *VJ*-n agertzen den *-tu egiten* egituraren gramatikalizazioa litzateke eta Orozkoko 1773ko sermoian da (cf. Ros 2009: 243) eta Bonaparteren aginduz itzulitako Laudioko 1858ko dotrinan ere (Barrutia 2001: 231).³⁰⁷ Gainera, Orozkon *bedeinkatuiten* edo *zabalduiten* bezalakoak dira XX. mendean (Arana Murillo 1998: 94).


Zabalak Orozkoko beste ezaugarri bat eskaintzen digu: "Nada digo de *evazan*, *ev'ezan*, *nevazan* de Lequeitio, y aun de los dos primeros de Orozko..." (*VRB* 56), XIX. mendeko hizkera honetan *-z* plural markaren hedatzea oso aurreraturik zela erakutsirik. Sermoitegian plural analogikoak ugari aurkitzen ditugunez (cf. § 4.2.3.3), badirudi honek ere gure testua Orozko ingurura hurbildu lezakeela, Zabalaren hitzen arabera. Konparabidetzat, nahiz eta lekukotasun bien artean 80 bat urteko jautzia egon, Laudioko 1858ko dotrina begiratu dugu, eta hau ere forma berriaren aldekoa da, forma biak agertzen badira ere: *zituzen* (2 aldiz) eta *ebazan* (3 aldiz), *dabes* (6 aldiz) eta *ditus* (5 aldiz; cf. Urkijo 1994: 129). Garai bertsuko De la Renteriaren dotrinan (XIX. mendeko bigarren erdian; cf. Alzibar 1985), adibidez, ez dugu *dauz/dabes* erakorik aurkitu (guztiak dira *ditu(s)* zein *zitu-* erakoak), ezta Uriarteren Arrigorriagako dotrinan ere (Arretxe 1988).

Guzti honekin, badirudi Lakarraren (2011a) *MeMu* hizkuntz eremua Erdi Aroaren bukaera inguruan jadanik eratutakotzat jo duelarik, ordutik eta XVIII-XIX. mende bitartean gertaturiko azken adarreztatzeen behin-behineko eskema bat marraztu dezakegu, balizko kronologia hobeto ikusteko:

³⁰⁶ Beste lan batean ezaugarri honen eta toponimian aurkitzen den *-dui* > *-dio* aldaketaren arteko erlazioa proposatu genuen (Ulibarri 2008a: 200, 12. oh.). Erlazio hori aintzat hartzekoa balitz, toponimiaren bidez ezaugarriaren eremua markatu ahalko genuke. Adibidez, esan dezakegu Laudiotik hegoaldera (Aiaraldeko hegoaldean) dagoen Belandia herrian badirela aldaketa horren arrastoak, *Izardui* izena duen erreka toren ahozko aldaera *Isordio* delako (cf. Urduñako udala 2008).

³⁰⁷ Barrutiak batera aztertzen ditu Laudio eta Orozko, baina hau egiten du, *-ite* atzizkiari ari delarik Orozkoko *emoiten* erako adibideak eta *sinistuiten* erakoak biltzen dituelako atzizki beraren barruan. Argi dago, ordea, jatorri ezberdina daukatela *emoiten* aditzizkiaren *-ite* atzizkia (Trask 1990 eta Urgell 2006) eta *sinistuiten* edo *aurkituiten* bezalakoena.

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia



Honen arabera, *MeMu* eremuak XVIII. mendean zituen zenbait azpi-eremu definituz: Ipar-sartaldeko eremua (*I-S*) batetik —geografikoki Uribe-kosta eta Txorierri— eta Hego-sartaldekoa bestetik (*H-S*), azken hau ondoren bitan zatitu zelarik: Hego-sartaldeko Iparraldea (*H-S-I*) —Behe-Nerbioia eta Arratia— eta Hego-sartaldeko Hegoaldea (*H-S-H*) —Goi-Nerbioia (Aiaraldea) eta Orozko—.

4.4.3 Jatorriaren hipotesi baterantz: bazter hizkera

Bildu ditugun datuek erakusten digute aztertzen ari garen hizkerak aldi berean arkaismorako eta berrikuntza ausartak egiteko joera duela, eta honek argi xamar iradokitzen du —garai batean Mitxelenari gertatu bezala (1958, *OC XII*)— bazter hizkera baten aurrean gaudela (cf. § 2.2.3.4): ezaguna da honelakoetan erdiguneetako hizkeretan galduak diren arkaismoak mantendu ohi direla, baina, era berean, isolamendu horren erakusgarri lirateke gainerako hizkeratara igaro ez diren berrikuntzak ere izatea (cf. Camino 2009: 154).

Hala bada, gure datuen arabera Mendebaldeko gainerako lurraldeetan XVIII. menderako galduak bide ziren ezaugarriak edo haien arrastoak gorde ditu —bokal sudurkarietak, esate baterako (§§ 4.2.1.6 eta 4.4.1)— eta bestetan galtzar bide zirenak oso bizi mantentzen direla —adibidez, *-rean(ik)* ablatiboa, are pluralean ere, eta *-(r)ean bat* postposizioaren jatorrizko forma—. Areago, beste batzuk orain artean ez dira deskribatuak izan, hala nola NOR-NORI-NORK adizkietako *n* (*deunsen*, *deingunset*), baina antzinako beste lekukotasun batzuen (Mendieta, Etxepare...) azalgarri izango liteke (§ 4.2.3.10).

Testuko berrikuntza berezietako batzuk Mendebaldeko Muturreko hegoaldean den Orozkoko hizkerarekin lotzen dute: *uaC* > *-uiC* eta *io* > *iu* asimilazioak batetik eta aditzizenak sortzeko *-tuite* atzizkia bestetik ezagunak ziren Orozkoko eta inguruko euskararen, eta batzuk bertan bakarrik gordeak egun arte. Hala ere, ezin ahaztu Orozkoko euskararen bilketa lanik esanguratsuenak XIX. mende erdialdean egin zirela (Bonaparterekin, alegia), gure testuaren data baino mende erdi beranduago. Ordurako, Orozkotik hegoaldera zeuden herrietan euskara galdua zen, baina gure testuaren garaian gutxienez Urduñara arte (cf. § 3.2.3) euskaldunak izan baziren.

Modu honetan, jatorria Orozkotik hegoalderago kokatu behar dugulakoan gaude, ikusi denez hegoaldeko bazter eremuaren barnean ere bazter eremu gisa portatzen dela gure hizkera eremuko beste hizkerekiko (Arratia, Behe-Nerbioia). Batetik, aipatu *deunso* erako arkaismoa dugu, eta bereziki interesgarri diren berrikuntza eskusibo pare bat ere: aoristoko perifrasiaren gainean eraturiko [partizipioa + **edin/egin* lehenaldian] perifrasiaren lehenaldiko baldintzetan (cf. §§ 4.2.3.9.1 eta 4.4.1) eta 3. graduko erakuslearen gainean eraturiko *aic* eta *atan* artikulua forma berriak (cf. §§ 4.2.2.8 eta 4.4.1). Bestetik, Orozkon garai hartan ere izan behar litzatekeen *-oba* epentesia (cf. *VRB* 56) ez da gure sermoitegian lekukotzen; gainera, bilbotarrak Orozkotzat duen *ee* > *ie* disimilazioa gutxitan ageri da sermoitegian, nahiz eta Zabalaren garaian “llega por este lado hasta las inmediaciones de Bilbao” (*ibid.*).

Orain arte Bizkaira begira aritu gara nagusiki testua geografikoki kokatzen, besteak beste hango datuak hobeto ezagutzen direlako, baina behin gure testuko hizkera *MeMu*-ren hegoalderago kokatu ondoren, ezinbestekoa da arabera ere kontuan hartzea, datu gabeziak hurbilketa hau aski zailtzen badu ere —Arabako hurbileko corpusaren (Lcc, Laz.) eta gure testuaren artean bi mendeko hiatusa dago—. Ezaguna da XVIII. mendean Arabako euskara indarra galtzen zebilela (gogoratu Landazuriren hitzok: “algunos años a esta parte va en ella [en Alava] en notable decadencia este idioma”); baina Bizkaiko eta Gipuzkoako mugetan indartsu zegoen eta gure eremuan Urduñaraino iristen zen (cf. § 3.2.2). XVI. mendeko araberak nortasun berezia zuen Bizkaian orduan aurki zitekeenarekin erkatuta, oso berritzailea baitzen hainbat alderditan (cf. Urgell 2006a: 945).

Bada, lehen hegoaldekoztat jo ditugun *gatus* eta *geuke* erako adizkiek Arabako euskal lurretara eta honen mugakide diren Gipuzkoa eta Bizkaiko eremuetara eraman gaituzte. Bestela ere, Arabako euskararen lorratzak topatu ditugulakoan gaude. Lazarragan lekukotua eta bestetan ezezaguna zen *jakin* laguntzaile arkaikoa

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

sermoitegiko *gure isen eben aurretu yaquin vere areriyoen maliciyeri* esaldian hondar legez mantendu da, eta arkaismo oso esanguratsua da inolaz ere Arabako euskararekin lotzeko (§§ 4.2.3.14 eta 4.4.1). Berrikuntzei begira, *Txikir* aldaera lexikoaz gainera (Lazarraga, Landucci eta Laudioko dotrinan lekukotua), araberazkotzat joko genuke *-an* genitiboa³⁰⁸ (cf. Zuazo 1998: 152): testuaren garaiko bizkaieran *-en* marka genuen genitiboan, Araban ordea, *-an* eta *-en*, biak erabiltzen ziren, gure testuan bezala. Berdin gertatzen zaigu *-ai* singularreko datibo markarekin ere (Zuazo 1998: 152), Arabako berrikuntza datekeena (Lazarraga eta Landucci); kasu honetan, gainera, lehenago ere lekukoturik bide dago Mendebaldeko Muturraren hegoaldeko eremu honetan F. de Mendieta margolari aiararraren *Foruen Zin egitea* koadroko kartelan (Ulibarri-prestatzen-2). Mendieta hona ekarrita, beharrezko dugu esatea sermoitegiko hizkerak kartela honetan ziren zenbait arazo azaltzeko bidea eman digula: *eginezan* adizkiaren *-n-* azalgaitz hori (cf. *ContTAV* 116) argitua geratzen da *deuntso* adizkietarako emandako azalpenarekin (§ 4.2.3.10) eta kartelako *ecutea* adizki horren parekoa genuke sermoitegiko *ecuqui* forma: *ecuqui eguisu uniñoa eta baquea seuoen artean* (10-105). Hau garrantzitsua da Dotrinazko Sermoitegiaz egiten ari garen kokapena arrazoitzeko, eremuko ulergaitzak ziren bi forma ustez leku bereko edo bertukoa zen testu luzeago batek argitu baititu.

Ezaugarrien konbinaketa honek iradokitzen du hizkera berezi hau orain artean lekukoturik gabea zela, eta hizkerak Arabara begira jartzea zenbait ezaugarriren bitartez (*-an* genitiboa, *-ai* datibo singularrak, *txikir* aldaera... eta *jakin* laguntzailea ere) indartzen du gaurko mugetatik kanpoko Arabako herrialdeko eremu bat dela hizkera honen jatorria. Beraz, orain arte erabili dugun argudiaketaren arabera bizkaiko hegotsartaldearekin muga egiten duten Arabako ipar-sartaldeko hizkera batean pentsatu behar genuke eta aukerak hauek lirateke: Aiaraldea batetik eta, ekialderago, Altubetik Lautadara bidean den Urkabuztaiz bestetik (cf. § 3.1).

Testuko hizkerak Orozkoko hizkerarekin dituen kidesunak erakusten digute bilatzen ari garen hizkera eta Orozkokoa elkarrekin lotuta egon zirela. Honek Aiaraldean pentsatzera garamatza ezinbestean: izan ere, mugakideak izateaz gain, XVIII. mende bukaera arte politikoki ere lotuta egon ziren (§ 3.1.1), Orozko ez baitzen

³⁰⁸ Egiazi zor, Sarria etxebarriraren testuetan ere (Hego-sartaldeko iparraldeko idazlea) *-an* genitiboa aurkitzen da (Zuloaga 2010: 410); sermoigile honen kasuan, baina, badirudi *RUI* erregela islatu nahi ez izanaren ondorio direla (cf. *ib.* 402): Zuloagak dakartzan adibide guztiak *-ian* (*echian*, *curuzian*, *sacerdotian*) eta *-uan* (*barruan*) testuinguruetan ageri dira; beraz, hiperzuzenketak direla ondoriozta dezakegu, idazleari ihes egindako adibide gutxi batzuek (*garien* ‘garen’, *erriel* ‘erreal’...; *ib.* 397, 12. oh.) erakusten baitigute halako testuinguetan ere betetzen zela.

Bizkaian sartu 1783. urtera arte (Dotrinazko Sermoitegiari eman diogun dataren arabera Orozko Aiaraldeako parte zen oraindik), eta egun ere nabaria da Orozkoren eta Aiaraldearen arteko kultura batasuna. Beraz, egiantzekoa da Orozko eta Aiaraldearen artean XVIII. mendean batasun linguistiko bat ere proposatzea.

Batasun linguistiko hau bermatzen du Zabalaren obrak (1848an argitaratua) XIX. mende hasierako datuak eskaintzen baitizkigu, eta Orozkoren eta hegoaldera dituen herrien (Laudio, Luiaondo, Baranbio) arteko nolabaiteko batasun linguistiko bat iradokitzen du, elkarrekin aipatzen baititu *Variantes de particulares pueblos* direlakoak (VRB 56) zerrendatzen dituenen (aoristoa, *egion* > *egun* aldaketa aditzean, ahaleran *lei* eta *lilei* erakoak erabiltzea).

Zabalaren garaian oraindik antzematen zen batasun hori galdua bide zen Bonaparteren garaian, Laudio batetik eta Orozko bestetik sailkatzen baititu hasieratik (Elordui 1995b: 441). Alabaina, ezaguna da Printzeak zalantzak izan zituela Arratia eta Orozkoko hizkerak azpi-dialekto bakarra osatzen zuten ala ez erabakitzen (cf. Elordui 1995b: 442 eta hemen, § 3.3.2). Badirudi testu honek honek eta Zabalaren lekukotasunak zalantza horien zergatia argitzen duela, eremu horretan egondako eragin uhin ezberdinak nolakoak izan zitezkeen erakusten baitizkigu, nonbait: garai batean Orozko hegoaldera begira zegoen, Aiaraldearekin eremu linguistiko bakar bat osatuz; gaur egun (eta agian XIX. mende hasieratik, Orozko Bizkaian sartu zenean), ordea, Arratia aldera begira dago, eta bertakoak dira jasotzen dituen eraginak. Bonapartek bi eraginen artean aurkituko zukeen Orozko XIX. mende erdialdean: Aiaraldeko euskara zaharraren ezaugarriak guztiz ahaztu gabe zituen (eta horrekin elkarbanatzen zituen ezaugarriak mantenduz) baina Arratiako hizkeraren eraginak jasotzen jada.

Hizkera Aiaraldean kokatzean, ezinbestean pentsarazi gaitu gaur egun euskara tradizionala galdua duen eremu bat dugula, eta gure buruari geldetzen diogu ea galeraren zein momentuan legokeen gure hizkera. Hizkuntz heriotzaz jardun dutenei jarraituz jakin dugu ezaugarrietako bat dela sistema bakuntzeko joera eta forma analogikoak ugaltzea (§ 2.2.3.6). Egia balitz, *dabez* erako plural analogikoek duten bizitasuna azaltzeko bidea genuke, garaiko beste lekuetan oraindik hedatu ez bide zen erabilera (cf. § 4.2.3.3); gainera, Zabalak eremu honetan aurkitu zuen *lilei* erako potentzial analogikoak ere azal ditzake.

Modu honetan, sermoitegiak hizkera berri bat lekukotzen digu, gure ustez egiantz handiz XVIII. mendeko Aiaraldekoa zen hizkera bat; ondorioz, aldez bederen bertako iragan linguistikoa berreskuratzeko lana egin dugu. Aiaraldeko euskara hau

4. Hizkera berri baten aurkitzea: Dotrinazko sermoitegia

ezaugarritatuz, gainera, Arabako ipar-sartaldekoa zitekeen hizkera bat XVIII. mendean izan zitekeenerantz hurbildu gara, eta egun *bizkaiera* deitzen denaren eta garai batean zenaren artean ezberdintasunik bazirela ikusiz. Euskal Herriko mapa linguistikoa eremu berri batez osatzeak aukera eman gaitu (sermoitegiaren jatorriaren bila ibiliz), *Mendebaldeko Mutur*-eko hizkera multzoa sakonki aztertzeraz (cf. Lakarra 2011a: 213), eta multzo horren barruan iparralde eta hegoaldeko hizkerak nola banatu ziren ikusteko lehenengo hurbilpen bat egitera.

Honekin batera, lekukotasun honetan diren ezaugarri arkaikoak eta berrikuntzak orain artean euskararen historiaz eta dialektoen eraketaz (cf. Lakarra 2011a) genituen ezagutzak osatzera eta berdefinitzera datoz. Honek gogoratzen digu, berriz ere, galdutako eremuetako euskal hizkerak existitu izan ez balira edota gaur ezagutzen dugun herrietakoa bezalakoxea balira bezala lan egin dela orain arteko azterketa dialektologiko askotan. Egin dugun hizkeraren ezaugarritatze honek baina, Mitxelenak Arabako euskara “aurkitzean” euskal dialektoen historia berreraikitzeke eragin zuen ikuspegi aldaketarekin lot dezakegu, eta biek erakusten dute galduriko eremuek ere zer esan handia dutela euskararen historian.

5. Ondorioak

Tesi honetan, euskal tradizio idatziari testu berri bat eskaini diogu, XVIII. mende bukaerako zuzeneko lekukotasunak emendatzera datorrena. Aiaraldeko euskararen azterketa egiteko corpusa biltzen ari ginela egin genuen topo berarekin, ustez ustekabe. Testua berrogeita sei sermoik osatzen dute, berrogei euskaraz eta sei gaztelaniaz, Euskal Herriko hiru artxibo publikotan sakabanaturik aurkitu ditugunak, zehazki Bizkaiko Foru Artxiboan hamalau sermoi (bi gaztelaniaz), Bizkaiko Foru Bibliotekan hogeita bi (hiru gaztelaniaz eta bat elebiduna) eta Sancho el Sabio fundazioaren artxiboan sei (guztiak euskaraz; § 4.1.1). Katalogaturik zeuden, eta gehienak internet bidez kontsulta-gai, baina beren arteko erlazioa ezarri gabe zegoen eta, nolahi ere, adituentzat ezezagunak ziren.

Azterketa ordurako nahiko aurreratuta geneukanez, ikusi eta berehala Aiaraldeko euskararen usaina hartu genion. Hala eta guztiz ere, ezer baino lehen lan filologiko handia egin behar zen, egilearen eta dataren arrastorik ez baitzen inon, ez testuan bertan, ez bestetan.

Letragatik argi antzematen zen sermoi sakabanatuon egilea pertsona bera izan zela (§ 4), eta ondorio berera zeramaten bestelako ezaugarriek, hala nola testuaren antolamenduari dagozkionek (§ 4.1.3); paperaren ur-markek egile bakarraren hipotesia bermatu dute, hiru sermoi multzoetan ur-marka bera eta papergile beraren sinadura ikus daitezkeelako. Ur-markek, gainera, testua datatzeko aukera eman digute: izan ere, paperik zaharrenak 1768ko data eta berrienak 1773koa daramatenez eta paperaren batez besteko bizitza gehienez hiru urtekoa izan ohienez, egiantzekoa da testua 1770-1780 ingurukoa izatea (§ 4.1.2).

Kristau dotrinaren atal ezberdinei buruzko erakustaldiak dira: kredoak, sakramentuak, aginduak eta bekatu buruak. Gure ustez ez dago dudarik obra bat eta bakarraren atalak direla, gugana osorik heldu ez den proiektu handiago baten zatiak: antzaenez, bada, egileak kristau dotrinari buruzko sermoi bilduma bat atondu nahi zuten, garai bertsuan egin ziren beste idazle ezagun askoren lanen pareko (Mendiburu,

Mogel, Añibarro, Agirre Asteasukoa, etab.). Honegatik, *Dotrinazko Sermoitegia* izena eman diogu izenik ere ez zeukan testu berriari.

Sermoi batzuen iturriak aurkitu ahal izan ditugu orduko gaztelaniazko sermoitegi argitaratuetan: itxuraz, gaztelaniazko sermoiak hizkuntza berean laburtu eta gero euskarara itzultzen zituen, eta honegatik sermoietako batzuk gaztelaniazko lehen laburpenean baino ez ditugu eskuratu (§ 4.1.3). Gorde denaren arabera argi dago atal batzuetan sermoiren bat faltan dagoela, agindu batzuenak, adibidez. Sakabanaturik agertu diren sermoiok halako bildumek izan ohi duten gai hurrenkeraren arabera antolatu ditugu, testuaren jatorrizko batasun eta balizko antolamendua berreraiki beharrez (§ 7.1).

Behar bezalako edizio bat egiteko ezinbestekoa den *usus scribendi*-aren ohiko azterketa kontu handiz egitekoa zela ikusi genuen hasieratik, eta deskribapen hutsa gainditu beharra zegoela, testuaren jatorria zeharo ezezaguna izanik, testu barruko argudioez, hots, hizkuntz ezaugarrien bidez baino ezin erabaki zitekeelako. Mendebaldeko eremu zabalean kokatzekoa zen, garbi, baina testuan islatzen den hizkerak ezaugarri berezi-bereziak ditu, eremu bereko gainerako testuetan edota gaurko hizkeretan denak elkarrekin agertzen ez direnak, eta batzuk ezezagunak edo oso bakanak. Honen arabera, beraz, hizkera ezezagun baten aurrean geunden.

Hizkera ezezagun horrek, gainera, bazter hizkeraren ohiko ezaugarri biak biltzen ditu, hau da, arkaismo handiekin batera berrikuntza berezi eta eskusiboak, ondoren xehekiago ikusiko dugunez (§ 5.2). Honek iradokitzen du XVIII. mendearen azken zatian bizirik zen, baina egun galdua den hizkera bat lekukotzen duela testuak.

Gure artean badago hizkuntzaz kanpoko datuen bidez kokatu gabeko testuak galdutako hizkerak berreskuratzeke ezin erabil daitezkeela uste duen ganorazko ikertzailerik (cf. Camino 2003: 45), nahiz beharbada uste hori Nafarroako hizkeren testuinguru ñabarragoan eratua den. Aitzitik, Mitxelenak (1958) irakatsi zuen badaitekeela, Landucciren hiztegia testu barruko argudio hutsen laguntzaz zuzen kokatu baitzuen Araban, zehatzago agian Gasteizen bertan. Geografikoki kokatu gabeko testuak kokatzeko Mitxelenak erabilitako teknika, besteak beste Lakarrak ere *Refranes y Sentencias*-en jatorria bilatzeko erabilia eta, oro har, dialektologia historikoan oso ezaguna, McIntosh-ek (1986) “*fit*-teknika” deritzona da, alegia, hizkuntzaz kanpoko datuen bidez ondo kokaturiko testuak (“aingura testuak”) dena delako testuarekin erkatzea, nongoa den edo, okerreanean, nongoa ez den behintzat erabakitzeke (§ 2.4.1.3).

Mendebaldeko eremu zabalaren barruan ezaugarri batzuek testua sartaldean kokatu beharrekoa dela erakutsi digute, Lakarrak azkenotan (2011a) “Mendebaldeko muturrekoa” (*MeMu*) deiturikoan: adibidez, *daude* ‘dute’ erako adizkiak eta *-kaz* sozietibo plurala. Beste ezaugarri batzuek hizkera multzo zabal xamar horren barruan hegoaldera begira jarri gaituzte: adibidez, *zeruan* > *zeruin* asimilazioa eta aditz laguntzaileetan subjuntibo eta lehenaldiko adizkietako *-n*-ren erorketa ez gertatzea (§ 4.4.2). Honegatik, gure aingura testuen *corpusa* bizkaieraren hego-sartaldeko lekukotasunek osatu dute, Nerbioi-arroko iparraldeko eta Arratiako testuek, alegia, sarritan hortik kanpokoak ere erabili ditugun arren, beharraren arabera.

Egun hego-sartaldeko euskararen muga Nerbioi ibaiak markatzen du sartaldean, eta Orozkok eta Gorbeialdeak hegoaldean, baina testuaren garaian ez bairik gabe mugak zabalagoak ziren: ipar-mendebaldean Enkarterrietako ateetan zegokeen eta hegoalderago Aiaralde gehienez hitz egingo zen, Menagarai edo Lanteno herrietatik hasi eta Urduñaraino (§ 3.2.3). Honegatik, gure aingura testuetan garrantzi berezia eman diegu muga zaharrago horien barruan dauden hizkeren lekukotasun apurrei; gehienak aski berantiarak dira, eta Bizkaikoak edo Bizkaiko mugetatik hurbileko herrietakoak: Orozkoko otoitz laburrak (c. 1739), Laudioko dotrinak (1828 eta 1858koak) eta gaztetan Abandora joandako J. P. Ulibarri okondoarraren testuak (1815-1840. urte bitartekoak), beste testu xumeago batzuekin batera (§ 3.4).

Hego-sartaldeko hizkeretan espero zitekeenez, Arabako euskararekiko lotura ere nabarmena da: deklinabideko *-an* genitibo eta *-ai* datibo marka singularrak (ik. beherago, § 5.2) edo *txikir* ‘txiki’ aldaera Arabako lekukotasunetan dira, baina itxaronezina zatekeen araberekin konpartitza “hiperarkaismo” zenbait —*jakin* laguntzailea eta *daiqueano* (ik. beherago § 5.2)—, Lazarraga agertu ezean bata hapaxtzat jo beharra eta bestea Mendebaldean ezezaguntzat.

Bildu ditugun argudioak (§ 4.4.3) aski dira, gure iritzian, *Dotrinazko Sermoitegia* Aiaraldean behinola hitz egin zen euskararen lekukotasun aski fidela dela baieztatzeko. Eremu honek Arabako ipar-mendebaldeko eta Bizkaiko hego-mendebaldeko lurak biltzen ditu, egungo banaketa administratiboaren arabera Arabako Aiarako koadrila (Aiara, Laudio, Amurrio, Artziniega eta Okondo udalerriak) eta Bizkaiko Goi Nerbioiren parte diren Urduña eta Orozko (§ 3.1). Nerbioi arrotik beherago dauden Arakaldo eta Arrankudiagako udalerriak ere sar litezke Aiaraldearen barnean.

Aingura testuekiko erkaketak ez digu aukerarik eman testua nongoa den zehaztasun gehiagoz erabakitzeko, haien urritasunagatik aurreikus zitekeenez, baina bederen badakigu sermoitegiak lekukotzen duen hizkera ez dela aurkitzen eremuko gainerako lekukotasunek islatzen dituzten hizkeren artean: ez Orozkon, ez Laudion, ezta apika Okondon ere.

Ez da erraza berdintzea, are gutxiago gainditzea, euskalkien historiarako Landucciren azterketak suposatu zuen iraultza. Hala eta guztiz ere, *Dotrinazko Sermoitegiak* hego-sartaldeko hizkera oso berezi bat lekukotzen duen heinean, uste dugu beldurrik gabe esan dezakegula esanguratsuki aldatzen duela Mendebaldeko eremuko isoglosen bilakabideaz geneukan irudia, eta balio handiko datuak ematen dituela arkaismo zenbaiten historiaz ere. Beraz, hurbilketa eraginkor bat egitekotan, ezinbestean euskararen historiak eta euskal dialektologia historikoak planteaturik dituzten zenbait galderaren erantzunaren bila abiatu izan gara testuaren izaera, sortu zen testuingurua eta batez ere haren hizkuntza aztertzerakoan, honetarako eskura izan ditugun baliabide guztiak erabilirik.

5.1. *Dotrinazko Sermoitegia* literaturaren historiari begira

Gure testuaren hizkera aztertu baino lehen, euskal letren historian ere kokatu beharra zegoen, alegia, zer dela eta sortua zen, zein testuingurutan, bai eta historia horretan saio isolatu bat izan zen ala besteren ildotik egina. Berez jakingarria izan arren, dudarik gabe alde honetatik ezar zitekeenak sendotu behar zuen sermoitegiak hizkera ezezagun horren lekukotasun gisa daukan balioa.

Dataren arabera, Lehen Euskara Modernoko testua dugu, Larramendiren gramatika eta hiztegiaren argitalpenaren ondokoa, bai eta Kardaberazek eta Mendiburuk haren ildotik argitaratutako lanen ondokoa ere, baina urtetxo batzuk falta ziren oraindik Mogelek eta Añibarrok beren lehen lanak argitara zitzaten, hots, “literatur bizkaiera” deitu ohi dugunari hasiera eman ziezaioten (§ 4.3.2). Nolabait esanda, “inorena ez den lurrean” idatzia dateke, hortaz, lehen begiratuan: testu dialektal bat, itxuraz oinarri eman dion hizkerarekin zintzoa (§ 2.4.1.1). Izan ere, gure idazle anonimoak ez dirudi larramenditarren zantzurik duenik: grafian ohitura zaharrei heltzen die eta lexikoan ez dago *Hiztegi Hirukoitza* zuzenean erabili zuelako aztarna nabarmenik (§§ 4.3.2.1.1 eta

4.3.2.2). Hala eta guztiz ere, testua aztertuago eta zenbait ezaugarri deigarriago gertatu zaizkigu, zuzenean ez bada zeharka behinik behin Larramendik sortu zuen giro berriarekin lotzen dutenak.

Sermoigile anonimoak <s> grafia darabil euskal txistukari gehienak (egungo *s*, *z*, *x*, *ts* eta *tz*) islatzeko, lehenago Mikoletak bezala (§§ 4.2.1.4 eta 4.3.2.1.1.1). Suposatu dugu biek txistukari grafia bakarra zeukatela eskura, <s> alegia, gaztelania zaharreko <x>, <z> eta <ç> txistukari grafiak jada beste hots batzuk (/x/ eta /θ/) adierazten zituztelako. Hipotesi honek, tamalez, kolokan jartzen ditu orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak oro, eta nahikoa zailtzen du hemendik aurrera historia hori egiten lagun dezaketen lekukotasunak aurkitzea.

Edonola ere, tarteka <z, c^{e:i}> grafiadun hitz gutxi batzuk badira eta, are nabarmenago, *atseguin* hitza horrelaxe idatzita ageri da behin eta berriz, gainerakoan frikari/afrikatu bereizketarik ez badago ere. Hitz bakar bati lotutako <ts> horrek garbi esaten digu Larramendiren mugimenduaren nolabaiteko oihartzuna heldu zitzaiola gure idazleari, hark hedatu baitzituen <ts> eta <tz> frikari/afrikatu oposaketa islatzeko, Iparraldeko idazleetatik hartuta. Bitxitasun grafiko hauei *aren dibine magestadea* behingo esapidea (40-111) gehi dakieke, zeren eta, ezaguna denez, Kardaberaz gomendiotik aurrera (1764) baino ez zen zabalduko bizkaierazko idazleen artean genitibo singularraren idatzizko bereizketa, literatur bizkaieran erabatekoa dena (§ 4.3.2.1.2.1). Aipatu ditugun ezaugarriok ez dago azaltzerik, gure ustez, orduko euskal liburuetan ikasi zituela pentsatuz baizik.

Behin honetaraz gero, hitz eratorriak ere aztertu ditugu, haien ugaltzea literatur hizkuntzaren sorrerarekin loturik dagoela gogoan (§ 4.3.2.2), Larramendiren mugimenduaren eta oro har literaturtasunaren balizko oihartzunak neurtzekotan (§ 2.4.1.4), bai eta uste ez genituen emaitzak lortu ere: sermoitegiko hitz eratorri batzuk Larramendiren lanaren ondorioz agertzen dira Hegoaldean (*-garri* atzizkia, oro har, eta *ekuskarri* bereziki, *alperreria*, *ordikeria*...) eta beste batzuk Mogel eta Añibarroren lanetan lekukotuak ziren estreinakoz (*-kuntza* atzizkidunak, *eskakizun*, *urteyera* ‘irteera’...); batzuk eta besteak literatur bizkaiera sortu aurretik ezagun eta erabiliak izan zirela frogatzen du honek.

Larramendik euskaraz ondo predikatu beharra aldarrikatu zuen buruan izan zitzakeen bestelako helburuen ginetik (Urgell 2012: § 2.1), Espainian garai berean zebilen antzeko giroaren ildotik (§ 4.3.1), eta alde honetatik bereziki ezaguna da Zarauzko misiolari frantziskotarretan aurkitu zuen erantzun azkarra. Sermoitegian

aurkitu ditugun ezaugarri bereziak, nola edo hala literatur hizkuntzari lotuak, azaltzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu mendebaldean “predikazio garaiko hizkuntza” edo “predikazio hizkuntza” deitu dugun mugimendua izan zela proposatzea (§ 4.3.3.2): alegia, badirudi 1745etik aurrera Mendebaldeko eremuan ere idazleak ez zirela nor bere aldetik ibiltzen, ez zutela isolamenduan idazten, ezer gutxi ezagutzen dugun tradizio baten barruan baizik; tradizio hau, gehienetan ahozkoak izateko pentsaturik ziren testuetan islatu zen, baina baita argitaraturiko eta argitaratzeko prestatuturiko lan apurretan ere (cf. Urgell 1991: 919). Larramendiren egitasmoaren eta XIX. mende hasierako literatur bizkaieraren arteko kate begi isil eta erdi-galdu bat litzateke “predikazio garaia”, Mogel eta Añibarro hein batean tradizio honetan oinarritu bide baitziren.

Azken batean, *Dotrinazko Sermoitegiak* frogatzen du baiezkotan erantzun behar zaiola Salaberri Muñoaren (2004) galdera zertxobait erretorikoari, hots, literatur bizkaiera ez ote zen Mogel eta Añibarroren lanen aurretik gauzatu, kontuan izanik lehendik ere Olaetxearen eta Kardaberazzen bizkaierazko argitaratuak eskura zituztela horretarako interesik zuten elizgizonek. Alde honetatik, hipotesien esparrutik ziurtasunarenera igaro gara: gure ustez ez dago dudarik gure idazleak Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioan (1763) ikasi zuela *atseguin* idazkera, zeren eta sermoi batzuen sarrera legez agertzen diren galde-erantzunak ere bertatik hartuak baitira, bere hizkerara bihurtuta eta Olaetxearen berrikuntza grafiko eta estilistikoei kasu handirik egin gabe bada ere (§ 4.3.2.4).

Sermoitegian diren <y> eta <sh> grafia berrikuntzek ere (lehenengoaz, ik. § 4.3.2.1.1.1.2; bigarrenaz, § 4.2.1.4 eta 4.3.2.1.1.1.1) mugimendu honetakoak dirudite, nahiz eta orain arte Añibarrok beranduago (1821) hartuko duen bidearen erakusgarri gisa ezagunagoak izan. Zarauzko frantziskotarren arteko lehenagoko erabilera jadanik seinalatua zenez (Urgell 1987a: 363), baliteke grafia berriok ordena honek hedatzea predikarien artean edo, hipotesia aurrerago eramanez, frantziskotarren artekoa izatea gure sermoigilea.

Idatziz genitibo singularra bereizteko joera ere mugimendu honi zor zaiola erakutsi digute De la Quadrak (1784) eta Oñatiko eskuizkribuek (XVIII. mn. am.). Ausartagoa da egin dugun beste proposamena, alegia, “Markinako sistema” delakoari dagokiona, bai baitirudi haren ezaugarri nabariak diren *-ija* eta *-uba* epentesiak behinik behin Mogel baino lehenago zabaldu zirela, Larramendiren beraren eta are aurreko besteren lekukotasunek erakutsi bezala (§ 4.3.2.1.2.2). Honek esan nahiko luke

ezaugarri honen hedadura aztertzerakoan idatz tradizioaren balizko gurutzaketa ere kontuan hartu beharko dela hemendik aurrera.

Kontuan har bedi “predikazio hizkuntzaren” hipotesia testu bakarraren gainean eraikia dela, testu apal eta, beraz, oinarri gutxi eman dizkigunaren gainean. Oinarriak aski sendoak dira, gure ustez behintzat, garaiko beste testuetan eta ondoko literatur bizkaieran dagoeneko aurkitu ditugun zantzuen arabera. Dena dela, esan gabe doa lehen baino orain hastapeneko predikarien eskuizkribuak argitaratu eta aztertzekeo premia gehiago dagoela, baldin eta hipotesia zabaldu eta garatuko bada.

5.2. *Dotrinazko Sermoitegia* euskararen historiari begira

Sermoitegiaren azterketak literatur hizkuntzaren historiari dakarkiona gutxietsi gabe, testu honen garrantzia islatzen duen hizkera ezezagunean datza eta, beraz, tesi honen muina ere haren hizkera hori antzeman, ezaugarritzatu eta gainerako lekukotasunekiko erkaketaren bitartez kokatzean dago (§ 4.4.3). Aurreratu bezala, gure iritzian XVIII. mendean Euskal Herriko hego-sartaldeko muturra zen lurraldean kokatu behar da, XIX. mendean zehar euskara galdu zuten lekuetako batean, eta hortik ezinbestean leku hori Aiaraldekoa zela ondorioztatu behar dugu.

Dena dela, testuaren kokapen dialektala ez da tesiaren helburu nagusia, are garrantzizkoagoa den zerbaiteara iristeko ezinutzizko urratsa baizik. Jakina denez, bereziki Mendebaldeko eremuko corpus erlatiboki goiztar, ugari eta ñabarrari esker izan dugu bestetan nekez lekukotzen diren hamaika arkaismoren historia ezagutzeko eta historiaurrea berreraikitzekeo modua (cf. Lakarra 1986c). Hala eta guztiz ere, ezusteko handia izan da guretzat XVIII. mende amaierako testu batean halako datu aberastasuna aurkitzea. Ezbairik gabe, Aiaraldeko euskara hainbat arkaismoren azken gordelekua izan zen, beranduagokoak diren Laudioko dotrinetan alde behintzat lehendik ere antzeman zitekeen bezala.

Sermoitegiko hizkerak garbi ikusarazi digu teoriarik ongi genekien zerbaite, hots, bazter eremuen garrantzia isoglosen ibilbidea eta ezaugarrien historia era osatuago batean ulertzeke; halaber, ikusarazi digu hainbat lekutan euskara lekukotasunik utzi gabe galdu izanak historia horren zati bat, batzuetan oso esanguratsua izan daitekeena, lapurtu digula. Izan ere, *Dotrinazko Sermoitegiari* esker XVIII. mendeko isoglosen

mapa osatuxeago aurkez dezakegu orain: batzuetan testuko datuek ezaugarri garrantzizko zenbaiten hedadura geografiko eta kronologikoa berrikusarazi dizkigute, eta haietako zenbaitez geneukan irudia aski aldarazi; bestetan, bilakabideari buruzko xehetasun ezezagunak eskaini dizkigute, orain artean berreraiki baino ezin zitezkeen edo are pentsaezinak ziren urratsak lekukoturik.

Arkaikotasunaren zantzu nabarmenak ditu *Dotrinazko Sermoitegiaren* hizkerak, bazter eremu bati dagokion bezala. Ezaugarri hauetako batzuk arkaikoak dira oso testuaren datarako (§ 4.4.1): *jakin* laguntzailea eta *daiqueano* forma itxuraz fosildua, *-no* muga-adlatiboaren gainean denborazko perpausak osatzeko erabilia, artean ez ziren Mendebaldeko eremu zabalean Lazarragaren testuan baizik lekukotu, are XVI. mendean ere eremu urrikoak zirela erakutsirik.

Bestalde, ez zegoen itxaroteko modurik gaur egun oraindik herabeki baino berreskuratu ez diren XVI-XVII. mendeetako bokal sudurkariak hizkera honetan utzi dituzten ondorioak, gure testuan *sei#* vs. *seiñV* txandakatzean islatzen direnak. Honek iradokitzen du Durango aldeko euskaran (Kapanagaren hizkeran, zehazkiago) ez ezik, hego-sartaldeko hizkera honetan ere behintzat, uste genuena baino luzarago iraun zutela, eta bide batez erakutsi digu kontsonante sudurkariaren berrezarpena (§ 4.2.1.6) bokal arteko testuingurutik abiatu bide zela, eta ondoren bakarrik *seiñ* erro legez berrinterpretatu zela. Testuaren arkaikotasun apartak bide eman digu, era berean, *deunso* ‘deutso’ erako adizkietako *n* bitxi hori arkaismotzat hartzeko, hots, **dun* aditz erroaren partetzat: honela Etxepareren eta Mendietaren testuetan ziren antzeko forma azalgaitzen zergatia ere aurkitu uste dugu.

Antzinagoko testuen bidez soilik ezagutzen genituen hainbat arkaismo ere badira, XVIII. mendeko gainontzeko testuetan nekez aurki ditzakegunak, edo ez hemen bezain bizirik, eta hortaz bestetan galduak edo galtzear zirenak, nonbait. Ablatibo-prosekutiboak adibide egoki ditugu: batetik, ondo bereizten ditu, garai hartan jada bestetan (Urquizu, De la Quadra) *-ti(k)* atzizkiak funtzio biak hartuak zituen arren (§ 4.2.2.1; cf. baita § 4.2.2.2 ere); eta, bestetik, *-rean* bizi-bizirik aurkitzen dugu, singularrean ez ezik are pluralean ere, orain arte ezagutzen genuena baino ia mende bat beranduago. Gure hizkeran, *-etarean* ez ezik, bestetan lekukotu ez den *-etareanik* pleonasmodun forma ere eratu zen, *-rean* atzizkiak pluralean izan zuen bizitasunaren adierazgarri.

-ti → *-tik* bilakabideari buruzko xehetasunak ere lortu ditugu *-ti* eta *-gaiti* atzizkiak elkarrekin aztertzean: nahiz eta argi dagoen bigarrena lehenengoaren gainean

eraikia dela (**gai + ti*), erakutsi ahal izan dugu biak ez zirela abiadura berean eraberritu; aitzitik, *-gaiti* → *-gaitik* aldaketa oso aurreratua delarik, *-ti* oraindik bere horretan mantentzen da sermoitegian.

Aditzaren aldetik ere arkaikoa dugu hizkera. Batetik, aditz-izenak sortzeko atzizkien artean *-tzaite* eta *-ite*, Euskara Arkaiko edo Zaharrean bageunde bezain bizi aurkitzen ditugu (§ 4.2.3.2). Bestetik, Euskara Arkaikoan narrazioetan zehar estiloa adierazteko erabiltzen zen *l-* aurrizkia ere nasaiki ageri da gure testuan (§ 4.2.3.5). Era berean, badugu **ezan* aditz laguntzailearen adibide bat ere (*acabeesas*), behinola orokorra izan zen laguntzailea azken-azkenetan zegoela, baina oraindik zeharo desagertu gabe XVIII. mendeko hego-sartaldean (§ 4.2.3.13).

Aoristo trinkoaren eta perifrastikoaren adibideek ere, bigarrenek bereziki, erakusten dute berreraiki dezakegun erabilerarik zaharrena —hots, narrazioetako erabilera— bazirauela oraindik hizkera hartan; gainerakoan perifrasi modernoa baino ez bide zen erabiltzen (§ 4.2.3.11). Aoristo perifrastikoaren bizitasunaren adierazle garbia da testuan lehenaldiko baldintzaren protasian ere agertzea, hizkera honen berrikuntza eskusiboa baita, dakigularik. *Zein* ezezko partikula mendebaldeko Euskara Arkaiko eta Zaharrean lekukoturiko *ze* ezezkoaren ondoriotzat jo dugu, **ze + din* ‘ez dadin’ egituratik sortua (§ 4.2.4.11): hego-sartaldeko hizkerek arkaismo batetik abiatuta egindako berrikuntza litzateke, gaur egun Bizkaiko hego-sartaldeko zenbaitetan (Nerbioi arroan, Zeberion) oraindik gordea. Datuen arabera, esan genezake hala aoristoa nola *ze* ezezkoa zuela erlatiboki gutxi oso biziak izan zirela eremu hartan, erabilera hedatzeko edota forma indartu eta berrizatzeko moduko indarraz.

XVIII. mende hasieran mendebaldean aditzoina ia galdutzat eman bagenezake ere, testu honek erakusten digu hondar erabilera bat bazela sartaldeko hizkera zenbaitetan bederen: honen argitan proposatu ahal izan dugu *-adu* partizipioen bilakaera fonetikotzat jotzen ziren *-a* partizipioak (ustez, *-adu* > *-au* > *-a*), Bizkaiko hizkera batzuen bereizgarri, egiazki arkaismotzat jo behar direla, antzinako aditzoinaren hondartzat, gerora analogikoki bestelako erabileretara hedatuko direnak: izan ere, hala gure testuan nola garaitsuko beste batzuetan (Olaetxea, De la Quadra, Añibarro) *-a* formak oraindik ere beti edo ia beti aditzoinari dagozkion egitekoetan baino ez dira aurkitzen (§ 4.2.3.1).

Aingura testuekiko erkaketak zeregin garrantzizko bat izan du gure azterketan oro har, eta batzuetan ezaugarri zenbaiten izaera ulertzeko erabatekoa. Hala izan da ikusi berri dugun *-a* partizipioen kasuan, bai eta bestetan ere. Adibidez, Sermoitegiko

datiboko komunztadurarik gabeko adizkiak hegoaldeko beste testu batzuetan (Añibarro, Albeniz) ere aurkiturik, berrikuntza gisa edo egilearen trebetasunik ezaren ondorio gisa interpretatu beharrean, arkaismotzat hartzea proposatu dugu, zeren eta, Iparraldean ondo deskribatua den gertakariarekin batetortze interesgarriak antzeman ditugunez, bai baitirudi Bartoliren lege ezaguna ezaugarri honi ere aplikatu dakiokeela (§ 4.2.4.2).

Bazter hizkerari dagokion legez, berrikuntza muturreko batzuk ere badira testuan. Tradiziozko *dituz* ‘ditu’ eta *dituez* ‘dituzte’ erako adizkiekin batera *dabez* eta *daudez* laguntzaile analogikoak nasaiki agertzen dira sermoitegian, gaur egunean mendebalde gehienean erabiltzen direnen antzera: gauza da hizkera honetan *it* → *z* pluralgile ordezkatzeko analogikoaren azken urrats hori lehenago eman zela, *dabez*-en orain arteko lehenengo agerraldiak J. A. Mogelenak badira ere, ez baitugu hemen bezain ugari erabiltzen duen XIX. mendeko testurik ere aurkitu (§ 2.2.3.6).

Beste berrikuntza batzuk Orozkon baino ez dira lekukotu, hizkera bien arteko hurbiltasuna bermaturik, hala nola *-uan* > *-uin* (*zeruan* > *zeruin*) eta *-io* > *-iu* (*dagion* > *dagiun*) asimilazioak. Bonaparteren garaitik ezagunak, XVIII. menderaino eraman ahal izan ditugu, beraz. Berdintsua da *-tuite* aditz-izenak sortzeko atzizkia: orain artean datu positibo bakarrak Laudioko 1858ko dotrinan genituen, baina, gure ustez, *Viva Jesus*-en azterketatik (Ulibarri 2010a) atera genituen ondorioak berresten ditu sermoitegiak: hizkia azken batean dotrinatxo hartan ageri den [partizipioa + *egiten*] perifrastik datorrela egiten badugu, berez bezala dator *VJ*-ren beraren jatorria Orozko inguruan edo hegoalderagoko hizkera batean jarri beharra. Hipotesia beste datu batek behintzat berrets lezake: sermoitegian ere agertzen da *VJ*-ren *betakari* aldaera (§ 4.2.5). Are gehiago, bazter hizkera batekotzat joz gero, hobeto azaltzen dira dotrinaren arkaismoak (**edin* trinkoa, aoristoak...).

Gutziz ezezagunak ziren berrikuntzak ere topatu ditugu, hala nola *eze* ezezko adizlaguna: **eze*-ren biziraupentzat hartu beharrean, nahiago izan dugu indikatiboz beste adizkietan erabiltzen zen *ze* arkaikoaren beste indartzetzat hartu (§ 4.2.4.10), lehen *zein* partikularekin ikusi bezala: azken hau subjuntibozko perpausetan erabiltzen da, eta *eze* aginterazkoetan. Ereku zabalagoko berrikuntza izan zen, nonbait, zeren eta Ugaoko (gure hizkera baino iparralderagoko herria, Aiaraldea eta Bilbo bitartekoa) XIX. mendeko testuan (§ 3.4) ere aurkitu baitugu.

Sermoitegiko hizkeraren bi berrikuntza eskusibo azpimarra ditzakegu: batetik, lehen aipaturiko lehenaldiko baldintzaren protasia egiteko [partizipio + *ba*-**edin*/*egin* lehenaldian] erabiltzea, hots, perifrasi aoristoaren gainean eratzea; bestetik, *-aic* eta

-atan deklinabide atzizkiak, pluraleko absolutiboa eta singularreko inesiboa hurrenez hurren (§ 4.2.2.8): gure hipotesiaren arabera, bazter eremu hartan 3. graduko erakuslearen gainean artikularen forma berriak sortzen hasiak ziren.

Orain artean lekukotu gabekoa izateagatik, hizkerak hapaxak ere baditu, hala *gorreto* ‘gorrotoa’, *tilinque* ‘tanta (?)’ eta *geiegu* ‘deia (?)’ bezalako hitz edo aldaerak, nola *coaine* ‘adina (?)’ partikula eta *acabatzako* hitzean dugun *-tzako* atzizkia (§ 4.2.5). Azken hau gure sermoitegian ez ezik Añibarroren lanetan ere ageri den **-tzagarik* atzizkiarekin erlazionatu dugu: bigarrena **-tza bagarik* egituratik etorriko litzatekeen heinean, *-tzako* < **-tza bako* ‘-tza gabeko’ jatorritik azalduko genuke.

Hizkeraren berezitasuna erantzunik eman ezin izan diegun ezaugarrietan ere islatzen da; bokal bikoitzen kasua izan daiteke guztietan paradigmaticoena (§ 4.2.1.5): lehenagotik ezagutzen genituen testuinguruez gainera, gure ezagutza gainditu duten erabilera oso bereziak aurkitu ditugunez, *Magdaleena* ‘Madalena’, *bareeuena* ‘barauarena’, *tilinqueeric* ‘tantarik’, *egunaari* ‘egunari’ *ditueesanac* ‘dituenak’ edo *estagoaala* ‘ez dagoela’ bezalako adibideak azalpen zain geratzen dira.

Dotrinazko Sermoitegiaren hizkera azaldu eta kokatu ahal izateko, balizko inguruko hizkerekiko erlazioak ere begiratu behar izan ditugu, haien arteko hartu-emanak eta isoglosen mugimenduez jabetzeko aukera izanik. Arabako euskararen eragin zaharra lekukotu uste dugu hizkera honetan, *-an* genitibo singular eta *-ai* datibo singular kasu atzizkien formak ikusita, nahiz galtzear bide ziren, *-en* eta *-ari* formekiko lehian. Bestalde, *MeMu* hizkuntz eremua Lakarrak (2011a) Erdi Aroaren bukaera inguruan jadanik eratutakotzat jo duelarik, ordutik eta XVIII-XIX. mende bitartean eskuartean dugun hizkera sortzeko gertatu ziren hausturak berregiten saiatu gara, haien arteko kronologia zehazteko lehenengo urratsak emanez (§ 4.4.2).

5.3. Gerora begira

Tesi honetan zehar egin ditugun aurrerapenak —aintzat hartzekoak balira— erabilitako metodologiari (§ 2.4) zor zaizkio neurri handi batean. Ildo honetatik, ondoko ideia orokorrak behintzat erakutsi uste dugu:

1) Hala testua kokatzerakoan nola ezaugarriak banan-banan azaltzerakoan bi ardatzei —denbora eta lekuari— begiratzea ez da azterketa aberasteko bakarrik balio duen zerbait, baizik eta azterketa onik egiteko modu bakarra.

2) Datuak biltzea sarritan ez da nahikoa: ahaleginean hipotesien bitartez ezaugarriak sortu, hedatu edo galarazi dituzten prozesuak ere berreraiki behar dira, behar bezala ulertuko badira.

3) Aingura testuen laguntzaz badago espazioan kokatu gabeko testuak ondo xamar kokatzeko modurik, are euskara arrastorik utzi gabe galdutako lekuetan ere. Euskara bezalako corpus urri eta berankorreko hizkuntza baten historian aurrera egingo badugu, esan gabe doa honek izan dezakeen garrantzia.

4) Testu bakar batean begiak ipinita egiten den hurbilketa atomistak ezaugarriak gaizki ulertu edo oharkabeen alde batera uzteko duen arrisku handia saihesteko modua ere bada aingura testuekiko konparaketa, eta batzuetan hori da zuzen ulertzeko bide bakarra.

5) Azken batean, ondo hautaturiko aingura testu talde batek “kontrol corpus” bezala balio du, hala delako hizkeraren kokapenaz nola haren ezaugarri bakoitzaren gorabeheraz egin ditzakegun hipotesiak bideratu eta mugatzeko.

6) “Testu dialektalak” vs. “testu ez-dialektalak” dikotomia faltsua gainditzeko, haien literaturtasuna neurtzeko ere proposatu dugu aingura testuen teknika, kasu honetan garai eta giro bereko edo bertsuko testuez osatutako corpus baten bidez.

Hala bada, tesi honek gerora begira irakaspen bat utzi ahalko balu, nahi genuke hauxe izan dadila: testu orok bere balioa du euskararen historiaren ezagutzan aurrera egiteko. Ezin da testu bat alde batera utzi aurreikusten diren arazoengatik; aitzitik, metodologia egokiarekin arazoak gainditzeko ahalegina egin behar dugu.

6. BIBLIOGRAFIA

Laburdurak³⁰⁹

Arte = Larramendi, M., 1729, *El Imposible Vencido: Arte de la lengua bascongada*, A. J. Villagordo Alcaráz-en inprentan: Salamanca.

Ax. = Urgell 2015a.

CatV = Kardaberaz s.d. [ca.1762].

CC = Mogel, J. A., 1800, *Confessio ta Comunioco sacramentuen gañean*, Ezkerro alarguna: Iruñea.

CO = Mogel, J. A., 1803, *Confesiño ona edo ceimbat gauzac lagundu biar deutseen confesinuari ondo eguiña izateco*, F. Larumbe: Gasteiz.

ContTAV = Sarasola, I., 1983, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, [2. arg. 1990] ASJU-ren gehigarriak 11: Donostia.

DVEF = Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, 2. arg. LGEV: Bilbo, 1969.

EBO = Kardaberaz 1761.

EGLU = Euskaltzaindia, 1991-2011, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (7 liburuki), Euskaltzaindia: Bilbo.

EKC = *Euskal Klasikoen Corpora*, Interneten kontsultagarri: <<http://ehu.es/ehg/kc/>>

FHV = Mitxelena, 1977 [1964], *Fonética Histórica Vasca*, berrarg. in *OC VI*.

GB = Villasante, L. (arg.), 1970, *Gramatica Bascongada*, ASJUren gehigarriak 6: Donostia.

HH = Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (Bi liburuki), B. Riesgo y Montero-ren inprentan: Donostia.

Mat. = Aristimuño *et al.* 2015.

OEH = Mitxelena, K., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia* (15 tomo), Interneten kontsultagarri: <<http://euskaltzaindia.eus/oeh>>

OC = Mitxelena, K., 2011, *Obras Completas* (XV liburuki) [Lakarra & Ruiz Arzalluz arg.], Gipuzkoako foru aldundia / UPV-EHU: Donostia/Gasteiz.

Poza = Poza, A., 1587, *De la antigua Lengua, Poblaciones y Comarcas de las Españas*, Matias Mares: Bilbao.

TAV = Mitxelena, K., 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, berrarg. in *OC XII*, 1-197.

³⁰⁹ Egile eta obra klasikoen aipuetarako *OEH*-ko laburdurak erabiliko ditugu oro har. Alabaina, gure corpuseko obretako batzuk ez dira *OEH*-ko erreferentzietan agertzen eta halakoetan Corpusaren deskribapenean (§ 3.4) eman diegun laburduren bidez aipatuko dira.

VRB = Zabala, J. M., 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, I. R. Barojaren inprenta: Donostia.

VB = Villasante, L. (arg.), 1963, *Voces Bascongadas diferenciales*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa: Bilbo.

Abaitua, J., & M. Unzueta, 2011, “Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la “vasconización tardía”, *Oihenart* 26, 5-26.

Aguinagalde, F. B. et al., 2007, “Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acheran (1746-1810) eta Grand tourra (1772)”, *Egan* 60: 1-2, 35-113.

— & B. Urgell, 2012, “XVI. mendeko mendebaldeko lekukotasun berri bat: Sarasketa hiztegitxo”, *ASJU* 46:2, 13-29.

Aitchison, J., 2012, “Diachrony vs Synchrony: the Complementary Evolution of Two (Ir)reconcilable Dimensions”, in J. M. Hernández Campoy & J. C. Conde Silvestre (arg.), 11-21.

Alvar, M., 1961, “Hacia los conceptos de lengua, dialecto y hablas”, interneten eskuragarri: <http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcj3952> [kontsulta eguna: 2015-4-2].

—, 1996, “Riojano”, in Alvar (arg.), 81-96.

—, (arg.), 1996, *Manual de dialectología hispánica. El Español de España*, Ariel: Bartzelona.

Albertos, M^a Lourdes, 1970, “Álava prerromana y romana: Estudio Lingüístico”, *Estudios de Arqueología Alavesa* 4, 107-223.

Aldai, G., 1998, “A proposito del Aoristo vasco”, *FLV* 79, 377-386.

—, 2006, “Lehenaldi perfektiboko formak XVI. mendeko euskaran”, in Lakarra & Hualde (arg.): 23-34.

—, 2008a, “Sobre el significado arcaico de las formas con prefijo *l-*: su uso en Lazarraga”, *FLV* 108, 301-327.

—, 2008b, “Últimos restos del Aoristo Perifrástico en el euskera de Bilbao”, *FLV* 109, 405-417.

Altuna, P., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Euskaltzaindia: Bilbo.

Altuna, F. 1995, “Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren araberazko eskuizkribua (1778)”, *ASJU* 29:1, 83-132.

Altuna, B., 2003, *Euskaldun fededun*, Alberdania: Irun.

Altzibar, X., 1985, “Renteria, Uriarte y el euskera de Plentzia”, in in HH.EE., *Plentzia. Azterlanak-Estudios I*, Plentziako Udala: Plentzia, 55-119.

—, 1991a, “Kardaberazen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa”, in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), 259-276.

- , 1991b, “Juan Antorio Mogelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina”, *ASJU* 25:2, 623-649.
- , 1992a, *Bizkaierazko idazle klasikoak: mogeldarrak, astarloatarrak frai Bartolome*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- , 1992b, “Larramendi eta Literatur Gipuzkera”, in J. A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoaingo udala: Andoain, 325-360.
- Andrés, P. & S. Garza (arg.), 2000, *Imprenta y crítica textual en el siglo de oro*, Valladolideko unibertsitatea-CECE: Valladolid.
- Arana Martija, J. A., 1979, “Euskara dakarren XVII. mendeko liburu bat Mexikon”, *Euskera* 24:2, 759-765.
- , 1984, “Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea”, *Euskera* 29:2, 499-510.
- Arana Murillo, A., 1998, *Orozko haraneko kondaira mitikoak. I. Korpusa*, UPV/EHU: Bilbo.
- Aranburu, P. J., 1995, *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)*, Eusko Jaurlaritza: Gasteiz.
- , 1996, “Juan Bautista Agirre, euskal idazlearen liburutegia, 1742-1823”, *FLV* 73, 493-508.
- Arejita, A., 1985, “Zumarragaren Gutuna (1985)”, *Litterae Vasconicae* 3, 143-150.
- , 1988, “Domingo Hegiari Kantua. Textoa eta lexikoa”, *Litterae Vasconicae* 4, 7-51.
- , 1991, “XVII. mendeko Bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: *Enojaduric*”, *Litterae Vasconicae* 5, 9-20.
- , 2008, “Lazarragaren lexiko eta gramatika zehetasunez”, in *Haritschelharren omenaldia-IKER 21*, Euskaltzaindia: Bilbo, 59-93.
- & M. Alberdi, 1985, “Amilletaren Dotrinea”, *Litterae Vasconicae* 3, 7-68.
- Ariztimuño, B., 2006, “Lazarragaren eskuizkribuko zenbait aditz trinko”, Interneten kontsultagai: http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/13/43/86/PDF/lazarraga_borja_behinbetiko_a.pdf [kontsulta eguna: 2010-02-04]
- , 2013a, “Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), 41-60.
- , 2013b, “Finite Verbal Morphology”, in Martínez Areta (arg.), 359-427.
- , et al. (arg.), 2015, *Materra: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<https://sites.google.com/site/materraedizioa>> [Kontsulta: 2015/02/16].
- Arretxe, J., 1988, “Arrigorriagako dotrina”, *Litterae Vasconicae* 4, 53-96.
- , 1994, *Basauriko euskara*, Basauriko udala: Basauri.
- Arriaga, E. de, 2005 [1960], *Lexicón Bilbaíno*, Hiria: Donostia.
- Arriolabengoa, J., 2008, *Euskara Ibarguen-Cachopín Kronikan*, Euskaltzaindia-BBK: Bilbo.
- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.

- Arzadun, M., 1731, *Doctrina christianeen explicacinoa*, Bartolome Riesgo-ren imprentan: Gasteiz.
- Aspuru Oribe, J., 2012, “Francisco de Mendieta. Un ayalés universal”, *Aztarna* 43, 42-49.
- , 2014, “Cartografía histórica de Ayala-Alto Nervión”, *Aztarna* 45, 11-19.
- Atutxa, U., 2013, “Txistukariaren neutralizazioa mendebaldeko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean (lehen hurbilketa)”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), 61-75.
- Aurrekoetxea, G., 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHU: Bilbo.
- , 2009, “Euskalkien dialektotasunaz”, in Etxepare, Gómez & Lakarra (arg.), 119-136.
- , I. Esparza & A. Larrea (zuz.), 2005, *Arratiako idazle aitziandarien antologia*, Zertu K. E.: Artea.
- & X. Videgain, 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, ASJUren gehigarriak 49: Bilbao.
- Azkue, R. M^a, 1923-25, *Morfología vasca*, 2. arg. LGEV: Bilbo, 1969.
- , 1926, “Observaciones acerca de la obra Langue basque et langues finnoises del príncipe L. Bonaparte”, *Euskera* 7, 17-36.
- , 1935, “Evolucion de la lengua vasca”, *Euskera* 16:1/2, 57-120.
- Babel, M., A. Garrett, M. J. Houser & M. Toosarvandani, 2013, “Descent and Diffusion in Language Diversification: A Study of Western Numic Dialectology”, *IJAL* 79, 445-489.
- Babiano, M., I. Basterrika, I. Echeverria & A. Galarraga, 2014, “Landucciren hiztegi bosgarren eskua”, *ASJU* (argitaratzeko).
- Bakker, P., G. Bilbao, Nicolaas G. H. Deen & J. I. Hualde, *Basque Pidgins in Iceland and Canada*, ASJU-ren gehigarriak 23: Donostia.
- Baraibar, F., 1903, *Vocabulario de palabras usadas en Álava y no incluidas en el Diccionario de la Real Academia Española (Decimotercia edición) ó que lo están en otras acepciones ó como anticuadas*, Ratés: Madril.
- Barandiaran, J. M., 1926, “El euskera en Álaba a fines del siglo XVIII”, *RIEV* 17:4, 464-467.
- Barrenengoa, F., 1976, “El euskera en la Tierra de Ayala”, *Euskera* 21, 185-193.
- , 1988, *Onomástica de la Tierra de Ayala* (3 liburuki), Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- , 2002, *El Valle de Ayala: De la Prehistoria al Siglo XVI. (Tomo I)*, Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- , 2009, *El Valle de Ayala: Siglos XVI-XX. (Tomo II)*, Amurrioko Udala: Amurrio.
- Barrutia, E., 2001, “Aditz-izenen eta partizipioen formak bizkaieraz”, *Litterae Vasconicae* 8, 225-239.
- , 2003, “Orozkoko etno-ipuain batzuk”, *Euskalingua* 2, 146-154. Interneten eskuragarri: <<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi43A.pdf>> [kontsulta eguna: 2010-02-04]

- Bauer, G., 1986, "Medieval English scribal practice: some questions and some assumption", in D. Kastovsky & A. Szwedek (arg.), *Linguistics across historical and geographical boundaries: in honor of Jacek Fisiak*, Mouton de Gruyter: Berlin-N.Y.-Amsterdam, 199-210.
- Belasko Ortega, M., 2004, "Toponimia y panorama lingüístico de la Ribera de Navarra y comarcas circundantes", in R. Jimeno & J. C. Lopez-Mugarza (arg.), *Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación*. Nafarroako Gobernua: Iruñea, 55-78.
- Berruto, G., 2001, "Soziolinguistik" in G. Holtus, M. Metzeltin & C. Schmitt (arg.), 305-323.
- Bertolucci Pizzorusso, V., 1998, "Filologia del codice e filologia del testo", in Ruffino, 1998, 797-801.
- Bilbao, G., 1997, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak. I. *Doctrina christinaubarena*", *ASJU* 31:1, 247-336.
- , 1998, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II)", *ASJU* 32:1, 165-229.
- , 2006, "eztut jeusic neure baitharic ekharri, ez eta ere autoretan causitcen ezten gauçaric isquiribatu': Etxeberri Sarakoaren asmatze-lanerako iturriak", in J.A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), 161-220.
- , 2011, "Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian", in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 621-649.
- *et al.* (arg.), 2010 [ca. 1602], *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta eguna: 2010/10/05].
- Bile, M. & C. Brixhe & R. Hodot, 1984, "Les dialectes grecs, ces inconnus", *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 79:1, 155-203.
- Blecua, A., 1983, *Manual de crítica textual*, Editorial Castalia: Madril.
- Blecua, J. M., J. Gutiérrez & L. Sala, 1998, *Estudios de Grafemática en el dominio hispano*, Caro y Cuervo Instituzioa-Salamancako unibertsitatea: Salamanca.
- Brambilla Ageno, F., 1984, *L'Edizione Critica dei testi volgari*, Editrice Antenore: Padua.
- Braunmüller, K., 2007, "Dialects, varieties and historical linguistics", in T. Arboe (arg.), *Nordisk dialektologi og sociolingvistik*, Aarhus Universitet: Århus, 11-32.
- Bueno, A., 2008, "Para la historia de los sufijos derivativos en vasco", interneten kontsultagai: <http://www.ehu.es/monumenta/pdf/mintegia2008/Bueno-Para_la_historia_de_los_sufijos_derivativos_en_vasco.pdf> [kontsulta eguna: 2012-07-21].
- , 2011, "Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historiko eta morfologikoa", in Lakarra, Gorrochategui & Urgell, 191-200.
- Busse, U., & B. Busse, 2010, "Shakespeare", in A. H. Jucker & Irma Taavitsainen (arg.), *Historical Pragmatics*, Mouton de Gruyter: Berlin/N.Y., 247-281.
- Bynon, T., 1977, *Historical Linguistics*, Cambridge U.P.: Cambridge.

- Calleja, Z., 1998, “El Dr. Juan Pz. de Betolaza y su entorno”, in Knörr & Zuazo, 57-69.
- Camino, I., 1997, *Aezkeraren azterketa dialektologikoa*, Nafarroako gobernua: Iruñea.
- , 2000, “Goñerriko hizkera (II)”, *ASJU* 34:1, 137-196
- , 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako gobernua: Iruñea.
- , 2004, “Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian”, *Euskera* 49:1, 67-102.
- , 2008a, “Dialektologiaren alderdi kronologikoz”, *FLV* 108, 209-247.
- , 2008b, “Nafarroa behereko euskara zaharra”, *ASJU* 42:1, 101-169.
- , 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar: Donostia.
- , 2011, “Ekialdeko euskararen iraganaz”, in Epelde (arg.), 87-153
- , 2013a, “Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia”, in R. Gómez *et al.* (arg.), 77-140.
- , 2013b, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782). Edizioa eta azterketa (ASJU 47:1/Euskararen lekukoak 27)*, UPV/EHU-Euskaltzaindia: Bilbo.
- & R. Gómez, 1992, “Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)”, *ASJU* 26:2, 453-581.
- Campbell, L., 1998, *Historical Linguistics: An Introduction*, Edinburgh U.P.: Edinburgh.
- , 2011, “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?”, in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), 23-40.
- Camus Bergareche 2013, “Los castellanos del País Vasco: Sistemas pronominales en Álava a partir de las encuestas de COSER”, *IV Jornadas Vasco-románicas jardunaldietako hitzaldi argitaragabea*
- Cano-Aguilar, R., 2008a, “Cambios en la fonología del español durante los siglos XVI y XVII” in Cano (coord) 2008b, 825-858.
- Cano, R. (coord.), 2008b, *Historia de la lengua española*, Ariel: Barcelona.
- Caravedo, R., 2003, “Principios del cambio lingüístico. Una contribución sincrónica a la lingüística histórica”, *Revista de Filología Española* 83:1-2, 39-62.
- Caro Baroja, J. 1945 [1990], *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Editorial txertoa: Donostia.
- Carrera, I. M. & I. Garcia, 2005, *Legutiano aldeko euskara*, Euskaltzaindia-Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- Castaños, 1957, “El genitivo en vizcaíno antiguo”, *BAP* 13, 60-69.
- Catalán, D., 1984, “El romancero, hoy”, *Boletín Informativo de la Fundación Juan March* 133, 3-14.
- Cepeda, J. J., 2001, *La romanización en los valles cantábricos alaveses. El yacimiento arqueológico de Aloria*, AFA-DFA: Gasteiz.
- Cerdan, F., 1985, “Historia de la historia de la oratoria Sagrada”, *Criticón* 32, 55-107.

- Chambers, J. K. & P. Trudgill, 1994, *Dialectologia*, Visor: Madrid.
- Chartier, R., 2000, “La pluma, el papel y la voz. Entre crítica textual e historia cultural”, in Andrés, P. & S. Garza (arg.): 243-257.
- Cierbide, R., 1998, “Notas gráfico-fonéticas sobre la documentación medieval navarra”, *Príncipe de Viana* 214, 523-534.
- Claveria, G., 1998, “Grafías cultas en las variantes del Rimado de Palacio de P. López de Ayala y de los Soliloquios de Fr. P. Frenández Pecha”, in Blecua, Gutiérrez & Sala 1998: 49-64.
- Coseriu, E., 1978, *Sincronía, diacronía e historia*, Editorial Gredos: Madrid.
- Crowley, T., 1997, *An Introduction to Historical Linguistics*, Oxford U.P.: Auckland.
- Dadson, T. J., 2000, “La corrección de pruebas (y un libro de poesía)”, in Andrés & Garza (arg.), 97-128.
- De Vogelaer, G. & G. Seiler (arg.), 2012, *The Dialects Laboratory. Dialects as a testing ground for theories of language change*, John Benjamins: Amsterdam/Philadelphia.
- Dees, A., 1988, “Propositions for the study of Old French and its dialects”, in Fisiak, J. (arg.), 139-148.
- , 1991, “Ancien français écrit et ancien français parlé”, in D. Kremer (arg.) *Actes du XVIIIe Congrès International de linguistique et de philologie Romanes* (III. liburukia), Max Niemeyer Verlag: Tübingen, 700-705
- , 2001, “Historische Dialektologie”, in G. Holtus, M. Metzeltin & C. Schmitt (arg.), 852-856.
- Díaz Noci, J., 1996, “El periodismo alavés en lengua vasca: una aproximación histórica (1888-1936)”, *BISS* 6, 396-417.
- Díaz de Durana, J. R., 2001, “El contexto histórico de la integración de la tierra de Ayala en la provincia de Álava”, in E. García Fernández (coord.), 81-91.
- Dossena, M., & R. Lass (arg.) 2004, *Methods and Data in English Historical Dialectology*, Peter Lang: Berna.
- & —, 2009, *Studies in English and European Historical Dialectology*, Peter Lang: Berna.
- Echaide, A.M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza. Iker 3*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Eco, U., 1994, *La búsqueda de la lengua perfecta*, Bartzelona: Crítica.
- Egurtzegi, A., 2011, “Euskal metatesiak: abiaburua haien ikerketarako”, *ASJU* 45:1, 1-79.
- , 2014, *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque* [zuz: J. A. Lakarra & Juliette Blevins], UPV/EHU-ko doktorego tesi argitaragabea.
- Ehrlicher, H., 2007, “Alemán, Cervantes y los continuadores. Conflictos de autoría y deseo mimético en la época de la imprenta”, *Criticón* 101, 151-175.
- Elordui, A., 1995a, *Hizkuntz Heriotza eta Aldaketa Morfologikoa: Hegomendebaldeko Bizkaieraren Kasua*, argitaratu gabeko doktorego tesia.
- , 1995b, “Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak: iturriak eta erizpideak”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 433-463.

- Elorza, J., 1977, “Oinatiko Arrazola etxeko manuskritoak”, *Euskera* 22, 179-197.
- Ensunza Aldamizetxebarria, A., 2010, “Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean”, Interneten kontsultagai: <<https://hal.archives-ouvertes.fr/artxibo-00698794/document>> [kontsulta eguna: 2015/02/18].
- Epelde, I., (arg.), 2011, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, ASJUren gehigarriak 69, UPV/EHU: Bilbo.
- Esparza Zabalegi, J. M., 2011, *Mapas para una nación*, Txalaparta: Bilbo.
- Etxagibel, J., 2014, *Pouvreau-ren hiztegia testukritika eta metalexikografiaren argitan*, UPV/EHU-ko doktorego tesi argitaragabea.
- Etxebarria, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*, Ibaizabal: Zornotza.
- Etxebarria, J. M., 1985, “Plentziko banatasunaren XIX gizaldi erdiko lekuko dan J. Kruz de Renteriaren euskal testo ezezagun bat (I)”, in HH.EE., *Plentzia. Azterlanak-Estudios I*, Plentziako Udala: Plentzia, 246-282.
- , 1987, “Plentziko banatasunaren XIX gizaldi erdiko lekuko dan J. Kruz de Renteriaren euskal testo ezezagun bat (II)” in HH.EE., *Plentzia. Azterlanak-Estudios II*, Plentziako Udala: Plentzia, 165-197.
- , 1992, “Plentziako bizkaiera 1860an J. Kruz de Renteriaren liburu ezezagun baten arabera”, *Oihenart* 11, 81-128.
- & L. Akесоlo, 1983, “Plentziko banatasuna, XIX gizaldi erdirantz J. Kruz de Renteriaren sermoi liburu ezezagun baten arabera”, in HH. EE. *Noveno congreso de Estudios Vascos*, 407-413.
- Etxebarria, N., 2005, *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVII-XX)* Labayru Ikastegia: Bilbo.
- , 2007, “1708ko eskuizkribu argitaratubakoa bizkaieraz: edizinoa eta hizkerearen azterketea”, *Euskalingua* 11, 67-94. interneten kontsultagai: < <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi337A.pdf> >
- , & A. Apraiz, 2007, *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854) Sermoitegia*, Labayru ikastegia-Basauriko udala-BBK fundazioa: Bilbo.
- , & A. Apraiz, 2009, *Bizente Sarria (1767-1835) Sermoitegia*, Labayru ikastegia-Etxebarriko udala-BBK fundazioa: Bilbo.
- Etxepare, R., R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 2009, *Beñat Oihartzabali Gorazarre (ASJU 43:1/2)*, GFA-EHU: Donostia-Bilbo.
- Fernández, B., 2001, “Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera”, in B. Fernández & P. Albizu (arg.), *On Case and Agreement. Kasu eta Komunztaduraren gainean*. UPV/EHU: Bilbo., 147-165.

- & M. Ezeizabarrena, 2003, “Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean. In J. M. Makazaga & B. Oyharribal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian* (Iker 14-1), Euskaltzaindia: Bilbo, 255-278.
- , J. Ortiz de Urbina & J. Landa, 2009, “Komunztadurarik gabeko datiboen gakoetz”, in R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 357-380.
- & M. Rezac, 2010, “Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: *Ari nai diyot eta kanta egin nazu* bidegurutzean”, in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai* (ASJUren gehigarriak 52) UPV/EHU: Bilbo, 113-149.
- Fernández Rodríguez, C. *et al.*, 1983, “La sociedad del siglo XVIII a través del sermonario. Aproximación a su estudio”, *Cuadernos de Historia Moderna y Contemporánea* 4, 35-57.
- Fernández Palacios, F., 2011, 'Hacia una cronología de la toponimia románica y vascuence en las Encartaciones', *Oihenart* 26, 163-175.
- Fernández-Ordóñez, I., 2001, “Hacia una dialectología histórica. Reflexiones sobre la historia del leísmo, el laísmo y el loísmo”, *BRAE* 284, 389-464.
- , 2010, “Menéndez Pidal and the beginnings of Ibero-Romance Dialectology: a critical survey one century later”, in J. C. Conde (arg.), *Ramón Menéndez Pidal after Forty Years: A Reassessment*, Department of Hispanic Studies, Queen Mary, University of London: London, 111–143.
- , 2012, “Dialects areas and linguistic change: Pronominal paradigms in Ibero-Romance dialects from a cross-linguistic and social typology perspective”, in G. De Vogelaer & G. Seiler (arg.), 73-106.
- Fernández Cuesta, J. & M. N. Rodríguez Ledesma, 2009, “The Northern Echo: Continuities in Contemporary Northern English”, in M. Dossena & R. Lass (arg.), 157-189.
- Fisiak, J. (arg.), 1988, *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter: Berlin-New York-Amsterdam.
- (arg.), 1990, *Historical Linguistic and Philology*, Mouton de Gruyter: Belin-NY.
- Fleischmann, S., 2000, “Methodologies and Ideologies in Historical Linguistics: On Working with Older Languages”, in S. Herring, P. van Reenen & L. Schøsler (arg.), *Textual Parameters in Older Languages*, John Benjamins: Amsterdam/Philadelphia, 33-58.
- Galé, P., M. Gorrotxategi & F. Mugurutzza, 2013, *Aiarako toponimia nagusia*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Gaminde, I., 1983, “Orozkoko aditza”, *FLV* 41-42, 37-93.
- , 1984, *Aditza Bizkaieraz (3. liburuki)*, Udako Euskal Unibertsitatea: Iruña.
- , 1990a, *Bilbo Berbaz Berba*. Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakundea: Bilbo.
- , 1990b, “Ezezko nominalizazioak bizkaieraz”, *Uztaro* 0, 85-98.
- , 1991, “Ablatiboaren balioa bizkaieraz”, *Litterae Vasconicae* 5, 177-190.

- , 1994, *Bilboko Larraskituko euskara. Lexikoa eta testuak*, Bilboko udala: Bilbo.
- , 1995a, *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Labayru ikastegia: Bilbo.
- , 1995b, “Plentzia aldeko euskararen zenbait ezaugarri morfosintaktiko”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 547-551.
- , 1999, “Elosu, Nafarrete eta Urrunagako euskaraz”, *FLV* 81, 241-261.
- , 2002, “Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan”, *Euskalingua* 1, 4-14.
- , 2007, *Bizkaian zehar. Euskararen ikuspegi orokorra*, Mendebalde Kultura Alkartea: Bilbo.
- García Fernández, E., 2001, *La tierra de Ayala. Actas de las jornadas de Estudios históricos*, Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- Garigorta, J. R. & I. Gaminde, 1986, “XVIII. mendeko otoitz batzu”, *Enseiucarrean* 2, 61-65.
- Garret, 1999, “A new model of Indo-European subgrouping and dispersal”, in St. S. Chang, L. Liaw & J. Ruppenhofer (arg.), *Proceedings of the Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, Berkeley Linguistics Society: Berkeley: 146-156.
- Gaskell, P., 1999 [1972], *Nueva introducción a la bibliografía material*, Trea: Madril.
- Gelabertó Vilagrán, Martí, 2003, *La palabra del predicador. Contrareforma y superstición en Cataluña (s. XVII y XVIII)*, Doktorego Tesia.
- Gimeno Menéndez, F., 1983, “Hacia una sociolingüística histórica”, *Estudios Linguísticos de la Universidad de Alicante* 1, 181-226.
- , 1990, *Dialectología y sociolingüística españolas*, Universidad de Alicante. interneten kontsultagai: publicaciones.ua.es/filespubli/pdf/LD84790800198476300.pdf [kontsulta eguna: 2015/03/30].
- Gómez, R., 1992 [1989], “Bonaparte Printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak”, berrarg, in R. Gómez & J. A. Lakarra, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, ASJUren gehigarriak 15: Donostia, 429-466.
- , 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*, UPV/EHU, Bilbo.
- , 2008, “Berriz Aizkibelen ‘Euskera’ eskuizkribuaz: Edizioa eta iturriak”, *ASJU* 42:1, 333-380.
- & J. A. Lakarra (arg.), 1995, *Euskal dialektologiako kongresua*. ASJUren gehigarriak 28: Donostia.
- & B. Urgell, 2010, “Hacia una edición crítica del manuscrito de Lazarraga”, *Oihenart* 25, 63-88.
- , J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), 2013, *Koldo Mitxelena katedraren III. biltzarra*, UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz.
- Gómez Seibane, S. (koord.), 2007, “Mesa Redonda II. Dialectología histórica: Nuevos enfoques y perspectivas”, in Fernández Alcaide, M. & A. López Serena (arg.), *400 años de la lengua del Quijote*, Sevillako Unibertsitatea: Sevilla, 113-149.

- Gómez, J. & A. Romero, 2002, “Un texto de 1846 en euskera de Bermeo: la fundación de la Cofradía de las Benditas Ánimas del Purgatorio”, *FLV* 90, 353-379.
- González Salgado, J. A., 1996, “Contribución al estudio de la ortografía en el siglo XVI: la reforma del padre Flórez”, *Dicenda* 14, 149-157.
- González Bachiller, 2014, *El léxico romance de las colecciones diplomáticas calceatenses de los siglos XII y XIII*, Errioxako Unibertsitatea: Logroño.
- Gorrochategui, J., 1987, “Andres de Poza y el euskera”, *ASJU* 21:3, 661-681.
- , 2009, “Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüísticas”, in *Palaeohispanica* 9, 539-555.
- , 2011, “Euskara zaharra”, in Sagarna, A., J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), 695-716.
- & J. A. Lakarra, 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in Villar, F. & M. P. Fernández (koord.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamankako unibertsitatea: Salamanka, 407-438.
- Haas, M. R., 1969, *The Prehistory of Languages*, Mouton: Paris.
- Hernández Campoy, J. M., 1993, “Dialectología tradicional, sociolingüística laboviana y geolingüística trudgilliana: tres aproximaciones al estudio de la variación”, *Estudios de Lingüística Universidad de Alicante* 9, 151-181.
- , 2001, *Geolingüística: Modelos de interpretación geográfica para lingüistas*, Murtziako Unibertsitatea: Murtzia.
- & J. C. Conde Silvestre (arg.), 2012, *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Wiley-Blackwell: Chichester.
- Herrero Salgado, F., 1968, “Notas para una historia de la oratoria sagrada española”, *Archivum* 18, 117-144.
- Hidalgo, B., 1995, *Hitz ordena euskaraz*. UPV/EHU doktorego tesia. interneten eskuragarri:
- Hock, H. H., 1991, *Principles of Historical Linguistics*, Mouton de Gruyter: Berlin.
- Holtus, G., M. Metzeltin & C. Schmitt (arg.), 2001, *Lexicon der Romanistischen Linguistik (LRL) vol. 1,2: Methodologie*, Niemeyer: Tübingen.
- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, ASJUren gehigarriak 42, Donostia-Bilbo.
- & I. Gaminde, 1997, “Vowel Interaction in Basque: a Nearly Exhaustive Catalogue”, *ASJU* 31:1, 211-245.
- Ibisate Lozares, A., 2001, “El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiaran de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado”, *Euskera* 46:2, 783-803.
- Igartua, I. & E. Santazilia, 2013, “Instrumentalaz gogoratuz, instrumentuaz haratago: Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J.A. Lakarra & C. Mounole (arg.), 227-244.

- Imizcoz, J. M., 2001, “El patrocinio familiar. Parentela, educación y promoción de las elites vasco-navarras en la monarquía borbónica”, in F. Chacón Jiménez & J. Hernández Franco (arg.), *Familias, poderosos y oligarquías*, Murtziako unibertsitatea: Murtzia, 93-130.
1-1 *Credeen*: *r* gabekoa gen. singularra da ‘Credoaren’ (cf. § 4.2.2.3). **1-2** *misteriyo*: testuak epentesia markatzen du *i* ostean, gehienetan <y>z adierazita; hala ere, ez dakigu hizkerari dagokion ezaugarria ote den edo garaiko idazte ohiturekin loturik egongo den (cf. §§ 4.2.1.8 eta 4.3.2.1.1.1). || *principelac*: *RUI* erregela oso indartsua dela ikusten dugu hau bezalako maileguetan (cf. § 4.2.1.7). **1-3** *sagraduic*: *RUI* erregelak eragindako *a > e* asimilazioak aurrera joan da *u* bokalarekin eta *ua > ue > ui* aldaketa gertatu da, beti ere asimilaturiko *a* azken posizioan ez dagoenean (cf. § 4.2.1.7). || *etorri asquero*: ‘etorri ostean, etorri eta gero’. || *prediquetan*: *-adu & -idu* partizipiodun aditzek *-eta* atzizkia darabilte aditz-izenak sortzeko (cf. § 4.2.3.2). **1-4** *mundu gustiti*: ‘mundu guztian zehar’, *-ti* atzizkiak oraindik prosekutibo ‘non zehar’ adiera duela dirudi hizkera honetan. || *finegas*: ‘azken finean’. || *berba-modu*: ‘esapide, berbaera’. **1-5** *sirean*: ‘ziren’, *a + a > ea* disimilizaioa *izaneko* adizkietan ere gertatzen da. || *componidu eudenac*: ‘moldatu zutenak’ 3. pl.-ko atzizkia *-de* dugu, Bizkaiko eta Arabako hizkeretako sartaldean legez. **1-6** *aec*: ‘haiek’. || *amavi yturri desiertucoan*: lekuzko genitiboa izenaren ostean agertzea nahiko normala da testu zaharretan, eta gurea honekin bat egiten du (cf. § 4.2.4.4). || *uregaitic*: adibide gutxi batzuk kenduta (cf. § 4.2.2.2) motibatiboaren adibideek *-k*-dun forma berria erakusten dute. **1-7** *isenic*: ‘izanik’, txistukarien islatzea defektiboa izan arren, badirudi bokal arteko txistukariak neutraldurik direla (cf. § 4.2.1.4). || *aen*: ‘ain’. || *â ura*: artikulua zaharraren adibide gehienak *erakusle + izen + erakusle* egituran topatzen ditugu (cf. § 4.2.2.8). || *corrientea*: ‘mugitzen dena’. **1-8** *â andra prodigiosea*: Genero bereizketarekin sartu dira, oro har, adjektibo mailegatuak hizkera honetan. **1-9** *Eleseen*: ‘Elizaren’ <s> grafia txistukari guztiak islatzeko erabiltzen da, baita [j] ere. || *signifiquensea*: ‘esanahia’. **1-11** *Ese eudesan echi*: indikatiboaz kanpoko adizkietan Bizkaian eta Araban erabiltzen zen *ze* marka arkaikoaren berrindartze ba dela dirudi (*ez + ze*); oro har, aginteran erabiltzen du egileak (*ze* espero genukeen testuinguruetan alegia), adibide honetan izan ezik, non indikatiboan dugin. **1-13** *eben*: ‘zuen’ pl. marka *-de* izanik, *daben-eben* sing. dira eta *daude-euden* plurala. Bestalde, *eben* formaren bokal asimilazioa (*eban > eben*), testua hegoaldera begira jartzen gaituela dirudi, Lazarragan aurkitzen baititugu honelakoak, eta iparraldeko beste testuetatik (*RS, Mic*, edo *Cap*) aldentzen gaituzte (hala ere, ik. Zuloaga 2013: 603).

15 ***Lelengo articulu Credocoa: Sinistuiten dot Jangoico Aite gustis
poderosoagan, ceruen da lurren criyedoreagan.***

“Sinistuiten dot Jangoico Aite gustis poderosoagan, ceruen da lurren
criyedoreagan”: au de lelengo articulu Credocoa. “Sinistuiten dot” da lomismo seinde
esatea dauquet gause ciertuset, dudeen errastu bagaric. “Sinistuiten dot” da esatea
20 dauquet ciertugosat dacusden gausea beño, segaitic bista engaña leiteque baye es
fedec yrecasten deuscune, segaitic fundetan da Jangoicoen autoridedean, sein esin
engañadu leiteque. Da Jangoicoa espiritu purisimu bet: da eternoa estauquelaco es finic
es principiuric, da estana mudetan. Da immensoa betetan dituselaco Ceruec eta lurrec
bere essenciyeegas, presenciyeegas eta potenciyeegas. Ceruen eiten dau bere <2> gloriyen
25 ostentaciñoa, lurrean bere providenciyeena eta Ynfernuen bere justiciyeena. Da
infinitamente ona dalaco comparaciñoeric estauquena bere bondadea, orregaitic esan
eben San Lucasec: *Nemo bonus nisi solus Deus*. Bear dogu sinistu dala aite dalaco Aite
eguiyescoa bere Seme Dibinuena, eta au aite yseiteau bacarric convenitan yaco lelengo
persona Santissime Trinidedecoari. Beste sentidu beten esaten dogu dala Jangoicoa
30 gustiyoen aite, au de criyedu guenduselaco, conservetan gatuselaco eta gobernadu bere
providenciyeegas, especialmente fiel christiñeuec seinsuc adoptetan gatus bere semesat
bautismuen emaiten deuscun graciye dala mediante. Diñogu “ceruen da lurren
criyedorea” criyedu ebesalaco ceruec eta lurrec, eta lurrean dagosan gause gustiyc:
arboleac, animeliyac, guisonac eta lurren ganean dagosanac: egastiyc, iserrac &a. Da
35 au Jaun Dibinue bat essenciyan eta iru personetan, seinsuc direan Aitea, Semea eta

1-15 *sinistuiten*: silaba bi baino gehiago duten *-tu* partizipioek *-iten* atzizkia darabilte aditz-izenak sortzeko (cf. § 4.2.3.2). **1-16** *da*: gehienetan *eta* darabilen arren, ez da *da* formarik falta testuinguru askotan: *-n*, *-z*, *-k*, bokal edo eten ostean. **1-18** *au de*: ‘au da’ *da*, *bat*, *batzu* bezalako partikulek *RUI* erregela jasatzen dute, honek duen indarraren erakusgarri direlarik. || *lomismo*: ‘gauza bera’ (gazt. *lo mismo*). **1-19** *errastu*: ‘arrasto’. || *bagaric*: sermoitegian forma oso hau baino ez dugu (hots, ez da ***baric*); *baco*-ren kasua alderantziz da, ez baitugu ***bagaco* formarik. **1-20** *dacusden*: ‘ikusten dut’ kasu honetan *-de* lehenengo pertsonaren marka da, *RIU* erregelak eraginda. || *engaña leiteque*: cf. *alza saites*, *acorda saites*... sermoitegian zehar aditzoinaren erabilera diruditen hainbat adibide badira, honako honetan legez guztiak *-adu* motako partizipioekin (cf. § 4.2.3.1). **1-21** *esin engañadu leiteque*: *ezin* partikula aditz nagusiaren aurretik erabiltzen da testuan (cf. § 4.2.4.6). **1-23** *dituselaco*: *-it-* pluralgilea oso gutxitan dugu testuan, beti ere *-z* pluralgilearekin batera eta NOR-NORkeko 3. pertsonan (cf. § 4.2.3.3). **1-27** *Aite eguiyescoa bere seme Dibinuena*: edutezko genitiboa izenaren eskuin ager daitekeen arren, askoz ugariago da aposizioan aurkitzea, hemen legez. **1-29** *sentidu beten*: ‘baten’ *da*, *bat*, *batzu* bezalako partikulek *RUI* erregela jasatzen dute, honek duen indarraren erakusgarri direlarik. **1-30** *gustiyoen*: 1. graduaren gainean sorturiko artikulu hurbilaren adibidea, genitiboan (*-onen* > *-oen*). || *gatuselaco*: NOR 3. pertsonaz kanpoko adizkietan, *-it-* pluralgileak sortzen duen diptongoa bakuntzen du egileak, eta beti mendebaldeko *-z* pluralgileaz laguntzen ditu halako adizkiak (cf. § 4.2.3.3). **1-32** *emaiten*: hau da *emon* aditzaren aditz-izenak forma hau hartzen du, *-n* bukaerako partizipio guztiak legez (cf. § 4.2.3.2).

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

Espiritu Santue, direanac euren artean distintac eta irurec estire Jangoico bat beño, dauquelaco irurec iseite dibinu bet; au de Santissime Trinidedeco misteriyoa. Eta isen arren gure entendimintu laburrec esin comprendidu leiyena, expliquetan da gueure arimen semejanseagas, seinec isenic bat dauques iru potenciye: memoriye, 40 entendimintue eta borondatea. San Agustinec expliquetan dau au misteriyoa u simil onegas: “Eresegui eguiosue, diño santuic, candela bateri eta ecusico dosues beratan iru gause: sue, arguiye eta beroa.” Noric yayoiten da â arguiye? Sueganic. Emen expliquetan da, diño San Agustinec, selan semeac, sein den arguiye, proceditan dabela Aiteaganic, sein den sue: *Ygni[s] Pater, splendor Filius*. Su onetatic eta argui onetatic 45 iguero gatean berora eta ecusico dogu onec proceditan dabela sueganic eta argui berataric. <3> Modu onetan declaretan da selan Espiritu Santue[c], Bero Dibinuec, proceditan dabela Aite Dibinueganic, sein den su misterioosa, eta Seme Dibinueganic, sein den munduco arguiye; eta selan sue, arguiye eta beroa direan iru gause euren artean distintac edo diferenteac, lomismo Aitea, Semea eta Espiritu Santue dire iru persona 50 euren artean distintac edo diferenteac. Ysen arren sue, arguiye eta beroa yru gause diferenteac, esin leoques arcaletaric apartauric; alan, lomismo Aitea, Semea eta Espiritu Santue isen arren iru persona diferenteac euren artean esin leoques arcaletaric apartaduric, espada batera dauquen legues iseite bat; aude, Jangoico bat iseitea. Au misteriyoa, seineri guey eiten yacan Santissime Trinidedecoa, eta selan omaiten deusen 55 Jangoicoonec onai gloriye deungai ynfernue, eta selan eguin sen guison Seme Dibinue, dauque fiel christiñeuec obligueciñoea yaquiteco distincioeagas; eta yaquin bagaric usode[r]razocean yguero asquero, estago mediuric es erremediuric salbetaco. Eta

1-36 *beño*: ‘baino’, testuan zehar palataldun adibideak ugarien badira ere (*beño*, 101 adib.), palatalik adierazirik ez dutenak ere (*beno* 16 adib.) badira (cf. § 4.2.1.10). **1-38** *esin comprendidu leiyena*: -kehizkirik gabeko potentziala, oso erabiliak direnak sermoitegian zehar (cf. § 4.2.3.6). **1-40** *San Agustinec*: Agustin Hiponakoa, IV. mendeko idazle eta filosofoa, Elizako aita eta doktorea. **1-41** *Eresegui eguiosue*: ‘irazeki ezazue’, aditza NOR NORI NORK erregimenarekin erabiltzea antzinako testuetatik lekukotzen da mendebaldean (cf. *OEH* s.v. *irazeki*, *RS*-ren adibide batetik). || *beratan*: cf. 3-58, 4-56... *bera* izenordearen inesibo forma hauxe da sermoitegian (17 adib.), *bertan* behin (32-18) aurkitzen dugularik; *beratan* forma Uriarte eta XX. mendeko idazle bizkaitarretan lekukotzen dena (*OEH*, s.v. *bera*). **1-42** *Noric*: ‘nondik’ ablatiboa adierazteko *-rean*, *-reanik* eta *-rik* atzizkiak ditugun arren, galdetzaileetan *noreanik* (2 adib.) eta *norik* (10) baino ez dira. || *yayoiten*: *-o* bukaeradun partizipioen aditz-izena *-iten* atzizkiaren bidez egiten da. **1-45** *gatean*: *-z* pluralgilerik gabeko aldaera zaharra. **1-51** *esin leoques*: ‘leudeke’, *egon* aditzaren trinkoa. || *arcaletaric*: ‘elkarretatik’, testuan *arkal* (13 adibide) eta mendebaldeko *alkar* (4) formak orokorra baditugu, forma hau sartaldeko B-n eta A-n lekukotzen du *OEH*, Uriarte Arabako euskarara itzuliriko Buldan eta Añibarroren lekukoekin (s.v. *elkar*). **1-54** *omaiten*: ‘ematen’, *emaiten* (191 adib.) forma zahar orokorrek batera aurkitzen dugu honako hau (12 adibiderek); *OEH*-k (s.v. *eman*) *omon* Gernikan lekukotzen du, Ortuzar (XX. mende) aipatuz. **1-57** *usode[r]razocean yguero*: ‘zentzua izateko garaia gainditu’ (gazt. *uso de razón*) umeak zazpi urterekin lortzen zuen maila; *uso de rason* mailegua izanik batera eman dugu, horregatik *r*-a bikoiztu dugu, ahoskera bortitza galdu ez zedin.

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

peca[tu] mortalen aspin yaquin bear da Paternosterra, Credo, Jangoicoen legueco mandamintuic, bost elesacoac eta Sacramentoac. Gueure fin ultimue da Jangoycoa, bada, criyedu guendusén mundu onetan vera ametaco eta serbitaco eta beste 60 eternamenteco visisan vera gozetaco. Apostoluic diño mundu onetan visi garean artean gareala peregrinuic eta caminanteac gueure errireco, seinden Cerue. Diferenciyeu dago peregrinuen eta ciudadanuen artean: ciudadanuic dauquen legues ciudadean vere visimodue, an eiten dau esea eta erosten ditus erraizec vere visiseraco; vaye peregrinue, 65 dagoan legues depaso, <4> estau atenditan posesiñoetara es ondasunic eroatera, bacarric daroa vere gogoa errire. Au de yrecasten dabena Apostoluic, advertitan deusela guisonari selan consideradu bear dabén eta visi peregrinue legues, imini bagaric biosa mundu onetaco gausetan, seinetan dagoan depaso, eta imini deguila bere biosa eta vere gogoa gustiye Ceruen, cein den bere erriye. Ya ecusten da: Yndiyetara doasanac eta 70 guero gogoa dauquenac etorteco euren errire estitues erosten an ondasun erraizec esin aldean eroan leisenac bere errire, espada ondasun muebleac aldean eroan leisenac bere errire. Munduco ondasunec esin eroan leis aldean Cerure; graciyen eta obra onen ondasunec eroan leis gueure errire, vera logretaco gloriyeco eternamenteco premiñoa. David erregueac esaten eusen Jangoicoari: *Quid enim mihi est in caelo?* ‘Jaune, ser 75 deustesu preveniduric Ceruen?’, eta diño guero berlan: *ad te quid volui super terram?* ‘Se veste gauseric deseadu al leique lurren ganean seus ostein edo seu beño?’ Entenditan emaiten dabela profeteac se guisonac, yaquinic dauquesan ondasun andic

1-58 *aspin*: ‘azpian’ *ian* > *in* egiteko joera antzematen da hizkeran, are mailegu berrietan ere: *avarintu, corrinte...* **1-60** *guendusén*: ‘gintuen’, -z- pluralgilea oso hedaturik dugu hizkera honetan. **1-62** *Diferenciyeu*: artikulu hurbilaren adibidea dugu, *RIU* erregelaren indarran izenak -*au* horrekiko duen erlazio estua adierazten baitu. **1-64** *esea*: ‘etxea’, [t] adierazteko <ch> grafiaz baliatzen denez, <etse> edo <etze> ahoskera suposatu behar diogu hitz honi; *etse* forma medebaldeko testu zaharretatik lekukotzen da, eta Erronkarin ere forma bera agertzeak aldaera zaharra dela adierazten digu (*OEH*, s.v. *etxe*). || *erraizec*: ‘mugitzen ez diren [ondasun]ak’ (cf. gazt. *bienes raizes*). **1-65** *depasso*: ‘iragaitzaz, pasadizoan’ (gazt. *de paso*). || *eroatera*: mendebaldeko hizkeretan mugimenduzko aditzekin aditz-izenak inesiboan erabili ohi badira ere, ez dira adibiderik falta adlatiboan ere (cf. *46-30 edatera* eta § 4.2.4.8). **1-66** *errire*: hitzaren adiera zaharra erabiltzen duela dirudi ‘lurraldera’. || *deusela*: ‘deutsola, diola’ 3. pertsona datiboaren hizkian gertaturiko *o* > *a* aldaketarekin; honek eta *RUI* erregelak *deusela*-ri ‘diola’ zein ‘diela’ esanahia emango lioke, ziurrenik prosodiaren bitartez ezberdinduko zituzkeen egileak. **1-68** *imini deguila*: ‘ipini dezala’ subjuntiboa. **1-70** *estitues*: ‘ez dituzte’ adizki hauetan NORK 3. plurala markatzeko hizkia -*de* izan arren, -*it-* pluralgilearekin batera -*e* orokorra erabiltzen du. || *esin aldean eroan leisenac*: *ezin* eta aditzaren artean bestelako hitzak sar daitezke sermoitegiko hizkeran. **1-73** *premiñoa*: hitz honetan <ñ> kontsonante epentetikoa dugu (cf. § 4.2.1.8), *i* + *V* hiatotan <y> kontsonante epentetiko ‘orokorraz’ gainera, ñ ere aurki genezake. **1-75** *berlan*: ‘berehala’. **1-76** *deseadu al leique*: gutxitan bada ere, potentziala *al* (< ahal) partikulaz markaturik ager daiteke (cf. § 4.2.4.6). || *seus ostein*: ‘zutaz gainera, zutaz aparte’.

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

Ceruetan, bear dabela losatu consideraduric bere geniño bile, iminten badau viosa lurreco ondasunetan.

80 Ensun deiyogun Apostoluirri ser diraoscun: *Si consurrexistys cum Christo quae sursum [sunt] quaerite*, [...] *non quae super terram*, gue[u]re biosac alzadu deigusela Cerure, eguin deigule diligenciye logretaco Ceruco ondasunec, ese gateala contentadu lurreco ondasun <5> dañaduicas. Expliqueduco dot Apostoluen sentenciye simil onegas: Ortu beten sarsaiten danac, seinetan dagoan arbole asco frutea dacardenac, 85 acaso cositan dau lurrean dagoan frutea? Es, segaitic dagoalaco maltratauric eta bacoachac dauco ar bat. Ser eiten dau, bada? Aituiten gora arbolean eta an escogitan dau fruteri sasonaduena eta ederrena. Alan bada, christiñeuec, Elesaco jardinean ese begui cosidu frute lurrean ganean dagoana, segaitic au aen da malditea, seinde vere amalurre lurreco frutea da: avariciye, gulea, soberviye, lujuriye... eta aen madariquetue se gause 90 onen irudigas dauco barruin arra atormentetan dabena concenciye. Veguiretu setes gora eta eguisu diligenciyeri andiyeena eta principeleena logretaco visiseco arboleen ondasunec, seinden dagoan gloriyeco Paraisuin; eta alan eguingo dosu Apostolui aguiduten dabena: *Quae sursum sunt quaerite*. Alanbere, mundu onetaco gausac eta ondasunec serbidu leiquesue, christiñeue, bidesat Cerureco; alan emaiten dau entenditan 95 David profeteac: *Omnia [enim] subyecisti sub pedibus eius* ‘Gause gustiyec, Jaune, imini dosus guisonen oipetan’. Selan es ebesan imini Jangoicoac guisonen buruen ganean, egonic adinebeste merecitan daudenac veneraciñoa? Labata doctoac: “Dire gause gustiyec bidea yoateco Cerure; eta bideac, yaseve, dagos davisenen osticopetan.” Gueyego: bidea da ibilteco eta es paraduric egoteco, segaitic ese alan elisateque iños 100 elduco jornadeen cabure. Angueruec reprimidu eudesan Apostolui: *Viri Galilaei, quid*

1-80 *Apostoluirri*: ‘Apostoluarri’ *ua > ue > ui* bilakabidearen eraginez(cf. § 4.2.1.7). || *diraoscun*: ‘esaten digun’, *esan* aditzaren supletiboaren (*-io- < *inon) kausatibo genuke *iranon. **1-83** *sarsaiten*: ‘sartzen’, *CVC-tu* eratako partizipioa duten aditzen aditz-izenak –*zaite* atzizkiaren bidez eratzen dira (cf. § 4.2.3.2). || *arbole asco frutea dacardenac*: erlatiboa izenaren aurretik, gutxiengoan bada ere nahiko erabilia den egitura da sermoitegi honetan eta oro har XVIII.-XIX. mendeko mendebaldeko literaturan. **1-85** *Aituiten*: ‘aditzen, begirutzen’ **1-86** *ese begui cosidu*: ‘ez beza hartu’ jusiboa dugu hemen, eta ezezko marka *eze* (*ez + ze*; cf. § 4.2.4.10 eta *1-11 ese eudesan echi*) dugu. || *cosidu*: <s> frikari palatal bat adierazten du, *koxidu*, gazteleraren ahoskera zaharra mantenduz. **1-89** *Veguiretu setes*: ‘zaitez’, *RUI* asimilazio eta *ai > a* bakuntzearekin. || *Vegiretu*: joku iragangaitzarekin erabilia, erreflexibo moduan. **1-92** *Alanbere*: ‘hala ere’. **1-93** *serbidu leiquesue*: adibide honetan *l-* aurritzia zehazgabatasuna markatzeko darabilera dirudi ‘agian serbi diezazueke’. **1-95** *oipetan*: ‘oinpetan’, mendebaldeko hizkeretan *-n* bukaera duten hitzak (*oin, sein, usain, min, arrain...*) ez dute sudurkaririk hizkera honetan bukaera absolutuan edo kontsonante aurrean baleude (*oipe, usei, miric, oitera...*) baina bai agertzen dute bokal ostean (*seiñe, oiñetan, miñeri, arraiñec...*) (cf. § 4.2.1.6). **1-96** *adinebeste*: ‘adinbat, adina beste’; gutxi dokumentatua, Añibarroren adibide bat baino ez dakar *OEH*-k (cf. s.v. *adina*). || *Labata doctoac*: Aita Labata XVII. mendeko josulaguna, moral gaineko hainbat libururen egilea. **1-97** *yaseve*: ‘nabarmen da’ (gazt. *ya se ve*). || *davisenen*: ‘dabiltzanen’.

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

statis aspicientes in Cælum? ‘Ser eiten dosue emen, galileoac, segaitic aituiten dosue cerure?’ Bada, ser eiten daude deunguero Apostoluic beguiretuiteagas edo aituiteagas cerure, non dauquen euren ondasun gustiye? San Pablo esta parecer orretacoa, seinec diñoean: *Nostra <6> conversatio est in Cælis*, vere conversaciñoea euquela beti Ceruen; 105 eta David erregue santuec diño bere beguiyec an euquesala iminiric: *ad te levavi oculos meos, qui habitas in Cælis*. Bada, ser dire, contrariyoac angueruec Apostoluen eta profeteen dictamenera? Es, segaitic estaude erreprenditan cerure aituitea, espada segaitic cerure aituric egosan deteniduric, parauric: *Quid statis?* Segaitic merecitan dau represiñoea veguireturic cerure, seinden bere erriye, bere fine? Dagoalaco deteniduric 110 bidean, pausuric eguin bagaric elsaiteco bere peregrineciñoeco terminu dichosora eta ondasun gesticora. Baye egongo sara preveniduric, christiñeue, esareala yoango bide sabaleti, se onec, diño Christoc, eroango gatusela perdiciñoera: *Spatiosa via [est] quæ ducit ad interitum* ‘sabala da Ynfernuc bidea’. Eta esta marabille, bada, beratati doas adinebeste gentil, herege eta christiñeue deungue; bear dogu yoan bide estuti, seinec 115 guiyetan gatus Cerure: *arcta est via quæ ducit ad vitam*. Bide sabala facilmente ofrecitan yate gustiyei, baye estue topetaco: bear da eguin diligenciye, eta guichi dire aurquituiten daudenac (*pauci sunt qui inveniunt eam*) dagoalaco retireduric, eta selan bide estuti doeanac iminten dau pausue cuidedus dagoanean ach artean, yausiteco peligrue dagoanean; alan yoan bear dogu tientu andigas bide onetati, sein yausi gatean 120 Infernuc ondarrera. Baye esan deust batec: Ceruco bidea bada aen estue, selan diño Christoc bere legueen yugüe eta bidea dala suavea? *Yugum enim meum suave est et onus meum leve*. Pregunte onetara emongo dodas respuesta bi: lelengoa da isen leitequeala bide bat, isen arren estue, suave eta deleitablea; alangoa da, bada, Ceruco bidea, dagoalaco trasauric lora ederren ascotasunegas, seinsuc direan virtuteac, seinen usei 125 ederrac eguiten dau <7> irudi ysen daguila ceru bet. Dauco arbole marabillosoen recreoa, segaitic curseen arbolean dago bat aventajetan deusena gustiyei orritan, loretan eta frutuitan, eta mundu gustiti eiten daben gueriseagas templetan dau justiciye dibinuen

1-111 *sabaleti*: ‘zabalean zehar’ (cf. § 4.2.2.1). **1-115** *yate*: ‘zaie’, *-te* (<-de) pluralgilea erabiliz egindakoa (cf. § 4.2.3.3). **1-117** *ach*: ‘haitz’, mendebaldeko hizkera batean espero bezala *j + tz > tx* palatalizazioa dugu. **1-118** *sein yausi gaitean*: ‘jausi ez gaitezen’, *zein* ezezko partikula legez erabiltzea ezaguna da sartaldeko bizkaieran (cf. Gaminde 2007: 126), ziurrenik **ze+din* batetik eratorria; aditza partizipioan ohi doa (cf. Gamindek dakarren *itxi dot atea zein hotzitu*), baina adizki jokatuakin ere erabiltzen da, eta halakoetan subjuntiboan jokatzen da, hemen bezala (cf. 21-12 *sein emon daguiyen arpelerrira*). **1-123** *lora*: mendebaldeko *a + a > -ea* legearen eraginez *-e* bukaeradun hitz zenbait *-a* amaiera balu legez berranalizatu dira. || *ascotasunegas*: *OEH*-k (s.v. *askotasun*) XIX.-XX mendeko adibideak dakartza (beraz, hitzaren agertze data aurreratzen du sermoitegiak) ‘abundancia’ eta ‘pluralidad’ esanahiekin; lehenengo esanahia litzateke gure testuarekin hobekien lotzen dena. **1-126** *gueriseagas*: ‘gerizarekin’.

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

egusquiyen rigorea. Dagos bide dichoso onetan yturri abundante asco sacramento santuitan, seinsuc euren ur celestialacas dire consuelu prodigioso passageruensat eta
130 vide onetati doasanensat. Descubritan daude edo esautu bide onetati doasanac Ceruco ondasunen firmezea eta munduco gustuen engañue eta vanutasune; gracyen edertasune eta pecatuen fealdadea; Ceruco descansua eta Infernuc tormentuic, eta modu onetan esauturic Jangoicoen arguigas trabaju gustiye eiten da suave. Bigarren errazoea, segaitic Ceruco bidea isen arren estue dan suavea, da finen grandezeagaitic, sein dan bastante
135 eguiteco dulce eta suave bideco trabajuic, segaitic dauco munduco trabaju laburren terminu bet eternamenteco premiñoa, cansaciño de mpora guichicoagaitic eternamenteco descansue; eta veguiretu balites se finen beguire dagosan bide sabaleti doasanac, ecusico leuquee setan dan au desdichedue erechi arren alegre eta divertidue. Nor esta yqueratuiten consideraduric fin desgraciadue, seinetara daroasan aen bide
140 erratutti.

Exemploa

Ecusi deguisunet, christiñeue, selan criyeturac gustic testifiqetan dauden criyedu ebesala Jangoicoac: contetan da Padre Menoren chroniquetan se prediquetan ebenean San Antonio de Paduac Ariminon eta ecusiric se frutu guichi eiten eben vere
145 doctrineac, yoan san ysesoen urrera eta altu gueiyeguín eusen arrainei urten leguiyela ensuten vere sermoea eta doctrinea. Urten eben berlan manada andi betec, eta yarriric hileran ysabasterrean, atera eudesan buruec ureric campora, sirudila esaten eudela señaleagas: “Asi <8> bide, aite, se ya ensuten dogu”. Asi eben, bada, vere sermoea San Antoniuc milegro onegas, sein ecusi euden ascoc atonitu es eudenac ensun gure
150 Jangoicoen berbea. “Anaye arraiñec, esaten eben Santuic, isen saites gustis agradeceiduc Jangoicoagas, seinec emon eusuen aen elementu hederra seuroen visi modureco, seinetan visi saren aen erregaladuric. Yaquin eguisue selan Jaun Dibinuic criyedu

1-129 *esautu*: ‘ezagutu’, sermoitegiko adibide guztiak *g* gabekoak dira (dirudienez forma zaharra ei dena, cf. Lakarra 2011b: 676). **1-133** *finen grandezeagaitic*: ‘helburuaren handitasunagatik’. **1-135** *cansaciño de mpora guichicoagaitic*: leku genitiboa izenaren ondoren ‘denbora gutxiko nekaldiagatik’. **1-137** *leuquee*: ‘lukete’. || *setan*: ‘zertan’, mendebaldean ohiko denez *-r* > *-ø* bilakabidearekin. **1-140** *exemploa*: izenburuxka legez emana, ‘adibidea’. **1-143** *Ariminon*: ‘Rimini-n’, Italiako hiria. **1-144** *urrera*: ‘ondora’. || *gueiyeguín*: ‘dei egin, deitu’, *gei* aldaera sartaldeko bizkaieran lekukotzen du *OEH*-k (s.v. *dei*). || *urten leguiyela*: narrazio bat izanik, zeharkako estiloa markatzeko darabil *l-* aurrizkia (cf. § 4.2.3.5). **1-145** *Urten eben*: ‘irten zen’, mendebaldeko hizkera batean espero legez *irten* aditza jokatze iragankorra du. **1-147** *bide*: ‘bedi’ ez dakigu akatsa (**bidi* espero genukeen) ala inolako disimilazioa ote den; beraz, bere horretan ustea erabaki dugu (cf. 26-124 *aguire*). **1-150** *seuroen*: ‘zeuen’, *-r-* zaharra gordetzen du (<**zu-haur-oen*) eta artikulu hurbilarekin (genitiboan) darabil izenorde indartua 2. pertsona plurala adierazteko. **1-151** *saren*: ‘zareten’ (<**zara + e*).

1. *Credoaren expliqueciñoa eta Lehenengo articulu Credocoa*

senduesanean bendiquetu sendusen, eta il sireanean veste animeliyac iretoric, suec libredu sendusen diluviyoan. Suec sare libredu senduena Jonas profetea eriosareanic, 155 suec sare emon seusenac Christori dirue paguetaco censoa, eta Ceruetara ygon beño leen serbidu seusen alimento eta erregaluset. Emongo viyosues, bada, gracyec Jaun Dibinu adinebeste favore eguin deusuenari”. Emen gustic alsauric buruic, dirudi emon eudela señaleara selan gustoso ensun euden doctrinea, eta deseogas obedecitaco aguinduiten eusunera. Acudidu eben gente andic ecusten milegroau eta gueratu sirean 160 gustis contentu christiñeuec eta herege asco convertidu sirean.

Esan dogu gueure Jangoicoa, ceruen da lurren criyedorea, dala immensoa dagoalaco lecu gustiyen; au consideraduric sarri ateretan da provechu andiye arimeraco, venticaco gueure areriyoen tentaciñoec eta perseveretaco gracyan, eta perseveranciyegas logretaco Cerue: *adquam nos &a*.

1 1-4 *erreduciduco*: -du- ostean tatxoi bat dago. 1-9 *dalaco*: leh. *da*; -laco ganean gehiturik. 1-11 *Apostoluic*: aurretik *echi*, tatxaturik. 1-12 *ensuten eudesanen*: ganean gehitua. **2** 1-28 *yaco*: ganean gehitua. 1-29 *beten*: leh. *bete*, *n* ganean gehitua. 1-45 *dabela*: ganean gehitua. **3** 1-46 *dibinuec*: leh. *dibinue*, *c* ganean gehitua. 1-49 *distintac*: ezin da ondo ikusi mantxa bat dela eta. 1-54 *yacan*: ganean gehitua. || *selan*: s- azpian tatxoi bat ikusten da. 1-55 *eta*: jat. *etan*. 1-60 *onetan*: leh. *oneta*, *n* ganean gehitua. 1-61 *visisan*: leh. *visan*, *si* ganean gehitua. **4** 1-65 *erostera*: *t* ez da argi irakurtzen, *b* ere izan daiteke. 1-66 *dabena*: mantxa bat dela eta ezin dugu *e* argi ikusi. 1-67 *legues*: leh. *legue*, *s* ganean gehitua. 1-72 *ondasunec*: leh. *ondasu*, *nec* ganean gehitua. 1-73 *eroan*: jat. *orain*. || *premiñoa*: jat. *premiñoa*; leh. *premiyoa*, *ñ* ganean gehitua eta *y* borratzea ahaztuta. 1-75 *ad te...*: iturrian *a te...* 1-77 *guisonac*: leh. *guisona*, *c* ganean gehitua. || *andic*: *c* azpian zerbait irakurtzen da, *y?* 1-80 *consurrexistys*: amaierako *s* ganean gehitua. 1-81 *biosac*: jat. *biosat* 1-82 *gateala*: leh. *gatea*, *la* ganean gehitua. **5** 1-87 *sasonaduena*: jat. *sasonaduena*. 1-90 *visiseco*: leh. *viseco*, *si* ganean gehitua. 1-95 *guisonen*: leh. *guisone*, *n* ganean gehitua. 1-98 *elisateque*: *a* ganean gehitua; honen aurretik zerbait zegoen, tatxaturik. 1-99 *elduco*: jat. *elduque*, seguruenik aurreko *elisateque* horrek eraginda. **6** 1-104 *bere*: aurretik tatxoi bat dago. || *bere beguiyec...iminiric*: jat. *bere beguiyec an euquesala iminiric bere beguiyec*. 1-105 *contrariyoac*: leh. *contrayoac*, *ri* ganean gehitua. 1-106 *errenditan*: leh. *errrenditan*, *e* ganean gehitua. 108 *erriye*: jat. *erreye*. 1-114 *estuti*: leh. *estutil*. 1-115 *ofrecitan*: leh. *ofrecita*, *n* ganean gehitua. 1-116 *arquituitten*: leh. *arquituitten*, *u* ganean gehitua. 1-120 *aen*: ganean gehitua. 1-121 *meum*: jat. *meun*. || *et*: jat. *eta*. 1-122 *estue*: ganean gehitua. **7** 1-124 *irudi*: leh. *iru*, *di* ganean gehitua. || *dauco*: leh. *dauques*, *ques* tatxaturik eta *co* ganean gehitua. 1-127 *rigorea*: leh. *ardore*. Originalean *ardore* tatxatu gabe dago, hala ere, *rigore* ganean gehitua duenez, suposatzea da egileak aldatu nahi zukeela. 1-129 *onetati*: leh. *oneta*, *ti* ganean gehitua. 1-133 *grandezeagaitic*: leh. *grandezegaitic*, bigarren *a* ganean gehitua. 1-134 *bastante*: *bastente* ere irakur daiteke. 1-138 *desdichedue*: leh. *trabajosoa* tatxaturik eta *desdichedue* ganean gehitua. 1-138 *fin*: ganean gehitua. || *desgraciadue*: leh. *desgraciadu*, *e* ganean gehitua. || *seinetara*: aurretik tatxoi bat dago. 1-139 *errattuti*: *tt* zerbait estaltzen du, *errattua?* 1-142 *Menoren*: leh. *Menore*, *n* ganean gehitua. 1-145 *betec*: leh. *bete*, *c* ganean gehitua. 1-146 *sirudila*: jat. *suridila*, cf. *suridila* (15 or.). **8** 1-157 *favore*: leh. *gracye* tatxaturik eta *favore* ganean gehitua. || *eguideusuenari*: mantxa bat dela, irakusketa ez da ziurra. 1-158 *eusunera*: jat. *ensunera*. 1-160 *Jangoicoa*: leh. *Jangoico*, *a* ganean gehitua.

1-152 *iretoric*: ‘itorik, itota’ *ito* aditzaren kausatiboa dugu (*OEH*, s.v. *irato*). **1-155** *Emongo viyosues*: ‘behar diozue’ adizkiaren uzkurdura. || *Jaun Dibinu adinebeste favore eguin deusuenari*: erlatiboa izenaren ostean dugu hemen: ‘ainbeste fabore egin dizuen Jaun dibinuari’.

<9>

Credo en vigarren artikulua: Sinistuiten dot Jesuchristo vere Seme baca gure Jaunega

Jesusen usen dulce da Christoen usen propiyoa; esan gure dau *salvadorea*. Eta setaric salvadu guendusen? Gure peccatuarean eta demonioen cautiverioarean.

5 Ser esan gure dau *Christoc*? Ungidue. Setaric isen san ungidue? Espiritu Santuen gracie eta doctaric. Eta alan Jesusen usena, Christoen usenen diferencira, da usen barriye, profetizedu eben legues Ysayas profeteac: *Vocabitur nomen novum, quod Dominus nominavit*. Segaitic gustiye isen san aen barriye, seinde bere usena: barriye naturaleza biyen uniñoa; barriye bere concepcioe celestiala guisonen obra bagaric;

10 gause barriye ños es ecusiye jaiyoitea ama doncelleganic; barriye bere visisea; barriye bere eriosea, segaitic novedade ños es ensunegas ofrecidu sen eriosara visiseen autorea; eta vere erresurreccioea san barriye, bada san eguine bere virtute dibinuigas.

Jesusen significuensea san Joseph: bada, ari gueiyeiten beusen egipsiyoac *Munduco Salvadorea*, saldu eudenean bere anayec, eguin ebelaco oguiyen provisioea

15 quensaiteco Egiptoco gosea; alan, vere anayetarico batec saldu ebenean Jesus, angueruen oguiyen provisioea eguin eben guisonen sustentureco. Eta aun, bere jaiyesea san Belenen, sein yntrepretetan dan ‘oguiyen esea’ *Ita Divus* (Gregor.).

Au Jesusen usen dulcisimueu, sein euqui euden esilic profetac, manifestadu eben San Gabriel arcangeluec. *Vocatum est nomen eius Jesus, quod vocatum est ab angelo,*

20 *priusquam in utero conciperetur* manifestadu eben San Gabrielec, segaitic Jesusen

2-3 usen: ‘izen’, aldaera hau sartaldeko bizkaieran lekukotzen du *OEH*-k hasierako testuetatik (s.v. *izen*). **2-4 peccatuarean:** ablatibo pluralean *-etarean(ik)* atzeraka dabil lehenengo testuetatik (cf. Lakarra 1984) *-etarik*-en alde, eta gure testuan ere *-etarik* da adibide gehien duen plural atzizkia (133 adib.), *-etareanik* (4) eta *-etarean* (6) duten bitartean. **2-8 seinde:** ‘zeinda, zein eta’, izenordain erlatiboa. **2-10 jaiyoitea:** *jai*o aditzak, *-o* bukaeradun beste partizipio batzuek bezala (*jo*, *-erazo...*), *-ite* atzizkia erabiltzen du aditz-izena egiteko (§ 4.2.3.2). Bestetik, gutxi dira <j>z idatzitako euskal hitzak testuan (oro har <y> darabil), baina *jai*o hitzaren kasuan <j> da grafiarik erabiliena (16 *jai*- vs. 6 *yai*-) (§ 4.2.1.3). **2-11 sen:** forma hau *RUI* erregelak eragiten du, *zan* litzateke forma neutroa. **2-13 beusen:** ‘bazioten’, ba-aurrizkia baiezko esanahia duenean hemen bezala, uzurtu egiten da euskara zaharretik (cf. Lakarra 1984b: 137). **2-16 eta aun:** ‘eta gainera’ (gazt. y *aún*). **2-17 jaiyesea** ‘jaiotza’, aldaera hau ez da erlazonatzen hitz konposatuetao lehenengo elementuan jasotzen den *-o* > *-a* aldaketarekin (*baso* > *basa-*, cf. *FHV* § 6.1b), *jo* > *jaite-*, *igo* > *igaite-*... bezalako *-o* partizipioetan gertatzen den bokal aldaketarekin baizik (*FHV* § 12.15). || *yntrepretetan:* dardarkariaren metatesiaz *muta cum liquida* talde berri bat sortu da hitz honetan, (Egurtzegi 2011: 28), cf. *46-59 cabrestu*. || *Ita Divus* (Gregor.): *Gregor.* iturriaren aipamena da: San Gregorioren homilia batetik ateratako ideia baita (*Gregor. Homil. 8, in Evangel.*). **2-18 esilic:** ‘ixilik’, *e*-dun forma zaharra mantentzen du idazleak. **2-19 eius Jesus:** latinezko pasarteetan *j* beharko liratekeen asko <y> legez ematen ditu idazleak (cf. § 4.2.1.3).

2. *Credo en vigarren articulu*

usenac signifiquetan ditusen legues Christoen naturaleza bic, dibinea eta humanea, <10> convenitan san Arcangelu berac, sein isen san encarnaciñoeco misteriyoen mensagerue, emaiten Jesusen usenen noticiye eta aun gueiyego (Gabriel ynterpretetan da: *Vir Deus* ‘guison Jangoicoa’, in *Yndic. Biblic.*), bere usenean eroan leguinsat
25 Jangoico-guisonen sobreescritoa. Esaten dogu usen soberanu onen noticiye emon ebela ang[u]eru San Gabrielelec, es imini eusela usena, segaitic san legues Jangoicoa bera usen soberanu onen autorea, San Gabrielelec bacarric emon eben noticiye munduiri. Etorri sen Ceruric au usen altueu eta esin etorri satequean beste lecuteric, segaitic ese osasune, seinen signifiquensea dauquen eta encerretan daben, esin emon euquen munduco
30 erremediyoac gustie, eta alan san preciso etortea ceruric.

Eta Profeteac badiño edo cantetan badau Ceruec publiquetan daudela Jangoicoen gloriye: *Cæli enarrant gloriam Dei*; usen dibinu onegaitic bear dogu confesadu, es bacarric publiquetan dabela Jangoicoen gloriye, baite bere guisonen osasune. Bai, diño David profeteac berac, firmamentuic arguiyen miñecas emaiten dabela noticiye
35 Jangoicoen escuen obra marabilosoena, *et opera man[u]um eius annuntiat firmamentum*. Jesusen usen onec emaiten dau noticiye Jangoicoac eguin ebesan marabilleric eta finezaric andiyeenena, segaitic expliquetan dau eta acordarasaiten deuso guisonari selan aec escu dibinuaic, seinsuc criyedu eudesan ceruec; aec oi dibinuic, seinsuec emon euden pauso penosoric asco guison perdidu edo betacari perdiduen
40 asean, isen sireala clavaduic curcean. Selan a burua isen san coronadue guisonac echi

2-24 in *Yndic. Biblic*: iturriaren erreferentzia, ez dugu aurkitu. || *eroan leguinsat*: ‘eraman dezan’, subjuntibo helburuzkoa, adiera hori indartzeko darabil *-tzat* atzizkia (cf. § 4.2.3.8); bestetik *l-* aurrizkiak estilo ez zuzena adieraziko luke (cf. § 4.2.3.5). *sobreescritoa* ‘gutunazalaren gainean, helarazteko, idazten den testua’ (gazt. *sobreescrito*). **2-27** *emon eben noticiye munduiri*: esaldi honetako datiboak ez du komuntadurarik aditzarekin, normalean Iparraldeko hitzerekin lotzen den ezaugarria izanik ere, ez da mendebaldean ere halakorik falta (cf. § 4.2.4.2). **2-28** *segaitic ese*: Esaldi kausalen aurrekarizat *zergaitik eze* hamabi alditan erabiltzen du idazleak, *zergaitik* askozaz gehiago erabiltzen duen arren. **2-29** *esin emon euquen*: ‘ezin eman zezakeen’, potentziala **edun* + *ke* aditz laguntzailearekin eginda. **2-33** *baite bere*: ‘baita ere’. **2-37** *acordarasaiten*: ‘oroitarazten’, sermoitegian *arazo* zein *eragin* aditzak erabiltzen dira aditz arazleak sortzeko; *-arazo*-ren kasuan aditz izena egiteko *-o* partizipiodun beste aditzetan legez *-o* > *-aite* aldaketa egiten du. || *deuso*: 3. pertsonaren datibo hizkia amaiera absolutuan dagoenean *-o* dugu; beste hizkiren bat gehitzen zaionean, bestalde, *-a* bilakatzen da: *deuset, deusen...* **2-38** *aec escu dibinuaic*: artikulua hurbila 3. pertsona plurala denean, *-aic* forma hartzen du artikulua, gehienbat hemen legez *erakusle* + *izen* + *artikulu hurbil* egitura bada. || *oi*: ‘oin’, hitz amaierako sudurkaria bukaera absolutuan agertu behar duenean ez du islatzen egileak. **2-39** *penosoric asco*: *asko* partikula partitiboarekin darabil egileak, gutxiengoan bada ere (cf. § 4.2.4.1). || *betacari*: ‘bekatari’, *Viva Jesús* dotrinan lekukotzen den arren, *OEH*-k ez du jasotzen akats legez interpretatu izan baita (cf. Ulibarri 2010: 113). *VJ-z* gainera gure testuan duen maiztasunak bermatzen du: *bekatari* bakarraren aldean hamar *betakari* ditugu. **2-40** *asean*: ‘atzean’. || *echi*: ‘utzi’, aldaera hau aurkitzen da Bizkaiko eta Arabako testu zaharrenetatik.

2. *Credo en vigarren articulu*

ebesan aranzacas; aec espaldac sufridu eudesala azote pecadoreac merecitan ebesanac <11> bere pecatuic gaitic. Eta alan, segun diñoean San Bernardoc, da Jesusen usena señale bat, seinec eracusten deusen guisonari ser eguin eben beragaitic Jangoicoac berac.

45 Noc esan al leiques Jesusen usen santuen virtuteac? Da osasunen usena, segaitic emaiten deuso guisonari perfectoa, es bacarric gorpuseco achaquitan, bati bere arimeco gasoetan. Medicuic esin emon leyyoe visisea difuntuiri, baye onec medicu dibinuonec emaiten deuse visiseric onena yley eta osasune eternamentecoa fynic estauquena; topetan balis medicu bet emaiten dabena osasune berreun urtecoa, bere asean lisateque

50 mundu gustiye. Bada, Jesusegan dauquegu osasune, es bacarric berreun eta mille urteco, baite bere eternamenteco urtetaracoa. Dauco Jesusen usenac unguentu dibinu eta saludablea sacramentu santuen vasu preciosoetan, eta alan esan guiñei *in odorem unguentorum tuorum curremus* (cant. 1 num. 3). Dibinu Jesuse: carra eingo daude gure arimac sure unguentuen asean cierva heriduic legues, daquiguleco dauquesule remediyo

55 prontoa gure gachensat, balsamu saludablea gure herideensat, gure achaqui gustiyensat osasune eta medicine eficazac gure gasoensat. Da Jesusen usena misericordiyeco usena, ofrecitan deusena guisonai osasunic onena eta visiseric dichosoena. Isenic, bada, Jesusen usena âen bienhechore andiye, da advertitaco gausea, selan gure isen eben Jesusen usenagas nombradu sin Jaun Divinue aguirtu equiunean Saulo vere discipuluen

60 perseguidoreari: *Ego sum Iesus, quem tu persequeris. Durum est tibi contra stimulum calcitrare*. Onec berba dibinuc dagos misterius beteric, reparadu deigun gustitara estiraoso Christoc Saulori: “ni nas Jangoicoa” edo “ni nas Jangoicoen Semea”; espada

2-41 aranzacas: txistukari guztietarako <s> grafia darabilen arren, <z, c> ere darabil adibide bakan batzuetan; hitz honetan baina, <z>dunak dira adibide gehienak (cf. §§ 4.2.1.4; 4.3.2.1.1.1.1). || *azote pecadoreac merecitan ebesanac:* erlatiboa izenaren ostean ‘pekatariak merezi zituen zigorrak’. **2-46 perfectoa:** elidituriko *osasun* izenaren adjektiboa litzateke ‘osasun ezin hobea’. || *achaquitan:* ‘minetan, gaitzetan’ (gazt. *achaque*). || *bati bere:* ‘baita ere’; aldaera hau birritan agertzen zaigu sermoitegian (cf. 46-50 *bati bere* eta 46-88 *bate bere*); beraz, badirudi aldaera ezezagun baten aurrean gaudela. **2-47 esin emon leyyoe:** ‘ezin eman lezake’, idazleak *leiyoe* idatzi nahi zukeelakoan gaude: <y> *i* bokalikoaren orde z erabili ohi du (cf. *fynic*) azpian dagoen zerbait izkutatzeke. **2-48 yley:** ‘hilei, hildakoei’. **2-52 guiñei:** ‘genezake’, *ke* gabeko adizki potentzial arkaikoa dugu (cf. § 4.2.3.6). **2-53 Jesuse:** (cf. 31-49 *Epuloea*), gauza ezaguna da santu zenbaiten izen propioa artikuluz lagundurik erabili ohi dira testu zaharretan (*Jesusa, Peria, Frantziskua*... cf. Mitxelena 1959, *OC IX*: 451, Lakarra 1983a: 61). **2-56 cierva heriduic:** ‘oreineme zaurituak’, sintagma hau ez itzultzean eragina izan dezake Bibliako metafora bat izatea (Salmo 42). **2-56 gasoensat:** ‘gaixotasunentzat’, *gaixo* adiera honetan erabilia da mendebaldeko sartaldean. **2-59 nombradu sin:** ‘izendatu zen’, aoristo perifrasi dugu hemen, **edin* aditzaren *zidin* adizkiaren bidez emana. || *aguirtu equiunean:* ‘agertu zitzaionean’ aoristo perifrasi, **edin* aditzaren *zekion* adizkiaren bidez emana. Bestetik, *io* > *iu* asimilazioaren adibidea dugu hemen (cf. § 4.2.1.7): Zabalak (*VRB* 56), Orozko eta inguruko herrietan lekukotzen du *egin*-en adizkietan, eta Azkuek bestelako testuinguruetarako ere aipatzen du (cf. Ulibarri 2008a: 199).

2. *Credo en vigarren articulu*

“ni nas Jesus”. Segaitic? Diño San Chrisostomoc: *Ut præstringeret eyus mentem et compungeret eyus animam* ‘convencitaco vere entendimintue eta movitaco Pabloen animue edo viosa’. <12> Segaitic estau movitan adinebeste Jangoicoen usenac, seinec acordarasaiten daben creaciñoeco beneficiyoa, seinde Jesusen usenac, seinec acordarasaiten daben redemciñoeco beneficiyoa. Lelengoa costa yacan Jangoicoari verba bat, “eg[u]in bidi”, esatea; bigarrena costa yacan vere visisea eta odola; orregaitic es eusen esan Christoc “ni nes sure Jangoicoa”, espada “ni nas Jesus”. Gueiyego: esan eusen Jaun Dibinuic Pablori vera sala perseguidue: *Ego sum Iesus, quem tu persequeris*, au sen veste abisu bet convencitaco Saulo. Ondo equin onec vere delitue eta colerea sala Christoen discipuluen contra, *in discipulos Domini*, baye gure eusen entenditan emon Jaun Dibinuic, se asco ametan ebesan adinebeste costa yacasanac redimitea veguiretuiten eusela bailirean bere personea, orregaitic esan eben aei perseguitea sala berari perseguitea: *Quid me persequeris. Durum est tibi contra stimulum calcitrare*. Apostoluen obretan contetan da selan Protomartir San Estevan egoanean gente manadeen erdin, quendu gure eusenean visisea, alzadu ebesela vere beguiyec cerure eta ecusi eben Jesus vere Aite Dibinuen escoatati: *Vidit Iessum stantem a dextris virtutis Dei*. Segaitic ocasiño onetan gueiyeiten deuso santu onec Christori es usen onegas, es Jangoicoen Semeenegas, espada Jesusen usen dulcisimuigas? Segaitic manifestadu sen pronto omaiteco socorrue santuoneri. Orregaitic, mentures, esan eben San Estevanec ecusi ebela es yarriric Davidec legues, *sede â dextris meis*, espada oiñen ganean, *stantem*, ya consideretan ebelaco compasivu, au de, bere erruquigas, consideretan daben legues San Gregoriuc: *Stare eyus compati est*. Edo ya ecusi gure ebelaco oiñen ganean egoala San Estevanen valorea eta firmezea vere martiriyoan, esan eben legues San Pedro Damianoc; alan asistitan deuse Jaun Dibinuic <13> Jesusen usen dulcisimuigas gueiyeiten deusenai. Baye ese saites isen, christiñeue, áec espiritu malignuic legues, seinsuec gaitic diñoean San Marcosec se, aiteturic Jesusen usen Santisimue: *Quid nobis et tibi, Iesu Nazarene*, aguindu eusen esilic legosala Jaun Dibinuic, *obmutesce*, segaitic espiritu malignuic euqui arren vere aoan aen usen santue, euquen deabruen vios bat, eta

2-63 *San Chrisostomoc*: San Juan Chrisostomo VI. mendeko Costantinoplako apezpikua izan zen, oso ezaguna bere predikatzaila legez (*Chrisostomo* ezizena ‘urrezko ahoa’ esan nahi du). **2-71** *equin*: ‘zekien’. **2-74** *bailirean*: baldintza protasi hipotetikoek konparazioko posposizioen komplementu direnean, *bait-*aurrizkia erabil dezakete (Mounole 2011: 237), adibide honetan legez (cf. § 4.2.3.9.1). **2-81** *pronto*: ‘azkar, laster’ (gazt. *pronto*). || *mentures*: ‘agian’ (gazt. *por ventura*). **2-84** *ganean*: mendebaldeko hizkera batean espero bezala, *gan* aldaera dugu hemen. **2-88** *aiteturic*: ‘aipaturik’. **2-89** *legosala*: ‘egon zedila’, adizki arkaiko bat dugu hemen: subjuntibo zaharraren adibidea da batetik (cf. § 4.2.3.7), bestetik, zeharkako estiloa izanik *l-* aurritziaz ageri da (cf. § 4.2.3.5).

2. *Credo en vigarren articulu*

echacas gustetan Christori onelango ficciñoec, seinsuc direan aoan alabanzac eta biosean ofensac. Linage onetari sirean aec judiyo malvaduic, seinsuec gaitic contetan daben San Matheoc emaiten eusela mille bendiciñoec Jerusalenen sartu sanean triunfante, gueiyeten eusela “Hosana” (au de lomismo seinde esatea *Jesus* edo 95 *Salvadorea*), eta egun guichi barruen bendecitan eudenac aoagas maldecidu eguiyen escuicas, esqueguiric arboleatan sein sen curseac; domecan ofrecidu eusesan erramuic eta baricuic crucifiquedu euden.

Seinbet discipulu dauquen christiñeuen artean hac maliciye ynfernalc? Bada, ascoc dempora guichi barruin perseveranciye falteagaitic alabetan daude Jesus eta laster 100 ofendidu. Ese saite isen alangoa, christiñeue, ynvocadu eguisu Jesusen usena devociñoec andigas bioz gustirean, eta isengo da seure arimeen defensea; tentetan basatus lujuriyen suec, gueyieguin eguiosu Jesuseri devociñoecagas, eta isengo da ñons frescoa aplaquetaco â llamea; tentetan basatus ira, colera, rencoreac proximuen contra, gueyieguin eguiosu Jesuseri eta aplacadu da sure colerea edo rencorea. Enfin, da 105 Jesusen usena remediyoa gause deungue gustiyen contracoa eta gause on gustiyen emaiyelea.

Exemplo

Contetan da libru intituletan danean *Espejo de exemplos* selan Thomas Kempis venerableari aguirtu yacan gau beten areriyo <14> ynfernala forma yqueragarrisco 110 baten. Ecusiric etorrela edo urtuiten sala beragananch, aturdiuric es equin se erremediyo artu; baye, abiseduric Espiritu Dibinuic, asi sen, yquera ebilela, rezetan Avemariye.

2-91 *echacas gustetan*: ‘ez jakon, ez zitzaion’, -z + *j- batzean [tj] hotsa sortzen da mendebaldean (cf. *FHV* § 9.6). || *ficciñoec*: ‘asmakizun’ (gast. *ficción*). **2-94** *gueiyeten*: ‘deitzen’, formaren zuzentasunaz, cf. 5-18, 7-25... (28 adib. guztira); *geiyeten* nahiko ugari (12 adib.) den arren, badirudi *gei egiten* hitzaren *i* bien arteko disimilazioa dugula *geieten* > *geieten*. **2-95** *barruen*: ‘pasatuta, igaro ostean’, genitibo zein mugagabe ostean erabil daiteke (*OEH*, s.v. *barru* —*barruan b*)—. || *maldecidu eguiyen*: ‘madrakatu zuen’, aoristo perifrasi. **2-98** *dauquen* ‘daukaten’. || *hac*: hitzak duen txikitasunagatik darabil <h> letra gure egileak (cf. § 4.2.1.2). **2-101** *gustirean* ‘guztitik’, ablatibo singularra adierazteko –*rean* (%18), –*reanik* (%36) eta –*rik* (%45) atzizkiak erabiltzen dira, eta testu modernoan izanik ere, –*rean* zaharraren adibide nahikotxo badira (cf. § 4.2.2.1). **2-102** *ñons*: ‘inontz, iruntz, ihintz’ sartaldeko bizkaieran lekukotzen du *OEH*-k (s.v. *iruntz*). 2-104 *Enfin*: ‘hitz batez, laburbilduz’ (gast. *en fin*). 2-105 *deungue*: ‘donga, txar’. **2-106** *emaiyelea* Forma bitxia, *emaile* beharko zitekeelako; alabaina, irakurketa oso garbia da eta <y> epentetikoak *ie* hiatoa berresten du. **2-109** *aguirtu*: ‘agertu’, mendebaldeko (B. eta A.) testuetan ageri den aldaera. **2-110** *urtuiten*: ‘hurbiltzen’, *urtu* aditzak, *CVC-tu* eratako partizipioa izanik ere, –*uiten* atzizkia erabiltzen du beti. || *beragananch*: hurbiltze adlatiboa forma honetan eta –*rantsa* (–*rantza*) orokorragoan ageri da (cf. § 4.2.2.5), honek dakarren txistukari palatalarekin lekukoturik dago mendebaldeko hizkeretan (cf. Ulibarri 2010: 62, Zuloaga 2013: 602). **2-111** *yquera ebilela*: ‘ikaraz zebilela’, adberbio funtzioan darabil *ikara* (cf. *OEH*, s.v. *ikara*).

2. *Credo en vigarren articulu*

Baye Demonioac, es eguinic bere rezetan ebenen casuric, urrego eiten yacan ariqueta Avemariyen acabar en esateartean “Jesus”. Apenas ensun eben Demonioac Jesusen usena sonu andi bet eguinegas escapadu sen. Ecusiric Thomas venerableac aiteturic
115 Jesus usena escapetan yacala Demonioa, alzadu eben vere voza eta altu esaten ebela *Jesus*, ariqueta gustis desaparecitatean ha espiritu ynfernala, eta esan eben orduin Kempisec: “Orainguiño isen deusett Demonioari bildur andiye, baye onic aurrera estot ingo bere errabiye casuric, ecusi asquero se facilmente yñes eiten daben gueiyeguin asquero Jesusen usen dulceari.

120 *O nombre de Jesus! Nombre dulce. O nombre de Jesus! Alegria y fortaleza de las almas. O nombre de Jesus! Nombre admirable. Este es el nombre sobre todo nombre, este el nombre a quien veneran los ángeles, este es el nombre en cuya virtud se sugetan hasta los mismos demonios. Ea pues, amantísimo Jesus, a vuestro nombre dulcísimo nos acogemos*
125 *como a refugio contra el enemigo de nuestras almas; libradnos, Señor, de sus garras infernales por vuestro santísimo nombre. ¿Qué otra cosa quiere decir Jesus sino Salvador? Salvad, pues, Señor por vuestro nombre dulcísimo, las almas que redimisteis con vuestra preciosa sangre. Ciertamente es que por nuestras culpas no merecemos esta gracia, pero tampoco Señor la pedimos por nuestros meritos, sino por vuestro nombre dulcísimo. O Jesus, padre amoroso! O Jesus, pastor divino!*
130 *socorred a estos pobrecitos que humildes y reconocidos imploran vuestra clemencia: hemos pecado, es verdad, pero donde estan vuestras antiguas misericordias?*

135 *Ea, Jesus amoroso, por la gloria de vuestro nombre añadid gracias a gracias; Padre sois y yo hijo vuestro, aunque prodigo y*

2-112 es eguinic bere rezetan ebenen casuric: ‘otoitz egiten zuenari kasurik ere egin gabe’. || *urrego eiten yacan*: ‘hurbiltzen zitzaion’. || *ariqueta... esateartean*: ‘harik eta... artean’, egitura honetan *artean* partikulua aditz izenarekin erabili ohi da sermoitegian, gehienetan *-ea-* bilkura bakundurik (*recibitartean, galsaitartean, elduitarartean...*) baina batzutan, hemen legez, bilkura mantendu daiteke (*irecastartean, emaitartean*). **2-113** *Apenas*: ‘bezain laster, orduko’ (gazt. apenas). **2-114** *sonu*: ‘soinu’, aldaera hau mendebaldeko hizkeretan XIX. mendeko E.M. Azcueregan baino ez du lekukotzen *OEH*-k (s.v. *soinu*); alabaina, hauxe da gure idazleak darabilen aldaera bakarria sermoitegi osoan zehar (cf. 5-87, 11-25...). **2-117** *orainguiño*: muga adlatiboaren forma *-giño* da testu osoan zehar; erabilerari erreparatuz *-gino* leku zein denborari buruzko testuinguruetan erabiltzen du. **2-118** *yñes eiten*: ‘ihes egiten’ sudurkaridun aldaera mendebaldeko sartzaldean lekukotzen du *OEH*-k antzinako testuetatik (*RS, VJ... OEH, s.v. ihes*). **2-120/140** Erdarazko atal hau ez dagokio sermoiarri; aitzitik, badirudi soberan zegoen paper zuria aprobetxatuz idatzi zela, testua letra molde txikiago baten bitartez idatziz. Hau dela eta, sartuago eman dugu.

2. Credo en vigarren articulu

desconocido, adonde pues acudiré un aflijido sino a vos, que sois nuestro amparo, nuestro refugio y consuelo? Ô Dios infinitamente bueno! No, no quisiera, Señor, apartarme de Vuestros pies; lloren, Señor, mis ojos como una Magdalena &a.

140

Quid ultra debui facere, eta non feci. Humiliavit semetipsum. Charitas Christi uiget nos. Cor contritum et humiliatum, Deus, non despicias.

9 1 *dot*: gainean gehitua. 4 *setaric*: gainean gehitua. 12 *virtute*: leh. *virtu, te* gainean gehitua. ¹⁵ *Jesus*: gainean gehitua. 16 *angueruen*: lehenengo *n* azpian *g* irakurtzen dugu. 17 *dan*: gainean gehitua. **10** 23 *ynterpretetan*: leh. *yntrj*, lehenengo *e* azpian *r* delarik. 28 *altueu*: leh. *altue*, bigarren *u* gainean gehitua. | *satequean*: *-quean* mantxa bat dela eta gaizki irakurtzen da. 35 *et*: jat. *eta*. 39 *betacari*: leh. *betari*, *ca* gainean gehitua. 40 *perdiduen*: leh. *perdidu*, *en* gainean gehitua. | *san*: gainean gehitua. 42 *merecitan*: leh. *merecita*, *n* gainean gehitua. **11** 51 *urtetaracoa*: leh. *urtetaraco*, *a* gainean gehitua. 52 *Santuen*: leh. *santuen* zegoen, gero *-en* tatxatu eta *-aen* idatzi zuen gainean, horren ostean *-aen* tatxatu eta berriz *-en* idatzi. | *preciosoetan*: jat. *preciososetan*. 56 *eficazac*: jat. *eficazat*. 58 *isen*: leh. *ise*, *n* gainean gehitua. 59 *equiunean*: leh. *equiunea*, *n* gainean gehitua. 64 *animam*: leh. *animan*, *n* tatxaturik eta *m* gainean gehitua. **12** 66 *seinec*: aurretik *seinde*, tatxatua. 71 *Saulo*: aurretik *Paulo*, tatxatua. 77 *manadeen*: jat. *manadeen*, cf. *manada* (1-145, 5-87...). 78 *ecusi*: aurretik zerbait dago tatxaturik. 78 *Vidit Iessum...*: Balizko iturrian (cf. § 4.3.1.1) ez da *virtutis* hitza agertzen. 80 *Semeenegas*: jat. *Semenenegas*. 83 *bere*: gainean gehitua. **13** 95 *eudenac*: leh. *eudena*, *c* gainean gehitua. 98 *christiñeuen*: leh. *christiñeue*, *n* gainean gehitua. 102 *Jesuseri*: leh. *Jesuse*, *ri* gainean gehitua. **14** 114 *Thomas*: leh. *Thoma*, *s* gainean gehitua. 116 *desaparecitar-tean*: jat. *desaparecitar-tean*, (cf. *recibitar-tean*, *galsaitar-tean*, *elduitar-tean*, *irecastar-tean*...). Berba honen amaieran zerbait borroraturik dago: *gustuc*? 117 *deuset*: leh. *deusen*, eta *n* hori borrazeko *tt* bikoitza erabili du. 118 *gueiyeguïn*: jat. *gueiyeguen*. 125 *libradnos*: leh. *librad*, *nos* gainean gehitua.

2-141/142 Latinezko 4 esaldiok ez dute inolako erlaziorik aurreko beste biekkin (sermoia eta otoitza) ez tintaren (argiagoa da azken honena) ez letraren aldetik. Lau esaldi independente dira, eta hauek dira euren jatorria: Isaias 5, 4; Filip 2, 8; 2 Cor 5, 14 eta Salm. 50, 19 (azken hau *Miserere* otoitzaren iturria).

<15>

**Yrugarren Credoco articulu edo misteriyoa da: “isen san sortue
Espiritu Santuen obras da graciyes eta jaiyo san Mariye
Virgineaganic”**

Declaretan da articulu onetan Jangoicoen Semeen encarnaciñoen modu
5 maravillosoa; segaitic ese, guison gusic jaiyoiten badire bere aite eta amaganic, eta ama
esta gueratuiten doncella concebido asquero eta jayo asquero seiñe; alanbere,
Jangoicoen Semeac, gure isenic guison eguin, es eben gure isen euqui aiteric munduen,
espada ama bacarric seinen usena dan Mariye, sein isen san beti doncella purisimea.
Segaitic Espiritu Santuec, sein den yrugarren persona dibinea eta Jangoico bera
10 Aiteagas eta Semeagas, vere poderiyo infinituigas formadu eben Mariye Virgineen odol
garbirean eta vere sabelean sei gustis perfecto baten gorpuse, eta dempora berean arime
bat gustis excelentea, sein juntedu eben eta unidu seiñe aen gorpusera. Eta au gustiyeu
juntedu eben bere personeagana Jangoicoen Semeac eta alan Verbo Eternoa, leen
bacarric sana Jangoico, asi sen guison iseiten, seineri derechan Jesuchristo, eta selan
15 Jangoico san partes euqui eben aite ama bagaric, alan guison san partes euqui eben ama
aite bagaric. Bear dire sinistu Jangoicoen secretoac entendidu es arren, alanbere dago
aproposituco exemploa munduen creciñoean entenditan emaiteco edo declaretaco au
misteriyoau, segaitic lurrec regularmente estau emaiten gariye lelengo cultivedu
bagaric, erein bagaric eta euriyec busti bagaric, eta egusquiyec berotu bagaric; baye
20 munduen principiyoan lelengoas emon ebenean lurrec cultivedu bagaric, erein bagaric,
busti bagaric <16> eta egusquiyec berotu bagaric. Eta alan, bere moduin isenic
doncella, bacarric Jangoicoen aguindus emon eben berlan lurrec gariye; alan bada,
Mariye Virgineen sabelac, guisonen mezcla bagaric eta guisonen obra bagaric, bacarric
Jangoicoen aguindus eta Espiritu Santuen virtutes emon eben â garau preciosoa
25 Jangoicoen Semeen gorpus animeduena. Esta esaten dala Espiritu Santue Jesuchristoen

3-1 *isen san sortue...obras da gaciyes*: Esaldi pasibo bat dugu hemen, konplementua instrumentalean duena (cf. Mounole 2011: 154). **3-7** *es eben gure isen euqui aiteric*: ‘ez zuen nahi izan aitarik eduki’. **3-11** *garbirean*: ‘garbitik’, *-rean* ablatibo zaharrarekin. | *sei*: ‘sein’, mendebaldean berrezarri den *-n* (cf. *FHV* § 1.2) ez da islatzen bukaerako posizioan edo kontsonante aurrean denean (baina bai bokal artean, ik. *seiñe* hurrengo lerroan). **3-14** *iseiten*: ‘izaten’, *n* bukaerako partizipioek *-ite* atzizkia darabilte sermoitegi honetan. | *derechan*: ‘deritzan’, mendebaldean espero bezala txistukari palatalarekin, dirudienetz antzinako **ereitzi* > *erexi* aldaketa baten isla. **3-17** *aproposituco*: ‘egoki’ (gazt. *a propósito*), lekuzko genitiboarekin emana, *exemplu* hitzari laguntzen diolako. **3-24** *garau*: ‘alea, bihia’.

3. *Yrugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

aite, segaitic aite yseiteco esta bastante eitea gause bat: bear da eguin nobere sustencireanic, eta orregaitic estogu esaten yelserue dala eiten daben eseen aite, segaitic eiten dau ladrilluicas eta es bere araguigas. Desuerte se Espiritu Santuic eguin eben Jangoicoen Semeen gorpuse, baye eguin eben Mariye Virgineen odol garbirean eta es
30 bere substancireanic; eta alan, Jangoicoen semea esta Espiritu Santuen semea, gueyego da Jangoico dan partes Aite Jangoicoen Semea dauquelaco beraganic dibinidedea, eta da Mariye Virgineen semea guison dan partes, beraganic dauquelaco humanidedea edo guisonen naturalezea. Eta obretan dabena persona dibine batec obretan daude beste biyec, dauquelaco poderiyo bat, sabiduriye bat, bondade bat. Baye poderiyoen obrac
35 atribuiduiten yacasan legues Aiteari, sabiduriyeenac Semeari eta amoreenac Espiritu Santueri, eta au isen san legues Jangoicoen amore infinituen obrea guisonagasco, orregaitic atribuiyetan yaco Espiritu Santueri. Eta selan guison batec iminten dabenean yasteco bat eta beste persona bic lagun eiten deusenean yansiten, orduin yrudi dire concurriran daudena yansiteco, eta alanbere bat bacarric gueratuiten da yansiric; alan
40 bada, yru personac concurridu euden yansiten Jangoicoen <17> Semea naturaleza humanuen yansigas, baye bacarric Semea, sein den bigarren personea, gueratu sin yansiric naturalez[a] humanuigas, au de, guison eguinic.

Esaten da jaiyo sala Mariye Virgineaganic, segaitic onetan bere dago nobedade andi bet, segaitic Semeac urten eben amen sabelerean bedarasi ylebetec yguero asquero
45 dolore bagaric, ama bereen detrimentu bagaric, vere urteiquereen señaletic echi bagaric; sucedidu sen legues bera erresucitedu sanean urteitea sepulturerean, egoala sarraturic sepulturea; eta sartu eta urten eguin legues cenaculurean, non egosan bere discipuluic,

3-26 *nobere*: ‘batbederaren, bakoitzaren’, mendebaldean espero bezala lehenengo atalaren *-r* biguna erori da elkartuan. **3-27** *yelserue*: ‘igeltsero’. **3-28** *Desuerte se*: ‘hortaz, -en ondorioz’ (gazt. *de suerte que*). **3-29/30** *odol garbirean eta es bere substancireanic*: ablatiboarentzat darabilta atzizki ezberdinak aukeran erabiltzen ditu, baita elkarrekin ere (cf. § 4.2.2.1). **3-31** *partes*: ‘-i dagokionez’ (*OEH*, s.v. *parte —partez d*)—) **3-33** *persona dibine batec*: ‘Hirutasunaren pertsonetako batek’. **3-34** *dauquelaco*: ‘daukatelako’. **3-36** *guisonagasco*: ‘gizonarekiko’. **3-38** *yasteco*: ‘soinekoa, jantzia’. || *yansiten*: *-i* partizipioetan *-te* aditz-izen atzizkia aditzoinari gehitzen zaio normalean, baina badira hemen bezala, partizipioaren gainean egindakoak (cf. § 4.2.3.2). || *yrudi dire*: ‘ematen du’, hemen adizki iragangaitzaz ageri bada ere *OEH*-k (s.v. *irudi izan*) adizki iragankorrez bakarrik lekukotzen du *irudi izan* (are inpersonal direnean ere). **3-44** *bedarasi*: ‘bederatzi’, *a*-dun aldaerak Iparraldeko hiztegieta bakarrik aurkitzen ditu *OEH*-k (s.v. *bederatzi*), baina Bizkaian Azkuek lekukotu zituen *bedatzi* (V-ple) eta *bedratzi* (V-arr-arrig-ger-oro-z-gip) formen oinarria izan daiteke. **3-45** *ama bereen*: ‘ama beraren’. || *detrimentu*: ‘kalte’. || *urteiquereen*: ‘irteeraren’, testuan *-kera* eta *-era* (*urteiyerea* 3-48) atzizkien bidez sorturiko hitzak erabiltzen ditu. **3-46** *sarraturic* ‘itxirik’. **3-47** *urten eguin*: ‘irten zen’, *egin* forma adizki jokatua da adibide honetan ‘egian, zegien’, izan ere aoristo perifrasi baten aurrean gaude, eta *urten* joku iragankorra duenez testuan *egin* laguntzailearekin egiten da.

3. *Yrugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

ateac isiric egosala beti, alan urteiyeran sein sarsaiqueran, eta orregaitic esaten da
Jesuchristoen ama ysen sala veti doncella jaiyo asquero. Doctrine onetaric bear dau
50 atera christiñeuc, Jesuchristo Redemptorem personeen estimeciñoea eta
encarnaciñoeco beneficinoena eta bere jaiyeseena; bada, da andigoa au beneficiyau
creaciñoeco beño; doean diferenciye guisoneric Jangoicora eta criyeturereanic
Criyedoreagana, segaitic creaciñoeco beneficiyoagas eguin sen guisona Jangoicoensat,
baye encarnaciñoeco beneficiyoagas eguin sen Jangoicoa guison guisonagaitic.
55 Creaciñoeco beneficiyoa echacan costa Jangoicoari espada esaten “eguin bidi”, baye
encarnaciñoecoan costa equiun humilletea eta, diñoean legues Apostoluec, esebere-
esera bolvidu sin â magestade infinitue arturic, sanac Jangoico gustis poderosoa eta
ympasiblea, gure aragui flacoa, beratan sufritaco eriosea gu condenaciñoec <18>
eternidedecoreanic libretaco. Bada, Jangoicoac eguin baeben adinebeste fineza bere
60 criyeturagaitic, ser esta errazoa eguita criyeturac bere Criyedoreagaitic? Jangoicoac
eguin beben al leguin gustiye guisonen osasunegaitic, ser estau eguin bear guisonac bere
salbaciñoegaitic eta Jangoicoen gloriyegaitic? Jangoicoen Semeen encarnaciñoeco
obra onetan, diñoec santuic eguin ebela Jangoicoac posiblidade gustiye, segaitic
Jangoicoen poderiyoac esin eguilei obra andigoric, es ainguichi bere sabiduriyec
65 inventau. Bada, Jangoicoac eguin beben gugueitic adinebeste se esin gueiyego eguin
euquean, segaitic Jangoicoagaitic eta gueugaitic estogu eingo al daigune, serbitan
dogule eta ametan dogule, berac aguindu euscun legues, gueure bios gustigas, gueure
arime gustigas, gueure inder gustigas, gueure atenciñoec eta cuidedu gustigas?

3-48 *isiric*: ‘itxirik, zarraturik’, txistukari palatalik gabeko aldaera dugu (***ichi* espero genuke bestela); beraz, badirudi aldaera zaharra mantendu duela: *RS* edo Mik. darabilte palatalik gabekoa, baina Literatur bizkaierara (Mogel, Añibarro) *itxi* da heldu zen aldaera (*OEH*, s.v. *itxi*). || *sarsaiqueran*: *CVC-tu* erako partizipioetan *-tzai-* artizkia gehitzen zaie ez bakarrik aditz-izenak egiteko orduan, baita, hemen bezala, bestelako atzizkiekin ere. **3-50** *Redemptorem*: Jesukristori ematen zaion ezizena dugu, horregatik latinezko *-m* hitzari dagokio, eta ez da genitiboa islatzean egindako akats bezala ulertu behar. **3-52** *doean*: ‘doan’, mendebaldeko hizkeratako *a + a > ea* erregela adizkietan ere betetzen baita. || *Jangoicora*: adibide bakarra da non idazleak ez duen bizidunen atzizkia erabiltzen, beste guztietan *-gana* dugu: *Jangoicoagana* (7 aldiz), *beragana* (9), *personeagana*, *Aite Eternoagana*... dugu. **3-55** *echacan costa*: partizipioa *costa* dela pentsa behar dugu, ez baitago ***costadu* formarik testuan eta hemen bezala, indikatiboan ere erabiltzen baita. **3-56** *esebere-esera*: ‘ezerezera, ezdeusera’. **3-59** *eguin baeben*: *ba-* hau baldintzazkoa denez, oraindik uzkurto gabeko forma mantentzen du; hala ere, dagoeneko uzkurdurak aurkitzen dira aurrizki honetan ere (cf. *beben* 3-61, 3-65...). **3-60** *errazoa*: ‘arrazoa’. **3-61** *al leguin* ‘ahal lezakeen’. **3-64** *esin eguilei*: aditz nagusi eta laguntzailearen arteko uzkurdurak nahiko arruntak dira ad. nagusia *-n* bukaera duenean (cf. § 4.2.3.11). || *ainguichi*: ‘hain gutxi, ezta... ere, are gutxiago’. **3-65** *esin gueiyego eguin euquean*: ‘egin zezakeen’, potentziala *ke* hizkidun **edun* adizkiarekin dugu. **3-66** *al daigune*: ‘egin ahal dezakeguna’, badirudi *daigun* adizkiak bere erroaren esanahia mantentzen duela, *al* hizkiak ematen diolarik bere potentzial esanahia.

3. Yrugarren *Credoco articulu edo misteriyoa*

70 Contetan dau Cartujoac Christoen visisan guison gaste bat mesa ensuten egoala,
esala yarri belaunico Credoan, esaten dabenean belaunico sacerdoteac âec berbaic: *et
incarnatus est de Spiritu Sancto &a.*, verlan aguirtu sela demoniu bat palu bet escuin
ebela, eta gustis encolerizeuric esan eusen: “Desvergonzadue, segaitic esara belaunico
yarten eta veneradu a magestade andiye eta mezede andiye Jangoicoac eguin eusune
75 guison eiteagas? Bada, eguin baledi angueru gugueitic reconociduco gueunque gustis
eta adoradu”. Au esaten eusela emon eusen áen paluqueda andiye se aoagas yo eraguin
eusen selaire, da alan gueratu sen castigueturic eta escarmentauric, areric aurrera
egoteco mesan eta santisimu sacramentuen aurrean reverenciye eta humildede andigas.

15 8 *den*: gainean gehitua. 14 *partes*: leh. *par, tes* gainean gehitua. 18 *gariye*: *a* azpian *r* irakur dezakegu. 19 *pricipiyoan*: leh. *pricipiyoan, n* gainean gehitua. **16** 30 *Jangoico dan partes*: gainean gehitua. 36 *batec*: leh. *bate, c* gainean gehitua. 37 *bic*: gainean gehitua. 38 *daudena*: gainean gehitua. **17** 43 *ylabeteac*: Aurretik *garren*, tatxaturik. || *yguero asquero*: gainean gehitua. 45 *sucedidu*: leh. *sucedi, du* gainean gehitua. 46 *eta*: aurretik tatxoi bat dauka. 47 *ateac*: leh. *atea, c* gainean gehitua; azpian *Aite* irakur dezakegu. 51 *Creaciñoecoa*: leh. *Creaciñoecoa*, lehenengo *a* gainean gehitua. || *doean*: *d-* azpian *si-* irakurtzen dugu, *sioean?* 52 *Creaciñoeco*: leh. *Creaciñoeco, a* gainean gehitua. || *sen*: jat. *sene*. **18** 66 *aguindu*: leh. *aguin, du* gainean gehitua. 71 *encolerizeuric*: *encolerizauric* ere zatekeen, ez baita argi ikusten *a* edo *e* ote den; hau denez adibide bakarra, *RIU* erregelaren indarra kontuan hartu dugu (cf. § 4.2.1.7) <zeu> proposatzeko. || *belaunico*: aurretik tatxoi bat dago. 73 *baledi*: leh. *baledice*. 75 *selaire*: aurretik tatxoi bat, seguruenik *lurrera*.

3-69 *Cartujoac*: Sajoniako Ludolfo idazleari, *Vita Christi* liburuaeren egileari, *Cartusianus* edo Cartujoa deitzen zaio, ordena erlijioso horretako kidea izateagatik. **3-70** *belaunico*: XVIII. mende erdialdetik formarik erabilena da mendebaldean (ordura arte *belauriko* baino ez da lekukotzen). **3-74** *eguin baledi angueru*: ‘egin izan balitz aingeru’. **3-75** *paluqueda*: ‘palokada, makilkada’. || *yo eraguin*: aditz arazleak sortzeko bi baliabide darabiltza idazleak –*arazo* eta, hemen bezala, *eragin*. **3-76** *selaire*: ‘zelaira, solura’, adiera honetan Añibarroren obretan bakarrik lekukotzen da (*OEH*, s.v. *zelai* 4).

<19>

J.M.J.

**Creoan diñogu “padedidu eben Poncio Pilatos podereen bean”, sein
den laugarren Credoco articulu edo misteriyoa**

Padedidu eben Christoc Poncio Pilatosen podereen bean, ofrecitan sala vere
5 pasioe dibinuco tormentú gustitara, verac gure ebelaco: *Oblatus est quia ipse voluit*.
Baye pregunteuco deustesu: “Selan entendiduco dot Christoc Jangoico eguiyescoac
padedidu ebela eta il sela?”. Emen eransuten da, Christoc gueure Jaune isen arren
Jangoico eguiyescoa, padecidu ebela eta il sela es Jangoico san partes, espada guison
san partes, segaitic ese Jangoicoa san partes esin il satequean. Baye esaten da il sela
10 Jangoicoa esaten dogun legues “il de guisonau”; esaten dogu eguiye arimea il es arren,
bastetan da ileiten gorpuse. Padedidu eben Christoc guison genero gustiyen
maliciyegaitic: judiyoac, gentilec, erregueac, principeac, aite santuec eta sacerdotec
gaitic &a. Padedidu eben afliccioe genero gustiye; bada, padecidu eben bere personan,
bere adisquideetan, bere faman, bere honrran, bere hondasunetan, quendu eusesalaco
15 vere yastecoac. Vere ariman tristezea, bildurre eta congoxea. Vere gorpusean llagac,
heridac, azotec eta eriozea curze baten. Padedidu eben bere, bere mienbru sagradu
gustitan: buruen aransasco coroea, arpeguiyen bofetadac eta chue, veguiten padecidu
eben estalduric, aooan veastune eta vinegrea, escuitan eta oiñetan unzeac eta espaldetan
azotec.
20 Gure isen eben gue[u]re redemptore Jesus amantisimuic padecidu numeruric
estauquen coaine tormentu eta cabuin eriosea curzean, isen danic afrentaric

4-1 *J.M.J.*: (cf. 13-1 *J.M.J. J.n y Ana*) *Jesus, Maria eta Joseph* izenen inzialak, testuen hasieran jarri ohi ziren otoizlabur gisa (cf. *JHS, Viva Jesus...*). **4-6** *deustesu*: ‘didazu’. **4-11** *ileiten*: ‘hiltzen’, *hil* aditzaren aditz-izena sortzeko *-eiten* atzizkia erabiltzen du egileak, ziurrenik **egiten* batetik eratorria; hala ere, ez dugu uste aditza *hil egin* denik, ez baitugu *hil egin* edo *hil egingo* bezalakorik, *il* eta *ilgo* (12-45, 15-50...) baizik. **4-15** *congoxea*: hitz honetan <x> ahoskera igurzkarri belarra (/x/) islatzen du, frikari palatala <s>z idatziko zukeelako (cf. § 4.2.1.4). **4-16** *curze*: ‘gurutze’, *OEH*-ren arabera (s.v. *gurutze*), aldaera hau XX. mende aurretik oso autore gutxi erabili dute: *VJ*, *Laudioko dotrina* eta *E.M.* Azkueren obra baino ez ditu aipatzen, Añibarroren hiztegiak gain. **4-17** *chue*: ‘listua, tua’. **4-18** *aoaan*: <aa> argi irakurtzen da, eta tokatzen ez zaion arren sermoitegian diren azalpen argirik gabeko beste bokal bikoitzen taldean sar genezake (cf. § 4.2.1.5). || *veastune*: ‘behazuna, gibelmina’. || *unzeac*: ‘iltzeak’. oro har <s> darabilen arren txistukari guztiak islatzeko (cf. § 4.2.1.4), lantzean behin <z> dugu zenbait hitzetan. || *espaldetan*: ‘bizkarrean’. **4-20** *numeruric estauquen coaine*: Hapaxa dugu egitura hau, hainbat aldiz agertzen da sermoitegian beti *numero* edo *numeratu* testuinguruan; badirudi *aina* (cf. *OEH* s.v. *adina*) partikularekin erlazionaturik dagoena.

4. *Laugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

andiyeenecoa, obliguetaco guisonac <20> bera ametara eta isen litesansat agradeciduiç, ecusiric se asco costequiun redimitea, yaque sirean ingratoac bere creaciñoeco beneficiñora. Esaten eben guison ingratoac: “Ya dacust isen sala graciye edo mesedea ni
25 criyeduitea, baye echacan costa espada esatea *eguin bide*”; baye bere redemciñoegas esildu ebesan au esateudenac, ecusiric se asco costa yacan redimitea guisona. Redimidu gueunquesan aen Dibine Magestadeac odol tilinque bategas, baye eusen amore andiyegaitic guisonari, emon gure isen eben bere odola gustiye, gueratu linsat guisona obligueduric fineza aen andiyeatara. Padedidu ebesan bere adinebeste tormentu gueuri
30 yrecasteco virtuteac: paciencicoa, humildadecoa, obedienciyeçoa eta veste virtuteac vere verbeagas irecasi eguisenac ac Maisu Dibinuic. Baye esango deustesu, selan ysenic Jesuchristoen redenciñoea gustiyensat condenetan dire adinebeste? Eransuten dot estala redenciñoen faltas, espada guison isu eta temerariyoen errus, seinec estaben aprovechadu gure bere pasiñoegas. Medicu on batec imini balegui edo emon erremedi
35 bat eficaz eta ciertue achahuiye edo gashoa padecitan dauden gusic arsaiteco, eta arsaiten dauden gusic osatu balites eta, barris, artu gure estaudenac ileiten badire remedio bagaric, esango gueunque sala medicuen faltas edo medicineen? Es. Bada, lomismo esan bear dogu betacari ysu eta temerariyoac gaitic, seinsuc osatuiteco euren arimetaco gaso mortalac estaudes artu gure remediyo eta medicinac echi ebesanac
40 Medicu Dibinuic sacramento santuitan euren osasuneraco.

San Matheo evangelisteac advertitan dau urten <21> ebela Jesuchristoc Jerusaleneric emaiteco principiyoa vere pasiñoeari ofrecidu asquero vere Aite Eternoari gloriesco eta alabanzaco canticuic. Ortu beten, sein den Getsemanico, asi sen Christo emaiten bere odola, yaquin deguiyensat arimac, planta edo landare racionalac regaduic
45 eta regaladuic odol dibinuigas, vear daudela isen es lur eser omaiten estabena, espada lur hortucoa, seinec emongo daben fama onen eta exemplo onen frutue proximuei.

4-23 *costequiun*: ‘kosta zitzaion’, -a e- hiatoa bakundurik dugu aoristo perifrasi honetan. || *yaque sirean*: ‘zirelako’ (gazt. *ya que*). **4-27** *gueunquesan*: ‘gintuzkeen’. || *odol tilinque*: (cf. 16-70 *ur tilinqueric*) hapax bat dugu hemen, dirudienez ‘tanta’ adierazteko edo erabiltzen duena egileak. || *eusen*: adizki hau adiera trinkoan erabilirik dago, ‘edukitzen zion’. **4-28** *odola gustiye*: (ik. 45-67 *estana gustiye*), *guztia* hitzaren izen aurrekaria artikularekin emana, (cf. *OEH*, s.v. *guzti* II 4). || *gueratu linsat*: ‘gera ledin’ hipotetikozko *l-* aurrizkiarekin eta helburuzko *-tzat* atzizkiarekin (ik. 2-24 *eroan leguinsat*; cf. §§ 4.2.3.5; 4.2.3.8). **4-29** *andiyeatara*: leh. *andiyaatara*, gainean zuzendua; azalpen argirik gabeko bokal bikoitzen taldean sar dezakegu, eta artikulatu hurbilak izan lezakeen ñabardura bat adierazteko darabilen baliabidea izan daiteke proposatu dugunez (cf. § 4.2.1.5). **4-35** *gashoa*: Añibarro-Zabalak txistukari palatala adierazteko <sh> grafia orokortu aurretik, han-hemenka aurkitzen da halakorik testu zaharretan, gurean legez (cf. §§ 4.2.1.5; 4.3.2.1.1.1) **4-37** *medicineen*: genitibo honek aurreko *faltas* hitzari egiten dio erreferentzia, beraz zerbait falta delakoan gaude: edo *falta* errepikatu (*medicineen faltas*) edo determinatzailea gehitu genitiboari (*medicineena*). **4-38** *betacari*: ‘bekatari’ (ik. 2-39 *betacari*).

4. *Laugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

Hortu beronetan eguin eben oraciño iru bider Jesuchristoc vere Aite Eternoari, encamineu deigusensat gueure oraciñoac iru persona dibinuei, eta iracasteco bere exemploagas oraciñoen exerciciyo ymportantea, esan eben legues Christoc: *orate, ne intretis in tentationem*. Intento onetara diño San Pedro Crisologoc *in tentationem vadit, qui ad orationem non vadit* ‘tentaciñoera urtuiten dala oraciñoceanic yñes eiten dabenac’; eta San Agustinec: *novit recte vivere, qui recte novit orare* ‘ondo visi de ondo oraciño eiten dabena’. O, se eguiye ciertue! Selan amauco dau bioseric Jangoicoa esautuiten estabenac? Selan eingo dau negar pecatuegaitic estabenac pisetuiten consideraciñoegas bere maliciye edo maldadea? Selan euco dau erioseen bildurre estabenac iños consideretan? Selan yqueratuco dau eternidedeac estabena iños beratan pensetan? Da arimea oraciño bagaric lomismo sein egastiye ego bagaric, seinec esin egas eguin deu eta gueratuiten da preso cazadoreen escuitan; da arimea oraciño bagaric arraiñe ur bagaric, sein ileiten <22> dan. Eta ecusiric gueure Jaun Dibinuic oraciño eiten dabela aen fervore andiyegas, noc euquico dau disculpea? Oraciño eiten dau Jaun Dibinu gustis poderosoac, eta es guison miseriyes beteric dagoanac? Principea erregutuiten dago eta esclavue esta humildetuiten? Medicuic escatuiten dau eta gasoa dago esilic? Juesa humildetuiten da eta es malhechorea? Ser da au, espada declaretea sareala floxo eta mutue, eta estosule merecitan remediayoric.

Oraciño onetan bada, sein euqui eben Getsemanico hortuen, diño evangeliste sagraduic se Jaun Dibinue, yarriric agoniñeric andiyeenean eta congoxan, boteevela odola yausi yacan yserdiyen, aen abundancis se erregadu eben lurre: *factus est sudor eyus, sicut guttae sanguinis decurrentis in terram*. Baye, Jaun Dibinue, judiyoen maliciye espada eldu iminten escuic seuguen, segaitic gure dosu leenganic emon seure odola? Echedon eguisu pisque baten se euren maliciye ynfernalac boteraso eraingo deusu seure odol gustiye: “Baye es, diño Christoc, gure dot gustiyoc entendidu daguisuela dauquela nire amoreac deseo andigo da emaiteco neure odola seinde judiyoac boteerasai[te]co”. Alan aseguretan deuscu David profetean aoti Jesuchristoc:

4-55 *euco*: ‘edukiko’, *edun* aditzaren gainean egindako geroaldiko partizipioa. **4-57** *esin egas eguin deu*: indikatibozko laguntzailearekin egindako potentzial perifrasi, *ezin* partikulak ematen diolarik potentzialtasuna perifrasiari (cf. § 4.2.4.6). **4-69** *seuguen*: ‘zeugan’, *RUI* erregelaren eraginaren indarra (cf. § 4.2.1.7). **4-70** *Echedon*: ‘itxaron’, hitz honen aldaera asko lekukotzen du EOH-k (s.v. *itxaron*), baina ez dago hemen aurkitzen duguna. || *boteraso eraingo*: testuak *erazo* eta *eragin* darabil aditz erazleak sortzeko, eta ikusten dugunez biak batera ageri dira, ez dakigu akats legez edo erabilera pleonastiko baten eraginez. 4-72 *deseo andigo da*: da argi irakurtzen den arren, arazoak sortzen ditu esaldia zuzen interpretatzeko, dela aditz dela juntagailu legez (*eta*; ik. 1-16 *da*) ulertuz. **4-73** *profetean*: ‘profetaren’ –an genitibo ez omen da bizkaiko lekukoen forma baina nahiko ugaria da Arabako testuetan (cf. Zuazo 1998: 152).

4. *Laugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

Verumtamen pretium meum cogitaverunt repellere, cucurri in siti ‘nire areriyoc etorri
75 sirean deseogas nire odoln preciyoa boterasaiteco, baye neure egarriyec edo deseoc
aurretu sen eurec beno gueiyego emaiteco neure odolas’. Bada, selan neure Jaune edo
setaraco adinebeste priesa omaiteco ori Ceruco tesoru edo ondasunori? Esque
Jesuchristoc <23> euquen deseoa vere odola omaiteco isen san aen fineza andigas, se
gure isen eben aurretu yaquin vere areriyoen maliciyeri. Selan eguin eben oraciño
80 Christoc hortuin? *Procidit in faciem suam* ‘vere arpeguiye lurrean ebela’. Ondo aguiri
de se estala bastante guison purue satisfaciñoea omaiteco pecatuegaitic; vada, dacusgu
lurrera jo eraguin eusela vere pisuec Jangoico guison eguin senari. Ondo aguiri de esala
bastante guisonen fuerzea alan inclinetan danean Jangoicoena. Eta gure badosue yaquin
segaitic adinebeste pisu euqui euden Christoen espalditan pecatuic, seinsuen pisue ain
85 guichi sentitan dau betacoric, esango dau David profeteac: *Emit[t]e manum tuam de
alto, et eripe me, et libera me de aquis multis* ‘Jaune emon eguidesu seure escue eta
libredu neguisu ur ascotatic’. Se ur dire onec? Gustuen eta pecatuen ure. Baye segaitic
comparetan dire pecatuic uregas? Ya diño escritore jaquinsu betec, gueyyeten yate
pecatuei ure segaitic urec vere centroan estau pisetan, baye ateretan bada bere centroric
90 pise dau asco. Espavere, pregunteu deiyegun uguer eiten daben bateri ysesoan eta
barrune sarsaiten danari ysesoan, ea sentitan daben ganean dauquen ureen pisue,
eransungo dau estabela sentitan, eta diño eguiye, segaitic dagoan ure bere centroan;
atera eguisue urori eta ecusico dosu seinbet pise daben. Alan dagos peccatore asco,
seinsuetan dago pecatue vere centroan legues eta orregaitic esteuse eser pise,
95 dauquelaco pecatuin asientue eguinic; baye Jesuchristoen innocenciyan egosan legues

4-77 priesa: ‘presa’, diptongodun aldaera da idazle bizkaitarrek erabili ohi dutena (OEH, s.v. *1 presa*). || *Esque* ‘bada, izan ere’ (gazt. *es que*). **4-78 fineza:** ‘maitasun’. **4-79 aurretu yaquin:** orain arte Lazarragaren eskuizkribuan baino aurkitzen ez zen laguntzailea dugu *jakin* (OEH, s.v. *2 jakin*), dirudienetz aditz sistema zaharraren beste adabegi bat (cf. Lakarra 2011a: 200). **4-81 dacusgu:** ‘ikusten dugu’. **4-87 ur ascotatic:** Azkueren arabera “La palabra ‘mucho’ aplicada a pasiones, líquidos, gases, etc., se traduce por *andi*. Emplear *asko* en estos casos es un barbarismo. ‘Mucho miedo, mucha sed, mucho humo, mucha agua hay en el mar’ no deben traducirse *bildur asko, egarri asko, ke asko, ur asko dago itxasoan*, sino *bildur andia, egarri andia, ke andia, ur andia dago itxasoan*” (ap. OEH s.v. *asko*). Hala ere, OEH-k dioskunez, ez da beti horrela eta *ur asko* esapideari dagokionez “encontramos *ur asko* en Iztueta (C 66), Iturriaga y Uriarte (*Dial* 44), Urruzuno (*Urz* 53), Azkue (*BeinB* 55), Echeita (*Josetxo* 252), Goñi (32) y Munita (73), pero ningún ej. seguro de *ur handi* con este sdo.” (OEH, s.v. *asko*). **4-88 jaquinsu:** bizkaieran gutxi erabilia da (OEH s.v. *jakintsu*), euskalki horretako lehenengo agerraldiak Mogelen eta Añibarroren lanetan ditugu. **4-90 deiyegun:** ‘degiogun’, irakurketa garbia da, baina ez da inon lekukotzen beste adizkietan den *o > a* (*jako > jakan, deutso > deutsala*) *egin* adizkietan ere gertatzea; beraz, edo *o > a* hedatu da beste adizkietara edo kopia akats bat dugu; dela aurreko *e* eraginda, dela anakolutua. || *uguer eiten:* ‘igeri egiten’, gure testuan *uger* baino ez dugu eta Bizkaiko eta Arabako lekukotasunetan dago hastapenetik, eta bertako testuetan erabili ohi da *igeri* eta *igari*-rekin batera (OEH, s.v. *igeri*). **4-91 barrune:** (cf. 11-84) ‘barna, barrura’, OEH-k gipuzkerazko literatur tradizioan lekukotzen du, baina ikus dezakegunez mendebalderago ere ezagutzen zen (OEH, s.v. *barruna*). **4-95 asientue eguinic:** ‘kokaturik, bizitzen jarririk’.

4. *Laugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

gure pecatuic violento edo euren centroeanic campora, orregaitic pise ysen euden adinebeste se joeraguin eusen lurrera, <24> eracusi eben seinbet gure eusen eta estimetan ditusen bereac bere agoniye eta penaen artean. Aec arriyec, seinetan imini ebesan bere belaunec oraciño eguin ebenean hortuen, bigundu sirean arguiseguiye
100 legues; alan testifiquetan daude ecusi dituesan ascoc aec lecu sagraduic. Bada, sec bigundu ebesan aec arri gogorrac? Christoen odolac, yausi sanac oraciño eiten egoanean. O Amante Dibinu eta soberanue, se gogorra dan guisonen biosa! Bada, arriyec bigunduiten ditus alan, da guisona esta bigunduiten odol dibinuagas, espada arri beno gogorra[goa] bere biosa. Gueratuiten da pecatuin Judesen lagun eguinic:
105 Judesegaitic enojetan sara razoa bagaric saldu ebelaco bere redemptorea, eta estosu consideretan seinbet bider eguin dosun seuc ha maldadea edo delitue! Ogueta amar diru beno guichigogaitic saldu dosu seure criyadorea interes vil bategaitic, gustu loi betegaitic, eta aun esebere-esegaitic. Espavere, pregunte eguiyosu seure conciencyeri: esan eguidesu, christiñeu, ser emon deusu seure araguiyec cumplitarren bere gustuic?
110 Ser emon deusu demoniyoac arsaitarren vere consejuic? Ser emon deusu munduic siguitarren vere vanidedeari eta soberviyeri? Ser emon deusue adinebeste pecatuc, seinsuc gaitic galdu senduen gracye? Ser atera dosu? Conciencyeco remordimintuic galsaitea, arimea, osasun espirituala, ausiyec seinsuc acabetan dauden sure haziendea eta bioza gorretos bete eta, alcabo, seculaco condenaciñoea, espadosu negar eiten seure
115 pecatuic gaitic. Au de atera dosune salduiteaagas seure criyadorea Judesec legues pecatu eguin senduin bacochean. Da posible alan isutuiea seure entendimintue! <25> Gueiyego amaduitea gusurre, engañue, falsiye, apetitu torpea... seure Jangoicoa amorosoa beño, sein dagoan odolesco yserdiye omaiten sugaitic eta eriosaco agonian suri omaitarren betico bisisea? Esan il Jesus congoja eta agoniñoatan, baye pena onetan
120 eunquesan presente padeciduco ebesan tormentuic gustic. Baye gueiyen afligidu eben

4-99 *arguiseguiye*: ‘argizaria’. **4-105** *razoa*: ‘arrazoa’, testuan zehar bokal protetikodun aldaerak direlarik ere erabilienak, ez dira falta hau bezalako adibiderik. **4-106** *diru*: zenbatzaileren batez lagundurik, (diru-)kopuru adiera hartzen du (*OEH* s.v *diru*). **4-107** *loi*: ‘zikin, lizun’. **4-108** *aun*: ‘are...ere’ (gazt. *aún*). **4-111** *deusue*: beste guztietan *deusu* dakarren arren, honela dugu hemengoa, zuzendurik. **4-114** *gorretos*: ‘gorrotoz’ (cf. 7-168, 22-12...), disimilaturiko aldaera dugula dirudi, orain artean inon lekukotu gabea (cf. *OEH*, s.v. *gorroto*). **4-116** *isutuiea*: ‘itsutzea’. **4-117** *amaduitea*: *-ite* aditz-izen atzizkia honelako *-adu* partizipioetara hedatzen hasia da sermoitegian (cf. § 4.2.3.2). || *gusurre*: ‘gezurra’. **4-119** *omaitarren*: kausazko esaldietako aditz-izenetan, mendebaldeko *-tearren* atzizkia erabiltzen du egileak, beti *-tarren* formapean. || *agoniñoatan*: horrela eskuizkribuan, erakusle hurbilaren (*onetan*) gainean egindako inesibo berria izan daiteke (cf. § 4.2.2.8), gramatikalizazio bidean delarik kamuztua (*-otan* > *-oatan* > **-oetan* > *-onetan*). **4-120** *eunquesan*: honela eskuizkribuan, sermoitegiko zenbait adizkietan *-n-* bat aurkitzen dugu erroaren inguruan (*deusnen, deingunset...* cf. § 4.2.3.10), eta hauen hiru zergati posible proposatu ditugu: 1) ondorengo sudurkariaren eragina, 2) erroak lukeen sudurkariaren eragina edota 3) *nendun, zendun* bezalako adizkien analogia.

4. *Laugarren Credoco articulu edo misteriyoa*

Jesuchristo ecustea deungac despreciyeducu eudela pecatuigas vere odola eta
condenadu seculeco; orregaitic gueyyego tristetu sen eta yarri sen trance lastimosoan. O
pecatu madariquetuic, suic sara causea maltratetaco neure Jangoicoa eta redemptorea!
Gure maldadeac atormentetan daude eta affligitan daude adinebeste; selan estauquegu
125 bildurre sein condena gaitean? O neure Jesus affligidue, ese bidi galdu guguen seure
odola, seure congojac eta agonyac, tristeza eta desamparue! Ametan saitugus gause
gustiyes ganean sarealaco âen ona, justoa, santue, eta deseetan dogu ametea Ceruen
santuec ametan satuesan legues eta munduen justoac ametan satuesan legues,
resoluciño e firmeagas es pecaturic gueyego eguiteco, leenagocoen penitenciye eguiteco;
130 mediyo onegas logretaco Cer[u]co gloriye.

19 3 *sein den...misteriyoa*: hau guztia beste tinta batez idatzirik dago. 6 *deustesu*: aurretik tatxoi bat. 7 *Christo*: leh. *Christoc*, azken *c* tatxaturik. 9 *da*: ganean gehitua. 12 *eta*: ganean gehitua. 13 *gaitic*: aurretik &a, tatxaturik. 17 *veguiten*: leh. *vegiten*, *u* ganean gehitua. 21 *estauquen*: leh. *estauque*, *n* ganean gehitua. **20** 23 *se asco*: Orrialde honetan zenbait pasarte birpasaturik daude beste tinta batekin, ondo irakurtzen ez zelako edo. 29 *gueuri*: jat. *gueure* 31 *irecasi*: *c* ez da ondo irakurtzen, *e* legez ere interpreta dezakegu; bestetik, *ire* eta *cas* artean trazo bat dago *s* baten antza duena: *irescas?* Amaitzeko, leh. *irecas*], amaierako *i* gero gehitua dago beste tinta batez. 35 *gashoa*: leh. *gasoa*, *h* ganean gehitua. 39 *gaso*: leh. *heride*, hau tatxaturik eta *gaso* ganean gehitua. **21** 43 *sein den Getsemanico*: ganean gehitua. 48 *encamineu*: leh. *encamine*, *u* ganean gehitua. 49-50 *Orate, ne intretis...*: iturrian *Orate, ut non intrentis...* 51 *oraciñoceanic*: ganean gehitua; honen azpian zerbait dago, tatxaturik. 52 *vivere*: ganean gehitua. 54 *dau*: ganean gehitua. **22** 61 *erreguituten*: jat. *erreguituten*. 65 *Getsemanico*: leh. *getsemanico*. 68 *gu[t]tae*: aurretik *aquae* irakurtzen dugu, tatxaturik. || *terram*: leh. *terra*, *m* ganean gehitua. 72 *dauquela*: leh. *dauque*, *la* ganean gehitua. 73 *boteerasai[te]co*: jat. *bote* / *erasaico*. 74 *Verumtaten*: jat. *Verumtatem*. 75 *neure egarriye edo deseoa*: jat. *neure egarriyec edo deseoa*c, anakolutu bat dugu hemen, aditza *aurretu sen* baita, eta horregatik zuzendu dugu. **23** 80 *faciem*: leh. *facie*, *m* ganean gehitua. 81 *estala*: ala *esteila*? Azpian beste zerbait irakurtzen dugu baina ezin ondo irakurri. 85 *esango dau*: jat. *esango da dau*. 88 *comparetan*: jat. *asemejetan comparetan*. *comparetan* ganean gehitua dago; *asemejetan* berbaren orde zerrita, baina azken hau tatxatu gabe utzi zuen. || *yate*: ganean gehitua. 94 *esteuse*: leh. *estuse*, *e* ganean gehitua. **24** 99 *bigundu*: leh. *bigudu*, *n* ganean gehitua. 103 *da*: ganean gehitua. 110 *deusue*: leh. *deusu*, *e* ganean gehitua. 115 *salduiteaagas*: aurretik zerbait dago, irakurrezin mantxa batek erdi borratu baitu: *gui...* || *Criyedora*: azpian *Salv-*] irakurtzen dugu. || *eguin senduin*: azpian zerbait dago idatzirik, irakurrezin. **25** 117 *amorosoa*: aurretik *beño* dago, tatxaturik. 118 *eriosaco*: leh. *eriosa*, *co* ganean gehitua. 121 *pecatuigas*: ganean gehitua. 122 *sara*: leh. *sar*, *a* ganean gehitua. 123 *causea*: aurretik *as* irakurtzen da, tatxaturik. || *maldadeac*: jat. *maldedeac*. 128 *legues*: ganean gehitua. 129 *cer[u]co*: *u*, orriaren ertzean egoteagatik, galdu da.

4-121 *ecustea*: aditz-izen hau egun ergatiboarekin jarriko genuke, formalki *ikusteak aflijitu zuen Jesukristo* baita; alabaina, ez gaude ziur halako nominalizazioek zernolako historia izan duten euskarari. **4-122** *trance*: ‘estutasun’ **4-123** *suic sara*: ‘zuek zarete’, adibide honetan *zara* adiera pluralean erabiltzen du egileak, literatur bizkaierara heldu zen ohitura jarraiki (cf. § 4.2.3.12). **4-124** *sein condena gaitean*: *zein ezezko partikula* legez erabilia (cf. *1-118 sein yausi gaitean*; § 4.2.4.11).

<27>

**Credoan diñogus “Jasi sen Ynfernuitara, resucitedu sen ilen arterean”
eta da Credoco bostcarren articulu edo misteriyoa**

Sinistuiten dogu articulu onetan jasi sela Christoen arimea Ynfernuitara, aude, lurren aspico lecuitara, an visi sireanac visitetan. Eta gorpuse gueratu basan sepulturan bere esaten dogu jasi sala Christo Ynfernuitara, segaitic acciñoec edo obrac atribuyetan yacas personeari, eta Christoen arimea apartau arren gorpuseren il senean, baye esan iños apartadu personarean; egon san uniuric vere arimea vere personeagas. Orregaitic esaten da jasi sela Christo Ynfernuitara visitedu ebesela bereac eta emon eusela consuelue santuei. Au uniñoeau, conservadu eudena arimeac eta gorpus Christoenac
10 dibinidedeagas, emaiten da entenditan similonegas: dauco caballero batec espatea escuin, ateretan dau espatea bainerean; aguri de espatea apartauric bainereanic, eta alan espatea sein bainea gueratuiten dire caballeroen escuin. Au de sucedidu sana Christoen eriosan, apartadu sen gueure redemptoren arimea, sein comparetan dan espata agudoagas dalaco espiritu purue, eta gueratu sen apartaduric bainerean edo bere
15 estalguirean, sein sen gorpuse, eta alan bere arimea eta gorpuse gueratu sitean Dibinideden escuitan: *Verbum Dibinum quod semel assumpsit, nunquam dimisit*. Diñogu Credoan yasi sela Christo Infernuitara. Ynfernuen usenean entendidu bear dire lau lecu lurren aspin, soterrañuin dagosanac, seinsuei gueiyeten yate Ynfernuic: bata da berengo dagoana, Condenaduena, nora doasan pecatu mortalean ileiten direanac. Au
20 beño gorago Purguetoriyoa, nora doasan arime dauquenac emaiteco Jangoicoen justiciyeri euren pecatuen satisfeciñoec osoa pena <28> yqueragarricas, aunque

5-2 bostcarren: <-tk-> taldedun aldaera bitxia dugu hau; Bizkaiko eta Gipuzkoako tradizioan *bostgarren* aldaera nabarmetzen dira, *bosgarren* adibideak ere badirelarik. Kapanagaren *boskarren*-az gainera, <-tk-> grafiadunak Añibarro, Iztueta edo Zabalarengan lekukotzen dira (cf. *OEH*, s.v. *bosgarren*). **5-3 jasi:** oro har <y> erabiltzen badu ere euskal *j- adierazteko, ez dira falta <j>dun adibiderik, hemen bezala; bi azalpen posible lituzke honek (cf. § 4.2.1.3), edo egilearen hizkeran [x] ahoskera hartzen hasia zela edo tradiziotik zetorren j idazkera mantendu zuela zenbait hitzetan. **5-9 gorpus Christoenac:** (cf. 44-99 *tentaciñoec Deabruena*) edutezko genitiboa izenaren ondoren agertzea ez dirudi askotan lekukotu denik (cf. Reguero 2013: 451, 10 oh.), baina VJ-k (Ulibarri 2010: 68) eta hemengo adibideek balizkoa dela erakusten dute (cf. § 4.2.4.4). Adibide zehatz honen arrazoiaren artean, gainera, Elizaren *Corpus Christi* esapide ezaguna egon daiteke. **5-11 bainerean:** ‘zorrotik’. **5-15 estalguirean:** ‘estalkitik’, -gi aldaera mendebaldeko idazleetan lekukotzen da, eta batzutan egile beraren lanean *eskalki* aldaerarekin lehian (*OEH* s.v. *estalki*). Gure testuko adibide guztiak -gi aldaeradunak dira. || *gueratu sitean:* ‘geratu ziren’ aoristo perifrasi. **5-18 soterrañuin:** ‘lurazpikoan’ (gazt. *soterraño*). **5-19 berengo:** ‘baxuena, azpikoa’. 5-21 *yqueragarricas:* sermoitegi honetan -*garri* atzizkiaz eraturiko hitz guztiak lapurtera klasikoko testuetan lekukotzen dira lehenengoz, eta hegoaldean Larramendiren lanen ostean erabiltzen hasi ziren (cf. § 4.3.2.2). || *aunque:* ‘baina, hala ere’ (gazt. *aunque*).

5. *Credoco bostcarren articulu edo misteriyoa*

demporeagas acabaduco direanac. Yrugarren lecue, au beño gorago dagoana da Limboa, nora yoaten direan pecatu originelegas ileiten direan seiñec bautismue recibidu bagaric; emen estaude padecitan tormenturic baye estaude iños ecusico Jangoicoa. Laugarren
25 lecue, onec gustiuc beño gorago dagoana, da Abranen Senoa, non egon sirean justoen eta santuen arimac depositeduric, sartu bagaric Ceruen, ydiguitartiyo atear bere pasiñoeta eta eriosea sala mediante Jesuchristoc. Ona yasi sen Christoen arimea eta gueratu sen arguituric â pareje ilune eta gloriyes beteric an egosan arime santac ecusiric Jesuchristoen personea. Da bere santu eta expositore sagraduen parecer[r]a yasi sela
30 Christo Purguetoriura, noreanic diño basuc atera ebesala arime basuc. Beste basuc afirmetan dau, se isenic egune seinetan Christoc redimidu eben bere erioseagas mundu gustiye, jubileyo plenisimuco egune, atera ebesala Purguetoriyoco arimac gestic. Baye condenaduen lecue esan yasi Christoen arimea bere presenciyegas, espada vere dibinideden efectoac sentidu eudesan condenaduic; es aliviyetaco euren tormentuic,
35 espada repretitaco euren pecatuic, euren ympenitenciye infidelidedea; eta eracusteco selan san vera Mesias prometidue, seinen fedean salvaduco direan sinistuiten daudenac eta ondo obretan <29> daudenac. Eta eurec sinisturic eta ondo obrauric veste asco legues libredu satequesala tormentuaetaric, eta yaque es euden gure isen razo[a] andigas padecitan eudela euren pecatuic gaitic. Limboan egosanetara yasi sen Christoen arimea
40 visitetaco eta consoletaco, diño San Vicente Ferrer: *ad istos descendit anima Christi per gloriosam consolationem*. Diñogu credoan “Resucitedu sen ilen arterean”. Sinistuiten dogu articulu onetan Jesuchristo il asquero resucitedu sela irugarren egunean; aude, bolviuric unitan arimea gorpus santisimuiugas leen sana legues gueraturic, baye es osteria ileiteco, segaitic erioseagas vencidu eben Eriosa bera. Eta alan, esan gueratu sugetu
45 eriosara; bada, gueratu sen bere gorpuse yansiric eta adornaduric lau dote gloriosoacas,

5-25 *gustiuc*: *io* > *iu* asimilazioaren adibide dugu hemen, Zabalak Orozko, Baranbio, Laudio eta Luitaondon (1848: 56) eta Azkuek Orozko eta Baranbion (ap. *FHV* § 2.4) lekukotu zutena (cf. Ulibarri 2008a: 199). || *Abranen*: ‘Abraham’, Bibliako izen berezi hau *Abran* legez ageri zaigu beti euskaraz idazten duenean. **5-26** *ydiguitartiyo*: ‘ireki arte’, birritan dugu sermoitegian erabilia, biak aditz-izenarekin batera *-artiyo* (<*-te + *artio*) forma hartuz. Hegoaldean *artio*-ren adibide zaharrak Nafarroan bakarrik aurkitzen dira (*OEH*, s.v. *artio*), mendebaldean *artean* erabiltzen delarik (gure testuan ere testuinguru honetan 14 aldiz lekukotzen da *-t(e)artean* formatan). **5-30** *noreanic*: ‘nondik’, ablatiboa adierazteko *-rean*, *-reanik* eta *-rik* atzizkiak erabiltzen dira testuan, eta galdetzailleekin azken biak bakarrik erabiltzen dira: *noreanik* (2 adib.) eta *norik* (10). || *ebesala*: *-it-* pluralgilea mendebaldeko hizkeratan 3. pertsonetako adizkietan luzaroen irauin zuen (dela bera bakarrik: *ditu*, dela ondoren orokortu zen *-z* pluralgileaz batera: *dituz*); gure testuan baina, oso aurreraturik dago *-z*-ren hedatzea, *-it-* gabeko adizkiak oso erabiliak baitira are 3. pertsonen dagozkien adizkietan ere (cf. § 4.2.3.3). **5-40** *San Vicente Ferrer*: XIV. mendeko idazle dominikoa; aipagarri da izen honekin ez duela ergatibo markarik erabiltzen (cf. 18-55, 33-108). **5-43** *sana leguez*: moduzko perpausa erlatibozko mugatuarekin Bizkaiera Zaharreko testu gehienetan dugu (cf. Zuazo 1988: 371 eta Lakarra 1996: 297, 195. oh.); gure testuan honelako 10 adibide badira, baina erlatibo mugaturik gabeko adibideak askoz ere ugariagoak dira, 100etik gora. || *ostera*: ‘berriz’.

5. *Credoco bostcarren articulu edo misteriyoa*

seinsuc dire agilidedea, claridedea, sutilezea eta ympasibledeea. Au Christoen resurrecciónen isen san Jangoicoen obrea; bada, bere virtutes resucitedu sen: esan isen alan Lazaroen resurrecciónea, sein isen san es vere virtutes, espada Jangoicoen virtutes. David profeteac diño Jesuchristoen ileitea isen sala lo echutea legues eta vere

50 resuciteteac sirudila iresartea: *ego dormivi et somnum caepi, et exurrexi*. Ya dacusgu lo dasana vera iresarriten dala lo eguin dabenean bastante; alan, Christo iresartu sen eriosaco loreanic, ecusi ebenean egosala cumpliduric vere promesa, eta verba emon ebesala vere profeciyetan. Estago dificultederic sinistuiteco au misteriyoau; bada, naturelezeac berac eracusten dau: ya ecusten dosue selan gari garau bet ereinic

55 enterretan dala lurrean, an ileiten da, an yaiyoiten da eta multipliquetan da. Gueure Jesus Dibinue, diño San Agustinec sala au garaueu, isengo <30> sala mortifiquedue eta multipliquedue: *Dominus Iesus erat granum mortificandum et multiplicandum*. Jaiyo san Belenen au garau dibinueu estrami bateco aos artean, asi sen ogueta amairu urtean buruin, eta isenic ebaguiye eta ile pasiñoeco eguiteiyegas, isen san enterradue sepulture

60 baten, noric bolvidu sen jaiyoiten gloriyes beteric eta dacusgu ya multipl[iqu]euric. Sinistuiten daudenen fedean resucitedu sen Christo vere llagueen señaleacas, seinsuc gueratu yacasan bere escuitan, oiñetan eta costaduin, yaquin leguinsat munduec seinbet costa yacan redimitea. Gueratu sirean bere gorpus sagraduin onec señaleoc vere victoriyen señalesat eta eracusteco vere Aite Eternoari eta, abogadu dibinue legues,

65 escatuiteco gueure pecatuen parcaciñoea. Aguirtu sen lelengo resuciteduric vere ama santisimeari; alan suponitan daude santuic eta expositore sagraduic, euquen legues ondo

5-49 *lo echutea*: ‘lo etzan’ esapidea oso erabilia da testu zaharrenetatik (cf. *OEH*, s.v. *lo*), normalean *etzan* aditza jokaturik dagoela: ik. sermoitegi honetan bertan *lo dasana* 5-51 (eta dagoeneko L. M. Siculoren *lo naça* ‘duermo’ 1530). *etxun* aldaera palatala, bestetik, bizkaieran lekukotzen da *RS*-tatik aurrera (*OEH*, s.v. *etzan*). **5-50** *sirudila*: ‘idurtzen zuela’, *iruditu* aditzaren trinkoa. || *iresartea*: cf. *iresarritea* eta *iresartu* (5-51). adibide guztiak hauek izanik, badirudi *iratzartu* dela partizipioa, baina aditz-izena egiteko orduan *iratzarri* aldaeraren gainean eratzten duela (*-tu* aldaeraren gainean balitz ***iresartuitea* espero genukeen). Egoera hau *OEH*-k (s.v. *iratzarri*) marrazten digun historiarekin bat egingo luke; izan ere, mendebaldean *-tu* aldaera XIX. mendera arte ez zaio *iratzarri*-ri gailentzen, horren aurretik azken hau delarik forma bakarra. **5-51** *dasana*: ‘datzana’, *etzan* aditzaren trinkoa. **5-52** *loreanic*: ‘lotatik’ (cf. *OEH* s.v. *lo*, *lotarik*). **5-58** *estrami*: ‘estramina, estrabi’, testu honetan mugagabeen baino ez dugu hitz hau; hala ere, forma orokorrek ikusita (*OEH*, s.v. *estramina* eta *estrami*), era mugatua **estramiñe* dela pentsatzen dugu eta bokal sudurkarien bilakabide bereziarekin (cf. *sei/seiñe*, *arrai/arrañe*, *oi/oiñe*...) lotzen da. || *aos*: ‘ahotza, lastoa’. Nafarroako tradizioan lekukotzen da gehien, ez delarik falta adibiderik Mogelengan eta Bizkai sartaldeko Arratia eta Orozkon ere lekukotzen dira (*OEH*, s.v. *ahotz*). || *hamairu urtean buruin*: ‘hamairu urte pasata’, *-ren buruan* ez da mendebaldean lekukotzen XX. mendera arte, Mogel eta Añibarroren adibideren bat kendurik (*OEH*, s.v. *buru*); bestetik, aipagarri da *-an* genitiboa izatea (cf. § 4.2.2.3). **5-59** *ebaguiye*: *-gi* aldaera mendebaldeko hizkeratan (B. eta A.) aurkitzen da. || *eguiteiyegas*: ‘igitaiarekin’ *egitei* aldaera *RS*-etatik lekukotzen da mendebaldean, sartaldeko aldaera delarik XX. mendean (*OEH*, s.v. *igitai*).

5. *Credoco bostcarren articulu edo misteriyoa*

merceduric au favoreau; bada, berac sentidu eben eta negar eben vere Seme Dibinuen erioseagaitic vere discipulu gustic beño gueiyego. Bigarrenas aguirtu yacan resuciteduric Magdaleneari resucitedu sen egun berean. Irugarrenas, sepultureri[c] bolvidu sirean andrai, diñoean legues San Matheoc. Laugarrenas San Pedrori, diñoean legues San Lucasec; eta guero Emausgo castillora yoasan discipuluei eta arrasquero Apostoluei. Beste ascotan aguirtu yeten Christo Apostoluei eta discipuluei munduonetan egon sanean berroquei egunetan resuciteduric Ceruetara ygon beño leen, irecasteco bere doctrinea celestiala; desuerte se sirean bosteun beño gueiyego ecusi eudenac resuciteduric Galileaco basoan aguyrtu sanean, juntedu ebesanean bere Apostolu eta discipuluic, alan diño San <31> Pabloc: *Deinde visus est plusquam quingentis fratribus simul*. Ysenic bada au fedeco misteriyo principela, sinisturic firmemente bear dogu christiñeu eguiyescoac legues veneradu eta consideradu, eta christiñeu onac legues beti presente euqui gueure Jesus onac padecidu ebesan penac eta tormentuic bere pasiñoean eta eriosan, consideretan dogusela egunean-egunean misteriyo onec. Consideraduric ateretan dan frutue esin ponderadu lei, eta arimean galsaiyea dator aisturic euquitarren onec misteriyoac. Demonioac iminten ditus vere astuciyac gustic astueraiteco guisonai misteriyo onec.

Contetan daude autore ascoc, se egonic santu bet oracino eiten, emon eusen entenditan Jangoicoac Luciferrec euquen odiyoya eta iminten situin trasac astueraiteco Christoen pasiñoea eta eriosea modu onetan: ecusi eben Infernu gustiye eta ensun eben campa andi beten osa, seinen sonu roncure etorri sitean demoniño manada andi bet, seinei juntedu asquero esan eusen Luciferrec puestu altu beten yarriric: “Neure adisquideac eta lagunec, ya daquisue Jangoicoac eguin deusen beneficiyo andiye guisonai, eguinic guison eta padeciduric eriosea eurec gaitic curce baten. Se modu

5-67 *negar eben*: testuko gainerako adibideak *negar egin* diren bitartean, honetan **negar izan* (**negar edun*) aditz esapide baten aurrean gaude, hapaxa dirudiena ez baita beste inon lekukotzen (cf. *OEH*, s.v. *negar*); hala ere, haplografia bat ere izan daiteke: *negar [eguin] eben*. **5-71** *Emausgo Castillora*: Birritan aipatzen du *Emaus* eta birritan *Castillo* legez dakar, erdal maileguarekin. Dirudienez nahiko ohikoa da Bilbiako Emaus herrixka *gatzelu* legez aipatzea. || *yoasan*: ‘zihoazen’, mendebaldeko 3. pertsonaren ϕ -markarekin. || *arrasquero*: ‘ordutik’. **5-75** *basoan*: balizko iturriaren arabera (Echeverz 1728: 45; cf. § 4.3.1.1) testuinguru honetan ‘mendian’ esanahia luke (cf. *OEH*, s.v. 1 *baso*). **5-80** *egunean-egunean*: ‘egunero’. **5-81** *galsaiyea*: ‘galtzea, galera’, hirutan ageri zaigu horrela eta behin *gals[a]iyeraco*; *OEH*-k (s.v. *galtze*) *galtzai* bizkaiko idazleen aldaeratzat dakar, baina gure adibideek (eta Añibarroren *galtzaieak*) **galtzaie/a* bezalako hitz bat suposatu behar dugu oinarrian, erroko *-a* batekin. || *aisturic*: ‘ahazturik’, zazpi adibidetan dugu *aistu* forma, hirutan *astu* (*eragin*) eta bost aldiz *ainstu*, *OEH*-k lehenengo forma biak dakartza bizkaierazkotzat, baina *aiztu* maiztasun gutxiagoaz lekukotzen da XIX. mende erdialdetik aurrera (horren aurretik Laudioko Kateximan baino ez da aurkitu) (*OEH*, s.v. *ahaztu*). **5-85** *situin*: ‘zituen’. || *trasac*: ‘egitasmoak’. **5-87** *campa*: ‘kanpai’ (cf. *campac* 23-99) *kanpa* aldaera bizkaierazko forma genuke, orain artean XX. mendera arte ez omen dena lekukotu, ordura arte *kanpae* eta *kanpai* direlarik aurkitzen direnak (*OEH*, s.v. *kanpai*). || *etorri sitean*: ‘etorri ziren’.

5. *Credoco bostcarren articulu edo misteriyoa*

artuco dogu Ynfernue betetaco arimes, segaitic se bildurres acordauric eta euquiric memoriyan onec fineza andiyoc ymposible isengo da peccaturic eitea”. Esan asquero gustic euren parecer[r]a, convenidu sitean parecer onetan: sala modue yños beño deungago iseiteco guisonac astueraitea Christoen pasiñoa deleiteacas, vanidedeacas, galacas, ondasunen codi[ci]yegas, banquete eta entretenimintuicas. Onetaraco, <32> 95 diño Venerable Madre Maria Jesus de Agredac repartidu sireala oficiyoac eta premiñoac demoniñoen artean, encargau litesansat euren astuciyegas tentetaco viciyoetara, Jangoicoen ofensetara: basuc encargadu sitean conservetaco ydolatriye, veste basuc introducitaco setac eta heregiyac; beste basuc umeen inclineciñoac gause deunguera 100 eroateco; veste basuc guresoac isen litesansat descuideduic emaiteco criyensa ona euren humeai; beste basuc iminten odiyoac senar-emasteen artean; beste basuc sabalduiten rencoreac, quimerac eta venganzac proximuen artean; beste basuc tentetan embrac euren gala eta vanidedeacas provocadu daguiyesala guisonac araguiyen gustuitara, eta gustic prometidu euden eingo eusela guerra cruela Jesuchristoen doctrinea practiquetan 105 euden gustiyei. Alan daroas asco demoniñoac engañaduric euren gustusco bide deungueti, eta diñoean legues Job santuic, ygueroric euren egunec alegremente guichien pensetan daudenean yausten direala instante baten Ynfernure: *Ducunt in bonis dies suos et in puncto ad Ynferna descendunt*. Gure badogu es experimentadu onelango desdicheric eta yoan Ceruco bideti, consideradu daigun egunean-egunean Christo 110 pasiñoa eta eriosea, eta emongo deuscus âen Divine Magestadeac auxiliyoac imitetaco vere virtuteac, euren medios libretaco Ynfernuric eta logretaco Cerue. Amen

27 1 *resucitedu sen ilen arterean*: gainean gehitua. Bestalde, jat. *ilen arteretan*. 6 *gorpuserean*: jat. *gorpuseserean*. 8 *da*: gainean gehitua. 9 *Au*: Mantxa batek u estaltzen du. 11 *dau*: gainean gehitua. || *agui de*: aurretik eta alan, tatxaturik. || *bainereanic*: leh. *bainereani*, c gainean gehitua. 12 *espatea*: aurretik alan, tatxaturik. 21 *justiciyeri*: gainean gehitua. **28** 22 *direanac*: textuan *direa / anac*, a biak bakoitza lerro batean. 34 *es*: aurretik euren *repreñioenac*, eta irakurtzen dugu, tatxaturik. 36 *fedean*: leh. *fedea*, n gainean gehitua. **29** 46 *dire*: gainean gehitua. 47 *obrea*: leh. *obre*, a gainean gehitua. **30** 73 *sanean*: leh. *sane*, an gainean gehitua. **31** 79 *euqui*: gainean gehitua. 89 *Jangoicoac*: leh. *Jangoico*, ac gainean gehitua. **32** 96 *Agredac*: jat. *Agruedac*. 105 *asco*: leh. *co*, as gainean gehitua.

5-96 *Venerable Madre Maria Jesus de Agredac*: Agreda herriko (Soria) XVII. mendeko idazle mistikoa, *Mystica Civitas Dei* liburuaren idazlea. **5-99** *setac*: ‘sektak’, <ct> taldearen bakuntzea euskararen zein gaztelaniaren barruan gerta zitekeen, gazteleraz ere *seta* nahiko ohikoa baita Nebrijaren hiztegitik (cf. *NLLE*, s.v. *seta*). **5-102** *quimerac*: ‘liskarrak, borrokak’. || *embrac*: ‘emakumeak’, saltaldeko bizkaieran lekukotzen den hitza, Añibarroren adibideekin (*OEH*, s.v. *embra*). **5-105** *daroas*: ‘eramaten ditu’ *eroan* aditzaren trinkoa. **5-106** *Job*: Bibliako Job-en liburuaren protagonista.

<33>

Sexto artículo de el Credo “subio â los Cielos”, que puede serbir de plática para el día de la Ascensión de el Dibino Señor. En bascuence

Resucitedu asquero Jesuchristo irugarren egunean glorioso es oster a iños
ileiteco, es eben berlan igon ceruetara, ariqueta irecastear tean vere Apostolu eta
5 discipuluei fedeco misterioac prediquetaco munduti. Es ebesan desamparadu Jaun
Dibinuic; bada, berrogei eguneco demporan aguirtu yeten ascotan resuciteduric eta
emon eusesan documentu maravillosoac, eta cumpliduric verrogei egunec, egonic
amaca discipuluic Jerusalengo cenaculuin yaten, aguirtu yaten Jaun Dibinue eta
reprendidu ebesan amore andigas, segaitic es euden sinistuiten aguirtu sala
10 resuciteduric, eta sirealaco âen bios gogorrecoac sinistuiteco au misterioau. Emon
eusen entenditan ya eldu sela egune partitaco vere Aite Eternoagana, Ceruetara,
bilduiteco areric Espiritu Santue. Esan eusen yoan litesala Oliveteco mendire, nora
yoean ygoiteco ceruetara euren presenciyan. Yoan sirean cenaculurean amaca
Apostoluic, Mariye Santisimea, yrurogueta amavi discipuluic eta veste fiyel christiñeu
15 vere doctrineari siguitan eusenac (gustic sirean eun eta ogei persona, segun diñoean
Venerable Madre Maria Jesus de Agredac), eta gustiyec procesiño e devotoan yoan
sitean mendiyaatara, sein dagoan Jerusalenen urrean. Berlan junteu sitean an angueruic,
santuic eta Abranen Senoric atera ebesan arime santac; eta berlan Mariye Santisimea
echun sen belaunico bere Seme Dibinuen oiñetara eta escatu eusen bere aserengo
20 bendiciño eac; adoradu eben veneraciño eac eta humildede andigas. Lomismo eguin euden
beste fiyel an egosanac, eta emonic gustiyei bere bendiciño eac, diñoean legues San
Lucasec: *et elevatis manibus* <34> *suis benedixit eis*, despediuric euretaric arpegui
apacible eta magestuosoagac, juntedu ebesan escuic eta vere virtuteagac alzadu sen
lurrean. Echi ebesan vere oiñeen seña leac lurrean, eta movimintu suave bategas yoean

6-8 amaca: ‘hamaika’, Mik. aurrera dokumentatua Bizkaiko sartaldeko lekukoetan (Añibarro) (*OEH*, s.v. *hamaika*). **6-12 bilduiteco:** Bizkaiko tradizioan Añibarroren eta XX. mendeko lekukoetan bakarrik aurkitzen du *OEH*-k (s.v. *bildu*), baina Arabako euskaran Lcc.-ren lekukotasuna badago ‘amontonamiento’ gauça asco bildua’. || *Oliveteco mendire:* ‘Olibetako mendira’. **6-13 ygoiteco:** -o bukaeradun partizipioa izanik (cf. 2-37 *acordarasaiten*, 18-85 *Ygueraiten*, 24-120 *erasoiten* ...), -ite aditz-izen atzizkia darabil (cf. § 4.2.3.2). **6-15 segun:** ‘-ren arabera’ (gazt. según). **6-17 mendiyaatara:** ‘mendietara’, <aa> bikoitza artikulu zaharrarekin erlazonaturiko analogiatzat jo dugu (cf. §§ 4.2.1.5; 4.2.2.8). **6-19 aserengo:** ‘azken, azkeneko’. **6-22 arpegui:** ‘aurpegi’, sermoitegiko adib. guztiak dira arhasierarekin, eta hau da maizen ageri dena mendebaldeko testuetan (*OEH*, s.v. *aurpegi*).

6. Sexto articulo de el Credo *en bascuence*

25 ygoiten cerure, vere asean eroanic aec lelengo Elesaco semeen biosac, seinsuc sispuru
eta negarres siguitan eusen afectoagas. Au de misteriyoa proponitan deuscune
evangeliyoac eta celebretan dabena gaur Eleseac (au de misteriyoa obea consideretaco
seinde expliquetaco verbeagas). Euren begui bisterean urrun eldu sanean, odei gustis
30 eder batec estaldu eben euretaric: *et nubes suscepit eum ab oculis eorum*, diño San
Lucasec. Etosan odeiyatan Aite Eternoen personea recibitan bere Semea, eta bere
magestadeagas aen beste mille angueru. Eldu senean emon eusen bere amoreco abrasue
Aite Eternoac, seinec alegradu ebesan barriro angueruic eta santuic, eta â procesiñoen
dibinue eldu sen Ceruetara.

Detenidu gatesan eben pisque baten consideretan, â ceruco sarrerea gloriyeco
35 erregueena bere acompañamintu gustigas. Contu eguin deigun gagosala ensuten â
musique celestiala, angueruec entonetan eudesan canta alabanzascoac: O, se fiesteâ â,
iños esana ecusi es ceruen eta es lurrean! Ser esango euden aec angueru euren
acompañamintuin yoasanac? Esango eusen onec Ceruin egosanai “Idigui eguisues
40 principeac, idigui eguisues ceuroen ate eternidedecoac” (basuc esaten euden), eta beste
basuc esaten euden: “alzau bites eta egon bites idiguiric sartu dinsat bere erreinuin
Ceruco erreguea eta virtuteen Jaune; idigui eguisues se ya dator mundue redimidu
dabena, ya alzadu ditus guisonac bere iseiten dignidede alture, ya dauque mortalac
derechoa logretaco diche galdu eudena pecatuegaitic, gorderic Jangoicoen leguea. Urten
eguisue, urten eguisue cortesanu celestialac, ecusico dosue gueure erreguea gustis
45 ederric bere Ama Santisimeagas”. Alegriye <35> onegas, esin expliquedu leiyenagas,
eldu sirean ceru alture, angueruec eta santuic cantetan eudesala alabansasco canta
barriyec, esanic euquen legues Davidec: *Cantate Domino canticum novum*. Aite

6-25 *semeen*: ‘semeen’, bokal hirukoitza bereziaz (ik. *autoridedereen*, 24-61; *leen*, 14-50; *deseetea*, 45-10 eta *seen*, 12-71). Bokal bikoitza duen erabilera berezia kontuan izanik horrela ustea erabaki dugu, baina adibideak bakanak eta testuinguruak nabarrak izanik (2 genitibo, ablatibo bat, *lehen* hitzaren adibide bat eta hiatodun partizipioa duen aditz bat), egiantzeko zaigu pentsatzea idazte akatsa izan daitekeela (cf. § 4.2.1.5). || *sispuru*: ‘hasperen, negaz-zotin’, mendebaldeko hizkeretan hasierako testuetatik lekukotua. **6-28** *urrun*: bizkaiko tradizioan *urrun* erabiliago den arren *urrun* dugu *Arrasateko erreketako kantuetan* eta *Zabalarenetan*, bai eta Mik. edo Añibarroen lanetan ere (*OEH*, s.v. *urrun*). **6-30** *Etosan*: ‘zetozen’. **6-34** *eben*: ‘hemen’, aldaera zahar hau behin baino ez dugu lekukotzen sermoitegian (vs. 31 aldiz *emen*), hala ere, egun Zuberoan gordetzeaz gainera, ezaguna mendebaldean ere, XVI. mendeko lekukoetan (Laz., Gar., *IC* kronika eta Lcc.). **6-37** *aec angueru euren acompañamintuin yoasanac*: ‘haiek euren laguntzan zihozzen aingeruak’. **6-38** *Idigui* ‘ireki’. **6-39** *ceuroen*: ‘zeuen’ (cf. 1-150 *seuroen*), lepokaria islatzen duen adibideetako gutxietako bat dugu hau (cf. § 4.2.1.4). **6-40** *bites*: ‘bitez’, **edin* adizki jusiboa. **6-42** *iseiten*: ‘izatearen’.

6. Sexto artículo de el Credo *en bascuence*

eternoac imini eben bere alde escoatati bere seme Jesuchristo gueure Jaune. An dago
Christo, Jangoicoa dan partes, igualmenteco gloriyegas seinde bere Aite Eternoac; an
50 dago Christo, guison dan partes, beste bienaventure[du] gustic beño gloriye
gueiyegogas (eta au esan gure dau esaten dogunean Credoan an dagoala bere alde
escoatati); an dago gure naturaleza humanea Jesuchristoen personan eta ongo da
eternamente gozetan gloriye merceduric dauquena vere obracas: pena, tormentu eta
eriosea gugueitic padecidu ebenagas. An yagocu beguire eta areric guei eiten deuscu,
55 asistitan deuscu eta emaiten deuscu animue imitedu deigunset padecitean, sufritean;
lagundu deiyogunset guero gozetan gloriye. Eta estogu gure entendidu? O, gueure
isutasun andiye! Selan estogus idiguiten gueure beguiyec adinebeste argui euquiric?
Selan escara esforzeta padecitara, sufritara, Jesuchristogaitic? Beguiretu daigun, neure
christiñeu maiteac, selan gueure maisu Jesuchristoc gozetaco gloriye, convenidu isen
60 san padecidu leguila adinebeste; selan bada esperetan dogu gozetea cerue padecidu
bagaric? Imini eguisu seure consideraciñoa, christiñeu, â Jaun Soberanu Aite Eternoen
escoatati dagoanaatan Ceruen eta ecusi eguisu selan Aite Eternoac ensalsadu eben
gustic beño gueiyego bere Seme Dibinue, sein humilledu sen gustic beño gueiyego
curseen egurregaitic, seinetan emon eben eriosea, magestadeco tronue emon eusen,
65 seinetan dagoan gloriyes beteric; aranzasco coroeagaitic gloriyeco coroea; lapurren
compañiegaitic angueruen compañiye; guisonen afrenta eta blasfemiyac gaitic espiritu
celestialen honrrac eta alabanzac; eta yasi selaco lurren basutasunera alzadu eben
ceruric altuenera. Nor isengo <36> da estabena isen gure humila Jesuchristogas, iseiteco
ensalsadue Christogas? Beguiretu christiñeuec, humildea isengo da ensalsadue eta,
70 alcontrario, soberviyoa humilledue: *qui se humiliat &a*. Verac, Jaun Dibinuic, diño. Ser,
dago ser eransun onetara? Baye esango daude basuc, adinebeste trabaju bagaric salvadu
gueiteques. Bada, gaurco evangeliyoac diño sinistuiten ditusenac fedeco misterioac eta
bautizeduric dagoanac salvaduco dala: *qui crediderit et baptizatus fuerit salvus erit*.

6-48 *alde escoatati*: ‘eskuineko aldea’, mendebaldeko hizkeretako (B. eta A.) testu zaharrenetan aurkitzen da, aipagarri egiten zaigu testu hauetan (Bet, VJ, Mik, Cap...) *eskoa* hitza prosekutiboarekin (-ti) erabiltzen dela testuinguru honetan (‘a la diesta’ Bet. & Cap., ‘a mano derecha’ Mik.). **6-49** *igualmente*: ‘berdina’, jatorrian aditz laguna den mailegua adjektibo legez erabilia. **6-52** *ongo da*: ‘egongo da’, *egongo* geroaldiko partizipioarekin baino ez du halako uzkurdurarik egiten idazleak (ez dago (*e)on* ‘egon’ edo (*e)oten* ‘egoten’); hala ere modu nahiko sistematiko batean egiten du: 33 *ongo* lekukotzen dira sermoitegian, zazpi *egongo*-ren aurrean (ik. § 4.2.3.11). **6-54** *yagocu*: ‘dagokigu’, mendebaldeko hizkeretan bezala (cf. FHV §9.5), datibodun trinkoak *j- (<*dj-) hasiera dute. **6-57** *isutasun*: ‘itsutasun’. **6-64** *seinetan emon eben eriose*: guk horrela ulertzen dugu esaldia: ‘zeinetan [Jainkoak] emon zuen heriotza’; horrela balitz, datibo bat beharko genuke, *Kristori*, adizkiak islaturik ez dena (cf. § 4.2.4.2). **6-67** *basutasunera*: <s>k [j] hotsa adieraziko luke, eta maileguaren zahartasuna erakutsi, gaztelerak XVIII. menderako [x] ahoskera baitzuen *bajo* hitzean (cf. § 4.2.1.4). **6-68** *humila*: ‘apala’. **6-70** *alcontrario*: ‘aitzitik, ostera’ (gazt. *al contrario*).

6. Sexto artículo de el Credo *en bascuence*

Baye bear da entendidu fedeagas bacarric escareala salbaduco, salvateco bear da fede
75 obracas. Â dala fede eguiyescoa diño San Gregoriuc, estabena contradecitan costumbre
deungueagas, diñoena verbeagas. Diño San Pabloc christiñeu falsoac gaitic verbeagas
diñoeala esautuiten daudela Jangoicoa, eta obracas uquetuiten daudela. Bada, diño San
Juanec, se diñoena sinistuiten dabela Jangoicoagan, gorde bagaric bere mandamintuic,
dala falsoa: *qui dicit se nosse Deum et mandata eius non custodit mendax est*. Isenic
80 bada au alan, diño San Gregoriuc, bear dogu esautu gueure fedeco eguiye gueure
visiseen consideraciñoean, eta orduin gara christiñeu eguiyescoac, cumplitan dogunean
obracas prometitan dogune verbeagas; eta ser deusegu Jangoicoari prometiuric, eta nos?
Santu berac diño bautizedu guinteanean gustiyoc prometidu guenguin, aite pillecoen
medius, renunciyetan guendusela Satanasen obrac eta munduco pompa gestic.
85 Satanasen obrac dire pecatu genero gustiye, eta deabruen ponpac dire ambiciñoea,
soberviye, vanidedea; alan diño conciliu sagraduic eta santuic. Eta preguntetan dot,
gordetan da ondo au promesa Jangoicoari eguin gueusena bautismuin? Gordetan da
ondo â renuciye? Ecusi begui bacoachac, beguiretu begui bacoachac <37> eta ecusico
dau gustiye alrebes eiten dabela; usenean dire asco christiñeuc baye obretan es. Ô
90 Jangoico, a se guichi acordetan direan christiñeuc Jangoicoari emonic deuseen verbea
bautismuin! Espasara bada, fiyelac gordetan Jangoicoari an prometiduric deusesune,
selan gure deusue euqui seguisela Jangoicoac vere amistedeco graciyan eta guero eroan
saguisela Cerure? Selan gure dosue euqui saguiyesala christiñeu eguiyescosat? Â
bacarric da christiñeu eguiyescoa, gordetan dabena Jangoicoari emonic deusen verbea
95 bautismuin, diño San Gregoriuc. Ô, se engañaduric bisi direan christiñeu asco!
Veguiretu sates esoasala ondo igoiteco cerure Christogas! Bada, ser eguin bear dogu ara
igoiteco? Ensun deiyogun San Agustineri, seinec verba guichiten emaiten deuscu
doctrine ymportancicoa, diño igon ebela cerure gueure salvadoreac, baye orregaitic
estogu iqueratu bear lurean; eroan daigun ara gueure entendimintue eta euquico dogu
100 emen descansue. Eta emen bisi garean artean igon daigun biosagas eta Christogas
cerure, se datorrenean judiciuco egunean, orduin siguiduco deusegu gorpusegas bere.

6-83 *prometidu guenguin*: ‘promestu gintuen’, aoristo perifrasi. || *aite pillecoen*: ‘aitabitxia’, hapax bat dugu hemen; alabaina, Lcc.-ren C eskuak “comadre” sarrerari emandako *pilaco ama* ordainaren kide genuke (A eskuak “compadre” *aitaponteco* itzuli du; *OEH*, s.v. 2 *pila*). **6-84** *-en medius*: ‘-en bitartez’ (gazt. *por medio de*) **6-88** *begui*: ‘beza’. **6-89** *alrebes*: ‘alderantziz’ (gazt. *al revés*). **6-91** *Espasara*: zara-k plural adiera du hemen (cf. esladiko *fiyelac* eta *deusue*). **6-93** *Â*: ‘ha, hura’. **6-98** *ymportancicoa*: ‘garrantzitsua’ (gazt. *de importancia*). **6-101** *siguiduco*: ‘jarraituko’, sermoitegian *segidu* (7 adib.) eta *sigidu* (8) formak baditugu, eta azkenengo hau euskarari aurkitzen ez bada ere (cf. *OEH*, s.v. *segitu*), gazteleratik horrela mailegatua heldu zitekeen (*CORDE*, s.v. *siguir*).

6. Sexto articulo de el Credo *en bascuence*

Baye yaquin bear dogu, christiñeuec, estabela igoitzen Christogas soberviyec, es avariciyec, es luxuriyec. Viciuc areanec bere estau ygoitzen cerure Christogas, eta alan, deseetan badogu yoatea ara, bear deusegu echi viciyo eta pecatu gustiri. Bada eurec
105 gauquees emen cateacas eta grilluicas preso legues; urrutu daigusen, bada, onec cateoc Jangoicoen asistenciyeegas batera, esateco Jangoicoari Davidegas: *dirupisti vincula mea, tibi sacrificabo hostiam laudis*. Prosiguitan dau santuic bere doctrineagas eta diño: “Gaur celebretan dogu Ascenciñoeco solemnidenea; celebretan badogu Jaun Dibinuen ceruetara igon eben eguneu veiar dan devociñoegas eta atenciñoegas, santamente
110 celebretan badogu igon daigun Christogas, <38> equi daigusen ara gora biosac, baye humildedeagas”. Ara milegro andi bet: Jangoicoa dago altu su alzetan basara, basara sobervioa iñes eiten suganic, baye humildea basara dator seugana, eta segaitic? *quia excelsus est, et humilia respicit et alta a longe cognoscit* ‘aituiten deuselaco humildeay urreric alzetaco ceruguño, eta sobervioac esautuiten dituselaco urruneric basetaco,
115 humilletaco”; eta alan, soverbiye da condenaduen señale ciertue. Preguntetan dau Davidec noc ygongo daben cerure: *quis ascendet in montem Domini &a.* ‘noc igongo daben &a.’; eta eransuten dau berac, eta diño: *innocens manibus et mundo corde &a.* ‘escus garbi danac eta bios garbicoa’. Au de obretan dabenac artestasunegas; estabenac eiten tramparyc, engañuric; estabena ostuiten bestena; dauquena bios garbiye
120 deshonestide[de]co mancha bagaric, odiyoen eta embidiyen uguerra bagaric; dauquenac arime piadosa eta caritativea ametaco areriyoc eta oraciño eiteco; obra misericordiscoetan empleetan dana: yaten emaiten gosea dauqueanari, edaten egarri danari eta yansiten billosic dagoana, visitetan gasoac... Oliveteco mendiric ygon eben Christoc cerure. Oliván diño santuec dagoala misericordiyen significuensea; eta alan,
125 gure badosu ygon cerure Christogas isen sates misericordioso: *beati misericordes*. Eiten dosusen obra misericordiscoac isengo dire merecimintu presente euquico dabesanac Jesuchristoc, eta emongo deusus motivuset sentenciye favorable emaiteco Judiciyoco egunean: *esurivi et dedistis mihi manducare, sitivi &a.* Ô Oliveteco mendi dichosoa, piedade eta misericordiyeco mendiye yoateco Cerure!

6-103 *Viciuc areanec bere*: ‘biziorik ez, bizio bat ere ez’, *arean bere* egituraren erabilera ergatiboa dugu hemen, eta Añibarrok hiztegian dakarren arren (*areanek bere* “ninguna cosa, con la negación”), ez omen da testuetan erabilera ergatibo honen adibiderik aurkitu (ik. *OEH*, s.v. *arean*). **6-105** *gauquees*: ‘gauzkate’. || *grilluicas*: ‘girgiluz’. || *urritu*: ‘urratu, apurtu’. **6-114** *urreric*: ‘hurbiletik’. || *basetaco*: ‘jaisteko’, <s> [j] ahoskera adierazten du (cf. § 4.2.1.4). **6-118** *escus garbi*: hemen dugun *garbi* aditza instrumentalaz lagunduta ez omen da oso ohikoa (cf. *OEH*, s.v. *garbi*). || *artestasunegas*: ‘zuzentasunarekin’. **6-120** *uguerra*: ‘herdoila, zikintasuna’. **6-123** *billosic*: ‘biluzik’, Bizkaiko autoreetan aldaerarik erabiliena *billos* dugun, hemen bezala [o] bokalez eta [λ] palatalarekin. **6-124** *Oliván*: oliba, olibondoaren frutua. **6-126** *presente euquico*: ‘gogoan izango’.

6. Sexto artículo de el Credo *en bascuence*

130 Contetan dau San Bernardino de Senac selan cavallero ilustre devoto batec,
seinec empleadu eben vere visise gustiye obra piadoso eta onetan, determinedu eben
yoatea visitetan âec lecu santuic non Jesuchristoc padecidu eben gugueitic. Prevenidu
sen vere viageraco confesauric eta comulgueuric fervore andigas. Yoan san eta elduric
<39> Nazaretera, visitedu eben lélengo au lecue, consideretan ebela encarnaciñoea
135 Jangoicoen Semeena, sein eguin sen guison Mariye Santisimeen entrañetan visi sanean
Nazareten. Yguero san Belenera eta an consideradu eben veneraciño e andigas Niño
Jesus Aite Eternoen Semea estrami bateco humildedean echunic. Prosiguidu eben bere
viagea lecu gustiye aetati, non Jesuchristoc obradu eben gueure redemciñoea,
consideretan ebesala fervore andigas euretan signifieuric egosan misteriyoc, sirean
140 legues: Getsemanico hortuco oraciñoa, selan preso eguin euden, Anas eta Caifasen
esean padecidu ebesan despreciyoac eta afrentac; Pilatosen esean azoteac; aranzasco
coroea; curzea eroan ebena lepoan Jerusalengo calletati yausiten sala eta alzetan sala,
eta selan il aguean veragas Calvariyocho mendire eldu sen, non isen san afrenta andigas
crucifiquedue gueure oneraco. An gustis tiernu, amoroso eta compasibu, consideraduric
145 Christoen eriosa amantisimue, gure eben veragaitic emon visisea; baye acordauric falta
yacala visitetaco Oliveteco mendiye noric ygon eben Christoc ceruetara. Bayoan ara
Jaun Dibinuen amoreagas eresequiric bere viosa eta belaunico yarriric lecu santuatan
non Jaun Divinuic echi ebesan vere oiñen señalear ygon ebenean ceruetara, asi sen
devociño e andigas, sispuru eta negarres esaten Jangoicoari: “Ea neure Jaune eta
150 Jangoicoa, ya seure asistenciye gas visitedu eta veneradu dodas âec lecu gustiyec,
seinsuc echi sendusen santifiqueduric eguinic euretan finezaric andiyenac gueure
beneficiuraco. Ya seguidu deusut onetagiño, estago ser gueiyego ibili munduin.
Goasan Jaune Cerure, seguitan viage seuc eguin senduinari nire oneraco; se dichosoa
ninsatean onereanic baniñoa Cerure seu ecusteco! Eroan naguisu Jaune seugana, sein
155 sarean neure visisea eta neure arimeen ondasune”. Ensun ebesan Jangoicoac bere
erregüic, eta alan Jaun Divinuen amore andigas il sen eta vere arimea yoan san Cerure,
gozetan á Jaun Dibinu amadu ebena mundu onetan. O se dichosoac guinatequean

6-130 *San Bernardino de Senac*: XV. mendeko fraile frantziskotarra; bai hemen bai Catalina de Siena aipatzetakoan (13-44) hiriaren izentzat *Sena* darabilela. **6-132** *Prevenidu*: ‘prestatu, neurriak hartu’. **6-142** *lepoan*: ‘bizkarrean’, mendebaldeko hizkeretan duen esanahiarekin (cf. *OEH*, s.v. *lepo* 2). **6-143** *il agueanean*: ‘hiltzeko uean’, Orozkon eta Arratian lekukotzen du Azkuek, eta testu zaharretan Añibarrok baino ez digu honen lekukotasuna eskeintzen (*OEH*, s.v. *agin*). **6-154** *ninsatean*: ‘nintzatekeen’ –kegabeko potentzial zaharra (cf. § 4.2.3.6). || *baniñoa*: ‘banihoa’.

6. Sexto artículo de el Credo *en bascuence*

imitedu baguengui au! Eguin deigun al daigun moduin eta ygon daigun siquiera viosagas veneretan, adoradu eta alabetan Jesus Divinue Ceruen. Amen <40>

160 *San Lucas, none oportuit pati, et ira intrare in gloriam suam; si
convino que Christo padeciera para entrar en la gloria siendo suia;
como queremos conseguir su gloria sin padecer trabajos, adversidades
&a.; sin mortificar nuestras pasiones y apriedes desordenados. Regnum
Cælorum vini patitur et violenti rapiunt illud. Dice Christo, y con el
165 dibino amor se hace suave el yugo de su santa lei: Yugum enim meum
suave est, et onus meum lebe. Hoc est yugum dilectionis et amoris qui
amat, non laborat. con este fino amor hagamos todos los dias actos de
contricion proponiendo antes morir que pecar, antes que pecar morir,
para lograr la gloria eterna. Ad quam nos perducatur &a.*

33 5 *fedeco*: leh. *fede*, *co* gainean gehitua. 6 *bada*: Aurretik *bada*, tatxaturik. **34** 25 *semeen*: jat. *semeeen*; leh. *semeac*, amaierako bi *e* horiek *ac* tatxatzeko erabiltzen ditu. || *biosac*: gainean gehitua. 37 *euren*: aurretik tatxoi bat, *er...an?* **35** 48 *dago*: leh. *dag*, *o* gainean gehitua. 52 *da*: jat. *dau*, gainean gehituriko *u* batekin, dirudienez gaizki zuzenduriko *da* baten aurrean gaude. 54 *ebenagas*: leh. *ebenag*, *as* gainean gehitua. 59 *Jesuchristoc*: leh. *Jesuchristo*, *c* gainean gehitua. 60 *dogu*: gainean gehitua. 64 *emon eusen*: gainean gehitua. **36** 71 *eransun*: *r* azpian zerbait dago idatzita. || *trabaju*: leh. *trabju*, bigarren *a* gainean gehitua. 72 *evangeliyoac*: jat. *evengeliyoac*. 73 *dagoanac*: leh. *dagoana*, *c* gainean gehitua. 77 *daudela*: leh. *dadela*, *u* gainean gehitua. 79 *et*: jat. *eta*. 86 *Sagraduic*: leh. *Sagradui*, *c* gainean gehitua. 87 *dot*: gainean gehitua. || *da*: gainean gehitua. 89 *bacochac*: leh. *bacocha*, *c* gainean gehitua. **37** 93 *dosue*: leh. *dosu*, *e* gainean gehitua. 94 *christiñeu*: leh. *Christo*, *i* azpian *o* irakurtzen dugula eta *ñeu* gainean gehitua 98 *deuscu*: gainean gehitua. || *ymportancicoa*: jat. *ymportancicoatea*; leh. *ymportantea*, *cicoa* gainean gehitua eta *tea* tatxatu gabe dagoela. 100 *dogu*: amaieran tatxoi bat, *dogun?* 103 *areanec*: leh. *arenec*, bigarren *a* gainean gehitua. 105 *viciyo*: leh. *viciyu*, *o* azpian *u* irakurtzen dugula. 108 *santuic*: leh. *santui*, *c* gainean gehitua. **38** 111 *suganic*: jat. *suganac*. 114 *aituiten*: ala *astuiten* edo *artuiten?* 116 *dau*: gainean gehitua. 118 *dau*: gainean gehitua. || *et*: jat. *eta* 122 *ametaco areriyoac eta oraciño eiteco*: gainean gehitua. Azkenengo zatia ez da ondo irakurtzen, goiko lerroko hitzek estaltzen dutelako. 131 *batec*: jat. *batet*. **39** 136 *eguin*: leh. *egui*, *n* gainean gehitua. 144 *eldu sen*: gainean gehitua. 145 *crucifiquedue*: leh. *crucifique*, *due* gainean gehitua. 147 *mendiye*: gainean gehitua. || *eben*: gainean gehitua. 153 *beneficiuraco*: leh. *benefiq]*, *c* azpian *q* irakurtzen dugula. Bestalde, bigarren *i* gainean gehitua. 154 *eguin*: leh. *egui*, *n* gainean gehitua. 155 *baniñoa*: hitz amaieran tatxoi bat, *baniñoaric?* 157 *vere*: aurretik *alan* dugu, tatxaturik. **40** 165 *amor*: gainean gehitua. 166 *et*: jat. *eta*.

6-158 *Eguin deigun [...] eta ygon daigun*: Euskara Zaharreko adizkietan *a/e* oposaketak adizkia bipersonala edo hirupersonala dela adirazten zuen, esaldi honek erakusten digu *egin* laguntzailletan oposaketa galbidean dela *a* eta *e*-dun adizkiak baititugu adiera berean. || *siquiera*: ‘arren, ba... ere’ (gazt. *siquiera*) **6-159** *veneretan, adoradu eta alabetan*: hitz zerrendan aditz-izenak eta partizipioa lotzen ditu, agian forma biak izen funtzioaz darabiltzalako (cf. 14-9 *negar eite*, 14-71 *guedar eite modu*, 25-36 *aguinduitegaitic*, 44-139 *yrepaste*, 45-24 *verbeeite modu*).

<41>

Saspigarren articulue Credoan

Credoan diñogu: “aric etorrigo da ilec eta visiyez juzguetan”. Sinistuiten dogu articuluonetan munduen cabuen etorrigo dala Jesuchristo ilec eta visiyez juzguetan; verac, Jesuchristoc, esan eben legues San Matheo apostoluen aoti: *congregabuntur ante*
5 *eum omnes gentes*. Orregaitic ysengo da a judiciyo universal, seinetan junteduco direan genteac, gustic bere aurrera. Esaten da etorrigo dala juzguetan visiyez: onec dire perseveradu eudenac graciyan ileitartiyo. Juzgueucoitus bere ilec: onec dire il sireanac pecatu mortalean, seinden arimeen eriosea. Gueroreengo egunaatan ongoire visi direanac munduonetan, onec ilgoire gustic istante baten baye berlan erresuciteduco dire,
10 eta orregaitic bere esaten da etorrigo dala ilec eta visic juzguetan. Ensungo da aserengo egunatan trompeta baten voz yqueragarriye, seinec gueyyeingo deusen Adanen ume gustiyei judiciyora, *Surgite mortui et venite ad iudicium*, eta instante baten resuciteduco dire gustic, onac eta deungac, juzgueuco ditusen juez soberanuen beguire. Urtengo dau Jesuchristoc Cerureanic angueruec eta santuic lagun ditusela, yarrico da
15 grandeza eta magestade andico tronu beten Jerusalenen ganean airean Oliveteco mendiyen urrean, eta Josephateco va[ll]en eta Calvariuco mendiyen alboan, escogitan ditusela âpropositu aec lecuac seinetan obradu eben gueure redemciñoa, aec lecuac seinsuetan padecidu eben eta yguero eriosea gure pecatuic gaitic, an ecusi daguiyensat pecadore desconocidu yngratoac selan malgradu euden vere odola, emon ebena
20 eurecaitic. Judiciyoco eg[un] tremendo eta yqueragarri gueieiten deuse Letra Sagraduic “Jaun Dibinuen egune”: *Dies Domini magnus et terribilis*. Egun <42> gustic dire Jangoi[co]enac; segaiti bada egunaari gueyyeten yaco “Jaun Dibinuen egune”? Da errazoea egunaataguiño, isen sirean egunec gustic munduenac eta guisonenac; baye egun tremendoac acabaduco daben legues mundu gustiye eta guison gustiye, orregaitic
25 gueyyeten yaco bacarric Jaun Dibinuen egune: *Dies Domini*. Orain guisonac visise

7-3 *cabuen*: ‘amaieran, bukaeran’. 7-7 *ileitartiyo*: ‘hil arte’, birritan dugu sermoitegian erabilia, biak aditz-izenarekin batera *-tartiyo* (<*-te + *artio*) forman. Hegoaldean *artio*-ren adibide zaharrak Nafarroan bakarrik dira (*OEH*, s.v. *artio*), mendebaldean *artean* erabiltzen delarik (gure testuan ere testuinguru honetan 14 aldiz lekukotzen da *-t(e)artean* formatan). 7-8 *Gueroreengo*: ‘azken’ (cf. 29-29 *guerorengo*), gutxi dokumentaturiko hitza dugu, Azkueren arabera Arratian, Plentzian eta Orozkon erabiltzen dena; idatziz baina, Añibarrok, *VJ*-k (*geroengo*) eta Antzuolako dotrinan baino ez dago lekukotua (cf. *OEH*, s.v. *gerorengo*). Forma aldetik, hauxe da bokal bikoizdun adibide bakarra (cf. § 4.2.1.5), beste zortzi adibideetan bakarrez agertzen dira. 7-16 *va[ll]en*: lerro amaieran egonik, ez da <ll> ikusten. 7-17 *âproposito*: nahita (gazt. *a proposito*). *usetan*: ‘erabiltzen’. 7-22 *segaiti*: hau bezalako *-k* gabeko motibatibo atzikia 6 adibideetan baino ez dugu aurkitzen sermoitegi osoan zehar (ik. § 4.2.2.2).

7. *Saspigarren articulus Credoan*

mortal onetan usetan ditus egunec eta demporea selan antojetan yacan edo gustetan yacan, baye elduco da egun terriblea seinetan Jaun Dibinuic gustic jusgueduco daben: *cum accepero tempus, ego yustitias yudicabo*. Ysengo dala egun yqueragarriye egunaâ diño Joel profeteac, segaitic ese alzaduco dire criyete gustic pecadoreen contra,
30 arzaiten daudela venganza justoa deunguero useduco ebelaco euecas Criyedoreen ofensan.

Orain da demporea aprovechetaco Jangoicoen misericordiyegas, ondo useuric veragas; bada, egunaatan onensat egon arren gustiye misericordiye deungueensat ysengo da gustiye justiciye. Yl sen Christo cursean non soldadu betec idigui eusen
35 bulerra edo costadue; diño expositoreac sala alderdi escoacoa ydigui eusena eta heridu. Yaquin deigun segaitic isen san heridue alderdi escoacoa. Esque Jesuchristo cursean egoan juezen tragean: *Nunc yudicium est mundi*, esan eben Jaun Dibinuic berac. Dirudila, diño San Ambrosiuc, aserengo judiciyoa euquitea Christoc cursean lapur bet dichosoa alde escoatati eta beste bat condenadue esquerretati: *unus a dext[e]ris et alter*
40 *â sinistris quia sic exit in die yudiciy*. Ser gueyyego? Diño San Agustinec: *Unde sacramenta manarunt*, Christoen costadu ydiguiric urten eudela sacramentoac, graciye eta misericordiyeen iturriyec isen bidi. <43> Bada, ydiguiye escoaco alderdiye eta es esquerrecoa entendidu deingunset onensat, seinsuc direan alde escoatati ongo direanac, eingoireala mise[ri]cordiyeco atead sabalic; baye deungueensat, seinsuc ongo direan
45 esquerretati, ongo direala gustis sarraturic. Alan yaso equiyen evangelioco doncella neciyoai eldu equiyenean Jaun Dibinue contu escatuiten bere judiciyoan, topadu ebesan caridedeco oriyoa bagaric eta condenadu ebesan Infernuetara, da es eusen serbidu gueiyes egottea misericordieco atetan, segaitic topadu eudesan gustis sarraturic: *Clausa est yanua*. Disponiduric gustic euren lecuitan, manifestauco dire mundu
50 gustiyen aurrean pensamintu, verba eta obra gustiyec, ocultuan egon sireanac bere. Ydiguico direala, diño San Juanec, conciencyeco liburuic, egon sireanac sarraturic visisaaco demporean; an ecusico daude gustiyec nor isen san munduen santue, nor pecadorea, nor justoa, nor hipochritea; pensaminturic chiquerren-chiquerrena, ona edo deunguea; an ecusico dire justoen deseo onac, intenciñoeric ocultuena; an ecusico

7-30 *arzaiten*: txistukari lepokaria grafikoki bereizten duen hitz bakanetako bat dugu, gainera, badirudi <z> honen gainean <s> etzan bat idazten duela. **7-37** *juezen tragean*: ‘epaile paperean’. **7-38** *Dirudila*: ‘iruditzen duela’. **7-43** *deingunset*: NOR-NORI-NORK adizki zenbaitetan *n* ageri da erro eta petsona atzizkien artean (cf. 4-120 *eunquesan*; § 4.2.3.10). **7-45** *yaso equiyen*: ‘gertatu zitzaion’ aoristo perifrasi. **7-47** *oriyoa*: ‘olioa’. **7-53** *chiquerren-chiquerrena*: ‘txikien-txikiena’, *txiker-txikar* aldaerak dira bizkaieran hobekien lekukotzen direna (OEH, s.v. *txiker*), eta gure testuan hau gutxiengoan dago (5 adib.), *txikir* baita erabiliena (15 adib.) (ik. 12-51 *chiquirrena* eta 22-12 *chiquiye*).

7. *Saspigarren articulus Credoan*

55 direan justoac ocultuin eguin eudesan obra onac, penitenciyac, limosnac, mortifiqueciñoac, eiteudesanac ôcultuyn euren humildedeagas. Diñoan legues David profeta santuic ateraco dablesala Jangoicoac arguitera vere escogiduen obrac, gueiyego honrraduiteco. Alcontrario, se deshorrrea, confusiñoea da afrontue isengo da deungueensat ecusi ditesanean euren pensamintu, verba eta obra gustiyec? An, fiel

60 christiñeuec, ecusico dire viyoseco pecatu secretoac; obrasco pecatu feoac, oqueluitan eguinec; an publiqueduco dire gustiyen aurrean pecatu esilic echiec losas confesiñoean eta solape eta escuseagas estaldu sendusenac; <44> an manifestaduco dire edo ecusico dire intenciño deungac, traiciñoac, engañuic, trampac, hipochresiyac; an manifestaucodire adulteriyoac; an ecusico dire adisquide falsoac, lisongeriyac, gusurrec eta odiyoac.

65 Valgame Dios! Vada, emon orain (diño San Juan Chrisostomoc) presentean dagoanen baten maldade ocultucoac publiqueu balites, elisateque isengo bastante es gueiyego aguirtuiteco munduin? Bada, ser isengo da angueru gustiyen eta guison munduco gustiyen aurrean? Nor fiyeducodala pecatu eiteco secretoan yaquinic publiqueduco dala mundu gustiyen aurrean? Noc echico dau pecatue losas confesau bagaric? Yaquinic

70 ciertu publiqueduco dala mundu gustiyen aurrean eta padeciduco dabela orregaitic eternamente; andiyegoa ysengo dala losea eta áfrontue, diño San Basilioc, sein de padeciduco daudesan penac Ynfernuiñ: *plus torquentur iniqui pe[c]catorum pudore in extremo iudicie quam cum fuerint igni eterno traditi*. Nor isengo da sufriduco dabena au afrontueu?

75 Manifestauric gustiyen concienciyac, es solamente onac honrraduiteco eta deungac afrentetaco, espadabere principalmente ecusi dinsat Jangoicoen justiciyen artestasune: eingo deuses cargu da acusesiñoac pecadore miserableai. An acuseuco eitues demoniyoac, angueru santuec, especialmente angueru guardacoac, justoac presente daganac, bacothen concenciye; eta ysengo dana yqueragarri andigoa, juez

80 soberanuec berac acuseuco eitus eta eingo deusees cargu yqueragarri. Eingo deuse cargu mesede eta beneficiyo eguineena <45> criyedu ebeselaco merecidu bagaric, conservadu, redimidu adinebeste costaric, vere Elesara ecarri ebesalaco, áen piedade

7-56 *eiteudesanac*: ‘egiten zituztenak’. **7-60** *oqueluitan*: ‘txoko, bazter izkutuetañ’. *okelu* aldaera Añibarro, Astarloa eta Iturzaetarenean lekukotzen du OEH-k (s.v. *ukuilu*), Lcc-ren hiztegiac gainera. **7-61** *esilic echiec losas*: ‘lotsaz ixilik utziak’. **7-65** *Valgame Dios*: erdal esapidea. **7-69** *yaquinic ciertu publiqueduco dala*: perpaus osagarrietan *-la* da erabiltzen duen lotura atzizkia, ez mendebaldean espero litzatekeen *-na* (ik. 13-28 *estabena euquico*; cf. § 4.2.4.9). **7-71** *áfrontue*: ‘lotsa’ (gazt. *afrentar*). **7-76** *afrentetaco*: ‘mintzeko, makurrarazteko’. **7-78** *eitues*: ‘ei dituzte, omen dituzte’ (cf. § 4.2.3.11). **7-80** *eitus*: ‘ei dituz’ **7-81** *mesede eta beneficiyo eguineena*: ‘egindako mesede eta onurenak’. **7-82** *costaric*: ‘kosturik’, (gazt. *costa*).

7. *Saspigarren articulus Credoan*

andigas sufridu euselaco asco pacienciye andigas; eingo deuse cargo bacochari beste beneficiyo especialac eguin eusesanac modu ascotan; eingo deuse cargo pensamintus,
85 bervas eta obras eguin eudesan pecatu gustiyeena euren circunstanciyacas. An eyngo deuse cargo euren estadu eta oficiyoco obligueciñoecas se deunguero cumplidu euden, seinbet pecatu orregaitic cometidu sirean, seinbet escandalu eta exemplo deungueagaitic. An eingo deuse cargo seinbet pecatu cometidu sirean munduen cabuguiño euren visise deungueagaitic, eguin eudesan dañu espiritual eta corporaleena
90 visi ysenic, eta eingoytuesanac judiciyoco eguneguiño exemplo deungueagaitic. Eingo deuse cargo Jesuchristoc vere bisiseti, sein imini eben exemplarsat veratarata ajustedu leguiyentsat christeñeuec euren visisea. Eingo deuse cargo Marie Santissimeen visiseti eta santuen visisetati, seinsuc ysen sirean guisonac eurec legues; eta aun gentilien visiseti, animeliyeeneti eta veste criyature insensible gustitati; eta gustiyec conve[n]ciduco
95 ditues atrevidu ingrato desconociduset.

O, Valgame Dios! Selan ongo dire becatari miserableac an, estaquiyela ser eransun, aserengo sentenciyeen veguire, apelaciñoec bagaric, intercesiñoec bagaric, es Marie Santissime onec bere; Jues Soberanue gustis aserre, orduin misericordiye bagaric deungueensat; San Bernardoc diño gause yqueragarrigoric <46> estagoaala. Bolviduco
100 dau Juez Soberanuec vere arpeguiye alegre eta apacible alde escoatarata, eta voz dulce eta afableagas gustis esango deuse vere escogiduei: *Venite benedictis Patris mei &a.*, ‘Erdue neure Aiteen bendituic eta gozadu eguisue erreinu suensat dagoana disponiduric munduen principiyoreanic’; O se sentenciye consuelus eta dulzures betea! ‘Erdue gozetan; bada, etorri sinean padecitan; erdue coyitan frutue, bada, etorri sinean eroaten
105 nire legue santeen yugüe. Erdue trabajureanic descansure, negarretaric alegrire, guerrareanic betico baquera. Erdue se ya acabadu sen trabajue, ya acabadu sen dolorea, ya acabadu sen despreciyoa eta ya acabadu sen pecatu eiteco peligrue eta ni ofenditacoa. Erdue neure Aiteen bendituic, erdue, se bera bendiciñoec betetan satus suec gustiyoc: *benedi[c]tio illius quasi fluvius inundabit*. Benditea isen dila suen arimea, benditue suen
110 gorpuse, benditea suen bisisea, benditue suen eriosea, bendituic suen obrac, bendituic

7-86 *deunguero*: ‘gaizki, txarto’. **7-93** *gentilien*: *ee > ie* bilakabidearen adibide bakanetako bat dugu hemen (cf. §§ 4.2.1.8; 4.2.2.3), egileak normalean <ee> mantendu edo bakuntzen baitu (*ee > e*). **7-96** *becatari*: testuko *becatari* bakarra dugu hemen beste 10 agerpenetan betakari formapean dugu. **7-102** *Erdue* ‘etor zaitezte’, bizkaierazko tradiziko inperatibo honen *erdu* formak singularra eta plurala adierazten du hainbat egileetan, gureak baina sing.-pl. oposaketa darabil *erdu-erdue* formapeetan. **7-104** *etorri sinean*: ‘etorri zenean’ aoristo perifrasi. *coyitan*: ‘hartzen’, mendebaldeko hizkeretan, besteren artean, gure testuan ditugun *koiu* (adibide honekin) eta *koxidu* <cosidu> (10 adib.) auki ditzakegu (*OEH*, s.v. *kojidu*).

7. *Saspigarren articulus Credoan*

suen bareuec, limosnac eta penitenciyac: *Venite benedicti Patris mei*. Bendituic sare
neure Aiteenac, neure eta Espiritu Santueenac, sara neure Ama Santisimeen bendituic
eta seuroen ameenac. Gozadu eguisu neure graciye gas eta seuroen obra onacas irepasi
dosuen Ceruco erreinue: gozadu eguisu erreinu iños galduco estana, erreino iños
115 àcabaduco estana, erreino ondasun gusticas beteric dagoana infinitamente, erreinue
seinetan ysengo sarean regue bienaventuraduic. Erdue eta recibidu egisue neure seme
lastanac, adisquide fiyelac, neure curseen lagunec. Erdue <47> eta sartu saites neure
Aiten gozoetara.

O, sentenciye merecitan dabetesana trabajuric eta penitenciric andiyeenac! Noc
120 ensutarren au sentenciyau esteuse echico munduco gusti sitel eta laster acabetadireanai?
Elisateque eser emaita mille visise ensutarren Jesuchristo aoric sentenciye dichosoau;
selangoa isengo da contentue eta alegriye euquico daudena bere escogiduec ensuten
daudenean! Se parabienac emongo deunsesan arcaleri! Se alabansac eta graciac Aite
Eterno criyedu ebesanari, bere Seme erredimidu ebesanari eta Espiritu Santu animedu
125 ebesanari! Se bendiciñoec Mariye Santisimeari, angueru guardacoai, prediquedore eta
maisú yrecasi eusenai eta eguin eudesan obra onai!

Ensun esquero (diñoean legues San Bernardoc) pecadore desdicheduec, euren
tormentu andigoraco, justoen sentenciye, eta ecusiric galdu euden dichea euren gures,
bolviduco dau Jesuchristoc arpegui aserrea eta yqueragarriyegas eurecana esango deuse
130 (sein es ensutarren guragoco leuque egon Ynfernuen abrasetan): *discedite a me
maledicti in ygnem æternum &a*. ‘apartau sates madariquetuic niguenic seculeco sure;
apartau sates niguenic seuroen Jangoicoc seculé es ecusteco; apartau sates seuroen
ondasun caburic estauquenaganic seculé es gozetaco; apartau setes nire amistedereanic,
nire amparuric, nire reinureani[c], nire ondasun eta consuelu gustitareanic, eta neure
135 bienaventuraduen compañireanic; apartau sates neure Ama Santisimeaganic, seinec gure
isen eben ysen suina eta esend[u]en gure isen; apartau sates neure angueru eta
santuetaric; apartau sates niguenic madariquetuic. Ysen saites madariquetuic; <48>

7-111 *bareuec*: ‘barauak’. **7-113** *irepasi*: ‘irabazi’ Bizkaiko sartaldeko RS-en dago dagoeneko (zehazki, RUI erregelarik gabeko *irapazi*), eta testu modernoagoetan ere aurki dezakegu: Mik., J.P. Ulibarri, Arrigorriagako dotrina, Zabala... (OEH, s.v. *irabazi*). **7-116** *regue*: ‘errege’ bokal protetikorik gabeko aldaera. **7-120** *gusti sitel*: *gusti* deklinabiderik gabe egoteak bitxia da: agian hurrengo *s*-aren eraginez gertaturiko haplografia baino ez da (*gustis*), baina hitz elkartu bat ere izan daiteke *guztizital* ‘guztiz zital’ (cf. *guztiahaldun*, ..., OEH, s.v. *guzti IV*). **7-123** *parabienac*: ‘zorionak’. **7-127** *esquero*: sermoitegian *asquero* da aldaerarik erabiliena (60 *azker*o vs. 2 *ezker*o); *ezker*o hauek, –*u* ostean direnez, RUI erregelari egotzi diezazkiokegu. **7-128** *gures*: ‘gurariz’, *gura* izen legez erabilia. **7-130** *abrasetan*: ‘kiskaltzen, erretzen’. **7-132** *seculé es*: ‘inoiz ez’. **7-136** *suina*: ‘zuena’.

7. *Saspigarren articulus Credoan*

bada, esenduen gure isen bendiciñoa gause gustitan eta modu ascotan: madariquetuic ariman, madariquetuic gorpusean, madariquetuic potenciye eta sentidu gustitan, 140 madariquetuic egongo sarean lecuin, madariquetue izengo dosuen eternidedean eta euquico dosuen compañian, madariquetuic pobresa, deshonrea, afrontu, dolore egarri, goze, gaso eta eternamente eriosen maldiciñoa gusticas. Apartau sates niguenic madariquetuic, es mundure, es libertade visisan euqui senduenara; espada su eternora, á carcele esture, á calabozo infernalera, non ongo sarean demonioacas eta vere lagunecas. 145 Soas, madariquetuic, Infernure; bada, esenduen gure ysen nire graciye; soase erretara eta padecitan, es amar urteco, eun urteco, mille urteco... espada betico, aliviyoen esperanza bagaric. O selan heriduco ditusen miserableac sentenciyoonen errayoac! O, se dolorea andiyec ygueroco eitusen euren biozac! Angoac isengo dire llantuic eta negarrac, an blasfemiyac eta maldiciñoa Jangoicoen contra, Marie Santisimeen 150 contra; baye berlan demoniyoac susco garfiyoacas arrastauco eitues eta bota Infernure, ydiguiten dala lurre traguetao; an sartuco dire seculu es urteiteco. Eta berlan Jangoicoen adisquide dichosoac, ecusi asquero au execuciñoa desdicheduen erruqui bagaric (isen arren euren guresoac, semeac, anayec, adisquideac), ecusiric cumplitan dala Jangoicoen borondate gustis justoa, ordea andigas eta concierto andigas ygongo 155 daude ceruetara euren erregue eta capitae Jesusegas, cantetan alabanzac Jesuseri, seinen odola dala mediante idigui sen Cerutaco atea; seinen merecimintuic gaitic eta euren obra onac gaitic alcanzadu euden au diche caburic estauquenau, seinetan ongo direan Jaungoicoa Jangoico dan artean.

Au de, christiñeuc, <49> judiciyoa, seinen beguire sagosan: esan eguidesu, 160 christiñeu, ensun dosune da fabulereen bat? Ala dire fedeco eguiyac esin faltadu leiyenac? Ser diñosu? Sinistuiten dosu fedeagas alan yasoco dala? Sinistuiten dosu egongo sareala judiciyo onetan? Sinistuiten dosu isengo sareala condenadue edo

7-140 *izengo*: oro har <s> darabil euskal txistukari guztiak islatzeko (cf. § 4.2.1.4), baina lantzean behin <z> aurki dezakegu zenbait adibidetan. **7-145** *soase*: ‘zoazte, joan zaitezte’, agintera trinkoaren adibidea. **7-147** *sentenciyoonen*: artikulua hurbilaren *o-* eta hitz bukaerako bokala (*-a*) asimilatu dira <oo> bokal bikoitza sortuz. **7-148** *eitusen*: ‘ei dituen, omen dituen’. **7-154** *ordea*: ‘ordena’, mendebaldeko idazle zaharretan erabiltzen den forma, lantzean behin *ordena* orokorrarekin batera (*OEH*, s.v. *ordena*). || *conciertu*: ‘ordena’, *OEH*-k hitz hau aipatu ez arren, aipagarri da Lcc.-ren berriemaileak egindakoa; izan ere, *orden* hitzaren euskal baliokidetzat ‘conciertoa’ jartzen du, hasiera batean jarritako *ordea* borratuz. **7-155** *capitae*: ‘kapitain’. **7-157** *Jaungoico Jangoico*: sermoitegian zehar hitz honen aldaera bi hauek aurkitzen ditugu, oso portzentai ezberdinean bada ere: *Jaungoico*-k 46 adibide dituen bitartean *Jangoico*-k 500 adibidetik gora ditu. Azken forma hau, *VJ*-tik lekukotua, gutxiengoan ageri da bizkaiko testuetan (cf. *OEH*, s.v. *Jaungoico*). **7-160** *fabulereen bat*: [-ren *bat(zu)*] egiturak hainbat aldaera ditu sermoitegian: *-rean bat(zu)* (11 adib.), *-reen bat(zu)* (16 adib.) eta *-ren bat(zu)* (12). Ikusten denez, ablatibo zaharrenean (*-rean*) gainean eraturiko egitura dela eta gertaturiko aldaketa guztien pausuak erakusten digu.

7. *Saspigarren articulus Credoan*

salbadue? Erremediū bagaric egongo sareala Jesuchristoen escoatati edo esquerretati, eta isengo sareala edo betico dichosoa edo betico condenadue? Onec suerte biutaric sein
165 escogitan dosu? Gure dosu escoa alderdire ala esquerretara egon orduin? Yasebe, deseogas yaquine da gure dosule escoatara egon orduin, baye nora saroes obrac? Ser pretenditan dosu egonic pecatuin urte baten eta bestean? Nora saroes seure ecandu gaistoac? Nora saroes seure maldiciñoac, gorretoac &a.? Setan parauco dire sure ecandu deungac? Orain emongo baleuque sentenciye, se alderditera yoango sinateques?
170 Yresarri setes Jangoicoagaitic, depresenteco justiciyan condenaduric sagos, baye orain dauquesu consuelue judiciyoco egunean euquico estosune. Egunatan estago apelaciñoeric sentencireanic esin erreboCADU leiyelaco, baye orain dauquesu apelaciñoea justicireanic misericordiyera eta rebocadu lei sentenciye condenaciñoecoa merceduric dauquesune; negar eta sispuru begui seure biosac damuen andis, eldu saites Jesusen
175 oiñetara eta esasu: *Neure Jesuchristo Jaune &a.*

11-107 *ai nire tristea*: mendebaldean *ene* izenordea literatur bizkaierara heldu zen: Zabala, frai Bartolome, Añibarro... erabiltzen dute (cf. *OEH*, s.v. *ene*). Añibarroren kasuan, baina, 2. edizioan ugaritzen du, lehenengoan adibide solteren bat baino ez dagoelarik (Urgell 2001: xcv). || *erratu*: ‘huts egin, nahasi’. **11-110** *gueiyenas*: Mendiburutik aurrera lekukoturiko hitza (*OEH*, s.v. *gehien*), Bizkai tradizioan *gehienez* da forma nagusia, hemen dugun hau gipuzkoar eta nafarroar egileek darabilten bitartean (hala ere, f. Bartolomek ere *gehienaz* erabiltzen du). **11-111** *correspondiesqueunsen*: uzkurdua berezia (cf. § 4.2.3.11), *-n* eta *-go* atzizkiaz kanpo gertatzen den gutxietako bat. **11-112** *gor eguin*: ‘gorrarena egin’, *OEH*-ak (s.v. *gor*) esapide honen XIX. mendeko adibideak baino ez ditu biltzen. *ofensaric*: ‘ofensatik’. || *usensa* ‘ohitura’. **11-113** *gueiyegües*: ‘deiez’; hapax baten aurrean gaude, gure ustez *geiegu* (ik. 11-64 *gueiyegüe*) **11-116** *Esin uquetu siñei*: ‘ezin uka zenezake’, *-ke-* gabeko *egin* aditzaren potentziala. **11-120** *et[a]*: orri ertza hautsirik dagoenez, ertzean ziren hitzak berregin behar izan ditugu. **11-125** *belu*: ‘berandu’. || *erracunsue*: ziurrenik akatsa dateke, *errakuntzea*; orjinallean *erracun / sue* ageri da, lerro bitan.

11. Plática para la Pasqua de Pentecostés en bascuence

63 4 *yguala*: gainean gehitua. 13 *dan*: *n* azpian *l* irakurtzen dugu. || *yurricoa*: leh. *yurricco*, *a* gainean gehitua. 19 *ygoiteco Cerure*: gainean gehitua. 20 *aguindu*: leh. *agn*, *ui* eta *du* gainean gehitua. **64** 26 *derrepente*: leh. *derrepen*, *te* gainean gehitua. || *iqueratuiten*: leh. *iqueratuiten*, *u* gainean gehitua. 29 *sitteen*: bi *t* horiek azpian dagoen beste gauza bat ezkututzen dute. 34 *santue*: leh. *santuea*, amaieran *a* dugu tatxaturik. || *toquetan*: leh. *toqutan*, *e* gainean gehitua. 37 *deuscus*: leh. *deuscun*, *s* azpian *n* irakurtzen dugu. **65** 50 *arguituiten*: *r* azpian zerbait dago, irakurrezina. 52 *se seguidu*: Mantxa batek ez du *se* argi irakurtzen uzten. 54 *an nescitis*: leh. *anescitis*, *n* gainean gehitua. 57 *yaco*: gainean gehitua. **66** 61 *et*: jat. *eta*. 63 *gueiyegües*: gainean gehitua. 72 *dau*: gainean gehitua. || *doeala*: leh. *doela*, *a* gainean gehitua. 76 *orregaitic*: leh. *orregaiti*, *c* gainean gehitua. 79 *gueiyes*: leh. *gueiyeguit*, *guit* tatxatua eta *s* gainean gehitua. || orriaren amaieran ohar hau aurkitzen dugu: *sehallara este assumpto enel 3. tomo de Parcia sermon 52 § SV*. **67** 80 *Espiritu*: jat. *Spiritu*. 82 *estauco*: jat. *estauqco*, *c* gainean gehitua eta *q* borratzea ahaztuta. 84 *gueiric*: leh. *gueiyei*, *yei* tatxaturik eta *ric* gainean gehitua. || *pulsu*: Egiatan *pulso* beharko luke, ablatiboan. 86 *esin eguine*: leh. *esin eitea*, *eitea* tatxaturik eta *eguine* gainean gehitua. 93 *aen*: gainean gehitua. 97 *da*: gainean gehitua. **68** 100 *numerucoa*: leh. *numeruco*, *a* gainean gehitua. 103 *emaiten*: *ma* estatzen duen mantxa bat egonik, berriz ere gainean *ma* gehitzen du. 104 *Santuiiri*: amaieran tatxoi bat dauka: *Santuiric*? || *correspondiuric*: testuan *correspondi* / *iuric*, zati hauetako bakoitza lerro banatan. 111 *betacariye*: aurretik tatxoi bat, *seculeco*? 112 *dago*: gainean gehitua. 113 *da*: gainean gehitua. 114 *esteusesu gure eransun*: leh. *esteusesu eransuten*, *ten* tatxaturik eta *gure* eta *n* gainean gehiturik. **69** 120 *et[a]*: orrialdearen ertza hautsita dago.

<71>

Bedarasigarren Credoco articulue: “Sinistuiten dot Elesa Santa Catholiquea, Santuen Comuniñoea”

Esan asquero articulu perteneçitan yacasanac Aiteari, Semeari eta Espiritu Santuiri, seguitan da Elesa Santeena. Da Elesea fiyel christiñeu gustiyen congregaciñoe
5 bat, seinsuc profesetan dauden fede bat; seinen burue dan Jesuchristo eta bere
biqueriyoa lurreean aite santu Erromacoa. Gueiyeten yaco fiyel christiñeuen
congregaciñoea bacarric direalaco congregaciñoe onetacoac bautismuco atetati sartu
sireanac, sein den fedeen atea. Dire congregaciñoe onetaco miembruc bautizeduric
10 dagosan gestic isen arren peadoreac, dalaco Elesea irudina Noen arquea, non egon
sirean animeliye loyec eta garbic. Da ysesoan sarea legues, seinec recogitan daben arrai
genero gustiye, ona eta deunguea. Da campoa legues, seinec asiten daben berar ona eta
deunguea; da mastuiye, seinetan dagoan gustirean: basuc sarmintu frutue dacardenac eta
beste basuc fruturic estaudenac emaiten, eta erretaco dagosanac destineuric.

Au Elesa Ama Santaau isen arren bat dalaco Jesuchristoen esposa bacarra,
15 dauques iru parte: bata da Elesa Triunfantea, sein den bienaventuraduen
congregaciñoea, seinsuc vencidu eudesan euren areriyoc: mundue, demoniñoa eta
araguiye, eta libre ya guerra onetaric dagos gozetan eternamenteco baquea ceruen.
Bigarrena da <72> Elesa Purgantea, eta da mundu onetaric Jangoicoen graciyan urten
euden arimeen congregaciñoea, euren pecatuen sorra gustis pagadu begaric. Onec dagos
20 deteniduric purguetoriyoan emaitartean euren pecatuen satisfeciñoe osoa, padecitan
tormentu andic. Yrugarrena da Elesa Militantea, seinetan visi garean mundu onetan
gagosanac continuamenteco guerran gue[u]re arimen areriyocac logretaco victoriye
euretaric. Eta onegaitic verba eiten dogu articulu onetan, sinistu bear dogu beragaitic eta
confesadu esin erratu leiyela fedeco gausetan, seinen eguiye eta firmezea asseguredu
25 eusen Christoc San Pedrori eta vere succesoreai vere verbeen eta doctrineen
confirmeciñoeraco: *Rogavi pro te, Petre, ut non deficiat fides tua.* Da gueure Eles

12-9 *irudina*: ‘irudia’, (OEH, s.v. *irudin*). **12-11** *campoa*: ‘zelaia, landa’. || *berar*: ‘belar’, hauxe litzateke forma zaharra, *belar* eta bizkaiera modernoan den *bedar* disimilazior sortuko lirateke (FHV § 16.5), B. eta A.ko testu zaharretan (Lcc., Mic, Laz., RS...) lekukotzen den forma, XIX. mendera ere heldu zen Zabala eta Iztuetaren lanetara (Añ., bestalde, *bedar* ei darabil) (OEH, s.v. *belar*). **12-12** *mastuiye*: ‘mahasti’, Bizkaian lekukoturiko aldaera hau Zabala eta Añibarronean badugu (azken honek *masti* ere darabil), eta E.M. Azkuek *matsdui* darabil (*maazti*-rekin batera). || *dacardenac*: -de 3. pertsonaren pluralgilea dugu, ‘ekartzen dutenac’.

12. *Bedarasigarren Credoco articulue*

sagrada bat fiyel christiñeu gustic profesetan doguleco fede bat, legue bat, sacramentu basuc, seinsuc direan mediyoac logretaco gloriye. Da bere Elesea bat dalaco, gorpus bet dauquena bacarric buru bet, sein de Christo Ceruen eta vere viqueriyoa lurrean aite
30 santue. Gueiyeten yaco bere Elesa oneri *Santea*, egon arren pecadore asco gobernetan gatuin leguea dalaco santea, vere ceremonyñac santuic eta sacramentoac santuic; da vere santea dauquelaco santu asco eta bere burue gustis santue sein de Christo. Gueiyeten yaco *Catholiquea*, sein de lomismo sein universala, dagoalaco sabalduric mundu gustiti eta yreungo dabelaco mundue acabetartean. Gueiyeten yaco *Apostoliquea*
35 dauquelaco principiyoa Apostoluitareanic, seinsuc sabaldu euden mundu gustiti.

Beneficiyo andiye sor deusegu Jangoicoari sartu guenduselaco <73> Elesa onetan, bautismuco sacramentoa dala mediante, gozetan adinebeste ondasun espiritual irepasi euscusenac Jesuchristoc vere pasiño e eta eriosegas. *Magnum est beneficiim* esaten eben agradecimintuigas San Agustinec: se mesedea au jaiyoitea gracyeco
40 legueen demporan, jaiyoitea christiñeu errin, non eguin ninsen participante sacramentoetan eta obra onetan. Dacusdes, diño San Agustinec, numeruric estauquen coaine arime, seinsuei es eusen eguin Jangoicoac au favoreau, niri eguin eustenau, ser neuquen, bada, nic gueiyego aec beño? Ô Jangoicoen bondade incompreñiblea! *illi derelicti sunt propter justitiam, ego vocatus sum per gratiam*. Es eusen gueiyeguín aei
45 eta niri gueiyeguín eusten vere misericordiye dala mediante, O Jangoicoen juiciyo esin entendidu leisenac! Christiñeue, consideradu eguisu infielen eta heregeen provinciyan, seinsuc esin numeradu leis, seinbet yaiyo sirean su yaiyo sinean egunean, eta sortu sirean egun beratan, non Jangoicoac criyedu ebesan arimac eta infundidu gorpuse[n], Valgame Dios! Segaitic arimeori seinegas visi sarean criyedu eben eta infundidu eben
50 gorpus orretan christiñeu errin eta es infielen edo heregeen errin? Segaitic isenic aen chiquirre cristiandade, comparaduric adinebeste infiel eta heregegas, cabidu yesun suerte dichosoau? seinbet eta seinbet ileiten dire seculuco euren erroretan eta su eguin sendusen Jangoicoac miembru vere Elesacoa, seinetan bacarric dagoan salb[a]ciñoea? Seinbet, ensuten sagosan ordu onetan, dagos yausten Ynfernure es euqitarren suc
55 dauquesun <74> eguiyeu eta fedeen arguiye? Eta su sara Elesacoa, fiel christiñeuen

12-31 *gatuin* ‘gaituen’ (cf. §§ 4.2.1.7; 4.2.3.3). **12-35** *Apostoluitareanic*: ‘Apostoluetatik’, oro har adibide gutxi diren arren, *-reanik* ablatibo atzizkiaren pluralak aurki ditzakegu testuan. **12-41** *Dacusdes*: ‘ikusten ditut’. **12-51** *chiquirre*: ‘txikia’, *txikir* aldaera da testuan erabiliena (15 adib.), nahiz eta *txiker*-en (5 adib.) eta *txiki*-ren (2. adib.) adibiderik ere topatu, aldaera hau Arabako lekukoetan baino ez da aurkitu (Lcc. Laz. eta, *txiker*-ekin batera, Laudioko kateximan), Bizkaian *txiker-txikar* aldaerak direlarik hobekien lekukotuak (*OEH*, s.v. *txiker*). || *cabidu yesun*: ‘egokitu zitzaizun’.

12. *Bedarasigarren Credoco articule*

congregaciñoecoa; seure errus espasara yausten Ynfernure esara yoango ara. Ara se mesedea au? Ser serviduco leusquesu Jangoicoac criyeduitea, conservetea, redimitea, espasengui partcipeu redemciñoen frutuec; Ô, se beneficiyoa au! Se asco sor deusesun Jangoicoari! Se cargu andiye eingo deusun Jangoicoac espadosu corresponditan christiñeu ona legues fineza onetara! *Rede Rationem*: emon eguisu mesedeonen contue.

Ensun eguisu selan verba eitten deusun Jangoicoac Amos profeteen aoti, Ysraelgo genteari legues: *tantum modo vos cognovi ex omnibus cogitationibus terres*. “Nic, gente ingratoa, escogidu sendudesan suic mereciu bagaric, neure bondadea dala mediante. Munduco naciñoec gustiyen artean suec sare dichosoac, baye isen sarealaco desconociduiç âen fineza anditara nic juzgueduco dodas eta castiguetu suen maldadeac gustic”. Selan esara bildurtuiten, betacariye, consideraoric elduco dala ordue eta egune seinetan eingo yasun cargu au? An ecusico dosu selan isen san aen andi Jangoicoac eguin eusun graciye mereciu bagaric eta beratara correspondiu dosule adinebeste maldadegas. Ecusi eguisu se cuidedu andigas diñoecan David profeteac *inrepuerunt me renes mei*, ‘reprendidu nenduen neure gorpusec edo dago eracusten merecitan <75> dodala reprensiñoeca’, *id est repre[he]nsib[i]lem ostendunt* (Hugo Ca.) Seen bildurre dauquesu, erregue profetea? “Seen bildurre euquico dot, diño, (*funes ceciderunt mihi in pr[a]eclaris*), selan euquico estot bildurre cabidu bayatan suerte diche anditacoa? Ysenic pastore pobrea eguin banenduin Jangoicoac Ysraelgo erreguea, emon eusten valore andiye eta fortalezea gente ascoen artean. Eguin nenduin privilegidue esta bildur iseiteco, ecusiric eguin deustela Jangoicoac adinebeste mecede? Eta es bacarric au, espada bere beste asco echi ebesan legues euren ydolatriyeco yluntasunean echi nenduquean ni, baye bere misericordiye dala mediante emon eusten arguiye esautuiteco Jangoico eguiyescoa eta neure Jaune: *Notas mihi fecisti vias vitæ*. Yquera nago se contu emongo dodan cabidu yatan suerte andionegaitic, reprecitan nabelaco neure concenciyeç, esteusedalaco correspondidu sor deusedan legues: *inrepuerunt me renes mei*.

12-57 *serviduco leusquesu*: ‘balioko lizuke’ **12-58** *espasengui partcipeu*: adizkiaren amaieran mantxa dirudiena dugu, agian *espasenguin*? Lehenaldiko baldintza bukatua adierazteko Mounolek (2011: 227) [*partizipioa* + *ba+izan/*edun* lehenaldian] perifrasiya erabiltzen dela esaten digu, gure testuan hau bezalako adibideak badira (§ 4.2.3.9.1), non [*aditzoinal/partizipioa* + *ba-*edin/egin* lehenaldian] perifrasiya dugun, ziurrenik aoristo perifrastikoaren gainean sortua. **12-70** *reprendidu nenduen*: ‘errieta egin ninduen’. **12-71** *seen*: ‘seen’ bokal hirukoitz bereziaz (ik. 6- **12-72** *echi nenduquean*: ‘utz nezakeen’, *edun* adizkiaren gainean erutzen du potentzial adizkia. **12-79** *Yquera nago*: sermoitegian *iquera* adberbio funtzioaz erabiltzen da, ‘ikaraz nago’ (cf. 2-111 *yquera*).

12. *Bedarasigarren Credoco articule*

Ser esango leuque David erregue profeteac alcanzadu baleu suc legues evangeliyoco dempora dichosoa? Ser esango leuque, Jangoico eguiyescoen fedean ganean, euqui baleu dichea recibitaco vere bulerrear Jesuchristo Jangoico eta guison eguiyescoa? Eta ser euqui baleu vere ama eta abogada Mariye Santisimea? A christiñeuc, se cargüe isengo dan pecadoreensat Elesea, sacramentoac, Mariye Santisimen amparue, angueruec, estaduic, oficiyoac, ynspiraciñoec, abisuic, sermoeac, consejuic, desengañuac, santuen exemploac eta pecadoreen escarmintuic! *Funes* 85 *ceciderunt* <76> *mihi præclaris*. Ser eguin dosu, christiñeu, Jesuchristoen adinebeste odol preciosogas, seinde comunicedu yasun elesan? Esan eguidesu, egon basine Calvariyocho mendin il senean Christo eta an emon balichesu vere odol preciosorean basu bete, seinbet estimeduco seunque au erreliquiyeu? Yaseve. Eta aguindu baleguisue eroaten erregueri galdu bagaric tilinqueric, advertitan yasule elduric alan beneficiyo 95 andie eingo deususela eta es elduric urquemendi beten quendu visisea, bidea balego lasus, arris eta aches beteric; se tientu andigas yoango sinatequean? Esque ondo elduitean dago irepaste andiye! *Quid animi habiturus essem in tanto discrimine?* diño San Bernardoc, seinena da au comparaciñoeau. Se sustuic! Se bildurre! Pausuic se contus! Â christiñeu, ser pensetan dosu dala seure arimea, espada Jesuchristoen odol 100 preciosoen basu bet apliquedue sacramentu santuitan eta errecibidue realmente comuniñoec santisimuen? Vasuonegas elduco sara Jangoicoen presencira; videa ara elduiteco gustiye da lasuic eta peligruc, eta ondo elduitean dauquesu eternamenteco visise dichosoa. Selan daroasu au erreliquiyeu? Se contu emongo dosu reliquiye onena botaric pecatuen arri artera Jangoicoac contu artu daguisunean? Se errasoa emongo 105 deusesu seure arimeagas visi basara es christiñeu legues, espada gentile legues edo deungago? Baquisu ser dan christiñeu iseitea? Yarri sera consideretan edonos bere? Acordau setes <77> bautizedu sintean egune: preguntedu eusun an sacerdoteac renunciyetan senduin Satanas, bere obrac, munduco pompac eta araguiyen apetuic? Ser eransun senguin? Renunciyetan sendusela, *ab renuntio* esan senduin edo seure

12-87 *cargüe*: Azken Juizioan bekatariak izango dituen karguez ari da. **12-92** *balichesu*: ‘balitzaizu’, mendebaldean [tj] espero dugu *izan* aditzaren NOR-NORI sisteman (*natxako*-ren ganean, ik. *FHV* §9.5). || *odol preciosorean basu bete*: egitura honetan edukia (kasu honetan, *odol preciosoa*) mugagabea ageri da normalean (*OEH*, s.v. *bete III*), hemen baina ablatiboan dugu, ablatiboaren *-rean* atzizki zaharrean gainera. **12-94** *eroaten*: *agindu* aditzaren osagarria, subjuntiboaz gainera, *-tzeke* izan ohi da, baina Bizkaiko testu zaharretan eta Añibarroren testuetan hemen bezalako adibideak aurkitzen dira, osagarriko aditz-izena inesiboan (*OEH*, s.v. *agindu I*). **12-104** *errasoa*: ‘arrazoi’. **12-106** *Yarri sera*: *RUI* erregelari egotzi behar zaio *zera* forma (cf. § 4.2.1.7), eta ez bestelako hizkera baten balizko eraginari.

12. *Bedarasigarren Credoco articulue*

110 partes esan euden. Eta ser eguin dosu seure visise gustin suc, renunciye senduina gause
deungue gustiye, Noen contra peleadu dosu, seure redemptoren contra ala demoniñoen
contra? Seguidu deusesu Christori, bere exemploari, ala demoniñoari, munduiri eta
seure incliñeciño deungueari? Se contu emongo dosu isen bearren humildea, bacosoa,
115 mansoa, piadosoa isen basara sobervioa, alborotadue, rencorosoa, Jesuchristoen
contrariyora eta vere leguea despreciyedu dosune seure desobedenciyacas? *Re[d]de
rationem*. Ya yausi sera seure juez soberanu enojaduric dagoanen escuitan. Emon
eguisu contue, esango dau, seure bautismuena; emon eguisu contue veste
sacramentoena, seinsuc clametan daude seure contra adinebeste sacrilegiugas
menospreciyeu senguiselaco: disposiciño bear danagas es recibitarren, esilic echiric
120 pecatuic confesiñoean eta eurecas comulgueuric... Emon eguisu contu, christiñeu
deunguea, adinebeste mesede seinde eguin neusun. Desdichedue surea espasara orain
remediyetan.

71 10 *daben*: leh. *da*, *ben* gainean gehitua. **72** 18 *gracyan*: gainean gehitua. 31 *ceremonyñac*: leh. *ceremonyac*, *ñ* gainean gehitua. y hau zerbait estaltzeko darabil. || *sacramentoac*: leh. *Sacramentuic*. **73** 39 *jaiyoitea*: gainean gehitua. 42 *eguin*: azpian zerbait dago, *eitend*-? 48 *egun*: *u* gainean gehitua eta honen azpian tatxoi bat dago, *o*? || *arimac*: aurrean tatxoi bat, *aen*? || *gorpuse[n]*: orri hertzea galdurik dago. 51 *chiquirre*: gainean gehitua. 52 *dire*: leh. *direan*. 53 *salb[a]ciñoa*: zulo batek paperean *a* galtzea ekarri du. 54 *sagosan*: *g* azpian *t* bat irakurtzen dugu. **74** 60 *mesedeonen*: gainean gehitua. 61 *eitten*: Azpian zerbait dago, irakurtzezina. 67 *andi*: gainean gehitua. 68 *beratara*: leh. *berata*, *ra* gainean gehitua. **75** 71 *repre[he]nsib[i]lem*: jat. *reprensiblen*. || *Hugo ca*: Oso txarto irakurtzen da, gure ustez iturriaren aipamena da. || *Seen*: jat. *seen*. 75 *privilegidue*: leh. *Privilegide*, *u* gainean gehitua. 77 *yluntasunean*: leh. *yluntasune*, *an* gainean gehitua. 78 *arguiye*: gainean gehitua. 84 *esango*: *n* gainean beste *n* bat dago, idazlearen ustetan ondo ulertzen ez zelako azpikoa. 87 *pecadoreensat*: hirugarren *e* azpian zerbait dago: *a*? **76** 92 *Calvariyo*: leh. *Calvariyo*, *co* gainean gehitua. || *eta*: hitz amaieran tatxoi bat dago, irakurrezina. 94 *erregueri*: leh. *erregue*, *ri* gainean gehitua. 95 *deususela*: leh. *deusula*, *se* gainean gehitua. 105 *seure*: leh. *seur*, *e* gainean gehitua. **77** 111 *redemptoren*: jat. *redemptorem*. 112 *contra*: gainean gehitua. || *deusesu*: leh. *deuse*, *su* gainean gehitua. 118 *contra*: amaieran tatxoi bat dauka, *contrara*? 119 *disposiciño*: leh. *disposiño*, *ci* gainean gehitua. 120 *eguisu*: leh. *egui*, *su* gainean gehitua. 121 *mesede*: gainean gehitua, honen aurretik tatxaturik dagoen beste zerbait gehitu zuen, irakurrezina.

12-111 *Noen*: ‘noren’, *r* gabeko genitiboaren gisara eraturiko galdetzailea, gutxitan lekukotzen du *OEH*-k (s.v. *nor*) Añibarroren eta Astarloaren adibideak biltzen ditu bai eta Lazarraga arabarrarena ere, lehenago baina *VJ*-k (cf. Ulibarri 2010a: 108) lekukotzen du. **12-110** *bacosoa*: ‘baketsua’, *bakeoso* formaren orain artean lekukotu gabeko aldaera dugu hau, Kapanagarengan dagoeneko lekukotzen den *bakeso* aldaerekin izpilu izango litzatekeena, aldaera bakoitzak *-eo-* bokal multzoa alde batera monoingtutzen baitu. **12-119** *menospreciyeu senguiselaco*: ‘gutxietsi zenuelako’, aoristo perifrasi. **12-121** *Desdichedue surea*: Esapidea, gaztelaniazko *desdichado de ti* esapidearen itzulpena.

<79>

J.M.J. J.n y Ana

“Santuen comuniñoa”, *Credoco bedarasigarren articuluena partea*

Ser esan gure dau *Santuen comuniñoa*? Graciyen dagosan fiyel christiñeuec dauquela partea besteen ondasun espiritualetan gorpuz beten miembruic legues. Eta se
5 ondasun espiritual dire onec, seinsuten dauquen partea graciyen dagosanac? Sacramentoac, mesac, oraciñoac, limosnac eta obra onac gustic. Gustiuc gara Elesaco gorpuz misticuen mienbruic, selan bada gorpuzeco mienbru gustic participetan dauden bateri eiten yacan beneficiyoa: v.g., aoac yatten dau alimentue eta au participetan daude oiñec, escuic &a. Alan, oraciño eguinic batec edo bareu, disciplineu, participetan ditues
10 besteac onec obra onoc eta da au errazoes conforme dagosalaco gustic uniduric fedean eta caridedean. Da preciso bacoachac participetea besteen obra ona, eta euquitea beresat caridedea da amistedea, es bacarric arimeena Jangoicoagasco, espada vere caridedean visi direan gustiyeena. Adisquide eguiyescoen ondasunec dire comunec, batec dauquena dauco besteac, eta orregaitic justoen ondasun espiritualac dire comunec arcalegasco.
15 Preguntetan dot, gustic yigual participetan ditues onec ondasun espiritualac? Es porcierto. Bada, participedu arren gustic esan dodan legues, baye participetan daude gueiyego aec seinsuc gaitic apliquetan direan particularmente: v.g., <80> esaten da mesa bat especialmente persona bategaitic, graciyen dagosan gustic dauque partea meseatan, baye gueiyego â personeac seinegaitic ofrecitan dan particularmente, eta
20 lomismo entenditan da beste obra onetan eta oraciñoetan: gueiyego aprovechetan deuse aei, seinsuec apliquetan yatesan particular[er]ean. Conque graciyen dagoanac, euquiric partea munduin eiten direan obra on gustitan, gustis aberazac ongo da au. Berac es eguin arren obra onic merecimi[n]tu asco euquico dau recogiduric. Verac vereric es

13-1 *J.M.J. J.n y Ana*: (cf. 4-1 *J.M.J.*) *Jesus, Maria, Joseph, Joaquin eta Ana* izenen inicialak, garai batean testuen hasieran jarri ohi ziren otoizlabur gisa (cf. *JHS, Viva Jesus...*). **13-7** *selan bada*: zelan juntagailua ‘bezala’ dela argi ikusten dugun bitartean, ez dugu garbi *bada* aditza ote den ala juntagailua indartzeko partikula. **13-9** *disciplineu*: ‘zigorkatu’. **13-10** *errazoes conforme*: ‘arrazoiarekin konforme’. **13-11** *obra ona*: gaur egun inesiboa erabiliko genuke testuinguru honetan ‘besteen obran onean’. **13-16** *arren... baye*: badirudi anakolutu baten aurrean gaudela, bi partikulak elkarrekin lehian baitira testuinguru honetan. **13-19** *meseatan*: ‘mezetan’, artikulua zaharrarekin erlazonaturiko forma dugu, 3. graduko erakuslearekin (*atan*) sortua, honela azaltzen baita *-ea-* bokalismoa: *mesa + atan (a + a > ea* erregela ezagunarekin, *FHV* § 5.4; hemen ik. § 4.2.2.8). **13-22** *aberazac*: txistukari guztietarako <s> grafia darabilen arren, <z, c> ere darabil adibide bakan batzuetan, are hiperzuzenketak eginez (cf. 31-145 *ecuci* eta § 4.2.1.4). **13-23** *merecimi[n]tu asco euquico dau*: singularrean egiten du komuntadura *asko* partikulak.

13. “Santuen comuniñoea” *Credoco bedarasigarren articulu en partea*

euqui arren gause onic, ongo lisatequean legues gustis aberas munduco ondasun
25 gustitan partea dauquena, es euqui arren vere trabajurean edo bere hazindarean esebere.
Baye se merecimintu euquico dau Jangoicoen aurrean gause onic eiten estabena,
posible balis (estan legues) visi iseitea Jangoicoen graciyan eta, esan doean legues, lo
echun; au de, es eguinic obra onic? Gause clarue estabena euquico mereciminturic arean
bere eta es galarderic merecimintuiri corresponditan yacalaco galardoea, Ceruco
30 coroea. Bada, Apostoluec esan eben legues, estau irepastico Ceruco galardoea peleetan
estabena legitimamente (*Non coronabitur nisi qui legitime certaverit*). Bada ser, estogu
esan graciyan dagoanac participetan dabela besteac eguiten <81> dituen obra on
gustitan? Bada, dirudi salbadu leitequeala besteac eiten dituen obra onen
merecimintuigas? Es porcierto. Yaquin bear dosu, christiñeu: obra onac graciyan eiten
35 danac dauques iru gause: merecimintue, satisfaciñoe emaitea pecatuen sorrageitac eta
alcanzetea Jangoicoaganic auxiliyoac arimeraco eta ondasunec gorpuseraco. Vaye dago
diferenciyeau iru gause onen artean: merecimintue guertuitten da obra ona eiten
dabenensat bacarric, es eiten estabensat; Satisfacitea pecatuen sorrageitac ofrecidu
leique proximuegaitic, eta ondasunec. *V.g.*, bareu eiten dau persona batec: merecimintue
40 obra onena da bareu eiten dabenensat bacarric, satisfeciñoea emaiten aprobechau
leiquiyo proximuei eta lomismo alcanzetea Jangoicoaganic mesedeac escaturic obra
onen virtutes. Selan batec eiten dituin obra onac serbitan dauden emaiteco satisfeciñoea
edo sorra paguetaco beste batec sor dabena vere pecatuic gaitic, eracusten deuscu
exemplo orrec: Santa Cathalina de Senaen visisan contetan da selan reveladu eusen
45 Christoc vere aite padecitan egoan gasoreanic ilgo sala eta <82> salbaduco sala, baye
Ceruen sartu beño leen padeciduco ebela sorsi urtean purguetoriyoan. Escatu eusen
santeac Jangoicoari vere aiteac sor ebesan penac emon leguisela berari, eta il sinean
vere aite eroan leguila berlan Cerure. Logradu eben Jangoicoaganic eta emon eusen
noticiye alegreau bere aiteri, urten eguinean bere arimeac gorpuseric purguetoriyoan

13-24 *legues*: esaldian gaizki kokaturik dagoela dirudi: ...*ongol lisatequean gustis aberas munduco ondasun gustitan partea dauquena legues*. Agian kopiatzeko orduan egindako akatsa izan daiteke. **13-27** *esan doean*: ohikotasuna adierazteko perifrasiatan *joan* aditza erabiltzen du egileak laguntzaile iragangaitzat (iragankorrenzat 24-36 *artu daroen*; cf. § 4.2.3.16). **13-28** *estabena euquico*: esaldi osagarrian *-la* lotura atzizki orokorra erabili beharrean (cf. 7-69 *yaquinic ciertu publicueduco dala*) *-na* erabiltzen du hemen, Bizkai partean egin ohi den bezala (cf. § 4.2.4.9). || *arean bere*: ‘egitan’, cf. Azkue: “ciertamente también, siendo muy usual como muletilla de la conversación” (ap. *OEH*, s.v. *arean*). **13-38** *Satisfacitea*: aditz-izena izen legez erabiltzen du egileak: ‘satisfakziñoa’. **13-41** *leiquiyo proximuei*: ‘liezaioke proximoari’, (cf. 21-6 *eguiyosu [...] humeai*) datibo singularra adierazten digu *-ai*, aditzak erakusten digunez; *-ai* datibo singular legez Arabako lekukoetan baino ez da aurkitzen testu zaharretan (cf. Bilbao *et al.* 2010: 197) **13-46** *sorsi urtean*: ‘zortzi urtez’, mendealdean instrumentalean beharrean inesiboan erabiltzen da egitura hau (*OEH*, s.v. 1 *urte* 2). **13-49** *urten eguinean*: ‘irten zenean’, aoristo perifrasi.

13. “Santuen comuniñoa” *Credoco bedarasigarren articulu en partea*

50 sartu bagaric yoango sala artes Cerure. O se aite dichosoa eta alabeen caridede miregarriye! Amar urten padecidu eguisen tormentu andic vere aitec sor ebesanac eta alan libredu eguin purguetoriuric vere alava santeac.

Preguntetan dot: pecatu mortalean dagoanac participetan daude besteen obra onetan graciyan dagoanac legues? Es porcierto; bada, isen arren Elesaco mienbruic dire
55 miembru ilec eta incapazat participetaco â espiritu vitala gozetan daudena miembru visic, seinsuc dire graciyan dagoanac. Baye alanbere logretan daude provechu andiye justoen obra onetaric alcanzetaco Jangoicoaganic inspiraciñoec, auxiliyoac; urteiteco dagoan estadu deunguerean. Eta da lastime andiye euquiteco onelangoai, seinsuc estaude serbitan Elesan espada bultue eiteco eta gentea amontonetaco, eta lisateque
60 ondo preguntetea onei se juiciyo eiten dauden, <83> sinisturic misteriyon onen eguiye, esaten daudenean credoan “Santuen comuniñoa”. Esin uquetu leiye dagoala justoen compañireanic campure; bada, eurec estire justuac, eta Espiritu Santuic esteuses comuniquetan vere doeac eta esteuse visiseric emaiten euren arimai. Eta alan, iqueratu bear leuque esaten daudenean Credoan “Santuen comuniñoa”, consideradu baleguiye
65 estituesala participetan adinebeste obra on, seinde ordu bacochean eiten direan munduin. Consideradu baleguiye au, selan lisateque posible visi iseitea âen estadu desdicheduin egunec, ilec eta urteac. Baye estauden legues consideretan, dago euren estadu deungan, condenaciñoecoan. Ynfielac, direan legues moroac, gentilec, heregeac, estaude participetan, eta onecas estau verba eiten santuen comuniñoec, onec direalaco
70 arboleco errama ebaguiye legues estireanac Elesaco miembruic. Ainguichi christiñeuec excomulgueduric dagoanac, bada, Eleseac dauques ateraric onec vere gremiuric selan aiteac botetan daben vere seme desobedintea vere eseric, eta estau admititan esean ariqueta reconocidu daytean eta penitenciye vere falteena eitardean. Bada, ser da excomuniñoa eta se efecto causetan dau? Da pena bat seinegas castiguetan ditusen juez
75 eclesiasticuic bautizeduric dagoanac, <84> apartetan ditusela fiyel christiñeuen comuniqueciñoereanic, desuerte se isenic excomuniñoec nagusiye privetan ditus sacramentoetaric, oraciñoetaric, mesa, sepultureric eta beste gausetaric. Castigo fuerte, porcierto, eta mundu onetan guison bateri emon leyyonic andiyeena, espadaude bere casu asco eiten desalmadu ascoc: esan daroe excomuniñoec estabela asurric ausiten eta

13-50 *artez*: ‘zuzen’. 13-52 *libredu eguin*: ‘libredu zuen’ aoristo perifrasi. 13-63 *iqueratu bear leuque*: ‘ikaratu behar litzateke’ aditz inergatiboa dugu hemen, argumentu bakarra (berak) ergatiboan baikenuke. 13-69 *onecas*: ‘hauekin’. 13-79 *esan daroe*: ohikotasuna adierazteko *eroan* aditza erabiltzen du egileak laguntzaile iragankortzat (cf. § 4.2.3.16). || *asurric*: ‘hezurrik’.

13. “Santuen comuniñoa” *Credoco bedarasigarren articuluen partea*

80 es ainguichi quendu yateco ganea. Au esatea gause clarue da dala temeridedea eta
temeridedea beno gueiyego balequiye selan iminten daben arimea excomuniñoac;
derechat quenduco lichequela yateco ganea ecusiric modu onetan despreciyetan
eudesala excomuniñoac gente rusticuic: San Gonzalo de Amarantoc prediquetan
egoala gente andiri campoan puntu onen ganean, yguero san andi andra bat sexto bete
85 ogui buruin ebela, gustis ogui suriye. Parau eben santuic eta esan eusen genteari:
“Yaquin deguisuensat selan iminten daben arimea excomuniñoac, nic descomulguetan
dot oguiyeu Jangoicoen usenean”. Miregarri andiye! Berlan, isenic ogui suriye eta
ederra, bolvidu sen asqueroso eta balsa iques bate legues. Eta ponderadu asquero
assumptueu, bolvidu sen santue oguire eta esan eusen: “Jangoicoen usenean absolvitan
90 satudes <85> excomuniñoereanic”, eta verlan bolvidu sen suri eta ederra leen legues.

Esaten daude estabela ausiten asurric excomuniñoac, engañetan dire; bada, aun
bisisea quensaiten daude es solamente personai, espada bere aun animeliyei seinden
gueiyego. Dago exemplori[c] asco autoretan: combidedu euden San Bernardo elesa
baten dediqueciñoen festividetera, san barriye eta careen useire euli manada andiye,
95 numerau esin leiyen coaine, desuerte se esan posible paretea gentea beratan euliyen
molestiyegaitic, eta orregaitic aseratu euden festividetera. Abisedu euden santue ser
yasaiten san, eta esan eben: “Nic descomulguetan dodas barruin dagosan eulic gustic eta
sarsaiten direanac”. Gosean topadu eudesan gustic ilic eta osaracas atera eudesan, eta
alan celebradu sen festividetera.

100 Remediyo andiye da excomuniñoa descubritaco besteen gausea osturic edo
reteniuric dauquena, baye lastime andiye da ascoc orregaitic es errescatetea besteena,
estalaco ascotan ecusten arpeguin excomuniñoen efectoa (esan daroen legues). Gustiyei
yaso balequiye yaso equiuna hembra bateri, bildur gueiyego euquico leuque errue
dauquenean, daquiyeenean publiquedu dala excomuniñoa, eta besteen gausea retenitan
105 daudenean. Hembra onec servitan eben uguesaba bat euquena dobloa asco; equin onec

13-80 *ganea*: ‘gogoa’ (gazt. *gana*). **13-81** *balequiye*: ‘jakingo balu’ aditz trinkoa. **13-83** *rusticuic*: ‘larrekoak’. || *San Gonzalo de Amarantoc*: San Gonazalo de Amarante-ri egiten dio erreferentzia, XIII. mendeko fraide dominikar bati. **13-84** *gente andiri*: ‘jende asko’, *handi* hitzaren zenbatzaile erabilera hau nahiko ohikoa da testu zaharretan (cf. *OEH*, s.v. *handi*). || *andi*: ‘handik, han zehar’ (cf. § 4.2.2.2). **13-85** *ogui suriye*: irin finduaz egindako ogia, balio handikoa garai horietan. **13-87** *Miregarri*: izen bezala erabilia, testu zaharretan nahiko erabilera ezaguna da hau (cf. *OEH*, s.v. *miragarri* 3). **13-88** *bate legues*: (cf. 45-95 eta baita 15-131 eta 24-166 *bete legues* ere), euskaraz *n + l* kontsonante bilkura bakuntzeko joeraren adibideak ditugu hauek (ik. *FHV* § 18.16). **13-94** *careen usaire*: ‘karearen, igeltsuaren usainera’. **13-96** *aseratu*: ‘atzeratu’. **13-97** *yasaiten*: ‘jazotzen, gertatzen’, aditz-izen hau lekukotzen ez den arren (cf. *OEH*, s.v. *jazo*), -o partizipioa izanik -ite aditz-izen atzizkia hartzen du sermoitegian, erroaren *o > a* aldaketarekin batera (cf. § 4.2.3.2). **13-98** *osaracas*: ‘otzararekin, otarrearekin’ **13-101** *errescatetea*: badirudi ‘itzultzea’ esanahia duela testuinguru honetan. **13-105** *dobloa*: ‘dobloi’. || *equin*: ‘zekien’.

13. “Santuen comuniñoa” *Credoco bedarasigarren articuluen partea*

non euquesan eta ocasiñoe ebenean <86> quendu eusen cantidedea euretari genero gustirean. Bere uguesabeac sentidu eben faltea, eta hostu ebesanac rescatau leguisensat publicuedu eben excomuniñoa. Apenas leidu sen, hembrau gasotu sen, eta eguneric egunera yoean siquetuis; baye alanbere esan isen au bastante bolvitaco ostu ebena.

110 Castiguetu eben Jangoicoac gueyyego publicueduric bere pecatue: bada, aguirtu sirean bere escuitan da arpeguin dobroac, aen señaladuric se gustic esautu euden bera sala lapurre, eta especialmente yaubeac, seinec advertidu eben dobroen tamañue eta numerue, seinbet ostu eusen. Conque porfuerza rescat[a]u bear eben, es ebenac gure bere borondates. Modu onetan publicuedu balites beti gausac, bildur euquico leusquiyoe

115 excomuniñoeari.

Excomulgueuric dagoana esin enterradu lei lecu sagraduin: estadu onetan ileiten bada enterretan da campoan, oquelu beten; baye enterradu basan sagraduin, da presiso atera eta campora botetea; eta ascotan Jangoicoac berac eguin deu, milagrosamente bota elesaric campora excomulgueuric enterradu sireanac. Il sen guison bat excomulgueuric,

120 enterradu euden elesan, baye bost bidercoan topadu euden baso baten bere gorpuse. Yaquin sen il sela excomulgueuric eta alan absolvidu eben sacerdoteac, eta enterraduric <87> elesan es eben urten gueyyego sepultureric.

Da bildur iseiteco excomunioeari, eta desgraciye onetan yausi denac bear dau eguin diligenciye urteiteco leen besen leen, absoluciñoa dala mediante, participetaco

125 santuen comuniñoa beste fiyel christiñeuc legues. Participetan daude au Ceruco bienaventuraduric, santuic eta Purguetoriuco arimac, onec lograduric visiyeen sufragiyoac eta aec euren devotoen honrra eta veneraciñoa, euren glorie accidental en aumentureco; eta mundu onetan dagoanac recibitan ditues asistenciye andic eta mesedeac, euren intercesiñoa dala mediante, logretaco Cerue, veratan alabetaco Jangoicoa. Amen.

79 2 *articuluen*: amaieran tatxoi bat dauka, irakurrezina. 8 *yatten*: tt azpian n bat dago. 9 *disciplineu*: jat. *discipleneu*. 10 *dagosalaco*: aurretik *segaitic*, tatxaturik. 13 *direan*: leh. *diren*, a gainean gehitua. 17 *gueiyego*: gainean gehitua. **80** 19 *seinegaitic*: ne gainean gehitua, azpian g irakurtzen dugu. 21 *particulerean*: leh. *partilerean*, cu gainean gehitua. 24 *aberas*: gainean gehitua. 25 *trabajurean*: leh. *trabarean*, ju gainean gehitua. 27 *doean*: leh. *doea*, n gainean gehitua. 28 *clarue*: gainean gehitua. 32 *dagoanac*: jat. *dogoanac*. **81** 32 *dituen*: gainean gehitua. 37 *da*: gainean gehitua. || *obra*: aurretik tatxoi bat, *bacarric*. 38 *es eiten estabenensat*: gainean gehitua. **82** 51 *eguisen*: gainean gehitua. 54 *arren*:

13-109 *yoean siquetuis*: ‘zikatuaz zihoan’, testu zaharrenetan instrumental mugatuarekin lekukotzen da, hemen legez. **13-114** *euquico leusquiyoe*: ‘edukiko liokete’. **13-120** *bost bidercoan*: ‘bost aldiz, bost alditan’, lekukotu gabeko erabilera da hemen duguna, leku genitiboarekin. **13-124** *leen besen leen*: ‘lehen baizen/bezain lehen’, *baizen* edo *bezain* partikulen aldaera izan daiteke (cf. § 4.2.5), lehengoaren kasuan behintzat, *bizen* formapean ere baduguna (cf. 10-115 *esan bat bisen*).

13. “Santuen comuniñoa” *Credoco bedarasigarren articuluen partea*

gainean gehitua. 59 *bultue*: jat. *builtue*. **83** 68 *dire*: aurretik tatxoi bat; *eta heregeac?* 69 *estau*: gainean gehitua. 73 *reconocidu*: leh. *reconocitan*, *tan* tatxaturik eta *du* gainean gehitua. **84** 77 *sepultureric*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. 78 *leyyonic*: leh. *lyyonic*, *e* gainean gehitua. 82 *quenduco*: leh. *quendu*, *co* gainean gehitua. **85** 102 *equiuna*: leh. *equina*, *u* gainean gehitua. || *euquico*: leh. *euqui*, *co* gainean gehitua. 104 *eben*: gainean gehitua. || *uguesaba*: leh. *uguesa*, *ba* gainean gehitua. **86** 106 *ebesanac*: leh. *ebesa*, *nac* gainean gehitua. || *rescatau*: leh. *rescata*, *u* gainean gehitua. 109 *Jangoicoac*: leh. *Jangoico*, *ac* gainean gehitua. 115 *ileiten*: jat. *ileitan*. 116 *da*: jat. *da / da*, bakoitza lerro batean.

<89>

Credeen amargarren articulue: “Pecatuen parcaciñoa”

Sinistu bear dogu articulu onetan Elesa Santeac dauquesala mediyoac eta erremediyoac parquetaco pecatuic. Se mediyo dire onec? Dire sacramento santu Jesuchristoc instituidu ebesanac pecatuic parquetaco eta euren mediyoac emaiteco vere
5 graciye. Especialmente dire comuniquetaco lelengo graciye eta libretaco arimea pecatuen eriosareanic sacramento bautismuoa eta penitenciyecoa. Bautismuen mediyoac parcatuitten da pecatu originela eta osteranseco edosein pecatu, eta es bacarric pena eternamentecoa, baite bere pena temporala purguetoriuoa sein estan alcanzeta sacramento penitencicoagas, espada negar eite ascogas pecatuen damus, contriciño andigas edo osteranseco penitenciye eta obra onacas emonic satisfeciño osoa pecatuen
10 sorragaitic; eta orregaitic gueiyeiten yaco penitencyeri bautismu trabajuscoa. Se pecatu parquetan dau sacramento penitencicoac? Bautizedu asquero pecatu eguin gustic isen arren asco eta andic. Selan bada doas adinebeste christiñeu Ynfernure? Estirealaco baliyeta mediyo onecas, bear dan legues es disponitarren eta es perseveretarren
15 graciyan; orregaitic <90> asco confesauric, comulgueuric eta extremaunciñoa recibuic doas Ynfernuitara seculico. Bada, pecatu gustiyensat badago mundu onetan erremediyoa, selan esaten da pecatu Espiritu Santuen contracoac estireala parquetan es munduonetan eta es bestean? Esaten da estireala parquetan, es dalaco ymposible parquetea espada dalaco dificultoso euren erremediyoa, esaten dan legues enfermedade
20 bategaitic esin curedu leyyela dala incurablea, dificultede andigas guichiten curetan dalaco alango enfermedadea. Segaitic gueiyeiten yate Espiritu Santuen contraco pecatuic? Maliciyen purus eiten direalaco; eta Espiritu Santuiri atribuiyeta yacan legues bondadea seinen contra dan maliciye, orregaitic gueiyeten yate Espiritu Santuen contracoac, isen arren Aiteen eta Semeen contra bere. Seinbet dire eta seinsuc onec
25 pecatuc? Dire sei: desesperaciñoa salbaciñoena, presumitea salvaduco dala merecimintu bagaric, contradecitea obstineduric fedeco eguiye conocidue, proximuen

14-7 *osteranseco*: ‘gainontzeko’, testuko hurbiltze adlatiboa atzizkia *-rantx* dugu batetik (cf. 2-110 *beragananch*), baina gehienetan hemen lekukotzen dugu *-ransa* (**-rantza*) orokorrangoaren formak darabiltza (cf. § 4.2.2.5; *VJ-k osterancheco* lekukotzen du testuinguru berdinean). **14-9** *negar eite*: aditza izena bezala erabilia dugu hemen, ‘negar askorekin’. *pecatu eguin*: esaldi erlatibo laburtu honetan (cf. *EGLU II*: 88), aditza partizipio hutsean emana dago eta kokapen aldetik izenaren eskuin: ‘egindako pekatu guztiak’. **14-18** *es... espada*: lehenengo *ez* juntagailuak da. **14-22** *Maliciyen purus*: ‘gaiztakeri hutsez’ ez dakigu zergatik dakarren genitiboan *malizia* hitza, berez behar ez delarik. **14-25** *sei*: sei direla esan arren bost baino ez ditu aipatzen, *bekatuan setati jarraitzea* faltako litzaioke.

14. *Credo en amargarren articulu*

graciyen embidiye, es penitenciric eitea eriosara artean. Noc parquetan ditus pecatuic sacramentoen mediyos? Jangoicoac, eta berari bacarric corresponditan yaco parquetea pecatuic, bada, dire bere contraco injuriyac. Ya esan dot: se pecatu parquetan dire
30 bautismuen mediyos? Pecatu originela eta osteransecu edosein. Ser da pecatu originela? Da â seinegas gustiuc jaiyoiten garean heredadue gueure lelengo guresoetaric. Adanec <91> pecatu eguinic gustiuc eguin guenduin pecatu bera dalaco gustiyoen burue, seinetan gagosan conteniduric, eta orregaitic Adaneganic descenditan dogun gustiuc generaciñoes heredetan dogu au pecatueu: jaiyo guinean Ceruric priveduric eta
35 miseriyes beteric.

Adaneganic descenditan estaudenac generaciñoes, heredetan daude au pecatueu? Bacarric isen da munduin bat, aude Jesuchristo, isen sana sortue es guisonen obras, espada Espiritu Santuen obras; eta Mariye Santisimea isen basan bere Adanen descendintea generaciñoes, es eben conraidu pecatu originelic, eta au isen san
40 privilegiyo especiala beste criyetureri echacana concedidu, convenitan salaco ysen sana escogidea Jangoicoen amasat isen lila gustis santea, garbiye, pecatuen mancha bagaric, es originelic es personalic. Se dañu dire acarreadu euscusenac pecatu originelac? Lelengoa da galsaita justiciye originela eta innocenciyeo estaduco ondasunec. Justiciye originela da doe eta graciye sobrenaturela, Jangoicoac infundidu eusena
45 Adaneri beresat eta bere descendinteensat. Au estadu dichosoau galdu eben Adanec beresat eta bere descendinteensat, eta bere pecatuigas acarreadu euscun gachic asco, alan arimeraco sein gorpuseraco; experimentetan dogun legues arimeraco jaiyoitea gustiuc Jangoicoen desgraciyan, pasiñoen <92> rebeldiyegas, seinsuc causetan dauden molestiye asco. Gorpuseraco enfermedadeac eta adinebeste miseriye seinde bacoach
50 padecitan daben. Arimea garbitan da sacramentu bautismucoagas, seinen mediyos leeen sana deabruen esclavue pecatu originelagas, au quenduric eiten da Jangoicoen Semea eta Ceruco herederue graciye recibitan dabenagas. Au Sacramentoau esin recibidu lei bein bisen, eta isen arren sacerdotea sacramento onen ministrue, necesidedeco orduin, seiñe ileiten dagoanean, edoseinec, nai guisonac nai hembreac, bautizedu leique; eta

14-34 *generaciñoes*: ‘sortzez’. || *Ceruric priveduric*: ‘zerua kendurik, zeruz gabeturik’, lehenengo –rik ablatibo dugu (cf. § 4.2.2.1). **14-41** *isen lila*: ‘izen zedila’, *l-* hipotetiko edo zehar estiloko aurrizkia izan daiteke. *innocenciyeo*: <nn> bikoitza grafia etimologikoa dugu (cf. lat. *innocentia*). **14-45** *descendinteensat*: adibide honetan antzeman daitekeen bezala, *ien* > *in* bakuntzeko joera dago hizkera honetan (cf. § 4.2.1.9). **14-46** *gachic asco*: ‘gaitz asko’, mendebaldean espero dugun *jtz* > (*j*)*tx* asimilazioarekin eta *asko* partikula patitiboaz lagunduta (cf. 2-39 *penosoric asco* eta § 4.2.4.1). **14-50** *leen*: ‘leen’ bokal hirukoitz bereziaz (ik. 6-25 *semeen*) **14-52** *graciye recibitan dabenagas*: ‘jasotzen duen graziarekin’. **14-54** *nai...nai*: ‘nahiz... nahiz, edo...edo’.

14. *Credo en amargarren articulu*

55 onetaraco esta bear espada ure garbiye (eta es precisamente bendiquetue ascoc pensetan daben legues) eta esan ure esarten yacala bautizetaco intenciñoegas: “Nic bautizetan satudes Aiteen da Semeen eta Espiritu Santuen usenean. Amen”. Alan eguinic gueratuiten da bautizeduric eta guero, bisi bada, eroaten da elesara cumplitaco Eleseac dauquesan veste ceremoniyacas. Bautismuegas gueratuiten da arimea pecatu originelen

60 feotasune quenduric eta recibitan dau gracyen edertasune, eta aun gorpusetan eiten ditus prodigiyoac; yaquine da Constantino emperadoreena: au bautizedu eben San Silbestroc, eta euquiric bere gorpus gustiye lepras beteric, baten bautismuigas garbitu sen bere leprea gustiye eta gueratu sen suriric eta ederric bere gorpusean. Da bere <93>

65 milegro andiye contetan dana Tiridates Armeniñeco erregueagaitic, sein isen san christiñeuen perseguidore andiye, eta orregaitic castiguetu eben Jangoicoac bera eta palaciuco cavalleroac convertiuric laguñecoen figurera; ecusi sitean laguñecoac legues, ulleacas, musturrecas, guedarras lomismo sein laguñecoac eta arcal destrozetan eudela onec animeliyoc legues. Publiquedu sen novidade au ciudade gustiti eta acudidu eben martir santu betec, seineri erechan Gregorio; sartu sen saburdaatan, asi sen prediquetan

70 fedeco misteriyoac, eta ensuten eudesan atenciñoegas. Preguntedu eusen gure beuden bautizedu eta emon eusen entenditan guedar eite moduigas bayes, gure eudela. Gente gustiye egon san espantauric ecusiric aec animeliyen figuran. Asi sen, bada, santue bautizetan eta selan yoean ure esarris bacochari esanic berbac, bolvitan sirean leengo guisonen figurera. Au milegroau ensunic admiretan gara, baye andiyegoa da egunean-

75 egunean obretan dabena bautismuic ariman, seinetan comunicuetan yacan bautizeduen arimeari es bacarric gracye, baite bere Espiritu Santuen doeac; fedeen, esperanzeen eta carideden virtuteacas, beste virtute gusticas; bada, gustic <94> lagunduiten deuse gracyeri, se gracye dagoan lecuin dagos virtute gustic. Bautismuin arsaiten dau Jesuchristoc arimea esposasat, eta esposo dibinue legues adornetan dauden joiñe

14-60 *feotasune*: ‘itsustasuna, ezaintasuna’, (cf. § 4.3.2.2). **14-61** *Constantino emperadoreena*: Erromako Constantino enperadorea, VI. mendean kristautasuna erromatar inperioaren erlijio ofiziala egin zuen. || *San Silbestroc*: Silbestre I, VI. mendeko Aita Santuari egiten dio erreferentzia. **14-62** *baten bautismuigas*: ‘bateoarekin batera’ (*OEH*, s.v. *bat - batean*). **14-64** *Tiridates*: Tiridates K.o. I mendean Armeniako errege izan zen. **14-66** *laguñecoen*: ‘txerrien’, ezaguna den hitza da, baina ez da lekukotzen *g-dun* aldaerarik euskal tradizioan (*OEH*, s.v. *lauoineko*). **14-67** *ulleacas*: ‘ilearekin’, mendebaldeko (A. eta B.) *ule* aldaerarekin batera lekukotzen da *ll-dun* aldaera Bizkaiko sartaldeko autoreetan (Mik, Añ., Zabala... *OEH*, s.v. *ile*). || *musturrecas*: ‘muturrarekin’. **14-69** *saburdaatan*: ‘txerri korta’, orain artea euskaraz lekukotu ez den hitza dugu. Erdal *zahúrda* hitza genuke, eta forma aldetik Errioxako gaztelanian lekukotzen da *zaburda* aldaera. **14-71** *guedar eite moduigas*: ‘oihu klase, mota’, aditz-izena izen legez erabilia. *fedeen, esperanzeen eta carideden virtuteacas, beste virtute gusticas*: badirudi anakolutu baten aurrean gaudela, sozietiboa baino absolutuboa beharko luketelako sintagma hauek, *Espiritu Santuen doeac* sintagmarekin batera zerrendaturik baitaude gure ustez. **14-79** *joiñe*: ‘joia, bitxi’, epentesi kontsonantea <ñ> delarik (cf. § 4.2.1.8).

14. *Credo en amargarren articulu*

80 preciosonecas, seinsuc direan doe sobrenaturelac; bada, batec bacarric baliyo dau mundu gustic beño gueiyego. Pena eternamentecoa, beragas dacarrena pecatu originelac, gustiye parquetan dau bautismuic, desuerte se bautizedu dena berlan il baledi edo beste peccaturic eguin bagaric, yoango lisateque artes Cerure Purguetoriyoan detenidu bagaric.

85 Beste penalidede acarreadu euscusenac pecatu originelac, direan legues pasiñoen rebeldetasune eta apetituena, inclineciño deungueena, enfermedadeac, eriosac eta beste miseriyac quensaiten ditus bautismuic? Es porcierto, beti gueratuiten dire gueuguen, guichigo edo gueiyego, miseriyac eta inclinaciño deungac. Disponidu eben Jangoicoen sabiduriyec gueu exercitetaco eta merecimintue euquiteco gueratu litesala

90 gueuguen pasiñoen eta apetituen rebeldetasune, peleauric Jesuchristoen soldadue legues gueure inclineciño deunguen contra, eta victoriyegas urtenic graciyaen laguntasunegas logradu guenguinsat Ceruco galardoea, sein estan emai[ten] estabenari peleetan legitimamente, diñoean legues <95> Apostoluic. Da au Jangoicoen providenciyaen disposiciño maravillosea, Ceruic adinebeste balyo daben legues razoa da costa

95 daquigule edosebere, eta gustiye esta eser comparaduric Ceruco gloriyegas; eta alan, bisi dire engañaduric pensetan daudenac trabaju bagaric irepasico daudela Cerue euren pasiñoac mortifiquedu bagaric; estire acordetan onec ser esaben Jesuchristoc: *Regnum caelorum vim patitur*; esan gure dau Ceruco dichea logretaco bear dala peleadu nobere inclineciño deunguen contra, eta bacarric logretan daude Cerue euren apetituic eta

100 pasiñoac mortifiquetan dituesanac, es eguinic eurec gure daudena, espada Jangoicoac gure dabena. Orregaitic santuic euquen contu andiye mortifiquetaco euren pasiñoac; eta alan leiduiten da ascoc ametan eudesala gustis bioseric euri ocasiño emaiten eusenai padecitaco eta mortifiquetaco. Anacoreta santuen visisetan contetan da selan euretanic batec, gustis ancianue, euquela beragas guison gaste bat ecandu deunguetacoa;

105 onec continuamente mortifiquetan eben verbas eta obras agure venerablea: esaten eusesan injuriyac, ostuiten eusen bere vearragas irepasten ebena eta escatuiten eusen gausea desatenciñoegas uquetuiten eusen. Gustiye sufritan eusen ancianu venerableac pacenciayegas aoric idigui bagaric, eldu <96> yecan eriosaco ordue agure venerable oneri, eta arturic guison gastea escuric mun eiten eusen escuitan eta negarres esaten

110 eusen: “Ha escuic, escuic! Escuic nireset dichosoac, seinbet sor deusuden! escuonec

14-86 *rebeldetasune*: ‘rebeldia’. **14-97** *esaben*: ‘esan eben’, uzkurduraz (cf. § 4.2.3.11). **14-102** *leiduiten*: ‘irakurtzen’, *-tuiten* aditz-izen atzizkiaren testuinguruez cf. § 4.2.3.2.

14. *Credo en amargarren articulus*

irepasi eraiten deuste Ceruco coroea”. Ô santu agurea, munduin esperimentetan daneric se argui diferentea euqui senduen esa[u]tuiteco gausac! Bada, apenas ulle baten tocauric basuei, eta preciyetan direanac virtuososat, enojauric sartuiten dau vivorea legues euren allebadutasunegas eresequiric: da preciso sufritea ynjuryiac eta agraviyoac
115 Jesuchristogaitic, seinec sufridu eben eta padecidu eben gueiyego gugueitic; vere pacenciye eta humildedea imiteuric irepasi guenguinsat Ceruco gloriye. *Ad quam &a.*

17-34 *aiten escuric*: ‘aitaren eskutik’. **17-35** *azoteari*: azotea egiteko erabiltzen den instrumentuari egingo lioke erreferentzia. **17-37** *yatorsule*: ‘etortzen zaizula’, datiboa gehitzen duenean trinkoan, adizki hasieran *j- dakar (FHV §9.5). || *guiyeuric*: ‘guidaturik’. **17-39** *ulleguiñoocoac*: ‘ilerainoko’, izenlagunak sortzeko -ko atzizkia edozein aditzlaguni (kasu honetan *ileraino*) gehitu dakioko (EGLU I: 200). **17-40** *alabetea*: ‘laudatzea’. **17-41** *degraciye*: ‘graziaz’ (cf. gazt. *de gracia*). 17-49 *beno*: ‘baino’, hau bezala sudurkari palatala adierazirik ez duten 16 adibide badira testuan, palataldun adibideak ugarien badira ere (*beño*, 101 adib.) (cf. § 4.2.1.10). **17-51** *euren moduin judiyoen irudicoac*: ‘juduen antzekoak euren erara’ (cf. gazt *a su modo*).

17. *lelengo mandamintu Jangoicoen leguecoa*

Eiten daude pecatu mandamintu onen contra sinistu eta adoretan dituesanac ydolo eta jangoico falsoac. Au pecatueu, segun dinoean Salomonec, da gustitan
55 andiyeena, gustiyeen principioa eta <124> causea: au de gentilen ydolatriye.

Veste ydolatriye genero bat dago christiñeuen artean; au de es confesadu arren berbeagas eta es sinistu arren entendimintuigas veste Jangoicoric eguiyescoa beño, obracas eracusten daude Jangoicoari bacarric sor iacan estimeciñoa emaiten deusela munduco gausai; eta alan ametan daudes, servitan daudes, dauque esperanza euretan
60 eta eurecas alegretan dire. Alan eiten dau avarintuic ondasunecas eta diruicas, ambiciosoac honrreagas, deshonestuic gustuigas eta vasuitan emasteac senarragas eta senarrac emasteagas. Onec gustiuc dire ydolatra espiritualac; eta alan, avarintuiri gueiyeten deuso Apostoluic ydolatrea, alan ametan dabelaco dirue Jangoicoa legues eta dauquela bildur gueiyego sein galdu deguin, eta veratan dauquelaco iminiric bere
65 esperanza, alegriye eta contentue, eta vere ondasunec aumentetarren eiten daude gueiyego Jangoicoagaitic beño. Eta avarintuegaitic diñodana, diñot andra demasiye onegas ametan dabenagaitic vere senarra eta humeac; bada, aen dago peligru andigoa ametean demasiyegas, isen arren licitu ametea bere moderaciñoegas, seinde ametean <125> amore ilicitu edo Jangoicoen ofensacoagas. Onec ya remorditan daude
70 pepadorea, baye beste amoreac erechiric estala pecatu, amadu arren demasiyegas, derecho dagoala seguru. Eta da aen generala munduin au ydolatriyeu, se esautu arren dala bat bacarric Jangoico eguiyescoa, etta osteransec gause gustiye dala engaño eta falsiye, alanbere adoretan ditues munduco gausac: ya euren descendenciyeen vanidedea, euren ondasunec, euren honrreen deseoc, euren oficiyoen ambiciñoa, euren gustu
75 desordenaduic; yminten daudesala euren borondateac eta aficiñoa basuc gause gustionetan, eta beste basuc enparte. Sor isenic Jangoicoari bacarric au amoreau eta borondate eta afecto gustiye, dabis embelesauric mundu onetaco gausetan, bailegoan legues euretan descansu eta diche gustiye, sein bacarric topetan dan Jangoicoagan. Onelango christiñeuec consideradu baleguiye ondo se verbagas dagoan escribiduric
80 Jangoicoen legueco lelengo mandamintue, reconociduco leuque direala ydolatrac. Bada, diraoscu lelengo mandamintuic amadu daygule Jangoicoa gause gustic beño gueiyego. Ac ametan da[u] Jangoicoa gause gustic beño gueiyego, <126> gustiye galsaiten

17-61 *vasuitan*: ‘batzuetan’. **17-64** *sein galdu degin*: *zein* konparatze juntagailuaren funtzioa duela dirudi, inolako aurrekaririk gabe (*hainbat, hain, baize...*) (cf. *OEH s.v. zein VI 1*); hala ere, ezezko partikulatzat ere (ik. *1-118 sein yausi gaiten*) uler dezakegu ‘ez galtzeko’ **17-66** *demasiye*: ‘gehiegikeria’. **17-82** *da[u]*: idazlearen kopiatze akatsa dela uste dugu; izan ere, esaldiaren subjektuak (*hak eta guztia galtzen duenak*) ergatiboan egonik, aditz iragankorra behar da.

17. *lelengo mandamintu Jangoicoen leguecoa*

dabenac es ofenditarren Jangoicoa; baye alcontrario eiten daude esan dogusen christiñeu ydolatrac: munduco gausac gaitic galsaiten daude Jangoicoa, ofenditan daudela
85 gravemente. Baye au isenic alan eguiye, preguntetan badeusegu onelangoai ea ametan dauden Jangoicoa gause gustiyes ganean, eransuten daude seguridade eta confinseagas “bai porcierto”, entendiugaric ser dan ametea gause gustiyes ganean. Pensean daude se sinistuitea dala ona, justoa, poderosoa, misericordiosoa eta eguiyescoa dala ametea gause gustiyes ganean, eta estaude beguiretuiten desdicheduec, conocimintuonegas eta
90 fedonegas estaudela emaiten eser euren eseric, eta eser emaiten badaude da imagineciñoea eta es biosa. Onec dire christiñeu falsoac, seinsuc gaitic diñoean Apostoluec verbeagas confesetan daudela eta obracas uquetu: *qui dicunt se nosse Deum, factis autem negant*. Bada, esta gordetan mandamintueu esautuiteagas Jangoicoac merecitan dabela amadu iseitea gause gustiyes ganean; bear da eracusi au amore
95 obracas; desuerte se ofrecidu baledi galsaita gauserean bat sein asco ametan dogun edo gause gustic edo galsaita Jangoicoa, gustic bear dogus galdu eta es ofendidu Jangoicoa euec gaitic: galdu bidi bisisea, galdu bidi honrrea, galdu bites ondasunec, <127> galdu bidi gustiye eta ese bidi ofendidu Jangoicoa, eta au isengo da amaduitea gause gustiyes ganean. Alan, cumplitaco mandamintu onegas, da preciso Ceruco socorrue: dan legues
100 gueure incl[in]jeciñoea gustiye deunguera, eta emaiten deuscuen legues gueure arimeco areriyoac guerra andiye, baye orregaitic escare disculpetan onegas, antes cuidedu andigoa bear dogu imini, considerauec gueure inclineciñoe deungac sein vencidu gaguiyesan. Bada, ascoc pensean daben bisen facil esta gordetea mandamintueu: bada, aguinduiten dau amore andiye Jangoicoagascoa, dauquegusen motivuec bera ametaco
105 dire andic, andic dire mezede sor deusegusenac. Egotea munduen aen guichi ametan daudenac da causea direalaco guichi consideretan dituesanac Jangoicoen obrac. Selan aficionaduco da eta enamoraduco da Jangoicoagas estabenac consideretan bere edertasune, bere poderiyoa, bondadea, misericordiye; vere atributu dibinuec ser dan beragan, eta guguesco selangoa dan entendidu leiye legues errecibiduec dauquegusen
110 mesedeacas? Mundu onen consideraciñoea eta obra naturalena ascori serbidu beusen

17-95 *sein*: izenordain erlatibo dugu. **17-98** *ese bidi ofendidu*: ‘ofenditu ez bedi’, *eze ezezko* markarekin (cf. § 4.2.4.10 eta 1-11 oh.). **17-100** *incl[in]jeciñoea*: in ez izatea kopia akats ohikoa dirudi; ondoko *gustiye deunguera*, bestalde, aditzik gabeko (‘*guztia txarrera [egitea]*’) aposizio perpausa dela dirudi; hots, ez dela *inklinazio guztia* irakurri behar, hitz honek artikulu determinatua baitu. **17-101** *escare*: ‘ez gara’, adibide bakarra dugu *-e* amaierarekin (*gara* 6 adib.), alabaina, forma hau lekukoturik dago Arabako Legutiano eta inguruko hizkeratan (cf. Knörr 222: 318, Gaminde 1999: 247 eta Carrera & Garcia 2005: 30). || *antes*: ‘aitzitik’ (gazt. *antes*). **17-110** *beusen*: ‘bazien’, uzkurdua baldintzazko *ba-* aurrizkian (cf. § 4.2.3.11).

17. *lelengo mandamintu Jangoicoen leguecoa*

estimeciñoa andiye Jangoicoena eguiteco, seinbet poderosoagoa isengo da vere obra sobrenaturalen <128> consideraciñoa eta vere graciye fedea irecasten deuscunena? Ser isengo da consideretea Jangoico guison eguine? Visi iseitea, tratetea, conversetea edo verba eitea guisonai: irecasten Ceruco bidea euren ygnoranciyetaric ateretea eta
115 erroretaric, osatuitea euren gasoetaric, ileitea curze baten libretarren demoniñoen poderiyoeric, Jangoicoen graciyan imintea, Cerureco herederuic eitea. Emon daigule gustiyoi berac, Jaun gustis poderosoac, arguiye esautuiteco, consideretaco onec fineza gustiyoc; alan reconociduric amadu daigunset gause gustiyes ganean, alan cumpliduric ecusi daigunset guero Ceruco gloriyan. Amen: *ad quam &a*.

120 6 *onetan*: leh. *one, tan* ganean gehitua. 7 *aguinduiten*: *d* azpian zerbait dago idatzirik, *t*? 8 *articuluic*: *articuluic* ere izan daiteke, bigarren *i* erdi borraturik dago, baina goian puntu bat ikusten dugunez *i*-ren alde jo dugu. || *Aite*: ganean gehitua. 10 *[a]langoa*: lerro hasieran egonik ezin da irakurri lehenengo letra. **121** 16 *eg[ui]yescoa*: lerro amaieran egonik ezin irakurri letra. || *onen[a]*: lerro amaieran egonik ezin irakurri letra. 18 *legue[s]*: lerro amaieran egonik ezin irakurri letra. 21 *ord[u]in*: lerro amaieran egonik ezin irakurri letra. 25 *a[mo]rea*: sisak janda dago orria, beraz ez dira irakurtzen letrak. **122** 34 *aiten*: leh. *aite, n* ganean gehitua. **123** 47 *guyiego*: *i* azpian zeozer dagoela, *e*? || *emastea*: leh. *emaste, a* ganean gehitua. 51 *dire*: ganean gehitua. **124** 68 *ametea*: leh. *ametan*, bigarren *e* ganean gehitua. **125** 69 *daude*: ganean gehitua. 70 *erechiric*: jat. *erechiriric*. 72 *etta*: *tt* bikoitz azpian *g* irakurtzen dugu. 78 *euretan*: ganean gehitua. 81 *daygule*: *y* azpian zerbait dago, *g*? **126** 85 *badeusegu*: jat. *baudeusegu*. 86 *confinseagas*: ganean gehitua. 90 *eta*: aurrealdeko gainaldean tatxoi bat du, ganean zerbait gehitu nahi izan balu legez, eta gero tatxatu. 93 *gordetan*: *n* gero gehitua. 94 *gustiyes*: *i* azpian zerbait idatzita zegoen, irakurrezina. 97 *bidi*: aurretik tatxoi bat dago, irakurrezina. **127** 98 *bidi*: *-di* amaiera hau mantxa batek estaltzen du. **128** 112 *eta*: ganean gehitua. 113 *consideretea*: *o* ez da ondo irakurtzen mantxa bat estaltzen duelako. || *conversetea*: azkenengo *a* letra orri hertsean egonik, gaizki ikusiko zelakoan, goian gehitzen du. 117 *onec*: *c* orri hertsean dago, apurtzeko zorian.

<130>

Yrugarren mandamintue da domecac eta eguseric santifiquetea

Yru gause aguinduten dire mandamintu onetan: lelengoa mesa osoa ensutea, bigarrena es bearric eguitea, yrugarrena pecatuen parcacifioea escatuitea eta atenditea eternidedeco gausac. Bear da ensun mesa osoa; eta âlan, faltetea nobere errus meseen
5 irugarren partera da pecatu mortala (ofertoriyoan sarsaiten danac nobere errus), baye faltetea epistolaguiño edo evangeliyoguiño ysengo da pecatu veniala. Mesan bear da egon atencifioeagas eta erreverenciyeagas; eta alan, eiten daude pecatu mandamintu onen contra mesan divertiuric dagosanac edo verbas edo lo atencifioe bagaric, pensetan beste munduco gausetan. Baye etorri arren pensamintu impertinenteren basuc, eiten bada
10 diligenciye quensaiteco esta isengo pecatu eta esta faltetan mandamintu onettan. Yocoan yarten danac, lo echuten danac eta viageren bat arsaiten dabenac esauturic mesea faltetaco peligrue, eiten dau pecatu mortala guero mesa ensun balegui bere; baye prudentemente pensetan dabenac alcanzauco dabela, es <131> alcanzadu arren, esta[u] eiten pecaturic. Mandasaiñec eta viageac dauquesanac, cuidedu meseagas: mesea,
15 posible isenic, lelengo ensun viagea asi beño eta alan ongo da desgraciye guichigo eta felicidedea viagetan.

Dauque obliguecifioea mesa osoa ensuteco usodeerrazoara eldu asquero ympedimenturic estauquenac; baye badauque ympedimenturen bat, edo gasoric egonic edo asistitan deusenac peligrue euquiric bacarric echiric, onec estaude pecaturic eiten es
20 ensun arren; eta aen guichi estaude pecaturic eingo sey chiquirrec dauquesan amac eesan gueratu arren, inquietauco badaude elesan sacerdotea eta beste mesa ensuten dagosanac, espadauque moduric seiñec bagaric yoateco.

18-1 *Eguseric*: 'jaiak, festak'. **18-6** *epistolaguiño edo evangeliyoguiño*: meza katolikoaren parteetako bat, gutxi gora behera erritualaren lehenengo herenari amaiera emango liotekeenak, denbora kutsuko guiño, ik. 2-117 *orainguiño*. **18-9** *impertinenteren basuc*: [-ren bat(zu)] egiturak hainbat aldaera ditu sermoitegian: -*rean bat(zu)* (11 adib.), -*reen bat(zu)* (16 adib.) eta -*ren bat(zu)* (12). Ikusten denez, ablatibo zaharraren (-*rean*) gainean eraturiko egitura bat adibide honetako formara heltzeko emandako pausu guztiak ditugu lekukorik. **18-14** *Mandasaiñec*: hitz hau bokal sudurkariarekin erlazonaturiko txandakatzea (*sei/seiñe, oi/oñe...*) izateko aurkera duen hitza da (cf. *OEH*, s.v. *mandazain*), alabaina, ez dugu adibiderik mugagabe edo kontsonantez hasitako atzizkiaz. **18-22** *seiñec bagaric*: *bagaric* izen determinatuarekin erabiltzea Bizkaiko idazleetan ikusten den erabilera da (*OEH*, s.v. *gaberik*).

18. *Yrugarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

Eiten daude pecatu mandamintu onen contra necesidade bagaric bear eiten daudenac eguseri gorde bear direanetan; baye bada bear eitea necesidedeagas edo
25 licenciyeagas esta isengo pecatu.

Santifiquetaco egusiriyec bear da ensun devociñoegas eta atenciñoeg[a]gas mesea, consideraduric atenciñoegas Jesuchristoen pasiñoa eta eriosea. San Juan Chrisostomoc <132> mesa esaten ebenean, ecusten ebesan angueruec yoasala elesati erreverenciye andigas, yquera legues, eta orregaitic diño: *ubi angeli contremiscunt, tu rides?* ‘angueruec iquera dagoan lecuin, posible da iñor egotea barreca?’
30

Es solamente eguseri-egunetan, baite bere aste-egunetan al daguinac ensun begui mesea, segaitic esin leique Jaungoicoari gueiyego agradetan yacan gauseric, es vere arimensat provechu andigocoric. Baye bear dau euqui entendiduric, selan esan eben aite santu Alejandroc Lelengoac, mesea isenic gauseric andiyeena eta excelenteena isen
35 danic eta dagoana munduin, alan escatuiten dau devociño andiye eta erreverenciye ensuten daudenetan eta celebretan daudenetan. Eta sinistu eguisu, asistitan badosu beratara devociñoegas isengo sara dichosoa mundu onetan eta bestean. San Agustinec diño angueruec contetan ditusela mesa ensuten doasenen pausic, ese dinsat gueratu arean premiñoa bagaric. San Bernardoc diño gueiyego merecitan dabela mesa ensuten
40 dabenac (entenditan da <133> gracyan egonic, segaitic pecatuin egonic estago mereciminturic) seinde visiteuric Jerusalengo lecu santuic. San Lorenzo Justinianoc diño mesan emaiten yacala Jangoicoari honrrea, angueruei alegriye, desterraduei Cerue, religiñoeari cultue, gentilei fedea, munduiri consuelue, christiñeuei contentue, erriyei uniñoa eta virtuteari firmezea. Enfin, da ofrendaric preciosoena, santuena eta
45 excelenteena Aite Eternoari eguin al leiyona, segaitic mesan ofrecitan yaco bere Seme Santisimu guison eguin sanari, sein ofrecidu san gугueitic curzean. Exemploric asco dago confirmetaco au doctrine gustiyeu: contetan dau San Antonino de Florenciac adisquide bic urten eudela eguseri-egun beten cazan, bata mesa ensunic eta bestea mesa

18-26 *egusiriyec*: (cf. *eguseri* 18-1, 18-54...) *eguziri* aldaeraren adibide bakarra dugu hau eta ez da beste inon lekukotzen (cf. *OEH*, s.v. *eguzari*): kasu honetan bada, *i/u* bokalek aurreko bokala asimilatzeke duten joeraren beste adibide bat izan daiteke (cf. *FHV* § 2.5) edo kopiatze akatsa. **18-32** *esin leique*: perifrasi honetan aditz nagusia eliditurik dela dirudi ‘esin leike egon/izan’. *Alejandroc Lelengoac*: II. mendeko aita santua. **18-38** *doasenen*: zenbaitetan erlatibozko atzizkia *-en* formapean dugu; oro har, badirudi *RUI* erregelaren bitartez sorturiko forma hedatu dela testuinguruaz kanpo (cf. 16-8 *dagoanec*, 22-75 *deudenac* eta § 4.2.1.7). || *ese dinsat gueratu*: ‘geratu ez dadin’. **18-39** *arean*: bi modutara uler dezakegu *arean* hau: edo adberbio legez eta ‘benetan, dudarik gabe’ esanahiaz (*OEH*, s.v. *arean* 3), edo izenorde legez eta ‘urlia, inor’ esanahiaz (*ibid.*, *arean* 5). **18-47** *San Antonino de Florenciac*: XV. mendeko idazle dominikoa. **18-48** *cazan*: ‘ehizan’.

18. *Yrugarren mandamintu Jangoicoen leguecoa*

ensun bagaric. Alzau sen tempestade andi bet, yausi sen errayo bat eta il eben mesa
50 ensun bagaric urten ebena. Besteac ensun ebesan guedar basuc asean esaten eudela
“heridu eguisu, heridu eguisu”, eta verlan ensun eben veste voz bat seinec siñoean “esin
dot, esin dot ensun dabelaco *Verbum caro factum est*”, entendiuric <134> mesa ensun
ebelaco. Alan daqui Jaungoicoac favorecitan mesa ensuten dauden devotoac eta
castiguetan faltetan daudenac beratara ausiric eguseriyec.

55 Eta ser esango dogu ausiten dituesanac gaitic bear eguinic euretan? San Vicente
Ferrer diñoena: *ex fractione diei festi venit omne malum*. Eta ser profanetan daudesanac
gaitic yocoacas, danzacas, vanidedeacas eta osteranseco pecatuicas? Â Jangoicoa, se
errelajaciño andiye dacusgun dempora onetan! Assumptu onec escatuiten dau es
sermoe bat bacarric, espada asco; eta San Juan Chrisostomoen zeloa erreprentitaco
60 derechat se erriren basuitan eguseri-egunean, aplacau bearrean Jangoicoa obra onacas,
gueiyego iriritetan daude. Bada, ofenditan daude aste gustin beno gueiyego, segaitic
bearguinec, oficialeac, servinteac ocupedu dabenac aste gustiye bearrean, apenas euqui
isengo dau pensamintu deungue bat gause gravean. Eguseri-egunean mesa bat carraca
ensun, da ganeco demporea empleetan daude basuc yocoan, seinetan (diñoean legues
65 San Ambrosiuc) erreinetan dau engañoic, falsiyec, embidiyec eta codiciyec; <135>
yocoan, seinetan verba eiten dana da porfiye, falso testimoniñoac, jurementoac. Yocoan,
seinetan galsaiten dan hazindea, honrrea, fama ona; destruidu esea, humeac eta
hemastea eta euren[s]a bear leuquena gastaeric deunguero. Beste basuc entretenitan
dire danza deshonestu provocativuitan, seinsuten, diversiñoen pretestoagas, gueratuiten
70 da honestidedea ultrajaduric eta Jaungoicoa ofendiduric. Â danzac, danzac! Ensun
eguisu ser diñoean San Efreneac: *ubi Choreæ, ibi virorum tenebræ, mulierum perditio,
angelorum tristitia, diaboli festum*. ‘Danzac dire, diño santuic, guisonen ysutasune,
hembreen galsaiyea, angueruen tristezea eta deabruen fiesteac’. Noc pensetan dosu
introducidu eguisela danzac? Santuren batec? Es, espada Luciferrec, abrasetaco arimac
75 eta gorpusec deshonestidedetan, eta gordetan dire eguseri-eguneraco. Â, selan
eguseriyec profanetan daudesan, selan Jangoicoa iminten dauden enojaduric! Onelan
eguseriyec empleetan dituesanac gaitic quesetan da Jaungoicoa, aserre esanic Ezequiel

18-49 *errayo*: ‘tximista, oinaztarri’. **18-51** *siñoean*: ‘zioten’. **18-52** *Verbum caro factum est*: ‘Berba haragi egin zen’, *Angelus* otoitzaren azken estrofa. **18-54** *ausiric*: ‘hautsirik’. **18-55** *San Vicente Ferrer*: Izen hau ergatibo markarik gabe erabiltzeko joera ikusten zaio sermoigileari, cf. 5-40, 33-108. **18-66** *porfiye*: ‘lehia, borroka’. **18-71** *San Efreneac*: IV. mendeko idazlea, Elizako aita eta dotorea. **18-72** *ysutasune*: ‘itsutasuna’ **18-73** *galsaiyea*: ‘galtzea, galera’, (cf. 5-81 *galsaiyea*). **18-77** *quesetan*: ‘kexatzen’, <s> frikari palatala adierazten du.

18. *Yrugarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

profetean aoti: *Sab[b]ata mea violaverunt vehementer*. Eta orregaitic esarten deuse semaiñe <136> Jaungoicoac vere castigu gogorrena: *et cominatus sum ut eff]underem*
80 *furorem meum super eos et implerem iram meam ineis*. Eta erresqui euqui daude onelangoac Jangoicoen castigu gogorren bildurre (segaitic onec gurago deuse obedecidu demoniñoari), seinec agunduiten deusen aparta diteala danza deshonestuitaric, seinsuten ofenditan dauden gravemente. Onelangoai, enmendatuiten espadire, yasoco yate Job santuec diñoena: *ducunt in bonis dies suos et in pun[c]to ad Inferna*
85 *descendunt*. ‘Ygueraiten daudes egunec alegremente eta guichien pensetan daudenean yasiten dire instante baten Ynfernure’. Alan sucedidu sen erri beten (segun contetan daben discipuluic): guison da hembra egosan danzetan eta cantetan eguseri-egun beten acostumbretaeuden legues beste ascotan, eta abisedu ebesan abade maisuec echi leguiyoela danzeari. Es eusen echi gure; bada, berlan yoan sirean ara demoniño asco
90 guisonen eta hembreen figuran, mezclau sitean danzan, eta nos ondoen danzetan egosan, idigui sen lurre eta tragadu ebesan ynfernuec direanac.

130 10 *onettan*: leh. *onegas*. **131** 13 *alcanzadu*: *l* azpian *c* irakurtzen dugu. 15 *alan*: amaieran tatxoi bat dauka: *alango?* 19 *peligrue*: leh. *peligru*, *e* gainean gehitua. 22 *espadauque*: leh. *espadauqo*, *u* azpian *o* irakurtzen delarik eta *e* gainean gehitua. 25 *Eiten...pecatu*: paragrafo hau lerroen bidez bereizirik dago goitik eta behetik. 27 *pasiñoa*: jat. *pasiñoa*. **132** 28 *angueruec*: leh. *angueru*, *ec* gainean gehitua. 30 *lecuin*: gainean gehitua. || *da*: gainean gehitua. 39 *dabela*: gainean gehitua. **134** 54 *ausiric*: *ausirie* ere irakur daiteke. 57 *gaitic*: gainean gehitua. || *se*: aurretik *!*, tatxaturik. **135** 68 *eurens[a]tt*: *t* bikoitzak zerbait estaltzen du, irakurrezina. 75 *selan*: leh. *se*, *lan* gainean gehitua. **136** 81 *bildurre*: *i* azpian zerbait dago idatzirik; *PJ* || *gurago deuse*: *a* gainean gehitua eta honen azpian zerbait irakurtzen da, *e?* 83 *yasoco*: leh. *yaso*, *co* gainean gehitua. 85 *Ygueraiten*: leh. *Ygeraiten*, *u* gainean gehitua. Bestalde, *r* azpian zerbait dago idatzita, irakurrezina.

18-78 *profetean*: ‘profetaren’ (cf. 4-73 *profetean*), *-an* genitibo singularra (cf. § 4.2.2.3). **18-79** *semaiñe*: ‘zemaia, mehatsua’ (cf. 22-28, 23-21), *-n* bukaeradun aldaera lekukotzen ez den arren (cf. *OEH*, s.v. *zemai*), hitz honen mugagabea *zemai* dela proposa dezakegu, eta bokal sudurkariarekin erlazonaturiko txandakatzearen (*sei/seiñe*, *oi/oiñe*...) beste adibide bat izatea. **18-85** *Ygueraiten*: ‘igarotzen’, *-o* bukaeradun beste partizipio batzuk legez (*jaso*, *erazo*...), *-ite* atzizkia darabil aditz-izena egiteko, *o* > *a* aldaketarekin. **18-86** *yasiten*: ‘jaisten’. **18-89** *leguiyoela*: ‘ziezaiotela’, zehar estiloa adierazteko *l*-aurrizkiarekin. **18-90** *nos ondoen danzetan egosan*: ‘eta ondoen dantzaten zeudenean’, *noiz* da mendeko perpaua adierazteko partikula bakarra. **18-91** *direanac*: gure ustez *tragadu ebesan* aditzaren objektua dugu, beraz, esaldian denbora aldaketa ikusten da.

<137>

Laugarren mandamintuen expliqueciñoa

Expliquedu asquero Jangoicoen legueco lelengo iru mandamintu Jangoicoen honreri pertencitan yacasanac, orain expliqueduco dodas beste mandamintu proximuen provechueri pertencitan yacasanac; eta proximu gustiyen artean urcoenac
5 direan legues guresoac, asiten da lelengo mandamintu diñoena aite eta ama honrretea, sein den laugarrena. Onec mandamintuonec unitan ditus euren artean Jangoicoen amorea eta proximuea, segaitic ametan estabenac guresoa estau ametan Jangoicoa eta es proximue; bada, guresoa ametan estabenac es Jangoicoagas dauco legueric es proximuigas. Honrretea guresoac dagos entendiduric iru obligueciñoa, ametea,
10 obedecitea eta errespetoa euquitea. Au amore sor deusegune guresoai bear da eracusi arpegui ona eguinic, verba ondo eguinic eta cariñuigas. Faltetan daude onetan aec seme edo alaba[c] seinsuitan apenas ecusten daude guresoac arpegui on bat, es aenguichi ensuten deuse verba on bat, tratetan daudesala aguinteagas eta gogortasunegas, seinsuc direan señaleac esteusela cariñuric; baye obrac direan legues amoreen pruebea bear
15 daude eracusi au obretan. Ara ser diñoan Apostoluic: *si quis autem suis maxime <138> domesticis, non providet, est infideli deterior*, ‘estabenac iminten cuidedue emaiteco gause necesariyoac bereai, especialmente esecoai, dala gentile beño deungago’; eta alan añaditan dau San Agustinec: *quid autem tam cuique domesticum, quam parentes filijs?* ‘Norsuc nobereago eta esecoago guresoac beño?’ Eta doctrine onen ganean diño
20 Abulenseac semeac bear daudela euqui cuide gueiyego guresoen alimentuigas seinde eurenagas, emaiteco, bear balis, guresoai aora daroen oguiye; eta badagos semerean basuc eiten daudenac au obra piadosoau, numerau esin leiyen coaine dire guresoac eiten daudenac lomismo, quasi egun gustitan, euren humeacas. Guresoai sor deusen amoreen contra eiten daude pecatu semeac edo alavac deseetan deusenac eriosea, es isen arren
25 gorrestos espada deseogas hazindea logretaco, declaraduric dauquen legues aite santu Ynnocencio Amacagarrenac. Obliguetan gatus mandamintu onec sufritan guresoen geniño, condiciñoa deunguea, euren faltac pacenciyeagas, deseetan dogule servitea

19-4 *urcoenac*: ‘hurbilenak’. **19-11** *arpegui ona eguinic*: aurpegi ona jarriz (cf. *OEH*, s.v. *aurpegi*). **19-13** *aguinteagas*: ‘autoritatearekin’. **19-14** *obrac direan legues amoreen pruebea*: erdal obras son amores esaunaren itzulpena. **19-20** *Abulenseac*: Avilakoa, zurrenik Santa Teresa Avilakoari erreferentzia eginez. || *cuide*: ‘arreta’ (gazt. *cuida*). **19-21** *aora daroen*: ‘ahora daramaten’. *quasi*: (cf. 10-87 *deusq̄ie*), lantzean behin <qu> grafia darabil *ku* adierazteko. **19-26** *Ynnocencio amacagarrenac*: XVII. mendeko Aita Santua.

19. *Laugarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

Jangoicoa eurretan, Jangoicoac eguin euscun mesede andiye euren mediyo equiric presente; bada, eurec, Jangoicoas ostean, emon euscuen iseitea, asi guenduesan, 30 sustentadu guenduesan trabaju ascogas eta cuideduigas, sufritan euscuesala gueure miseriyac eta imperteneneyac paceneyegas. <139> Errazoa da, bada, yaque esin correspondidu guiñeyen eta esin pagadu sor deusegusen beneficiyoac, es faltetea gueure posiblidadeac alcanzetan daben gausetan. Bada, da gause ciertua esin pagadu guiñeila sor deusegune gueure guresoai: amadu daigusen gueur lelengo amadu 35 guenduesanac, servidu daigusen gueur asi guenduesanac, sufridu daiiegun gueuri sufridu euscunei; bada, gustis gueiyego sufridu euscuen gueure seittasunean, seinde gueuc sufridu al guiñeyñen euren condiciño deunguean: sarsaroan, enfermedadean; baye eurec euscuen legues amore gueiyego gueuc deusegun beño, sentitan eudesan guichigo gueure trabajuic, imperteneneyac, seinde gueuc eurenac verbacas, obracas eta 40 sufrimintuigas. Dauquegu obligueciñoa honrretaco guresoac, Espiritu Santuec diñoa[n] legues: neure semea, seure aiteen sarsaroan isen sates vere aliviyoa eta descansue eta cuidao es enojeteagas eta pesadumbreac emaiteagas: *ne contristes eum in vita illius*. Eta su, semea, isen arren sabiyogoa eta poderiyo gueiyegocoa, es eguisu despreciyedu orregaitic seure guresoa *ne spernas eum*; honrradu eguisu beti, emon 45 eguiyosu contentue logretaco bere bendiciño eta Jangoicoena.

Bigarren obligueciñoa seme-alabac <140> dauquena euren guresoacasco da obedecitea Jangoicoen legueas conforme direan gause gustitan; eta alan, dauco obligueciñoa humeac obedecitaco guresoari aguinduten deusenean apartadu dila lagun deunguetaric, ese daguila urten eseric gauean, dagoanean vere visise edo arimen 50 galsaiteco peligrue, ese daguila yocatu cantidade andiric. Dauco bere obligueciñoa obedecitaco eseco gobiernuco gausetan. Eta es obedecitarren eiten daude ascotan pecatu mortala estaudenac casuric eiten guresoen aguindure, beti replican dagosanac; eta alan, inquietetan dire guresoac eta arsaiten ditues pesadumbre andiyec euren humeen soberviyegaitic.

19-29 *Jangoicoas ostean*: ‘Jangoikoaz gainera, Jainkoaz aparte’ (OEH, s.v. 2 *oste*). **19-36** *seittasunean*: ‘haurtasunean’, OEH-k (s.v. *seintasun*) Mic. eta Añ.-ren hiztegiatan bakarrik lekukotzen du hitz hau; hala ere, gure egileak sortua dela dirudi, diptongo sudurkarietan ikusi dugun legea betetzen baitu (ik. *I-95 oipetan* eta § 4.2.1.6). **19-37** *sarsaroan*: ‘zahartzaroan’. **19-39** *imperteneneyac*: ‘eurenak ez direnak?’ (gazt. *pertenencia?*), sintaktikoki zer adierazten duen zail da argitzen, guk *trabajuak* hitzaren aposiziotzat jo dugu. **19-42** *cuidao*: ‘kontuz’. **19-46** *euren guresoacasco*: erdal ‘para con sus padres’ esapidearen itzulpena dirudi. **19-49** *arimen galsaiteco peligrue*: badirudi TOGEN baten aurrean gaudela, mendebaldean ezezaguna ez den egitura (cf. Lakarra 1996: 191), alabaina, *galtzaiteko* zuzendutako hitza dugu, eta aukera dago *arimen* lehenago zegoen hitzari (izen bati) laguntzeko idatzirik egotea, ez hemen dugun aditzari.

19. *Laugarren mandamintuen expliqueciñoea [Jangoicoen leguecoa]*

55 Yrugarren obligueciñoea da reverenciye, respectoa sor deusena semeac
guresoari, aude fidelidedea, lealtadea, euquiric atenciño[e] andiye eguiteco guresoen
gustu eta borondate errazoascoa; eta estau losatu bear semeac servitan guresoa gauseric
basuenetan; bada gause ciertu[sat] seinbet humildeago portetan dan bere guresoagas
ainbet gueiyego isengo da ensalsadue Jangoicoagasco eta guisonacasco. Emaiten deuse
60 exemploa semeai gustitan sabiyoenac, Salomonec, seinegaitic diñoean Texto Sagraduic
se yoan yacanean ecusten bere ama Bersabe, alsa sila berlan eta adoradu eguila: *et
surrexit Rex in oc[c]jursum eyus, adoravique eam.* <141> Humildede onegas logradu
eben grandeza gueiyego seinde erregue iseiteagas. Baye se alcontrario eiten dauden
seme edo alaba yngrato desconocidu ascoc, seinsuc esteusen gordetan es obedenciric, es
65 respetoric, es amoreric; espada deseetan deuse eriosea logretaco hazindea, herenciye
euren guresoena. Da gause erreparetacoa, se Letra Sagraduitan dagos gureso asco euren
semeen oneraco cuide eta diligenciye andiyec eguin eudesanac, eta bacarric topetan da
seme bat seinec escatu eusen Jaun Dibinuri bere aiteensat; eta ser escatu eusen?
Baqisue ser? Licenciye enterretaco: *permite me primum ire, et sepelire patrem meum*
70 (Math. 8 n. 21). Au de euquiten dauden cuidedue semeac, eroan laster sepulturera aite,
reconocidu ser dagoan casan eta aprovechadu hazindeagas. Ha se desdiche eta
desgraciyen bildurre euqui leiye onelango seme desventureduic! Servidu beguiye
escarmintureco á seme desgracidu Absalonec sein errebeladu sin vere aiteen contra,
quensaiteco bere erreinue, eta pagadu eben laster visiseagas. Alan disponidu eben
75 Jaungoicoen providenciyeascoen escarmintureco: il sen esqueguiric arte bateric. Es
eguisue pensadu, diño San Chrisostomoc, sala au casualidedea espada Jangoicoen
juiciyoa. Isen san Jangoicoen castigu justoa <142> servidu leguiyoela vere ulleac
socasat urquetuiteco semeari, sein comparetan dan ulleagas jayyoiten dalaco burureanic,
sein den aite. Isen san castigu justoa arboleen errameac servidu leguiula Jangoicoen
80 justiciyeri ministruset preso eiteco; bada, semeac, sein de errama aiteen arboleena,
emaiten deuso guerra. Da vere castigu justoa egon dila esqueguiric ceruen eta lurren
bitertean, persona Ceruec gure estabena legues eta lurrec sufritan estabena legues. Falta
bequiyo erremediyoa bere visiseari yaque errebeladu sen verari visisea emon eusen
85 Boucher, eta da: turcoac, judiyoac eta christiñeue orientalac, ygueraiten direanean euren

19-60 *Texto Sagraduic*: Bibliari erreferentzia egiteko sintagma. **19-66** *Letra Sagraduitan*: Bibliari erreferentzia egiteko sintagma. **19-71** *casan*: ‘kaxan, kutxan’. **19-72** *leiye*: ‘lezakete’. **19-73** *Absalonec*: Daviden 3. semea, Bibliaren arabera. **19-79** *errameac*: ‘adarrak’. **19-82** *Padre Juan Boucher*: XVII. mendeko idazlea, Sorbonako irakasle izan zena.

19. *Laugarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

humeacas Josephateco valleti non dagoan Absalonen sepulturea, aguinduten deuse parau diteala eta erreparadu daguiyela selan dagoan an enterraduric â seme rebelde deunguea eta botetan daudesala vere sepulturera arric. Acordarasaiten deuse euren humeai â castigua euren escarmintureco.

- 90 Contetan dau discipuluic selan andra batec euquen alaba bat es ebena cumplitan vere <143> guresoari sor eusesan obligueciñoecas; san asco legues es eusena gordetan respectoa, obediencia eta amorea vere guresoari, emaiten eusesan pesadumbre asco eta sentimintuic. Dempora guichi barruin emon eusen Jangoicoac bere castigu mercedue: bilduric enfermedadade andi bet seinec quendu eusen visisea, pena merescitan ebena bere
- 95 pecatuic segaitic ondo merescitan dau quendu daquiula visisea veneretan estitusenari vere guresoac seinsuc emon eusen verari. Enterradu euden elesan á desdichedea eta vere sepulturaren ensuten sirean guedar lastimosoac eta sispuru dolorescoac. Sabaldu sen noticiyeu eta gure euden ascoc acudidu yaquiten, yoan sirean vere sepulturera eta gustic ecusdela ydigui sen lurre eta urten eguiyen demoniño basuc arpegui yqueragarriscoagas.
- 100 Atera eguiyen elesaric â gorpuz feoa, bota eguiyen sagradurean campure eta ensun eguiyen â alava miserableac esaten ebela tristeric: “Ai, ai, ai nire desdichedea, iseitarren neure guresoacasco desobedientea, nago condenadaric Ynfernure seculico tormentuitara.” Yquisi beguiye, bada, seme-alabac onelango escarmintuitaric, gure badaudes libredu euren arimac Ynfernurean yoateco Cerure. *Adquam nos perducatur*
- 105 *Dominus noster Jesus. Amen*

137 6 *laugarrena*: leh. *lagarrena*, *u* gainean gehitua. 8 *dauco*: leh. *dauq*, *c* azpian *q* irakurtzen dugularik. 9 *obligueciñoa*: amaieran tatxoi bat du, *obligueciñoa*? 12 *guichi*: leh. *gui*, *chi* gainean gehitua. 13 *aguenteagas*: leh. *aguenteagas*, *n* gainean gehitua. **138** 18 *tam*: jat. *tan*. || *Domesticum*: *D* ez da ondo irakurtzen, azpian zerbait dagoelako. 19 *eseacogo*: leh. *eseacogo*; *a* gainean gehitua. 20 *Abulenseac*: gainean gehitua. 23 *daudenac lomismo*: gainean gehitua. 24 *isen*: gainean gehitua, azpian tatxoi bat dagoelarik. **139** 36 *seittasunean*: leh. *seind*. || *seinde*: jat. *seindu*. 37 *alguñeyñen*: *y* ez da ondo irakurtzen, zerbait duelako azpian. **140** 50 *peligrue*: gainean gehitua. 56 *atenciño[e] andiye*: lotuta ageri dira, eta *andiye*-ren *a* horrek ezkututzen du *e*. 58 *ciertu[sat]*: orria zulatorik dago. **141** 66 *gureso*: leh. *gure*, *so* gainean gehitua. 67 *cuide*: jat. *cuidede*. || *da*: gainean gehitua. **142** 78 *ulleagas*: leh. *ullegas*, *a* gainean gehitua. 84 *onec gaitic*: leh. *onegaitic*, *c* gainean gehitua. **143** 91 *guresoari*: jat. *guresoaria*. 99 *ydigui*: leh. *digui*, *y* gainean gehitua. 104 *perducatur*: jat. *perducac*. 104-5 *Adquam...amen*: Beste tinta batez idatzia.

19-86 *Josephateco valleti*: Jerusalem inguruko harana. **19-88** *Acordarasaiten*: ‘gogorarazten’. **19-99** *ecusdela*: ‘ikusten zutela’, *-de* hirugarren pertsonaren pluralgilea dugu (cf. § 4.2.3.3). **19-100** *sagradurean campure*: ‘sokratutik kanpora’, *sagradu* kasu honetan eliz lurrari egiten dio erreferentzia. **19-103** *Yquisi*: ‘ikasi’, OEhren arabera (s.v. *ikasi*), gutxitan eta idazki modernoetan bakarrik dago lekukotua aldaera hau.

<145>

**Guresoac dauquen obligueciñoeta emaiteco criyensa ona euren humeai,
eta es emaitarren criyensa ona errepublicac padecitan dituesan
dañuic.**

Egon san Atenasen adibinu celebre bat, seinec genteen alabanseagas descubritan
5 eusesan gause ocultuic. Eurec advertitan sirean bere errespuestacas eta bera mantenitan
san bere adibineteagas. Egonic ocasiñoe baten pregunte curiosoac eiten equiyesan
persona basuen artean euretarico batec, eracusiric escuin sarturic chori bet: “adibinedu
eguisu, esan eusen, ea dagoan ilic ala bisiric choriyeu?” Curiosoac euquen intenciñoeta
san, eransuten beben “bisiric dago”, estuturic escue, eracusten eusen ilic eta burle eiten
10 eusen; eransuten beusen, “ilic dago”, sabalduric escue egas eiten eben choric eta barre
eiteuden. Conque era bitati cositan eben. Baye adibinuic entendidu eusen eta eransun
eusen: “dago choriari seuc gure dosun legues, visiric gure badosu dagoala bisiric eta ilic
gure badosu dagoala ilic. Bada, sein bata sein bestea dauquesu seure escuin.” Alabadu
euden genteac eta gueratu sen burledorea losaturic. Â respuesta beronec echi baleguis,
15 es losaturic espada irecasiric gureso asco! Ser dago ser preguntedu: <146> selan
dagosan seme eta alaba asco errionetan, ala dagosan bisiric ala ilic? Egongo dire,
guresoa, seuroc gure dosuen legues seuroen escuen, dauquesues ecandu deunguetan ilic
badagos, seuroen escuec emon eusen âen eriosa lastimosa; eta visi badire virtutean,
graciyen, obra onetan... seure escuec emon eusen aen visise preciosa. Hâ guresoen
20 escu poderosa! Ha escu poderosa! Guresoen escureanic, euren humeen visisa edo
eriosan, euren criyensa onean edo deungan, dago pendidan euren esetaco felicidade
gustiye, errepublicueco ontasun gustiye, erreinu gustico baque eta provechue, munduco
reforma eta mejora. Derechasu asco? Guresoen escuin, criyensa onean, consistitan dau
numeradu esin leiyen coaine arimen salbaciñoeta, virtuten aumentue eta cristiandade
25 gustico lucimintue. Eta guresoac espadaude iminten escue euren humeen criyensan
pordemas dagos tribunalac, esaten eben Platonec, estaude aprovechetan legueac, estaude
eser serbitan ordenanzac, dire envano castigüic, estaude eser erremediyetan destierruic
es urquemendic. Gueiyego diñot, espadaude guresoac iminten <147> escue criyensa

20-2 *errepublicac*: ‘herriak, estatuak’. **20-6** *eiten equiyesan*: ‘egiten zizkien’, aoristo perifrasi. **20-11** *eiteuden*: ‘egiten zuten’. **20-12** *dagoala*: ‘egon dadin’, subjuntibo trinkoaren adibidea. **20-16** *ala...ala*: galdera izanik *edo* beharrean *ala* dugu juntagailutzat. **20-21** *dago pendidan*: ‘X-en pean dago’ (gazt. *pender*).

20. *Guresoac dauquen obligueciñoea emaiteco criyensa ona*

oneraco, erresqui ongo dire esilic prediquedoreac se estaude eser logretan euren
30 verbeagas, erresqui ongo dire esilic confesoreac se estaude eser eser logretan euren
amonestaciñoecas eta consejuicas, erresqui descansaduco daude Jaungoicoen ministruc
se estaude eser erremedyetan euren cansaciñoecas. Â Guresoen escu poderosoa! Bada,
ya estot preguntetan humeac gaitic; errepublique gustionegaitic preguntetan dot: dago
ilic ala dago bisiric? Eransuten dot dagoala suac guresoac gure dosuen legues.
35 Adinebeste seme yocolari tramposoac, holgasaec, lapurrec, ordic; adinebeste alaba
desollada perdide, escandalosac. Noric dator au dañueu âen generala, sein de
lastimosoa? Pensadu egisue ondo eta ecusico dosue guresoac direala causea. Nori
eingo deuso cargu Jaungoicoac, nori artuco deuso contue adinebeste pecatu, lapurreriye
eta escandaluena? Guresoai; bada, euretan dago dañue gustiye, eurec erremedyoa imini
40 euquelaco.

Athenasco errepublican juntedu sirean senadoreac iminteco mediyoac viciyoen
<148> eta ecandu deunguen erremedyuraco (esan aen desdichedue â errepubliquea,
seinetan juntetan san consejue es solamente hazindeen mejorac eiteco, baite bere
ecanduen mejorac iminteco eta viciyoac erremedyetaco). Emon euden euren parecer[r]a
45 eta euretarico batec, juiciosoenac, ensun asquero gustiyei bota eben gustiyeen erdire
sagar bat gustiye ustelduric egoana, eta esan euden: “se erremedyo derechasue egon
leitequeala ori sagar[r]ori, sein dacusuen dala gustiye ustela, gueratuiteco ostera sano,
ederra eta dulce?” Pregunte dificultosoa, sagar bat gustiye ustela bolvitea ostera sano.
Selan lisateque? Gustic gueratu sitean suspenso. Berac esan eusen: “Bada, ara, atera
50 eguiyosues biyosean dauquesan pepitac edo asic, erin egisues, cuidedue equi egisue
gobernetaco eta urte guichi barruin sagar ustel orretaric gozaduco dire sagar sano, fresco
eta dulceac.” “Alan da” eransun euden gustic. “Bada, alan bada, esan eben, imini bidi
bear dan cuidedu humeen criyensan eta urte guichi barruin gozaduco dogu errepublique
gustiye mejoraduric.” Alan <149> da, guresoac? Balire guresoac obligueciñoegas
55 cumplitan daudenac euren humeen criyensan, urte guichi barruin mudeducu lisateque
gustis christiandadea: eseac ecusico lisateques baque andin, discordiye eta ausi bagaric,
asistitaco elesara, beste debociño e quico leuque errosariuraco, doctrineraco,

20-29 *erresqui ongo dire*: ‘ziurrenik egongo dira, hobe litzateke egongo balira’, adiera honekin bizkaieran lekukotzen da Añibarrorangandik hasita (OEH, s.v. *errazki* 2). **20-35** *yocolari*: ‘jokalari’. || *holgasaec*: ‘nagiak, alferrontziak’, erdal –*án* bukaera –*ae* emaitza du hizkera honetan (cf. *FHV* § 7.5). **20-36** *desollada*: ‘lotsagabea’. **20-38** *lapurreriye*: ‘lapurreta’, hitz hau Larramendiren hiztegitik aurrera lekukotzen da hegoaldean (cf. § 4.3.2.2). **20-47** *oster*: ‘berriz’. **20-50** *erin*: ‘erein, landatu’, aldaera hau Astar. eta J.J.Mg.-k darabilte (OEH, s.v. *erein*).

20. *Guresoac dauquen obligueciñoa emaiteco criyensa ona*

sermoeraco, mesaraco eta, verba baten esateco, christiñeuec bisico lisateques christiñeue legues; eta orain bisi badire gentilec legues, an ecusico dosue, guresoac, selangoac
60 direan suen pecatuic. Â Jaungoicoac, seinbet eta se andic eta aen descuideduic se guichiten acusetan dire guresoac! Visi dire asco seguridede falsoan eta au de euren condenaciñoeric ciertuena.

Gause ciertue da, laugarren mandamintuic errigore andigoagas obliguetan ditus guresoac humeac beño, orregaitic mandamintuonec estitus nombretan guresoac, segaitic
65 âen da clarue euren obligueciñoa, se aun esautuiten badaude animeliyac. Setara esango yate christineuei? Humeac eguiten ditusan <150> pecatuic gestic, guresoen descuidu eta criyensa falteagaitic, pagaduco ditues guresoac. Estago duderic. Contetan dau Plutarcoc: lacedemonien artean semerean batec eiten beben deliturean bat es euden castiguetan semea, espada bere guresoa, seineri esarten eusen errue bere descuiduegaitic, es semeari
70 bere consideraciño falteagaitic. Emen estaude alan determinetan legue civilec; baye ser importetan dau euren ynfemetasun publicuic emaiten badau sentenciye guresoen contra eta Jaungoicoen legeac executetan badau? Ya bada, preguntetan dau catecismuic, se obligueciño dauque guresoac euren humeacas? Dauque obligueciñoa alimentetaco, doctrinea irecasteco eta estadue emaiteco bere borondates conforme. Â se cargu andic
75 Jaungoicoen tribunaleraco iru partide onetan! Â se condenaciñoa cumplitan espadire: sustentau, doctrinea yrecasi, eta emon estadue <151> euren borondates conforme. Sustentadu, obligueciño onen ganean estauquet ser esan, se âen de clarue se estaudenensat cumplitan, es isenic bastante nire esatea, obeto entendiduco daude castigüicas. Eiten daude pecatu mandamintu onen contra guresoac euren humen
80 alimentureco, yansireco, bear daudena gastetan daudenean yocoetan, ordiquerian.

Doctrinea irecastea da bigarren obligueciñoa. Â guresoac, gure neuque nire verbac isen litean centellac imprimetaco suen viosetan! Â assumptueu seinetan dauquesuen âen descuidu andiye seuroen floxedadeagaitic! Berbas asiten direan demporareanic bear yate irecasi gause onac, Santissime Trinidedeco misteriyoa,

20-63 *errigore*: ‘zorroztasun’. **20-67** *Plutarcoc*: historialari, biografo eta saiakeragile grekoa. **20-68** *lacedemonien*: ‘espartarren’, Grezia zaharreko Espartak *Lacedemonia* izenez ere ezaguna zen. **20-76** *borondates conforme*: ‘borondatearen arabera’. **20-77** *de*: ‘da’, *RUI* erregelak eragindako aldaerak badirudi testuinguru horietatik kanpo ere hedatzen hasi direla egilearen hizkeran (cf. § 4.2.1.7). **20-78** *nire esatea*: ‘nire esana, nire hitzak’, aditza izen legez erabiltzeko aditz-izena darabil. **20-80** *ordiquerian*: ‘mozkorkeria’, Larramendiren lanaren ostean lekukotzen da hegoaldean (cf. § 4.3.2.2). **20-84** *demporeanic*: ‘denboratik’ (cf. 20-87 *ordureanic*), testu zaharretan *-rean(ic)* atzizkiak murriztapenak zituen, haien artean ezin zen denbora kutsuko testuinguruetan erabili (Lakarra 1984a: 189), gurean baina baditugu honelako adibideak.

85 encarnaciñoecoa, siguiñetuiten, Ave Mariye eta Paternosterra. *Erudi yllor [et curva illos] a pueritia illorum*, diño Espiritu Santuic. Baye eldu asquero usodeerrazoara, emen asten da, gurasoac, suen cargüe, emen suen obligueciñoerri gurosoa, ordureanic sagos obligueduric irecasten seuroen humeai pecatu <152> mortalen bean Credo, mandamintuic, sacramentoac; es bacarric dememoriye, papagaiyoea legues, espada

90 entendidu deiyesan moduin misteriyo bacocho banan-banan; mandamintu bacocho, sacramento bacocho banan-banan expliqueduric modu onagas entendidu daguiyensat eta sagos obligueduric pecatu mortalen bean repetitan continuaciñoegas ese daquiensat ainstu. Â Jaungoicoa, se provechu andiye isengo lisatequean au guresoensat eta euren humeensat cumplidu baleguiye obligueciñoeau sor dauden legues. San Luys Franciyeco

95 erregueac asiten ebesan obra eta acciñoer gustitan eiten eben curze santeen señalear eta esaten eben: “Alan irecasi eusten neure ama seiñe ninsenean, ama santeac legues.” D. Blanca[c] esaten eusen legues vere seme San Luiseri: “neure semea, leenago gure seunquedas ecusi ilic neure besoetan se es ecusi pecatu mortalean.” Alan errepetidu baleguiye euren humeai au isengo da bada irecastea, imprimatea <153> chiquirretaric

100 christiñeu on baten prendac: Jaungoicoen grandesen estimeciñoea. Jesuchristoen amore andiye, Mariye Santissimeen devociñoer andiye, respeto gause sagradu gustiyeri, estimetea graciye, euquitea bildurre eta aborrecimintue pecatuena. Baye batec esango deust: “Jaune, nic espadaquit, eta espadot entenditan doctrinea neuresat, selan irecasi deuset neu[re] semeari edo alabeari?” Au de desdicheric andiyeena, au de lastimeric

105 andiyeena; baye selan ama uguesic estauquenac dago obligueduric topetan noc emon deyen uguesa asiteco vere semea, alan obligueciñoer andigoa dauquesu topetaco noc irecasi deiyen doctrinea eta seuri bere bai, eta esta setan alegau escuseric dala gastea, edo dauquela memoriye laburra.

Perseguitan eusen christiñeuei Dunan araben erregueac, contetan dau

110 Metafrastec, eta euren artean eguin eben preso andra bat eta condenadu eben erreric

20-89 dememoriye: ‘buruz’, (gazt. *de memoria*). || *papagaiyoea*: ‘papagaia’. **20-92** *ese daquiensat ainstu*: ‘ez dakientzat ahaztu’, *ainztu*-ren bost adibiderek in batera *aiztu* (7 adib.) eta *astu* (*eragin*) (3 adib.) ditugu; *OEH*-k (s.v. *ahaztu*) ez du aldaera hau lekukotzen, baina *anztu* ikusita, *aiztu* formak diptongo sudurkaria izan zuela suposa genezake, eta honetan sudurkaria berrezarri da diptongoaren ostean. **20-94** *San Luys Franciyeco*: Luis IX., XIII. mendeko Frantziako erregeaz ari da. **20-97** *D. Blanca[c]*: -c hertzean egonik, koadernaketak estaliko luke azken -c. Blanca de Castillari, XIII. mendeko Frantziako erreginari egiten dio erreferentzia. **20-103** *irecasi deuser*: baldintzaren apodosia izanik, *irecasi[co]* espero genuke; badirudi akatsa izan daitekeela, ondokoa ikusirik, pasarte azkar idaztearen ondorio nonbait: cf. iturria: “...como se la enseñarè à mi hijo?” (Mtz. de la Parra 1705: 188) **20-104** *neu[re]*: *neu* lerro bukaeran dago; beraz, egiantzekoena da lerroa aldatzeko orduan gertaturiko haplografia bat izatea. **20-105** *uguesic*: ‘ugatz-esnea’ (cf. *OEH*, s.v. *ugatz* 2). **20-110** *Metafrastec*: X. mendeko Simón Metafraste idazle bizantiarra.

20. *Guresoac dauquen obligueciñoa emaiteco criyensa ona*

quendu lequiula visisea. Euquen onec bost <154> urteco semechu bet eta egoanean ya bere ama palure esturic sue emaiteco, semechuic bere amen asean ebilela negarres guedar eiten “nire ama, nire ama, non da nire ama?” Alan eldu sen erregueagana esaten ebela “nire ama, nire ama?” “Emen nauquesu neu, esan eusen erreguea, setaco dosu seure ama?” “Es, neure ama gure dot eroan naguinsat martiriura, se alan deust esanic ascotan.” “Bada, baquisu ser dan martiriyoa?” “Bai, eransun eben mutilchuic, da ileitea Christogaitic visi iseiteco guero beti.” Atonitu eta espantauric erreguec ensunic au bost urteco hume bateri, da preguntetan eusen osteria ea nor dan Christo, eta esan eusen: “Erdi ona eta irecasico deusut se an dago elesa” Onetan dacus eta esautuiten dau bere ama selan egoan ya iminiric martirysetaco, orduin guedarres asten, yoaten beragana eta erreguea detenitan. Mutilchuic agarretan deuso belauric erregueari eta useguiten deuso, dolorera soltetan dau eta boa ñoc detenidu esin eben moduin eta asi sanean padecitan martiriyoa bere <155> ama sartu sen lamen erditeti eta abrasadu sen beragas lllaman, eta gueratu sitean aus eguinic, aus dichoso eta gloriosoac obeto esateco. Bost urteco hume bat? Ama dichosea, corona bi dichosoac logradu sendusen era batera! Guresoac, alan dauquesue seuroen escuin dicheric andiyeena edo desventureric andiyeena: labradu eguisue coroaric gloriosoena seuren humetan, emon eguiyosu criyensa onagas errepublique gustiri exemploa, seuren esei prosperidedea eta dichea, seuren humeai visiseric onena, seuroen arimai graciye eta gracyen aumen[te]taco logretaco Ceruco gloriye: *ad quam nos perduca...*

145 2 *emaitarren*: leh. *emait*], *a* azpian *e* irakurtzen dugula eta *rren* gainean gehitua. || *ona*: gainean gehitua. 12 *sein bestea*: gainean gehitua. 15 *losaturic*: jat. *losataric*. **146** 15 *alaba*: aurretik tatxoi bat dago, *Aitec*? 16 *escuen*: gainean gehitua. || *ecandu*: leh. *ecan*, *du* gainean gehitua. 18 *seure*: leh. *seu*, *re* gainean gehitua. 22 *onean*: leh. *onan*, *e* gainean gehitua. **147** 38 *erremediyoa*: leh. *erremediyo*, *a* gainean gehitua. **148** 41 *desdichedue*: leh. *desdichedu*, *e* gainean gehitua. 44 *erdire*: gainean gehitua. 46 *ustela*: gainean gehitua. 50 *dire*: gainean gehitua, baina mantxa batek estaltzen du. **149** 56 *debociño*: jat. *debeciño*. 57 *christiñeue*: leh. *christiñeu*, *e* gainean gehitua. 62 *da*: gainean gehitua. || *ditus*: gainean gehitua. 65 *Humeac*: leh. *humea*, *c* gainean gehitua. || *ditusan*: leh. *ditue*], *s* azpian *e* irakurtzen dugularik. **150** 68 *errue*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. 73 *irecasteco*: leh. *irecas*, *teco* gainean gehitua. 75 *yrecasi*: leh. *yreasi*, *c* gainean gehitua. **151** 78 *onen*: gainean gehitua. 81 *imprimetaco*: *e* ez da argi ikusten azpian *g* bat dagoelako. 86 *asten*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. **152** 96 *Blanca[c]*: koadernatzean jarritako errefortzuak estaliko luke *c* hori. **153** 103 *de*: gainean gehitua. 106 *esta*: leh. *es*, *ta* gainean gehitua. **154** 114 *martiriura*: leh. *mar*, *tiriura* gainean gehitua. 118 *irecasico*: leh. *irecasi*, *co* gainean gehitua. **155** 129 *perduca*: leh. *perdu*, *ca* gainean gehitua.

20-114 *dosu*: esaldiari aditz nagusia falta zaiola dirudi, iturriaren arabera: “Aquí no me tienes a mí, le dixo el Rey, para que quieras a tu madre?” (Mtz. de la Parra 1705: 188). **20-121** *useguiten*: ‘hozka egiten, ausikitzen’, testuan *usegi* hau eta *usigi* (2. adib.) topatzen ditugu, aldaera biak mendebaldeak lekukotuak. **20-122** *detenidu esin eben*: *ezin* normalean perifrasiaren aurretik kokatzen da (cf. § 4.2.4.6), hauxe da aditz laguntzailearen aurrean den adibide bakarra.

<159>

Se gause ymportanciye andicoa dan emaita criyensa ona humeai eta ontati datos provechu andic, eta es emaitarren datosan dañuic gustis andic, alan espiritualean sein temporalean.

Dauque guresoac obligaciñoa emaita criyensa ona euren humeai visi
5 ditesansat Jaungoicoen bildurrean, virtutean, gorderic Jaungoicoen mandamintuic eta
Elesacoac. *Docete filios vestros*, esan eben gueure Jaungoicoac, irecasi eguiyosu
seuroen humeai, eta au isen bidi, ordu gustitan, esean sagosanean, *quando sederis in
domo tua*; bidean soasanean; *et ambulveris in via*; yaiguitten sareanean eta echuten
[sare]anean, *et accubueris et surrexeris*. Au[de egui]ten ebena Davidec: *timorem*
10 *Domini docebo vos*. Alan Tobias santuec, eta alan eguiten daude euren
obligeciñoegas cumplidu gure dauden gureso gustiyec. Irecasi bear deusena da
doctrine christiana eta, diño San Ygnacio martir gloriosoac, irecasiteco oficiyo
honestuic, sein emon daguiyen <160> arpelerira.

Ser pensetan dosu guresoac dala emaita Jaungoicoac seme bat? Dala, diño San
15 Basilio doctoreac, ymintea escuitan arguisegui bigunesco masa bat, veratan imprimitaco
eguiyac eta costumbre onac. Dala, diño San Chrisostomoc, imintea seuroen esean
arbolechu gaste bat seinec emongo daben frutue, selan erregadu daguisuen doctrineen
uregas. Es bacarric erreguetaco doctrineagas, diño Policianoc, espada bere artestuiteco
repreñiñoegas eta castigiigas oquertuiten bada edo bide oquerreti badoa. Lomismo da
20 emaita Jangoicoac seme bat. Baye ser? Esan begui Texto Sagradu betec erresucitedu
asquero â seiñe difuntue Eliasec, diño Texto Sagraduic entregadu eusela bere amari. Da

21-6 *eguiyosu* [...] *humeai*: datibo singularra adierazten digu –ai atzizkiak; ik. 13-41 *leiquiyo proximuei*. **21-8** *yaiguitten*: bizkaiko forma nagusia *jagi* den arren (OEH, s.v *jaiki*), sermoitegian diptongodun aldaera da lekukotzen den bakarra (Bizkaiko VJ, Mikoleta, Arzadun eta Laudioko kateximan legez; OEH *ibid.*); kasu honetan gainera, egileak berak zuzentzen du (*yaguitten* > *yaiguitten*), diptongodun forma bermatuz (cf. §§ 4.2.1.9; 4.3.2.3). **21-10** *Tobias Santuec*: Bibliako liburu baten (Tobiasen liburua) protagonista. **21-12** *San Ygnacio martir*: San Ignazio Antiokiakoa, I. mendeko apezpiku eta Elizako doktorea. || *sein emon daguiyen arpelerira*: esaldia ulergarri egiteko ezezkoa izan beharko litzateke, eta balizko iturriak (Barcia 1693: 206, cf. § 4.3.1.1), hori berresten du ‘...para que eviten los riesgos de la ociosidad’; beraz, kasu honetan *zein* ezezko partikula dugu sartaldeko bizkaieran ezaguna den bezala, gainera subjuntiboan jokatzek ere hori indartzen du (ik. 1-118 *sein yausi gaitean*; cf. Gaminde 2007: 126). **21-13** *arpelerira*: ‘alferkerira’, *arpel* aldaera Añibarrok eta Uriartek erabiltzen dute, azken hau Arrigorriagako dotrinan (OEH, s.v. *alfer*). **21-15** *Basilio doctoreac*: San Basilio Zesareakoa, V. mendeko apezpiku eta Elizako doktorea. **21-17** *erregadu*: ‘urezatu’. **21-19** *Policianoc*: Angelo Poliziano, XV. mendeko Florentziako humanista. || *artestuiteco*: ‘zuzentzeko’. **21-21** *Eliasec*: Bibliako pertsonaia, Erregeen liburuetan kontatzen da bere historia.

21. *Se gause ymportanciye andicoa dan emaita criyensa ona*

errepairaco gausea se moduten diñoean: *deposuit eum de cænaculo in inferiorem domum et tradidit matri suæ*. “Eresi eben cenaculuric eta entregadu eusen bere amari”; <161> gueiyego diño, advertidu eben doctore batec: *nota terminos deposuit tradidit*.

25 Esateco textoac entregadu eusela bere amari, diño berba bat seinec signifiquetan daben “depositetea”, *deposuit*, yaquin begui amac (diño Eliasec) dala lomismo imintea seiñea seinde imintea deposituin. Yaquin begui echacala emaiten, espada iminten dala bere deposituin, bolvitaco Jaungoicoari gustu andigas escatuiten dabenean. Diño doctore onec doctrine ymportantea au guresoensat, seinsuc alan sentitan dau Jangoico eroatea

30 humeac bailirean legues euren yaubeac: baye dago ser advertidu gueiyego humeen deposituin. Baquisue ser dan depositue? Da entreguetea gause bat beste bateri imini deguinsat diligenciye eta cuidedue gordetaco, guero bolvitaco bere yaubeari osoric; eta bere cuidedu faltan galsaiten bada dago obligueduric errecibidu ebena errescatetan, especialmente errecibitan badau premiureen bat gordetarren. Guresoac, diño San Juan

35 Chrisostomoc, <162> Jangoicoac emaita seme bat da lomismo seinde imintea, Eliasec legues, seuroen poderean depositu andi bet, sein estan guichi arime bat beño; bere ymaginea, joye bat costa equiuna Jesuchristori bere odolen preciyo infinitue. Ecusi egisue se cuidedu andiye merecitan daben depositu onec eta beguiretu egisue segas pagaduco dosuen arime bat, seuro[en] cuidedu faltan galsaiten bada criyensea, guresoac,

40 se bear yaco bolvidu depositue osoric bere yaubeari. Diño San Chrisostomoc, se ymportanciye andicoa dan criyensa ona esautuiten da aun gause sentiduric estauquenetan se diamanteric onena labretan espada gueratuiten [da] bere brutalidadean; lurric onena labretan edo cabadu espaidi estau emongo frutu onic, espada aranzac eta matac. Eta aun animelietan: caballoric onena dometan espada esteuso serbiuco bere

45 uguesabari ondo: *equus indomitus evadit durus*. Baye gustu claru esautuiten da entendimintu dauquen criyuretan, segaitic selangoa dan seiñen criyensea alangoac <163> esperadu leiques vere bisiseco frutue edo dañue. Espavere esan beguiye anaje biyaec Venceslao eta Boleslao, isenic gureso basuen humeac Venceslao isen san Boemiaco principea gustis virtuoso eta ajustedue, eta Boleslao gustis malvadue eta

21-23 *Eresi*: ‘eraitsi, jaitsi’. **21-29** *ymportantea au*: izena artikularekin agertzea akatsa izan daiteke (hitzen artean lerro aldaketa dago), baina uler dezakegu *au* hori indargarritzat gehitu zuela, balio sintaktikorik gabe. **21-34** *errescatetan*: ‘itzultzten’. **21-37** *bere ymaginea, joye bat costa equiuna Jesuchristori bere odolen preciyo infinitue*: aditzik gabeko esaldi kopulatiboa dugu, bi elementuak apositioan emanik: *bere imagina da bitxi bat*. **21-43** *espaidi*: ‘ez badadi’, *edin* adizki asimilatua: **ba(d)idi*. **21-44** *aranzac eta matac*: ‘elorriak/sasiak eta bedaxkak’. **21-45** *gustu claru*: esaldiaren subjektu irangaitza mugagabea dugu. **21-48** *Venceslao eta Boleslao*: X. mendean bizi izandako Bohemiako printzeak; lehenengoa euren amama Ludmilak hesi zuen, bigarrenari euren ama Drahomirak (dirudienez, Drahomirak hil zuen Ludmila bere amaginarreba).

21. *Se gause ymportanciye andicoa dan emaita criyensa ona*

50 cruela. Au diferenciye andiyeu etorren euren criyensareanic, sein isen san gustis
diferentea: segaitic Venceslao asi eben Ludmila matrona piadoseac eta Boleslao bere
anayea asi eben Draomira andra cruelac. Estago duderic, criyensareanic datos humen
visiseco frutu onac edo deungac, selangoa dan criyensea guresoac emaiten deusena.

Baye aun il asquero guresoac, eta humeac experimentetan dire criyensa onen
55 conseqüenciyc edo efectoac, diño San Juan Chrisostomoc, segaitic guresoac asiten
baditues euren humeac Jaungoicoen bildurrean eta costumbre onetan, es solamente eiten
dosu ondo euren humeai eta euecas tratetan daudenai, baite bere euren matrimoniuco
lagunei, euren netuei eta birnetuei eta descendiente gustiyei euren acabure artean, diño
doctore santuic. <164> Ara Testo Sagradu bete lomismo: ya urten euden Abranen
60 tabernaculuric angueru yoasana castiguetan âec cuidade malvaduic, Sodoma eta
Gomorra; euretarico batec esan eben Jaungoicoen personan: *num celare potero Abrahan
quæ gesturus sum?* Selan isengo da posible gure isenic adinebeste Abraneri, es esatea
setan noean, eta especialmente yaquinic irecasi deusela bere humeai eta familiyeri
Jaungoicoen bildur santue? Noc estacus (diño expositore sabiyo batec) seinbet
65 agradetan Jaungoicoari humeen criyensa ona, bada Jaungoicoac estau eiten memori[ri]c
beste Abranen virtuteenic, eta bacarric eiten dau memoriye criyensa onena? Eta noc
estau advertitan (diño Abulenseac) es solamente beguiretuiten dabela Jaungoicoac
humeac asco, espada bere bere familiyeco genteena? *filiys suis et domui suæ*. Advertidu
daigun gustiyoc, baye dirudi berba bat sobra dagoala: *filiys suis et Domus suæ post se*.
70 esautuiten dot (diño Jaungoicoac) yrecasico deusela Abranec bere humeai eta familiyeri
bere egunec iguero <165> asquero: *post se*. Bada, ser erresuciteduco da Patriarquea
irecasteco? Ala isengo da bastante bere memoriye irecasteco bere descendienteai? Selan
irecasico da il asquero? *post se?* Baquisue selan? Diño Pererio sabiyoac: “Dacus
Jaungoicoac (patriarca onen premiuraco) bere humeac, eta criyeduic euquico dauden
75 criyensea bere doctrineagas. Dacuses costumbre onen efecto siguiduco direanac

21-58 *netuei eta birnetuei*: ‘bilobei eta birbilobei’, *OEH*-k ez du *netu* hitzik (*nieto* bai, ordea), baina ez dirudite erdal mailegu gordinak, aitzitik, euskal fonetikari egokitu zaio *netu*: bukaeran *-u* dugu eta goranzko diptongoa sahiestu da (cf. *FHV* §9.1) (erromantzeko *e > ie* aldaketa gertatu aurretik mailegatu zela pentsatzen ze badugu behintzat, cf. lat. *nepotis > neptus*). Bigarren hitzak, gainera, *netu* horrek nolabaiteko historia duela erakusten du, *bir-* euskal aurrizkia erabiltzen baitu. Familia izenen mailegatzea ez da guztiz ezezaguna euskal tradizioan, sartaldeko bizkaieran *abuelo*, *abuela* edota *primo* bezalako hitzen maileguak ezagunak baitira (cf. Gaminde 2007: 211-2). **21-59** *bete lomismo*: cf. *bate legues* (13-88 45-95) eta *bete legues* (15-131; 24-166); euskaraz *n + l* kontsonante bilkura bakuntzeko joeraren adibideak ditugu hauek (ik. *FHV* § 18.16). **21-65** *agradetan*: aditzari laguntzailea falta zaiola dirudi (*deutso*, *jako*), agian aditzari indar emateko (cf. *EGLU II*: 109). **21-73** *Pererio sabiyoac*: XVI. mendeko Benito Pererio edo Benedictus Pererius jesuita valentziarrari egingo lioke erreferentzia.

21. *Se gause ymportanciye andicoa dan emaita criyensa ona*

criyensa onereanic bere humeetan eta criyeditan, eta daqui Jaungoicoen magestadeac au criyensa onau eta doctrinau elduco dala bere descendintetara”. Eta alan diño se aun bere egunec iguero asquero irecasico dabela *et domui suæ post se*. Ara noguiño elsaiten direan criyensa onen ondasunec? Bada, elsaiten dire bere descendiente gustitara, *et domui suæ post se*.

<171>

A la bienabenturanças

159 7 *esean*: leh. *esan*, *e* gainean gehitua. || *sagosanean*: jat. *sagasonean*. 8 *yaiguitten*: leh. *yaguitten*, *i* gainean gehitua; bestalde, *tt* azpian zerbait irakurrezin dago. 9 *[sare]anean*: mantxa batek estaltzen du, eta berregin behar izan dugu, hala hola irakur dezakegunaren arabera. || *Au[de egui]ten*: mantxa batek estaltzen du, eta berregin behar izan dugu, hala hola irakur dezakegunaren arabera. **160** 14 *dala*: mantxa batek estaltzen du. **161** 24 *doctore*: ez da ondo irakurtzen, *dxxtore* bezalako zerbait dago, *Dxx*- horrek beste zerbait duelako azpian. 28 *dala*: gainean gehitua. **162** 45 *gustu*: leh. *gus*, *tu* gainean gehitua. **163** 52 *datos*: leh. *dator*, *s* azpian *r* irakurtzen dugula. 59 *doctore*: leh. *Doctre*, *tore* gainean gehitua baino *tre* tatxatu barik. **164** 63 *deusela*: amaieran tatxoi bat, irakurrezina. **165** 79 *dire*: gainean gehitua.

21-82 *a la bienabenturanças*: badirudi beste sermoi bat idazteko zela, izenburu legez ageri baita orrialde honetan; alabaina, ondoren atzera egin zuen edo beste leku batean idatzi zuen, orria zuriz baitago.

<173>

Bostcarren mandamintuen expliqueciñoa

Da bostgarren mandamintue es iñor ileitea. Ser aguinduiten deuscu Jangoicoac mandamintu onetan? Aguinduiten deuscu gueure proximuiri es gachic eitea, es ileitea, es escuric egostea, es verba deungueric esatea, es odioric es venguetaco deseoric
5 euquitea eta es escandaluric emoitea. Ser da escandalue? Verba edo acciñoie deungue bat seinegas emoitien yacan gueure proximuiri motivue pecatuen yausteco. Ser eguin bear dogu mandamintueu gordetaco? Lelengo, gueure proximue amadu eta tratadu ondo; bigarrena, apartadu ausi eta querelletaric eta deunguen conversaciñoie eta
10 compañireanic; irugarrena, colorea datorrenean esilic egon eta iguero pacenciyeegas proximuen falta eta injuriyac, eta deunguero eiten deuscuneri es deungueroagas pagadu, espada ondo eguinegas. Eiten daude pecatu mandamintu onen contra proximuiri gorretoa edo borondate deunguea deusenac, eta agraviyoac parcatu gure estituesanac, eta isengo da mortala danean gause pisucoan; eta gorretoa quendu bagaric eiten direan confesiñoieac gustic dire deungac, sacrilegiyoac, eta lo mismo comuniñoieac. Jaune,
15 bada, ser eguin bear <174> dau cumplitaco vere obligueciñoieagas proximuiri gorreto deusenac? Lelengo, quendu gustis bere vioseric gorretoa: es gure isen deunguero es venguetaco deseoric euqui eta parcatu deveras injuriyac; bigarren, amadu bioseric segaitic Jesuchristoc aguinduiten dau es bacarric es gorretoric euquitea, baite bere ametea: *diligite inimicos vestros*. Eta da bastante au? Es. Bear da vere ofrecitan danean
20 ocasiñoiea manifestadu ametan dabela eguinic agur edo cortesiye, edo berba eguinic; bada, onetan faltetea da eracustea caridedeen faltea, eta escandalue emaita.

Eiten dau pecatu mandamintu onen contra nobere buruiri eriosea deseetan deusenac gorretoagas edo desesperaciñoieagas, edo modu onetan nobere burue ileiten dabenac, baye bada peaturic es eitarren edo libretarren pena anditaric, isenic
25 Jangoicoen borondate, esta pecatu eta deseetea nobere eriosea Jangoicoa ecusten yoateco, au de virtutea. Yleiten dabenac edo heriduiten dabenac gravemente vere proximue, pecatu mortales ostein, dauco obligueciñoiea rescattetaco calte, dañu gustic,

22-4 *escuric egostea*: ‘eskurik [gainean] jarri’, dena delakoa hartu edo jotzeko helburuz. **22-9** *colorea*: ‘haserrea’, aurpegiko koloreari egingo lioke erreferentzia. **22-12** *gorretoa*: ‘gorrotoa’ (ik. 4-114 *gorretos*). **22-22** *nobere*: *-r-* gabeko aldaera, dirudienez oso berriki arte dokumentatzen ez dena (*OEH*, s.v. *norbera*), espero litzatekeen aldaera da mendebaldeko hizkera batean, hauetan ohiko baita elkarketetan lehenengo elementuko *-r* biguna erortzea: *zegaitik, nok...* (cf. *FHV* § 17.7).

22. *Bostcarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

eta <175> cuidedu Jangoicoen semaiñegas, *qui cumque efuderit humanum sanguinem fundetur sanguis illius*, segaitic da au pecatu gustis andiye quensaiten deuselaco
30 guisonari ondasunic andiyeena seinden visisea. Eiten daude vere pecatu mandamintuonen contra yan edo edan excesoagas eiten daudenac: mortala isengo da exceso andiye eiten danean advertiuric dañu andiye, eta da au viciyoau guleena ese ascoen perdiciñoa, visiseena eta arime ascoen condenaciñoa; orregaitic esan doa ondo gueiyego ileiten dabela guleac espatteac beño, eta diño Davidec gulosoac gaitic euren
35 gargantea dala ya euren sepulture idiguiye, segaitic estagos urrun sepultureric onelangoac. Naturalezeta guichigues conte[n]tan dala diño Galenoc, baye ascoen viciyoa esin contentadu lei; bada, apenas pensetan daude beste gausetan espada yaten eta edaten vetettartean. Onec dauque euren Jangoicosat tripea, *quorum Deus venter est*, eta dire araco Epicureo desdichiduic legues seinsuc esaten euden: “Yan eta edan daigun
40 se biyer ilgo gara”; baye suc, christineu deunguea, onec imitetan badosus yasoco yasu onei yaso equiyeena, seinde <176> esautuitea Ynfernuin seure erracunsea erremediubagari, *ergo erravimus a via veritatis*. Eiten dau vere pecatu mandamintu onen contra deseetan deusenac vere proximiuri eriosea; isen arren heredetaco hazindea, aguinduiteco, gobernetaco esea, seme deungue ascoc deseetan dauden legues euren
45 guresoen eriosea, llobac euren osabeena. Eta lomismo diñot senar-emasteac gaitic, deseetan deusenean alcarrereri eriosea: ya da gorretos, edo libre gueratuitarren, edo veste matrimoniu bat arsaitarren. Au de pecatu mortala dalaco faltetea gravemente caridedean, eta ametan estabena, diño San Juanec dagoala ilic ariman: *qui non diligit manet in morte*, eta alegretan danac proximuen eriosegas edo beste desgracireen bat
50 ecusiric bere hazindan, osasunean edo faman, isenic gause pisucoa, eiten dau pecatu mortala, eta ysenic gause chiquiye, veniala. Faltetan dau bere proximu ondo ecusiric tristetuiten dana seinden embidiye, viciyo aen infamea eta pestilentea, se usteldu eta corrompitan dau embidiosoasurretaguiño, diñoen legues sabiyoac: *putredo os[s]ium invidia*. Viciyo onegaitic il eben Caine bere anaye Abel; onegaitic vere anayeac saldu
55 euden Joseph, baye alan Cain sein Joseen anayeac castiguetu ebesan Jangoicoac diñoen legues Escriture Sagradeac, eta <177> egunean-egunean castiguetan ditus Jangoicoac embidiosoac aflicciñoecac eta miseriyacas, eurec esautu es arren ascotan, esan eben legues Salomonec.

22-32 *ese*: ‘etxe’. 22-36 *Galenoc*: II. mendeko mediku greziarra. 22-39 *Epicureo*: k.a. III. mendeko filosofoa. 22-45 *llobac*: ‘ilobak’. 22-51 *chiquiye*: (cf. 23-112 *chiquichutaric*) aldaera honen adibide bi dugu, sermoitegian normalean *txikir* (15 adib.) edo *txiker* (5. adib.) aldaerak darabiltza.

22. *Bostcarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

Eiten daude pecatu mortal andiye andra sabelean catigu danari galdueraiteco
60 seiñe diligenciye eiten daudenac, consejue emaiten dabenac, medicinea, errecetea
onetaraco edo ese daguinsat sortu seiric. Eiten dau bere pecatu andra consentitan
dabenac edo eiten dabenac exerciciyo andiye edo esfuersuic onetaraco, nai dala
escondue nai es. Bada, esin executedu leique onelango maldaderic isen arren gordetaco
honrrea nescatille sabelean catigu danena, dagoalaco condenaduric opiniñoeau, eta
65 begoan criyetea visiseagas diligenciyc eguin eudesanean abortetaco, galdu beguin
seiñe onetan cooperadu euden gusic gueratu sitean excomulgueduric. Bada, dago
excomuniñoen nagusiye penea onelangoen contra eta eriosa afrentosoena, eta
Jangoicoen tribunalac eternamenteco eriosea eta Ynfernue cometitan daudenai onelango
maldadea eta crueldadea, dana legues quensaitea visisea criyetea bateri eta privetea
70 seculaco Jangoicoa ecusteric. Eta es egon arren seiñe bisturic da pecatu mortala eitea
diligenciyc edo <178> apliquetea medicinac, sangriyac... galdueraiteco seiñe,
orregaitic galdu espalegui bere.

Eiten daude bere pecatu mortala esconduic usetan daudenac matrimoniñoa
humeric es euquiteco finegas. Eiten daude pecatu mandamintu onen contra desafiyetan
75 daudenac bere proximue, admititan daudenac desafiyoa eta lagun eiten deudenac; eta
yausten dire excomuniñoen, eta desafiyotan ileiten direnac esin enterradu leis
sagraduin segun Conciliyo Tridentinucoac diñoen.

Jangoicoen legue gustiye dago ametean Jangoicoa gause gusic beño gueyego
eta proximue nobere burue legues. Eta proximuri sor deusegun amorea, basuc ignoretan
80 dauden legues setan consistitan daben eta selan bear dan amadu, diñot se ametea
proximue nobere burue legues da deseetea vere proximuri ontasun gustiye pensadu al
leiyena, noberesat dagoana bat obligueduric deseetan; aude, Ceruco gloriye. Eta ara
elduiteco bear dir[e]an gausac eta cumplitaco mandamintu onegas, bear deusegu escatu
Jangoicoari bere graciye favoreta eta socorrue, segaitic, gure biosa, bere naturaleza da
85 soberviyoa, deunguero sufridue eta venganzeen adisquidea, eta egonic personarean
basuc dauquenac odiyoa eta vengueta deseoa eta derechea dificultoso vencitea
pasiñoeau. Gach onen remediuraco imini deigusen <179> consideraciñoen basuc:

22-59 *sabelean catigu*: ‘haurdun’, *catigu* aldaera mendebaldeko hizkeratan (B. eta A.) lekukotzen; esanahi honekin Larramendik eta literatur bizkaierako f. Bartolome eta Añibarrok dakartzate, bai eta Lardizabalek ere. **22-65** *begoan*: jusibo bat dirudi, menpeko esaldian ‘egon bezan’. **22-75** *deudenac*: RUI erregelak eragindako aldaerak (-tu dau- > -tu deu-) badirudi testuinguru horietatik kanpo ere hedatzen hasi direla egilearen hizkeran (cf. 16-8 *dagoanec*, 18-38 *doasenen* eta § 4.2.1.7). **22-77** *Conciliyo Tridentinucoac*: Trentoko Eliz-batzarra.

22. *Bostcarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

sentitan dabenac au pasiñoau proximuen contra pensadu begui proximuori, isen arren
gustis erruin, vil, desconocidue dala Jangoicoen criyetea eta es animeliye legues,
90 espada vere semea costa yacana vere odola, eta Jaun Divinu onen amoreagaitic dagoala
obligueduric eiten aleguin gustiye, eta es euquiric verac mereciminturic parquetaco,
Jangoicoagan topetan dire errazoaric asco parquetaco. Veguiretu sates errencorosa, ser
merecitan daben Jangoicoac dana dalaco, eta se obligueduric sauquesan vera servitaco
sor deusesusen mesedeac gaitic eta sufridu ebelaco sugueitic gustis gueiyego
95 comparaciño bagaric suc veragaitic sufridu al siñeyen beño.

Acorda saites bere seinbet ofensa eguin dosun pecatu eiten daquisunic ona seure
Jaun Dibinuen contra, seinec aguinduten deusun orain parquetan: derechasu eiten
dosule gause andi bet parqueteagas Jangoicoen amoreagaitic seinec seuri adinebeste
parcatu deusun? Acorda saites errazoa bagaric escatuiten dabela misericordiye
100 Jangoicoari vere proximuigas estauquenac misericordiric. Estau alcansauco
Jangoicoaganic misericordiric es parcaciñoeric estauquenac misericordiye edo
parqueetan esteusenac vere proximuiri. Consideradu <180> eguisu bere erremediusat,
errencorosa, pasiño orren contra emaiten deusun consejue sabiyoac, acorda saiteala
seure postrimeriyecas eta aistuco yasusela odiyoac. Acorda saites oneric dempora
105 guichi barruin ecusico sareala eriosaco trancean, nos estosun deseado beste gauseric
espada logretea misericordiye Jangoicoagan, segaitic ordu atan beste dese gastic
astuco yasus. Ysenic au alan, euqui eguisu gause ciertuset: serviduco deusun gause bat
orduin alcanzetaco parcaciñoa da orain parquetea ofendidu satusenari agraviyoac. Gure
dosu orduin euqui Jangoicoa misericordioso; bada, isen sates orain misericordioso seure
110 proximuigas. Gure badosu an logradu parcaciñoa, orain parcatu eguiyosu seure
proximuiri. Consideradu eguisu bere: obra onen merecimintu andiye es bacarric da
mediyoa alcanzetaco parcaciñoa, baite bere aberastuiteco arimea merecimintuicas;
segaitic theologüec emaiten dauden errazoa bat obra onen merecimintuena da bere
dificultedea: desuerte, seinbet dificultosoago dan obra on bat, ainbet merecimintu
115 andigocoa isengo dala. Errazoa onegaitic martiriyoa da obra aen merecimintu andicoa,
dalaco aen trabaju andicoa eta dificultosoa, eta parquettean sentitan badosu trabaju
andiye alan errecibiduco dosu Jangoicoaganic galardoe <181> corresponditan yacana
andiye. Diño San Juan evangelisteac proximue ametan dabena dabilela arguiten eta

22-104 *postrimeriyacas*: ‘azkenkiekin’; erlijioaren arabera, gizakiaren azken egoerak dira postrimeriak: heriotza, epaiketa, infernua eta gloria. || *oneric dempora guichi barruin*: ‘hauetatik denbora gutxira’. 22-105 *Jangoicoagan*: inesiboarekin, (cf. gazt. *lograr la misericordia en Dios*).

22. *Bostcarren mandamintuen expliqueciñoa [Jangoicoen leguecoa]*

120 estau ofenditan, eta estauco escandaluric bere ariman; baye odiyoa dauquena dabilela
ilunean eta tropezauc dabela, eta yausico dala ascotan. Gause ciertue da, euquiric
odiyoa personareen baten contra, berlan erechiten deusegu deunguero bere gause
gustiyei, eiten dogus berlan juiciyo deungac eta condenetan dogus deungu[e]sat, eta
dator berlan enojue vere contra, embidiye, murmureciñoa eta osteranseco gause
125 deungueric asco. Odiyua dauquenac esta conte[n]te[n]tan berac bacarric euquiteagas
odiyua; espada, procuretan dau imintea deunguero edo injurian vere adisquideac.

Esan dan gustiyec espadau bigunduiten sure vios gogorra quensaiteco gorretoa,
consideradu eguisu Jaun Dibinuen exemploa, seinec curzean atravesauric imini
eguiyeenean unseacas, aranzas coronaduric, vere espaldac azoteacas idiguiric, gustiye
llagaduric eta dolores beteric, eta gustire bere Ama Santisimea presente egonic; lelengo
130 berva eguin ebena, lelengo voza arrancadu ebena buler lastimoso eta cansadu ataric isen
san escatuitea Aite Eternoari parcatu leguiyela vera crucifiquedu eudenai. Bada, se
desconocimintu andigoric, se ingratitude andigoric sein da alango exemploen casuric es
eitea. Au considera bear dosu rencorosoa, desuerte se injuriyac arturic munduco leguera
emaiten badeusue tormentue, arturic Christoen leguera emongo deusue consuelue.

173 15 *bear*: orrialdearen izkinean *d* bat dago idatzia arkatzez. **174** 15 *dau*: orrialdearen hasieran tatxoi bat dago: *dogu cumpli?* izan daiteke tatxaturikoa. 21 *caridedeen*: leh. *caridedea*, azken *e* azpian *a* irakurtzen dugu eta *n* gainean gehiturik dago. 22 *dau*: leh. *daude*, *-de* tatxaturik orria zulatzeraino. 27 *pecatu*: leh. *peca*, *tu* gainean gehitua. **175** 33 *perdicinoea*: amaieran tatxoi bat du. 34 *espatteac*: *tt* azpian zerbait dago, *u?* **176** 45 *llobac*: jat. *llobat*. 50 *osasunean*: *o* azpian zerbait dago *e?* 51 *proximu ondo*: loturik agertzen dira eta *ondoren o-* azpian zerbait dagoela dirudi. 54 *Abel*: *Ab* argi ikusten da, baina *el* koadernatzean jarritako errefortzuak estaltzen duela dirudi. 55 *Cain*: ondoan beste tinta batez gehitua. **177** 62 *dabenac*: leh. *dabe*], *nac* alboan gehitua; alabaina *n* koadernatzean jarritako errefortzuak estaltzen duela dirudi. 70 *Jangoicoa*: Azkeneko *a* mantxa batek estaltzen du. || *es*: amaieran tatxoi bat du. **178** 71 *galduerateco*: leh. *galduerateco*, *i* gainean gehitua. 80 *diñor*: leh. *diño*, *t* ondoren gehitua. 86 *derechea*: *a* gainean gehitua; *a* azpian tatxoi bat dago, papera zulatu duena. **179** 93 *Jangoicoac*: leh. *Jangoicoa*, *c* gainean gehitua. **180** 114 *dan*: gainean gehitua. 116 *parquettean*: *tt* azpian zerbait dago, *g?* **181** 119 *estauco*: leh. *estau*, *co* gainean gehitua. 125 *dau*: gainean gehitua. || *injurian*: bigarren *i* gainean gehitua, bere azpian tatxoi bat dagoelarik, irakurrezina. 126 *espadau*: leh. *espada*, *u* gainean gehitua. 128 *coronaduric*: *-ro-* mantxa batek estaltzen du. 131 *Eternoari*: leh. *Eternoa*, *ri* gainean gehitua. 133 *rencorosoa*: gainean gehitua. 134 *emaiten*: jat. *emanten*. || *badeusue*: jat. *badesue*.

22-121 *erechiten*: ‘irizten’, aditz-izena partizipioaren gainera egiten da *-i* partizipiodun aditz zenbaitetan (cf. § 4.2.3.2).

<185>

Maldiciñoac esarteco usenseac se dañu andic dacasan

Diño catecismuic verbeeiteagas vere ileiten dala. Dagos miñec odolic atera bagaric emaiten daudenac eriosea, lelengo maldicienteari berari eta guero vere verbeen venenoa padecitan dabenari. Legue asentaduset legues corritan dau medicuen artean

5 enfermeda[de] agudoetan miñerean arsaiten direala señaleric ciertuenac; obeto eracusten dau miñec barruco dañue seinde pulsuic. Ecusten badosue calenture agudo baten, diño Hipocratesec, gasoen miñe balsituric yques amatadue legues eta bero yques eresequiye legues, estala setan esperadu osasunic, idigui dila sepulturaea: *lingua nigra et virulenta calamitosa*. Bada, gorpusen medicineti tanteatuco badogu arimen medicinea, da preciso

10 nic emaita noticiye gustic deunguea emen ensuten dagosan basuei, sentenciye iqueragarrisco bat, estauquet galduric osasunen esperansea baye ecusiric euren miñec, bai. Abisetan dodas verlan dagosala gustis deungueric, gustis peligruin ileiteco lanean *lingua nigra et virulenta calamitosa*. Dacusden vasuc, especialmente hembrac seinsuen colerea isenic andigo euren ynderra beño, manifestetan daude[nac] <186> euren

15 maldadea miñegas. Dacusdes asco asistitan daudenac elesara: erresetan daudela asco, ensuten daudesala sermoeac, errecibitan daudesala sacramentoac. Arainguiño pulsue ondo doa, baye erreconocitan badogus euren miñec euren esetan, â Jangoicoa! Se balsic dauquesan ynjuryetaraco eta se eresequiric maldiciñoetaraco! Criedeen descuiduric chiquerrena, badacusde seme edo alaven travesurereen bat edo senarren

20 ympertenensireen bat edo gausea alrebes datorrenean; se errayoac, demoniñoac, tabardilluic, puñeladac, eriosac... Se semaiñec enojetan direanean! Ori de suen miñe? Bada, dago suen biosean veneno ocultue seinec erremediū bagaric tiretuiten deusue quensaiteco bisiseric onena. Eta gaueric deungueena da aen casu guichi eguitea quensaiteco au ecandu gaistoau dauquenac, aen cuide guichi imintea quensaiteco.

25 Onetan dago venenoric mortalena, veti biraotiyen contra eta ascotan vere maldiciñoen venenoa padecitan daudenen contra. *Venenum aspidum insanabile*, diño Ceruco

23-2 *miñec*: ‘mihiak’ (cf. 10-52 *miñen* eta 11-29 *mi*). **23-7** *Hipocratesec*: k.a. V. mendeko medikua, medikuntzaren aita. || *balsituric*: ‘belzturik, kolore beltzez aldatua’, cf. mendebaldeko hizkeretako *husitu* (cf. 16-73), *hotzitu*... **23-10** *gustic deunguea*: *deunguea* ondoren gehiturik dagoenez, gure ustez *gustis deunguea* aldatu beharko litzateke, egileak *deungue* esaldira lotzeko aldaketarik egiten ez duela baitirudi. **23-17** *balsic*: adjektiboa partitiboarekin emana, indar enfatikoa emateko (cf. *EGLU I*: 277). **23-21** *tabardilluic*: ‘tifus’ (gazt. *tabardillo*), irudizko adieran erabilia. **23-25** *biraotiyen*: ‘madarikatzaileen, biraogegileen’, literatur bizkaieratik (Mogel eta Añibarro) lekukotzen den hitza.

23. *Maldiciñoac esarteco usenseac*

Hipocrates onenac, Ceruco medicuic Jangoicoac: da esin osatu leiyena, erremediuric estauquena, aspidesen venenoa. Eta Segaitic? Segaitic herideric eguin bagaric introducitan dabelaco venenoa *absque morsu conspuens hominem*, <187> *veneno perimit*. (Lorino, *in p.* 13 *vers* 3). Da aspidesa sugue genero bat usigui bagaric, odollic atera bagaric, herideric eguin bagaric, introducitan dabena venenoa chu eguinegas. Eta estan legues erreparetan, estan legues aguri herideric, eta sentitan estan legues doloreric, sentisegaric quensaiten dau bisisea: *venenum aspidum insanabile*. Yqueragarrisco venenoa! Baye esango deuste, orrec aspidesoc dagos an, Afriqueco
30 montañetan, Libieco arenaletan, emen seguru gagos euretaric. Seguru? Bada, dagos gueure artean eta acaso dagos asco elesa onetan. Baquisue norsuc direan onec aspidesoc? Bada, dire maldicienteac. Diraoscu Jangoicoac berac David profetean aoti, dire euren aoac maldi[ci]ñoes beteric dauquesanac: *venenum aspidis sub labijs eorum quorum os maledictione et amaritudine plenum est*. Onetarico batec esarten dau
40 maldiciñoea vere semeen contra, criyeden contra edo estrañuen contra; estau odollic ateretan baye doa yncorporaduic venenoa. Eta sentisegaric, seinbeteri maldiciñoac quendu deuse visisea? Seinbeteri osasune? Seinbeteri arimea? Â veneno madariquetue, alan ileiten dabena sentisegaric, odollic atera bagaric quensaiten dabena adinebeste bider visisea. Dire <188> maldiciñoac esilico ileitea, yleite solapadue, eta orregaitic
45 yqueragarrigoa. A maldicienteac, suensat isiric dago Ceruco erreinue! Pensetan dosu estosuela eser eiten maldiciñoec orrecas, aseac daroasan berbac direala? Estaudela eser ymportetan? Bada, esteusue guichigo ymportetan Ceruco erreinue beño, seuroen salbaciñoec beño, sein quensaiten deusuen. Estiñot nic, espada San Pabloc *maledici Regnum Dei non possidebunt* ‘maldicienteac estaude alcanzaduco Ceruco erreinue’.
50 Descubridu daigun aun veneno ynfernala topetaco vere erremediyoa escuse bagaric. Deunguero esatea eta maldecitea dire gause diferenteac gure berba eite moduin, deunguero esatea da murmuretea, quensaitea honrrea, famea; maldecitea esta bacarric entenditan maldiciñoec gaitic, maldecitan dau bere venguetaco deseoagas semaine esarten dabena verbeagas dañu eta gach gravereen bat eiteco; eta eiten dau pecatu

23-28 *aspidesen*: ‘aspisaren’, OEH-k ainbat formekin lekukotzen du (*aspik, aspide, aspi*) baina ez dugu forma honekin aurkitu; izan ere, mugagabea *aspides* litzateke (cf. 23-30 *aspidesa*). **23-30** *Lorino*: Juan Lorino, XVII. mendeko josulagunari eta bere *Commentariorum in librum Psalmorum*-ari egiten dio erreferentzia. || *usigui*: ‘hozka egin’ (cf. 20-121 *useguiten*). **23-31** *chu eguinegas*: ‘tu eginez’. **23-33** *sentisegaric*: ‘sentitzegarik, sentitu gabe’, Añibarrok lekukotzen duen atzizkia da *-tzagarik* (< *-tza bagarik), (cf. § 4.2.5; ik. 24-18 *acabasaco*). **23-35** *arenaletan*: ‘hareatzetan’. **23-37** *profetean*: ‘profetaren’, *-an* genitibo singularrarekin (cf. § 4.2.2.3). **23-44** *esilico ileitea*: ‘heriotz ixila’. **23-46** *aseac*: ‘haizeak’, <s> txistukari palatala (*haxe*) adieraziko luke, mendebaldeko *iz > (i)x* asimilazioa erakutsiz. **23-53** *semaine*: ‘zemaia mehasua’ (cf. 18-79 *semaïne*).

23. *Maldiciñoac esarteco usenseac*

55 mortala eta esta escusetan es superiora es guresoa, uguesabea, maisue bere semaine venguetaco deseogas bada, baye esta isengo pecatu corregitaco intenciñoegas bada semaine, bide artesean iminteco deseogas vere proximue.

<189>

Maldecitan dau bere vere proximuiari arpeguin esaten deusenac ynjuriye
60 gravereen bat seinegas deshonorretan daben, eta da pecatu mortala parqueescatuiteco obligueciñoegas, eta veiar bada belaunico, edo condenadu. Ha se puntu pisu andicoa au andra artean guichi erreparadue! Esan arren alcarrerari iñon direan ynjuriyac, deshonorrac. Andra batec sein icusiric odol tilenque bat desmaiyetan dan, estau erreparetan eiteco bere miñegas herideric cruelenac eta eriosaric iqueragarriyenac visisan eta honrran.
65 *Flagelli plaga livorem facit* diño Espiritu Santuic, eta dañu andiset consideretan bada guison bateri paluquedac emaita veiar da lomismo beguiretu gause gravesat heriduitea verbeagas, diño San Geronimoc. Baye comunmente gueiyeiten yacan maldiciñoea da (segun Santo Thomasec diñoan) manifestetea verbeagas proximuiari deseetan yacan gacha edo dañue deseetan bayaco bere gacheraco, segaitic dagos gachac proximuiari bere
70 provechureco deseadu leiyosana, v.g. gureso batec bere semeari deseetea leenago eriosea Jangoicoen contra ofensaric eguin beño. Ynnocenciyo santuegaitic contetan <190> da se ecusiric vere semea pecatu eiteco peligru andi beten, escatu eusen Jangoicoari leenago sartu lequiula deabru bet gorpusean. Alan yaso equiun, gurago isenic aiteac endemoniduric ecusi seinde pecatuin, Â se aite ona!

75 Estogu verba eiten onen ganean estalaco maldiciñoea, baye isengo da deseetan danean dañu andiye edo gacha proximuiari es vere oneraco espada gacheraco, eta isengo da pecatu mortala, escusetan espadau advertenciye falteac edo intenciñoenac. Baye, â Jangoicoa! Emen iseiten dire escusac; batec diño: “nic esarri nendusen maldiciñoac colereagas eta enojuigas, baye enenduen equi alcanzadu leguiyen intenciñoeric.”
80 Colereagas eta intenciñoec bagaric? A se dificultoso! Bat edo beste isen leiteque, baye es isenic colerea quensaiten dabena advertencia eta maldiciñoec terribleac, sentimintu dasacala biosean eta verbac direala intenciñoec bagaric, ecusico dosu Jangoicoen

23-60 *parqueescatuiteco*: ‘barka eskatzeko, barkamena eskatzeko’, (cf. 26-52, 26-54), *parka eskatu* eta dagoeneko Añibarrok badakarren *parkeskatu* formaren arteko aldaera dugu, orain artean lekukoturik ez zena (cf. *OEH*, s.v. *barka*). **23-66** *paluquedac*: ‘makilkadak’. **23-68** *Santo Thomasec*: ziurrenik Santo Tomas Akinokoari, XIII. mendeko Elizako doktoreari egingo lioke erreferentzia, *Summa Teologica*-n gaizki esatez hitz egiten baitu. **23-82** *dasacala*: (cf. *dasaquela* 46-109 eta *dasacanegas* 46-110) ‘dazakala, erretzen dela’, *izegi* aditzaren trinkoa dugu, balizko jatorrizko bertsioa ikusita (Mtez. de la Parra 1705: 207; cf. § 4.3.1.1).

23. *Maldiciñoac esarteco usenseac*

tribunalean. “Nic esteuset gachic deseetan, estauquet injuriric.” Isen bidi alan, baye eleiteque instante formadu dese deunguea eta instante eguin dañue? Ecusi eben aite

85 batec bere alabachu bost urteco batec edaten ebela esne pisque bat berac gorderic euquena <191> esan eusen colereagas: “edan eguisu, edan eguisu deabruigas.” Alan isen: bada, berlan sartu yecan eta atormentadu eben urte ascotan criyetur tristea. Beste batec “niri berlan damutuiten yat.” Da ser, colereagas botetan badeusesu escopetasu bet seure proximui ri verlan damutuiteac erremediyeco dau baleac eiten daben eriosea?

90 Diño beste maldiciente batec: “Nic adinebeste maldiciñoac esarten dot se estot advertitan.” Seinbet isen isengo dire? Esin numerau leis. Eta gustic intenciñoac bagaric? “Es, basuc esarri nendus en intenciñoac.” Â miñe infernala, ya dauquesu iquisiric languagea tratetaco condenaduicas Infernuin! Se confesiñoac eiten dosu? Selan comulguetan sara? Badauquesu seure entrañetan aspidesen venenoa, se propositu edo se

95 enmienda dacasu confesiñoera? Bada, yaquin eguisu ecandu orregaitic sagosala pecatu mortalean. Espadosu al daguisun diligenciye gustiye quensaiteco tempestade andi beten yausten direanean errayoac, acaso gustic ileiten ditues guisonac? Es, basuc gueratuiten dire lurrean beste basuc asean, eta alan bere se iquera egoten garean? <192> Repiquetan dire campac, eresequiten dire candela, eiten dogu curse santeen señaleara, ateretan dire

100 curseac, erreliquiyac. Â seinbet esetan bear lisateques gau eta egun eguin onelango diligenciyc segaitic mi deungue baten odeiyec disparetan ditus maldicinoetan erraiyoac! Eta ser sucediduco onelango maldiciñoac? Desdichea, desventurera, galsaiyera. Esta setan pregunteu, onelango mi deunguea dagoan lecuin nondi etorri sen edo selan, desgraciye, trabajue. Selan estan yasaiten espada desdichea. Esta setan

105 pregunteu; bada, orrec mi deungueorrec betetan desdiches senarra, familiye, ese gustiye: *Contritio et infelicitas in vijs eorum*. Baye especialmente guresoac, suen maldicinoac dauque inder doblea seuroen humeen contra: *benedictio patris firmat domos filiorum, maledictio autem eradicat fundamenta* (Eccs. cap. 3). “Gureso baten maldiciñoac (diño Espiritu Santuic) destruidu, consumidu eta acabaduiten ditusela humeac.” “Ya enas

110 maravilletan, diño Senecac isenic gentile, enas admiretan suceditan direalaco adinebeste desdiche, adinebeste guison gaste galduric eta <193> hembrac.” Ser euquico dogu? Eta ser euquico daude? Chiquichutaric guresoac esarten badeuses maldiciñoac, maldiciñoac asi direan humeac, ser euquico daude euren visisan espada desventurera?

23-88 *escopetasu*: ‘eskopetaz tiro’ (gazt. *escopetazo*). **23-89** *baleac*: ‘balak’. 23-99 *campac*: ‘kanpaiak’ (ik. 5-87 *campa*). **23-110** *Seneca*: Lucio Anneo Seneka k.o. I. mendeko filosofo, hizlari eta idazle erromatarra.

23. *Maldiciñoac esarteco usenseac*

Segaitic dagos adinebeste seme gaistoac, alava desolladac? Asiten direala
115 maldiciñoecas, diño Sabiduriye Dibinuic: *nequis[s]imi filij eorum, maledicta creatura
eorum* (Sap. 3. vers 3.). Ser pensetan dosue guresoac, estalaco cumplitan berlan suen
maldiciñoea estabela eiten bere efectoa bere benenoagas, esan beguiye humeen
desgraciyac eta guresoen deshonrrac. Ceruco alabac dire perlac, diño Pliniuc, baye
120 sortuiten direanean badago odeiye yausten direala errayoac, es ecusi arren berlan dañue,
urteiten dau perlac ilunduric eta esta provechuco; alan dacusgus, bada, humeac honrra
bagaric ilunduric, guresoen maldiciñoac alan iminiric. Contetan dau Alberto Magnoc
usigui eusela bateri bururic chacur amurrutu batec, orduin berlan es eben
sentidu eser, amavi urte iguero asquero asi sen sentitan beneno aen inderra. Guresoac, es
ecusi arren suen maldiciñoac cumplitan direala berlan, demporeac esango ditus euren
125 efectoac. Emon deuse, bada, aen inder andiye Jangoicoac guresoen <194> maldiciñoelai
enparte humeen bildurreraco eta guresoen castigureco: humeac equi daguiyensat
bildurre es ofenditaco guresoac segaitic, equiric lurrean Jangoicoen lecue, eiten dau
Jangoicoac cumpli diteala euren maldiciñoac. Alan dagos numeradu esin leyen coaine
exemplar. Contetan dau San Agustinec, equiric andra alargun betec saspri seme eta iru
130 alaba faltadu eusela gustic errespetora, eta berac colereagas esan eusen: “Arrebada, ese
daguisuela equi sosieguric seuroen visisan, bada niri esteustesue emaiten neure
sarsaroan,” berlan asi sirean iqueratuiten oiñetariac eta burure, aen moduten se instanteco
sosigu bagaric ibili sitean ciudade ascotati, escarmintureco euren visisac acabetartean.
Guresoen castigureco bere cumplitan ditus Jangoicoac euren maldiciñoac: alan yaso
135 equiun ama bateri, seinec equiric alabachu innocente saspri urteco bat, esarten eusen
sarpri maldiciñoea edosein enojaaldigues, esanic: “Arrebada, osoac yan aguiyela.” Alan
esan eusen gos baten bera eta senarra yoasanean ciudadera mesa ensuten. Egoan eseco
atetan criyetea divertitan yocoan, non etorri sen urrengo basoric oso bat, satitu eben
eta yan eguin criyetea, eta sobradue eroan eusen <195> vere humeai cuevara. Bator
140 bere ama, sentitan dau bere alavachuen faltea, ecusten dau odola, yastecoac odoles
beteric. Erratuti bayocean osoen cuevara non ecusi eben bere alaveen buruen pedazu bet
osoen aoan. Â dolore andiye, ondo merceduric equi ebena vere ama maldicienteac
vere maldiciñoac gaitic. A guresoac, alan ecusi baseguiyes cumpliduric seuroen

23-118 *Pliniuc*: Plinio Zaharrari, I. mendeko erromatar idazleari egiten dio erreferentzia. **23-122** *bururic*: ablatiboa dugun hemen, *burutik*. **23-130** *arrebada*: (ik. 23-136) interjekzioa bat dela dirudi, baina *OEH*-n ez dago honen antzeko egiturarik aurkitu. **23-131** *bada*: kausatiboa egiteko darabilela dirudi ‘niri ez didazuelako ematen neure zahartzaroan’. **23-136** *aguiyela*: ‘haitzala’, testuan den *hi* pertsonarentzako adizki bakanetako bat (cf. 25-39 *as espadeusec*). **23-138** *urrengo basoric*: ‘hurbileneko basotik’. **21-139** *yan eguin*: ‘jan zuen’, aoristo perifrasi.

23. *Maldiciñoac esarteco usenseac*

145 maldiciñoac berlan euqui eguisue bildurre sein alan yaso daquisuen. Gustiyec euqui
bere desventurea maldicienteagan beragan. *Benignus est Spiritus Sapientiae et non
liberabit maledicentem a labij[s] suis*, diraoscu Sabiduriye Dibinuic, Jangoicoen
Espirituic, sein den gustiye suavidedea, benignidedea, gustiye dulzurea, estau libreduco
150 vere espanetariac maldicientea: vere espanetan iminico deuso castigüe, vere espanac
isengo dire acarreauc deusena eternamenteco castigüe condenaciñoecoa.

185 7 *yques*: leh. *yque*, *s* gainean gehiturik. || *eta*: leh. *edo*; *ta* azpian *do* irakurtzen dugularik. 10 *deunguea*: gainean gehitua. 14 *seinsuen...beño*: gainean latin itzulpena dakar: *indignatis eius plus quam fortitudo*. **186** 17 *esetan*: jat. *ensetan*, cf. ...*luego en su casa las lenguas* (Mtez. de la Parra 1705: 206; cf. § 4.3.1.1). 18 *criydeen*: leh. *criydeen*, *e* gainean gehitua. 25 *biratoyen*: leh. *biratoyen*, *o* gainean gehitua. **187** 30 *genero*: leh. *gu*, lehenengo *e* azpian *u* irakurtzen dugularik. 36 *eta*: aurretik *ba*, tatxaturik. 42 *Seinbeteri*: jat. *Seinbetere*. **189** 65 *Santuic*: leh. *Santui*, *c* gainean gehitua. 66 *paluquedac*: jat. *paluquedat*; leh. *paluqudat*, *e* gainean gehitua. 71 *Ynnocenciyo*: aurretik tatxoi bat, *ba..go*. || *beño...contetan*: lerro honen azpian *da* bat dago, nolabait beste lerro bat gehitu nahi zuen eta atzera egin zuen. **190** 76 *andiye*: gainean gehitua. 80 *isen*: jat. *isei-*, lerro amaieran. 81 *maldiciñoac*: leh. *maldiciñoa*, *c* gainean gehitua. || *terribleac*: *l* azpian *e* irakurtzen dugu. **191** 87 *yecan*: *c* gainean gehitua eta honen azpian *q* bat dugu, gure ustez tatxatu barik utzi zuena. 93 *Infernuin*: *i* azpian *g* edo *y* bat dirudiena dago. || *Se*: *S* azpian *q* irakurtzen dugu. 95 *dacasu*: jat. *dacasa*. 97 *errayoac*: jat. *erray / yoac*, bi lerrotan. **192** 103 *pregunteu*,: amaieran komak zerbait borratzen du. 110 *humeac*: leh. *humea*, *c* gainean gehitua. **193** 117 *maldiciñoa*: leh. *maldiciño*, *a* gainean gehitua. 120 *perlac*: *a* gainean *e* bat dagoela dirudi. **194** 127 *es*: gainean gehitua. 137 *ensuten*: leh. *euse*, *n* azpian *u* irakurtzen dugu, eta argitzeko edo gainean berriz gehitzen du *n*. Bestalde, *u* azpian *e* irakurtzen dugu. **195** 142 *euqui*: leh. *eu*, *qui* gainean gehitua. 144 *euqui*: *q* azpian *b* bat irakurtzen dugu.

23-149 *espanac*: ‘espainak’, mendebaldean espero bezala *-ani > -an aldaketarekin (cf. *FHV* § 7.3).

<197>

Seigarren mandamintue da araguisco peccaturic es eguitea.

Ser aginduten dau Jangoicoac mandamintu onetan? Ysen gaiteala garbiyec pensamintuitan, bervetan eta obretan. Eguiten da pecatu mandamintu onen contra pensamintuigas, verbeagas eta obreagas. Pensamintus eguiten da pecatu, deleite edo
5 gustu loi deshonestu consentiduicas eta deseo torpeacas. Borondateac gustu arsaiten dabenean ymaguineciñoec iminten deusesan gause deshonestuitan; advertenciye perfectoagas badire, eiten da pecatu mortala es euqui arren gogoric obras eiteco. Deseo deshonestuic dire arsaiten danean gogoa obras pecatu eiteco; onelango deseo deshonestuic dauquesanac dauco obligueciñoea expliquestaco confesiñoean se
10 estaduteuco personagas euqui eben deseo: basan escondue, librea, aidea edo voto castidedeco euquena verbeagas. Vere eiten da pecatu viciyo onetan conversaciñoec, canta, chiste edo contu deshonestuicas esaten badire tentetaco intenciñoec edo peligruigas pensamintu edo gustu deshonestuitan consentitaco, gueiyenean yasaiten dan legues, segaitic verba deshonestuic dire centella ereseeguiten daudenac lujuriyeco sue,
15 diño San Geronimoc, eta Apostoluic diño corrompitan daudesala ecandu onac: *corrumpunt bonos mores colloquia prava*. Veguicas bere eiten da pecatu ecusiric nobere borondates gause loiyec eta provocatibuic, <198> obreagas eiten da pecatu modu ascotan, segaitic dagos pecatu basuc obrasco acabasacoac, eta beste basuc obrasco acabaduic. Obrasco acabasacoac dire mosuque, abrasuque eta tocamintu
20 deshonestuitan ibiltea, euretaric originetan dan gustuegaitic, beste gogo bagaric, onec gustuic dire pecatu mortalac; estaquisu selan Espiritu Santuic abisetan satusen diñoenean, *qui tetigerit picem, inquinabitur ab ea?* ‘uiyeri uquituiten deusenac manchaduco dala?’ Bada, alan manchetan dau bere arimea pecatu mortalagas guison edo guison gaste hembreari uquituiten deusenac aficiñoec deshonestuigas, eta hembra
25 permititan ditusenac onelango tocamintuic, mosuque edo abrasuque agarrauric ibiltea; baye espadau permititan, espadau consentitan, estau peccaturic eiten, eta guisonac bai. Ha tocamintu deshonestuic! Guison torpea, hembra deshonestea, veguiretu setes,

24-5 *deseo torpeacas*: ‘gurari lizunekin, lotsagarriekin’ (gazt. *torpe*). **24-18** *acabasacoac*: ‘akabatu bakoak, amaitu gabekoak’, *-tzako* (< **-tza bako*) atzizkia ez da inon lekukotzen, alabaina, Añibarrok duen *-tzagarik* (< **-tza bagarik*; cf. hemen 23-33 *sentisegaric*) atzizkiaren pareko genuke (cf. § 4.2.5). **24-22** *uiyeri*: ‘uiari, bikeari’, euskal testuetan Añibarrotik aurrera dokumentaturiko hitza dugu (cf. *OEH*, s.v. *I ui*).

24. *Seigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

30 tocamintu orretan ibiltea dala ya Ynfernucio atetan guei eitea, diñoean legues venerable Bedac: siñuic, gestoac, danzac, juguete provocatibuic... seinetan mezcletan direan tocamintuic hembreen eta guisonen artean, dire pecatu mortala.

Pecatu obra acabaducoac dire basuc naturelezeen <199> contracoac, eta beste basuc naturelezeas conforme direanac. Beste doctrine baten expliqueduco dodas onec, orain solamente expliqueuco dot se asco aborrecitan daben Jangoicoac viciyo deshonestue: segaitic, diñoean legues Santo Thomasec, viciyo gustiyen artean, da au
35 Jangoicoen pureza infinituen contrariuric andiyeena. Baye dañu temporalen bildur gueiyego artu daroen legues viciosoac, ensun eguisue ser diñoean San Ambrosiuc: alangoa da deshonestidedeco viciyoa se apenas topauco berac estacarren desdicheric, acarreetan estaben trabajuric, lagunduiten echacan desgraciric; segaitic pecatu onec consumitan dau hazindea, destruiduiten dau osasune, galsaiten ditus inderrac,
40 deshonorretan dau visisea, humeac; iminten ditus pobre, necesiteduric eseac; erritan dependenciyc, perturbetan ditus republicac, alzetan ditu guerrac erreinuitan, esteuso siguitan justiciyeri bide artesari, apartetan errazoareanic, entorpecitan dau entendimintue, borrau memoriye, gogortu biosa, descomponitan ditus matrimoniñoac, galdu campoac, acabadu lineageac, estragadu eta laburtu visisea. Dacas melancoliyac,
45 tristezac; eresequitzen du gorretoa, arrabiye, erioseen ocasiñoa eta ustelduiten ditus personac ilic bailegosan; desuerte se, diño Apostoluic, deshonestuic bere gorpusen contra eiten dabela pecatu: *in corpus suum* <200> *pec[c]at*, segaitic bere viciyoagas acarretan ditus bere contra adinebeste desdiche. Â, seinbet exemplar ecusten direan egunean-egunean eguiyeu confirmetan daudenac! Eta ser dire onec dañu gusionec
50 ariman eiten daben dañu eta estragüen aldean; ain estragu andiye eiten dau ariman se estau echiten virtuteri destruidu bagaric, eta dacas veragas viciyo capitalac gustic eta arimeco pecatuic, diño San Chrisostomoc. Ser esango daude onetara deshonestuic? Esango daude araindocoarren deshonestide[de]co pecatue dala fragilidedeco, selan facilmente eiten dan alan facilmente parcatuiten dala: demporeagas echiten dan viciyoa

24-28 *venerable Bedac*: VII. mendeko moje benediktar inglesa. **24-36** *artu daroen*: ohikotasuna adierazteko perifrasietan *eroan* aditza erabiltzen du egileak laguntzaile iragankortzat (iragangaitzentzat ik. 13-27 *esan doean*; cf. § 4.2.3.16). **24-40** *pobre, necesiteduric*: juntagailurik gabeko bi sintagmatzat hartu ditugu, baina aukera dago ere *pobre-necesitadu* sintagma bakartzat hartzea. **24-42** *justiciyeri bide artesari*: bi datibo hauek ulertzeko, pentsatu behar dugu edo [*bide zuzenari segidu*] batasun bezala ikusten duela (*lanari segidu* bezalako egitura bat, alegia; cf. *OEH*, s.v. *segidu* 5) eta *justiziari* horren barruan sartu zuela (eta ‘ez dio bide zuzenari jarraiarazten justiziari’ adiera luke) edo bestela kopia akats bat dagoela: edo ‘ez dio jarraitzen justiziaren bide artezari’ edo ‘ez dio jarraitzen justiziari bide artezean’. **24-44** *estragadu*: ‘bizioa harrarazi, usteldu’. **24-53** *araindocoarren*: (cf. 33-9) kasu honetan *arren*-ek “a pesar de” esanahia luke (cf. *OEH*, s.v. *arren* 1), ‘hartainokoa gorabehera’.

24. *Seigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

55 dala eta estala aen pecatu andiye seinde ponderetan dauden prediquedoreac. Onelango
esate temerariyoac deshonestuic esaten dituesanac dauquee mundue galduric, eta
Ynfernue arimes beteric. Erdu ona deshonestue, birretan araguisco guisona; su hembra
deshonestea componideric yarri arren sareana bideco sasa legues, *quasi stercus yn via*,
diño espiritu Santuic. Setan fundetan sara pensetaco eta esateco estala âen andiye seinde
60 esaten da eta facilmente parcatuiten dala? Bauquesu seure favore Escriture Sagradaco
textoreen bat edo santuen autoridedereeen bat? <201> Es. Dagos seure contra
Escritu[ra] Sagradea, doctoreac, santuec eta Jangoicoac eguin ditusen castigo
exemplarac deshonestuicas eta desengañau saitesansat, eta aborrecidu daguisunset au
biciyoau. Ensun eguisue.

65 Ya daquisue Jangoicoac eguin ebela guisona vere ymagine eta semejanzara âen
prenda nobleacas, quasi angueruen pareco: *paulo minus ab angelis*; vere domiñoen pean
ymini ebesan gause gustiyec, *omnia subyecisti sub pedibus eyus*. Criedu eben vera
servitaco visise onetan eta vera gozetaco vestean, eternidedeco gloriyan. Noc sinistu al
leique, criedu asquero Jangoicoac guisona âen nobleza andigas eta prendacas, eta aen
70 fin altu eta soberanureco: noc sinistu al leique, diñot, damutuco yacala Jangoicoari
criedu ebelaco guisona? Yñoc esin sinistu leique Jangoicoac berac esan espaleu; baye
ya esan eusen Noeri Jangoicoac berac *penitet me fecisse eos*, ‘damu dot, esan eben
Jangoicoac, eguin nenduselaco guisonac’. Eta sein isengo da motivue? isengo da
Adanec vere desobedencico pecatuigas ofendidu ebelaco, vera eta vere descendintec
75 galdu ebesalaco? Es por cierto. Isengo da Caineac eguin ebelaco â eriosa alevosoa, sein
sen ileitea bere anayea? Aenguichi; bada, segaitic artu eben penea formadu ebelaco
guisona? <202> Segaitic ecusi eben, diño Moysesec, guisonen artean egoala maliciye
andiye: *videns autem Deus, quod multa malitia hominum esset in terra*. Ecusi eben
euren vioseco deseoc gusic inclinetan eudesala gause deunguera; *et cuncta cogitatio*
80 *cordis intenta esset in malum*. Eta orregaitic damutu yecan eguine guisona? Bai, *penituit*
eum quod hominem fecisset in terra. Eta aen moduten penadu eben se atravesaduric vere
viosa damuen andis. *et tactus dolore cordis intrinsecus*, esan eben: “Nic acabaduco dot
eguin nenduin guisona, borraraduco dot, eta veragas visi direan gusic, animeliye eta
egastic” *delebo inquit hominem quem creavi a facie terræ, ab homine usque ad*

24-57 *birretan*: ‘birritan’, *OEH*-k Bizkaiko forma propiotzat *birritan* dela dioen arren (s.v. *birritan*), *birretan* ere lekukotzen du *RS*-tan, bai eta Arabako Lazarragarenean ere. 24-58 *componideric jarri*: ‘apaindurik jarri, apaindu’ || *sasa*: ‘simaurra, satsa’ (cf. ondoko *stercus*). 24-61 *autoridadeeen*: ‘autoridadeen’ bokal hirukoitz bereziaz (ik. 6-25 *semeeen*) 24-75 *alevosoa*: ‘arriskurik gabe, azpikeriaz’.

24. *Seigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

85 *animantia et â reptili usque ad volucres cæli.* Baye se maliciye san a munduco lelengo gente aena? Se pensamintu deungue, se deseo deungue euquen? Se gause deunguetara inclinetan sirean? Se maldade eiten euden orduco personac? Ea, ya diño Jangoicoac berac: ecusi ebesan Jangoicoac es solamente egosala aficionauric deshonestidedera, espada bere egosala corronpiduric beratan: *cumque vidisset Deus terram esse*
90 *corruptam*, segaitic gustic eguin sirean deshonestuic, *omnis quip[p]e caro corruperat viam suam*; eta ecusiric euretan, seinsuc criyedu ebesan Jangoicoac Cerureco, adinebeste torpeza, loitasun, esan eusen Noeri: “Nic acabaduco dot <203> mundue. Orrec guisonoc, seinsuc despreciyeuric euren espiritu eta arimea eguin direan aragui loi deshonestue, gustiuc pependu bear daude eta euecas beste viviente gustic”, *finis*
95 *universæ carnis venit coram me, repleta est terra iniquitate.* Pecatu ynfeme onegaitic damutu equiun Jangoicoari, criyedu ebelaco guisona, eta beronegaitic ondatu eguisen uresco diluviyoagas visi sirean gustic. Bacarric gueratu sirean Noe eta vere familiye seinsuc sirean sorsi persona. Pecatu onegaitic, eta es bestegaitic, manifestadu eben Jangoicoac bere enoju justoa eta castiguetu eguin mundu gustiye: *de nullo pec[c]ato*
100 *legitur dixisse Deum, quod pœnituit se fecisse hominem, nisi de pec[c]ato carnis pro quo totum mundum diluvio delevit.* Bada, orain pecatu onegaitic damutuiten bayaco Jangoicoari eguine guisona, pecatu onegaitic anegadu beben mundu gustiye garbituiteco, pecatu onen loi feoreanic, uresco diluviyoagas. Estago consideradu besen se andiye dan pecatueu; noc esan al leique vere maliciye eta feotasune! Eta noc estau
105 euquico bere castigu tremendoen bildurre! Eta pensetan dosue diluviyoagas acabadu sela pecatueu? Pensetan dosue dempora <204> onetaco personac direala garbigoa edo estireala aen loiyec seinde orducoac? Bear leuque isen garbiyegoac yaquin asquero au castigüeu, eta arrasquero experimentadu deudesan castigüic erreinuic, provinciyac, ciudadeac, erric, familiyac, persona deshonestuic. Bada, España oprimidu eta afligidu
110 euden pecatu ongaitic sarracenoac, Pentapolisco ciudadeac isen sirean abrasaduic pecatu onegaitic, Holofernes exercitue derrotadue, David castigueteu trabaju ascogas, Salomon despojadue bere sabiduriye, honrra eta hondasunetarean, eta condenadue seculoco (Santu ascoc diñoen legues). Onec eta beste castigu asco iminten deuscuesanac presente historiye dibinu eta eclesiasticuic. Gause clarue da, bear leuqueala imini frenue pasiño

24-99 *castiguetu eguin*: ‘kastigatu zuen’, aoristo perifrasi. **24-103** *besen*: ‘bezain / baizen’ (ik. 13-124 *leen besen leen*), (cf. § 4.2.5). 24-110 *sarracenoac*: ‘musulmanak’. || *Pentapolisco*: Bost hiriz osaturiko lurraldea, kasu honetan Bibliako *Sodoma*, *Gomorra*, *Adama*, *Zeboim* eta *Segor* hiriez osaturiko lurraldeaz ari da. **24-111** *Holofernes*: Bibliako pertsonaia, Judithen liburuan aipatua. **24-114** *frenue*: (cf. 45-139) ‘balesta, ahokoa’, Hegoaldeko hitz honen aldaerarik erabiliena *frenu* hau genuke (*OEH*, s.v. *frenu*); alabaina, sermoitegian *frenu* da aldaerarik erabiliena 6 adibiderekin (ik. 46-19 *frenuic*).

24. *Seigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

115 deshordenadu oneri; baye, ha Jangoicoa! bildur iseiteco da orduin bisen corrompidu dagoala orain mundue viciyo onetan. Bai christiñeuec, bildur iseiteco esan leiyela eguiyegas orain Jangoicoac: *repleta est terra iniquitate*, dagoala maldades beteric mundue, asi <205> chiquirretaric eta sarretara. Chiquirretaric, diñoean legues San Antonino de Florenciac: onei Demonioac sugeritan deuse viciyoau, ya gureso

120 descuideduic eurecas erasoiten daudesalaco euren oetan, ya neba-arrebac arcalegas, saspí edo sorci urte euquiarren, ya euren artean soraqueriyan ibiliric tocamintu loiyetan edo senar-emastea legues. Bada, ecusten daudena eiten daude humeac eta alan eiten daudes pecatu mortal asco eta guero losea confesetaco, estaudes confesetan onelango pecatuic, visi dire continuamenteco pecatu mortalean eta alan visisea igueroric,

125 seguridede falsoan ileiten dire asco condenaciñoeco estaduin. Onec viciyo onec erreinetan dau edade gustitan. Diño San Bernardoc arime gueiyego iminten ditusela Demonioen aspin viciyo onec veste gustic beño. Bada, San Remigio eta beste Santu besuc diño chiquirrec apartau asquero nagusitaric, guichi direala salbetan direanac viciyoaugaitic. Ha miserable deshonestue! Estauquesu Jangoicoen castigüen bildurric!

130 Estaquisu viciyo orren paraderue dala Ynfernucó sue? *finis ignis luxuriæ gehen[n]a*. Viciyoonec sauquesan le[gues] ysuturic, fedea ilic; estauquesu esen <206> bildurric; estaquisu estagoala beste erremediuric, edo enmendatu penitenciayegas edo condenadu, *penitendum est aut ardendum* diño San Thomas de Villanuebac. Selan ongo sara Infernuen eternidedean seculé seculéco demoninoen eta condenaduen artean, aliviyo

135 bagaric, consuelo bagaric eta aliviyoen esperanza bagaric, es mortifiquetarren orain seure pasiñoea visi sarean dempora laburrean? Ea, goasan erremediura. Lelengo confesiño generala. Eta ser gueiyego? Verba biten dirausu Apostoluic: *fugite fornicationem*, iñes eiteco, diño, araguisco pecaturean. Au yñes eitea da iru moduten: iñes pensamintutarean, iñes ocasiñoetarean, iñes hembretarean eta hembra

140 guisonetarean. Iñes pensamintutarean, datosanean pensamintu loiñec, berlan iñes eraguin, ya dala Christoen pasiñoen consideraciñoegagas, ya dala postrimeriyenagas edo

24-120 *erasoiten*: –o bukaeradun partizipioen aditz-izena –iten atzizkiaren bidez egiten da, arazlea denean baina (cf. *acordasaiten*) o > a aldaketarekin gertatzen da. **24-121** *soraqueriyan*: XVIII. mendetik aurrera lekukoturiko hitza da (*OEH*, s.v. *zorakeria*), beraz, hegoaldeko literatur hizkuntzen sorrerarekin erlaziona dezakegun hitza dugu (ik *OEH*, s.v. *zorakeria*, cf. § 4.3.2.2). **24-126** *San Bernardoc*: Bernardo de Claraval (cf. 16-125). **24-127** *San Remigio*: San Remigio de Reims, V. mendeko apezpikua. **24-131** *le[gues]*: le lerro bukaeran agertzen da, eta ahaztu bide zitzaion hurrengo lerroan hitzaren bigarren zatia gehitzea, gure zutez *gez* litzatekeena. || *esen*: ‘ezeren’, *r* gabeko genitiboaz (cf. § 4.2.2.3). **24-133** *San Thomas de Villanuebac*: XVI. mendeko idazle eta predikatzailer agustindarra (cf. § 4.3.1). **24-140** *loiñec*: ‘lohiak’, ñ epentesia izateko arrazoi nagusia testuingurua izan ohi da, inguruan kontsonante sudurkari bat egotea; kasu honetan baina, edo analogiari egotzi behar zaio edo bokal sudurkariaren ondorio (<*lōhī <*loni) (cf. §§ 4.2.1.6; 4.2.1.8).

24. *Seigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

osteranseco oraciñoegas, berlan acudiuric Jangoicoagana eta seure devociñoeco Santu eta Santaetara. Bigarren yñes eitea da ocasiñoetaric: da preciso quensaitea areriyo oneri armac seinsuc direan ocasiñoec eta alan euquico dogu arimeco baquea Jangoicoagas; 145 ocasiñoec dire conversaciñoec <207> deshonestuic eta osteranseco iseiten direan motivu edo mediyoac pecatuen yausteco, seinsutaric bear dogu iñes eguin.

Yrugarren yñes eitea da hembretaric eta hembrac guisonetaric: au de gueiyen ymportetan dabena victoriyegas urteiteco viciyo onen contra, segaitic egon batera guisona eta hembra, tratadu amistedeagas, alcarregas cariñuigas eta es pecaturic dala 150 milegroa, eta andiye, difuntu bet erresucitetea beño andigoa. Diño San Bernardoc: *cum femina habitare, et non pec[c]are cum femina, plus est quam mortu[u]m suscitare*. Selan oriyoac mantenitan daben lampada baten llamea, alan hembracasco conversaciñoec eresequitzen dau eta mantenitan dau su deshonestue, diño San Chrisostomoc.

155 Andra deshonestu bateri aguirtu equiun Florencin Mariye Santisimeia eta erreprenditan ebela esan eusen: “Yaquin eguisu, se dagosala asco Ynfernuen abrasetan pecatu deshonestu guichigaitic, suc eguin dosusen beño; eta gaur condenaduco da sorsi urteco mutilchu bet Españan, gure isen ebelaco pecatu eguin bere arrebachu bategas.

Contetan dau Agustino Magnoc, guison gaste bi, adisquideac, bata honestue eta 160 <208> bestea deshonestu, echun siteala batera gau beten, eta loac artu beño len ecusi euden sartu sela quartuin etiope yqueragarri bet (sein sen demoniño bat) catea basuc escuin ebesala. Ecusi euden legues iqueratu sirean, especialmente deshonestue, sein vere concenciyec erremorditan eben. Beguiretu eusen oneri iqueragarrico adicuneagas eta esan eusen voz erroncoagas: “Urten eguisue ona se nator emaiten premiñoa seuroen 165 gustuena.” Estago verbaric expliquetaco se bildur andiye emon eusen berba onec. Asi sen iqueratuiten asogadu bete legues, gure eben ocultedu erropa artean, baye orduin arremetidu iacan beragana demoniñoa, esarri eusen catea idunera eta bere esclavue legues atera eben oereanic, eta guedar tristeac eiten ebesala eroan eben bere lagunec ecusela Ynfernucalabozora. Ara selan daquin Jangoicoac castiguetan deshonestuic, 170 eta estauquesu damuric Jangoicoa ofendidu dosuleco? Damu dau Jangoicoa guisona

24-149 *es pecaturic*: aditza eliditurik du esaldiak: ‘ez pekaturik egotea’. 24-161 *etiope*: arraza beltzeko petsona, ez nahita ez etiopiarra (cf. gazt. *etíope*). adicuneagas: ‘begiradarekin’, *OEH*-k (s.v. *adikume*) Mik. eta Añ.-ren lekukotasunak dakartza. **24-166** *asogadu*: ‘egongaitza, dardartia’, azogearen (zilarbiziaren) lurruna asnasteagatik hartzen den gaitzagatik esaten da, dardara baita honen zainalea. || *bete legues*: (cf. 15-131) ik. 13-18 *bate legues* oharra. **24-167** *idunera*: ‘lepora’.

24. *Seigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

eguin ebelaco pecatu onetan ecusi ebelaco sarturic, eta suc estauquesu damuric Jangoicoa ofendidu dosuleco? Ea betacariye, viortu saites seure Jangoicoagana, amadu eguisu seure criyedorea eta erredemptorea, aitu sates selan urteiten daben <209> curze onetan ilic seure amoreagaitic, baye sure ontasunen deseio eguiyescoagas. Esteusesu
175 beguiretu gure? Bada, Jaun Dibinue, veguiretu sequiyes gustiyoi, seure criyeturac dire; damu dosu criyedu senduleco euretaricoren bat? “Bai, diño Jesuchristoc, *ego sum Deus, et non mutor* estot nic mudetan neure dictamena: *pænitet me fecisse eos.*” Nogas eiten dosu verba, Jaune? Verba araco guison deshonestuigas, hembra torpeagas &a. Eta suc estauquesu damuric? Ea, ese sates orrein bioz gogorrecoa, convertiu saites
180 Jangoicoagas, escatu eguisu parcasiñoa vios gustirean eta esan eguiyosu: *Neure Jesuchristo &a.*

197 2 *onetan*: o azpian zerbait irakurrezin dago. 11 *castidedecoa*: leh. *castidedeco*, a gainean gehitua. || *viciyo*: Aurretik tatxoi bat dago. **199** 37 *se*: amaieran tatxoi bat, *ser, sei, sec?* **200** 51 *capitalac*: aurretik *peca*] tatxaturik. 56 *mundue*: leh. *mudue*, n gainean gehitua. 58 *yn*: y azpian v irakurtzen da. 61 *autoridedereen*: jat. *autoridedereen*. **201** 67 *criyedu*: leh. *criydu*, e gainean gehitua. 71 *espaleu*: orig, *espauleu*; bestalde, azken u azpian zerbait dago, n? **202** 79 *cogitatio*: c azpian g irakurtzen dugu. 86 *Genteaena*: azken e tatxarik dagoela dirudi, mantxa baten estaltzen baitu. **204** 107 *garbiyegoac*: leh. *garbiyegac*, o gainean gehitua. 109 *oprimidu*: Aurretik tatxoi bat. **205** 118 *Chiquirretaric*: jat. *Chirretaric*. 121 *urte*: orri amaieran dago jarraituko luke barru, i.e. *urte*- baina ez du jarraipenik. 126 *dau*: gainean gehitua. || *San Bernardoc*: gainean gehitua. 131 *le[gues]*: bukatu gabeko hitza; gainera, puntu eta aparte egiten duela dirudi. **206** 134 *eternidedean*: leh. *eternidedea*, n gainean gehitua. 137 *confesiño*: azken e azpian zerbait dago, a? 143 *Areriyooneri*: *oneri* gainean gehitua, azpian tatxoi bat dagoelarik, *Areriyoari?* **207** 150 *cum*: jat. *cun*. 153 *ereseguiten*: leh. *ereseguiten*; azken e azpian a irakurtzen da. 158 *bategas*: ondoren tatxoi bat, *Contetan?* 159 *bata honestue eta bestea deshonestu*: jat. *bata deshonestue eta bestea deshonestu*. **208** 162 *legues*: *legue* argi irakurtzen dugu, eta s ezkutaturik dagoela uste dugu koadernatzean jarritako errefortzu batez. 165 *Estago*: aurretik tatxoi bat dago, *selaseques algiadu?* 171 *eguin*: leh. *egui*, n gainean gehitua. **209** 180 *gustirean*: jat. *gustire / rean*, lerro bitan.

24-172 *viortu*: ‘bihurtu’, aldaera hau XVI. XVII. mendeko Bizkaiko testuetan ageri da, eta XIX. mendean bere erabilera gutxitzen doa bihurturen alde (*OEH*, s.v. *bihurtu*). **24-175** *veguiretu sequiyes*: ‘begiratu zakizkie’ NOR-NORI agintera. **24-178** *araco guison*: ‘delako gizon’ (*OEH*, s.v. *harako*). **24-179** *orrein*: (cf. 7-93 *gentilien*), *ee* > *ei* disimilazioaren adibide bakantetako bat (cf. §§ 4.2.1.8; 4.2.2.3), egileak normalean <ee> mantendu edo bakuntzen baitu (*ee* > *e*).

<211>

Saspigarren mandamintue es eser ostuitea ñori

Ser aguinduiten dau Jangoicoac mandamintu onetan? Es quendu, es euqui eta es gure iseitea ñoen gauseric bere yauveen borondateen contra.

Lau isen doas cause principelac viciyo infeme onetaraco: lelengoa da basuin
5 inclineciñoel naturel deunguea besteena eroateco; bigarrena junteteagaitic lagun
deungacas, viciyo onetan tocauric dagosanacas, beragaitic negar eiten daben legues San
Agustinec vere confesiñoetaco bigarren liburuin, onelango artean isen doa yocoo,
banquetac eta gastue, eta es euquiric guison gaste perdiduic mediuric onelan gastetaco,
emaiten daude ostuitera eta ascotan paretan dire urquemendin. Yrugarren causea da
10 disimuletea euren guresoac eroaten daudenean esera gause ostue, a gureso desdicheduic,
selan suer eiten dosue cordela seinetaric gueratuco direan suen semeac esqueguiric
urquemendin! Laugarren causea isen doa guresoen exemplo deunguea, irecasten deusela
euren humeay ostuiten; a gureso desdicheduic, selan Ceruec esarrico ditusen suen
ganera castigüic!

15 Enas emen deteniduco esaten se cantidade ostuitea dan pecatu mortala,
solamente diñot se ostuitea lau erreal persona convenenciye medinuitacoari dala pecatu
mortala eta guichigo <212> ostuitea pecatu veniala. Ostuitea oficiale edo bearguin
bateri erreal bi da pecatu mortala. Ateric ate dabilenari elbat ostuitea da pecatu mortala
edo mentures guichigo quensaitea isengo da pecatu segun eiten yacan dañue eta
20 circunstanciyac selan direan, eta orregaitic esan doa comunmente se ostuitea yostoorras
bat dendari beteri, es euquiric onec besteric yosteco, egun ataco aloguera galsaiten
badau orregaitic da pecatu mortala. Pisqueca ostuiten daudenac estaude eiten pecatu
mortala, espadauque gogoric ostuiteco gause pisucoric, ariquetaco elduitaratean gause
gravera pisque gustic batera; baye asiten danean ostuiten, badauco intenciñoela elduiteco
25 gause pisucora, intenciñoegaitic eiten dau lelengoa pecatu mortala, isen arren gause
guichi ostuiten dabena. Pecatu eiten daude mandamintu onen contra oficilac eta

25-4 *isen doas*: ‘izan ohi dira’. **25-7** *onelango artean*: *artean* genitiboarekin erabili ohi den arren, ez da adibiderik falta izen zoilarekin (*OEH*, s.v. *arte*). **25-16** *convenenciye medinuitacoari*: ‘ondasun ertainak dituenari’ (cf. gazt. *conveniencia*). **25-17** *oficiale edo bearguin*: mailegua eta hitz jatorra batera ematen du, euskal hitza hedatzeko edo egina (cf. § 4.3.2.2). **25-18** *elbat*: ‘erreal bat’, hainbat hitzetan *erreal* hitzaren kontrakzioztat du Azkuek (ap. *OEH*, s.v. *1 el*). **25-20** *yostoorras*: hitz elkarketetako bokal bikoitz bakaretako bat dugu hemen (cf. § 4.2.1.5), lekukoturik ez dago baina *josteorratz* eta *jostorratz* formen tarteko pausu logikoa litzateke. **25-21** *aloguera*: ‘soldata, behar-saria’. **25-22** *Pisqueca*: ‘apurka-apurka’.

25. *Saspigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

bearguinec aloguerecoac estaudenac bear eiten fidelidedeagas sor dauden legues emaiten bayate aloguer osoa. Eiten daude pecatu mortala errepubliqueen eta menoren ondasunec administretan dituesanac, curedoreac, es cumpliuric euren obligueciñoegas.

30 Eiten daude pecatu mandamintu onen contra criyedu-criy[e]dac ostuiten dituesanac uguesaben gausac, isen arren yateco edo edateco gausac, campocoai emaiten badeuses. Eiten daude pecatu mandamintu onen contra moneda falsoa emaiten daudenac yaquinic dala <213> falsoa edo dudan, eta beste batec engañauric artu beguiyen esta bear ostea besteric bolvidu engañetan, espada bolvidu emon eusenari emon daguiunsat moneda

35 ona eta corrintea. Ausiten daude mandamintueu aguinduiten daudenac edo consejue emaiten daudenac ostuiteco, euren aguinduiteagaitic edo consejuegaitic quendu beguisen gausea. Eiten daude pecatu mandamintu onen contra lisongeruic, v.g., esan balegui batec “acrediteduco sinateques guison valerososat ostu basenguiyo urliri bolsea”, “pendejo bat isengo as espadeusec ostuiten urliri bolsea.” Lisongeriye onegaitic

40 movitan bada ostuiten eiten daben pecatuis ostan dauco obligueciñoea lisongeruic errescatetaco. Ausiten daude mandamintueu estalguillac eta obligueciñoegas errescatetaco, bada, espalegos estalguillac elisateques eingo adinebeste lapurreriye. Lomis[mo] diñot familiyeco seme edo alabai erositen deusenac gaitic yaquinic euren guresoai ostu eusela; bada, da gause ciertue elisatequeala onelango adinebeste

45 lapurreriye eingo espalegos eroslac. Ausiten daude mandamintueu ordenanza edo leguen contra elegitan dituesana errepubliqueco oficiyoetaraco eta estaudenac cumplitan euren oficiyoacas, obligueciñoegas errescatetaco comuneri eiten yacasan dañuic euren <214> omisiñoec gaitic. Eiten daude bere pecatu mandamintu onen contra tratu eta contratuitan engañuic eiten daudesanac. Â se lasuic dauquesan emen Demoniñoac

50 preveniduric! Eta ser aprovechaduco deuso logreru miserableari irepasteac bere tratu deungacas, mundu gustiye balis bere, bere arimea badoa Ynfernure. Bada, errescatadu bagaric deunguero eroana esta parquetan pecatue. Diñoean legues San Agustinec: *non dimit[t]ur pec[c]atum quin restitatur ablatum*. Ô, alomenos equi bagaric propositu firme berlan errescatetaco al daguinean, eta esta cumplitan pobrei errescatadugis edo

25-35 *corrintea*: ‘momentuan baliatzen dena’. **25-36** *aguinduiteagaitic*: ‘aginduagatik’, aditz-izena izen legez darabil. **25-37** *lisongeruic*: ‘lausengariak, lausenguzkoak’. **25-38** *urliri*: ‘halakori’, dirudienez forma mugagabea *urli* litzateke (cf. *OEH*, s.v. *urlia*). **25-39** *pendejo*: ‘alproja, etxekalte’. || *as espadeusec*: ‘haiz ez badiok’, testuan den *hi* pertsonarentzako adizki bakanetakoak (cf. 23-136 *aguiyela*). **25-41** *estalguillac*: ‘estaltzailea, konplizea’. Añibarrok ere <ll>z erabiltzen duela dirudi (cf. *OEH*, s.v. *estalgile*), badirudi halako hitzek palataltze automatikoa baino, lexikalizaturikoak dirudite, agian kutsu adierazkor bat bitarte (ik. § 4.2.1.10). **25-43** *Lomis[mo]*: (cf. 1-18, 10-66...) dirudienez kopiatze akats arrunta. **25-45** *eroslac*: ‘erosleak’ (cf. 1-123 *lora*). **25-47** *comuneri*: ‘erkidegoari’ (gazt. *el común*). **25-49** *lasuic*: ‘laskioak’. **25-50** *logreru*: ‘lukur’ (gazt. *logrero*). **25-53** *alomenos*: ‘gutxienez’ (gazt. *a lo menos*).

25. *Saspigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

55 obra piadosoetan gastaoric ostue, bada, bear da bolvidu bere yaubeari edo herederuei, baye esin yaquin danean nor dan yaubea diligenciye eguin asquero, eguin leique restituciñoea pobreaki edo componidu bulde composiciñoecoagas.

Jeremias profeteac esan eguin avariciye dala numerau esin leiyen coaine discipuluen maestrea: *â minori usque ad maiorem omnes avaritiæ student*. Eta asco
60 isenic ignoranteac gause espiritualetaraco dire linceac iquesteco maestra onen doctrinea. Maestra engañoosa onegaitic esan eguin Apostoluic *radix omnium malorum cupiditas*, codiciye dala gause deungue gustiyen sustreiye; eta selan sustreiye dagoan oraturic lurreri eta bere inderragas asiten ditus arboleac, alan codiciye da sustreiye sein oraturic ondasunen <215> lurreri asiten ditus gause deungue gustic. Berac irecasten ditus mille
65 arte dañu eiteco proximuiri errobuicas eta injusticiyacac. Lapurren parederue isen doa urquemendiye. Contetan dau San Lucas evangelisteac Judes desventureduic apostatau ebela vere colegiureanic, eta diño sala yoateco bere leure, *ut abiret in locum suum*. Texto onen ganean eguingo dodas pregunte bi: nora yoan san Judes yoeanean bere leure? Diraoscu San Matheo evangelisteac *abiens laqueo se suspendit*, ‘yoean
70 urquemendire’. Ara selan yoean bere leure, dalaco lapurren lecu propiyoa urquemendiye. Da advertitaco gause bat gueiyego: lecu onegaitic diño evangelisteac sala vere leure: *in locum suum*; bada, ser leen euquen leure Judesec esan berea? Es, salaco Judes lapurre: *furerat*. Eta egoan colegiuric eta compañiric santuenean sein sen Christoena eta Apostoluena, orregaitic es egoan bere lecuin, estabelaco merecitan
75 lapurrec euquitea lecuric onen eta honrraduen artean, dalaco vere lecu propiyoa urquemendiye.

Confirmetan dau au doctrinau, Absalon guison gaste desventureduen eriosa desastradue: il sin esqueguiric arbole bateric. Preguntetan dot: segaitic isen san au principe desdichedueu bere sentenciyen executorea, <216> esqueguiric bere burue arte
80 bateric, seinec servidu eusen urquemendiseta? San lapurre, perseguidu eusena bere aite Davideri errobetaco erreinue, orregaitic doa bera vere leure, dalaco lapurren leure urquemendiye. Seinbet iseiten dire acabetan daudenac euren visisea urquemendin

25-58 *Jeremias*: Profeta bat, bibliako liburu baten ustezko idazlea. || *numerau esin leiyen coaine*: cf. 4-20 *numeruric estauquen coaine*. **25-59** *maestrea*: ‘andereñoa’, cf. 1-8 *â andra prodigiosa*, genero bereizketarekin sartu dira, oro har, adjektibo mailegatuak hizkera honetan. **25-60** *linceac*: ‘begi-zorroztak, buruargiak’ (gazt. *lince*). **25-61** *esan eguin*: ‘esan zuen’, aoristo perifrasi. **25-62** *oraturic*: ‘heldurik, loturik’. **25-65** *arte*: ‘antze, maltzurkeri’. **25-66** *apostatau*: ‘arnegatu, uko egin’ (gazt. *apostatar*). **25-67** *colegiureanic*: ‘elkargoa, taldea’. **25-77** *Absalon*: cf. 19-73 *Absalonec*.

25. *Saspigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

lapurreriyac gaitic! Eta norsuc euqui daroea onelango desdicheen errue, espada gureso
deungac, permitan edo disimuletan dituesanac euren lapu[rr]eri chiquirrec gastetan,
85 seinsuc direan indiciyo claruic andi eguin ditesanean isengo direala lapurreriyac
andigoac? Yquisi beguiye onec gureso yndignuc Tobias Santueganic: bere historiyan
contetan da, selan bere esean ensun ebenean guedar eiten ebela aume batec, esan eben
berlan: *videte ne furtivus sit*. Ola cuidao, seinden ostue guedar eiten daben aumea ondo
discurridu eben onec santuonec: “Ecusi daigun bada, esan eben, nic estauquet ardi
90 manadaric eta es aumeric, noric dator au aumau, ostue isengo da seguru bere.” Ha
guresoac! Estauquesu esean egastiric es asuriric, eta isengo sara aen insensatue se estosu
pregunteuco noric etorri den? Euqui <217> eguisu, guresoac, presente Tobias: “Bada,
berlan esan eben, bolvidu bequiyo bere yauveari aumea. Bada, esin jan guiñei eta es
uqitu bere iñoen gauseric.” Suc, guresoa, eiten badosu alan sinistuco dogu estosule
95 consentitan lapurreriyac? Baye yaten badosu gause ostue eser esan bagaric seure
semeari, seu sara lapur deungagoa seure semea beño, eta traguetau dosu deshonrrea
egunen baten descubriuco dana, ecusi daguisunean urquemendin seure semea.

Au viciyo madariquetueu aen depeguetan dana, se onetara emaiten daudenac
dificultede andigas echiten deuse. Apostoluen obretan leidunten da se prediqueuric San
100 Pabloc judicioen iqueragarritasune, ensun euden vere sermoea Feliz presidenteac, eta
Drusila vere emasteac. Presidentea gueratu sen aen atonitu se egoan iquera.
tremefa[c]tus Felix. Ea, ecusi daigun se efecto edo se mella eguiun iqueratasun onec? Ia
prosiguitan dau textoac: *simul et speran[s] quod pecunia ei daretur â Paulo*. Â guison
desdichedue! Jangoicoari emongo deusesun contuen bildurre dauquesu, eta sabils
105 iminten trazac cositaco dirue Pablori? Au de vesteenegas aprovechetan danen geniñoa;
bada, esteuso echico erroboteari eta agarreteari al badagui ecusi arren Jangoicoen
judicioa, eta aun Infernue.

25-83 *daroea*: amaierako *-a* azaltzen zaila zaigu, ez badugu pentsatzen egun zubereran galderetako adizkiari gehitzen zaion *-a* atzizkia dugula: I. Gamindek dioskunez (a.e.) mendebaldean (Gatikan) ere lekukotzen da halakorik (Gaminderi galdetu), baina hau litzateke testuan genukeen adibide bakarra. **25-87** *aume*: ‘antxume’. **25-88** *Ola cuidao*: interjekzioa, balizko iturrian (Marsal 1727: 334; ik. § 4.3.1.1) horrela badena (*ola cuidado*); dirudienez *Hola* interjekzioa (*DRAE*, s.v. *hola*) harrigarri gertatzen denean ere erabiltzen da. **25-91** *asuriric*: ‘bildotsik’, *OEH*-k (s.v. *axuri*) bereziki ekialdekoztat jotzen duen arren, ez dira mendebaldeko adibiderik falta, Lazarraga, Añibarro edo Olaetxearen edizio hedatu batean adibidez; Orozko eta Arratiako hitza dela aipatzeaz gainera. **25-98** *depeguetan*: ‘itsazkorra, likatsua’ (gazt. *de pegar*). *Feliz presidenteac*: *Claudio Felix* Judeako gobernadorea izan zen k.o I mendean; hitzaren amaierako *-z* balizko iturrian (Marsal 1727: 335; ik. § 4.3.1.1) legokeen grafia litzateke. **25-102** *eguiun*: ‘egin zion’, adizki trinkoa, *io* < *iu* asimilazioarekin (ik. § 4.2.1.7). || *iqueratasun*: ‘izutasun, ikara’, Añibarronean bakarrik lekukotzen den hitza dugu (cf. *OEH*, s.v. *ikaratasun*).

25. *Saspigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

Da madariquetue viciyoau, bada diru ostu bacoehensat esarten dau ceruec
maldiciño bat (108 Psalm). Disparetan dire, <218> ondo contetan badire, ogueta amar
110 maldiciño Judes lapur desdicheduen contra sirealaco ogueta amar diru ostu ebesanac
Jesuchristoen preciuric, eta diru deunguero eroan bacothagaitic disparetan deuso Ceruic
maldiciño bat. Viciyo onetaric apartetaco remediyo da bearrera apliquetea. [In] *sudore
vultus tui vesceris pane*, esan eusen Adaneri Jangoicoac.

Ser esan dogu tratanteac gaitic, logreruic gaitic? Dagosala asco engañadoreac,
115 vesteena daroenac euren tratu moduitan; ya carugo salduric fiyeduiteagaitic, ya
echadai[ten] sariye eroatarren diru prestaduegaitic. Bada, emaiten deusenean
necesiteduiri dirue, usureruic estaude emaiten pobre eta necesiteduen aumentureco,
espada pobrezeen aumentureco.

Eiten daude pescadore yaquinsuic eiten dabena: iminten dau anzueluin â cebo
120 pisquea. Estaquinac vere artimaña pensadu leique dala yaten emaiteco gose dan
arrañeri, baye laster ecusten da estala alan, segaitic emaiten deusen ceboa arrai
necesiteduiri da osoric yateco bera. Alan suceditan da, onec logreruc euren usuren
ceboagas traguetan ditues erri osoac. Baye estire escapaduco onec desventureduc
pescadore infernal Demoniñoen pastue iseiterean, seinec pescadu edo cosiduco ditus
125 verac â cebo beragas, seinegas eurec pescadu eudesan pobre eta <219> necesiteduic. Eta
lastimegarri andiye [da] seguridade falsoa, seinetan dagosan sosiegu andigas logreruic,
engañetan direala eurec euren arimac, inos pregunteu bagaric daquinari eta arguiye
emon leiyonari, direala injustoac bere tratuic.

Restituciñoen ganean verba eiteco dago lecu guichi doctrine onetan, bastante da
130 esatea veratan dagoala salbaciñoa. San Lucasec diño sartu senean Christo Zaqueoen
esera esan eusela: *hodie salus domui huic facta est* ‘gaur sarsaiten da ese onetan
osasune.’ Baye nos esan eusen au Christoc? Zaqueoc esan ebenean: *si quid aliquem
defraudavi red[d]o quadruplum* ‘iñor engañadu badot errescatetan dot’, *reddo*.

25-108 *diru ostu bacoehensat*: cf. *diru deunguero eroan bacothagaitic*, aditz partizipio hutsa erabiltzen du balio adjektiboaz. **25-116** *echadai[ten]*: lerrotik lerrora salto egitean ahaztu ei zitzaion *ten* (cf. 24-131 *le[gues]*); *echedon* (cf. 29-81) aditzaren aditz-izena dugu hemen, *emon* aditzean bezala *-ite* atzizkiaz egina. Partizipioa ikusirik, gainera, badirudi **echedaiten* zuzen daitekeela: haplografiaz hasiera batean *echai-* idatzi du egileak, eta ondoren *dai* idazten du *i* estaliz; beraz, gerta daiteke lehenengo *-a-* haplografiaren erruz gertatzea eta ez berez aditzaren bokalismoagatik. || *ya echadai[ten]* sariye eroatarren diru prestaduegaitic: ‘nahiz utzitako diruagatik saria eramatea itxaroten’ (cf. gazt. *ya esperando por llevar premio por el dinero prestado*) **25-125** *verac*: *koxituko ditu* aditzaren objektua litzateke. **25-126** *lastimegarri*: berez adjektiboa bada ere, izen legez erabilia dela ematen du. || [*da*]: esaldiari aditz nagusia falta zaiolakoan gaude.

25. *Saspigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

Errescatetaco modu ona oraingo demporetacoa: dagos basuc lusetuiten daudena
135 erredatea guerora: ha se dificultoso dan errescatetea aragui sorturic dagoana! Seinbet
condenetan direan es errescatetarren besteena!

Contetan dau Padre Oultremanec Ytaliyen egoala usureru bet seinec confesauric
vere usurac enmien[da] bagaric es eude[n] absolvidu gure confesoreac. Mudetan ebesan
disdichedu onec confesore asco, ecusiric es eudela absolvidu gure; topadu eben seinec
140 absolvidu eben ecusi arren enmienda bagaric, esaten ebela beste confesoreac gaitic
sireala escrupulosoac. San logrerueu aberasa eta sarri conbidetan eben confesoreau bere
banquetetara. <220> Eguin eben gau beten confesore onegas banquete andi bet eta
afaldu asquero il sen de[r]repente aberasa eta isen san sepultedue Ynfernuen. Yoan
sitean gau beratan conventora demoniño bi vere criyeduen figuran, seinsuc escaturic
145 confesoreagaitic esan [eusen] euren uguesaba egoala agoniñan, eta alan etorri sila bere
consuelureco. Urten eben porterireanic confesore desventureduic eta verlan (permitiuric
alan Jangoicoen justiciyec) aec criyedu bi disfrazaduic eta demoniño eguiyescoac eroan
euden Ynfernure, isen sana participante pecatuin isen linsat bere penetan seculoco.

211 4 *infeme*: *m* azpian zerbait irakurrezin dago, eta ondo irakurriko ez delako edo, idazleak *m* idazten du goian. 7 *doa*: leh. *do*, *a* gainean gehitua. 11 *cordela*: aurretik *soquea*, *edo*; tatxaturik. 13 *humeay*: *y* azpian zerbait irakurrezin dago. || *suen*: leh. *sure*, *re* tatxaturik eta *en* gainean gehitua. 16 *diñot*: leh. *di*, *ñot* gainean gehitua. **212** 20 *comunmente*: leh. *comumente*, *n* gainean gehitua. 31 *arren*: gainean gehitua. **213** 37 *beguisen*: *s* ez da ondo irakurtzen, azpian zerbait duelako. 45 *eroslac*: *erorlac* ere irakur daiteke. **214** 55 *herederuei*: jat. *heredurei*. 60 *gause*: leh. *gaur*], *s* azpian *r* irakurtzen dugularik. **215** 74 *estabelaco*: leh. *estabela*, *co* gainean gehitua. 75 *propiyoa*: *y* azpian *o* irakurtzen dugu. **216** 87 *esean*: leh, *eserean*; *an* gainean gehitua, eta bere azpian *rean* tatxaturik. 90 *ardi manadaric*: loturik agertzen dira eta *m* azpian zerbait irakurrezin dago. **217** 106 *albadagui*: leh. *albadaguiy*], amaieran *y* tatxaturik duela. **219** 127 *eurec*: leh. *euren*; *c* azpian *n* irakurtzen dugularik. 133 *errescatetan*: *te* azpian zerbait irakurrezin dago. 140 *ecusiarren*: jat. *ecusiarren*.

25-137 *Oultremanec*: Felipe de Oultreman edo Outreman-i, XVII. mendeko josulagunari, egiten dio erreferentzia. **25-138** *enmien[da]*: (cf. 10-109 *sucedi[du]*) lerroa amaitzeaz zegoela marra egiten du hurrengo lerroan jarraitzeko, baina nonbait ahaztu zitzaion *da* idaztea. **25-145** [*eusen*]: ziurrenik ondoko *euren* hitzagatik gertaturiko haplografia dugu hemen. **25-148** *bere*: testuinguru honetan 'ere' legez ulertu behar delakoan gaude.

<221>

Sorsigarren mandamintue da falso testimoniuric es ñori ereguita, eta es gusurric esatea

Eragositen da mandamintu onetan testiguensa falsoa emaita, eiten dan legues uqueturic eguiye edo esanic gusurre, eta au principalmente yasaiten da juesac
5 preguntetan dabenean. Au de precatu gustis andiye segaitic testigu falsoac eiten dau
 pecatu Jangoicoen contra sein despreciyetan daben juremento falsoagas; ofenditan da
 jueza sein engañetan daben gusurregas; eiten deuso perjuiciyoa parteari seineri
 quensaiten deusen famea, honrrea, ondasunec edo visisea; eta emaiten badau testiguensa
 falsoa maleechoren favore, ofenditan dau errepubliquea seinec esin emon deusen
10 malechoreari vere castigu merecidue. Delitu beronetan yausiten dire eiten dituesanac
 autu edo escripture falsoac edo adulteradu eguiyescoac, eta onelan valiyetan direanac
 logretaco sentenciye nobere favorecoa. Dauque obligueciñoa errescatetaco parte dañue
 padecidu ebenari ausiten eguin ebesan gastuic, eta â gausea seinen ganean san dispueta
 eta osteransean ausiyegaitic etorri yacasan dañuic gusic.

15 Eiten daude pecatu mandamintu onen <222> contra juiciyo temerariyoac eiten
 dituesanac; au de, juzgu deunguea eitea proximuegaitic fundemintu bastante euqui
 bagaric, dan legues juzguetea proximuegaitic dala lapurre edo dala adulterue, motivu
 suficientea euqui bagaric onelango juzgüic eiteco. Eiten dan juzgüe onelan, firme eta
 ciertuset, isengo da pecatu mortala; baye badago entendimintue, dudan bada alan edo
20 espada, esta isengo juiciu temerariyoa, espada sospechea, sein erregularmente iseiten da
 pecatu veniala. Isengo da vere pecatu veniala danean juiciu temerariyoa gause pisu
 guichicoan. Esta isengo pecatu mortala dauquenean batec bastante fundeminturic
 juzguetaco deunguero: v.g., ecusi balegui batec guison gaste bat sarsaiten pute publicu
 baten esean eta berlan isiten dabela atea, esta isengo temeridedea pensetea sartu sila â
25 guison gastea pecatu eiten hembregas. Erremediyoac libretaco juiciyo temerariyoetaric
 dire principelac bi: lelengoa, beguiretu nobera selangoa dan, dala pensada ñor beño

26-1 *ereguita*: ‘altzatzea, eraikitzea’. **26-9** *maleechore*: cf. hurrengo lerroko *malechoreari*; <ee> bikoitza erdaratik datorren aldaera da, *CORDE*-k lekukotzen baititu halakoak gaztelaniaz (ik. § 4.2.1.5). **26-26** *dala pensada*: esaldi honetako *pensada* ez da ondo ezkontzen esaldian, akatsa bitarte, agian: forma zuzena *pensadas* izan daiteke (‘inor baino txarragoa dela pentsataz’), *pensada* izen legez ulertua kasu instrumentalean; alabaina, *pensadu* ere uler dezakegu (‘pentsatu inor baino txarragoa dela’), partizipioa atributo funtzioan.

26. *Sorsigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

deungagoa; bada, nobera bada pecadorea eta deunguea setaraco juzgueduco ditus besteen <223> faltac. Bigarren erremedyoa da beti esartea parte onera proximuen acciño e dudosoac edo ondo estaquigusenac, eiten dauden legues arime garbiyec eta
30 juiciyo sanao dauquenac.

Ausiten daude au mandamintueu quensaiten deusenac proximuii vere famea injustamente, eta da pecatu andiye echiten dabelaco honrra bagaric proximue, seinea baliyo daben hazinda gustic beño gueiyego. Diñoean legues Espiritu Santuic, *melius nomen bonum quam divitiæ multæ*, eta ondo claru aguii de pecatu onen maliciye
35 heriduiten dituselaco iru tiro bategas: honrra quensaiten dabena, eiten dabelaco pecatu mortala murmureciño eagas; persona infamadue, emaiten deuselaco vengazaraco motivue; ensuten dabena murmureciño e, gustus ensunic galduiten dabelaco bere arimea.

Modu ascotan murmuretan da proximuigaitic. Sorsi señaletan daudes theologüic
40 comunmente: *Ymponens, augens, manifestans, in mala vertens qui negat, aut minuit, tacet, laudatque remis[s]e.*

Famea errescatetaco eguin bear dana da manifestau eguinac, bere proximuen delitue eguiyescoa baye ocultue sana. Bear dau eguin diligenciye borretaco opiniño e deunguea, ensun eusenay esanic engañau sila esan eben <224> gausan, deunguero esan
45 ebela bere proximuen contra err[a]zoa bagaric, eta modu onetan espayaco errescatetan dañue bear dau alabadu ofrecitan dan ocasiño etan ala erremedyedu dinsat bere famen menoscabue. Baye manifestau senduin delitue basan falsoa, dauquesu obligueciño e esateco ensun eusenei esala alan esan senduin delitue, eta bear bada juremento eguin sinistu deguiyensat. Da bere mandamintu onen contra esatea proximuii bere arpeguin
50 berva afrenta andicoa, dan legues esatea edo gueiyetea *lapurre, ordiye* edo *judiyoa*. Dauqu[e] onelango verba contumeliosoac esaten dituesanac, confesaduis ostein, obligueciño eaque parqueescatuiteco injuriye eguin eusenari moduatan; baye estauco onelango obligueciño eric ausensiyen murmuretan dabena. Da ondo advertitea au ygnoranteren basui, segaitic parqueescatuitea ausente egoanari serviu leique

26-39 *theologüic*: *th-* idazkera etimologikoa dugu, garai horretan erabilia; bestalde, *-u* amaiera ez litzateke bokal eufoniaren eraginez gertatu (ik. § 4.2.1.8), euskarak *-u-z* hartu duelako baizen (bestela ez genuke *-uac* > *-uic* esperoko). **26-45** *err[a]zoa*: koadernaketaren josturak *a* eskutatzen digu. **26-51** *Dauqu[e]*: ik. 26-45 *err[a]zoa*. || *contumeliosoac*: ‘laidozkoak, laidotsuak’. **26-52** *parqueescatuiteco*: (ik. 23-60 *parqueescatuiteco*) ‘barka eskatzeko, barkamena eskatzeko’, *parka eskatu* eta Añibarroren *parkeskatu* formen arteko aldaera dugu, orain artean lekukoturik ez zena (cf. *OEH*, s.v. *barka*).

26. *Sorsigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

55 acordarasaiteco aisturic euquen gausea edo es equin gausea. Eiten daude bere pecatu
mandamintu onen contra chismosoac, gente malvadue dabisenac salbaduiten quimerea
persona adisquiden edo aiden artean, esanic basuei besteac gaitic; eta onelagoac dauque
obligueciñoa errescateco quenduiten <225> dauden famea eta esateco dala gusurre
imini euden chisimea. Ausiten daude bere au mandamintue descubritan daudenac
60 proximuen secretoa temerariamente eta descubriteagas eiten badau dañu gravea; eiten
dau pecatu mortala errescatetaco obligueciñoegas. Esan dot temerariamente segaitic
bada secretoa errepublikueren baten edo comunidederen baten dañuin edo proximuen
prejuiciyoan, beste eratan esin erremedyedu balei dañue, estauco obligueciñoeric
gordetaco secretoa.

65 Mi sueltu betec eiten ditusen dañuic dire aen andic se estago personeagan
ocasiñoa prontoagoric eta erriesgu andigocoric bere gals[a]iyeraco. Orregaitic,
permitiuric Jangoicoac Demonioari executedu leguisela bere mille arteac, dauquesanac
heriduiteco eta dañu eiteco, Job santuen contra, quendu asquero euquesan ondasunec,
humeac eta euquen gustiye, echiric esqueleto bat eguinic sastegui beten, ones
70 gustionegas echacan tocau bere espanetan eta es miñean. Alan confesetan dau Job
santuec berac: *derelicta sunt tantum modo labia circa dentes meos*. San au Demonioen
piedadea? Es, espadasan bere astuciye eta maliciye; bada, pensadu eben Demonioac
<226> se echiric libre miñe eta espanac, esarrico ebesala maldiciñoa eta testimoni
falsoac Jangoicoen contra. Eseusen ondo urten bere pensamintu tretosoac segaitic es
75 eben esetan ofendidu bere miñegas Jangoicoa, *no[n] pec[c]avit labijs suis, neque
stultum quid contra Deum locutus est*.

Se cuidedu andiyegas ibili sen gueure Maisu Dibinue irecasteco bere doctrine eta
exemploagas gueure miñe euqui daigunset sugetu, sein desbocadu din verba maliciscoac
esatera. Irecasten deuscu lecu ascotan ese daigusela publiquedu gueure proximuen

26-55 *equin*: ‘zekien’. **26-56** *salbaduiten*: ‘zabaltzen’, 13 *sabaldu*-ren parean adibide bakarria izanik akatsa izan daitekeelarik ere (hala ere, cf. 43-57 *salpaduiten*), ez dugu ahaztu behar euskaraz ozenak mugitzeko joera dagoela (Egurtzegi 2011: 30). **26-65** *Mi*: ‘mihi’, (ik. 11-29 *mi*). **26-66** *gals[a]iyeraco*: ‘galtzerako, galerarako’ (cf. 5-81 eta 18-73 *galsaiyea*). **26-67** *executedu leguisela*: ‘exekutadu zitzala’, (cf. 1-143 *urten leguiyela*), zeharkako estiloaren *l-* aurritziaz (cf. § 4.2.3.5). **26-69** *sastegui beten*: ‘simaurtegi batean’. || *ones gustionegas*: mendebaldeko [erakusle + izen + artikulua zahar] egituraren erakuslea eta artikulua zaharrak ez du deklinabide marka bera; alabaina, lotura handiko deklinabideak dira biak ala biak (cf. Igartua & Santazilia 2013). **26-72** *espadasan*: ‘ez badadin etzan’, *etzan* aditzaren trinkoa dugu, subjuntibo trinko zahar legez. **26-74** *tretosoac*: ‘amarrutsu’, erdaraz lekukotzen ez den hitza (cf. *CORDE s.v. tretoso*), badirudi euskararen barnean sortu duela egileak, *-oso* atzizkiaren bidez (ik. 12-110 *bacoso* eta cf. § 4.3.2.2). **26-78** *sein desbocadu din*: ezezko partikulatza dugu hemen (ik. 1-118 *sein yausi gaiten* eta cf. Gaminde 2007: 126).

80 defectoac. San Juan evangelisteac diño: egonic ministru banada bat Getsemanico hortuin, preso arsaiteco Jesuchristo esan eusen aen Dibine Magestadeac: *si ergo me quæritis sinite hos abire* “Ni preso iminten basatos echiguiyesu onei neure discipuluei doasala libre”. Bada, Jaune, estacusu selan dagosan sure ministruic bidurturic, eurec eingo daude escapetarren, bacarric echico basatues bere alango estutasunean. “Estau

85 ymportetan, diño Christoc, segaitic nic ondo esauturic euquiarren euren bildurre, estot gure esan din euren cobardiye eta correspondenciye deungueagaitic echi nenduela, espada neure ordeas eta aguindus.” Orregaitic, beguireturic euren <227> honrregaitic, escatuiten dau Jaun Dibinuic echi deguiyela yoaten: *sinite hos abire*. Lomismo eguin eben Maisu Dibiduic egüeun guren gauvean; bada, pregunte eusenean bere discipulu

90 maiteac (sein sen Juan) ea nor san salduco ebena bera, manifestadu eusen Christoc Judesen traiciñoa; baye advertidu eben San Chrisostomoc, se esan eusela aen verba esilegas esin iñoc ensun euquean moduin. Eta Judesen honrregaitic alan aitu beben Christoc ser ysengo san beste discipuluenagaitic? Onelango mi madariquetu eta maldecinteagaitic, diño Espiritu Santuic, dala deungago eriosea beño eta Ynfernue bera

95 beño: *mors illius, mors nequis[s]ima, et utilis potius Ynfernus, quam illa*. Eta nai badosu yaquin segaitic dan eriosea beño deungago murmuredoren miñe esango deusut: segaitic ileiten dabelaco honrrea sein estimetan dan gueiyego visisea beño, eta da deungago Ynfernue beño segaitic Ynfernuec castiguetan ditus deungac eta pepadoreac, baye mi deunguea bolvitan da justoen eta onen contra. Orregaitic da deungago Ynfernue beño

100 murmuredoren miñe. Murmuredoreac dagos gustic gaitic dauquenac ser esan deunguero; esta conte[nte]tan euren maliciye vomiteteagas venenoa baten contra espada <228> ascoen contra; es abaderic, es fraileric, es esconduric estago euren mi infemean establedeenic.

Baye gause on bat dago, edo deunguea, sein den adinebeste falso testimoniño

105 ereguiric ordu gustitan onelango mi deungac, esta descubritan nor dan edo sein den

26-80 *banada*: (cf. 31-53 *badariquetue*), honen parean 5 *manada* ditugu; hala ere, posible ikusten dugu akatsa baino euskal fonetikan ezpainkariet duten berezitasunarekin loturiko aldaera izan (cf. *FHV*: § 13). **26-82** *echiguiyesu*: ‘utz iezaiezu’, aditz uzkurduraz (ik. § 4.2.3.11). **26-83** *doasala*: ‘joan daitezela’, subjuntibo trinko zaharra. **26-87** *ordeas*: ‘ordenaz, aginduz’. **26-89** *egüeun guren gauvean*: ‘ostegun santuko gauean’, (ik. 30-18 *egun guren egunean*), bakundu gabeko diptongoarekin (*eguaun*) Araban (Lcc., Laz.) lekukotzen du *OEH*-k (s.v. *eguen*) eta Mitxelenak (*FHV* § 4.3). || *pregunte eusenean*: aditzoina indikatibozko perifrasisa hedatu da, hizkera batzuetan orokorra den *-a* partizipioen hastapena (ik. § 4.2.3.1). **26-95** *nai badosu*: mendebaldeko hizkeretan *gura* bada ere erabiliena (testuan 100 bat aldiz erabiltzen du *gura*), ez da ezezaguna *nahi*-ren erabilera, *OEH*-k (s.v. *nahi*) *RS*-tatik aurrera lekukotzen du mendebaldean.

euren autorea. Noc esan al leique; aun Jesuchristoen eriosan esta descubritan sein isen [san] malhechore entregadu ebena ministru crucifiquedu eudenai? Preguntedu eguiusu Pilatoseri: Basan bera entregadu ebena? Eransuten dau: “Nic es, segaitic gustic daquiye nic eguin nenduila aleguine libretaco eriosareanic, gustiyen [aurrean] garbitu nendusela
 110 escuic esaten neusela nengoala innocente justo aen odolean: *Ynnocens ego sum á sanguine justi huyus.*” Esaten badeusesu judiyoai: “Erdu ona, traidoreac, suac entregadu senduen?” Eransuten daude: “Guc es, segaitic emon guenduen descargüe juezen aurrean esaten gueusela: *nobis non licet interficere quemquam* ‘guc esin iñor yl guiñei.’” “Erdu ona Judes madariquetue: suc entregadu senduen, bada saldu senduen.” Eransuten dau:
 115 “Nic es segaitic saldu bananguin ya declaradu nanguin gustiyen aurrean nire maisue sala justoa, eta confesaduric neure pecatue bolvidu neusen euren dirue.” Bada, <229> ecusi deigun: alomenos su, Demoniñoa esin escusedu seites; bada, seure maliciye madariquetuegaitic incitedu sendusen gustic preso iminteco injustamente. “Nic guichigo, segaitic lelengoan tentadu banendusén ataraco guero aseratu neusen,
 120 proponiduric Pilatosen emasteari, esan leguiula bere senarrari (eguin eben legues) justo aen causan ese ledile sartu: *nihil tibi et iusto illi? multa passa sum per visum propter eum* (Matth. 27). Desuerte se ileiten da Jesuchristo ecusi direanic afrenttaric eta tormenturic andiyeenetan, eta isenic adinebeste bere malhechoreac esta descubritan iñor, esta aguire delitu onen autorea? Alan yasaiten da munduin: ecusten da nescatillea
 125 honrra bagaric, escondue infamaduric, justoa deshonorraduric... eta preguntetan badogu delituonen autoreagaitic esta aguri noc errue dauquen; alomenos gustic, an judiyoac legues, uquetuiten daude. Baye etorrigo da egune seinetan juez soberanuen presensiyen manifestaduco da eta ecusico da innocensiye errazoa bagaric padecidu euden deshonorreena eta maliciye euren mi deungacas quendu euden fama eta honrreena.
 130 Elisateques galduco adinebeste fama eta honrra <230> proximuenac, daquinac besten delitue baleuco caridedea eta amore Jangoicoagascoa eta proximuigascoa,

26-106 *sein isen [san]*: esaldi honi aditz laguntzailea falta zaio, *sein* partizipio hutsez ere erabil daiteke ezezko partikula denean (ik. Gaminde 2007: 126; cf. halaber *1-118 sein yausi gaitean*) baina semantikoki arazoak dakartza azalbide honek, eta kopia akatsa dela pentsatzen dugu. Bi aukera genituzke zuzentzeko: edo *isen* hori trintotzat ulertu eta [e]i sen ‘omen zen’ bezalako zerbait proposatu edo haplografia arruntzat hartu eta *isen [san]* legez ulertu, lehenengoaren alde lerratu gara. **26-112** *descargüe*: ‘zuritzea, deskargua’. **26-115** *saldu bananguin*: lehenaldiko baldintza [*aditzoina/partizipioa* + *ba-*edin/egin* lehenaldian] perifrasiaren bidez egina, Mounolen sailkapenean ageri ez dena (2011: 227) eta gure ustez aoristo perifrastikoaren gainean sortua (ik. § 4.2.3.9.1). **26-119** *aseratu*: ‘amore eman, atzera egin’ (cf. *OEH*, s.v. *1 atzeratu* 5). **26-124** *aguirer*: ‘ageri’, (cf. 1-147 *bide*, 10-117 *bailerean* edo 15-138 *letequean*) aurrekoetan bestelako ondorio planteatu daitezke, baina guztiak ikusirik badirudi idazleak *e – i* artean hainbat txandakatze, metatesi edo asimilazio egiten dituela; hainbat adibide izanik, berean ustea erabaki dugu.

26. *Sorsigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]*

segaitic ametan dabenensat Jangoicoa eta proximue lomismo da yaquitea besten defectoa seinde es yaquitea. San Juan Chrisostomoc eta beste santu besuc diño, San Juan evangelisteac beequila Judesen traiciñoeta eta alanbere berac diño maiñean egoan
135 areanec bere-es es ebela yaquin: *hoc autem nemo scivit discumbentium*. Esque San Juan san Jesus Jangoico eguiyescoen amantea, eta ametan dabenac Jangoicoa euquico dau aen moduteco caridedea bere proximuigas, se yaquitea bere delitue isengo da lomismo sein es yaquitea. Bada, âen secreto andiye gordeco dau se echaco etorrigo descredituric chiquirrena; baye dagos persona asco, âen caridede guichicoac se esin euqui daude eser
140 esilic. Onelango murmureore bategaitic diño David profeteac *tota die injustitiam cogitavit lingua tua*. ‘Egun gustin pensetan dabela deunguro vere miñec.’ Profeta santue, pensetea toquetan yaco entendimintuiri, verba eitea miñeri; bada, selan diñosu miñec pensetan dabela? Esteuse[su] entenditan profeteari, nic esango deusut: persona basuc dagos pensetadauden gustiye verba eiten daude[la], eta onelangoac <231> gaitic
145 afirmeu leique pensetea deunguro proximuegaitic eta verba eitea dala lomismo. Baye, se ascotan engañetan direan âen pronto eta facil pensetan daudenac eta verba eiten daudenac! Se deunguro pensadu eben Assueroc bere honrreen contra eta Ester vere esposen contra, ecusiric Aman egoala erreguñeen oeen ganean! Baye engañadu sen, segaitic Amanec eiten ebena san erregutu deveras eta vere bios gustigas vere
150 erreguñeari ese leguiula quendu vere visisea. Seinbet bider engañetan dire aun beguic eurec. Orregaitic esta bear prontamente eta facilidedeagas juzgedu deunguro proximuen contra. Alan selan emaiten deuscun exemploa Jesuchristoc (Gen 18. num. 20). Esan eben Jaun Dibinuic. *Clamor Sodomorum et Gomorrae multiplicatus est et pec[c]atum eorum a[d]gravatum est*, ‘lecu gustitati sabaldu de Sodomaco eta
155 Gomorraco genteen visimodu escandalosoen fama deunguea.’ *Descendam et videbo, utrum clamorem qui venit ad me, opere compleverint an non est ita*. Bada, diño âen Dibine Magestadeac: “Gure dot vertara yoan eta ecusi, ea dan eguiye sabaldu den vosa eta ensun dodasan gausac.” Bada ser? Estaqui aen Dibine Magestadeac ser yasaiten dan ecusten yoan bagaric? Bai, baqui gustiye dacusenac, baye esaten eudesan gausac sirean
160 <232> legues pisu andicoac, pecatu andic, gure euscun irecasi proximuen gachi eta pecatue sinistu beño leenago bear dala ecusi eta palpadu. Gause ciertue da, emaiteco

26-135 *areanec bere-es*: ‘zegoen inork ere ere’, *arean bere* egitura ergatiboan (cf. 6-103 *Viciuc areanec bere*) **26-143/4** *Esteuse[su] ... daude[la]*: atal honetan letra arduragabeago dirudi, beraz halako akatsak izateko aukera gehiago daude. **26-147** *Assueroc*: Bibliako pertsonaia, Esterren liburuko pertsonaietako bat. **26-149** *deveras*: ‘egiatan, benetan’ (gazt. *de veras*). **26-160** *gachi*: era mugatuan (*urkoen gaitza eta pekatua*) beharko genukeen hitz honi, baina partitiboaz ere emana egon zitekeen: **gachic* hau dela eta bere horretan uztea erabaki dugu.

26. *Sorsigarren mandamintue* [*Jangoicoen leguecoa*]

creditue ensuten dan gauseari, bear da pensau eta pensau ondo, eta es juzgedu ligerezeagas deunguero proximue. Aitu sequius christiñeu Jangoicoari, sein isengo dan sure jueza eta dacuses sure pensaminturic ligeroenac. Veguiretu sates seinbet ofensa
165 eguinic dauquesun â Jaun Dibinuaen contra, eta gure badosu juzgedu saguisen piedadeagas eta misericordiyegas; selan juzguetan dosu seure proximue caridade bagaric, âen deunguero? Echi eguiyesu besten faltai, enmendatu eguisus seureac se mentures dire andigoac seureac seuc entendisagaric, eta da errazoa naturela, segaitic naturelezeac emon euscusen beguiyec ecusteco besteac dire âen desdicheduic se esin
170 ecusi deudes nobereac.

Exemploa

Jangoicoac selan castiguetan ditusen falso testimoniñoac ereguiten dituesanac. San Gregorio obispo agrigentinoen visisan contetan da <233> Sabinoc eta Crescencioc, acusedu eguiyeela falsedadeagas Romaco sinodora asistidu euden eun eta berrogueta
175 amar padreen aurrean esanic Gregoriuc forzau ebela Eudusia doncella quensaiteco bere honrrea, eroanic acusesiñoec falso onetaraco eun eta ogeui testigu. Baye santuic, acudiuric Jangoicoagana seinde eguiyen autorea, esan ebesan boz altuin profeta santuen berbac: *insurrexerunt in me testes iniqui, et mentita est iniquitas sibi*, ‘alzadu sitean nire contra testigu falsoac, gusurre esan eben maldadeac berac.’ Sucedido sen laster
180 novedade bat eta san au: nescatillea endemoniadaric yausi sen santuen oiñetara, aguindu eusen Gregoriuc espiritu malignuiri urten leguila doncellaen gorpuseric, eta nescatilleari aguindu eusen esan leguila eguiye. Alzadu sen emonic escue santuec eta esan eben Sabinoc eta Crescencioc sobornadu eudela promettimintuicas imini leguiunsat Gregoriuri falso testimoniñoa. Ecusiric au desengañueu, santue bera isen san
185 yntercesorea testigu falsoac gaitic sinoduin eta alcanzadu eusen euren maldadeen parcaciñoa. Baye orregaitic bere, testigu <234> falsoen arpeguitan ecusi sitean mancha gustis bals basuc, eta Sabino eta Crescencioen espanetan gueratu sitean aen mancha balsac eta aen modutecoac, se esin iños borrau sitean. Gueratu sen euren maldaden señaleara yaque gure isen euden borradu santu beten honrrea.

26-163 *Aitu sequius*: ‘aditu zakizkio’. **26-168** *entendisagaric*: (cf. 23-33 *senti-segaric*, 33-51 *confesasagaric*) ‘ulertu-tzegarik, ulertu gabe’, Añibarrok lekukotzen duen atzizkia da *-tzagarik* (< **-tza bagarik*). **26-169** *esin ecusi deudes*: (cf. 4-57 *esin egas eguin deu*) indikatibozko laguntzailearekin egindako potentzial perifrasi, *ezin* partikulak ematen dio potentzialtasuna perifrasiari (cf. § 4.2.4.6). **26-170** *San Gregorio obispo agrigentinoen*: San Gregorio Agrigentokoa, VI. mendeko apezpikua Siziliako Agrigento hirian.

26. Sorsigarren mandamintue [Jangoicoen leguecoa]

221 2 *esatea*: gainean gehitua; leh. *ereguita*, tatxaturik. 3 *Eragositen*: *a* eta *o* azpian zerbait irakurrezin dago. 6 *ofenditan*: aurretik *peca*], tatxaturik. **222** 20 *isengo*: jat. *isengo da*, ziurrenik ondoko *isengo da* eragindako kopia akatsa. 24 *berlan*: leh. *berla*, *n* gainean gehitua. || *dabela*: leh. *dabeala*, bigarren *a* tatxaturik. 26 *selangoa*: leh. *selango*, *a* gainean gehitua. || *beño*: gainean gehitua. 27 *pecadorea*: leh. *pecadore*, *a* gainean gehitua. **224** 45 *err[a]zoa*: koadernatzean jarritako errefortzuak estaltzen du *a*. 47 *manifestau*: leh. *manifesta*, *u* gainean gehitua. 51 *Dauqu[e]*: koadernatzean jarritako errefortzuak estaltzen du *e*. 52 *moduatan*: leh. *mduatan*, *o* gainean gehitua. **225** 65 *Mi*: aurretik *S* larri bat. || *dire*: aurretik tatxoi bat, *dire*? 66 *ocasiño*: leh. *ocasiñoa*, *a* tatxaturik dagoela. 69 *euquen*: aurretik tatxoi bat. **228** 106 *ministru*: aurretik *bere*, tatxaturik. Bestetik, leh. *ministruei*, amaierako *ei* tatxaturik dagoela. || *crucifiquedu eudenai*: *-du eu-* azpian zerbait irakurrezin dago. 109 *aen*: *a* hori ez da ondo irakurtzen, azpian beste zerbait duelako, *e*? **229** 121 *propter*: leh. *proter*, *p* gainean gehitua. || 27: gainean gehitua. || *afrenttaric*: *tt* azpian zerbait irakurrezin dago. 127 *errazoa*: leh. *errazo*, *a* gainean gehitua. **230** 132 *eta*: gainean gehitua. || *besuc*: leh. *besuq*], *q* tatxaturik eta *c* gainean gehitua. 134 *egoan*: jat. *egoanec*, ondoko *areanec* eraginda ziurrenik. 137 *secreto*: aurretik tatxoi bat. **231** 149 *dire*: gainean gehitua. 154 *fama*: leh. *fam*, *a* gainean gehitua. || *Descendam*: jat. *Descendan*. 157 *ser*: jat. *ses*. 158 *eudesan*: leh. *euden*, *s* azpian *n* irakurtzen dugula. **232** 160 *da*: gainean gehitua. || *ensuten*: aurretik tatxoi bat, *pensetan dan gauseari*? 167 *naturelezeac*: leh. *naturelezea*, *c* gainean gehitua. **233** 178 *aguindu*: leh. *aguidu*, *n* gainean gehitua. 181 *promettimintuicas*: *tt* azpian zerbait irakurrezin dago.

<239>

4. Sacramento Santuen expliqueciñoa

Ser dire Sacramentoac? Dire señale basuc Jesuchristoc disponidu ebesanac emaiteco guri, euren mediyos, vere graciye eta virtuteac. Ser da graciye? Iseite dibinu bet seinec eiten daben guisona Jangoicoen semea eta Ceruco herederue. Seinbet dire
5 Sacramentoac? Dire saspí; lelengoa bautismue, bigarrena confirmaciñoa, irugarrena penitenciye, laugarrena comuniñoa, bostgarrena extremaunciñoa, seymarrena ordea, saspigarrena matrimoniñoa. Setaraco echi ebesan Christoc sacramento onec? Apliquetaco vere odol preciosoen merecimintuic eta vere graciye guri veragas santifiquetaco. Selan santifiquetan ditues guisonac sacramentoac? Sacramento basuc
10 santifiquetan daude emonic guisonai gracyen visisea leen es euquena eta veste basuc aumentauric leenago euquen graciye; eta lelengoai gueiyeten yate *sacramento ilenac*, eta vigarrenai *visiyeenac*. Seinsuc dire sacramento ileenac? Bautismue eta penitenciye, segaitic administretan yates pecatuen erioseagas ilic dagosanai. Seinsuc dire visiyen sacramentoac? Veste bostac, bear dalaco egon estadu graciscoan recibitaco
15 provechuigas.

Ysenic preciso eta bear dana graciye <240> gordetaco mandamintuic eta salbetaco, esan contentadu Jangoicoa emaithegas guri; gure isen eben bere etorri sila lagun eiten deusela señale basuc seinsuei gueiyeten yate sacramentoac, aude, gause sagraduic. Bada, da gause bat ecusten dana eta beste bat entenditan dana, diño San
20 Agustinec: *ideo dicuntur sacramenta quia in eis aliud videtur, et aliud intelligitur*. Ecusten dana, diño Santuic, da gause corporala; entenditan dana edo significuensea da gause espirituala sein den graciye edo Espiritu Santuen operaciñoa, seinen mediyos santifiquetan ditus Jangoicoac gure arimac exercitetan dogusenean señale sagradu onec seinsuei gueiyeten yate sacramentoac. Onec sacramentoc, seinsuc direan saspí,
25 disponidu ebesan Christoc euren mediyos emaiteco vere graciye, gueure necesi[de]deen socorrureco: *Bautismue* parquetaco pecatu originela eta comuniquetaco graciye, *Confirmeciñoa* aumentetaco gracyeu eta fortalecitaco bautismuin recibidu guenduin fedean, *Comuniñoa* alimentetaco arimea eta aumentetaco graciye, *Penitencyeco sacramentoa* bautizedu asqueroco pecatuic parquetaco, *Extremaunciñoa* pecatuen
30 manchac quensaiteco, emaiteco inderra areriyoen contra eta conbenitan danean osasune,

27. *Sacramento Santuen expliqueciñoa*

Ordea consagretaco eta ordenetaco Elesaco ministruc, *Matrimoniñoa*, esconduiteco eta
aumentetaco graciye, veragas visi iseiteco eta humeac Cerureco asiteco. Baye <241>
recibitaco graciye edo graciyen aumentue sacramento onen mediyos, bear dire recibidu
35 ondo, disposiciñoa onagas, eta es recibiduric onan esta recibitan Jangoicoen graciric
espada Jangoicoen justiciye eta judiciyo rigurosoa, seinegas esarten deuse bere semaiñe
deunguero recibitan daudesanai. Baguenqui ondo ser dan graciye, se ondasun andiye
dan sacramentoen mediyos Jangoicoac emaiten dabena, cuidedu ohea iminico gueunque
es galsaiteco; baye estogun legues esautuiten ser dan estogu eiten merecitan daben
estimeciñoeric. Noc esautu al leique estimetaco sor dogun legues! Estago guisonen
40 entendiminturic es angueruenic esautu leiyenic. Asco esan eben San Thomas angueru
maisuec afirmadu ebenean graciyen gradu berric dala obago, eta baliu dabela
gueyego, mundu gustico ondasunec beño, ceru gustic bere egusqui, irerguiye eta
yserracas beño. Au graciyen ondasun cabu bacoau comunicetan deusco Jesuchristoc
sacramentoen mediyos, es igualmente gustiye, espada selan dan bacoche disposiciñoa
45 eta necesidedea.

Alan repartidu ebesan bere amore infinituegas eta sabiduriyegas bere
beneficiyoac â jaun soberanu Jangoico eta guisonac, sein eguin sen sacramentoen autore
gueure provechureco. Baye, selan eguin sen autore? Acaso aguinduric Jaune legues? Ha
christiñeuec! Consideradu baguengui ondo se asco costa yacan <242> Christori
50 sacramento santuen ynstituciñoa, selan obeto estimeuco gueunquesan! Es ebesan
disponidu aguinduiteagas berric, instituidu ebesan berac irepasi ebesan merecimintu
gusticas: bere pasiñoan padecidu ebesan tormentuen costuin, bere odoln costuin eta
cursean emon eben visiseen costuin; vere costaduin recibidu eben lanzada cruelen
costuric, noric urten euden odolean eta urean materialac sacramento onetaraco. Ô se
55 preciyo andiye au! Estau baliyo guichigo sacramento bacoach Christoen odola beño,
Jangoico gagueitic guison eguin sanen bisisea beño. Au tesoru edo ondasun andiyeu
echi deuscu Jesuchristoc gorderic sacramentoetan, eta au ondasun gustiyeu da gueure
oneraco, aberastuiteco gueure arimac beragas. Ea christiñeuec, noc gure dau isen pobre
eta desdichedue ariman euquiric adinebeste ondasun sacramentu santuitan? Ser diñosu
60 pecadorea? Estosu gure aberastu seure arimea? Beguiretu sates: de balde emaiten dire
ondasun onec, esta bear es urregorriric es suriric erosteco graciyeu, bastante da gure

27-34 *onan*: 'honan, honela'. 27-36 *Baguenqui*: 'bageneki', jakin aditzaren trinkoa. 27-42 *irerguiye*:
'ilargia'. 27-61 *es urregorriric es suriric*: 'ez urregorri ez urrezuri, ez urre ez zilar' (cf. 15-46).

27. Sacramento Santuen expliqueciñoa

yseitea, escatuitea humildeagas eta pecatuen damu eguiyescoagas. Eldu saites yturri sagradu onetara, eta especialmente penitencyeco eta comuniñoecora, seinen necesidedea dauquesun garbitaco seure arimea. Eldu saites <243> fortalecitaco Ceruco
65 oguigas sein emaiten yaten gustiye mai sagradu orretan seinetan combidetan satus emaiteco suri vere gorpuse eta odola. Setara gueiyego eldu leiteque vere finecea? Esatus obliguetan âen amore andiyec? Beata Angela de Fulginori, egonic gasoric eta inder bagaric oean, aguirtu yacan Jesuchristo eta esan eusen: “Alava, ni nator su serbitan eta suc bear dosune eiten.” Ô amore andiye! Ser eingo seuque ecusi basengui eiten dabela
70 lomismo Christoc gasoric sagosanean? Ecusi basengui, diñot, Christoc emaiten deusule yaten eta serbitan satusela? Esinates echungo bere oiñetara al senguin moduin eta mun eguin mille bider? Bada, christiñeue, bistu eguisu fedea eta ecusico dosu beragas asco gueiyego eiten dabela Jesuchristoc sure ariman, recibitan dosunean seinde eingo leuquean serviduric su gasoric sagosanean oean, segaitic Jaun Dibinu onec es bacarric
75 emaiten deusu yaten, baite bere alimentetan satus vere gorpusegas, emaiten deusu edaten bere odola, osatuiten satus clavaduric egoan gorpuseric destiledu eben balsamuigas; eta alan bere esara elduco sarri sacramentu santu onetara? Sec aseratuiten satus? “Jaune, enago disponiduric.” Bada, bauquesu disponidu besen ondo. “Eta Jaune, selan disponiduco nas?” Atendidu eguisu, christiñeu, <244> se da doctrine
80 ymportancicoa respuestea eta beratan brevemente esango dot bear dan disposiciñoa sacramento gustitaraco. Bautismureco, sein den lelengo sacramentoa, seiñec usode[r]razoaric estauquenac estaude bear euren partes disposiciñoeric, gustiye enmenditui[ten] dabelaco Elesa Santeen yntenciñoeac eta fedea eta Christoen merecimintuic, segaitic selan heredetan dogun pecatu Adan[en] pecatuegaitic, gueure
85 erru bagaric, alan libretan gara pecatu onetaric bautismuin gueure merecimintu bagaric, Jesuchristoen merecimintuic gaitic. Baye bautizetan dana bada nagusiye, bear dau euqui intenciñoa recibitaco sacramentou, eta bear ditus yaquin fedeco misterioac eta euqui pecatuen damue. Penitencyeco sacramentoa recibitaco bear da damu andigas confesadu

27-67 *Beata Angela de Fulginori*: Angela Folignokoari egiten dio erreferentzia, XIII. mendeko Italiako Folignon bizi izandako idazle mistikoa. **27-71** *Esinates*: ez zinateke (cf. 2-52 *guiñei*) ‘genezake’, ke gabeko adizki potentzial arkaikoa dugu (cf. § 4.2.3.6). **27-77** *aseratuiten*: ‘atzeratzen, geratzen’. **27-78** *Bada, bauquesu disponidu besen ondo*: ‘bada, badaukazu prestatu bezain ondo’ ik. 13-124 *leen besen leen* eta 24-103 *besen*. **27-81** *seiñec*: ‘haurrak, umeak’. **27-83** *enmenditui[ten]*: (cf. 10-109 *sucedi[du]*), lerroa amaitzear zegoela marra egiten du hurrengo lerroan jarraitzeko, *-ten* idaztea ahazten zaion arren; forma aldetik, *emendatu* da sermoitegiak dakarren aldaera (14 adib.); hala ere, *OEH*-k (s.v. *emendatu* 5) *emendiatu* ere lekukotzen duenez ‘satisfacer’ adieran bere horretan utzi dugu. **27-84** *pecatu*: esaldiaren objektua mugagabea darabil hemen. || *Adan[en]*: Genitiboan behar dugu esaldia ulertzeko, badirudi haplografia bat dugula hemen.

27. Sacramento Santuen expliqueciñoea

90 pecatu gustic, proposituagas es ostera bolvitaco pecature eta cumplitaco confesoreac
emaiten deusen penitenciye. Veste sacramentoac recibitaco bear da egon gracyan.
Onetara reducitan da bear dan gustiye recibitaco sacramentoac. Non dire, bada,
dificultedeac isenic au aen facile? Segaitic recibitan aen beluric belure confesiñoeco eta
comuniñoeco sacramentoac? Onen ganean verba eiten dot orain (se bautismue,
95 confirmeciñoea eta ordea vein bisen esin recibidu leis) Segaitic ygueraytten yasus yle
bi, lau, sei, sorsi, edo vrte bete confesau bagaric? Noc detenitan satus betacariye? Baye
noc, espada seure floxedadeac? Noc, <245> espada seure bios gustiye entregaduric
dagoanac lureco gausetara? Noc espada seure pecatuec seinsuc sauques esturic euren
cateagas? Noc espada Demonioac seinec seure areriyoa dan legues apartetan satus
Ceruco bideric? Onec dire imbarazuic logretaco adinebeste ondasun. Ea betacariye,
100 bolvidu sates seuguen, beguire saites seure arimeagaitic, urrutu eguisus seure pasiño
madariquetuen lazuic, echi eguiyesu seure ecandu gaistoai. Eldu saites, eldu saites
confesetan seure pecatuic damu eguiyescoagas: es eguiusu sinistu Demonioari es bere
guei engañosoai; ensun eguisu eta sinistu eguisu Jesuchristori seinec gueiyeten deusun
eta diraosun Ysayas profeteen mediyos: *venite, emite absque argento et absque ulla*
105 *com[m]utatione vinum et lac*. Erdue ona guisonac, erdu ona betacariye erosten
Jangoicoen gracyen ondasun andiye, sein emaiten dan devalde sacramentoen mediyos,
urregorri bagaric eta urresuri bagaric. Devalde emaiten da orain gracye erosi ebelaco
Jesuchristoc guresat bere odolen preciyoagas. Erdue, diraoscu Jaun Dibinuc, mai
sagradu orretareanic; erdue eta yan eguisue neure ogui onetaric: *venite comedite panem*
110 *meum*. Echico leusquiyo iñoc bere bururi ileiten euquiric abundante escore oguiye ona?
Bada, selan echiten deusesu arime tristeorri ileiten necesideden purus, euquiric aen
escore au ogui soberanue seinec <246> emaiten deusen visisea gustetan daudenai? Ha
christiñeuen neciyotasun andiye: euquiric âen escore ondasun andiye sein emaiten dan
devalde gracyegas, visi yseitea pecatu mortaleco gachean sein den desdicheric
115 andiyeena!

Asco, eta andiyec dire Jangoicoac eguin ditusen milegroac confirmetaco eguiye
fede santeena eta sacramento santuena, especialmente Santisimu Sacramento

27-92 *beluric belure*: (cf. 11-125 *belu*) ‘berandutik berandura, noizean behin’. **27-94** *bisen*: ‘baizen’ (ik. 10-115 *esan bat bisen*). **27-96** *seure bios gustiye entregaduric dagoanac lureco gausetara*: ‘guztia lureko gauzetara entregaduric dagoen zure bihotzak’. **27-100** *urrutu*: ‘urratu, apurtu’. **27-105** *erosten*: ‘berrerostera, salbatzera’. **27-106** *devalde*: ‘dohainik’, adiera honekin XIX. mendetik aurrera baino ez du lekukotzen *OEH*-k (s.v. *debalde*). **27-110** *Echico leusquiyo*: ‘utziko lioke’. **27-111** *necesidedeen purus*: ‘beharraren indarren, beharraren poderioz’ (cf. *OEH*-s.v. *1 puru*). **27-113** *neciyotasun*: ‘ergeltasun’, inon lekukoturik ez den hitza, agian idazleak berak sortua (cf. § 4.3.2.2).

27. *Sacramento Santuen expliqueciñoa*

Altaracoan. Euren artean da especiala contetan dabena Santo Thomas de Villanuebac: egonic eriosaco trancean guison bat, lineagean judiyoa baye christiñeu ona convertidue
120 deveras gueure fede santara; gueiyeguin eusten (diño santuic) asistidu nenguiunsat
trance atan eta veste gause ascoen artean esan eustesan verba onec: “Ysenic ni (esan
eben) mutil gastea niñoan beste neure lagun judiyo bategas campo basuitati. Asi
guinean tratetan Mesiasen etorrereagaitic sein beguire guengosan. Conversaciñoen
beroagas artu guendus en âen deseo andic ecusteco se nerenchan biosa abrasetan yatala
125 eta urten gure eustela. Biyoc batera negar eta sispuru eiten guenduila ecusteco
deseoagas escatuiten guenduin etorri sila eta consoladu guenguisela. Onetan ecusi
guenduin idigui sela cerue gaberorteguin <247> emaiten argui gustis andi bet seinec
alegretan ebesan gueure biosac. Acordadu nindin orduin, neure aitec esanic eustela
ecusten banenduin demporareen baten cerue idiguiric, escatu neiqueala edosein bere
130 mecede, esperanza ciertuegas alcanzetaco. Esan neusen neure laguneri, eta biyoc
belaunico yarriric, negarres escatu gueunsen Jangoicoari gueure egunetan eracusi
leigule Mesias esautuiteco eta servitaco gueure arimeen oneraco. Eta esquendu[in]
eguin debalde gueure oraciñoa; bada, acabadu beño leen ecusi guenduin arguiyeen erdin
caliz bet eta bere ganean osti bat egusquiyec beño argui gueiyegogas. Lelenguan
135 yqueratu guinean, baye quendu euscun bildurre gueure arimetan sentidu guenduin argui
eta consueluic esin esan leyen suavidedeagas, eta emon euscun arguiye urteiteco gueure
ysutasuneric eta esautu guenduin â Jaun sacramentadue sala Mesias, sein deseetan
guenduin eta escatu seinen leguean egoan libreduric gure salbaciñoa. Mudedu sitean
gure biosac eta belaunico yarri guineanean isenic judiyoac, alsau guintean christiñeu
140 eguinic, reconocitan guenduila gueure redemptore eta Mesias eguiyescosat; aen inder
andiye dauco bein ecusteac. Bolvidu guintean gue[u]re esetara alegrementen tratetan
guenduila ser ecusi gunduin consuelu andigas <249> eta berlan emon guenduin ordea
recibitaco bautismue eta bautizedu guintean eta recibidu guenduin Jesuchristoen leguea,
seinetan bisi isen nasan. Eta ileiten nas consoladuric eta ciertu recibitaco bere escuric
145 Ceruco coroea.” Au esan eben (añaditan dau Santo Thomas de Villanuebac) aen fede
andigas se emaiten eben testimoniño ona profesetan ebela, eta Jangoicoac eguin eusen

27-120 *asistidu nenguiunsat*: ‘lagundu niezaion’. **27-122** *beste neure lagun judiyo bategas*: *OEH*-k dioskunez (*s.v. beste*) “los sintagmas con sufijo *-(z)ko* y *-(r)en* se sitúan, sin que cambie su significado, indistintamente antes o después de *beste*”. **27-124** *nerenchan*: ‘irizten nuen’, *eretxi* aditzaren trinkoa. **27-127** *gaberorteguin*: hapax hau *OEH*-k (*s.v. gau*) dakarren *gau-erorte*, *gaberorte* hitzekin erlazionaturik legokeen hitza dugu; *-tegi* amaiera honek ziurrenik *arrastegi* hitzean (cf. sermoitegiko *16-59* *arrasteguiye*) den *-tegi* bera genuke (cf. § 4.2.5). **27-128** *Acordadu nindin*: ‘gogoratu nintzen’, aoristo perifrasi (cf. § 4.2.3.15).

27. Sacramento Santuen expliqueciñoa

mesede andiye Santisimu Sacramento Altaracoen mediyos seinen gustis devotoa ysen
san. Estago ecusi bisen orain, christiñeuc, badauco Santisimu Sacramento Altaracoac
birtutea convertitaco judiyoac eta eiteco christiñeu ecusiteagas bacarric hostiyan eta
150 calisean, ser isengo da, bada, sarturic gueure arimetan sacramento soberanueu egonic
garbi arimac? Se gracyac, se favoreac obretan ditusen arime ondo disponiduric
recibitan daudenetan! Eguin daigun gueure parteti aleguine, penitenciyegas garbituric
arimac, recibitaco sarri, guero ecusteco Ceruco gloriyan.

239 6 *seygarrena*: y azpian g irakurtzen dugu. 13 *segaitic*: leh. *segai, tic* idazte kaxatik kanpo gehitua.
240 18 *yate*: leh. *ya, te* gainean gehitua. 21 *dana*: leh. *dna, a* gainean gehitua. 27 *confirmeciñoa*: leh.
Confirmeciye], *ye* tatxaturik eta *ñoa* gainean gehitua. **241** 41 *bett bacarric*: *tt* eta *ba* horien azpian
zerbait irakurrezin dago. 47 *sen*: gainean gehitua. **242** 61 *gracyeu*: leh. *gracye, u* gainean gehitua. || *da*:
gainean gehitua. 64 *saites*: atzean tatxoi bat dago, irakurrezina. **244** 91 *da*: gainean gehitua. || *bada*: jat.
badada. 94 *ygueraytten*: *ytt* orren azpian zerbait irakurrezin dago. **245** 102 *es eguiusu*: leh. *es eguisu, u*
gainean gehitua. 107 *da*: gainean gehitua. **246** 113 *dan*: gainean gehitua. 115 *eta*: jat. *etan*. 118 *judiyoa*:
gainean gehitua. **247** 128 *esperanza*: leh. *esperan, za* gainean gehitua. 131 *arimeen*: leh. *arimen, e*
gainean gehitua. 132 *acabadu*: jat. *acabada*. || *arguiyeen*: y azpian zerbait irakurrezin dago. **249** 145 *ona*:
gainean gehitua. || *Jangoicoac*: leh. *Jangoicoa, c* gainean gehitua.

<251>

Sacramento bautismuoen expliqueciñoa

Lelengoa saspi sacramentoetan da bautismue. Setaraco da sacramento bautismuoa? Quensaiteco pecatu originela eta osteransecu edosein bautizeduiten danac euqui leiyena. Ser da bautismue? Da jaiyesa espiritual bat, seinetan emaiten dan
5 gracyen iseite espirituala eta christiñeuen señaleara. Selan eiten da sacramentoau? Esarriric ure bautizeduiten danen ganera eta dempora beratan esanic: “nic bautizetan satudes Aiteen da Semeen eta Espiritu Santuen usenean.” Bautismue da sacramento gustitan bearrena. Instituidu eben Jesuchristoc resucitedu asquero, esan eusenean bere discipuluei yoan litesala munduti prediquetan evangeliyoa eta bere doctrinea errecibitan
10 eudenac bautizedu leguiyesala “Aiteen da Semeen da Espiritu Santuen usenean”, seinsuc direan berba Eleseac usetan ditusenac. Ecusi deigun se provechu edo efecto emaiten daben sacramento onec: Da lelengo vere efectoa libretea arimac demoniñoen cautiveriureanic, gueratuitea reconciliyeuric Jangoicoagas, vere seme eta Ceruco herederu eguinic. Ara se mesede andiye Jangoicoari sor deusegune: Jangoicoac eguin
15 deuscusen beneficiyo gustiyen artean <252> andiyeena, diño San Gregorio Nazianzenoc. Da bautismue, diño Apostoluic, argui celestial bat, resplandore dibinu bet nondi sarsaiten direan ariman fedea, esperansea eta caridedea; seinsuc eguiten gatusen santuen lagunec, fedea eta caridedeac unitan gatuselaco eurecas. A! Diche andiye christiñeuen! Eta noreanic (preguntetan dot) etorri yacu adinebeste ondasun? Acaso
20 bautizedu beño len gueunquesan mereciminturen basuc logretaco adinebeste mesede? Ara ser diñoean San Pabloc: *non ex operibus iustitiæ quæ fecimus nos, sed secundum suam misericordiam salbos nos fecit &a.* Estogu logretan adinebeste diche gueure obrac gaitic, segaitic isenic bautismue beño leen seme madariquetuec, se obra on eguin gueunquean merecitaco? Logradu badogu adinebeste diche da Jangoicoen misericordiye
25 andiyec gure ysen ebelaco. Seineri sor deusegun au beneficiyo andiyeu, consideradu eguisu ondo christiñeue; eta veguiretu eguisu, diño San Juanec, au beneficiyoau. Ara se caridede andiye Jangoicoena: bada, gure isen eben gure aite Jangoicoac euqui guenguila vere semeen usena eta isen guinteala vere semeac enrealidad: *videte, qualem charitatem*

28-4 jaiyesa: ‘jaiotza’, (cf. 2-17 *yaiyesea*), hitz hasierako <j>z, ik. 5-3 *jasi* (cf. § 4.2.1.3). **28-10** bautizedu leguiyesala: ‘bataiatu zitzatela’, zehar estiloko *l-* aurritziaz (cf. § 4.2.3.5). **28-15** San Gregorio Nazianzenoc: IV. mendeko artzapezpikua, Elizako doktorea.

28. *Sacramento bautismucoen expliqueciñoa*

dedit nobis pater ut Filij Dei nominemur et simus. Veguiretu eguisu ondo vere amore
30 infinitue: bautismuegas eguin guendus en vere semeac emonic iseite bat gustiye <253>
barriye, iseite bat espirituala gustiye soberanue. Jangoicoena es guichigo Espiritu
Santue beño, Apostoluec esan eben legues: *membra vestra templum sunt Spiritus Sancti*
'suen miembruic edo elesaco miembruic (esan eusen corintocoay) dire Espiritu Santuen
temploac.' Eta guc (neure christiñeuec), selan corresponditan deusegu gueure aite
35 Jangoico adinebeste mesede eguin deuscuneri? Ceruco erregueac bautismuegas eguin
guendus en vere semeac. Erreguen semeai gueiyeten yate principeac; principeac bear
ditues euqui principea legues pensamintuic (esan eben legues Ysayasec: *Princeps ea*
quae sunt digna principe cogitabit). Principe batec baleuques lacayo baten pensamintuic,
seinsuc porlo[r]regular dire basuic, ser esango gueuque beragaitic? Se estimeciño
40 emongo leusquiyo bere aite erregueac ecusi balegui bere seme principea empleetan dala
errateriyetan, engañetan eta beste gause deunguetan? Bada, erdu ona christiñeue, isenic
su principea, seruco erreguen semea, bautismue recibiduric, selan empletan dosus seure
pensamintuic: errateriyetan, engañetan, tranpac eiten? Eta suc, selan empleetan dosu
seure biosori (emon eusune bera ametaco Jangoicoac) ametan desordenanseagas
45 munduco gausac? Ametan diñot, ori guisonori sein den sasescos costal bat eta suc ori
hembra vanigloriosori sein den vasu loiyes beteric <254> dagoana. Esta au vileza
andiye? Eta su sara guero christiñeue? Su principea, Ceruco herededue? Ea, edo echi
orrei biciyoi edo echi principian usen orreri. Neciyoa danac estau euqui bear principen
usenic, diño Ysayasec. Basara âen neciyoa seinde esteusegun echi gure seure ecandu
50 deungai, echi eguiyosu christiñeuen usen sagraduri sein estosun merecitan. Estosu
merecitan principen usenic, esara Ceruco erreguen semea espada sara Deabruen semea.
Bera da sure aite eta es Jangoicoa. Ya esara Jangoicoen semea espada Deabruena, verac
emongo deusu herenciye Ynfernucos llamea espadosu eiten penitenciye

Yminten yaco usena criyeturari bautizetan danean errazoa bigaiti: bata da euqui
55 daguinsat bere abogaduset eta bestea da imitedu daguisensat bere virtuteac. Esan
eguidesu orain christiñeue, selan yoasu seure useneco santuigas? Dauquesu devociñoa?

28-39 *porlo[r]regular*: 'normalean' (gazt. *por lo regular*). || *gueuque*: berez *n* beharko lukeen adizkia (cf. 4-27, 28-72, 29-84...) gabe ageri zaigu (ik. baita 38-80 *Eseuque*); dirudienez adizkietako *n* hauek bilakabide bereziak dituzte hizkeran (aurkako egoeraz, ik. 4-120 *eunquesan* eta 7-43 *deingunset*). **28-43** *errateriyetan, engañetan, tranpac eiten*: 'ebasketetan, engainatzen, tanpak egiten', forma aldetik berdintsuak diren arren bi motatako hitzak ditugu oinarrian: izena inesibo pluralean eta aditz-izenak. **28-45** *sasescos costal bat*: 'simaurrezko saku bat'. **28-48** *principian*: 'printzearen' -an genitiboaz (5-58 *hamairu urtean buruin* edo 23-37 *profetean*; cf. § 4.2.2.3). **28-54** *bigaiti*: hau bezalako -k gabeko motibatibo atzikia 6 adibideetan baino ez dugu aurkitzen sermoitegi osoan zehar ik. § 4.2.2.2.

28. Sacramento bautismu coen expliqueciño ea

Encomendetan sara beragana egun gustitan? Vere egunean confesadu eta comulgueduric? Imitetan dosus vere virtuteac: humildedea, pacenciye, caridedea eta beste virtute seure useneco santuec euqui ebesanac? Alan eiten badosu soas ondo, 60 yoango yasu ondo seure santuigas, asistiduco deusu eta favoreciduco satus seure necesidede eta trabajuitan, especialmente eriosaco orduin; baye espadosu alan eguiten, apenas urte gustin acordetan basara, ser <255> aprovechaduco deusu euquitea aen usen santue? San Agustinec diño: *Quid tibi prodest vocari quod non es et nomem tibi usurpare alienum?* Ser aprovechetan deusu euquitea usena Francisco, espadosu 65 procuretan imitetea humildedean Jangoicoagasco eta proximuigasco amorean? Ser aprovechaduco deuso besteari euquitea usena Juan, imitedu bearrean castidedean bada deshonestua vere pensamintu, verba edo obracas? Ser ymportetan dau euquitea usena Mariye, imitedu bearrean humildedean eta beste virtutetan vasari vanigloriosa, soberviye, vengative, errencorosea. Ha christiñeuec, se deunguero corresponditan dogun 70 bautismuen artu guenduen obliqueciñoera imitetaco gueure useneco santuen virtuteac! Bada, gueure useneco santuen virtuteac imitedu baguenguis beste modutecoac isengo lisateques gure ecanduic eta selan obeto experimentaduco gueunques euren favoreac. Segaitic pensetan dosu, christiñeuec, favorecidu ebela eta consoladu ascotan eta especialmente eriosaco orduin San Pedro apostoluic San Pedro Nolasco gloriosoa. 75 Bada, san consideraduric euquen usena isen salaco Apostolu glorioso onen devotoa eta imitedu ebesalaco vere virtuteac, especialmente Jangoicoagasco amorea eta proximuigascoa. Alan baguengui guc, siguidu <256> baguenguiye euren virtuteai, edosein bere necesidede eta trabajuitan euquico gueunque amparue euretaric. Goasan acabetara doctrinau, neure christiñeu maiteac, supliquetan deusudela neure vios gustigas 80 euqui deguisuela beti presente Jangoicoac eguin eusun mesede andiye christiñeue eiteagas. Considera eguisue esaten dosule seure artean: “Ni jayio banins ynfielen artean edo heregeen artean, ser isengo lisateque nigues? Ysengo ninsen eurec legues eta galduco ninsateque seculco eurec legues; bautizedu beño leenago il banins, se bide eroango eben nire arimeac? Ongon ninsen orain limboan veste sei desgraciduicas

28-68 *vasari*: ‘bazara’, akatsa izan daiteke, bestela ezin dugu azaldu zergatik ageri duen amaieran –i ; oro har, *sara* (22 adib.) eta *sare* (8 adib.) dakar sermoitegiak. **28-74** *San Pedro Nolasco*: XIII. mendeko fraide bartzelonarra, Mercedarioen fundatzailea. **28-77** *baguengui*: ‘egin bagenu’, *egin* aditz trinkoa. **28-78** *goasan acabetara doctrinau*: Mugimenduzko aditzekin menpeko aditz-izena inesiboan agertu ohi da mendebaldean, Sermoitegian ohitura bera jarraitzen da oro har, baina zenbait kasutan adlatiboaz lagunduta ditugu, hemen bezala (§ 4.2.4.8). **28-84** *sei desgraciduicas*: ‘haur dohakabeekin’, ik. 3-7 *sei*.

28. *Sacramento bautismuoen expliqueciñoea*

85 condenaduric seculeco es ecusteco Jangoicoa iños. Eta posible da nic mereciu bagaric eguitea, Jangoicoac eguitea christiñeu bautismuigas, bere seme Ceruco herederue; eta ni isengo ninsateque yngratoa adinebeste on eguin deusten Jangoicoagas eta galduco neuque adinebeste diche pecatu mortal baten gustu sitelagaitic? Es ori, leenago bisisea emon Jangoicoa ofendidu beño, leenago il Ceruco herenciye galdu beño, leenago il
90 ofendidu beño Jangoico aen ona eta liberala. Alan proponitan dot, neure pecatuen damu andigas, es gueiyego ofensaric eiteco Jangoicoen graciyeegas batera.”

Contetan dau San Antonino de <257> Florenciac: erreguiñe christiana bat, egonic esconduric gentil betegas sein sen erreguea, concebido eben erregue oneganic, eta bere demporan eguin eben seme bat aen balsa eta feoa se sirudin animeli bat.
95 Erregueac, ecusiric âen criyiture feoa eta monstrue, eguinic juiciyoa, erreguiñec eguin eben adulteriyoa, condenadu eben erreguiñea eriosa afrenta andicora; bada, pensetan eben erregueac esala legitimue â criyiture feoa. Erreguiñeac, ecusi[ric] bere burue condenaduric eriosara erru bagaric, eguiten eben negar bere desgraciyegeaitic eta bere semeenagaitic. Egonic ya eriosea ygueraiteco escatusen mesedesat erregueari bere
100 consuelureco bautizedu sila â criyiturea. Permitidu eben erregueac, bautizedu euden eta lo mismo isen san esarte bautismu santuco ure, se berlan quendu yecan â feotasune criyitureari, eta ecusi sen sei eder bat gustiyen aurrean. Admireduric gueratu sen erreguea eta gente gustiye. Gustiyec esan euden es euquela erruric erreguiñec eta libredu sen eriosareanic, eta aric aurrera erreguea eta genteac euqui euden estimeciño
105 andigoan. Bada, conociduis ostein bere inocenciye eta virtutea, confesadu euden vere leguea sala eguiyescoa, eta alan erreguea eta beste grande asco bolvidu sirean Jangoicoagana, escatu euden bautismue eta eguin sirean christiñeu. Onegas eta <258> veste milegro ascogas eracusi deu Jangoicoac bautismu santuen excelenciye, eta entenditan emon deuscu claru beneficiyo andiye christiñeuei eguin deuscune
110 admitiduric bautismure. Jangoicoac mantenidu gagueisela lelengo gracyan galdu espasan, eta galdu basan asistidu daigule logretaco penitenciye eguiyescoagas. Amen.

28-86 *eguitea, Jangoicoac eguitea*: aposizio legez puntuatu dugu, baina agian lehenengo *eguitea* akatsa dateke; hau idatzi eta ondoren zuzendu nahi izan zuen *Jangoicoac eguitea* idatziz, baina aurrekoa borraratu gabe geratu zen. **28-94** *sirudin*: ‘idurtzen zuen’, *irudi* aditzaren trinkoa. **28-95** *eguinic juiciyoa, erreguiñec eguin eben adulteriyoa*: menpeko esaldiaren aditza dirudien *egin eben* menpekotasun partikula falta du (*ebela*), beraz zerrenda batean aposizioan dagoela suposatu dugu; hala ere, ezin dugu saihestu akatsa izan daitekeela berago den *eben* horrek eraginda nonbait. **28-97** *ecusi[ric]*: lerro amaieran *ecusi-*uzten du, jarraitzeko marraz, baina ez du hori egiten hurrengo lerroan. **28-99** *escatusen*: ‘escatu eusen’; aditz uzkurdua (cf. § 4.2.3.11) zein haplografia ere izan daiteke, halako uzkurduraren adibide bakarria delarik. **28-101** *feotasune*: ‘itsustasuna’ (cf. § 4.3.2.2).

28. Sacramento bautismuoen expliqueciñoa

251 5 *iseite*: leh. *iseitea*, amaierako *a* tatxaturik. **252** 28 *semeen*: leh. *semen*, *e* ganean gehitua. **253** 31 *guichigo*: leh. *guichi*, *go* ganean gehitua. 44 *eusune*: bigarren *u* ganean gehitua, azpian tatxoi bat duelarik. 45 *seinden*: ganean gehitua. **255** 67 *dau*: ganean gehitua. 70 *dogun*: ganean gehitua. **256** 80 *eguin*: leh. *egui*, *n* ganean gehitua. 82 *ninsen*: ganean gehitua. **257** 105 *euden*: ganean gehitua. 107 *christiñeu*: leh. *christiñeue*, amaierako *e* tatxaturik.

<259>

Bautismu solemneco ceremoniyac

Bautismu solemneco ceremoniyac, Eleseac usetan ditusenac, dire gustis maravillosoac. Gause bi signifiquetan daude gustiyec: bata da ser obretan daben Espiritu Santuic ariman eta bestea ser gagosan gueu obligueduric executetan ceremoniñen
5 signifiqueciños conforme.

Preguntetan dot, segaitic eiten deuso sacerdoteac curseen señalea seineri becoquiyen bautizedu beño leenago? Ese dinsat losatu christiñeu iseiteagas eta Jesuchristoen cursean euqui deguinsat gloriye. Eta segaitic bulerrean? Entendidu deguiensat bear daudela amadu cursea eta imini confiansa gustiye Christo
10 crucifiqueduigan. Eta segaitic beste curse gustiyec eiten direanac? Entenditan emaiteco bautismuic dauquela bere inderra gustiye Jesuchristoen curserean eta bere pasiñeco merecimintuitaric. Segaitic iminten deuso sacerdoteac gas bedeinquetue aoan? Signifiquetaco Ceruco gauseen sabiduriye eta gustue euqui bear daudena bautizeduic. Segaitic iminten deuse chue belarritan eta surrean? Belarritan, euqui deguisensat
15 idiguiric ensuteco Jangoicoen verbea, sermoea, doctrinac; eta surrean percibidu daguinsat gause sagradu eta santuen <260> usei eta suavidede celestiala. Setara obliguetan gatus bautismuic? Satanasen pompa eta obrac renunciyetara. Seinsuc dire Satanasen pompa eta obrac? Munduco vanidede eta pecatuic. Segaitic ungitan ditus sacerdoteac oleoagas eta chrismeagas? Entendidu daguiyensat bear daudela bisi
20 christiñeu eguiyescoa legues eta es turcoa legues. Eta segaitic iminten deuso buruen misa edo estalgui suriye? Conservadu leguinsat suritasune ariman, gorderic graciye bautismucoa. Ser signifiquetan dau candela eresegui emaiten deusenac? Yru virtute theologalac infunditan yacasanac ariman. Seinsuc dire onec? Fedea, Esperansea eta Caridedea. Setan signifiquetan da fedea? Candeleen arguin. Eta Esperansea? Cerurensa
25 igoitzen daben lllaman. Eta Caridedea? Llameen beroan. Setaraco iminten deuse seiñeri

29-12 gas: ‘gatz’. **29-14** chue: (cf. 4-17) ‘txistua, tua’. || *surrean*: ‘sudurrean’, mendebaldeko aldaera espero legez (*OEH*, s.v. *sudur*). *oleoagas eta chrismeagas*: ‘olioarekin eta balsamuarekin’, bi elementu hauek dira krisma osatzen dutenak. **29-21** misa: ‘mihise’, Bizkaiko aldaera *miesa* ei da (*OEH*, s.v. *mihise*), baina sermoitegian diptongo barik dugu, Goi-Nafarrera eta Gipuzkoako *mise* eta *misa* aldaerekin bat. **29-24** *Cerurensa*: ‘Zerurantzza’, -*rantx* bat kendurik, adlatibo honen adibide guztiak hau bezalako – *rantza* forma dute (cf. § 4.2.2.5).

29. *Bautismo solemneko ceremoniyac*

candelea escuin? entendidu daguinsat bear deusela lagundu obra onac fedeari, esperanzeari eta caridedeari.

Bautismuco ceremoniñe gustitan dagos misteriyo andic eta doctrinea, baye
guerorengo candela eresequiua, iminten deusena sacerdoteac escuin bautizeduiri, da
30 doctrina andicoa â candeleen ârguiyen, esan dodan legues, dago fedeen <261>
signifiquensea seinec argui eguiten deuscu candelen modure ecusteco gause
espiritualac. Llanan, seinec emaiten daben movimintu artesa cerurena, dago
esperanseen signifiquensea seinegas bear dogun beti beguiretu cerure esperetan dogule
Jangoicoaganc bere graciye eta gloriye. Llameen beroan dago carideden veroen
35 signifiquensea edo caridedea, Jangoicoen amorea eta proximuena. Onec iru virtute onec
infunditan deuscu Jangoicoac bautismuin eta dauquegu obligueciñoa exercitetaco obra
onetan. Bada, entendidu daigunset bear deusela lagundu obra onac iru virtute onei,
iminten deuscue escuin candela eresequiye segaitic fedea obra onac bagaric dago ilic.
Se doctrinea irecasten deuscun candeleac! Vere arguigas diraoscu gueure fedeen arguic
40 bear dabela isen visiyec; vere llameagas, seinec ygoiten daben goransa, irecasten deuscu
gueure esperanseac bear dabela beti beguiretu goransa, beti Jangoicoagana; eta bere
llameen veroagas prediquetan deuscu gueure caridedeac veur dabela isen fervorosoac,
bear dogule amadu bios gustirean â Jaun Dibinu gueu infinitamente ametan gatusena.
Eta amoreen pruebea direalaco obrac, esan <262> doean legues “obrac dire amorea eta
45 es verba ederrac,” iminten deuscue candelea escuin fedeari, esperanseari eta caridedeari
lagundu daquiusansat obra onac, seinsuen signifiquensea dago escuitan. Onec
candelaonec seinsuc imini euscuesan escuitan bautismuin bear dogus euqui eresequiric
gueure bisi gustiyen, *sint lumbi vestri præcin[c]ti, et lucernæ ardentes in manibus
vestris*, diraoscu evangelioac. Eta selan dago candela ori, visiric ala ilic? Esango
50 deustesu dagoala visiric dauquesuleco fede visiye: ojala balis alan, isen bidi sure fedea
visiye sarealaco christiñeu eta es heregea, moroa, judiyoa; baye beguiretu bear dosu
candela orrec bear dabela euqui es bacarric fedeen arguiye baite bere caridedeen veroa.
Selan dago caridede ori, Jangoicoen amorea eta proximuena? Ser estaduten dago seure
arimaori, gracyan ala pecatuin? Pecatuin aurquituiten bada amatadu sen candelea, ya

29-29 *guerorengo*: ‘azken’, ik. 7-8 *guerorengo*. **29-44** *obrac dire amorea eta es verba ederrac*: cf. J. Manterolac XIX. mendean erdal erretra ezagunari egindako itzulpena: *Obrak dirade amore ez itz onen kolore*. **29-46** *lagundu daquiusansat*: ‘lagun dakizkion’, *io* > *iu* aldaketarekin (ik. 2-59 *aguirtu equiunean* 5-25 *gustiuc* edo 7-164 *biutaric*; cf. § 4.2.1.7) eta subjuntibo finalen *-tzat* atzizkiarekin (ik. 2-24 *eroan leguinsat*; cf. § 4.2.3.8). **29-50** *ojala*: Mounolek XVIII. mendean *oxala* partikula aipatzen du desira esaldiak markatzeko (Mounole 2011: 218); gurean badirudi hau erdaratik harturiko mailegu berria dela, [x] hotsarekin mailegaturik baitago (zaharra izatekotan <*osala*> behar zitekeen; cf. § 4.2.4.7).

55 estago carideden beroric. Â seinbet bider amatau isengo da candelaori pecatuigas egon
 bear ebenac beti eresiguiric! Orain esta facil yaquitea *delicta quis intelligit*. Noc esautu
 al leiques orain guison baten pecatuic, guison deungueenac, andra vana soberviyeenac?
 Orain esta facil, baye ecusico dire egunean baten. Eta baquisu nos? <263> Ileitorduin,
 imini daguisuenean candela ereseguiye ostera escuitan. An! An ecusico dosus candeleen
 60 arguiyen seure visi gustico obrac. Ha christiñeuec! Candela eresegui bet iminten
 deuscue bautismuen eta beste bat iminico deuscue ileitorduin. Se argui bi onec, bat
 jaiyesaco demporan eta beste bat eriosacoan! Arguiyaagas bautismuin eracusten
 deuscus fedecac Jangoicoen ondasun gustiyec: veragas dacusgu preveniduric graciye
 sacramentoen mediyos, veragas dacusgus idiguiric Ceruco atecac vera servitan
 65 daudenensat eta Ynfernucoac vera Jangoicoa ofenditan daudenensat. Au gustiyeu eta
 gueiyego dacusgu bautismuco candeleen arguigas; bada, gustiye ecusten da fedecac.
 Eta yleitorduco candeleagas ser ecusico dogu? Â se gause yqueragarriscoac ecusico dire
 orduin: an ecusico dogus galdu guendusela adinebeste argui; adinebeste argui,
 adinebeste inspiraciño, ainbeste ocasiño obra onac eiteco. An ecusico dogu ainbeste
 70 dempora deunguero empleadue danzetan, comediyetan, murmureciñoetan, verba
 deshonestuitan &a. An ecusico dogus sacrilegiyoac eguin sendusenac deunguero
 confesaduric eta comulgueduric. <264> Suc, deshonestue, an ecusico dosus eguin
 sendusen pecatu loiyec. Eta suc, andra deshonestea, ser ecusico dosu? An ecusico dosus
 seure piquerdiyac, gustu loyyec, seure soratasunec eta maldadeac. Enfin, ecusico dosus
 75 an (espadosu eiten penitenciye eguiyescoa) Ceruco atecac isiric eta Ynfernucoac
 idiguiric. Â se ecuscarri yqueragarriscoa! Jangoicoa ese daguila permitidu ecustea
 alango yqueragarrisco gauseric ileitorduco candeleen arguin! Bada, neure christiñeu
 maiteac, es ecusteco alango yqueragarriric ese daigun amatadu bautismuco candelea,
 euqui deigusen ereseguiric escuetan candelac: *et lucernæ ardentes in manibus vestris*.
 80 Ea, pecadorea, orain badauquesu amatauric porsiacaso pecatuegas, eresegui eguiyosu
 penitencyeco su sagraduigas, es eguisu echedon eriosaco ordure. Ara, orduin â candela

29-55 *amatau isengo da*: ‘itzalia izango da’, ik. 15-81 *juntedu isengo daudes*. **29-58** *egunean baten*: ‘egunen baten’, [-r]ean bat] egituraren (ik. 16-164 *demporeean baten*) -r- gabeko aldaera, hitza kontsonantez amaitzen baita (cf. § 4.2.2.1). || *ileitorduin*: aditza laguntzen duten beste partikula batzuk legez (ik. 4-118 *omaitarren*, 5-26 *ydiguitartiyo*...), -ordu ere aditzizenari loturik ageri da (-tordu < *-te ordu). **29-74** *piquerdiyac*: ‘lixunkeria, hitz ausarta’. || *soratasunec*: ‘zorotasunak’ (cf. 16-101 *sorotasun*), testuan zehar *sorotasun* eta *soratasun* adibide bana ditugu, biak XIX. mendetik lekukotuak (cf. § 4.3.2.2). **29-76** *ecuscarri*: ‘ikusgai, ikuskizun’, Larramendik esleituriko adiera dugu hau, andoaindarraren zeharkako eragin bat adieraziko lukeena (cf. § 4.3.2.2). **29-80** *porsiacaso*: ‘badaezpada ere’ (gazt. *por si acaso*). **29-81** *echedon*: ‘itxaron’, *OEH*-k ez dakarren aldaera dugu hemen (*OEH*, s.v. *itxaron*), baina mendebaldeko *itxedon* erakoekin lotura zukeen, e- partizipio aurrizki zaharrarekin.

29. *Bautismo solemneco ceremoniyac*

ereseguiye esta isengo sure visisea arguituiteco espada eracusteco se deunguero visi isen sarean. Ha Jaune, ecusi baguengui norsuc dagosan elesa onetan candela ereseguicas eta norsuc dauquen amatauric bautismucoa candelea! Ser ecusico gueunque! Bildur iseiteco
85 da, ecusico gueunquesalaco basuc candela amataduicas, au de pecatu mortalean.

Contetan dau Cardenal <265> Baronioc selan prediqueuric San Severinoc, Noruegaco lelengo apostoluic, genteai, euretaric asco, tercoac, resistitan sirean bere doctrinera egosalaco ydolatra asco christiñeuen artean. Euquiric santuic desea confirmetaco christiñeuec eta fortalecitaco fedean, eta convertitaco infielac, esautuiteco
90 eta distinguitaco aguindu eben juntedu liteala gustic elesan, alan christiñeuec sein ydolatrac, eta bacoachac ecarri leguila candela bat eta euqui leguila escuin amatauric. Juntedu siteanean gustic euren candelac escuin eudesala argui bagaric, obispo santuic belaunico yarriric, altareen aurreti erregutu eusen Jangoicoari modu onetan: “Jangoico eguiyescoa, emon eguiyesu onei seu esautuiteco arguiye eta eracusi eguiyesu selan
95 distinguitan direan seu eguiyegas, deveras, adoretan satuesanac euren gustuei siguitan deusenetaric eta Jangoico falsoac adoretan dituesanetaric.” Au esan eben instantean christiñeu eguiyescoac euquesan candela gustic escuin gueratu sitean ereseguiric, ecusi bagaric eta yaquin bagaric nondi eta selan etorri yaten llamea; baye infielenac eta christiñeue <266> deungueenac gueratu sitean amatauric eta argui bagaric. Au isen san
100 milegroa, se isen san bastante gustic bautizetaco, arsaiteco fedeen arguiye eta iseiteco christiñeue onac. Ha Jaun Dibinue! Ya orain estago milegroen adinebeste necesidede: emen gagos justeuric christiñeu onac eta deungac: ya esan deusedas obligueciñoē artu eudesanac bautismuin; ya esan deuset artu eudela santu edo santeen usena bautismuin imitetaco vere exemploa eta visisea eta es despreciyetaco. Christoen curseagas isen
105 sireala señaladuec eroateco viosean eta es ultrajetaco. Aoan imini yatela gasa ensun leguiyensat gustus Jangoicoen verbea, doctrinea, sermoea eta es escapetaco euretaric. Renunciyedu eudesala Satanasen obrac eta pompac isen sireala ungiduic oleoagas eta chrismeagas visi iseiteco christiñeue legues eta es turcoa legues. Emon eusela misa edo estalgui suriye gorde leguiyensat arimeco suritasune perseveraduric graciyan. Eta esan
35 enfermidadea: onec <333> bere accidenteacas, doloreacas, desmaiyuicas, calenturacas,
egonic gorpuse afligiduric iminico daude arimeac estutasunic andiyyentan eta agoniñan,
dificultede andigas orduin obra onic eiteco. Ecusi bisen estago se socorruen
neceside[de] andigas ongo dan. Au, bada, emaiten yacu sacramento onetan: emaiten dau
balorea pacenciyyegas eroateco doloreac, aplaquetan ditus ese ditesansat isen aen
40 fuerteac eta sensibleac. Eta onen señaile imini eben Christoc oriyoa sacramento
onetaraco, seinec dauquen virtutea confortetaco mienbru debilec eta aplaquetaco
doloreac. Eta au de escatuiten dabena Eleseac oleo santuen bendiciñoan: *ad
evacuandos omnes dolores et omnes infirmitates*. Eta alan, sacramento onec dauco
virtutea osatuiteco eta emaiteco osasune convenitan bada. Diñot, segaitic convenitan
45 espada esta isengo beneficiyoa logretea espada perjuiciyoa, eta Jangoicoac estauco
depositeuric bere sacramentoetan virtutea gueure gacheraco espada gueure oneraco.
Baye convenitan bayaco gorpuseco osasune bere arimeen oneraco eta berac espadau
iminten embarasureen bat; edo bere fede guichigues edo confianza falteagas edo
osteranseco bere errusco embarasureen bat, da gause segurue lograduco dabela osasune,

38-28 *aseracunseric*: ‘atzerapen’. **38-29** *gueiso*: ‘gaixotasun’ (cf. 2-56 *gasoensat*), forma aldetik ik. 38-5 *gueisoari*. **38-31** *mundue, demoniñoac eta araguiyec*: (ik. 33-70 *prediquedorea eta sacerdoteari* eta 37-113 *preparatan dana eta errecibitan dabenac*), juntagailuak biltzen dituen lehengo elementua absolutiboan dago; berez, besteak legez, ergatiboan beharko zukeena (*mundue[c]*). **38-34** *Aremen*: ‘hara hemen’, Bizkaiko tradizioan oso ezaguna den arren halako kontrakzioez, ezagutzen den kontrakzioa *aramen* da (dagoeneko Mikoletan dena) (*OEH*, s.v. *hara*). || *dagoenen*: erlatibozko atzizkiak lantzean behin –en formapean dugu, hedatze analogiaz nonbait (ik. 18-38 *doasenen*, cf. 16-8 *dagoanec* eta 22-75 *deudenac*). **38-37** *bisen*: ‘baizen’, cf. 10-115 *esan bat bisen*.

50 segun diñoean Santo Thomasec. Au eguiyeu dago ecusiric exemplo ascogas.
 Marcancioc contetan dau Roberto emperadoreac es ebela errecibidu gure
 extremaunciñoa, pensauric berlan <334> ilgo sala. Quendu eusen bildurreu esanic
 sacramento onec causetan ditusen efectoac. Errecibidu eben fede eta devociñoegas eta
 verlan yaigui sen sano y bueno. Esta egon bear aserengora beguire errecibitaco
 55 sacramento au, espada guesoac berac escatu, esautuiten dabenean ileiteco peligrue, bere
 conocimintuigas errecibitaco. Bada, aseratuitarren mentures ileiten dire errecibidu
 bagaric edo errecibitan badaude iseiten da sentidu bagaric dagosanean eta orregaitic
 ascotan estitues logretan sacramentoen efectoac.

Sacramento onec emaiten da[u] valorea eta fortalezea eriosaco orduen, pecatu
 60 vere visise iguerocoac eta demoniñoac emaiten deusenean guerrea, victoriyes urteiteco.
 Satorragaitic diño naturelac visi dela lurren pean isuturic, beguic isiric eta ileitordu
 idiguiten ditusela. Alan suceditan yate pecadoreai: gustiyec dauque begui bi, bat
 errazoena eta bestea fedeena, biyocas bear leuque euren salbaciñoeco gausetara
 beguiretu baye bisi dire isuturic munduco gausetan eta gustuitan. Ileitordure artean
 65 dauques isiric begui onec eta eriosaco orduin euren concenciyec idiguieraiten deuses
 porfuerza ecusieraiteco se isuturic eta engañaduric visi sen mundu onetan. Orduin
 bacochari bere concenciyec eracusico deuses mundu onetan eguin ebesan ofensac
 Jangoicoen contra, eguin ebesan <335> maldiciñoac, jurementoac, gorretoac &a. Â se
 guerra andiye emongo deusoen pecatu seure visise deunguecoac orduin! Selan
 70 yqueratuco satuesan! Orduin bai esango dosule David erregueac legues: *torrentes
 iniquitatis conturbaverunt me*. Ai nire tristea, seinbet pecatu eguin dodan neure visise
 gustin! Ete dauquedasan ondo confesaduric bear dan damuigas eta proposituigas! Ser
 ete isengo dan nire arimeagas? Nora ete yoango dan nire arimea seinec laster urtengo
 daben gorpuz onetanic? Onan, sispuru eta negar eguingo dosu orduin. San Francisco

38-51 *Marcancioc*: Jacobus Marchantio edo Jacques Marchant XVII. mendeko idazlea belga. **38-54** *yaigui*: ‘jaiki’, ik. 21-8 *yaiguiten*. || *sano y bueno*: (cf. 33-91 *ello*), badirudi itzultzerakoan itzuri zaiola sintagma hau erdaraz. || *aserengora beguire*: ‘amaierara zain’ (cf. *OEH*, s.v. *begira* 2). **38-61** *naturelac*: ‘naturalista’ (gazt. *natural*). || *lurren pean*: sintagma nominalaren atzean (genitiboaz zein gabe) eta konposizioan, oso hedaturik dago *pe-*: gipuzkoar, nafar (goi- eta behe-) eta lapurtar egileetan; bizkaian, berriz, hasierako testuetatik *be-* erabiltzen den arren, sermoitegian bezala *pe-* darabilte Añibarrok eta Zabalak (cf. *OEH*, s.v. *behe*). **38-62** *gustiyec dauque begui bi*: komunztadura plurala betetzen ez duen esaldia; sermoitegian oro har komunztatzen da, baina hemen legez *bi* hitzarekin hautazkoa da (cf. § 4.2.4.2). **38-68** *gorretoac*: ‘gorrotoak’, ik. 4-114 *gorretos*. **38-69** *deusoen*: adibide arraroa, oro har 3. pertsona singulararen datiboan *o / a* txandakatzea ondo gordetzen baita: azalbidea dateke hasiera batean *deuso* idatzi zuela eta beranduago *-en* gehitu ziola, aurreko *-o* ezabatu gabe nonbait. **38-73** *ete isengo dan*: (cf. ondoko *ete yoango dan*), *ote* partikularen kokagune berezia du, aditz laguntzailearen aurretik beharrean (cf. *OEH*, s.v. *ote*) aditz perifrasi guztiaren aurretik baitarabil. **38-74** *onan*: ‘honan, honela’. *San Francisco Xavierrec*: XVI. mendeko josulaguna.

75 Xavierrec diño gause especial bat observadu ebela asistitan eusenean ileitorduin:
pecadore confianza lar imini eudenac Jangoicoen misericordiyen visiseco demporan
eriosaco orduin sireala esperanzaric guichien euquiteudenac, segaitic euren pecatuic
yminten ditues desconfianzaric andiyeenean despreciyedu eudela Jangoicoen bondadea
visisan. Ser emongo seuque orduin euquitarren noc socorridu eta asistidu estutasun
80 andiyatan. Eseuque estimeduco orduin euquitea socorru andi bet eta asistenciye
peligruatan. Bada, au de socorru dauquena Jesuchristoc depositeuric extremaunciñoeco
sacramentoan emaiteco valorea, fortalezea, arimeari eriosaco aflicciñoean. Eta esin
confesadu balis eta es comulguedu, suceditan dan legues ascotan accidente
derrepentecoetan, sacramento onegas eta atriciñoeco damuigas parcatuiten yacas
85 pecatuic gustic. Aude diche andiye. <336> Bada, enmendatuiten dau beste
sacramentoen faltea: sacramento onec parquetan ditus pecatu venialac gustic euren
damue dauquenari, eta aen moduten garbitan dau arimea se iminten dau gueroren
disposiciñoean yoateco Cerure. Alan diño San Thomas de Aquino: *Yn extrema unctione
preparatur homo ut recipiat immediate gloriam* ‘extremaunciñoean disponitan da
90 personea berlan errecibitaco gloriye.’

Sacramento onec parcatuiten ditus parte edo gustis pecatuen pena temporal, selan da disposiciñoa errecibitan dabenena. Desuerteque, padeciuco beben ôguei urteco purguetoriyoa il asquero confesauric eta comulgueduric extremaunciñoec bagaric, errecibiuric extremaunciñoec Jangoicoen borondaten conformidede andigas erloju beten bere deteniur bagaric yoatea Cerure logradu leique.

San Juan de Diosen visisan contetan da: euquen padre caritativu Granadaco hospitelean peligruco gaso bat, gure eben administreu lequiula uncciñoa. Esan eusen gueisoari baye au ygnoranteen bildurregas afligidu sen entero eta erregutu eusen padreari lusetu leguila administretear unciñoa. Es tristetuitarren aseratu sen eta urten

38-76 *lar*: ‘gehiegi’. **38-77** *euquiteudenac*: ‘eukitzen zutenak’, aditz uzkurduraz. **38-80** *Eseuque*: ‘ez zenuke’, berez *n* beharko lukeen adizkia (cf. 12-93, 16-14, 16-161...) gabe ageri zaigu (ik. baita 28-39 *gueuque*); dirudienez adizkietako *n* hauek bilakabide bereziak dituzte hizkeran (aurkako egoeraz, ik. 4-120 *eunquesan* eta 7-43 *deingunset*). **38-87** *aen moduten...se*: ‘hain modutan...ze, halako eran...non’. || *gueroren*: ‘azken?’, badirudi *gerorengo* (7 aldiz duguna sermoitegian cf. 7-8 *Guerorengo* eta 29-29 *guerorengo*) formaren aldaera dela, inon lekukotu gabea (cf. *OEH*, s.vv. *gero*, *gerorengo*), agian akatsa izan daitekeena: *gueroren[go]*. **38-88** *San Thomas*: *Tomas* izenaren aurrekaria *Santo* izan ohi delarik ere, euskaraz *San Tomas* eratako formak dira gehien erabiltzen direnak (cf. 23-68 *Santo Thomasec* eta 24-133 *San Thomas de Villanuebac*). **38-92** *Desuerteque*: ‘hortaz, -en ondorioz’ (gazt. *de suerte que*) (cf. 3-28 *Desuerte se*). || *padeciuco beben*: geroaldiko baldintzan laguntzailea orainaldian legoke (*padeciduko badau*), baina honetan lehenaldian genuke; alabaina, badirudi esaldi kontzeziboa adierazi nahi duela. **38-94** *erloju beten*: ‘ordu batean’, cf. 16-139 *erloju* (ik. Lakarra 1983a: 63). **38-96** *San Juan de Diosen*: XVI. mendeko santu portugaldarra, *San Juan de Dios hospitale* ordenaren fundatzailea. || *caritativu*: mugagabeen ageri zaigu subjeto iragankor hau.

100 eben santuic escatuiten limosnea erriti, eta bolviu sineco il sen gueisoa extremaunciñoa
 bagaric aunque beste sacramentoac errecibidu ebesan. Yarri sen bere fraileacas
 amortajetan eta derrepente alsadu sin, yarri sin santuen aurreti eta aituiten eusela
 atenciño <337> andigas, esan eusen: “Â pobreen aite! Yaquin begui se euqui nenduin
 aseracunseagaitic errecibitaco unciñoa, padeciuco dot oguei urteco purguetoriyoa.” Au
 105 esan eben eta berlan leen legues gueratu sen difuntu. Ara, oguei urteco purguetoriyoa es
 errecibitarren extremaunciñoa!

Andiye isengo bada guerra pecatu eguin ebesanac bere bisin emongo deusena
 ileiten dagoanari, esta chiquirregoa isengo demoniñoac emongo deusen guerra. Baye
 Jaun Dibinuic, seinec echiuscun socorrue pecatuen contracoa sacramento
 110 extremaunciñoecoan, beronetan echi eigusen arma poderosoac defenditaco gueure
 areriyo demoniñoaganic eriosaco orduin, seinetan eiten daben guerraric andiyena
 yaquinic dauquela dempora guichi tentetaco. Alan advertitan deuscu Espiritu Santuic,
sciens quia modicum tempus habet. Orduin furiye andigas tentetan dau demoniñoac
 ileiten dagoan tristea, yaquinic ataric escapetan bayaco, galsaiten dabela seculaco
 115 tentetaco demporea. Es pensadu bat bacarric isengo dala, gustis asco isengo dire
 demoniñoac orduin tentetaco. San Cirilo obispoac, San Agustineri escrividu eusen
 cartan seinetan emaiten eusen noticiye San Geronimoen merituic gaitic erresucitedu
 sirean difuntu besuina, diraoso se verba eguinic euretarico bategas, ensun eusesala
 verbaonec: “ni nengoanean ileiten aguirtu sitean camaran barruin non nengoan
 120 gueisoric, adinebeste demoniño se esin iñoc numeradu euquesan, *præ multitudine*
omnino dinumerari non possent.” Eta siñoela <338> bacoachac artu ebela figure
 iqueragarriscoa, eta arcalaguegas peleetan eudela seinec yausieraingo eusen
 desesperaciñoeco pecatuin, eroateco Ynfernure. Ser derechasu christiñeue? Langosta
 manada batec destruiduiten baditus soloac eta aun basoac, ser eingo daude arime triste
 125 bategas adinebeste Demoniñoa, eta aen cruelac eta astutoac? Esterechasu euquico
 dogule orduin arma poderosoen necesidedea vencitaco euren astuciye ynfernala? Bai
 por cierto. Bada, ser arma obagoric sacramento soberanu onenac beño? Estosu topaduco

38-103 *Yaquin begui*: ‘jakin beza’, adizki jusiboa. **38-109** *echiuscun*: ‘itxi euskun, utzi zigun’, aditz uzkurdura dugu hemen (cf. § 4.2.3.11). **38-110** *echi eigusen*: ‘utzi zizkigun’, aoristo perifrasi. **38-116** *San Cirilo*: garai bertuko bi sartuei egin diezaioke erreferentzia San Cirilo Alejandriakoa edo San Cirilo Jerusalemekoa, biak IV. mendeko idazle. **38-122** *arcalaguegas*: ‘elkarrekin’, *arkalagegaz* edo *arkalaguegaz* irakur daiteke, baina ez batera ez bestera ezin izan diogu tarteko -*gue*-ri azalpenik emanenahiz *arcalegas* formarekin nahikoa bailitzateke. **38-125** *Demoniñoa*: mugagabea eskatzen du *adinebeste*-k (cf. *OEH*, s.v. *hainbeste*), baina bere horretan utzi dugu agian *Demoniño* izen berezizat hartzen duelako (cf. 2-53 *Jesuse* eta 31-49 *Epuloa*); dena dela, ikusita pluralean ari dela idazlea (*cruelac*, *astutoac*) posibleago dateke akatsa legez ikustea eta *Demoniñoc* zuzentzea.

38. *Bostcarren sacramentoa da Extremaunciñoa*

obagoric. Bada, sacramento onen virtutes emaiten deuso Jangoicoac arimeari fortalezea, emaiten deuselaco â graciye especiala, eta veiar dabena venticaco eta despreciyetaco
130 Deabruen astuciye, diñoean legues San Thomas de Aquinoc. Eta isen arren asco demoniñoac, orduatan guerra eiteco, gueiyego isengo dire angueruec eta santuec, errecibidu asquero ondo sacramento au, defendiduco daudenac arime tristea orduatan, eta dan legues andigoa Jangoicoac emaiten deusen poderiyoa bere santuei eta angueruei gueuri asistitaco seinde permititan deusena Demoniñoai gueure galsaiyeraco. Gause
135 ciertue da, onec emongo deuscune valore andiye eta esperanza firmea victoriyegas urteiteco estucunseatan. Eta au gustiyeu sor deusegu Jangoicoari seinek Jesuchristogaitic echi euscun orduataraco socorru aen excelentea. Emon dayogusen graciyac Jangoicoari eta bere Seme Unigenitoari emaiten deuscun esperanzeagaitic logretaco victoriye sacramento <339> onen mediyos. Baye moduric onena graciyac
140 emaiteco da veneretea bere usen santue, es ofenditea jurementoacas, maldicinoeacas &a. Alabadu vere usen santue verba, acciñoe eta obracas, errecibiduric sarri disposiciñoe onagas sacramento comuninoecoa eta confesiñoecoa, eta escatu egunean-egunean emon daigule graciye vere demporan errecibitaco sacramentoau sein den extremaunciñoecoa, logretaco bere efectoac; alan lograduric, eguiteco eriosa on bat,
145 alcanzetaco eternamenteco gloriye: *ad quam nos perducatur Dominus Jesus. Amen.*

331 1 *sacramento*: leh. *sacramento*, a gainean gehitua. 2 *lelengo*: leh. *lelengoa*, amaierako a tatxaturik. || *gaisto*: leh. *gaisto*, hurrengo hitzaren *Y* horren azpian *en* irakurtzen dugula. 4 *bayaco*: honen ostean *setaco*, tatxaturik. 11 *ditusen*: *n* gainean gehitua, azpian tatxoi bat dagoelarik, irakurrezina. **332** 22 *cum*: jat. *cun*. 29 *danean*: gainean gehitua. || *pensauric*: *ric* gainean gehitua, honen azpian tatxoi bat dugu, irakurrezina. 33 *leenagoco*: leh. *leenago*, *co* gainean gehitua. **333** 36 *iminico*: leh. *imini*, *co* gainean gehitua. 43 *infirmities*: leh. *infimities*, *r* gainean gehitua. || *dauco*: leh. *dauq*, *c* gainean gehitua eta azpian *q* dagoela, idazleari tatxatzea ahaztu zitzaioz, nonbait. **334** 58 *sacramentoen*: leh. *sacramento*, *en* gainean gehitua. **335** 78 *yminten*: leh. *ymin*, *ten* gainean gehitua. **336** 91 *ditus*: gainean gehitua. || *temporala*: leh. *temporla*, a gainean gehitua. 99 *lusetu*: *l* azpian *c* irakurtzen dugu. **337** 109 *socorru*: leh. *socorruen*, amaieran *n* tatxaturik dagoela. 113 *dau*: gainean gehitua. 121 *dinumerari*: jat. *dimunerari*. **338** 136 *estucunseatan*: *tu* eta *cu* artean tatxoi bat dago, *nque*? 137 *graciyac*: gainean gehitua. **339** 140 *Alabadu*: jat. *Alabada*.

38-136 *estucunseatan*: ‘estutasunean’, badirudi artikulu hurbilaren forma dugula hemen (cf. § 4.2.2.8); bestetik, hitz hau (*OEH*, s.v. *estukuntza*) Añibarroren testuetan eta ondoko idazleren batean baino ez da aurkitzen.

<341>

Seigarren Sacramentoa da ordea

Setaraco da sacramento ordeacoa? Ordenduiteco eta consagretaco Elesaco ministruc, direan legues sacerdoteac, diaconuec eta besteac.

341 3 *diaconuec*: *d* azpian zerbait irakurrezin dago.

39-2 *ordenduiteco*: ‘ordenatzeko, ordenak hartzeko’, forma hau XVIII. mende erdialdetik lekukotzen da Hegoaldean.

Saspigarrena da Matrimoniñoa

Setaraco da sacramentoau? Esconduiteco eta esconduei graciye emaiteco baquean bisi ditesansat eta humeac Cerureco asi deguiyesansat.

5 Graciye gueiyego emaiten dau? Bai Jaune eroan eraguiten ditus pacencitan estadu onec beres dacasan dificultedeac eta trabajuic, eta fidelidedea gordetaco.

10 Selan disponidu bear dau sacramentoau errecibitaco? Lelengo iteundu ondo eta consultedu bere confesoreagas eta guresoacas, eta beguiretu ondo estadueu convenientaiacan edo es. Bigarrena Jangoicoen graciyan egon. Irugarrena euqui yntenciñoa eguiteco eta errecibitaco sacramentoau. Laugarrena iquisi leenago
10 esconduen obligueciñoac eta euqui intenciño garbi bet Jangoicoac emaiten deusen frutue Cerureco asiteco.

Gause santuic bear dire tratadu santamente. Matrimoniñoa da gause santue dalaco Jesuchristoc fundedu eben sacramentoa, eta alan bear da tratadu santamente. <342> Eta orregaitic da preciso esconduiten direanac (bada, dire sacramento onen
15 ministruic) egotea Jangoicoen graciyan. Eta isengo da ondo confesetea leenago segaitic elduiten badire pecatu mortalean eguin arren sacramentoa eta gueratu arren esconduric eguingo daude pecatu mortala eta estaude errecibiduco sacramento onen graciye es Jangoicoen bendiciñoeric, espada bere maldiciñoie tremendoa. Gueratuco dire arbole madariquetu eguinic, pecatuin egotarren. Eta onelango arboletaric se frutu esperadu al
20 leique? Se amodiyo esconduen artean? Se baque esean? Se succeciñoie euren descendenciyan? Se inclineciñoie euren humetan? Ha, christiñeuec, seinbet bider esconduen desgraciyac, miseriyac eta trabajuic datos pecatu mortaleen sustrei deunguerean seinetan celebretan daudes euren bodac. Da, bada, preciso egotea Jangoicoen graciyan eta onetaraco confesaduco dire ondo esconduiten direanac, ofensa
25 gustiyyen damu eta arrepentimintu eguiyescoagas.

Bigarren disposiciñoa da elduitea yntenciñoie garbigas eta fin santuigas seinetaraco eguin sen matrimoniñoa. Bago ser corregidu eta enmendatu assumpttu

40-4 *eroan eraguiten ditus*: *eragin* aditzaren aditz-izena, aditz arazoleak sortzen ditueanean *eraiten* formapean (cf. 14-111) aurkitzen dugu beti hemen izan ezik. **40-5** *dacasan*: ‘dakartzan’, *ekarri* adizkietan erroaren azken *-r* erortzen da txistukari aurrean. **40-8** *convenientaiacan*: ‘konbenitzen zitzaion’, aditz uzkurduraz (cf. § 4.2.3.11); grafiaren aldetik, **j-* bokal artean geratzeagatik nonbati, <i> grafiaraz islatzen du. **40-18** *arbole madariquetu*: sintagma predikatibo atributua mugagabea emana (cf. 33-43 eta 43-79). **40-20** *succeciñoie*: ‘ondorengotza’ gaztelaniazko grafia zaharretik dugu <cc>. **40-27** *enmendatu*: mailegu berria dirudien arren (eta ondorioz *enmendadu* espero dugun), *-atu* partizipioa da sermoitegian.

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

onetan! Desdiche andiye, por cierto! Seinbet eta seinbetec deseetan daude matrimoniñoa
<343> eta esconduiten dire animeliye brutuen intenciñoec loiyegas! Euren pasiñoec
30 isuturic doas matrimoniura (*sicut equ[u]s et mulus*, caballo desenfrenaduic legues).
Alan elduiten dire asco eta onetari basuc cebauric euren gustu loiyetan. Beste basuc es
elduarren pasiñoec onen aen isutasun andigas, elduiten dire interesen isutasunegas
dabiselaco dote andiyen, irepaste andiyen asean; eta au egon asquero esta iminten
errearuric ecanduitan, bis edosein modutecoa. Ecanduitan diru asco badago, ajustedu
35 bidi esconsea. Ser gueiyego eguingo leuque mercatari betec bere contratuitan? Egon
asquero irepastea, sarratuiten da ajustea. Alan eiten daude ascoc esconduiten direanean,
eta onec consideretan daude matrimoniñoa sacramentoa legues? Consideretan daude
osteransecu edosein contratu legues seinetan dacusden irepastea, eta estaude
beguiretuiten se fin santureco eguin eben Jangoicoac, dan ala es honestea eta virtuosea
40 andrasat errecibitan dabena, dan ala es christiñeu ona guisonsat arsaiten dabena. Eta
isenic onelangoac esconsac, se maraville egotea ese asco Jangoicoen maldiciñoec
beteric, familiye asco deshonorraduric <344> eta arime asco galduric?

Es, christiñeuec, esta isen bear alan, bear da eldu matrimoniura intenciñoec santu
eta garbigas, visi yseiteco uniñoecan, baquean, Jangoicoen graciyan eta asiteco humeac
45 Cerureco. Esan beguide orain esconduen, eldu sitean euren bodetara intenciñoec artes eta
garbionegas? Ha! Eguiye confesaduco baleude bic beno gueiyegoc esango leuque
esiteala beguiretu fin onetara. Batec esango deust: “Ni escondu ninsen amen
sugeciñoeric urteitarren.” Beste batec esango deust: “Ni escondu ninsen euqitarren â
honrrea munduic emaiten deusena esconduci.” Beste batec esango dau eusen cariñu
50 andiyegaitic bere senarrari, beste basuc esango daude escondu sireala necesidedeac
obligueduric, erremediyetaco edo estalduiteco honrra galdu eudena.

Eta guisonetari? Batec esango dau escondu sela aguinduitarren esean, beste
batec erremediyetarren bere emasteen doteagas, beste batec contraidu ebelaco
obligueciñoec beragas. Beste ascoc eguiye esango baleuque, confesaduco leuque
55 escondu siteala euren apetitu brutalari gustu emaitarren, eta segun contu au, sein
dauquedan demasiau ciertuset, guichi-guichi <345> topaduco dire escondu siteanean

40-30 *caballo desenfrenaduic*: ‘ahokorik gabeko zaldiak’, agian esapide legez ulertzen du, horregatik ez luke *zaldi* euskal hitza erabiltzen (hala ere, cf. 38-54 *sano y bueno* eta 33-91 *ello*). **40-34 bis**: ‘bitz’, *izan* aditzaren jusiboa. **40-35** *sarratuiten*: ‘ixten’. **40-45** *Esan beguide*: ‘esan bezate’, 3.-ren pluralgilea –*de* dugu (cf. § 4.2.3.3). **40-54** *esango baleuque*: (cf. 7-169 *emongo baleuque*), baldintzako protasi hauek *ke* atzizkia dute, Mounolek bere euskal perifrasiaren deskribapenean (Mounole 2011: 112) agertzen ez duen perifrasi dugu hau (cf. euskara batuko ‘emango balu’) (cf. § 4.2.3.9.1).

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

esan leiyoenac Jangoicoari Tobias santuic esan eusena escondu sinean: “Suc Jaune daquisu estodala arsaiten emastesat Sara gustu loiyen apetitu desordenaduegaitic espada echitarren descendinteac, seinsuten isen dinsat seure usena alabadue eta benditue
60 eternamente.”

Baye isenic gause ciertue gueiyenac elduiten direala sacramento santu onetara fin gustis basuicas consultedu bagaric Jangoicoagas, se maraville egotea adinebeste matrimoniño aen desgraciduic eta esconduic deungac eta miserableac? Deabrue casamenteru dan esconsareanic se gause on esperadu al leique? Aec, seinsuc
65 esconduiten direan amoreac isuturic, pasiñoec torpeac ordituric, engañetan ditusela edertasunec eta garbosatasunec, seinden irudi bet eta engaño bet segaitic gaur dana biyer ya acabetan da; ser esperadu al leique edo se castigüen bildurre estaude euqui bear celebraduric matrimoniñoa âen fin desdicheduicas? Ya declaradu eusen San Rafael arcangeluic Tobias santuiri. Ensun eguisue historiye.

70 Sara, Ragucl caballero nobleen alavea, escondu sen saspi bider eta saspi bidercoetan gueratu sen alargun bodetaco gau beratan segaitic beragana eldu <346> beño len vere esposoac gueratuiten sirean ilic, iretoric demoniñoac berac, seinec quensaiten eusen bisisea. Espantauric gueratu sen comarca gustico gentea, desuerte se isen arren Sara noblea, ederra eta aberasa es eben topetan nogas escondu. Dempora
75 onetan aguirtu sen andi Tobias guison gastea, San Rafael arcangelue lagun ebela, Saragas esconduiteco gogoagas. Ensun eben corritan eben famea, selan il sirean bodetaco gau euretan bere oean Saraen saspi esposoac. Bildurtu sen, comunicuedu eben bere bildurre eta dueda arcangeluegas eta arcangelu santuic, animetan ebela guison gastea, diraoso: “Ea, es eguisu euqui bildurric, Saragas esconduco sara. Escatu eguiyesu
80 bere guresoai se convenitan da, eta emongo deusue berlan bere hazinda gustigas.” “Eta yasaiten bayat lomismo sein beste esposoai, ser eingo dot escatuigas?” esan eben guison gasteac. “Eguin eguisu nic diraosudena, repliquedu eusen arcangeluic, eta es eguisu euqui bildurric. Eta yaquin eguisu (atendidu orain) se aec seinsuc <347> errecibitan dauden matrimoniñoa Jangoicoa eurlanic eta euren arimeric botetan dauden moduin

40-69 *arcangeluic*: testuan zehar hauxe da hitzaren aldaera bakarra, bizkaiera zaharreko hainbat testutan **arkanjele* erakoak ezagunak badira ere (*OEH*, s.v. *arkanjelu*). **40-70** *Ragucl*: honako hau, Sara eta Tobias Bibliako pertsonaiak dira, Tobiten liburuan kontatzen da euren istorioa. **40-71** *bidercoetan*: ‘aldietan’, *bider* hitza leku genitiboarekin Añibarrok baino ez du lekukotzen; honek baina *aldi* hitzaz lagundurik darabil *biderreko aldi* formapean (cf. *OEH*, s.v. *bider*). **40-72** *iretoric*: ‘itorik’ (cf. *I-152 iretoric*). *eurlanic*: ‘eureganik?’, akatsa dirudi, *eure* / *lanic* aurkitzen baitugu, lerro bitan. cf. balizko iturria: ...*echan a Dios de si mismo y de su alma...* (Echeverz 1728: 233; cf. § 4.3.1.1).

85 entreguetan direalaco bacarric euren apetitu torpera cavalloa legues eta animeliye legues, onelangoetan dauco potestadea Demonioac: *qui conyugium* (dire Texto Sagraduco berbac Tobiasen liburuin) *ita suscipiunt ut Deum â se, et â sua mente excludant et suæ libidini ita vacent, sicut equus et mulus, habet potestatem demonium super eos.*” Ara se claru, Demonioac dauco potestadea esconduiten direanetan,
 90 animeliyac legues, gustus eta deleites asetaco; seinbet gach eta desdiche estau eingo Demonioac potestadea dauquen lecuin? Seinbet dañu, seinbet pendenciye eta desasoe? Eta seinbet bider â amore isue eta soroa convertitan da enfaduin eta aborrecimintuin, estacarde gause onic matrimoniñoac seinsuten gueiyego atenditan dan appetiture Jangoicoagana beño.

95 Ya ecusi dosu selan erratuiten dauden esconduiten direanac intenciñoegas eta finegas; bada, estaude guichigo erratuiten iminten daudesan mediyoetan esconduiteco, direan legues engañoic, soliciteciñoec <348> torpeac, conversaciñoeca, comuniqueciñoeca arcalegas escondu beño leengo; Jangoicoen contra ofensa asco eiteco peligrigas. Mediyo convenitan direanac nescatilleensat euquiteco aciertue, dire losea, modestiye
 100 acciñoetan, honestidedea eta retirue. Onec dire nescatille honrrada baten virtuteac eta au de doteric andiyeena eta onena guisonac logradu leiyena, eta au de dotea seinetara bear dauden beguiretu guison gasteac gure badaude eguin esconsa ona. Bada, diño Espiritu Santuic andra on bat topetan dabenac logretan dabela ondasun gustiye: *qui invenit mulierem bonam, invenit bonum*. Esta ibili bear edertasunen asean se au de
 105 engañagarriye, desuerte se arpegui ederragas sarsaiten da esean vanidedea eta soberbiye. Andra escogidu bear dana da Jangoicoen bildurrean visi dana, virtuosea, retiredea, honestea eta bearguine. Espiritu Santuena da sentenciye: *fal[l]ax gratia et vana est pulc[h]ritudo mulier timens Dominum ipsa laudabitur*. Eta alan mediyoric onenac acertetaco dire virtuten exerciciyoa, oraciñoeca eta obedenciye nagusiyei euquitea.
 110 Esconduco danac consultedu begui Jangoicoagas, escatu beguiyo lagun honrradu bet obeto servitaco aren Dibine Magestadea, eta onetaraco <349> valiyeuco da vere devociñoeco santuicas, eguinic nobenac San Joseperi edo vere devociñoeric andiyeeneco santuei. Bada, Jangoicoaganic datos gause onac gustiye eta suerte ona

40-91 desasoe: ‘ezinegon’, erdarazko *-ón* bukaerak (cf. gazt. *desazón*) *-oe* bihurtuz (cf. *FHV* § 7.8). **40-95 erratuiten:** ‘huts egiten’. **40-100 retirue:** ‘bildutasuna’ (gazt. *retiro*). **40-107 bearguine:** ‘langile’, bizkaiko hitza, *RS*-tatik lekukotua (*OEH*, s.v. *behargin*). **40-111 aren Dibine Magestadea:** sermoitegian aurkitu dugun *r*-dun genitibo bakarra (cf. §§ 4.2.2.3 eta 4.3.2.1.2.1); agian literatur eraginari egotzi ahal zaio agertzea, nahiko esapide ohikoa izanik. **40-112 nobenac:** ‘bederatziurrenak’. **40-113 gause onac gustiye:** *guzti*-ren aurrekaria artikuluz, ik. 4-28 *odola gustiye*.

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

emaiten deuso guisonari bere obra onac gaitic eta virtuteac gaitic, es vere ondasunec
115 gaitic (aen guichi bere nobleseagaitic), es vere galanteo eta soliciteciñoegaitic: *pars
bona, mulier bona, dabitur viro profactis suis*. Isen bites bada guison gasteac onac,
virtuosoac; eguin beguiyes obra onac eta emongo deuse Jangoicoac lagun ona,
lograduco daude andra ona matrimoniū santureco eta aseguretaco obeto aciertue, alan
guison gasteac sein nescatillac, oraciñoen eta virtuten exerciciyoen ganeti. Euqui
120 beguiye obedenciye nagusiyei, bada, alan obligueduco daude obeto Jaungoicoa
aciertureco, se Jangoicoac esarten deuso bere bendiciñoea obedecitan dabenari. Baye
emaitea esconsaco berbea yaquin bagaric guresoen borondatea, eta empeñetea aun bere
borondaten contra confiyeuric obligueduco dituesala, edo empeñus edo dagosalaco
ensarsauric (errore eta pecatu andis ganean), da atrevimintu andiye eta regularmente
125 onelango esconsac isen doas desgraciduic, eta ascotan galduiten dire onelango esconsac
eta gueratuiten dire nescatillac honrrea galduric. Onelango gause ymportancicoan, seme
edo alaba esconduiteco dagosanac dauque obligueciñoea euren guresoai contu emaiteco
se gogo dauquen, seinsuc edade gueiyego dauquen legues eta esperenciye <350>
esautuiten daude obeto seme edo alaba esconduco danari eta orregaitic regularmente
130 isengo da obago euren parecer[r]agas conformetea. Baye reconocitan badaude seme edo
alabeac estala convenitan esconduitea euren guresoac gure daudenagas, euquiric eurec
borondatea esconduiteco beste persona éuren ygualecoagas, euren escuin dauque
cumplitea euren borondatea, emonic euren errazoa edo motivuic guresoai, eurec edo
beste persona batten medius, es faltetarren sor deusen errespatora aen gause pisu
135 andicoan.

Baye guresoac regularmente obeto beguiretuiten dire, juiciyo obeagas, onelango
gausetan. Derecho guison gaste bateri estagoala munduin beresat, araco nescatille
arpegui ederrecoa langoric, dacuselaco ederric eta componideric. Campotico irudi
ederrera beguiretuiten dau onec, baye bere guresoac beguiretuiten daude bere
140 inclineciñoetara, bere geniño, criyensa eta obretara, eta onec estauden legues
corresponditan campotico irudigas, aremen encontrauric euren parecerac: Semeac gure
dau bere emastesat dalaco ederra, airosea, garbosea; eta aiteac estau gure dalaco soro,

40-124 *ensarsauric*: ‘nahasirik’ (gazt. *enzarzarse*). **40-136** *beguiretuiten dire*: ‘kontuan hartzen dute, epaitzen dute’. **40-138** *langoric*: ‘bezalakorik’, mendebaldeko hitz honen adibide bakarra hau izanik, ezin dugu bizkaieran den *lango* eta *lako* aldaeren arteko egoera ezagutu hizkera honetan (cf. *OEH*, s.v. 2 *lako*). || *Campotico*: ‘kanpoko’, (ik. 10-82 *campotico*).

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

soberviye, vanidosea. Preguntetan dot, seinek dauco elecciñoeric onena, aiteac ala semeac?

145 Erosico dabenac ese bat beratan bisi iseiteco contentetan da campoti dauquen fachada ederragas <351> barruin badago desvaratauric? Nescatillen geniñoa, costumbreac eta moduic espadaude serbitan suen eseraco, visi iseiteco baquean beratan, ser serviuco dau euquiteagas fachada ona eta campotico edertasunegas? Ha, christiñeuc! Seinbet engañetan dire eta aun abrasetan dire mariposea legues hembreen

150 edertasun aparenteen llaman. Desengaña saites, christiñeu, edertasunec beste prenda onac eta virtuteac bagaric serviuco deusu esean dañu gueiyegoraco provechureco beño. Acordau sates ser dinoean Espiritu Santuic: *mulier timens Dominum ipsu laudabitur*. Escogidu eguisu seuroen matrimoniuraco Jangoicoen bildurreco hembra isen arren pobrea eta es ederra. Eta suec nescatillac, euquiric seuroen escuin, escogiduco dosu

155 guison virtuosoa eta costumbre onetacoa eta es averasa, noblea, visarroa, virtuosoa es isenic. Eta alan basuec sein besteac eguingo daude diligenciye esconduiteco ygualagas, *si velis apte nubere nube pari*. Eta au diligenciyeu eta cuidedue (Espiritu Santuec emaiten daben legues entenditan: *trade filiam et grande opus feceris et homini sensato da illam*) esconduitecoa, especialmente alabac, bear daude eguin guresoac. Baye

160 onetaraco asco dagos aen descuideduic se es ateretarren dotea alabeagas edo bear eguin daguiunsat semeac, apenas dauque <352> urte onic esconduiteco. Aseratuiten daudes esconduiteco injustamente ogueta bost edo ogueta amar urteguiño, exponiuric pecatu mortal asco eguitera eta alcabo guero eurec gure daudenagas eta antojetan yatenagas esconduiteco, yaque guresoac estituisan esconduiten bere demporan convenitan

165 danagas. Acorda saites, guresoac, ser diñoean San Pabloc: *volo ergo yuniores nubere*. ‘Gure dot, diño Apostoluic, esconduco direanac escondu ditela gasteric.’ Escondu diteala leen besen leen, au de guresoac equi deguiyela cuidedue leen besen leen emaiteco euren estadue: gobernau bites guresoac Apostoluen esaneti eta es euren buruteti, engañetan ditusela euren pasiñoec eta interesac.

170 Diraoscu Espiritu Santuic, andra ona emaiten dabela Jaungoicoac, baye emaiten deusela guison gaste virtuosoai eta onai. Eta alan, logretaco ona bear daudes imi[ni] mediyo onac eta esta bear beguiretu matrimoniñoeta[n] dote eta interes andire; espada

40-153 *eguisu seuroen*: -zu plural adierarekin dirau (cf. § 4.2.3.12). **40-155** *visarroa*: ‘ausarta’. **40-167** *leen besen leen*: ‘lehen baizen/bezain lehen’, (cf. 13-124 *leen besen leen* eta 24-103 *besen*) *baizen* edo *bezain* partikulen aldaera izan daiteke (cf. § 4.2.5); lehengoaren kasuan behintzat, *bizen* formapean ere baduguna (cf. 10-115 *esan bat bisen*).

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

bear da beguiretu virtutetara, honestidedera segaitic gure iseitea aberastu andreen doteagas da, diño San Chrisostomoc dala, gause torpe eta afrentosoa eta yaustea
175 tentaciñoean. Servidu bidi Jaungoicoa, euqui bidi confinsea bere providenciyan se Jaungoico euquico <353> dau cuidedue emaiteco lagun ona convenitan bada esconsea. Au gustiyeu expliquetan deuscu exemplo maravilloso onec, sein contetan daben Vincencio Velvacensec.

Senar-emaste aberas eta noble bic euqui euden seme bat bacarra. Gure isen
180 eude[n] escondu au bere guresoac beste aberas eta poderosoen alaba bategas munduco usure, juntetaco interesa interesagas, esperetan euden dote andigas. Esan eusen semeari euquen gogoia, baye onec es eben gure berac euquesan motibuic gaitic. Sentidu euden bere guresoac aen moduten se euren semeac urten eben eseric, iñes eguin eben bacarric eta es eben lecuric, diruric, es segas alimentadu. Erriric erri, yoanic-yoanic, eldu sen
185 agure pobre baten esera yaten escatuiten egüerdi beten. Admitidu eben cortes agureac eta errecibidu eben cariñus. eta esean euquen trasa oneco alaba batec emon eusen yaten modu andiyegas eta honestidedegas, es euquelaco beste criyedaric esean, eta emon asquero yaten bolvidu bere gorure. Bada, eldu sanean guison gastea egoan goruitan. Egon san guero descansetan <354> doncellen presenciyan eta advertidu eben selan
190 doncelleac nosic nosera semblante apacibleagas repetitan ebela: “Benditue isen dila Jaungoicoa, alabadue isen dila Jaungoicoa.” Berba onecas eta onelangoacas eroean bere trabajue alegremente. Guison gaste, egonic esilic pedazu andi beten, ensunic osteria eta osteria esaten ebesela berba, esan eusen: “Nescatillea, segaitic adinebeste bider emaiten deusesus Jaungoicoari? Se beneficiyo eguin deusu? Nic emen ese onetan gustiye dacust
195 pobre. Se ondasun, se diche gosetan dosu egoteco aen contenta eta adinebeste bider emaiteco graciyac eguin basendusent legues munduin danic aberasena eta nobleena?” Nescatilleac discreciño marabillosogagas esan eusen: “Selan? Bada esteustes eguin Jangoicoac mille beneficiyo criyeduitean bere ymagine eta irudigas, erredimitean bere odol preciosoagas eta bera ametaco graciye emaitagagas? Numeradu esin lisen coaine
200 estire egunean-egunean bere escu liberaleanic bere criyeturac errecibitan dituesan beneficiyoac.” Ponderadu eusen au assumptue aen eleganciye eta devociño andigas se

40-178 *Vincencio Velvacensec*: Vincent de Beauvais edo Vincentio Bellovacensi XIII. mendeko idazle dominikoari egingo lioke erreferentzia. **40-188** *gorure*: ‘gorura, goruetan egitera’. gorua emakumeen eginbarrara izan da tradizioz. **40-191** *eroean*: ‘zeraman’ *eroan* aditzaren trinkoa. **40-192** *Guison gaste*: esaldiaren subjektua mugagabea, agian indarra emateko esaldiari. **40-193** *emaiten deusesus Jaungoicoari*: esaldi honetan *graziak* bezalako sintagma bat eliditurik dago. **40-197** *discreciño*: ‘zuhurtasun, zentzu onez’. **40-200** *liberaleanic*: -r- gabeko -(r)ean(ik)-en adibide bakarria testuan, haplografia agian: *liberale[re]anic*. **40-201** *assumptue*: grafia etimologikoaren adibidea dugu hemen.

40. *Saspigarrena da Matrimoniñoa*

guison gasteari agradau <355> yacan nescatillea. Yoan san berlan bere aitegana, esan eusen nor san eta escatu eusen bere esposasat. Agu[reac] eransun eusen cortesiye eta prudenciye andigas: “Nic gracyac emaiten deusudes baye estot entenditan ser diñosun, 205 segaitic su sara aberasa eta ni pobrea eta esta esconsea yguala.” Ostera erregutu eusen guison gasteac esaten eusela emon gure beusen acomodaduco sala bisi iseiten pobresa atan eta gurago ebela pobrea eta vituosea, aberasa ta sobervioya beño. Eta aseguretaco obracas vere berbea, eronsi eguisen bere yasteco aberasenac eta yansi eguisen berlan an topadu eguisen erropa pobre basuc. Alanbere agureac es eben gure, baye adinebeste 210 erregu ecusi ebenean guison gasteac eiten eusesala, emon eusen bere alabea esposasat. Eguin sen esconsea pobreena legues. Guero urrengo egunean eroan eben agureac lecu ocultu betera non euquen tesoru andi bet urregorriscoa, joyescoa eta ondasun andiyec, eta esan eusen: “Au gustiyeu da seurea; bada, da neure alabeena. Ese linsat iñor escondu beragas interesagaitic euqui dot au dirueu iñoc yaquin begaric.” Gueratu sen guison 215 gastea espantauric, eta contentu andigas <356> visi sirean, baque andigas eta convenenciyetan. Bacusu selan topadu eben guison gastec andra honestea, virtuosea eta averasa guichien pensetan eben lecuin, estimedu ebelaco gueiyego virtutea, interesa beño.

341 4 *ditus*: gainean gehitua. 10 *bet*: *b* azpian zerbait irakurrezin dago. **342** 21 *inclineciño*: *incliñe*- ere irakur daiteke, baina gure ustez *n* gainean dagoena aurreko *i* puntua litzateke. || *bider*: gainean gehitua. 27 *assumptu*: leh. *assumpu*], *tt* azpian *u* irakurtzen dugu. 28 *matrimoniñoa*: leh. *matrimoniñ*, *oa* gainean gehitua **343** 29 *eta*: jat. *eta* / *eta*, lerro bitan. 32 *pasiño*: *si* eta *ño* artean tatxoi bat, irakurrezina. 34 *badago*: leh. *bag*], *d* azpian *g* irakurtzen dugula. **344** 54 *obligueciño*: leh. *obligueciño*, *a* gainean gehitua. || *confesaduco*: leh. *confesadu*, *co* gainean gehitua 55 *contu*: leh. *conta*], *u* azpian *a* irakurtzen dugula; bestalde, ondo irakurriko ez zelako edo, *u* gainean gehitua. **345** 64 *esconsareanic*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. **346** 78 *animetan*: bigarren *a* gainean gehitua, azpian tatxoi bat duelarik. **347** 89 *potestadea*: gainean gehitua. 90 *eta*: jat. *eta eta*. 93 *onic*: gainean gehitua. **348** 106 *Andra*: leh. *Auda*; *n* azpian *u* irakurtzen dugula eta *r* gainean gehitua. 107 *bearguine*: aurretik *labor*], tatxaturik. 108 *onenac*: leh. *one*, *nac* gainean gehitua **349** 120 *nagusiyei*: leh. *nagusin*], *y* azpian *n* irakurtzen dugula. 123 *dituesala*: leh. *ditus*], *e* azpian *s* irakurtzen dugula. 126 *dire*: gainean gehitua. **350** 134 *batten*: *batt* azpian zerbait irakurrezin dago. 138 *dacuselaco*: leh. *dauques*], *uque* tatxaturik eta *cu* gainean gehiturik. 145 *campoti*: leh. *campotico*, hurrengo hitzeko *da* horren azpian *co* irakurtzen dugula. **352** 165 *diño*: jat. *diño*ac. 167 *guresoac*: leh. *guresoa*, *c* gainean gehitua. || *leen*: gainean gehitua. **353** 187 *eseuquelaco*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. **354** 190 *apacibleagas*: *ci* hori ez da ondo irakurtzen. 198 *criyeduitean*: aurretik tatxoi bat, *eguitean*? **355** 210 *eusesala*: *e* eta *u* artean marra bat dago, *l* legez interpretatu ahal dena. 212 *non*: *n* azpian zerbait irakurrezin dago. 213 *eusen*: gainean gehitua. || *linsat*: jat. *linsac*. 214 *au*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina.

40-208 *eronsi*: ‘erantzi’, hemen dugun *erontzi* aldaera Lazarragan, Añibarron (*erantzi*-rekin batera) eta XX. mende hasieran lekukotzen da. **40-209** *baye adinebeste erregu ecusi ebenean guison gasteac eiten eusesala*: ‘baina ikusi zuenean gizon gazteak hainbeste erregu egiten zizkiola’.

<357>

Bigarren doctrinea Sacramento Matrimoniuco ondasunen ganean

Andiye dala sacramento matrimoniucoa diraoscu Apostoluic, eta errazoeagas; bada, da alan gustis andiye vere significuenseagas eta bere ondasunetan. Da andiye vere significuenseagas significuetan dabelaco Verbo Dibinuen desposoriyoa naturaleza
5 humanegas, eta Jesuchristoena bere Eleseagas. Orregaitic encarguetan deuso adinebeste Apostoluic guisonari amadu daguila bere emastea Jesuchristoc amadu eben legues bere Elesea.

Da bere andiye dauquesan ondasunetan. Onec dire iru principeleenac eta dire: *bonum prolis, bonum fidei et bonum sacramenti*, ‘succesiñoen ondasune, fidelidedeco
10 ondasune eta sacramentoen ondasune.’ Succesiñoeuco ondasune da, eta logretan da matrimoniñoan, useduric honestamente matrimoniñoa esconduc finegas euquiteco humeac eta asitea ondo Jangoico serviciyoan. Fidelidedeco ondasune da eta consistitan dau gordetean fidelidedea arcalegas esconduc, es gure isenic eta es permitiuric <358> andreac gause deshonesturic beste guisonegas es aen guisonac beste hembragas.
15 Sacramentoen ondasune dago, comuniquetan deusen graciye eta uniñoen biyei (errecibitan badaude ondo), visi iseiteco arcalegas uniñoean eta eroateco suavidedeagas yugüe eta estaduco cargac. Onec iru ondasunec logretan baitues eta conservadu esconduc, erresqui celebraduco daude alegriye andigas euren dichea eta esan Apostoluigas: “Au matrimoniñoau da andiye. Esconsa andiye eguin dogu.” Baye
20 espadire logretan; esconsa desdichedue, matrimoniño desgacidue. Gure neuque doctrine onetan expliquedu iru ondasun onen dichea, eta desdichea espadire logretan, alan ecusiric esconduc cumplidu deguiyensat euren obligueciñoa. Estaquit expliqueduco nasan deseetan dodan legues, alfin, eguingo dot aleguine Jangoicoari escatuiten deusedan asistenciyeagas aciertureco eta ensuten dauden arimen provechureco.

25 Da, bada, lelengo sacramento onen <359> ondasune euquitea succeciñoa; au de lelengo fine esconduiten direanena eta au lelengo ondasune. Eta logretaco, Jaungoicoac asistitan dau sacramento onen graciyeagas. Lelengo eta bigarren bear daude usedu matrimoniñoa honestamente. Diñot honestamente segaitic faltetan bada bear dan honestidedea esconduen artean eguingo daudes pecatu asco ya mortalac, ya venialac, eta

41-18 *erresqui*: ‘dudarik gabe’, (cf. *OEH*, s.v. *errazki* 2). **41-23** *alfin*: ‘hala ere, azkenik’ (gazt. *al fin*).

41. *Bigarren doctrinea Sacramento Matrimoniuco ondasunen ganean*

30 tonto-neciyoac legues yoango dire euren perdicioera eta condenaduco dire condenadu direan legues escondu asco es usetarren matrimoniñoa bear dan legues.

Bada Jaune, esan beigu es pecaturic eiteco selan cumpliduco dogun ondo matrimoniuco obligueciñoeau? Esango dot es losa bagaric eta espalis preciso expliquetea desterrretaco assumptu onetan egon doasan ignoranciyac. Oba lisateque
35 esilic egon se es berba eguin onen ganean, baye es expliquetarren aumentetan direan legues ygnoranciyac eta pecatuic esconduen artean, da gause necesariyoa ese daguiyensat eguin adinebeste pecatu expliquetea assumptu <360> ymportanciye andicoau.

Diñot, bada, esconduiten direanac lelengo ilebete bitan dauque euren escuin es
40 usetea matrimoniñoa. Derechoac emaiten deuses ile bionec, pensauric ondo, escogidu deguiyensat estadu obagoa seinden erreligiñoecoa gure badaude biyec edo batac, baye usedu asquero matrimoniñoa galduiten daude au derechoau eta libertaderic estauque beste estaduric arsaiteco; bada, gueratuiten dire esturic eta obligueduric paguetan matrimoniuco sorra batac besteari escatuiten deusenean edo verbeagas edo señaleagas,
45 edo beste moduten. Alan legueac aguinduiten dau eta diño San Pabloc *Uxori vir debitum red[d]at, et uxor vino*. Baye usetea matrimoniñoa bear dau ysen fin eta modu honestuigas. Yru finegaitic usedu leique matrimoniñoa: lelengoa, euquiteco humeac eta asiteco Cerureco; bigarrena, paguetaco sorra eta Yrugarrena, araguiyen sue edo deseoa erremediyetaco noberagan edo vere <361> lagunegan. Fin onec gaitic esta pecatu usetea
50 matrimoniñoa, baye da pecatu fin onetara atendidu bagaric usetan danean bacarric gustue edo deleiteagaitic, eta da pecatu veniala, estalaco dirigitan fin honesturi espada gusture. Alan San Agustinec, Santo Thomas, eta beste ascoc. Esconduic alcarregas ibiltea mosuque, abrasuque eta tocamintu provocativuitan: au danean usetaco matrimoniñoa honestamente esta pecatu, danean bacarrean, iñoc ecusi esteisen paragean
55 eta asiye campora botetaco peligru bagaric; bada, badire asiye botetaco peligruigas isengo da pecatu mortala alan ibiltea eta es egon arren onelango peligruric bere, badabils dempora eta lecu convenitan estanean isengo da pecatu, edo euren humeen aurrean.

41-32 *esan beigu*: ‘esan bezagu’, adizki jusiboa. **41-51** *honesturi*: ‘honestura’, *ua* > *ui* asimilazioan emandako murriztapena da ezin dela kontsonanterik izan *u* eta *a* artean (cf. § 4.2.1.7); honetan murriztapenaren salbuespena dugu; bakarra izanik baina, ez dakigu asimilazioaren hedatzea ote den (cf. Ulibarri 2008a: 199) ala kopia akatsa proposatu beharrean gauden. **41-55** *asiye*: ‘semena, esperma’.

41. *Bigarren doctrinea Sacramento Matrimoniuco ondasunen ganean*

Modue usetacoa isengo da naturalezeac irecasten daben legues, usetea beste
60 moduten gustu gueiyego gorpuseri emaiteco isengo da pecatu alomenos veniala eta
mortala isengo da danean matrimoniuco finen contra, sein den euquitea humeac. A
seinbet onelango pecatu mortal <362> eiten dituesan escondu ascoc eta seinbet dagos
Ynfernuen orregaitic! Entendidu beguiye esconduec selan Noe orditu sen bere mastuico
ardaoagas, alan escondu asco ord[it]uiten dire euren lagunegas, arturic legueac eta
65 honestidedeac permititan deusen beño licenciye gueiyego. Basuc entreguetan dire âen
ardore andigas gustu loyyera se es contentu matrimoniñoac permititan dabenagas, euren
artean cometitan daudes mille torpeza tocamintu loiyecas, erreparadu bagaric
consentitean gustu loiyetan eta asiye botetean. Onec dire pecatu mortalac estirealaco
ordenetan matrimoniuco usu liciture. Beste basuc es carguetarren humes estaude usetan
70 bere moduin matrimoniñoa, eta alan eiten daudes pecatu mortal enormeac eta
matrimoniuco fin principelen contra eguiten daude. Â Jaungoicoa! Seinbet pecatu eiten
daudesan escondu ascoc Jaun Dibinuic amenazeten deusen castigüen bildur bagaric;
bada, Jaungoicoac daquis castiguetan <363> errigore andigas mundu onetan eta bestean.
Ya esan nenduen beste doctrine baten, selan Sara erechan hembra baten saspi esposoi
75 quendu eusela Jaungoicoac euren visisea bodetaco lelengo gaubean intentau eudelaco
usetea bacarric gorpusei gustue emaitarren. Onan erechan guisonari, seinec usetan
ebenean matrimoniñoa botetan eben asiye basuric campure es euqitarren humeric:
Semen fundebat in terram ne liberi nascerentur. Castiguetu eben Jaungoicoac
rigurosamente cometidu eguilaco au pecatu enormeau: *idcirco percus[s]it eum Dominus*
80 *quod rem detestabilem fecerat*, diño alan Letra Sagraduic. Castigu andic experimentadu
daudes beste ascoc seinsuc estodas esaten brevedadeagaitic. Bat esango dot, seinec
iminicu ditus cuide andigas escondu gusic.

Contetan dau Thomas de Cantimpratoc selan guison batec es contentauric sarri
guech useteagas matrimoniñoa, molestetan eben eta enfadau bere emastea sarrico

41-63 *mastuico*: ‘mahastiko’, (ik. 12-12 *mastuiye*). **41-72** *amenazeten*: akatsa agian, *amenazetan*; izan ere, hau izango litzakete *-te* aditz-izen atzizkiaren hedatzearen adibide bakarra (cf. § 4.2.3.2). **41-73** *errigore*: ‘zorroztasun’ (cf. 20-63 *errigore*). **41-76** *Onan*: ‘honela’. **41-77** *asiye basuric campure*: *baso* hitza darabil emakumearen sexu organuen eufemismotzat. 41-79 *cometidu eguilaco*: ‘egin zuelako’, aoristo perifrasi. **41-82** *iminicu*: ‘ipiniko, jarriko’, akats legez ulertu baino badirudi [i]-k eragindako asimilazio bat dugula hemen, ziurrenik *erruscua* (31-80) eta *qüaine* (45-110) adibideetan legez. **41-83** *Thomas de Cantimpratoc*: Tomas de Cantimpré, XIII. mendeko fraile agustindar idazlea. || *sarri guech*: ‘sarri gaitz’, hitzaren aldaera, dirudienez *RUI* erregelak eragindako *gatx* hitzaren aldaera; hala ere, batasun fonikorik gabeko bi hitzen artean gauzatzea ez da ohikoa (cf. § 4.2.1.7), beraz, erregelaren indarra erakutsiko luke. Hala ere, ezin da ahaztu mendebaldeko alde zabal batean *gaizto* hitzaren *ge(i)xto* aldaera badagoela eta harekin lotura izan dezakeen fenomenoaren genuke hemen. **41-84** *sarrico*: ‘maizko, sarri’ (cf. *OEH*, s.v. *sarri*).

41. *Bigarren doctrinea Sacramento Matrimoniuco ondasunen ganean*

85 tocamintu gustis loiyecas. Gustis sentitan eben asco <364> emasteac, eta exortetan
beusen bere gorde leguila templanzea eta contentadu sila useteagas honestamente bere
matrimoniñoa, orregaitic esan detenitan. Alzadu eben andreac bere espiritue
Jaungoicoagana escatuiten eusela imini leguila erremedyoa onetan. Ensun eusen
Jaungoicoac eta erremedyedu eben. Baye selan? Castigu gustis exemplar bategas sein
90 descargadu eben Jaungoicoen escu poderosoac senar deshonestuaen contra modu
onetan. gau beten euqui asquero acostumbretan ebesan tocamintu loiyec bere
emasteagas, movidu eben bere tripeac, yaigui sen oereanic bere asintu edo serbiciura
bere necesidedea eiten eta eguin asquero esarri eguisen bere entrañac andi, dolore
andicas eta guedar errabiosoacas. Acudidu eguiyen ara guedar ensun eguiyesanean,
95 eroan euden oera eta an guedar eiten eben ebagui leguiyoesala escuic, euquesalaco
erretan. A san bere tocamintu loiyen castigiue eta alan, <365> errabiyetan ebela, il sen
gau desdicheduen egun berean.

357 10 *logretan*: leh. *logreta*, *n* ganean gehitua **358** 16 *eroateco*: lehenengo *e* honen azpian zerbait irakurrezin dago. 23 *dot*: ganean gehitua. **359** 34 *ignoranciyac*: leh. *ignoranciyeu*, *a* azpian *e* irakurtzen dugu eta *u* tatxaturik dago, *c* ganean gehiturik dagoen bitartean. **360** 43 *arsaiteco*: ganean gehitua. || *dire*: ganean gehitua. **361** 52 *eta*: jat. *ete*. 55 *eta*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. 58 *edo euren humeen aurrean*: ganean gehitua. 60 *gueiyego*: ganean gehitua. **362** 66 *permititan*: leh. *permitan*, *ti* ganean gehitua. 69 *carguetarren*: leh. *carguetarre*, *n* ganean gehitua **363** 79 *fundebat*: leh. *fundeba*, *t* ganean gehitua

41-85 *exortetan beusen*: ‘aholkatzen bazion’, baiezko aurrizkiaz lagundurik. **41-92** *movidu eben bere tripeac*: ‘aztindu, higitu zen bere tripa’. **41-93** *esarri eguisen*: ‘ezarri zuten’, aoristo perifrasi. **41-94** *guedar ensun eguiyesanean*: esaldiaren objektua (*gedar*) mugagabeen dakar idazleak. **41-95** *ebagui leguiyoesala escuic*: ‘ebaki zitzaiotela eskuak’, zehar estiloaren *l*-aurrizkiaz (cf. § 4.2.3.5).

Aunque es tan santo y bueno el matrimonio

Aunque es tan santo y bueno el matrimonio usándole bien como queda dicho, no obstante el apostol San Pablo prefiere la virginidad, diciendo que quien contrae matrimonio hace bien, pero quien no se casa por guardar la virginidad hace mejor. Y la
5 razón es porque el matrimonio es cosa humana y la virginidad es cosa angélica, el matrimonio es según naturaleza, la virginidad es sobrenaturaleza. Y no solamente la virginidad, sino también la viudez es mejor que el matrimonio. Por lo qual, haviendo dicho Christo nuestro redemptor en una parabola que la buena semilla en un campo lleba fruto de a treinta y en el otro de a sesenta y en el otro de aciento, Los santos
10 doctores han declarado que el fruto a treinta es del matrimonio, el de a sesenta de la viudez, y el de a ciento de la virginidad.

Es dignísimo de advertir el cuidado que se debe tener para tomar estado de vida para que sea con acierto; porque muchos por tomar estado sin mirar con quien toman el estado tienen que llorar mucho en esta vida y para la otra les es causa de su eterna
15 condenación sólo por no haber acertado a tomar el modo de vida en que queria Dios servirse de ellos. La causa es porque no se mira sino lo presente y no lo porvenir y mucho menos lo eterno, no acordándose uno del fin para que fue criado que es para servir â Dios en esta vida y gozarle en la otra. Y así <366> no miran en qué estado de matrimonio o con qué persona han de servir mas â Dios sino sólo la comodidad
20 temporal y otros fines terrenos. Y assí unos se casan por la hazienda o intereses, otros por la hermosura, otros por la nobleza &a, otros por vilísimos deleites que es aún más reprehensible todos estos. Yerran mucho no atendiendo en la eleccién que hacen de la persona para casarse, sea hombre o sea muger, al mayor servicio de Dios.

De que se sigue que aunque después de escogido y puestos en el estado del
25 matrimonio quieren en él servir a Dios no tienen la ocasión y oportunidad de hacer lo que debían: o tienen una vida inquieta, turbada y llena de amargura, y al fin yerran en no enderezar los medios a su fin que es servir â Dios, sino el fin a los medios. Consideren que no hai cosa en la vida que pida más acierto y reflexión porque si todas las cosas y acciones particulares se han de hacer con prudencia y consideración y por
30 agradar a Dios, aquella obra que ha de durar toda la vida y de la qual dependen todas las

42. *Aunque es tan santo y bueno el matrimonio*

demás obras de la vida no debe hacerse de repente y temerariamente sin consejo ni madurez. Y sin atender â agradar â Dios y conseguir el fin para que nacimos que es servirle, para el acierto en cosa de tanto peso y monta, debía el que quería tomar estado confesarse y ponerse en gracia de Dios y pedirle por muchos días luz y acierto en lo que
35 más le conviene: en el estado que quiere tomar, comulgando por este fin muchas veces y haciendo otras obras del servicio de Dios.

Mirensen con reflexión y sin pasión la christiandad y demás circunstancias de la persona con quien se quiere casar y consultense las dudas con sugetos experimentados, prudentes, desapasi[o]nados y sígase su sano consejo, que así acertarán y lograrán un
40 buen estado segun Dios. Para que los <367> casados sean fieles y teman los terribilísimos castigos de Dios oigan este exemplo.

[*alboan*: Belarm. año virg. â 5 octub.] Un caballero noble de la ciudad de París vivía mui distraido en vicios y pecados de mugeres. Tenía una muger de mucha virtud, a quien no guardaba fidelidad; la qual no pudo lograr de su marido la enmienda. Y llegó a
45 tanto por sugestión de Satanas, que discurrió la buena muger ser traidora á su marido. Pero no consintió, y sucedió que estando batallando con esta tentación, estando dormiendo una noche, fue llevada en espíritu al ynfierno; y vio en él las penas de los deshonestos, los cuales estaban en unos hornos de fuego. Abrazábanlos unos dragones fuertemente que, enroscados por todo el cuerpo, los ataban [*alboan*: Vease más en
50 Belarmino] sin que pudiesen defenderse ni menearse. Salian por sus ojos, narices y bocas llamas de fuego, tan hediondo que ponía horror sólo mirarlo. Pasó adelante, y vio un horno más terrible que los passados, estaba vacío y la dijeron que allí sería atormentado su marido por ser mui dado â deshonestidades. Comenzó a afligirse tanto que despertó con muchas lágrimas, dando gracias de que no hubiese caído en pecado
55 que tenía tan terribles castigos. Y compadecida de su marido dio quenta de todo â nuestro Padre Santo Domingo que entonces predicaba en aquella ciudad. El Santo la consoló, y para el remedio la dio un rosario de nuestra Señora exortándola que la rezasse con mucha devoción, y se lo pusiese de noche debajo de la cabezera de su marido sin que él lo viesse ni lo supiese.

60 Hízolo y a la primera noche despertó su marido llorando sus pecados. La segunda noche despertó lo mismo, llorando y pidió perdón a su muger de la poca fee que la había guardado, de que se alegraba mucho su virtuosa muger. La tercera noche fue llevado al ynfierno como su muger. <368> Vio el castigo que se le estaba

42. *Aunque es tan santo y bueno el matrimonio*

65 preparando y todo lo demás que vio su muger. Causole grande espanto de que despertó
despavorido con mayores lágrimas y dolor de sus pecados y pidió perdón a su muger
con gran proposito de la enmienda. Ella le dio quenta que por medio del rosario había
venido tanto bien y por su consejo hizo una confesión general con nuestro Padre Santo
Domingo. Y vivieron en adelante mui christianamente. O si este exemplo se
ymprimiesse en todos los casados &a.

365 3 *prefiere*: jat. *prefie / ere*, lerro bitan. 9 *a sesenta*: lehenengo a honen azpian zerbait irakurrezin dago. 14 *su*: amaieran tatxoi bat, irakurrezina. **366** 22 *Yerran*: leh. *Yeran*, r gainean gehitua. **367** 60 *sus*: aurretik los, tatxaturik. 63 *llebado*: jat. *llebada*.

4. *Viciyo capitalen explicaciñoa*

<377>

Dire saspi, soberviye, avariciye, lujuriye, gorrotoa, gulea, embidiye eta naguitasun[e]

Pecatu capitalac dire saspi, gueiyetten yate capitalac direalaco yturriyec edo buruic beste pe[c]atuenac. Dire capitalac direalaco sustreiye, baye corrompidue,
5 seinetari jaiyoi ten direan frutu pestilencialac gustitara sabalduiten direanac.

Lelengo viciyo capitala: Sobervia

Viciyo ynfernaloen lelengoa da soberviye; ondo merecitan dau lelengo lecue botebesalaco Cerureanic Luzbel principe arroganteari siguidu eusen espiritu desdichedu gustic, eta da lelengo Infernue poblau ebena. Da Soberviye apetitu
10 desordenadu bet yseiteco preferidue besteai, seinegas presumitan daben guisonac dan beno gueiyego, da orregaiti gure dau egon besteac beno estimeciño e gueiyegoan eta es euqui bera beño andigoric da es ygualic. Ama desdichedaoneganic yayioiten dire iru alaba desgracidac: da lelengoa presunciñoa, au de apetitu desordenadu bet eguiteco nobere aleguinec alcanzetan daben beno gueyiego; da biciyoa Jangoicoac gustis asco
15 aborrecitan dabena eta bere bai guisonac: ya dala yaquiturian edo ya virtutetan, obra onac eitean, edo ya dala osteranseco edosein gausetan. Soberviyen bigarren alavea da ambiciñoa, sein den apetitu desordenadu bet seinegas deseetan daben batec merecitan daben beño dignidede edo honrra andigoa. Yrugarren, bere ama ondo dirudina arpeguin da banagloriye, onen fine da manifestetea nobere excelenciye alabetan dala nobera: ya

43-3 *gueiyetten*: ‘deitzen’ (ik. 2-94 *gueiyeten*; formaren zuzentasunaz, cf. 5-18, 7-25...). **43-5** *jaiyoi ten*: hitz hasierako <j> grafiaz, ik. 2-10 *jaiyoitea*. || *frutu pestilencialac*: ‘fruitu kirasdunak’ (gazt. *pestilencial*). **43-7** *ynfernaloen*: 1. graduko artikulu hurbila, ik. 1-30 *gustiyoen*. **43-9** *lelengo infernue poblau ebena*: ‘Infernua poblatu zuen lehenengoa’ erlatibo esaldia izen sintagmaren ostean (cf. § 4.2.4.4). **43-11** *orregaiti*: hau bezalako -k gabeko motibatibo atzizkia 6 adibideetan baino ez dugu aurkitzen sermoitegi osoan zehar, ik. § 4.2.2.2 (cf. 7-22 *segaiti*, 28-54 *bigaiti*, 33-98 *orregaiti*). **43-12** *yayioiten*: horrela eskuizkribuan, akatsa izan daitekeen arren, epentesiak idazteko ohitura falta ere sala dezake. **43-14** *alcanzetan daben*: konparazio sintagma (kasu honetan erlatibo esaldia) mugagabea dakar idazleak. || *gustis asco*: EKC-ren arabera (*guztiz asko*) Bizkai eta Gipuzkoan XVIII. mende erdialdetik aurrera lekukotzen den esapidea. **43-15** *yaquiturian*: XVIII. mende erdialdetik Bizkaiko testuetan lekukotzen den hitza (*OEH*, s.v. *jakituria*). **43-18** *bere ama ondo dirudina*: *iruditu* hemen “representar” adiera izango lukeelakoan gaude, adiera honetik Añibarrogandik lekukotzen dena (*OEH*, s.v. *iduritu* 4).

43. *Viciyo capitalen expliqueciñoa eta Lelengo viciyo capitala: Sobervia*

20 dala gause onac gaitic edo ya dala gause deungac gaitic. Noberac jactanciye edo
alabansa eitea gause on eguin dabesanac gaitic da pecatu beniala; baye gause deungue
eguneac gaitic, badire gause pisucoac da pecatu mortala eta isenic gause lebeac veniala.
Soberviyen contra dago humildedea, sein den virtute bat seinegas esc[ogitan] dan
nobera eta despreciyeu; eta da gause ciertue, guisonac badauco [ve]re esauerea, dauco
25 principiyo ona iseiteco humildea. Beguiretuiten <378> badosu, christiñeu, seure
gorpusen eta arimen miseriyeetara, seinsuc direan asco: seure inclineciño deunguetara,
eguin sendusen pecatu asco, eguin dosun obra on guichi eta se falta ascogas servitan
dosun Jangoicoa, euquico dosu motiburic bastante iseiteco humilde eta es sobervioa;
eta acaso eguiten badosu edosebere gause ona, pensadu eguisu seinbet ynperfecciño
30 dauquen orrec gauseorrec seineri derechasun dala ona, eta dauquesun ontasuna dala
Jangoicoena eta es seurea. Eta ese sates alsau altivu Jangoicoac emaiten deususun
doeacas, atendidu eguisu ser dan seurea: seureac dire ynperfecciñoac eta faltac. Eta
humildetu saite eurec gaitic, es eguisu deseadu iñoc alabadu saguisela: ultrajau eta
menospreciyetan daudenean bat exercitetan da humildea. San Juan Chrisostomoc
35 soberviyeco viciyoagaitic diño veragaitic boteebela Paraysureanic lelengo guisona sein
isen san Adan, eta soberbiyegaitic boteeben Ceruric Luzbel vere lagunecas Ynfernure.
Esta marabille iseitea viciyoen artean lelengo lecue dauquena, bada, bere maliciyec
yausi eraguin eusen Ceruen eta lurrean lelengo lecuic ocupetan eudesanai. Comparadu
ebesan sobervioac eta vanuic Jangoicoac queagas: *isti fumus erunt in furore meo*
40 (Ysayas). Gure badosu yaquin motibue, expliquetan dau San Agustinec: *fumus extollit
se tanquam in Caelum, sed quanto fit superior, tanto facilius evanescit*. ‘Cerure dirudi
gure dabela eldu queac, baye seinbet altugo alzetan dan, facilego desvanecitan da’. Alan
sucedidu yaten Luciferreri eta Adaneri, seinsuc euqui eudesan queac ygoiteco Ceruco
dibinidedera, *conscendam in Caelum, et similis ero altissimo*, baye yausi sirean biyec
45 dignidederean seinetan Jangoicoac criyedu ebesan, gueratuiten sala desvaneciduric
euren pretensiñoa quea legues. Ô soberviye ynfelice! Ser servitan deusue seure
pensamintu altuic, lograu arren ori altutasunori, experimentetan badosu
egunean-egunean yausquera andigoa eta desdiche andigoa. Comparetan da soberviye

43-21 *gause on eguin dabesanac gaitic*: ‘egin dituen gauza onak gaitik’, erlatiboa izenaren ostean (cf. § 4.2.4.4). **43-23** *esc[ogitan]*: tinta lausoturik dagonez ezin da irakurri. **43-28** *motiburic bastante*: *bastante* hitzaren aurrekaria partitiboaz erabilia. **43-29** *acaso*: ‘beharbada, agian’ (gazt. *acaso*). **43-33** *saite*: -z gabeko agintera forma zaharra (cf. § 4.2.3.3). **43-43** *euqui eudesan queac ygoiteco*: objektuaren izena faltako litzateke esaldi honi ‘euqui eudesan queac ygoiteco [ohitura]’. **43-48** *yausquera*: Añibarrotik aurrera lekukotzen den hitza, Bizkaiko sartaldean lekukotua (*OEH, s.v. jauskera*).

43. *Viciyo capitalen expliqueciñoa eta Lelengo viciyo capitala: Sobervia*

aseagas, seinetaric arsaiten daben vanidedeen usena; gause yaquine da se aseac seinbet
50 altugo topetan daben ause daroa lasterrago, eta guisona dan legues ause peligru andigoa
dauco seinbet altugo alzetan dan bere soberbiyegas. Orregaitic escatuiten eusen Dabid
profeteac Jangoicoari: *non veniat mihi pes superbiae* ‘Jaune, ese bequit etorri soberviyen
oiñe’. Segaitic gueiyeten deuso profeteac oiñe soberviyeri? Errazoa ascogaitic seinetan
dagoan do[c]trine <379> andiye. Comparetan da soberviye oiñecas segaitic soberviyoac
55 estauco bururic; oiñec dirudi soberviyec, segaitic selan gorpuseco oiñec daroesan
mienbru gustic, soberviyeenac sustentetan ditues viciñoac gustic. Oinen irudico da
soberviye; segaitic ese, selan oiñec dabilsen lecu gustiye salpaduiten dauden, alan
soberviyoac aurquituiten direan edosein lecuten iminten daudes ostico edo oipetan beste
gustiye. Oi bet bacarric señaletan deuso David profeteac soberviyeri, orregaitic
60 soberviyoa dabil coxo eta guichiten dago firme seinde yausten estan. Escatuiten deuso
profeteac Jangoicoari libreu deguila soberviyen oiñereanic, segaitic ese caminetan
dabenac iminten dau oi bet aurrera echiric bestea asera, eta discurriran dot au dela
soberviyen oiñe, seinetaric deseetan dau Davidec Jangoicoac libreu daguila; dalaco
gustis aborrecidue soberviyoa, gure dabelaco ocasiñoec gustitan eta empeñu gustitan
65 bacarric aurreti eta asera echi beste gustic. Gustiye soberviyen ethimolegiyegas
conforme bada; diño San Ysidoro *superbire est super alios ire*, segaitic ese soberviyoa
vanidedea aseac eroanic gure dau veste gustic beño altugottico egas eguin.

San Geronimoc diño, Santa Pauleen virtute eta perfecciñoegaitic, diño:
fugiendo gloriam merebatur, quæ virtutem quasi umbra sequitur, ‘seinbet gueyyego
70 iñes eiteeben munduco honrra eta alabanzaetaric, ainbet honrra andigoa conseguitan
eben’, virtuteari darraiylolaco estimeciñoec, selan gorpuseri guerisea, eta gause ecusten
dana da selan gueriseac yarraituiten deusen iñes eiten dabenari beraganic, eta iñes eiten
dau berari yarraituiten yacanari. Lomismo suceditan da estimeciñoecagas eta honrreagas,
eta soberviyoac vere sentidu gasticas yarraituiten deusen legues honrreari eta
75 estimeciñoecari, dabilen legues euren asean, estitus logretan, estitus alcanzetan. Enfin,

43-49 *aseagas*: ‘haizearekin’. **43-52** *ese bequit etorri*: ‘ez bekit etorri’, eze ezezko markaz (ik. § 4.2.4.10). **43-56** *viciñoac gustic*: berez espero ez den testuinguruan artikulua darabil (cf. § 4.2.4.3). **43-57** *salpaduiten*: ‘zapaltzen’, adibide bakarra izanik, ez dakigu akatsa ote den ala metatesidun forma den, euskaraz ozenak mugitzeko joera dagoela gogoratuz (Egurtzegi 2011: 30) (cf. 26-56 *salbaduiten*). **43-58** *ostico edo oipetan*: ‘oinpean’ ik. 16-122 *osticopetan*: (cf. *OEH* s.v. *ostiko*) eta 1-95 *oipetan*. **43-60** *coxo*: ‘herren’, <x> grafiak [x] ahoskera adierazten du cf. 1-86 *cosidu* eta § 4.2.1.4. **43-66** *San Ysidoro*: San Isidoro Sibiliakoa, VI-VII. mendeko idazlea. **43-67** *altugottico*: ‘altuagotik’, -*ti* prosekutiboia eta -*ko* segida genuke (cf. *EGLU I*: 381 e. hh.). **43-68** *San Geronimoc diño, ..., diño*: errepikaturiko aditza akatsa izan zitekeen; alabaina, ezin dugu ahaztu indartzaile erretorikoa ere izan daitekeela. **43-71** *darraiylolaco*: ‘jarraitzen diolako’, *jarraitu* aditzaren trinkoa.

43. *Viciyo capitalen expliqueciñoa eta Lelengo viciyo capitala: Sobervia*

ensun begui soberviyoac ser diñoan San Gregoriuc: *aperte cognoscimus, quod evidentis[s]imum reproborem signum superbia est, at contra, humilitas electorum* ‘desengaña saites soberviyoa, diño santuic, se soberviye orretan daroasu condenaduen señale evidentea’. Eta esta marabille, segaitic ese divisea Luciferena eta señalea
80 seinegas marquetan ditusen bereac da soberviye; eta alan erresqui esautuco dau soberviyo ynfelicec, se peleaduric Lucifer soberviyoen bandera beten dala berea, eta pag[au]co <380> deuses serbiciyoac eroanic Infernuco tormentuitara.

Alcontrario (yguero gatean humildedeco virtutera), humildeac dauque predestineduen señalea, segaiti au de Ceruco erreguen divisea edo señalea seiñegas
85 dauquesan marcauric bere escogiduic Cerureco. Bada, isen san virtute dibinu onen continuamenteco maisue: orregaitic diraoscu *discite a me quia mibis sum et humilis corde*. (San Math) ‘yquisi egisue niguenic nasalaco humildea eta mansoa biosagas’. Estimeduric adinebeste humildedea escogidu eben ama humildea, vere jaiyesaraco escogidu eben estrami bateco lecu gustis humildea, humildea eta obedientea vere Ama
90 Santisimeagasco eta San Josephagasco. Pescadore humilde eta pobreac escogidu ebesan bere lagunset, humilde bere eta es eben gure alabadu leguiyen; eta enfin, isen sana vere bisise gustin aen humildea, eracusi ebesan bere humildedeen demostraciñoeric andiyeenac bere eriosan; bada, il beño pisquet bat leenago echun sen Judesen oiñetara eta espireu eben curce afrentosoan. Humildea da Gueure Erredemptorea, da humildea
95 bioses: *humilis corde*, seinden humildede profundu eta eguiyescoa da es aparentea, seinden humildede falsoa, isen sana legues filosofo gentileena, seinsuc euren obretan eracusten euden canpotico humildea, baye barruin biosean euquen soberviye. Es euden alcansau filosofoac euren menospreciyo eguiyescoa, seinetan dagoan humildede viosecoa; au de robetan deusesana Jesuchristori vere atenciñoac, au de virtutea sein
100 estimetan daben adinebeste. Yrecasi ebesan virtute gustiyen artean, maisu dibinue legues, munduonetan especialmente encarguetan deuscu yquisi deigule veraganic au virtuteau (*discite a me &a.*), orregaitic doa bere biosa humildeen asean betetan ditusela favores eta Ceruco ondasunes despachetan deusela laster euren erregüic eta escariyec, esan eben legues misteriosamente David profeteac: *respexit in orationem humilium*

43-79 *marabille*: atributua mugagabea dugu. **43-84** *segaiti*: hau bezalako -k gabeko motibatibo atzizkia 6 adibideetan baino ez dugu aurkitzen sermoitegi osoan zehar, ik. § 4.2.2.2. (cf. 7-22 *segaiti*). **43-89** *estrami*: ‘estramina, estrabi’ (ik. 5-58 *estrami*). **43-93** *pisquet bat*: (cf. *pisquet bat* 4-70, 6-34, 16-129...) *bat* ondoren idatzirik egonik, ziurrenik *pisquet* azpian ‘pisquet bat’ esapidearen uzkurdua legoke. **43-95** *isen sana legues*: Moduzko perpausa erlatibozko mugatuarekin (cf. Zuazok 1988: 371 eta Lakarra 1996: 297). **43-98** *filosofhoac*: *ph-* grafia etimologikoarekin gurutzaketa dugu hemen.

43. *Viciyo capitalen expliqueciñoa eta Lelengo viciyo capitala: Sobervia*

105 ‘beguiretu eusen Jangoicoa[c] humildeen oraciñoai’. Dirudi esan bear ebela Jangoicoac ensun ebela humildeen oraciñoa; bada, propiamente ensuten dala oraciñoa, es ecusi: segaitic Profeteaac estiño ensuten dabela Jangoicoac eta diño ecusten dabela humildeen oraciñoa? Esque <381> gure eben manifestau se laster despachetan ditusen Jangoicoac humildeen oraciñoac. Diferenciya dago ensutereanic eta ecustera, se
110 velarric tardetan dau percibitaco sonue: alan experimentetan da egurre ebaten dagoanean bat urrunean, tardetan dau elsaiten gure belarritara; ecusi barris, eitten daude instante baten gure beguiyec golpea. Orregaitic profeteac, berva eguinic gueure modure, yaquinic se pronto despachetan ditusen humildeen oraciñoac diño Jangoicoac beguiretuiten eta dacusesala humildeen oraciñoac: *respexit in orationem humilium*.
115 Beste razoa bategaitic esan lei veguiretuiten deusela Jangoicoac humildeen oraciñoari, segaitic humildeac es bacarric verba eiten dau, baite bere obrau; eta doasan legues vere berbac obracas batera, orregaitic vere oraciñoa es bacarric ensuten dau Jangoicoac espada vere veguiretuiten deuso: *respexit in orationem humilium*. Alcontrario diño Jangoicoac Ysayas profeteen aoti, verba eiten dabela soberviu bategaitic: *superbia tua*
120 *ascendit in aures meas*. Sobervioari emen ensuten deuso, es aitu, segaitic esse sobervioen grandeza banue estago obretan espada verbetan: esan asco baye obrau guichi, verba asco da obra guichi, eta vere iseitea dan legues vanidedeco puse edo asea, orregaitic ensuten deuso baye es beguiretu.

Yminsu, christiñeu, cuidedue arranquetaco seure biosereanic soberbiyen viciyo
125 ynfernala eta iminteco seure biosean humil dedeco virtutea, eta porsiacaso, consideretan eben legues San Agustinec, demoniñoac, seinden soberviyen aite, esaten badeusu: *ecce omnibus melior es verbo, scientia, divityis, honoribus* ‘suc aventajetan deusesu gustiyei eloqüenciyan, sabiduriyan, ondasunetan, honrran’, *cunctos ergo despice, cunctis temetipsum superiorem a[t]tende* ‘eta despreciyeu eguisus eta eracusi seure burue gustic
130 beño andigo’. Siacaso iminten badeusu demoniñoac tentaciñoeau, consideradu eguisu San Gregoriuc diñoana: *cum enim augentur [dona], rationes etiam crecunt donorum*. Seinbet doe emon deusun Jangoicoac, alan isengo da contu emongo deusesune bere andigoa, eta sor dosu iseitea humildeagoa eta prontoago egotea Jangoicoa servitaco.

43-105 *humildeen oraciñoai*: -ai datibo singularra dugu, ikusita itzulitako *orationem* singularra dela (cf. § 4.2.2.4). **43-107** *Profeteaac*: azaldu ezin dezakegun <aa> bikoitzen adibidea dugu hemen (cf. § 4.2.1.5). **43-110** *ebaten*: ‘ebakitzen’, aditz-izen molde hau Landucciogandik ezagutzen da mendebaldean, baina XIX. mendera arte ez da berriz lekukotzen (*OEH*, s.v. *ebaki*). **43-114** *dacusesala*: ‘ikusten duela’, *ikusi* aditzaren trinkoa. **43-124** *Yminsu*: ‘ipini ezazu’ *imini* aditzaren agintera trinkoa, luzaroen iraun bide zuten adizki trinkoak (Mounole 2011: 340).

43. *Viciyo capitalen expliqueciñoa eta Lelengo viciyo capitala: Sobervia*

Seinvet reconocitan sarean obligueduric emaiteco contu estue doena; Jangoicoac emon
135 eususen <382> eta recibidu basendusen bere escu liberalreanic, setara dauquesu
vanidedea espaisendusen legues recibidu: *si autem accepisti quid gloriaris quasi non
acceperis.*

Contetan dau Surioc abad santu Severinoc euquesala bere monasteriyoan yru
erreligioso vanu soberviyoac, acusedu ebesan eta perseveradu euden euren viciyoan;
140 escatu eusen Jangoicoari corregidu leguisela castigu betegas gueratu litesansat
enmendaturic eta humilde. Ensun eben ain laster Jangoicoac vere siervun oraciñoa se
oraciñoereanic alzau beño leen apoderadu sirean yru religios[o]etaric yru demoniyo
seinsuec atormentetan situes fuertemente, confesetan eudela guedarres publicamente
afligiduric sireala, atormentaduic razoeagas, euren soberviyegaitic. Egon sirean alan
145 berrogu[e]i egunean eta arrasquero escatu eusen santuic Jangoicoari libredu leguisela
demoniñoen poderiyoereanic; alan concedidu eusen gueratu sitean sano gorpusea da
ariman eta ondo humildeduric castigüigas.

377 2 *Naguitasun[e]*: orriaren hertsea hautsita dago. 3 *yate*: gainean gehitua. 11 *estimeciño*: leh. *estimeciño*, *e* gainean gehitua. 13 *desgracidac*: leh. *desgracida*, *c* gainean gehitua. 20 *ya dala*: aurretik *g* dugu, tatxaturik. 21 *alabansa*: jat. *alabanse*. 23 *esc[ogitan]*: Higatuegi dagoenez ez da tintarik ikusten. 24 *[ve]re*: Higatua dagoenez ez da aurrekoa ikusten. **378** 30 *dauquen*: jat. *dauqquen*. 34 *bar*: gainean gehitua. 36 *Luzbel*: leh. *Lucifer*, *zbel* azpian *cifer* irakurtzen da, eta gainean *bel* gehitua. 39 *Jangoicoac*: leh. *Jangoicoa*, *c* gainean gehitua. 43 *queac*: leh. *que*, *ac* gainean gehitua. 44 *conscendam*: jat. *conscendan*. 46 *Sobervie*: *v* azpian zerbait dago, irakurrezin. 47 *lograu*: leh. *logra*, *u* gainean gehitua. || *arren*: jat. *arren*. 49 *daben*: gainean gehitua. 50 *andigoa*: leh. *andigo*, *a* gainean gehitua. 51 *escatuiten*: leh. *escatui*, *ten* gainean gehitua. 54 *do[c]trine*: Hertzean egoteagatik ez da *c* ikusten. **379** 55 *gorpuseco*: leh. *gorpuse*, *co* gainean gehitua. 60 *dago*: jat. *dado*. 72 *Yarraituiten*: *-tu-* ren azpian zerbait dago, *-ten?* || *deusen*: gainean gehitua. 73 *yarraituten*: leh. *yarruiten*, *ai* gainean gehitua. 79 *Luciferena*: bigarren *e* honen azpian *r* irakurtzen dugun. Aurretik *seinegas Lu*, tatxaturik. 82 *pag[au]co*: *au* orrialde amaieran egonik, letrak borrraturik daude. **380** 92 *humildea*: gainean gehitua. 93 *bar*: gainean gehitua. || *echun sen*: lehen *echensun*, *u* eta bigarren *e* gainean gehitua. || *Judesen*: leh. *Judese*, *n* gainean gehitua. 95 *eracusten*: leh. *eracuten*, *s* gainean gehitua. Bestalde, *c* aurretik letra bat dago tatxaturik, *s?* 99 *adinebeste*: jat. *adibeneste*. 103 *profeteac*: leh. *profetea*, *c* gainean gehitua. 106 *dabela*: amaieran ? seinua dakar, tatxaturik. **381** 110 *eitten*: *tt* bikoitzaren azpian *n* irakurtzen dugu. 113 *oraciñoac*: jat. *oracinñoac*; *-inño-* ren azpian zerbait dago, irakurrezina. 114 *vequiretuiten*: *vequiretuoten* ere irakur daiteke. 116 *ensuten*: aurretik tatxoi bat dago irakurrezina; *eu*? 131 *deusun*: *s* azpian *-ns-* irakurtzen dugu. 132 *Jangoicoa*: leh. *Jangoico*, *a* gainean gehitua. || *contu*: aurretik marra bat, zerbait tatxatuz. **382** 137-146 *Contetan dau*: Hemendik eta amaiera arte letra tipoa aldatzen da. Gure ustez idazle bera da, baina azkarrago idazten du, letra handiagoarekin eta lerroak banatuago idatziz. 138 *yru*: jat. *yru yru*.

43-134 *contu estue*: ‘kontu zorrotza’ (cf. *OEH*, s.v. *estu* 2). **43-136** *espaisendusen*: baldintza protasi hipotetikoek konparazioko posposizioen komplementu direnean, *bait-* aurrizkia erabil dezakete (Mounole 2011: 237), adibide honetan legez (cf. § 4.2.3.9.1). **43-138** *Surioc*: ik. 16-134 *Surioc*. || *Severinoc*: San Severino Noricokoa, V. mendeko predikari eta abadea.

<383>

Bigarren viciyo capitala: Avariciye

Avariciye da ondasunen apetitu desordenadu bet eta da modu bitecoa: bata da deseetea edo quensaitea besteena, ya dala engañuigas, trampa edo lapurreriyacas. Beste avariciye da, es gure iseitea iñori eser ostu, bay[e] euquitea aficiñoel lar ondasunetara, 5 iminiric bioz gustiye ondasunera. Onetaric lelengo avariciye da pecatu mortala. vigarrena bere isengo da aficiñoel desordenaduegaitic ausiten baditus Jangoicoen legueco mandamintuic edo Elesacoac, falttauric christiñeuen obligueciñoetara eta proximuegasco caridedera. Lelengoa isengo da pecatu veniala danean gause leuea edo pisu guichicoa, edo falta danean veiar dan advertenciye pecatu mortaleraco. Vigarren 10 avariciye da pecatu veniala dauquenac aficiñoel lar ondasunetara eta convenenciyetara, estabenean ausi gure Jangoicoen leguea eta es faltau bere caridedera socorrietaco proximue legueac obliguetan dabenean.

Dire munduco ondasunec indiferenteac alan oneraco sein deungueraco, eta selan servitan daben escallereac ygoiteco eta basetaco, alan dirue edo ondasunec, ondo usetan 15 badire, dire escallerea ygoiteco Cerure, baye deunguero usetan badire serbitan daude bacarric Ynfernure yasiteco. Prodigalidatea, sein den avariciyen viciyo contrariyoa, da es conservetea nobere ondasunec eta excesoagas repartitea besteai. Da pecatu veniala, chiquirregoa avariciye beño, segaitic guichigo apartetan da liberalidadeco virtuteaganic. Ysen leiteque mortala prodigalidatea lar gasteteagaitic, emastea eta humeac gueratuiten 20 badire pobrezan edo esin pagadu badosus seure sorrac gasteteagaitic excesoagas.

Avariciyen alavac dire onec: lelengoa da bioseco gogortasune, seinegaitic avarintuic estauco pobreen eta necesiteduen erruquiric, antes estutuiten ditus gueyyego estauqueenean segas pagadu. Onegaitic eiten da ascotan pecatu mortala, obliguetan dabenean <384> limosnea eiteco mandamintuic eta gogortasunegaitic estanean eguiten; 25 onetaric datos escuse edo pretesto omaiten daudesanac aberasac es socorritaco pobreac, ponderetan daben legues San Basiliuc. Diño avarintuic: “ni bere pobrea nas”. “Gause

44-4 bay[e]: hurrengo hitzaren e-k eragindako haplografia. **44-5** bioz: txistukari guztietarako <s> grafia darabilen arren, <z, c> ere badarabil adibide bakan batzuetan (cf. § 4.2.1.4). **44-15** dire escallerea: akatsa legez hartzen ez badugu, eskailera berez plural balioa izango luke, morfologikoki singular izan arren. **44-20** esin pagadu badosus: indikatibozko laguntzailearekin egindako potentzial perifrasi, ezin partikulak ematen diolarik potentzialtasuna perifrasiari (cf. § 4.2.4.6). **44-25** omaiten: ‘ematen’, cf. 1-54 omaiten. **44-26** San Basiliuc: San Basilio Zesareakoa, ik. 21-15 Basilio Doctoreac.

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

clarue da sareala, diño santuic, segaitic ese mendigüe satisfacitan da tilinque bategas eta sure egarriye esta quensaiten yseso gustigas”. “Estago bastante gustireco”. “Yansiten dosus ormac eta estago trapu sar bat pobreensat ecusiric dabilse la billosic?” “Estaquit, eldu neiteque neu bere ateric ate ibiten esquean?” “Guichigo, daquisu useuco dosun ala es recogidu gure senduin dirue”. “Dauquedas humeac eta echi gure dodas acomodaduric”. “Eta sure arimea yoan asquero mundu onetaric, ongo da gustis acomodaduric? Gure dosus gueratu ditean seure umeac aberasac eta seure arimeac urten daguila pobre?”

35 Avariciyen bigarren alavea da vioseco ynquietudea, sein den apliqueciñoea andiye eta desordenadue batuiteco ondasun asco eta gordetaco, daroeala beti vere entrañetan astille bat atravesaduric eta betico aiye lograduco direan deseetan direanac edo galdu gozetan direanac. Da pecatu mortala beragaitic estanean cumplitan Jangoicoen mandamintuicas edo Elesacoacas. Oneri siguitan yaco beste avariciyen
40 alava bat bere ama bisen deunguea, sein den violenciye; au de, áfuerza obliguetea, eta da pecatu mortala danean ynjustoa, razoabacoa eta pisu andicoa, gause deunguea. Veste bat dago, dana engañue saldu-erositan, gauseen qüalidedean edo pisuin edo medidan. Veste avariciyen alava ynfeme bat da traiciñoea, eta da engañu perjudicial bat batec emaiten dabeneen verbea es cumplitea: ya dala manifestauric secretoa encargaduric
45 egon asquero gordetaco esilic, eta da pecatu mortala perjuiciyo gravea edo pisu andicoa siguitan danean; da vere traiciñoea <385> salsaiten danean personea, Judesec saldu eben legues Christo, ynteresagaitic.

Avariciyen contraco virtutea da liberalidadea, seinegas empleetan direan ondasunec gause provechosoetan. Liberalidedeac, iseiteco virtutea, veiar ditus euqui
50 circunstanciye onec: lelengo da es emaita persona lisongeruei, farsanteai; vigarrena, aitu bear da emaita ysen dila proximuen provechureco emaiten dan gausea; bada, empleetan badau viciñoan, ordituiteco edo osteranseco viciurean baten, esta omaiten dana errecibitan dabeneen provechureco, espada perjuiciuraco. Yrugarrena, bear dau atendidu cantidedean, segaitic ese espadauco modue omaitean esta ysengo liberalidadea
55 espada prodigalidadea (San Ambrosio: *pulchra liberalitas, etiam erga pauperes tenere mensuram*). Laugarren, emaita isen dila secretoan (Yesus: *nesciat sinuistratua quid*

44-30 *ibiten*: ‘ibiltzen’, (cf. 30-30 *araguic erdi-aguirin erabitea*) honen parean sei *ibilte-* baditugu eta adizkietan ere ez dugu [I] galtzen: *sabils, darabilde, dabil*... hala baina, *erabitea* ikusita, ahoskeraren isla izan daiteke *mutil* > *mutiko*-ren (FHV § 16.10) antzera. 44-37 *aiye*: ‘aienea’ (gazt. *ay*). 44-40 *bisen*: ‘baizen’, ik. 10-115 *esan bat bisen*. || *áfuerza*: ‘indarrez’ (gazt. *a fuerza*). 44-42 *saldu-erositan*: ‘salerostetan, merkataritzatan’. 44-44 *dabeneen*: ‘duenaren’.

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

faciat dexteratua), bada, emaiten bada alabadu daguiyentsat esta virtutea, espada pecatue. Bostgarrena, emongo dana emaita berlan (proverbio: *qui cito dat, bis dat*). Casu asco da logretan dan mesedea luse bideagas, eta erregüen puruen guerorengo
60 circunstanciye da emaita arpegi alegreagas (Ecclesiastico cap. 33: *in omni dato hilarem fac vultum*); bada, gana charragas omaiteac galsaiten dau merecimintue.

Da avariciye vere alavacas gause deungue gustiyen sustreya, diño Apostoluic: *radix omnium malorum, cupiditas*. Fingidu euden gentilec Platon sala ondasunen jangoicoa eta verbera sala ynfernuitaco jangoicoa. Eguiye dauque estalduric euren
65 fabulan; bada, lomismo da deseetea isutasunegas ondasunec seinde deseetea Ynfernue. Emen esan eben Pliniuc: *in viscera terræ opes quærimus illæ nos ad Inferos agunt* ‘topetan dire ondasunec lurren entrañetan seinen ondarrean dagoan Ynfernue’. Entendiu dinsat selan codiciye berac, seinec darocean bat direan urregorriyeen asean, <386> berberac guiyetan dabela bide artesa Ynfernureco. Seinbet eta seinbet yoango
70 sirean Ceruetara, espaleude euqui aen oraturic euren biozeco lurrean au codiciyen sustrei infernalau! Serviu begui prueba eta exemplarsat San Matheo apostoluic contetan daben guison gaste desdicheduenac: (cap. 19) eldu sen preguntetan Christori: *quid boni faciam, ut habeam vitam æternam* ‘ser eingo dot, Jaune, alcanzetaco Ceruco gloriye?’ Eransun eusen Maisu Dibinuic: “logretaco dichau gorde eguisus mandamintuic; aude, es
75 eguisu eriosaric, es eguisu adulteriuric, es eguisu eser ostu, es eguisu falso testimoniuric eregui, honrradu eguisus aite ta ama eta amadu eguisu proximue seure burue legues”. “Ondo dago Jaune, esan eusen guison gasteac, esan dosun gustiori gordetot eta cumplidu dot neure gastetasunereanic” *omnia hæc custodivi á yuventute mea, quid adhuc mihi deest*. “Bada, orain ser falta dot?” Ya proseguitan dau esaten Dibinu
80 Maisuic: *si vis perfectus esse, vade, vende quæ habes, et da pauperibus* ‘gure badosu isen perfectoa soas, saldu eguisu dauquesune eta emon eguiyesu pobrei’. Ensun ebenean au Christoen aoreanic guison gasteac, diño Texto Sagraduic yoan sala tristeric: *abiyt tristis*. Christoc escatuiten deuso siguiu deguiula, eta bolvitan deuses espaldac? Ser isengo da onen causea? Texto berac expliquetan dau prosiguitan dabesan verbetan:
85 *erat enim habens multas pos[s]es[s]iones* ‘san guison gustis aberasa, euquesana posesiñoe asco’; baye euquen bere vioza aen iminiric euretara se es eben valoreric

44-59 *luse bideagas*: ‘bide luzeagaz’ (adjektiboaren kokapenaz, ik. 15-88 *ustel pedazu*); *luzabide/luzebide* hitza existitzen den arren, esanahiak ‘demora, dilación’ (cf. *OEH*, s.v. *luzabide*) ez luke inolako erlaziorik testuarekin. **44-65** *isutasunegas*: ‘itsutasunarekin’. **44-70** *biozeco*: ik. 44-5 *bioz*. **44-75** *eguisu*: ‘egin ezazu’, *egin* aditzaren trinkoa. **44-77** *gordetot*: ‘gordetzen dut’, aditz uzkurduraz (cf. § 4.2.3.11).

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

echiteco, eta es echitarren ondasunei echi eusen siguitea Christori eta Ceruco bideari, seinen asean ebilen leen.

Se tentaciñoē terriblea direan guisonen viozensat munduco ondasunec eta
90 convenenciya! Desiertuin tentadu eben demoniyoac Jesuchristo iru bider: lelengo
guleagas, *Dic ut lapides isti panes fiant*; vigarren vanagloriyegas, *angelis suis mandavit
de te*; irugarrenas eta <387> gueroingo, avariciyegas: *hæc omnia tibi [dabo], si cadens
adoraberis me*. Gustitan gueratu sin venciduric espiritu ynfernala. Ecusiric demoniyoac
yrugarren tentaciñoegas es ebela ateraten victoriric Christoganic, diño Texto Sagraduic
95 retiredu sala demoniyoa, iñes eguin ebela; *tunc reliquit eum Diabolus*. Bada, segaitic
estau proseguitan demoniyoac vere tentaciñoecas aurrera? Selan retiredan da? Esque
irugarrenes imini eusen guerra ondasunecas, eta ecusiric esin vencidu ebela
avariciyegas, retiredu sen declaretan sala venciduset, eta eracusten ebela se vencitan
ebenac avari[ci]yeen tentaciñoea osteransecu edosin tentaciñoē Deabruena venciduco
100 ebela.

Armadu bidi, christiñeu, Christoen soldadu fiyela avariciyeco tentaciñoē
yqueragarrionen contra esauturic vere prometimintuen engañue; bada, ofrecitan badau
lur pisque bat galdueraiten dau Ceruco erreinue. Da guisonen visisea laburre, eriosea
dauco ur, bidea laburre; Ceruco bidea estue, Infernucoa sabala, seinetati do[a]san asco
105 ondasunec gaitic. Bada, setaco dire adinebeste ondasun? Setaco adinebeste deseo
desordenadu basaiteco ondasunec bacarric servitan daudenac carguetaco arimea,
concienciye? Ybilteco ligeroago eta descansu obeagas Ceruco bideti, consejuric onena
da repartitea ori cargaori lagunen artean, socorriuric pobreac: onec eroango daude
seguro eta presentaucu deuse Jangoicoari emon daguiyentsat Ceruco premiñoa eguin
110 euselaco au mesedeau; eta alan, ondasunec serviduco eudenac Ynfernure ondatuico
serviduco daude escallerasat Cerure ygoiteco. Comparadu ebesan Christoc ondasunec
aransacas, eta da advertitaco aranseac escue, arraea sabalduiten dabenari esteuso
piquetan: espada ondasunen aransac mortifiquetan dauden avarintue, seinec euquiric

44-93 *gueratu sin*: ‘geratu zen’, aoristo perifrasi; ik. 2-59 *nombradu sin*. **44-99** *edodin*: ‘edozein’, -*zein* orokorraren 17 adibideren aurka monoptongaturiko adibide hau baino ez dugu, hala ere, *ie > i* monoptongatzeko joera ikusi izan dugu hizkera honetan (cf. 1-58 *aspin*) eta horrela ustea erabaki dugu. || *tentaciñoē Deabruena*: (cf. 5-9 *gorpus Christoenac*) edutezko genitiboa izenaren ondoren agertzea ez dirudi askotan lekukotua denik (cf. Reguero 2013: 451, 10 oh.), baina VJ-k (Ulibarri 2010: 68) eta hemengo adibideek balizkoa dela erakusten dute (cf. § 4.2.4.4). **44-104** *ur*: ‘hur, hurbil’. || *do[a]san*: cf. *doas*- 1-69, 5-19, 14-13, 15-48... **44-106** *basaiteco*: ‘batzen’, *CVC-tu* egitura ez izan arren, *batu* aditzak -*tzaite* hizkia darabil aditz-izena egiteko (cf. Urgell 2006: 938 eta cf. § 4.2.3.2). **44-110** *ondatuico*: ‘hondoratzeko’. **44-112** *arraea*: ‘ahurra’.

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

vere escuin estutuiten ditus; vaye es liberalac eta caritativuic, seinec sabalduiten daben
115 escue repartitaco pobrei. Bada, ya gagos liberalidedeco virtutean, sein den avariciyen
contrariyoa: da áen noblea au virtuteau, emaita liberalidadeagas, se, segun <388>
[ad]vertidu eben Filon hebreoac, dauco Jangoicoac berac fundeuric vere naturalezea
emaitan. Bada, gueiyeiten yaco Jangoicoa emaiten dagoalaco *Dei natura est dare*.
Yseitarren áen conforme vere geniyo eta naturalezeagas yrecasi eben â maxima
120 generosoa Apostoluic diñoeana: *beatius est magis dare, quam accipere* ‘felicidade
andigoa dala emaita errecibitea beño’. Munduen principiyoan criyedu eben Jangoicoac
Adan munduco erregue eta jaunset: *faciamus hominem ad ymaginem, et Similitudinem
nostram, et præsint piscibus maris et volatilibus Cæli*; eta formadu esquero munduco
erregue eta jaunset, diño Texto Sagraduic formadu ebela lurreco auserean: *formavit*
125 *igitur Dominus Deus hominem de limo terræ*. Bada, segaitic formadu beben munduco
jaun eta gobernadore, segaitic eguin eben âen material basureanic sein den lurre?
Baquisue segaitic? Ysen linsat guisona liberala emaiteco; bada, segun advertitan daben
San Ambrosiuc: *terra omnia largitur* ‘aen liberala da lurre se gustiye emaiten dau’:
asiten ditus arboleac, lorac, frutuic eta aun bere entrañetan asiten ditus urregorrisco eta
130 urresurisco mineralac eta gustiye da besteen beneficiuraco, es beresaco. Orregaitic eguin
eben guisona Jangoicoac, veste fin soberanuen artean, lurreric; alango ameen semea
legues, imitedu leguinsat bere condiñoe generosoa, ordenauric besteen beneficiuraco
nobre candela, repartiuric pobrei eta necesitedui. Diño San Juan Chrisostomoc
avarientuen contra: *qui collocat thesauros in terra, non habet quid speret [in] Cælo*
135 ‘iminten dabesanac vere ondasunec lurrean estauco ser esperau Ceruin’. *Ut quid
respiciat in Cælum*, proseguitan dau santuic, *ubi nihil habet repositum?* ‘Selan esperau
leique Ceruco galardoea estabenac eser depositu Ceruco archibuen?’ Da pobreen escue
deposituric seguruen, segaitic ese pobreak emaiten yacana recibitan dau Christoc. O se
yrepaste segurue! Eseberes bategaitic emaiten gustiye, lur pisque bategaitic emaiten dau
140 Cerue.

<389>

44-117 *Filon hebreoac*: Filon Alejandriakoa, K.o. I. mendeko filosofoa. **44-124** *auserean*: ‘hautsetik’ (cf. § 4.2.2.1). **44-126** *eguin eben*: *eguin eguin* zuzentzen du hemen, *egin egian* ‘egin zuen’ aoristo zaharra perifrasi modernoaz aldatzen du (cf. §§ 4.2.3.15; 4.3.2.3). **44-133** *necesitedui*: ‘behardunei’, *ua > ui* asimilazioa ezin daiteke bukaera absolutuan gertatu (cf. § 4.2.1.7), eta hemen ere betetzen da, jatorrian *-uai (> *-uii > -ui) dagoelarik. **44-139** *yrepaste*: ‘irabazi’, aditza izen bezala erabiltzeko aditz-izenaz baliatzen da.

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

Diño San Lucas evangelisteac, prediqueuri[c] Christoc avariciyeco viciyoen
contra, eta esanic esin iñoc servidu leisela fielmente jaun bi edo uguesaba bi, seinsuc
sirean Jangoicoa eta munduco ondasunec, eta orregaitic sala ymposible iseitea
145 Jangoicoen agraduco eta iseit[e]a ondasunen esclavue, dan legues avarintue; ensunic au
doctrinau, fariseoac euquesan aen sarraturic euren arimeco beguiyec ensuteco
desengaño ciertuonen eguiye se, convertiu bearrean eta echi bearrean ondasunen
aficiño desordenaduri, barre ta burle eitten euden sermoeagaitic eta Jesuchristogaitic,
seinec prediquetan eusen. Eta emaiten dau errasoea evangeliste santuic esanic sireala
150 fariseoac avarintuic, eta orregaitic barre eiten eusen Christori seinec exortetan
avariciyen contra, seinec euquesan euren viosac yosiric ondasunera.

Contetan dau cardenal Vitriacoc avarintu betegaitic sein (bere lagun gusic
legues) bisi ysen san ondasunen egarri andigas: vere arimea yoan san Ynfernuitara, non
Demoniñoa urtuiten euden sartaguiye andi basuitan urregorriye eta urresuriye eta
155 yriquetaebela esarten eusen aora esaten eusela: “Urregorriyen eta urresuriyen egarrigas
visi ysen sara, edan eguisu bada urregorre eta urresuriye”. Modu onetan
atormentetaeuden eta atormentauco eternamente ysen daquiusersat, beste Simon
Magori legues, diruic tormentureco eta condenaciñoeraco.

383 4 *iñori*: *i* gero gehiturik dago. 7 *falttauric*: *tt* bikoitzak zerbait tatxatzeko erabiltzen du, irakurrezina. 17 *excesoagas*: *-gas* hertzean gehitua. 18 *da*: gainean gehitua. || *liberalidadeco*: leh. *liberalidedeco*, bigarren e tatxaturik eta *a* gainean gehitua. 22 *eta necesiteduen*: gainean gehitua. || *estutuiten*: *es-* ia borrraturik dago, oso gutxi markatua. 23 *onegaitic*: *-itic* ia borrraturik dago, oso gutxi martatua. **384** 25 *socorritaco*: *So-* azpian zerbait dago idatzita, *um*]? 29 *Estaquit*: leh. *Estaqui*, *t* gainean gehitua. 33 *ditean*: jat. *ditean ditean*. 37 *vere entrañetan*: aurretik *bere biosean* dakar, tatxaturik. || *atravesaduric*: aurretik tatxoi bat, *bet*]? || *direanac*: originalean *dira* / *anac*, lerro banatan. 39 *Elesacoacas*: leh. *elesacoa* / *acas*, lerro banatan, baina bigarren lerroko *a* tatxatu egin zuen. 43 *ynfeme bat*: aurretik *vat* dauka, tatxaturik. || *perjudicial*: jat. *perdudicial*. 44 *manifestauric*: jat. *manifestauric*. 45 *perjuiciyogravea*: leh. *perjuiciuaga*]. **385** 48-61 *Avaricien...mercimintue*: ahapaldi hau karratu batean sarturik dago. 48 *seinegas*: bigarren *e* honen azpian *c* edo *a* irakurtzen dugu. 49 *vear*: amaieran zerbait du borrraturik, *-du*]? 51 *emaitean*: *a* azpian *n* irakurtzen dugu, *emaiten*]. || *dan*: leh. *dana*, amaierako *a* tatxaturik. 52 *badau*: *b* azpian *d* irakurtzen dugu. *da*]? || *ordituiteco*: *t* azpian zerbait dago, irakurrezina. 53 *Yrugarrena*: aurretik *Vearde* dugu, tatxaturik. 59 *dan*: gainean gehitua. 61 *hilarem*: jat. *hilaren*. || *mercimintue*: leh. *mercimintue*, *e* azpian zerbait dugu eta *r* gaineko puntuak *i* dela esaten digu. 67 *lurreen*: leh. *lurren*, *e* gainean gehitua. 68 *direan*: ez da ondo ikusten, tintxa korriturik baitago. **386** 69-70 *yoango sirean*: leh.

44-152 *Vitriacoc*: Jakobo Vitriakoa, XII-XIII. mende bitarteko teologo eta historialari frantsesa. **44-154** *urtuiten*: ‘urtzen’. || *sartaguiye*: ‘sartagina’; bizkaieran mugagabea *zartagin* den arren hedatuena, gure kasuan mugagabea *zartagi* da, sudurkaririk gabe; izan ere, oinarri **sartagi* balego bokalez hasitako atzizkia izanik <ñ> beharko genuke (ik. 1-95 *oipetan*). **44-155** *yriquetaebela*: ‘irakiten zuela’, aditz uzkurduraz; *-etan* aditz-izen atzizkiaren hedapenaren erakusle dugu, berez *-ten* zitekeen (cf. 46-17 *yriquitzen* eta § 4.2.3.2). **44-156** *urregorre*: ondoko adibideak ikusita *urregorr[fi]e* zuzentzea zilegi legoke, halabaina *nire* (33-4) *bide* (1-147), *bailerean* (10-117), *letequean* (15-138) edo *aguire* (26-124) bezalako adibideak ikusita *urregorri* ere izan zitekeen eta bere horretan ustea deritzogu egokien. **44-157** *Simon Magori*: Simon de Gitta, Bibliako *Apostoluen Eginak* liburuan aipatua.

44. *Bigarren viciyo capitala: Avariciye*

yoan siren, go eta a ganean gehitua. 72 *desdicheduenac*: jat. *desdichudeuac*. 74 *logretaco*: *Lo-* azpian og irakurtzen dugu. 79 *dau*: ganean gehitua. 80 *et*: jat. *eta*. 86 *vioza*: hertzeetan gero gehitua. 89 *direan*: leh. *den, ire* ganean gehitua. **387** 99 *avari[ci]yeen*: leh. *avariyeco, co* tatxatua eta *en* ganean gehitua. 109 *premiñoa*: leh. *premiy*]. 110 *Ynfernure*: bigarren *n* honen azpian *u* dago. 112 *sabalduten*: jat. *saba / l balduiten*, lehenengo *bal* gero gehiturik dagoela. 114 *liberalac*: leh. *liberala, c* ganean gehitua. 116 *liberalidadeagas*: jat. *liberiladadeagas*. **388** 117 *[ad]vertidu eben*: jat. *advertitan da [ad]vertidu eben*, dirudienez lehen idatzitakoa tatxatzea ahaztu zitzaion. 122 *et*: jat. *eta*. || *Similitudinem*: leh. *Similitudinem*, *u* ganean gehitua eta *i* tatxatu gabe. 126 *eguin eben*: leh. *eguin eguin*, bigarren *eguin* beste tinta batez tatxatua eta *eben* ganean gehitua. 130 *beresaco*: leh. *berer*], *s* etzanaren azpian *r* irakurtzen da. 133 *Diño*: leh. *dice, ce* tatxaturik eta *ño* ganean gehitua. 134 *avariantuen*: *a* azpian *con*] irakurtzen dugu. || *habett*: *tt* azpian *n* irakurtzen dugu. || *Cælo*: aurretik *in terra*, tatxaturik. 139 *dau*: leh. *da, u* ganean gehitua. **389** 143 *edo*: *d* azpian *g* irakurtzen dugu. 146 *euquesan*: leh. *equesan, u* ganean gehitua. || *aen*: *e* azpian *c* irakurtzen dugu. 148 *eitten*: *tt* azpian *n* irakurtzen dugu. 151 *seinec*: leh. *seine, c* ganean gehitua. || *euquesan*: bigarren *u* honen azpian *c* irakurtzen dugu, *-ec*] (goiko lerroko *seine[c]* osatzeko?) || *yosiric*: *yos-* azpian zerbait irakurtzen da, *Lor*]?) 152 *sein*: leh. *sei, n* ganean gehitua. 154 *demoniñoa*: jat. *Demoniñoa*. Leh. *Demoniyoa*, *y* tatxatua eta *ño* ganean gehitua. || *sartaguiye andi*: *-ye andi* aurretik tatxoi bat dago, *basuitan*? 156 *edan*: leh. *eda, n* ganean gehitua. || *eguisu*: aurrean tatxoi bat dago, *eguin*? || *bada*: ganean gehitua.

<391>

Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea

Laugarren viciyo capitala da yra edo enojetea, eta au esta veti pecatu, veste viciyo capitalac legues; bada, basuitan da virtutea enojetea, isenic justiciye eta errazoeas conforme vengazen apetitue: verbigracia, conservetaco eta defenditaco justiciye

5 comuneensat, venguetaco eta castiguetaco delituic, erreprenditaco viciyoac. Fin onetar[ac]o ysenic enojetea isengo da virtutea eta es viciyoa. Ira onelangogaitic verba eguin eben David profeteac esan ebenean: *Yra scimini et nolite pe[c]care*, segaitic au enojeteau (erreguleduric errazoegas veti) esta pecatu, vaye urteiten badau errazoreanic ya da viciyoa, eta, eta au de vengazeen appetitu desordenadu bet. Vere generos da pecatu

10 mortala, segaitic da deseetea injustamente venganzea, eta da carideden contra eta justiciyen contra. Isen leiteque veniala estauquenean vere enojaaldigas advertenciye perfectoa, edo deseetan daben gause deunguea danean levea edo chiquirre, dan legues tiretuytea velarritaric edo ulletaric mutil beteri colereagas edo esatea injuriye edo verba injurioso levea. Viciyo capital onec, dan legues veste pecatu besuen burue, dauques

15 ainbet viciyo, se diñoean Santo Thomasec, eta dire: yndigneciñoea, entendimintuco pusi[tu]tasune, verba injuriosoac, clamorea eta aserracunsac. Yndigneciñoea da barrutico ira, seinegaitic esin ecusi daben batec à personea, seinegas dagoan indigneuric da esteuso verbaric ein gure. Regularmente da pecatu veniala, vaye badago escandalue isengo da pecatu mortala, es eguinic cause errazonableagas. Entendimintuco

20 pusitutasune da bere artean ofendiduric dagoanac pensetea venguetaco mediyoac; eta onetaraco, ecarten ditusen legues gogora gause eta pensamintu arroganteac, derecho <392> entendimintuco pusitutasune. Clamorea da lomismo seinde guedar eitea, verba eitea colereagas eta concierto bagaric, suceditadan legues entero coleran sarturic verba eiten daudenacas. Onelango verbeeite modu desordenaduii gueiyeiten deuso

25 Jesuchristoc evangeliyoan “Racha”, seinden injuriyetea proximue verba eite modu

45-4 *verbigracia*: ‘adibidez’, (gazt. *verbigracia*). **45-6** *onetar[ac]o*: ‘onetarako’, gaizki ez direnerako’. || *ira onelangogaitic*: genitiboa izenaren ostean ageri zaigu ‘honelako iragatik’ (cf. § 4.2.4.4). **45-10** *deseetea*: ‘deseetea’, bokal hirukoitz bereziaz (ik. 6-25 *semeeen*). **45-11** *enojaaldigas*: hitz elkarketa argi samarra (= modernoa?) izanik, oraindik *a-a* segida bakundu barik darabil (cf. § 4.2.1.5). **45-17** *barrutico* ‘barruko’ (cf. 43-67 *altugottico*). || *esin ecusi daben*: (ik. 4-57 *esin egas eguin deu* eta 26-169 *esin ecusi deudes*), indikatibozko laguntzailearekin egindako potentzial perifrasi (cf. § 4.2.4.6). **45-23** *suceditadan*: ‘gertatzen den’, aditz uzkurduraz (cf. § 4.2.3.11). **45-24** *verbeeite modu*: izenaren ostean (cf. *OEH*, s.v. *modu*), aditza izen legez erabiltzeko orduan aditz-izen forman darabil (ik. baita 14-9 *negar eite*, 14-71 *guedar eite modu*, 25-36 *aguinduiteagaitic*, 44-139 *yrepaste*).

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

enojaduiygas. Verba injuriosoac esaten badire Jangoicoen contra dire blasfemiñe; proximuen contra bada contumeliye, eta emen encerretan dire maldiciñoac, diñoan legues San Gregoriuc: *yracundus aliquando in yaculum maledictionis linguam vertit*. Aserracunsea da enojaaldigas ygueraiten danean obracas vengansara, suceditan dan
30 legues elduiten direanean andrac arcaleri ulletaric agarretara eta guisonac uquebilque. Onec, yra edo aserratasunen semeoc, gustiuc dire pecatu mortalac eures, faltau esic advertenciye edo consentimintu osoa, edo es isenic gause gravea; segaitic semeac dire naturaleza batecoa vere amagas, eta isenic ira edo aserretasune pecatu mortala, preciso ysengo dire bere semeac. O se generaciñoac malvadue au! Onegaitic bai esan guiñeila
35 *generatio prava et adultera* ‘generaciñoac malvadu eta adulteroa’, segaitic adulterauric errazoea pasiñoac madariquetuonec acarreetan ditus efecto gustis deungac eta ocasionau castigu cruelac. *Yra mortiferum virus* esan eben Casianoc, ‘Yra da veneno mortala’. Enojaduric edo aserraturic dagosanac comparetan ditus Ezequiel profeteac osoacas, segaitic enojaduric dagoana da osoa legues, esteuso iñori parquetan, osoa legues
40 gustiyei acometitan deuse *quasi lupi rapientes praedam*. Bai, dire oso errabioso, isuturic eta soroac legues; bada, euren colereagas, diño San Agustinec, galsaiten daudes amistedeac, desterradu baquea, despreciyedu sabiduriye; eta gustiye <393> conturbetan dau[de]: *fugiamus iram quæ rationem su[ff]focat, amicitias rumpit &a*. Eta ynquietau eta enfurecitan danari vere enojaaldigas, se gause on yaso lequiquiyo? Esan beigu bere
45 experinciyeegas David erregueac: verba eguiten dau Davidec airedu edo enojaduric dagoan persona baten, eta diño: *turbatus est à furore oculus meus. Turbatus est præ ira*. Nire entendimintuco beguiye, diño Ugoc, turbedu sen ira edo enojeteagas. Eta ser seguidu sen onetaric? Verac diño: *inveteravi inter omnes inimicos meos: scilicet, vitia et Dæmones et malos homines* ‘sar eguin ninsen neure areriyoen artean’. Exponitan dau
50 expositore moderno batec: “eguin nenduin uniñoa, espiritu malignuicas urte ascotaraco”. Segaitic aireduic edo enojaduic eiten dau liga andiye Demonifioacas? Bada,

45-26 enojaduiygas: -iy- grafia tarteko zuzenketa bat bitarte jazo da. **45-30** elduiten direanean andrac arcaleri ulletaric: komuntzadurarik gabeko datiboa dirudien arren, *elkar* nominatiboko forma aditzean islatzeko beharra lausotzen da XVIII. mendetik aurrera, adberbio baten funtzioa hartzen zuen heinean (cf. *OEH s.v. elkar*; Urgell 2012: § 4.4), eta halaxe dugu hemen. || *uquebilque*: ‘ukabilka’. **45-34** esan guiñeila: ‘esan genezakeela’, -ke- gabeko potentziala (cf. § 4.2.3.6). **45-37** Casianoc: San Juan Casiano, IV-V. mendeko abade eta Elizako aita errumaniarra. **45-38** Ezequiel: Bibliako Profetetako bat, *Ezekielen liburua*-ren protagonista. **45-43** dau[de]: dau irakurketa garbia da, alabaina aurrekoekin bat egiteko beharrezko da eta haplografiatzat hartu behar dugu. **45-44** yaso lequiquiyo: ‘jazo lekioko’; badirudi forma zaharra *lekikeo* dela (cf. *nequiqueo*, RS 230), eta datibo hizkiaren aurrean *e* > *i* itxidura gertatu dela. || *Esan beigu*: ‘esan biezagu’, adizki jusiboa. *Ugoc*: Hugo San Victor-koa, XII. mendeko idazle eta teologo Sajoniarrari egingo lioke erreferentzia. **45-49** sar eguin: ‘zahartu’ (cf. 45-58 *sar eguinic*). **45-51** aireduic: ‘haserreak, suminduak’ (gazt. *airado*). || *liga egin*: ‘bat etorri, ados egon zerbaitetarako’ (gazt. *hacer liga con alguien*).

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

gustic dire yracundu eta soberviyoac; eta guison edo hembra deabruegas esturic dagoanagas eta eiten direanacas sarrac bere amistedean ser esperadu al leique? Se erremediyo euqui al leique onec? Espadau iminten cuidedue vencitaco au pasiño
55 madariquetue estago erremediuric arean, espada eguneric egunera yoango deungago yracundue. Se ondo declaradu eben San Agustinec: baquisue selan daroen euren visisea yracunduic, pecaturic peature, viciureanic viciura? Segaitic yra edo enojureanic dator errencorea, errencorereanic odiyoa, sein den ira sar eguinic dagoana viosean. Onetari
60 dator eriosea, obras es arren borondates; onetari contumeliyac; onetari quensaitea fama, honrrea, sospechac, injuriyac eta murmureciñoec, chismeac eta sisañeriac; seinsuc direan gustic araguiyen eta demoniñoen obrac: *quæ sunt opera carnis et diaboli* diño santuic, emaiten deuscule claru entenditan selan dagoan esturic Diabruegas, yracundue eta amistede sarra veragas: *inveteravi inter omnes inimicos meos*. Ha yracundu desventuredue! Esta eguiye San Agustinec diraosune? Estiraosu seure viosean
65 yasaiten yasune? Esta eguiye guisona, esta eguiye andrea, seure ira edo aserretasunegas <394> gustiye da quimerea, gustiye aserracunsea; esec esteusu gusturic emaiten, gustic enfadetan satus, da estana gustiye seure apetitu destenpladus conforme, gustiye aborrecitan dosu? Acabadu eguisu entenditan guisona seure ira edo aserraaldicas bota dosule arimereanic Espiritu Santue, esan eben legues San Pedro Damianoc: *Per iram*
70 *certe Spiritus Sanctus ab anima excluditur*. Acabeesasu entenditan andrea seure ira edo colereagas sareala deungago sierpea beño, eta drago bat beño, eta oba leuquela desiertuin bisi ysen animeliyacac seinde sugues: *melius est habitare in tterra deserta, quam cum muliere rixosa et iracunda*. Espiritu Santuic diño eta alanbere suc estosu gureco sinistu eta desengañadu? Bada, ya desengañaduco sara elsaiten sareanean erre
75 legues Jangoicoen judiciyora; su ysengo sara reoa judiciyocoa diño Christoc: *ego autem dico [vobis], quod omnis qui irascitur fratri suo, reus erit yudicio*. Eta baquisu ser dan

45-55 *arean*: ‘ez dago inolako erremediorik’, (cf. *OEH*, s.v. *arean 1*), ‘dudarik gabe’ moduan ere uler daiteke ‘dudarik gabe, ez dago erremediorik’ (cf. *OEH*, s.v. *arean 3*) baina erabilera hau Azkueren hiztegitik aurrera baino ez da lekukotzen. **45-60** *sisañeriac*: ‘bazter-nahasketa’, ez euskal ez erdal tradizioan lekukotzen ez den hitza izanik (cf. *CORDE*, s.v. *cizañería* eta *OEH*, s.v. *zizaña*), egileak berak sorturikotzat dugu, euskaran erabiltzen den *zizaña* eta euskal *-(k)eria* atzizkiaren bidez (cf. § 4.3.2.2; ik. baita 26-74 *tretosoac*). **45-67** *da*: ‘eta’, ik. 1-16 *da*. || 45-67 *estana gustiye*: (ik. 4-28 *odola gustiye*), *guztia* hitzaren izen aurrekaria artikularekin emana. **45-69** *San Pedro Damianoc*: Ravenan jaiotako XI. mendeko kardenala. **45-70** *Acabeesasu*: mendebaldeko hizkeretan *egin* aditzak **ezan* ordeztuz joan zen Euskara Zaharrean (cf. Mounole 2007: 96), alabaina, testu hau Lehen Euskara Modernokoa izan arren aginteran **ezan* aditzaren adibide hau dugu; garai honetan Albenizek hirutan darabil aditz-erro hau, eta horietako bi, hemen legez, inperatiboan (Mounole 2007: 103). **45-71** *sierpea*: ‘sugea, piztia’. **45-74** *erreo*: ‘akusatu’ (gazt. *reo*). **45-77** *yseite*: ‘izan’, aditza izen legez erabiltzeko orduan aditz-izen forman darabil (ik. baita 14-9 *negar eite*, 14-71 *guedar eite modu*, 25-36 *aguinduiteagaitic*, 44-139 *yrepaste*, 45-24 *verbeeite modu*).

yseite reo judiciyoan eta Jangoicoen judiciyoan? A Jaun Dibinuic, seiñec esan eben *mihi vindictam et ego retribuam* ‘Nic neuresat reserbetan dot venganzea’; baquisu selan eracusi daben vere aserretasune vere tribunalean yracundu soberviyoen contra? *iram Domini portavi quoniam pec[c]avi ei*. “Nic eroango dot castigu merecidue, Jangoicoen ira eta enojue descargaduco da nire contra, segaitic ofendidu nenduin neure yra edo aserraldi soverviyoacas.” An ysengo da sure confusiñoea, an seure penea, eta aen andiye se gurago seunquela egon Ynfernuen, se ecusi A (sein ofendiduric dauquesun) âen aserre sure contra. *Quis mihi hoc tribuat, ut in Ynferno protegas me et abscondas me donec pertranseat* <395> *furor tuus*, esaten eben yquera Job santuic. Eta nor san Job? Guison bat justoa, âen sufridue eta bacosoa se da paciencyeco exemplar[r]a; bada Job, isenic âen sufridue se euqui arren trabaju asco es eusen iños ensun es maldiciñoec bat, es juremento bat, es verba deungue bat: *in om[ni]bus his non pec[c]avit labijs suis Yob*. Bada Job, isenic paciencyeco exemplar[r]a, begoan yquera consideraduric juez divinuen aserretasune, deseetan ebela egotea Ynfernuin estalduric es ecustarren juez soberanuen ira edo enojue; ser eingo dosu suc, guison soberviyoa? Ser isengo da sugues, andra yracunda paciencye bacoa, se estago surea leguesco enojuric (*non est ira super ira mulieris*); ser eingo dosu, esan eguidesu, elduiten sareanean Jangoicoen judiciyora eta dacusunean juez dibinue aserre? Erdu ona juredorea, blasfemoa; su, seinec edosein enfadugues edosein gausegaitic yarten sareana coleran, esarten dosusela desalmadu bate legues jurementoac, maldi[ci]ñoec; selan ongo sara Jangoicoen tribunalean ecusiric juez dibinuen arpeguiye enojaduric? Eta su andrea, esareana Job paciencyan, espada paciencyen pruebea seure senarrensat Joben emastea legues; su, ordu gustitan aserratuiten sareana eta maldecitan sagosana seure criyedu, criyeda edo seure humeai eta estrañuei, ser ysengo da sugues orduin? Job es eben ofendidu es bere miñegas, alango bildurre beuquen eta yquera begoan; suc, dauquesune serpienteen miñe es bacarric maldicinoeacas, espada vere seure murmureciñoea maderiquetucas, seinsuques dempora baten heriduiten dosu seure arimea, proximueena, ensuten dagoeena eta ausenteen famea; suc, seinec gustic gaitic murmuretan dosune, echasune escapetan seure mireanic es escondue, es doncella &a. Cargu eguin deguisunean seure ira,

45-83 A: ‘Hura’, Jaingoikoari erreferentzia eginez. **45-85** *yquera*: ‘ikaraz’, hitz hau adberbio funtzioan darabil (ik. 2-111 *yquera*). **45-86** *bacosoa*: ‘baketsua’, ik. 12-110 *bacosoa*. **45-92** *yracunda*: ‘haserrekor, suminkor’. **45-95** *bate legues*: ik. 13-88 *bate legues* oharra (cf. baita ere 15-131 eta 24-166 *bete legues*). **45-101** *miñe*: ‘mihia’, (cf. 10-52 *miñen* eta 11-29 *mi*). **45-103** *dagoeena*: ‘dagoenarena’, badirudi **dagoaneena* formaren uzkurdura dugula hemen (cf. 44-44 *dabeneen*: ‘duenaren’). **45-105** *deguisunean*: ‘diezaizunean’.

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

ympacenciye, maldicinoe, &a., ser eransungo deusesu? *Quid faciam*, esaten <396> eben Job, *cum surrexerit ad iudicandum Deus, et cum quaesierit quid respondebo illi?*

110 Eta selan venciduco dogu au viciyo capitalau? Erremediuric asco emaiten deude santuic enfermedadade onen contra: da erremediyo ona consideretea gorpuseco osasuneri eiten ditusen dañuic. Estiñot orain arimeari, bada onec dire esan esin leiseen quaine, diñodas bacarric gorpusecoac diñosan legues San Efreneac. Ira edo enojuic, diño San Efreneac eitten deusela gorpuseco osasuneri dañue, laburtuiten dabela visisea, quensaiten dabela arpeguico colorea, iminten ditusela colericuic mudeuric colorea, visi direala sosiegu bagaric continuamenteco ynquietudeacas, enfermedadade ascoen eta accidente 115 errepentinuen causea dala eta ascori quensaiten deuso bisisea de[r]repente; onen exemploric asco dago.

Mathias Ungriyeco erregueagaitic leiduten da, egonic maiñean, escatu ebesala yco basuc yateco. Eransun eusen criyeduic es egoala arean eta es eusesan legues ecarri, verac deseetan situin legues, âen colera andin yarri sen se emon eusen apoplegi batec, 120 seinetaric il sen laster. Wincelao Boemiyeco erreguen historiyan contetan da ofendidu ebela guison batec beste bat. Onec gure isen eben artu venganzea, eta aen moduten aserratu sen vere enojuigas, se emon eusen paralisis fuerte batec, seinec laster il eben bere areriyoen venganzea executeu beño leenago. Bai christiñeuec, ascori quensaiten deuso osasune eta visisea, segaitic da veneno mortal bat apestetan dabena viosa. Gas 125 chiquerregoa diño San Chrisostomoc isengo lisatequeala euquitea viosean vibore bat seinde euquitea ira, errecorea: *Satius est viperam in corde tui latere, quam iram et rancorem*. Erremediuric onena da viciyo onen contra pacenciye, sein den virtute contrariyoa. Da San Gregor[i]yoen sentenciye: <397> *contraria contrariys curantur* ‘pacenciye iraien contra’, *patientia vobis neces[s]aria est, ut voluntatem Dei facientes, reportetis promisionem*. Veguiretu seites, diño Apostoluic, selan bear dosun equi 130 pacenciye eguinic Jangoicoen vorondatea alcanzau deguisunset Ceruco gloriye

45-108 *deude*: ‘daude’, ik. 16-8 *dagoanec* eta 22-75 *deudenac*. **45-110** *quaine*: egituraz, ik. 4-20 *numeruric estauquen coaine*. Forma aldetik, hau eta *erruscua* (31-80) lirateke sermoitegi osoko *oa* > *ua* bokal eufonia bakarrak (cf. § 4.2.1.8); hala ere, *imnicu* (41-82) adibideak pentsarazten gaitu eufonia baino aurreko [u]-k eragindako asimilazio dela, honetan ondoko *i-k* eragingo zukeen asimilazioa. **45-111** *San Efreneac*: ik. 18-71 *San Efreneac*. **45-117** *Mathias Ungriyeco*: Matias I Corvino, XV. mendeko Hungariako erregea. || *maiñean*: ‘mahaian’, ik. 37-61 *maiñean*. **45-120** *Wincelao Boemiyeco*: ik. 21-48 *Vencelao eta Boleslao*. **45-124** *Gas chiquerregoa*: ‘gatx, gaitz txikiagoa’; afrikatu palatala balitz (*gatx*) <ch>z idatzirik beharko luke; beraz, akatsa izan daitezkeela baztertu gabe, testuinguruak eragindako disimilazio berezi bat azal lezake forma (**gatx txiker* > *gax txiker*); edo *gaitz* > *gatz* bilakabide bat proposatu, sermoitegian ikusi dugun *gaitu* > *gatu* (ik. 1-29 *gatuselaco*) edo mendebaldeko *-*ani* > -*an* aldaketen (cf. *FHV* § 7.3) pareko. **45-133** *naturel deungueagas*: ‘izaera, naturaleza gaiztoarekin’.

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

gustiyensat. Da presioa pacenciye estadu genero gustitan: basuc escusetan dire esanagas esin eguin deudela gueiye euren condiciño e do naturel deungueagas, Jangoicoac emonic deunsenagas. Esilic sagos, esilic sagos se estau iñor eiten naturel
135 deungueco es condi[ci]ño e deungueco: *fecit Deus hominem rectum*. Seure borondate edo libertadean deusu echiric alan oneraco sein deungueraco, seure escuin dago on iseitea edo es iseitea; conque, deunguero eiten badosu, basara soberviyoa, altibue, deshonestue, codiciosoa edo avarintue, esta Jangoicoac eguin satuselaco orlangoa espada seuc gure dosuleco siguidu seure appetituei eta estosuleco imini gure frenue seure
140 pasiño eai eta inclineciño eai. Cuidedu christiño euc engañonegas, se ascoc gure leuque escuseu vere pecatuic esarriric errue Jangoicoac emon deusen naturelari, eta au esatea da blasfemiño e.

Beste basuc diño e nire trabajuic dire andic, pobrezea eta onen ganera cargac andic, eta estago gustireco pacenciye. Ya dacust direala cargac andic, ascoen pobrezea
145 andiye; baye, despacenciycas eta maldiciño eacac erremediyetan da acaso edosebere? Esebere es, espada galdu asco. Ensun eguisu ser diraosun San Agustinec: *Yntelligat homo, medicum esse Deum et tribulationem medicamentum esse ad salutem, non pœnam ad damnationem* ‘entendidu begui guisonac, diño santuic, se Jangoicoa dala medicue eta trabajue dala medicina osasuneraco, es penea condenaciño eraco’. Egonic
150 ya curan medicinonecas, Jangoicoac emonic, <398> quesetan setara; sentitan dosus, escatuiten deusesu Jangoicoari, baye esteusu ensuten sure borondatea eiteco espada, proseguitan dau cureagas medicu ona legues omaiteco osasune: *non audit medicus ad voluntatem, sed audit ad sanitatem*. Pacenciye, vada, bear da, eta cuidado mejoreteagas arimea eta alan gach guichigo ongo dire gorpuserat: *noli facere mala et non te
155 apudent* diño sabiyoac. Pecatuic dire gueure trabajuen causea: biyoas campure pecatuic confesiño e ona dala mediante, artu bidi visise barriye ona eta santue, seinec ymportetan deusun arimeraco eta gorpuseraco, eta euquitaco pacenciye bear dosu consideradu Jangoicoen escuric datosala seure trabaju gusic, ausi injustoa, ynjurias, gasoa, contumeliyac eta beste edosein mortifiquesiño e genero; alan aseguretan dau
160 Amos profeteac: *erit malum in civitate qued non fecerit Deus?* ‘ongo da aflliciño e edo

45-134 *deunsenagas*: Sermoitegiko zenbait adizkietan agertzen den *-n*-a erroaren inguruan ik. 4-120 *eunquesan* eta 7-43 *deingunset* (cf. § 4.2.3.10). **45-137** *conque*: ‘beraz’ (gazt. *conque*). **45-138** *orlangoa*: ‘horrelakoa’, *orlan* aldaera Zabalarenean eta Laudioko kateximan lekukotzen da (*OEH*, s.v. *horrela*). **45-150** *setara*: ‘zertarako?’, *OEH*-k dakarren *zetara* hitzaren esanahiak (*OEH*, s.v. *zertaratu*) ez dira adibide hauekin ondo ezkontzen. **45-155** *biyoas*: ‘joan bedi’, *joan* aditzaren jusiboa. **45-158** *gasoa*: ‘gaixotasun’, ik. 2-56 *gasoensat*. **45-160** *Amos*: Bibliako pertsonaia, *Amosen liburuaren* idazlea. **45-161** *San Martin*: San Martin de Tours, IV. mendeko apezpikua. **45-162** *Severo Sulpicioc*: IV-V. mendeko idazle eta santua.

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

trabajurean bat estatorenna Jangoicoen escureanic?’ Gause clarue da esttagoala. San
Martin obispoen visisan, contetan dau Severo Sulpicioc veragas conversaciñoa equi
eben demporan es ebela iños ecusi enojaduric eta triste, espada beti baque andigas eta
alegriyegas. Eta consistittan eben segaitic suceditan yacan gustiye, arsaiten eben
165 Jangoicoen escuric bildue legues eta alan euqitan eben pacenciye, eta onetarie
resultetan eusen á baque andiyac eta alegriye. Gure dosu, christiñeu, gorde biosean ira
edo enojue, ala gure dosu vencidu? Gure badosu vencidu veiar dau ysen ira eta enojo
santuegas bere contra, damu andi betegas ofendiduric dauqu[e]suleco Ceruco erregue
bacosoa. Acorda saites, Jesuchristoc equi eben pacenciye vere pasiñoan eta vere
170 pacenciye andiyegaitic escatu deiyogun emon daigule pacenciye gue[u]re enojuen
contra, eta damue eguiyesco ofendidu doguleco. Bai christiñeue, eldu saites Christoen
oiñetara eta esan eguisu: *Neure Jesuchristo &a.*

391 2 *au esta*: *au* ganean gehitua, honen azpian *edo enojetea* dugu, tatxaturik. 6 *ysenic*: lehen beste zerbait zegoen idatzirik *sinecoi*? 8 *enojeteau*: jat. *enojeteau*. Leh. *enojetea*, *u* ganean gehitua. 9 *pecatu*: *tu* azpian zerbait dago idatzita, *m*? 10 *segaitic*: leh. *segaiti*, *c* ganean gehitua. || *deseetea*: jat. *deseetea*. 12 *deseetan daben*: leh. *deseeta ben*, *-n* eta *da-* ganean gehitua. 13 *tiretuytea*: *y* azpian *e* dago idatzita. || *mutil*: Azpian zerbait dago idatzita, irakurrezina. 21 *legues*: ganean gehitua. **392** 26 *enojaduiygas*: *i* eta *y* artean tatxoi bat dago, *gd*? Agian *enojaduigas* idatzi nahiko zuen gero *enojaduide* legez zuzendu, eta azkenean *-berriz ere-* *enojaduigas* idatzi. || *blasfemiñe*: *ñ* azpian *y* bat irakurtzen dugu. 38 *aserraturic*: leh. *arrecuric*, *se* ganean gehitua eta *-at-* azpian *ec* irakurtzen dugula. 42 *amistedeac*: jat. *amistededeac*. **393** 45 *dau*: ganean gehitua. 47 *sen*: zerbait dago azpian idatzirik, irakurrezina. 50 *Expositore*: aurretik tatxoi bat, *mo*? 51 *enojaduic*: *j* ren azpian *d* irakurtzen dugu, eta ganean gehiturico *ic* azpian tatxoi bat dago. 54 *Espadau*: leh. *Espada*, *u* ganean gehitua. 59 *arren*: jat. *arren*. 61 *direan*: *direen* ere irakur daiteke. **394** 67 *destenpladus*: *s* azpian *ic* irakurtzen dugu. 70 *edo*: *ed-* azpian *Co-* irakurtzen dugu. 72 *desiertuin*: leh. *desertu*, *in* ganean gehitua. || *animeliyacas*: leh. *animeliyas*, *ac* ganean gehitua. || *tterra*: *tt* bikoitz horrek zerbait eskutatzen du. *de*? 74 *desengañadu*: jat. *desenganadu*. 84 *tribuat*: *-buat* orri hertzean gehiturik dago. **395** 91 *sugues*: leh. *suges*, *u* ganean gehitua. 98 *emastea*: amaieran *g* bat irakurtzen dugu, urrango hitzaren *L-*ak estalitakoa: *emasteag*]. 103 *dagoeena*: bigarren *e* honen azpian *n* irakurtzen dugu. **396** 109 *enfermedade*: leh. *enfermeda*, *de* ganean gehitua. 112 *eitten*: leh. *ein*; *tt* bikoitzak *n* tatxatzen duelarik. || *gorpuseco*: aurretik tatxoi bat du, *diño*? 118 *eusen*: jat. *ensun*; aurreko *eransun*-ek eraginda. 121 *eben*: ganean gehitua. 122 *paralisis*: *l* azpian zerbait dago, *b*? 123 *leenago*: ganean gehitua. 125 *Chrisostomoc*: jat. *Chrissostomoc*. Leh. *Christomoc*, *sos* ganean gehitua. 126 *et*: jat. *eta*. **397** 129 *est*: *s* azpian *t* irakurtzen dugu. 130 *euqui*: *u* ganean gehitua, honen azpian zerbait dago idatzirik: *q*? 132 *gustiyensat*: leh. *gustiyen*, *sat* ganean gehitua. 135 *rectum*: jat. *rectunm*, *m* ganean gehitua. 136 *deusu*: *u* ganean gehitua, honen azpian tatxoi bat dugu; *e*? 137 *iseitea*: leh. *isetea*, *i* ganean gehitua. 139 *estosuleco*: leh. *estosuleo*, *c* ganean gehitua. 141 *Jangoicoac*: leh. *Jangoicoa*, *c* ganean gehitua. || *naturelari*: *a* ganean gehitua, honen azpian tatxoi bat dugu, *e*? 142 *blasfemiñe*: *ñ* azpian zerbait irakurtzen da: *y*? 143 *Beste*: jat. *Besta*. || *cargac*: leh. *carga*, *c* ganean gehitua. 144 *andic*: *-c* ostean tatxoi bat dago, *-a*? 145 *maldiciñoecacas*: leh. *maldiñoecacas*, *ci* ganean gehitua. 146 *Esebere es*: leh. *Esebere*, *es* ganean gehitua. **398** 154 *guichigo*: leh. *guichi*, *go* ganean gehitua. 155 *Pecatuic*: leh. *peatuic*, *c* ganean gehitua. 157 *deusun*: jat. *deusum*. 158 *ausi injustoa*: *ausienjustoa* ere izan daiteke, puntu gabeko *i* izan beharrean *e* balitz. 161 *estatorrena*: leh. *estatorren*, *a* ganean gehitua. || *esttagoala*: *t* bikoitz horrek zerbait estaltzen du, *ec*? || *San*: aurretik tatxoi bat dago, irakurrezina. 164 *consistittan*: *t* bikoitz horrek

45-165 *bildue*: *bildu* hitzaren tradizioa bizkaieran, ik. 6-12 *bilduiteco*. **45-170** *escatu deiyogun emon daigule*: adizkietako *a/e* oposaketa (cf. § 4.2.3.4) galbidean dela erakusten digu esaldi honek (cf. 6-158 *Eguin deigun [...] eta ygon daigun*).

45. *Laugarren viciyo capitala: Yra edo Enojetea*

zerbait estaltzen du, [*duten?*] || *yacan*: gainean gehitua. 165 *euqitan*: leh. *euqita*, *n* gainean gehitua. 166 *resultetan*: leh. *resulteta*, *n* gainean gehitua. 170 *andiyegaitic*: *gaitic* gainean gehitua. || *deiyogun*: -yo-gaizki irakurtzen da, badirudi *o* tatxaturik dagoela.

<399>

Bostgarren viciyo capitala: Gulea

Bostgarren viciyo capitala da gulea. Gulea da yateco eta edateco apetitu desordenadu bet da abstinenciyeo virtuteen contra. Da gulea vere generos pecatu veniala, vaye ascotan isengo da pecatu mortala: veragaitic ausiten danean bareue

5 Eleseac agui[ndui]ten dabenean; eta lar yateagaitic eta edateagaitic yarten danean ymposibliteuric vere carguco eta oficiuco obligueciñoea cumplitaco; eitten deusenean dañu gravea osasuneri; direanean continuamentecoac banquetac, dauquela gulosoac vere jangoicosat tripea. Exceso mortal onen artean contetan da ordiqueriye, viciyo ynfemea: ordic edaten daude juiciu bagaric, animeliyac beño deungago: onec estaude

10 edaten convenitan yatena beño gueiyego, baye ordic edaten daude gueiyego, eitten direala guleen esclabu (lelengo alavea guleena). Entorpecitan dau eta embotau entendimintue eta juiciyoa, etta esta gueratuiten provechuco eser eiteco guloso. Ya esan dot dala pecatu mortala gueratuiten danean inhabil vere oficiyoco obligueciñoec cumplitaco. Guliyen vigarren alavea da alegriye banua, seinec movitan daben canta

15 profanuic cantetan, acto deshonestuitara, danza da saltu eitera &., eta facilmente iseiten da mortala causetan ditusen efecto deshonestuic gaitic. Alegriye onetatic dator verba asco eitea, parleteetea concierto bagaric, segaitic golotro onen estomagüin yriquiten daben artean ardoac, verba eiten daude tinu bagaric, tientu bagaric; facilidedea verba eitean eta aun prometitean. Onelangoen miñec estauco freuric gobernetaco, segaitic

20 biosa dauquen legues alegriye banuegas sabalduric esaten ditus verba deshonestuic,

46-8 ordiqueriye: ‘mozkortasuna’, badirudi hitza Larramendik ekarri zuela Hegoaldera; Iparraldean Leizarragaren testuetatik hasi eta lapurtera klasikoko literaturan zehar lekukoturik dagoen arren, Hegoaldean XVIII. mendearen bigarren erdian agertzen hasten da (*OEH*, s.v. *ordikeria*). **46-11 embotau:** ‘kamustu, ahuldu’ (gazt. *embotar*). **46-14 Guliyen:** ‘Gularen’, forma bitxia, batetik *ee* > *ie* aldaketaren adibide bakantekoa delako (ik. 7-93 *gentilien*, 24-179 *orrein*, 37-101 *Virginiena*) baina bereziki epentesiaren hiperkarakterizazio bat genukeelako (dakigularik, ez da euskara guztian *etxiya* lakorik aurkitzen), beraz egilearen hizkerarentzat guztiz ezaguna ez den ezaugarria litzake, nonbait (cf. §§ 4.2.1.8; 4.3.2.1.2.2). **46-15 danza da saltu:** ‘eta’, ik. 1-16 *da*. **46-17 parleteetea:** ‘berriketan aritu’, erdal *parlotear* aditzetik datorrenez *parleteetea* zuzendu behar dela irizten dugu; hala ere, jatorrizko bertsioarekiko (...*parleria sin acierto*... Marsal 1727: 438; cf. § 4.3.1.1) gurutzaketa izanik, bere horretan ustea erabaki dut. || *golotro:* ‘jatun, sabeltzain’, hapaxa dugu, ziurrenik erdarazko *glotón* hitzatik eratorria, *muta cum liquida* segida bokal anaptiktiko baten bidez hautsiz; alalbaina, amaierako *-tro* azaldu gabe geratzen zaigu. || *yriquiten:* ‘irakiten’, aditz-izena *-ten* atzizkiaz egina (cf. 44-155 *yriquetaebela*). **46-18 ardoac:** testuan Bizkaiko tradizioko *ardao* aldaera darabil (cf. 37-9, 37-15, 41-64, 46-40...); hala ere, *ardo* forma Añibarrok ere erabiltzen du lantzean behin eta Landuccik lekukotzen du Araban (Lazarragak baina, *ardao* darabil) (cf. *OEH*, s.v. *ardo*). **46-19 freuric:** ‘frenu, ahokoa’ (cf. 46-33, 46-37, 46-59...), birritan ageri den *frenu*-ren (cf. 24-114 *frenuec*) parean *freu* formaren 6 adibide ditugu: aldaera hau Arabako euskararen (Lcc. eta Laz.) lekukotzen du *OEH*-k (s.v. *frenu*), baina bizkaian ez da ezezaguna ere, Astarloak ere baitarabil.

46. *Bostgarren viciyo capitala: Gulea*

blasfemiye eta proximuen honrra eta fameen contraco verbac. Guerorengo guleen
alavea da ymundiciye, seinec causetan daben aoco asitutasune, <400> sein, esan eben
legues profeteac, da sepulture ydigui bet: *sepulchrum patens est gut[t]ur eorum*; eta
vomitetan daude, segaitic onec es euqitarren medideric yatean eta es ainguichi edatean,
25 esin sufriduric euren estomangiic demasiye, eracusten dau bere carguea aoti, estau
euqui gure barruin ordic bere jangoico Bacoa eta botetan dau campure. Da pecatu
mortala ordiqueriye, advertiduric lar edateagas privetan danean usodeerrazoareanic,
segaitic Letra Sagraduitan contetan da au viciyoau Ceruco erreinureanic privetan
daudeneen artean; alan San Pabloc: *neque ebriosi regnum Dei possidebunt*. Da bere
30 pecatu mortala provoquetea bere proximue lar edatera ordituiteco intenciñoeagas,
segaitic au de cooperetea proximuen gacheraco eta bere pecatuen autore eitea. Viciño
onen contrariyoa da abstinenciye, sein den templanseen especi bat. Da templansea
animuin afecto bat, seinec iminten dusen freue apetituri, orregaitic esaten eben San
Agustinec: “templansea da sentiduen guardea, castideden defensea eta lasu ederra,
35 seinec estutuiten animu beten bacosotasune honestidedeagas.” Abstinenciye da virtute
bat sein, dala mediante gastetasuneco loreac, emaiten ditus edade solico frutuic; seinec
templetan daben gasteen ardorea eta iminten dau freues; sein isen din visiosoa, da
templansea provechosoena naturelesensat eta Jangoicoen providenciyes conforme,
segaitic munduen principiyoan imini ebesan Jangoicoac yturric edateco eta arboleen
40 frutuic yateco. Ba[da] ardaoa topadu eben Noe justoac Diluviyo yguero asquero. Da
templanseas conforme es emaita gorpuseri escatuiten daben gustiye euqui arren
ocasiñoea, segaiti bisi bear dogu es yateco, espada yan visi yseiteco. Pistiyac yaten
daude betetartean: bere orduin yatea eta es osteransean. <401> Templansa onen frutea
isengo da egotea beti disponiduric oraciño eiteco, estudiyetaco edo tratetaco edosein
45 gause: au ysengo da seure buruen yaube iseitea veti.

46-23 *ydigui*: ‘ireki’ (cf. 5-26, 6-38). **46-25** *demasiye*: ‘gehiegikeria’ (gazt. *demasia*). **46-26** *Bacoa*: Bako jainkoa, Erromatarrentzat ardoaren eta delirio mistikoaren jainko. **45-30** *edatera*: mendebaldeko hizkeretan mugimenduzko aditzekin aditz-izenak inesiboan erabili ohi badira ere, ez dira adibiderik falta adlatiboan ere (cf. 1-65 *erostera*; § 4.2.4.8). **46-33** *iminten dusen*: irakurketa ez da garbia matxa bat dela eta; hau litzateke sermoitegiko *dutsen* erako adibide bakarra, baina ez dugu *d[e]usen* zuzendu halako adizkiak ez direlako ezezagunak mendebaldeko testuetan (ik. Ulibarri 2008a: 195). **46-35** *bacosotasune*: ‘baretasuna, lasaitasuna’ (cf. 12-110 *bacoso*). **46-36** *solico*: ‘helduko, onduko’, *zori* adiera honetan ez da bizkaikotzat lekukotzen *OEH*-n; alabaina, *zoli* aldaera Añibarroren hiztegitotzat dakar, eta Azkuek Orozkon lekukotzen du (*OEH*, s.v. 2 *zori*). **46-37** *sein isen din*: ‘ez izateko’, *zein* ezezko partikula legez erabiltzeaz, ik. 1-118 *sein yausi gaitean*; cf. 21-12, 26-78, 33-78... **46-40** *Ba[da]*: cf. 1-60, 1-85, 1-112... lerroz salto egiten du baina nonbait ahaztuko zitzaien *da* idaztea. || *Diluviyo*: objektua mugagabea dakar, beste pasarte batzuetan ikusi legez (cf. 41-94 *guedar ensun eguiyesanean*). **46-42** *segaiti*: hau bezalako *-k* gabeko motibatibo atzizkia 6 adibideetan baino ez dugu aurkitzen sermoitegi osoan zehar ik. § 4.2.2.2.

46. *Bostgarren viciyo capitala: Gulea*

Dauquenac usensea ordituiteco acarretan deuso vere gorpuseco osasuneri eta arimecoari dañuric asco ordiqueriyas ostean, seinsuc bear deudesan acusedu; eta onec esin absolvidu leis usencea dauquen artean ordituiteco, eta ordiric dagoanari esin administredu leyo viaticue necesitedu arren. Ha gulea, gulea, seinbet dañu eta
50 yqueragarriscoac, es bacarric arimeari bati bere gorpuseri! Ensun eguisu Espiritu Santuiri: *in multis escis erit ynfirmitas*. ‘Yatecoen eta edatecoen abundanciyen ysengo dire gasoac’. Eta se gaso? Gaso genero gustic: colicac, perlesiyac &a. San Juan Chrisostomoc diño gulea, betetea yatecos gorpuse, dala peste eta enfermedadede gustiyan principiyoa: *satietas pestis est, morborum omnium origo*; da ascori quensaiten deunso
55 bisisea leen besen leen, diño San Ambrosiuc. Baye au esta guleen gachic andiyeena, segaitic iseitea enfermedaden principiyoa, laburtuitea visisea eta ascotan quensaitea de[r]repente dire gach corporalac; andiyeena da arimeco gacha, eta au noc expliquedu al leique? Noc pondera al leique demoniñoac dauquen poderiyo andiye gulosoetan eta orditan? Vincencio Belbacensec diño dala au biciyo au Deabruen freue eta cabrestue,
60 iminten deuso àoan eta ydunean eta alan encabrestauric daroa noragure. Cabrestuigas eta freuegas daroa Deabruic nora antojetan yacan: basuetan yocoetara, beste basuitan deshonestidedera, beste basuitan codicira, beste basuitan ira edo enojure, naguitasunera; eta, esateco berba baten San Gregoriugas, gulosoas basara edo ordiye paseetan yasu Demoniyo viciu genero gustitati: *ex uno vitio gulæ innumera vitia producuntur*. Eta
65 onelango genteac, <402> seinsuques dauquen Demoniñoac adinebeste poderiyo, seen beguire dagos? Enmendatuiten espadire, condenaciñoa beste ascoc edo an daben castigüe viciyo onegaitic; eta seure desgraciyegaitic condenetan basara, selan ygueroco dosu an?

Ensun eguiyosu jues dibinu sentenciyeuco satusenari (Luc.) *vea vobis, qui*
70 *saturati estio* ‘Ai suenac, betetan sareanac samaguiño’ diño. Eta segaitic? *quia esurietis*

46-47 *dañuric asco*: *asko* partikula partitiboarekin darabil egileak, gutxiengoan bada ere (cf. § 4.2.4.1). **46-48** *usencea*: ‘ohitura’ (gazt. *usanza*). **46-50** *bati bere*: ‘baita ere’; aldaera hau birritan agertzen zaigu sermoitegian (cf. 2-46 *bati bere* eta 46-88 *bate bere*); beraz, badirudi aldaera ezezagun baten aurrean gaudela (cf. § 4.2.5). **46-52** *colicac*: ‘kolikoak’ (gazt. *cólica*). || *perlesiyac*: ‘giharren ahultasuna’ (gazt. *perlesía*). **46-54** *deunso*: sermoitegiko zenbait adizkietan agertzen den *-n-a* erroaren inguruan ik. 4-120 *eunquesan* eta 7-43 *deingunset* (cf. § 4.2.3.10). **46-55** *leen besen leen*: ‘lehen baizen/bezain lehen’, (cf. 13-124 *leen besen leen* eta 24-103 *besen*) *baizen* edo *bezain* partikulen aldaera izan daiteke (cf. § 4.2.5); lehengoaren kasuan behintzat, *bizen* formapean ere baduguna (cf. 10-115 *esan bat bisen*). **46-59** *Vincencio Belbacensec*: ik. 40-178 *Vincencio Velvacensec*. || *cabrestue*: [r] hotsaren metatesiaz *muta cum liquida* talde berria sortu da. ik. 2-17 *yntrepretetan*. **46-60** *noragure*: ‘nahi duen tokira’, gutxi dokumentaturiko hitza testu zaharretan, Añibarroren hiztegiiko adibidea baino ez dakar *OEH*-k (s.v. *noragura*). *Demoniyo*: subjektu iragangaitza mugagabearen ematen du (cf. 21-45 *gustu claru*). **46-65** *seen*: *r* gabeko genitiboaren gisara eraturiko galdetzaila (cf. 12-111 *noen*); dagoeneko Kapanagak (*zeen*) eta Mikoletak (*zen*) lekukotzen dutena (*OEH*, s.v. *zer*). **46-70** *samaguiño*: ‘leporaino’.

46. *Bostgarren viciyo capitala: Gulea*

‘segaitic euquico dosue gosea’. Eta se gure isengo da au? Lelengo amenazetan deuse juez dibinuic, aun vizise onetan, gozeagas experimentadu dauden legues ascoc euren gulea eta ordiqueriyac gaitic gueratuiten direala pobre, cumplitan dala euretan Espiritu Santuic diñoena: *qui diligit epulas in egestate erit*. Bigarren padeciduco deude, aun mundu onetan, gose espirituala, segaitic esteuse Jangoicoac bere areriyoai legues emongo auxiliyoac bota eudesalaco euren arimereanic Espiritu Santuen saspi doeac. Diño San Antonino de Florenciac: *septem dona Spiritus Sancti ex gula ruunt*. Yrugarren ysengo dire botac Ynfernure gulosoac, ordiyec, non padeciduco dauden goze yqueragarriscoa; onegaitic berba eiten dau principalmente Texto Sagraduic, “eta chacurren gosea” diño Davidec: *famem patientur ut canes*. Eta noc expliquedu a[
75 leique au gozeau? Pensestan dosu, christiñeue, ã gozea dala munduin padecitan dan leguesco gosea? Gose andic ecusi dire munduin, estago duderic. Jerusalenen urrean padecidu sen aèn gose andiye, segun contetan daben Josepho (*De Antiquitatibus*), se obliguedu ebesan amac yaten euren semeac. San Ambrosiuc diño Alemanin padecidu
85 sela aèn gose andiye se visiyec desenterretan eudesala ilec yateco erdi ustelduric. Baye gose gusti onec, isen arren yqueragarriscoa, Ynfernuc gosen aldean esan guiñei direala appetitue eta aun descansue. Gueiyego: <403> es bacarric gose errabioso, padeciduco daude bate bere egariye ordic Ynfernuin, eta padeciduco dosu suc ara basoas; estago miric ponderadu leiyenic ango egarri errabioso. Baye es isenic bastante
90 verbea entenditan emaiteco au egariyeu, emon leique edosebere entenditan discursuic. Ondo erreflecciñoea eiten bada egarri se asco atormentetan daben emen bat amabost eguneco calentureagas edo guichigocoagas egonic; eta Betuliye genteac (seinsuc euquesan cercauric Olofernesec) guedar eiten eiyeuden bost eguneco uren falteagaitic,

46-72 *vizise*: oro har <s> darabil euskal txistukari guztiak islatzeko (cf. § 4.2.1.4), baina lantzean behin <z> aurki dezakegu zenbait adibidetan. **46-82** *Jerusalenen urrean*: ‘Jerusalenen setioan’, (cf. *En el cerco de Jerusalem...* Echeverz 1728: 335; cf. § 4.3.1.1); adiera honekin ez da lekukotzen euskal tradizioan (cf. *OEH*, s.v. 2 *hur*) eta hauxe dugu adibide bakarra; beraz, ez dakigu benetan adiera horrekin erabiltzen duen ala gaizki itzulitako pasartea ote den. **46-83** *Josepho*: Tito Flavio Josefo I. mendeko jatorri juduko historialari erromatarra. **46-88** *bate bere*: ‘baita ere’; aldaera honen adibide bakarra da hau, baina birritan agertzen zaigun *bati bere* (cf. 2-46 eta 46-50 *bati bere*) aldaera gogorarazten digu. Bakarra izanik, ezin dugu erabaki akatsa ote den (*bate* > *bati* edo *ba[i]te* zuzenduz), edo beste aldaera baten aurrean ote gauden: bigarren aukera honen indargarri genituzke *nire* (33-4), *bide* (1-147), *bailerean* (10-117), *letequean* (15-138), *aguire* (26-124) edo *urregorre* (44-156) bezalakoak; hizkeran *e* – *i* artean gertatzen diren hainbat txandakatze, metatesi edo asimilazioen adibide izan daitekeela, berean ustea erabaki dugu. **46-91** *Ondo erreflecciñoea*: ondo izenaren aurretik, cf. *OEH* s.v. *ondo*: “Gure artean askok ondo premia daukate” (Cb *EBO* 30). **46-92** *Betuliye...* *Olofernesec*: Biblian aipatzen diren Betulia hiria eta Holofernes pertsonaia, biak *Judithen liburuan* aipatuak. **46-93** *eiyeuden*: ‘ei euden, omen zuten’, *ei* eta *euden* artean bilakabide fonetiko bat gertatu (cf. 11-65 *gueiyete*).

46. *Bostgarren viciyo capitala: Gulea*

ygore leguiyesala acuchillo, segaitic gurago eudela il eguiyesan espateagas seinde
95 egarrigas. Bada, amabost eguneco calenturen egariyec, bost eguneco egariyec uren
falteagas adinebeste tormentu causetan badau, ser isengo da amabost urteco
egariyegas? Ser isengo da amabost millecoagas? Ser isengo da amabost milloecoagas â
ardore ynfernalgas, non estan ongo ur tilinque bat miñe bustiteco? Ser derechasu
guloosa, ordiye? Atreviduco sara padecitan ango gosea, egariye eternamente eta, jaune,
100 esta an ongo ser yan eta edan Ynfernuin? Sure aliviuraco es, espada tormentu
andigoraco; eta baquisue ser? Dragoen beastunec eta aspidesen venenoa: *fel draconum
vinum eorum et venenum aspidum insanabile* diño Espiritu Santuic. Eta yatecoa ysengo
da David profeteac diñoean leguescoa: *Ygnis et sulphur et spiritus procellarum pars
calicis eorum*. Tempestadeen espirtuic, onec dire demoniñoac figure
105 iqueragarriscoacas: ya serpienteen figuran, ya sapoen figuran, ya sugueenean azufresco
suen mezclauric. Au ysengo da condenaduen yatecoa, especialmente guloosena eta
glotoena; bada, gure estaudela sartuco deusees sugueac eta sapoac aoti eta yango deuses
guibelac eta viozac. Eta nosic nosera emongo deuse edaten, metalesco vasuitan
dasaquela, aec Ynfernuco ardao generosoac, seinsuc dagosan <404> componiduric
110 dragoen beastunecas, aspidesen venenoacas, plomo urtuigas eta uy dasacanagas. Onec
tormentuc padeciduco dosus eternamente guloosa, ordiye, Ynfernuin, espadeusesu
echiten ecandu deungueoneri, enmendatuiten espasara eguinic penitenciye bisi sarean
artean. Eta alan, erremediyo viciyo onen contracoa da templanzea, yrecasten deuscun
legues doctrineac. Templansea, templanzea yatecoan eta edatecoan; eta ser da
115 templansea? Templansea da imintea freue yatecoan eta edatecoan, experimentetan
direan deleiteay eta gustuei eta euren excesoai. Eta selan practiqueduco da edo exerciteu
au virtuteau? Ensun eguisue selan irecasten deusen Jangoicoac Ezequiel profeteari, eta
veratan guri: *Cibus tuus quo vesceris erit in pondere, et aquam in mensura bibes*. “Ea
Ezequiel, isen sates templadue yatecoan, eta alan seure yatecoa pisetuco dosu es
120 appetituen pisuigas espada errasoenagas; artuco dosu necesite[du] dosun alimentue
sustentetaco, eta es gueiyego: *in pondere*. Eta ure edango dosu medideagas, necesitetan

46-94 *ygore leguiyesala acuchillo*: ‘ezpatan igaro zitzatela’, hauxe da *igore* aldaeraren adibide bakarra, beste guztiak *igero* genituzke (ik. 1-45, 10-107, 11-25... orotara 43 adibide); hala ere, egitura zehatz batean ageri denez, horrela uztea iritzi dugu. **46-98** *ongoo*: ‘egongo’ ik. 6-52 *ongoo da*. **46-101** *Dragoen beastunec*: ‘dragoien behazunak’. mendebaldeko formapean (cf. *OEH*, s.v. *behaztun*). **46-109** *dasaquela*: (cf. *dasacala* 23-82 eta *dasacanegas* 46-110) ‘dazakatela, erretzen dutela’, *izegi* aditzaren trinkoa dugu. **46-110** *uy dasacanagas*: (cf. *dasacala* 23-82 eta *dasaquela* 46-109) ‘erretzen duen bikea’, erlatibo esaldia izenaren ostean. **46-118** *veratan guri*: ‘bere bitartez guri’. **46-120** *necesite[du] dosun*: lerroa amaitzeaz zela hurrengo lerroa egiten du saltu, baina nonbait ahaztu zitzaion *du* idaztea (cf. 10-109 *sucedi[du]*).

dosune socorritaco, se ure necesidedea eta es gueiyego: *et aquam in mensura bibes*. Ea christiñeuec, dago claru au errecetau? Gure dau Jangoicoac yan dila samaguño betetartean ala yan dila templanseagas? Gure dau edan dila medide bagaric ala medideagas? Aun ure, ure gure dau edan din medideagas, necesite[ta]n dana bisen es; estago beguiretu bisen ser ysengo da ardaoagas? Ser esango daude onetara gulosoac eta edaleac? Baye onec badauque euren jangoicosat tripea, ser esango daude? Gurago daudela eguin euren jangoicoac, euren tripeac, escatuiten deusena seinde Jangoico eguiyescoac aguinduiten deusena. Eurec ecusico daude veste visisan eternidedecoan.

130 Ecusi deigun ser diraosan Jangoicoac Profeteari yateco, acaso diraosu yan daguisela capoeac, olloac, pichoeac eta osteranseco erregaluic? Es. Bada, se alimentu modu señaletan deusen Jangoicoac Profeta <405> oneri: *Sume tibi, diraoso, frumentum et ordeum et fabam et lentem et milum* ‘sure yatecoa isengo da oguiye, nai dela gariyeena nai garagarreena, eta beragas yango dosu babea, lentejea edo artasea’. Aremen

135 Jangoicoac señaletan deusesan alimentuic profeta bateri, Ezequieli; guison laboriosoa isenic eta necesitetan ebesana alimentu sustenciye andicoac conservetaco vere inderrac, trabajetaco erreducitan edo convertitan ysraelita tercoac. O gueure confusiñoea! Contentetan da Ezequiel oguigas eta egosarigas, eta orain adinebeste deseetan direala capoeac eta osteranseco erregaluic! Ezequiel ure edaten, eta au medideagas, eta orain

140 asco ardaoac edaten medide bagaric galsaitartean euren sesoa! Ezequiel eta beste virtuoso asco gordetan abstinenciye, templansea eta beste asco golosoac eta ordiyec! Onec daroe Ynfernuc bidea, nora elduco direan espadeuse echiten viciyo oneri, non isengo da euren yatecoa serpienteac, sugueac, sapoac eta edatecoa dragoen beastunec eta osteranseco beneno genero gustiye llamatan. Ensun eguisu exemploau: contetan dau

145 Cesarioc Coloniyecco ciudadean il sela guison bat edale andiye, seinec echi eben munduonetan alaba bat. Onec encomendetan eben aldin bein bere arimea, eta oraciño eiten egonic beragaitic egun beten, aguirtu yacan derrepente bere aite llamas beteric, yqueragarriscoa, escuin ebela basu andi bet eresequiric. Bere alavea espantadu basan bere ecusiric, orregaitic euqui eben animue preguntettaco vere aiteri segaitic condenadu

150 sen eta ser euquen basu atan? Eransun eusen aiteac: “Yaquin eguisu condenadu nasala goloso eta edallea iseiteagaitic, eta vasu onetan dagos dragoen veastunec, veneno

46-125 *edan din*: ‘edan dadin’, euskara zaharreko asimilazio eta uzkurduraz (cf. Lakarra 1986: 661). **46-134** *artasea*: ‘artaxehea, artatxikia’. **46-138** *egosarigas*: ‘lekalea, egoskaria’, testu zaharretan aurkitu ez arren, aldaera sartaldeko bizkaieran lekukotzen da. **46-140** *sesoa*: ‘burua, zentzua’ (gazt. *seso*). **46-145** *Cesarioc*: ik. 16-58 *Cesarioc*. **46-151** *edallea*: ‘edalea’ (cf. *edale* 46-127 eta 46-145), <ll> aldaera mendebaldetik urrun dokumentaturik da (*OEH s.v. edale*); azaltzeko bidea litzateke *-n* aditzetan ageri den *i* (cf. *emon* > *emaile*) proposatzea edo formak adierazkortasun zio bat izatea (cf. 25-41 *estalguilla*).

46. *Bostgarren viciyo capitala: Gulea*

genero gusticas, llamatan eta au isengo da nire edatecoa eternamente. Au esan eta edan eben vasu ynfernaloreanic, eta verlan desaparecidu sen areanic. Esan ecusi gueiyego, echi eben bere alava yqueraturic eta gulosoai eta ordiyei abisue eta escarmintue echi eusen.

155

46-153 *areanic*: ‘handik’, 3. graduko erakuslea –*reanik* atzizki pleonastikoaz (cf. § 4.2.2.1).

399 6 *cumplitaco*: -taco ez da ondo irakurtzen. || *eitten*: -tt- ren azpian *n* irakurtzen dugu. 10 *eitten*: -tt- ren azpian *n* irakurtzen dugu. 11 *lelengo alavea guleena*: gainean gehiturik. || *Entorpecitan*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. 12 *guloso*: gainean gehitua. 14 *Guliyen*: ez da ondo irakurtzen, *Guleyen* ere izan daiteke; bestetik, ez dakigu *y* tatxaturik dagoen, orduan *Guleen* izango litzateke. 19 *estauco*: gainean gehitua. 21 *blasfemiyec*: *blasfemiyac* ere irakur daiteke. 22 *da*: aurretik tatxoi bat du, *Yn*? **400** 25 *demasiye*: leh. *demasie* || *eracusten*: jat. *erascuten*. 31-45 *Viciño onen contrario...iseitea veti*: Pasarte hau karratu baten barruan dago. 33 *animuin*: *animuen* ere izan daiteke, *i*-ri ikusten diogun puntua, goiko *y*-rekin loturik baitago. || *d[e]uson freue*: ezin da lehenengo hitza ondo irakurri, *duson* hori tinta mantxa batek estaltzen baitu. Bestalde, *freuc* ere izan daiteke bigarren hitza. || *apetituri*: leh. *apetituiric*, hurrengo koma erabiltzen du *c* hau tatxatzeko. || *orregaitic*: aurretik tatxoi bat dauka, *gaitic*? 35 *estutuiten*: leh. *estuiten*, *tu* gainean gehitua. 37 *dau*: leh. *da*, *u* gainean gehitua. 38 *naturelesensat*: leh. *natureleensat*, *s* gainean gehitua. **401** 43 *Templansa*: leh. *Templasa*, *n* gainean gehitua. 45 *ysengo da*: *e* hori mantxa batek estaltzen du. 50 *eguisu*: *s* mantxa batek estaltzen du. 55 *besen*: leh. *bsen*, *e* gainean gehitua. || *Ambrosiuc*: leh. *Ambrosuc*, *i* gainean gehitua. 56 *enfermedaden*: jat. *enfermedadem*. 60 *Cabrestuigas*: leh. *Cabestuigas*, *r* gainean gehitua. **402** 66 *condenaciñoa*: azken *a* gainean gehitua, honen azpian -*en* dugu, tatxaturik. 72 *experimentadu*: jat. *experimentada*. 77 *septem*: jat. *septen*. || *Spiritus*: *S* azpian *Es*-irakurtzen dugu. 80 *Daivedec*: jat. *Daived*. 83 *daben*: gainean gehitua. 84 *diño*: gainean gehitua. **403** 91 *egarric*: gainean gehitua. 92 *Calentureagas*: leh. *Calentureac*, *g* azpian *c* irakurtzen dugula eta *as* gainean gehitua. || *guichiagocoagas*: leh. *guichiagocoac*. 93 *guedar eiten*: aurrean tatxoi bat dauka, *esaten*? 94 *acuchillo*: gainean gehitua. || *gurago eudela*: gainean gehitua. 95 *calenturen*: gainean gehitua. 96 *badau*: komaren azpian ? ikurra irakurtzen dugu. 98 *â ardore Ynfernalagas*: aurretik *A Calentu[re]ja*, tatxaturik, eta amaierako *a*, erakusle bezala erabilia. 99 *padecitan*: gainean gehitua. 108 *viozac*: aurretik tatxoi bat, irakurrezina. **404** 112 *ecandu*: jat. *ecande*. 114 *yatecoan*: leh. *yatecoa*, *n* gainean gehitua. 115 *edatecoan*: leh. *edatecoa*, *n* gainean gehitua. 117 *Ezequiel*: leh. *exequiel*, *z* azpian *x* irakurtzen baitugu. 119 *Ezequiel*: leh. *exequiel*, *z* azpian *x* irakurtzen baitugu. 120 *necosite[du]*: lerro amaieran egonik, egileari ahazturiko zatia dateke. 121 *sustentetaco*: aurretik tatxoi bat dago, *es gueiyego*? || *pondere*: leh. *ponde*, *re* gainean gehitua. 129 *daude*: leh. *dau*, *de* gainean gehitua. 130 *Jangoicoac*: leh. *Jangoicoa*, *c* gainean gehitua. Bestalde, *g* hori mantxa batek estaltzen du. 131 *osteranseco*: leh. *osteranse*, *co* gainean gehitua. **405** 132 *diraoso*: leh. *din*, *r* azpian *n* irakurtzen dugu. 137 *trabajetaco*: jat. *trabejetaco*. || *confusiñoa*: *a* azpian -*na* dago idatzita. 138 *Contentetan*: leh. *contetan*, *ten* gainean gehitua. 139 *osteranseco*: leh. *osteran*, *seco* gainean gehitua. 146 *eben*: gainean gehitua. 147 *egonic*: gainean gehitua. || *aite*: gainean gehitua. 148 *alavea*: gainean gehitua. 149 *preguntetaco*: *tt* azpian *u* irakurtzen dugu. || *aitery*: *y* azpian *e* irakurtzen dugu. 154 *yqueraturic*: leh. *yqueratu*, *ric* gainean gehitua.